

BERTSOLARITZAREN HISTORIA: HEDABIDERATZEA, ERAGILETZA ETA PROIEKTUA (1823-2018)

Ahots subalternoaren bizi-indarraren
testigantza bat

Antxoka Agirre Maiora

DOKTORE TESIA

Zuzendariak: Txema Ramirez de la Piscina eta Simon Peña Fernandez



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Kazetaritza II Saila
Leioa, 2019

*Aloñari,
bere ondoan beti etxean sentiarazten nauelako.*

*Eta etxekoei.
Ama Itziar, anaia Eneko, eta amona Maria Luisa zenari,
ezagutu dudak kontalaririk onena.*

ESKERTZAK

Lan honetan izan dudan hainbat bidaideri eta bere laguntza eskaini didan jende guztiari eskerrak eman beharrean aurkitzen naiz. Bakar-lan asko eskatzen du horrelako ikerketa batek, baina elkarlana funtsezkoa suertatzen da.

Hasteko tesiaren bi zuzendariei, Txema Ramirez de la Piscinari eta Simon Peñari, emandako aholkuengatik eta lanaren gorabeherekin erakutsitako errespetuagatik. Txemari baita HGH ikerketa taldeko atea irekitzeagatik, hortik zehar egindako kongresu akademikoetan elkarrekin pasatako momentuengatik eta ikerketa honen gaia proposatzeagatik ere.

EHUko Kazetaritza II Sailari, eskainitako aukerengatik. Iñaki Lazkanori, Imanol Muruari, Aingeru Genauti, berriro Simon Peñari, Terese Mendigureni, Leire Iturregiri, Iñigo Marauriri, Miren Rodriguezi, Itxaso Gomezi, Koldo Mesori... bakoitza bere modura abegikor azaldu eta uneren batean babesleku izateagatik.

Bereziki mila esker Maria Ruizi, tribuaren eremuetan barrena, eta baita hauetatik kanpo ere, konplize umoretsu bezain lagun ona izateagatik.

Patri Urkizuri, testu zaharretan arakatzeko pistak oparitzeagatik. Joxe Mari Iriondori, gordeta zeuzkanak eskuzabaltasunez eskaintzeagatik. Edu Apodakari teoriaren inguruan laguntzen saiatzeagatik, eta Harkaitz Zubiri, Jexux Murua, Esti Esteibar eta Xabi Payari, argitaratu gabeko euren lanak pasatzeagatik. Denak izan dira lagungarri.

Galderak egiten erabat asmatzen ez banuen ere erantzuteko sekulako prestutasuna erakutsi duen hainbat laguni. Tesirako elkarrizketatu ditudan guztiei, Koldo Mitxelenako langileei, Leioako Hemerrotekakoei, Baionako Mediatekakoei eta Xenpelar Dokumentazio Zentrukoei.

Frantsesarekin, ingelesarekin eta alemanarekin ditudan hutsuneak osatu dituen ekipo bikainari: Eneko Agirre, Irune Zulaika, Agosti Aranburu eta Joxean Agirre. Aitari eskerrak baita bertso-munduarekiko interesa piztu eta kazetaritzaren harra sartu izanagatik ere.

Elkarrizketen dozenaka ordutako grabazioaren transkribapenean laguntza bat eman didaten Aitziber Salinasi, Iker Zubimendiri eta Ilargi Agirreri.

Testuak izan duen orrazketarik fin eta animosoenagatik estimatzen zaiola Urtzi Gorostiagari. Pelukeraren semea izan behar. Hi bai laguna.

Zezenia Herradorri *Bertsolari* aldizkariaren hustuketarekin laguntzeagatik. Eta Beñat Hach Embareki bitarte honetan guztian aldizkariari eusteko erakutsitako grina eta gaitasunagatik.

Azkenik, berriro Aloña Salinasi. Pazientzia eta bizi-poz erraldoiengatik.

AURKIBIDEA

1. SARRERA

- 1.1 ATARIKOA 20
- 1.2 IKERKETAREN HELBURUAK
 - 1.2.1 Bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren historia 24
 - 1.2.2 Bertsolaritzaren eragiletzaren historia 25
 - 1.2.3 Bertsolaritzaren historia sozialari ekarpena 25
 - 1.2.4 Euskal kulturaren bilakaeraren singularitasuna 25
- 1.3 Hipotesi eta iker-galdera nagusiak 26
- 1.4 METODOLOGIA
 - 1.4.1 Kuantitatiboa: historia seriala 30
 - 1.4.2 Kualitatiboak: elkarrizketa sakonak 37
 - 1.4.3 Mistoa: kasu azterketa 39

•

2. MARKOA ETA ANTOLAKETA

- 2.1 IKERGAIAREN EGOERA
 - 2.1.1 Bertsolaritza eta hedabideak 42
 - 2.1.2 Bertsolaritzaren soziologia 44
 - 2.1.3 Euskal herriko kazetaritzaren historia 45
 - 2.1.4 Bertsolaritzaren historia 45
 - 2.1.5 Euskal kulturaren bilakaera 46
 - 2.1.6 Bertsolaritzari buruzko tesiak eta graduondoko lanak 47
- 2.2 MARKO TEORIKOA
 - 2.2.1 Planteamendu orokorra 49
 - 2.2.2 Hedabideak modernitateko kultur transformazioetan 50
 - 2.2.3 Kultur ondarearen moldaketak eta etnosinbolismoa 53
 - 2.2.4 Subalternitatearen korapiloak 56
 - 2.2.5 Elkarrekin uztartzen diren historia kulturalak 60
- 2.3 PROZESU HISTORIKOAREN ANALISI ETA ANTOLAKETARAKO IRIZPIDEAK
 - 2.3.1 Testuinguru zabalak, kontakizun historikoa eta testuen bildumak 61
 - 2.3.2 Eredua: J.B. Thompsonen kulturaren eta hedabideen azterketa 62
 - 2.3.3 Gandara: Thompson ahozko ondarearen moldaketetara ekarrita 63
 - 2.3.4 Testuingurua 65
 - 2.3.5 Oihartzuna 66
 - 2.3.6 Proiektua 66
 - 2.3.7 Zikloak 67

•

3. KULTURA POPULARRA LEHEN MODERNITATEAN ETA LEHEN EUSKAL PIZKUNDEAN

3.1 LEHEN MODERNITATEAK EKARRITAKO HAUSTURA

- 3.1.1 Eliteen bestekotzea 70
- 3.1.2 Ertzetan muturrera eramandako fenomenoa 72
- 3.1.3 Euskal kulturaren bestekotzea 73

3.2 ERROMANTIKOEN DESKUBRIMENDUA

- 3.2.1 Kolonietarako bidaiak: exotismoa eta primitibismoa 76
- 3.2.2 Erromantikoen erreakzio antimodernoak 77
- 3.2.3 Basati ona 78
- 3.2.4 Euskal kulturaren deskubrimendua: hizkuntzalariak, antropologoak eta euskaldun basati ona 78

3.3 KULTURA POPULARRA ETA HERRI KULTURA

- 3.3.1 Nazio-estatuak ordena modernoaren eraketan 81
- 3.3.2 Hizkuntzen digestioa 83
- 3.3.3 Ertzeko komunitateen erreakzioa eta eragiletza 86
- 3.3.4 Bi olatutako Lehen Euskal Pizkundea 87

3.4 KULTURA POPULARRA IKUSKIZUN HEDABIDERATU

- 3.4.1 Hedabideen papera kultur transformaziotan 89
- 3.4.2 Kultura popularra ikuskizun moderno 91

3.5 BERTSOLARITZA ETA LEHEN EUSKAL PIZKUNDEA

- 3.5.1 Tradizioa euskararen azken gotorleku 93
- 3.5.2 Tradizioa eta modernitatea euskal kulturgintzaren eragiletzan 94
- 3.5.3 Bertsolaritzaren garrantzia Lehen Euskal Pizkundan 96
- 3.5.4 Bertsolaritzaren lehen praktika modernoak 98
- 3.5.5 Bertsolaritza hedabideratzeko bide gisa 99

•

4. LEHEN ZIKLOA: LEHEN ENTSEGUA LORE JOKOETAN. DESKUBRIMENDUA. PRENTSA.

4.1 TESTUINGURUA: ERREAKZIO KULTURALA ERAKUNDEEN GAINBEHERAREN AURREAN

- 4.1.1 Bestekotze prozesu luze baten ondorena 101
- 4.2.2 Oldarra euskal erakundeei eta euskarari 102
- 4.2.3 Atzerriko begiradaren hauspoa eta erreakzio kulturalista 104

4.2 AURREKARIAK I: BERTSOLARITZAREN HISTORIAKO LEHEN LERROAK

- 4.2.1 Villabonako desafiotik hasita 106
- 4.2.2 Juan Inazio Iztueta, lehen euskal folklorista (1767-1845) 108
- 4.2.3 Bertsolaritzarekiko jarrerak XIX. mendearen lehen erdian 110

- 4.3 AURREKARIAK II. PRENTSAKO LEHEN LERROAK BERTSOLARITZAZ
 - 4.3.1 Testu zaharrena: Etienne Boucher de Crèvecoeurren 'Souvenirs' (1823) 112
 - 4.3.2 Etxahunen epaketan kronikak: 'Assasinat commis par méprise' (1828) 114
 - 4.3.3 Bertsolari baten figuraz lehena: Jean Baptiste Chahok Etxahun (1838) 116
 - 4.3.4 Bertsolaritzaz propio idatziriko lehen artikulua: Duvoisinin 'Des basques et de leur poésie' (1841) 118
- 4.4 OINARRIA: ABBADIEREN IPARRALDEKO LORE JOKOAK (1845-1878)
 - 4.4.1 Chahok ereindako haziak 119
 - 4.4.2 Abbadieren lorategia 128
 - 4.4.3 Iparraldeko Lore Jokoen estaldura eta aldizkari baten proiektua 138
 - 4.4.4 Iparragire, lehen bertsolari mediatikoa (1820-1881) 140
 - 4.4.5 Bilintxen kalbarioa, lehen gertakari mediatikoa (1876) 143
- 4.5 GAILURRA: PIZKUNDE FORUZALEAK LEHEN ENTSEGUA (1879-1900)
 - 4.5.1 Hegoalderako pausoa eta biderkaketa (1879) 148
 - 4.5.2 Campionen 'Euskaro'ak eta Donibane Lohitzuneko 'Zazpiak bat' 150
 - 4.5.3 Manterola eta *Euskal-Erria* aldizkaria pizkundearen artikulatzaile 153
 - 4.5.4 Frontoitik antzokira, aipamenetik kronikara 156
 - 4.5.5 Bertsolaritza euskarazko kazetaritzaren lehen pausuetan 158
 - 4.5.6 Fernando Amezketarraren arrakasta: (1884-) 160
 - 4.5.7 Pedro Mari Otaño, ahoz baino, idatziz (1857-1910) 162
- 4.6 HAUSTURA: GARBIZALEKERIAK BAZTERRERA (1901-1917)
 - 4.6.1 Etxegarairen epaia (1901) 165
 - 4.6.2 Bertsolariaren gutxiespena 167
 - 4.6.3 Garbizalekeria Euskal Herrian, fenomeno arrunta Europan 169
 - 4.6.4 Etxahunen epaketarekin hasi eta Txiritarenarekin bukatu 171
- 4.7 OIHARTZUNA: LEHEN PAUSOAK PRENTSAN
 - 4.7.1 Emandako pausoak eta bilakaera 174
 - 4.7.2 Argitalpen eta sinadura nagusiak 177
 - 4.7.3 Gertakari eta protagonista mediatikoak 182
- 4.8 PROIEKTUA: KULTURA POPULARRAREN DESKUBRIMENDUA
 - 4.8.1 Nortasun modernoaren ikur eta ideologia modernoaren erroale 187
 - 4.8.2 Bilketa eta hedabideratzea 189
 - 4.8.3 Praktika modernoaren sustapena 191

•

- 5. **BIGARREN ZIKLOA: EUZKO PIZKUNDEKO ESTREINALDI ARRAKASTATSUA. PRENTSA (II), ERAIKUNTZA.**
- 5.1 TESTUINGURUA: PIZKUNDEAREN OLATU ABERTZALEA
 - 5.1.1 Euskal kulturaren lehen instituzionalizazioa 195
 - 5.1.2 Euskarazko kazetaritzaren eta irakaskuntzaren sustapena 197
 - 5.1.3 Tradizioa bersustraituz 199
- 5.2 OINARRIA: ARRETA BERRITUA BERTSOLARITZARI (1918-1934)
 - 5.2.1 Jarrera aldaketaren lehen zantzuak eta Mujikaren arrakasta 201
 - 5.2.2 Lekuonaren formulazio jantzia 203
 - 5.2.3 Makazagaren moldiztegia eta *Bertsolariya* 207
 - 5.2.4 Aitzolen hurbilketa 209
 - 5.2.5 Bertsoa irratian 215
 - 5.2.6 *Euzkadi*, lehen-ikusentzunezkoa 220
- 5.3 GAILURRA: ESTREINALDI ARRAKASTATSUA BI BERTSOLARI-GUDUEKIN (1935-1936)
 - 5.3.1 Txapelketa abiarazteko erabakia 223
 - 5.3.2 35eko txapelak eredu berria lehenetsi 229
 - 5.3.3 36ko txapelak bertso gintza klasikoaren aitortza 234
 - 5.3.4 Bertsolari eginiko lehen elkarrizketak 239
 - 5.3.5 Zubimendiren 'Bertsolari-Guduak' (1936) 245
- 5.4 HAUSTURA: GERRA ETA GERRAONDOKO TRISKANTZA (1936-1944)
 - 5.4.1 Txirritaren omenaldiko argazkia 246
 - 5.4.2 Argazki orokor batzuk 254
- 5.5 OIHARTZUNA: EREDU GARATUA PRENTSAN ETA LEHEN PAUSOAK IRRATIAN
 - 5.5.1 Emandako pausoak eta bilakera 259
 - 5.5.2 Argitalpen eta sinadura nagusiak 262
 - 5.5.3 Gertakari eta protagonista mediatikoak 267
- 5.6 PROIEKTUA: KULTURA NAZIONAL BATEN ERAIKUNTZAN
 - 5.6.1 Bertsolari-Guduak: Lore Jokoekin jarraidura 271
 - 5.6.2 Bertsolaria jantzi nahian: jaso nahiaren jarraidura 273
 - 5.6.3 Jarraidura bilketaren eta hedabideratzearen ardatzetan 275
 - 5.6.4 Ikur eta eroale 277
 - 5.6.5 Berrikuntza: bertso-eskolaren eta elkartearen ideien lehen zantzuak 279

•

- 6. **HIRUGARREN ZIKLOA: NEGUKO KANPAMENDUETAKO LANA FRANKISMO GARAIAN. IRRATIA, HAUSPOTZEA**
- 6.1 TESTUINGURUA: DIKTADURAREN ARRAKALETAN ERNATURIKO KULTURGINTZA
 - 6.1.1 De Vega: Txirritaren kronika sinatzetik euskararen ehorzketa aldarrikatzera 281
 - 6.1.2 Erabateko jazarpenetik bizitza begetatiboa onartzera 283
 - 6.1.3 Arrakaletan ernaturiko kulturgintza 284
 - 6.1.4 Bertsolaritzaren arrakala 286
- 6.2 OINARRIA: BERTSOLARITZA BERRABIARAZTEN (1945-1957)
 - 6.2.1 Hegoaldean Basarri 289
 - 6.2.2 Iparraldean Hernandorena 295
 - 6.2.3 1950eko hamarraldiaren bigarren erdiko bulkada berria 300
- 6.3 GAILURRA: BERRIRO ESZENAN EUSKALTZAINDIAREN ESKUTIK (1958-1967)
 - 6.3.1 Hernandorenaren txapelketen gailurra Parisen: lehen aldiz telebistan 305
 - 6.3.2 Euskaltzaindiak lau txapelketa nagusi zazpi urtean 310
 - 6.3.3 Markinako batzarrak: elkarte baten beharra eta *Bertsolari* aldizkari baten proiektua 318
 - 6.3.4 Auspoaren sua eta bertso-paperen azken hatsa 322
 - 6.3.5 Basarriren polemikak 327
 - 6.3.6 Eredu garatua irratian Loiolako Herri Irratiaren eskutik 332
 - 6.3.7 Lehen ikusentzunezkoak 339
- 6.4 HAUSTURA: PIZKUNDE BERRIA ETA BERTSOLARITZA SOZIALA (1968-1979)
 - 6.4.1 Testuingurua ere trantsizioan 346
 - 6.4.2 Txapelketa zikloaren haustura 351
 - 6.4.3 Gorbatarik gabeko bertsolariak 357
 - 6.4.4 Hedabideen alorraren irakinaldia 365
 - 6.4.5 Ikus-entzunezkoetan presentzia irabaziz 369
- 6.5 OIHARTZUNA: GAILURRA IRRATIAN ETA LEHEN PAUSOAK TELEBISTAN
 - 6.5.1 Emandako pausoak eta bilakaera 377
 - 6.5.2 Argitalpen eta sinadura nagusiak 380
 - 6.5.3 Gertakari eta protagonista mediatikoak 385
- 6.6 PROIEKTUA: BERRESKURATU, GORDE ETA HAUSPOTZEN
 - 6.6.1 Aurreko proiektuaren jarraitasuna: Basarri eta Hernandorena 394
 - 6.6.2 Ikur eta eroale: hasierako kamustasunetik distira berreskuratuzera 395
 - 6.6.3 Zavalaren proiektua: bilketaren dimentsio berria 397
 - 6.6.4 Presentzia mediatikoa biderkatzeko apustua 400
 - 6.6.5 Elkartearekin bueltaka Markinako batzarretan 401

•

- 7. KULTURA POPULARRA BERANDUKO MODERNITATEAN
ETA BIGARREN EUSKAL PIZKUNDEAN**
- 7.1 KULTURA POPULARRA ETA MASA KULTURA
- 7.1.1 Kultura popularra masa kulturaren erregai 403
- 7.1.2 Kultura mediatua eta tradizioaren bersustraitzea 405
- 7.1.3 Masa kultura eta euskal kultura: bertsolaritza berriro ere 408
- 7.1.4 Masa kultura eta ahozkotasanaren susperraldia 410
- 7.2 GIZARTE MUGIMENDUAK KULTUR ERAGILE
- 7.2.1 Gizarte molde berrien emaitza 412
- 7.2.2 Mugimenduotako komunikazioaren garrantziaz 415
- 7.2.3 Bigarren Euskal Pizkundeak ekarritako metamorfosia 418
- 7.3 BERTSOLARITZA BERSUSTRAITZEKO
MUGIMENDU AUTOERATUA
- 7.3.1 Bigarren Pizkundearen haritik I: Ikastolen uharatik bertso-eskolak 430
- 7.3.2 Bigarren Pizkundearen haritik II: Euskal kulturgintzaren ildotik
bertsolaritzaren gizarte mugimendua 437
- 7.3.3 Masa kulturaren murgiltzeko apustua: bertso-mundua
komunikazioaren garrantziaz 441
-
- 8. LAUGARREN ZIKLOA: MASA KULTURA ERAKUSTALDIA
GIZARTE MUGIMENDUAK. TELEBISTA, EZTANDA**
- 8.1 TESTUINGURUA: ERAKUNDETZE AUTONOMIKOAK
EKARRITAKO GARAPEN ETA KORAPILO BERRIAK
- 8.1.1 Euskal erakundearen berreskurapena: aukera berriak euskalgintzak 445
- 8.1.2 Mugimendu kulturgilearen koska berriak: autonomiaren auzia,
profesionalizazioa, komunikatu beharra 447
- 8.1.3 Aukera eta korapilo berriak bertsolaritzak ere 450
- 8.2 OINARRIA: BERTSOLARITZA BERRIA,
TEKLA BERRIAK (1980-1989)
- 8.2.1 Amurizaren berrikuntza eta barruko begirada 452
- 8.2.2 Bertso-eskolen loraldia 458
- 8.2.3 Profil berrien kontsolidazioa: Bertsolari eta bertsozale ezberdinak 462
- 8.2.4 Euskadi Irratia Loiolakoarekin lehiazera 465
- 8.2.5 Elkartearen sorrera eta hedabideratzeko apustu berria 469
- 8.2.6 Bertsolari klasikoa *El Diario Vascon* eta eredu berria *Eginen* 473
- 8.2.7 Ikus-entzunezkoetan ate joka 479
- 8.3 GAILURRA: BERTSOLARITZAREN MURGILKETA MASA KULTURAN
(1990-2005)
- 8.3.1 'Hitzetik Hortzera': erreaktore nuklearra (1988-) 485
- 8.3.2 Egañaren belaunaldiaren bertsogintza eta hedatu-grina:
Uraniorik aproposena 490
- 8.3.3 Gazteenekin fisioa: *Bertso Hop* (1990), Hertzainak (1993)
eta 1997ko txapelketa 493

- 8.3.4 Euskarazko prentsaren garapena: *Egunkaria* eta tokikoak 499
- 8.3.5 *Bertsolari* aldizkaria ere kalean (1991-) 502
- 8.3.6 Eta irratian hitza jolas bihurtu zen (1993-) 509
- 8.3.7 Hedabideratzearen arriskuak eta eraginak gogoetatuz 513
- 8.3.8 Gero arte Euskal Telebistari (1994-1997) 522
- 8.3.9 Marrazki bizidunak eta aparrarekin batera gora dioan likidoa 531
- 8.3.10 Elkartearen egitasmo estrategikoak: XDZ (1992-)
eta Lanku (1999-) 533
- 8.3.11 Barrurako begirada eta teorizazio kolektiboa 536
- 8.3.12 Proiektuaren ardatz berritzaileak: ikerketaren eta nazioarteko
harremanen sustapena 540
- 8.3.13 Apostua bikoiztuaz: Sarerako eta BECerako jauziak 545
- 8.4 HAUSTURA: TESTUINGURU ETA BELAUNALDI
ALDAKETA (2006-...)
- 8.4.1 Testuinguruaren trantsizio berri bat 550
- 8.4.2 Belaunaldi berriak oholta gainean: multipolartasuna eta
bertsolari emakumea 553
- 8.4.3 Erreleboa Elkartean ere 560
- 8.4.4 Bertsolaria sortzaile: Hibridazioa eta esperimentazioa 564
- 8.4.5 Zutabegilea bertsolari eta bertsolaria kazetari 567
- 8.4.6 'Hitzetik Hortzera' II: Elkartearen kontrolak orekara 569
- 8.4.7 'Hitza Jolas': erreleboa uhinetan ere 577
- 8.4.8 Bertsolari II: 15.000 orrialdetik gorako bilduma 583
- 8.4.9 Lehen film luzea ('Bertsolari', 2011) eta lehen nobela
grafikoa ('Nork' 2015) 589
- 8.4.10 Bertsozale.eus eta bertsoa.eus: Elkartearen webgune
korporatiboak eta kanal tematikoa sarean geroz eta indartsuago 593
- 8.5 OIHARTZUNA: EREDU EGONKORTUA TELEBISTAN ETA
LEHEN PAUSOAK INTERNETEN
- 8.5.1 Emandako pausoak eta bilakaera 602
- 8.5.2 Arrakastaren neurria (I). Kuantitatiboa: Hazkundera 604
- 8.5.3 Arrakastaren neurria (II). Kualitatiboa: Prestigiatzea 607
- 8.5.4 Finalari buruzko argitaratzaile eta sinadura nagusiak 614
- 8.5.5 Gaiak eta protagonista nagusiak *Bertsolarin* 618
- 8.6 PROIEKTUA: KULTUR MUGIMENDU AUTONOMO
ETA EGUNERATUA
- 8.6.1 Elkartea mugimendu autoeratuaren ardatz 621
- 8.6.2 Bertso-eskolak transmisiorako eta sozializatorako gune 626
- 8.6.3 *Framing* eta bertsogintza berriak 627
- 8.6.4 Komunikazioa eta hedabideratzea: profesionalizazioa,
norbere ekoizpena eta sarea 629
- 8.6.5 Txapelketa ekintza ikustarazle nagusi gisa 632
- 8.6.6 Bilketa, ikerketa eta nazioarteko harremanak 636

- 8.7 BERTSOLARITZAREN METAMORFOSIA ETA TOKIA
- 8.7.1 Erronka: ekosistema zaharraren galera 641
- 8.7.2 Erantzuna: habitat berrira egokitzeko apustua 642
- 8.7.3 Ahozkoitasunaren eta erretorikaren subalternitateak ekarritako despiste modernista 647
- 8.7.4 Bertsolaritzaren zentraltasunari kritikak 650
- 8.7.5 Herriaren kronista zena komunikazio zirkuitu alternatibo 652

•

9. **ONDORIOAK** 655

•

10. **BIBLIOGRAFIA** 671

—

GRAFIKOEN ETA TAULEN AURKIBIDEA

1. grafikoa Lore Jokoak (1845-1917). Argitaratutako testu kopuruaren bilakaera hamarkadaka 175
2. grafikoa Lore Jokoak (1845-1917). Hizkuntza hautua hamarkadaka 176
3. grafikoa Lore Jokoak (1845-1917). Argitalpen eta testuen jatorria 177
4. grafikoa Lore Jokoak (1845-1917). Argitalpen garrantzitsuenak 178
5. grafikoa Lore Jokoak (1845-1917). Sinadura garrantzitsuenak 180
6. grafikoa Lore Jokoak (1845-1917). Gai nagusiak 182
7. grafikoa Lore Jokoak (1845-1917). Protagonista nagusiak 184
8. grafikoa Euzko Pizkundera (1918-1944). Argitaraturiko testu kopuruaren bilakaera urtez-urte 260
9. grafikoa Euzko Pizkundera (1918-1944). Argitaraturiko testuen hizkuntza hautua 261
10. grafikoa Euzko Pizkundera (1918-1944). Argitalpenen eta testuen jatorria 261
11. grafikoa Euzko Pizkundera (1918-1944). Argitalpen garrantzitsuenak 263
12. grafikoa Euzko Pizkundera (1918-1944). Sinadura nagusiak 264
13. grafikoa Euzko Pizkundera (1918-1944). Protagonista nagusiak 267
14. grafikoa Euzko Pizkundera (1918-1944). Gai nagusiak 270
15. grafikoa 1960ko hamarraldiko txapelketei buruz prentsan argitaraturiko testu kopurua 315
16. grafikoa Frankismo Garaia (1945-1979). Argitaraturiko testu kopuruaren bilakaera hamarkadaka 378
17. grafikoa Frankismo Garaia (1945-1979). Argitaraturiko testuen hizkuntza hautua 379
18. grafikoa Frankismo Garaia (1945-1979). Argitaratzaile nagusiak 381
19. grafikoa Frankismo Garaia (1945-1979). Sinadura nagusiak 381
20. grafikoa Frankismo Garaia (1945-1979). Protagonista nagusiak 386
21. grafikoa Frankismo Garaia (1945-1979). Gai nagusiak 390
22. grafikoa 1980ko hamarraldia egunkarika 478
23. grafikoa 1990eko hamarraldia egunkarika 501
24. grafikoa Finalari buruzko testu kopurua prentsan (1980-2017) 531
25. grafikoa Finalari buruzko testuen generoak (1980-2017) 603
26. grafikoa Finalari buruzko testuen hizkuntza hautua (1980-2017) 604
27. grafikoa Finalari buruzko testu kopuruaren bilakaera (1980-2017) 604
28. grafikoa Finalari buruzko testuekin prentsan betetako orrialdeak (1980-2017) 605
29. grafikoa Finalari buruz argitaratutako argazkien kopurua (1980-2017) 605
30. grafikoa Finaleko testuek duten zutabe kopuruaren batez-bestekoa (1980-2017) 606

31. grafikoa Finalari buruzko testuen sinadura ezberdinen kopurua (1980-2017) 606
 32. grafikoa Finala egunkarien azalean (1980-2017) 608
 33. grafikoa Kultura-Gizartea-Euskal Gaiak-Besteak (1980-2017) 609
 34. grafikoa Presentzia Kultura Atalean (1980-2017) 610
 35. grafikoa Presentzia Iritzia Atalean (1980-2017) 611
 36. grafikoa Finalari buruzko gehiagarri bereziak (1980-2017) 613
 37. grafikoa Argitalpen nagusiak (1980-2017) 615
 38. grafikoa Finalari buruzko bertso-munduko sinadurak (1980-2017) 617
 39. grafikoa Gai nagusiak *Bertsolarin* (1991-2018) 618
 40. grafikoa Protagonistak *Bertsolarin* (1991-2018) 620
-
1. taula Webguneetako erabiltzaileen bilakaera 596
 2. taula Jarraitzaileak sare sozialetan 2019 urtarrila 597
 3. taula Finalei buruzko sinadura garrantzitsuenak (1980-2017) 616

1. SARRERA

*“Zergatik egin du hain aurrera bertsolaritzak, korrontearen kontra zetorrela zirudien genero horrek?
Ia anakronismoa zen-eta, literatura modernoaren balkoitik hemeretzigarren mendeko ferietako
kronista itsuekin, Erdi Aroko trobadoreekin eta Homeroren epopeia primitiboarekin lotzen genuena!”*

Joseba Sarrionaindia. ‘Lapur banden etika ala politika’, 2015: 12 or..

1.1 ATARIKOA

1962ko bertsolari txapelketari ‘Campeonato del Mundo’ deitu zitzaion bertsolaritza euskal kulturaren bereizgarri singularra, munduan bakarra, zela azpimarratu nahian.

Gaian jantzita zeudenek ordurako adierazia zuten hori ez zela horrela. Manuel Lekuonak, esaterako, 1930ean Bergarako Eusko Ikaskuntzaren Mintegian emaniko hitzaldi famatuan Taitok eta Yagan herrietako fenomenoak aipatzen ditu: “Sabemos de países de misión, de cultura completamente iletrada, como el de los Taitok de los Tuareg del Sahara y los Yagan de la Tierra de Fuego, que conocen el fenómeno de la repentización de la locución rítmica” (1934: 22). Eta 1962ko txapelketa hartan ere aipatu zuen munduan bazirela gisako fenomeno gehiago¹: “Improvisación que antiguamente fue un modo literario muy general –testigos los relatos bíblicos del Antiguo y Nuevo Testamento- pero cuya difusión es mínima en el mundo actual (...)”.

Txapelketa hartan zabalduko ideia ez zen, ordea, erabat baztertu harik eta Bertsozale Elkarteak nazioarteko harreman sarea ehuntzeari ekin zion arte. Ahozko Kantu Inprobisatuen Munduko Lehen Topaketa antolatu zuen 2003an, Kulturarteko Mapa abiarazi 2016ean eta bertsolaritzaren gisako ehun fenomeno inguru erregistratu ahal izan dira bertan²: Katalanen *glosa*, galiziarren *regueifa*, Sardiniako *cantada*, Lituaniako *rauda*, Brasilgo *repentea*, Txinako *hua’era*, inuiten *tordluta*, Senegalgo *xaxaarra*, Filipinetako *makata*, Palestina eta Libanoko *zajala*, kitxuen *wallunk’asa*...

Manuel Lekuonak aipatzen zuen bezala garai batean Walter Ongek (2016) ‘Ahozkotasun primarioa’ deitzen dion kultur ekosistema zen nagusi alde guztietan. Peter Burkek ahozko inprobisazioa Erdi Aroko Europan fenomeno oso zabaldua zela zehazten du baita, baina gaineratzen du XV. mendetik aurrera inprentarekin lehiakide zitala agertu zitzaiola:

¹ 1962/XII/27, *La Voz de España*, 16 or. ‘Bertsolarismo’. Lekuona, Manuel.

² <https://www.mintzola.eus/eu/kulturartea/mapa>

“El libro fue un peligroso competidor, porque el comprador del texto impreso podía evitar asistir al espectáculo, perdía todos los incentivos para permanecer en la plaza escuchando a un cantante itinerante. La expansión de la alfabetización coincidió con la decadencia de la épica en la Europa occidental, mientras que esta convivió con el analfabetismo en Sicilia, Bosnia o Rusia. Pero además, el libro fue un aliado traicionero, porque los textos impresos afectaban a la naturaleza de la actuación, favoreciendo la repetición – opuesta a la recreación – del cuento o la canción. Se ha sugerido que la alfabetización atrofia la capacidad de improvisar, al tiempo que elimina algunos de los incentivos que la favorecen” (Burke, 1991: 357)

Aro Modernoaren kultur transformazio nagusiek idazketa izango dute oinarri, bada, eta ahozkotasanari loturiko kultur fenomenoek bost mendeko ertzekotze prozesua biziko dute:

“(…) la impresión hizo del Renacimiento italiano un Renacimiento europeo permanente; produjo la Reforma protestante y reorientó la práctica religiosa católica; afectó al desarrollo del capitalismo moderno; hizo posible que la Europa occidental explorara el mundo; cambió la vida familiar y la política; difundió el conocimiento como nunca antes; hizo del alfabetismo universal un objetivo formal; volvió posible el surgimiento de las ciencias modernas; y dio nuevas facetas a la vida social e intelectual” (Ong, 2016: 189-190).

Bertsolaritzak lurrikararen epizentroan, Europa mendebaldean, bizi izan du prozesu hau, erabat bazterrekoa den kultura batek eskaintzen dion lurzoruari itsatsirik. Aurri artean zutik gelditu denaren isolamenduak esplikatzen du 1962ko baieztapena, eta aurri artean bizirik dauden ‘ahaideak’ topatu dituenaren kuraiak azken urteetako kanpo harremanetarako grina.

•

Ahalegin horretan Bertsozale Elkarteak txapelketa nagusiko finalera gonbidatu izan ditu atzerriko hainbat inprobisatzaile eta aditu. Eta guztiak aho zabalik gelditu izan dira txapelketak ikuskizun gisa lortu duen sofistikazioarekin eta euskal gizartean daukan oihartzunarekin:

“Imagine selling 13,025 tickets for oral poetry. Imagine further an entire 6-7 hours of live performances broadcast on regional television as they happen, with excerpts, summaries, and expert commentary on national television. Imagine a one-day event—the final act in a multistage, four-year, Olympian drama of qualification and elimination—galvanizing ethnic, national identity to a degree unparalleled virtually anywhere in the world. Imagine the confluence of all of these phenomena and you have the Bertsolari Txapelketa (…)” (Foley, 2007: 3).

John Miles Foleyrenak dira hitzak, mundu mailan ahozkotasanaren ikerketan erreferentzia nagusia den Missouriiko unibertsitateko Center for Studies in Oral Traditioneko zuzendariarenak. *Oral Tradition* aldizkarian bertsolaritzari eskaini zitzaion monografikoan bertsogintzari Mongoliako edo Hego Afrikako kantu inprobisatuaren zantzuren bat ikusten diola aipatzen du, zenbait ariketetan Erdi Aro Goiztiarreko ingeles *flyting*aren nahiz egungo estilo libreko *hip hop*aren jite bat daukala gaineratu. Fenomeno soziokultural gisa bere komunitatean lortu duen dimentsioak, garapenak eta estatusak parekorik ez duela azpimarratzen du, ordea, jarraian:

“So ends an oral poetry event that is, to my knowledge, unique in the world. (...) There is obviously great joy not only for the eight finalists, but also for their 13,000 friends. Likewise for the 100,000 more who attended this “grand

war of words”—in which no one was injured and everyone behaved honorably—via their radios and television sets, joining vicariously in this culminating celebration of Basque traditional identity” (Foley, 2007: 11).

Alegia, munduan bakarra (‘unparalleled’ ‘unique’) dela, euskal kulturaren singularitasuna³.

•

Idatzian oinarrituriko kultur sistemarako trantsizioa Europan duela bost mende abiatu bazen euskara batuak ez du mende erdi bat baino eta euskaraz alfabetaturiko lehen euskaldunen belaunaldia XX. mende bukaerakoa da. Euskarari, bere ertzekotasuna dela medio, ikaragarri kostatu zaio Modernitatean sartzea, eta berandutze horrek ahozketasunaren presentzia hegemoniko baten luzatzea ekarri du, Modernitatea izan baita, esan bezala, inguru guztian ahozketasunaren gainbehera eragin duena.

Ekuazioa ez da hain sinplea, ordea. Euskal Herria, Modernitatearen iturburu den Europa mendebaldean kokatua, aspaldi abiatu baitzen Modernitate horren bideetan barna. Euskara bera, eta euskal kultura, oso berandu bada ere, hainbat pauso emandakoa da testuinguru horretara egokitzeko. Ongek ‘Ahozketasun primarioa’ deitzen dion ekosistema, geurean nekazal mundu euskaldun elebakar analfabetoak sostengatuko lukeena, aspaldi hasi zen higatzen eta kasik desagertutzat eman daiteke azken belaunaldietan. Bertsolaritzari eusten zion lurzoru berezi hori, bada, historiara pasatua da : “Historiaren bilakaera normalean, bertsolaritza galdu egingo zen 80ko hamarkadan. ‘Azken bertsolari’ moduan geratuko zen, esate baterako, Mañukorta, zeina azken mohikano moduan famatuko bailuke gizarte letratuaren lainerak (...)” (Sarrionaindia, 2015: 13-14 or).

Izatez, ahozko kultur fenomenoak ehorztera zetorren Modernitatea bera da atzean gelditu dena, hamarkadak dira Postmodernitateaz hitz egiten dela, eta Ongek iragarri bezala ‘Ahozketasun primarioa’-ren gainbehera ekarri zuen kultura idatzia Internetek eta komunikazioaren teknologia ‘berriek’ ekarritako ‘Bigarren ahozketasun’ baten eragina ari da pairatzen. Eta bertsolaritzak bizi-bizirik dirau: duela hamarkada bat pasa egindako ikerketa soziologikoen arabera (Aierdi et al., 2007) euskal hiztunen %68 bertsozalea da mailaren batean eta kultur adierazpen garaikide gisa hautematen du gehiengo zabalago batek⁴.

Ahozko kantu inprobisatuari hainbesteko garrantzia ematen dion komunitatea ez da inolaz ere oihan galdu bateko ‘Ahozketasun primarioan’ bizi: bertsolaritza eremu kaletar, eskolatu, eta postmodernoan txertatu du, eta txapelketarekin, sofistikazio mailan, mugitzen duen jendetzari dagokionean eta mediatikoki masa kulturaren parametroetan funtzionatzea lortu du.

Bertsolaritzaren ‘Aro Modernoa’ deitzen zaiona Amurizaren 1980ko hamarraldiko txapelekin ireki zela kontuan harturik, jatorrizko ekosistema aurremodernotik egungo jendartera egokitzeko prozesu hau oso epe laburrean burutu behar izan dela suma daiteke. Bertsolaritzak bizi izandako bidaiak, bide singularra ez ezik distantzia galantak ere egin behar izan ditu,

³ 2009an berriro gonbidatu zuten finalera eta elkarrizketa egin zioten ETB2k finalari buruz prestatu zuen emanaldirako (‘Bertso a bertso’, 2009/XII/18). Laburra izan zen oso, baina ideia nagusiak berriro azpimarratzeko eman zion: “(...) es único en el mundo. No hay nada parecido. Existen otros muchos tipos de improvisación competitiva en el mundo pero nada de semejante magnitud (...) ninguno se ha desarrollado al nivel social del bertsolarismo con su campeonato, sus cenas con bertsolaris, sus breves actuaciones o performances informales”. Baita zerbait zabaltzeko: “(...) en ningún otro lugar del mundo asocian su identidad tan intensamente a una tradición oral (...)”. Gaztelarazko azpitituluak dira ekarri direnak.

⁴ Inkestaturen %2ak bakarrik hartzen zuen kontu zaharkitutzat. Gehien errepikatu ziren definizioen gurutzaketatik tradizio moderno gisa hautematen zela ondorioztatu zuen ikerketak. Hain zuen izenburu hori ‘Bertsolaritza tradizio modernoa’ jarri zioten emaitzak jasotzen zituen liburuari.

beraz, ohikoa dena baina denbora laburragoan. Jon Sarasuak euskal kulturgintzari erreferentzia eginaz luzatutako esaldiak ederki ilustratzen du prozesuaren nolakotasuna: “Mundu aurre-modernoa, modernoa eta posmodernoa aro bakarrean nahasi zaizkien belaunaldiak izatea tokatu zaigu Euskal Herrian. Horrek azaltzen ditu gure miseria batzuk. Gure aukera zapoetsu batzuk ere azal ditzake” (2013: 290).

•

Bertsolaritzak euskal komunitatean lorturiko zentralitate singularra esplikatu lukeen ekuaioa askatzeko funtsezko aldagai bat Foleyk berak seinatzen du:

“I found myself hoping that colleagues in Bertsozale Elkartea would someday research and write a full ethnography of a bertso-dinner, from the initial arrangements many months before the event through the long-planned and muchanticipated night of performances. Such a longitudinal perspective would help us grasp the central role of oral poetry in this society” (Foley, 2007: 5).

Eragileen lan horri erreparatu nahi dio ikerketa honek, baina fokua hedabideratzean jarriz.

Izan ere, euskal kulturaren bilakaera aztertu duten hainbat ikerlarik aipatu izan dute bertsolaritzaren modernizazioa eta bere hedabideratzearen arteko lotura. Amezagak, esaterako, honakoa dio: “(...) komunikabide eta ikuskizun masiboen bidez lorturiko hedapenak, bertsolaritza euskal kultura herritar eta garaikidetzat ikustea ahalbidetzen digu” (1994: 22). Bat dator Gandara: “Denbora berrietara egokitze horretan, medien munduan sartzen jakin izanak sostengu garaikidea eman zion bat-bateko arituari; iraganeko elementu ukiezina baino gehiago, adierazpide kultural garaikide bihurtuz joan zen” (2015: 184). Edota, baita Mouillot ere:

“The recent appearance of Basque broadcast media utilizing and contributing to the popularity of bertsolaritza (Basque television and radio stations), (...) and the organization of large-scale events, are all elements pointing towards a form of mass production (...) these tendencies appear (...) as tools of an effective process of modernization for the Basque cultural project.” (2009: 8)

Bertso mundua ere jakitun izan da ekosistema berrira egokitzeko hedabideek duten garrantziaz. Bertsozale Elkartek bere sorrera estatutuetatik (1987) ezarri zituen hiru ardatz nagusien artean aurkitzen da txapelketaz eta hedabideekiko harremanaz arduratzen den ‘Sustapena’. Egañak eurena ‘bertsolaritza hedatu grinaren’ belaunaldia izan dela dio (1997: 197). Edota Sarasuak ‘energia nuklearra’ deitu izan dio bertsolaritzari buruzko ‘Hitzetik hortzera’ telebista programari: “Telebista energia nuklearra zela ohartu ginen laurogeita hamarretan. Arrakastaren aparra deskontrolatu zezakeen, bertsolarien arteko prestigio irizpideak bere erara mugitzeko arriskua zuen, muineko ezaugarri batzuk bortxatzen zituen (...) Nuklearrari bai esan zitzaion.” (2013: 299)

Honela, ikerketaren hipotesi nagusiak dio bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren hariari tiraka garaian garaiko eragileak, bertsolaritza eguneratzeko hauek egindako ahaleginak, berrikuntza proiektuok euskal kulturaren bilakaera orokorrarekin izan ditzaketan loturak edota ikuspegi ezberdinek eragindako korapiloak ezagutzeko modua egin daitekeela.

Bertsolaritzaren bilakaera ulertzeko ahalegin bat egin nahi da, Foleyk ‘longitudinal perspective’ deritzona ahalik eta urrunen, bertsolaritzaren presentzia mediatikoak eskain

ditzakeen lehen arrastoetaraino⁵, eramanaz. Sarrionaindiaren hitzak hauspoturik ekingo zaio bideari: “(...) bertsolaritzaren eboluzioa mirezgarria izan da, nire ustez” (2015: 10). Sarasuak aipatzen dituen miseriekin eta aukera zapoetsuekin topo egin ahal izatea da asmoa.

Singularitatearen inguruko ariketa bat planteatzen da, bada, baina ez 1962ko txapelketa hartan bezala aldarri esentzialista bat egiteko. Alderantziz, egokitze eta hibridazio prozesu partikular baten emaitza gisa ulertzen da singularitate hori. Eraikitze gaitasunari jarri nahi zaio azpimarra berezkoari baino.

1.2 IKERKETAREN HELBURUAK

1.2.1 Bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren historia

Argia ikusi zuten bertsolaritzari buruzko lehen kazetaritza piezak berreskuratzetik, alorrak izan ditzatekeen etorkizuneko erronkak seinalatzeraino. Kronologikoki antolaturiko kontakizunean formatu ezberdinetan (prentsa, irratia, telebista eta internet) eman izan diren urrats nagusiak kokatzea eta ulertzea da helburua.

Horretarako bilketa lan bat burutu behar da lehenik: gaiari buruzko erreferentziaren bat egiten duten testuak, alorreko testigantza kualifikatuak eta kazetaritza piezen corpus garrantzitsu bat jasotzea litzateke helburua. Azken hau lehen ekarpen interesgarri bat izan daitekeela ulertzen da, garrantzitsua izan daitekeela gaiari buruzko etorkizuneko edozein ikerketarako⁶.

Hainbatetan kazetaritza testuen sinadurak bat etorriko dira bertsolaritzaren eragileekin, argitaraturiko mezuek eta hauek argitaratzen dituzten medioen izaerak garaian garaiko kultur proiektuen inguruko zantzuak eskainiko dituzte, edota hartzaileak ere sumatu ahal izango dira prentsako orrialdeetan barrena. Bildutako kazetaritza testuen galbaheak oinarri bat emango du, bada, elkarreraginak eta prozesuak ulertzen saiatzeko.

Oinarri hori testuinguruari buruzko ekarpenak egiten dituzten lanetatik jasotakoekin osatu behar da. Ulertzen da bertsolaritzaren historia eta Euskal Herriko kazetaritzaren historia bi alor esanguratsu izan daitezkeela. Berebat, hauen oinarriko hainbat gako ulertzeko eremu zabalagoetan ere egin beharko dira sartu irtenak, esaterako, bertako kulturgintzaren bilakaera edota Europar kultura popularrak bizi izandakoa azaltzen duten lanetara.

Azkenik, osotasuna irakurri ahal izateko, interpretazio lan bat ere egin beharko da, egindako bidearen zio nagusiak, urrats garrantzitsuenak, korapilo potoloenak, jarraidurak nahiz hausturak, ahalik eta alderdi esanguratsu gehienak identifikatuz eta baloratuz.

Bertsolaritza eta hedabideen arteko harremanak dezenteko interesa piztu izan du, gaia testu mordoxka batean ukitu izan da, eta ikergaiaren egoera azaltzerakoan ikusiko den moduan badira lan batzuk modu batean edo bestean gai nagusi gisa jorratu dutenak. Lanok, ordea, partzialak izan ohi dira, formatu bati edo eskaintza konkretu bati lotuak (bertsolaritza eta irratia, bertsolaritza eta zinema, ‘Hitzetik Hortzera’-ren historia...), edo une zehatz baten argazkia, aldi jakin bati dagozkion gorabeherak eskaintzera bideratuak (bertsolaritzari buruzko eskaintza mediatikoaren mapa, Bertsozale Elkarteak bertsolaritzaren hedabideratzean buruturiko lanaren nondik norakoak...).

⁵ Txapelketa baten prestaketaz ari da, izatez, Foley. Ikerketa honetan eragiletzaren historia oso bat da eskaini nahi dena, Bertsozale Elkartearen ekarpena aztertuz baina aurretik ere eman izan diren eragile guztiei erreparatuz.

⁶ Ekarpene 1980 baino zaharragoa den prentsa historikoan egindako bilaketa sistematikoa litzateke. Hortik aurrerakoan bilketa Bertsozale Elkartearen Xenpelar Dokumentazio Zentroak (XDZ) burutu izan du eta kontsultarako bikain antolaturik dauka (<https://bdb.bertsozale.eus/info/47-prentsa-zerbitzua>).

Bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren historia osorik emateko lehen ahalegin bat da, beraz, honakoa. Hori litzateke ikerketa honen bigarren ekarpen aipagarria.

1.2.2 Bertsolaritzaren eragiletzaren historia

Bertsolaritzaren eragiletzaren historia funtsezkoa suertatzen da bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren historia ulertzeko. Bertsolaritzak hedabideetan emaniko pausoak garai konkretu bakoitzean eragile konkretu batzuk egindako apustu partikularren emaitza izango baitira.

Alderantziz ere berdin gertatzen da: bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren historia funtsezkoa suertatzen da bertsolaritzaren eragiletzaren historia ulertzeko. Batetik, bertsolaritzari buruzko kazetaritza lanek bertsolaritzaren historiako hainbat pasarte ilustratu edota berreraikitze balio dezaketelako. Bestetik, Modernitatetik hasita hedabideak eragile sozial nahiz kultural erabat erabakiorrak direlako: bertsolaritzaren kasuan ere hauen bitartekotza ezinbestekoa izan da bertsolaritzaren edo bertsolari jakinen inguruan esanahi edo irudikapen batzuk eraikitze, berrikuntzak eztabaidatu, eraiki eta sozializatzeko eta abar.

Bertsolarien eragiletzaren historia, presentzia mediatikoarena bezala, gaurdaino ez da osotasun batean landu izan. Presentzia mediatikoaren historiak eragiletzaren osatzen duenez, eta alderantziz, presentzia mediatikoaren historia batez haraindi eragiletzaren historia bat ere ekarriko du lanak hirugarren ekarpen nagusi gisa.

1.2.3 Bertsolaritzaren historia sozialari ekarpena

Gaurdaino gehiago dira bertsogintza aztertu izan duten lanak bertsolaritzaren dimentsio sozialari erreparatu diotenak baino:

“While the formal aspects of bertsolaritza have largely been documented and analyzed by scholars of Basque culture, and many studies have focused on the lyrical content of Basque improvised verses, fewer studies have focused on the socio-political relevance of the contemporary practice of bertsolaritza (...)”
(Mouillot, 2009: 1)

Bertsoen testuei erreparatu izan zaie, bertsolari ezberdinen bertsoeraren ezaugarriei, edota testuinguru ezberdinek bertsoetan islatzen den mundu ikuskeran edo gaitegian izan duten eraginari. Lan honetan ez da horrelakorik egingo, ez bada oso modu puntual eta tangenzialean. Ikerketa honen objektua ez da bertsogintza, bertsolaritzaren fenomeno soziokulturala baizik.

Zentzu honetan, presentzia mediatikoaren eta eragiletzaren historiak bertsolaritzaren historia sozialean txertatzen direla ulertzen da, historia hori osatzen lagun dezaketela.

Helburu batekin edo bestearekin egin izan diren bertsolaritzaren historiaren aldizkatze ezberdinek, testuinguru kultural, sozial, politiko edo ekonomikoari erreferentziaren bat egiten dioten neurrian, ekarpenen bat suposatu dute alor honetan. Bertsolaritzaren historiaren aldi edo alderdi bati edo bati baino gehiagori erreparatzen dioten lanak ere aberasgarri izan dira, noski. Antonio Zavalak bizitza osoko lana, esaterako, Auspoa Sailean buruturiko bilketa lana, bertsolaritzaren historia sozialaren entziklopedia gisa uler daiteke.

Ekarpen guzti hauekiko zorretan dago ikerketa hau. Zerbait gehitzea litzateke helburua.

1.2.4 Euskal kulturaren bilakaeraren singularitasuna

Foleyk bertsolaritzaren singularitasuna seinalatzen duenean, euskal kulturaren singularitasuna ere agerian uzten duela uler daiteke. Alegia, bere kultur sistemaren baitan horrelako dimentsioak dituen beste ahozko kantu inprobisaturik ez duela ezagutzen esaten badu, ahozko kantu inprobisatuari horrelako dimentsioak ematen dizkion beste kultur sistemarik ez duela ezagutzen ondoriozta daiteke.

Singularitate horretan sakontzeak euskal kulturgintzaren ezagutzan sakontzeko aukera emango luke. Eta interesgarria suerta daiteke baita ikerketa eta ezagutza eremu zabalagoetarako ere, arau orokorren salbuespen, edo, zehatzago esanda, bilakaera orokorre kontrajarririko ñabardura partikular esanguratsu gisa funtziona bait dezake bertsolaritzak. Mouillotek, esaterako, esangura hori ematen dio ahozko kantu inprobisatuak euskal kulturaren baitan lortu duen ezohiko garrantziari:

“If one perceives the Basque Country as a region opposing and resisting the overpowering, assimilative cultural values of a global superculture, then the intercorporeality of bertsolaritza reaffirms local Basque identity, while its institutionalization confirms the singularity of Basque culture as a whole” (2009: 6).

Lan honen helburua ez da euskal kulturaren singularitasuna jorratzea. Hori behar den bezala egiteko ikerketa gonbaratura jo beharko bait litzateke, esaterako, eta lan honetan ez da horrelakorik burutzen. Baina ulertzen da bertsolaritzaren bilakaera azaltzeko, bilakaera hori, besteak beste, euskal kulturaren garapen orokorraren testuinguruan kokatu behar dela. Eta seigarren hipotesia da bertsolaritzaren bilakaera singularrak, besteak beste, euskal kulturaren bilakaera singularrari erantzuten diola. Lotura hauek dira jorratuko direnak.

1.3 HIPOTESI ETA IKER-GALDERA NAGUSIAK

Txapelketaren bueltan euskal kioskoetako egunkari nagusienetako azalak, editorialak eta hainbat orrialde eskaintzen zaizkio bertsolaritzari, baita erdal egunkarietan ere. Finalaren kronikaren oihartzunak tokiko nahiz nazional mailako irratietan entzun daitezke; irudiei tartea egiten zaie zuzeneko emanaldietan eta telebistetako albistegietan. Hedabide digitaletan ere topa daitezke bideo, testu, nahiz audioak eta sare sozialetan bolo-bolo ibili ohi dira baten bertsoa, bestearen iritzia nahiz hurrengoaren pronostikoa.

Foleyri kasu eginaz ondoriozta daiteke munduan zehar egiten diren kantu inprobisatuko lehiaketek ez dutela normalean horrelako zalapartarik eragiten, barruko orrialdeetan kokatzen den albiste labur bat izan daitekeela erreferentzia mediatikorik ohikoena.

Hortik sortu zen ikerketarako jakinmina piztu zuen lehen galdera: Nolatan lortu du bertsolaritzak egun daukan arreta mediatiko ezohikoa? Eta arreta mediatiko ezohiko horrek euskararen komunitateak bertsolaritzari ematen dion garrantzia ezohikotik eratorria behar duenez, bigarrena ere: Nolatan dauka bertsolaritzak pisu hori gaurko euskal kultur sisteman?

Jarraian zerrendatzen diren hipotesiak eta iker-galderak dira galdera hauen erantzunak lortzeko aukeratu den bideorria.

•

Aipatu berri da Egañak eurena ‘bertsolaritza hedatu grinaren’ belaunaldi gisa definitu izan duela, eta Sarasuak ‘energia nuklear’ gisa hauteman izan duela telebistako bertsolaritzari

buruzko ‘Hitzetik Hortzera’ programa. Sarasua edo Egañaren belaunaldiaren aurretik ere, bere lana Frankismoaren itzalean egin behar izan zutenen artean, ordea, bertsolari garrantzitsu bezain kazetari erreferentzial izan zen Iñaki Eizmendi *Basarri*⁷ bezalako figura batekin egiten dugu topo, edota Joxe Mari Iriondoren Loiola Irratiko bertso programa famatua, Joxerra Garziaren ‘Hitzetik Hortzera’ bezain ‘energia nuklearra’ izan zitekeela planteatu daiteke.

Atzerago joz, gerraurreko Euzko Pizkundearen belaunaldiak antolaturiko txapelketak ere ezagunak zaizkio edozein bertsozaleri. Txirritaren omenaldiko argazkia bertsolariaren historiaren ikono bat da egun eta hernaniarra bertsoan entzun daitekeen audioa klasiko bat...

Bertsolaritza garaikideak duen dimentsio mediatikoari atzera begirako hori erantsita sortzen dira lehen hipotesia eta iker-galderak:

H1- 1980ko hamarkadan irekitako bertsolariaren azken zikloan bereziki arrakastatsua izan da bertsolariaren hedabideratzea. Arrakasta horren neurriak atzeragotik hasitako ibilbide baten presentzia iradokitzen du eta, aldi berean, eklipsatu egiten du balizko ibilbide hori. Bertsolariaren presentzia mediatikoak, bada, ohikoan bistaritzen dena baino soka luzeagoa eta sendagoa izan dezakeela planteatu daiteke.

RQ1- Noraino luzatzen da bertsolariaren presentzia mediatikoaren soka hori? Noiz eta nola sartu eta garatu izan da bertsolariaren prentsan, irratan, telebistan eta Interneten?

•

Azken zikloan bertso-mundua gidatu duen Bertsolari Elkartearen proiektuan bertsolariaren hedabideratzea izan da lan-ildo nagusietako bat. Proiektuaren beste ardatz bat, Elkartearen estrategia mediatikoan funtsezkoa dena, bertsolari txapelketen antolaketa litzateke, eta gauza jakina da hauen antolaketa Lehen Euskal Pizkundetik datorrela. Hedabideratzea eragileentzat noiztik izan den lehentasun sortzen da orduan galdera:

H2- Bertsolariaren eragiletzak, honen presentzia mediatikoak bezala, soka luzea du. Honenbestez, bien artean loturak egon behar dutela susma daiteke, alegia, garaian garaiko presentzia mediatikoa, neurri handi batean garaian garaiko eragileen bertsolariaren hedabideratzeko apustuari zor zaiola.

RQ2- Garai ezberdinetan hedabideetan bertsolariaren gehien argitaratu dutenen artean zenbat dira eragileak? Ze garaitatik ikus daiteke bertsolariaren hedabideratzeko eragileen apustu kontziente bat? Zenbateraino joan dira eskutik txapelketa eta hedabideratzea?

Bertsolaritariaren bilakaeraren ezagutzak presentzia mediatikoaren bilakaeran sakontzen lagundu dezakeela ikusi da hurrena. Geroz eta ikuspegi osoagoa izan alderdi zehatzean sakontzeko aukera gehiago izan daitezkeela. Honenbestez, proiektu osoaren genealogia egin beharra planteatu da.

Bestalde, langintza honetarako bertsolariaren presentzia mediatikoa lehengai egokia izan daitekeela somatu da. Izan ere hedabideetan argitaraturiko piezek garai bakoitzean bertsolariaren inguruan zabaltzen diren mezuak erakusten dizkigute: egiten diren irudikapenak eta balorazioak, planteatzen diren berrikuntza nahiz egokitzeak, planteamendu hauek sor ditzaketen eztabaidak eta abar.

⁷ Izenez baino ezizenez ezagunagoak diren bertsolari eta eragile ugariarekin egingo dugu topo ikerketan zehar: Etxahun, Bilintx, Xenpelar, Basarri, Uztapide, Aitzol... Aipatzen diren lehen aldiak letra etzanean idatzirik ezizenez izen abizenak gehituko zaizkio baina hurrengoetan ezizena bakarrik idatziko da, letra etzanik gabe.

H3- Garai bakoitzean bertsolaritzaren alde lanean aritu direnek proiektu batean biltzen diren kulturaren ulerkerak bat, bertsolaritzaren irudikapen bat eta hauen arabera jorratuko diren lan-ildo nagusi batzuk izan dituzte. Proiektu horrek garai batetik bestera izan ditzakeen jarraitasun eta berrikuntzak hedabideek bertsolaritzari buruz argitaratutakoaren hariari tiraka ilustratu daitezke.

RQ3- Zein dira hedabideetan gehien errepikatzen diren bertsolaritzaren inguruko ulerkerak, irudikapenak eta lan-ildoak? Hortik atera al daitezke garai bakoitzeko bertsolaritzaren inguruko proiektuaren ardatz nagusiak? Zein dira garai batetik bestera ematen diren jarraitasun eta berrikuntzak?

Eragileek kultura popularrak duten ulerkerak, bertsolaritzaren inguruan eratzten dituzten irudikapenak eta honen garapenerako aukeratzen dituzten lan-ildoak ez dira ezerezetik sortuak. Bertsolaritzaren eragiletza euskal kulturgintzaren baitan ematen da eta kulturgintza horrek testuinguru zabalago bati erantzuten dio. Honenbestez testuinguru zabal honek planteatzen dituen erronkei eta euskal kulturgintzak erronka horiei emandako erantzunei ere erreparatu beharko zaie bertsolaritzaren bilakaera ulertzeko.

H4- European kultura popularrak hainbat erronka eta transformazio izan ditu Lehen Modernitatean eta Beranduko Modernitatean. Euskal kulturgintzak erronka eta transformazio hauei emandako erantzun nagusia XIX. mende amaieran eta XX.aren hasieran eman zen Lehen Euskal Pizkundean eta 1960-1970eko hamarraldietako Bigarren Euskal Pizkundea izan dira. Bertsolaritzaren bilakaerak zerikusi zuzena du bi testuinguru zabalago hauekin.

RQ4- Zein dira kultura popularrak Aro Modernoan izan dituen erronka eta transformazio nagusiak? Zein izan da bi Euskal Pizkundeeetan eman den erantzuna? Nola islatzen da hau guztia bertsolaritzaren inguruko proiektuaren bilakaeran?

Azken zikloko bertsolaritzaren proiektuak aurretik beste eragile batzuk landutakoaren jarraipenetik asko duela iradoki da honezkero. Ukaezina da, ordea, hedabideratzeari dagokionean, bertsolaritza kultur ekosistema kaletarrean txertatzeko egindako ahaleginean eta beste hainbat alderditan azken ziklo honetan aurretik ezagutu ez zen arrakasta maila bat lortu dela. Gertuko testuinguruan emandako aldaketa aipa daiteke, euskal kulturgintzarako baldintzak asko hobetu baitira Frankoren diktaduratik egungo Erregimenerako aldaketarekin, baina proiektuak berak izandako berrikuntzak ere izan behar du zerikusirik bizi izandako arrakasta esplikatzerakoan. Hortik dator aurrekoarekin lotura duen hipotesi berri bat:

H5- Azken zikloko eragileek Bigarren Euskal Pizkundeak eskainitako erduan topatu dituzte bertsolaritza kultur ekosistema modernora egokitzeko behar ziren hainbat gako. Honela, 1960ko hamarraldian euskal kulturgintzak egin zuen bezala, gizarte mugimendu bihurtu dira 1980ko hamarralditik aurrera, edo ikastolen mugimenduak irekitako bidetik bertso-eskolak sortu dituzte. Lehen Euskal Pizkundean eratu zen bertsolaritzaren ulerkerak eta irudikapen esentzializatuekin hausten ere asmatu dute ildo hauetan aurrera eginda, eta honek Beranduko Modernitatean lehiakorrek izateko gaitasuna eman die.

RQ5- Zein dira azken zikloko eragileek abiarazi dituen berrikuntza nagusiak? Zein dira berrikuntza hauek Bigarren Euskal Pizkundeak Lehen Pizkundearekiko ekarri zituen berrikuntzekin duten loturak?

Aipatu da kultura popularrak Europa mailan bizi izandakoak eragina izan duela bertsolaritzaren bilakaeran. Europa mailan gertatutakoarekin, ordea, ezin da esplikatzen bertsolaritzaren bilakaeraren singularitasuna. Singularitasun hori ulertzeko euskal kulturaren

bilakaera bereziari erreparatu beharko zaio. Euskararen komunitateak, bere ertzekotasuna dela medio, alegia komunitate txikia eta botere instituzional urrikoa izanda, inguruko kultur komunitateetan ohikoa izan dena baina askoz beranduago lortu du kultura idatzi bat abiaraztea.

H6- Euskararen komunitatearen subalternitateak eragindako euskarazko kultura idatziaren garapen berantiarra dela eta bertako kultura modernizatzaera etorri ziren bi Pizkundeeek ahozkoak idatziak baino hobeto funtzionatzen zuen jendarte batekin egin zuten topo. Hori dela eta, halaber, bertsolaritza hautatu behar izan zuten modernizazio ahalegin horien baitako lehengai garrantzitsu gisa. Honek esplikatu du, neurri handi batean, bertsolaritzak gisako beste fenomeno batzuren aldean lortu duen garapen eta oihartzun ezohikoa.

RQ6- Zergatik hautatu zen bertsolaritza euskal kulturaren modernizaziorako lehengai gisa Pizkundeetan? Euskarazko kultura idatzi bat garatzeko izan zitezaketen zailtasunekin izan zuen zerikusirik erabaki honek? Badago bertsolaritzari buruzko pieza mediatikoen artean egindako hautuaren inguruko azalpenen bat edo zantzuren bat eskaintzen duenik?

Hipotesi hori zabaltzeko, bertsolaritzaren ikur izaera ere planteatzen da:

H7- Ahozko kultur ondare aberatsa izan duenez, badu zentzurik euskararen komunitatea ahozkotatasunarekin identifikatzea eta bertsolaria ikur gisa ikustea. Bestalde, komunitate ertzeko bati ikur gisa ongi egokitzen zaio bertsolaria gisako figura ertzekoa. Lotura hauek ere bere garrantzia izan dezakete eragileek egindako hautua eta bertsolaritzaren ezohiko presentzia mediatikoa ulertzeko.

RQ7- Bertsolaritzaz hedabideetan egiten diren irudikapenetan ikur izaerarik esleitzen al zaio honi? Eragileen proiektuetan garrantziarik badu alor honek? Zein lirakeke ikur horren eraikuntzaren osagai nagusiak?

Berriro Foleyk seinaturiko arrastoari jarraitzen zaio hemen ere: “(...) galvanizing ethnic, national identity to a degree unparalleled virtually anywhere in the world” (2007: 3). Edota: “(...) en ningun otro lugar del mundo asocian su identidad tan intensamente a una tradición oral (...)” (2009).

Ezohikoa suertatu den garapena ulertzeko ezohiko hautu hori eta bertsolaritzaren ikur izaera kontutan hartzea ezinbestekotzat jotzen da, bada. Garapena, ordea, egindako lanak esplikatu behar du beste ezerk baino gehiago. Luzaroan kultura idatzia nagusi izan den testuinguru batean ahozko fenomeno baten aldeko lana ez dela erraza suertatu suma daiteke, eta hizkuntza gutxitu batetik, tarteka baita jazarria ere, aritu beharrak ez zuela asko lagunduko. Bertsolaritzaren bilakaera honen atzean inteligentzia, ausardia eta konstantzia handiz jokatu behar izan duten belaunaldi ezberdinen historia bat eta euskal kulturagintzaren korapilo ugari topa daitezkeela begitantzen zaigu.

H8- Kultura idatzia nagusi izan den testuinguru batean ahozko fenomeno baten aldeko egin beharreko lana ez da erraza suertatu eta hizkuntza gutxitu batetik, tarteka baita jazarria ere, aritu beharrak are gehiago zaildu du. Hainbat korapilo eragin ditu diskurtso hegemonikoak ezartzen zuenaren kontrako norabidean eta komunitate subalterno batetik aritu beharrak. Hala eta guztiz ere aurrera egiten asmatu izanak meritu handia dauka.

RQ8- Zein dira ahozkotatasunaren subalternitateak bertsolaritzaren bilakaeran eragin dituen korapilo nagusiak? Eta euskararen komunitatearen subalternitateak eragin dituenak? Nola lortu zailtasun hauek gainditzea?

1.4 METODOLOGIA

1.4.1 Kuantitatiboa: historia seriala

Kazetaritza lanak Historia egiteko iturri dokumental garrantzitsuenetariko bat bihurtuak dira joan den aspaldian. Joaquín Arosteguiarenak dira hitzak, Historiaren ikerketarako metodologiaren inguruko klasiko bat Estatu mailan:

“La documentación hemerográfica nos coloca ante uno de los conjuntos documentales de mayor interés hoy en la investigación de la historia en todo Occidente desde el siglo XVIII. La prensa ha sido la fuente de comunicación pública de mayor importancia desde ese siglo y ha ido adquiriéndola cada vez más a medida que nos acercamos a la época reciente. Para las investigaciones en la historia política, cultural, social, la prensa es una fuente imprescindible.” (2001: 405)

Ikerketa historiografikoetarako iturri gisa ez ezik objektu gisa ere geroz eta garrantzi handiagoa hartu duen alor bat da hau: “La importancia de la prensa es tal que por sí misma constituye, incluso, un campo de estudios historiográfico preciso –historia de la prensa o del periodismo–, además de su uso como fuente para otras muchas sectorializaciones” (Arostegui, 2001: 406).

Esku artean dugun ikerketan, bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren historia bat eginaz testuak bi roletan, ispiluaren bi aldeetan, jartzea da ideia: batetik, objektu gisa, gai konkretu bati buruzko kazetaritzaren historia eginaz eta bestetik, gai konkretu horri buruzko historia sektoriala osatzeko iturri gisa erabiliaz.

Hirugarren funtzio bat ere emango zaie, ordea, kazetaritza lanei: bertsolaritzaren historia sozialaren txatalak jasotzen dituzten pieza solte gisa ez ezik historia honi oinarri kuantitatibo bat emango dioten datu gisa ere baliatuko dira, Historia Seriala deritzonaren bidetik.

Del Moralek dioenez, bide horretatik sartu zen Historia kuantitatiboaren eremuan:

“Fue precisamente con la historia seriada como la Historia penetró en lo cuantitativo, pasando de la cifra anecdótica o aislada integrada en el proceso con categoría de ‘significante’ a otro tratamiento donde los datos homogeneizados se integran como instrumento fundamental que permite percibir una determinada evolución en sus tendencias principales y en sus breves fluctuaciones” (1999: 47).

Teknika honek XIX. mendean prezioen, soldaten, errenten edo bizi mailaren bilakaerari buruzko ikerketak egiteari ekin zioten lehen ekonomilarien jardunean dauka bere abiapuntua Burguiereren (1991) errebasoaren arabera. Mende berriarekin, ekonomiak zientzia gisa beste maila bat lortu zuelarik, Rockefeller Fundazioaren sustapenarekin ekonomiaren historia egiteko baliatu zen. Bigarren Mundu Gerraren ondotik hasiko da historiaren beste alor batzuren ikerketara zabaltzen: lehenengo demografiaren historia egiteko, gero historia soziala egiteko eta azkenik 60ko hamarralditik gora, Chaunuk (1987) ‘hirugarren olatua’ deitu zionaren baitan baita historia kulturala egiteko ere.

Burkek historia kulturalaren metodologiaren baitan historia serialak izandako garrantzia azpimarratzen du: “¿Esta condenada a ser impresionista la historia cultural? Si no es así, ¿Cuál es la alternativa? Una posibilidad es lo que los franceses denominan ‘historia serial’, es decir, el análisis de una serie cronológica de documentos” (2006b, 37). Eta Burguierrek korrontek izandako arrakastaren gakoa seinatzen du: “(...) los historiadores franceses mostraron las posibilidades de una asociación de los métodos cuantitativos con una

problemática de las mentalidades y de los estudios ‘vistos desde abajo’, tan característicos de la ‘Nueva historia’” (1991: 158).

Alegia, eta oso labur azaltzearen, marxismoaren eta zenbait antropologoren lanen eraginez ‘biraketa kulturala’ deritzona eman zuen 60ko hamarralditik aurrera historialari belaunaldi berri batek; historiografia ofiziala ordura arte pertsonaia ilustreez eta kultura jasoaz bakarrik arduratu izan bazen belaunaldi berriak herri xeheari erreparatu nahi zion (hortik sortzen dira kultura popularrari buruzko lehen azterketak eta baita herriaren bizimoduaz arduratzen diren ‘behetik gorako’ ikerketak) eta horretarako tresna egokia eskaini zion historia serialak. Honela, ‘irakurketaren historia’, ‘heriotzarekiko jarrera popularen historia’ eta gisako beste hainbat burutzeko baliatu izan da⁸.

Del Moralek eskaintzen du teknikaren definizioa: “(...) la seriación como planteamiento o enfoque historiográfico consiste en la construcción de series estadísticas a partir de la homogeneización de los datos, repetidos sobre un lapso temporal dilatado (larga duración) y comparables a intervalos concretos y regulares” (1999: 47). Eta baita nola balia daitekeen berriro seinatu ere: “Las series numéricas, homogéneas y comparables permiten complejizar el desarrollo social y remachar la voluntad interdisciplinar del conocimiento histórico (...)” (1999: 14).

Lan honetarako bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren historia lau ziklo handitan artikulatu da, eta ziklo bakoitza hiru alditan. Kazetaritza piezen bilketa handi bat ere egin da eta pieza hauek kronologikoki antolatu dira, ziklo nahiz aldietan multzokatuz eta hainbat irizpideren arabera etiketatuz. Honela, ziklo eta aldi bakoitzaren inguruan datu kuantifikagarriak eskaintzeko modua lortu da, eta baita alderaketak eginez bilakaerak marraztekoa ere.

Egin dena ez da historia serial bat kontzeptuaren zentzurik hertsian. Esaterako, historiaren artikulazioa ez da datu hauetan oinarritzen, euskal kulturaren bilakaerak edota bertsolaritzaren historiarenak eskaintzen dituen gertakari esanguratsu batzuk hartu dira mugarriztat. Eta historiaren kontakizuna kazetaritza piezetatik edo bestelako irakurketetatik bildu ahal izan diren gertakarietan oinarritzen da. Baina datuetatik gertakari nagusien narrazio soilaz haratago legokeen informazio garrantzitsua eratorri ahal izan da, historiaren artikulazioari nahiz kontakizunari zentzu gehiago, bestelako sakontasun bat, eman diotenak.

1.4.1.1 Bertsolaritzaren hemerografia historikoa (1823-1979)

A) Bilketa

Bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren haritik tiraka historia bat osatzea zen ideia hasiera samarretik, eta horretarako derrigor behar zen piezen bilketa. Gerora ikusi zen Bertsozale Elkartearen Xenpelar Dokumentazio Zentrua 80ko hamarkadatik aurrerako testuen bilketan zentratu izan dela, zaharragoak topatzea ez zela erraza, eta ekarpen bat egin zitekeela ikusirik testu zaharragoen ahalik eta bilketa xeheena egitea erabaki zen.

⁸ Del Moralek eskaintzen ditu teknika hau erabiliaz buruturiko lanen adibide batzuk: “Ha saltado de la producción literaria impresa para estudiar el cambio de gustos en la cultura escrita (...) las actividades desarrolladas en las sociedades, tertulias, cenáculos o clubes de pensamiento para calibrar las atracciones y rechazos importantes operados en la cultura de los sectores dominantes” (1999: 47-48). Burkek beste hainbat: “En el decenio de 1960, algunos historiadores franceses ya trabajaban de esta guisa sobre la propagación de la alfabetización y la ‘historia del libro’. Por ejemplo, comparaban el número de libros publicados sobre diferentes temas en distintas décadas en la Francia del siglo XVIII (...)” (2006: 36-37). Eta baita Burgièrek ere: “(...) el comportamiento religioso, las lecturas del siglo XVIII o la actitud ante la muerte, cada uno de estos temas han sido objeto de un tratamiento serial” (1991: 641).

Honela, argitalpen data 1980 baina zaharragoa izanik bertsolaritzari edo bertsolariren bati gutxienez paragrafo bateko arreta eskaintzen dion kazetaritza testu oro jaso izan da. Salbuespena ere jarri zaio arau orokor honi: 1880tik atzerako testuak topatzea askoz ere nekezagoa zela ikusirik, aipamen soila nahikotzat eman da aintzat hartzeko.

Bi muga ere jarri dira: a) Argitalpenek nolabaiteko aldizkakotasun bat izan behar duela zaindu da, aldizkakotasunik gabe kazetaritza beharrean liburuez arituko ginatekeelako b) Kanpoan utzi dira bertso sorta soil bat eskaintzen zuten testuak. Batetik, bilketa lan hori, prentsan argitaraturiko bertso-jarriena, egina dagoelako Julen Urkizaren ‘Bertso eta Olerkien hemeroteca’-n⁹. Bestetik, gisa honetakoak kazetaritza testutzat har ote daitezkeen zalantzazkoa suertatzen delako. Eta azkenik, testu hauen bolumenak, milaka batzuk dauzka bilduta Urkizak, gainerakoen esangura (tendentziak, pautak, mugarriak...) diluitzeko arriskua ikusi delako.

Xenpelar Dokumentazio Zentruan zegoena jaso ondoren bilatzailez hornituriko hemeroteca digitaletan oinarrituriko bilaketari ekin zitzaion. Hauek dira baliatu direnak:

+ Eusko Ikaskuntzaren ‘Euskal kultura prentsan 1900-1975’. Aldi honetan argitaraturiko 30etik gora egunkari eta aldizkaritako euskarazko, gaztelerazko eta frantsesezko testuak. <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/fondo-documental/cultura-vasca-prensa/>

+ Eusko Ikaskuntzaren ‘Dokumentu fondoak’. Bost agiri fondotan jasotako prentsa artikulua. <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/fondo-documental/fondos-documentales/>

+ Eusko Ikaskuntzaren ‘Argitalpenak’. Eusko ikaskuntzaren argitalpen guztietan eta beste sei aldizkaritan egiten da bilaketa. <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/argitalpenak/>

+ Armiarma atariaren ‘Euskal prentsaren lanak’. 1887tik 1944ra bitarteko euskarazko testuak, bederatzi argitalpenetan, egunkari nahiz aldizkari, argitaratuak. <http://hemeroketa.eus/>

+ Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Liburuklik hemeroteca digitaletan ‘Prentsa Historikoa’. Beste 39 egunkari. <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/10408?locale=eu>

+ Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Liburuklik hemeroteca digitaletan ‘Aldizkariak’. 47 aldizkari gehiago. <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/10409>

+ Espainiako biblioteka nazionalaren hemeroteca digitala Espainiako eta Ameriketako 143 argitalpenetan, egunkari nahiz aldizkari, arakatu daiteke. Nagusiki gaztelerazko testuak dira, baina euskarazkoak ere aurki daitezke. 1683tik gaurdainoko funtsa da. <http://hemerotecadigital.bne.es/index.vm>

+ Espainiako Kultura Ministerioak estatuko 97 erakunderekin batean atunduriko ‘Biblioteca Virtual de Prensa Histórica’ Kasu honetan Espainian eta honek Amerikan, Afrikan nahiz Filipinetan izan zituen kolonietan argitaraturiko hedabideen lanak jasotzen dira. <http://prensahistorica.mcu.es/es/consulta/busqueda.cmd>

+ Frantziako biblioteka nazionalaren hemeroteca digitala baliatu da baita, 4 milioitik gora dokumentu (egunkari nahiz aldizkarietan argitaratuak) arakatzeko dituen. <https://gallica.bnf.fr/html/und/presse-et-revues/presse-et-revues>

⁹ <https://urkiza.armiarma.eus/urkiza/>

+ Britainiarraren The British Newspaper Archive berrehundik gora egunkarik argitaraturiko 10 milioi dokumentu dituen datu basean. <https://www.britishnewspaperarchive.co.uk>

+ Azkenik, Europako 2.200 instituziok elkarlanean hornitzen duten Europeana baliabide digitalen atariak eskaintzen duen Europeana Newspapers bilatzailea ere tresna interesgarria suertatu da. <http://www.theeuropeanlibrary.org/tel4/newspapers>

Hedabide anitzen gainean aritzen diren bilatzaileez gain hedabide bakarraren gainean aritzen direnak ere erabili dira, topatu ahal izan diren guztiak. Honela, Koldo Mitxelenako hemerrotekak Euskal-erria aldizkarian bilaketak egiteko eskaintzen duena, Euskaltzaindiak Anaitasuna aldizkarian bilaketak egiteko atondu duena, *Jakin* aldizkarikoa eta *Diario de Navarra*, *ABC* eta *La Vanguardia* egunkarietakoak baliatu dira.

Bilatzaileak ez izan arren digitalizaturik dagoen zenbait goiburu ere arakatu da, bertsolaritzari buruzko testu historiko kopuru garrantzitsu bat izan zitzaketela sumaturik: *Diario de San Sebastian*, *Euskal Esnalea*, *Ibaizabal*, *Euskalerraren alde*, *La Voz de España*, *Aranzazu*, *Euskera*, *Príncipe de Viana*, *La Baskonia* eta *El Diario Vasco*.

Zeruko Argia 1964-1979, digitalizatu gabe dagoenez, paperean arakatu da, zenbakiz zenbaki.

Aurreko emaitzak osatzeko bertsolaritzaren inguruan aritutako egileen artikulu bildumak jasotzen dituzten liburuetan begiratu izan da: Iriondok Basarriren gerraurreko nahiz gerraondoko kazetaritzaz atunduriko bi liburuak, Aitzolen ‘Obras Completas’, Teodoro Hernandoren ‘Begi kolpea’ biografia, Joseba Zubimendiren ‘Bertsomíñez’, Iparragirrerri buruzko ‘Iparragirre: erro-urratsak’, besteak beste.

Joxe Mari Iriondok bere artxibo pertsonaletik Basarriren berrehundik gora artikulu pasa dizkigu. Eta Donostiako Koldo Mitxelenan aurkitzen den Antonio Zavalaren Fondoaren hustuketa egin da. Seiehundik gora erreferentzia berri topatu dira Zavalak bizi osoan zehar osatu zuen karpeta errenkada ikusgarrian.

Azkenik, bilketa lan guzti hau borobiltzeko, Patri Urkizuren aholkuari jarraiki, zenbait euskal bibliografiatan ere egin da behaketa.

Honela, Jon Bilbaok Auñamendirekin argitaraturiko ‘Euskal bibliografiaren hiztegia’-ren hamar liburukiek bilaketa digitalak utzitako hainbat hutsune betetzen lagundu digu. Eta oraindik ere paperak sarea baino dezente informazio gehiago jasotzen duela ikusarazi digu.

Testurik zaharrenen bilaketarako erabat funtsezkoa suertatu da Julien Vinsonen ‘Essai d’une Bibliographie de la Langue Basque’-aren bigarren liburukian jasotako ‘Journaux et Revues’ atala (Hirugarren atala, 721-791 or). 1898an argitaratua, ordurarte prentsak euskal gaiez jorraturikoa zerrendatzen du alfabetikoki ordenaturiko goiburuetan antolatua.

Vinsonena osatzeko Francisque Michelen euskal bibliografiarekin ere eman dira ordu batzuk. 1847an argitaratu zuen Oihenarten euskal esaera eta poesien bigarren edizioan sarrera gisa eskaini zuen Michelek kronologikoki antolaturik dagoen bibliografia hau. Hain zaharra izanik bertsolaritzari buruzko kazetaritza testu gutxi topatu da bertan, baina nolabaiteko ziurtasun bat eman digu osatu ahal izan dugun testu zaharrenen bildumaren inguruan: izan zitekeen testuren batzuk Vinsonen biltzaile senari ihes egin izana, baina bai Vinsoni eta bai Micheli ihes egin izanak konplikatuak dirudi.

Bukatzeko, testuak eskuratzeko ahalegin berezi bat egin behar izan da testu zaharren kasuan. Izan ere bibliografietan ez dira erreferentziak baino eskaintzen, eta izenburuari erreparatuz testu batek bertsolaritzarekin zerikusia izan dezaketela susma badaiteke ere,

testua irakurri arte ez dago hori baieztatzerik. Honela, erreferentzia hauetatik abiatuta sarean eginiko bilaketan bidez testuak eskuratzeari ekin zaio. Eta sarean topatu ezin izan direnak Baionako Mediatekan aztertu dira bertatik bertara. Guztiak Iparraldeko edo inguruetakoa hedabideek argitaratuak ziren eta bertan topatzeko zoria izan dugu (*Le Messenger de Bayonne, Le Courrier de Bayonne. L'Avenir des Pyrénées et des Landes...*). Chahoren *Ariél*-en errebaso xehea ere Baionako Mediatekan egin ahal izan da.

b) Etiketatzea eta lanketa

Topaturiko testuen erreferentziak kronologikoki ordenaturik jasotzeari ekin zitzaion, argitalpenaren data, izena, testuaren orrialdea, izenburua eta egilea zehaztuz. Honela, argitaraturiko testuen kopuruaren bilakaera ikus zitekeen, eta gaiari arreta gehien jarritako hedabide-sinadurak identifikatu.

Lanak aurrera egin ahala, eta historia serialaren berri izan ondoren, bildutakoari probetxu gehiago ateratzeko etiketatzea bestelako parametro batzuekin osatzea erabaki zen.

Testu bakoitzaren hizkuntza hautuari buruzko etiketa gehitu da ordutik. Hizkuntza bakoitzeko kazetaritzaren bilakaeraren zantzuak ikus daitezke horrela eta garaian garaiko eragiletza nahiz lidergo kulturalak nondik datozen eta ze izaera duten dezente argitu daitezke.

Izen abizenik gabeko sinaduren inguruko etiketa izan da gehitu den beste bat. Izenordeak, inizialak, erakundeak, agentziak... Kazetaritzaren bilakaera ikusten da hauenean ere¹⁰.

Halakorik balego testuaren protagonista nagusia den bertsolaria identifikatzen duen etiketa ere gehitu da (Etxahun, Iparragirre, Bilintx, Otaño, Txirrita... Lazkao Txiki, Lopategi...) eta baita albistearen atzean dagoen gertakaria edo bere izaera seinatzen duena ere (bertso-saio arrunta, txapelketa, lore jokoetako saioa, bertsolaritzari buruzko hitzaldia edota liburua, bertsolariari omenaldia, polemika...)¹¹.

Etiketatu honekin Del Moralek aipatzen duen 'datuen homogeneizazioa' lortzen da. Aldi berean, historia serialak eskatzen duen bezala 150 urte baino gehiagoan argitaraturiko kazetaritza piezen etiketei erreparatzen zaienez ('homogeneización de los datos, repetidos sobre un lapso temporal dilatado'), eta datuok elkarrekin alderatzeko modua dagoenez ('comparables a intervalos concretos y regulares'), presentzia mediatikoa edo historia sozialaren estatistikak eskaintzeko bidea irekitzen da¹².

Honela, 'Protagonistak' edo 'Gertakariak' etiketekin, esaterako, garai bakoitzean saio mota ezberdinek daukaten oihartzunaren bilakaera ikus daitezke; edo noiz hasten den bertsolaritzari buruzko lanketa jasoago bat (hitzaldiak eta liburuak), edo garai bakoitzean zein izan diren bertsolari mediatikoenak, zein polemika handienak, zein gertakari entzutetsuenak... Guztia grafikoetan adierazia.

Bertsolaritzaren hemerografia historiko hau izan da ikerketa honen baitan lanordu gehien eraman duena. Batetik, jarritako helburuek lagin garrantzitsu bat eskatzen dutelako (adibide zehatz bat jartzearen ezin da baieztatu aldi batean sinadura garrantzitsuenak zein diren testu

¹⁰ Izenordeekin sinaturikoen izen abizenak argitzeko ahalegina egin da. Horretarako Elias Amezagaren (1991) 'Entresaca de un diccionario de seudónimos' eta 'Segunda entresaca de un diccionario de seudónimos' (1993), eta Julen Urkizaren (1992) 'Euskal idazleen izenordeak' erabili dira.

¹¹ Etiketa bakoitzari aldaera mordo bat dagozkio azken bi hauen kasuan. Zerrenda osoa 'Bertsolaritzaren Hemerografia Historikoa (1823-1979)' eranskinean dago jasoa.

¹² Urtez urteko bilakaera ikus daitezke, edo hamarkadakakoa. Bestalde, aldi ezberdinak alderatzeko, antolatutako direnak urte kopuruari dagokionean erregularrak ez direnez, aldi bakoitzeko urteko batzuek bestekoa eta gisako formulak erabili daitezke.

gehientsuenak biltzera iritsi gabe). Bestetik, behin bilketa lanean jarrita, eta ekarpena egin zitekeela ikusita ahal izan den eta corpus potenteena osatu nahi izan delako. Azkenik, horrelako bilaketa eta bilketa lan batek adikzio puntu bat ere eragin dezakeelako.

4159 erreferentzia etiketatu dira guztira.

Ez dira 1823tik 1979ra bitartean prentsan bertsoaritzaz argitaratu diren testu guztiak izango, noski, urte guzti horietako prentsa osorik digitalizatu eta testu osoko bilaketa egiteko aukera emango lukeen tresna asmatu beharko bailitzateke bilketa horretarako; baina gehientsuena eta garrantzitsuena bertan jasota gelditzen delakoan gaude.

1.4.1.2 Aro garaikideko Nagusiko finalen oihartzuna (1980-2017)

Hemerografia historikoa 1980an itxi izanak ez du esan nahi hortik aurrerako bertsoaritzaren presentzia mediatikoa ikerketatik kanpo uzten denik. 1980tik aurrera, ordea, euskal prentsak izandako garapenak (1976a ‘euskal prentsaren urte’ gisa seinalatu ohi da euskal kazetaritzaren inguruko historiografian, 1977an jarri ziren martxan *Deia* eta *Egin* egunkari abertzaleak...) eta bertsoaritzak berak izandakoak (aipatu den Aro Modernoaren hasera 1980an) arreta mediatikoaren leherketa ekar dezaketela ondoriozta daiteke, eta ordura artekoekin bezala prentsan ateratako guztiei erreparatzea erabat bideraezina dela aurreikusi.

Bilaketa zehatzago bat bideratu behar izan da, bada, eta denboran luzatzen eta errepikatzen den fenomeno bat izanik, bilaketak egiteko erraztasunak eskaintzen dituen gainera, Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusiko finalak pizturiko arreta mediatikoa hartu da lagin gisa.

1980, 1982, 1986, 1989, 1993, 1997, 2001, 2005, 2013 eta 2017ko finalei buruz idatzitakoak jaso dira, ‘finalen astea’ deitu zaiona (finaleko eguna + aurreko hiru egunak + hurrengo hiru egunak) hartuz denbora unitatetzat. Eta azken 40 urtean Euskal Herriko prentsa kioskoan esanguraren bat izan duten egunkarietan egin da bilaketa: *Egin/Gara*, *Deia/Noticias de Gipuzkoa*, *El Correo Español*, *El Diario Vasco*, *Noticias de Navarra*, *Diario de Navarra*, *El País*, *El Mundo*, *Euskaldunon Egunkaria/Berria*, *Le Journal du Pais Basque* eta *Sud Ouest*.

Txapelketa bakoitzaren inguruan excel taula handi bat osatu da¹³, jasotako testu bakoitzaren inguruan honako datuak biltzen dituena:

- Item zenbakia/Egunkaria/Data/Orrialdea/Titularra

- Sinadura. Bi ñabardura gehigarri hauekin:

a) Bertsolaria da sinatzen duena (Bai/Ez)

b) Bertsoaritzaren Datu Basean agertzen da sinatzen duena (Bai/Ez)¹⁴

- Kokapena. Aldaera ezberdinekin:

a) Azala: Nagusia/Bigarrena/Bestelakoa/Deia/Azken orria

b) Atala: Kultura(Nag./Big./Best.)/Gizartea/Irrati-Telebista/Euskal gaia/Besteak

d) Bertsoaritzari buruzko gehigarria

e) Egunkariaren ohiko gehigarria

¹³ Taula guztiak ‘Aro Modernoko Nagusiko Finalen Oihartzuna (1980-2017)’ izeneko eranskinean daude jasota.

¹⁴ Bertsozale Elkarteak landuriko tresna (<https://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/bilaketa>). Bertsoaritzarekin lotura garrantzitsuren bat (bertsolari, eragile, epaile, gai-jartzaile, bertso-jartzaile, ikerlari...) izan duen jendeari buruzko datuak eskaintzen dira bertan.

- Hedadura. Dimentsio ezberdinekin:

a) Zabaleroa (Zutabeak. Batetik bostera)

b) Luzera (orrialde $1/2 < / 1/2 > / 1 > / 2 > / 3 >$)

- Kazetaritza generoak. Hiru azpimultzotan banaturik¹⁵:

a) Iritzia: Editoriala/Apuntea/Iritzi Artikulua/Iritzi Grafikoa/Eskutitza/Iruzkina

b) Interpretazioa: Erreportajea/Elkarrizketa/Kronika

c) Informazioa: Albistea/Erreportajea/Elkarrizketa

- Hizkuntza hautua: Euskara/Gaztelera/Frantsesa

- Ohiko baliabideak: Bertsoak/Soslaiak/Giro kronikak/Porrrak

- Material grafikoa: Argazkiak/Ilustrazioak/Taulak/Grafikoak

Ziklorik berriena izanik, eta bertan bertsolaritzaren presentzia mediatikoak jauzi kuantitatibo eta kualitatibo garrantzitsua eman duelakoan, garapen hori islatuko duten parametroak ezarri nahi izan dira. Honela, esaterako, hazkundera hobeto hauteman ahal izateko testu kopuruari testuen hedaduraren dimentsioa gehitu zaio; bertsolaritzaren prestigiatzea adierazteko testuen kokapenari erreparatu zaio; gaiaren inguruko kazetaritzaren garapena azaltzeko generoen bilakaera eta ohiko baliabide batzuren erabilera hartu da kontuan; kazetaritza horren espezializazio maila neurtzeko txapelketa ezberdinetan errepikatzen diren sinadurak, bertsolarienak eta BDBn agertzen diren kideenak begiratu dira...

EHUren Bizkaiko campuseko hemerrotekan egin da bilketa eta 1289 itemeko lagina osatu da.

1.4.1.3 *Bertsolari* (1991-2018)

Esan bezala, azken ziklo honetan bertsolaritzaren presentzia mediatikoak izan duen leherketa dela eta, ezin zaie argitaraturiko testu guztiei erreparatu, eta honenbestez ziklo honen inguruan jasotako datuak ezin dira gainerako zikloen inguruan jasotakoekin alderatu. Lagina txapelketa nagusietako finalari buruzko testuetara mugatu behar izanenez, adibidez, testuaren atzean dagoen gertakaria beti finala bera izango da, eta protagonistak finalistak.

Aurreko zikloetan alderdi hauen inguruan egindako lana azken honetan eteteak uzten zuen hutsunearen inguruan buelta batzuk eman ondoren, halabeharrak ekarri zuen irtenbidea: Bertsolari Aldizkarian ere egiten dut lan, sarean daukagun bilatzailea hobetzeko aldizkariaren edukien hustuketa zehatzago bat egin beharra suertatu zen, eta hustuketa horretatik alderdi horiek jorrazteko lagin egoki bat irten zitekeela bururatu zitzaidan.

Prentsa guztian argitaraturikoa maneiagarria ez denez, alorrek protagonistei eta gaitegiari dagokionean izan duen bilakaera aztertzeko hedabide bat aukeratu behar izatekotan badu zentzua bertsolaritzari buruzko aldizkari espezializatuari heltzeak. Aldizkariak, ziklo guztia hartzen ez badu ere, 25 urtetik gorako ibilbidea badu, eta ematen du ganorazko lagin bat osatzeko lain.

Honako parametroak landu dira, bada, aldizkariaren hustuketa egiterakoan: Data, zenbakia, orrialdea, izenburua, sinadura, protagonistak, gaia eta kazetaritza generoa¹⁶.

¹⁵ Honako literatura erabili da bereizketa hauek egiteko: ARMAÑANZAS, E. & DÍAZ NOCI, J. (1996): Géneros de opinión. Bilbao: EHU; DÍAZ NOCI, J. (2000): Informazio generoak. Bilbao: EHU; eta GOMIS, L. (2008): Teoría de los géneros periodísticos. Bartzelona: UOC.

1637 itemeko lagina osatu da.

Nagusiaren finalari buruzkoekin batuta 2.926 testu dira guztira, ezein ziklori buruz bildurikoa baino gehiago eta azken ziklo honetan gertaturikoaz aritzeko emateko nahikoa.

Hemerografia historikoko 4.159 itemei gehituta 7.089 itemen analisia izango da orotara buruturikoa.

1.4.2 Kualitatiboa: Elkarrizketa Sakonak

Ikerketa kualitatiboa egiteko metodorik erabilienetarikoa da elkarrizketa sakona:

“Cuando un reportero o un historiador entrevista a un testimonio que participó en los acontecimientos que se estudian, o un científico social intenta comprender un proceso hablando con las personas que estuvieron implicadas en el, lo más probable es que estén utilizando la entrevista semi-estructurada de final abierto”. (Hammer eta Wildavsky, 1990: 23).

Juaristik (2003) ematen duen sailkapenaren arabera holistikoa eta ez zuzendua da ikerketa honetan hartutako bidea. Alegia, elkarrizketa bakoitzean gai ezberdinak jorratu dira (horregatik da holistikoa eta ez fokatua), eta hartu emanaren joana elkarrizketatuek jarraitu duten hariari lotu zaio galdetegiaren ordenari beharrean (horregatik da ez zuzendua, eta horregatik deitzen diote bukaera irekikoa dela Hammerrek eta Wildavskyk).

Erdi egituratua dela esaten denean esan nahi da gidoi bat badagoela. Eta gidoi hori Kvalek (1996) zehazten duen bezala bloke tematiko ezberdinetan egituratu da kasuan kasu. Gai bat ikuspegi ezberdinetatik osatzea komeni dela ikusi denean horri dagokion bloke tematikoa errepikatu egin da elkarrizketa ezberdinetan.

Metodoari buruzko literaturak nahikoa pautak eta aholku agerikoak eskaintzen ditu, baina ahalegina egin da garrantzitsuenak zerrendatu eta aintzat hartzeko. Izan da, elkarrizketak harturiko bidea dela eta bazterrean gelditu den pautarik ere: adibidez, Kvalekek (1996) ordubete eta ordu t'erdi arteko iraupena aholkatzen du, eta hainbat kasutan gainditu da muga.

Elkarrizketatuak aukeratzekoan kazetari, bertsolari nahiz eragileak hartu nahi izan dira kontuan eta kazetariei dagokionean formatu aniztasuna (prentsa, irratia, telebista eta internet) bilatu da. Esperientzia eremu desberdinetako ekarpenak egin ditzakeen jendea lehenetsi da: bertsolaria eta aldi berean kazetaria, bertsolaria eta eragilea, formatu ezberdinetan edo hedabide ezberdinetan aritutako kazetaria eta abar. Hamasei elkarrizketa egin dira guztira.

- Joxean Agirre. Kazetaria. *Egin* eta *Garan* 30 urtetik gora bertsolaritzaren inguruko informazioaren arduradun. *Bertsolari Aldizkariaren* sortzaile eta lehen zuzendaria. Hainbat bertsolariaren biografiaren egile Bertsolari Liburuak sailaren baitan. Rikardo Arregi Kazetaritza Sari bat eta bi Argia Sari irabazitakoa bertsolaritzari buruzko kazetaritza lanengatik. [Zarautz, 2017/IX/27]

- Nikolas Aldai. Kazetaria. Alor honetan azken hamarkadetan irradian erreferentziala den Euskadi Irratiko 'Eta Hitza Jolas Bihurtu Zen' ('Hitza Jolas' 2006tik) programaren sortzaile

¹⁶ Excell taula bakarrean jaso dira datu guztiak. Aldizkariaren webguneko bilatzailea hobetzeko interesgarriak izan arren ikerketa honetarako baliagarriak ez diren aldagaiak ezkutatu egin dira. Zenbait parametrotan, gaiaren ingurukoan, esaterako, aurrez ezarritako aldagai batzuk baliatu dira (Txapelketa Nagusia, Beste Txapelketak, Atzerriko Fenomenoak, Bertso-Eskolak, Ikerketa, Gogoeta, Elkartea, Ingurua, Gazteak, Emakumeak...). 'Bertsolariaren Lehen Ehun Zenbakiak (1991-2017)' izeneko eranskinean dago taula osoa ikusgai.

eta lehen gidaria. Aurretik Loiolako Herri Irratian ere bertsoaren inguruan hainbat kazetaritza lan egindakoa. [Hondarribia, 2017/IX/26]

- Xabier Amuriza. Bertsolaria. Bi aldiz Euskal Herriko txapeldun (1980 eta 1982), bertsolaritzaren berritzailea eta ekarpen garrantzitsuak argitaraturikoa. Hedabideetako kolaboratzaile gisa ibilbide luzea izan du, nagusiki *Egin* eta *Gara* egunkarietan. [Berriz, 2017/VIII/02]

- Amets Arzallus. Bertsolaria eta kazetaria. Euskal Herriko txapelduna 2013an. Kazetaritzan lizentziatua, hainbat hedabidetan kolaboratzaile, berria eta argian kazetari ibilbidea egindakoa eta arnas luzeko hainbat kazetaritza proiektu buruturikoa. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria irabazitakoa. [Zarautz 2017/IX/21]

- Andoni Egaña. Lau aldiz jarraian Euskal Herriko txapeldun (1993, 1997, 2001 eta 2005), aldi oso bat markatu duen bertsolaria. Eragile garrantzitsua Elkartearen sorreran eta hurrengo urteetan. Hedabide ezberdinetan eta prentsan, irrastian nahiz telebistan kolaborazio anitz egindakoa. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria irabazitakoa. Bertsolaritzari buruz, eta honek hedabideekin daukan harremanaz, gogoeta mamitsuak argitaraturikoa. [Zarautz, 2017/VII/26]

- Estitxu Eizagirre. Bertsolaria eta kazetaria. *Argia* aldizkariko zuzendaria. Urte askoan aldizkari honetan bertsolaritzaren inguruko informazioaren arduradun. ‘Gari alea’ bloga ere sortu zuen bertsolaritzari buruzko blogen artean ibilbide sendoena izan zuena. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria irabazitakoa. [Lasarte, 2017/VII/19].

- Esti Esteibar. Eragilea. Elkartearen komunikazio arduraduna 2006tik. Euskal Kazetarien Elkarteak eta Kazetarien Euskal Elkargoak antolatutako Euskal Kazetaritza Saria jaso zuen 2017ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren komunikazio lanak. [Villabona, 2017/VII/27]

- Joxerra Garzia. Kazetaria, eragilea eta aditua. Kazetari gisa hurbildu zen bertso mundura Euskadi Irratian ‘Sorgin Afaria’ programan bertsoari tarte eginez eta Fernando Amezketarra herri arteko lehiaketa antolatuz. ETBko ‘Hitzetik Hortzera’ bertso programaren sortzailea, lehen aurkezle eta zuzendaria, izan zen ondoren. Eragile garrantzitsua Elkartearen sorreran eta hurrengo urteetan, gai-jartzaile eta epaile gisa ere aritutakoa. Bertsolaritzari buruzko doktorego tesiarekin EHUn hainbat urtez komunikazio alorrean irakasle. Bertsolaritzari buruz, eta honek hedabideekin daukan harremanaz, gogoeta mamitsuak argitaraturikoa. [Donostia, 2017/VII/26]

- Jexux Mari Irazu. Bertsolaria eta kazetaria. Euskal Herriko Txapelketa Nagusian finalista hainbatetan. Hernaniko Kronikan urte luzez kazetari ibilitakoa, bertsolaritzari buruzko lehen hedabide digitala jarri zuen, bertsoa.com, 2007. Horretan dabil orain ere (bertsoa.eus da orain), Elkartearen baitan, ‘Hitzetik Hortzera’n ere kolaboratzen. Argia Saria birritan irabazitakoa, bigarrena bertsoa.eus-en lanagatik. [Villabona, 2017/IX/28]

- Felix Irazustabarrena. Kazetaria eta eragilea. Programaren bigarren urtetik gaurdaino, ia 30 urte ‘Hitzetik Hortzera’n egin ditu hainbat funtzio beteaz, tartean baita zuzendari postua ere. Bertsoa.eus-en ere egiten du bere ekarpena egun. Bertso-saioetan antolatzaile, aurkezle, gai-jartzaile eta epaile ibilitakoa. [Villabona, 2017/IX/19]

- Joxe Mari Iriondo. Kazetaria eta eragilea. Loiola Irratian, Telenorten, Euskadi Irratian eta ETBn ibiliatakoa besteak beste, Euskal Irratietako eta ETB1eko zuzendari izandakoa. Loiola Irratiko hainbat programatan hasi zen bertsolaritzari tarte bat egiten, txapelketak zuzenean emititzen eta bertsolari gazteen irrati sariketa antolatzen. Gerora pasa den medio guztietan

eskaini izan ditu bertsolaritzari buruzko kazetaritza lanak. Gai-jartzaile gisa ibilbide luze eta oparokoa, eragiletzan ere aritu izan da, besteak beste, Euskaltzaindiaren eskutik, 1980ko eta 1982ko txapelketen antolakuntzan. Bertsolariei buruzko hainbat lan argitaratu ditu Auspoa sailean. [Zarautz, 2017/VII/18]

- Maialen Lujanbio. Bertsolaria. Euskal Herriko egungo txapelduna (bigarren txapela izan du 2017koa 2009koaren ondotik). Bertsozale Elkartearen hedabideen harremanarekiko jarraipena egiten zuen Sustapen alorrean ardurak izandakoa. Hainbat hedabidetan kolaboratzaile izandakoa. [Hernani, 2017/VII/17]

- Jon Sarasua. Bertsolaria, eragilea eta aditua. Eragile garrantzitsua Elkartearen sorreran eta hurrengo urteetan, urte luzez bertako komunikazioaren ardurak izandakoa. Kazetaritzan doktore, euskarazko kazetaritzari buruzko lanarekin eta MUn komunikazio alorrean irakasle hainbat urtez. Bertsolaritzari buruz, eta honek hedabideekin daukan harremanaz, gogoeta mamitsuak argitaraturikoa. [Aretxabaleta, 2017/X/06]

- Xabier Sukia. Bertsolaria eta kazetaria. Euskadi Irratiko 'Hitza Jolas' programaren gidaria 2006tik. [Donostia, 2017/VII/14]

- Beñat Zamalloa. Kazetaria. Prentsan, irratian nahiz telebistan (*Berria*, Radio Vitoria, Euskadi Irratia, Hamaika telebista...) bertsolaritzaz aritutakoa eta *Bertsolari* aldizkariaren zuzendari izandakoa. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria irabazitakoa bertsolaritzaren inguruan lanagatik. [Bilbao, 2017/IX/27]

- Aritz Zerain. Bertsolaria eta eragilea. Elkartearen koordinatzaile nagusi 2007tik. [Villabona, 2017/IX/22]

1.4.3 Mistoa: Kasu Azterketa

1.4.3.1 Formatu aniztasuna

Prentsa aukeratu da neurketa kuantitatiboetarako laginak osatzeko. Gainerako formatuekin alderatuz ibilbide luzeena berak duelako (prentsa da ziklo guztietan ageri den bakarra), eskaintza anitz eta konplexuena berea delako (telebistak, adibidez, azken zikloraino ez du eskaintza jarraiturik, eta irratiak ez du eskaintza anitzik), eta eskuratzeko nahiz lanketarako formatu errazena suertatzen delako.

Hala ere bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren historiak formatu ezberdinetan gertaturikoaren historia izan behar du ezinbestean, eta ahalegina egin da gainerakoen inguruko informazioa ere lantzeko. Honela, ziklo zaharragoei dagokienean arreta berezia jarri zaio gerra aurreko pizkundean bertsolaritzak irratian izan zuen lehen esperientziari, eta frankismoan Loiola Irratian izan zuen gailurrari. Gerraurrekoari erreferentzia egiten dioten Agirreazkuenagaren (2018), Díaz Nociren (1992) Ordozgoiti, Garmendia eta Mujikaren (2012), Martinezen (2012) eta Zubimendiren (2012) testuak xehe-xehe hustu dira eta garaiko prentsan egin zitzaizkion erreferentziak bildu dira. Loiola Irratikoaz ere topatu den literatura guztia hustu da (aurrekoak Díaz Noci eta Zubimendi salbu) eta protagonista nagusiari, Joxe Mari Iriondori, egin zaio elkarrizketa, argitaratu gabeko dokumentuak helarazi dizkigularik.

Telebistari dagokionean, ziklo zaharretan apenas ezer argitaratu ez zenez, ikus-entzunezko pieza guztien bilketa egin nahi izan da. Martinezen (2011) bilketa lana hartu da oinarritzat, Xenpelar Dokumentazio Zentruan jasotakoekin, eta Euskal Filmotekan RTVEren artxibo

historikoan eta Frantziako Ikusentzunezko Institutu Nazionalarenean topaturikoekin osatzeko¹⁷. Inork erreparatu gabeko piezaren bat deskubritu ahal izan da honekin.

Azken zikloan, esan bezala, eskaintzaren hazkundean eta dibertsifikazioak dena jasotzea bideraezin bihurtzen duenez, kuantitatiborako lagina osatzeko egin den bezala formatu aniztasuna islatzeko ere estrategia berri bat probatu da: formatu bakoitzean erreferentzialtzat har daitekeen eskaintza banaren kasu azterketa egin da¹⁸. Honela, telebistan ETBko ‘Hitzetik hortzera’ aztertu da, ikuspegi mediatiko batetik zikloaren gailurra litzatekeena; irratian Euskadi Irratiko ‘Hitza Jolas’ programa, azken hiru hamarkadetan oihartzun handiena izan duena; Interneten bertsoa.eus, bertsoari buruzko hedabide digital nagusia; eta paperekoan *Bertsolari* ia 30 urteko ibilbidea egin duen argitalpen espezializatua.

Kasu azterketaren ikuspegi klasikoak (Martínez Carrazo, 2006; Cepeda, 2006; Yacuzzi, 2005) kualitatibo gisa definitzen du metodoa, baina azken urteetan mistotzat hartzen da:

“Mixed methods research works particularly well for case study research as it allows the researcher to take the rich empirical data yielded from case studies and apply either quantitative or qualitative methods or quantitative and qualitative methods to the data. In this manner, qualitative data can be quantitized or quantitative data can be qualitized to extract meaning from the data sets that might otherwise be hidden”¹⁹ (Kichenham, 210: 562).

Objektu zehatz baten ahalik eta alderdi ezberdin gehienak aztertzeko erabiltzen da kasu azterketa eta egokia begitandu da eskaintza mediatiko konkretuak sakonago aztertzeko. Metodoari buruzko literaturak esaten dituenak jarraiki, kasu bakoitzean iturri ezberdinak erabiltzeko ahalegina egin da, eta objektua ahalik eta gertuenetik ezagutzekoa (programa edo hedabideen egoitzetara joanaz eta bakoitzaren eskaintzaren zuzeneko behaketa eginaz). Eta Creswell eta Planok (2007) ‘triangulaketa’ deitzen dioten ereduari jarraituz, maila bereko elkarren osagarri gisa harremandu dira²⁰.

1.4.3.2 ‘Hitzetik Hortzera’

Elkarrizketa sakonekin jarri da kasu azterketaren alderdi kualitatiboaren oinarria. Honela, Joxerra Garziari eta Felix Irazustabarrenari buruturiko elkarrizketa sakonetan ‘Hitzetik hortzera’ izan da gai nagusia. Bestalde, egun ‘Hitzetik Hortzera’ eta ‘bertsoa.eus’ elkarlanean burutzen direnez, eta Jexux Mari Irazu bertsoa.eus-en lantaldekoa denez, berak ere badu gaiari buruzko ezagutzarik. Azkenik, ‘Hitzetik Hortzera’ urte luzez bertso munduak izan duen ardura eta erakusleho nagusienetariko bat izan denez beste hainbat elkarrizketetan ere jorratu da (Lujanbio, Arzallus, Esteibar, Eizagirre...).

Elkarrizketak prestatzeko eta berauetan jasotzeko osatzeko bertsolaritzak telebistan duen presentziaren gaia jorratu duten hainbat lan bildu ahal izan dira (Barandiaran, 2011; Elortza,

¹⁷ <http://www.filmotecavasca.com/es/fondos>, <http://www.rtve.es/alacarta/tve/archivo/>, eta <http://www.ina.fr/>

¹⁸ Hasiera batean izenburutzat ‘Kazetaritza praktikak’ zeraman kapitulu baten bizkarrezurra behar zuten lau kasu azterketa hauek baina tesiak harturiko bolumena dela eta kapitulu hori kanpoan uztea erabaki da, aurrerago lantzen jarraitzekotan. Edozein modutan azken zikloaren historiari buruzko kapitulua egituratu eta aberasteko balio izan du egindako lanak.

¹⁹ Azken hamarkadatan dezenteko oihartzuna lortzen ari da kuantitatiboa eta kualitatiboaren arteko arrakala gaintzea biltzen duen metodo mistoen estrategia. Hainbat adituk arabera (Creswell eta Plano, 2007; Kichenham, 2010; Tashakkori, eta Teddlie 2008) apustu garbia egiten dute ‘hirugarren bidea’ deitzen zaion honen alde.

²⁰ Creswell eta Planoren sailkapenean bestelako aukerak ere aipatzen dira: ‘Txertaketa’, kuantitatiboa eta kualitatiboa gai ezberdinak argitzera bideratzea; ‘Azalpena’, kualitatiboa kuantitatiboaren emaitzak argitzeko burutzea; ‘Esploraziozkoa’, kualitatiboa kuantitatiboak erantzun beharreko hipotesiak eraikitzeke erabiltzea...

Sukia eta Murua, 2008; Enbeita, 2000; Garzia, 1993; Gaztelumendi, 2009) eta baita gai zabalagoaren baitan bada ere kontu honi heltzen dioten beste hainbat ere (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001 eta abar).

Kuantitatiboari dagokionean hainbat datu ETBren Miramongo artxiboetan bilatu dira.

1.4.3.3 'Hitza Jolas'

Programak izan dituen bi gidariak, Nikolas Aldai eta Xabier Sukia, elkarrizketatu dira. Bertsolaritzak irratian izandako presentziaz diharduten lan batzuk ere baliatu dira, 'Hitza jolas'-i buruz gehiago jakiteko: Azkune (2000) eta Martinez (2012). Eta ETBren Miramongo artxiboetatik atera dira zenbait datu kuantitatibo.

1.4.3.4 Bertsoa.eus

Jexux Mari Irazuren elkarrizketak bertsoa.eus izan du jomuga nagusi. Eta beste zenbait elkarrizketetan ere landu da gaia (Irazustabarrena, Esteibar, Izagirre...). Sorrerari buruzko hainbat kontu eta datu Agirrerren (2007) lanetik eskuratu ahal izan dira eta kuantitatiboa Irazuk pasatako hainbat dokumenturekin (datuak, aurrekontua eta abar) garatu ahal izan da.

1.4.3.5 *Bertsolari*

Joxean Agirre elkarrizketatu da, sortzailea eta urte luzez zuzendari ibilitakoa eta Beñat Zamalloa, zuzendari izandakoa baita. Aldizkariaren ibilbideaz ere batu dira testu batzuk: A. Agirre (2016a, 2016b eta 1996), J. Agirre (2016), Agirreazaldegia (2016), Egaña (2016), Garzia (2016)... eta baita bertsolaritzari buruzko kazetaritzaren maparen baitan aldizkariari erreferentzia egiten diotenak ere: Siadeco (1995) eta Elortza, Sukia eta Murua (2008). Kuantitatiboari buruzko azpipuntuan azalduta gelditu den bezala lehen ehun eta hamabi zenbakietako edukien azterketa ere egin da. Eta, azkenik, aldizkariaren inguruko dokumentazioa ere bildu ahal izan da (audientziak, aurrekontuak eta abar)

2. MARKOA ETA ANTOLAKETA

2.1 IKERGAIAREN EGOERA

2.1.1 Bertsolaritza eta hedabideak

Amurizak nobedade asko ekarri zituen 80ko hamarkadaren hasieran baina guztien artean funtsezkoena, gainerakoen oinarrian egon daitekeena, barrurako begirada litzateke: 1981ean argitaratu zuen ‘Hiztegi errimatuan’ eta 1983an Antton Ezeizaren zuzendaritzapean estreinatu zen Ikuska18 dokumentalean bertsolaritzaren triapak erakutsi zituen eta 1984ean argitaratu zen ‘Zu ere bertsolari’ lanean didaktika oso bat garatu zuen. 1981an argitaraturiko ‘Hitzaren kirol nazionala’ lanean, aldiz, bertsolaritzaren garapen soziokulturalari erreparatu zion (testuinguru berriari egokitzeko bertsolaritzak hartu beharreko toki sozialari eta abar), beti ere bere esperientzia eta gogoeta pertsonaletik abiaraziriko ideiak plazaratuz.

Aurretik ere emanak ziren ekarpen garrantzitsu ugari, baina bertsolari batek horrelako autoanalisirako gaitasuna agertzen zuen lehen aldia zen. Gutzira, Bertsozale Elkartearen sorreraz (1986) bertsolariek hartzen duten ardurarekin, gogoeta partekatua ezinbesteko bihurtuko da, eta barrurako begirada hori orokortu. Ongek ahozkotasanari egozten dion potentzialitatea (komunitarismoa) idatziari egozten dionarekin (introspekzioa) uztartzea dakar egiteko modu berriak²¹.

Gogoeta partekatu horren lehen bi agerpen nagusiak *Jakin* aldizkarian emango dira, biak ere inkesta soziologiko handi banaren emaitzak osatze aldera. Lehenengoa elkarlanean (1987) buruturiko elkarrizketa kolektibo bat izango da, eta bigarrena Siadecok (1995) antolaturiko hainbat eztabaida talderen emaitza²².

Hurrengo urteetan Joxerra Garzia, Andoni Egaña eta Jon Sarasuak argitaraturiko lanek ekarpen garrantzitsua egingo dute. Lehengoa, 1997an argitaratu zen ‘Zozoak beleari’ Egaña eta Sarasuaren arteko gutun trukaketa gisa dago egituratua; bigarrena 1998an kaleraturiko ‘Jon Sarasua: bertso-ispiluan barrena’ Garzia eta Sarasuaren arteko elkarrizketa luze bat da; eta zikloa borobiltzen duena, bertso mugimenduaren baitan kanoniko bihurtua, argia 2001ean ikusi zuen ‘Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak’ sei eskutara idatzia. Hirurak ere lan kolektiboak, bada, eta kolektibitate zabalgo batetik, bertso munduan urte horietan egosten zenetik, edandakoak egileek hainbatetan azpimarratzen dutenez.

²¹ Honela dio ‘Oralidad y escritura’ren pasarte batean: “La comunicación oral une a la gente en grupos. Escribir y leer son actividades solitarias que hacen a la psique concentrarse sobre sí misma” (2016: 125).

²² Elkarrizketa kolektiboan Xabier Amuriza, Joxe Mari Aranalde, Andoni Egaña, Pello Esnal, Joxerra Garzia, Mixel Itzaina, Jexux Mari Etxezarreta, Juan Mari Lekuona, Manuel Lekuona, Abel Muniategi eta Iñaki Sarriguartek erantzuten dute. Siadecoren sei eztabaida taldeetan erantzunak, metodologia honek eskatzen duen bezala, anonimoak dira.

Gogoeta partekatu guzti honetan hedabideekiko arteko harremana oso gai garrantzitsua izango da. Amurizaren ‘Hitzaren kirol nazional’ean lehen aipamenak topa daitezke, Torrealdairen zazpi puntutako galdetegian seigarrena hedabideei buruzkoa da, Siadecoren azterketan orrialde mordoa eskaintzen zaizkio, eta Garzia, Egaña eta Sarasuaren lanetan ere presentzia garrantzitsua izango du.

Bestalde, elkarrekin sinatzen hasi aurretik ere aurkitu daiteke gaiari buruzko hiru egile hauen ale mamitsurik: Garziak (1993) ‘Bertsolaritza hedabideetan’ lanean garaiko mapa osatu eta hainbat proposamen luzatzen du; Egañak (1993a) hedabideek bertsozalearen pertzepzioa nola baldintzatzen duten seinalatzen du ‘Egungo bertsolaritzaren ezaugarriak’ izenburupean; edo Sarasuak (1995) masa kulturarekiko harremana aztertu ‘Bertsolaritzaren eredu komunikatiboa’ gaitzat hartuta. Eta elkarrekin lorturikoaren ondotik bakoitzak bere hariari jarraituz (Garziak ahozkotatzen, Egañak bertsogintza eta Sarasuak euskararen gizarte mugimendua) egindako gailur indibidualetan ere (Garziaren ‘Jendaurrean hizlari’, 2008; Egañaren ‘Hogeita bina’, 2004; eta Sarasuaren ‘Hiztunpolisa’, 2013), nabari daitezke gaiaren oihartzunak.

Gogoeta partekatu argitaratuak Bertsozale Elkarrekin antolatutako *Bertsolaritza* jardunaldietan topatu du bere bidea 2010eko hamarkadaren hasieran. Bertsolari Aldizkariak argitaratuko ditu topaketa hauetako hitzaldien testuak, baina, zertzelada interesgarriren bat eskain daitekeen arren, gaiak ez du zentraltasunik izango. Badirudi nolobait barealdi bat ematen dela, eta beste formatu batzuetan lantzen dela.

Hain zuzen ere *Bertsolari Aldizkaria* izango da beste iturri garrantzitsu bat. Bertsolariaren presentzia mediatikoaren alderdi desberdinak landu dituzten askotariko testuak argitaratu ditu, hainbat egileren eskutik: bertsoak irratian izandako presentziari buruzkoak (Azkune, 2000 eta Martinez, 2012), bertsolaritza eta zinearen arteko harremanaz (Martinez, 2011), bertsolaritzak marrazki bizidunetan egindako bideaz (Abril, 2005), bertsolaritzak interneten duen presentziaz (Agirre, 2007), ‘Hitzetik Hortzera’ri buruz (Enbeita, 2000; Gaztelumendi, 2009), *Herria* aldizkarian izandako tokiaz (Jorajuria, 2007), *Bertsolari Aldizkaria* berari buruz (Agirre 2016b, 2016c eta 1996; Agirreazaldegia 2016, Egaña 2016...), Basarriren kazetari ibilbideaz (Iriondo, 2013), bertsolaritzari buruzko kazetaritzaz (Agirre 2016a eta 2013a) eta abar.

Lan hauek ez dira ikerketa akademikoak. *Bertsolari Aldizkari*ko ekarpen gehienak oso landuta daude, erreportaje luze gisa, baina kazetaritza testuak dira finean. Eta gogoeta partekatutako ekarritakoekin ere, beste hainbeste gertatzen da. Gogoeta dira ikerketa baino, planteamendu jasoak egiten dituen gogoeta, baina formari dagokionean bertsozaleek ulertzeko moduko diskurtso bat eraiki nahi duena.

Bi multzo handi hauetatik kanpora Joseba Zulaikak Bertsozale Elkarrekin sortu bezperatan, 1985ean, txapelketaren kritika gisa argitaraturiko ‘Bertsolaritzaren jokoa eta jolasa’ ere aipatu beharra dago, ondorengo gogoetetan, baita bertsolaritzaren hedabideratzearen ingurukoetan ere, izan duen itzalagatik. Txapelketa eta hedabideratzea eskutik ibili izan diren bi fenomeno dira, oso antzeko ohartarazpenak egin izan dira bataren eta bestearen inguruan, finenak Zulaikak egindakoak izan dira, eta oso kontuan hartu ditu mugimenduak²³.

²³ Garzia, Sarasua eta Egañaren lanetan ere hainbat buelta ematen zaio ‘jokoa vs. jolasa’ dilemari. Deigarria da Egañaren lanik potoloenaren izenburuak (‘Hogeita bina’) izenburuak Zulaikari egiten dion keinua: “Joko baten norgehiagoka epaitzea ez da inolako arazoa: jokoa berari ipinitako arauak automatikoki erabakiko dute nork egin dituen jasoaldi gehien, nork osatu dituen 22 tanto (...) Erabat diferente litzateke jolas baten norgehiagoka epaitzea: nor dibertitu da gehiago? Nork sartu du ziri handiena?” (Zulaika, 2003: 23).

Eta topatu dira bertsolaritzaren presentzia mediatikoarekin loturaren bat duten beste lan batzuk ere, ikerketa akademikotik gertuago edo urrunago egon daitezkeenak. Honela, Landabereak (2012) ikerketa polita eskaintzen du tokiko aldizkari batean bertsolaritzaren lehen audioaz, edota Barandiaranek (2011) Elkartearen historiaz osaturiko lanak ‘Hitzetik hortzera’ri buruzko hainbat kontu dakartza. Bertsolaritzaren historian garrantzitsuak izan diren hainbat figuraren kazetaritza lanen erreferentziak eskaintzen dituzten hainbat liburu ere baliagarriak suertatu dira testu bilketarako: Lasak (2008) Hernandorenari buruz argitaraturiko lan bikaina; Aitzolen artikulu bilduma (Ariztimuño, 1988); Iriondok (2014a eta 2014b) bilduriko Basarriren artikulu sorta; Iparragirreri buruzko prentsako erreferentziak eskaintzen dituen lan mardula (Mendibil et al, 1999)...

Azkenik, aipatu beharra dago gaiarekin lotura argi bat izanik hertsiki ikerketa akademikotzat har daitezkeen lanik ez dela apenas topatu. Laborderen (1998) lan bat aipa daiteke (‘Une archéologie du bertsularisme’), Lore Jokoen inguruan eman zen bertsolaritzaren lehen instituzionalizazioa azaltzerakoan prentsak betetako paperari arreta berezia eskaintzen diona. Edo Mouilloten (2009) beste bat (‘Resisting Poems: Expressions of Dissent and Hegemony in Modern Basque Bertsolaritza’) bertsolaritzak modernitatean izandako sarbideaz diharduena. Argitaratu gabeko graduondoko lanak ere eskuratu ahal izan dira: Iturriotzek (2008) hedabideen eta bertsolaritzaren agenden arteko lotura eginaz jorratutako doktorego programako lana (‘Bertsolaritza: Jardun herrikoia masa-komunikazioan barna’); Esteibar eta Iturriotzek (2008) Elkartearen komunikazioari eskainiriko master bukaerako lana (‘Bertsozale Elkartearen baloreen eta jardunaren transmisiorako komunikazio irizpideak’), eta Elortza, Sukia eta Muruak (2008) bertsolaritzaren hedapenez landurikoa (‘Bertsolaritzaren hedapena eta sustapena XXI. mendean. Bertsolaritza hedabideetan: tratamendua eta kate-sarea’).

Asko idatzi izan da, bada, bertsolaritzaren presentzia mediatikoaz, baina akademian kasik abiarazi gabe dagoen ikergai bat da oraindik.

2.1.2 Bertsolaritzaren soziologia

Elkarteak bere sorreratik hamarkada bakoitzeko inkesta soziologiko haundi bana egitea erabaki zuen, bere estrategia bertsolaritzaren bilakaeraren ezagutza xehe batetik antolatzeko.

Lehenagoak jada aipatu dira, *Jakin* aldizkarian argitaraturiko biak: Torrealdei (1987) eta Siadeco (1995). Hirugarrena Xabier Aierdi buru zuen EHUko ikerketa taldeak burutu zuen eta 2007an argitaratu ziren emaitzak EHUk eta Bertsozale Elkarteak kaleraturiko liburu banatan. Laugarrena Aierdi buru zuen taldean parte hartu zuen eta 2010eko hamarkadako inkesta zuzendu duen Arkaitz Zubiri soziologoak zuzendu du. *Bertsolari* (2018) eta *Jakin* (2019) aldizkarietan argitaratu dira emaitzak, Harkaitz Zubirik sinaturik.

Lau ikerketek eskaintzen dituzte azken zikloan bertsolaritzak egindako bidearen inguruko datu esanguratsuak, lan honetarako baliagarriak direnak. Azken hiruek, ordea, bertsolaritza eta hedabideen arteko harremanaren inguruko datuak ere eskaintzen dituzte.

Laugarrenak, aldiz, bertso-munduak azken hamarkadetan Bertsozale Elkartearen inguruan gauzatu duen antolaketa eta gizarte mugimenduen inguruko teoriak erkatzen dira. Teorizazio honek 2016an buruturiko Kantu inprobisatuen nazioarteko ‘Europa bat-batean’ topaketetako jardunaldi akademikoetan Zubirik aurkezturiko ‘Kultur ekosistema sortzeko estrategia, bertsolaritza garaikidean transmisioa ulertzeko gako’ lana du oinarrian. Bertan, kultur ekosistema tradizionalaren desagerpena dela eta bertsolaritzak gizarte mugimendu gisako

antolaketa oinarrituriko ekosistema berri baten sorrerak burutu behar izan duela defendatzen da, eta hedabidetze estrategiari garrantzia ematen zaio.

2.1.3 Euskal Herriko kazetaritzaren historia

Bertsolaritzaren presentzia mediatikoari testuinguru bat jarri nahi izanez gero, agerikoa da Euskal Herriko kazetaritzaren historiari buruzko lanetara jo beharra.

Alor honetan, Javier Díaz Nocirenak dira ikuspegi integral batetik ibilbide osoa eskaintzeko egin diren ahalegin mardulenak: euskarazko prentsaren sorrera eta garapena ikertu zituen 1995ean argitaraturiko doktoretza tesian; eta bi hamarkada geroago, 2012an, hizkuntza (euskara, gaztelera eta frantsesa) nahiz formatu guztiak (prentsa, irratia, telebista eta internet) aintzat hartzen zituen Euskal Herriko kazetaritzaren historia kaleratu zuen.

Historia honen alor ezberdinen inguruan informazio garrantzitsua eskaintzen duten egile ugari aurkitu daitezke, Díaz Nociren beste ekarpen batzuk tartean. Adibidez, Gutierrez Paz (2002) interesgarria suertatzen da euskal irratia historia osatzeko, Agirreazkuenagak (2012) frankismoko euskarazko irratigintza du ikergai, Sudupek (2011) 50eko hamarraldiko euskarazko prentsan sakontzen du, baita Díaz Nocik ere (2001b), gerraurrekoaz egiten duen bezala (1995a eta 1993) edota Mesok (2008) euskarazko hedabideek interneten izandako lehen bilakaera azaltzen du.

Bertsolaritzari buruzko kazetaritzaren historian garrantzitsuak diren medio edo kazetari konkretuak ikertzen dituzten lanak ere badaude. Honela, *Diario de San Sebastiani* buruz (Arzamendi, 1992), lehen euskal irratsaioei buruz (Díaz Noci, 1992; Ordozgoiti, Garmendia eta Mujika, 2012), gerraurreko *Argia* aldizkariari (Díaz Noci, 2001a), edo Loiola Irratiari (Agirreazkuenaga, 2017).

2.1.4 Bertsolaritzaren historia

Bertsolaritzari buruzko kazetaritza testuinguratzeko Euskal Herriko kazetaritzaren historia ezinbestekotzat jotzen bada, beste hainbeste gertatzen da bertsolaritzari buruzko historiarekin. Gaurdaino ez da burutu bertsolaritzaren historia osotu bat eskaintzen duen lanik.

Bertsolaritzak izan duen biltzaile handienak, Antonio Zavalak, ‘Bosquejo de historia del bertsolarismo’ izeneko lana argitaratu zuen bere ibilbidearen hasieran. Bizitza eskaini zion lana, Auspoa Sailean, bertsolaritzaren historiaren entziklopedia bat izango zen gero, ehunka bertsolariren biografia, bertso eta ekarpenen bilduma erraldoia. ‘Bosquejo’ a eta entziklopediaren tartean legokeen lana ekartzea falta izan zitzaion.

Badira historiari errebaso bat ematen dioten lanak ere (Dorronsoro eta Lekuona, 1987; Amuriza, 1987) edo historiaren lanketan gehiegi sakondu gabe historia horren aldizkatze ezberdinak planteatzen dituzten ekarpenak ere (Aulestia 1990; Dorronsoro, 1981 eta 1988; Egaña, Esnal eta Sarasua, 2002, Pello Esnalen aldizkatzearekin; Garzia, 2000a, 2000b, 2007 eta 2012; Larrañaga 2014; Lekuona, 1980a, 1982 eta 1985; eta Zavala, 1964).

Historiaren abiapuntutzat jo daitezkeen Lore Jokoei buruz, euren testuinguruaz eta lehen eragileaz, Antoine D’Abbadieri buruz, ekarpen interesgarriak egiten dituzte Davatek (2012), Gabilondok (2003), Labordek (1998) eta Urkizuk (1997a, 1997b eta 2000a). Ez dira, inolaz ere, bertsolaritzaren historiara fokaturiko lanak, baina ia gehienetan aipatzen da bertsolaritza.

Arazoi bategatik edo besteagatik garai hartako bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren historia osatzeko klabeak suertatzen diren zenbait pertsonaiaren inguruko lanak ere topa

daitezke. Esaterako, Jose Inazio Iztuetari buruzkoak (San Martin 1967 eta 1981; Aranburu et al., 1993), Jose Manterolaren ingurukoak (San Martin, 1984) edo Agosti Chahoren figura jorratzen dutenak (Urkizu, 2006 eta 2011).

Garaiko bertsolari esanguratsuenekin ere beste hainbeste gertatzen da: Etxahuni buruz hainbat lan topa daiteke (Casenave, 2002; Haritschelhar, 1969), Iparragirrenen inguruko literatura zabala da oso (Amuriza, 1981; Arana, 1999: 1983a eta 1983 b; Olaso eta Agirre, 1999; Xarriton, 1987 eta abar), Fernando Amezketarra ere ez zaio atzean geratzen (Otermin 2005, 2008 eta 2014; Zavala, 1966), Bilintxi (Zavala, 1993c), edo Otañori (Hernandorena Kultur Elkarte, 2010; Zavala, 1993a eta 1993b) buruzko hainbat lan aurki daiteke, esaterako.

Gerraurreko Pizkundeak bertso munduan izan zuen historiaren testigantza bikaina jasotzen du Zubimendik (1936 eta 2002) eta garaiko eragile nagusia izan zen Jose Ariztimuñoz lan errenkada argitaratu da (Altzibar, 1996; Otaegi, 1993 eta 1998; Ugalde, 1988; Urkaregi, 1987; Zavala, 1997a).

Lasaren (2008) lanak Hernandorenaren biografia du helburu, baina, neurri handi batean pertsonaiaren ibilbidea dela eta, gerraurreko pizkundetik trantsiziora bitarteko bertsolariaren historia bat egitera iristen da. Ziklo honetan, Frankismoan, bertsolari garrantzitsuen izan zen Basarrik, hainbat lan inspiratu ditu (Iriando, 2005; Lekuona, 1975 eta 1992; Lekuona Etxabeguren, 1985). Garaiko zentsura eta bertsolariaren arteko harremanaz ekarpen interesgarria egiten du Torrealdai (2000). Eta garaiko eragileei buruzko lan gehiago ere argitaratu izan da: Arrueri buruz (Sudupe, 2012; Zavala, 2008), edota Zavalari buruz (Esnal, 2015; Garzia, 2001), esaterako.

Azken hamarkadetako historia ezagutzeko Alberto Barandiaranek (2011) Elkarteren historiaz eginiko lan bikaina da erreferentzia nagusia. Baina bestelakoak ere aurki daitezke, esaterako, Maiak (2017) bertso eskoletako lehen belaunaldiaren inguruan idatzirikoa. Edo Irazuk (2017) rocka eta bertsolariaren arteko harremanaz atondutakoa.

Aldi bati beharrean lurralde bati atxikitzen zaizkion lanak ere kontuan hartzeko modukoak dira, baita. Esaterako, Amurizak (2006) Bizkaiko bertsolariaren historiari eskainirikoa, edo Aristorenak (1992) Nafarroakoaz osaturikoa. Bertsolariaren historiaren alderdi jakin bati lotzen zaizkionak ere aurki daitezke: Etxezarretak (1993) idatzirikoa txapelketen historia, adibidez. Txapelketa bakoitzaren historia ere jasota dago hainbat liburutan.

2.1.5 Euskal kulturaren bilakaera

Euskal literaturaz idatzi ohi diren historietan tarte bat egin ohi zaio ahozko literaturari. Honela, alor honetan egiten diren lanetan ere topa daiteke ikerketa honetarako ekarpenik. Gainera, batez ere historia soziala egiten den kasuetan, euskal kulturaren bilakaera orokorraren testuinguruan jartzen da bertsolari ere. Zentzu honetan, interesgarriak dira Sarasolaren (1982) eta Torrealdaiaren (1977) lanak, esaterako. Gabilondok egindako euskal poesiaren historia ('Euskal poesiaren historia postmoderno baterantz: ahozkotatasunaz eta performantzeaz', 2009) eta euskal literaturaren historia soziala ('Before Babel', 2016), urrats bat haratago doaz, ahozkotatasunari eta bertsolariaren historia hauetan toki garrantzitsuagoa aitortu behar zaiela aldarrikatuz. Euskararen historia soziala egiten ekarpenak ere baliagarriak suerta daitezke (Intxausti, 2014a eta 2014b; Madariaga, 2008).

Euskal kulturaren bilakaera orokorrari erreparatzen dioten beste zenbait lanetan ere topa daiteke kontu interesgarriak. Amezagak (1994) herri kulturari buruz egindako doktorego tesian bertsolariaren kultura tradizionalak modernitatera egin dezakeen bidearen eredu gisa

aipatzen du, esaterako. Edota Gandarak (2015) Bigarren Pizkundean burutu zen euskal ondare kulturalaren biziberritzea aztertzeko bertsolaritza hartzen du adibide nagusi gisa.

Bertsolaritzari erreferentziarik egiten ez badiote ere Larrinagak (2008, 2007a eta 2007b) euskal kulturagintzaren bilakaeraz egindako lanek ere badute interesik, bertsolaritzaren bilakaeraren funtsezko testuinguru horren bilakaera jorratzen duelako, eta, besteak beste, euskal kulturaren instituzionalizazioaz edota kulturagintzak gizarte mugimendu gisa harturiko antolaketaz diharduelako.

Aldi konkretu bateko egoerari buruz ekarpenak egiten dituzten lanak ere interesgarriak dira. Hala nola, Bilbao (2003) lehen frankismoaz, edota, Zalbide (1988) gerra aurreko pizkundez.

2.1.6 Bertsolaritzari buruzko tesiak eta graduondoko lanak

Bertsolaritzarekin lotura zuen lehen doktore tesia, Etxhauni buruzkoa, Jean Haritschelharrek argitaratu zuen 1969an. Bigarrena bi hamarkada beranduago iritsi zen, 1988an, bertsogintzaren transmisiorako bideen balio pedagogikoa aldarrikatzen zuen Fito Rodriguezen eskutik. 1993an Denis Labordek plazaratu zuen fenomenoaren ikuspegi orokorra eman nahi zuen lana. 2000ko hamarkada bertsolaritzaren kritikarako marko gisa erretorika epidiptikoa ezartzen zuen Joxerra Garziaren proposamenarekin abiatu zen eta 2003an Asier Barandiaranek Kepa eta Balendin Enbeitaren bertsogintzaz eginiko azterketak jarraitu zion. Azkenik, Jexux Larrañagak 2013an txapelketaz eginiko irakurketa antropologikoa eta 2015ean Luzia Alberrok bertsolari zaharren bertsoen azterketatik Gipuzkoan Modernitatean izan zuen sarbideaz eginiko lana etorri dira. Zazpi tesi berrogeita hamar urtean²⁴.

Joxerra Garziaren tesian, sarrera gisa, ordurarte ikerturikoen erreposoa egiten da eta hiru ildo nagusi aipatzen ditu: biltze lana (bertso bildumak, biografiak eta historia), alderdi teknikoei buruzkoak (metrika, errima eta abar) eta bertsoaren alderdi poetiko-erretorikoei buruzkoak. Lehenengoan Antonio Zavala nabarmentzen du eta Juan Mari Lekuona, Joanito Dorronsoro, Gorka Aulestia, Patri Urkizu, Xabier Amuriza eta Pablo Jose Aristorena aipatzen ditu. Bigarrenean Patxi Altuna, Manuel Lekuona, Juan Mari Lekuona, Patri Urkizu, Xabier Amuriza eta Pello Esnal seinalatzen ditu izen nagusi gisa. Eta hirugarrenan Manuel Lekuona, Jose Ariztimuño Aitzol, Piarres Lafitte, Jesus Maria Leizaola, Jorge Oteiza, Santi Onaindia, Jean Haritschelar, Fito Rodriguez, Juan Mari Lekuona, Xabier Amuriza, Juan Garzia, Jon Sarasua eta Andoni Egaña. Egile asko dira eta obra oso zabala dute gehienek. Lan honetako ikergai zehatzarekin harreman estuena izan dezaketenak aipatu dira aurreko puntutetan.

Garziaren erreposotik gerora, jada aipatu den ‘Bat-bateko bertsolaritza, gakoak eta azterbideak’ liburuaz gain beste bi gailur izango ditu bere belaunaldiak. Bata 2003 urtean burututako ‘Ahozko Inprobisazioa Munduan’ topaketak izango dira, gisako fenomenoaren eta berauen ikerlarien arteko harreman sarea osatzeko egindako lanen fruitua. Bi liburu emango ditu honek 2004ean *Bertsolarik* ateratakoa eta Bertsozale Elkarteak argitaraturikoa, biak ere

²⁴ Hauek dira erreferentzia osotuak: HARITSCHELHAR, J. (1969): ‘Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862): contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIX siècle’. Baiona: Société des Amis du Musée Basque; RODRIGUEZ BORNAETXEA, F. (1988): Bertsolaritza, formarik gabeko heziketa. Bilbao: EHU; LABORDE, D. (1993): Doctorat ‘Le Bertsolari. Improvisation orale et rhétorique identitaire en Pays Basque’ sous la direction de Nicole Belmont, EHESS, Paris; GARZIA, J. (2000): Gaur egungo bertsolarien baliapide poetiko erretorikoak. Marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa. Bilbao: EHU; BARANDIARAN AMARIKA, A. (2003): Kepa Enbeita eta Balendin Enbeita : Bi bertsolari-belaunaldi ahozkotasanaren harian. Bilbao: EHU; LARRAÑAGA, J. (2013): Jolas sakona: Txapelketaren prozesu errituala eta bertsolariaren arrazoi sortzailea XXI mendeko Agoran. Bilbao: EHU; ALBERRO, L. (2015): Bertsolarien ahoz : modernizazio prozesua eta identitate bideak : Gipuzkoa, 1830-1936. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.

txosten bilduma gisa egituratuak (Díaz Pimienta, Foley, Garzia, Rodriguez, White...). Azken gailurra 2007an bertsoaritzari eskainiriko *Oral Tradition* aldizkariaren monografikoa izango da, hainbat egileren artikulua bilduma (Foley, Garzia, Egaña, Agirrezaldegi eta Goikoetxea, Aierdi eta Retortillo, eta Sarasua) dakarrena.

Joan den hamarkadaren bigarren erditik aurrera belaunaldi aldaketa eman da Bertsozale Elkartearen gidaritzan, eta 2008an Bertsozale Elkartea, Gipuzkoako Foru Aldundia, EHU, Villabonako Udala eta Kutxa Fundazioaren elkarlanetik abiarazi zen Mintzola Ahozko Lantegia Fundazioa da belaunaldi berriak bertsoaritzari buruzko ikerketa sustatzeko estreinatu duen tresna nagusia. Mintzolak kultur arteko bi topaketa berri antolatu ditu ('Munduko kantu inprobisatua' 2013an eta 'Europa bat-batean 2015 nahiz 2016 artean), eta Kulturarte Mapa nahiz Liburutegi digitala abiarazi. Ahozkotasunaren inguruko gogoeta eta sormena garatzen duten 'Ahoa Bete Hots' jardunaldiak ere jarri ditu martxan 2010etik 2015era bitartean. 2011tik 2013ra bitartean buruturiko prozesu parte hartzailean Bertsoaritzaren Ikerkuntzarako Plan Estrategikoa ere finkatuta gelditu da, hainbat ikerketa lerro eta hauen lehentasuna planteatuz. Bestalde, EHU eta GFA eta Mintzolaren elkarlanetik Mikel Laboa Katedra sortu zen 2013an euskal musika, dantza eta bertsoaritzaren inguruko doktorego tesiak egiteko bekak edo ikerketa lan monografikoak sustatzeko laguntzak bideratzen dituen.

Pauso hauek ematearekin batera ikerketa lerro berriek ere hartu dute protagonismoa. Honela, bertso munduan azken urteetan eman den gogoeta partekaturik indartsuenari jarraiki, generoaren gaiaren inguruan hainbat lan jorratu dira²⁵. Bertsoaritzaren memoria historikoa berreskuratzeko tresna gisa erabilia hainbat ikerketa ere egin dira baita²⁶. Edota, esaterako, informatika alorreko hainbat proiektu aplikatu zaizkio bertsoaritzari²⁷.

Belaunaldi berriak egokitzapenaldi bat behar izan zuela dirudi²⁸, baina ukazina da egindako lana, eta hasia da lan hori bere fruituak ematen. 2008tik hona gradu edo master amaierako lanen eta tesinen artean 20tik gorako zerrenda osa daiteke²⁹, eta une honetan, Mintzolaren webgunean ikus daitekeenez³⁰, hamar tesi daude martxan. Alegia, litekeena da datorren hiruzpalau urtetan aurreko berrogeita hamarretan baino tesi gehiago argitaratzea bertsoaritzaren inguruan.

Hasia da, bada, bertsoaritzarekiko interes akademikoa pizten, eta etorkizunean dezenteko garapena izan dezakeen alor bat da.

²⁵ Carmen Larrañagak 90eko hamarraldian bertsoaritzaren eta generoaren inguruan argitaraturiko artikulua sortarekin irekitako bideari, Linda Whitek eman zion jarraipena lehenengo eta hainbat unibertsiteko lan etorri dira ondoren (Lorea Agirrerren tesina eta Zaira Latasaren gradu amaierako lana 2010ean, Izaro Zinkunegiren gradu amaierakoa 2014ean eta Gema Lasarteri Mikel Laboa Katedrak saritutako monografikoa 2015ean). Jardunaldietan lantzen den gai bat da, Maialen Lujanbiok eskaini izan du hitzaldi nahiz artikulua mamitsurik eta Estitxu Eizagirrek (2014) liburua atera du bertsolari emakumeen historia eginaz.

²⁶ Bertsoaritzaren eta memoria historikoaren arteko lotura gehien landu duena Pio Perez Aldasoro izan da, gerra zibila eta gerraostean inguruan. Mikel Aizpuru, Ander Delgado edo Maitane Ostolazak, aldiz, bestelako gaien inguruko historiografia egiteko baliatu izan dituzte bertso-paperak.

²⁷ Manex Agirrezabalaren gradu amaierako lana 2011ean eta master amaierakoa 2012an, Jon Lizarazuren gradu amaierakoa 2013an, Mikel Osinaleren master amaierakoa 2013an baita eta Joanes Ceballosen gradu amaierakoa 2014an. 'Bertsobot' edo 'Bertsotarako arbel digitala' gisako izenburu iradokitzaileak dakartzate.

²⁸ Honela zioen Elkarteko Ikerketa Sailean ardurak izan dituen Ainhoa Agirrezaldegik: "Hiru horiek [Garzia, Egaña eta Sarasua] lan itzela egin zuten, baina hurrengo urteetan ekarpen teoriko horiek ugaritu eta zabaldu egin behar izan genituen, eta ez dugu egin" (Barandiaran, 2011: 98).

²⁹ Xenpelar Dokumentazio Zentruaren eskuraturiko informazioa.

³⁰ <https://www.mintzola.eus/eu/bertsolaritzaren-ikertegia/abian-dauden-ikerketak>

2.2 MARKO TEORIKOA

2.2.1 Planteamendu orokorra

Osatu nahi den historia honen interpretaziorako baliabideak eskain ditzaketan lan teorikoen bilketan, bertsolaritzari buruz gaurdaino egiten diren ikerketetan baliatu izan direnak urrun samar sumatu dira ikerketa honen objektutik, eta alor zehatz honi buruz argitaratu izan diren gogoeta ugariak, berriz, ez dute erreferentzia teorikorik eskaintzen. Eredu zabalagoetara jo behar izan da, beraz, marko bila.

Ikerketaren kezka nagusienetako bat bertsolaritzak fenomeno soziokultural gisa izan duen bilakaeraren historia izanik, kultura popularraren bilakaeraren historia egiten duten lanek eskaini dute lehen aterbe bat. Ikusi ahal izan da bertsolaritzaren historia konkretuan eman izan diren hainbat urrats eta askatu behar izan diren hainbat korapilo kultura popularraren historia orokorrean ere topa daitezkeela. Are gehiago, bertsolaritzaren historia konkretuak, bere singularitasuna esanguratsua bada ere, neurri handi batean testuinguru orokorrako horretan gertaturikoari erantzuten diola sumatu da, eta, beraz, eremu hori jorratzen duten lanen argitara hobeto uler daitezkeela historia hori.

Kultura popularraren transformazio prozesuak aztertzen dituzten lan horiek bi sail nagusitan bana daitezke: batetik kultura popularrak Lehen Modernitatean izandako sarrera eta bilakaera, eta bestetik, Beranduko Modernitatean masa kulturarekin izandako hartu emana. Bietan topa daiteke bertsolaritzarekin zerikusia duten kontuak eta biak ekarri dira ikerketara, bertsolaritzaren historiaren testuinguru zabal gisa.

Aipaturiko lanek garrantzia handia aitortzen diete hedabideei, lehen fasean inprentaren eta prentsaren eragina seinatuz eta bigarrenean irratia, telebista eta Interneten gehituz. Honela, ikerketa honen bigarren xede nagusi bati, hedabideratzeak bertsolaritzaren bilakaeran izan duen garrantziaren azterketari, hainbat ekarpen egiten dizkiote. Hala ere, kultur transformazioen eta hedabideen arteko harremanean espresuki sakontzen duten lanetan ere arakatu nahi izan da. Harremanaren historia orokorra egiten duen egileren bat topatu da, eta baita interesgarritzat har daitezkeen fenomeno konkretuei heltzen dietenenak ere.

Azkenik, ikerketaren beste kezka nagusi baten haritik, eragileen lana interpretatzeko, euren kokapenari erreparatu zaio. Aipatu da jada euskal kultur komunitatea ertzekoa izan dela erabat Modernitatean baina ez diola horregatik utzi bere kultura modernizatzeko ahaleginari: subalterno errebelde gisa koka daiteke, bada, eta subalternitateari buruzko lanetan behatzeko parada eman du honek. Bestalde, ahalegin hauek neurri batean behintzat kultura nazionalaren berreraikuntza gisa ulertu izan direnez, nazionalismoari buruzko lanak ere hartu dira kontuan. Eta baita kulturgintzako gizarte mugimenduen inguruko teorizazioak ere, bertako eragileek azken hamarkadetan hartu duten bide nagusia hori izan bait da.

Guzti honen egituraketari dagokionean, ulergarritasuna lagundu asmoz, azpialdian hau marko teorikoa modu eskematikoan azaldu eta bere elementu bakoitzak bertsolaritzaren bilakaerarekin duen harremana seinaltzeko gida moduan planteatzea erabaki da. Eta elementu bakoitzaren garapena historiaren kontakizunetik at baina honekin tartekaturik dauden testuinguru zabalei buruzko bi ataletan burutzea.

Ulertu da Lehen Euskal Pizkundean buruturiko lanketek Lehen Modernitateak kulturaren inguruan planteaturiko problematikari erantzuten diotela nagusiki. Ondorioz, Lehen Pizkunde horretatik jariatzen diren bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren historiaren zikloak, marko orokor horren barruan kokatuko lirateke: ‘Lore Jokoak’ (1845-1917), ‘Euzko Pizkundera’ (1918-1944), eta ‘Frankismo Garaia’ (1945-1979).

Era berean Bigarren Euskal Pizkundeak (1960-70 hamarraldiak) buruturiko lanketek nagusiki Beranduko Modernitateak planteaturiko problematikari erantzuten diotela ulertzen da, eta bertsolaritzaren azken zikloa (1980- ...), pizkunde horretatik jariatzen denez, Beranduko Modernitatearen markoan interpretatu behar dela.

Orden kronologikoa jarraituz gisa honetara antolatu dira, beraz, ikerketa honetan jorratu diren atalak: ‘Lehen Modernitatearen testuinguru zabala eta Lehen Euskal Pizkundera’ (3. atala), ‘Lore Jokoak’ (4. atala), ‘Euzko Pizkundera’ (5. atala), ‘Frankismo Garaia’ (6. atala), ‘Bigarren Modernitatearen testuinguru zabala eta Bigarren Euskal Pizkundera’ (7. atala) eta ‘Garaikidea’ (8. atala).

2.2.2 Hedabideak modernitateko kultur transformazioetan

Hedabideak bertsolaritzaren bilakaerarako bitarteko gisa aztertu nahi direnez, hedabideok Modernitateko kultur transformazioetan jokaturiko papera aztertzen duten lanei erreparatu zaie, eta hauen artean Jonh B. Thompsonen planteamenduak begitandu dira baliagarrienak.

Thompsonen ‘The Media and Modernity’ lanean Modernitatearen gorputzu duten transformazioen inguruko literatura akademikoari errepaso bat emanez ardatz ekonomikoa, politikoa, hertsapenaren ingurukoa eta pentsamendu mailakoa seinalatu ohi direla azaltzen du. Lehen hiruen inguruko planteamenduak garbiak direla dio: ardatz ekonomikoan feudalismotik kapitalismorako aldaketa litzateke oinarritzko transformazioa, ardatz politikoan Nazio-Estatu modernoaren sorrera, eta hertsapen mailan Nazio-Estatu horien monopolioa. Pentsamendu mailako transformazioen inguruan, ordea, ez du ondorio sendorik ikusten: “Lo que queda menos claro, a pesar de todo, es establecer si el desarrollo de las sociedades modernas se ha caracterizado por transformaciones sistemáticas de lo que, en sentido amplio, podría llamarse el dominio ‘cultural’” (1998: 70). Marxek alor honi ez ziola arreta gehiegi jarri dio, Weberrek ilustrazioaren idealei loturiko azterketa egin zuela (erlijioaren gainbehera, arrazoimenaren nagusitasuna eta abar), eta gerora ere mentalitate (balore, sinesmen eta jarrera) aldaketei erreparatu izan zaiela, baina aldaketa hauek orokortzea eta euren inguruko adostasun sendo bat eraikitzea konplexuegia suertatu dela. Ikuspuntu aldaketa bat proposatzera dator, bada:

“Sí en un primer momento nos centramos no tanto en los valores, actitudes y creencias, sino más bien en las formas simbólicas y en sus modos de producción y circulación en el mundo social, entonces deberíamos darnos cuenta de que, con el advenimiento de las sociedades modernas a finales de la edad media y principios del período moderno, tuvo lugar una transformación cultural sistemática. En virtud de una serie de innovaciones técnicas asociadas con la impresión y, posteriormente, con la codificación electrónica de la información, se produjeron, reprodujeron y pusieron en circulación formas simbólicas a una escala sin precedentes. Las pautas de comunicación e interacción empezaron a cambiar de manera profunda e irreversible. Estos cambios, que comprenden lo que en sentido amplio podría ser llamado «mediatización de la cultura», tuvieron unas claras bases institucionales: es decir, el desarrollo de las organizaciones mediáticas que aparecieron en la segunda mitad del siglo xv y que desde entonces han expandido sus actividades.” (1998: 71-72)

Asko dira kultura modernoaren bilakaeran hedabideek izandako garrantzia seinalatzen duten egileak. Izatez, masa kultura kultura popularrak hedabideekin eta merkatuarekin izandako hibridazioaren emaitza gisa ulertzen da, eta ez da Thompson ‘kulturren mediatizazioa’ terminoa erabiltzen duen lehena. Jada aipatu diren bi egilerengana joz, esaterako, Burkek

(1991) inprentak kultura popularra nola inarrosi zuen azaltzen du luze eta zabal, eta Ongek bere lan osoan zehar oinarritzko mentalitate aldaketan zio gisa komunikaziorako teknologia ezberdinak seinalatzeaz gain, Modernitatearen berezko ezagutza bide gisa kazetaritza ezartzen du (2016: 15).

Thompsonen, ordea, hedabideen eragin eraldatzailean fokaturik Modernitate osoa hartzen duen azterketa sistematiko bat burutzen du, askotariko azalpen xeheak eskainiz: “(...) los media juegan un papel crucial en las transformaciones culturales asociadas al desarrollo de las sociedades modernas” (1998: 150). Ikerketa honetan bertsoaritzaren bilakaera modernoan bere hedabideratzeak izandako eraginak aztertu nahi direnez, ezinbesteko erreferentzia bihurtu da bere lana.

Modernitatean sartu aurretik elkarreragite soziala, kultura idatziaz balia zitekeen elite oso murrizten kasuan salbu, aurrez-aurrekoa izan dela azpimarratzen du, denbora-espazio partekatutako batean burutua eta ko-presentziarekin nahiz unearekin agortzen dena. Honela, tradizioak geografikoki mugatuak ziren, norbanakoaren mugikortasunari lotuak, dialogikoak (joan-etorriko komunikazioa ahalbidetzen zutenak) eta nagusiki ahozkoak, beren biziraupenerako etengabe birsortu beharra zutelarik:

“De aquí que las tradiciones fueran, de alguna manera, indefinidas en términos de contenido, ya que el proceso de renovación suponía una serie de actos creativos en los cuales los individuos reiteraban, de la mejor manera que podían, expresiones y acciones que quedaban impresas en su memoria o conducta (de manera muy parecida a como un trovador medieval habría reinventado una historia cada vez que la contaba)” (Thompson, 1998: 115)

Inprentaren sorreratik, aurrez-aurrekoaren ondoan, berak mediatiko (aurrez-aurrekoak izan gabe dialogiko edo hartu-emaneko izaten jarratzen dutenak, eta ondorioz hartzaile jakinari zuzenduak: eskutitza, telegrafoa eta telefonoa) eta kasik-mediatiko (monologikoak eta hartzaile indefinituari zuzenduak: hedabideak³¹) gisa bereizten dituenak joango dira garatzen eta orokortzen. Igorlea eta hartzailea testuinguru ezberdinetan aurkitzen dira elkarreragite hauetan, eta ondorioz, batetik, zeinu sinboliko baliagarrien abanikoa murriztu egin daiteke erabiltzen den hedatze teknikaren arabera (idatzian, esaterako, audioa eta mugimenduan dagoen irudia) eta bestetik jada partekatzen ez den testuinguru horri egin beharreko erreferentziak ere kontuan hartu beharko dira: “Los participantes (...) no pueden asumir que los otros entiendan expresiones deícticas que utilizan. De aquí que siempre deban tener en cuenta la cantidad de información referida al contexto que se debería incluir en el intercambio” (Thompson, 1998: 117-118). Alabaina, testuinguru ezberdinetan dauden igorlearen eta hartzailearen arteko hartu-emanaren posible egiten dutenez, bitarteko tekniko hauek eskuragarritasun zabal bat emango diote mezuari denbora eta espazioan, eta honek mezua jasota utzi (‘Finkatzea’ deitzen dio Thompsonen erabilera horri) edota biderkatzeko (‘Erreproduktzioa’) aukerak irekitzen ditu.

Elkarreragite sozial berri hauetatik kultura alorrean ere berriak diren dimentsioak sortzen dira. Honela, historikotasun mediatiko bat sortuko da (aurrez-aurrekoaz gain liburuetatik,

³¹ Komunikabide beharrean hedabide terminoaren erabilera hobesten du ikerlari estatubatuarrek: “(...) los receptores de los mensajes mediáticos no actúan como participantes en un proceso recíproco de intercambio comunicativo sino más bien como participantes dentro de un proceso simbólico de transmisión estructurada. De ahí que hable generalmente de «transmisión» o «difusión» de los mensajes mediáticos en vez de «comunicación» como tal”(Thompson, 1998: 45). Baita Sarasuak ere: “Telefonoak komunikatzeko balio du. Komunikabide dei diezaiokegu. Telebistak, edukiak hedatu egiten ditu. Hedabide deitzea liteke egokiena” (2013: 310). Bi egileon hautuari jarratzea erabaki da.

filmetatik jasotzen dugu gure iraganaren eta tradizioaren berri), esperientzia mediatikoak ugaritu ('mediate wordliness' Thompsonen terminologian, tartean kulturalak) eta baita jendetasun mediatikoak garatu ere (aurrez-aurreko harremanez haraindiko talde pertenenziak, nortasun kolektiboak). Bestalde, kultura alor horren antolakuntzan funtsezkoa den kultur merkatuaren eraketan eta garapenean ere garrantzia itzela izango dute hedabideek.

Aurremodernitateko ahozko kultura tradizionala eta Modernitateko kultura mediatu berria berezi eta bakoitzaren fenomenologia jorratzeaz gain, euren arteko harremanean ere sakontzen du Thompsonek. Horretarako modernizazioaren teorizazioa errepasatuko du lehenengo, pentsamendu sozial klasikoak tradizioa eta modernitatea elkarri kontrajarririko dikotomia gisa interpretatu izan dituela azalduz³². Bera ez dago ados planteamendu horrekin: "La relación entre tradición y modernidad resulta más enigmática y paradójica de lo que una aguda oposición de este tipo podría sugerir" (Thompson, 1998: 247). Onartzen du hedabideen eraginez tradizioen 'deserrotze' gisa izendatzen duen prozesua eman dela: esperientzia, jendetasun eta historikotasun mediatikoek norbanakoa aurrez-aurrekoan edota gertuko autoritateek eskainiriko eduki sinbolikoetatik askatu eta norbere hautuak jorratzeko aukera gehiago eman du, norbere formakuntza autoerreflexibo eta mugagabeagoa. Baina aurrez-aurreko eskaintzak bere garrantzia izaten jarraitzen duela azpimarratzen du, "Las tradiciones transmitidas oralmente continuaron jugando un papel importante en la vida diaria de muchos individuos" (ibid, 238), eta tradizioak eremu berri bat topatu ahal izan duela, hain zuzen ere hedabideetan. Horixe litzateke tradizioa eta modernitatea edota hedabideen artean ematen den paradoxa; batetik, modernitateak eta hedabideek, tradizioen deserrotzea ekarri dute, baina bestetik baita tradizio horiek berak bersustraitu eta indar handiagoz garatzeko aukera ere:

"(...) la transformación de la tradición está vinculada de manera fundamental con el desarrollo de los medios de comunicación. El vínculo es doble: de una parte, el desarrollo de los medios de comunicación facilita el declive de la autoridad y de los fundamentos tradicionales para la acción: por la otra, los nuevos medios de comunicación también han logrado separar la transmisión de la tradición del hecho de compartir un espacio común, en consecuencia, han creado condiciones para la renovación de la tradición a una escala que excede ampliamente cualquiera que haya existido en el pasado." (ibid, 247)

Bertso-munduak bertsolaritza hedabideratzeko egindako apustua estu lotzen zaio bai 'deserrotze' prozesuari eta baita 'bersustraitzeko' aukerari ere. Hedabideratzeak izan dituen hainbat eragin eta eragin dituen hainbat kezka ere Thompsonek eraikitako marko honetan koka daitezke³³. Aurrerago, bertsolaritzaren historia mediatikoan zehar agertuz doazen heinean, garatuko dira guztiak.

³² Honela laburbiltzen du bi adiera dituen dikotomia: "(...) la Ilustración se caracterizaba por su rechazo a la tradición, vista por muchos pensadores ilustrados como fuente de mistificación, enemiga de la razón y obstáculo para el progreso humano. Otro grupo de consideraciones tenía un carácter más sustantivo. Muchos teóricos sostenían que el desarrollo de las sociedades modernas implicaba una dinámica que inevitablemente llevaba a la aniquilación de la tradición." (1998: 240)

³³ Aipamen soil gisa adibide batzuk aurreratzearen: lehen grabagailuak agertu zirenean bertsolariek erakusten zuten ezinegonak zerikusia du hedabideen erabilera 'finkatzailearekin', hedabidetzearekin jendea saturatzeko mugimenduak erakutsitako betiereko kezkek erreprodukzio biderkatzailearekin, copyrigharen inguruan azken urteetan eman den eztabaidak medioen bidezko merkaturatzerarekin, txapelketak badu zerbait Thompsonen (eta beste hainbat egilek) teorizaturiko 'Media Event'-arekin, egile estatubatuarrak kasik-mediatikoaren eraketa soziala garatzerakoan teleikusgarritasunari buruz esandakoetan txertatzen dira 'Hitzetik-hotzerak' eragindako hainbat kezka (fokua elitean bakarrik jartzea, bertsosaldirik onenak bakarrik telebistaratu ikusleengan bertsolaritzaren pertzepzio desitxuratu bat sortzea eta abar), Egañak (2004) hedabideek bertsogintzan izandako izandako eraginak (errimak azkarrago 'erretzea', esaterako) zerikusia dute medioen finkatze eta erreprodukzio

2.2.3 Kultur ondarearen moldaketak eta etnosinbolismoa

Kultura, nortasuna eta nazionalismoaren arteko lotura aski ezaguna da. Alferrikako azalpenetan ez galtzarren, Josu Amezagarena (2009) hautatu da, laburra eta argia delakoan. Honek jende talde batek errealitatea atzemateko eta haren aurrean jokatzeko duen modu gisa definitzen du kultura, kulturaren bidez egiten den errealitatearen definizio horretan norbere burua ere definitzen dela eta nortasuna hortik datorrela gaineratuz: “Hots, *gu* nortzuk garen eta *besteak* nortzuk diren, definizio kulturala da, ez naturala” (2009: 40). Berebat, nortasun horren nolakotasunean, beste nortasunekiko bereizgarri gisa, funtsezko elementua izango da norbere kultura, eta ondorioz honen sustapenari ekingo zaio, taldetasuna eta taldea sendotuko dituelakoan. Nazio-estatuaren adibidea jartzen du Amezagak, bere baitako jendartea talde gisa eratzeko legea (denei nortasun agiria ezarriz), gerra (jendartean elkartasun eta beste nazioekiko aurkakotasun sentimenduak sortuz) edota hedabideen sistemaz gain (historikotasun eta esperientzia amankomunak hedatuz eta jendetasun jakin bat proiektatuz, gaineratu liteke Thompsonen eskema jarraituz) kultura baliatuz: “Estatu nazio gehienen historia horrelakoxea da, estatuak nazioa definitu ostean kultura bakarra ezarri nahiaren historia alegia, horren bitartez nortasuna ere bakarra izango delakoan (...) gutxi dira kulturantzatasunaren oinarrian eraiki diren estatu nazioak (...)” (ibid, 42). Eta adibidearen hariari jarraituz bigarren adibidea paratzen du, estaturik gabeko nazioena:

“Taldeak bere burua mehatxupearan ikusten duenean ordea (esaterako nazio estatuaren joera uniformatzailearen aurrean), orduan bere bereizgarritasuna propio lantzen hasten da, nortasun etnikoa eraikiz (...) taldearen ezberdintasuna adierazten duten ezaugarriek berebiziko garrantzia hartzen dute, ikur bilakaturik. Eta ikur gisa ere, kultura lehen mailako bereizgarria da.” (ibid, 42)

Ondorioa garbia da: “(...) esan ahal dugu talde nortasunetan kulturak berebiziko garrantzia izan duela historian zehar; eta azken mendeetako nazio nortasunetan ere (...)” (ibid, 42).

Alderantzizko bidea eginaz, batzuk estatu barruko nortasuna bateratzeko eta besteek nortasun etniko bereizgarria eraikitzeke kultura baliatu badute, nazionalismoa kulturak modernitatean izan dituen moldaketen agente garrantzizko bat izan dela ondorioztatu daiteke baita: “(...) gutxiengoaren hizkuntza- eta kultura-aldarrikapena, Aro Modernoan, mugimendu nazionalisten esku egon da maizenetan” (Larrinaga, 2007b, 94). Honenbestez, interesgarria iritzi zaio nazionalismoari buruzko teoriak gai honen inguruan esaten dutena arakatzeari.

Alor honetan teoria modernista (adibidez, Breuilly, Gellner, Hobsbawm edota Anderson) izan da nagusi azken hamarkadetan. Teoria honek nazioak Modernitatean emaniko hainbat prozesu soziokulturalen ondotik XVIII. mende bukaeran sorturiko ‘asmakuntza’ direla defendatzen du. Honela, Benedict Andersonek, adibidez, inprentaren eraginarekin lotzen du fenomenoak: “(...) la convergencia del capitalismo y la tecnología impresa en la fatal diversidad del lenguaje humano hizo posible una nueva forma de comunidad imaginada, que (...) preparó el escenario para la nación moderna” (1993: 75). Edota Eric Hobsbawmek oso antzinakotzat jotzen diren tradizio asko, iraganetik datorren nortasunaren jarraitasun naturalaren adierazle gisa aurkeztu ohi direnak, Erromantizismotik abiarazten den *intelligentsia* nazionalaren elaborazioak direla dio: “(...) porque gran parte de lo que de forma subjetiva crea la ‘nación’ moderna consiste en tales productos (...) los fenomenos

biderkatzailearekin, edota Egañak (1993a) berak telebistak sorturiko estereotipazioak bertsogintzan daukan eraginaren inguruan eginiko gogoeta zorrotzak Thomposnek azaltzen duen elkarrengaitik parasozialari egokitzen zaio erabat...

nacionales no se pueden investigar adecuadamente sin prestar una atención cuidadosa ala 'invención de la tradición'." (Hobsbawn & Ranger, 2002: 21).

Teoria modernisten 'asmakuntzaren' kontzeptua interesgarria suertatzen da ikerketa honetarako 'asmakuntzaz' ari direnean kulturaren eragiletza lanaren alderdi sortzaileari egiten baitiote erreferentzia (bertsolaritzaren modernizazioa, Hobsbawnek seinalatzen duen pautari jarraiki, erromantizismoarekin abiarazten da, garaiko intelektualen eskutik) edota hedabideek lanketa horretan duten garrantziari (Thompson, aurrerago ikusiko denez, Andersonen planteamenduan oinarritzen da Lehen Modernitatean hedabideek izandako eragina azaleratzeko). Zenbait irakurketak, ordea, 'asmakuntza' hori 'falsukeria' rekin lotzen du, eta *intelligentsiaren* egokitzapen ahalegina manipulazioarekin. Izatez teoria modernistek ez diote horrelakorik³⁴, baina bai da egia azpimarra eraikuntzan jartzen dutela moldaketan baino. Bertsolaritzaren kasuan moldaketaz ariko ginatkeenez. alderdi honi garrantzia handiagoa ematen dion ikuskera alternatiboari, etnosinbolismoari, erreparatu beharko zaio.

Modernistentzat nazioa Modernitatearen sorkuntza den bitartean etnosinbolistentzat aintzinako eredu kultural eta politikoen, etnien, jarraipen moldatua litzateke. Bestalde, moldaketa horrek, funtzionatuko badu, eliteen eta herritarren kontsentsua behar duela ulertzen dute, eta honenbestez, modernistek ez bezala *intelligentsiaren* proposamenen eta herritarren erantzunen arteko elkarreragina oso kontuan hartzen dute.

Nazionalismo zibikoaren eta etnikoaren arteko dikotomia da teoria modernisten oinarritzko beste planteamendu bat. Zibikoak Frantziako Iraultzatik sortutako esangura izango luke oinarri, Nazioa gizabanako libreen arteko itunarekin parekatuz. Honela, gizabanakoen borondate libreak sortuko luke eta Estatuan objektibatuko litzateke borondate hori. Etnikoak, berriz, Alemaniako Erromantizismotik jariatuz zena, alderdi judiriko-politikoari beharrean komunitatearen ezaugarri objektiboei erreparatuko lioke, Nazioa bereizgarri kultural batzuk eta historia amankomun bat dituen taldetasunean gorpuztuko litzatekeelarik. Etnosinbolismoaren oinarritzko garapena burutu duen Smithen ñabardura garrantzitsua egiten dio dikotomia horri: "En todos los nacionalismos hay, efectivamente, elementos cívicos y étnicos en diversos grados y formas" (1997: 11). Eta erabilera ezberdin bat ematen dio, nazio-estatuetako nazionalismoak egin ohi duenarekin (zibikoa euren/etnikoa estatutik ez dutenena) alderatuta:

"Los esfuerzos de algunos Estados étnicos de la Europa occidental fueron más fructíferos: en Inglaterra, Francia, España, Suecia (...) la ethnie lateral dominante, que constituía el núcleo étnico del Estado, logró incorporar gradualmente los estratos intermedios y las regiones vecinas a la cultura étnica dominante. El principal agente de la incorporación fue el nuevo Estado burocrático, que gracias a su aparato militar, administrativo, fiscal y judicial tuvo la capacidad de regular y diseminar el fondo de valores, símbolos, mitos, tradiciones y recuerdos que formaban el patrimonio cultural del núcleo étnico aristocrático dominante" (Smith, 1997: 49-50).

³⁴ Honela dio Andersonnek bere 'irudikaturiko komunitate' kontzeptuz: "(...) Gellner está tan ansioso por demostrar que el nacionalismo se disfraza con falsas pretensiones que equipara la "invención" a la "fabricación" y la "falsedad", antes que a la "imaginación" y la "creación". En esta forma, da a entender que existen comunidades "verdaderas" que pueden yuxtaponerse con ventaja a las naciones. De hecho, todas las comunidades mayores que las aldeas primordiales de contacto directo (y quizá incluso éstas) son imaginadas" (1993: 23-24). Eta Hobsbwanek ere ñabardura garrantzitsua egiten du 'asmaturiko tradizioen' inguruan: "Se puede observar una diferencia importante entre las prácticas antiguas y las inventadas. Las primeras eran específicas y relacionaban fuertemente los lazos sociales (...)" (Hobsbwan & Ranger, 2002: 21).

Bestalde, badirudi seinalatzen duen oinarrizko bereizketaren funtsa gertuago legokeela hegemoniko/subalterno dikotomiatik:

“Aquellas naciones creadas por las élites aristocráticas a partir de una comunidad lateral, utilizando un Estado fuerte para incorporar a los estratos sociales más bajos y a las zonas remotas, han manifestado como era de esperar un nacionalismo territorial ferviente (...) En cambio, las naciones creadas «desde abajo» por las intelligentsias excluidas y los estratos intermedios de una comunidad vertical, utilizando recursos culturales (etnohistoria, lengua, religión étnica, costumbres, etc.) para movilizar a otros estratos a fin de crear una «nación» activa y politizada, han dado muestras —como era de esperar— de un sólido nacionalismo étnico (...)” (Smith, 1997: 153).

Bereizketa horri jarraiki esplikatzeko da, esaterako, nazio subalternoen kulturaren modernizazioan bertako *intelligentsiak* hartu ohi duen protagonismo berezia: “El lugar que la ley ocupa en el modelo cívico (...) le corresponde en el modelo étnico a la cultura vernácula (...) lexicógrafos, filólogos y folcloristas desempeñaron un papel fundamental (...)” (ibid., 11). Honela, *intelligentsia* horren izaera ideologikoak, komunitateari ezarri nahiko dizkion autoirudiak eta helburuek, erabat baldintzatuko dute estaturik gabeko nazioen ondare kulturalaren modernizazioa: “Es importante para la forma, ritmo, alcance e intensidad de esa transformación el hecho de que se lleve a cabo bajo los auspicios de las élites tradicionalistas, las modernistas o las reformistas, o una combinación o sucesión de ellas” (ibid., 57). Izatez, belaunaldi ezberdinen proiektuen arteko borrorak ematea ere ohikoa dela gaineratzen du etnosinbolismoak:

“(...) aunque se haya descubierto y aprovechado una veta sustanciosa de etnohistoria, las «guerras culturales» no han hecho nada más que empezar. Estas guerras son por lo general de dos tipos. La primera es la resistencia cultural al cosmopolitismo imperial o su variante colonial, o incluso a la influencia cultural de vecinos más poderosos, como en el caso de la resistencia eslovaca a la cultura dominante checa o la resistencia ucraniana a la absorción cultural rusa. La segunda es la guerra cultural de los «hijos contra los padres», que se produce cuando la intelligentsia seglar se vuelve en contra de los viejos guardianes de la tradición” (ibid, 60)

Edozein kasutan, jada seinalatu den gisan, herri xehearekin hartu emanean burutua beharko du *intelligentsiaren* proiektu horrek: “El éxito de estas empresas dependía de que la *intelligentsia* retornara a un pasado vivo, pasado que no era simplemente una cantera para la investigación de los anticuarios, sino que podía deducirse de los sentimientos y las tradiciones del pueblo” (ibid, 58)

Bertsolaritzaren bilakaeran eragileen ekimenak izandako garrantzia ondoriozta daiteke kontu guzti hauek eta garai ezberdinetako proiektuen alderdi subjektiboa (motibazioa, ideologia eta abar) aztertzeko bitarteko batzuk eratorri daitezke. Ana Gandarak (2015) bide horri ekiten dio: etnosinbolismoak eskaintzen dizkion koordenadetan oinarriturik bertsolaritzaren inguruan eratu diren proiektuen zantzu ideologikoak, bertsolaritzari esleitu dizkieten funtzio eta esangurak eta bertsolaritzaren bilakaera harremanetan jartzea.

Bestalde, tradizio asmatuen inguruko eztabaida ere ez zaio erabat arrotza bertso munduari. Bertsolaritza modernoa benetakoa denik edota bilakaera baten emaitza denik ez du inork zalantzan jartzen. Baina bertsolaritzaren praktika moderno batzuk (bertso eskolen bidezko transmisioa, txapelketak edo bertsolaritza hedabideratua, adibidez) bertsolaritzaren ‘berezko bizi mundutik’ ze puntutaraino aldentzen diren, moldaketa hauek ze puntutaraino ‘faltsuak’

ez ote diren, bai eztabaidatu izan da luze eta zabal (Esnal, 2015; Paia, 2011; Zulaika, 2003; Esnal, Egaña eta Sarasua, 2002, adibidez). Etnosinbolismoaren alorrean tradizio asmatuen gaiari emandako erantzunak eztabaida honetan aurkezteko modukoak izan daitezke. Alderdi hau gehien landu duen John Hutchinsonek, esaterako, tradizio etnikoen moldaketa modernoak berridazketa bizigarri moduan ikusten ditu, langintza honi lotu zitzaizkion eragileen ekarpen berritzailea defendatuz:

“It is better to speak of revivalist as moral and cultural innovators who seek to engineer change by a ‘regeneration’ rather than an eradication of collective traditions (ethnic and otherwise). Even when they are able to seize the state and to implement their programmes, the process of nation-formation is complex, leading one to speak of an overlaying of tradition than an invention.” (2004: 121)

Asmakizun soilak ote diren zalantzan jartzen den bezala, beste muturrean, ondare kulturalaren moldaketa hauek benetan modernoak ote diren ere jarri ohi da zalantzan. Hutchinsonek planteamenduak erantzuten dio zalantza honi ere.

2.2.4 Subalternitatearen korapiloak

Amezagak funtsezko garrantzia ematen dio posizioari kultura popularra³⁵ definitzerakoan: “herri kultura zer den definitzeko, egokiagotzat jotzen dugu kultura batek —edota kultur adierazpide batek— gizartean duen lekuari so egitea, "formari" —hots, "ahozko" edo "idatzizko" izateari— zein "kalitateari" begiratzea baino. Horregatik, "herri kultura/kultura hegemonikoa" binomioari baliagarriagoa deritzogu, "herrikoia/landua" bikoteari baino” (1994: 20). Eta ikuspegi honen iturburu gisa Antonio Gramsciren teorizazioa seinalatzen du: “Kultura popularrak ulertzerik ez dago, ikusiko dugunez, boterearen auziari heldu gabe. Honetaz jabetzeko, Gramscirengana joko dugu (...)” (ibid, 30).

Gramsciren oinarritzko ekarpena marxismoak gainegituraz esandakoak osatzea izan zen. Planteamendu klasikoak gainegitura hori, gizartearen antolaketa juridiko, politiko eta kulturala, produkzio ekonomikorako indarren arteko harremanetik, azpiegituretik, eratortzen zela ulertzen zuen, ondorioz azpiegiturean jartzen zuen fokua. Italiarrak, ordea, klase kontzientzia gainegiturean konfiguratzeko zela ikusi zuen, eta aldaketak kontzientzia hori ezinbestekoa zuela ulerturik³⁶, alorrari zegozkion joku arauak aztertzeari ekin zion. Honela, estatu modernoan klase agintariak, euren nagusitasun ekonomiko eta politikoa gizarte zibilararen baitan hezkuntza sistemaren, instituzio erlijiosoen eta hedabideen bidez egikaritzen den lidergo moral eta intelektualaz osatzen dutela seinalatu zuen. Botere politiko-ekonomikoarekin osagarritasun eta elkarrelikatze harreman bat duen lidergo moral eta intelektualari deritzo hegemonia Gramscik, eta bertatik jariatzen den diskurtsoak, diskurtso hegemonikoak, zabaltzen duen errealitatearen errepresentazioaren katexiak hegemonikoak ez diren taldeen ulerkerak, eta ondorioz, euren kontzientzia, erabat baldintzatzen duela azpimarratzen du. Honenbestez, aldaketa eta iraulketa sozialak hegemonikoak ez diren

³⁵ Definizioa osatzerakoan ‘herri kultura’ terminoa erabiltzen badu ere gerora ‘kultura popularra’ hobesten du: Arazo bi hauek —hots, herria eta kultura gizarteko gainontzeko gatazketatik at baleude bezala ulertzeak dakartzan arazoak— gaintu asmotan, nolabait herri kulturari buruzko hausnarketan "klase dimentsioa" sartu beharra ezinbesteko bihurtzen zaigu (...) "kultura popularrak" mintzatzean, horixe lortu nahi izan dugu, alegia, gizarteko gatazkek kulturaren bitartez nola birstortzen eta garatzen diren ikustaraztea” (ibid, 250).

³⁶ Materialismo historiko marxistaren logikak feudalismoa eta kapitalismoaren ondoren komunismoak etorri behar lukeela seinalatzen zuen, eta zenbait pentsalari garaikidek joera teleologiko eta mistikoak garatu zituzten, bilakaera hau gizateriaren eboluzioak berak ekarriko zuelakoan. Gramscik jarrera aktiboago bat kontrajarri nahi izan zion joera honi langileriaren esku hartzerik gabe horrelakorik ez zela emango azpimarratuz eta teoria eta praktikaren osagarritasunaz, praxiaz, hitz eginaz.

taldeen diskurtsoa eta autokontzientzia berregitea eskatuko luke, azken buruan botere antolaketa justuago bat, bere estatua, eraikiko duen hegemonia berri bat lortzeko xedez. Eta horretarako hezkuntza nahiz hedabideen erabilera proposatzen ditu, lidergoa hegemonikoak ez diren taldeengandik sorturiko intelektualek (agintarien esanetara dihardutenengandik bereizteko 'organiko' izenlaguna darabil) hartu beharko luketelerik.

Ikerketa alorrean kontzientziaren eraketa dialektikoa aztergai gisa proposatzea da ekarpena: "(...) siendo contradictorio el conjunto de las relaciones sociales, la conciencia de los hombres no puede dejar de ser contradictoria, se plantea el problema de cómo se manifiesta tal contradicción (...)" (1999: 275). Diskurtso hegemonikoaren interferentziei erreparatu beharra seinalatuz: "En los grupos subalternos (...) es más grave y más fuerte la lucha para liberarse de los principios impuestos y no propuestos en la consecución de una conciencia histórica autónoma (...) ¿Cada elemento 'impuesto habrá de repudiarse a priori?'" (ibid, 276). Eta interferentzien eraginez nekeza suertatu badaiteke ere, metodo gisa historiografia proposatuz:

"La historia de los grupos sociales subalternos es necesariamente disgregada y episódica. Es indudable que en la actividad histórica de estos grupos existe la tendencia a la unificación, si bien según planes provisionales, pero esta tendencia es continuamente rota por la iniciativa de los grupos dominantes (...) Todo rastro de iniciativa autónoma de parte de los grupos subalternos debería por consiguiente ser de valor inestimable para el historiador integral; de ahí resulta que semejante historia no puede ser tratada sino por monografías y que cada monografía exige un cúmulo muy grande de materiales a menudo difíciles de recopilar" (Gramsci, 2000: 178-179)

Planteamendu hauen oihartzuna gerora garatu diren hainbat korrontetan nabaritu daiteke. Nagusiki Asia eta Latinoamerikaz arduratu diren ikasketa postkolonialetan eta subalternitate ikasketetan, esaterako, edota baita 60ko hamarkadatik aurrera Europa ere objektutzat hartuz etiketa ezberdinekin (Herriaren historia, Behetik gorako historia, Mikrohistoria eta abar) historia kulturala eta etnografiaren baitan landu diren korronte berritzaileetan ere (Historia Kultural Berria da etiketa orokorra). Historia ofizialak bazterrean utzitako taldeen iragana, agente aktibo gisa historian izan duten papera, talde hauen ahotsa eta intelektualek edota akademiak ahots hori errepresentatzeko burutzen duten bitartekaritza, subalternoen izaera pasibo edo aktiboa, diskurtso hegemonikoek prozesu hauetan eragiten dituzten interferentziak, edota subalternitatearen kontzeptua bera ere³⁷ luze jorratu dira hauetan guztietan.

Bertsolaritzaren historia historia subalternoa bat dela nabarmen samar ikus daiteke. Hasteko, kultura popularra eta subalternitatea definizioz eskutik doazelako: Burkek (1991) azaltzen duen bezala XVI. mendetik aurrera kultura jaso deitu ziotena garatu zutenean euren ez zena izendatzeko sortu zuten eliteek kultura popular kontzeptua³⁸. Ahozko kulturaren kasuan

³⁷ Erlazionala (hegemonikoarekiko harremanean definitzen da) eta erlatiboa (posible harreman batean hegemoniko eta hurrengoan subalternoa den subjektua) izanik kontzeptu labainkor samarra suertatzen da. John Beverleyren definizio hau begitandu da topatu direnen artean borobilena: "el subalterno designa una particularidad de lo esquinado respecto de algo, experimentada como identidad, como nexo de unión" (2004: 72). Hortik 'ertzekotasun' sinonimo gisa erabiltzearena.

³⁸ Gramsci berak kultura etniko tradizionalaren ikerketa proposatzen du subalternoen mundu ikuskera ezagutzeko bide moduan: "Hasta ahora, el folklore se ha estudiado esencialmente como un elemento 'pintoresco' (...) Se le debe estudiar, en cambio, como 'concepción del mundo y de la vida' de determinados estratos (determinados en el tiempo y en el espacio) de la sociedad, en contraposición a las concepciones del mundo 'oficiales' (o, en sentido más amplio, a las concepciones de los sectores cultos de la sociedad, históricamente determinados) surgidas con la evolución histórica." (2000: 203). Eta gerora korronte ezberdinek jorratu izan dute bide hori. Indiako Ikasketa

gainera lotura hori are makurragoa izan da, ahozkoa modernitateak gauditutako denbora bati egotzi izan bait zaio luzaz. Honela, bertsolaria bera ere gehiago aritu izan da herriko plazan edo sagardotegian, jauregian edo gazteluan baino. Chahok kantuz osaturiko menditarren egunkariak ziharduen prentsan bertsolarietaz argitaraturiko testurik zaharrenetako batean³⁹, eta gerora hainbatetan esan izan da bertsolaria herriaren ahotsa dela. Bertsolari klasikoek bizitzak ere ertzekoak izan dira erabat: gehienak analfabetoak, asko lanbide jakinik gabekoak eta miseria edo deserria ezagututakoak...

Popularra eta ahozkoaren bilakaeraren subalternitate honetatik eratorritzen diren gako orokor batzuk seinatzeko 'historia kultural berria' delakoan koka daitezkeen lanak baliatuko dira. Esate baterako, Peter Burkeren 'La cultura popular en la Europa moderna' (1991) eta 'Lenguas y comunidades en la Europa moderna' (2006) Lehen Modernitateari dagokionean.

Bertsolaritza bere altzoan hartzen duen euskal kultur komunitatearen subalternitateak ere ez du eztabaidarako bide handirik ematen. Gogora dezagun Amezagaren aipua:

“Estatuaren botereak eta merkatuaren indarrak ezartzen duten kultur kapitalaren ezberdintasunean, euskal kultura desjabetua da, hala kultur kapitalari dagokionez —euskal kultura ez baita kultura nagusia, ez "kultura landu" gisa, ez eta hegemoniko gisa—, nola kultur kapitala sortzeko edo "metatzeko" beharrezko dituen baliabideei dagokienez: komunikabideak, kultur politika, kulturaren industria, e.a.; azken funtsean, botere politikoaren eta ekonomikoaren eskura dauden baliabideak. Bestetik, estatu-nazioaren eraikuntzak eta kapitalismoaren bilakaerak ezarritako boteretik baztertuak izan diren eta oraindik ere baztertuak diren herri sektore batzuen kultura da euskal kultura” (1994: 190).

Joseba Sarrionaindiak, Indiako Ikasketa Subalerno Taldearen baitan erreferentziala izan den Spivaken 'Hitz egin al dezake subalernoak?' galderari espresuki helduz, euskal literaturak Erdi Arotik XIX. menderaino erakutsitako ezintasuna erreparatu ondoren hizkuntza isilaraziaz dihardu: “Si un pueblo no escribe su historia se puede suponer que no tiene libertad para ello. Los vascos no pudieron escribirla en su lengua” (2012: 685). Isilarazia izanagatik, ordea, Modernitatean sartzearekin, eta nagusiki XX. mendean aurrera garatu zen nazionalismoaren eskutik, bere ahotsari eustea erabakiko du komunitateak: “Gaurko euskaldun konplexuz bete herabetiok, subalternitate mota batek arimaren zolaraino markatu eta eginak gaudena, denok aitortu genezake. Baina honezkero gure miseriaren egartzaile pasiboak ez gara (...) Euskaldun matxinatua naiz, euskaldun gisa matxinatua hain zuzen (...)” (Azurmendi, 2017: 60). Subalternitateari buruzko ikerketetan, esan bezala, subalernoaren izaera pasiboan nahiz aktiboan sakondu izan da, baina subalerno matxino edo errebeldearen azterketak piztu izan du interes gehien⁴⁰. Azurmendik (2017: 60) zehazten duen

Subalerno Taldeak, esaterako: “The concern with peasant consciousness led many of us in Subaltern Studies to explore (...) the archive of the non-canonical, unsophisticated, down market, often not-intended-for-print, literature of songs, ballads, chapbooks, local newspapers, almanacs and ephemera of various kinds that had somehow managed to survive (...) The search for the subaltern voice led us into the domain of what has now come to be called popular culture” (Chatterjee, 2012: 47).

³⁹ Trilby, (1844/VIII/11), 'Chants Basques': “Les improvisations basques ont un caractère historique exclusif de toute poésie spéculative ; elles intéressent principalement par là les Montagnards qui ont ainsi une Gazette toute en chansons”.

⁴⁰ Chatterjee, 'After Subaltern Studies' izenburupean Indiako Ikasketa Subalerno Taldeak buruturiko ibilbideari emandako erreparasoan, esaterako, hainbatetan aipatzen du gaia. Honela, hasieratik heltzen zaio bide horri (azpimarrak geureak): “Subaltern Studies took the course it did after the initial barrage of criticism it faced over the portrayal of the *subaltern rebel* as the new sovereign subject of history (...)” (2012: 45). Eta garrantzia nabarmena aitortzen zaio: Chakrabarty speaks of the portrayal of the *peasant rebel* in the early Subaltern Studies

bezala gaurko euskaldungoak zerikusi gutxi dauka ikerketa hauetan aintzat hartzen diren hainbat komunitarekin: “Gramsciren subalternoak Mezzogiornoko erreterero eta laborari txikerrak ziren, ekonomiko-laboralki ustiatuak eta espiritualki ‘herriaren opioaz’ alienatuak eta etsiaraziak. Gu ez gara hori, ez gara Asia Ekialdeko edo Hego Ameriketako masa amorfo desanparatuak (...)”. Isilaraziriko hizkuntzan aritzea tokatu zaigu, ordea: “Escribir en una lengua minorizada no puede ser un mero acto de caligrafía. De modo subversivo o de modo subjuntivo, es un acto de resistencia” (Sarrionaindia, 2012: 668)⁴¹.

Bertsolariaren kasuan ere badu garrantzia osagai errebelde honek, izen abizenekin ezagutzen den lehen bertsolariaren, Fernando Amezketarraren, mitoak, eta gerora etorriko den bertsolariaren irudikapen klasikoak, herritar xehearen autoritatearekiko jarrera bihurria gorpuztuko baitute. Eta bertsolaritzaren ikuspegi moderno bat garatzeko ahalegina abiarazi zuten eragileak ere (Iztueta, Chaho, Aitzol, Hernandorena, Manuel Lekuona...) gertuago leudeke Gramsciren intelektual organikoetatik edota Smithen *intelligentsia* baztertutik posizio hegemonikoetatik baino. Euren biografietan kartzela, erbestea edo zentsura kasik bertsolarienetan baino sarriago agertu izan direnez hauek ere subalterno matxinotzat har daitezkeela ikus daiteke.

Euskal kultur komunitatearen subalternitatearen inguruko zertzelada esanguratsuren bat garatzeko marko gisa ikerketa postkolonialetan kokatzen den Louis-Jean Calveten ‘Lingüística y colonialismo’ (2005) lanean egingo da sartu-irtenen bat, kultura hegemonikoek ertze koturikoekiko burutzen duten glotofagiaren azalpenetan, esaterako. Eta bertsolaritzaren eragileen lana aztertzeke, euskal *intelligentsiaren* erresistentzia sortzaileari erreparatzen dioten ikerketak baliatuko dira, besteak beste euskalgintzaren gizarte mugimenduan intelektualek izandako papera aztertzen duen Ane Larrinagaren (2008, 2007a eta 2007b) ekarpena.

Azkenik, garaian garaiko prentsan bildu ahal izan diren bertsolariaren eta bertsolaritzaren inguruko irudikapenak ere aztertu nahi dira eta horretarako Joseba Gabilondok ‘Before babel’ (2016) lanean osatzen duen euskal literaturaren historia subalternotik jaso dira hainbat planteamendu interesgarri. Lan honek errepresentazio hegemonikoen pisuak euskal kulturaren modernizazioan utzitako hainbat marka azaleratzen ditu: “(...) Basque culture and literature have been marked by (...) stereotyping through discourses such as Orientalism, Occidentalism, and primitivism” (Gabilondo, 2016: 4). Horretarako, esaterako, ikerketa metropolietatik koloniei buruzko ikerketa burutzen duen Orientalismoaren inguruan Edward Saidek buruturiko kritika, ikasketa poskolonialak abiarazi zituen, baliatzen du, besteak beste, lehengai teoriko gisa⁴². Saidek ‘bestetasunaz’ eraikitzen diren errepresentazio hegemonikoez dihardu, eskema nahiz estereotipoetan oinarritzen den kanpoko begirada

as one way to construct “a genealogy of the mass-political subject in India” that emphasised the presence of “the archaic in the modern” (ibid, 46).

⁴¹ ‘¿Somos como moros en la niebla?’ (2016) lanean Sarrionaindiak subalternitate matxinoa darabil euskal kulturak izandako bilakaerarekin etengabeko ispilu jokuak eginaz amazig kulturaren Modernitaterako sarbidea azaltzeko oinarritzko ardatzen artean. Espresuki aipatzen dituen Spivaken planteamenduetan sakontzeko ik. SPIVAK, C. (2009): ¿Pueden hablar los subalternos?. Bartzelona: Museu d'Art Contemporani de Barcelona.

⁴² Honela laburbiltzen du Burkek Saiden ekarpena eta gerora izan duen eragina: “Orientalismo analizaba los diversos esquemas mediante los cuales han percibido el Oriente Medio los viajeros, novelistas e intelectuales occidentales, estereotipos tales como ‘atraso’, ‘despotismo’, ‘fatalismo’, ‘lujo’, ‘pasividad’ y ‘sensualidad’. Se trataba de un libro enojado, una apasionada súplica a los extranjeros para que viesan las culturas de Oriente Medio sin las anteojeras de la hostilidad o la condescendencia. Ha inspirado muchos estudios similares, no sólo sobre Asia, África o las Américas, sino también sobre Europa. Las concepciones inglesas de Irlanda se han catalogado como ‘celtismo’ mientras que, en un interesante contraataque, los estereotipos de ‘Occidente’ se han tildado de ‘occidentalismos.’” (2006b, 65-66)

batetik eraikitzen direnez, esentzialistak eta estatikoak suertatzen direla azalduz; Gabilondok Erromantizismoak euskal kulturaren inguruan eraikiriko diskurtsora dakar ‘orientalizazio’ prozesu hori, eta bertsolaritzaren lehen eragileengan izandako itzala seinalatzen du.

Subalternitatearen inguruko korapilo guzti hauek, popularra, ahozkoa eta kultura subalternobaten baitakoa den fenomenoaren erresistentziak topa ditzakeen zailtasunak, ahots subalternoen edota norbere ahotsa eta kanpotik eraikiriko errepresentazioen eragina, oso kontuan hartuko dira ikerketa honetan.

2.2.5 Elkarrekin uztartzen diren historia kulturalak

Historia Kulturalaren bilakaerari ematen dion errepasoan kultura popularrari buruzko lanei toki garrantzitsu bat aitortzen die Burkek. 60ko hamarraldian abiatu zirela seinalatzen du, Ikerketa Kulturalen loraldiarekin batera, eta kultura popularra klase kultura gisa agertarazi zuen Edward Thompsonen ‘Making of the English Working Class’ (1963) lanaren arrakastak bultzatuta:

“¿Por qué surgió en su momento la preocupación por la historia de la cultura popular? (...) Los que están dentro se ven a sí mismos como respuesta a las deficiencias de los enfoques anteriores, sobre todo de la historia cultural que excluía a la gente corriente y de la historia política y económica que excluía a la cultura.” (2006b, 33)

Teoria Postkolonialeari ere eskaintzen die tarte bat, Salden *Orientalismoren* garrantzia azpimarratuz, eta Ikasketa Subalternoei erreferentziarik egiten ez badie ere, Behetik Gorako Historia eta Mikrohistoria azaltzerakoan aipatzen du Gramsciren eragina, eta Feminismoaren Historiaz diharduelarik badakar oihartzunenik: “(...) una razón esencial para la reacción contra el gran relato de la civilización occidental era la conciencia creciente de lo que éste dejó fuera o volvió invisible”. Andersonen komunitate asmatuak eta Hobsbwanen tradizio asmatuak ere Historia Kulturalari⁴³ alor berriak ireki zizkioten aurrekari gisa aipatzen ditu.

Gisako loturak marrazten ditu Marta Cabrerak ere Teoria Postkolonialak eta Ikasketa Subalternoenak Historia Kulturalarekin harremanetan jarriz eta azken honen definizio bat ematera ausartuz: “(...) una aproximación historiográfica que considera la cultura de forma relacional, es decir, como el producto tanto de procesos materiales como de dimensiones espirituales (...)” (2012: 343).

Eta ikerketa hau koordinada teoriko batzuetan kokatzeko oinarritzotzat jo diren zenbait egilek ere Historia Kulturalarekin harremanetan jartzen dute euren ekarpena. Thompsonen (1998: 19) bere lanean oinarritzotzat jotzen du, “A lo largo del libro he recurrido a una rica y variada bibliografía sobre la historia de la cultura y la historia de las comunicaciones (...)”; Gabilondok (2015: 4) berea historia kultural gisa definitzen du, “(...) this book is not another traditional history of Basque literature; rather, it intends to be a cultural history written against the nationalist grain that has informed Basque literary history to this day”; edota Gandarak (2015: 335) etnosinbolismotik buruturiko ikerketan emaitzak historia kulturala izan

⁴³ Burkek Historia Kultural Tradizionala eta Historia Kultural berria bereizten ditu bere lanean. Lehenengoa XIX. mendean hasieran estreinatu eta XX. mendearen erdiraino nagusitzen den eredu litzateke, mendebaldetar tradizioaren jasoaren azterketari emana. Bigarrenak, 50eko hamarkadatik aurrera, bestelako kultur adierazpenetan jarriko du fokua, eta gizarte harremanen testuinguruari ordurarte ez bezalako garrantzia emango dio, alor ezberdinetako egileek egindako ekarpenetan oinarriturik (Bajtin hizkuntzalaria, Elias eta Bordieu soziologoak eta Foucault filosofoa azpimarratzen ditu bereziki Burkek, baina antropologia historikoaren eragina ere nabarmen du). Ikerketa honetan Historia kulturala esaten denean bigarren honi egiten zaio erreferentzia.

behar duela dio, “(...) etno-sinbolismoaren zeregin teoriko nagusia nazioen historia kulturala egitea da (...)”⁴⁴.

Badirudi, beraz, burutu nahi den lana teoriaz jazerakoan elkarrekin uztartzen diren historia kulturalen tankera hartu duela trajeak. Cabreraren testura itzuli beharra tokatzen da, bada, definizioaz ez ezik Historia Kulturalaren oinarritzko ulerkerei eta praktikei buruz esaten dituenak jasotzeko:

“La historia cultural considera al individuo en el contexto de las configuraciones sociales a las que pertenece y articula obras, representaciones (aquellas estrategias simbólicas que determinan relaciones y posiciones y constituyen identidad) y prácticas (las manifestaciones de tal identidad) en cuanto productos y productores del orden social (...) Así, la historia cultural muestra un aprecio particular por manifestaciones de los sectores populares tales como fiestas y carnavales, formas de resistencias, sistemas de creencias, y rescata el papel de las clases sociales, de la estratificación y del conflicto social. Enfatiza no solo en la tradición, sino en los procesos de transformación cultural” (2012: 343)

Litekeena da trajea handi samar gelditzea, baina eroso sentitzen gara hura jantzita. Cabreraren hitzak gertukoak suertatu dira, aurrez intuizio hutsez egindako gogoetetan antzeko kontuekin ibili ondoren. Izatez, Historia Kulturalari jartzen dion xede orokorrean laburbildu litezke ikerketa honi jarri zaizkion helburu zehatzagoak: “Una de las primeras tareas de estas formas críticas es entonces la de repensar las trayectorias y desarrollos de la modernidad –término mismo que es sometido a revisión” (ibid, 336).

2.3 PROZESU HISTORIKOAREN ANALISI ETA ANTOLAKETARAKO IRIZPIDEAK

2.3.1 Testuinguru zabalak, kontakizun historikoa eta testuen bildumak

Helburuei eskainiriko atalean adierazi denez, bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren historia bat osatu nahi da, eta honekin bertsolaritzaren historia sozialari ekarpen bat egin fenomenoaren modernizazio prozesuaren kontakizun bat eskainiaz. Honenbestean, kontakizun bat eskainiko da, baina azaldu den gisan, gertakarien interpretazio bat eskainiaz eta hipotesi batzuren inguruan ondorio batzuetara iristeko xedeaz. Elementu hauek Arostegik historiako lanen baitan oinarritzotzat jotzen dituenekin uztartzen dira: “Un libro de historia debe tener esas tres cosas: relato, argumentación y generalizaciones (...)” (2001: 373).

Elementu hauen arteko josteta egilearen esku uzten du Arosteguk: “(...) debe disponerlas a su arbitrio (...) una historia puede empezar exponiendo las más perfiladas generalizaciones y racionalizaciones que el historiador puede construir, para llegar finalmente a la descripción de los elementos más pormenorizados de la situación histórica considerada” (id, 373-374). Jada azaldu den gisan ikerlan honetan bi atal testuinguru zabalari eskainiko zaizkio, eta atal horietan planteatuko dira interpretazio eta orokortze nagusiak. Atal batean Lehen Modernitatearen testuingurua azalduko da, eremu zabalenetik hasi, Europan kultura

⁴⁴ Bai, erreparatu zaio Gabilondo eta Gandararen ekarpenen arteko ezberdintasunari. Lehenengoak historia postnazional bat osatu nahi du bere historia kulturalarekin eta bigarrena historia nazionalaz ari da. Gabilondok berak seinatzen du (2015:167), ordea, bataren nahiz bestearen ekarpenak bateragarri egiten dituen dimentsioa: “The interconnection between subaltern culture and nationalist ideology is so complex and historically rooted in the Basque Country that it survives the lifespan of the social groups, Basque and foreign, old and new, from which many traditions emerge. Moreover, these traditions continue to mutate and transform into new postnationalist formations in the 21st century”. Alegia, bertsolaritzaren historia bat osatzea da ikerketa honen helburua, historia hori nazionala ala postnazionala denari gehiegi erreparatu gabe, batetik nahiz bestetik hartuz.

popularrak bizi izandako prozesuak, tarteko eremura, Euskal Herrian bizi izandakora, pasa, eta azkenik gertuenekoan, bertsolaritzaren alorrean, garaiko problematikari emandako erantzunak ikusteko. Bigarren atalean, Beranduko Modernitateari eskainia, beste hainbeste egingo da. Eta Arostegik aipatzen duen formulari jarraiki, testuingurua normalean kontakizuna lekutzeko baliatzen dela kontuan harturik, atal hauek aurretik jarriko dira, ondoren, historiaren kontakizunean, interpretazio eta orokortze hauei eusten dieten gertakariak aletzeko.

Bi testu bilduma ere iruzkindu dira, eta eranskinetan jaso da ekarpen hori. Batean testu zaharrenetariko batzuk jasotzen dira, eta bestean berriagoak izan arren esanguratsuak begitandu diren beste zenbait. Kontakizun historikoak eskaintzen dituen gakoetan sakontzeko balio dezaketelako hartu da lan hau.

Azkenik, gisa honetako ikerketei dagokionez, lehen atal honetan planteaturiko hipotesiei erantzuten dien ondorioen atala ere gaineratu da, lanaren itxiera gisa. Ziklo bakoitzaren itxiera gisa zirriborratzen den zikloaren proiektuaren inguruko azpiatalak, kontakizun historikoa eta ondorio hauen arteko bitarteko gisa funtzionatzen dute, berebat.

2.3.2 Jatorrizko eredia: J.B. Thompsonen kulturaren eta hedabideen azterketa

2.3.2.1 Oinarriak

‘La comunicación masiva y la cultura moderna’ (1991) eta ‘Ideología y cultura moderna’ (1993) lanetan Thompsonek hedabideak kulturaren ikerketa soziologikoaren erdigunean jartzen dituen metodoa aurkezten du, lehen oinarri teoriko gisa antropologian White edo Geertz bezalako egileek garaturiko kulturaren ikuspegi sinbolikoa baliatuz, baina ikuspegi horri dimensio estrukturalista bat gehituz, zeinuen eraikuntza eta hautematea behar bezala ulertzeko testuinguru sozio-historikoa kontutan hartu behar dela ulertzen baitu:

“(…) definiré el "análisis cultural" como el estudio de las formas simbólicas - es decir, de las acciones, objetos y enunciados significativos de varios tipos- en relación con contextos y procesos, socialmente estructurados e históricamente específicos en los que, se producen, transmiten y reciben estas formas simbólicas” (1991: 47)

Dimensio estrukturalista guzti hau hainbat egileren ekarpen teorikoetan oinarritzen du, baina Bourdieuren arrastoa da nabariena ‘Ideología y modernidad’ lanean (1993: 219-221) eta urte batzuk geroago argitaratu zuen ‘Los media y la modernidad’ delakoan (1998: 28 eta 34). Honela, egile frantziarraren ‘elkarregin eremuen’ kontzeptua darabil, testuinguru baten baitan subjektu ezberdinek euren helburuak gauzatzeko izan ditzaketen aukerak baldintzatzen dituzten inguruabarrak azaltzeko. Eta ‘botere sinbolikoa’, ‘kapital kulturala’ edo ‘kapital sinbolikoa’ gisako kontzeptuak ere erabiltzen ditu, botere sinbolikorako bitarteko nagusia hedabideak direla seinalatuz: “La selectividad y la creatividad, es decir, las operaciones que caracterizan las instituciones de los medios, implican tanto una extracción selectiva de los contenidos de las formas culturales y de comunicación cotidianas como una extensión creativa de estas formas” (id, 49). Edota bere egikaritzak bitarteko teknikoak eta edukien produkzio, transmisio eta harrerarako beharrezkoak diren konpetentziak (kapital kulturala) eta prestigio nahiz aitortza pilatua (kapital sinbolikoa) eskatzen dituela azalduz.

2.3.2.2 Prozedura

Hiru pausu dituen metodoa da Thompsonen proposatzen duena: azterketa sozio-historikoa, azterketa formal edo diskurtsiboa eta azkenik aurreko biek emaniko emaitzen interpretazioa. Hermeneutika sakona deritza metodoari eta honen azalpenean analisi kulturalaz, ideologikoaz eta komunikazio masiboaren analisisiaz ari denean metodo beraren abstrakzio maila ezberdinez ari da. Metodo orokorra analisi kulturala litzateke, ideologiaren analisisia

metodo hori kulturaren alderdi jakin bati aplikatzea, eta komunikazio masarena aplikazio hori praktikara eramateko modu zehatza.

Analisi sozio-historikoari dagokionean, testuingurua berreraiki eta garaiko harreman sozialak nahiz instituzioak aztertu beharra seinalatzen du, boterearen eta bitartekoen banaketaren behaketa bereziki azpimarratuz. Ikerketa honetan burutuko da lanketa hori. Hedabideen analisiari dagokionean, lehen pausu honetan produkzio prozesua aztertu beharko litzatekeela dio Thompsonek eta ahalegin berezia egingo da horretan. Azken zikloetako bertsolaritzaren hedabidetzeari dagokionean gehiago sakontzeko modua egongo da, kazetari nahiz eragileei eginiko elkarrizketa sakonen edota medioen kasu azterketen bidez. Denboran urrunago gelditu diren zikloetan, Lore Jokoetakoa eta Euzko Pizkundearena, azterketa kuantitatiboak eman ditzakeen datuak lan historiografikoarekin osatuz moldatu beharko gara (sinadura eta hedabide nagusiak, hauen ezaugarri biografiko nagusiak, ideologia eta abar).

Interpretazio lanetarako hedabideen analisisian hedabideen eskaintzak daukan harrera kontutan hartu behar dela gaineratzen du estatubatuarrak. Hor ere egingo da ahalegina, lehen zikloetan orokortasun batzuk baino askoz gehiago eskaintzeko modurik egongo ez bada ere.

Azkenik, kontakizun historikoan ere txertatuko dira esanguratsuak suertatu daitezkeen prentsako testu batzuk, garaian garaiko diskurtsoen erakusgarri.

2.3.3 Gandara: Thompson ahozko ondarearen moldaketetara ekarria

2.3.3.1 Tresna analitikoaren egokitzapena

Ana Gandarak (2015) euskal ondare kulturalaren egokitzea hartu du ikergai bere doktorego tesirako: ‘Euskal ondare kulturalaren moldatzea (1960-1990), egungo Kultur Sistemaren oinarri. Baliabide eta forma sinbolikoak’. Ahozko ondare kulturalak bere modernizaziorako bidean izandako bilakaera aztertu eta arreta berezia jartzen dio bertsolaritzari bertan.

Thompson da hain zuzen ere ikerlari nafarraren marko teorikoaren zutabe garrantzitsuena, eta bere bertsolaritzak izandako bilakaera aztertzen denez, jada irekita zegoen bide hori baliatu nahi izan da, ekarpen berriak egiteko ahalegina eginaz⁴⁵.

Estatubatuarrak burutzen duen sinboloen azterketa komunitate baten nortasun kultural kolektiboaren oinarri gisa funtzionatzen duen ondare kulturalaren eremura ekarri nahi du Gandarak, eta etnosinbolismoan topatzen ditu horretarako bitartekoak (2015: 77-89). Bigarren oinarri gisa Smith baliatzen du eta honen ekarpena, batez ere estaturik gabeko nazioei dagokionean, Guibernauren lanarekin osatu. Etnosinbolismoak nazionalismoen inguruko teoria modernistekin alderatuz, fokua baldintza material eta politikoetan ez ezik ekintza kolektiboaren motibaziorako baliabide subjektibo eta sinbolikoetan jartzen dute, eta hori izango da Gandarak Thompsonen ereduari eginiko lehen egokitzapena: analisirako oinarritzko kontzeptu gisa estatubatuarrak darabilen ‘forma sinbolikoa’ beharrean ‘baliabide sinbolikoa’ baliatzea⁴⁶. Honela, erreferentziazko partaide eta funtzio zehatza duten forma

⁴⁵ Gandarak lan eskerga egiten du estatubatuarraren metodoa euskal kultur ondorearen azterketarako egokitzen, eta aurreraturiko teorizazio lan horrek, ikerlari batoren nahiz bestearen ekarpena sintesi arin batean jasotzearekin, indarrak bestelako alorretan jartzeko aukera eskaintzen du. Honela, ikerketa honen ekarpen gisa prozesuaren testuinguru zabalak jorratzeko aukera ireki da, eta kasu praktikoaren, bertsolaritzaren bilakaeraren, azalpen zabalago bat ere eskaini ahal izan da, testua kontakizun historiko gisa harilkatuz. Bestalde, Thompsonen hedabideen inguruan ekartzen dituenak ez ditu baliatzen Gandarak, estatubatuarraren metodoa adierarik abstraktuenean, analisi kultural orokorrerako, baliatzen baitu, eta ikerlan honetan bai jorratu da kulturaren hedabideratzearen alderdi hori.

⁴⁶ Forma sinbolikoak esanguradun fenomeno kulturalak liriateke: “Usaré el término ‘formas simbólicas’ para referirme a un amplio campo de fenómenos significativos, desde las acciones, gestos y rituales, hasta los enunciados, los textos, los programas de televisión y las obras de arte” (Thompson, 1993: 205). Baliabide

sinbolikoak lirateke baliabide sinbolikoak, nortasun kultural baten inguruan eraturiko komunitateak norberaren inguruan igorri nahiz jasoak eta komunitatearen identitate subjektibo sinbolikoa osatzera bideratuak.

Bestalde, forma sinbolikoek, testuinguru jakin batean txertaturik, bere esanguran eragiten duen ‘baliozkotze prozesu’ak jasaten dituztela azaltzen du Thompsonek: “Una consecuencia más de la inserción contextual de las formas simbólicas es que con frecuencia son objeto de complejos procesos de valoración, evaluación y conflicto” (1993: 217). Prozesu hauen inguruan estatubatuarrak seinalaturiko baldintzatzaile nagusi batzuk ere ñabartzen ditu Gandarak (2015: 108). Honela, Thompsonen elkarreragin eremuko agente ezberdinen helburuak eta estrategiak kontutan hartu behar direla dioenean⁴⁷ baliabide sinbolikoen kasuan helburuak kolektiboak izango direla gaineratzen du nafarrak; edota Thompsonen agenteen kokapena kontutan hartu behar dela seinalatzen duenean⁴⁸, estatutik gabeko komunitateen ondare kulturalaren kasuan komunitatea eta estatu barneratzailearen arteko harremanari erreparatu behar zaiola.

2.3.3.2 Bilakaeraren azterketarako parametro batzuk

Egile ezagunen ekarpenak bere ikergaia aztertzeko motz gelditu zaizkionean ekarpen hauek moldatzeari ekiten dio Gandarak, eta moldaketak argitzen ez dituen eremuei heltzeko tresna berriak proposatzera ere animatzen da.

Honela, kultur komunitateak bere ondare kulturalaren moldaketetan bi behar ezberdin bereizten ditu (2015: 440 eta 620-622). Lehengoa, komunitateak biziraupena bera kinka larrian ikusirik ondarearen berreskurapenari ekiten dionean nagusitzen dena, ‘oinarrizko duintasuna’ berreskuratzea litzateke: talde esentziaren bilaketa gailentzen da, nazioa zerk osatzen duen eta, jarraitutasunean, zein ezaugarrik irauten duen bilatu beharra, horretarako iraganera jo ohi delarik. Bigarrena, Gandarak ‘duintasunaren proiektzioa’ deritzona, jendarte garaikidean birsortzeko gaitasunaren emango duen funtzionamendu bat, gainerako komunitateenekin homologagarria, finkatzea bilatzen duena litzateke.

Nagusi den beharra bata edo bestea izan komunitatearen helburu eta estrategietan eragingo du. Oinarrizko duintasunak iragana gordetzea du xede, eta ondorioz ‘eragin gibelatzailea’ nagusituko da. Duintasunaren proiektzioak, aldiz, etorkizuna irabaztea bilatzen du, eta, honenbestean, ‘eragin aitzinatzailea’ ekarriko du. Gandarak, bi behar horiek eta erantzun gisa eraiki ohi diren estrategiak elkarrekin harilkaturik eman ohi direla dio, baina garai bakoitzean joera bat nagusitu ohi dela. Bestalde, komunitatearen autokontzepzioa eta nagusitzen diren beharrak eta eraginak elkarren eskutik joan ohi direla ere gaineratzen du, adibidetzat, Lehen Pizkundean gertaturikoa jarritz:

“(…) euskal komunitateak XIX. mendearen akieratik aitzina onduriko kontzepzioak hori erakusten du-. Begirada iraganera bideratu, eta haren

sinbolikoak aldiz, bere esangura komunitate etnokultural baten baitan hartzen duten fenomenoak: “Anthony D. Smithek, kasu, komunitate nahiz nazioak eta euren identitatea hizpide harturik, ondoko baliabide sinboliko nagusiak zehazten ditu, eragile nagusi gisa: tradizioak, memoriak, balioak, mitoak eta talde kulturalen ondare metatua osatzen duten sinboloak” (Gandara, 2015: 97-98). Bertsolaritza baliabide sinbolikotzat har daiteke, bada, eta horrela hartzen du Gandarak.

⁴⁷ “Los individuos involucrados en la producción y recepción de formas simbólicas son generalmente conscientes del hecho de que las formas simbólicas pueden ser sometidas a procesos de valorización y pueden perseguir estrategias orientadas hacia el aumento o reducción del valor simbólico o económico” (Thompson, 1993: 232-233).

⁴⁸ “Las estrategias perseguidas por los individuos están vinculadas a las posiciones que ocupan en determinados campos de interacción. Los tipos de estrategias típicamente perseguidas por los individuos, y su capacidad para tener éxito con ellas dependen de los recursos a su disposición y de su relación con otros individuos en el campo” (Thompson, 1993: 233).

erabilera gerarazlea egiten delarik, balizko etorkizunaren irudikatzea eta egoera horietara komunitatea egokitzeko saioak akitu egiten dira. Hori dela eta, komunitatearen garapen ahalmena antzutu egiten da (...) Adibidez, eragin gibelatzaileak bulka dezake komunitatea, hautaturiko iragan horren “egiazkotasunean” edo “jatortasunean” oinarriturik, berezkoa lukeen aldakortasun naturalaren kontrako jarrera orokorrera” (2015: 442).

Azkenik, kultur ondarearen moldaketetarako ‘Oreka komunikatiboa’ zaintzea ezinbestekoa suertatzen dela azpimarratzen du: buruturiko proposamenak baliabidea garai nahiz belaunaldi berrientzat erakargarri egiteko bezainbesteko berrikuntza ekarri beharko du, baina aldi berean hartzaileari ulergarriak zaizkion elementuak ere barneratu beharko ditu funtzionala izateko.⁴⁹

Sarasuak hainbatetan aldarrikatzen duen tradizioa eta irekiduraren arteko oreka baino ez da oreka komunikatibo hori. Honela, Egañarekin eskutitz gurutzatu gisa osaturiko ‘Zozoak beleari’ liburuan: “Memoriaren eta sorkuntzaren arteko zubi bat duk bertsogintza. Zubi horretara zatozak alde batetik tradizioa eta bestetik traizioa. Alde batetik ondare-mina eta bestetik berri-grina. Garenaren oroimena eta sortu nahi dugunaren ametsa (...)” (1997: 233). Edota, Joxerra Garziak ‘Bertso-ispiluan barrena’ lanean egin zion elkarrizketa luzean: “Jasotako tradizioari geure baitan zentzu bat eman eta hori birsortzeko ahaleginean ari gaituk. Ondare bat geure jolas bizigarri bihurtzen” (1998: 10). Eta baita ‘Hiztunpolis’ bere azken lanean ere: “Jarraidura-ariketan lodia da bertsogintza. Irekidura-ariketan, nasaia.” (2013: 303).

2.3.4 Testuingurua

Historiaren kontakizuna bera izango da ikerketa honen muina, baina analisi eredu honetatik erator daitezkeen ekarpenei eta aipatu diren tresna kontzeptualei ere egingo zaie tarte. Honela, osatu nahi den historiaren ziklo bakoitzean historiaren kontakizuna ziklo horri dagokion testuinguruari, neurketa kuantitatiboan oinarrituriko oihartzun mediatikoaren inguruko azalpeni eta eragile nagusien kultur proiektuari eskainiriko azpiatal banarekin aberastuko da.

Thompsonen berebiziko garrantzia ematen dio testuinguruari, eta berau botere harremanen arabera egituratzen dela seinatzen du:

“Los contextos están socialmente estructurados en el sentido de que involucran asimetrías sistemáticas en la distribución y acceso a recursos de diferentes tipos. Las formas simbólicas circulan en campos estructurados por estas asimetrías, es decir, por las diferencias resultantes entre grupos como las clases sociales, los grupos étnicos o aquellos grupos de individuos definibles en términos de edad, género, ingreso, etc. La distinción entre "alta cultura" y "cultura popular" es uno de los aspectos de esta diferenciación social (...)” (1998: 48)

Egile estatubatuarrarak ‘egitura soziala’ deritzen (1993: 223) harreman hauei ere erreparatu beharko zaie, bada, analisi ideologikoa garatuz: “El análisis de la ideología concierne, en primer lugar, desde mi punto de vista, con los modos en que el significado y el poder se

⁴⁹ Sistema sinbolikoen inguruko hainbat alderdi argitzeko Ernst Cassirer filosofoaren lanaz baliatzen da Gandara eta tradizioa eta irekiduraren arteko tentsioa ilustratzeko ‘funtsezko polaritate’ deritzona dakar: “Bi joera horien artean etenbeharrean aurkitzen da gizakia: bata forma zahar guztiak gordetzen ahalegintzen da, bestea forma berriak sortzen saiatzen da (...) Kultur bizitzaren eremu guztietan aurkitu ohi dugu bikoiztasun hori (...) Bataren ala bestearen nagusitasunak zedarrizten du neurri handi batez kultur forma bakoitzaren izaera. (Cassirer, 1995: 330; Gandaratik hartua, 2015: 164-165). Bestalde, egokitzeko behar den berritasuna eta komunikazioa mantentzeko behar den tradizioaren arteko orekaren ingurukoak musika alorreko berrikuntzak aztertzen dituen James H. Johnsonen ekarpenetatik jasotzen ditu (2015: 166 eta 355).

intersectan” (id, 58). Honenbestez, testuinguru zabalari bi atal eskaintzeaz gain (Lehen Modernitatea eta Beranduko Modernitatea), esan bezala, kontakizun historikoko ziklo bakoitza dagokion hurbilagoko testuinguruaren inguruko azalpen batekin irekiko da.

Thompsonen forma kulturalen azterketarako planteatu eta Gandarak euskal ondarearen moldaketen ikerketarako ñabartzen duenari jarraituz, euskal kultur komunitatearen helburu kolektiboen eta kokapenaren ingurukoak jasoko dira azalpen hauetan. Garaian garaiko ekimenak hobeto ulertzen lagunduko digu testuinguratzeak eta baita, komunitatearen kokapena subalernitatezkoa izan dela kontuan harturik, buruturiko lana bere neurrian baloratzeko ere:

“Garaian garaiko baliabide kognitiboak baliatuta eta garaian garaiko baldintza soziopolitikoek baimendutako aukera egiturara egokituta osatu dute euskal kultur gileek euskalgintza deitzen dugun gune kognitibo hori. Gehienetan egoera politiko eta kultural desegokian burutu dela kontuan hartuta, zeregin nekeza eta korapilatsua bete dute kultur gile horiek.” (Larrinaga, 2007b, 309)

2.3.5 Oihartzuna

Ikerketa kuantitatiboak, bertsolaritzari prentsan argitaraturiko testuen bilketak etiketatzeak eta lanketak, garai bakoitzean argitaraturikoa historia serial gisa azaltzeko aukera irekitzen du. Kontakizunaren hainbat alderdi datuetan oinarritu, edota datuekin berretsi eta osatzeko aukera ematen du honek, Del Moralek funtsezkotzat jotzen duena: “No basta, pues, con describir, hace falta, también, medir y hacer recuento de los hechos sociales de signo diverso en el acontecer (...) en la medida que el tratamiento de las fuentes lo permita (historia seriada o estadística retrospectiva)” (1999: 14).

Atal historiko bakoitza garai horri dagokion oihartzun mediatikoari buruzko azpiatalarekin osatuko da, beraz. Ikerketa kuantitatiboan erabilitako etiketatuari esker garai bakoitzean bertsolaritzaz gehien argitaratu duten egunkari eta aldizkariak zeintzuk izan diren ezagutu ahal izango da, zein hizkuntzatan argitaratu den eta zenbat, zeintzuk izan diren sinadura garrantzitsuenak, zein prentsan protagonismo handiena izan duten bertsolariak, bertsolaritzaren inguruko ze gertakari mota diren arreta mediatiko handiena eragiten dutenak... Azken zikloari dagokionean bestelako informazioa eskaintzeko modua ere egongo da: landutako kazetaritza generoak, testuen kokapena, hedadura eta abar. Hainbat grafikoren bidez adieraziko dira hauek guztiak.

Datuok funtsezkoak suertatuko dira hainbat ekarpen egiteko: gehien argitaratu izan zuten egunkarien edo sinaduraren profilek, esaterako, bertsolaritzaren inguruko proiektu ezberdinen profila zehazten lagun dezakete; sinadura eta eragileen arteko loturak proiektu horietan hedabidetzeari ematen ziztaion garrantziaren arrasto gisa funtziona dezakete; bertsolari mediatikoenak edota albistegarritasun gehien aitortzen zaien gertakariak zein ziren jakinda bertsolaritzaren inguruan eraikitako irudikapenera gerturatzeko modua legoke...

2.3.6 Proiektua

Garai bakoitzean bertsolaritzaren inguruan aritutako eragile nagusiak identifikatuko dira eta hauen biografietan, testuetan eta ekintzetan arakatuko da, historiografian onarpen zabala duen bidea jarraituz:

“Los autores marxistas que desarrollaron los puntos de vista de Marx y Engels (Y. Plejanov, K. Kautsky, N. Bukharin, A. Gramsci, y otros) están de acuerdo en dos cuestiones básicas: el condicionamiento de las acciones de los individuos destacados y el reconocimiento de su influencia, considerable y

definida, en el curso de los acontecimientos (...) las acciones de los individuos destacados tienen además una función centradora. De este modo los individuos destacados son como organizadores que inician, en mayor o menor grado, y unen las acciones de las otras personas. Evidentemente, ni los individuos destacados ni el resto de la gente actúan aisladamente.” (Topolsky, 1992: 203)

Smithek (1997) eta Hutchinonek (2004) hainbatetan azpimarratzen dute mugimendu etnokulturaletan, izan ohi duten subalternitatezko kokapenak bestelako erakundeen eragiletza galerazten duenez, komunitatearen *intelligentsiak*, Gramscik ‘intelektual organiko’ deritzonak, ohikoan baino protagonismo eta garrantzia gehiago izan ohi dutela. Eta Larrinagak tesia eskaintzen dio euskal *intelligentsiaren* bilakaera historikoari: “Adierazitako guztiarekin esan nahi dugu, hizkuntza komunitate baten jokamolde linguistikoak ulertzeko, bereziki komunitate minorizatuen egoeran, berebiziko garrantzia daukala kultura eliteek — beste elite batzuekin batera— sortzen eta hedatzen dituzten irudikapenak aztertzea” (2007b, 118).

Eragile hauek bertsolaritzaren inguruan ezarri izan dituzten helburuak, martxan jarritako praktikak, eraiki dituzten irudikapenak eta guzti honek garaiko euskal kulturagintzaren baitan izan dezakeen zentzua aztertuko da, Castelsek planteaturiko kuestioei erantzuteko: “Es fácil estar de acuerdo sobre el hecho de que, desde una perspectiva sociológica, todas las identidades son construidas. Lo esencial es saber cómo, desde qué, por quién y para qué” (2003: 35).

Azkenik, ziklo historiko bakoitzaren itxiera gisa, aparteko azpipuntu batean garaian garaiko bertsolaritzaren inguruko proiektu moduko bat zirriborrazteko ahalegina egingo da. Ziklo historikoaren kontakizunean eta azterketan jasotakoak erabiliko dira horretarako oinarri gisa.

Proiektuari eskainiriko azpiatal berezi honetan ziklo ezberdinen arteko korrespondentziei arreta berezia jarriko zaie, funtsezkotzat jotzen baitira kulturagintzaren bilakaeraren azterketan.

Larrinagak honela azaltzen du kontzeptu honek euskal kulturagintza ulertzeko duen garrantzia:

“Gaur ezagutzen dugun euskalgintza, besteak beste, kapital kultural eta sinboliko baten metaketa historikoaren emaitza da. Bestela adierazita, euskal kulturagileek denboran zehar —bereziki XIX. mende amaieratik aurrera— euskarari buruz sortu eta garatutako ideia, irudikapen, proiektu eta ezagutza multzoaren ondorena da.” (Larrinaga, 2007b, 309)

Hutchinonek (2004) lantzen duen ‘an overlaying of tradition’ kontzeptuaren arabera tradizio etnikoen moldaketa modernoak berridazketa bizigarriak baino ez lirateke, eta Gandarak ere arreta berezia jartzen die korrespondentzia hauei, continuum gisa izendatzen dituelarik.

Azkenik, eta bilakaera ikusiko bada, jarraitasunari ez ezik, garaian garaiko aldaketei ere begiratu beharko zaie, noski. Honela komunitatearen autokontzepzioan izandako aldaketei erreparatuko zaie, eta baita autokontzepzio horren arabera eragileek hartzen dituzten jarrera berriei ere.

2.3.7 Zikloak

2.3.7.1 Zikloa: Oinarria-Gailurra-Haustura

Kontakizun historikoaren artikulazioak, kontakizun horrek bide luzea egiten badu eta bide horretan aldaketa esanguratsuak eman badira behintzat, aldizkatze ariketa bat eskatu ohi du:

“Si la Historia se desarrolla en un tiempo concreto éste debe de ser datado con precisión (fechas) y parcelado en función del establecimiento de determinados significados sociales básicos homogéneos que constituyen macroconjuntos temporales de referencia (Edades o épocas). Admitiendo, como es lógico, nuevas cesuras temporales, establecidas en virtud de parámetros contruidos por el historiador como puntos de arranques o finales. Tal es el caso de la división en etapas, períodos, generaciones, etc.” (Del Moral, 1999: 13)

Ikerketa honi dagokionak ez ditu Aro ezberdinak zeharkatzen, Aro Modernoaren baitan barneratzen baita azaldu nahi den guztia, baina garai ezberdinak bai hartzen ditu, testuinguru zabalarari dagokionean behintzat: Lehen Modernitatea eta Beranduko Modernitatea.

Esku artean dugun kontakizun historikoa XIX. mendearen erdialdean abiatzen da, orduan lortzen baitu bertsolaritzak lehen aldiz gutxieneko presentzia mediatiko bat, eta gaurdaino luzatu, 170 urte inguruko ibilbidea eginaz. Aroak eta Garaiak kontakizunaren artikulaziorako zabalegiak suertatzen badira ere epe motzagoetan banatzeko adina ematen du bada, ikergaiak.

Arostegui azalpen historikoak prozesuen azalpena izan behar duela dio: “La historiografía sólo puede explicar la historia adecuadamente por una referencia a la totalidad de un proceso con antecedentes y consecuentes dentro de un adecuado espacio de inteligibilidad” (2001: 305). Prozesuen baitan, berebat, aldi batetik besterako aldaketak, alegia, egoera batetik besterako trantsizioak, gradualak izan ohi dira: “(...) primero, solo aparecen elementos sueltos de la formación nueva; (...) segundo, esos elementos se combinan para formar un sistema nuevo que gradualmente ahoga al viejo” (Topolsky, 1992: 234). Eta aldaketaren izaera graduala nahiz bere aurrekari eta ondorioekiko lotura modu ulergarri batean artikulatzeko formula prozesu historikoa zikloen segida gisa azaltzea izan daiteke:

“En cuanto al desarrollo de una formación nueva, los historiadores ven dos o tres niveles en ese proceso. En el primer caso, se refieren al periodo de una tendencia ascendente y al de una tendencia descendente (en el que la formación que consideramos declina). En el último caso, se suele hacer referencia a los periodos de aparición, estabilización y declive.” (id, 234-235)

Eskema hau burutu nahi den historiaren artikulaziora ekarrita ziklo bakoitzak bertsolaritzaren inguruan lanean aritu den eragile sare bat izango luke, elkarren ondoko pare bat belaunaldik osatua, eta sare horrek, esplizituago edo lausoago, bertsolaritzaren inguruko proiektu bat izango luke buruan. Honela, esan bezala, proiektu hori gauzatzeko oinarri bat landuko da, lanketa honen emaitza gisa gailur bat emango da, eta, azkenik, zikloari amaiera emango dion aldi bat etorriko da, testuinguruaren aldaketari proiektua egokitu beharrak ekarria.

Bestelako formulak ere eskaini ahal dira, noski, baina ikerketa honetan azaldu nahi den historiarako egoki ikusi da kontakizuna oinarria-gailurra-haustura gisako ziklotan banatzea, eta zikloen faseak hartzea oinarritzko aldi gisa. Eta egoki ikusi da, aipaturikoez gain, *continuum*aren ideia eta aldaketarena uztartzeko modua eskaintzen duelako.

- Ziklo baten haustura dakarren aldiak, hurrengo zikloaren oinarrian bistaratuko den kimuaren (bertsolaritzaren proiektu berria) haziak (testuinguruaren trantsizioaren lehen arrastoak, eragile belaunaldi berriaren lehen agerpenak, autokontzepzio berri batetarako materiala...) gordetzen ditu bere baitan.
- Proiektu berria bertsolaritzaren gailur berri batean loratuko da.
- Hazi berriak dakartzan haustura berri bat ematen den arte.

2.3.7.2 Ziklo bakoitzaren baitan

Bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren historia ezinbestean bertsolaritzak berak fenomeno kultural eta sozial gisa izandako bilakaerari lotzen zaio, bertsolaritzak pauso garrantzitsuak eman izan dituenetan etorri izan dira bere presentzia mediatikoaren aurrerapen nagusiak. Eta bertsolaritzaren bilakaera, era berean, euskal kulturagintzaren garapenari lotua ageri da.

Euskal kulturagintzaren historia, bertsolaritzaren historia eta bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren joera orokor batzuren inguruan jaso ahal izan direnak kontuan hartuz, artikulatuko da, bada, burutu nahi den kontakizuna, hiru eremuon baitan elkar gainjartzen diren urratsak eta mugarri amankomunak oinarritzat hartuz.

Aurrerapen gisa historia lau ziklotan ardaztu dela aipatu daiteke: Lore Jokoak (1845-1917), gerraurreko Euzko Pizkundea (1918-1944), Frankismo garaiko neguko kanpamenduetako lana (1945-1979) eta oraingoz garaikidea deituko dioguna (1980-).

Laburbilduaz, ziklo bakoitza testuinguruari buruzko azpiatal batekin irekiko da; bilakaera historikoaren kontakizuna garatuko duten hiru azpiatal etorriko dira jarrian, oinarria-gailura-haustura eskemaren arabera antolatuak; bertsolaritzak garai horretan izandako oihartzun mediatikoaren azterketan sakontzen duen duen azpiatala jorratuko da hurrena; eta, azkenik, ziklo horri dagokion proiektua zirriborratzen duena.

Planteatzen den zikloen baitako bilakaera, zalantzak eragin ditzakeen interpretazio bat izan daiteke, baina ezein kasutan hautemangarriak diren prozesu batzuetan oinarritzen da. Historiaren aldizkatzea data zehatzekin zedarritzea bai suertatzen da askoz ere ariketa subjektiboagoa:

“La delimitación de espacios temporales en función de una cierta ‘homogeneidad’ histórica es siempre un problema de fondo para la descripción de la historia. Siempre se ha dicho, además, que una simple fecha no es bastante para marcar el paso entre dos épocas.” (Del Moral, 1999: 270)

Hala ere, azpimarratu nahi da zikloen artean eta ziklo bakoitzaren baitako aldi ezberdinen artean mugarri gisa seinalatzen diren daten hautua hainbat zantzutan oinarritzen dela. Ziklo bakoitza garatzen duen testuan txertaturik agertuko dira zantzu horiek guztiak.

3. KULTURA POPULARRA LEHEN MODERNITATEAN ETA LEHEN EUSKAL PIZKUNDEAN

“Artikaste aundiakiko gizon jakinti askori aditu izan diotet esaten, guziz ikaragarria dala eskolatu gabeko itz neurtulari oen alainzo edo talentu jakinduriazkoa.”

Juan Inazio Iztueta. ‘Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia’, 1824.

3.1 LEHEN MODERNITATEAK EKARRITAKO HAUSTURA

3.1.1 Eliteen bestekotzea

Kultura popularrak Lehen Modernitatean izan zuen sarbidean, eliteen urruntze bat emango da, hainbat fenomeno uztartzen dituen bide konplexu baten baitan :

“Aunque este alejamiento de la cultura popular se produjo a distintas velocidades en varias zonas de Europa, sin embargo las tendencias principales parecen bastante claras. De forma similar, la explicación para estos cambios – a pesar de los matices locales y de que sea importante tomarlos en consideración – también parece bastante sencilla; la razón fue un rápido cambio de la cultura de los instruidos entre 1500 y 1800, la época del Renacimiento, la Reforma y la Contrarreforma, la revolución científica y la Ilustración (todas ellas palabras que resumen un movimiento que no sólo fue complejo, sino que estuvo cambiando continuamente)” (Burke, 1991: 389).

XV. mendean, Erdi Aroa eta Aro Modernoaren arteko zubi gisa, Errenazimendua jarri zen abian, nagusiki artearen baitan teozentrismotik antropozentrismorako lehen pausoa emanaz. Gutxira inprenta agertu zen, ezagutza eta kultura hedatzeko modu berri bat. Kapitalismoaren lehen garapena, lehen Estatu Modernoen sorrera, ezagutza zientifikoaren iraultza, Erreforma protestantea eta Ilustrazioa etorri ziren jarraian, guztiak ere, neurri batean inprentaz baliatuz, pixkanaka giza arazoia ezagutza eta kulturaren erdigunean jarriko zutenak.

Ezagutza zientifikoa eskaintzen zioten liburuak irakurriz eskolatuek⁵⁰ ordura arteko hainbat sineskeria bazterrean utzi zituzten⁵¹. Hainbat tratatu sortu ziren, jendartean portatzeko modu

⁵⁰ Eliteen eskolatzea nahiz Modernitatea eskutik datoz eta garaikideak dira: “No se puede hablar realmente de un sistema educativo público colectivo en las épocas medievales, a pesar de la influencia omnipresente de la Iglesia; habría que esperar varios siglos para que hubiera un sistema educativo totalmente secularizado, pero a finales del siglo XVI ya se había establecido un sistema educativo de élite”. (Smith, 1997: 51)

⁵¹ Ongek honela egiten du idazketa eta aldaketa sakon hauen arteko lotura: « (...) los cambios hasta la fecha clasificados como evoluciones de la magia a la ciencia; del llamado estado de conciencia "prelógico" a uno cada vez más "racional"; o del pensamiento "salvaje" de Lévi-Strauss al pensamiento domesticado, pueden explicarse de manera más escueta y coherente como cambios de la oralidad a diversos estados del conocimiento de la escritura. » (1982: 71)

egokiaz arrazoitzen zutenak, eta hauek irakurriz, Castiglioneren *Gortesaua* aipatzen du Burkek, modu horiek finduz joan ziren. Dantzari buruzko tratatuetik manera berriekin bat zetozen dantzak jorratu zituzten; literaturari buruzkoekin eskaintza literario berri bat, arrazoiari oinarrituriko kanonen arabera eraikia...

Eskolatu gabeek ez zuten aldaketa hauetara sarbiderik, ez baitzekiten irakurtzen. Petrikilo, berrikerari eta titiriteroen aurrean aho zabalik gelditzen jarraituko zuten. Kultura plazan egiten zen festa parte hartzaile gisa biziko zuten aurrerantzean ere, manerei, dantzei edo literaturari buruzko tratatuek ezarri zituzten arauak erreparatu gabe. Honenbestez, eskolatu gabeen kulturari, duela gutxira arte guztiena zena, popularra deitzen hasiko ziren eskolatuak, jaso eta popularraren arteko bereizketa sortuz.

Eta bereizketatik bazterketa etorri zen. Frantzian, esaterako:

“A mediados del siglo XVI, los poetas de la Pléiade rechazaron las formas literarias populares, como el *rondeaux*, las *ballades* y los *virelais*, por otras razones que estuviesen más próximas a las normas clásicas. (...) La formulación de los ideales lingüísticos y literarios del clasicismo francés por Vaugelas y Boileau, también implicaba el rechazo de las tradicionales canciones como irregulares y bárbaras; Boileau usaba el Pont-Neuf –donde actuaban los cantantes de baladas – como un símbolo de todo aquello que debía evitarse en la buena poesía” (Burke, 1991: 383-384).

Aldaketa kulturala nobleziari eta burgesiari ekarri ziena Errenazimendua izan bazen Kleroan Erreformak ekarriko zuen. Protestantismoak, inprenta bezala Alemanian sortua eta baliabide berria propagandarako erabiltzen iaioa, gizabanakoaren arrazoiari ordura arte ez zeukan protagonismo bat eman zion erlijio alorrean: Elizaren bitartekotza auzitan jarri zuen eta, besteak beste, idatzi sakratuak latinetik bakoitzaren hizkuntzara itzultzeari ekin zion. Kapitalismoaren interesei eta burgesiaren bizimoldeei egokitzen zitzairen moralitate berri bat ere hedatu zuen, oinarritzat lanaren sakralizazioa eta portaera sozial finduago bat jarritz. Ondoren etorriko zen Kontra-erreforma katolikoak, atzera egin nahiko zuen, latinari eutsi, Antzinako Erregimenaren defentsan gotortu baina herri xehearen praktiken kontrolaren azpimarran bat etorri zen protestantismoarekin, eta tonu gordinago batean egingo zuen gainera, haize berrien aurrean herria estu lotu nahian Inkisizioa berreskuratuko zuelarik.

Apaiagoa bera lotu beharko zuen herria lotu aurretik. Burkeren arabera 1500ean parroko gehien maila kultural nahiz soziala herri xeheak izan zezakeenaren oso antzekoa zen, baina elite protestanteek unibertsitatearen bidez eta katolikoek seminarioak sortuz kleroaren bestekotzea abiarazi zuten: “Aquel viejo párroco que llavaba una máscara y bailaba en la iglesia durante las fiestas o que contaba chistes desde el pulpito, fue sustituido por otro que estaba mejor educado, con un estatus social más alto y considerablemente separado de sus feligreses” (1991: 377).

Eskutik joan ohi dira bazterketa eta mesprezua eta popular gisa izendatzearekin, arrunt, baldar, trauskil, behe mailakotzat hartu zuten eskolatuak eskolatu gabearen kultura. Kultura jasoak ordezkatu egin behar zuen kultura hori, edo jasoaren kanonen arabera egokitu beharra zegoen: eskutik joan ohi dira mesprezua eta debekua ere.

3.1.2 Ertzetan muturrera eramandako fenomenoak

Prozesuaren beste aldaera garrantzitsu bat seinatzen du Burkek: Europaren garaiko botere egituraketan periferian gelditu ziren kultur komunitateena. Honela azaltzen du komunitate hauetan gertaturikoa: “La separación de ambas culturas puede verse, con más claridad, en aquellas zonas de Europa donde la imitación de la corte supuso que las élites locales hablaran un lenguaje distinto al del pueblo común” (1991: 378).

Hainbat adibide jartzen ditu:

“En Languedoc, por ejemplo, la nobleza y la burguesía adoptaron el francés, lo que les separó (o hizo patente la separación) de los artesanos y campesinos que hablaban occitano. En Gales la aristocracia local empezó a hablar inglés y retiró su protección a los bardos tradicionales, lo que supuso la casi inmediata extinción de este tipo de actores. En las Highlands de Escocia, durante la época de Ferguson, el gaélico se convirtió –como indicaba el mismo Ferguson– en ‘la lengua que se hablaba en las cabañas, pero no en los salones o en la mesa de cualquier caballero’”. (1991: 378)

Bohemian, XVII. mendean nobleziak alemana hitz egiteari ekin zion, Vienako gortea imitatuz bertako hizkuntza, txekiera, nekazarietzat utziko zutelarik; Norvegian, mende bat beranduago, jende jantziak Kopenhageko gorteko hizkuntza, daniera, hitz egingo zuen, norvegiarra herritar eskolatu gabeen kontua bailitzan; elite finlandiarrek beste hainbeste egingo zuten garai berean suedierarekin...⁵² Erreinuen periferiako elite hauek euren hizkuntzari ez ezik hizkuntza horretan garatzen zen kultura orori egingo zioten uko, hizkuntza nahiz kultura horiek, behe mailakotzat hartuz. Berebat, euren garapena sustatuko zuen elite eskolaturik gabe, hizkuntza periferiko hauen modernizazioa atzean gelditzen hasi zen. Kulturarekin gertatzen zen bezala hizkuntza jaso eta arrunt, baldar, trauskil, behe mailakoen arteko bereizketa sortuko zen pixkanaka. Beraz, hizkuntzen historiaren eta kultura popularraren historiaren arteko loturak marrazten ditu Burkek eta bikulturaltasuna nahiz diglosia kulturala gisako terminoak erabiltzen ditu fenomeno hauek azaltzeko (1991: 21)⁵³.

Calvetek xehetasun gehiagoz azaltzen du fenomeno zehatz honen barne muina, hizkuntz komunitateen arteko indar erlazio gisa planteatuz. Glotofagia deritzo prozesu osoari eta lehen fasea komunitate subalternoko eliteen norbere hizkuntzarekiko ukoa dela seinatzen du:

“El primer estadio de la glotofagia era, de algún modo, vertical: en la diferenciación lingüística se manifestaba fundamentalmente en términos de clases sociales, por cuanto el retroceso de la lengua dominada comenzaba en la corte, la nobleza local, la burguesía (...) la lengua dominante es empleada por

⁵² Gortean integratu nahirik norbere hizkuntza ez ezik hizkuntza hegemonikoaren adiera lokalak ere baztertzera iritsi ziren elite periferiko hauek. Gaskoien adibidea jartzen du Burkek (1991: 384): “Los instruidos del sur no sólo hablaban francés en vez del occitano, sino que también aprendieron a purificarlo de expresiones regionales, si juzgamos por el éxito de *Les gasconismes corrigés* (1766) (...)”. Eta baita Eskoziakoa ere (1991: 388): “Como había sucedido con los ‘gasconismos’, los localismos escoceses también fueron corregidos y los lectores del libro que publicó sobre esta materia James Beattie, estaban avisados que nunca dijese *clatering* cuando lo que querían decir era *chattering* (‘charlando’) (...)”.

⁵³ Madariagak ere erreparatzen dio fenomeno honi: “Esto nos conduce a un doble problema; por una parte, el de la segmentación lingüística por clases sociales, situación que lejos de ser rara o excepcional, era muy frecuente en Europa antes de los desarrollos nacionales del siglo XIX. Las clases dirigentes húngaras estonias y checas, hablaban comúnmente alemán, las de Lituania polaco, las de Finlandia sueco... Jan Potocki, patriota polaco, era sin embargo incapaz de escribir en su lengua, haciéndolo en francés.” (2008: 107). Baita Intxaustik ere: “(...) Herbehereetan arazo nahasiagoa zen: Antwerpen-en (Anberes), administrazioan, nederlandera erabili ohi zen; baina Gortearrekikoak frantsesez egiten ziren, eliz tribunaletan latinez, eta merkatalgoan hainbat interpretaren laguntzaz egiten zen lan (...) Norvegian gobernari eta merkatariek danieraz ziharduten (...)” (2014a, 77)

quienes, en esa misma jurisdicción, están cerca del poder colonial o lo representan, y por quienes trabajan para él (domésticos, comerciantes; pero también, en las regiones de tradición escrita, como las de territorio francés, escritores, poetas y otros)” (2005: 90)

Calveten lana ikerketa postkolonialen baitan lerratzen da, kolonia ohietako kasuei erreparatzen die nagusiki, baina Europako hizkuntza gutxiagotuei ere eskema bera aplikatzen die, funtsean menpekotze prozesu beretsuak eman zirelakoan:

“El único problema consiste en saber si la situación actual de Bretaña es efectivamente colonial (digo, sin más, actual, pues queda claro que el origen de la asimilación de Bretaña a Francia es un proceso colonial), en especial si el pueblo bretón actualmente tiene conciencia de conformar una nación dominada” (2005: 176).

Euskarari planteamendua erabat egokitzen zaiola ikus daiteke hitzotan:

“La erosión sufrida por la lengua vasca, evidente a partir del siglo XVII, está en relación directa con su situación social y legal, plena y modélicamente diglósica (...) las clases populares eran vasco-parlantes monolingües, mientras que los grupos dirigentes eran bilingües, utilizando el vasco en sus relaciones con el pueblo y el romance en los contactos con el exterior y en las comunicaciones entre sus iguales. Todo aquel que quería prosperar en la administración, en oficios liberales, el que tenía tratos comerciales exteriores, relaciones con la Corte o quería hacer carrera eclesiástica, debía dominar el romance y en muchos casos el latín; los que labraban la tierra podían vivir y morir conociendo solamente el vasco.” (Madariaga, 2008: 105)

3.1.3 Euskal kulturaren bestekotzea

Burkek azaltzen duenez, Erdi Aroan Europan zehar aurki zitezkeen kultur komunitateetan eliteek eta herriak kultura bera partekatzen zuten. Gabilondok euskal nobleziaren bertsolaritzaz topatu diren arrastoak seinatzen ditu estadio horren adierazpen gisa:

“Perhaps the most central and, tragically, most disregarded literature of the Middle Ages, is constituted by a very rich tradition of ballads and improvisational poetry, of which only few fragments have been preserved. It was an oral tradition and was also cultivated by the nobility and the elite classes. Perhaps, the widespread transmission of this oral tradition prevented this class from registering it on paper.” (2016: 86)

Esteban de Garibai historialariak jasotako *Martin Ibañez de Labieroren hilobian* eta *Mila Lasturkoaren eresia* liriteke aipaturiko arrasto horiek, lehenengoa XIV. mende bukaerakoa, bigarrena XV. Mendekoa, biak emakumezkoek sortuak⁵⁴.

Burkek, bestalde, eliteen bestekotzea XVI. mendean abiatzen dela seinatzen du. Euskal kulturaren kasuan, aldiz, arrasto zaharragoa ere seinalatu daiteke, hain zuzen ere, bertsolaritzaren inguruan topatu den erreferentzia historiko zaharrenak, 1452ko Bizkaiko

⁵⁴ *Martin Ibañez de Labieroren hilobian* 1393koa da Iburguen-Cachopinek jaso. Hil berriaren, Martin Ibañezen, alargun Sancha Ortizek, negar batean abesturiko bertsoek osatzen dute. Mila Lasturkoaren eresia, aldiz, XV. mendekotzat hartzen da, Garibaik berak jaso zuen eta hildakoaren ahizpa baten bertsoek eta hauei erantzunez alargunaren, Pedro Garciaren, andregai berriak, Marina de Arrazolak, abesturikoek osatzen dute. Bat-batekotzat jotzen dituzte bi bildumak bai San Martinek (1967), bai Azurmendik (1980) eta Gabilondok berak ere (2016).

Foruek ezarririko profazaden eta hiletarien bertsoen debekua, eskaintzen diguna⁵⁵. Kultura bateratuz gorde ahal izan diren arrasto bakanen garai berekoak dira kasik, beraz, bertako elitea euskarazkoari bizkarra ematen hasi zitzaiola erakusten duten lehen zantzuak:

“(…) this oral literature shows the existence of a linguistic unity between elite and peasant classes, which ceased in the Renaissance and, instead, gave rise to a “linguistic divide” by which literature in Basque became a subaltern practice while the elites embraced state languages such as Spanish and French for their cultural and political practices.” (Gabilondo, 2016: 87)

XV mende bukaeran, Nafarroako erreinuaren testuinguruan, inguruko gainerako hizkuntzek bezala kultura idatzian lehen pausoak emateari ekingo zion euskarak Leizarraga eta Etxepareren lanekin. XVI. mende hasieran Gaztelak Nafarroako erreinua menperatzean, ordea, amaiera emango zaio bide hasi berriari:

“Starting in the 16th century, when the Inquisition makes its first appearances in Durango and in the upper valleys of Navarre (Aezkoa, Saraitzu and Erronkari), several legal resolutions are passed so that the attendance and participation in local and provincial legislative and judicial meetings (batzarreak) is restricted to those who speak and write in Castilian or French/Gascon” (Gabilondo, 2016: 101).

XVI. mende horretan zehar euskal nobleziak euskararen apologia idatzi zuen gorteko hizkuntzekin garai hartan egin ohi zen bezala. Apologia hori, ordea, ez zen gainerakoak bezala norbere hizkuntzan idatzi, gaztelaraz baizik. Eta gainerakoak ez bezala hizkuntzaren estatusa jasotzea baino nobleziarena mantentzea zuen helburu, argudio linguistiko-erlijiosoekin, euskararen antzinatasunetik ondoriozta zitekeen kristau zaharren leinukoak zirela ezarriz. Honela, Hidalgia unibertsala eta postu garrantzitsuak lortuko dituzte integrazioaren truke, foru sistema ere orduan finkatuko da, baina aldi berean euskaraz hitz egiteari utziko diote:

“Desde épocas bastante tempranas el menosprecio de los notables por la ‘lengua vulgar vascongada’ y el aprecio por la romance «cortesana» es muy notorio. Un pasaje literario correspondiente a Pérez de Montalbán se muestra suficientemente elocuente al respecto. En el diálogo establecido entre el castellano Lisardo y la noble vasca doña Elena, pregunta el primero: ‘¿Cómo siendo vizcaína, / hablas tan bien nuestra lengua?’; a lo que ella responde: ‘Porque en vizcaína mengua, / Y entre los nobles mohína, / Hablar vascuence jamás, / Sino fino castellano’. En las ciudades administrativas y poblaciones comerciales esta dualidad lingüística entre notables y pueblo menudo se hacía muy evidente; así lo describe para la Vitoria de 1572 el viajero italiano Giovanni Battista Venturino: ‘[...] Se advierte en ella que las personas del pueblo hablan Vizcaíno o Vascongado, como ellos lo llaman, lengua difícil de aprender, si bien los nobles hablan castellano con toda claridad’ (Madariaga, 2008: 105-106).

⁵⁵ Bertsolari emakumeak izango dira berriro ere protagonista, merkatuan kantu zirikatzailean aritzen ziren profazadak eta hiletetan doluzko bertsoak eskaintzen zituzten hiletariak: Titulo 8, Ley I. (...) sobre Mugerres, que son conocidas por desvergonzadas, y rebolvedoras de vecindades, y ponen coplas, y cantares a manera de libelo infamatorio (que el Fuero las llama profazadas)

Titulo 35, Ley VI: ...de aqui adelante quando quier que alguno muere en Vizcaya o fuera de ella..., persona alguna de todo Vizcaya, Tierra llana, villas e ciudad no sea osado de hacer llanto mesandose los cabellos ni rasgando la cabeza, ni haga llantos cantando... so pena de mil maravedis a cada uno que lo contrario hiciere (...).

Bestekotze prozesua XVII. mende hasieran iritsiko da azken burura. 1609-1610 bitartean Pierre Lancrek Lapurdin eta Juan Valle Alvaradok Zugarramurdin zuzenduriko Inkisizioaren kanpainen ondotik, nekazal lurretatik hirietara aldaturiko maiorazko handiek ere, euskara kultur hizkuntza gisa bizi zuten eliteen azken kondarra, bizkarra ematen diote euren hizkuntzari. Euskaldun subalterno elebakarren gidaritza kulturala Elizaren esku geldituko da:

“As a result, the elite classes abandon Basque as a cultural and political language, and, henceforth, euskara is relegated to the condition of subaltern language, which, then, becomes the exclusive territory of the Catholic Church and its indoctrination of subaltern classes (villagers, rural peasants, and fishermen).” (Gabilondo, 2016: 101)

Euskal eliza Erreformaren berrikuntzei erantzuteko Trentoko Kontzilioak harturiko erabakiari jarraiki, bere hizkuntzan zuzenduko zaio herri xeheari. Erreforma eta Kontra-erreformaren eraginez Europa guztian gertatu bezala, kultura popularrarekiko bestekoturiko Eliza bat izango da, ordea. Erresistentzia kulturala baino doktrinamendua da bere helburua:

“A la Iglesia no le movía a utilizar el euskera su amor por la lengua; los motivos han sido y son más prosaicos y prácticos, es decir, los que se derivan del propósito del adoctrinamiento religioso. Por ello, no se ocupó de otras cuestiones, pues cualquier otro problema se apartaba de sus fines específicos.” (Sarasola, 1982: 53)

Hurrengo hiru mendeetan eutsiko dio gidaritza horri: “XVII. mendean [euskaraz] argitaratutako liburu guztiak, bat izan ezik, erlijiosoak ziren. XVIII. mendean, argitaratutako 29 liburuetatik, 27 erlijiosoak ziren. XIX. mendean ere, 1800 eta 1879 urte bitartean, argitaratutako 59 liburuetatik, 51 erlijiosoak ziren” (Díaz Noci, 1995b, 18).

Aldi berean, XIX. mende hasieraino Elizaren euskal kulturarekiko bestekotze arrastoak topa daitezke. Esaterako, Joxe Azurmendik (1980) Jean Baptiste Comoussaryren, Juan Bautista Agirrerren eta Bartolome Madariagaren testuetan topatutakoak. Azken honek honela zioen *Jaungoicoaren amar aguindu-beetaco lelengo bosteen icasiquizunac* lanean:

“Impernuco espiritu loijak aguertu dituban astucijac, dira oraingo gentiaren cantaric gueijenac, pecatuco sarian, asco igarri baric, arimac sartuteco. Canta loijac esaten dituban auac, dino San Ciprianoc, Basilisco verenotsu batec baino vereno gueijago zabalduten davela, entzuten davenen vijotzetara. Pecatu andija ta ascori pecatu eraguiteco, vidia da, neure cristinaubac, canta desonestubac cantetia”. (Icasquizunak II, 1817, VIII.)

Sarrionaindiak laburbiltzen du euskal kulturgintzak XVI. mendetik XIX. ra bizi izango duen panorama orokorra: “Los nobles, los burgueses y el clero vivían al amparo del rey y se pasaban a la lengua de los amos (...) La clerecía, por su parte, cumplió la función de traducir la ideología teológica-pólitica que correspondía al pueblo obedecer” (2012: 685)⁵⁶

⁵⁶ Sarrionaindiaren lanaren euskarazko eta gazteleraazko bertsiok ez dira erabat berdinak edukiz. Aipu batzuk gazteleraazkoan bakarrik topatu dira, eta aurrerantzean gazteleraazko bertsiorekin jarraitzea erabaki da.

3.2 ERROMANTIKOEN DESKUBRIMENDUA

3.2.1 Kolonietarako bidaia: exotismoa eta primitibismoa

Burkek azaltzen duenez, eskolatuen kultura popularrarekiko urruntzeak bueltakoa izan zuen:

“En 1500 despreciaban al hombre común, pero compartían su cultura. Sin embargo, en 1800 sus descendientes habían dejado de participar en la cultura popular de forma espontánea, pero estaban en proceso de redescubrirla como algo exótico y por ello interesante. Estaban empezando a admirar ‘al pueblo’, aquél del que había surgido esta extraña cultura.” (1991: 395-396)

Jakinmina pixkanaka hasi zen pizten, bestekotzea finkatuz zioan neurrian. Honela, esaterako, ohitura, festa nahiz ‘sineskeria’ popularren lehen ikerlariak praktika horiek aldatzeko lanean ari ziren elizgizonak izan ziren Burkeren arabera. XVII. mendearen bigarren erdiaz ari da eta Jean Baptiste Thiers eta Henry Bourne aipatzen ditu, gerora folkloristentzat urrea balioko duten bilketa lanen egile biak, bildutakoarekiko jarrera kritiko eta erreformista bat azaldu arren, euren deskribapenen xehetasun maila harrigarriak lilura ezkutu bat gordetzen duelakoan. Gisa honetako pertsonaia laikoak ere aipatzen ditu, antikuario lanetan aritu zirenak, eta baita, bereizketa onartu arren popularra ere estimatzen dutenak. Hauen artean aitzindaritzat Michel Montaigne nabarmentzen du Burkek eta Toscanako bertsolari emakume baten inguruan jasotakoa jartzen du adibidetzat⁵⁷.

Kolonialismoaren eta teknologiaren garapenari esker, munduko kultura urrunen ezagutza zabalduz zioan neurrian, exotikoarekiko lilura piztu zen, eta fenomeno hori jartzen du Burkek kultura popularrarekiko interesaren aurrekari gisa:

“La etnografía, en el sentido de curiosidad por las costumbres exóticas, era sin duda floreciente en tiempos de Montaigne. Esa curiosidad no había sido infrecuente a finales de la Edad Media, como los relatos de Marco Polo acerca de China nos recuerdan, o los viajes de ‘Mandeville’ (...) En el siglo dieciséis, el interés por lo exótico parece haberse acentuado, como atestigua la popularidad de la obra Costumbres de las distintas naciones, compilada por Johann Boehm (...)” (1985: 61)

XVI. mendetik hasita geroz eta sortzaile gehiago ziren kexu kultura jasoaren gehiegizko sofistikazioaz; Errenazimendutik garatu eta konplikatzen joan zen arau klasikoen sarean harrapatuta sentitzen ziren. Amerikaren deskubrimenduarekin, kultura exotikoei buruzko testuak ugarituz joan ziren neurrian, intelektual hauek, kultura hauen antzinatasunak eta sinpletasunak euren kulturarekin egiten zuen kontrasteak erakarrita, estetika primitibista bat hasiko dira garatzen.

⁵⁷ Suitza, Alemania, Austria eta Italiatik egindako bidaiaren kronikaren baitan 1581eko maiatzaren 14ean, igandea, Borgo herri ondoko balnearioan Montaignek berak antolaturiko festaren berri ematen da:

“(…) Tuve a cenar al coronel de este vicariato, señor Francesco Gambarini, gentilhomme boloñés que era para mí como un hermano, y a un gentilhomme francés, y a ningún otro noble en mi mesa. Pero hice sentar en ella a Divizia, humilde campesina que vive a dos millas de los baños. Esta mujer, como su marido, vive del trabajo de sus propias manos. Tiene treinta y siete años, es fea, con el cuello hinchado, y no sabe leer ni escribir. Pero como desde su tierna infancia había vivido en casa de su padre con un tío que siempre le leía versos de Ariosto y de otros poetas, su espíritu está tan dotado para la poesía que no sólo compone versos con una prontitud extraordinaria, sino que además introduce fábulas antiguas, nombres de dioses, de países, de ciencias y de hombres ilustres, como si hubiera estudiado. Me dedicó muchos versos (...)” (Montaigne, 1986: 142)

3.2.2 Erromantikoen erreakzio antimoderno

Kultura popularraren aldeko joerak beste maila bat hartu zuen XVIII. mendearen bukaeran, bilketa lanak ugaritzen hasi ziren, eta loratzea XIX. mendean eman zen Europa osoa hartu zuen Erromantizismoari esker.

Erromantizismoa Modernitatearen baitan eman zen, balio modernoetan oinarrituriko mugimendu bat izan zen, baina, aldi berean, Modernitateak ekarritako Ilustrazioaren eta Neoklasizismoaren kontrako erreakzio gisa ulertzen da. Erreakzio honek dimentsio politiko bat izan zuen, Ilustrazioa banderatzat hartu zuen Napoleonen inperialismo frantsesaren aurka sortu baitzen. Alemanian abiatu zen, inprenta nahiz protestantismoaren sorleku berean, XVIII bukaeran argitaratu ziren Johann Gottfried Herder pentsalariaren lanekin. Ilustrazioaren arrazioaren unibertsaltasunari norberaren subjektibotasunaren erlatibotasuna kontrajarri zion Herderrek, eta subjektibotasun honek, norbere askatasunean nahiz identitatean oinarritua, inperialismo frantziarraren diskurtso homogeneizatzailaren aurkako erreakzio nazionalistaren bidea ireki zuen. Erantzun nazionalista puntual bat baino askoz ere zabalagoa zen, ordea, Herderrek planteatzen zuenaren izaera. Arrazionaltasunean sostengatzen ziren arau klasikoen aurrean naturaltasuna eta mistizismoa aldarrikatu zituen, Ilustrazioak lehenesten zuen kultura klasikoaren aurrean norbere tradizioa, kultura popularraren altxorra.

Mugimendu haren baitakotzat hartzen den lehen bilduma James Macphersonek 1760an argitaraturiko *Fragments of Ancient Poetry* izan zen. Bertan Ossian Mc Finn izeneko antzinako bardo gaelikoak sorturiko baladen ingeleserako itzulpena egin zuen. Macphersonen lanak sekulako arrakasta izan zuen, gerora Ossianismoa deitu dena⁵⁸, eta atzetik errenkadan etorri ziren gisako lan gehiago, tartean 1778an Herderrek bilduriko herri kantak (*Volkslieder*), bere teorizazioz horniturik nazioaren izpirituen adierazpen gisa aurkezten zirenak. Herderren planteamendua Grimm anaien lanarekin edo Goetheren babesarekin zabaltzearekin urrats bat gehiago emango da:

“Para algunos intelectuales, especialmente a finales del siglo XVIII, el pueblo era interesante desde el punto de vista de lo exótico. En contraste con esto, a comienzos del siglo XIX existió un culto al pueblo con el que se identificaron los intelectuales y al que trataron de imitar. Como el escritor polaco Adam Czarnoki que señalaba en 1818, ‘debemos ir a los campesinos, visitarlos en sus cabañas de paja, tamar parte en sus fiestas, trabajos o diversiones. En el humo que se eleva sobre sus cabezas, los antiguos ritos todavía resuenan y se escuchan las viejas canciones’.” (Burke, 1991: 43)

Bidaia fetitxe bat zen erromantikoentzat, gai nagusietako bat euren literaturan, eta norbere herriko kultura popularrari erreparatzen hasi zirenean, urruneko kultura haiek bezain antzinakoa eta sinplea, eta hiru mendetako bestekotze prozesuaren ondotik erabat exotikoa, bidaiarik ederrena iruditu zitzaien⁵⁹: “En resumen, el descubrimiento de la cultura popular formaba parte de un movimiento de primitivismo cultural en el que lo antiguo, lo distante y lo popular acabaron por identificarse” (Burke, 1991: 45).

⁵⁸ XIX. mende hasierarako hamar hizkuntzataraz itzulia zegoen eta Homero zeltiarra deitzen zitzaion. Polemika handia sortu zen zati batzuk Macphersonen berak asmatuak ez ote ziren zabaldu zenean baina jarraitzaile garrantzitsuak zituen, Herder, Goethe eta Chateaubriand, besteak beste.

⁵⁹ Thomas Percy jartzen du Burkek kultura urrunek eta norbere kultura tradizionalarekiko urruntasunak eragindako liluren paralelismoaren adibidetzat. Percyk 1765ean ‘Reliques of Ancient Poetry’ argitaratu zuen, Ingalaterrako tradizio popularreko poema zahar horien sinpletasuna eta naturaltasuna azpimarratuz. Aurrez Txinako antzinako poema batzuk zituen itzulita: “(...) escritos – sugería – en un tiempo en el que los chinos vivían en estado de ‘naturaleza salvaje’” (1991: 44).

3.2.3 Basati Ona

Kontzeptua bidaia baten erdian Toscanako bertsolariaren defentsan topatu dugun Michel de Montaignek zirriboratu zuen⁶⁰, Amerikaren deskubrimenduaren harira urruneko kulturekin izan ziren lehen harremanek sorturiko eztabaidaren baitan. Amerikako indigenen izaera basatia azpimarratzen zuen hainbatek eta Montaignek zentzugabekotzat jotzen zuen kultura arrotzak norbere kulturaren parametroekin epaitzea: “Montaigne extraía las consecuencias subversivas de comprender que los brasileños encontraban a los franceses tan extraños al menos como los franceses a ellos” (Burke, 1985: 69). ‘Kanibalei buruz’ izeneko entseguan kultura bakoitzaren parametroak bere testuinguruan ulertu behar zirela eta testuinguru horretan funtzioaren bat betetzen dutela argudiatu zuen. Gerora, erromantikoengan funtsezkoa izan zen erlatibismo kulturalari bidea ireki zion, bada: “En una época en que muchos artistas creían en una belleza ideal que podía calcularse matemáticamente, el hacía notar que dicho ideal era puramente local (...)” (Burke, 1985: 79).

Burkeren (1985) arabera, Montaigne moralista bat zen eta basatitzat hartzen ziren indigenen defentsari ekin bazion europar gizartea kritikatzeko egin zuen. Edozein kasutan, gogoz hartu zuen kontua, garaikideentzat ulertzeko nekeza zen apustua eginez, eta hainbat aspektutan basati horiek europar zibilizatua baino hobeak izan zitekeela azpimarratu zuen: “La verdad y la bondad brotan con mayor fluidez en aquellas condiciones cercanas a la condición humana original, más próximas a la ingenuidad natural” (Peral García, 2005: 64)⁶¹.

Kasik berrehun urte geroago, Rousseauk naturaren erdian gauzatuko litzatekeen hezkuntza ideal bat, hirietako zibilizazioak kutsatu gabea, irudikatuko zuen ‘Emilio’ lanean, eta honekin filosofia politikoko kontzeptu gisa Iraultza frantsesaren iruditerian ere txertatuko da mitoa, bestelako oihartzun bat lortuko zuelarik. Azkenik, basati onaren mitoa Erromantizismoan kultura popularraren inguruan emaniko jiroa janzteko ere baliatu zen, kultura popularra herrikide eskolatu gabeek, eta, beraz, neurri batean basatiak, praktikatzen zutena baitzen, garbien landa eremuan, naturatik gertuen zeuden tokietan, gordetzen zena: “Los intelectuales de este período establecieron comparaciones entre las sociedades campesinas que habían visitado y las sociedades tribales sobre las que habían leído (...)” (Burke, 1991: 58).

3.2.4 Euskal kulturaren deskubrimendua: hizkuntzalariak, antropologoak eta Euskaldun Basati Ona

3.2.4.1 Hizkuntzalariak eta antropologoak

Karl Wilhem von Humboldt (1767-1835) hizkuntzalari, diplomatikari eta politikari alemaniarrak deskubritu zuen Euskal Herria Europar Erromantizismoarentzat. Bi egonaldi

⁶⁰ Michel de Montaigne (1533-1592) zentzu askotan izan zen bidegile: Entsegua genero literario bezala berak estreinatu zuen, etnografia lanak gogoetagai bihurtu zituen lehenengoa izan zen, idazketan estiloaren soiltasuna aldarrikatzen lehenengoa: “(...) estaba en contra de la jerga, las reglas estrictas, la grandilocuencia y la afectación (...)” (Burke, 1985: 79). Eta, soiltasunaren defentsari helduaz, poesia popularraren lehen defendatzailea: “La poesía que disfrutaba Montaigne era (...) la que llamaba ‘poesía popular’ (...) villanelles de su Gascuña natal, o en los cantos de pueblos sin escritura (...)” (Burke, 1985: 79). Bestalde, Patri Urkizuk euskal kantuak ezagutu eta estimatzen zituela ere aipatzen du: “XVI. mendekoak dira euskal poema eta kantu bilduma asko (...) Kanta hauen lekukotza eta estimu handia ematen digu Michel de Montaigne-k bere ‘Essais’-etan, ‘Des vaines subtilitez’ kapituluan. Honen arabera Montaignek ezagutzen zituen euskal kantak. Bordelen adituak? Agian.” (2006: 15)

⁶¹ Garai hartan ohi zen gisan klasikoen erreferentziak erabili zituen bere tesia argudiatzeko: “(...) Séneca (Hombres recién salidos de los dioses), Virgilio (Estas fueron las primeras leyes que dictó la naturaleza) y Proporcio (La hiedra crece mejor espontáneamente (...)) En resumen, está describiendo una sociedad sin civilización y por tanto sin los problemas que de ella deriva, pues el hombre es bueno por naturaleza y es la sociedad quien le corrompe (...)” (Peral García, 2005: 65)

luze egin zituen bertan, 1799an eta 1801ean, mugimenduaren aitapontekotzat hartzen den Herderren deiari erantzunez antzinako kantu eta balada popularren ehizean.

Kasu honetan, ordea, ez zen Europa osoan zehar zabaldu zen dei generikoa izan, Patri Urkizuk azaltzen duenez, Erromantizismoaren Europa mailako teoriko handienak begiz joa baitzuen euskal poesia popularra. Zehazten duenez, bere lan nagusian, *Philosophie der Geschichte der Menschheit* liburuan (1784), Larramendiri erreferentzia egin eta hark hasitako bilketari jarraitu behar zaiola dio:

“Esperamos que pronto la lengua, las costumbres y la historia de un pueblo tan interesante y activo nos serán más conocidas; y lo que ha hecho un Macpherson por los gaélicos, un segundo Larramendi, sin duda, lo hará por los vascos, uniendo los restos de su genio nacional. Probablemente entre ellos se ha conservado la tradición de aquella batalla de Roncesvalles, que ilustrada por la epopeya monacal del arzobispo Turpin, ha dado nacimiento en la Edad Media a tantas novelas y poemas; por lo menos su país, como las murallas de Troya, ha llenado durante mucho tiempo la imaginación de los pueblos, con un cúmulo de aventuras que se creían verdaderas.” (Urkizu, 2006: 28-29)⁶²

Humboldek espresuki aitortu zuen gerora Herderren hitzak akuilu izan zituela, baina baita Euskal Herrian eginiko egonaldietan bertako olerkigintza popularraren ganorazko arrastoak biltzea oso nekeza suertatu zitzaioela ere. Leloren kantua berak jaso zuen eta oihartzuna izan zuen deskubrimendua izan zen, baina baino hizkuntzalaritzan egindakoak eta bidaien kronikak izango dira Euskal Herria Europako ikerlarien eta bidaiarien mapan jarriko dutenak.

Bertako apologista belaunaldi berri batekin egingo du topo Humboldek, figura nagusi Pablo Pedro Astarloa eta Juan Antonio Mogel dituenak, nagusiki apaizez osatua, eta hauek darabilten euskoiberismoa, euskara iberiar penintsulako jatorrizko hizkuntza dela defendatzen duen teoria, Europara zabalduko du. Bere sustraien bila abiatua zen Europa erromantikoari euskara eta euskaldunak bertako hizkuntza eta herririk zaharrena izan daitezkeela azalduko zaio:

“(…) Humboldt rearticulated the Basque apologist ideology deployed against a Hispanic modernity and turned it into a modern European one, in which the Basque Country occupies Europe’s oldest and, therefore, most anti-modern position. This moment is crucial in order to understand the anti-modern thrust that prevailed in the Basque Country for the rest of the century, for it was the one sought by the modern, European subject: the romantic traveler, the scientific linguist, the anthropologist, the tourist, etc.” (Gabilondo, 2016: 169)

XIX. mende hasieran Humboldek Europako hizkuntzalarien artean harrotu zuen olatuari, mendearren bigarren erdian sortu zen Euskal Herriarekiko interes antropologikoaren olatuak jarraitu zion. Honela, antropologia fisikoa Parisen eta Estokolmon estreinatu zuten Broca eta Retziusek, euskal gizakia, Europako jatorrizko arrazaren azterketaren erdigunean jarri zuten. Aurretik hizkuntzalaritzak eginiko bideari jarraiki, kolonietako indigenen azterketatik sorturiko kategoriak aplikatuz, argudio eta konplikazio berriak eskaini zitzaizkion euskal berezitasunaren aferari: “(…) the Basques became the only “native savages” inside Europe, who were, at the same time, white (...) a new identity that was both interior and anterior (the only colonial subject interior to Europe, yet older than imperialist Europe) (...)” (Ibid: 187)

Retzius eta Broca gain Collignon, Garat, Jaques eta Hervé aipatzen ditu besteak beste Zulaikak: “Lo vasco en general se convierte así en un objeto etnográfico *in situ*. Cualquier

⁶² Julio Caro Barojak erdaraturiko Herderren aipua darabil Urkizuk.

investigador europeo puede bajar hasta los Pirineos y encontrarse allá con un museo etnográfico viviente” (2000: 22). Mende bukaeran Aranzadik ekingo dio ekarpen hori barneko ikuspegiak lantzeari eta gerora bere bi ikaslek, Barandiaranek eta Caro Barojak emango diote jarraipena: “Investigadores significativos en esta ‘invención’ de lo vasco provinieron de las naciones europeas en las que estas ciencias estaban más avanzadas. Los investigadores vascos se pusieron al día y finalmente apecharon con las labores de ‘antropologizar’.” (ibid, 19)

Gabilondoren iritziz, ekarpen guzti hauek funtsezkoak suertatuko dira XIX. bigarren erdirako Euskal Herrian bertan pizten ari den nortasun bereziaren eraikuntzarako grinari erantzuteko. Zulaika ere bat dator: “En ausencia de una narrativa literaria propia o otras disciplinas más históricas o críticas, la antropología ha ocupado un papel privilegiado en procurar un discurso fundacional de lo que se entiende por identidad cultural vasca” (ibid, 7-8). Hark bezala, faktore ezberdinak uztartzen dituen prozesu gisa definitzen du euskal identitatearen eraikuntza hori: “(...) Son los conocimientos recónditos de paleontólogos, arqueólogos, prehistoriadores, etnógrafos, folcloristas, antropólogos y lingüistas los que, combinando hermetismo erudito y evocación romántica, reinventaron y reconstruyeron lo vasco (...)” (ibid, 19)⁶³.

3.2.4.2 Euskaldun Basati Ona

Euskaldungoa, nagusiki landa eremuan bizi zen euskaldun elebakar eta ondorioz eskolatu gabea, Erromantizismoaren baitan funtsezkoa zen basati onaren mitoan primeran ahoka zitekeen. Montaignek Ameriketako indigenen inguruan eraiki zuen mitoaren lehen zirriborroa, eta nor egokiagoak Europan mito hori gorpuzteko bertako indigenak baino: (...) the Basque peasant occupies a transitional place that oscillates between the colonial field of the American “savage” and the imperialist and civilized European man. The Basque peasant is both savage—external—and civilized—internal—to the West” (Gabilondo, 2016: 191).

Orientalismoak euskal identitate modernoaren eraketan sekulako pisua izan zuen Gabilondoren iritziz: “(...) Basques’ otherness and essentialism was fully situated inside Europe—while still responding to an orientalist logic” (id, 188). Terminoak Ekialdeaz egiten ziren ikerketak, XVIII. mende puri-purian zeudenak, biltzen zituen kategoriari zeritzon jatorriz, baina Saidek ikerketa horiei egin zien kritikak bigarren adiera bat gehitu zion: kanpoko begirada, hegemonia posizio batetik bestetasunaz eraikitzen den diskurtso estereotipatzailea. Eta kanpoko begirada horri eta ekarri ohi duen esentzializazioari egiten dio erreferentzia Gabilondok.

Saidek berak honela aurkezten zuen arazoa: “Se ‘presenta a los árabes’ con imágenes de tipos estáticos, casi ideales; no se les presenta como seres que tienen unas potencialidades en proceso de realización ni como historia en proceso de desarrollarse” (2008: 422).

Bertako jendartean luzaz arrakastarik handiena izan zuen basati onaren mitoaren eta euskal natibismoaren ulerkera, euskal elizaren abaroan eraikiriko euskara baserria eta fedearekin lotzen dituen euskaldun onaren irudikapena litzateke. Irudikapen horren formulazio finduena Juan Antonio Mogelen Peru Abarka eleberrian aurkitzen dela esan ohi da. Euskara eta baserria fedearen babesleku gisa bistaratzen ditu Mogekek, eta, XIX. mende hasieran idatzia, mugaz beste aldean jaso berri zen Iraultza Frantsesarekiko erreakzio antimoderno gisa ulertu

⁶³ Smithek azaltzen duenez, komunitate txikienetan ohikoa da eraikuntzari bide horretatik ekitea: “En términos generales, las comunidades y categorías más pequeñas y recónditas son las que tienen que compensar el hecho de carecer de una etnohistoria larga, abundante en hechos y continuada con «guerras culturales», en las que se recurre a la filología, arqueología, antropología y a otras disciplinas ‘científicas’ (...)” (1997: 149)

izan da. Gabilondok, aldiz, beste irakurketa osatuago bat proposatzen du, aurremodernitatean oinarrituriko nortasun modernoari bidea irekitzen diola iradokiz (azpimarra geurea da):

“Maisu Juan, and the reader with him (...) as both subject and *other*, which introduces the reader to the possibilities of strategic essentialism, a fully enjoyable political scenario in the sense that the reader identifies its symptom (anti-modernity) and can also enjoy it (as modern reader).” (2016: 173)

Gabilondoren iritziz, Mogelen lanak Humboldtten ekarpenaren eragin garbia izango luke: “There is no way to understand Mogel’s ruralism and custom literary style (costumbrismo) without studying Humboldt’s romantic research on the origins of the Basque language and Europe” (id, 57). Eta begirada hibrido baten aurrean geundeke, bidaiari erromantikoaren kanpoko begirada⁶⁴ ezinbesteko osagaia baita Maisu Juanek, eta berarekin irakurleak, Peru Abarkari egindako bisitan: “Maisu Juan’s travel to Peru Abarka’s farmstead cannot be differentiated, in that sense, from that of Humboldt’s to the Basque Country just three years earlier” (id, 174). Edozein kasutan esentzializazio bat izango da hau ere, ‘esentzialismo estrategikoa’ deitzen dio Gabilondok.

Esentzializazio batak zein besteak arrakasta izango dute: “The othered Basque Country becomes the object of the discourses of European and Spanish origin and antiquity, which trigger an essentialist discourse that is used by both Europeans and Basques for different purposes (...)” (id, 46). Natibismoak ikusgarritasun moderno bat emango dio euskal nortasunari Europan eta Gabilondoren iritziz Frantzia nahiz Espainiaren kasuan XIX. mende bukaerako kolonien galera goxatzeko aukera emango die barne-koloniaren irudikapenak, Euskal Herria sortu berria den turismoaren norako garrantzitsua bihurtuko delarik: “(...) the French and Spanish bourgeoisies found their perfect object of desire—one that symbolically compensated for their imperialist losses—in the Basque Country and, thus, proceed to turn the coastal Basque Country (...) into their favorite touristic destination” (id, 189). Bestalde, euskaldun onaren ‘esentzialismo estrategikoa’ funtsezkoa izango da XIX. mende amaieran loratzen den euskal abertzaletasunak bereganaturiko nortasun moderno gisa: “Nationalist identification derives in the 20th century from the political enjoyment that Peru Abarka’s strategic essentialism inaugurates” (id, 173). Eta arrakasta honek ez-ohiko jarraitasun bat eman zion esentzializazioari, euskaldun onaren irudikapenak XIX. mendea eta XX. ren zati handi batean eutsi ahal izango ziolarik, kulturgintzaren bilakaera bera ere baldintzatuz⁶⁵.

3.3 KULTURA POPULARRA ETA HERRI KULTURA

3.3.1 Nazio-Estatuak ordena modernoaren eraketan

Nazio-Estatua funtsezko eragile bat izan da ordena modernoaren eraketan, eta ondorioz baita Modernitatean eman diren kultur transformazioetan ere. Ane Larrinagak azaltzen duen bezala, eragiletza kultural hori izango da bere ardura nagusietariko bat: “Protoestatuen azaleratze unea indarkeriaren eta baliabide ekonomikoen bilketan zimentatu baldin bazen, osteko estatu jardunbidea ekoizpen sinbolikora zuzendurik egon da, batik bat” (2017a, 79). Indar armatuen eta finantza baliabideen kontzentrazioak, estatu hauen garapenerako ezinbestekoa, kapital sinbolikoaren pilaketatik datorren legitimitatearen zentralizazio bat

⁶⁴ Kanpoko begirada horrek ez du zertan atzerrikoa izan. Saidek honela seinalatzen du bere eraikuntzan etxeokoen izan dezaketen parteak: “(...) las páginas de libros y periódicos impresas en árabe (...) están llenas de análisis de segundo orden escritos por árabes acerca de la «mente árabe», del «islam» y otros mitos” (2008: 424).

⁶⁵ Askotan jorratu ahal izan da Elizak euskal kulturaren kustodio gisa izandako eragina. Ikerketa honetarako irakurri direnen artean Aldekoak (2008), Díaz Nocik (1993) eta Gabilondo berak (2016) ukitzen dute gaia.

eskatzen zuen. Honela, kultur ordezkapen prozesu bikoitz bat abiarazi zen: batetik, estatuaren baitako nortasunen batasuna bilatzen zen, jatorrizko komunitate aniztasunari kultur eredu hegemoniko bat inposatuz; bestetik, ordena tradizionala eta bere loturak higatzea ere bilatu zen, autoritate berriari itzalik egin ez ziezaion.

Aipatu diren kultura popularraren eta hizkuntza nahiz kultura periferikoen bestekotze, mespretxu, debeku eta abarretan Nazio-Estatuaren eskua nabari zitekeen, bada:

“Azaleratzen ari zen estatu absolutistak ez zeukan boterea esku zaharkitu eta nekatuetatik hartzeko erronka, integrazio sozialaren zama bere gain hartuko zuen botere sozial erabat berria sortzeko premia baizik. Zeregin horrek herri tradizio, herri kultura eta ohiko erakundeetan oinarritutako gizarte birsorkuntzarako mekanismoak desagerraraztea eskatzen zuen. Horregatik, prozesuak “gurutzada kulturalaren” itxura hartu zuen (...)” (Larrinaga, 2017a, 25-26)

Erdi Arotik zetozen loturak ahultzeari ekingo zaio, ordezkatzeko kulturalerako prozesu bikoitz batekin. Elizak kontinentean zeukan hegemonia hautsiz, latinaren ordezkatzeko emango da kultura jasoaren lanketarako hizkuntza gisa, nazio-estatu bakoitzeko kultur komunitate hegemonikoaren hizkuntzek hartuko dutelarik haren lekua egitura politikoak emaniko ofizialtasunarekin. Eta ofizialtasun horretan sostengaturik, nazio-estatu bakoitzaren baitan aurki daitekeen jatorrizko kultur komunitateen aniztasuna ezabatzea ere bilatuko da:

“Por medio de estas tres revoluciones (administrativa, económica y cultural) el Estado burocrático fue el agente de la incorporación a la cultura étnica lateral dominante de las regiones alejadas y las ethnies y clases sociales medias y bajas que allí habitaban” (Smith, 1997: 55).

Ilustrazioan sostengatu zen intelektualki estatuaren bulkada hau eta kulturaren sorkuntza eta birsorkuntzaren moduren batera edo bestera eraginaren bat izan zezaketen hainbat instituzioren arauketa modernoaz baliatu zen: inprenta, burokrazia, auzitegiak, ejertzittoa, merkatu kapitalista, eta azkenik, XVIII. mendearen bigarren erdian orokortu ziren eskolaratzea, trenbidea eta prentsa (Briggs & Burke, 2002; Burke, 2006a; Calvet, 2005)

Latinak, Elizaren boterearen ikur zen hizkuntzak, hizkuntza jaso gisa izandako hegemoniaren galerak erakusten du Nazio-Estatuak buruturiko ordezkapen kulturalaren arrasto garbi bat: Inprentak XV. mendearen bigarren erditik aurrera ordurarte kasik latinaren monopolioa zen zabalkunde idatziaren atea ireki zien herri hizkuntzei; XVI.aren hasierarako, Erreforma Protestantearen eskutik, testu eta liturgia erlijiosoetarako sarbidea izango zuten; mendearen erdialderako auzitegietan sartuko ziren, eta XVII.aren hasierarako administrazioan; mende honen bigarren erditik aurrera goi-hezkuntzan latinak zuen nagusitasuna ahituko zen, eta jarraian diplomaziako hizkuntza izateari utziko zion (Burke, 2006a; Madariaga, 2008).

Prozesu beraren infrentzu gisa herri-hizkuntza hauek erreformatzeko ahaleginak abiarazi ziren, berebat. Latina ordezkatzeko bazuen, norbere hizkuntza jaso beharra zegoela ikusi zuten eliteek, kultura popularrarekiko bestekotze prozesu orokorraren baitan euren manerekin, dantzekin edota literaturarekin egin bezala, arrazoimenean oinarrituriko arauketa bultzatuz⁶⁶:

“Una lengua sin norma se consideraba ‘bárbara en cierto sentido’, como subrayaba el poeta inglés John Dryden en 1660. El proceso de civilización requería un código de comportamiento que incluía el compartamiento

⁶⁶ Latinaren gainbeherari, herri-hizkuntzen arauketari eta prozesu guzti honetan inprentak izandako garrantziari arreta berezia jartzen diote bai Burkek (2006a, 53-124) eta baita Thompsonek ere (1998: 79-90).

lingüístico. Aplicada a la Europa moderna, la idea de ‘proceso de civilización’ del sociólogo Norbert Elias se podría extender a los intentos de reforma de las lenguas” (Burke, 2006a, 103).

Honela, XVI. mendean herri-hizkuntza indartsuenen apologiak eta gramatikak abiarazi ziren, eta XVIII.rako hizkuntza akademia gehienak indarrean zeuden.

Norbere hizkuntza jaso behar honek latina ordezkatzeko bezainbeste estatuko hizkuntza hegemonikoa periferikoen gainetik jartzeko ahaleginari ere erantzuten zion, bestalde⁶⁷. Hori izango hain zuzen Nazio-Estatuak buruturiko ordezkapen kulturalaren bigarren arrastoa:

“Si admitimos que la expresión ‘desarrollo’ de una lengua tiene sentido, entonces cada movimiento tiene que haberse producido a costa de otro. Había ‘lenguas dominantes’, como un británico las bautizó en 1650, y había lenguas ‘subordinadas’. Tuvieron lugar disputas por el territorio e incluso algunas veces por la supervivencia. El proceso que el lingüista francés Louis-Jean Calvet ha definido como *glottophagie*, el pez grande que se traga al pequeño, ya se percibía en esa época.” (Burke, 2006a, 83)

3.3.2 Hizkuntzen digestioa

Kolonialismoa eta hizkuntzaren teoria nahiz erreforma kronologikoki elkarrekin garatu diren bi fenomeno dira eta bien loraldiaren abiapuntua ere eskutik ematen da, 1492an, Cristobal Colonek Gaztela-Aragoiko koroaren aginduetara egindako bidaiarekin eta herri-hizkuntza baten lehen gramatikaren, Antonio de Nebrija gaztelarentzat osaturikoa, argitalpenarekin. Nebrija berak argi asko uzten ditu bien arteko loturak Gaztelako Isabel I. erreginari eskainiriko hitzaurrean: “siempre la lengua fue compañera del imperio; et de tal manera lo siguió, que junta mente començaron, crecieron et florecieron, et después junta fue la caída de entrambos (...)”⁶⁸. Eta bere gramatikari eman ahal zaion erabilera ere bai: “(...) después que vuestra Alteza metiese debaxo de su iugo muchos pueblos bárbaros et naciones de peregrinas lenguas, et con el vencimiento aquellos ternían necesidad de recibir las leyes quel vencedor pone al vencido, et con ellas nuestra lengua (...)”

Calvetek Lehen Modernitateko hizkuntzaren teorian helburu teleologikoek zientifikoek baino pisu handiagoa izan zutela defendatzen du, hegemoniarako bitarteko bat izan zela. Eta kolonialismoarekin harremanetan jarritz⁶⁹ hiru une bereizten ditu prozesu honetan:

“El del precolonialismo (...) el pensamiento europeo, teorizando su interacción con lo otro, transforma las relaciones de *diferencia* en relaciones de

⁶⁷ Honela azaltzen du Burkek: “La introducción de las lenguas vernáculas en los ámbitos legal y gubernamental no era un asunto de simple conveniencia administrativa. Una vez más, el concepto de comunidad nos da la clave. Este fenómeno fue un acto, o una sucesión de actos, de importancia simbólica que marca la aparición de nuevas comunidades o nuevas concepciones de comunidad. Para observar esta importancia simbólica recordemos que solo algunas lenguas vernáculas se expandieron en este sentido, y que lo hicieron sustituyendo no solo al latín, sino también a otras lenguas vernáculas: el francés sustituyó al occitano, el inglés al gales, el español al catalán, el alemán al checo, el polaco al ruteno, el danés al noruego etc” (2006a, 88). Prozesua graduala izango da, ordea. Literatura norbere herri hizkuntzan egin behar dela defendatuz, euskarari ere aitortzen dio gaitasun hori Cervantesek, esaterako, On Kixote Mantxakoan, XVII. mende hasieran: “(...) responde don Quijote: ‘Y a lo que decís, señor, que vuestro hijo no estima mucho la poesía de romances, doyme a entender que no anda muy acertado en ello (...) En resolución, todos los poetas antiguos escribieron en la lengua que mamaron en la leche, y no fueron a buscar las extranjerías para declarar la alteza de sus conceptos; y siendo esto así, razón sería se extendiese esta costumbre por todas las naciones, y que no se desestimase al poeta alemán porque escribe en su lengua, ni el castellano, ni aun el vizcaíno que escribe en la suya»” (Madariaga, 2008: 101).

⁶⁸ Ik. NEBRIJA, A. (1492): Gramática de la lengua Castellana De Antonio de Nébrija.

⁶⁹ Ez da, noski, lotura hori egiten duen egile bakarra. Burkek ere antzeko planteamendua darabil: “Podemos hablar, tanto literal como metafóricamente de ‘imperialismo lingüístico’” (2006a, 95).

superioridad. El del colonialismo activo, en cuyo trascurso la descripción lingüística propiamente dicha funciona sobre las bases de la teoría anterior y la satisface al mismo tiempo que da satisfacción al mismo colonialismo (...) el del neocolonialismo (...) la actitud lingüística es al mismo tiempo condición y máscara de la actitud política y económica” (2005: 51)

Errepaso zabal bat eginaz lehen teoriek, XVI. mendean, hizkuntzen jatorria arakutzen zutela dio, norberarena hizkuntza biblikoekin (latina, hebreera eta greziera) ahaidetu eta, ondorioz, gainerako herri hizkuntzen gainetik jartzeko asmoz⁷⁰. Hurrengoek, XVII. mendean, Ilustrazioak aldarrikatzen dituen irizpide unibertsalen arabera sailkatu nahiko dituzte hizkuntzak, norberarena, noski, arrazionalagoa eta logikoagoa dela ondorioztatuz. Edota hirugarren labekada batek, XVIII. mendean, teoria ebolutiboa aplikatuko dio hizkuntzalaritzari, pentsamendu garatuenak eskaintzeko gai den hizkuntza, alegia, norberarena, eboluzionatuagoa eta, ondorioz, hobea dela argudiatuz. Dozenaka teoria eta egile aipatzen ditu, garaiko Nazio-Estatu ezberdinetakoak, baina frantziari eskaintzen dio protagonismo gehien. Lehen teorien artean, esaterako, frantsesa grezierarekin lotu zuten Bodin eta Estiennenak aipatzen ditu; XVII. mendeko joera arrazionalizatzailearen arrastoak ikusten ditu Vaugelas, Malherbe, Arnauld eta Lancelotengan; edota hirugarren olatuan Condillac eta Maupertuis aipatu... Guztiengan ideia bera errepikatzen dela azpimarratzen du Calvetek: “Se trate de provincia, del extranjero inmediato o de los países ‘exóticos’, todas esas comunidades hablan lenguas condenadas por el pensamiento parisiense (...)” (ibid, 37).

Frantzia sortuko da baita ‘hizkuntzaren’ eta ‘dialektoaren’ arteko bereizketa, eta baita azken honen adiera bat litzatekeen *patois*arena edo azpitik aurkituko litzatekeen *jerga*arena ere. Etiketa hauek, berriz, bestelako loturak egiteko baliatuko dira, Frantzia nahiz beste nazio-estatuetan aurrerantzean burutuko diren gogoetetan: hizkuntza zibilizatuarekin nahiz nazionalarekin lotuko da, eta dialektoa basatiarekin nahiz tribuarekin, teoria ebolutiboaren arabera lehenengoak azken hauen garapen perfektua liratekeelarik.

Honela, behin norbere hizkuntza erlijio arrazoiengatik, irizpide ilustratuen arabera edo eboluzioaren kariaz hobea dela ondorioztatuz, basatiari zibilizatzeko mesede baino egingo ez diolakoan, zilegi bihurtzen da ‘glotofagia’, alegia, subalernoaren kultur ordezkapena:

“La teorización del vínculo con *el otro*, con el diferente, pasa por su digestión (...) las lenguas de los otros (pero detrás de las lenguas se tienen en la mira las culturas, las comunidades) no existen sino como pruebas de la superioridad de las nuestras; no viven más que negativamente (...)” (ibid, 42).

Bai Calvetek eta bai Burkek luze eta zabal azaltzen dute ordezkapen honetarako estatuek mekanismo moderno ezberdinak (administrazioa, eskola eta abar) nola baliatu zituzten. Eta arrain handiek irentsita Lehen Modernitatean Europan desagerturiko hizkuntzen zerrenda bat ere eskaintzen du Burkek (2006a, 83): godoa XV. mendearen bigarren erdian eman zen galdutzat, kurlandiera XVII. mende hasieran, prusierak mende horren azken alderaino iraun zuen, XVIII. mende erdialderako desagertu zen polabiera eta kornikoaren azken hitzuna 1777an hil zen.

Desagertzera iritsi gabe lehian galtzaile suertatu ziren zenbait hizkuntzaren errepaso ere egiten du britainiarrak, gaeliko eskoziarra, galesekoa⁷¹, bretoia eta okzitaniaren bilakaera

⁷⁰ Intxaustik (2014a, 71-74) eta Madariagak (2008: 93-94) ere sakontzen dute legitimazio borroka honetan.

⁷¹ Subalernoaren galeren kasuistika zabal da. Izendatzeko eskubidearena seinalatzen du, adibidez, Calvetek eta Galeseko kasua aipatu: “Durante el siglo VI, en Gran Bretaña, mientras los galeses se llamaban a sí mismos

ilustratuz, eta holanderaren, txekieraren eta katalanaren kasuak ere aztertzen ditu, Modernitatea abiatu zenean aurrirak zitzaien etorkizun oparoa nola okertu zitzaien azalduz. Katalanaren kasuari honen sasoi ona seinalatuz ekiten dio: “Desde el siglo XIV existía una tradición literaria reforzada por la vecindad del Provenzal, una de las lenguas literarias más importantes de la Edad Media” (2006a, 98). Katalanez inprimaturiko lehen liburua 1474ean argitaratu zen, gaztelerazko lenengoa baino bederatzita urte lehenago, eta biblia ere kalean zuten berehala, 1478an. Gutxira hasi zitzaizkion, ordea, gauzak okertzen: “Sin embargo, después de que Fernando de Aragón contrajera matrimonio con Isabel de Castilla, la corte se trasladó a Castilla, y con ella la aristocracia catalana” (ibid, 98). Gaztelerak statusa irabazi zuen gorteko hizkuntza gisa. Gazteleraren hegemonia areagotu zuen bigarren egitate bat ere azpimarratzen du Burkek (ibid, 98): “(...) a partir del año 1492 se convirtió en la lengua de un imperio. De hecho, el término ‘castellano’ era cada vez menos apropiada (...) desde los tiempos del emperador Carlos V en adelante, se fue imponiendo el término ‘español’”. Hain ezagunak ez diren datu batzuk ere ematen ditu: 1561ean Inkisizioak bere prozesuetan gazteleraren erabilera inposatu zuen eta 1716an administrarien artean gaztelera hobesteko agindu sekretua zabaldu zen. Nobleziak lehenengo eta burgesiak ondoren hautu hori egingo zuten baita, baita hainbat idazlek ere eta hizkuntza subalterno izaten bukatuko zuen azkenik: “(...) la lengua se convirtió en un símbolo de clase, y los conocimientos de castellano, tanto hablado como escrito, eran imprescindibles para cualquiera que aspirara a ascender en la escala social (...)” (ibid, 99).

Euskarari ez dio hainbesteko arretarik jartzen historialaria britainiarrak, ez du aipamen soil bat baino jasotzen, galtzaileen kontaduriaren baitan agertzen dena, noski: “El vasco, una lengua cuyo uso se limitaba casi exclusivamente al ámbito oral, empezó a retroceder hacia los Pirineos entre 1500 y 1800, aunque no hay que olvidar que se extendió por América gracias a la inmigración” (ibid, 97).

Madariagak (2008) edota Intxaustik (2014a) ematen dute euskarak izandako galera prozesu horren berri. Honela laburbiltzen du lehenengoak, bere aukerak ere izan zituela seinalatuz:

“Da la impresión de que la situación socio-lingüística del vasco para los años 1545-1571, no divergía demasiado de la de otras lenguas europeas que estaban o bien en trance de convertirse en poderosos instrumentos al servicio de las administraciones estatales o de quedar marginadas de este proceso. Pero en cualquier caso la suerte no estaba todavía echada. De esta forma, el euskera en la época renacentista estaba plenamente en sintonía con su contexto europeo, contando con una versión vernácula del Nuevo Testamento y con publicaciones exaltatorias que proclamaban el derecho a su utilización y su capacidad para convertirse en instrumento culto, así como la necesidad de trabajar literariamente para lograr una forma expresiva superadora de la fragmentación dialectal. Pero la evolución político-religiosa sufrida por Euskal Herria operó en un sentido claramente desfavorable para con la lengua vasca; la fragmentación política de los diversos territorios vascos se asentó e incluso acentuó, los príncipes que los señorearon se inclinaron por el catolicismo, con lo que la posible influencia de la lectura bíblica se desvaneció y, por fin, esta lengua fue marginada de la administración civil (...), de tal forma, que para finales del siglo XVI era más que evidente su estatus de vulgar o vernácula.” (2008: 104-105)

cymry ('compatriotas', en galés), los invasores anglosajones les dan un nombre que persistirá y qué significa 'extranjeros': *Welsh*" (2005: 72).

Nebrijak, 1492an Isabel I.ari eskainiriko sarreran, ikusi den bezala garaileak menperatuari bere legeak ez ezik bere hizkuntza ere inposatu behar diola aipatu ondoren, gramatika hori inguruko erreinu edo komunitateekiko hartu emanak finkatzeko ere baliagarria izan daitekeela gaineratzen du: “(...) no sola mente los enemigos de nuestra fe, que tienen la necesidad de saber el lenguaje castellano, mas los vizcainos, navarros, franceses, italianos, et todos los otros que tienen algún trato et conversación en España (...)”. Nafarroako erreinuaren erorketarekin, eta Nebrijaren logikarekin jarraituz, erabiltzaile borondatezkoen taldetik behartuen taldera pasako ziren ‘navarro’-ak; baita ezinbesteko aliatu izateari utzi zioten ‘vizcaino’-ak ere.

3.3.3 Ertzeko komunitateen erreakzioa eta eragiletza

XVIII.ren bukaeran doktrina politikoaren trinkotasuna hartuko du nazio-estatuaren glotofagiak:

“Desde mediados del siglo XVIII en adelante, las relaciones entre legua y nación se fueron estrechando, (...) aparecían más ejemplos que expresaban de que a la célebre trinidad ‘un rey, una fe, una ley’ (une roi, une foi, une loi) debía añadirse ‘una lengua’. En 1768, el rey Carlos III de España decreto que en su reino circulara una única moneda y se hablara una única lengua.” (Burke, 2006a, 185)

Eta subalvernoen erreakzioa ekarriko du doktrina politiko horrek:

“El simple esquema de ‘una nación, una lengua’ no funciona para toda Europa. Aquello que, visto desde el centro, puede parecer una unificación, se observa desde la periferia como una invasión cultural, un ataque a las lenguas alternativas como el checo, el occitano, el flamenco o el galés.” (Burke, 2006a, 185)

Kultura jaso-hegemoniko bat garatu ahal izan zuten estatu handietan harrera hotza egin zitzaion Erromantizismoak kultura popularra berreskuratzeko egindako deiarri:

“Italia, Francia e Inglaterra tenían unas literaturas y un lenguaje nacionales. A diferencia de los rusos o los suecos, los intelectuales de estos países mantuvieron grandes distancias con respecto a las canciones o a los cuentos populares (...) habían invertido más que otros países en el estudio del Renacimiento, el clacisismo o la Ilustración (...)” (Burke, 1991: 49-50)

Lehenago norbere kultura popularrarekiko eliteen urruntzea eta ukoarekin gertatu bezala, deskubrimenduaren bulkada askoz ere muturrekoagoa izan zen periferiako kultur eliteetan:

“Desde muchos puntos de vista, el considerable alcance del descubrimiento de la cultura popular fue debido a una serie de movimientos ‘nativos’, de intentos organizados por diversas sociedades —que se encontraban bajo la dominación extranjera— para hacer revivir su cultura tradicional. Las canciones populares podían evocar un sentimiento de solidaridad en una población dispersa y carente de instituciones nacionales tradicionales” (Burke, 1991: 48)

Izan ere, nazio-estatu modernoetan garaturiko protonazionalismoa periferiako komunitateetan ere barneratu zen pixkanaka⁷²:

⁷² Hau litzateke kronologia Smithen arabera: “(...) los primeros Estados modernos (racionalizados, burocráticos profesionales) habían surgido en la misma zona del noroeste de Europa en los siglos XIV y XV sobre la base, como ya hemos visto, de comunidades étnicas preexistentes, en los territorios medulares (heartlands) de Francia, Inglaterra, España, Holanda y Suecia. Fue allí, fundamentadas en estos «Estados étnicos» —que, sin embargo, no

“Egiazki, zuzenbidea, jardunbide burokratikoak, eskola egiturak eta gizarte erritualak bide direla, estatuak kulturaren eredu hegemonikoa sortu baino zerbait gehiago egin du bere bilakeran: hain zuzen ere, mendekoen buru egiturak egokitu ditu; horrela, partekaturiko mundu ikuspegi, hautemate printzipio eta pertenezia molde jakin batzuk ezarri ditu haien baitan. Beste modu batera esanda, “nazio nortasuna” deritzan hori sortzen lagundu du, gizarte ordena berriaren oinarria osatzen duen lotura sendo gisara” (Larrinaga, 2007a, 79)

Estatua-nazioa-hizkuntza (kultura) eskema ezarri nahi izan zitzaizen komunitate subalternoek buelta eman zioten eskema horri eta euren nortasun kultural berezituak egituraketa politikorako ematen zien eskubidea aldarrikatu zuten. Nortasun kultural horren sostengurako egiturarik ez zutenez, kultura popularraren biziberritze erromantikoari behar larriagoaz ekin zioten:

“No es sorprendente que en Gran Bretaña fueran los escoceses, y no los ingleses, quienes redescubrieron la cultura popular, o que el movimiento de la canción popular llegara tarde a Francia, siendo su pionero un bretón, Villemarqué, cuya recopilación –Barzaz Braiz- se publicó en 1839 (...) cuando el folclore italiano fue estudiado en profundidad por primera vez a finales del siglo XIX, las contribuciones más importantes vinieron de Sicilia. Del mismo modo, el descubrimiento del folclore en España a partir de la década de 1820 no se inició en el centro, Castilla, sino en la periferia, Andalucía. En Alemania, la iniciativa llegó también de la periferia (...)” (Burke, 1991: 50)

XIX. mendearen lehen erdirako Elias Lönnrotek idatzia zuen finlandiarren *Kalevala*, bertako folklorean oinarrituko poema epikoa, islandiarrek *Edda* biziberritu antzinako olerkietan jasotako mitologia nordikoaren erreferente gisa, irlandarrek hurlinga hartu zuten ikur gisa eta Britainian, esan bezala, Théodore Hersart de la Villemarquék *Barzaz Braiz* kantu bilduma eman zuen ezagutzera. Garai bererako Ján Kollár eta L’udovít Stúrrek eslovakiarraren arauketa garatu zuten, kantu tradizionalen bilketan aritu ondoren, eta hainbeste egin zuten Jerner Kopitarrek esloveniarrarekin, Vuc Stefanovicek eta Milovan Vidaskovicek serbiarrarekin eta Lujdevit Gajek kroazierarekin. Kultura popularrean oinarriturik herri kultura eta nortasun bat eraikitzeke proiektua zuten guztiek gogoan, eta beste hainbeste gertatu zen Europako kultur komunitate periferikoetan: “Los intelectuales y profesionales no sólo recuperan costumbres y lenguas, redescubren la historia y (re)establecen ceremonias y tradiciones; también otorgan a esas actividades y redescubrimientos un significado político nacional que anteriormente nunca habían tenido” (Smith, 1997: 128)⁷³.

3.3.4 Bi olatutako lehen euskal pizkundea

Urkizuk azaltzen duenez, Antoine Abbadiek Ipar Euskal Herrian 1851tik aurrera antolaturiko Lore Jokoak izan ziren bertako *intelligentsiak* euskal kultura popularraren deskubrimenduan

eran homogéneos—, donde aparecieron las primeras naciones modernas, no tardando en ser emuladas en distintas partes de Europa y del globo desde fines del siglo XVIII en adelante, hasta convertirse en norma política a finales del siglo XIX y principios del XX.” (1997: 150-151)

⁷³ Esan bezala, nazio-estatu batzuk harrera hotzagoa egin zioten Herderren deiari, baina harrera edozein modutan. Frantzia 1804ean eraturiko l'Académie celtique-ren agindupean Jacques Antoine Dulaure nahiz Michel Ange Mangouritek ekin zioten bilketari, Italian Michelle Placucci eta Niccolo Tomaseo izan ziren bilduma bana argitaratu zutenak, Espainian Agustin Durán... Nazio-estatuak ez zioten uko egin erromantizismoaren bulkada euren nortasun nazional berezituaren lanketarako baliatzeari: “(...) that Frederick and Wilhelm Schlegel nationalized Herder’s anti-imperialist understanding of particularity and singularity. In their work, the Schlegel brothers narrowed national literature to the field of European imperialism: Spain, Italy, France, England, and Germany (Gabilondo, 2015: 32)”.

eta identitate kultural modernoaren eraikuntzan emandako lehen pausu sendoa: “(...) los Juegos Florales tanto en el País Vasco como en Cataluña o Galicia supusieron la primera plataforma específica destinada a la organización y difusión cultural de la lengua, a la recuperación de la identidad, y planificaron la creación literaria” (2000a, 330). Gabilondok gehiago ere badio: “Only since the lorejokoak can we speak of a modern Basque literature as (subaltern) institution: one that is also geopolitically Basque, since it addresses all the Basque territories, which, until that point, never had a political unity as such” (2016: 192)⁷⁴.

Bere inguruan talde bat antolatzea lortu bazuen ere, Iparraldeko Lore Jokoena Abbadie beraren ekimen partikular gisa ulertu behar da, ordea. Honela, Lehen Pizkundera, mugimendu kolektibo gisa eta behar besteko dimentsioarekin Hegoaldean gorpuztuko da, zerbait beranduago, 1876ko foruen galeraren aurreko erreakzio gisa. 1872ean hasitako Bigarren Karlistaldian liberal nahiz karlistak foruzaleak ziren Euskal Herrian, eta karlisten porrotarekin Canovas del Castilloren gobernuak foruak deuseztatu zituenean denak suertatu ziren galtzaile. Galera komunaren sentsazioak komunitatearen baitako elkertasuna hauspotu zuen eta baita kezka identitarioa ere, historikoki nortasun bereziaren ikur gisa hauteman izan baitziren foruak. Nortasun horri eusteko, Europan puri-purian zen Erromantizismoak inspiraturik, kultura popularraren lanketari ekin zitzaion eta mugimendu zabala eratu zen garaiko *intelligentsiak* ez ezik tokiko instituzio politikoek ere parte hartu zutelarik. Laster konektatu zen Iparraldean Abbadiek sorturiko ekimenarekin ere eta 1879tik aurrera Lore Jokoak mugaren bi aldeetan hasiko ziren.

Historian lehen aldiz Euskal Herri osoa bere baitan eratuko duen mugimendu identitario bat abiaraziko da, bada, eta mendearen azken hondarretan, Sabino Aranaren eskutik, foruzaletasunetik nazionalismorako bidea egiten hasiko da mugimendu hori. 1892an argitaratuko du Aranak bere lehen lana (Bizkaya por su Independencia), Casalek Lore Jokoetan ‘Zazpiak bat’ aldarrikatu eta urtebetera. 1893an *Bizkaitarra* aldizkaria abiaraziko du, 1894ean lehen batzokia ireki, 1895ean Eusko Alderdi Jeltzalea abiarazi... Sekulako bultzada politikoa emango dio euskal nortasun berezitan oinarrituriko aldarrikapenei. Euskal kultur eragile gisa, ordea, nahikoa erren ibili zen, batetik euskal nortasunaren erdigunean arraza jarri zuelako eta ez kultura, eta, bestetik, gisako mugimenduetan ohikoa zen jarrera garbizalea imitatuz⁷⁵, herri xeheari erabilgarria ez zitzaion hizkuntza ereduaren tematu zelako.

Jeltzaletasunaren lidergoa bigarren belaunaldi batek hartzean iritsiko zen Lehen Pizkunde honetako bigarren olatua. Euskal kulturgintzaren instituzionalizazioa abiatu zen 1918an Eusko Ikaskuntzaren sorrerarekin eta urtebetera Euskaltzaindia jarri zen martxan. Kulturaren esparruak nortasunaren eraikuntzarako ematen zituen ikusirik geroz eta pisu gehiago hartuko du honen lanketak euskal *intelligentsiaren* baitan. Aurreko belaunalditik Campionena bezalako erreferentzia bat ere bazuten, nortasunaren elementu nuklear gisa arraza beharrean hizkuntza ezartzen zuena, nazioartean ere, antropologiak, esaterako, fokua arrazatik kulturara aldatu zuen⁷⁶, eta 1930etik aurrera, behin Miguel Primo de Riveraren diktadurak (1923-1930)

⁷⁴ ‘Zazpiak bat’ idearioa lehen aldiz bertan entzun zela ere biek azpimarratzen dute, Felipe Casal bertso jartzaileak aurkeztu zuela 1891ean Donibane Lohizunen ospatu ziren jokoetan.

⁷⁵ Fenomeno hauek, Burkek (2006a) eta Calvetek (2005) adibide ugari eskaintzen dituzte, garbitasun linguistikoa eta moralak zuten xede, norbere nortasuna babesteko jarrera defentsibo gisa eta norbere hizkuntza nahiz kultura jasotzeko estrategia gisa. Aurrerago zabalduko da kontu hau, bertsolaritzarekiko garaiko *intelligentsiak* zuen jarreraren eragina izan baitzuen (bertsolaria ez zen ongi ezkontzen garbitasun linguistiko eta moralarekin).

⁷⁶ Mende amaieran, Sabino Aranak bere ideiak plazaratzen dituenean, Retzius eta Brocak estreinatutako antropologia fisikoa, arrazaren inguruan ardaztu eta giza portaeraren determinismo biologikoan sakontzen zuena zen nagusi. Pixkanaka, ordea, determinismo hori zalantzan jarriko da, ikasketa kulturalaren garrantzia nabarmenduaz, eta mende berriaren bigarren hamarkadarako erreferente nagusi Franz Boas izan zuen antropologia kulturala nagusitu zen.

ezarritako debekuak atzean utzita, sekulako kuraiarekin emango zaizkio eragiletzari. 35eko eta 36ko txapelketak olatu honek ekarriko ditu, Lore Jokoei erreleboa hartuz.

Abaddieren inspirazio erromantikoko ekimen identitarioari dimentsio politiko bat gehituko dio, bada, lehen olatuan Hegoaldeko foruzaletasunak, eta bigarren olatuak ikuspegi nazionalista txertatuko mugimenduari. Ideologia, proiektu eta belaunaldi ezberdinen uztarketa ematen da ibilbide honetan zehar, baina guztiak ere pizkunde berdinari dagozkiola ulertzen da: “Pizkundearen mugimendu soziokulturalaren sorrera neoforalismo politikoari lotuta agertu bazen, haren garapena gero eta indar handiagoa hartzen ari zen euskal nazionalismoarekin elkaturik burutu zen” (Larrinaga, 2007: 129). Izatez, bi olatuek kezka berdinari erantzuten diote: Modernitatean elkarren eskutik garatuz joan dira estatuen zentralismoa, kapitalismoak dakarren bizimodu hiritarra eta erdaren hegemonia, eta XIX. mende bukaerako euskal industrializazioarekin eta honek baliatu duen erdal immigrazio masiboarekin jauzi kualitatibo bat eman da prozesu horretan.

3.4 KULTURA POPULARRA IKUSKIZUN HEDABIDERATU

3.4.1 Hedabideen papera kultur transformaziootan

Andersonnek ‘komunitate irudikatu’ gisa definitzen ditu nazio modernoak eta herri-hizkuntzek ‘inprenta kapitalismoa’ deritzonaren bidez izan zuten zabalkundea irudikapen hauen eraketan erabakiorra izan zela defendatzen du. Batetik, hizkuntzak finkatzen lagundu zuten, nazioaren idea subjektiboaren baitan funtsezkoa suertatzen den jarraitasun (eta honekin antzinatasun) irudia ahalbidetu ei zuen. Bestetik, estatus politiko-kultural berri bat ere eman omen zion bere hizkuntza hedabideratzea lortu zuen komunitateari⁷⁷. Latinaren eremu kontinentalaren eta etxeko hizkeren eremu zatikatuaren artean legokeen elkartruke eta komunikaziorako esparru erabilgarriagoa osatzeko egindako ekarpena da, ordea, Andersonnek azpimarratzen duena, elkartruke eta komunikazio prozesuen bidez etorri baitzen nortasun partekatuen garapena:

“Los hablantes de la enorme diversidad de franceses, ingleses o españoles, para quienes podría resultar difícil, o incluso imposible, entenderse recíprocamente en la conversación, pudieron comprenderse por la vía de la imprenta y el papel. En el proceso, gradualmente cobraron conciencia de los centenares de miles, incluso millones, de personas en su campo lingüístico particular, y al mismo tiempo sólo esos centenares de miles, o millones, pertenecían a ese campo. Estos lectores semejantes, a quienes se relacionaba a través de la imprenta, formaron, en su invisibilidad visible, secular, particular, el embrión de la comunidad nacionalmente imaginada” (1993: 72-73)

Thompsonnek ontzat ematen du Andersonen planteamendua, baita txalotu ere, baina lotura lauso samar gelditzen dela señalatzen du, irakurketa XVI. menderako orokortzen hasia izanik nazionalismoa ez baitzen XIX. menderarte orokortu: “Si los primeros lectores fueron el embrión de la imaginada comunidad nacional, ¿por qué hubo que esperar tres siglos a que el embrión madurara?” (1998: 92). Planteamendua osatzeari ekiten dio, bada, eta Andersonen ‘komunitate irudikatua’ gisako errealitate mediatikoak osatzeko behar besteko garapen komunikatiboa inprenta albistegintzara aplikatzetik etorri zela zehazten du: “Hay otra manera

⁷⁷ Subalternoen erreakzioa darabil tesi honen argudiaketa gisa: “El alto alemán, el inglés del rey, y más tarde el tai central, fueron elevados a su vez a una nueva eminencia política-cultural. (Así se explican las luchas de fines del siglo xx en Europa, por las que ciertas "sub" nacionalidades tratan de cambiar su posición subordinada irrumpiendo firmemente en la prensa y en la radio.)” (Anderson, 1993: 74).

en la que (...) la imprenta transformó los modelos de comunicación a principios de la Europa moderna: dando lugar a una variedad de publicaciones periódicas que informaban de acontecimientos y transmitían información de carácter político y comercial.” (ibid, 93). XVI. mende hasierarako irakurketa orokortzen hasi zen, baina egunkarien irakurketa orokortu arte itxaron beharko dio nazionalismoak XIX. mendean loratzeko.

Informazioaren bat eskaintzen zuten lehen panfletoak inprenta sortu eta gutxira, XV. mendearen bigarren erdian agertuko dira, gobernu aginduen, gertakari bortitzen (desastre naturalak eta gerrak, nagusiki) eta ezohiko narrazioen (erraldoiak, kometak, epifaniak eta gisakoak) berri emanez. XVI. mendearen bigarren erdian hasiko dira nolabaiteko aldizkakotasun bat eta informazio orokorra eskaintzen, eta lehen kazeta modernoak, astekari gisa nolabaiteko jarraitasun batekin funtzionatzen dutenak XVII. mendearen lehen bi hamarkadatan hasiko dira orokortzen. 1620rako kazetagitza industria gisa garatzen hasi zen Amsterdamen, 30 Urteetako Gerlak eragindako interesari erantzunez, eta 1640tik aurrera, Ingalaterran hasita (bertako kontrol mekanismoak nasaitzen hasi zirelako) geroz eta eragin gehiago izango du barne politikan (ordurarte urruneko albisteak ziren nagusi, kontinente mailako posta zerbitzuak ekarriak): “(...) en el periodo que va de 1641 a la Restauración la historia de la prensa vivió un momento decisivo (...) un papel clave en las cuestiones de Estado, ofreciendo un continuo flujo de información (...)” (Thompson, 1998: 98). 1702an abiarazi zen Ingalaterrako lehen egunkaria, Samuel Buckleyren *Dayly Couranta* eta 1750erako Londresen bost egunkari, astean hirutan banatzen ziren sei agerkari nahiz bost astekari argitaratzen ziren, guztira ehun mila aletako tiradarekin. Europako metropoli handienetan gisako zirkulazio mediatikoa izango dute XVIII. mendearen bukaerarako. Hain justu nazionalismoa indarra hartzen hasten den garaia.

Azalpen eta datu hauek ez ezik Jurgen Habermasek esfera publikoaren eraketaren inguruan garaturiko teorizazioa darabil Thomposnek bere tesia oinarritzeko. Teoria honen arabera kapitalismoaren garapenari lotuta autoritate publikoaren esferaren eta gizarte zibilaren esfera pribatuaren artean burgesiaren esfera publiko bat sortuko da. Esfera honek Modernitatearen hasieratik nobleziaren eta elite burgesaren topaleku gisa ugalduz joango diren zentro sozialak (nagusiki saloi eta kafetegiak) izango ditu lehen kokaleku, baina prentsaren garapenarekin honen orrialdeetara ere zabalduko da: “(...) Habermas concede una especial importancia a la aparición de la prensa periódica. Los semanarios críticos y morales que aparecen en Europa a finales del Siglo XVII y durante el XVIII brindaron un nuevo forum para dirigir el debate público” (ibid, 101). Autoritate publikoaren egikaritzaren muina gorteko bizitzatik geroz eta garatuagoa den estatu sistemaren bestelako egitura eta praktiketara aldatuko da, Parlamentuaren papera indartuz joango da, eta aldi berean prentsaren baitan ematen den eztabaidari geroz eta garrantzia gehiago aitortuko dio honek:

“Habermas sostiene que la discusión crítica estimulada por la prensa periódica tuvo, a la larga, un impacto transformador en la forma institucional de los Estados modernos. Al ser continuamente solicitado el consenso público, el Parlamento se abrió cada vez más al escrutinio (...) se hizo más sensible a la prensa y empezó a jugar un papel más constructivo en la formación y articulación de la opinión pública.” (ibid, 102)

Habermasek prentsak elitean eta boterearen artikulazioan jokaturiko papera aztertzen duen bezala, Burkek herri xehearengan izandako eraginari erreparatzen dio. Herriak Lehen Modernitatean geroz eta inplikazio politiko handiagoa izan zuela jartzen du abiapuntu gisa: “Otro cambio importante en las actitudes populares entre 1500 y 1800, puede ser descrito como la ‘politización’ de la cultura popular, o como la extensión de la conciencia política.”

(1991: 362). Lutero izango da elizaren erreformarako herria irabazi nahian inprenta propagandarako bitarteko gisa erabiltzen lehena. Hortik aurrera, eta Frantzes Iraultzarekin lehertu arte, geroz eta ugariagoak izango dira European mugimendu politiko nahiz erlijioso ezberdinek herritarren borondatea bereganatzeko egingo dituzten ahaleginak. XVIII. mendetik aurrera prentsa bitarteko bihurtuko da prozesu honetan: “Si algo colaboró especialmente en convertir a la política en parte de la vida diaria del pueblo común –al menos en las ciudades- en la Inglaterra del siglo XVIII, esto fue el periódico (...)” (ibid, 369). Analfabetismoa orokortua zenez, taldean irakurtzen zela dio, eta Europa osoan indartu zela joera hau. Austrian nekazariak argitaratzen zuten egunkaria (*Bauerzeitung* edo *Nekazal Albistek*) aipatzen du besteak beste.

XIX. mendearen hasieratik, inpresio industrialaren aurrerapenak eta zergen jaitzierak produktua merketzea ekarriko du eta mendearen bigarren erdian, biztanleri hiritar eta alfabetatuaren hazkundearekin, prentsa geroz eta publiko zabalagoari zuzenduko zaio: “(...) muchos periódicos adoptaron, con el fin de atraer a mayor número de lectores, un estilo más atractivo y mundano, así como una presentación más vivida” (Thompson, 1998: 111). Eta publizitate komertzialaren garapenarekin, kazeten enpresa izaera eta benetako masa komunikaziorako bidea irekiko dira.

Elkartrukerako eta komunikaziorako bitarteko gisa, kontzientzia kolektiboaren lanketarako funtsezko tresna bihurtuko da prentsa, ordenu modernoaren eraketan oinarritzko garrantzia⁷⁸ duen elementu.

3.4.2 Kultura popularra ikuskizun moderno

Kultura jasoaren eta popularraren arteko bereizketaren oinarrian bereizketa soziala legoke. Estatu modernoaren sorrerak nobleziaren posizioa zalantzan jartzen zuen eta honek kultura jasoaren garapenari ekin zion: “A medida que su función militar había ido declinando, la nobleza tenía que encontrar otros caminos que justificasen sus privilegios: debía demostrar que era diferente al resto del mundo” (Burke, 1991: 378). Bereizketa kulturalarekin distantzia soziala markatu nahiko da, literalki:

“Los nobles dejaron de comer en grandes salas acompañados de su servidumbre (recordar que el término inglés *drawing-rooms*, ‘salones’, procede de *withdrawing-rooms*, ‘habitaciones separadas’). Además dejaron de organizar combates con sus campesinos, como sucedía en Lombardía, o de matar toros en público, como habían hecho en España” (Burke, 1991: 377).

Kultura popularra espazio irekian burutzen bazen eta guztien parte hartzea bideratzen zuen praktika sozial bat bezala planteatzen bazen, kultura jasoak aparte batean, espazio itxi eta berezitan beharko zuen eskainia: “En el París de comienzos del siglo XVI, los actores aficionados de la Basoche abandonaron las calles y las plazas y comenzaron a actuar en el Parlamento para una audiencia más exclusiva” (Burke, 1991: 383). Eta bereizketa fisikoak bereizketa soziala bermatu zezan sarreragatik ordaindu beharra ezarriko zen, kulturaren merkaturatze sofistikuago bat garatuz:

⁷⁸ Ordenu horren arauetan bertan prentsari aitortu izan zaion garrantzia bera seinatzen du Thompsonen adierazle gisa: “(...) los colonos americanos incorporaron el derecho a la libertad de prensa en la Primera Enmienda de la Constitución. De manera parecida, las constituciones francesas posrevolucionarias de 1791 y 1793, elaboraron la Declaración de los Derechos Humanos de 1789, protegiendo explícitamente la libertad de expresión... para finales del siglo XIX la libertad de prensa se hubiera convertido en el rasgo constitucional característico de muchos Estados occidentales” (1998: 100)

“(…) a comienzos del siglo XVII, los teatros públicos –aquellos donde Shakespeare había representado sus obras para un público de nobles y aprendices–, comenzaron a no ser lo suficientemente buenos para las clases dirigentes, con lo que comenzaron a aparecer teatros privados en los que la entrada costaba seis peniques” (Burke, 1991: 385)

Kultura bizitzeko modu berri bat ere ekarri zuten klase jasoek. Kode moral eta estetiko berriei jarraiki, kode horiek betetzen zituen emanaldia galdatzen zuten, bufoiak, esaterako, gorteetatik desagertu egingo zirelarik. Bestalde, emanaldiarekiko jarrera ezberdin bat garatu zuten: “(…) aprendieron a ejercitar el autocontrol, a comportarse con una estudiada indiferencia (...)” (1991: 377). Populuaren festetako espontaneitatea eta gehiegikeria arbuiatuko zuten, inauteriak elizaren eta gobernuen debekuen jomugetako bat bihurtuko zen: festari ikuskizuna kontrajarriko zaio, parte hartze espontaneoari ikusle posizio zurrunagoa.

Transformazioa graduala izan zen eta ez zen erabatekoa izatera iritsiko, festak beti izan baitzuen ikuskizuna elementutzat eta ikuskizunak beti izango baitzuen zerbait festatik. Bestalde, merkatuaren legeak horretarako ere ematen zuenez, eredia populuaren kultur bizipenetara ere zabalduko zen. Hainbat eremu merkaturatu ez ezik profesionalizatu egin ziren pixkanaka: Britainia Handian 1720ko hamarkadarako zaldi lasterketak egunkarietan iragartzen ziren eta sektore ekonomiko indartsu bat ziren, eta beste hainbat gertatuko zen boxeoarekin 1740ko hamarkadan; Espainian 1780ko hamarkadarako zezenketak enpresarien esku zeuden, eta mende bukaerarako zirkoa erabat profesionalizatu zen hainbat herrialdeetan:

“Los elementos claves del circo, actuaciones de payasos y acróbatas por ejemplo, son –como hemos visto– representaciones tradicionales; lo nuevo era el grado de organización, el uso de edificios para las representaciones en vez de las calles o las plazas, y el papel jugado por el empresario.” (Burke, 1991: 349)

Nazio-estatuek, eta ertzeko kultur komunitateek, esan bezala, kultura popularra herri kultura gisa garatzeari ekingo diote, nortasun nazionalaren ikur gisa bistaratzeari, eta, esan bezala baita, prentsa komunitatearen eraketarako plaza nagusia izanik, tokia egingo zaio bertan.

Prozesu honek, beste dimentsio bat hartuko du XX. mendean, elektrizitatean oinarrituriko komunikazio teknologia berriekin. 1840an telegrafoa etorriko da, telefonoa 1870ean eta lehen hedabide gisa, 1920tik aurrera, irratia. Azken honekin hasiko dira gorpuzten telebistarekin lehertuko diren masa kultura eta Beranduko Modernitatea. Hedabide berri hauek ez dute prentsaren bitartekotza hori osatu eta biderkatu baino egingo, irudikapen kolektiborako jokaleku gisa are garrantzitsuago bihurtuz. Beranduko Modernitaterako zubi gisa funtzionatuko duen irratiaz, esaterako, honakoa dio Marshall McLuhanek:

“Las profundidades subliminales de la radio están cargadas de los ecos retumbantes de los cuernos tribales y de los antiguos tambores. Ello es inherente a la naturaleza misma de este medio, que tiene el poder de convertir la psique y la sociedad en una única cámara de resonancia”. (1996: 307)

Kultura popularrak, kolektibitatearen sustrai esentzial gisa, ikuskizun moderno bihurturik, are pisu gehiago izango dute hedabide berri horietan.

3.5. BERTSOLARITZA ETA LEHEN EUSKAL PIZKUNDEA

3.5.1 Tradizioa euskararen azken gotorleku

Lehen pizkundea abiatzen denerako *glotofagia* prozesuaren bigarren fasean sartua da euskara:

“El primer estadio de la glotofagia era, de algun modo, vertical: en la diferenciación lingüística se manifestaba fundamentalmente en términos de clases sociales, por cuanto el retroceso de la lengua dominada comenzaba en la corte, la nobleza local, la burguesía (...) El segundo estadio es más bien ‘horizontal’, en el sentido de que la diferenciación lingüística habrá de establecerse no sólo según la escala de clases (...) sino también según una escala geográfica: ciudad contra campo (...) en el segundo estadio tenemos una clase hegemónica monolingüe, un pueblo urbano bilingüe y un pueblo campesino monolingüe (...)” (Calvet, 2005: 90)

Baserriak, hizkuntzaren gotorleku gisa, subalternitatearen marka nabarmenago egiten du: “(...) que el campo esté subordinado a la ciudad es en principio un hecho económico y social; pero las relaciones lingüísticas redoblan, intensifican esas relaciones sociales” (id, 97). Calvetek, bretoia eta okzitanoaren kasuak aztertuz azaltzen duen bezala, industria eta hiriak nekazaritzak eta landak baino estatus sozial altuagoa dutenez, azken hauetara zokoratu den hizkuntzak eta hizkuntza horretan dihardutenek estatus baxuagoa izango dute.

Bigarren gotorleku bat ere gelditzen zitzaion euskarari XIX. mende bukaeran: eliza. Calvetek azaltzen duenez, hizkuntza subalternoen artean nahikoa ohikoa da hau, eta badu bere infrentzua ere: “(...) lo mismo ocurre, tal como acabamos de ver, en Gales. La religión puede, por tanto, salvar una lengua; pero su intervención es ambigua, pues al mismo tiempo restringe esa lengua a ciertos sectores, precisamente aquellos que deja para ella la lengua dominante” (id, 95).

Azkenik, errealitate gordin honez gain komunitate hegemonikoen diskurtsoari ere egin beharko diote aurre Pizkundeko eragileek:

“Luzaroan, Mendebaldez kanpoko herrien nahiz barneko “beste” etnikoen bereizketa nahiak izaera modernotik at geratutako ekimen gisa ulertu dira mendebaldar pentsamoldean (...) Mendebaldeko kultura nagusiak bere diskurtsoan beste errealitate horiekin jarritako distantzia denbora terminoetan hezurmamitu da gehienetan. Horrela, gutxiengoan —edo mendebaldarra ez denaren— irudikapena ‘iraganean’ kokatu da sinbolikoki. Beraz, “beste kulturala” ez da onartu garaikide modura garaikide izan arren, ez-moderno gisara baizik.” (Larrinaga, 2007b, 138)

Diskurtso hegemoniko horrek hizkuntza subalternoen gotorlekuen izaera tradizionala seinalatu ohi du, hain zuzen ere, hizkuntza hauek ez modernotzat hartzeko. Honela, ‘baserriarren hizkuntza’ edo ‘ikuilu usaina duen kultura’ gisako espresioak erabili ohi direnean, modernoa ez denari, iraganari loturikoari, atzean utzi beharrekoari egiten zaio erreferentzia. Eta elizarekikoekin beste hainbeste gertatu izan da, Calvetek adibidetzat jartzen duen Frantzia horretan Espainian baino goiztiarragoak izan arren:

“La lengua dominante (en este caso el francés) ocupa el ámbito profano, es decir, todo lo referente a la vida cotidiana, la administración, la justicia, las técnicas, la política, los estudios, etc., mientras que empuja a la lengua dominada (el árabe) hacia el ámbito sagrado. Así la oposición lengua dominada/lengua dominante se ve convertida en oposición entre antiguo y nuevo: la lengua dominada es más o menos obligada a asumirse como lengua

confesional, retrógrada (...) se produjo un fenómeno similar con el bretón, presentado por la Tercera República laica y glotófaga como la lengua de los curas (...)” (2005: 95-96)

XIX. mende bukaera honetan, bada, panorama ilun samarra aurkezten zitzaion euskararen komunitateari, eta behin eta berriro aipatzen zen euskara hiltzorian zegoela, tartean Unamunok 1901eko Lore Jokoetan Bilbon emandako hitzaldi sonatuan: “En el caso concreto del vascuence, estoy profundamente convencido de que se pierde, y que se pierde pronto y sin remedio, por su índole misma, por ser un idioma inapto para la cultura moderna” (Díaz Noci, 1993: 394).

3.5.2 Tradizioa eta modernitatea euskal kulturagintzaren eragiletzan

Egindako apustua gelditzen diren gotorlekuei eustea izango da, bistan denez. Proiekzioirik handiena izango duen proiektu politikoak, nazionalismo jeltzaleak, euskal nortasunaren oinarri gisa ulertzen duen esentzia aurremoderno horri lotzen zaio modernitatearen mehatxuaren aurrean. Amezagak egiten du planteamendu horren irabazien eta galeren kontaduria: “Ordura arte kulturaz ukatua zen herria deskubritzen den aldi berean, herri hori idealizatu egiten da, eta benetan esistitzen den herria (baserritar zein kaletar, abizen euskaldun zein erdalduneko) ukatu egiten da, idealizazio horren izenean” (1994: 40). Deskubrimenduarekin nortasungintza eta kulturagintza aktibatuko ziren, ez da ekarpen txikia, eta gelditzen ziren gotorlekuei eustea, euskaldun basati onaren gorazarreak, badu bere zentzua. Esentzializazioa garesti samarra suertatzen da, ordea, Amezagak, Salden hitzak gogorarazten dituen gogoeta honetan azpimarratzen duen bezala: “(...) idealizazio horretatik ez dago pentsatzerik kultura eta herria eremu historikoak direla, historian zehar osatuak eta kontraesanek josiak (...) euskaldun jatorrei (...) bilakaera historikoaren aukera bera ukatzen die, betirako iragan ahistoriko batera kondenatuz” (id, 40). Diskurtso hegemonikoak kultura subalternoaren estatusa ahultzeko baliatzen dituen estereotipo berak elikatuko ditu gainera planteamendu honek, batzuren eta besteen xedeak ezberdina izan arren.

Azpimarratu behar da euskal *intelligentsiak* eginiko apustu honek ez duela ezer apartekotik. Esan bezala, ertzeko beste komunitateek ere antzeko bidea egin behar izan zuten. Eta izatez Erromantizismoak berak antzeko planteamendua baliatu zuen oinarrian, Burkek aipatzen duen bezala: “Para los descubridores de la cultura popular el pueblo par excellence, eran los campesinos. Estos vivían inmersos en la naturaleza, estaban menos influidos por modos extranjeros y habían conservado – durante más tiempo que nadie- las costumbres primitivas” (1991: 60). Antzeko planteamendua eta borondate onenarekin buruturiko orientalizazio esentzializatzaile bera:

“Esto supone, sin embargo, ignorar importantes cambios sociales y culturales, y por tanto, desestimar la interacción sufrida entre la ciudad y el campo, entre lo educado y lo popular. No hay la Europa moderna ninguna tradición popular pura o inmutable, y quizá nunca la haya habido”. (Burke, 1991: 60)

Mugimenduaren tonu orokorra izango zen jarrera antimoderno hau, baina ñabardura dezente egin behar zaizkio orokortasun horri. Ñabardura garrantzitsuak. Hasteko nazionalismoa bera mugimendu moderno bat bait da definizioz, eta bere jarrera antimodernoan, esentzia aurremodernoaren defentsan, bitarteko eta planteamendu modernoek baliatuko bait da. Honela, bere hastapenetatik euskararen erreforma bilatu zuen euskal nazionalismo horrek, euskara eskolara eta hedabideetara eramatea lortu zuen, kultur plangintzari ekin zion eta abar. Bestalde, jarrera antimoderno eta esentzialistan graduak eman ziren nazionalismoaren beraren baitan, eta mugimendu osoaren baitan bestelako erreferente garrantzitsuak ere garatu

ziren. Jada aipatu den Arturo Campionek, esaterako, esentzialismoaren beste muturrean legokeen historizismoan oinarritzen zuen bere analisia. Edota Resurrección Maria Azkuek, gutxienezko jarraitasun bat izan zuten euskara hutsezko lehen bi aldizkariak Bilbon sortu zituen, euskara eta baserriaren arteko identifikazioa ez zuen begi onez ikusten:

“Gure ustez, euskeraren barrenko gaitza, euskerazko da, guk guerok sortua. Euskalerrriak gaur bere izkera gauza guchitzat daduzka. Ona zein dan onen gaitza izugarria. Apaizak, aundiak, ezpañetan bizarra ta eskuetan makilla darabilten guizonik gueien gueienak erderaz ari dira elkarren artean. Au badakite nekazariak; eta guero uste dute euskera, mendiko belarrak kaleetako arritarrean bizi ezin diran bezela, uri aundietan jende-artean ezin bizi litekela.” (Díaz Noci, 1993: 395)⁷⁹

Diskurtso hegemonikoek euren modernitatearekin bateraezina dela ikusarazi nahi izan diete kultura subalternoei. Kultura hegemonikoetan tradizioa eta modernitatea uztartzeak halako buruhausterik eragiten ez dien bitartean subalternoetan kontzeptu bateraezinak direla saldu izan da. Euskal Pizkundek dikotomia horri uko egin beharko dio eta hibridatu: “Modernitatearen muina forma zaharretan bideratzen da. Forma zaharrak mantentzen dira, baina modernitatearen ezaugarriak jasoz. Aldi berean, forma berriak ere sortzen dira, baina pentsamolde zaharren diskurtsoa mantenduz” (Díaz Noci, 1993: 396). Bateko edo besteko diskurtsoak gora behera, praktikan, modernitaterako bere bidea topatu behar izan zuen euskararen komunitateak: “Europako estaturik gabeko nazioen pizkunde kulturalak estatu garaileek ezarritako bazterketa kulturala gainditzeko saiatu ziren, ustez kontrajarrita zeuden bi printzipioak bateragarri egingez. Bestela adierazita, sistema kultural desberdin eta aldi berean modernoek jabe zirela erakustera bideratu zen mendeko kulturagileen estrategia” (Larrinaga, 2007b, 138).

Bide horretan funtsezkoa izango da hedabideen bidez buruturiko lana. Honela, Lehen Pizkundearen lehen olatuan Hegoaldeko kultur aldizkari foruzaleek 1880 eta 1890eko hamarraldietan funtsezko ekarpena egingo dute. Nagusiki gazteleraz argitaratzen ziren arren, euskal kulturaren bilketa, gogoetatze eta hedapenari eman zitzaizkion bete betean:

“Sortutako argitalpenak erabakigarriak izan ziren ez soilik garaiko intelektualak harreman bilbeetan biltzeko eta esparru intelektuala trinkotzeko, baita gune kognitibo garrantzitsuak eratzeko ere. Gune horietan landu ziren lehenbizikoz ezagutza berriak eta haietan hornitu zen euskal protoelite kulturala erreminta sinboliko funtsezkoek euskal kulturaren eta hizkuntzaren legitimazio lanetarako.” (Larrinaga, 2007b, 127)

Bigarren olatuan euskara hutseko *Argia* astekaria izango da erreferentziala eta baita Radio San Sebastianen abiaraziko den euskarazko lehen irrati programa ere. Donostia da hiribururik euskaldunena eta XX. mendearen hasieran industrializazioa Gipuzkoara zabaltzean bertan loratuko da euskarazko lehen aldizkari indartsua eta lehen irratsaioa:

“Garitaonaindiak eta sortutako euskal astekarian, zera dioskute: ‘Mendiyan omen da osasuna (...). Euskera mendiyan bizi da, menditarra data’⁸⁰. Baina aldizkaria bera ere hirian egiten da, eta hiritarrek egiten dute (...) Euskal kulturaren ekoizpena (komunikabideak, zinema, komikiak, irratia, liburugintza) hirietan egiten da (eta hiriarentzat neurri haundi batean) (...) hasitako bidea itzulezina da, zeren euskara eta euskal kultura abiatu da modernitatearen

⁷⁹ 1901eko urtarrilak 26an argitaraturiko *Ibaizabal* aldizkariaren 4. zenbakitik hartua.

⁸⁰ 1922/IV/02an argitaraturiko *Argia* aldizkaritik hartua.

bidetik, Lauaxetaren *Bide berriak* hartuz; edo Lizardirenak, euskara ‘noranaikoa’ nahi zuena.” (Díaz Noci, 1993: 396)

3.5.3 Bertsolaritzaren garrantzia lehen euskal pizkundean

Lehen Euskal Pizkundeak euskal kulturaren modernizazioari ekin zionean inoiz administrazioan erabili gabea, literaturan apenas pausorik emana, estandarizazioari eta instituzionalizazioari ekiteke eta bere sustapenerako baino desagerpenerako neurriak hartzen dituzten duen bi estaturen pean dagoen hizkuntzarekin egiten du topo.

Aldi berean, XIX. mende hartan bertso-paperak ziren euskaraz zabalkunde handiena zuten testuak. Fenomeno honen aztertzailer handienak, Antonio Zavalak, halaxe dio: “Es ésta, sin duda, la modalidad literaria vasca que más ha hecho trabajar a las imprentas. El espíritu vasco se nutrirá en adelante del “bertso-papera” más que de cualquier otro libro religioso o profano, más que de toda poesía culta” (1964: 45). Eta ez da baieztapen hori egiten duen bakararra: “onartu behar dugu bertso-papera dela XIX. mendeko idatzizko literatur “genero” arrakastatsu eta eraginkorra” (Gabilondo, 2009: 17). Pizkundearen lehen olatuan, bada, euskal poesigintza sustatzeari ekiten zaionean bertso-jarriak hartzen dira eredu gisa. Honenbestez, euskal kulturaren lehen modernizazio ahalegin gisa hartzen diren Lore Jokoetan euskal poesia gisa hautematen zen idatzizkoa eta bapateko bertsolaritzaren arteko mugak oso lausoak izango dira Gabilondoren iritziz: “(...) bertako poesia bertsolaritzan inauguratutako bertso-paperen fenomenotik oso gertu dago, erabat biak ezin bereizi ahal izateko punturaino” (2009: 16). Eta Sarasola ere bat etorriko da azpimarra honekin:

“(...) no es fácil trazar en la obra de estos poetas el límite que separa de la poesía elaborada de la improvisación oral en verso, del bertsolarismo: incluso en la obra de los poetas más cultos de este periodo se pueden encontrar elementos procedentes del bertsolarismo (...)” (1982: 67)

Lehen Pizkunde horren bigarren olatuan ere antzekoa da egoera, eta kulturgileen ekimena aurrekoek buruturikoaren aldaera gisa uler daiteke alor honi dagokionean. Honela, Jose Ariztimuño Aitzolek 1935ean bertsolari txapelketak antolatzeari ekin zionerako Euskal Oleriti Eguna urtero antolatua zuen 1930etik: lehentasuna poesia idatziari eman nahiko zaio. Honela, aldi honetako puntako zenbait poetak, Lizardik eta Lauaxetak esaterako, molde herrikoietatik urruntzen zen poesia garatu ahal izan zuen, Aitzolek berak herri xehearekin konektatzeko molde horiei heldu beharra behin eta berriro defendatu arren. Edozein modutan ahalegin honek ez zuen arrakastarik izan garaiko euskaldungoaren baitan: “(...) idatzizko poesiari hobestearen saio hori ezinezko eta porrotatu bezala historizatu behar da halaber, euskal poesiak ahozkotatasunarekin eta performatibitatearekin duen lotura ez-historikoaren ondorioz” (Gabilondo, 2009: 20). Eta porrot honen ondotik ekin zion Aitzolek bertsolaritza sustatzeari (Dorronsoro eta Lekuona, 1987, Otaegi, 1983; Ugalde, 1988; Urkaregi, 1987 eta beste hainbat). Bere hizkuntzan alfabetatu gabe zegoen euskaldungoan ongi funtzionatzen zuen bakararra ahozkoa zenez, berriro halabeharrez eutsiko zaio bertsolaritzaren modernizazioari.

Gizarte modu hartan bozgorailu ideologiko gisa zuen garrantziazatik ere eratorri zen Lehen Pizkunde horretan izan zuen zentralitatea: “Bapateko bertsogintza palanka ederra zitekeen herriengana iristeko, eta herria eritziz eta sentimenduz hornitzeko, jokabide sozial-politikoaren zerbitzuan. Eta faktore honek ba du zerikusirik bertsolaritzak iraun dezan, beste generoak ezkutatu diren garaian” (Lekuona, 1985: 466).

Izan ere bertso-paperetan, denetariko gaiak jorratzen ziren, baina politikoeak pisu handia zuten⁸¹. Izatez, bertso-paperen arrakasta honen atzean aurki daitezkeen arrazoi nagusienetako bat garaiko gatazka politikoetan legoke. Zavalak azaltzen duenez, Lehen Karlistadetan izan zuten lehen loraldia: “Este recurso fue popularizándose y lo vemos habitualmente usado en la primera guerra carlista (...)” (2006a, 213). Izan ere, polarizazio politikoak ekarritako propaganda bitartekoei erantzuteko kontzienteki baliatuko dira bertsoak: “Creo que fueron los liberales quienes echaron a andar por este otro camino de las hojas volantes, tratando de convencer a las partidas carlistas a que depusieran las armas. Lo que consiguieron es enseñarle el método al adversario” (Zavala, 1996e, 108-109). Bertso-paperen eta propaganda politikoaren arteko lotura hori azpimarratzen du Díaz Nocik ere: “Ukaezina da bertso haiek leku eta bazter guztietan kantatu eta ezagutzen zirela, eta beraz, propaganda egiteko bide egokia zirela (...) Labayenek berak, bere liburuaren eranskinetan sartzen dituenean, «coplas de propaganda» deitzen die” (1995b, 30)⁸².

Propagandarako funtzio hori ez da Karlistadetara mugatuko eta ezta bertso-paperetara ere. Asko dira gerraurreko abertzaletasunak bertsolaritza nola baliatu zuen aipatzen duten egileak eta Kepa Enbeita bertsolariak zentzu honetan buruturiko lana aipatzen da, Basarrik nola testigua hartu zion... Xabier Lasak, datuak ere eskaintzen ditu:

“[36ko hauteskundeetaz ari da] Bertsolariak Gipuzkoako EAJren ia agerraldi politiko guztietan parte izan ziren; 28 bertsolari ibili ziren denera, harat-honat politikoen bidaide, botoa eskatze lanetan. Hona zenbait, denak ere finalistak: Nekezabal, Zepai, Txapel, Basarri, Ezeiza, Uztapide, Kortatxo, Iñaki Alkain, Etxeberria Mendillegi.... (...) Monzon, Irazusta, Pikabea, Irujo eta Lasarte hautagaien edo Hernandorena bezalako hizlarien ondoan bertsolariak ikusteak esanahi berezia zeukan: jeltzaletasun ofizialak bertsolaritziari egundoko garrantzi sinbolikoa ematen zion jada, eta berebiziko herri erakarmena aitortzen zion.” (2008: 597)

Honela, bertso-paperetatik aldizkari eta egunkarietara ere zabalduko da bigarren olatu honetan bertso politikoa. Edota bat-bateko txapelketetan antolatzaile nahiz gai-jartzaileek mezu politikoa indartzea bilatuko dute (Lore Jokoetan ere, lortzen zuten oihartzuna mugatuagoa izan arren beste hainbeste egiten zuen foruzaletasunak eta protonazionalismoak).

Azkenik, euskal kulturaren modernizaziorako lehengai eta ideologia modernoaren eroale ez ezik euskal identitate modernoaren ikur ere izango da bertsolaritza. Hizkuntzalariak, antropologoak eta euskaldun basati onaren irudikapena aipatu dira euskal komunitatearen deskubrimendu erromantikoaren ardatz gisa. Laugarren elementu gisa bertsolaritza ere azpimarratzen du, ordea, Gabilondok. Erromantizismoaren deskubrimenduari eskaintzen dion azpiatalari halaxe jartzen dio izenburuari: ‘Anthropologists and Bertsolaris’.

Gabilondoren iritzi bertsolaria antropologiatik zetorren euskal berezitasunaren gako gisa irudikatu zen eta dimentsio identitario bat hartzen hasia zen: “(...) the orientalist and anthropological ideology underlying the floral games, for the first time, the subaltern Basque voice of the mostly illiterate poet, the bertsolari, was celebrated as the “true” voice of the

⁸¹ Xabi Payak (2012) historikoki bertsoetan topa daitezkeen ideologia zantzuen errebaso polita egiten du ‘Komunitate inprobisatuak’: Euskal identitate nazionala bertsolaritza lanean. Aldi bakoitzeko bertsolariengan garai horretan herriaren baitan nagusitzen ziren kontzepzioak islatzen zirela ikus daitezke bertan. Honela, esaterako, Xenpelarrek ‘Hiruak bat’ abesten du, Iparragirrek ‘Lauak bat’, Pedro Mari Otañok ‘Zazpiak bat’...

⁸² Burkek, beste behin, fenomeno hori aurretik Europan emana zela azaltzen du, hainbat adibide eskainiaz: “En la Francia y la Inglaterra de la década de 1640 no hubo una corriente de panfletos, sino una riada. En Francia, La Fronda (...) supuso la publicación de unas 5000 mazarinades (...) Muchas de ellas estaban escritas con un verso vigoroso y simple, para que todos pudiesen entenderlo.” (1991: 366)

Basque people—the voice of the native” (Gabilondo, 2016: 192). Gaineratzen du Etxahunena edo Iparragirrena bezalako biografiek ere, Byron edo Baudelaire gisako poeta erromantikoen ‘malditismo’-tik hain gertukoak, garaiko intelektual erromantikoen lilura piztu zuela, poesiari gerturatu arren beste nonbait kokatzen zen euren sorkuntzak sailkaezinaren misterioa, euskararen inguruan ere funtzionatzen zuena, gehitzen ziola lilura horri. Eta Chahok Aitorren kondairan azpimarra jarri zionetik ikur gisa sekulako indarra hartu zuela gaineratzen du; Herderrek esana zuen arima nazionalaren ispilua herri literatura zela, eta bertsolariarengan topatuko da, bada, ispilu hori Lehen Euskal Pizkundean:

“Moreover, the romantic and Ossianic dream of seeking the true bards of antiquity, fostered by Chaho in his invention of the myth of Aitor, found in the subaltern bertsolari its most essential representation. After Chaho, bertsolaris were greeted as the true bards who hailed directly from Aitor’s lineage. After Zumalakarregi died and the Carlist cause faded away after the last civil war (1872-76), the bertsolari became the only and most central sign of the existence of an essential Basque Country founded by Aitor (...)” (2016: 197).

3.5.4 Bertsolaritzaren lehen praktika modernoak

Labordek azaltzen du nola bertsolaritza ikuskizun modernoaren parametroetara ekartzeko ahalegina ematen den Abbadieren Lore Jokoetatik hasita :

“Abbadieren lehiaketek bertsolariak eszenatokira eraman eta halako ikusgarritasuna eman artean, bertsolarien bat-bateko olerkiak ez ziren aintzakotzat hartu. Esan liteke paisaiarekin batera azaltzen zirela, ohartezinak zirela. Mendeko kinka horretan, oro har 1850etik 1935era doan horretan, arreta modu berria agertu zen gizarte joera horiekiko. Arian-arian, bat-bateko olerkigintza antzeman, aipatu, lekuz aldatu eta ikuskari gisa aurkeztu egiten da. Esku hartzeko txandak ezartzen dira, ebaluazio irizpideak lantzen dira, organum literarioa finkatzen da, antzezpen antolamendua agertuz. Egun, bertsolaritzaren sorrera instituzionalaz galdegitea, antzezpen era horiek bat-bateko olerkigintza hartatik “literatura jenero” bat egiteko nolatan eratu diren begi ematea da.” (Laborde, 1998: 601)

Lehen Pizkundean bigarren olatuan are gehiago garatzen den formatu berriak, aurrekoarekiko, mende hasierako desafioarekiko, hainbat aldaketa dakartza (Esنال, 2002: 809): Gai-jartzailearen figura, jarduera bertsolarien arteko jolas agonistikoan beharrean publikoari zuzenduriko eskaintzan zentratzea, epaitzeko irizpideak eta epaimahaiaren osakera bertsolarien hautaturiko bertso munduko lagunak esku beharrean, literatur eta hizkuntza alorretan eskolatua den jendearen esku jartzea...

Bidartek ere aipatzen du ahozkoa idatziaren mailara igotzeko ahalegin hori: “Par les “fêtes basques”, pour la première fois, l’expression orale, incarnée dans l’acte d’improvisation, est (...) placée en situation de proximité avec la forme écrite représentée par la poésie” (1998: 275). Baita Gabilondok ere, ahalegin honek euskal literaturaren garapenean izango duen garrantzia azpimarratuz: “In the floral games, popular improvised poetry was submitted as written poem and rewarded as high literature (...) This process of incorporating subaltern voices in Basque literature eventually became central to the future of Basque literature” (2016: 193).

Bat-batekoarekiko interesak jauzi kualitatiboa 1879an eman zuela seinatzen du Labordek eta Hegoaldean jartzen du fokua: “Un autre événement de cette année 1879 est le déroulement des jeux floraux de Saint-Sébastien, le 7 septembre, au Théâtre municipal (...)”

L'on remarque alors ceci: les neuf bertsolari qui se disputent le prix improvisent, ici, au théâtre" (id, 610). Abbadiek bertsolariak frontoian eta herri kirolen ondoan jartzen bazituen hortik aurrera urtero egingo da bertso-saio hori Donostiako Antzoki Zaharrean: "Le 26 septembre 1880 au Théâtre principal à l'occasion des jeux floraux institués désormais en tradition annuelle" (id, 610). Eta saio hauetan baliatzen diren modu berrien errepikapenak tradizio moderno baten sorrera ekarriko du: "(...) septembre 1880, à Saint-Sébastien, les différentes épreuves auxquelles nous assistons aujourd'hui dans les concours de bertsolari prenaient forme. Elles seront réactivées lors de chacune des rencontres. L'usage aidant, elles se verront conférer force d'évidence. Ainsi se forge une tradition" (id, 611).

Bertsolaritza euskal kulturaren modernizaziorako ezinbesteko lehengai, ideologia modernoaren erroale garrantzitsua, eta euskal nortasun modernoaren ikurra bihurtu zenez, estatus berri horri zegokion forma berria eman behar zitzaion, beste herrialde batzuetan kultura popularrarekin egin zen bezala ikuskizun moderno bihurtu.

3.5.3 Bertsolaritza hedabideratzeko bide gisa

Deigarria suertatu zaigu Ongek ahozkoatasunetik idatzikora bidean emandako aldaketa ilustratzeko erabiltzen duen pasarte honek, XIX. mende hasierako bertsolarien formatu zaharreko desafioen inguruan esaten direnekin erakusten duen antzekotasuna:

"En los debates entre Lincoln y Douglas, en 1858, los combatientes —pues eso es lo que clara y realmente eran— se enfrentaron a menudo al aire libre, bajo el ardiente sol de verano de Illinois, ante públicos de hasta 12 mil o 15 mil personas que también participan con gran ardor (...), y cada uno hablaba durante hora y media. El primer orador disponía de una hora; el segundo, de una hora y media, y el primero, de otra media hora de refutación, todo ello sin equipo de amplificación. La oralidad primaria se hacía sentir en el estilo acumulativo, redundante cuidadosamente equilibrado y altamente agonístico, así como en la intensa acción recíproca entre el orador y el auditorio. Los polemistas quedaban roncós y físicamente exhaustos al final de cada encuentro." (2016: 215-216)

Hedabideen eragina jartzen du Ongek xede puntuan:

"Los debates presidenciales que se realizan en la televisión hoy en día son completamente ajenos a este mundo oral más antiguo. (...) hacen breves presentaciones, y sostienen con su oponente breves y agudas conversaciones (...) Los candidatos se adaptan a la psicología de los medios." (Ong, 2016; 216)

Badirudi, bada, formatu aldaketak ikuskizun modernoaren eta hedabideratzearen ezaugarriei egokitzearekin ere izan dezakeela zerikusirik. Lehen Modernitate horretan telebistarik ez zen, noski, baina prentsa hasia zen kulturaren sozializazioan paper garrantzitsu bat betetzen. Beraz, kazetarien kontakizuna ahalbidetuko zuen ikuskizuna gauzatu beharra ere egon daiteke formatuaren bilakaeraren atzean.

Bestalde, hedabideratzearen beharrak ongi ezkontzen dira bertsolaritza genero literario gisa hartzeko Labordek markatzen dituen pausoekin. Prentsak testu bihur daitekeen sorkuntza behar du: "Or, fabriquer un genre littéraire, construire une identité générique implique d'établir, d'abord, une identité textuelle" (Laborde, 1998: 604). Eta aurrez aurrekoak eskaintzen duen testuingurutik at ere funtzionatuko duen eskaintza: "Décontextualisée,

promise au spectacle, fonctionnant désormais sur la base de codes mutuellement consentis, l'improvisation orale devient un objet absolu.” (id, 617)

Azkenik, bertsolaritzaren praktika modernoan eta hedabideen arteko beste harreman bat ere seinatzen du ikerlari lapurtarrak: prentsak, ikuskera eta balorazioarako irizpide berrien eraikuntzan jokaturiko papera. Honela, Iparraldeko prentsaren orrialdeetan pixkanaka nola bertsolaritzari genero literario deitzen zaion jasotzen du, nola kazetariak bertsolari edo saio hobeak eta txarragoak bereizteari ekiten dioten eta, gerora, bereizketa horien atzean dauden irizpideak azaltzen hasten diren:

“Bien entendu, il n'est pas question de faire de cet article du 22 septembre 1893 le point précis où une bifurcation prend forme en ce domaine. Cet article participe de la mise en place d'un dispositif stratégique bien plus large, diffus, difficilement localisable, où se trame appréciation normative de l'improvisation. Il participe du durcissement d'une conduite sociale en pratique culturelle.

On comprend alors le choc en retour que produisent ces critères affichés dans la presse. Si un improvisateur veut remporter le concours, il doit se conformer à ce qu'on attend de lui. Il lui faudra donc s'entraîner pour maîtriser, aussi parfaitement que possible, ces critères d'évaluation (...) Ce n'est qu'à cette condition que l'on fera de lui, non sans paradoxe, un 'artiste de la parole'.” (id, 616)

4. LEHEN ZIKLOA: LEHEN ENTSEGUA LORE JOKOETAN. DESKUBRIMENDUA. PRENTSA

“Después de un almuerzo verdaderamente opíparo y servido en forma tan irreprochable como en la principal casa de Buenos Aires, no hubo por suerte brindis en estilos más o menos lateros, pero en cambio se inició una sesión de bersolaris que dio á la fiesta una animación extraordinaria (...) Los principales contendientes eran Pello Mari y Shantos, y no es para descrito el entusiasmo que a veces provocaban. Tocaron varios temas y todos ellos los trataron con altura. Abstraídos en tal ambiente, nos olvidamos de nuestra misión periodística y se nos pasó por alto el copiar alguna de aquellas primicias surgidas en rápidos chizpazos de inspiración.”

La Baskonia (1904/XII/20). ‘Notas locales/Fiesta baska’ (Otañoren saioa Argentinan). Sinatu gabe.

4.1. TESTUINGURUA: ERREAKZIO KULTURALA ERAKUNDEEN GAINBEHERAREN AURREAN

4.1.1 Bestekotze prozesu luze baten ondorena

XIX. mendean euskara galzorian aurki daitekeenaren kontzientzia zabaltzen hasten da. Hizkuntza egoera horretara eraman duena jada aipatu den bertako eliteen bestekotze prozesua izango da, estatu modernoek buruturiko politika homogeneizatzaileak edo immigrazio erdaldunen oldeak bezainbeste:

“Serían, sin embargo, las razones internas las fundamentales, más en concreto la falta de conciencia lingüística y el abandono del euskera por parte de las diferentes elites sociales. De hecho, fueron los propios dirigentes de los territorios vascos los que impulsaron la utilización del castellano en la enseñanza y en la administración. Eran los ayuntamientos los que, durante largo tiempo, elegían a los maestros. Cuando, a mediados del siglo XIX, el Estado tomó en sus manos el peso de las tareas educativas, la tendencia castellanizante estaba plenamente instalada, aunque la acción del Estado la reforzó decididamente.” (Aizpuru, 2001: 33)

Burkek (1991) Europa mailan azalduko bestekotze prozesuak geurean izandako isla azaldu denean Gabilondok (2016) edo Madariagak (2008) eskainiriko zantzu batzuk jaso dira⁸³. Gehiago ere aipa daitezke, ordea, mendeak iraun dituen eta muturrekoa izan den fenomeno baten aurrean baikaude.

⁸³ ik. 3.1.1 Eliteen bestekotzea eta 3.1.3 Euskal kulturaren bestekotzea.

Aizpuruk aipatzen dituen euskal instituzioen politiken inguruko hainbat datu eskaintzen dute Madariagak (2008: 106-111) eta Intxaustik (2014a: 95-96). Batzarkide izateko gaztelera irakurri eta idazten jakin beharra ezartzen dute Gipuzkoako Batzar Nagusiek (1529) eta baita Bizkaikoek ere (1613, 1618, 1620). Alkate izateko ere baldintza bera ezarriko da (Gipuzkoan, esaterako, 1571tik aurrera). Eta XVIII. mendearen bigarren erditik aurrera mediku, auzitegi eta abarrek herri euskaldunetan ematen duten zerbitzua euskaraz emateari utziko diote.

Eskolaratzea orokortzen denean ere joera bera nagusituko da. 1780ko hamarkadan Nafarroa eta Arabako Batzarren erabakiak aurki daitezke euskararen debekua ezarri eta eskuduntza udalen esku dagoenean beste hainbeste egingo da: Beasain (1730), Bera (1777), Aia (1784), Elgoibar (1787), Uztárroz (1807), eta abar... Haurrei ezagutzen zuten hizkuntza bakarra erabiltzea galarazten dien eraztunaren metodoa garai honetan zabalduko da.

Elizari dagokionean, azaldu da Kontra-erreformari jarraiki euskarari toki bat egiten dion instituzio bakanetariko bat izan zela, hizkuntza komunitate subalternoetan ohikoa izan zela hori (Calvet, 2005), baina baita hizkuntzarekiko kezka baino klase popular elebazarren doktrinatzek eraman zuela horretara ere⁸⁴. Madariagak Kontra-erreforma katolikoaren ildotik euskarari egindako ekarpena beste hainbat hizkuntzari eginikoa baino mugatu eta berantiarra izan zela gaineratzen du (2008: 104).

Euskal elebazarrek osaturiko parrokiatan erdara hutsez aritzen ziren sermoilarien hainbat adibide eskaintzen ditu Madariagak⁸⁵, obispo euskaldunak salbuespen bat izan zirela azpimarratzen du, eta elizak salbuespen gisa planteatzen zituen hizkuntzaren inguruko ekimen asko ez zirela praktikara eraman seinalatu. XVIII mende bukaeratik aurrera bakarrik topatu ahalko dira, eta Aintzinako Erregimenaren defentsan estatuari pultsu politiko bat botatzen dioten erlijio-ordena konkretuen ekimenera mugaturik, elizgizonen euskararen aldeko jarrera tinkoak.

Euskal erakunde euskararekiko kezka hutsaren hurrengo izan bazen, eta Elizarena ere oso mugatua, Euskal Herrian sorturiko ekimen ilustratu bakarrak, XVIII. mendearen bigarren erdian abiarazirik Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak, ez du asko gehiago ekarriko. Kide batzuk euskararekiko sentsibilitateren bat erakutsi arren, martxan jarritako ekimenean ezikusiarrena egingo du euskararekin: “(...) en conjunto la Sociedad concibió como único vehículo de comunicación y como exclusiva herramienta didáctica la lengua castellana” (Madariaga, 2008: 137).

4.1.2 Oldarra euskal erakundeei eta euskarari

XVIII. mende amaieran fase berri batean sartuko da prozesua. Iparraldetik dator lehen aldaketa, 1789ko Iraultza Frantsesarekin. Gobernu berriak Aintzinako Erregimenarekin identifikatzen dituen euskal erakundeak eraisteari ekingo dio hasieratik: “En lo político los

⁸⁴ ik. 3.1.1 Eliteen bestekotzea, 3.1.3 Euskal kulturaren bestekotzea eta 3.3.4 Bi olatutako euskal pizkundea

⁸⁵ Adibide kurioso askoak eskaintzen ditu Madariagak: “Así, consta que en las predicaciones de San Francisco de Borja por Gipuzkoa (Oñati y Bergara, entre otros lugares); la gente a pesar de no entenderle una palabra se emocionaba y participaba plenamente del acto del sermón: «San Borja predicó en estos países vascongados algunos sermones con inmensos auditorios, en que lloraban todos y se compungían. Y preguntados por qué lloraban si no entendían el sermón, respondían que con ver en el púlpito a un señor y a un duque, y tan santo, les hablaba Dios en sus almas un lenguaje que los compungía y hacía llorar». Aún mucho más notable es el siguiente caso, en el que predicados los vascos en castellano no sólo se enternecían sino que milagrosamente entendían lo que se les decía. Jerónimo Gracián, colaborador de Santa Teresa de Jesús, refiriéndose a la fundación de un convento de monjas en Pamplona en 1583, asegura: «Llegaron a Pamplona por el mes de diciembre las monjas (...) donde me acaeció que mujeres que no entendían castellano, sino solo vascuence, venirme a oír diciendo que entendían mis palabras.» (id.: 107-108)

cambios fueron demoledores. Los territorios vascos continentales perdieron sus instituciones y leyes propias, y fueron integrados en un departamento conjunto” (Díaz Noci eta Urquijo, 1998: 314). Hizkuntzarekiko jarrera, ordea, lehen urte horietan behintzat, errespetuzkoa izango da, dokumentu eta propaganda ofizialaren itzulpenarako makinaria garrantzitsu bat jarriko baita martxan Iraultzaren mezua Frantziako hizkuntza guztietan zabaltzeko:

“(…) el euskera conoce sus primeros, aunque fugaces, momentos como lengua administrativa (...) editan entre 1793 y 1795 diversos textos bilingües, arretés, proclamaciones, cartas de los diputados a sus electores, un mandamiento del obispo Sanadon, un calendario revolucionario traducido al suletino (...)” (Díaz Noci eta Urquijo, 1998: 314)

Jarrera honek ez du luze iraungo eta 1795eko ‘2 Thermidor’ dekretuak frantsesa ez beste hizkuntza guztiak debekatuko ditu bizitza publiko nahiz pribaturako. Tartean Grégoirek eta Barrerék bigarren konbentzioan aurkezturiko informeak leudeke, aurreko mendeetan estatuak frantsesa lehenesteko eraikiriko ideologia⁸⁶ muturrera zeramatenak:

“[Barreréren infortetik] Euskaldunak, arbasoen ondare bezala ikusten duten hizkuntza zoli eta nabar horrekin, beren apaizen menpe daude (...). Federalismoa eta sineskeria bretoieraz mintzatzen dira; emigrazioa eta Errepublikarekiko gorrotoa alemanez ari dira; kontra-iraultzak italieraz egiten du eta fanatismoak euskaraz. Apur ditzagun aurreiritzi eta errore-tresna hauek. Hobe da jendea eskolatzea, eta ez itzulpenak egitea: kontra-iraultzaile eta fanatikoak baizik zerbitzatu ohi ez dituzten jargoi barbaro eta hizkuntza arlote horiek mantentzea guri balegokigu bezala (...) Frantsesa, hizkuntza unibertsal bilakatuko da, herrien hizkuntza izanez, (...), frantses guztien hizkuntza bilakatu behar du. (...) Herri libre batean, bat bera izan behar du hizkuntzak, eta guztientzat berdina.” (Intxausti, 2014a: 190)⁸⁷

Hurrengo hamarkadako praxiak ez zuen bortizkeria maila honi eusterik izango, baina horiek izango dira aurrerantzean frantziaren hizkuntza politikaren oinarriak (Díaz Noci eta Urquijo, 1998: 314-316; Intxausti, 2014a: 177-196; Madariaga, 2008: 144-146).

Hegoaldean prozesua mantsoago eman zen, baina norabide berean:

“La agonía del sistema foral que va a irse desgranando en una serie de jalones bélicos, jurídicos y políticos a lo largo del siglo XIX: 1812, 1820, 1839, 1841 y 1876, se solapará a una campaña de desprestigio institucional y cultural vasco, en la que la lengua, una vez más, va a estar situada en el ojo del huracán. Según se configura el nuevo espacio político administrativo de los regímenes liberales y se va desarrollando el modelo económico-social capitalista, la supervivencia de la lengua vasca empieza ser considerada como una anomalía, simpática en unos casos, añorante en otros, poco tolerable en los más.” (Madariaga, 2008: 154)

Foruek XVI. mendeko euskararen apologiak zituzten oinarri legitimatzaile gisa (Gabilondo, 2016: 103; Madariaga, 2008: 87): Juan Martínez de Zaldibiaren ‘Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas’ (1560), Esteban de Garibayren ‘XL libros del Compendio historial de las chronicas y universal historia de todos los reynos de España’ (1571) lanaren

⁸⁶ Ik. 3.3.2 Hizkuntzen digestioa

⁸⁷ Grégoire bat dator Barrerék euskararen inguruan esandakoekin: “(...) con respecto al euskera, abundaba en la impresión de Barère: un idioma de personas proclives al fanatismo y un obstáculo para la propagación de las luces” (Díaz Noci eta Urquijo, 1998, 315). Biek eskatu zuten itzulpenak alboratzea eta frantsesaren zabalkunderako eskola nahiz prentsa baliatzea.

laugarren liburukia, Andres Pozaren ‘De la Antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas’ (1587), Baltasar Etxaberen ‘Discursos de la antigüedad de la lengua cántabra Bascongada’ (1606)...⁸⁸ Apologia hauek agertu ahala izan ohi zituzten erantzunak, baina XIX. mende hasieran antolatatu zen behin betikoa izan nahi zuen jazarpena: “(...) una ofensiva teórica auspiciada por el gobierno de Madrid, cuyo objetivo final era la derogación o al menos la reforma de los Fueros, pero que se centraba en desmontar especulativamente las pretensiones históricas y lingüísticas de los tratadistas vascos. (2008: 146). 1802an Espainiako Historia Akademiak abiarazirik Espainiako Hiztegi Geografiko-Historikoa Martínez Marina, Traggia, Abella eta Arnauk sinaturikoa; Jose Antonio Conde arabistak idatzirik ‘Censura crítica de la pretendida excelencia y antigüedad del vascuence’ (1804) eta ‘Censura crítica del Alfabeto primitivo de España y pretendidos monumentos literarios del vascuence’ (1806); Francisco Martínez Marinaren ‘Ensayo histórico-crítico sobre el origen y progresos de las lenguas, señaladamente el romance castellano’ (1805); edota José Antonio Llorente kalonjearen ‘Noticias históricas de las tres Provincias Vascongadas’ (1808) izango dira, zentzu honetan, lanik aipagarrienak, guztiak Erret-inprentetan argitaratuak.

1812ko Cadizko Konstituzioak ezbaian jarriko zituen Foruak, 1820an Fernando VII.aren aginduz eratutako Juntak aboliziorako argudiaketa juridikoa argitaratu zuen, Lehen Gerrate Karlista (1833-1839) liberalek irabazi zuten Foruen kaltetan, 1841ean Nafarroakoak deuseztu ziren eta gainerakoak 1876an Bigarren Gerrate Karlista (1872-1876) berriro ere liberalek irabazi ondoren.

Botere zentralak Antzinako Erregimenarekin lotzen zituen Foruak, modernitatearen eta Espainiaren homogeneitatearen izenean atzean utzi behar zirela gaineratuz. Antzeko jarrera finkatu zen euskararen inguruan ere: Hezkuntzan izan zezakeen ezein zirrikitu itxiko zitzaion 1857ko Irakaskuntza Publikoko ‘Moyano’ legearekin; 1862ko Notaritzea legeak dokumentu publiko guztiak gazteleraz bakarrik idatziak behar zutela ezarri zuen; 1867ko Erret-Aginduak euskaraz idatzia zentsuratu beharra.

4.1.3 Atzerriko begiradaren hauspoa eta erreakzio kulturalista

Mende hasierako oldarraldiari apologista belaunaldi berri batek erantzungo zion. Pedro Pablo Astarloak ‘Apología de la Lengua Bascongada o ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen’ (1803), ‘Reflexiones filosóficas de defensa de la Apología de la lengua bascongada’ (1804) eta ‘Carta de un vascongado al señor don Tomás de Sorreguieta’ argitaratu zituen; eta Juan Bautista Errok ‘Alfabeto de la lengua primitiva de España’ (1806), ‘Observaciones filosóficas en favor del alfabeto primitivo’ (1807) eta ‘El mundo primitivo o Examen filosófico de la antigüedad y cultura de la nación bascongada’ (1815). Aurreko apologistak jurista eta historialari laikoak baziren, euskal nobleziaren orbitakoak, elizgizonak izango ziren hauek, prestaketa aldetik ahulagoak, eta Antzinako Erregimenaren defentsan gotortuak. Apologiaren ohiko tradizioetik urrunduaz euskarazko literatur eta itzulpen lanekin ekarpen askoz interesgarriagoa egin zuten Juan Antonio Mogel eta Pedro Antonio Añibarro ere garai eta zirkulu berekoak ziren.

Erreakzio honek Europa mailako Erromantizismoaren zabalkundearekin kointziditu zuen. Kultura popularraren bilketarako deia zabaldu zen Europa osoan zehar, eta aipatu den gisan mugimenduaren aitapontekoak berak, Herderrek, seinaturiko bideari jarraituz Karl Wilhem von Humboldt hizkuntzalari alemaniarrak bi egonaldi luze (1799 eta 1801) egin zituen Euskal Herrian. Bere ikerketa burutzen ari zelarik Astarloa, Mogel, Añibarro eta enparauen

⁸⁸ Tubalismoa, Euskoiberismoa edo Euskokantabrismoan adarkaturik, XIX. menderaino iraungo zuen tradizioan.

zirkuluarekin hartu emana izango zuen eta hauek defendatzen zuten euskoiberismoa, egokitua eta doitua, Europara zabalduaz kontinentean euskara ezagutaraztea izango zen alemaniarren ekarpen nagusia:

“Defendió tesis ya rancias, sobre todo la del vasco-iberismo, pero desprovistas del magma religioso y basándose en criterios exclusivamente científicos, si bien equivocados. Contribuyó notablemente a difundir el conocimiento de la lengua vasca y sus supuestas o reales peculiaridades por todo el ámbito científico europeo.” (Madariaga, 2008: 142)

Humboldt figura esanguratsu bat zen alemaniar erromantizismoaren baitan, eta bere lanek izaniko oihartzunari erantzunez Euskal Herriari buruz idazteari ekingo dio hainbat atzerritarrek: “(...) el número de autores nacidos en el país que participaron en las nuevas elaboraciones entre 1833 y 1876, representó una minoría, apenas un 10%, sobre los extranjeros (...) Sus temas preferidos, la etnohistoria y la historia política” (Aizpuru, 2001: 26). Euskarari eta euskal kulturari prestigio berri bat eman zion atzerriko begirada honek: “El hecho de que autores extranjeros se preocupasen por el estudio de las costumbres, historia y lengua vascas, aportó, especialmente a esta última, un prestigio del que, hasta entonces, había carecido, tanto en el país como fuera de él” (id.: 26-27).

Bisitari hauek eginiko ekarpenen artean Luis Lucien Bonaparte printzeak eginikoek aparteko aipamena merezi dute. Mendearen erdi aldera ekin zion euskara ikertzeari, hiru hamarkada luze eman zuen horretan, batez ere euskalkien inguruan lan eginaz eta 68 liburu argitaratuz, eta antolatu zuen laguntzaile sare zabalean euskararekiko grina piztea eta maila zientifiko txukun bat hartzea lortu zuen⁸⁹. Frantziako II. Inperioaren buru zen bere lehengusu Napoleon III.ak izendatu zuen ‘Printze’ 1852an eta urteko 130.000 frankoko pentsioa esleitu zion, zati handi batean euskararen ikerketara bideratu zuena: “Dirutza ederrak ere eralki zituen bere lankideei agindutako itzulpen eta bestelako lanak ordaintzen, lanok argitaratzen, etab” (Zuazo, 1991: 12). Beste bulkada garrantzitsu bat izan zen euskaldungoaren prestigioarentzat: “Euskara, ‘baserritar’, ‘arrote’, (...) eta, oro har, jende xehearen (sasi-)hizkuntzatzen zeukatenak, apurka-apurka, aintzakotzat hartzen eta arreta haundiagoz begiratzen hasiko ziren (...) ahalegin haien buru-buruan prestigio handiko Printze bat ikustea ez zen, izan ere, txantxetako gauza.” (Aizpuru, 2001: 12)

Azkenik, mendearen bigarren erdi horretan, euskal komunitatearekiko Europaren interesa piztuko zuen beste olatu bat altxa zen: Broca, Retzius, Collignon, Hervé eta beste hainbatek moda modan jarri zuten antropologia fisikoak, euskara Europako hizkuntzarik zaharrena izan zitekeela zioten hizkuntzalarien teoriekin bat eginaz, euskal gizakia jarri zuen kontinenteko jatorrizko arrazaren aferaren xede puntuan. Erromantizismoak sustraien inguruan zuen lilurak sekulako hauspoa eman zien planteamendu hauei, Gabilondoren hitzetan euskal nortasun modernoaren sorrera eman zelarik Europako indigena gisa: “(...) the Basques became the only “native savages” inside Europe, who were, at the same time, white (...) a new identity that was both interior and anterior (the only colonial subject interior to Europe, yet older than imperialist Europe) (...)” (2016: 187)⁹⁰.

Fenomeno guzti honek hauspoturik euskara foruen defentsa ideologikorako argudio soil gisa bakarrik erabiltzetik, alegia, bestekotze gordin batetik, norbere nortasun berezituaren

⁸⁹ Maila zientifiko onekoa zen Bonaparteren lana eta besteak beste Oxford unibertsitatearen ‘Doctor Honoris Causa’ titulua lortu zuen. Bestalde, aipatu behar da bere laguntzaile sareko kide asko garrantzitsuak izango direla Abbadieren Lore Jokoetan eragile, epaimahaiko edo parte hartzaile gisa. Honela, Duvoisin, Otaegi, Intxauspe... Abbadie bera ere kolaboratzaile izan zuen eta besteak beste laguntzaile sare hori osatzen lagundu zion

⁹⁰ Ik. 3.2.4 Euskal kulturaren deskubrimendua: hizkuntzalariak, antropologoak eta euskaldun basati ona

funtsezko osagaia dela aldarrikatzera pasako da bertako hainbat ahots: Ulibarrik euskarazko lehen almanaka argitaratuko du (1815); Iturriagak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskariz, lehen ikasmaterial elebidunak (1841); Chahok euskarazko lehen aldizkaria (1848); Abbadiek Lore Jokoak jarriko ditu martxan (1851); eta Bigarren Gerrate Karlistan administrazio karlistak toki bat eskaini nahi izango dio euskarari (Intxausti, 2014a, 116) euskarazko eskolaren proiektu bat ere zirriborratuko duelarik (Madariaga, 2008: 153).

Gerrate Karlistak pizten direnean nazionalismo etnikoaren logikaz ulertuko dira Europan:

“El militar inglés Henry Wilkinson que luchó en el bando liberal, acompañó su descripción de las campañas de la primera guerra carlista con una selección de *national music*; fué un periodista británico el que calificó a Muñagorri como *the basque patriot* en el periódico *United Service Journal*; el escritor francés Justin Cénac-Moncaut calificó el Gernikako Arbola como *Chant national*. El mismo Pierre Larousse subrayaba que, a diferencia de otros pueblos como el castellano, el andaluz, el bearnés o el gascón que hacían gala de su calidad de españoles y franceses, respectivamente, ‘el Vasco (...) es, ante todo Vasco y prefiere ese título a cualquier otro.’” (Madariaga, 2008: 27).

Eta Bigarren Karlistadaren ondotik etorri zen Foruen galera izango da protonazionalismo zantzuak dituen erreakzio kulturalista bere indar guztiz lehertaraziko duena:

“El sistema político de los territorios vascos y la pervivencia de la lengua se veían pues como vinculados, tanto por detractores como por apologistas de la lengua, en el momento de la liquidación foral. Por ello no debe extrañar que coincidiendo con la supresión de las instituciones tradicionales se produzca un movimiento de recuperación especialmente cultural (...)” (Madariaga, 2008: 156)

Lehen Euskal Pizkundea jarriko da martxan:

“(...) la vigorización del sentimiento vasquista no surgió directamente de los agitadores políticos, sino de aquellas personas, aficionadas a la historia, a la literatura o a la lingüística, que exponían la conveniencia de respetar y seguir la tradición histórica de los pueblos.” (Aizpuru, 2000: 61)

Mendeetako bestekotzeari kontzientzia berria gailendu zaio:

“Hizkuntzaren kontzientzia espiralean gora doan fenomeno da (...) eta hauxe da azken pauso nagusia (1876-1886), gure herriaren nortasun-funtsa ez dago Foruetan bakarrik edo bereziki: Euskal Herria nazio bat da, eta gure nortasun nazionalaren zutoinetako bat da hizkuntza. (...) bere herritasuna salbatzeko, nazio izaten irauteko, hizkuntza nazionalaren praxi sozial osoa, molde berrikoa, eskatuko du abertzaletasunak” (Intxausti, 2014a: 135)

4.2 AURREKARIAK I: BERTSOLARITZAREN HISTORIAKO LEHEN LERROAK

4.2.1 Villabonako desafiotik hasita

1824ean Donostian argitaratu zen Juan Inazio Iztuetaren ‘Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia’ da bertso-saio baten berri zehatza jasotzen duen lehen testua. Honela dio izenburutzat ‘Itz neurtulari edo bertsolarien jostaketa’ daraman kapituluan:

“Datorren otsaillean izango dira ogeitabi urte⁹¹, Billabonako plazan jokatu zutela itz neurtu edo bersoetan bostna onza urre, lendaaz apustua egiñik, Zabala Amezketarrak eta Txabalategi Hemanikoak; zeñean izandu nintzan ekadoi edo jueztako Zabalak billatua; baña egun batzuek aurretik eritasun txiki batek artu ninduelako, ez nuen serbitu, eta nire ordeztan eraman zuen bere erritar Fernando; baita Txabalategik ere, Aizarnazabalko elizaia; eta Billabonako alkate jaunak, erabakitzaile D. José Mendizabal Tolosako apez aundi sonatu ura ifinirik, lau milla ta geiago personaren aurkezian kantatu zuten bi orduz jokalariaik (...)” (Iztueta, 1990: 145).

Ezagutzen den bertsolaririk antzinakoena, berriz, Beñat Mardo barkoxtarra da. Gaurdaino ez da bere jaiotze nahiz heriotza datarik topatu, baina XVIII. mendearen bigarren erdian entzute handiko bertsolaria izan zela ezarri ahal izan da. Agosti Chahok garai bat markatu zuela aitortu zion (1855: 159-161) eta Louis Dassancek bere bertso batzuk 1769an jarriak izan zirela zehaztu ahal izan zuen⁹².

Iztuetak hiru hamarkada geroago Billabonako plazan kokatzen dituen bertsolarien inguruan xehetasun gehiago ezagutzen dira bertsolari zuberotarrak baino. Desafio hartan elkarren aurka aritu ziren Juan Inazio Zabalaren (1774-) nahiz Jose Joakin Erroizena *Txabolategiren* (1769-1819) inguruko hainbat datu argitu da gerora, epaile lanetan aritu zen Juan Bautista Altamira Aizarnazabalko sakristauaren inguruko zerbaitzuk ere bai, eta epaile lanetan aritu zen Fernando Bengoetxea Altuna *Fernando Amezketarra* (1764-1823) aski ezaguna da egun.

Bertsolaritzaren historiaren lehen lerro hauek harilkatzeko elementu garrantzitsu bat bertso paperak izan dira. Antonio Zavalak garai hartan kokatzen du fenomeno honen hastapena: “En este primer tercio de siglo, que termina con el comienzo de la primera guerra carlista en 1833, empieza a florecer el bertso-papera o kanta-papera (...)” (1964: 30). Izatez, sektore kultuek Bilbon eta Donostian elizetan abesteko inprimaturiko gabon kantekin XVIII mendean abiaraziriko praktika bat izan zela dio, herri xeheak berehala bere egin, azoketan salerosi eta gaitegi zabala eman ziona. Honela, garaiko kirol apustuei buruzko bertso paperak topatu ahal izan dira, erlijiosoak, ardoari edo gerrari jarriak...

Bertso-paperek garaiko bertsolaritzan arakatu ahal izateko corpus bat osatuko dute. Corpus horri hurrengo hamarkadetan agertuko diren ikerlariak herriaren memoriatik erreskataturiko bertsoak eta artxibategietatik jasotako datuak gehituko zaizkio, eta guzti honek bertsolaritzaren historiaren lehen lerroak osatzeko lehengaia eskainiko du.

Lehengai horri aldiro buelta berri bat emanda ezagutu ahal izan dira Villabonako desafioko bertsolarien biografiak eta bertsoak, eta bide beretik iritsi da gaurdaino euren garaikideak izan ziren beste dozena bat bertsolarien entzutea ere. Batzuetan ezizen soil gisa, garaiko bertsoetako aipamenetatik bakarrik ezagutzen diren Ametza, Otobezino, Martin Amorex, Prantxisko Irabarren, edo Albitxuarraren kasuan bezala. Beste zenbaitetan, De la Fuentetarrak

⁹¹ Pablo Gorosabelen *Noticia de las Cosas Memorables de Guipúzcoa* lanean (1899) 1801eko otsaillean ezarri zen data, Iztuetak zehazteke uzten duena. Geroztik, bertsolaritzaren historia jorratu izan duten lanetan ontzat eman izan da data hori, baina puntu honen inguruan egindako azterketa xeheago batean Aranburu, Bidegain, Idiakez eta Rezolak, 1802ko otsailera atzeratzen dute (1993: 48). Ladislao Velascoren *Los Euskaros en Alava, Guipúzcoa y Vitoria. Sus orígenes, historia, lengua, leyes, costumbres y tradiciones* (1879) darabilte iturri alternatibo gisa. Bestalde, Iztuetaren testua 1824ean argitaratu zenez, 1823an idatzi zela suposatzen eta ‘datorren otsaila’ horrek 1824koa behar duela kalkulatu da.

⁹² Pierre Lhandek ezkontza baten inguruko Mardoren koplak deskubritu zituen, Pierre Lafittek argitaratu (‘Deux chansons de Beñat Mardo’, *Gure Herria*, 1950/XI, 293-299 orr) eta Dassancek, kopletan aipatzen ziren izenetatik, ezkontzaren ziurtagiria topatu (‘Chronique de la chanson basque: A propos de Beñat Mardo’, *Gure Herria*, 1967/XI, 289-296 orr).

(Antonio 1750-1830 eta Juan Kruz 1760-1836 *Durangoko Plateruak*, Bizkaian ezagutzen diren zaharrenak), Agustin Arruti aiarra (1780-1837, *Izuelako Artzaina*) edo ezagutzen den lehen nafar bertsolaria, Jean Etxamendi *Bordel* (1792-1875), oihartzun osoagoaz.

4.2.2 Juan Inazio Iztueta, lehen euskal folklorista (1767-1845)

Iztuetaren biografiek zaldibiar honek euskal dantzen lehen eragile garrantzitsu gisa egindako lana azpimarratzen dute nagusiki. Dantzari eta irakasle bikaina, hainbat dantza talde sortu zituen Donostian eta Gipuzkoako zenbait herritan, tradizio honen etorkizuna bermatzeko ezinbestekoak suertatuko zirenak. Izatez, bertsolaritzari atala eskaintzen dion liburua 36 euskal dantza jaso eta hauek irakasteko metodo gisa idatziko du bere zatirik handienean.

Bertsolaritza ere gertutik bizi izan zuen, ordea: ezteietara eta gisako ospakizunetara bat-batean aritzeko deitzen zuten (Aranburu et al, 1993: 92), bertso jartzaile joria izan zen, Agosti Chahok aditzera ematen duenez sona handikoa (1855: 155), eta garaiko bertsolariekin harreman estuak izan zituenaren zantzuak ere badaude. Berak idatzita jasotzen denez, epaile gisa aritzekoa zen Villabonako desafioan Juan Inazio Zabala bertsolariak aukeratua, eta bertsolariek konfiantzazko norbait eraman ohi zuten horrelakoetan. Bestalde, 1801eko abenduan, elkarrekin atxilotu zituzten Iztueta eta Zabala, Zeraingo eskribauaren, Martin Aldasororen, etxean lapurtzera sartu eta emaztea eta biak erasotzea egotzita (Otermin, 2008: 345-346). Horrelako saltsa batean elkarrekin sartzeko Zabalarekin behintzat harreman estua behar zuen eta Fernando Amezketarra ere, Zabalaren herrikidea, ongi ezagutuko zuen⁹³.

Gertuko bizipen eta ezagutza hori nabaria da ‘Gipuzkoako dantzen kondaira edo historia’n. Villabonakoaz gain, 1802ko inauterietan Tolosan Fernando Amezketarra, Txabalategi, Zabala eta Altamiraren artean buruturiko bigarren desafio baten kontakizuna dakar testuak, kronikara hurbiltzen duten tokia, publikoaren erreakzioei eta giroari buruzko erreferentziak:

“Plaza zarreko baranda banatara igorik kantatu zuten arratsalde guzian bi bitara. Ain atsegintasun aundikoa ta pozkidatsua izandu zan arratsalde gogoangarri ura ezik, illunduta gero ere, deadarka zeuden enzuleak aurrera ere kanta eragiteko, eta uste det, baldin eguna zabaldu arterañoeko guzian ere ari izandu balira kantari etzala aldonduko enzuleen artekorik iñor ere.”(1990: 149)⁹⁴

Oso da aberatsa Iztuetaren ekarria. Bertso jarrien bi sail, Fernando Amezketarren pasadizo bat eta garaiko bertsolaritzaren inguruko azalpen orokor batzuk ere eskaintzen ditu. Gaia espreski jorratzen duen lehen testua izanik bere alderdi guztietan da aitzindari eta bidegile, baina hauetako batzuk, izan duten sokagatik, bereziki azpimarratzekoak dira. Pasadizoa bera

⁹³ Bizitza oso gorabeheratsua tokatu zitzaion Iztuetari, XVIII mendeko pertsonaia erromantiko muturrekoenen pare. Honela, 1801eko atxiloketa hartatik Zabala berehala askatuko zuten, baina Iztuetak, lapur taldearen buruzagitzat hartu zuten, eta Zaldibiako bikarioak egindako herejia salaketagatik Inkisizioaren Logroñoeko Auzitegiak ezarritako zigorra gehitu zitzaionez, sei urte egin behar izan zituen espetxeratuta. Bere bertso sail famatuena ‘Kontxesiri’ izenekoa, espetxealdi horretan idatzi zuen, bere bigarren emazteari, biak preso zirela Azpeitiako kartzelan ezagutu zuen Concepcion Bengoetxeari, zuzendua.

1814ean eta 1815ean berriro atxilotu zuten, kasu hartan Frantsesteko gerran frantziarren kolaboratzaile izatea egotzita, eta enbargoa nahiz deserria ezarri zitzaizkion zigor gisa. Hirugarren aldiz ere ezkonduko zen...

⁹⁴ Generoaren urrezko araua, kontatu beharrekoa bertatik bertara jaso izana, nahikoa modu heterodoxoan betetzen da kasu honetan Antonio Zabalak eskaintzen duen xehetasun zapoetsuak agerian uzten duenez: “Iztueta, bolara artan, Tolosa'n zan, bañan kartzelan:1801'eko abenduaren 6'an preso artu, 18'an Tolosa'ra eraman, eta 1802'eko maiatzaren 11'an Azpeiti'ko kartzelara aldatua (...) kartzela udaletxean baldin bazan, plaza zarrean alegia, etzegoan Iztueta bertsolariengandik urruti (...) an egongo zan gizarajoa, belarriak erne-erne, illunpe artatik bertsoak entzun naiean (...) Kontu polita au ere: bertsolariak plazan kantuan, eta aien kronista edo berri-emalea bertsuak espetxetik entzuten.” (1980b, 18-19).

mende bat beranduago sekulako arrakasta izango duen formula estreinatuz emango du: Fernandok bertso biribil batekin buelta eman dion egoera azaltzen duen kontakizun oso laburra. Eta bertsolaria basati onaren mitoarekin jantziko du, gerora hainbatetan bezala:

“Gipuzkoako itz neurtularien artean badirade mutillak, eskolatu gabekoak izan arren, bularrarekin batean erodiski edo mamatu zuten itzkunza gozoan, eta beren bizimoduari dagokion edozein izkairen gañean ariñ asko ixilduko lituzketekeanak, jakinduriaren gordeleku guziak gañez egiteraño beteak dauzkatela uste duten orietakoak” (1990: 147).

Bertsolaritza, bere antzinatasuna milaka urtekoa izan daitekeela nabarmentzeko Antzinako Greziako artzain jolasekin lotzen duenean ere, gerora Manuel Lekuonak eta beste hainbatek esango dituztenen aurrekari izango da: “Virgiliok esaten du bere artzai jolas edo Eglogaetako batean, nola bein batez ari ziraden Tirzi eta Damon apustua egiñik itz neurtuetan jokatzeko, Platon erabakitzaile zutela, eta onek eman zuela bere debede edo falloa itz neurtuan, jokalaria biak berdiñean utzitzen zituela” (1990: 147).

1826an bigarren liburu bat argitaratuko du ‘Euscaldun anciña ancínaco ta are lendabícico etorquien on iritci pozcarri gaitzic gabecoen soñu gogoangarriac beren itz neurtu edo versoquin’ izenburuarekin. Bertan, bi urte lehenago aldarrikaturiko bertso biltzaile lanak egiten ditu, bertsoak kantuekin nahasian eta euskal dantza ezberdinen musiken letra gisa jasotzen baditu ere. Edozein kasutan ale zaporetsuak dakartza honek ere. Esaterako, gerora soka luzea izango duen eztabaidari, bertsolaritzaren tokiarena, posizionamendu egokitik ekiten dio, bertsolaritza baloratzeko marko propioa aldarrikatuz:

“Pretender en los cantos vulgares las conbinaciones sublimes del arte, sería un error grosero; pero cuando en medio de su sencillez y abandono tienen el acierto de la expresión, de la analogía con el objeto y según el asunto, de la sensibilidad peculiar á él, si puedo expresarme así, ya entonces puede inferirse la disposición de los pueblos para el arte encantador de la armonía y (...) de aplicar la melodía a la manifestación de sus afectos y de sus sensaciones” (1826: 7).

Azkenik, hirugarren liburu bat ere argitaratuko du, 1847an, ‘Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia’ bertsolaritzari ekarpena egingo diona. Izenburutzat ‘Gipuzkoako biztanle prestuen doai, griña, izaera, eta eginbideak’ daraman kapituluan, 1824ko planteamenduak dakartza, fínduta, baina berrikuntza nagusia hitzaurrean ekarriko du, herri kulturaren ikerketaren balioaren aldarriarekin:

“Los historiadores en general se han detenido casi siempre mas en la relacion de batallas, de empresas aventuradas y cuando mas de ciertos atributos característicos de la índole de los pueblos, que en el exámen de sus costumbres privadas, de sus diversiones domésticas, y de la expresión vulgar de sus sensaciones” (1969: 4)

Ikerketa gonbaratuari ere lerratuko zaio, bere ikuspegiaren zabaltasuna, nabarmenduz:

“(…) de la comparación de las lenguas y de las legislaciones se deducen antiguas comunicaciones entre pueblos muy lejanos unos de otros (...) Bajo este punto de vista la colección que doy al público podrá ser de utilidad

inmensa cuando este ejemplo sea imitado en otras partes y existan medios de comparar las tradiciones musicales de los pueblos (...)” (id, 4)⁹⁵.

William John Thomsek 1846an ‘Folklore’ hitza sortu zuenerako biltzaile zaldibiarrek eginak zituen bere lanak. Honela, lehen euskal folklorista izan zela aitortzen zaio (Aranburu *et al.*, 1993; San Martin, 1967 eta 1981; Madariaga, 2008). “Garibai eta Oihenartek lehenago bildu zituzten zenbait herri kanta, Larramendiren «Coreografía» eta Mogelen «Peru Abarka»-k ohitura eta bizibideak, baina hoietan oraindik ez zen nabari erromantikoen kultur berritze mugimendua (...)” zehazten du San Martinek (1981: 5). Penintsulako lehenengoa izan zela gaineratzen du eta gehiago ere badio: “Agintari eta elizaren aldetik kritika gogorrek jaso zituen (...) Baina berak hasi zuen lan harek jarraitzaileak izan zituen, bertako seme eta herbestetik etorriekin. Xaho, Borrow, Fr. Michel eta Sallaberry. Eta erromantiko mugimenduaren gailurrean Jose Manterola bere ‘Cancionero Vasco’arekin (...)” (San Martin, 1981: 7-8).

Lehen euskal folkloristak bertsolaritzari erreparatu zion. Bada zerbait. Eta Zavalak nabarmen azpimarratzen du zaldibiarrek alor honetan eginiko ekarpena:

“Antes de las fechas citadas, apenas se encuentra otra cosa que confusión y fragmentos. Pacientes investigaciones podrán aportar alguna luz, pero hoy por hoy lo tenemos todo muy oscuro. Es Iztueta (...) quien nos lanza de golpe un chorro de luz y tiene así el mérito de ser el iniciador de la historia del bersolarismo (...)” (Zavala, 1964: 16-17).

4.2.3 Bertsolaritzarekiko jarrerak XIX. mendearen lehen erdian

Iztuetak XVIII. mendearen lehen erdi hartan bertsolaritza oso zabaldua zegoela erakusten du: “(...) irauten du Gipuzkoan gaurko egunean ere, bere sasoirik oberenean bezin irme ta sendoki. Sarritan ikusten dira, bada, Gipuzkoako plaza agirietan itz-neurtulariak apustu andiak lendanaz eginik jokatzeko buruz buru, bi bitara, eta lau lauren kontra ere, erabakitzaile gizon adietuak ifinirik” (1969: 145). Eta garaiko bertsolaritza formalki oso garatua zegoenaren zantzua ere ematen du, Fernandoren pasadizoan bederatzi puntukoa jasoaz neurri hori garai hartan oso ohikoa zela gaineratzen baitu.

Dena den, babesik gabe ere ikusten ditu bertsolariak: “ez bide dute, suertez ere, beren etxapean, ez seme, eta ez adiskide begirune onarekin begiratzen diezatenik; eta argatikan daude gaxo urrikarriak, txoko bazterretara izkutaturik, beren distiazio ederra erdoia eta amalaunak arras galtzen diezatela (...)” (1990: 147). Horrela, zenbaiten aldetik mesprezua eta burla ere nahikoa ohikoak omen dira: “(...) ezpañak okerkara ifinita, itza ume gisara adindurik, lepoetako zaiñak urretzeko zorian garraxika marraskaz egon oi diradenean, baserritar itz neurtulari atsegiñezkoen siñuak egiten: ustez ezen an ixurtzen dituzten dollorkerizko lotsagabekeriakin anaia prestuak iraindurik, egiten dituztela beren buruak txit jakintsun, aundi”. Eta debekuen berri ere ematen du, alkateek, ‘zenbait alkate kaskabel’ dio berak, zeregin hauetan hartzen zituzten lanak salatuz.

Bere azken liburuan hainbatetan errepikatzen du, ideia nagusi gisa, herri xehearen agerpen kulturalak lagundu egin behar direla, ez debekatu, horrek herria zoriontsuago eta ondorioz goberna errazago egingo bailuke: “(...) juez onari dagokio erria estalpetzea alako jostaldietan: maneratu eta apaindu berentzako señalaturik dauden tokiak (...) aurkeztuko

⁹⁵ Natalie Borel-Borotra ikerlariak Iztuetaren planteamendu hauen izaera berritzailea azpimarratzen du: “(...) la lecture de la préface de l’édition de 1826 situe encore le travail d’Iztueta dans une perspective avant tout intellectuelle” (2000: 360).

baliz ikustera, obekiago izan bear du animatzeko, ezen ez beldurzeko edo menpea emateko (...)” (1990: 137). Amezketak jartzen du eredu gisa, esanaz, han bertsolaritzak ez duela debekurik eta horregatik atera izan direla bertatik hain bertsolari onak.

Jada aipatu izan da Azurmendik (1980) garai hartan bertan bertsolarien aurka elizak zeukan jarreraren adibide batzuk bilduak dituela⁹⁶. Bartolome Madariagaren⁹⁷ sermoia jasota gelditu da, baina merezi du bere tartea Jean Baptiste Camoussarryk, Donibane Garaziko bikarioa, ere. 1838an ‘basa koplaria’ deitu zion bertsolariari, infernura kondenatuz, koplatan hain zuzen:

“12-Bazka ona ikustean nola astoek irrintzina, hala arnoa dastatzean koplariak umor ona.	13-Huna tripa arnoaren suaz duenian berotua ergelkeria kantuz hausten dautzute burua.	14- Zerratu behar badire presondegian zoroak zerra beraz, zerra ere basa koplari erhoak.
15-Ezin deitzake arrima lau bertsu txar elgarrekin, ez baditu, o lastima! Lokarritzat lau hitz zikin.	16-Ikara hadi, tristea laster baho hobirat, ikusak hire zortea kantuz hoa infernurat.” ⁹⁸ .	

Juan Bautista Agirrek, aldiz, debekua azpimarratzen du 1850ean argitaratu zen *Jesucristo eta Virgiña chit Santaren Misterioen, eta beste cembait gañean Eracusaldiac* sermoi bilduman: “Españaco legueac aguintzen du, ez dezala iñorc ere esan, ez cantatu itz desonestoric, ez gauaz, ez egunaz, caleetan, placetan, eta bideetan, eun azote eta urte betean deserituric vicitzeco penaren azpian” (Eracusaldiac, II, 1850, XVIII. platica, 9).

Iztuetak aipatzen dituen agintarien debekua edo zenbaiten mesprezua, edo Azurmendik jasotako elizgizonen bertsolaritzaren aurkako seta, ez dira ezerezetik sortuak. Testuinguru zabalago batetik datoz, European kultura popularrak izandako bestekotze prozesu luzetik.

Testuinguru zabal horretatik Erromantizismoaren kultura popularrarekiko lilura ere hasi da, ordea, pixkanaka Euskal Herrira iristen. Iztueta bera oso kontziente da European garatu den fenomenoaz: “Erbestearrak berak ematen digute biderik aski, geren jostaketak itzkribuz aundizkatzeko ez ezik, biotzez ongitxo maitaturik, naierara gozatzen ditugula, gordakiaitzeko ere” (1990: 147). Eta bertan jende jantzia bertsolaritzaz interesatzen hasia dela gaineratzen du: “Artikaste aundiakiko gizon jakinti askori aditu izan diotet esaten, guziz ikaragarria dala eskolatu gabeko itz neurtulari oen alainzo edo talentu jakinduriazkoa” (1990: 149).

Bertsolaritza eta euskal nortasun nazionalaren arteko loturaren lehen zantzu bat ere eskaintzen du zaldibiarrek, Herderrek kultura popularra izpiritu nazionalaren adierazle

⁹⁶ Bestelako adibideak ere topatu ahal dira. Adibidez, Juan Ignazio Urretabizkaia Amezketako erretorea (1806-1834) maila oneko bertsolaria zen (Otermin, 2006: 189). Amezketak eremu babestu, berriro ere.

⁹⁷ Fray Bartolomerekin liskar sonatua izan zuen Iztuetak (Aranburu *et al.*, 1993: 102-109). Bartolomek 1816an *Euscal-errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba* argitaratu zuen Iruñean, eta eskutizetan ikus daitekeenez, ez zituen ez dantzak eta ez Iztueta atsegin. Iztuetari ere beste hainbeste gertatzen zitzaion fraidearen sermoiekin. Eta gutun trukaketa gordin bat eman zen, Juan Jose Mogelek 1828 eta 1829an ‘Plauto Bascongado’ eta ‘Anti-Plauto Poligloto’ izenburuekin argitaratu zuena.

Plauto latindar antzerkigile eta poetaren «Poenulus» komediaren inguruko auzi zaharra aurkitzen da fraidea eta zaldibiarren arteko auziaren sorburuan: Testu honek hizkuntza ezezagun batean idatziriko bertso batzuk zituen, Iztuetak euskara izan zitekeela otu eta itzulpen bat bidali zuen auzia argitu nahian zebilen Parisko Ikerketa Asiatikoen Elkartera; Iztuetaren lan honi hainbat laudorio egin zitzaizkion tartean Tolosako unibertsitateko Fleury Lécluse irakasleak bere ‘Manual de la langue basque’ (1826) lanaren sarreran ‘Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira’ ere aipatuz egin zizkionak; Fray Bartolomek bataren zein bestearen lanen aurka idatziz ekin zion eta eztabaida bi urtez luzatuko zen elkarri epelak esanaz.

⁹⁸ Hamasei koplataz azken bostak dira hauek. Aulestiaren ‘Bertsolarismo’-tik jasoak.

garrantzitsu bat dela zabaldu zuenetik hamarkada gutxira: “(...) la coleccion que ofrezco al público (...) no debe mirarse solo como un objeto de pasatiempo, sino como un verdadero monumento nacional (...)” (Iztueta, 1826: 8)

Giro eta testuinguru honetan agertuko dira prentsako bertsolaritzari buruzko lehen testuak.

4.3 AURREKARIAK II: PRENTSAKO LEHEN LERROAK BERTSOLARITZAZ

4.3.1 Testu zaharrena: Boucher de Crèvecoeurren ‘souvenirs’ (1823)

Ikerketa honetarako bertsolaritzari buruz prentsan topatu ahal izan den testurik zaharrena⁹⁹ M. Boucherrek sinaturiko ‘Souvenirs du pays Basque et des Pyrénées en 1819 et 1820’ kronikak jasotzen duena da, *Journal des Voyages, découvertes et navigations modernes ou archives géographiques et statistiques du XIXe siècle* aldizkarian 1823an argitaratua.

Testuz azpimarratu beharreko lehen alderdia argitalpen urtea da, hain zuzen. Testua zaharra da, eta oso zahartzat ere har daiteke prentsako testu bat dela kontuan harturik. Izatez, bertsolaritzaren historiako lehen lerroak jasotzen zituen Iztuetaren ‘Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia’ baino urtebete lehenago ikusi zuen argia.

Badago testuaren antzintasuna agerian uzten duen bigarren datu bat: prentsan euskaraz argitaratu zen lehen testua 1834koa da. Alegia, bertsolaritza lehenago sartu zen prentsan euskara bera baino.

Fernández Sebastianek bere doktore tesian azaltzen duenez (Díaz Nocik jaso, 1995 eta 2012), euskarazko egunkari baten proiektua ibili zuten esku artean Donostiako buruzagi liberalek. Antza denez, 1834eko otsailean, egunkari bat argitaratzeko baimena eskatu zioten Fomentoko Ministerioari gutun bidez eta honek baiezkua eman zien. Ez ziren asmoa gorpuztera iritsi, baina urte bereko maiatzaren 5ean eta 30ean, Donostian argitaratzen zuten *El Correo del Norte* kazetan, euskarazko testu bana argitaratu zituzten behintzat, prentsan argitaraturiko lehenak. Nekazariei Gibelalde karlista ez obeditzeko eskatzen zaie bietan. Honela dio lehenengoak:

“Erritar maiteac, Zuben biziya eta zubez dezuten guzia galdutza zuazte, ez sinistu esan disquitzen gaucic (...). Gure guizon maitia D. Gaspar Jauregui (Artzaya) ezagutzen dezute nic bañon obeto; badaquizute zembat estimatcen gaituben escaldunac, au degu orain gure Erreguiñac eguin digun aguintari principala provincia eta ejercitua aguintceco; atozte veriala onengana edo bere beste oficiliengana, zuben escopeta edo fusillac uztera, zuben echietara juateco (...). Orra non dezuten zuben Guibelalde, igues eguiteco dabil aspaldian; Francian jarriac ditu oguei eta amar milla ezcutu (...). ¡Viva gure Erreguiña aur maitia eta inocentia! Viva gure Gobernua, eta viva apaiz onac!”

‘Souvenirs’ testura itzuliaz, egileari buruz argitu ahal izan da Étienne Boucher de Crèvecoeur dela izen osoa, M. Boucher sinadura, garai hartan ohikoa zen Monsieur Boucher formulari dagokiolarik. Testuak berak, sinaduraren osagarri gisa esaten digu ‘*Sous-inspecteur des douanes, à Sierck*’ dela Boucher, alegia aduanetako ikuskariorde gisa lan egiten duela Siercken (Alemania eta Luxenburgorekin muga egiten duen frantziar herrixka, Lorenako eskualdean). Hari horri tiraka jaso ahal izan da Rethel herrian jaio zela 1791ean Frantziako

⁹⁹ Testurik zaharrena eta gisako tituluak arriskutsuak izan ohi dira normalean. Kasu honetan testu zaharrenen bilaketarako oinarri gisa Francisque Michelen (1847) eta Julien Vinsonen (1983, lehen argitaldia 1891) euskal bibliografiak erabili dira, bestelako ikerketetan bildutakoekin eta bilatzaileen bidez eginiko lanarekin osatuz. Michelen arabera (saillkapen kronologikoa eta gaikakoa egiten baitu Vinsonen ez bezala) euskal literaturari buruzko lehen teoria edo kritika Jean Duvoisinnek 1841ean argitaraturikoa litzateke. Hiru testu zaharrago topatu ahal izan dira asko begiratu ondoren. Zaila dirudi askoz zaharragoak edo zaharragoak diren asko topatzeke gelditu izana.

Ardenetan, Jules Armand Guillaume Boucher de Crèvecœur eta Etienne-Jeanne-Marie de Perthes izan zirela bere gurasoak eta aita ere aduanetako ofizial izan zela, botaniko gisa testuren bat argitaratzeaz gain. Etienneren beste testurik ez da ezagutzen baina bai bere heriotza urtea, 1871. Anaia Jacquesek, aduanetako ofiziala baita, arrasto gehiago utzi zuen, arkeologo gisa Sommeko aranean topatu zituen silexeko erremintek famatu egin baitzuten.

Boucherren testua argitaratu zuen aldizkaria, berriz, hilabetekaria zen, 1818ko azaroan atera zuen lehen zenbakia eta 1829ko abenduan azkena. *Société de géographes, de voyageurs et de littérateurs français et étrangers* delakoak argitaratzen zuen eta Jacques-Thomas Verneur izan zuen editore. Argitalpenaren eta argitaratzen zuen elkartearen izenek aditzera ematen duten bezala bidaia aldizkari bat zen, XIX mende haserako *National Geographic* moduko bat. Bourcheren lana argitaratu zen zenbakian, 51. kainera, honakoak dira, besteak beste, aurkibidean topa daitezkeenak: *Précis d'un voyage fait par M. Hodgson, de Liverpool, chez les Indiens de l'Amérique du nord, les Creeks, les Choctaws, les Chickasaws et les Cherokees; Burckhardt's travels in Syria and the holy land; Voyages faits en 1817, 18, 19 et 20, dans la Géorgie, l'Arménie, la Perse, l'ancienne Babylonie, etc., par sir Robert Ker Porter; Voyage dans la Valachie, la Transylvanie et la Hongrie, etc. Par l'abbé D. Sestni...*

Atzerriko begiradak ekarriko du euskal kulturaren deskubrimentu erromantikoarekin gertatu bezala, bertsolaritzari buruzko prentsako lehen testua ere. Frantziako Ipar-Ekialdetik datorren bidaiariak sinatuko du, bidaia aldizkari batean argitaratuko da, exotikoarekiko lilura darion planteamendu batekin, Ipar Ameriketako Cherokeeen ondoan.

Exotikoaren lilura atzeman eta adierazteko biderik zuzenena bidaia izango denez, eta Erromantizismoaren baitan lilura horrek hainbesteko pisua izan zuenez, literatura erromantikoaren ikur garrantzitsua dira bidaiaren kontakizunak. Garaiko autore garrantzitsu askok (Goethe, Dumas edo Stendal, esaterako) argitaratuko dute bidaia libururen bat. Bidaia hauetan kultura popularrari geroz eta garrantzia gehiago emango zaio gainera: “(...) la ilustración más gráfica de las nuevas actitudes hacia el pueblo la representen los viajeros, quienes ya no buscaban tanto las antiguas ruinas como las maneras y las costumbres, con una clara predilección por las más simples y extendidas” (Burke, 1991: 41). Bidaiariak kasualki topaturiko harribitxi gisa eskainiko zaigu, beraz, bertsolaritza prentsako lehen testu honetan. Horrela estreinatu izana ez da kasualitatea izango: testua argitaratu zion *Journal des Voyages* gisako bidaia aldizkariak ugaritzen hasiak ziren kontinente zaharrea zehar, eta aldizkari hauetan Europako kultura popularrari geroz eta toki gehiago egiten zitzaion.

*Journal des Voyages*en 51. kaier hori Boucherren lanarekin irekitzen da. Bertan zehazten da hirugarren eskutitza dela, alegia, aurreko bi kainerretan argitaratu direla bidaiaren lehen bi atalak. Eskutitz hori Behobian sinatua dela eta bidaia 1819tik 1820ra burutu zela ere ikus daiteke bertan. Euskaldunaren izaerari buruz idatziaz ekiten dio, mendeetan zehar jasaniko okupazioek atzerritarrekiko mesfidati bihurtu dutela eta bere hizkuntza nahiz ohiturei gogor eusten diela esanaz. Historiari errepaso arin bat ematen dio jarraian, janzkera deskribatzen du, musika tresnei gainbegiratu bat eman, tipo fisikoa ere azaltzen du... eta 14. orrialdean hasten da bertsolaritzarekin. Mahaiaren bueltan eserita dagoen taldea aipatzen du, jan-edanak beroturiko giroa, bertsolaria altxatzean bat-batean nagusitu den isiltasuna, bertsolariaren etorria eta gaitegia eta bigarren bertsolari batekin sorturiko buruz burukoa¹⁰⁰:

“(...) encore excitée par le vin et la bonne chère, est parvenue à ce point de vivacité où l’homme semble ne plus tenir à l’existence que par le plaisir, un des convives se sent inspiré ; il se lève ; le tumulte cesse (...) Il chante ; les

¹⁰⁰ Kazetaritza testuen kasuan, testuek bere baitan, sorkuntza gisa, balio bat dutenez, jatorrizkoa errespetatzea erabaki da. Bestalde, frantsesez, ingelesez eta alemanez jaso direnen itzulpenak eranskin batean eskaintzea ere erabaki da, gisa honetako aipuak dezente izango direnez, hizkuntza hauek arrotz zaizkionari haria jarraitzeko modua emateko. Gazteleraz jasotako aipuak, aldiz, ez dira itzuli, euskal irakurle gehientsuenek hizkuntza hau menperatzen dutelakoan. Lehen testu honen itzulpena III. eranskinaren lehen azpipuntuan topa daiteke.

stances se succèdent (...) sa riche imagination lui fournit sans cesse de nouvelles idées, soit qu'il ait pris pour sujet les louanges de chacun de ses convives, soit que la chronique du pays ait servi de texte à ses chants (...) un autre se sent inspiré à son tour ; une espèce de combat pastoral s'engage, la scène n'en devient que plus intéressante (...)"

Egun bereko iluntzean parean tokatu zaion saioaren kronikan azken puntuaren errepika aipatzen du, bertsolariak tartea hurrengo bertoa pentsatzeko baliatzen duela erreparatuz:

"(...) nous étions restés sur la porte pour jouir encore quelque temps de la fraîcheur du soir et de la beauté de la nuit (...), nous vîmes un groupe nombreux de jeunes gens au milieu desquels un individu chanta des stances qu'il paraissait adresser à un troupeau de jeunes filles, rassemblées sous cet espèce de vestibule extérieur que le paysan basque manque rarement de laisser au rez-de-chaussée de sa maison. La rue toute entière séparait les deux groupes, sans qu'aucun de ceux qui les composaient parut chercher à franchir cet intervalle et à se rapprocher. Les jeunes filles reprenaient à la fin de chaque stance, et chantaient en chœur une sorte de refrain. Pendant ce temps le chanteur rappelant ses idées trouvait dans sa tête basque le sujet d'un autre couplet (...)"

Eta hizkuntzaren ezezagutzak suposatzen dion muga ere aipatzen du Boucherrek, penaz, bat-bateko bertsolaritzaz ari dela argi uzten duten hitzetan:

"(...) Combien je regretti alors de ne pas comprendre assez la langue pour retenir quelqu'une de ces improvisations, car ces chants n'étaient pas plus préparés que ceux qui avaient été inspirés par la gaîte du repas (...) Les auteurs eux-mêmes les ont oubliées avant qu'ils aient cessé de chanter, et celles qu'ils pourraient vous donner ne seraient déjà plus les mêmes (...)"

4.3.2 Etxahunen epaiketen kronikak: 'Assassinat commis par méprise' (1828)

Adelbert von Chamisso (1781-1838) erromantizismo alemaniarreko poeta garrantzitsu bat izan zen. Jaiotzez frantziarra, familia protestantekoa, hauen aurkako jazarpenetik ihesi aldatu zen Prusiara, bertan karrera militarra eginaz. *Berliner Musealmanach* aldizkari literarioa sortu zuen 1803an, 1808tik 1810era ejertzitoa utzi eta eskale gisa bizi izan zen Berlinen, 1815etik 1818ra munduari itzulia eman zion untzi errusiar batean botaniko gisa...

Idazle gisa 1814ko 'Peter Schlemihls wundersame Geschichte' (Peter Schlemihl sen historio harrigarria) ipuin luzeak, hainbat hizkuntzataraz itzulia, egin zuen famatu, baina gerora poesian nabarmendu zen eta Schumannek hainbat piezatarako bere testuak erabili zituen.

Bere azken antologia handian, 1831an argitaraturiko 'Gedichte'n, 94. kapitulari honela jarri zion izenburuan: 'Des Basken Etchehon's Klage' ('Etxahun euskaldunaren arrangura')¹⁰¹.

Berriro ere kanpotik ekarritako urratsa. Bertsolari baten historiari erreparatzen lehena poeta frantziar alemaniarra izan zen, Etxahun intelektual erromantikoen artean ezagutaraziaz.

Azpitituluan 'Gazette des tribunaux' jarri zion Chamissok hemeretzi ahapaldiz osaturiko poemari eta hari horri tiraka Jean Haritschelharrek *Gazette des tribunaux*¹⁰² paristarrean

¹⁰¹ Helbide honetan berreskura daiteke jatorrizkoa: <http://gutenberg.spiegel.de/buch/gedichte-9564/94>. [2017/10/20] Euskal Herrian Chamissoren poema Aingeru Irigarai deskubritu zuen ehun urte beranduago eta *RIE* n argitaratu gaztelerarako itzulpenarekin: *RIE* (1933), 618 or. 'Una poesía de Chamisso sobre Etchahun'. Hau ere helbide honetan berreskura daiteke: <http://hedatuz.euskomedia.org/1574/1/24618621.pdf> [2017/10/20]

¹⁰² *Gazette des tribunaux Journal de jurisprudence et des débats judiciaires* egunkaria 1825ean sortu zuten Jean-Jérôme Achille Darmaingek eta Jean-Baptiste José Bretónek. Alor judizialeko nobedadeak eta eztabaidak jarraitzeko foro espezializatu bat zen nagusiki, garaian garaiko legegizon prestigioetsuek idatzia, baina kronika beltzari ere egin zion tokia eta honek arrakasta ekarri zion irakurle arrunten artean ere jada astekari bezala 1955ean itxi zen arte.

1828ko abuztuaren 27an argitaraturiko testua topatu zuen, sinadurarik gabea: ‘Assassinat commis par méprise’ (‘Hilketa errakuntza bategatik’) darama izenburutzat.

Etxahunek pairaturiko epaiketaren kronika da testua. Xehetasun osoz aletzen du jazotakoa. Bertsolaria bera eta epaiketak sortu zuen ikusmina honela deskribatzen ditu, esaterako¹⁰³:

“Un homme à peine couvert de misérables haillons comparaisait sur le banc des accusés. Des traits fortement prononcés, une respiration quelquefois oppressée et des regards qui ayant quelque chose du fixe devenaient vifs (...) tout annonçait en lui de grandes passions. On avait parlé en effet de l’amour, de ses transports, de ses fureurs et une foule de dames étaient accourues; une scène tragique et tous les emportements de la jalousie leur promettaient de fortes émotions; leur attente n’a point été trompée (...)” (Haritschelhar, 1969: 532)

Kontatzen da Dominique Etxegoién barkoxtarrak 1827ko maiatzaren 1ean gaueko 10etan bere etxe ondoan dagoen zubi batetik bueltan zetorrela tiro bat entzun zuela eta gutxira odol putzu batean etzanda aurkitu zela. Ez zuela inor ikusi. Auzokoek lagundu zutela eritetxera. Gizon pakiosoa zela eta inork ez zuela ulertzen gertatua bere lagun on bat desagertu zen arte:

“(…) Un voisin ami intime d’Etchegoyen ne parut point pour le visiter (...) Cet individu se nommait Etchehon ; doué d’une âme ardente et d’une susceptibilité excessive, sa jeunesse avait été orageuse et le temps semblait n’avoir pu le corriger de (ses) fougueuses erreurs. Condamné correctionnellement à 2 ans d’emprisonnement pour avoir asséné un coup de hache à un homme avec qui il s’était pris de dispute il avait de plus été accusé d’émission de fausse monnaie.”

Bere lankide baten deklarazioak argi samar uzten du dena. Etxahun konbentzituta omen zegoen bere emazteak Egiapal izeneko maitale bat zuela, ideia horrekin erabat obsesionatuta bizi omen zen. Egiapal en etxea zubi ondoan aurkitzen zen eta Etxahun galdezka ibili zen maiatzaren leko gau horretan Oloroneko feriara irteteko asmorik ba ote zuen. Estainua funditzen ere ikusi zuten Etxahun eta Etxegoiéne zaurietatik estainua atera zuten. Alegia, emaztearen maitaleari beharrean bere lagun minari egin ziola tiro, mendira ihes egin aurretik:

“(…) se réfugie ensuite dans les montagnes de Larraeau où un vieux pasteur lui donne l’hospitalité. Là les idées qui le préoccupaient à Barcus viennent de nouveau l’assaillir et la solitude lui donne un nouveau degré d’exaltation (...) Il s’ogea à ami qu’il a frappé et au triomphe d’Eguiapal ; il a besoin d’épancher ses changrins et il conte à ses hôtes l’histoire de ses malheurs (...) il compose un chant lugubre sur les événements dont il a été ne suffit même pas à son âme ardente (...)” (Haritschelhar, 1969: 533)

Jean Casenaveren arabera kazetariak Etxahunen historiaren alderdi erromantikoa azpimarratu nahi izan zuen, “La dimension romanesque de la vie d’Etxahun n’a pas non plus échappé aux journalistes locaux chargés de la chronique judiciaire” eta sentsazionalismo apur batekin egin zuen hori: “Le barde de Barcus est un gibier de choix pour ces hommes de plume attachés à mettre en valeur l’aspect sensationnel des affaires traitées pour plaire à un lectorat toujours friand de drames passionnels (2002: 187)”. Haritschelharrek dio bere istorioak garaiko erromantizismoari gustatzen zitzaizkion osagai guztiak zituela, baina Etxahunek ez zekiela erromantizismoa zer zen ere: “Déjà les thèmes de la pièce d’Etchahun (amour, jalousie, haine, désir de vengeance) peuvent être considérés comme des thèmes romantiques bien que, il va sans dire, son auteur ait totalement ignoré ce qu’était le romantisme” (1962: 107).

¹⁰³ Ik. Itzulpena III.II. eranskinean.

Chamissoren olerkian, Etxahun maitasun traizionatuaren eta zorigaitzaren biktima gisa aurkezten zaigu, bere borondateaz gaindi dauden pasioek gainditua, eta Egiapali egozten zaio errua. Garaiko izpirituak Barkoxekoarekiko enpatia errazten zuen: “Nous sommes en 1828, moment où le romantisme atteint son apogée et n’est pas uniquement le fait d’une minorité parisienne mais correspond à un état d’esprit général” (Haritschelhar, 1962: 106). Azkenik, armarik topatu ez zitzaionez, libre utziko dute bertsolaria, eta kronikaren azken paragrafoak aditzera ematen duenez epaiketako publikoak ere enpatia hori erakutsi zuen: “Le verdict du jury ayant été non coupable sur la question qui lui a été soumise Etchekon a été acquitté. Cette décision a paru exciter un vif mouvement de satisfaction dans la foule nombreuse qui remplissait l’auditoire” (Haritschelhar, 1969: 537).

Libre gelditu izangatik bertsolariak ez dio justiziarekin arazoak izateari utziko eta bere epaiketen kronika gehiago gehituko zaizkio bertsolariaren hemerografia historikoari¹⁰⁴. Etxahunen deskribapen bikainak eskaintzen dituzten paragrafoak idatziko dira berriro, 1845ean *Journal des Landes* argitaraturiko hauek, esaterako:

“(…) chapeau à larges bords, manteau couvert de coquilles, barbe descendant sur la poitrine; ceinture de chapelets et de reliques, tous ces signes du pèlerin classique sont prétentieusement étalés par Pierre Topet à son entrée dans la salle d’audience (...) Monsieur le Président invite Pierre Topet à déposer tout l’appareil dont il est entouré et que est malséant dans le sanctuaire de la justice, mais l’accusé ne se rend qu’avec la plus grande peine à cette injonction. Il a gravement mis les lunettes et, se tenant debout, il promène sur l’auditoire un regard aussi placide que s’il était sur une place publique. Un gendarme le contraint à s’asseoir (...) Pierre Topet ne veut pas être condamné sans être entendu. Sa langue est pourvue au moins d’autant d’activité que ses jambes (...) Se présente-t-il un témoin et à peine a-t-il achevé de prêter serment, que l’accusé s’écrie avec un ‘ut’ de poitrine des plus énergiques: “c’est mon ennemi!”. Il prend la parole et raconte son histoire ou plutôt son roman, avec un accent impossible à décrire (...)” (Haritschelhar, 1969: 549-550)

4.3.3 Bertsolari baten figuraz lehena: Jean Baptiste Chahok Etxahun (1838)

Zinez nobela erromantikoaren osagai guztiak ditu Pierre-Topet Etxahunen bizitzak (1786-1862): Bere aitak beste baten semea zenaren susmoak zituen eta oso haurtzaro gordina ekarri zion horrek. Etxeko neskameaz maitemindu eta haurdun utzi zuen baina gurasoek beste emakume batekin ezkontzera behartu zuten (1808). Zor bat zela eta izandako liskarragatik bi urte (1824-1826) egin behar izan zituen kartzelan eta handik itzulitakoan eman zen Etxegoien tiroketa eta bigarren epaiketa. 1831ean erromes joan zen Italiara eta hiru urte egin zituen Erroman, Florentzian, Loreton eta hainbat santutegitan gisa horretara bizitzen, eta baita, beharrezko dokumentaziorik ez zuelako kartzela bat edo beste zapaldu edota izurriteren batek kutsatuta hilabeteak Nimeseko ospitalean egin ere. Itzuli zenean bere lurra berreskuratu nahi izan zituen, baina berriro ere bide aldrebesetik nonbait, dokumentu publikoak faltsutzeagatik epaiketa berria eta bi urteko espetxeratze (1846-1848) berria izan baitzituen. Espetxetik irten zenean familia guztiak bizkarra eman zion eta eskale gisa bizi izan zen, herriz herri abestuz, tartean epaiketa gehiago pairatuz, hiltzera bere jaiotexera itzuli ahal izan zuen arte.

Biografia honek, aldian aldiko sortu zituen bertso sorten bidez zabaldua (bere lehen maitasunari buruzko ‘Urx’ apha bat’, lehen epaiketan erruduntasun froga gisa aurkeztu zen ‘Mündian malerusik’ eta erromes joatea erabaki zuenean sorturiko ‘Bi berset dolorusik’), sona handia eman zion Ipar Euskal Herrian. Casenavek azaltzen duen bezala, erromesalditik itzuli zenerako inguruetako bertsolari ezagunena zen:

¹⁰⁴ *Journal des Landes* (1845/XI/15) ‘Cour d’Assises des Landes’ eta *Memorial des Pyrenees* (1851/III/02 eta 03) ‘Cour d’Assises des B.-P’.

“(…) il est invité par les classes sociales les plus diverses -même la bourgeoisie et la noblesse locales- pour célébrer en vers les événements marquants. Comme en témoigne la chanson “Etxahun eta Otxalde”, populaire dans tout le Pays basque dès la deuxième partie du XIXe siècle, il est volontiers placé au premier rang de la corporation par les autres improvisateurs qui recherchent sa présence pour d'amicales joutes versifiées.” (2002: 186)

Chamissoren olerkiak, gainera, fokoa jarriko dio inguruetako jende jantziarentzat. Honela, Hypolite Clérissek, Erregeren prokuradorea Donapaleun, Ernest Legouvé izeneko Parisko gonbidatuari erromantizismoaren olatua Euskal Herrira ere iritsi dela frogatzeko bere bizitza bertsotan emateko enkargua jarri zion Etxahuni 1833an 20 frankoren truke.

1838an *Revue des Voyants*, aldizkarian ‘Une existence de Barde: Histoire du Poète Etchaon de Barcus’ izenburuean testu luzea argitaratu zuen Jean Baptiste Chahok. Agosti Chahoren anaia zen Jean Baptiste (1815-1848), eta *Revue des Voyants* hain zuzen Agostik zuzendu zuen lehen aldizkaria¹⁰⁵. Chao familiak izan behar zuen Etxahunen berri zuzena, Etxahunen bertsoetan Atarratzeko aguazilak, Agosti eta Jean Baptisteren aita Andre Chahok, eskaini izandako laguntza aipatzen baita (Haritschelhar, 1969: 14) baina suposa daiteke Jean Baptiste testu hau idaztera animatu zutenak Etxahunen biografia berezia eta pertsonaia erromantiko gisa jarri zitzaion foku hori ere izango zirela.

Testu osoak tragedia erromantiko kutsua ematen dio Etxahunen bizitzari, jaiotzatik hasita¹⁰⁶:

“Muntainer aisatu baten, nahi bada ez aberatsen, lehen sorthia zen, eta titre huntzaz hartan gainen phausatu behar zien naturalki haren familiaren eta jaben esperantzak. Bena haur horrek naturaz osagarri flaku, kolorik txar eta mehe etzin kausatu gisala haren aman haur minetarik landan ordenariz jarraitzen diren alageratarzun biziak”

Bere lehen maitasun debekatua (‘Praubeziazko aizo familia batetako neskatila gazte bat maithatu zin’), behartutako ezkontza (‘obligaturik ian zen haitatu zaion espusaren utsiala azeptatzera’), emaztearen infidelitatea (‘zuinek destruisitzen beitu familiaren saintutartzuna’), mendekuzkoa behar zuen krimena (‘gizon hori ezta ordin bere fortuna eta bizia heno hanitxe preziosago den integritatiari khuntu emaitako inkapable den sozietate batetako legeti kanpo baizik ezarriko ahal’), ihesa (‘obligaturik justizia bati eskapatzeko desertutarat ihesi egitera eta han bizi solitario baten eramaitera’), hilabeteetako gordekako basa bizitza (‘Udan bizitzen zen basafrutaz hartzen’), atxiloketa (‘Ezin suporta ahalez hainbeste pribazione erresolutu zen azkenekoz arrisk orotara, bere lurrila arrajitera, eta etzin berantu justiziaz arrestaturik ikhustera’), eta epaiketa (Ikhusi zien agertzen bi jendarmaren artin, taila ordenarioko gizun bat, bilhuak luze, figurako aragiak mehaturik, bena begia odolez zainzturik eta brillant, gar estofatu bat bezala’) kontatzen dira, testuaren hiru laurdenak hartzen dituen biografian.

Baina bertsolaritza ere egiten zaio tartea, eta hor legoke ekarpenik interesgarriena. ‘Münduan malerusik’ osorik jasotzen da, eta ‘Bi berset dolorusik’eko bertso batzuk ere bai. Bestalde, sarrera gisa orrialdea eskaintzen zaio bertsolarien eta poeten arteko alderaketari:

“(…) Lehenak [poeta] kuntatzen bere ideiak lanpa baten argin, bederabedera, abariziusak bere pheseta urhik bezala. Bigerrenak [bertsolaria] urthukiten tu

¹⁰⁵ *Revue du Midi* aldizkarian kazetari gisa lanean aritu ondoren, aldizkari eredu horri jarraiki zuen Agosti Chahok berea baina badirudi ibilbide laburrekoa izan zela, gaur gaurkoz bi zenbaki bakarrik ezagutzen baitira.

¹⁰⁶ Patri Urkizuk hirugarren anai batek, Jean Pierre Chahok (1821-1848), 1842an zubererara eginiko itzulpenaren eskuizkribua eman zuen ezagutzera *Hegats* aldizkarian (Patri Urkizu: “Jean Baptiste Chaho: Barde baten izaitia”, *Hegats* 5, 1991: 29-37 or.). *Revue des Voyants*-en jatorrizkoa Baionako Mediatekan topatu ahal izan da, baina kasu honetan zuzenean zuberarako itzulpenari berari egin nahi izan zaio lekua, helbide honetatik jasoa [2017/10/20]: <http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/X/XahoAzti016.htm>

aizer orori bere tresor hunak ekhiaren argin; hitz batetan sozietateko bi personifikazione hoietan den diferentzia da, poetak phensatzen eta amets egiten dila, bardak eztila senditzen baizik (...) Bada bi forma hoiien artin, bata ideiatu, bestia positibo, imitazionia edo gezurra egiati separatzen din distantzia oro, naturaren artia.”

Bertsolariaren figurari Iztuetak egin zuen bezala basati onaren bertuteak esleitzen zaizkio: ‘natura salbaje baten harmonien erdian’ kantuan ari den ‘kantazale salbajia’ da, ‘zuinek beste gidarik gabe bere gizun intelijent instinkta baizik, argiarazten beitu haren anaien erdian’...

Eta Etxahunek bertsoek herritarren artean duten estimua azalduaz bukatzen du: “Uskaldun mendien parkurritzeko odazionia balin baduzu, zuin Biarnekuen aizo beitera, galthe zazu arrakuntratuko duzien lehen haurari, Etxehun bardiaren berri, arrapostu emanen deizu kantatzez zuntzar largo batez goraxiago kantore kopiatu dudan kobletarik lehena”.

4.3.4 Bertsolaritzaz propio idatziriko lehen artikulua: Duvoisinen ‘Des Basques et de leur poésie’ (1841)

Bertsolaritzaz genero gisa eta propio idatzitako lehen artikulua 1841eko urtarrilean ‘Des basques et de leur poésie’ izenburuarekin Paueko *Album Pirénéen-Revue Béarnaisen* Jean Pierre Duvoisinek sinaturikoa litzateke¹⁰⁷.

Testuak bertsoa euskaldunari kasik berez ateratzen zaiola esanez ekiten dio, gerora askotan errepikatuko den ideia¹⁰⁸:

“L’Enthousiasme est le caractère distinctif des Basques ; aussi est-il naturellement poète ; il l’est dès qu’il chante. Le goût est inné en lui : sans maître, sans leçons, il suit des règles qu’il n’a point apprises ; le sentiment le guide ; il chante, et c’est en chantant qu’il compose ; ses vers ne sentent ni la gêne, ni le travail ; le froideur en est toujours bannie ; et tout à- tour les figures les plus gracieuses, les plus fortes viennent les embellir (...)”

Jolasaren plazer soila aipatuko du, oso modu loratuan bada ere, bertsoarako motibazio nagusi gisa eta euskararen bertsoegintzarako egokitasuna ere seinatzen du hainbat pasartetan:

“Le désir des richesses et la gloire ne fut point le mobile des célèbres actions des Cantabres. L’amour de la liberté, seul, combattit avec eux. Le poète Basque ne fait point de vers pour acquérir des biens et une réputation. S’il chante, c’est que la passion anime sa verve ; il exhale dans les bois le feu qui le dévore, l’espoir qui le flatte, la mélancolie qui le domine (...) ses jouissances sont égales (...) Dans la poésie légère, la poutre Basque ne le cède à aucun autre. Sa langue se prête admirablement à la versification. Jamais il n’emploie ces grands mots, ni ces figures disproportionnées qui souvent, chez les Français refroidissent l’intérêt (...). La poésie des Basques est essentiellement chaleureuse, vive, languissante, figurée, naïve (...)”

Azkenik, ekarpen aipagarri gisa, bertsoegintzarako arauen aipamentxoia ere egiten du:

“(...) Les règles de la poésie des Basques sont à-peu-près les mêmes que celles de la prosodie Française ; mais presque toujours leurs vers sont de quinze à vingt-deux syllabes et les rimes uniformes dans chaque stance (...) Très-

¹⁰⁷ J. Badé delako batek *L’Observateur des Pyrénées* egunkarian argitaraturiko ‘Éléments de littérature pyrénéenne. I. Chants populaires des Basques’ izeneko artikuluren erreferentzia topatu da, zaharragoa, 1840ko apirilaren 29koa. Baina testua ezin izan da eskuratu, eta honen inguruko azalpenik ere ez. Francisque Michelen euskal bibliografian jasotzen da Badé Pauko Errege Kolegioko irakaslea zela, baina hortik aurrera apenas aurki daiteke ezer. Beraz, ez da aintzat hartu.

¹⁰⁸ Ik. III.III itzulpena.

souvent leurs chants sont formés en dialogues, ils ne se doutent pas que l'immortel Virgile disait, il y a dix-neuf siècles : 'amant alterna camenoë'."

Jean Pierre Duvoisin (1810-1891) figura garrantzitsua izan zen bertsolariaren nolabaiteko lehen instituzionalizazioa ekarri zuten Lore Jokoetan. Ainhoan jaioa, familia dirudun batean jaioa eta ikasketa maila altuarekin, Boucher de Crèvecœurrek bezala aduanetako ofizial lana izan zuen ogibide, aitarengandik oinordetzan jasotako postua, eta kapitain gradua lortzera iritsi zen. Bere afizioa euskal letrak ziren, ordea. *Album Pirénéen*, bertsolariari buruzkoaren ondoren, urte berean, euskal antzerkigintzari buruzko beste bi artikulu argitaratu zituen ('Poésie dramatique des Basques' eta 'Comédie des Basques') eta lan hauek sona handia eman zioten: "Quelques articles sur la poésie, la tragédie et la comédie des Basques lui valurent une notoriété qui le fit rechercher par le Président de la Société des Sciences Lettres et Arts de Pau" (Haristoy, 1895: 216). Elkarte horren enkarguz euskaldunen jatorriari buruzko ikerketa historikoa argitaratu zuen 1842an eta hortik aurrera hainbat argitalpenetan kolaboratzen hasi zen: *Bulletin des Sciences, Lettres et Arts, Le courrier de Bayonne, La sentinelle*.... Giro horretan Agosti Chaho ezagutu zuen, eta haren eskutik bere ibilbidea gehien markatu zuten bi figurak: "Orduan ezagutu omen zuen, Agustin Xahoren bitartez, Antonio Abadia zientzilari eta euskal kulturaren mezenas famatua (...) Louis-Lucien Bonaparte printzea lehen aldikotz Euskal Herrira etorri orduko, aski ezaguna zen kapitaina Iparraldeko euskaltzaleen artean (...) Abadiak Bonaparteri aurkeztu zion Duvoisin Donibane Lohizunen 1856an" (Touyarou, 2010: 12).

Bonaparte printzeak Duvoisin izan zuen laguntzaile nagusi. Honen agindutara 1858an aduanetako lana utzi eta profesionalki itzulpengintzatik biziko da. Biblia osoaren euskarazko itzulpena izango da arlo honetan egingo duen lanik mardulena. Eta Abaddiek ere konfidantzazko laguntzaile gisa hartuko du, kasu honetan Lore Jokoen antolaketarako. Epaimahaiko izango da dozenaka urtetan eta, bertso jartzaile bezela sariak irabaziko ditu. Ikusiko denez, Iparraldeko Lore Jokoei buruz prentsako sinadura garrantzitsua ere izango da.

4.4 OINARRIA: ABBADIEREN IPARRALDEKO LORE JOKOAK (1845-1878)

4.4.1 Chahok ereindako haziak

4.4.1.1 Agosti Chaho, azti-begia (1811-1858)

Atharratzeko aguazil eta eskribauaren semea etxetik zetorkion letrekiko interesa, bere bi anaiek ere argitaratu izan zutelarik. Olorongo seminarioan Erretorikan eta Pauen Finantzetan lizentziatu ondoren Parisera aldatu zen zuzenbidea ikastera. Bertan ezagutu zuen Antoine Abbadie, adin berekoa eta ikaslea baita, bien familiek ere harreman handia zuten¹⁰⁹, eta adiskidetasun estua sortuko zen euren artean, Iparraldean emango ziren borroka politikoetan bata *Gorriekin* eta bestea *Xuriekin* lerratu arren, bizi osoan zehar mantenduko zena.

Chaho *La France Littéraire* aldizkarian hasi zen nabarmentzen artikulugile gisa eta bere bigarren liburuak 'Paroles d'un voyant' (1834) oso harrera ona izan zuen: "Frantziako kritika literarioak aho batez agurtua" dio Iglesiasek (2010, 131). Entsegu filosofiko-politiko bat zen lana Charles Nodierren eskola esoterikoaren eragin nabarmena zuena: "Nodier's combination of arcane and linguistic knowledge constituted the basis for Chaho's literary work" (Gabilondo, 2016, 178). Frantziar erromantizismoaren baitan funtsezko figura izan zen Nodier, Victor Hugo, Alexandre Dumas, Alphonse de Lamartine bezalako idazle garrantzitsuek erreferentetzat hartua, eta zirkulu haietan mugitu zen Chaho (ez dago garbi Nodierren ikasle izatera iritsi zen), iturri haietatik edanaz:

¹⁰⁹ Honela dio Madariagak: "Su familia estaba muy vinculada a la de Abbadie y probablemente esta conexión es la que provocó el traslado de Xaho a París cuando contaba 20 años" (2008: 576)

“Chaho was witness and participant to the new romantic reorganization of French literature and culture via German romanticism (...) Nodier published in 1830 his influential ‘On the Fantastic in Literature’, which set the basis for a new conception of knowledge and literature, based on his romantic recuperation of orientalist studies, linguistics, hermeneutics, Masonic doctrines, British Gothic literature, medieval French tradition, and English and Spanish Renaissance-baroque literature (...)” (id.: 178).

Etenik gabe jarraituko zuen liburuak idazten, titulu ugari argitaratuz, eta lehen honen ildokoak, hizkuntzalaritzari emanak eta narrazioak tartekatuz. Frantziar ‘Paroles d’un voyant’ en ondoren, tropa karlistekin bizi izandako esperientzia kontatzen duen ‘Voyage en Navarre pendant l’insurrection des basques’ (1836) narrazio luzeak emango zion berriro sona Frantziar, baina hurrengo lanek ez zuten oihartzun handirik izan.

1843tik aurrera Baionan finkatu zen eta 1848ko iraultzarekin bat eginaz erabat murgildu zen politikan Udal Kontseiluko, Guardia Nazionaleko eta Piriniotako Kontseilu Orokorreko kide izango zelarik. Kazetari gisa, *Revue des Voyants* (1838) zuzentzen lehen saiakera batean porrot egin ondoren *Ariel* aldizkariarekin (1844-1852) dezenteko zabalkundea lortuko du eta bere mezu politikoa zabaltzeko nahiz hauteskunde kanpainak egiteko erabiliko du, Frantziako Asanblada Legegilerako hautatua izatekin ehun bozka eskasetara geldituko delarik.

Nortasun handikoa, polemista sutsua, pistolaz edo ezpataz buruturiko duelu bat baino gehiago ezagutzen zaio. Erabat antiklerikala zen, Alderdi Erradikaleko kidea eta masoia, hainbat testutan azti edo igarle gisa aurkezten zuen bere burua eta euskal nazioaren inguruan eraturiko kosmologia esoteriko bat zen bere gai kuttuna¹¹⁰. Posizionamendu horiekin ez zitzaion etsairik falta eta idazkera suhar batekin defendatu izan zituen gainera. Iglesiasek egiten du eskaini zitzaizkion epitetoen kontaduria:

“Chahok etsai ugari ukan zituen (...) zeinek gainera ardurenean ‘erotzat’ ukan baitzuten, hala nola pertsona ‘sutsu’, ‘fanatiko’ eta ‘arriskutsu’ batetzat. Haietarik askok gaineratzen zuten Zuberotarra autore ‘ulergaitza eta nahasia’, ‘kazetari mistikoa’, ‘gezurtia’, ‘buruberoa’ eta ‘intolerantea’ zela (...) autore ‘minkorra’, ‘garratza’, ‘trufaria’, gizon ‘suharra’ eta ‘harroa’ izaitea hala nola ere ‘paper gaiztoak’ idaztea leporatu zioten askotan” (2000: 132).

1851ean okertu zitzaizkion gauzak, Charles Louis Napoleon Bonapartek estatu kolpea jo, bere burua enperadore izendatu eta errepublikazale ezkertiak sutsuenak erbestera bidali zituenen¹¹¹: Belgikan egin behar izan zituen hilabete batzuk eta bi urte Gasteizen.

Bere kosmologiaren eta arrazoiketa esoterikoen haria jarraitzea ez da erraza suertatzen¹¹², baina bere igarle sena behintzat ezin zaio ukatu Chahori. Euskara hutsezko lehen aldizkaria kaleratu zuen, *Uskal-Herriko Gazeta* (1848), gisa honetako bigarrenak, Azkueren *Euskalzalek* (1897-1899) argia ikusi baino mende erdi bat lehenago, baina ordurako euskara batuaren, hizkuntzaren ofizialtasunaren eta euskarazko irakaskuntzaren beharrez ere

¹¹⁰ Bere lehen liburuak, zuberotarrez idatzia, ‘Azti-begia’ zeraman izenburutzat: “Xaho se presenta como un vidente, adivino, como un ser excepcional (...)” (Zabalo, 2004: 42). Zabaltzak honela azaltzen du: “Xahoren ideologia oso korapilatsua zen, baina barne-batasun handia zuen. Kristautasunaren aurreko tradizio sekretu baten oinorde sentitzen zen. Egiazko eta alegiazko profeta edo «azti» (voyant/vidente, erdaraz) batzuen utzian sinesten zuen” (2011: 8). Nābardura garrantzitsu bat ere gaineratzen du: «Aztitasunak» alimaleko eragina izan zuen ez bakarrik Xahoren baitan, XIX. mende hasierako Frantziako literatura osoan baizik (...)” (id.: 10).

¹¹¹ Louis Lucien Bonaparte lehengusu euskaltzaleari, 1852an Printze titulua eta pentsioa jarri zizkion bera.

¹¹² Ikerketa honen objektuari lotzen zaizkiola ulertzen den Aitorren mitoaren inguruko oinarriko xehetasun batzuk baino ez dira jasotzen lan honetan. Gaiaren inguruan gehiago jakiteko Gabilondo (2016: 176-181) Madariaga (2008: 24-26) eta Zabalo (2004: 41-58) kontsulta daitezke.

gogoetatua zen, aurretik aitzindari bakarti batzuk baino urratu ez zituzten bideak seinalatuz. Edota, Euskal Herriaren independentzia aldarrikatzera iritsi zen¹¹³, abertzaletasuna mugimendu politiko gisa eratu baino mende erdi bat lehenago, eta ezkerreko posizioetatik egin zuen, tankera horretako lehen alderdi politikoari, EAE-ANV, 80 urteko aurrea hartuz.

Erbestetik itzuli ahal izan zuenean politikaz aritzeko debekua ezarrita izan zen. 1849an trafiko istripu larri bat izan zuenetik pattal zebilen osasunez eta bizitza laburra gelditzen zitzaion. Bukaeraraino eutsi zien, ordea, bere printzipioei: hileta zibila egin zitzaion bere eskariz. Euskal historiako lehen hileta zibila izan zen hura Julien Vinsonek idatzi zuenez (Iglesias, 2000: 131).

4.4.1.2 Bertsolaritzaren lehen apologia: 'Chant basques' (1844)

Iztuetaren liburuak eta Duvoisinin artikulak ere badute apologia zantzu bat, baina hasi eta buka apologiara bideraturiko lehen testua Agosti Chahoren 'Chant Basques' litzateke, 1844ko abuztuaren 11ean *Trilby* aldizkarian argitaratua.

Apologista potenteagorik ezin zezakeen topatu bertsolaritzak. Jada aipatu da bere izaera eta idazkera suharra, baita bere bidegile sena ere, edota bertsolaritzarekin izandako igurtzia ere, bere aitak harreman estua izan baitzuen Etxahunekin eta anaiak honi buruzko testu luzea argitaratua baitzuen 1838an. Atarratzekoak gogotsu helduko zion gaiari *Trilby*ko testuan¹¹⁴:

“Les basques sont aujourd’ hui la seule nation de l’Europe chez qui le don de l’improvisation poétique soit resté populaire. Ce phénomène tient a des privilèges historiques que les Basques ne partagent avec aucune nation contemporaine : la conquête et la servitude n’ont jamais mêle leur sang a celui d’ aucun autre peuple étranger : ils conservent leur langue, aussi pure inalterée qu’ elle l’ était dans les premiers siècles de sa formation ; la création des arts d’ utilité et d’ agrément n’ a été suivie chez eux d’ aucune catastrophe qui pût : rompre la chaine des traditions primitives : nation neuve encore, malgré sa haute antiquité, les Basques sont restés près de la nature, et ils doivent a cet avantage une certaine hardiesse de conceptions et d’ entreprises qui les distingue surtout le don de l’ invention poétique”.

Propio azpimarratzen du kultura popularraz ari dela, kultura jasoak gizarte handiekin, aberastasunarekin eta aisialdiarekin lotuz: “Nous n’ entendons parler ici que la poésie populaire. L’ essor littéraire n’ a lieu que dans les grandes agrégations sociales au sein de la richesse et du loisir”. Eta euskal kulturaren garapen subalternoaren hipotesia aurreratuaz:

“Les Basques constamment décimés par la guerre, pauvres par la nature du sol qu’ ils occupent et resserrés dans les limites d’ un pays étroit et peu accessible, n’ ont pu se livrer à la culture des arts et des sciences dans leurs montagnes (...) et relativement à la petitesse d’ une nation que, depuis trente siècles, n’ a guère compté plus d’ un million d’ âmes de population (...) Mais où trouvera-t’ on, ailleurs que chez les Basques des bergers, des laboureurs, des artisans

¹¹³ “Hastetic, Zaldibian fusillatu-çuten, erreguinen tropéc, yeneral Alzâa, Guipuzcoarra, Escualdun fina, bere malurretan carlista. Batçuec Isabel, bertçee Carlos-Montemolin; bertçe guisaco çuten Cantabre çaharréc bere bandera çaharrena, Lauburua deitçen-çutena, eta arte demboraco bandera berria, Irurac-bata, bere irour escuequin, Escualdunen Errepublica famatua erreprentaçen çuena. Norc oihu eguinen-du, azquenián erregue-erreguinaç eta heien partidario tontoac edo ambiciosac açaçatu ondoan : Biba Independencia ! Biba Errepublica! Biba Escual-Herria!” (*Uskal-Herriko Gasetta*, 2 zbkia, 4 or. ‘Españiaco berriac’, 1848/VII/30).

¹¹⁴ *Trilby*, *journal non politique*, 5 zbkia (1844/VIII/11). ‘Chants Basques’. Chaho, Agosti. Baionako aldizkari literario bat izan zen *Trilby*. Lehen zenbakia 1844ko uztaileak 28an argitaratu zen. ‘Chant basques’ hau izan zen Chahok bere lagun handia zen Lespès inprimatzaileak gonbidatuta bertan idatzi zuen testu bakarra. Aipuei dagokien itzulpena, ik. III.IV azpipuntuan. Euskarazko itzulpen osoa, aldiz, helbide honetan: <http://www.susa-literatura.eus/liburuak/best1202> [2017/VIII/03].

illettrés, assez favorisés d'inspiration pour improviser avec une merveilleuse facilité des couplets tonal-à-tonal gracieux, et caustiques?"

Gerora hainbeste azpimarratuko den ideia dator ondoren, aurretik Boucher de Crèveceurrek oso modu arinean aipatua: bertsolaritzaren dimentsio historikoa eta bertsolariak kronista gisa betetzen duen funtzioa. Menditarren gazeta da bertsoa:

“Les improvisations basques ont un caractère historique exclusif de toute poésie spéculative ; elles intéressent principalement par là les Montagnards qui ont ainsi une Gazette toute en chansons. Les drames politiques et ceux de la vie intime, les faits même d'un ordre vulgaire, une partie de paume, une intrigue d'amour, une bataille gagnée ou perdue, sont célébrés avec la même simplicité naïve.”

Kantutegia iragartzera dator apologia eta artikuluan irakur daitekeenaren arabera nahikoa aurreratuta dauzka lanak: bilketan aspaldidanik dabilela dio, nota musikalekin osatuko direla testuak, abestiak piano nahiz kitarrarekin laguntzeko ere baliagarria izango dela gehigarri hori¹¹⁵. Erromantizismo frantziarrean eman zen olatuari jarraituz ekin zion Urkizuren iritziz:

“Frantzia kanta bildumak argitaratzeari jarraituko zitzaizkion garaian literatur gizon ospetsuak, hala nola Théodore Hersaut de La Villemarqué zeinak 1839an bildu zuen Bretainako kanta multzoa itzulpen frantsesa eta doinuak emanez. Gérard de Nerval poetak ere plazaratu zituen 1842an frantses balada zaharrak, piztuz ahantzixek zeuden antzinako kantak. Jean Sacaze historiagileak ezagutarazi zituen 1843an Ossau haranekoak (...) Chahoren euskal kantak biltzeko eta argitaratzeko saioa eta ahalegina testu-inguru honetan behar da kokatu.” (2011: 747-748)

Nazionaltzat hartzen du kantutegia birritan. Iztuetak bezala euskal kulturaren adiera nazionala azpimarratuko du beraz, hark bezala monumentu hitza erabiliaz, baina irmotasun gehiagoz, euskal abertzaletasuna ere mahaigaineratuz:

“Nous espérons que les provinces basques des deux Royaumes, dont les trésors poétiques ont été mis à contribution, accueilleront notre entreprise avec un applaudissement patriotique. Nous oserons offrir notre recueil aux étrangers eux-mêmes, comme un objet de comparaison & un monument où respirera le génie poétique et musical d'une des plus antiques peuplades de l'Europe.”

Iztuetaren aurrekaria garrantzitsua izan arren, esan daiteke apologia honekin abiarazten dela bertsolaritzak sinbolo identitario gisa egingo duen ibilbide luzea.

4.4.1.3 Aitorren kondaira bertsolari baten ahotik

Chaho etorri handiko idazlea izan zen eta liburu errenkada argitaratu zuen bere bizitza laburrean zehar¹¹⁶. Arrastorik sakonena utzi zuena, ordea, ipuin bat izan zen:

¹¹⁵ Beste behin Burkeren bidez Europan emandako mugimendu zabalagoaren baitan koka dauteke geurean buruturiko ekimena: “(...) La música había que escribirla ya que era la única vía para conservarla, y debió de hacerse con un sistema de normas que no estaban adaptadas para este tipo de música. La parte musical debía de ser publicada para interesar a un público de clase media que, en general, poseía pianos (...)” (1991: 56-57).

¹¹⁶ ‘Azti-begia’ (1834), ‘Paroles d'un voyant’ (1834), ‘Philosophie des révelations’ (1835), entsegu filosofiko politiko esoterikoak (azken biok liburu debekatuen Indexean ezarri zituen Vatikanok); ‘Voyage en Navarre pendant l'insurrection des basques’ (1836) narrazio luzea; hizkuntzalara emandako ‘Lettre à M. Xavier Raymond sur les analogies qui existent entre la langue basque et le sanscrit’ (1836); Antoine Abbadierekin osaturiko ‘Etudes grammaticales sur la langue euskarienne’ (1836); ‘L'espagnolette de S. Louis, Agonie du Parti Révolutionnaire en France y Lettre à Jacques Laffitte’ (1840), ‘Philosophie des religions comparées’ (1846) edo ‘Histoire primitive des Euskariens-Basques’ (1847) entseguak; ‘Lelo ou la Navarre il y a 500 ans’ (1848), ‘Safer ou des houris espagnoles’ (1854) edo ‘Biarriz entre les Pyrénées et l'océan. Itinéraire pittoresque’ (1855) narrazioak; ‘Dictionnaire basque, français, espagnol et latin, d'après les meilleurs auteurs classiques et les dictionnaires des Academies française et espagnole’ (1856) hizkuntzalaritza....

“Aipatu dugu (...) nolako harrera izan zuten Parisen idatzi zituen Chahoren zenbait liburuk eta nola *Voyage en Navarre* alemanera itzuli zen bezala, *Paroles d'un Voyant* eta *Philosophie des Révélations* Indexean ezarri zituen Vaticanok. Dena den, argi dago gurean 1845ean argitaratu *Aitor, Légende Cantabre* delako ipuinak izan zuela arrakastarik handiena, gaur egun gazteen artean patronimikorik zabalduenetakoa izateraino.” (Urkizu, 2011: 786)

Berak zuzentzen zuen *Ariel* aldizkarian argitaratu zuen testua, ‘Aitor/Légende cantabre’ izenburupean, aldizkaria martxan jarri eta berehala¹¹⁷.

Chahoren kondaira euskal nazioaren balizko sortzaileaz mintzo da, Aitor deitutako patriarka bati buruz. Ekialdetik bere zazpi semeekin etorria, bakoitzari lurralde bat eman zion eta hortik sortu ziren antzinako zazpi euskal tribuak, gaurko zazpi probintzien jatorria. Linguistika nahiz historiari buruzko hipotesiak eta bere irudimen indartsua uztartu zituen idazle zuberotarrak bere testuan, eta Campionek 1878an berreskuratu zuenean, ernatzen hasi berria zen euskal abertzaletasunak harrera beroa egin zion, jatorrien epifania moduko bat izango balitz bezala bereganatuz. Urkizuk (2011) azaltzen duen bezala, Sabino Aranek bere lanetan erabili zuen, eta gerora hainbat intelektual jeltzalek. XIX. bukaeran eta XX haseran Aitorren seme gisa izendatzen zituen askok euskaldunak, eta euskarari, Ziriako Andonegiren gerra osteko kantuan bezala ‘Aitorren izkuntz zarra’ deitzen zitzaion.

Dezente idatzi izan da, bada, Aitorren kondairari buruz. Badago gutxiago erreparatu zaion, edo, nahiago bada, gutxiago azpimarratu izan den, kontu bat, ordea: Chahoren testuan, kondairaren narratzailea bertsolari bat da.

Kondairaren azpitituluan bertan egiten du lehen erreferentzia: ‘Les Vardules. Ghérékiz. La fête de la pleine lune. Le Barde improvisateur’. Eta bertsolariaren deskribapenez hasten da¹¹⁸:

“Lara, barde cantabre, le même dont le poète Silius Italicus fait un portrait si brillant dans son épopée de la guerre punique, appartenait à la tribu des Euskariens Vardules ou Guipuzcoans (...) Lara, à peine âgé de trente ans, avait été proclamé la fleur des guerriers et le prince des bardes. Les Vardules étaient orgueilleux de le posséder, et les autres tribus de la fédération euskarienne, sans même en excepter les Souletins, ne connaissaient point de rival à ce chanteur incomparable.”

Trilbyn bertsolariari buruzko testua argitaratu eta gutxira atera zuen kondaira, artean ziurrenik kantutegiarekin lanean ari zela. Gertutasun honek azalduko lezake kondairaren narratzaile bertsolari bat aukeratu izana.

Euskaldunen antzinako urrezko aro batean kokatzen da istorioa, Gerekiz izeneko alegiazko mendialde batean. Gerra amaitu berri dute eta ilbeteko festa ospatzeko bildu dira tribu guztiak. Ospakizuna, noski, bertso-saioekin abiatzen da, historia nazionala gogorarazteko bertsoekin: “La première nuit était consacrée à la commémoration de l’histoire nationale, faite par des bardes qui se succédaient sur une estrade au pied du chêne de la liberté.” Ohiko tradizioa hautsiz, bere merituengatik, Larari bakarka aritzeko aukera emango zaio eta berak asmatuiko kondaira bat kantatu nahi du honek: “(...) les vieillards de la tribu accordèrent à Lara une distinction aussi flatteuse que méritée, en le chargeant d’occuper seul l’assemblée (...), à l’exclusion de tous les autres bardes, et de déclamer une légende de sa composition, intitulée Aïtor”.

¹¹⁷ *Ariel*, 1945eko ekainaren 8, 15, 22, 29 eta uztailaren 6an, guztiak lehen orrialdean hasita.

¹¹⁸ Ik. Itzulpena III.V azpipuntuan. Hector Iglesiasek eginiko itzulpenetik hartu da testua, 2010ean Asoghik argitaletxeak kaleraturiko bigarren ediziotik.

Testuaren mamia kondairaren kontakizunak dakar baina ez dio horrek bertsolariaren paperari garrantziarik kentzen. Chahok behin eta berriro azpimarratuko du bere protagonismoa.

Honela, bertsolaria azti eta igarle gisa aurkezten digu lehenengo: “Il portait en ce moment une longue barbe blanche, qui lui descendait à la ceinture. Il s’était coiffé d’une mitre brillante, et avait drapé sur ses épaules la riche dalmatique, qui était le principal vêtement des mages et des devins (...)”. Aipatu da Lara 30 urteko gizon gazte bat dela, baina bizar zuri eta guzti ageri zaigu, bertsolariak paper ezberdinetan sartzeko duten gaitasunarekin bat eginaz¹¹⁹.

Euskaldunen jatorrizko askatasuna eta genealogia esoterikoa eskaintzen ditu bertsolariaren kantua eta zirkulu interesgarri bat ixten da, Chaho berak bere burua azti gisa ez ezik bardo-bertsolari ere gisa aurkezten baitu testu askotan. Zentzu honetan irakurketa interesgarri bat egiten du Zabalok: “Tiene la constitución psíquica de un chamán: iniciado, adivino, extático, dotado de poderes sobrenaturales (...) Los chamanes reencarnan a los ancestros; Xaho está habitado por Aitor” (2004: 178).

Kondairaren testura itzuliaz, haritz handi baten magalean abesten duen bertsolaria ikusleen begietara lehen patriarka bera dela ere badio Chahok: “Lorsque, d’un pas grave et majestueux (...) argenté des broderies symboliques qui ornaient le costume du barde (...) , chacun reconnut l’image d’Aïtor, le grand ancêtre, le patriarche, le père de la race Indo-Atlantide, et le premier né des Euskariens”.

Bertso-saio bati berezkoak zaizkion hainbat xehetasunetan ere sakontzen da: bertsolaria taulatura agertzen denean egiten zaion arrerako txalo zaparrada (‘son apparition fut saluée d’une acclamation universelle’), bertsoari ekin aurreko isiltasun sakratua (‘L’attention était à son comble. Dans le silence prestigieux qui régnait autour du chêne et sur les montagnes’), publikoaren erreakzioak (‘plusieurs des vieillards assis sous le chêne se levèrent à demi, avec un cri de surprise et d’admiration’)..

Aitorren kondaira bertsoan emana da, bada. Eta bertsolaria ez da historia nazionalaren kronista bakarrik, honen sortzaile baizik. Urtebete lehenagoko apologiaz lehen pausoa eman ondoren, testuak bultzada ikusgarria emango dio bertsolariari ikur nazional gisa:

“After Chaho, Aitor became the “newly found” old patriarch of the Basques. After Zumalakarregi died and the Carlist movement became a decadent political cause, the legend of Aitor continued to serve other cultural and political agendas in the Basque Country throughout the 19th and 20th centuries” (Gabilondo, 2016: 181).

Lehen Modernitateko euskararen eta euskal komunitatearen inguruko apologien historiari egiten dion errepasoan Chaho seinalatzen du Madariagak tradizio honen azken gailur eta itxiera gisa: “(...) el autor que elabora una teorización más completa es precisamente el que cierra el ciclo de pensamiento moderno y abre las puertas a sistemas de pensamiento contemporáneos: Agustín Chaho” (2008: 26).

Ordurarteko apologistek genealogia biblikoetan (Tubalismoa) oinarritzen zuten euren lana eta argumentu filologikoak (Euskoiberismoa) eta historikoak (Euskokantabrismoa) gehituz Iberiar Penintsulako jatorrizko komunitatea euskaldunena zela ezarri, jatorrizko espainiarren

¹¹⁹ Gerora gehiagotan ere aipatuko da bertsolariaren igarle izaera. Esaterako *Diario de San Sebastian* egunkarian (1880/IX/27) ‘Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Sariak’ izenburuarekin argitaraturiko testu honetan: “Es la una de la noche y acabo de volver hace poco del lunch que varios jóvenes de esta Ciudad hemos ofrecido á los preclaros versolaris, que en el Teatro Principal (...) nos han electrizado y entusiasmado con sus cantos, con sus dichos y con sus profecías, pues siempre los divinos vates han tenido la dicha de leer en el porvenir.”

eskubide gisa legitimatzen zituzten euskal Foruak¹²⁰. XIX. menderako historiaren ulerkera erlijioso hau gainbeheran zen, baita foruak eurak ere, eta Chahok atzean utzi nahiko ditu: Europan puri-purian zen iruditeria ongi ezagutzen du, Nodierren eskolan edan izan du esoterismoaren edo zaldun gerlarien historia gotikoen iturritik, Erromantizismoak kultura popularrari eta nazionalismoari ematen dien garrantzia ere gertutik bizi du, eta Tubal biblikoaren tokian Aitor jarriko du, elementu esoteriko eta kulturalez hornituriko euskaldunen patriarka, euskaldunen jatorrizko independentzia azpimarratuko duen kosmologia sortzeko:

“En esencia la leyenda se desarrolla de la siguiente manera: el bardo improvisador Lara, bajo el roble sagrado de Gherekiz narra a los vascos su propio origen: el del pueblo y la lengua vasca. Es decir, se fusionan los elementos fundamentales de lo que se supone constituye el alma vasca: la identidad lengua/pueblo, el carácter oral de su cultura y la protección sagrada del árbol, símbolo de la libertad política secular, nunca conculcada. La vinculación de la identidad política con la lengua, o si se quiere, la propuesta de un nacionalismo político de base culturalista y esotérica, me parece en nuestro caso de todo punto destacable.” (Madariaga, 2008: 86)

4.4.1.4 Bidegile bertso jarriak prentsan argitaratzen ere

Apologiaren ondotik, eta kondaira argitaratu zuen antzeko datetan Chahok bere kantutegia *Ariel* aldizkarian ateratzeri ekingo zion: Lehenengoa, ‘Tchori khantazale eigerra’ izango da, 1845eko urtarrilaren 5ean, aldizkariaren 14. zenbakian, 2. orrialdean; bigarrena, La Fontaineren ‘Eche arratoya eta soro arratoya’ Augustin Iturriagak itzulita, otsailaren 16an, 20. zenbakian, hirugarren orrialdean; hirugarrena, ‘Tchori erresignoula’, martxoaren 2an, 22. zenbakian, 3 orrialdean; laugarrena, ‘Leen floria’, martxoaren 8an, 23. zenbakian, 3...

Julen Urkizaren *Aldizkari eta egunkarietako bertso eta olerkien bilduma bibliografikoaren* arabera 19 izango ziren guztira *Arielen* 1845ean argitaraturiko euskarazko bertso eta olerki sortak. Eta bilduma horren arabera, hauek dira prentsan argitaraturiko lehen bertsoak.

Jite guztietako iruzkinekin osatzen zituen bertsoen argitalpen hauek¹²¹.

¹²⁰ Erdi Aroan eta Lehen Modernitatearen hasieran historiaren ulerkera erlijioso bat zen nagusi eta genealogia biblikoekin finkatzen zen herri bakoitzak izan zezakeen legitimotasuna. Honela, Espainian XV. eta XVI. mendeetan zabaldu zen kondairak kontatzen zuzenez Tubal, Armeniatik etorritako Noeren iloba, izan zen Iberiar penintsulako lehen biztanlea : “(...) Túbal se convierte en el mito fundacional español, formando parte esencial del entramado legitimador hispánico: el necesario nexo entre los tiempos bíblicos áureos y la fundación de la entidad política moderna” (2008, 64). Bere euskalduntasunaren arrastorik ez zen agiri Tubal Andaluzian finkatu zela argudiatzen zuen Florian Ocamporen lanetan edo Katalunian lehorreratu zela defendatzen zuen Alcalako Esquivelenean, baina Zaldibia eta Garibayk argudiaketa filologikoak (euskarak behar du iberiar penintsulako jatorrizko hizkuntza) eta historikoak gaineratuz (eusko-kantabroak dira inoiz inork menperatu gabeko iberiar bakarrak) Pirineoetan kokatu zuten Tubalen lehen bizilekua: “Desde este punto originario los descendientes de Túbal poblarían el resto de la península, pero este primer punto poblado gozaría del estatus superior que confiere la antigüedad” (Madariaga, 2008: 64). Mitoa foruen sustengu ideologiko gisa birkokatzea lortu zutelarik: “Los elementos constituyentes del entramado foral vasco, pureza, primitivismo, antigüedad, independencia, relación privilegiada con la divinidad, se forjan y organizan precisamente en torno al relato de origen de Túbal” (id.: 65).

¹²¹ ‘Icazketaco mandoa’ sortari buruz (*Ariel*, 1845/IX/14, 2 or.), esaterako, honela dio (itzulita): “Bardo nafar baten etorri bufoia erakusten duen inprobisazio bat dakarkigu gaur. Europak egunkarietatik jakin ahal izan du Isabel Erreginak Espainiako hamalau mando ederrenak aukeratu dituela Tolosatik Iruñeara Nemourseko Dukearen karroza tira dezaten. Hori dela eta mendiko ikazkin batek bere mandoa eskaini du, aberearen ekipamendu eta edertasuna hobetzerik ez dagoelakoan (...).”

Edo Bordaxurik Nemourseko dukeei eskainitakoari buruz (*Ariel*, 1845/VIII/24, ‘Un couplet basque’): “Satira mota honek abantaila asko ditu (...) desadostasunak modu arrazoitu batean adieraz daitezke lizentzia poetikoak erabiliaz. Errimak esan nahi dutena edo behar luketena baino gehiago esatera daramatza askotan bere maisuak. Tradizio onak errespetatzen dira baina txiste pikantei uko egin gabe (...) M. Larralde-Bordachouriren inprobisazioa ez da satirikoa arranguratsua eta goreslea baizik”.

Eta zenbaitetan berak jarritakoak ere zabalduko ditu:

“Xaho tenía el ritmo y la rima fáciles. Sin embargo, no sacrificó mucho a la poesía: sólo tenemos algunas docenas de escritos en verso, dispersos por los números de Ariel (...) El epigrama, la canción satírica, son los géneros donde le satisface brillar. Además se ajustan tanto a su carácter, al sesgo de su espíritu, como a la tradición de quienes designa como ‘bardos’: los bertsolaris de su país” (2004: 166)

1845etik aurrera, ordea, argitaratzeari utzi zion. Patri Urkizuk seinatzen digu erabaki honen atzean aurki daitekeen arrazoia: “Badirudi beti eztabaidatsu diren ortografi arazoak izan zirela, tamalez, euskal kantu bilduma honen moldiztegitratzea oztopatu zutenak” (2006: 13). Izatez, Chahok, *Arielen* argitaraturiko bigarren kantarekin batera euskal ortografia bateratu beharraz dihardu¹²² eta arazo horrek kantutegiaren argitalpena atzeratzea dakarrela dio¹²³.

Aitzindari gisa urraturiko beste bideekin gertatu bezala, bertsoen prentsako argitalpenaren honetan ere, berehalakoan behintzat ez du inolako jarraitzaile izango: hurrena argitaratuko dena, *Arielen* izango da berriro, 1849an; hurrengo ere *Arielen*, 1851ean; eta berriro *Arielen* 1852an. *Sustraia* aldizkaria izango da, 1852an, *Arietik* kanpo bertso sorta bat argitaratuko duen lehena, eta modu jarraitu batean egingo duena, bost sorta argitaratuz, *Irurac Bat* aldizkaria, 1859an. 60ko hamarraldian *La Gazette de Bayonne* argitaratuko ditu beste hainbeste, eta 70ekoan *Diario de San Sebastián*ek. Hurrengo 25 urtean ateratako guztia ez da Chahok 1845ean argitaraturiko kopurura iritsiko.

Eskaintza ez da asetatuko 1880ko hamarkadara arte. 1878an Arturo Campionen *Revista Euskara* eta Fermin Herranen *Revista de las Provincias Euskaras*, biak urte hartan sortuak, hasi ziren bertso sortak argitaratzen; bien artean zazpi. 1879an 35 izango dira bien artean, eta 1880an *Euskal-Erria* aldizkaria ahaleginean batu zitzaielarik, hiruen artean 77¹²⁴.

4.4.1.5 Aipamen soiletatik (‘Navarra’) lehen lerrora (‘Biarritz’)

1835eko martxoaren 26tik abuztuaren 12ra tropa karlistekin egin zituen Chahok. Karlismoaren alde agertua zen hainbatetan, baina antiklerikala eta errepublikanoa izanik ez behintzat mugimenduaren idearioarekin zerikusi handirik zuelako, euskal independentziaren arrasto gisa ikusten zuelako baizik¹²⁵. Izatez, karlistak ez ziren independentistak ere eta eurekin egin zuen egonaldia uste baino motzagoa suertatu zen, elementu arriskutsutzat hartu

¹²² Ortografia bateratzeko beharrez gehiagotan ere arituko da Chaho. Honetan ere aitzindaritzat jotzen du Hector Igleasiak: “(...) alde batetik damu zen euskara batu baten ez existitzeaz — ideia hau, egia erran ezinago harrigarria garai hartako Euskal Herrian, aski izango litzateke Chaho ohiz kanpoko igarle batetzat jotzeko — eta beste alde batetik pentsatzen zuen euskara Euskal Herriko hizkuntza ofiziala izan behar zela; halaber pentsatzen zuen euskararen irakaskuntza euskal lurralde historiko guzian zehar orokortua izan behar zela” (2010: 131-132).

¹²³ Kantutegia izatez, ez da 160 urte beranduago arte argitaratuko, hain zuzen ere Urkizuren eskutik. Urkizuk (2006) berak azaltzen du guztira 70 kanta jasotzen zituzten eskuizkribu ezberdinek eskuz esku bizi izandako bidaia luzea: Chaho, Dihinx, Vinson, Lacombe, Etxart, Urkijo, Manu de la Sota, Dassance, Monzon eta Euskaltzaindia.

¹²⁴ Urkizaren bildumatik XIX. mendeari buruz ateratako datuok esanguratsuak dira: 40ko hamarkadan 20 sorta argitaratu ziren prentsan, 50ekoan zortzi, 60koan lau, 70koan 46, 80koan 1455 eta 90ekoan 2809.

¹²⁵ Honela azaltzen du Madariagak: “La aparente contradicción encarnada en Chaho de que, siendo republicano y progresista convencido, volcase todas sus simpatías en el carlismo, se resuelve, de nuevo, en los términos de confrontación civilizatoria secular entre los pueblos del norte y los del sur, entre una civilización bárbara y otra solar. Para Chaho el sistema político vasco, proveniente de la época áurea era perfectamente igualitario, representativo, libre y republicano. No necesitaba aprender nada de los nuevos sistemas constitucionales liberales porque el suyo lo era antes que ninguno de ellos y más perfecto” (2008: 89). Gabilondok ere oso antzeko esplikazioa ematen du puntu honen inguruan (2016: 180), eta Zabalok, soilago, errepublikano baino abertzaleagoa izan zela azpimarratzen du (2004: 104).

eta bertatik egotzi baitzuten. Zabalok *Arielen* Chahok berak eskainitako azalpenaren itzulpena eskaintzen du:

“En 1835, mientras el autor de ‘Voyage en Navarre’ dormía patrióticamente en la cama de la Junta de Estella (...) fue denunciado a los inquisidores del cuarter real de don Carlos por los Basilios de la frontera como enemigo de la religión católica, apostólica y romana, como jacobino peligroso del que sería bueno deshacerse. Durante el regreso a Francia hubo de librarse de las balas santas, de los puños sagrados, los que nos privó de escribir un libro, que nos hubiera salido más interesante sobre el terreno, y seguir paso a paso una de esas poéticas guerras de montaña que alimentan el entusiasmo y la inspiración del novelista y del bardo” (Zabalo, 2004: 65)¹²⁶

Bidaiaren kontakizunarekin osatu zuen ‘Voyage en Navarre’ (1836) liburuan bertan¹²⁷ bertsolariak ere aipatzen ditu. Honela, kontrabandista talde batekin egiten ari diren mendiko ibilbidea girotzen dute III. atalean eskaintzen den pasarte batean:

“Des bardes improvisateurs précédaient chaque groupe, en guise de coryphées, et chantaient alternativement, sur un air simple, mais gracieux, des couplets tour à tour naïfs et folâtres. Je me souvenais d’avoir joui d’un spectacle à peu près analogue à des fêtes de village, où jeunes filles et garçons, réfugiés par centaines sous les portiques des maisons, de chaque côté d’une rue, se communiquaient leurs sentiments par l’organe d’un barde inspiré (...) A chaque improvisation des bardes, les groupes répétaient en chœur des refrains d’une monotonie mélancolique, que la sonorité des vallées renvoyait plus beaux; et ces chants ibériens, entrecoupés de silences, communiquaient à l’âme les rêveries intimes, les vibrations indéfinissables, qui dévoilent à l’homme harmonique les mystères de la vie et de la création.” (Chaho, 1865: 37-38)

Atal berean beste saio bat aipatzen du (id.: 39-40), V.an kaputxino baten gaztelerazko kantuak bertsolariak ekartzen dizkio gogora (id.: 152), VI. atalean Lesakan jokaturiko pilota partida deskribatu ondoren festak bertsolariak partidaz abesturikoekin jarraitzen duela dio (id.: 168), atal berean Sagastibeltza militar karlistak Zumalakarregiri buruzko bertsoa eskaintzen dio (id.: 194-195), VIII.an afalondoko beste saio bat aipatzen du (id.: 297), IX.an mando bati botatako bertso irriarriak entzuten ditu eta gipuzkoarrak oso bertsozaleak direla seinalatzen du (id.: 342-343). Eta beste hainbat aipamen topa daitezke hurrengo ataletan ere.

Aipamen guztiak azalekoak dira, ordea, bertsolariak ez dira tropa karlistekin batetik bestera dabilela dakusan paisaiaren elementu bat baino askoz gehiago. Hogei urte beranduago argitaratu zuen ‘Biarritz, entre les Pyrénées et l’Océan: itinéraire pittoresque’ (1855) lanean, bere azken liburua bertsolariak zuberotarrantzako bestelako garrantzia bat hartu duela ikus daiteke. Atal oso bat eskaintzen dio, ‘Les Bardes’ (Chaho, 1855: 155-166), eta ‘Chansons’ (id.: 167-174) nahiz ‘L’Amour (id.: 175-194) ataletan paragrafo ugari..

¹²⁶ *Arieletik* dago jasoia testua, 1848/VIII/12 datarekin argitaraturiko zenbakitik.

¹²⁷ Gabilondok Nodierren eragina ikusten du lan honen atzean: “(...) it is important to mention Nodier’s travel to Scotland, Promenade from Dieppe to the Mountains of Scotland (1821), which became the inspiration for Chaho’s most important work: Voyage to Navarre during the Insurrection of the Basques (1836)” (2016: 178). Bestalde, bidaiariaren kanpoko begirada azpimarratzen du, Peru Abarkan bezala bere burua kanpotik begiratzen duen euskaldunaren modernitate berria, eta guzti honetan datzan orientalismoa (id.: 180). Madariagak ere oso antzeko hitzak dakartza: “Viaja como un observador romántico a un lugar exótico, por más que continuamente proclame la identidad cultural e incluso política de los vascos de ambas laderas del Pirineo. El paralelismo con el viaje de Byron a Grecia queda reforzado por el sobradamente conocido retrato que Xaho se hace vestido ‘a la navarra’ igual que el británico se había retratado ‘a la griega’.” (2008: 577).

Deigarriena bapateko bertsolaritzari egiten dion azpimarra litzateke. Abbadieren Lore Jokoak martxan jarri berriak dira Chahok liburu hau idazten duenean, eta aipatu denez Lore Joko hauetan bertso-jarriei, idatziari, askoz ere garrantzi gehiago emango zaie, bat-batekoari baino. Chahok, ordea, bat-batekoaz aritu nahi duela argi asko esanaz ekiten dio:

“Notre projet, dans ce chapitre, est de ne parler que des chansonniers basques, improvisateurs illettrés. Nous ne voulons pas confondre ces bardes sauvages les littérateurs qui écrivent eux-mêmes leurs vers ou qui les dictent, dont les œuvres ont été imprimées et dont la réputation est faite: par exemple, l’abbé Goyhette, l’abbé Hiribarren, Istueta et le Guipuzcoan Iturriaga, auteur de quelques Fables charmantes. Nous ne voulons parler que de bardes inconnus dont personne ne sait aujourd’hui les noms, et dont les compositions n’ont été conservées que dans le mémoire du peuple.” (Chaho, 1855: 155)

Jarritako gaiari bapatean erantzuteko zailtasunaz dihardu, eta honek herritarrengan sortzen duen miresmenaz: “Le barde est traité par tous avec cet air d’affection que les montagnards accordent à celui qui vient de faire Plaisir à tout le monde, avec le respect que l’on doit au génie” (id.: 157). Bertso-saioak deskribatzen ditu, eta izen abizenekin ezagutzen den bertsolari zaharrenaren, Beñat Mardo barkoxtarraren inguruan luzatzen da gero, Iparraldeko bertsolaririk onena izan zela edota bere bertsoekin hogeitaz liburu bete ahalko lirakeela, esanaz. Artzainek bertsotarako duten abilezia berezia, mendialdean fenomenoak duen indarra, edota bertso umoretsu eta satirikoek izan ohi duten arrakasta bezala kontuekin hainbat orrialde betetzen ditu, fenomenoak jende jantzienaren arreta merezi duela azpimarratuz:

“A quinconque saurait la langue basque et réunissant en sa personne toutes les qualités et la science poétique d’un membre de l’Académie française, nous conseillerions d’aller passer quelques heures jusqu’à minuit, en verve d’improvisation, au milieu d’une douzaine de ces bergers sauvages.” (Chaho, 1855: 166)

Bere arreta behintzat lortu zuen, urteak aurrera joan ahala geroz eta indar handiagoz gainera, eta horri esker gerora bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren eta fenomenoaren bilakaera funtsezkoak izango ziren hainbat hazi utziko ditu Atharratzekoak: gaia prentsan jarraitasun batez argitaratu zuen lehenengoa izan zenez, 1845ean argitaratu zuen testu sorta litzateke bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren abiapuntua; testu sorta horren baitan prentsan agerturiko bertsolaritzaren lehen apologia argitaratu zuen, bertsolaria lehen aldiz ikur nazional gisa irudikatu zuen Aitorren kondaira baita, aldi berean bertsolaritza txertatzen duen fikziozko lehen testua dena, eta bertso-jarrien prentsako argitalpenaren bidea estreinatu zuen.

Bertsolaritzari dagokionean ere, ukalezina da, bada, Agosti Chahoren azti-begia.

4.4.2 ABBADIEN LORATEGIA

4.4.2.1 Antoine Abbadie, esploratzailea (1810-1897)

Etiketetik zetorkion dirua Abbadieri. Michel aitak Zuberoako Ürrüstoi herrixkatik Dublinera emigratu zuen, Espainiatik eta Londresetik pasa ondoren, eta bertako kanal bat ustiatzeko enpresarekin hasi zen dirua egiten. Untzien armadore, arma trafikatzailer eta Banque de Franceko bazkide gisa osatu zuen poltsa. Aitak pilaturikoari amak zekarrena gehitu zitzaion gainera, Elisabeth Thompson of Park Dublingo familia aberats bateko alaba bakarra baitzen.

Euskarekiko lotura ere etxetik jaso zuen, aita euskaltzale sutsua baitzen. Sei seme-alabei euskara irakatsi zien, neskame euskaldun bat ere ekarrarazi zuen hizkuntza hori gehiago praktika zezaten, eta euskarazko hiztegitza eta gramatika lanak sustatu izan zituen:

“(…) Tolosako egonaldian, Léclyse jauna, grekozko literatura irakaslea, euskararen ikertzerak finki lehiarazi zuen ; bere ikerketa lanetan lagundu zuen eta haien argitaratzean diruz urgatzi. Gero Frantziako Akademiari Darrigol apezaren gramatika lana zinez goretzi zion eta erakundeak gomendioa beretu (...) Léclyseren hiztegitzari ‘Porspecus’ delakoa idatzi zion, eta Grammaire liburuan La Fontaineren ‘Le corbeau et le renard’ alegia (Belea eta axeria) zubereraz itzuli.” (Davant, 2012: 85-86)

1820an Frantziako Tolosara aldatu zen familia eta 1828an Parisera. Bertan 1830ean ekin zien zuzenbide ikasketei Antoinetik, baina bere formazioa ez zen alor honetara mugatu: “Oso ikasle argia izan da, batean gartsua, bestean dastaka zebilena. Jakintza sail guzietan sudurra sartu du, eta hola jarraituko du bizitza guzian” (Davant, 2012: 71). Horretarako erraztasun guztiak eskaini zitzaizkion gainera: “Garaiko irakasle hoberenak ditu: zuzenbidean Cousin, Guizot eta Villemain; mineralogian eta geologian Brogniart eta Brochant de Villiers ; zoologian Duméril ; astronomian Biot eta Arago handia : azken horren ikasle kuttuna dugu Antoine” (id.: 71).

Chahorekin lotu zuen adiskidetasunaren adierazgarri, argitaratu zituen lehen bi testuak honen lanen ingurukoak izan ziren. Batetik, Atharratzekoaren ‘Etudes grammaticales sur la langue euskarienne’ri (1836) aitzin-solas luze bat egin zion frantsesez. Lehen zati batean euskararen berezitasunez aritu zen, besteak beste latina, hungariera, finlandiera, laponiera, hebreera, sanskritoa, (Chahok ikertua), georgiera eta ketxuerarekin alderatuz (poliglota zen bokazioz, hamalau hizkuntzatan moldatzera iritsi zelarik). Eta bigarrenean euskal bibliografia kritiko bat eskaintzen zuen, gaiaren ezagutza sakon eta zabal bat erakutsiaz¹²⁸ (Davant, 2012: 127; Urkizu: 1997a: 329; Zabalo, 2004: 158). Bestetik, urte berean, ‘Analyse du voyage en Navarre de M Chaho’ argitaratu zuen *Bulletin de la Société de Géographie* aldizkarian, Chahoren idazkera eta abertzaletasun sutsuak gorai patuz eta bera ere karlisten aldeko agertuz.

Hitzok argitaratu zituen urteak zeramatzan bere bokazio nagusiaren prestaketan:

“Britainiarrek eta frantsesek Afrikaren esplorazioa hasi dute; Brucek, 1768 eta 1772 artean, Mungo Parkek 1795 eta 1806 artean, Caillaudek 1819 eta 1822 artean (...) Bruceren urratsen ondotik, Antoinetik, 19 urtetan bere helburu nagusia Ethiopia izanen dela erabakitzen du, honek ez duela erran nahi, lehenik ez duela Atlantikoa zeharkatuko, eta Brasilen misio zientifiko nahasi bat beteko. Ondotik bere zehaztasun guztia bere ametsetako espedizioaren antolaketari emanen dio.” (Estornes, 1997: 57)

1837an abiatu zen Etiopiaruntz¹²⁹ bere anaia Arnaudekin batera eta hamabi urte egingo zituen bertan. Niloren sorburua topatzea zen espedizioaren helburu nagusia, baina denetarikoa lanak

¹²⁸ Lagunarekiko distantzia batzuk ere markatu zituen lan honetan: “Estos ‘prolegomenos’, es así como los llama, D’Abbadie los escribe en un lenguaje llano y bello, ‘con el gran afecto’ que siente por el vascoence, pero conservando, dice, su ‘sangre fría’. Y adivinamos que quiere protegerse de las tan usuales exageraciones de su colaborador.” (Zabalo, 2004: 157-158). Baita gerora ere: “Sustatzaile izateak ez dio kritika izpiritua kenduko, zeren urte batzu geroxeago Chahoren hiztegiak honela zioen, nous montrons notre sentiment de son importance par l’énoncé de quelques idées critiques, que l’auteur voudra bien nous pardonner, hots, ez duela adiskidetasunak mingaina isilaraziko. Zeren Chahoren delako Alfabetoen gerrak gogoeta baino irria gehiago eragin baitu, eta ez delako batere konforme hark harturiko zenbait aukerarekin.” (Urkizu, 1997a: 331)

¹²⁹ Honela dio Urkizuk Abbadieren bizitzaz eginiko kronologian: “1829: (...) Antonek Afrikara joateko erabakia hartzen du eta bidaiarako prestaketak egiten hasten da” (1997a: 17). Zortzi urte egiten ditu, bada, bidaiaren

burutu zituen Antoinetik geografian, geologian, geodesian, astronomian, fisikan, biologian, hizkuntzalaritzan edota etnologian. Anaiaren babesa beharko du horretarako, buruzagi feudal ezberdinen arteko gerlek astintzen baitute herrialdea, eta denetariko gora beherak biziko dituzte¹³⁰. Guzti honek sona handia emango die Frantziako komunitate ilustratuaren baitan eta itzuleran, Niloren sorburua topatu dutelakoan¹³¹, hainbat sari eta ohorerekin hartuko dituzte, tartean Errepublikari eta bereziki komertzioari nahiz geografia zientziari egindako ekarpenengatik presidenteak emaniko *Chevalier de la Legion d'Honneur* izendapena.

Aragorria baserria erosi zuen Antoinetik Urruñan eta Abbadie jauregia eraiki zuen bertan, astronomiako behatoki eta guzti. 1851tik hasita Lore Jokoak antolatzeari ekingo zion, sariak bere poltsikotik jarri eta laster deituko zitzaion 'euskal kulturaren patriarka'. Funtsezko erreferentzia bihurtuko zen Lehen Euskal Pizkundera bidean: "Entre otros D'abbadie estimuló al príncipe Bonaparte, a Darrigol, Duvoisin, Arturo Campión, Pierre Loti, etc. y por supuesto, mantuvo relación con otros vasquistas a los que no hacía ninguna falta ser estimulados, como Chaho" (Madariaga, 2008: 561-562). Louis-Lucien Bonaparte 1855ean ezagutu zuen, Londresera buruturiko bidaia batean, eta 1856tik aurrera euskararen inguruan burutuko zituen ikerketetarako behar zuen taldea osatzen lagundu zion. Ordura arte izan ez zuen babes bat eskaini nahi izan zioten euskarari bi adiskideek: "Erakunde publikoek, euren ohizko axolagabekeria eta utzikeriagatik betetzen ez zuten lana, Abbadiek eta Bonapartek hartu zuten beren gain. Maila herritarragoan eta Iparraldeari lotuago Abbadiek, jende ikasiagoarekin eta Euskal Herri osokoekin arituz Bonapartek" (Zuazo, 1991: 12-13).

Charles Louis Bonaparte, 1848tik II. Errepublikako presidente eta 1852tik Bigarren Inperioko enperadore, Louis Lucien printze titulua nahiz pentsioa eman eta Chaho erbesteratu zuen bera, laguna zuen Abbadiek 1836an Brasileran egin zuen lehen ikerketa bidaiari elkar ezagutu zutenetik¹³². Eta politikoki ere enperadorea sostengatzen zuen *xurien* bandoan lerratzen zen, Lore Jokoetan kolore hau nagusituko zelarik: "Lore Jokoetan bereziki, Euskal Herriko jabe nagusiak eta apaizak zituen partzuerak. Ez da dudarik horien ikuspegi bera zuela euskal gizarteaz. Alde horretarik bederen, bat zauden enperadoreak zeraman kulturako politikarekin, eskualdeetako tradizioak eta ohiturak babestu nahi baitzituen (...)" (Davant, 2012: 114)¹³³. Hendaiko alkate ere izan zen 1871tik 1875era.

Ardura hauek guztiak hartu arren ez zion inoiz bidaiatzeari eta ikertzeari utzi. Hainbat ikerketa txango burutu zituen (Jerusalem 1850ean, Norvegiara 1851ean, Espainiara 1860an, Aljeriara 1867an, Haitira 1882an, Afrika Ekialdera 1883an eta Turkiara 1884ean) eta

prestaketan: "Tirria goiztik etorri zaie [Antoine eta Arnaud anaiak ari da], eta luzaz horretarako apailatu dira gorputz eta espirituz, bereziki kanpoan gogorki bizitzera ohituz, gauaz lurrean lo eginez, igerikan jardunez (...). Hizkuntzetan, etnologian, geografian halaber trebatzen dira bi anaiak" (Davant, 2012: 72).

¹³⁰ Davantek eskaintzen du kontu zapoetsurik: "Indarrak ez du Negus delako enperadoreak. Beregain dago eskualde bakoitzeko buruzagia, noiznahi gerla egiten diolarik albokoari. Anarkia horren aurka jeikiko da printze serio eta zuzen bakarra, Guoxo delakoa. Haren alde jarriko da Arnaud, eta guda bilakatuko" (2012, 108). Baita Urkizuk ere: "Inarya-n Abba Boggibo erregeak bere ezkontza-anaia gisa hartzen du Arnaud, eskatzen diolarik bere partez joan dadin Kafka-ko erregearengana beretzat eskatzeko haren arreba" (1997a: 18).

¹³¹ Erraturik zeuden, ordea: Nilo urdinaren iturburua zen topatu zutena, ibai nagusia Nilo zuria delarik. Honek sorburua Etiopiatik urrun du, hegoalderago, Tanganika eta Victoria lakuen inguruan.

¹³² Berririo ere Davantek eskaintzen ditu xehetasunak: "Ezagutzak egin zituzten 1836an, Brasilerako bidean, Andromède itsasontzian, eta geroztik harreman onak atxiki dituzte. Hendaiko Abbadia jauregiari azken harria eman beharra zion enperadoreak, baina 1870ean alemanen aurkako gudua galdurik, haiek presoner eginik, desterrurako bidea hartu behar izan zuen, Ingalaterrarantz. Beraz harri bat eskas du Abbadiek balkoi batean, adiskidantzen lekuko ederra delarik hutsune hori" (2012: 114)

¹³³ Elizarekin ere izan zuen gorabeherarik, ordea: "(...) elizakoetan ere debeku zuen euskaraz aritzea, Baionako seminario handian eta Larresoroko seminario txikian bederen. Abbadiek nahigabe bat izigarria ukan zuen Baionako apaizgaitegi nagusiko buruenganik. Hor bere diruz euskararen irakasteko aulki baten eraikitzea proposatu zuelarik, eskubide hori ukatu zioten etxe santu horretako buruzagiek." (Davant, 2012: 115)

askotariko gaien inguruan argitaratu zuen, nagusienak Etiopia nahiz astronomia izan baziren ere. Lan guzti hauengatik hainbat aitortza jaso zuen, bestalde, Frantziako Zientzia Akademiako urgazle izendatu zutelarik 1852an, kide oso 1867an eta lehendakari 1892an.

Hain zuzen, Akademiako bilera bat prestatzen ari zela hil zen, Parisen, albisteak garaiko prentsa frantziarrean oihartzun garrantzitsua izan zuelarik. Honela zioen ordurako Ipar Euskal Herrian aldizkaririk garrantzitsuena zen *Eskualdunak*:

“En le perdant, nous ne perdons pas seulement le savant éminent, l’explorateur courageux et hardi qui faisait tant d’honneur à notre race, nous pleurons encore et surtout le Basque généreux et éclairé qui a tant fait pour le maintien de notre langue et de nos traditions (...)” (*Eskualduna*, 1897/III/26)

Euskal kulturaren sustatzaile gisa ere esploratzaile lanak egitea tokatu zitzaioela gaineratu zitekeen.

4.4.2.2 Aurrekariak eta sorburua

Abbadieren euskal aireen ezagutza goiztiarra eta pertsonaiaren hibridazioa erakusten dituen pasarte bat eskaintzen du Urkizuk:

“Ezaguna da, Anton Abbadiak 1835ean egin zuelarik bere bidaia Britania Handian barrena eta ingelesez bere poemak idazten zituelarik, hauei euskal doinua ezartzen diela hauen arabera kanta daitezen. Hala, ‘From my mother verdant isle’, hots, Irlandatik idazten duen poema ‘Mendian zoinen eder epher chango gorri’-ren arabera eta ‘A far from Erin sad tho proud’, ‘Aitaric ez dut doinuaren’ erara abesteko moldatuak daude.” (2006: 31-32)

Hori da, ordea, Lore Jokoen antolakuntzari ekin aurretik euskal-irlandarra bertsolaritzarekin nolabait harremanetan jartzen duen zantzu bakarra. Gerora ere, bere bizitzan zehar testu ugari argitaratu arren, ez du berauetan inoiz Lore Jokoen edo bertsolaritzaren inguruan ezer esango. Ez dago argi, bada, Jokoak antolatu eta bertsolaritza sustatzeko ideia nondik nora zitzaion.

Lore Jokoen tradizioa Erdi Arotik dator. 1324an jokatu ziren lehen aldiz Frantziako Tolosan ‘Consistori de la Gaya Sciència’ delakoak deiturik probentzerazko trobadoreen bertso-jarrien lehiaketa gisa. Okzitanian indar handia hartuko dute eta Kataluniara pasako dira jarraian, Bartzelonan jokaturiko katalanezko Jocs Florals-en lehen berriak 1394 eta 1395ekoak liratekeelarik. XV. mendean zehar Valentzian, Balear Uharteetan eta Gaztelan ere zabalduko dira. Eta Iruñean 1609an nahiz 1610ean jokaturiko gisako lehiaketa bitan euskaraz aritu zirenaren arrastoa ere topa daiteke, Abbadieren Lore Jokoen aurrekari zuzenena litzatekeena:

“Y porque celebrandose en este Reyno de Navarra la solemnidad de esta fiesta, no es razon que la lengua matriz del Reyno quede desfavorecida, se pide en este certamen (decimo) un romance de doze coplas en Bascuence, que lleve un estribillo de tres a tres coplas. Y al que mejor lo hiziere se le darán tres baras de tafetan. Y al segundo, dos de Olanda. Al tercero, tres pares de guantes blancos” (Michel, 1847: 39)¹³⁴.

¹³⁴ ‘Relacion de las fiestas que el Ilmo señor Don Antonio de Venegas de Figueroa Obispo de Pamplona, hizo el día del Santissimo Sacramento, y por todo su octaviario, este año 1609’ darama izenburutzat Michelek aipatzen duen testuak, Anselmo Muñoz da idazlea, eta irakur daitekeenez hamargarren ekitaldia zuten 1609ko hura (euskarazko lehenengoa berebat). Frantziarrak gaineratzen du testuaren arabera lehen urte hartan irabazleak Pedro de Ezcurra, Miguel de Aldaz, eta Joan de Eliçalde izan zirela hurrenkera horretan. Urkizuk bigarren urtean sari bakarra Martin Portali eman zitzaioela ere zehazten du, gaia erlijiosoa izan zela bietan, garai hartan Inkisizioaren eraginez ohikoa zen bezala, eta gehiago ere badio: “(...) jakin, badakigu gainera Iruñeako Eliz

Iberiar penintsulan desagertuz joango dira Lore Joko hauek baina Okzitania, Frantziar Iraultzak eragindako urte gutxi batzuetako etenaldia tarteko, Abbadieren egunetaraino (eta gaurdaino) luzatzen dira. Beraz, Abbadieren ideiarekin sorburuari buruzko azalpen agerikoenak, euskal-irlandarra Tolosan bizi izan zen garaia seinatzen du:

“Erdi Aroko okzitaniarren etsenplutik ikasi duke, ezagutzen baitzituzkeen. Eiki Tolosan bizi izan da 1820tik 1827ra, bigarren maila han estudiatu du, eta gero urte batez zuzenbidean ikasi (...) Tolosa ez da hiri erraldoia, are garai hartan. Antoinen biga-bostetan korritu duke, orotan zokokan betiko legez, Etiopia baino toki errazagoan. Logikoa denez, seguru bezala nago Tolosako Lore Jokoen Akademia ezagutu zuela, horren jarduera eta historia barne.” (2012: 83)

1694tik, ordea, Louis XIV erregeak antolakuntzari ‘Lore Jokoen Akademia’ maila eman zionetik, probentzerazko bertsozintza frantses hizkuntzan egindakoak ordezkatu zuen Joko hauetan. Estatu hizkuntza batekin burutzen zen jarduera euskara bezala erabat ertzekoa zen hizkuntza baten promoziorako erabili zitekeela bururatzeak, beraz, bazuen bere zailtasuna.

Gabilondok beste aldaera bat proposatzen du, Etiopiako egonaldi luzean buruturiko lan etnografikoen eragina ere eman izan zitekeela aipatuz: “Following a tradition that existed in the south of France since the Middle Ages, and inspired by similar music performances he observed in Ethiopia, Abbadie began to organize “floral games” or lorejokoak in 1853 in Urruña” (2016, 191)¹³⁵. Azaldu denez euskal nortasun modernoaren eraketan funtsezkoak dira Gabilondorentzat garaiko antropologia fisikoa nahiz nortasun ikur gisa hartu zen bertsozintza, eta bien arteko lotura gisa seinatzen du Abbadie, Etiopian buruturiko lanaren izpiritu orientalista Euskal Herrian finkatzean bertako kulturaren fokatu zuela planteatuz:

“The Basque Country became an object of interest and desire to Abbadie after he lost his colonialist discursive aim and object: the discovery of the sources of the Nile. In short, the Basque Country, its culture and literature, became for Abbadie a compensation for and introjection of a colonialist loss (...) This transition in Abbadie's life—from Ethiopia to the Basque Country—represents the displacement of a colonialist, orientalist endeavor outside the West to a new “colonialist” activity inside the West.” (id.: 188)

Esan bezala, euskararen inguruko azterketak eginak zituen, Chahorekin elkarlanean buruturiko *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne* (1836) lanean argitaratuak; kolonietan eginiko ikerketetatik besteak beste amara hizkuntzako hiztegi bat, *Catalogue raisonné de manuscrits éthiopiens* (1859), osatzen ari zen; euskararen nahiz amerikar natiboen hizkuntzen arteko loturak ere planteatuak zituen; eta antropologian ere murgildurik zebilen: “Durante esta misma década [1860ko hamarkadaz ari da] nos encontramos con otros investigadores como González Velasco, A. D’Abbadie y el doctor Arguelliés midiendo cráneos y presentando memorias” (Zulaika, 2000: 51). Gabilondoren iritziz, ikerlari gisa joraturiko ibilbide horrek eragin sakona izan zuen kultur eragile gisa garatu zituen planteamenduetan: “Abbadie had access to the discourse of Orientalism and physical anthropology; those two disciplines, in turn, shaped his understanding and promotion of Basque culture and literature” (2016:188).

Abbadieren inspirazioaren atzean Chahoren eragina ere egon zitekeela ere susma daiteke: ikasle garaietatik harreman estua zuten biek, Abbadiek Chahoren lana gertutik jarraitzen zuten

Barrutiko Artxiboari esker, ez Aldazek, ez Elizalde ez eta Portalek ez zutela eraman bitzta oso zuzen eta zintzorik” (1997b: 12).

¹³⁵ Urkizurekin izandako elkarrizketa aipatzen du iturri gisa oinoharrean (id.: 191).

eta honek bertsolaritzaren apologia, Aitorren kondaira eta kantutegiaren zati bat argitaratuak zituen laguna Euskal-Herrian finkatu zenerako. Zabalok gehiago ere badio hipotesi hau indartuz: “(...) [Chahok Abbadie] le ensalzará de forma fundamental y merecida en su gaceta [*Ariel*], y de manera particular en 1850 contribuirá al lanzamiento de los concursos poéticos y de las fiestas vascas, de las que Antoine d’Abbadie, como euskaldun integral, será iniciador” (2004, 25)

1850eko *Ariel* arakatu da hariari tiraka, baina, ez da Lore Jokoei buruzko erreferentziarik topatu ahal izan. Euskal Lore Jokoei buruz prentsan agerturiko lehen aipamenak bertan topatzeko balio izan du, hala ere, saiakerak, ustez ikerketa honen ekarpen bat litzatekeena: 1851ko abuztuaren 31ko *Arielen* argitaraturiko bi testu labur, ‘Mainie D’ Urrugne-Fête locale’ izenburupean, bata Urruñako alkateak eta bestea Chahok sinatuak.

Euskal Herrira itzuli zenerako hil berria zen Juan Inazio Iztuetak bertsolaritzaz idatzirikoen berri ere izan zezakeen Abbadiek. Gogora ekarri behar da Mogelek argitaraturiko ‘Plauto Bascongado’ (1828-1829) liskar ospetsuan Tolosako unibertsitateko Fleury Lécuse katedratikoarekin elkar harturik aritu zela Iztueta¹³⁶, eta honek euskararen inguruko zenbait lan argitaratu zituela Michel Abbadiek diruz lagundurik, Antoineri grekera irakasteaz gain. Garmendiaren arabera irakaslearekin harremana zuen Iztuetak: “La fama que le dio su Guipuzcoaco dantzac extendió su nombre por Europa, y en especial por el suelo vasco-francés. Eso es lo que delata la correspondencia con el profesor Lecluse, (...)” (1998: 426). Michel Abbadierekin ere beste hainbesteko harremana behar zuen:

“[Abbadieren aitak Iztuetari bidaliriko eskutitz bati buruz ari da] Le da la enhorabuena por la publicación del libro de las melodías de las danzas. Le pide envíe un ejemplar así como cuando haya salido (...) Se trata del padre de Antoine, con el saludo de paisano y amigo a Iztueta, lo que evidencia una estrecha relación entre ellos.” (id.: 428)

Azkenik, Iztuetak izandako eskutitz trukeen bueltan beste hari mutur interesgarri bat ere eskaintzen du Garmendiak. Oraingoan Agustín Pascual Iturriaga da idazten duena eta honela dio 1840ko azaroaren 30eko datarekin:

“(...) he apuntado la especie de que deben las Provincias preparar premios para los mejores bailarines, jugadores de pelota, tiradores al blanco, collaris e **improvisadores**, etc., etc., para los años sucesivos, a manera de los antiguos que establecieron los juegos olímpicos y otros (...) no ha disgustado la idea...[geurea da azpimarra].” (Garmendia, 1998: 428).

Euskara hezkuntza sisteman txertatzeko lehen ahalegina egin izanaren meritua aitortzen zaio Iturriagari (1778-1851). Eskola elebidun bat ireki zuen Hernanin (1818-1823), eredu honetan oinarrituriko Lehen Irakaskuntzako Egitasmo Orokor bat prestatu zuen Gipuzkoako Batzarren eskariz (‘Memoria’, 1830), eta baita material pedagogikoa sortu ere¹³⁷. Abbadieren aurreko belaunaldiko zirkulu euskaltzaleen baitan pertsonaia garrantzitsu bat izan zen, beraz,

¹³⁶ Ik. Atal honetan bertan 4.2.3 Bertsolaritzarekiko jarrerak XIX. mendearen lehen erdian

¹³⁷ Euskararen eskolaratzea haur euskaldun elebarkarrei gaztelera irakasteko bitarteko gisa saldu zuen Iturriagak, nagusitzen ari zen gaztelararen zabalkundea saihestezina zelakoan, baina modu honetara euskara ere gorde ahaliko zelakoan. Honela laburbiltzen du Intxaustik bere ekarpena: “(...) euskararekiko kontzientzia hartzean ez ezik, hizkuntzaren praxi sozialean helmuga berriak eskaini zituen Iturriagak, maila bateraino bederen, kasik mende oso batez gerokoei aurrea hartuz (...) Beste argitalpenik ere egin zen urte haietan eskola-mundua aintzakotzat hartuz (L. Astigarraga, 1825, urte batzuk lehenago; Goyhetché apur bat geroago, 1852). Baina Iturriaga da, eskola-sortzaile eta arduradun bezala, euskal gogoeta honetan, profesio bereko guztiei zinez, bide berri posible bat, esperientziatik hitz eginez, erakutsi ziena gure artean.” (2014a: 121)

eta bere hitzek islatzen dutenez giro horretan ere bazen Lore Jokoen gisako zerbait abiarazteko ideia.

Gaztetan Tolosako Jokoak ezagutu zituelako, Etiopian ikusitako gisako performanceren batek inspiratu zuelako, Chaho lagunak zirikatu zuelako, aitaren bidez Iztuetak bertsolarien inguruan idatzirikoak ere ezagutu ahal izan zituelako, Michelen lanean XVII. mendean buruturiko euskarazko Jokoen aurrekariaren berri izan zuelako¹³⁸ ala garaiko giroan ‘euskal olinpiaden’ ideia bueltaka zebilelako, ziurrenik eragin hauetako bat baino gehiago emango ziren aldi berean, Abbadieri euskal Lore Jokoak antolatzea otu zitzaion 1851ean.

4.4.2.3 Planteamendua eta ekarpena

Emandako pausoa berezia izan zen zentzu askotan. Besteak beste, euskal kulturgintzak aurrea hartu zielako ingurukoei, erromantizismoak ekarritako pausoetan kontu ezohikoa erabat (Urkizu, 1997b: 13). Kataluniako Els Jocs Florals bertako idazle talde batek (Joaquim Rubio i Ors, Joan Cortada, Victor Balaguer, Antoni Bofarull eta Manuel Mila i Fontanals, besteak beste) berreskuratuko ditu zortzi urte geroago, 1859an. Joko hauek funtsezkoak izango dira gutxira emango den kataluniar literaturaren pizkundean (Madariaga, 2008: 562). Galiziako Xogos Florales delakoak, aldiz, 1861ean abiaraziko dira, hamar urte beranduago, kasu honetan eragiletzan José Pascual López Corton arituko delarik, Abbadieren gisako mezenas bat: “Similarly, he also came from a colonial background: he made his fortune in Puerto Rico (...). He financed the publication of Charity Album (1862), the book that started the new Galician poetry” (Gabilondo, 2016, 191). Lore Jokoen sorterrian ere, Okzitanian, 1854ean sortuko da Félibrige-a, probentzera Lore Jokoetarako berreskuratu eta hizkuntza horren zaintzan gaurdaino iritsi den erakundea. Frédéric Mistral idazlearen inguruan artikulatuko da mugimendu hau eta bere lan bat 1904ean Literaturako Nobel Saria eman zion ‘Mireio’ Euskal Lehen Pizkundearen bigarren olatuan, sortu beharreko euskal poema epiko-nazionalaren eredu bihurtuko da eragileentzat.

Lehena ez ezik, ezberdinena ere izango da Abbadierena. Erdi Aroko aurrekariari lotuz gainerako guztiak literatura lehiaketa gisa planteatzen diren bitartean euskal-irlandarrak ikuspegi zabalago bat ezarriko du: bertso idatziaz gain, bat-batekoa ere bai, eta hauez gain kantua, musika, dantza eta antzerkia, baita pilota, atletismoa, aizkolaritza, belar epaite, behi jaiste, ur ekartze, edota abere sariketak ere. 1881ean estropada bat ere egin zuten Bidasoan.

Madariagak jartzen dio azpimarra euskal jokoen alderdi fisikoaren garrantziari:

“Según la ideología de Abbadie, sus Fiestas Euskaras habían de abarcar dos ámbitos de regeneración del pueblo vasco, el lingüístico, desde luego, pero también el físico. Debían pues «florecer» simultáneamente los cuerpos ejercitados en los deportes populares junto a la lengua de las canciones y las composiciones poéticas.” (2008: 562)

Aipatu da Etiopiara joan aurretik Abbadie anaiek prestakuntza fisikoari eman zioten garrantzia, Antoineren biografietan igeriketarako zuen afizioa ere hainbatetan aipatzen da eta baliteke planteamendua eragilearen kirolaren kontzientzia moderno horretatik sortu izana¹³⁹.

¹³⁸ 1847an argitaratu zen Michelen euskal bibliografia, Abbadieren Lore Jokoen bezperatan, eta, berak ere urte gutxi lehenago bere bibliografia argitaratu zuenez, interesez irakurriko zuen Michelena ere.

¹³⁹ Honela azaltzen du Karmelo Etxegaraik Abbadie hil zen urte berean: “El hombre que en los días de expansión y regocijo y en momentos en que se halla libre de sus rudas faenas se dedica á ejercicios tan honrados y varoniles, y tan propios de una raza fuerte y valerosa, merece que se le premie como se le premiaba á los vencedores en los juegos olímpicos; y así Mr. d’Abbadie, con aquella penetración singular de las cualidades de los hijos de Aitor, afinada por su larga experiencia de viajero, creyó que en las fiestas que se organizaban bajo

Davantek xehetasun interesgarria eskaintzen du zentzu honetan: lehen urteetan baserritarren atletismo probak dira ugarienak (lasterketak, jauziak eta botatzeak aipatzen ditu), baina ekitaldiek aurrera egin ahala laborantzako lanei loturiko norgehiagokak nagusitzen dira (2012: 83). Bestalde, Iturriagaren hitzetan ikus daitekeenez osotasun hori ez zen Abbadieren burutazio soila, ‘olinpiadez’ ari baita hernaniarra.

Osotasun hori gaiari buruzko lan gehienek aipatzen dute, baina Bidartek sakontzen du gehien:

“Les fêtes basques aspirent, nous l’avons noté, à être une fête “totale” associant le travail agricole et ses produits, les pratiques sportives et ludiques, les formes diverses de convivialité (repas), la présence des autorités publiques et religieuses, la foi religieuse, les performances vocales et musicales (chants, instruments de musique) et littéraires, de manière à en extraire, une esthétique du populaire, une morale générale (sens du travail et de l’effort, intensité de la foi, sensibilité expressive) et aussi à fonder une pédagogie de l’exemplarité.” (1998: 275)

Finean jendarte modu oso bat da gorde nahi dena, galbidean ikusten diren euskal kultura nahiz bizimodu tradizionala, eta Bidartek azpimarratzen duenez modernitateak dakartzan hausturekiko babesleku gisa baliatu nahi dira, ahaleginaren buruzagitza Elizari esleitzuz.

Lore Jokoez prentsan argitaraturiko lehen testu luzearen sarrerarekin berresten du antropologoak bere baieztapena:

“Le but de cette institution, messieurs, est en même temps littéraire et moral, deux aspects d’une même chose qui jamais ne devraient être séparés, qui du moins ne le seront pas par vous; et dans ce pays, lequel doit en partie à son antique langue ses moeurs antiques et sévères, plus que nos montagnes, notre idiome national protège nos populations, et autant de temps qu’elles rediront à leurs échos les mâles accents de leurs aïeux, il n’est pas à craindre qu’elles dégénèrent de la simplicité (...) Aussi, notre vénérable et sage clergé, qui place avec raison au-dessus de tous les autres, et comme leur sauvegarde, les intérêts de la foi chrétienne et de la morale religieuse, s’attache, son digne évêque en tête, à conserver, à affermir les belles traditions de notre langue” (1853/IX/13. *Le Messager de Bayonne*. ‘Variétés/Rapport sur le concours d’Urrugne’)

Mende hasieratik Mogelek buruturiko planteamenduen oihartzuna nabari daiteke hitzotan, basati onaren mitoa, fede kristaua eta euskalduntasuna uztartzen dituen euskaldun onaren irudikapena. Bidarten iritziz Abaddieren Lore Jokoen arrakastaren gako garrantzitsu bat muin ideologiko horretan aurki daiteke, eta Iparraldean urte luzez erreferentziala izan zen xurien *Eskualduna* aldizkariak tarte batean hartu zuen *Eskualdun Ona*¹⁴⁰ izena seinalatzen du muin horren kristalizazio gisa:

“La filiation idéologique avec la pensée philosophique allemande de l’Aufklärung est ainsi tracée en même temps qu’il convient d’y voir la fondation et le résumé du programme culturel et idéologique de la pensée conservatrice et d’une partie de l’Église locale engagées autour de

sus auspicios, debían figurar estos ejercicios viriles al lado de la poesía, conceder recompensas á la *sudata virtude*, que diría Leopardi, al mismo tiempo que se coronaba de laureles la frente de los favorecidos de la Musa (...)” (*Euskal-Erria*, 1897 uztaila, 315 or.)

¹⁴⁰ *Eskualduna* Louis Etcheverryk sortu zuen, hainbatetan Xurien hautagai politiko izandakoa, *Le Reveil Basque* Gorrien astekariarekin lehiazeko, besteak beste Antoineren anaia Arnaud Abbadieren laguntzarekin. 1891ean Jean Hiriart-Urruty kanonigoa jarri zuen zuzendaritzan, eta zuzendaria eta jabearen arteko desadostasunengatik, azken honek Eskualduna izena erabiltzea debekatu zielako jarri zitzaion aldi batez Eskualdun Ona. Konpondu eta aurreko izenarekin argitaratzen jarraitu zuten gutxira.

l'hebdomadaire de langue basque Eskualdun Ona en faveur de l'esqualduntasuna, c'est-à-dire l'ensemble des composantes anthropologiques et morales de la basquité." (1998: 277)

Urkizuk 1851ko lehen ekitaldi haren kartelaren kopia bat eskaintzen du bere lanean (1997b: 62) eta bertan ikus daiteke lehen urte hartan 'Eliça-Besta' jarri zitzaizela izena Lore Jokoei. Aizpuruk ere Lore Jokoei euskalduntasuna eta elizaren arteko lotura indartu zutela deritzo: "(...) El gran número de sacerdotes que participaron en los Juegos, como jurados o como participantes, contribuyó a reforzar la influencia de la Iglesia Católica en la nueva definición de "ser vasco" que se estaba creando" (2001: 34) . Bistakoa dirudi, bada, Bidart ez dabilela oso oker, baina berak aipaturiko *Le Messenger de Bayonneren* testu horretan bertan Lore Jokoen osotasunari dagozkion beste alderdi garrantzitsu batzuk ere topa daitezke. Honela, sorreratik ikuspegi nazional bat barneratzen zuela ikus daiteke:

"Les poètes aussi n'ont pas manqué: plus de quarante pièces ont été soumises à votre examen; elles sont écrites, partie dans le grave dialecte Labourdin et Guipuzcoan, partie dans le gracieux Souletin, partie dans le mixte Navarrais, quelques-unes dans le riche Bizcayen: le concours a donc des représentants de toutes nos provinces." (*Le Messenger de Bayonne*, 1853/IX/13, 'Variétés/Rapport sur le concours d'Urrugne')

Edota jende jasoaren poesia eta inprobisazio popularraren elkarbizitza Lehen Lore Jokoetatik eman zela ere bistaraten du testuak:

"Du reste, les poètes sont de toutes les classes; les hommes lettrés, reconnaissables, malgré parfois une pseudonymie transparente et respectable, à plus de régularité, de pureté et de méthode dans la composition; des improvisations sans culture qui se distinguent par la naïveté des pensées, quelquefois par le piquant des termes et des traits." (*Le Messenger de Bayonne*, 1853/IX/13, 'Variétés/Rapport sur le concours d'Urrugne')

Labordek bertsolaritzaren presentzia Lore Jokoen sorburuan bertan kokatzen du. Maurice Harrietek, Baionako Seminario Handiko zuzendariak, 1853ko ekainaren 3an Abbadieri bidalitako eskutitz bat aipatzen du ikerlariak, bertan olerki irabazlea jendarteratzeko biderik egokiena kantua dela azpimarratzen zaiolarik: "Le dernier point tient de la gageure: comment populariser l'oeuvre primée? Le chanoine Harriet ne voit qu'un seul moyen: le chant" (Laborde, 1998: 605). Eta kantuak bertsolaritzak erabiltzen dituen doinuetan egina behar duela ere esaten da bertan, poesia popularrak eta menditarren artean hain ezagunak diren aireetaz ari baita kanonigoa:

"C'est du reste le privilège des peuples qui en sont encore à la naïveté de la poésie primitive: ils aiment, ils souffrent, ils jouissent en chantant. Ne faudrait-il pas que ces pièces fussent de chansons? (...) Ne serait-il pas utile d'exiger un air connu de tous, un de ces airs populaires que nos montagnards savent depuis longtemps et entendent toujours avec plaisir?" (id.: 605)

Abbadie bera 1835ean olerkigintzan ingelesez baina euskal doinuak erabiliaz aritu zela aipatu berri da. Ez zuen, bada, Harriet asko tematzea beharko bide hori hartzeko. Izatez, 1851ko lehen ekitaldiaren kartelean ere aipatzen da olerki irabazlea menditar koru batek abestuko duela, eta 'pherxu' deitzen zaio poesia idazleari¹⁴¹, Labordek azpimarratzen duen bezala

¹⁴¹ Honela dio kartelak: "Nota: Pilota partida baino lehen, iñanen da goraki eçagutaraçia pherxuetaco guduan garaia eman duena, eta harc eguin pherxuac iñanen dire cantatuac herrico guiçon gazte hortaraco berechi eta

bertsu doinuen neurrira eginiko olerkia bertso-jarria baita funtsean: “Ce concours de poésie est bien un concours de bertsu: des vers nouveaux sur un air ancien” (1998: 606). Literatura lehiaketari hurrengo urteetan emango zaizkion izendapenek argi uzten dute bertsolaritzaren moldeari ematen zitzaion garrantzia: Koplarien guduak (1860), Bertsutako guduak (1869), Bertsularien guduak (1887), besteak beste (Urkizu, 1997b: 14-15).

Badirudi bapateko bertso-saioa ere lehen ekitaldietatik eta urtero jokatu izan zela: 1855ean aurki daiteke prentsan lehen aipamen bat (1855/XII/06, *Le Messenger de Bayonne*. ‘Compte rendu de la fête d’Urrugne et du Concours de 1855’), eta Davantek dio Lore Jokoen iraupena aldakorra izanik (egun bakarra lehen ekitaldietan, lau egunetarainokoa geroago), ekitaldi laburrenetan ere jaso izan zela bertsolarien saio hori (2012: 97). Horrek ez du esan nahi bertso-saioa Lore Jokoen elementu zentrala zenik. Lehen ekitaldiko kartelean ikus daiteke pilota partidua zela ikuskizun garrantzitsuena, eta gerora ere horrela izaten jarraituko du: “Atal bakoitzari eman zitzaion garrantzia eskainitako sariaren arabera neurtu beharko balitz, lehen-lehenik pilota jarri beharko litzateke, jarraian, ganadu-txapelketa. Honela, Elizondon [1879] errebotetzko partidoari 500 pezeta eskaintzen dizkio d’Abbadiek, poesiari, berriz, 80 pezeta eta makila zilarreztatua” (Toledo, 1998: 542). Era berean, ahozkotasanak bizi zuen subalternitatearen eraginez bat-batekoari idatziari baino sari eskasagoak eskainiko zaizkio: Le budget du concours de poésies écrites est, au total, de 250 francs (...) et celui du concours des improvisateurs de 125 francs [1897ko Lore Jokoetaz ari da]” (Laborde, 1998: 217)¹⁴². Abbadieren jokoetan frontoian burutu ohi da bertso-saioa, pilota partidaren ondoren eta honen osagarri, literatura gisa baino baino folklore gisa hautematen da.

Lore Jokoetatik dator baita gerora bertso munduaren baitan hainbat gogoeta eta eztabada eragin dituen duen elementua: txapelketak dakarren lehia deserosoa. Euskal festa hauen osotasuna zeharkatzen duen planteamendua da lehiarena, bertsolaritza ere ukituz, eta Bidarten iritiziz norbere komunitatearen autoestima igotzea nahiz kanpoko begiradari eskaparate erakargarri bat eskaintzea da planteamendu honen helburu bikoitza:

“Ces “fêtes basques” –qui représentent donc métaphoriquement la totalité sociale basque– sont organisées sur les modes du concours, de la performance, du spectacle comme si ces conditions permettaient au populaire basque de s’affirmer, de se distinguer et de se soustraire au jugement de l’indignité qui sans cesse le guette. Dans ce cas, on doit considérer le principe du concours comme une voie privilégiée de rédemption culturelle du populaire soumis au regard de tous ceux qui n’appartiennent pas à ce monde” (Bidart, 1998: 268)

Kanpoko begirada hori ikuslegoaren zati batek dakar: “(...) les “baigneurs” selon l’expression du moment ou les touristes, des personnalités de haut rang telles que la comtesse de Chambrun ou Mlle Nelly Jacquemard, les strates bourgeoises, ces dernières se transformant parfois en mécènes pour l’attribution des prix (...)” (id.: 268). Bidarten hitzetan Euskal Herriaren turistifikazioaren, Abbadieren Lore Jokoen arrakastaren eta bertsolariak ikur gisa hartzen duen indarraren artean Gabilondok egiten duen loturaren oihartzuna suma daiteke: “(...) the bertsolari emerges as the “genuine” voice of the new, touristic, savage, Basque ‘native’” (2016: 196). Urretxuarrak seinatzen duen euskal kulturaren orientalizazioa, kanpoko begiradaren garrantzia antolatzaileengan ere nabarmena da. Garaiko

irakhaxiez, çoinekin aldizeatuco baita musicari gorputz bat, eta ondoan pherxuetan garaitu duenari emanen çaiço, ANTOINE D'ABBADJE jaunaren partezco unçaco urrea eta ohorezco makhila.” (Urkizu, 1997b, 69)

¹⁴² Bidartek ere seinatzen du diferentzia hau: “Proximité mais non égalité à en juger par l’infériorité du montant des prix accordés aux travaux des improvisateurs ou pertsulari par rapport à celui des prix décernés aux poésies” (1998: 275)

funtsezko hainbat pertsonaiaren gisan (Humboldt, Mogelen Maisu Juan, Lotiren Ramuntcho edo Chahok tropa karlistekin egindako egonaldia aipatu dira honezkero) Abbadiek ere, beste ezer baino gehiago bidaiari amorratu bat izanik, bidaiari erromantikoaren ikuspegitik biziko du neurri handi batean euskal kultura. Madariagak, greziar jantziekin atontzen zen Byronen eta nafar jantziekin beste hainbeste egin zuen Chahoren arteko paralelismoa ezartzen duen bezala (2008: 577), bidaiariaren mozorrotze ariketa bera seinatzen du Abbadierengan ere: “(...) a pesar de su elevada posición económica y social Antoine practicaba un romántico populismo que le llevaba a vestirse (con boina y alpargatas) y divertirse como los campesinos, jugando a pelota” (2008: 561).

Idea nondik sortu zitzaion ez dago zehaztasunez jakiterik, baina Lore Jokoak antolatzerakoan zerabilen asmo nagusia zein zen jasota gelditu da Lavigerie Cardinalari 1868ko ostiral santuaren datarekin bidali zion eskutitz batean:

“(...) au Cardinal Lavigerie, A. d’Abbadie lui rappelle qu’il a participé à Urrugne à la remise des prix qu’il organise depuis 18 ans avec ‘le faible espoir de conserver la langue basque et avec elle les vraies traditions du passé’. Ces propos éclairent les intentions culturelles du promoteur des concours de poésie, par l’affirmation de la centralité de la question linguistique, reconnue dans son rôle de support des traditions.” (Bidart, 1998: 277)

Euskara eta bere tradizioak gordetzeko ahalegin honekin hainbat ekarpen garrantzitsu egin zituela aitortzen zaio Abbadieri: euskal literaturaren sustapenerako lehen plataforma modernoa eratu zuen (Gabilondo, 2016: 192; Urkizu, 2000a: 330); hizkuntzarekiko maitasuna suspertu, euskararen bateratze ortografikoa abiarazi eta euskaldunen batasun sentimendua piztu (Aizpuru, 2001: 34); euskararen prestigioa eta honek euskal nortasunaren eraketan izan zezakeen erreferentzialtasuna jendarteratu zituen (Madariaga, 2008: 33 eta 562); hiru mendetan zehar elizak bakarrik eta doktrina erlijiosoa zabaltzeko garatu izan zuen euskal olerkigintza idatzia bestelako egile, gai eta erabileratara zabaldu zuen (Toledo, 1998, 546); euskaltzaletasunarentzat lehen bilgune bat eratu, kulturgintzaren lehen urrats batzuk ematen hasiko zena (Aizpuru, 2001: 34, Davant, 2014a: 134); edota abertzaletasunaren sorrerari ateak ireki zizkion (Davant, 2014a: 122)

Azkenik, bertsolaritzak euskal kultur sistema modernoan duen dimentsio singularrak ere, Foley hainbeste harritu zuena, bertan abiaraziriko tradizio modernoan izango du bere oinarria: “La jonction culturelle inédite entre le versant écrit et le versant oral du populaire basque figure donc comme le résultat tangible des ‘fêtes basques’ (...)” (1998: 276).

4.4.3 Iparraldeko Lore Jokoen estaldura eta aldizkari baten proiektua

1845ean hartzen du gutxieneko jarraitasun bat bertsolaritzak prentsan duen presentziak, hain zuzen Chahok *Arielen* bere kantutegia eta Aitorren kondaira argitaratzeari ekiten dionean. Aurrekoak, azaldu den gisan, testu solteak dira, bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren prehistoriatzat har daitezkeenak.

1845ean *Arielen* Chahok idatzirikoei Nemourseko dukeek Donostiara egindako bisitari buruz Bizente Etxegaraik batetik eta Martin Larralde *Bordaxurik* bestetik egindako bertsoak izandako oihartzun ezohikoa gehitzen zaie. *Le Phare des Pyrénéesek* hiru pieza eskaintzen dizkie, bisitari eta bertsoei buruzko azalpenekin eta *Le Courrier de la Gironde* eta *Ariel* berak beste bana. *Journal des Landesek* eskaintzen duen Etxahunen epaiketa berriaren kronikarekin osatzen da urte horretan argitaratu zen hogeita bat testuko sorta.

Iparaldeko Lore Jokoei buruzko lehen testu luzean, *Le Messenger de Bayonne* 'Variétés/Rapport sur le concours d'Urrugne' izenburuarekin argitaratua, hauek prentsan izandako arrakasta aipatzen da:

“(…) non seulement les organes de la presse de nos deux pays basques, mais ceux encore des diverses provinces de France et d'Espagne, plusieurs même des capitales de l'un et l'autre royaume, ont applaudi à votre pensée, et ont bien voulu aider avec empressement à la faire connaître; vous leur devez à tous de vifs remerciements.” (*Le Messenger de Bayonne*, 1853/IX/13. 'Variétés/Rapport sur le concours d'Urrugne')

Ikerketa honetarako eginiko bilketan *Bulletin de Paris* aldizkarian agerturiko testua topatu ahal izan da, baina ez *Messenger*rek aditzera emandako dimentsiotako oihartzun mediatikorik. Topaturikoaren arabera hau litzateke Lore Jokoei lehen aldi honetan estaldura bat eskaini zioten hedabideen zerrenda: *Ariel* (1851), *Le Mémorial des Pyrénées* (1853), *Le Messenger de Bayonne* (1852-1860), *Le Courrier de Bayonne* (1853-1877), *Le Siècle* (1864), *Revue de Linguistique et de Philologie comparée* (1870-1872), *Impartial des Pyrénées* (1872) eta *L'Avenir des Pyrénées et des Landes* (1874-1875).

Testu laburrak izango dira asko, sinadurarik gabeak, lehiaketarako deia eginaz edo irabazleen berri emanaz eta luzatzen direnean pilota partiden edota idatzizko lehiaketaren berri emateko egiten dute normalean. Bat-bateko saioa askozaz ere gutxiago agertu ohi da, eta zenbaitetan mesprezu puntua nabari daiteke, ahozkotasunaren ertzekotasunaren ordain gisa ziurrenik¹⁴³.

Lehen aldi honetan sinadura bat nabarmentzen da, jada aipatu den Jean Duvoisina. Lore Jokoen antolaketarako ardura gehienak bere gain hartuko ditu: “Abbadiek babesten du baina Duvoisen alde batetik bestera doa, idazten du, iragarkiak jartzen ditu kazetetan, idazleak animatzen ditu” (Valverde, 1998: 300). Eta garaiko posta truketik komunikazio arduradun funtzioak ere betetzen zituela ikus daiteke, ardura horren ildotik Lore Jokoentzako argitalpen bat propio sortu beharra zegoela planteatzera iritsi zelarik.

1860ko uztailaren 9ko datarekin Abbadieri zuzenduriko eskutitzean idatzizko lehiaketarako lan gutxi iristen zaiela eta gabezia hori gainditzeko prentsaren bitartekotza ezinbestekoa dela azpimarratzen du: “L'année dernière, il fallut plusieurs articles de journaux, des sollicitations particulières et une prolongation de délai pour arriver à un résultat passable” (Daranatz, 1928a: 64). Egunkarien interesa, ordea, ez da beharko luketena, eta aldizkari bat bat sortu beharko litzatekeela dio, dirua jartzeko prest dagoelarik: “Les inspirations de ce genre n'étant soutenues par aucun périodique, l'étincelle meurt dans le vide. Il nous faudrait une revue mensuelle. Pour ma part, je contribuerais volontiers aux charges, et j'imagine que je ne serais pas le seul” (id.: 64-65). Orrialde kopurua, edukia eta finantziaketari buruzko hainbat xehetasun ematera ere iristen da lapurtarra:

“Questions d'orthographe, remarques grammaticales, articles bibliographiques, poésies basques; etc., etc., rempliraient par mois deux feuilles d'impression. On peut savoir d'avance ce que cela coûtera; et je suis porté à croire qu'une combinaison pour couvrir les frais n'est pas introuvable. Un peu de réclame

¹⁴³ Bat-bateko saio baten lehen kronikan Julien Vinsonek esandakoak ekar daitezke gogora : “Les Basques ont une merveilleuse faculté d'improvisation: il est vrai que souvent les idées sont médiocres, les rimes insuffisantes et les vers boiteux; mais cela se chante et l'on sait que la poésie, grâce à la musique, peut opérer prodiges” (*Revue de Linguistique et de Philologie comparée*, 1870, 366 or.) . Edota, beste adibide bat jartzearen, *L'Avenir*reko kronistaren hitzok : “La forme est beaucoup trop négligée pour la plupart d'entre-eux: les rimes sont très souvent insuffisantes et, grâce à l'élasticité de la musique, les vers ont fréquemment beaucoup plus que les treize pieds voulus” (*L'Avenir*, 1875/IX/08).

dans le pays et des lettres directement adressées aux grandes bibliothèques de France et de l'étranger feraient que la Revue soutiendrait elle-même avant longtemps ses dépenses.” (Daranatz, 1928a: 65)

Bi urte beranduago, 1862ko abuztuaren 20ko datarekin Abbadieri bidalitako eskutitz berri batean, ideiarekin bueltaka darrai Duvoisinek. Agerikoa da buruan zituzten zenbait proiektu gauzatzeko zailtasunak zituztela: “Je ne cesse de regretter que vos idées sur le projet de former une académie basque n'aient pu être réalisées jusqu'à ce jour (...) Que faudrait-il donc pour former cette académie si désirable?” (Daranatz, 1928c: 449). Baina kapitaina ez dago etsitzeko eta balizko aldizkarirentzat Estatuaren diru-laguntzak lortzeko aukera ere aipatzen du: “(...) une fois que l'académie serait constituée et que nous aurions une revue mensuelle, il serait possible d'obtenir du département et de l'Etat un certain nombre de souscriptions et probablement aussi quelque subvention. Pourquoi donc ne pas essayer?” (id.: 449).

Bertsolaritzaren lehen eragile haiek, bada, bazuten prentsak euskal kulturaren sustapenerako izan zezakeen garrantziaren jabetza. Ziurrenik bat-batekoari ez zion toki handirik egingo oraindik gauzatzera iritsi ez zen proiektu hark, baina bertso-jarrien inguruko aldizkari bat zatekeen, euskarazko kazetaritza martxan jarri baino hainbat hamarkada lehenago.

4.4.4 Iparragirre, lehen bertsolari mediatikoa (1820-1881)

Hegoaldeko abiapuntua ere Iparraldekoaren berdina da: 1845. Gazteleraz prentsan bertsolaritzari erreferentziaren bat egiten dioten testu zaharrenak Isabel IIak Tolosara eginiko bisitari buruzkoak dira: *El Castellano* egunkariak 1845/VIII/05 datarekin argitaraturiko ‘Noticias de la Corte’ eta *El Español* egunkariak biharamunean zekarren ‘Viage de S.M./Tolosa 2 de ídem’.

*El Castellano*ko kronikak erregina eta bere ama Maria Cristina Iruñeatik pasa ondoren Tolosan nola sartu irten bat egin zuten kontatzen du:

“A poco se anunció la llegada de S.M., se iluminó la población y salieron á recibir á las augustas viageras ademas de las autoridades, gran número de personas notables con hachas encendidas, danzas de jóvenes de ambos sexos, música y coros, cuya comitiva despidió á las reales personas hasta las afueras teniendo el disgusto de que fuese tan breve el placer de verlas”

Eta tartean herritarrek kantaturiko lau bertso ere jasotzen dira.

*El Español*ek xehetasun gehiago ematen ditu. Esaterako, erret-familiaren keinuen inguruan:

“(…) al verse tan seguras tan festejadas y vitoreadas en medio de la entusiasmada multitud que las aclamaba incesantemente, como que sus semblantes querian demostrar la dulcisima emoción que embargaba sus almas, lo cual hacia á SS. MM. y A., y especialmente á S. M. la Reina Isabel, doblemente seductora y bella”

Baita bertsoak batzuk jarriak eta beste batzuk bat-batekoak izan zirela ere: “(...) no podían faltar ni los poetas ni las lindas comparsas de jóvenes de ambos sexos (...) les acompaño la adjunta muestra de los versos en vascuence que se cantaron anoche, unos impresos y otros improvisados (...)”. Eta *El Castellano* jakotako lauei beste bi gehitzen dizkie¹⁴⁴.

¹⁴⁴ Zavalak lehen lauak jasota dauzka. Ik. ZAVALA, A. (1992): Karliten leenengo gerrateko bertsoak. Tolosa: Auspoa. Bertan azaltzen du (1992: 385-386) Manterolaren bilduman topatu zituela eskuz idatzita. *El Español*ek

Hurrengoak hamarkada bat beranduago azalduko dira, 1855ean, eta Iparragirreraren kontzertuei buruz Pedro Egaña gasteiztarrek zuzenduriko Madrilgo *La España* egunkarian aurki daitezkeen albisteak¹⁴⁵. Eta hortik aurrera, 1876an Bilintxen agoniaren berria zabaldu arte, aldi honetan gazteleraz prentsan alorrari lotzen zaizkion testu guztiak Iparragirreri buruzkoak izango dira.

Aipatu den gisan Pierre Topet Etxahun da prentsan izen abizenekin ageri den lehen bertsolaria. Bere epaiketen inguruko testuez eta Jean Baptiste Chahok eskaintzen dion artikulua ondotik desagertu egingo da, ordea, prentsarentzat, 1920ko hamarraldian Pierre Lhandek berreskuratu eta figura mediatiko bihurtu arte¹⁴⁶.

Iparragirre izango da, bada, benetako pisu mediatiko bat izango duen lehen bertsolaria.

Sekulako dimentsio mediatikoa du urretxuarrak. 1858an Argentinako *El Nacional* eta *La Tribuna* dira bertan emandako hainbat kontzerturen berri ematen dutenak, 1864ean hainbat egunkari jasoko du Pedro Egañak Senatuan emandako diskurtsoan Iparragirreraren figurak hartzen duen pisua, baina Argentinako *El Correo Español* egunkariak bideraturiko Ameriketako itzulerarekin, 1876 eta 1878 urte artean loratuko da pertsonaia mediatikoa. Bertsolariak lortuko duen oihartzuna harrigarria izango da: lehen aldi honetan, 1845etik 1878ra bitartean, Lore Jokoen inguruan guztira bildu ahal izan diren testuak 55 dira, Iparragirreri buruz bildu ahal izan direnak 67.

Bertsolaritzak berak baino lehenago lortuko du toki esanguratsu bat medioetan, eta bertsolaritzaren historian ez da emango horrenbeste orrialde eskaini zaion beste bertsolaririk. XIX. mendean bertsolaritzaz bildu ahal izan direnen ia lautik bat Iparragirreri buruzkoa da, eta, harrigarriagoa dena, XX. mendean ere beste ezekin bertsolarik baino presentzia mediatiko garrantzitsuagoa izango du.

Urretxuarraren mitoak hainbat osagarekin sukaldatuko da. Honela, bere biografia abenturazale, bohemio eta gorabeheratsuak figura erromantiko gisa izan zuen oihartzuna etengabe elikatu zuen batetik. Olaso eta Agirrek honela laburbiltzen dute: “La senda vital de Iparragirre (...) presenta meandros fabulosos, golpes de efecto cómicos (...) si me apuran hasta elipsis narrativas que realzan al personaje sobre la peana de mito” (1999: 79).

gehitzen dituen beste biak ez dira beste inon topatu. Prentsak arakaketa honek, bada, bertso zaharrak berreskuratzeko ere balio dezake.

¹⁴⁵ Urretxuko bardoaren lehen erreferentzia Parisko *La Presse* egunkariak eskaintzen du, ‘Gernikako arbola’ sortzearekin (1853) bere sona zabaltzen hasi aurretik (1851/VIII/25). Ik. I.I eranskina.

¹⁴⁶ Deigarria suertatzen da bere aldizkarian bere anaiak eskaini zion artikulua ondoen Agosti Chahok bertsolaritzaz idatzi zituen hainbat testuetan Etxahunen inolako aipamenik ez egitea. Are gehiago 1849ko maiatzaren 13ko hauteskundeei begira Chahoren aldeko ‘Musde Chaho’ bertso sorta sortu zuela jakinda.

Haritschelharrek (1969) azaltzen du garaiko euskal *intelligentsiak*, bere azken urteetan bizkarra eman ziola bertsolariari: Francisque Michelen lanean ez da aipatu ere egiten (1857), Sallaberriren ‘Chants populaires du Pays Basque’ (1870) kantutegian bere bertsoak jaso bai baina bere berri ez da ematen, Manterolaren kantutegian (1880) berriro ere arrastorik ere ez... Badirudi 1840 hamarraldian legearekin arazo berriak izan zituenetik berekiko distantzia bat ezarri nahi izan zela. Eta Etxahun berak ere markatu zituen distantziak, 1853ko Lore Jokoez aurkeztu eta saririk eman ez ziotenean *intelligentsia* horren kontrako bertso gordinak argitaratu zituen.

Herri xeheak bere bertsoetaz eta mitoaz gozaten jarraitu zuen, ordea, eta zazpi hamarkada geroago *Euskaldun Ona* aldizkarian Albert Constantinek idatzirik testuan bertsolari onenen zerredan agertzen zaigu berriro. (*Euskaldun Ona*, 1907/III/29, 4 or., ‘Ametsetarik’, *Joanes Garaztarra*). Eta 1923an zehar *Gure Herrian* aldizkarian Pierre Lhandek argitaraturiko hiru artikuluz luzeekin bihurtuko da, esan bezala, definitiboki figura mediatiko (*Gure Herria*; 1923 uztaila, abuztua eta iraila; hurrenez urren 420-492-534 or.; ‘Le barde Etchaoun’, Pierre Lhande)

Bestetik, bere sorkuntzarik ezagunenarekin, ‘Gernikako Arbola’rekin, foruzaleen eta euskal askatasunen ikur bihurtu zen berehala, eta gerra karlisten testuinguruan lehenengo Espainia mailan eta gero nazioartean indartsu zabaldu zen ikur honen oihartzuna.

Azkenik, elkarrengandik bereizten joan ziren hainbat ideologiak (karlismoa, tradizionalismoa, abertzaletasuna) bere egin zuen Iparragirreraren ereserkia eta figura, eta honek mitoaren garapen anitza, zenbaitetan kontraesankorra, ekarriko zuen¹⁴⁷.

Iparragirre aipatzen duten testuetan, bada, bere bizitzak izan dezake protagonismoa, edo foralismoak, edo legitimismoak, edo abertzaletasunak, edo bere figuraren garapen gisa garai ezberdinetan batzuk eta besteek buruturiko lanak... Bertsolaritzari ez zaio toki handirik gordeko, baina horrek ez du esan nahi bertsolaritza aipatuko ez denik. Bertsolari, bardo nahiz trobalari gisa definitu¹⁴⁸, askotan esaten da euskal inprobisatzaileen tradizioetik sortua dela eta zenbaitetan tradizio honi lerroren bat eskaintzen zaio. Edota bere musikaz ari direnean, esaterako, euskal doinuei egiten zaie erreferentzia, eta zenbaitetan bide honetatik ere iristen dira bertsolaritzaraino. Beraz, esan daiteke Iparragirrek bertsolaritzaren medioetako ikusgarritasunari ekarpen garrantzitsua egin ziola.

Lore Jokoei dagokien ziklo honetan, 1845etik 1917ra bitartean, Iparragirreri buruzko 206 testu topatu dira prentsa historikoan. Gutxieneko esangura bat duen lagin bat hemen aletzen hasiaz gero, kontakizun orokorraren haria gal zitekeela ikusi da. Testu ederrak dira, ordea, horietako batzuk, Iparragirre izan zenaren irudi bat osatzen lagun dezaketanak, eta urretxuarra figura garrantzitsu bat da bertsolaritzak izandako proiektzioaren bilakaera ulertzeko. Hori dela eta, bai egin da testu hauen bilduma iruzkindu bat, baina aparte batean, ikerketa honen lehen eranskinean jasotzea erabaki da.

Iparragirreri buruzkoak eranskin horretarako utzi aurretik, azken alderdi garrantzitsu bat azpimarratu nahi da, ordea. Iparragirre euskal askatasunen ikur gisa ezagutzen bada, eta gerora bertsolariei nolabaiteko herriaren bozeramaila bat esleitzen bazaie, bistakoa da alor honetan ere urretxuarraren figurak eragina izan zuela.

Zentzu honetan deigarria suertatu zaigu Chahoren bi testuren alderaketa. Batean, izenik aipatzen ez badu ere, Iparragirre gazte bat, Italiatik bueltatu berria, ari zaigu deskribatzen:

“Le véritable barde euskarien est semblable au jeune chanteur guipuzcoan, qui, revenait d'Italie, il y a quelques années, se présentait à l'auteur de l'itinéraire, une vieille petite guitare à la main, en chantant d'une magnifique voix exercée à l'école des plus grands maîtres: Gitarra zarcho bat det/Neretzal laguna (...)” (1855: 155-156)

¹⁴⁷ Olaso eta Agirrek azaltzen dute bizi zen artean ere askotariko inguru ideologikoetan integratzeko gaitasuna zuela urretxuarrak: “Niño mimado de los carlistas, pupilo de un noble liberal, agraciado por los legitimistas, cantor de los republicanos, amigo de los patriotas... El personaje se siente en su salsa en cualquier parte y en todos los partidos, con tal de que reine la alegría y una sana tolerancia.” (1999: 78)

¹⁴⁸ Zenbaitetan Iparragirre bertsolaritzat har ote daitekeen zalantzan jarri izan da: Xenpelarrek bere bertso famatuan luzatu zion desafioaz haratago bere bat-bateko jardunaren arrastorik ez da gorde; abeslari gisa egin zen ezagun, berak ‘euskal kantari’ gisa definitzen zuen bere burua eta garaiko prentsan bardo edo trobalari gisa aurkezten da gehiago bertsolari gisa baino.

Gerora egin izan diren analisietan ere, zenbaiten ustez kantariagoa da bertsolaria baino (Amuriza, 1981), beste batzuk bertsolari eta kantariaren tarteko hibridotzat daukate (Lekuona, 1982 eta 1987), eta badago bertsolari txar gisa definitzen duenik ere: “No hay duda alguna de que Iparragirre era bersolari. Mano, pero bersolari” (*Txistulari*, 1965 abendua, 12 or., ‘Disentir acerca de la ilegítima paternidad de Iparragirre sobre el himno vasco Gernikako Arbola’, Gabriel Aresti)

Inork ez dio ukatzen, ordea, bertsolaritik ere badaukanik, eta bertsolaritzaren historiari buruzko lan guztietan jasotzen da Iparragirreraren ekarpena. Beraz, ikerketa honetarako bere erreferentziaren bat izan zezaketen testuak aintzat hartu dira.

Bestean Lara ari da deskribatzen, Aitorren legenda sortuko duen euskal bardoa:

“(...) appartenait à la tribu des Euskariens Vardules ou Guipuzcoans, également renommée pour la vaillance de ses guerriers et l’habilité de ses jeunes hommes dans la mimique, la danse, le chant et l’improvisation. Lara, à peine âgé de trente ans, avait été proclamé la fleur des guerriers et le prince des bardes.” (2010: 18)

Iparragirre 1843an abiatu zen Europan barna, 23 urterekin, baina 1845an Ipar Euskal Herrian, Larresoroko seminarioan kontzertu bat ematen kokatzen du Bernadouren ‘Azpeitia, Les Fetes Euskariennes de 1893 (1894)’ lanak. Chaho ezagutu zuela ere frogatu ahal izan da, bestalde:

“(...) Baionako Erakustokiko Euskaldun Almanaka zahar batean (1911) Battitta Larçabal adiskideak aurkitu digu beste euskal aldizkari zenbaitetarik hartutako orritxo bat. Paper horretan inprimiturik dira euskal ‘Neurtitzak, Iparragirrek Chaho-ri kantatuak Baionan’ (...) Delako neurtitzak Larresoron kantatu haiek berak zitezkeen, hots ‘Gitarra zartxo bat’-enak (...) Ikusi det Frantzia/baita Italia,/bietan bilatu det asko malezia... (...) Gitarra tchartcho bat det/nik nire laguna (...)” (Xarriton, 1987: 302).

Alegia, bere burua aurkeztu eta bertso horiek abestu zizkiola Chahori, Italiatik bueltan, 1845ean Larresoroko seminarioan abesturiko berak. Ez litzateke, beraz, pentsaezina topaketa hori Chahok ‘Aitorren kondaira’ idatzi zuen urte berean, 1845ean, gertatu eta zuberrotarrak Lara Iparragirreraren iruditik eraiki izana: biak gipuzkoarrak dira, biak gazteak, biak gerlan ohoreak irabazitakoak¹⁴⁹ eta biak, Chahoren hitzetan, inprobisatzaile ez ezik kantari bikainak.

4.4.5 Bilintxen kalbarioa, lehen gertakari mediatikoa (1876)

4.4.5.1 Zorigaitzak ekarritako protagonismoa

Iparragirreraren itzulera ere gertakari mediatikoa izan zen: hainbat urte bere berririk izan gabe eman ondoren prentsaren bidez lokalizatu ahal izan zen Uruguain, prentsaren bidez bildu zen itzultzeko behar zuen dirua, eta pausuz pausu kontatu zuten egunkariak bi urte luze iraun zituen urretxuarraren bueltako bidaia. Bilintxen kalbarioa hilabete gutxi batzuegatik aurreratu zitzaion, ordea, bertsolari baten inguruko lehen gertakari mediatiko handi gisa: 1876ko urtarrilaren 21an zabaldu zuen *Diario de San Sebastián*ek bertsolari donostiarra bezperan larriki zauritu zutela, eta egunkari berak 1876ko uztailaren 22an eman zuen agonia luzearen ondotiko heriotzaren berri; Iparragirre Uruguain bizirik zela zabalduaz bere itzulerari abiapuntua jarri zion informazioa, irailaren 16an eman zuen *La Paz*ek.

Azken urtea zuen 1872an piztu zen Bigarren Karlistadak, baina oraindik ere borrokaldi dezente ematen ziren. Donostia inguruetan, esaterako, Arratzain menditik ia egunero jaurtitzen zituzten kanoikada batzuk. *Diario de San Sebastian* liberalak egunero egiten zuen kalteen kontaduria eta San Sebastian biharamunean honela jaso zuen berria:

“Entre las víctimas del hierro enemigo se cuenta el honrado conserje del Teatro principal, el simpático y popular poeta Vilinch, que á primera hora de la tarde resultó herido en su misma habitacion. Esta desgracia ha sido generalmente sentida por toda la poblacion, en la que tantas simpatías cuenta el discreto cuanto desgraciado D. Indalecio Bizcarrondo.”

Garai hartako prentsan oso ohikoa zen beste egunkarietako testuak bere horretan berrargitaratzea, are gehiago gerrari buruzko testuak baziren. Honela, *Diario de San*

¹⁴⁹ Chahok sinpatia handia zien karlistei eta hainbat hilabete egin zituen eurekin frontean 1836an. Ezinbestean ezagutu behar izan zituen Iparragirreraren gerrako ibiliak, oso sonatuak baitziren karlisten artean.

Sebastianek emandakoa Espainiako egunkari liberal mordoxka batek jaso zuen hurrengo egunetan: *La Correspondencia de España*, *Boletín de Comercio*, *El Tiempo*, *La Época*, *El Pabellón Nacional*, *Crónica Meridional*, *El Pueblo Español*...

Informazio berria eskaintzen lehena *La Correspondencia de España* izan zen, garai hartan Espainiako egunkaririk indartsuena zena, eta Bigarren Karlistadetako gerra korrespontsal ezagunenak sinatu zuen, Francisco Peris Mencheta Valentziarrak¹⁵⁰. Erabat txikituta zeukan eskuineko zangoa mozteko ebakuntzaren berri eman zuen urtarrilaren 24ean:

“Esta delicada operación ha sido practicada por el Sr. Sagastinúe, presidente de la Cruz Roja de esta capital, auxiliado por los facultativos Sres. Mayora, Aristizabal, Oa y Tames.

El paciente ha sufrido la amputación sin revelar abatimiento de espíritu ni lamentarse de su desventura, lo cual patentiza un alma grande y un corazón á prueba de vicisitudes.

Otro casco le ha herido en el tercio superior de la pierna izquierda, con fractura de ambos huesos, causándole además varias contusiones; pero se confía en que no habrá necesidad de amputársela.”

Lehen eskuko informazioa eskaintzen zen, kazetariak bertatik bertara jasotakoa, bere bizipenen kontakizunarekin: “No quisiera recordarlo: le he visto tranquilo en el lecho del dolor, mientras que temblaban mis piernas al ver una de las suyas separada del cuerpo y destrozada la otra”.

Daturik interesgarriena, eta Espainiako egunkari handienak kasuarekiko erakutsi duen interesa ulertarazi dezekoena, kronikaren lehen lerroetan eskaintzen zuen, ordea: Bilintx *La Correspondencia de Españaren* berriemailea omen zen. Peris Menchetak idatzitakoa egia izatekotan, Bilintx litzateke kazetari lanetan aritu izan den lehen bertsolaria¹⁵¹.

Berezkoa zitzaion bertsolariari zorte txarra. Umetan hirugarren solairu batetik erori eta aurpegia desitxuratua gelditu zitzaion, gaztetan zezen batek erren utzi zuen, heldua zela urteetako lanarekin pilaturiko aurrezki guztiak lapurtu zizkieten... Egun hartakoak, ordea, marka guztiak hautsi zituen. Zavalak eskaintzen ditu xehetasun guztiak:

“Bilintxen billobak esan zigutenez, onela gertatu omen zan: Bilintxek traje berria zuan egun artan, eta galtzak jazten orduantxe asia omen zan. Une artantxe kanpai-otsa entzun zan. Entzun bezin laster, andrea eta aurrak beera abiatu ziran korrika, granada erori bitartean ezkatzeraiño jexteko astia izaten zan eta. Bilintx, ordea, esan bezela galtzak aldatzen asia, eta etzuan iges egiterik izan (...) Granada etzan zuzenean etorri. Leenengo beste etxe bat jo zuan, eta rebotean Bilintxen gelara leiotik sartu.” (1993: 79)

¹⁵⁰ Peris Menchetaren (1844-1916) ospea 1874tik aurrera *Las Provincias* egunkariaren gerra karlisten korrespontsal gisa zabaldu zen. *La Correspondencia de España* (1848-1925), Espainiako lehen egunkari profesional eta independentea, estatuko salduena zen garai hartan. 50.000tik gorako tiradarekin, eta valentziarra fitxatu zuen 1875ean. Mencheta espainiako erreporterismoaren aintzindarizat hartu izan da. Gerora Espainiako lehen agentzia informatiboa, Agencia Mencheta, sortuko zuen, eta baita hainbat egunkari ere: *La Correspondencia de Valencia*, *El Noticiero Universal* eta *El Noticiero Sevillano*.

¹⁵¹ Zavalak sinesgarritzat jotzen du *Diario de San Sebastián* egunkarian (1876/VII/26) argitaraturiko testu honetan oinarrituz: “(...) el Director-propietario de *La Correspondencia de España*, D. Manuel María de Santana (...) en cuanto tuvo noticia de la muerte de Vilinch, se ha prestado generosa y espontáneamente ha publicar la colección de sus poesías vascongadas, con objeto de enaltecer así el nombre del insigne poeta euskaro (...)”. Honela dio tolosarrak: “(...) Etzukean orrelakorik eskeiñiko, Bilintx ez-ezaguna izan balu. Zerbaiten artu-eman bear zuten alkarrekin. Artu-eman ori, Bilintx egunkari orren korrespontsal edo berri-emale izatea izango zan.” (1993: 55) Bilintxen sinadurarik ez da topatu, ordea, egunkarian: “(...) Egunkari orren zenbakiak aztertu ditugu; eta, F Peris Mencheta-ren firma azaldu aurretik, Donostitik bialtzen diran berriak firmarik gabe daude. Eta orrek, esan oi dan bezela, ez zerurako eta ez infernurako uzten gaitu” (1993: 55).

Bere zorigaiztoko patua, erromantikoen literaturak hainbeste estimatzen zuena, funtsezko osagai bat bihurtuko zen altxatzen hasi berria zen mitoan.

Zaurituaren bilakaeraren berri eman zuten egunkariak hurrengo asteetan: Urtarrilaren 27an, "Afortunadamente, Indalecio Bizcarrondo, á quien se hizo ayer la segunda cura, sigue bien, dada la gravedad de sus heridas." zioen *Diario de San Sebastián*; biharamunean, "El desgraciado Vilinch que tuvo ayer un pequeño recargo, seguía hoy en un estado relativamente muy satisfactorio."; Otsailaren 1ean, "El simpático cuanto desgraciado poeta vascongado Vilinch, á quien se hizo ayer la tercera cura, sigue relativamente bien de las graves heridas que recibió el día 20 de Enero último."... Egunkarien testu guztietan, lehenengotik hasita, zorigaiztoko ('desgraciado') izan zen gehien erabili zen adjektiboa.

Pertsonaia maitatua behar zuen Bilintzek eta bazituen egunkarietan berari buruz idaztera animatu ziren lagun ilustreak ere. Serafín Baroja idazleak, esaterako, donostiarraren bertsoetan jarri nahi izan zuen fokua *El Tiempo* egunkari madrildarrean (1876/01/24):

"Gracias al álbum publicado por el Sr. Santestéban no se perderán en el olvido algunas de sus bellísimas producciones. En cambio otras muchas, de indiscutible mérito, solo conocidas de algunos íntimos amigos suyos, se hallarán posiblemente recluidas en un rincón de su memoria."

Manuel Curros Enriquez poeta, literatura galziarraren garai hartako pizkundearen (*Rexurdimento*) eragile nagusia, bisitan joan zitzaion (gera kazetari zebilen baita inguruotan eta lagun egin ziren) eta urtarrilaren 26ko *El Imparcial*en, egunkari garrantzitsua baita, bere mina kontatu nahi izan zuen:

"(...) anoche mismo, yo, que conocía al nobilísimo Vilinch por varios de sus cantares y por referencias de las personas más ilustradas de esta capital, acompañado de su huen amigo D. Cirilo Latierro, fui a su casa, calle del Puerto, núm 5, y lo que entonces senti aún lo recuerdo ahora con dolor."

Hurrengo testua Antonio Peña y Goñi musikari eta kritikari donostiarrak eskaini zion, *El Imparcial*en baita, urtarrilaren 31ean, Curros Enriquezek berean egin zion eskariari erantzunez: "¡Triste deber el que la amabilidad y el excesivo cariño de Curros me imponen! Depositar una flor sobre esa tumba ¡que va a abrirse! tales son las palabras de Curros, cuya desgarradora elocuencia me hace estremecer". Artikulu luze batean Bilintxen izaera xumea, lagun maitasuna eta bere olerkigintza herrikoia balioa azpimarratu zituen, bapateko bertsolari gisa izandako ateraldiren bat maisulan gisa seinatuz. Beste ezeren gainetik, ordea, Bilintxen patu ankerra aletu zuen, pairaturiko zorigaitz guztiak zerrendatuz: "Nació sencillamente para ser desgraciado, y morir desgraciado sencillamente (...)". Eta donostiarraren irudian funtsezkoa bihurtuko zen bigarren elementu bat ere gaineratu zuen, bere umorea eta komikotasuna: "(...) en vez de llorar rie y hace reír (...)".

Hurrengo hilabetetan, bertsolariaren agonia luzatzen den bitartean, testuak urritu egingo dira harik eta 1876ko uztailaren 22an *Diario de San Sebastián*en heriotzaren berri eman zuen arte:

"(...) El pobre Vilinch ha muerto, víctima del profundo pesar que le aquejaba, el mismo día que se firmaba la abolicion de las libertades vascongadas, que tantas veces habia cantado, y deja en el más triste desconsuelo a su cariñosa esposa y sus tiernos hijos (...) ¡Pobre Vilinch! ¡Séale la tierra ligera!"

Albiste honen gainean, azaleko albiste nagusi gisa, Foruen abolizioaren berri zekarren egunkariak: "(...) Mañana tal vez la ley ahogue nuestra voz. Mas hoy ¡cómo dudar! el país entero repetirá con nosotros: ¡Los Fueros han muerto!, ¡Vivan los Fueros!". Eta testu nagusi honen azpian, kasualitatea, bertsolariaren heriotzaren berri ematen zuena.

Biharamunean ere protagonista berak izango ditu Donostiako egunkariaren azalak: ‘Los funerales de los fueros’ izenburua zeraman testua batetik eta Bilintxen hiletan inguruko informazioa bestetik.

4.4.5.2 Prentsak biderkaturikoa

Peña y Goñiren artikulu luze hark, Bilintx zauritu eta hamar egunetara idatzia, granada hark jo ez balu bertsolariak izango zukeen bizitza irudikatzen du: “Si Vilinch no hubiera sido mortalmente herido por una granada carlista habriase deslizado su existencia tranquila y sosegada. Querido por todos los amigos, admirado por sus paisanos todos, pero admirado en cariñosa intimidad sin ruido (...)”. Baita bere olerkigintzak hartuko zukeena ere: “(...) hubiera seguido resignadamente su carrera, mientras el poeta cantaba para sí y para los demás, para sí, derramando sobre su alma tan lacerada el bálsmo del arte y para los otros añadiendo una obra más á la coleccion de las suyas (...)”. Edo bertsolariaren heriotzak izango zukeen oihartzuna: “Llegada la hora de su muerte, y muerto Vilinch, le habríamos llorado, lo habríamos enterrado; el *Diario de San Sebastian*, dado caso que entonces existiera, habría dedicado una corta y sentida necrología a nuestro poeta (...)”.

Granada hark, ordea, fronteko etxean errebotatu ondoren leihotik sartu ondoren Bilintxen agonia eta heriotza tragikoa ekarri zituen, eta errebotez prentsak biderkaturiko sona:

“Vilinch cae, pues, herido mortalmente, ¿Quién es Vilinch? Un poeta. ¡Un hermano! exclaman Curros y Peris Mencheta. ¡Un hermano! exclaman cuantos escritores llevados por una árdua y dolorosa misión residen hoy en Guipuzcoa. Y *El Imparcial* y la *Correspondencia de España* dedican expresivas frases a Vlinch y los demás periodicos las copian, y conducido por la poderosa voz de la prensa, el nombre de nuestro poeta resuena en toda España”.

Iparragirren kasuan gradualki eman zen medioetako presentziaren hazkundera; *Bilintxen* kasuan kolpetik¹⁵². Edonola ere, urretxuarrarekin gertatu bezala, eta urte batzuk lehenago, bertsolari donostiarrari jarritako mausoleoaz edo kaleaz arituko da prentsa, bere familiaren aldeko diru-bilketak sustatuko ditu, familia ere jarriko du fokupean, edota jaiotzaren urteurren ekitaldiei buruz arituko da¹⁵³.

Iparragirre nahiz Bilintxen mitoak, biak gerra karlistena bezain testuinguru berezi batetik sortuak, izango dira Euskal Herritik kanpora oihartzun mediatiko garrantzitsu bat lortu duten bakarrak bertsolaritzaren historian. Batetik bestera, ordea, alde nabarmenak emango dira. Honela, donostiarraren mitoak ez du urretxuarrarenaren dimentsio politikorik izango. Bere ezbeharra bai baliatu zuen prentsak gerraren aurkako aldarriak egiteko, baina bere posizio politikoak, liberal foruzalea, eta bere historiak, tragikoa epikoa bainoago, ez zuen Iparragirre bezala ikur identitario bihurtzeko biderik eman. Honebestez, bere oihartzun mediatikoa ere askoz mugatuagoa izango da. Nazioartera ez da zabalduko, eta Espainian, ezbeharrek gertakari mediatiko konkretu gisa iraun zuenaz haratago ez dio askoz gehiago eutsiko.

¹⁵² Zauritu aurretik bere bertso batzuk bai argitaratu izan ziren bertako medioetan, baina bertsolaria aipatzen duen hitz lauzko testu bakarra topatu da: 1874ko urriaren 21ean ‘Juana Bixenta Olabe’ bertso sorta argitaratu zela eta Bilintxen etxean jarri zela salgai jaso zuen *Diario de San Sebastián*ek labur gisa.

¹⁵³ Bilintxen familiarentzat pentsio bat egon ote daitekeen (*Diario de San Sebastián*, 1876/VII/25); bere olerkien bilduma argitaratzeko eskaintza (*Diario de San Sebastián*, 1876/VII/26); familiaren alde dirua biltzeko funtzioa Printzipal Antzokian (*Diario de San Sebastián*, 1876/VII/25 eta 1876/VIII/07); mausoleoa egingo zaio (*Lau-buru: diario de pamplona*, 1883/IX/30); kalea jarri zaio (*El Día* eta *El Liberak*, biak 1884/II/11); bere arreba hil da (*La Época*, 1901/VII/21)...

Euskal Herrian, aldiz, Bilintxi buruzko ekarpenek ez dute etenik izango. Donostiarraren bapateko jardunak¹⁵⁴, umoreak eta komizitateak bertsolariaren ohiko irudira gerturatu duenez, etxeko zapore gehiago duen mito bat suertatuko da gainera Iparragirrerena baino.

Urte hauetan Hego Euskal Herrian bi bertsolari konkretu hauek dira albiste bertsolaritza baino gehiago, baina testu guztietan esaten da bertsolariak direla eta euren biografien kontakizunak bertsolaritza inguruko irudikapen edo zertzelada solteak papereratzen joateko aukera eskainiko du. Medioetarako ez ezik modernitaterako sarbidea ere eskaintzen dute, gainera, eredu aurremodernotik (baserri girokoa, alfabetatu gabea, basati ona) aldentzen baitira. Iparragirrek egindako moldaketa eta Lore Jokoek bat-batekoaren modernizaziorako abiarazirikoak, esaterako badute parekotasunik: “Ez dira behar bada, txikienak, Urretxukoak sozio-kultura aldetik bertsolaritza utzi dizkion joera oraintsuagoak (...) aretoetan kantatzea, saioak laburrago egitea memori zama arinduz (...) katea maila da, hemeretzigarren gizaldiko kantautoretza lotua gel dadin hogeigarreneko bertsolaritza kaletartuarekin” (Lekuona, 1987: 133). Edota Bilintxen hibridazioak ere eztabaida eta lilura berriak eragin zituen:

“The contemporary fascination with bertsolaris who could improvise poetry similar to romantic literature, which, nevertheless, could not be considered “true” romantic literature, further exacerbated the paradigm of the poet maudit or infernal poet, with which they were compared. The fact that a bertsolari such as Bilintxi actually read Spanish romantic poetry—Zorrilla, etc.—further complicated the position of these bertsolaris as both subaltern and modern.” (Gabilondo, 2016: 193)¹⁵⁵

Lore Jokoak Hegoaldera pasa bezperatan, beraz, 1876-1878 bitartean Bilintxen kalbarioarekin eta Iparragirreraren itzulerarekin bertsolariaren figurari buruzko jardun garrantzitsua izan zuen bertako prentsak, aldi berriarekin gailurra ekartzeko beroketa gisa.

¹⁵⁴ Antonio Zavalak (1993) jasotzen ditu bapatean ere aritzen zenaren zenbait arrasto, baina frogarik biribilena Peña y Goñik 1885ean ‘Bilinch. Recuerdos’ izenburupean *Euskal-Erria* aldizkarian argitaraturiko testua litzateke. Bikaina da: “Era por los años del 59 al 61 y en un día de Miércoles de Ceniza (...) Sentados todos á la mesa, y entre mariscos y libaciones, comenzó de pronto Campaña la pelea dirigiendo á Bilinch una redondilla satírica (...) El famoso sacristán de San Vicente, el cataléptico Campaña, que se dormía de pie tocando el bombardino en pasacalles y procesiones, y á quien yo ví más de una vez en la Fraternal, quedarse aletargado jugando al billar (...) tenía sus puntas y ribetes de poeta y no sin razón, porque improvisaba con facilidad (...) La réplica de Bilinch surgía de sus lábios como una centella. Mientras Campaña hablaba lentamente, con su respirar ruidoso de apopléjico, Indalecio componía en el acto la contestación. Y era de ver á aquellos dos seres tan extraños y diferentes, obeso el uno y receptáculo de malos humores como Falstaff, delgado el otro y con cara de sátiro averiado, insultándose mutuamente, poniéndose de relieve los defectos físicos y cruzando entre sí un fuego granjeado de denuestos, en los cuales la gracia, la oportunidad y el calor y la expresión de los conceptos poéticos formaban admirable conjunto y no dejaban punto de reposo á la hilaridad de los concurrentes.”

Bigarren testu bat ere topatu da, aurrekoa baino ezezagunagoa, bat-bateko jarduera hori frogatuko lukeena. Honela dio Franzisko López Alének 1907ko *Euskal-Erriaren* lehen zenbakian ‘Cosas del país. Oriamendi’ izenburupean sinatzen duen testuak: “Durante el invierno del año 1863 se expendió en esta cacería una sidra tan magnífica y excelente, que hizo época (...) formando parte del agradable grupo el celebrado é inolvidable Bizcarrondo (...) Más de seis horas estuvo improvisando el popular Indalecio, haciendo morder polvo á cuantos caseros se aventuraron á compartir con él aquella espontánea sesión de bersolaris”.

¹⁵⁵ Honela kontatzen du Benito Jamarrek *Euskal-Erria* aldizkariaren 1906ko uztailleko zenbakian ‘Sobre la poesía vascongada’ izenburutzat daukan artikuluan: “(...) conoció las Doloras de Campoamor; quiso cultivar el género, y fracasó. No era esa la lira que debía él pulsar. Pero yo le leí la poesía que aquella alma se podía asimilar, le leí las rimas de Becquer y los Elegías de Aguilera. Aún recuerdo la intensa atención con que seguía Vilinch la lectura: aquello era más que poner atención: era desprenderse de toda su alma para identificarse con el alma del poeta (...)”.

4.5 GAILURRA: PIZKUNDE FORUZALEAK LEHEN ENTSEGUA (1879-1900)

4.5.1 Hegoalderako pausoa eta biderkaketa

XIX. mendearen erditik aurrera geroz eta nabarmenagoa izango da euskal industrializazio prozesuaren garapena, laneku bezala datorren erdal emigrazioak geroz eta pisu handiagoa hartuko du euskal jendartean, eta gutxika masa kulturaren lehen agerpenak hasiko dira loratzen: “(...) la demanda social se vio correspondida por el desarrollo de diversos generos artístico-literarios, el auge de la prensa, y la aparición de la cultura de masas moderna, caracterizada por el papel creciente del ocio, los espectáculos y los deportes” (Aizpurua, 2000: 61). Euskal kulturak European geroz eta interes biziagoa pizten duen bitartean geroz eta ertzerago egingo du bere lurraldean: “La cultura etnoeuskaldun, mayoritaria hasta ese momento, acentuó su subordinación frente a la cultura española-urbana, difundida por la escuela, la prensa y los nuevos sectores dominantes” (id.: 61).

1870eko hamarkadan Luis Lucien Bonaparteren inguruan antolatu ziren euskararen inguruko ikerketak ere gainbeheran ziren, gerra franko-prusiarra galdu ondoren bere lehengusu Napoleon III enperadorea kargugabetu zutenetik baliabide ekonomikorik gabe gelditu baitzen ikerlaria. 1876an Bigarren Gerra Karlista amaitzean Foruen babesaren galdu zen. Eta euskararen inguruko alarma guztiak piztu ziren: “Defentsa on baten antolamendurako erakundeen jabetasuna galduta, soldadutzak gazteak erdal-herrietara eramaten zituela, eskolan maisu erdalduna nagusi zela, etorkizuna beltz ageri zen” (Intxausti, 2014a: 128).

Askok galdutzat ere ematen zuten etorkizun hori:

“Incluso los defensores de la lengua vasca estaban penetrados de estas ideas de incapacidad de adaptación de la lengua vasca a la sociedad moderna. Un ejemplo entre los muchos posibles. En 1879 se presentó como tema de discusión en las tertulias del Ateneo de San Sebastián, el de la pertinencia o no de la desaparición del euskera. Algunos socios eran partidarios del abandono lo antes posible de la lengua, mientras que a otros les repugnaba esta proposición. Se encargó de defender esta última postura Nicolás de Soraluze, conocido vascófilo. Pero sin negar de reconocer en las conclusiones de su discurso que el vapor, el telégrafo y la escuela acabarían por hacer desaparecer la lengua vasca. Él solo se oponía a acelerar el proceso.” (Madariaga, 2008: 155)

Nagusitu zen jarrera, ordea, esan bezala, erreakzio kulturalarena izan zen, Lehen Euskal Pizkundea abiaraziko zelarik (Aizpurua, 2000: 61; Intxausti, 2014a, 135; Larrinaga, 2007b: 123-124 eta 310; Madariaga, 2008: 156). Eta Zavalak zehazten duen bezala Pizkunde honek bertsolaritzari toki garrantzitsu bat aitortuko zion:

“Al terminar la segunda guerra carlista, surge en el país un movimiento a favor de su lengua. Se diría que el pueblo vasco ocupado hasta entonces en la defensa de su estructura foral y derrotado en esa batalla, se dispone ahora a la salvaguarda de ese otro constitutivo de su esencia. Sus ojos se fijan entonces en el bertsolarismo y lo cataloga como uno de los elementos más importantes e íntimos del alma popular” (1996b: 263)

Dirudienez Iparraldeko eragileak izan ziren Jokoein muga zeharkatzea erabaki zutenak: “En este clima Antoine d'Abbadie y Jean Duvoisin (...) organizador de la mayor parte de los Juegos Florales decidieron que la celebración de los mismos se realizaría en alternancia al norte y al sur del Bidasoa” (Aizpurua, 2000: 61). Eta dirudienez Foruen galerari erantzunez egin zuten hauek ere: “Argi dago Abbadiarentzat euskal Foruak oroz gainetik daudela. Haien

galerak aztoratzen du. Jota gelditzen da halaber Hegoaldea. Horko bihotzen sustatzeko, Abbadiak bere Lore Jokoak Bidasoaz haraindian egingo ditu” (Davant, 2012: 119).

Duvoisin azaltzen da berriro eskutitz bidez batzuei eta besteei hainbat ideia helaraziz. Elizondon 1879an jokatu ziren Hegoaldeko lehen Lore Jokoetan lankide izan zuten Nafarroako Euskara Elkarteko buru zen Arturo Campioni urte hartako maiatzaren 1eko datarekin bidalitako eskutitzean Jokoen antolaketarako bere esperientzia eskaintzen zion eta Jokoak ‘propaganda nazionalerako’ bitarteko bikaina zirela seinalatu:

“Il y a près de 30 ans que nous avons ici des solennités de ce genre (...) C’est là un bon moyen de propagande nationale. L’union fait la force, et c’est ce que nous, Basques de France, souhaitons de voir régner chez nos frères d’Espagne.” (Daranatz, 1928c: 348-349)

Jose Manterolarekin ere jarri zen harremanetan eta urte bereko abuztuaren 7ko data zeraman eskutitzean antzeko ideiak helarazten zizkion, protonazionalismo argi bat erakutsiaz:

“Les concours littéraires ont une importance dont les Basques d’Espagne semblent ne s’être pas doutés. En unissant les provinces, dans un amour commun de la langue et de la patrie, ces concours finirent par empiéter sur les divisions intestines. Ramener la concorde, voilà le but. Que chacun se dise Basque et rien de plus.” (Daranatz, 1928c: 361-362)

Ideiak harrera ona izan zuen eta 1879 hartan Elizondon ez ezik Donostian ere, Gipuzkoako Batzarrek eta bertako Udalak antolaturik, ospatu ziren Jokoak. Aurrerantzean kasik urtero egingo zen Donostiako hori, 1882tik aurrera Euzkerazko Itz-Jostaldien Batzarreak antolatuta. Abbadierenak, berriz, aldiro egingo ziren Hegoaldean beti ere bertako eragileren batekin elkarlanean: 1881ean Irunen bertako Udalarekin batera, 1883an Markinan Vicente Arana¹⁵⁶ idazlearen laguntzaz, 1886an Urnietan bertako Udalaren sustenguz...

Donostiakoez eta Abbadierenez gain eragile ezberdinen ekimenez gauzaturikoak agertuko dira tarteka. Honela, 1882an, 1884ean eta 1885ean Iruñeako Udalak bereak ospatu zituen edota Euskal-Erria elkarteak Bilbon antolatu zituen 1882an eta Hondarribian hurrengo urtean. Begoñak (Bilbo) eta Berak 1880ean, Montevideok 1881ean, Oiartzunek 1882an, Itziarrek 1884an, Arantzazuk eta Durangok 1886an eta Gernikak eta Gasteizek 1888an ere izan zituzten euren Lore Jokoak, euren kabuz antolatuak. Eta 1896tik aurrera Gipuzkoako Foru Aldundiak sustaturikoak ere ospatuko ziren, egoitza urtero herri ezberdin batera mugituz.

Hauetan guztietan gaztelerazko lanak ere sariztatuko dira, Donostiakoak eta Abbadierenak izango dira euskara hutsean burutzen diren bakarrak.

Iparraldean Urruña (1851-1863) eta Sara (1864-1878) izan ziren egoitza nagusi muga zeharkatu bitartean, baina gerora beste herri batzuetara ere mugitu zen Abbadiak: Azkaine (1887), Kanbo (1888), Doneztebe (1889), Maule (1890), Donibane Lohizune (1892) eta abar. Bestalde, 1893tik 1897ra Joko paralelo batzuk antolatu zituen Martin Guilbeau buru zuen Euskal Elkarteak. Davantek azaltzen duenez (2012: 100 eta 117-118), III Errepublika sortu bitartean (1870) arazorik gabe integratu ahal izan zituen Abbadiak Xuriak nahiz Gorriak bere Jokoetan baina pixkanaka, sarituriko bertsoak edo planteatzen diren gaiak Xuriekin lerratzen

¹⁵⁶ Vicente Aranaz sakondu da eranskinetan, bertsolaritzari buruzko fikziozko lanen egile gisa. Ik. I.IV.II Vicente Aranaren ‘El bardo de Uribe’ *El Aralar* egunkarian (1892). Lore Jokoetan ere parte hartze aktiboa izan zuen : antolatzaile, epaimahaiko eta abar.

direlakoan, Gorrien kexuak ugarituz joango dira¹⁵⁷. Bidartek ere aipatzen du tentsio hau: “Ce sont néanmoins les activités littéraires, c’est-à-dire les concours de poésies et d’improvisations qui s’imposeront comme la partie la plus sensible de la manifestation, la plus exposée à la contestation sur le plan idéologique (reproches d’excès d’antirépublicanisme et de carlisme)” (1998: 269). Azkenean, 1890eko hamarraldian, Errepublikarrek euren Lore Jokoak antolatzea erabakiko dute (Guilbeau, Vinson, Dogson, d’Abbatiague eta Elizanburu anaiak lirarteke figura garrantzitsuenak, guztiak Abbadieren Jokoetan parte hartze garrantzitsua izandakoak).

Muga zeharkatzen dutenetik, bada, biderkatu egingo dira Lore Jokoak. 1880ko hamarralditik aurrera ohikoa izango da urtean bizpahiru Joko ospatzea eta 1897an, esaterako, Abbadieren heriotzaren urtea, Areatza-Billaron (Abbadieren alargunak antolatuak) Donibane-Lohizunen (Euskal Ohituraren Festak, Abbadieren omenez), Donostian (Euzkerazko Itz-Jostaldien Batzarreak), Oiartzunen (Gipuzkoako Foru Aldundiak) eta Saran (Guilbeauk).

4.5.2 Campionen ‘Euskaro’ak eta Donibane Lohitzuneko ‘Zazpiak bat’

Elizondon ospaturiko Hegoaldeko lehen jokoan antolakuntzarako ‘Asociación Eúskara de Navarra’ aukeratu zuen Abbadiek lankide gisa. Ez alferrik, Hegoaldean sortzen ari ziren euskararen aldeko elkarten mugimenduan aitzindari eta erreferentzia nagusi izan baitzen berau: “Hizkuntzaren aldeko Elkartek Iruñean izan zutela hasiera nagusia esan beharko genuke: Iturralde-Suit (...) eta Campión-en eskutik antolatutako “Asociación Eúskara de Navarra”ri eman behar zaio lehenengo lekua, kronologiagatik ez ezik (1877-1897), izan zuen pisu sozioideologikogatik ere.” (Intxasuti, 2014a: 54)

Revista Eúskara (1878-1883) deituriko aldizkaria sortu zuen Elkarte honek, erakundeek euskararen katedra bat martxan jartzea lortu zuen (1887) eta hizkuntzaren inguruan ardatzen zen abertzaletasun baten oinarriak finkatu zituen:

“En el caso vasco ya hemos visto manifestaciones que relacionaban claramente nación e idioma en autores como Larramendi o Iztueta, pero es con Chaho con el que se manifiesta de forma más clara esta tendencia romántico-populista. Luego, en la medida en que el entramado foral vaya siendo atacado y desarbolado, irán fraguándose experiencias y proyectos de recuperación foral en los que la lengua (y su recuperación) ocupa un puesto eminente. El modelo más acabado de esto sería la Asociación Euskara de Navarra.” (Madariaga, 2008: 144)

‘Euskaro’ deitzen zitzairen talde zabal batek (Campion, Iturralde, Aranzadi, Oloriz, Landa, Lagarde, An soleaga, Irazoqui, Iñarra, Echaide, Gaztelu, Azcona, eta abar) bultzatzen zuen Elkarte eta talde hau izango zen Europan zabaldu ziren teoria nazionalisten argitara herrigintzari lotu zitzaion lehenengoa: “Se ha afirmado que los eúskaros, junto con alaveses como Ortiz de Zárate, Becerro de Bengoa o Herrán formularon por primera vez una política común destinada a formar un pueblo (...)” (Aizpuru, 2000: 64). Baita hizkuntzaren alderdi sozialaz osoki jabetu eta proiektu soziokultural bat praktikan jartzen aitzindari ere:

“Campionen eta Asociación Euskara de Nabarra delako elkartearen ekarpena kultura pizkundean bi mailatan burutu zen: batetik, haiei zor zaie euskararen ordezkapena bultzatzen zuten eragileei buruzko lehen gogoeta teorikoa —

¹⁵⁷ Abbadieren jarrera politiko malgua azpimarratzen du Davantek, besteak beste Chahorekin izandako harremana seinalatuz: “Abbadiak Xaho lagundu nahi ukan zuen hiztegi lan handi batean. Duvoisin guarda kapitaina ber gisako lanari lotu berria zen, eta horrekin jardun nahi zukeen Xahok. Bien arteko zubi lanaren egitea d’Abbadieri eskatu zion, eta hau saiatu zen, alferrik ordea. Duvoisin zuriak Xaho gorriarekin lan egiteari ezetz ihardetsi zion. Abbadia ere *zuria* zen, baina zabalagoa (...)” (2012, 130).

hizkuntzazko barne faktoreena nahiz kanpotik ziharduten prozesu sozialena—. Bestetik, maila praktikoagoan, hizkuntza ordezkapenaren aldeko joera geldiaraztera zuzendutako jarduera soziokultural anitzen sustatzaile izan ziren (...)” (Larrinaga, 2007b: 132-133)

Arturo Campionen (1854-1937) izan zen talde honetako buru. *La Paz* egunkarian berak egindako deialdiari erantzunez sortu zen elkartea (1877) eta berak jarri zituen XX. mendeko Bigarren Pizkundearekin loratuko zen abertzaletasun berriaren oinarri teorikoak, Sabino Aranaren abertzaletasunarekiko azpimarra kultural jarri izanagatik ezberdintzen direnak (Aizpuru, 2000: 63-66; Amezaga, 1994: 39-47; Intxausti, 2014a: 128-131; Larrinaga, 2007b: 131-133). Honela, Aranismoak euskal nazioaren bereizgarri nagusitzat arraza ezarriko bazuen Campion eta euskarok hizkuntzari esleitzen zioten zentraltasun hori¹⁵⁸:

“Digo pues, señores, que pueblo es el conjunto de elementos étnicos, de procedencia única o varia, capaz de vida histórica por haberse llegado a establecer en él, más o menos íntimamente, cierta comunidad de aspiraciones o ideales, y de cultura o espíritu, con plena conciencia de su conexión, manifestada externamente por el lenguaje (...) El pueblo se distingue de la raza, y más aún de los progenitores de ésta, por su aptitud a la vida histórica, o sea, a afirmar la propia personalidad en el orden interior y exterior contra otros pueblos o naciones” (Campion, 1906: 248; Amezagatik jaso 1994: 42)

Chahoren Aitorren kondaira itzuli eta bere *Revista Eúskaran* berrargitaratu zuen Campionek 1878an. Eta Majuelok azaltzen duenez, bertsolaritzaren ezagutzari propio lotu zitzaion euskal kultural sakondu nahi izan zuenean: “Inmerso en el estudio de la lengua vasca amplió su conocimiento (...) de poetas populares o bertsolariak (...)” (2011: 53). Ongi ezagutzen zituen Europako erromantizismoaren teoriak (Amezaga, 1994: 45) eta haiek aipatzen zuten herriaren arima bertsolaritzaren baitan kokatzen zuen iruñearrak:

“Los inicios del desarrollo intelectual de Campión se orientaron desde esas mismas premisas, adecuadas a su momento histórico (...) en plena conformación de las nacionalidades (...) en defensa del carácter nacional vasco que identificaba con la peculiaridad lingüística y la poesía popular de los bertsolariak.” (2011: 209)

Hegoaldeko lehen Jokoen antolaketan buru belarri murgiltzeaz gain hurrengo urteetan askotan topatuko dugu, bada, Campion Joko hauetako epaile lanetan, baita bapateko saioetan ere.

Bestalde, Campionek, bai euskarok eta oro har Lehen Pizkundeko lehen olatu hau harrotu zuen belaunaldi guztiak literatura erromantikoaren tradizioari jarraituz historia eta mitoa nahasten zituen lanketa garrantzitsua egin zuten: “Eleberri moduan kontatutako elezaharrak, ipuin mitologikoak eta eleberri epikoak, besteak beste, ugaldtu egin ziren izugarri garaiko literaturagintzan. Horiek guztiek literaturaren susperraldian eduki zezaketen eraginaz gain, ikuspegi soziologikotik, euskal tradizioaren berrirakurketan eta egokitzeapenean izan zuten ondorioa nabarmendu behar da” (Larrinaga, 2007b, 133). Politikoki foruzaletasunaren inguruan gauzatu izan zen mugimendu guzti hau ez zen alderdi abertzale bat gorpuzteko gai izan, baina eragin garrantzitsua izango zuen:

¹⁵⁸ Nafarroan euskarak bizi zuen egoera larriaren jabetzak eragindakoa zatekeen hizkuntzarekiko kezka berezi hori (Amezaga, 1994, 40), eta arrazarekiko atxekimendurik eza, berriz, Campionen jatorriak berak argitu lezake: “Campión, proveniente de una familia de origen francoitaliano, rechazó el criterio racial como criterio de nacionalidad, afirmando que ninguna nación europea lo cumplía” (Madariaga, 2008, 64).

“El imaginario literario creado por Campión y sus compañeros, un vago sentimiento de comunión nacional que no cuajó en acción política definida, tuvo en cambio una gran repercusión en toda Euskal Herria. Muchos vascos llegaron al nacionalismo, no a través de ‘Bizkaya por su independencia’ [Arana], sino gracias a la lectura de ‘Pedro Mari’ (1895) o ‘Blancos y Negros’ (1989) [Campion]. Las ideas políticas de Campión tuvieron gran influencia en el nacionalismo navarro y me atrevería a señalar que también en el guipuzcoano, especialmente en lo que se refería al ámbito lingüístico.” (Aizpuru, 2000: 65)

Mugimendu honen eskutik altxa zen ikur garrantzitsuenetako bat euskal komunitatea euskararen bueltan batzen zuen ‘Zazpiak bat’ a izan zen. Aurretik foralismoak ‘hiruak bat’ eta ‘lauak bat’ gisakoak jorratuak zituen, baina 1880 nahiz 1890 hamarraldietan ikur berria nagusituko da. Iparraldean ereindako hazia izango da gainera neurri handi batean: “Nafar talde [Asociación Eúskara-z ari da] horrek du ‘Zazpiak-Bat’ formula matematikoan antolatu eta finkatu Antoine d’Abbadiek eta Agosti Xahok 1836ko beren gramatika lanean aipatu zuten zazpi euskal herrien ideia, liburua eskaini zutelarik ‘Zazpi Uskal Herrietako Uskalduner’ (zubereraz)” (Davant, 2012: 120). Formularen aipamen zaharragoak aurki daitezke Axularrengan, Garatengan edo Larramendirengan, baina badirudi Abbadiek hitzaurrea egin zion Chahoren gramatikak (1836) zeraman eskaintzak abiapuntu bat suposatzen duela. Chahok hainbatetan aipatuko ditu zazpi probintziak bere idatzietan, eta Abbadiek ere urteetan aurrera egin ahala abertzaletasunarekiko gertutasun handia erakutsiko du¹⁵⁹. Duvoisinek Arrese Beitiari Elizondoko Lore Jokoen bueltan idatziriko eskutitzek erakusten du Iparraldeko eragileengan jada sustraitua den ikuspegia. Honela, 1879ko abuztuaren 25eko datarekin: “Eskaldunak, Eskaldunak, etzarete ez Kastillar, ez Aragones, ez Andaluziar ; zaudete fidel Eskaldun izenari” (Daranatz, 1828b: 364). Edota irailak 26an: “Gauza ageria da, eta guk bazterretik gaudezinek garbiki ikusten duguna, zuen zorigaichtasuna ethorri dela zeren askok utzi dituztuen herriko egitekoak eta sarthu zaretan Espainiakoetan. Zer zinuten ikusteko Espainiako nahaskerietan? Eskaldunek behar zuten Eskaldun gelditu eta ez bertzerik” (Daranatz, 1828b: 366).

Lore Jokoei buruz topatu den lehen testu luzean ikus daitekeenez (1853/IX/13. *Le Messenger de Bayonne*. ‘Variétés/Rapport sur le concours d’Urrugne’) lehen ekitaldietatik mugaz bestaldeko bertsolariak ere gonbidatzen ziren Iparraldera. Eta garaikur gisa eman ohi zen makilak ‘Zazpiak-bat’ hitzak izan ohi zituen urtero idatzita. Jokoak Hegoaldera ere pasatzean mugaz bi aldeetarako bertsolarien joan etorri hori ez da areagotu baino egingo, eta garaikurrak idatzita daramatzan hitzek geroz eta oihartzun zabalagoa izango dute. Honela, 1892an Donibane Lohizunen ospatu ziren Jokoen ekitaldiaren lelo nagusizat hartu zen ‘Zazpiak-bat’ formula. *Eskualduna* aldizkariaren kronikak ematen du ikurrak hartua zuen indarraren berri:

“‘Zazpiak bat’, horra zer dugun irakurtu Donibaneko Eskualdun buruzagiek beren etxe aintzinetan, bai eta ere bide bazterrean, bi aldetarik hedatuak zituzten bandera ederretan. Zazpiak bat: hitz berak ziren ageri, erran badezaket, harat-hunat elgarri irriz eta agurka bezala zabilzan begitharte alegera guzietan. Zazpiak bat: ez zen han bertze solasik. Zazpiak deitzen zituzten bertze orduz, eta oraino ere hor dira behin bizi, zoin beren eremuetan, zoin beren jite, itxura,

¹⁵⁹ Davant Abbadieren ideologiaz: “Iparraldeko erderaz erraten denez ‘un plus’ badu, zerbait besterik, eta hau da baldintza gabeko euskaltzaletasun bat, abertzaletasunerantz doana gutienez ere” (2012: 114). Eta Aizpuru: “Su relación con el movimiento romántico, el conocimiento del caso belga y su experiencia de la lucha irlandesa por la independencia son factores importantes a la hora de explicar sus múltiples actividades culturales en el País Vasco” (2001: 34).

mintzaire, aphaindura eta bertze egite bereziekin, Eskual-herriko zazpi eskualde edo probentzia zaharrak (...). Zazpi probentzia horien banderak han ziren, oihal ederrez eginak, urhe eta zilharrez ederki aphainduak, bakhotxak erdi erdian bere izenarekin herri bereko gizon batek ekhartzen zuela, haga urheztatu batetarik dilindan.” (*Eskualduna*, 1892/VIII/26, ‘Eskualdun bestak’)

Omenaldi bazkaria egin zitzaion ekitaldi hartan Abbadieri, eta omendu gisa mahaiburuan eman zuen hitzaldia amaitzeko Zazpiak-baten aldeko topa eskatu zuen, berriro ere Eskualdunako kronikan irakur daitekeenez: “Laissez-moi vous parler des pasteurs Saho chez qui j’ai vecu en Afrique (...) “Chers amis, joignez vos voix à la mienne déjà éteinte et crions tous ensemble: Zazpiak bat!”. (*Eskualduna*, 1892/IX/23, ‘Le toast d M. Antoine d’Abbadie’). Aurrerantzean urtero egingo ei zen topa hori eta sarituriko hainbat bertsoetan ere agertuko zen formula (Casal, Hiribarren, Ibarrart, Adema-Zalduby, Oxalde, Arrese-Beitia, Otaño eta abar). Foralismotik abertzaletasunerako pausoa dakarren formula honen erabilera zabaltzeko funtsezkoak izan ziren, bada, Lore Jokoak Gabilondok aipatzen duen gisan: “Yet, the cultural promotion of the bertsolari gave, for the first time, a voice to subaltern subjects and, at the same time, created a linguistic consciousness towards a new Basque Country that was “seven in one,” that is, the seven Basque provinces on both sides of the Pyrenees” (2016: 197).

4.5.3 Manterola eta *Euskal-Erria* aldizkaria Pizkundearen artikulatzaile

Lehen Euskal Pizkundearen lehen olatuan, bestelako egiturarik ezean, lehen une batean euskararen aldeko elkarteak eta jarraian elkarte hauek sorturiko aldizkariak izan ziren mugimenduaren artikulatzaile nagusiak (Aizpuru, 2001: 60; Intxausti, 2014a: 53 eta 56-57; Larrinaga, 2007b: 127; Madariaga, 2008: 156). Larrinagak azaltzen du egoki aldizkari hauen beharra: “Aldizkarien sorrera premiak aditzera ematen du euskal esparru kulturalak, esparru izateko, erakunde kulturalen beharrizan larria zeukala” (2007b: 128). Eta bete zuten funtzioa:

“Sortutako argitalpenak erabakigarriak izan ziren ez soilik garaiko intelektualak harreman bilbeetan biltzeko eta esparru intelektuala trinkotzeko, baita gune kognitibo garrantzitsuak eratzeko ere. Gune horietan landu ziren lehenbizikoz ezagutza berriak eta haietan hornitu zen euskal protoelite kulturala erreminta sinboliko funtsezkoek euskal kulturaren eta hizkuntzaren legitimazio lanetarako.” (id.: 127)

Revista Euskara, (1878-1883), *Revista de las Provincias Euskaras* (1878-1880), *Revista Euskara de Pamplona* (1880), *Revista de Vizcaya* (1885-1889), *Revista del Antiguo Reino de Navarra* (1888-1889), *Bizkaitarra* (1893-1895)... asko izan ziren XIX. mendearen azken laurdenean Hegoaldean sortu ziren kultur aldizkari euskaltzaleak, baina iraupenez eta izan zuen eraginagatik *Euskal-Erria* (1880-1917) litzateke gailur honen artikulazioan paper garrantzitsuena bete zuena. Intxaustik, esaterako, horrela nabarmentzen du: “Donostiako *Euskal-Erria* (1880-1918) izan zen, hasieran, molde hauetako aldizkaririk hedatuena eta pisurik handikoena Manterolarekin (1880-1884), eta gero Artzak (1884-1904), López Alen (1904-1910) eta Loyarteren zuzendaritzarekin (1910-1918)” (2014a: 57). San Martinek, aldiz, gerora etorriko zirenei ireki zien bidea nabarmentzen du: “*RIEV* aldizkaria eta Eusko Ikaskuntzaren sorrerazko aurrerapena izan zen *Euskal-Erria* aldizkaria, euskalari guziak bilduz gure herriari buruzko lanak erarik orokorrenez ematen erakutsi zigunez” (1984: 448).

Jose Manterola (1849-1884) izan zen aldizkariaren sortzailea eta lehen zuzendaria. Bere aita, Gregorio Manterola, Gipuzkoako diputatu nagusi izana zen, eta etxetik zetorkion kulturzaletasuna. Valladolid, Zaragoza eta Madrilén Filosofia ikasketak osatu ondoren Madrilgo *La Paz* foruzalean eta Aurrera liberalean hasi zituen bere kazetari lanak. Hogeita hamar urte eskasekin *Euskal-Erriaren* sortzaile eta zuzendari lanetan hasi aurretik,

Donostiako *Diario de San Sebastián* egunkariko zuzendari (1873-1877) eta Donostiako Udal Liburutegiko zuzendari (1876) lanetan aritu zen eta bere ‘Cancionero Vasco’aren hiru liburukiak osatzeko beta ere izan zuen (1877-1880).

*Diario de San Sebastian*eko zuzendari zela, euskal kulturari arreta berezia jarri zion:

“Ciertamente se mostró preocupado por mantener las características peculiares de la cultura vasca, lo cual le llevó a definirse como regionalista y provocar fuertes ataques de los otros periódicos locales, como *La Voz de Guipúzcoa* y *El Eco de San Sebastián*.” (Arzamendi, 1992: 515).

Eta *Euskal-Erriak* ildo honetan sakontzeari ekin zion. Honela azaltzen zituen bere helburuak aldizkari berriaren lehen zenbakiak:

“A recoger y transmitir los rasgos peculiares de la vida propia de estas siete provincias, que forman lo que podemos llamar la HEPTARQUIA EUSKARA, a dar a conocer su antiquísima lengua, su especial literatura, sus originales cantos y traducciones, su historia, sus leyes y sus costumbres, reproduciendo los trabajos de mas interés, inéditos, agotados ya ó poco conocidos de nuestros antiguos y mas distinguidos escritores, y buscando el apoyo de cuantos prestan hoy culto y nombre á las letras vascongadas, para hacer así de nuestra revista un verdadero Album, un archivo manual de curiosidades del país, se dirigirán todos nuestros esfuerzos” (*Euskal-Erria*, 1880 abendua, 4 or. ‘Nuestra mision’)

Aldizkariak denetariko gaiak jorratu zituen: “arkeologia eta historia ikerketetatik, ohitura eta etnografia zein ahozko literatura bilketetatik sorketazko literaturgintzara arte” (San Martin, 1984, 445). Eta horretarako garaiko euskaltzale garrantzitsuenen laguntza izan zuen: “Antoine d’Abbadie eta Achille Fouquier-ek beren agiritegi eta liburutegiak erabiltzeko atearak idekiz aukera guztiak eskaini zizkioten. J. Vinson eta L. L. Bonaparte printzearengandik ere agiri eta aholku laguntzak jaso zituen” (id.: 448). Sestra politikoetan ez sartzeko hautua sorreatik bertatik egina, eta garaiko gisako aldizkariak ohi zuen moduan nagusiki gaztelaraz argitaratu arren euskarari ere tarte garrantzitsu bat eskainiaz Pizkundearen bueltan mugitu ziren sinadura guztiek hartu zuten parte bertan: Abaddie, Agirre, Arrese Beitia, Artolatarrak, Arzak Serafin Baroja, Becerro de Bengoa, Bonaparte printzea, Campion, Delmas, Duvoisin, Egaña, Elizanburu, Etxegarai, Iraola, Iturralde y Suit, Peña y Goñi, Otaegi, Sagarminaga, Soroa, Trueba, Vinson, Webster... Askotariko profilak aurkitu ahalko dira, bada, proiektuan parte hartzen dutenen artean, baina orohar, eta garai berean Iparraldean gisako funtzio erreferentziala betetzen zuen *Eskualduna* (1887-1944) astekariarekin alderatuz, talde laikoagoa eta liberalagoa osatzen dela azpimarra daiteke.

Aldizkariaren ekarpena zabalagoa izan zen arren bertsolaritzaren modernizazio bidean ere ekarpen garrantzitsua egin zuela esan daiteke. Manterolak bere kantutegian ordura arte bertsolaritzaren historiaz egin zen bilketa garrantzitsuena zuen osatua, *Diario de San Sebastian*eko zuzendari gisa ere Bilintxen ezbeharrari eta Iparragirreraren itzulerari inork baino arreta handiagoa eskaini zion, eta aldizkari berrian ere toki berezi bat gordeko zion bertsolaritzari. Bapateko saio batez gaztelaraz nahiz euskaraz propio idatziriko lehen kronikak *Euskal-Erriari* argitaratu ziren, aldizkariaren lehen urteetan, eta generoaren oinarriak Manterola berak ezarri zituen. Honela azpimarratzen du Zavalak Manterolak kazetari gisa bertsolaritzari eginiko ekarpena: “En la revista *Euskal-Erria* escribió varias extensas reseñas sobre sesiones de bersolaris, las cuales aportan una información imprescindible para poder cotejar el bersolarismo de improvisación antiguo y el moderno” (1996c: 204). Eta Manterolak testu hauetan erakusten duen seintsibilitatea ere sinalatzen du: “(...) escribió (...) con ese cálido sentimiento de admiración y sorpresa que nos produce siempre lo recién descubierto” (1996d: 263).

Testu hauek kronika modernoaren elementu guztiak barneratuko dituzte: kontakizun kronologikoa, saioa hasieratik bukaeraraino deskribatzen duena; ariketa bakoitzaren azalpena, parte hartzen duten bertsolarien ekarpenaren balorazioekin eta eskaini diren bertsoen hautapen batekin hornitua; giroari eta publikoaren erreakzioei eginiko erreferentziak; azken epaia eta sari banaketa... Hemen jaso eta iruzkintzeak luze joko lukeenez, baina,aldi berean, pieza bikainak eta interesgarriak direnez, Iparragirreri buruzko testuekin egin den bezala ikerketaren lehen eranskinera eraman dira. Bai gaztelera eta euskarazko lehen kronikak, baina baita frantsesez eta ingelesez argitaraturiko lehenengoak ere.

Kazetari ez ezik eragile lanetan sartzera ere animatu zen Manterola Donostiako hainbat euskaltzalerekin batera Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalaren babesla lortu ondoren, 1882an Consistorio de Juegos Florales-Euzkerazko Itz-Jostaldien Batzarrea eratuz. Batzar honen egitekoa urtero Donostian Lore Joko batzuk antolatzea izango da, eta luze eutsiko dio erronkari, Abbadieren Jokoein batera inork baino luzeago, 1930eko hamarraldiraino iritsiko baitira Donostiako Jokoa. Euskara hutsean egingo dira gainera, eta bat-batekoari beste inork baino garrantzia handiagoa emanez.

Zavalak, Manterolaren lidergoa azpimarratu ondoren, talde osoari egozten dio Donostiako Lore Jokoei beren sorreratik bertsolaritza eskaini zioten aparteko arreta:

“Aquellos vascófilos pertenecían a una población en la que el vascuence era todavía vida y pueblo; habían nacido y vivían en la mayor población de habla vasca que haya habido alguna vez: el San Sebastián de 1880. Y, como auténticos vascos, comprendían estimaban y amaban al bersolari.” (1996c: 209-210)

San Martinek, aldiz, Manterolaren esku-hartzea azpimarratzen du:

“Manterolaren ikuspegia oso zabala izan zen, ideak argi eta garbi zituen, bere denborako beste euskaltzale batzuk bertsolaria mesprezuki erabiltzen zuten garaian, berak bertsolari saioak antolatzeari eman zion, sariak jarri ere bai, eta beretan epaimahaiko izan. Kultur maila guztiak probetxugarritzat zituen, zein elitearena hala populuarena, eta euskal literaturak guztiak behar zituen.” (1984: 447)¹⁶⁰

Euskal-Erria aldizkariak lotura zuzena zuen Euzkerazko Itz-Jostaldien Batzarrea honekin, eta urte luzez inork baino xehetasun gehiagorekin emango zuen Donostiako Lore Jokoen berri. Gainerako Lore Jokoen inguruko informazio zabalena ere bertan eskaintzen zen, ordea. Esan bezala, Iparraldeko kultur bizitzaren ispilu garrantzitsua *Eskualduna* izan zen, eta aldi honetan izan zen, esaterako *L'Avenir* egunkaria Guilbeuren Lore Jokoein, zenbait ekitaldiri arreta berezia eskaini zion medio gehiago ere, baina ez dago *Euskal-Erriak* bertsolaritza eskainiriko estaldurari itzalik egin zionik. Ziklo honetako gailurrari dagokion epealdian

¹⁶⁰ Manterolaren kantutegiaren pasarte honek donostiarraren proiektuaren hainbat zantzu eskaintzen ditu: garaiko kulturgileen motibazioaren argazki nahiko osotua (Erromantizismoak ekarritako basati onaren lilura, bertsolaritza piztu zuen interesa, sorkuntza honen estatusa igotzeko ahalegina, Lehen Euskal Pizkundean ahalegin honek izan zuen garrantzia... ikus daitezke bertan. Hona: “Nuestra poesía, hasta hoy meramente popular, hija de la sencilla inspiración de humildes rústicos que cantaban sin darse cuenta de ello, como cantan las aves, obedeciendo á una necesidad de la naturaleza, comienza á ser practicada con estudio, á ser cultivada por hombres de ilustración, peritos en el manejo de lenguas y literaturas estrañas, penetra ya en el campo de lo transcendente, y éste renacimiento, cuyos albores saludamos con inmensa satisfacción, no puede ocultarse á la vista de nadie que fije su atención en el desarrollo que empieza á adquirir el movimiento literario en la tierra euskara.” (1880: 8)

(1879-1900) hau da gaiaz gehien argitaratu zuten medioen hurrenkera: *Euskal-Erriak* 143 testu, *Eskualdunak* 28, *L'Avenirrek* 26, eta *Euskalzalek* 21.

Gazterik hilko zen Manterola, 1884ean, 35 urte bete gabe. Baina, ikus daitekeenez, martxan jarri zituen aldizkariak eta Donostiako Lore Jokoek bide oparoa egin zuten bera hil ondoren ere. Kazetaritza testuei dagokionean, ordea, kualitatiboki bai nabarituko da bere hutsunea: bapateko saioen kronikek nekez lortuko dute berriro ziklo honetan 1880ko hamarraldiaren lehen erdian erakusten zuten hedadura eta xehetasun maila.

4.5.4 Frontoitik antzokira, aipamenetik kronikara

Bertsolaritzaren ikur izaerarekin gertatu zen bezala, ikuskizun moderno gisa berregituratzeko ahaleginean ere jauzi kualitatibo bat emango da foruak galdu berri dituen Hegoaldearen bulkadarekin. Galera politikoak ekarritako erreakzio kulturalistak ordura arte objektu folkloriko gisa hautematen zena bereizgarri kultural moderno gisa aurkeztuko du:

“Au moment où un “tissu économique” façonne une identité sociale espagnole, il devient urgent de travailler (par compensation?) un “tissu culturel” qui cimenter une collectivité basque. Non pas un folklore basque, comme c’est le cas en Iparralde, mais une culture basque.” (Laborde, 1998: 613).

Instituzioak ere, egoerak akuilaturik, erreakzio horretan euren ekarpena egin nahiko dute. Campionen elkarteak Hegoaldean antolatutako lehen ekitaldia seinalatzen du Labordek :

“L’engagement littéraire de chacun devient une urgence absolue. Les autorités municipales l’ont bien compris. Et à Elizondo, le 28 juillet 1879, c’est dans les salons de l’Hôtel de Ville qu’est remis le prix du concours de poésie (...) Nous ne sommes plus en extérieur. Désormais, l’abri de l’institution municipale garantit l’excellence du concours: il est le gage de ce que nous sommes, de ce que l’euskara, plutôt, est bien entré en littérature.” (id.: 609)

Urte hartan bertan Donostian ere ospatu ziren Lore Joko batzuk eta erakundeen inplikazioa are zuzenagoa izan zen: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala izan ziren antolatzaile. Elizondon bertso-saioa Udaletxean egin bazen, erakunde hauek antzokira eramane nahi izan zuten: “Et voici les bertsulari convoqués au Théâtre principal comme Antoine d’Abbadie les convoque au fronton” (Laborde, 1998: 613).

Jada azaldu den gisan bat-batekoari kultura jasoaren maila eman nahi izan zitzaion, literatur genero bat balitz bezala eratu (Bidart, 1998: 275-276; Gabilondo, 2016: 193-193; Laborde, 1998: 607-616). Eta horretarako, ariketa nahiz balorazio irizpide sofistikuagoak ezartzeaz gain, saioaren birmoldaketa estetiko bat burutuko da. Mende hasierako desafioetan plazan egiten ziren saioak eta Abbadierekin frontoian, biak ere espazio irekiak, Ongek ahozkotasan primarioaren arrasto gisa aipatzen dituen Lincoln eta Douglasen arteko eztabaidak bezala (2016: 2015-2016). Ikuskizun modernoak, ordea, espazio itxia, publikoarekiko hartu eman formalagoa eta ikuslearen posizio zurrunago bat eskatzen zituen, Burkek azaltzen duen bezala kultura jaso popularrarengandik bereizteko sortu baitziren hasera batean ikuskizun hauek, gero formatua kultura popularraren fenomenoei ere aplikatu bazitzaion ere (1991: 377-385). Antzokira emango da, bada, bertsolaritza, eremu itxia delako batetik, eta frontoia ez bezala goi-kulturaren egoitzatzat hartzen delako bestetik. 1887an eskainiriko ikuskizunaren kartela azpimarratzen du Labordek egindako bidearen adierazle gisa:

“En 1887, le programme des rencontres du 26 décembre au Théâtre principal de Saint-Sébastien est saisissant:

Représentation théâtrale de Gabon, de Marc de Soroa . Récital de piano. Groupe choral. Lecture d'une poésie basque. Représentation de Karmen gaztaiñsaltzallia, de V. Iraola. Concours de joueurs de tambours. Rencontre de bertsulari.

Et voici la confirmation: ici, l'improvisation orale prend place aux côtés du théâtre, de la poésie, du récital, de l'opéra, comme l'un des genres littéraires d'une culture basque à faire valoir. Ici, il ne s'agit plus ici de lui faire côtoyer faucheurs de blé et pilotari. Elle doit participer à la construction d'une excellence littéraire." (Laborde, 1998: 613)

Lapurarrak eskaintzen duen adibideak jasotzen ez duen beste alderdi batean ere nabari daiteke bertsolaritzak jende jantziaren begietara eman zuen jauzi kualitatiboa. Abbadierekin programa zabalago baten baitako elementu gisa, pilota edo herri-kirolen osagarri gisa eskaintzen zen bitartean Hegoaldeko Lore Jokoetako kroniketan ikus daitekeenez ikuskizun autonomo gisa eskainiko da geroz eta gehiago: aparte batean antolatuko da bertso-saioa, antzezlan batekin edo piano kontzertu batekin egin daitekeen bezala, sarrerak salduaz.

Honek ez du esan nahi, noski, 1880ko hamarkadatik aurrerako Lore Jokoetako bertso-saio guztiak ikuskizun autonomo gisa edo antzokiren batean ospatzen zirenik. Eta are gutxiago, Labordek seinalatzen duen bidea jarraituz garaiko bertso-saio guztiak plazatik frontoira eta frontoitik antzokira lekualdatu zirenik. Joera berri bati egiten zaio erreferentzia, hain zuzen Lehen Pizkundeko lehen olatuko *intelligentsiak* bertsolaritzari ireki nahi izan zion bideari. Zavalak egiten du ñabardura egokia:

"El lugar desde donde cantaban solía ser el más digno de la población: los balcones de las Casa Consistorial o el escenario de algún teatro, si bien esto raras veces, porque ¿cuántas salas que merecieran tal título habría entonces en el país?" (1996c: 209)

Eredu berriak, ordea, egoitzarena aldaketarena baino moldaketa sakonagoa zekarren: Gai jartzaileren presentzia, saioa partekatzen zuen bertsolari kopuru altuagoa, elkarren kontra baino ikuslegoari begira bideraturiko jarduna, mamia eta formaren arteko bereizketa, epaimahaiaren garrantzia eta kulturgileen eragiletza aipatzen ditu Esnalek (Esnal, Egaña eta Sarasua, 2002: 809). Eta eredu honek saio handienetarako behintzat izan zuen arrakastaren adierazgarri, Zavalak desagertuzat ematen du aurreko eredu, desafioena, 1880ko hamarralditik aurrera: "Los desafíos concluyen con la segunda guerra carlista. Después de ésta no se estila, que sepa yo al menos, el desafío con la elección de jueces, con las onzas de oro depositadas por ambas partes, con el tiempo predeterminado ..." (1996C: 167)

Eredu berria loratzearekin bat loratzen da bapateko bertsolaritzaren inguruko arreta mediatikoa. Bertsolaritza ukitzen duten testu zaharragoak, ikusi den bezala, mendearen hirugarren hamarkadatik aurrera topa daitezke. Etxahun, Iparragirre edo Bilintx protagonistatzat dauzkan testu sorta bildu ahal izan da, esaterako, baina bertsolaritza nahikoa bazterreko kontua da berauetan eta bapateko jardunari ez diote erreferentziarik egiten. Bertsolaritza protagonistatzat duten ikerlarien testuak ere jaso ahal izan dira, baina nozio orokorrak ematen dira eurretan, saio konkretuen inguruko berririk ez. Edota bidaiarien testuetan, bai aurki daitezke bertatik bertara jasotako saioen deskribapen labur batzuk, baina bertsolarien izenen edo jorrraturiko gai zehatzen berririk eman gabe. Artean ikuskizun moderno gisa egituratu gabe zegoen bertsolaritza eta, ondorioz, kazetari lanetan ari zenari ez zitzaion burutik pasatzen bertso-saioen kronikariek eskaintzea.

Abbadiek Iparraldean Jokoak martxan jartzean ere, bat-batekoaren irabazleari pilota partidaren edo idatzizko lehiaketaren irabazleari baino askoz ere sari txikiagoa eskaintzen zitzaion. Berandura arte emango da idatzizko hegemonia adierazten duen hierarkizazio hori gainera (Bidart 1998: 275; Laborde, 1998: 217; Toledo, 1998: 542). Era berean garaiko prentsako testuak pilota partida edota idatzizko lehiaketaren inguruan luzatzen ziren, bat-batekoari buruzkoak aipamen soilean utziaz: “Jusqu’au seuil des années 1890, les comptes rendus des fêtes parlent peu des concours d’improvisation. La remise du prix de poésie et les parties de pelote concentrent toute l’attention des chroniqueurs” (Laborde, 1998: 614)

Hegoaldean, ordea, lehen kronikak 80ko hamarkadatik aurrera azalduko dira, hain zuzen ere bat-batekoa antzokira eramaten denean, eta bi fenomenoak elkarri lotuta daudela ondoriozta daiteke, alegia, kronika horiek jendartea bat-batekoa ikuskizun moderno gisa hautematen hasia zenaren markatzat hartu.

Kronika hauek 1880ko hamarraldiaren lehen erdian izango dute euren gailurra Euskal-Erria aldizkarian eta sinadura nagusi Manterola dutela. Gerora, laburragoak eta bakanagoak izango dira, baina ez diote tarteka agertzeari utziko.

Iparraldeko prentsan, bestalde, zerbait berantiarra izango da bilakaera hau. *Eskualdunaren* agerpenarekin (1887) eta *L’Avenir* egunkari errepublikazaleak Guilbeuren taldeak 1893tik 1897ra antolaturiko Lore Joko paraleloei eskainiriko estaldurarekin, bat-batekoari geroz eta arreta handiagoa eskainiko dioten testuak agertuko dira. Izatez, *L’Avenir*ren urte haietako kroniken errepaso eginez azaltzen du Labordek (1998) prentsak bertso-saioaren ikuskera modernoaren eraikuntzan bete zuen papera.

Gailur berriak, bada, frontoitik antzokira ez ezik aipamen soiletik kronikara ere eramango du bat-bateko bertsolaritza.

4.5.5 Bertsolaritza euskarazko kazetaritzaren lehen pausuetan

Orain arte aipatu diren prentsako testurik gehienak frantsesez edo gazteleraz idatzirikoak dira. Izan ere, euskarazko kazetaritzaren hastapenak, nekezak eta berantiarak¹⁶¹ izango dira.

Javier Díaz Nocik (1995 eta 2012) gaiari buruzko ikerketaren abiapuntua euskal almanaketan jartzen du. Askotariko informazioaz hornitzen diren egutegiak lirake hauek, bere hitzetan protokazetaritza egiten duten inprentako lehen lanak.

Egunare eusquerascoa erderascotic itzuliya Vizcaya, Guipuzcoa ta Arabaco probintziaentzat 1815garren urterako da aitzindari gisa aipatzen duena. Egilea Jose Paulo Ulibarri arabarra da. Jatorri xumekoa izan arren, Abandoko ferratzaile gisa atera zuen bizimodua, Bizkaiko Batzar Nagusietarako hiru aldiz izan zen hautatua eta Euskaltzaindia gisako zerbaiten antolaketa proposatzen lehena bera dugu. Joxe Azurmendik beste datu esanguratsu bat gehitzen dio biografari: “Nafarroa (Bordel: 1792-1879) eta Araba (J. P. Ulibarri: 1775-1847) geroago agertzen dira bertsolaritzaren historian besteak baino. Ulibarrik bi eta lau puntuko

¹⁶¹ Díaz Nociren arabera (1995) Huarte anaiek 1686an Donostian martxan jarritako *Noticias Principales y Verdaderas* izan zen Euskal Herrian argitaraturiko lehen kazeta. Lehen kazeta modernoa, aldiz, Napoleon Bonaparteren aginduz 1805ean ireki zen *Gazeta de Comercio, Literatura y Política de Bayona de Francia* delakoa. Biak erdaraz argitaratu ziren, nahiz eta lehenengoaren sortzaileak euskaldunak izan (Otermin, 2005: 343), eta bigarrenaren hizkuntza hautua elebiduna (frantsesez eta gazteleraz mintzatzen zen Baionatik).

bertsoak egiten ditu” (1980: 143). Alegia, euren lehen pausoen bertan gurutzatzen dira euskarazko kazetaritzaren eta bertsolaritzaren historiak¹⁶².

Egunare eusquerascoak berak egilearen biografia bezain istorio kontagarria dauka atzetik. Ulibarriren *Gutunliburuan* dago jaso: Lehen kazeta liberalen garaia zen eta euskaraz ezin zela ezer editatu tematu zitzaion erdaldun bat, “ezta egutegi bat ere”. Apustua egin zuten: Ulibarririk zortzi egunetan egutegia ateratzen bazuen berak ordainduko omen zizkion inprintako gastuak. Ulibarririk atera zuen almanaka baina ‘lagunak’ ez zuen bere hitza bete.

Ulibarririk ez zion jarraipenik emango bere almanakari, baina gerora, mendearen bigarren erdian Iparraldean tradizio bihurtu ziren *Xuriek* eta *Gorriek* argitaratutakoak.

Azaldu den gisan liberalek Lehen Gerrate Karlistan *El Correo del Norte* egunkarian 1834an prentsako euskarazko lehen testua argitaratu ondotik, euskara hutsezko lehen aldizkariarekin emango da hurrengo urratsa. Agosti Chaho izango da berriro bidegile, 1848an argitaraturiko *Uskal-Herriko Gazetarekin*. Frantziako Bigarren Errepublika ekarri zuen 1848ko otsaileko iraultzaren bulkada sozialaren baitan, Iparraldeko euskal hiztunen artean Parisko Ganberarako bere hautagaitzaren kanpaina egiteko kaleratu zuen aldizkaria Chahok¹⁶³.

Aldizkari honetan ere egiten dio bertsoari tartetxo bat Atharratzekoak. Bigarren zenbakiaren (1848/VII/25) hirugarren orrialdean, ‘Franciaco berriac’ izeneko testuan eztabaidan ari da herrialdeak bizi duen gosetearen inguruan. Apaiz batek beste argitalpen batean gaiaren harira bere kontra esandakoei erantzuten die, eta bertso batekin bukatzen du erantzuna: “Haüche da pobriaren antifona, aphecetaz mintço denian: ‘Laborariac yaten badu/ Chardin begui gorria./ Artho elkhor, pitar minkhor,/ Barne erregarria;/ Apecetariac adituren-du:/ Deboch hondagarria!/ Berac nola bici-diren/ Eman gabe guardia. (Amen)’”

Beraz, bertsoak bere presentzia izango du euskara hutsezko lehen aldizkarian ere.

Euskara hutsez eta jarraitasun batekin Euskal Herrian argitaratuko diren lehen argitalpenak Lore Jokoen zikloaren gailur honen azken hondarrean sortuko dira: *Euskalzale* (1897-1899) eta *Ibaizabal* (1902-1903). Biak gero Euskaltzaindiako lehen lehendakari izango zen Resurrección Maria Azkuek zuzendu zituen, biak Bilboko Euskal Herria Elkarteak argitaratu eta biak Aldundiaren debeku eta isunengatik itxi ziren. Díaz Nociren arabera ‘euskarazko lehen aldizkari modernua’ (1995: 91) da *Euskalzale*, *Ibaizabalek* ‘hasiera ematen dio geroagoko euskal aldizkari ia guztietan errepikatuko den informazio mota oso garrantzitsu bati, herrietako informazioari’ (1995: 102), eta biek euskarazko kazetaritzaren lehen mugarri garrantzitsua markatuko dute (Díaz Noci, 1995; Kintana, 2005). Mugarri horretan ere presente egongo da bertsolaritza, nagusiki bertso-jarrien lehiaketekin eta bertso hauek eragindako polemikarekin eta Fernando Amezketarraren inguruko pasadizoekin¹⁶⁴.

Euskaraz irakurtzen zuen irakurle goa bere hizkuntzan alfabetatu gabea zen, irakurle go horren zati handi bat nekazal mundukoa zen gainera, kultur maila apal batekoa, eta ondorioz,

¹⁶² Egun bat-batean aritzen dena hartzen da bertsolaritzat eta Ulibarririk buruz ez da horrelakorik adierazten duen erreferentziarik topatu. Bertso-jartzaitzat har daiteke, ordea, *Gutunliburuan* idatzitako bertsoengatik.

¹⁶³ Ordura arte hiri giroan erdaraz idazten duen ilustratuak, liberal burgesak batzuk eta errepublikazale ezkertiarak bestea, nekazarien beharra izango du polarizazio handieneko uneetan, eta hauek euskal elebakarrak direnez, euskaraz idazteari ekin behar. Ezberdintasunak, ordea, nabariak dira kasu batetik bestera: Karlistadetan liberalek euskarazko testua errendizioa eskatzeko baliatzen zuten bitartean, 1848ko Iraultzaren ondorenetan Chahok eskatzen zuena bozka baitzen.

¹⁶⁴ Euskal Herritik kanpo, Estatu Batuetan argitaratuak, baina euskara hutsezko astekariak baita, zerbait zaharragoak *Escualdun Gazeta* (1885-1886) eta *California-ko Eskual Herria* (1893-1897). Hauetan ere aurki daitezke bertso-jarriak.

hizkuntza honetan eskaintzen zaizkien testuak ‘bigunagoak’ izango dira gehienez. Bi astekari hauek eta nagusiki erderaz aritu arren euskarari tarte bat egingo dioten argitalpen elebidun geroz eta ugariagoek euskaraz alfabetatu gabe zegoen irakurle bati zuzentzen zitzaizkion eta pasadizo, ateraldi, txiste, bertso, ipuin labur eta gisako testu ugari eskaintzen zaizkie, irakurketa erraztu asmoz.

Bertsolarien ateraldi eta pasadizoez lur emankorra topatuko dute inguru honetan, eta mende bukaerarako genero bereizi gisa funtzionatzen dute. Esanguratsua suertatzen da, euskara alor honetan bakarrik nagusitu izana: topatu diren gisako 67 testuetatik 61 euskaraz argitaratu ziren, testu jasoagoetan, iritzi artikulua, esaterako, proportzioa alderantzizkoa den bitartean.

4.5.6 Fernando Amezketarraren arrakasta: (1884-)

Komentatu da Iztuetaren 1824eko lanean jada topatu zitekeela Fernando Amezketarraren ateraldi bat, eta prentsan topatu den bertsolari baten pasadizo zaharrena ere bertsolari honi dagokio: 1884ko *Euskal-Erria* aldizkariaren bigarren zenbakian ‘Neguko arratsetan su ondoan kontu-kontari/Erantzua egokiya’ izenburupean eta sinadurarik gabe argitaratua.

Gutxira, aldizkari berean, 1885eko lehen zenbakian, Fernandoren bigarren ateraldiarekin batera Izuelako Artzaiaen bi eta Bilintxi buruzko ateraldi bat argitaratu ziren. Guztiak ere ‘Neguko arratsetan su ondoan kontu-kontari’ izenburu orokor berarekin eta sinadurarik gabe, Fernandorena izan ezik. Klaudio Otaegik sinatzen zuen hau, euskarazko lehen bertso kronikaren egileak, eta, frogatzeko modurik ez dagoen arren, guztiak ere zenbaki berean eta izenburu nagusi berdinarekin agertzen direnez, izan liteke guztien egilea bera izatea.

Izuelako Artzaia ez da gehiago agertuko puska batean, baina Bilintxi eta batez ere Fernando Amezketarri buruzkoak asko argitaratuko zen handik aurrera.

Bilintxen ingurukoak *La Voz de Guipúzcoa*, *Euskal-Erria*, *Euskalzal* eta *Baserritarran* argitaratzen dira, eta sinadura bat nabarmentzen da guztien gaineratik: Jose Artola¹⁶⁵. 1899ko ekainaren 22ko *Euskalzal*en zenbakian azaltzen du bere asmoa: “Bilintsen itz-neurtuak ispilutzat bezela argitaratuak dira geienak, baiñan bere aotik-aorako esaerak ilunpean egon diralako, eta erbestetarrak beren semeen kondaira, lan ateraldi eta beste doiak gauza aundiztat zabaltzen dituzten antzera (...) azaldu bear ginuzkeala derizkiot (...)”.

Bilintxen bizitza euskal gaiek bertako prentsan bizi izan zuten loraldiaren garaikidea da kasik. Bere ateraldiak argitaratu aurretik hainbat omenaldi publiko egina zitzaion eta bertatik bertara ezagutu zuten hainbat idazle eta kazetarik hainbat testu argitaratua zuen berari buruz. Bere mitoaren garapenak izandako ibilbidea medioetan behatu daiteke neurri handi batean. Fernando Amezketarraren ospeak egindako bidea, aldiz, guztiz bestelakoa da izango da. Prentsan bere lehen ateraldia argitaratu zenerako 60 urtetik gora zeramatzan hila eta bitarte guzti horretan medioetan ez zen berari buruzko testu bakar bat ere idatzi, etzeukan berari eskainitako rapsodiarik edo mausoleorik.

Amezketarraren ospeak, ordea, bere bizitzan zehar kazetaririk ezagutu ez zuenez, herritarren gogoan ahoz ahoz eta belaunaldiz belaunaldi transmititurikoa, ez zion inbidiarik Bilintxenari. Honela zioen Jose Manterolak bere kantutegian, Iztuetaren aipamenaren ondoren etorri zen 54 urteko isiltasuna hautsiz:

¹⁶⁵ *Euskalzal*en 1899/VI/22: 199 orrialdean, 1899/VI/29: 208 orrialdean, 1899/VII/06, 215 orrialdean eta 1899/VIII/17: 264 or, lauak ‘Indalecio Bizcarrondo-ren esaeratik moldatutako izkirimiriak’ izenburuarekin. Eta *Baserritarra* aldizkarian 1907/V/25 eta 1907/VI/22, biak ‘Indalecio Bizcarrondo (Bilintx)’ izenburupean.

“Entre los coblacaris ó improvisadores populares que han dejado grata memoria en Guipúzcoa cuéntanse el famoso Rector de Amezqueta (...) y Fernando Amezquetarra. Refiérense de ellos un sin número de chistes agudos y de versos improvisados en el calor de la conversación, algunos de los cuales transmitidos de boca en boca por la tradición, y más ó menos alterados en su forma, se conservan todavía en la memoria por gran número de personas.” (1878, II liburukia: 83-84; Otermin, 2014)

Esan bezala garaiko euskarazko kazetaritzak askotan erabiltzen zuen baliabide bat zen pasadizo eta ateraldiena, eta bertsolarien inguruko kontakizuna baino askoz ere zabalagoa zen generoa. Anton Gezurti, Machin mungiarra, Anton Kaiku, Pachi Cherren, Don Kandelero, Astokilo... asko ziren, asmatuak edo benetakoak, istoria hauetan errepikatzen ziren izenak eta guztiek pertsonaia bizizale, alproja eta erantzun bizkorrekoaren arketipoa betetzen zuten. Fernando Amezketarrak, ordea, beste dimentsio bat hartuko zuen.

Jada 1878rako Buenos Aireseko *Laurac Bat* aldizkarian berari buruzko Iturriagaren bertso batzuk aurki daitezke, Javier Díaz Nociren arabera aldizkari hartan euskaraz argitaratu zen testu bakarra (1995: 39). Jarraian *Euskal-Erria*, *Euskalzale*, *Ibaizabal*... Bilintxen ateraldiak argitaratzen dituzten medio beretsuetan topatuko ditugu Fernandorenak, baina ugariago eta sinadura anitzagoekin: Patrizio Orkaiztegi *Oiparena*¹⁶⁶, Baleriano Mokoroa, Enrike Elizetxea, Errazkin, Jose Ramon Jauregi, *Aokoze*... Hainbat hamarkadatan herri xehearen gogoan gorde zenak, garaiko kultur gizonen interes bizia piztu zuen. Garaiko euskal olerkaririk ezagunenak, Felipe Arrese Beitiak, edo Pedro Mari Otaño bezalako puntako bertsolari batek ere idatzi zuten amezketarraren inguruan¹⁶⁷. Eta 1901ean, Pablo Gorosabelen ‘Noticia de las Cosas Memorables de Guipúzcoa’n Iztuetak Villabonako desafioaz esandakoak osatuz Fernandoren izen osoa argitu zen: Fernando Bengoetxea Altuna.

Manterolak aipatu bezala literatura txikitzat har daitezkeen ateraldi hauek literatura handira ere egingo dute jauzi, Espainian arrakasta handia izango duen lan batekin gainera, Pio Barojak 1908an ‘Zalacaín el aventurero’ eleberria argitaratzean¹⁶⁸. Bigarren liburukiaren VIII. kapituluak ‘Varías anécdotas de Fernando de Amezqueta y llegada a Estella’ darama izenburutzat eta protagonistek Amezketako taberna batean baserritar bati entzundakoak jasotzen ditu:

“Rieron Martín y Bautista (...) — Yo no sé contar nada --dijo varias veces--. ¡Si estuviera "Pernando"!

— ¿Y quién era "Pernando"? --preguntó Martín (...) — ¡Ah! Pues era el hombre más gracioso de toda esta provincia. ¡Las cosas que contaba aquel hombre!

¹⁶⁶ Joxe Mari Oterminen arabera Patrizio Orkaiztegi izan zen Amezketako bertsolariarekiko jende jantziaren interesari bultzada erabakiorra eman ziona, Fernandoren kontuak sistematikoki bildu eta argitaratuz (2014: 43-49).

¹⁶⁷ Arrese Beitiak *Euskal-Erria* aldizkariaren 1893ko bigarren zenbakian argitaraturiko ‘Chomiñ eta Premiñ trabenan bertsoan’ bertso sortan aipatzen du. Otaño urte bereko lehen zenbakian ‘Perrando Amezketarra’ izeneko bertso sorta eskainiko dio, eta 1900ean *La Basconia* astekariaren 247. zenbakian bere ateraldi bat kontatu.

¹⁶⁸ *Tierras Vascas* trilogiaren hirugarrena izan zen hau ‘La casa de Aitzgorri’ (1900) eta ‘El mayorazgo de Labraz’-en (1903) ondotik. Hiruetatik arrakastatsuena izan zen ‘Zalacaín el aventurero’, egun XX. mendeko espainiar literaturaren klasikitatzat hartzen da eta bi filme egin ziren eleberria oinarritzat hartuz, honen izenburu berberarekin. Lehenengoak, filma mutua, 1929an estreinatua, Francisco Camacho izan zuen zuzendari. Bigarrena, Juan de Orduñak zuzendu zuen eta 1955ean estreinatu zen. Ez da Amezketako kapitulua agertzen ez batean eta ez bestean.

Martín y Bautista le instaron para que contara alguna historia de Fernando de Amezqueta, pero el campesino se resistía, porque aseguraba que oírle a él contar estas chuscadas no daba más que una pálida idea de las salidas de Fernando. Sin embargo, a instancias de los dos, el campesino contó esta anécdota (...)

Lehenengoa, apaizaren etxeko amuarrainarena, izugarri gustatu eta beste bat kontatzeko eskatzen diote, eta honen ondotik hirugarren bat. Luze kontatzen dira, orrialdeak hartuaz.

Fernandori egozten zitzaizkion zenbait pasadizo eta ateraldi ahoz ahoko eta belaunaldiko transmisioak zerbait itxuragabetu izana litekeena zela zioen Manterolak, eta Oterminen ustez zalantzan jarri beharrekoa da egozten zaizkion guztiak bereak izatea ere: “Fernandoren ateraldi eta bertsoetan zeintzuk dira bereak, propioak, eta zeintzuk berari eransten zaizkionak?”¹⁶⁹ (2014: 211). Edozein modutara, Amezketarrari buruzko istorioak pilatuz doaz eta bilduma lanak hasten dira, lehenengoa almanaka batean. Honela azaltzen du *Euskal-Erria* aldizkariak:

“(...) ha publicado la misma Casa editorial [Tolosako Eusebio Lópezen argitaletxea], el Almanaque de bolsillo para 1911, digna continuación del que con general aplauso publicó el año pasado (...) Además del calendario, contiene este librito una colección de preciosísimos cuentos, entre los que, como era de esperar, figuran unas cuantas salidas (de las más escogidas), del indispensable Fernando Amezketarra.”

Agerikoa da XX. mende hasierarako Fernandoren ateraldiek irakurgai gisa arrakasta garrantzitsua lortu zutela, eta istorio ugari zebiltzala bueltaka. Liburu gisa osaturiko lehen bilduman, Gregorio Mujikak ‘Fernando Amezketarra’ izenburuarekin 1925ean argitaratua, 64 testu jaso ziren. 1927an atera zen liburu beraren bigarren edizioa. Fernando Amezketarra bertsolari txitxar bizizale eta zirtolariaren izpiritua ordezkarri gorenarekin bihurtua zen.

4.5.7 Pedro Mari Otaño, ahoz baino, idatziz (1857-1910)

Zikloaren oinarrian bertsolari esanguratsuenak eta oihartzun mediatiko handiena lortu zutenak Jose Mari Iparragirre eta Indalezio Bizkarrondo *Bilintx* izan baziren, gailurrean Pedro Mari Otaño zizurkildarra izango zen gehien nabarmentzen dena.

Bertsolari leinu bateko hirugarren belaunaldikoa zen Otaño. Aitona Pedro Mari *Errekalde Zaharra* eta osaba Joxe Bernardo, garaiko kroniketan puntakoenen artean ageri dena, ziren sona gehien zutenak, baina bertsolari gehiago ere bazuten etxean: “Bertsotan asko zekitenak baitziren Errekaldeko gehienak. Aitona, Pello Mari, Errekalde Zaharra alegia, bertsolaria. Aita, Joan Pello, ere bai. Osaba Joxe Bernardo, zer esanik ez. Baita Bernardo anaia, Mikela amona eta Mikela arreba ere” (Hernandorena Kultur Elkarte, 2010: 93)¹⁷⁰. 1862an Errekalde baseritik Karidadeko Bentara aldatu dira gurasoak seme-alabekin, eta bertan egingo du haurtzaroa bertsolariak, 1873an familia Donostiara aldatu artean. Garaiko bertsolaritzaren bilgune garrantzitsu bat izan zen taberna hau (HKE, 2010: 99; Zavala, 1993a: 157-163) eta bertan izan zuen trebatzen hasteko aukera. Pello Errotaren bertso famatuak erakusten du etxean izaten zituzten gonbidatuen maila: “Karidadeko Bentan/ gu sei bertsolari:/ Errekalde

¹⁶⁹ Gehiago esatera ere ausartu zen 2014/VIII/29 datarekin ‘Un homenaje musical a Fernando Amezketarra’ izenburupean *Gara* egunkarian argitaraturiko erreportajea: “Se le han colocado a Fernando tantas historias surrealistas, cuando no absolutamente locas (...) A finales del siglo XIX y principios del XX, intelectuales con mucho sentido del humor como el Padre Orkolaga, Resurrección María de Azkue, el párroco de Tolosa o Serapio Múgica fueron recogiendo historias y anécdotas fantásticas procedentes de toda Europa y se las aplicaron a Fernando, que se convirtió así en un personaje humorístico”.

¹⁷⁰ Aurrerantzean HKE.

zaharra ta/ Juan Joxe Udarregi,/ Bernardo Zizurkilgo,/ Gazteluko Gorri,/ Errenteriakua/Xenpelar jaun hori, / ni Astiasukoa/ Pello Errotari”.

Otañoren biografiako lehen lerroak lauso samarrak dira. Ikasketen inguruan oinarrizko hezkuntza bakarrik jaso zuela suposatzen da, eta Zizurkil edo Villabonako eskolan izan zela, eta Argentinara lehen aldiz joan zenean (1875-1879) soldaduska zela medio Bigarren Gerrate Karlistan ez parte hartzeagatik egin zuela. Bigarren egonaldi bat ere badago Argentinan joaneko data zehaztu gabea eta itzulerakoa 1890ean daukana eta tartean Donostian tabernari gisa lan egin zuela ere ezagutzen da.

Garai hartan bapatean aritzen zela ere jasotzen du Zavalak (1993a: 223-233) baina ahots ahulekoa zenez ez zela plazan aritzen lagunartean baizik: Pedro Mari Otaño eztarri txarrekoa omen zan (...) Orregatik, *Katarro* edo *Kattarro* esaten omen zioten gaitz-izenez. Orrek galerazi zion plazetan kantatzea (...) kanturako bideak itxita zeuzkan ezker, idazteari ekin zion, eta orduko eta geroko euskaldunentzat altxor bat utzi” (1993a: 223)¹⁷¹.

Argentinako bigarren egonalditik itzuli berritan ageri zaigu lehen aldiz prentsan, *Euskal-Erria* aldizkariaren 1891ko lehen sei hilekoko zenbakian argitaraturiko ‘Amets bat’ izeneko bertso sortarekin. Bertan aldizkariari propaganda egiteaz gain leku bat eskatuko du honen orrialdeetan: “Diyozun aña maite badezu/ zartu dan Ama Euskera,/ billa ezazu Euskal-Erria/ izendatzen dan papera;/ ura da nere bizi-lekuba,/ ez det nai andik atera;/ seme leialak an biltzen zaizkit,/ joan zaitez aien artera” (*Euskal-Erria*, 1891 urtarrila: 229-237). Baita lortu ere, hurrengo urteetan ohiko bat bihurtuko baitira aldizkarian bere bertso-jarriak.

Honela, bertso-paperetatik pasa gabe zuzenean prentsan argitaratzeari ekingo dion lehen bertsolaria izango da Otaño:

“Bertsolaririk geienak, garai artakoak batez ere, bertso-paperetan zabaltzen zituzten beren bertsoak. Otañok, berriz, ortik batere pasa gabe, bat-batean aldizkarietan sartzen da. Artean, edozein bertsolari bezela izan zan. Emendik aurrera, naiz eta bertsolari-kutsua iñoiz ere ez galdu, garai artako olerkari edo itz-neurtzailleen bideak probatzen asiko da.” (Zavala, 1993a: 349)

1890eko hamarraldiko Lore Jokoetan parte hartu eta hainbat sari irabaziko ditu, eta geroz eta ospe handiagoa irabaziko du, plazatik beharrean bertso-jarrien bidez: “Lore-jokoak direla-ta, ezagutza eta izen publiko bat bereganatzen ditu poesi alorrean. Otaño, sariak jasotzerakoan, kantatua izan zen jendaurrean; eta bere leienda-poemak irakurriak ere izan ziren, hala nola Donostian, Arrasaten, Oiartzunen. Ezagutza eta izen publiko bat irabazi zituen entzule haietan” (Lekuona, 1998: 534). Aldi berean, harreman estua egingo du Donostiako aldizkariaren eta Lore Jokoen inguruan mugitzen zen kazetari eta sortzaileen taldeko hainbat kiderekin: Antonio Arzak zuzendaria, Franzisko Lopez-Alen hurrengo zuzendaria izango zena, Ramon Artola, Emeterio Arrese, Bitoriano Iraola eta beste (HKE, 2010: 115-116; Lekuona, 1998: 528-529).

Bat-batekoa idatziari gerturatzeko ahalegina egiten den garai berean bien arteko hibridazioa gauzatzen duen bertsolaria agertzen da: “Familiatik eta herritik zekarren bertsokera hiri

¹⁷¹ Bat-batekoan ere aritzen zela berresteko Otaño berak idatzita utziriko oroitzapenez gain Emeterio Arresek prentsan argitaraturiko testua aipatzen du Zavalak: *Euskal-Esnalea*, 1931ko abuztua, 155or., ‘Olerki-loretegi/Pello Mari Otaño’. Otaño bizirik zela bere saio baten berri ematen duen testua ere topatu ahal izan da ikerketarako eginiko bilketan: *La Baskonia*, 1904/XII/20, 129 or., ‘Notas locales/Fiesta baska’. Honela dio testuak: “Después de un almuerzo verdaderamente opíparo y servido en forma tan irreprochable como en la principal casa de Buenos Aires, no hubo por suerte brindis en estilos más o menos lateros, pero en cambio se inició una sesión de bersolaris que dio á la fiesta una animación extraordinaria (...) Los principales contendientes eran Pello Mari y Shantos, y no es para descrito el entusiasmo que a veces provocaban. Tocaron varios temas y todos ellos los trataron con altura. Abstraídos en tal ambiente, nos olvidamos de nuestra misión periodística y se nos pasó por alto el copiar alguna de aquellas primicias surgidas en rápidos chizpazos de inspiración”.

nagusiko joera berriagoetan txertatzen da, honetan mamituz, lore-jokoen inguru-minguruan” (Lekuona, 1998: 531). Ahozkoan bezainbat idatzian, bietan funtzionatzea lortzen du:

“Otañoren bertso gintza, kantagarria den hura, ahozko zirkuituan sartzen da, bertsozaleek buruz ikasi eta kantatzen dutelako. Baina badu beste bertso gintza bat kantatzeko ez dena, eta idatziaren munduan geratzen dena, kidekotasan bat agertuz estilo idatziarekin. Erakusten du antzeko gustamolde bat, orduan idazten eta dastatzen diren eleketekin; antzeko onarpena grafiarekiko eta honek dakarren ziurtasunerako; antzeko berrikuntz nahia poesi tekniketarako (...).” (id.: 531)

Bere bertso onekin liburu argitaratu zen ‘Zerbait’ izenburupean 1895ean, kritika positiboak izan zituelarik¹⁷², diruz larri zebilenaren zurrumurrua zabaldu zenean Aldundia bertso biltzaile bezala lanpostu bat eskaintzekotan ere ibili zen, baina urte gutxitan pilaturiko ospea benetan agerian utzi zuena Argentinarako hirugarren eta azken egonaldiako irteera izan zen. Iparragirreraren itzulerarekin gertatu bezala prentsaren bidez bideratzen da Otañoren joanekoa. Euzkerazko Itz-Jostaldien Batzarreko lagunek diru bilketa antolatu zuten eta laguntza deia egunero argitaratu zen *La Voz de Guipúzcoa* 1898ko urtarrilaren 4tik 21era. Irten bezperatik hasi ziren omenaldiak: “Argentinara joan bezperako gauean Loiola kaleko 10ean lo egin zuen, han bizi baitziren aita eta Bernardo anaiaren familiakoak. Donostiako Orfeoia gaueko hamar eta erdietan joaldi bat oparitu zion. Saioa amaitzean, kalera jaitsi eta emozioz blai hiru bertso eskaini omen zizkien” (HKE, 2010: 117). Eta irteerak gertakari historikoaren zantzuak hartu zituen: “Su salida del puerto de Pasajes congregó a más de cuatromil personas” (Aizpuru, 2000: 66)¹⁷³. Aurreko egunetan hainbat lagunek (Arrese, Zapirain, Sanchez-Irure eta beste) euren bertsoak eskaini zizkioten *La Voz de Guipúzcoa* eta egunean bertan Txirritak bertsoan agurtu zuen (Zavala, 1993a: 253). Argentinan aurkezteko gomendio gutunak ere helarazi zizkioten:

“Otaño no era un don nadie en su época. El día en que se embarcó en el *Còrsica*, llevaba en su bolsillo dos cartas de recomendación (...) La primera era la del Consistorio de Juegos Florales (...) La segunda (...) era la de la Sociedad Unión Artesana, de San Sebastián (...) había compuesto también la letra de una obra para el Orfeón Donostiarra: ‘Lartaun’, y fue nombrado socio honorario del Orfeón (...)” (Garzia, 2000a: 409-410)

Biharamunean, 1898ko urtarrilaren 27an bertsolariaren ohar laburra zekarren *La Voz de Guipúzcoa*: “Agur. ¡¡Eskerrik asko!!”.

Argentinan egin zuen azken egonaldi horretan lortu zuen Otañok oihartzun mediatikorik gehien. 1900ean ‘Artzai mutilla’ opera idatzi zuen Felix Ortiz de San Pelayo azpeitiarraren musikarekin Buenos Aireseko Victoria antzokian estreinaldi arrakastatsua izan zuelarik, 1904ean ‘Alkar’ bertso liburu argitaratu zuen, eta 1904tik 1906ra Laurak-Bat elkarteak antolatu eta finantzaturiko euskarazko klaseak eman zituen hiri berean. Bai operak, bai liburuak eta bai euskarazko eskolek Buenos Aireseko *La Baskonia* aldizkariaren erabateko sustengua izan zuten, guztira 35 testu eskainiko zizkielarik. Operak Argentinako nahiz nazioarteko hainbat medioetan ere izan zuen oihartzunik: *La Prensa*, *La Nación*, *La Tribuna*, *Caras y Caretas*, *Ilustración Sud Americana*, *La France...* Euskarazko opera bat izanik ez dago gaizki. Euskal Herriko medioetan ere aipatu zen (*El Correo de Guipúzcoa* eta *Euskal-Erria*), baita ‘Alkar’ liburu ere (*Euskal-Erria*).

¹⁷² *La Voz de Guipúzcoa*, 1895/VII/20, ‘Un libro nuevo’, Eugenio Gabilondo *Calei-Cale*.

¹⁷³ Garaiko transformazio ideologikoen ere bete betean harrapatu zuten bertsolaria eta Mikel Aizpuruk (2000: 66-68) zizurkildarraren bertsoak baliatzen prozesu horren erakusgarri bezala: errepublikazaletasun liberaletik abertzaletasunerako bidea egin zuen Otañok.

Iparragirrekin gertatu bezala zizurkildarrari ere itzultzen laguntzeko deiren bat egin zen prentsaren bidez, baina ez zen ezertara iritsi¹⁷⁴. Hala ere bertsolariak idatziriko sorta berriak etengabe argitaratuko dira ozeanoaz alde honetan, eta baita ipuin laburren bat ere¹⁷⁵. Otañok ez du Euskal Herriko aldizkarietako komunikazioa etengo, bada, baina, esan bezala, Buenos Aireseko *La Baskonia* izango du babes mediatiko nagusia. Jose Rufo Uriarte eta Francisco Grandmontagnek sorturiko aldizkaria (1893-1947 eta 1978-1981) euskal diasporak izan zuen argitalpen garrantzitsuena zen, Argentinan, Uruguain, Perun, Txilen, Bolivian, Mexikon eta Kuban zabaltzen zelarik. *Euskal-Erria* gisako kultur aldizkari bat zen, “Revista Ilustrada Éuskaro-Americana de Historia, Literatura y Artes” goiburua zeramana eta aldiro euskal kazetari, idazle eta irudigile onentsuenen kolaborazioa izan zuena. Hilean hirutan agertzen zen, euskarari eta frantsesari ere tarte bat eginaz eta lehen ziklo honetan *Euskal-Erriaren* ondotik bertsolarietako testu gehien eskaini zion medioa izan zen. Otañoren ‘Alkar’ argitaratu argitaratu zuen, eta erredakziora eginiko bisitaren baten berri ere eman zuen¹⁷⁶.

Bertsolariaren heriotzean ere *La Baskonia* izango da gertakariari orrialde gehien eskainiko dizkiona, hainbat sinadurarekin, baina *Euskal-Erria*, *La Voz de Guipúzcoa*, *Baserritarra* edo *Novedades* gisako medioetan ere nahikoa zabal eman zen honen berri. Gerora, Otañok ekarritako eredu berriak, oraindik ere askoz itzal gehiago izango du:

“Gerraurrean eta gerrostean, bertso-zaleek buruz ikasten dute Otaño, eta erreferentzia klasikotzat hartzen. Eta nabarmenago dena, Basarrik eta Uztapidek, eredutzat hartzen dute Otaño, jantzia delako, ugaria, euskara garbikoa, arrazoizkoa, errespetuzkoa, garaiko eskakizunei egokituagoa. Geroztik, Amuriza etorri arte behar bada gehienik eragin duen maisua izan da Otaño bertsolarietan.” (Lekuona, 1998: 534)

4.6 HAUSTURA: GARBIZALETASUNAK BAZTERRERA (1901-1917)

4.6.1 Etxegaraireren epaia (1901)

XIX. mende bukaeran jende jantziaren begirunea jaso zuen bertsolarietaz. Unamuno berak ere, hainbatetan euskal kulturarekin hain gordina izandakoa, eskaini zion keinua: “La rudeza tosca de Iparragirre, la ligera gracia de Vilinch, el donaire del platero de Durango, gustarán siempre más que esas soporíferas leyendas, muy buenas, sin duda, muy bien hechas, pero que no cuadran a nuestro carácter” (*El Noticiero Bilbaíno*, 1889/XI/18)¹⁷⁷. Hegoaldeko lehen Lore Jokoekin egin zen gailurraren ondotik, ordea, bertsolarien estimaren gainbehera hasiko da Zavalak azaltzen duen bezala:

“Esta época que va de 1880 a 1900, con versolaris tan destacados como Udarregui, Pello Errota, los Otaños e Imaz de Alzo, con las imprentas del país convertidas en fuente inagotable de bertso-paperas, con la estima y ayuda de la clase culta vascófila, puede ser considerada como uno de los momentos más prósperos del bersolarismo. Por desgracia, las circunstancias cambiarían pronto.” (1996c: 210)

¹⁷⁴ *El Correo de Guipúzcoa*, 1903/III/28, Cayetano, S., ‘Atoz, atoz, Pedro Mari!!’ eta 1903/X/23, Echeverría, P..

¹⁷⁵ Ik. Eranskinetan I.IV.IV Pedro Mari Otañoren ‘Auntza larrera’ *La Baskonia* aldizkarian (1903)

¹⁷⁶ *La Baskonia*, 1909/III/30, izenbururik gabeko laburra, erredakziotik pasa da Otaño denak agurtzera.

¹⁷⁷ Arana Martijak dio Unamunok Iparragirre pertsonalki ezagutu zuela eta estimu handitan zuela: “(...) antes de marchar a Madrid en 1880 a estudiar su carrera de Filosofía y Letras, conoció a Iparragirre en 1877 (...) El ya para entonces inquieto bilbaíno, con 13 años, admiró la figura del venerable bertsolari de 57 años” (99: 106).

Gutxiespen urteak datoz jarraian: "(...) debemos reconocer un periodo de aprecio y favor por parte del sector culto, la época de la generación de Manterola. Vienen a continuación años de franca desestima, que duran hasta 1935 y 1936 (...)" (Zavalak, 1996c: 226).

1899tik 1901era bitartean Pablo Gorosabelen 'Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa' argitaratu zen sei liburukitan. Seigarren liburukia urte haietan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako probintzietako kronista ofiziala eta kultur gizon errespetatua¹⁷⁸ zen Karmelo Etxegaraik atonduriko eranskin bat izan zen eta bertan bertsolaritzari buruz esaten dituenak hartzen ditu Zavalak inflexio puntu gisa: "En la introducción a su trabajo habla Echegaray de la literatura vasca y formula, como un anatema, el juicio más negro que haya caído alguna vez sobre el bersolarismo" (1996c: 221).

Ikerlari tolosarra ez da esajeratzen ari, benetan gordinak dira Etxegairen hitzak. Honela, esaterako, bertsoetan jorratzen diren gaiak erabat hutsalak iruditzen zaizkio eta bertsolarien talentua ezdeusa:

"Pero ni porque se pusieran en verso, ni porque se cantasen, perdían aquellos sucesos el carácter irremediamente prosaico que les distinguía. Murmuraciones de aldea, rivalidades ridículas de campanario lograban los honores del canto y de la popularidad. La mayor parte de las veces se olvidaba el nombre de los autores de tales engendros, y más vale para su buena memoria que se olvidase, pues de este modo no se perpetúa la fama de su incapacidad artística ..." (Etxegarai, Zavalaren lanetik jaso, 1996c: 221-222)

Entzule edo irakurlearen gustu hona ez ezik moralitatea ere erasotzen ei dute:

"Alguna vez, las faltas en que incurren los que escriben tales cosas, tienen más honda trascendencia, y ofenden no ya el sentido estético, sino el moral. En esta ofensa a los sentimientos que más honran y enaltecen a la humanidad, entra seguramente por más la ignorancia que la malicia. Si en esos versos hay que hablar de algún suceso escabroso, no tratará el cantor de envolverlo en cendales para no herir la delicadeza de los oídos del público que lo ha de saborear: lo relatará con crudeza que hoy llamaríamos naturalista, y que en ocasiones resulta inocua y casi inocente por su misma brutalidad." (id.: 222)

Hitzok irakurrita sinesgaitza suertatzen bada ere Etxegarai bertso-jartzailea zen 1893ko Lore Jokoetan saritua izandakoa, eta urte gutxira Bilintxen bertsogintzaren inguruko azterketa interesgarri askoak argitaratu zituen¹⁷⁹. Gorosabelen lanaren eranskinean, ordea, ez zen aldarte onenarekin aurkitzen nonbait. Ematen duen azken epaia ere ez da samurra, bertso-paperekin bilketaz ari da baina denak erre beharko lirakeela seinalatzeko:

"Si pudieran reunirse todas las hojas volantes que por espacio de tres cuartos de siglo, se hayan difundido, con nombre de versos vascongados por los hogares de la región euskara, se formaría una colección enorme de simplezas y groserías, dichas de una manera eminentemente prosaica, y en un lenguaje incorrecto y plagado de castellanismos". (id.: 223)

¹⁷⁸ Karmelo Etxegaraik (1865 Azpeitia-1925 Gernika) autodidakta izan arren (Menendez Pelayo famatuarekin izandako harremanetik ikasitakoak ziren bere formazioaren funtsa) artxibatzaile, liburuzain eta historialari gisa ibilbide oparoa egin zuen Gipuzkoako edo Bizkaiko Foru Aldundiek eta Historiako Errege Akademiak euskal foruen inguruan enkarguz eskaturiko hainbat lan garrantzitsu argitaratuz. Euskal Pizkundean ere bete bete murgildu zen, besteak beste euskaraz hainbat literatur lan argitaratu eta beste hainbat iruzkinduaz eta *Euskalerrriaren-alde* aldizkariko kontseiluko Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorrekoko eta Euskaltzaindiako kide ere izan zen.

¹⁷⁹ 1906ko uztaileko *Euskal-Erria* aldizkarian 'Indalezio Bizkarrondo (Bilinch)' izenburupean 52-56, 117-122, 180-185, 226-229, 345-350, urte berean *La Baskonia* aldizkarian berrargitaratuak.

4.6.2 Bertsolariaren gutxiespena

Lore Jokoek euren bidea egiten jarraitu zuten. Jatorrizko enborrharen antolaketari Abbadieren alargunak eutsiko dio, eta 1901ean hil ondoren ospakizunarekin jarraitzeko agindua testamentuz ezarria geldituko da: “Haurrik ez zuten. Hendaiaiko jauregia bere lurrekin, Académie des Sciences delakoari, Institut de France delako erakunde zabalagoaren baitan, utzi zioten, euskararen eta euskal kulturaren laguntzeko baldintza zehaztuz ordenu edo testamentuan, bereziki Euskal Jaiak eta horietako Lore Jokoak aitzina eremanez” (Davant, 2014a: 180). Gainerako eragileek ere, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako ‘Consistorio de los Juegos Florales’ eta Udal ezberdinak, euren antolatzen jarraituko dute eta 1914an, esaterako, 1897ko marka hautsiko da, urte berean sei Lore Joko antolatuaz: Andoain, Bilbo, Donostia, Hondarribia, Iholdi eta Necochea (Argentinan, Otañoren bizilekua izandakoa).

Lore Joko hauetan bertsolaritzak zuen garrantziak behera egingo du, ordea, eta prentsan eskaintzen zaion arretak ere bai. Honela, garai bateko bapateko saioen kronikak aipamen soiletara pasako dira eta zenbaitetan ez da aipamenik ere egingo:

“Ya no se les llama a participar en las fiestas éuskaras; ya no se les abren los teatros, a no ser en San Sebastián el día de Santo Tomás; ya no hay quien escriba reseñas de sus actuaciones, como lo hicieron Manterola y Otaegui con aquel sentimiento de admiración y asombro. Es más; algunas reediciones de canciones o poesías populares llegan a retocar los textos primitivos.” (Zavala, 1996c: 225)

Ez da Zavala Etxegaraireren anatema aipatzen duen bakararra. Garziak ere seinalatzen du, inflexio puntu bezainbat giro orokor baten isla gisa:

“Carácter prosaico de los temas, inmoralidad en los tratamientos, crudeza descriptiva, lenguaje plagado de castellanismos... el bersolarismo era el compendio de todas las virtudes pedestres. Era mejor que se perdiera para siempre. Etxegaray no era el único que pensaba así, en realidad sus palabras no son más que el reflejo de un estado de opinión.” (Garzia, 2000a: 417)

Iztuetak kasik mende bat lehenago bazterturik ikusten zituen bertsolariak, hainbatek burla nola egiten zien ere kontatzen zuen. Bertsolaritzaren historian ziklikoki agertu izan den gutxiespen modernistaren kapitulu bat baino ez da izango, bada, XX. mende hasierako hau (Azurmendi, 1980: 145). Kasu honetan hizkuntzaren eta moraltasunaren garbitasuna planteatuko dira argudio gisa: “Venía de lejos el poco aprecio a la producción poética popular (...) A la vieja opinión se le añadía ahora el purismo moral, y en mucho mayor grado el purismo lingüístico” (Garzia, 2000a: 417).

Aranaren inguruan antolatu zen lehen belaunaldi jeltkidearen hizkuntza garbizaletasuna honela azaltzen du Zavalak:

“Sus hombres traen una ideología política de la que no me corresponde tratar, pero cuya esencia viene a ser -según mi pobre juicio, con el que coincidirán, creo, amigos y enemigos- una radical disconformidad respecto a una situación de hecho y a favor de otra que estimaban de derecho (...) este mismo desacuerdo lo aplicaron también al idioma, poniéndose en contra de la situación de hecho de éste y a favor de otra que juzgaban de derecho.” (1996c: 223-224)

Ez zen Tolosarra hizkuntzak arautu zalea (Euskaltzaina izanagatik euskara batuari ere ez zion jaramon handirik egin gerora). Horrela esplikatzeko du bere posizioa:

“Su error consistió en no haber advertido que en los idiomas vivos la situación de hecho y la de derecho se identifican, ya que a favor de cada palabra o costumbre gramatical vivas, sean nativas o importadas, está, implícito pero verdadero, el plebiscito popular más espontáneo, unánime y democrático que puede darse y que atentar contra el derecho otorgado por este plebiscito constituye un acto dictatorial nocivo siempre a la vida del idioma.” (id.: 224)

Eta jarrera garbizale honek bertsolaritzari nola eragin zion seinalatzen du jarraian:

“Lógicamente, este cambio no podía menos de afectar a los bersolaris. Éstos no cantan en el vascuence de derecho que los puritanos propugnaban, sino en el de hecho que rechazaban. En consecuencia, no sólo comienzan a carecer del aplauso del sector culto, sino que llegan incluso a ser menospreciados.” (id.: 224)

Etxegarai ez zen jeltzalea izan. Baina bertsolaritzari dagokionean antzeko jarrera hartu izan zuten belaunaldi bereko hainbat jeltzalek. Txomin Agirrek 1907tik 1912ra *RIEV* aldizkarian atalka argitaratu zuen ‘Garoa’ eleberrian kontatzen dituenak, adibidez, esanguratsuak dira:

“Illunabarrean, nere eginkizunak amaituta erri alderuntz nentorrela, baserritar asko billatu nituan bideko ostatuetan, oiturazko atsedetak egiten, premia gabeko jan edanetan, beste dema batzuetarako azia botatzen ta ardoak ematen duan indarraz bertsoak eresitzen.

Ara nik zalpurdirako argi billa sartu nintzan ostatu batean entzun nituanak:

Bertso berri batzuek/ Nai ditut paratu./ Pulamentuz esanaz/ Gaur zer dan pasatu. / Bizkai guztia emen/ Guk degu ondatu /Ezta Ixio Mari /Ain gaizki portatu.

Gaurko apostu orrek/ Badu inportantzia./ Itz bitan esango det/ Bere sustantzia:/ Bizkaitarren diruak/ Bete dit poltsia./ Ara zergatik detan/ Nere alegrantzia.

Etziran neri batere alegrantzirik eman aien aoetan euskereak zeukan gorniak.

Eta aien aoetan bakarrik balitz!” (Agirre Badiola, 1966: 53)

Hizkuntzaren garbitasunaren afera, eta bertsolarien euskara mordoiloa zuzendu nahia hainbat hamarkadatan luzatuko zen gerora. Euskal sorkuntza orori eragin zion kontu bat izan zen bestalde, eta Sarasolak, esaterako, Zavalak bertsolaritzarentzat ezartzen duen mugari bera seinalatzen du euskal literaturaren historian. Honela, Arestiren ‘Harri eta Herri’ren garrantzia azpimarratzerakoan mende hasieran eman zen haustura gainditu izana egozten dio:

“‘Harri eta Herri’, ezein euskal liburuk lortu ez zuena lortuz, irakurria izan zen. Arrakasta hori endelegatzeko, liburu hark gauzatu zuen iraultzaren elementuak hartu behar dira gogoan. Lehenik tematikaren eraberritzea (...) Bigarrenik, 1900ean eten zen tradizio literarioari jarraiturik, garbi-mordoilo antinomia gainditzen du, literatura egiaz herrikoi baten zimenduak ezarritz” (1971: 85).

Hizkuntzaren garbitasunaren eta bertsolaritzaren gutxiespenaren atzean, bada, lehen ziklo honen haustura ageri da argi eta garbi. Poesia idatziaren tradizioa abiarazteko bertsoaren moldeak jartzen dira oinarritzat eta bapateko bertsolaritza bera genero literario gisa berregokitzeko ahalegina egiten da lehenik, baina modernitatea jasoarekin eta idatziarekin identifikatuz, benetan jaso eta ondorioz modernoa izango zen euskal literatura baten bila, ahozkotasunarekiko eta bertsolaritzarekiko urruntze bat emango da jarraian. Bertsolaritza gertuko ahaidetzat zuen tradizioa baztertu eta tradizio berri bat sortzea izango da xedea

aurrerantzean. Finean, ahozkoa/idatzia dikotomia ezkutatuko da mordoiloa/garbia dikotomia horren atzean.

Urruntze horretan, Garziak aipatu bezala, hizkuntzaren garbitasuna ez ezik garbitasun morala ere baliatuko da distantziak markatzeko: beti desordutan, mozkorkerian eta barrabaskeriatan zebilen bertsolaria bezalako figura subalterno bat ezin zitekeen bertsolaria ezin zitekeen burutu nahi zen Pizkunde kulturalerako eredu gisa har zenbaitentzat. Zentzu honetan deigarria suertatzen da Txomin Agirre berak ‘Iru erezi’ ipuinean bertsolariak egin nahi duen irudikapena: emaztea eta aberria asko maite dituen arren Jainkoa are gehiago maite duen bertsolaria, entzule hordituei jaramonik egin gabe, eskaini dioten sagardoa dastatzera iritsi gabe, isiltzea erabakitzen duena¹⁸⁰.

Zavalak ere erreparatzen dio bertsolaritaz egin zen gutxiespen moralizataileari. Nagusiki bera bezala elizgizonak planteaturiko argudiaketa izan arren, tolosarra ez dator bat:

“En esos años de desestima no fue el bersolari quien se apartó del público culto (...) Si en algún momento no ha cantado más que en tabernas y plazas de aldea, es porque no se le facilitaron otros sitios donde hacerlo.” (1996c: 226)

Aukera zuen guztietan egiten zuen bezala, afera honetan ere adiera herrikoenaren aldeko hautua egiten du biltzaile eta ikerlariak:

“(...) el bersolarismo es un fiel reflejo de la vida de un pueblo, y de un pueblo de hombres. La postura de Echegaray es la misma que la de tantos otros que desean para nuestro pueblo un integrismo exagerado y antihumano que no se exige a ningún otro. ¿Qué literatura se vería libre de este pecado? Y, sin embargo, nadie se lo reprocha a ninguna.” (id.: 222-223)

4.6.3 Garbizalekeria Euskal Herrian, fenomeno arrunta European

1890eko hamarraldian, Campionen abertzaletasun kulturala baino zerbait beranduago Sabino Aranaren abertzaletasun jelkidea agertuko zen: 1892an argitaratu zuen Aranak ‘Bizkaya por su independencia’, bere doktrina politikoaren lehen lan garrantzitsua izango zena; 1893an *Bizkaitarra* aldizkaria jarri zuen martxan, jeltzaleek sortuko zituzten hainbat medioen artean lehenengoa; 1894ean euskal abertzaleen lehen bilgunea, ‘Euzkeldun Batzokija’, ireki zuen, jarraian Euskal Herrian zehar gisako dozenaka zabalduko zirelarik; edota 1895ean Eusko Alderdi Jeltzalea sortu zuen eta 1898an Bilbotik probintzia diputatu hautatu zuten. Campionen proiektuak porrot egin zuen alderdi politikoaren lehian. Industrializazio prozesuak bertan izandako atzerapenagatik Nafarroan proiektua bultzatuko lukeen klase ertain bat garatu ez izana, herrialdean karlismoak berriro hartu zuen indarra, proiektua bideratu zuten pentsalarien jarrera elitista, edota indarrak eremu kulturalen agortu izana aipatzen dituzte Aizpuruk (2000: 63) eta Amezagak (1994: 40-41) porrot honen azalpen gisa. Mugimendu jeltzalea, aldiz, etenik gabe zabalduko zen. Aranak, istilu, zigor eta espetxealdi artean sekulako bultzada politikoa emango zion euskal nortasun berezitan oinarrituriko aldarrikapenei eta hamarkada gutxian alderdi jeltzaleak gobernu ardurak izango zituen euskal erakunderik gehienetan.

Amezagak azaltzen duen lez (1994: 33-40) Aranak, Campioneak bezala, Herder buru zuen Alemaniako nazionalismo erromantikoaren planteamenduak jarraitzen zituen, nazioa ezaugarri objektibo batzuren arabera definituz, baina nafarrak euskal nortasunaren erdigunean euskara jarri bazuen bizkaitarrak euskal arrazari eman zion leku hori. Nazioa

¹⁸⁰ Ik. eranskinetan I.IV.III Txomin Agirrereren ‘Iru erezi’ *Euskalzale* astekarian (1898)

familia baten gisan ulertzen zuen Aranak, partekaturiko odola ikusten zuen kide nazionalen arteko lotura nagusi gisa, eta euskararen garrantzia aitortzen bazuen ere, erlijioari edo tradizioari honi bezainbesteko garrantzia ematen zien. Bestalde, proiektu politikoa lehenesten zuen kulturalarekiko, berreskurapen kulturala gauzatzeko bitartekorik eraginkorra independentzia politikoa zela azpimarratuz (Sarasola, 1982: 76).

Beste kezka batzuk lehenetsi arren¹⁸¹, Lehen Euskal Kultur Pizkunderako ekarpen garrantzitsua suposatuko zuten Sabinoren planteamenduek eta bere inguruan sorturiko mugimendu indartsuak: “(...) Sabino Aranak, erromantizistek bezalaxe, herria deskubritzen du (...) herriarenak —herriaren sektore batzuenak bederen— ziren eta ordura arte politikatik (...) bazterturik zeuden kultur osagaiak deskubritzen ditu (...) [besteak beste] herriaren kantua eta olerkiak "benetako" poesiatzat joz (...)” (id.: 39). Ekarpene honen ordea, izango du bere infrentzua ere: abertzaletasun honen jarrera antimodernoak herriaren eta honen tradizioen irudikapen idealizatuak zekartzen (Amezaga, 1994: 40), eta Saidek azaltzen duen bezala irudikapen honen subjektu idealizatuaren garapena tratatuko du (2008: 242-244).

Hizkuntzaren garbizaletasuna ere Aranaren doktrina politikotik jariatzen zen: “Euskal arraza gaineratik herrietatik bereiztu beharrak, garbizaletasunaren goraiapamena erakarri zuen, hizkuntzari dagokionez; eta folkloreakiaren garapena, kulturari dagokionez” (Amezaga, 1994: 47). Eta garbizaletasun hori ere Aranaren ekarpenaren infrentzu gisa ulertzen da egun, baina ez Zavalak aipatzen zuen hizkuntzaren arauketaren kontrako argudiaketa horren ildotik, gairuak eztabaida baita arauketaren beharrarena, Aranaren planteamendu linguistikoen gehiegikeriak seinatuz baizik. Garziak laburbiltzen du kritika hau:

“Hoy parece una actitud increíblemente contradictoria la de aquellos intelectuales que criticaban en castellano el mal euskera de sus paisanos, sin ser capaces de mostrar un correcto modelo a imitar. Y las producciones del euskera sabiniano, plagadas de neologismos disparatados, no llegaban al pueblo, no las entendía. Era lógico, pues, que la distancia entre el pueblo llano y su clase intelectual, al menos la más bizkaitarra, por decirlo así, se hiciera insalvable.” (2000a: 417)

Gerora Aranari diren eta ez diren gaitz guztiak egotzi izan zaizkionez, bere planteamenduak garaiko testuinguruan kokatu beharra azpimarratu behar da. Nazioa arrazarekin identifikatzea, esaterako, erabat ohikoa zen garai hartan, eta aipatu den gisan euskal arrazaren garrantzia Europako antropologia fisikoak aldarrikatu zuen hainbat hamarkadatan: “Sabino Aranak egiten duena, beraz, zera da: garai hartan eskura zituen tresna kontzeptual eta ideologikoez baliatuz, estatu espainolaren eraikuntzari —eta haren ustez horrekin batera zetorren guztiari— aurre egin” (Amezaga, 1994: 39). Eta hizkuntzaren garbizaletasunarekiko seta ere oso fenomeno arrunta izan zen garaiko European.

Honela dio Burkek: “Los movimientos de purificación lingüística que aparecieron en la Europa moderna (...) no fueron ni infrecuentes, ni carecen de relevancia. Fueron la parte negativa de la normalización y sistematización de las lenguas (...)” (2006a: 161). Eta garbizaletasun hori hiru mailatan ematen zela gaineratzen du:

“(...) las lenguas tenían que ser en primer lugar, moralmente puras, por oposición al ‘habla sucia’: el Diccionario de la Academia Francesa, según se decía en su prefacio, excluía los ‘juramentos o aquellas palabras que ofenden el pudor’ (...). En segundo lugar, tenían que ser socialmente puras, es decir,

¹⁸¹ Honela dio Gabilondok: “Sabino Arana’s earlier formulations only concerned Biscay, not the seven provinces, and they were far from the linguistic consciousness created by bertsolari” (2016: 197).

tenían que adecuarse a la lengua de las clases altas (...) las lenguas tenían que ser ‘étnicamente’ puras, como diríamos hoy en día, es decir, que había que emplear expresiones autóctonas en lugar de recurrir a las extranjeras.” (id.: 161-162)

Klasismoa eta moralismoa, bada, erdal hitzen arbuioarekin batera, bertsolaritzaren gutxiespenaren atzean suma daitezkeen elementu berak hain zuzen.

Aro Modernoaren hasieratik hasita dozenaka kasu azaltzen ditu Burkek (2006a: 166-174): frantsestu ote zen italierarena XVI. mendean, erromantzeek kutsatu ei zuten holandarrarena edota alemanierarena XVII. mendean, latinismoek eta germanismoek jana zegoenaren errezeloa zabaldu zen danienarena XVIII.an... Hizkuntzarik indartsuenetan ere eman izan da erreakzio hau: esaterako, XVII. mendean ingelesetik etorritako terminoak ezabatu nahiko ditu frantsesaren garbizaletasun korrante indartsu batek, baita Frantzia hitz egiten diren beste hizkuntzetatik eratorriak edota klase baxuenetako jergetatik jaso direnak ere (Calvet, 2005: 32-35). Aranek berea abiarazi zuenean ere indarrean ziren planteamendu hauek, esaterako, bizkaitarrak eredu modura erabili ahal izan zuten Alemaniakoa: “En Alemania, la manía de la pureza lingüística alcanzó su cénit a principios del siglo XX. Ya en 1885 se había fundado una academia encargada de la defensa del alemán (...)” (Burke, 2006a, 130). Eta XX. mendeak aurrera egin ahala errepikatuz joango dira gisako erreakzioak:

“(...) El français es la encarnación lingüística de lo que los franceses solían denominar ‘el reto americano’, le *defi américain*. La respuesta a este reto fue la purificación. Por ejemplo, el general De Gaulle encontró tiempo, entre la crisis de Argelia y los sucesos de mayo de 1968, para crear un comité en defensa de la lengua francesa. En 1975 se aprobó la ley de Bas-Lauriol que prohibía utilizar una palabra extranjera (al menos en los ministerios y agencias públicas) cuando existía una francesa equivalente de uso corriente.” (Burke, 2006a: 131)

Hizkuntzarik indartsuenen kasuan ere indartsuago baten mehatxuaren aurrean piztuko da erreakzio garbizalea, subalternitate zantzu gisa eta sentimendu nazionalista batek hauspotuta:

“Se trata de un caso de defensa del territorio lingüístico. Después de todo, la lengua es uno de los rasgos distintivos de una comunidad. Como ha señalado la antropóloga Mary Douglas (...) la preocupación por la pureza expresa una sensación de peligro, una amenaza a la cohesión de la comunidad.” (id.: 178)

Arruntak izanagatik Aranaren planteamenduek ez zuten, noski, zertan neurritsu edo egokiak izan. Bere jarraitzaileek euskal kulturaren eragiletzan hartu zuten pisuarekin planteamendu hauetan oinarrituriko bertsolaritzaren gutxiespena zabalduz joan zen urte haietan eta gerora hamarkadak iraungo zituen euskal *intelligentsiaren* baitan mordoilo/garbitasun dikotomiaren inguruko eztabaidak. Herritar arruntek eztabaida horri jaramon handirik egin ez zioten gisan, bertsolariek ere euren jardunarekin jarraituko zuten:

“(...) a principios de siglo se puso de moda el puritanismo del lenguaje. El vascuence hablado estaba corrompido; había que purificarlo. Vino, en consecuencia, el desprecio al bersolari. Éste, impertérrito, siguió cantando en las plazas de aldea y en las tabernas y sidrerías (...)” (Zavala, 1996d: 265)

4.6.4 Etxahunen epaiketarekin hasi eta Txirritarenarekin bukatu

Bat-bateko bertsolari petoen artean Pedro Jose Elizegi *Pello Errota* (1840-1919) asteasuarra da ziklo honetan oihartzun mediatiko handiena izan zuena. 70eko hamarkadaren bukaeratik Juan Jose Alkain *Udarregi* (1829-1995) usurbildarrarekin edo Jose Bernardo Otaño (1842-

1912) zizurkildarrarekin, bikote eginaz, saio gehienetan ageri da, eta mende berriarekin Jose Manuel Lujanbio *Txirrita* (1860-1936) hernaniarra izango du bidelagun. Garaiko kroniketan irakur daitekeenez bera izango da garaile askotan eta bere eskarmentua eta ahalmena azpimarratzen dute testu guztiek. Bere bertsoak, itxura fisikoa edo izaerari buruzko zertzelada batzuk ere jasota geldituko dira gainera kronikarik zabalenetan. Honela, gaztelerazko lehen kronikan (1880) Udarregi eta bien estiloen arteko kontrastea azaltzen du Manterolak, “Agudo, punzante y mordaz el primero [Pello Errota], grave, sesudo y pausado el segundo, el contraste era completo (...)” edo ingelesez idatziriko lehenengoan (1882) deskribapen fisikoa eta teknikaren ingurukoak dakartza Websterrek: “The molinero is a man of barely middle height, but of Herculean build, and he stood with arms folded across his broad chest, occasionally, during a pause, taking a hasty sip from a small wine skin proffered by his brother”¹⁸²

Txirrita 1897ko Lore Jokoetan aipatzen da lehen aldiz, eta mende berriarekin bera eta Pello Errotak osturiko bikote artistikoa (1915eko Lore Jokoetan ageri da azkeneko aldiz asteasuarra) izango da saio garrantzitsu guztietako kartela. Adinari erreparatzen badiogu Errotariak nahikoa gastatuta behar zuen mende berriaren hasiera honetan, eta Txirritak berriz, erabat sasoiko. Gerora jaso izan diren kontakizuneetatik eta hernaniarrak izan duen proiektioetik urte haietako bapateko bertsoaririk onena eta ospetsuena berak behar zuela ondoriozta daiteke, baina prentsan ‘el humorístico Chirrita’ gisako izenlagun sorta bat baino ez da jasoko. Mende berriarekin bertsoaritzarekiko klase jasoen interesak behera egin zuenaren zantzutzat har daiteke ikusezintasun hau.

Jada eman diren azalpenen argitara agerikoa da XIX. mendearen bigarren erditik aurrera bertsoaritzak lortu duen arretak jauzi kualitatibo bat eman zuela, eta euskal kultur gileek bere modernizazioa abiarazi zutela. Ondorioz, Francoren altxamenduak ekarritako gerra urteen salbuespen bakarrekin, aurrerantzean gora egingo du etengabe bertsoaritzari eskainiriko prentsako testuen kopuruak. Honela, lehen ziklo honetan oinarriari dagozkion hamarkadetan (1840-1879) 234 testu bildu ahal izan dira, gailurrari dagozkionetan (1880-1899) 390, eta hausturari dagozkionetan (1900-1919) 395. Progresio hori ñabartu beharra dago, ordea. Kuantitaboki etengabe gora egin arren, kualitatiboki beherakada bat emango da hausturari dagozkion aldiak: oinarritik gailurrera igarotzean bertso-saioen prentsako erreferentziek aipamen soiletik kronikara egiten bazuten, gailurretik hausturara igarotzean kronikatik aipamen soilerako joera emango da berriro.

Ziklo honek ekarritako moldaketaren inguruan bigarren ñabardura garrantzitsu bat egin behar da, bestalde. Ahozkoak idatziarekiko duen subalternitatearen pisua dela eta, bertsolari klasikoa nortasun ikur gisa funtzionatzen hasia dela ukazina den arren, prentsan oihartzunik gehien izango duten bertsolariak poesia idatziari gehien gerturatzen zaizkionak izango dira: Iparragirre, Bilintx eta Otaño. Iparragirreraren kasuan azaldu da bertsoaritzat har daitekeen ere zalantzan jarri izan duela hainbatek, eta Garziak argi seinatzen du Bilintxen nahiz Otañoen garai hartako sona poeta gisa egindako ekarpenari zor zitzaiela nagusiki:

“Como se ve, el prestigio de Otaño no era nada desdeñable, pero iba asociado no a su condición de bertsolari, sino a la de poeta. Otro tanto había ocurrido, un cuarto de siglo antes, con otro bertsolari seño: el donostiarra Indalecio Bizkarrondo, Bilintx.” (2000a: 409)

¹⁸² Ik. eranskinetan I.III.II Lehenengoa gazteleraz: Manterolak *Euskal-Erriari* (1880) eta I.III.IV Lehenengoa ingelesez: Websterrek *The Cornhill Magazine* (1882)

Fernando Amezketarra izango da eredu hibrido horretatik kanpo medioetan arrakasta izango duen bertsolari bakarra, baina pasadizoen generoak euskarazko kazetaritzaren hastapenetan izan zuen loraldiari esker eta mito bihurturik emango da arrakasta hori. Salbuespen honetatik haratago, Pello Errota eta Txirrita bezala eredu idatzitik urrun gelditzen den sagardotegiko bertsolari klasikoak, erabat ertzeko izaten jarraituko du. Pello Errotaren kasuan, zikloaren gailurrak bete betean harrapatu zuenez, arrasto nabarmenagoa topatu ahal da prentsan; Txirritarenean, aldiz, ahozkoaren subalternitatea areagotu zuen garbizalekeria dela eta, aipamen soilak baino ez dira jasoko lehen ziklo honetan.

Deigarria suertatzen da baita, Hernanikoaz zerbait gehiago sakontzeko modua ematen duen lehen testua, epaiketa baten kronika izatea. *Diario de Navarra* dakar 1916/X/31 datarekin ‘Tribunales’ izenburupean eta Mikel Tabernaren arabera (2018: 14) gerora egunkari honetako zuzendari eta 1936ko kolpearen prestatzaile nagusienetakoa izan zen Raimundo García Garcilasorena izan daitekeen *Eme* izenordeaz sinatua. Kazetariak bertsolariaren ezagutza handirik ez zuela ikus daiteke, ezizena oker transkribatzen baita lehen paragrafoan:

"El conocido versolari ‘Chirritak’ –creemos que es de Hernani-, Jose Manuel Lujambio, y el vecino de Legasa Tomas Alcaine ocuparon ayer el banquillo ante el Tribunal de Derecho, acusados de los delitos de injuria y calumnia al alcalde pedáneo que fue de Legasa Eusebio Babace” (*Diario de Navarra*, 1916/X/31, ‘Tribunales’)

Gainerakoan ez dago testuari eskapatzen zaion xehetasunik. Azpitulua berak aipu esanguratsua dakar, Tabernaren arabera (2018: 40) Legasa udatiar gisa ezagutzen zuen Ramón María del Valle-Inclán-en ‘Voces de Gesta’ antzezlanetik hartua: “... á vosotros mi canto consagro’. Y efectivamente, el canto del versolari fué tan avieso que se cayó en las redes del Código penal”.

Alkainen enkarguz alkatearen kontra egindako bertsoengatik eserarazi zuten Txirrita epaitegian. Herrian jartzen ziren isunen dirua beretzat hartu izana leporatzen zioten bertsoek alkateari eta 10 zentimotan saldu ziren Doneztebeko festetan, kronikak kontatzen duenez arrakasta itzelarekin: “La lectura de los versos produjo gran hilaridad y regocijo; tanto, que hubo momentos en que la algazara pública revistió caracteres de desorden y tuvo que intervenir una pareja de la guardia civil”.

Akusazioaren eta defentsaren argudiaketaren berri ere ematen da bertan. Defentsak, besteak beste, bertsoen itzulpena ez dela zuzena argudiatu zuen bertsolariaren alde. Akusazioak, aldiz, deliturako ezinbesteko bitarteko gisa salatzen zuen bertsolaria:

“En la declaración terminante, buscada por la acusación particular, encomendada al distinguido letrado don Manuel Aranzadi, fue el punto de partida para desarrollar su informe en la sesión de la tarde. Yo no hubiera traído aquí al versolari –decía- que en realidad es ajeno al delito, aunque instrumento empleado por el acusado para cometerlo, pero por fuerza del imperio de la ley (...) hago responsables por igual a los dos procesados”

Eta bertsolariaren izua ere deskribatzen du kronistak, bere ezjakintasuna azpimarratuz:

“El versolari estaba ayer aplanado a la vista del aspecto severo del Tribunal que había de juzgarle (...) no sabía de cosas tan serias y nunca pudo sospechar que las improvisaciones de su ingenio (...) pudiesen llegar a constituir un delito. Es más, ni sabía quien era Babace ni tenía motivos para afirmar si era cierto que cobraba multas sin darles la inversión que manda la ley municipal.”

Epaiketaren eszenaratzeak Txirritari izutu izana litekeena da, baita lege kontuetan ezjakin bat izatea ere, baina tontotik ezer gutxi zuen bertsolariak: egunkari berak azaroaren 10ean argitaratzen duenez, hiru urte eta erdian Legasatik 25 kilometroko eremu batean sartzeko debekua, eta 250 pezetatako isuna nahiz epaiketaren kostuen laurdena ordaintzera zigortu zuen epaiak, baina ezin izan zitzaion zentimorik kobratu, desagertu egin baitzen. Tabernak azaltzen duenez, litekeena da zigorrari ihesi Iparraldean ezkutatu izana (2018: 67-70).

Diario de Navarraren testuak eta Tabernaren ikerketak urte haietako gutxiespena gogorren pairatu zuen bertsolari modu baten profila osatzeko baliagarriak suertatzen dira. Honela, Txirritak gazteleraz ez zekiela berresten da, auzitegiaren jakinarazpenak itzultzaile bidez helarazi bait zitzaizkion (Taberna, 2018: 43), eta baita analfabetoa zela ere epaiak bertso paperen inguruan honela baitio: “(...) original, que dictó a un amanuense por no saber él escribir (...)” (id.: 34). Bestalde, esanguratsua da prozesua berak agerian uzten duen ertzekotasuna, bertso batzuk baitira zigortzen direnak, gogor zigortu ere, akusazioaren eskaria, bi hilabeteko kartzelaldiarekin, are gogorragoa zelarik. Azkenik, bertsolaritza mota honen gutxiespenaren zantzuak aipatzen ditu Tabernak berak ere. Albistea *Diario de Navarra* gain beste medioetan ere jasoko zelakoan garaiko prentsan bilaketa xehe bat egin ondoren ez du beste inolako arrastorik topatuko: “Deigarria egin zaigu hutsune hori. Uste dugu agerian uzten duela garai hartako jendarteak, oro har, bai eta euskaldungo ‘ilustratu’ak ere, bertze nonbait jartzen zituela begiak; ez, behinik behin, jende xehearen artean bizi-bizia zegoen bertsolaritzan” (id.: 53).

Are deigarriagoa suertatzen da prentsan izen abizenekin topatu daitekeen lehen bertsolaria, Pierre Topet Etxahun, epaiketa kronika batean topatu izana, eta zikloaren amaieran topa daitekeen testu luze bakanetako bat berriro ere bertsolari baten epaiketaren kronika izatea. Kasu honetan gainera bertso gintzari berari egotzen zaio delitua (kalumnia eta irainak eskatzen zituen akusazioak, irainak ebatzi zituen epaiak). Badirudi XX. mende hasiera horretan bueltan zirela XIX. mende hasieran Iztuetak salatzen zituen debekuak eta gutxiespenak. Lore Jokoen lehen ziklo honen ondotik, bada, modernizazio bidean abiaturik, jada ez da ezer berdina izango bertsolaritzarentzat, baina tarteka antzekoa bai. Aurrerago ere errepikatuko dira debeku eta gutxiespenak.


4.7 OIHARTZUNA: LEHEN PAUSOAK PRENTSAN

4.7.1 Emandako pausoak eta bilakaera

Bertako prentsa modernoak emandako lehen urratsetan estreinatu zen bertsolaritza medioetan. Esan bezala, XIX. mende hasierakoak dira erdaraz emandako lehen urratsak, eta bertsolaritzaren edo bertsolarien lehen aipamenak 1820ko hamarkadan eman ziren, Boucher de Crèvecoeurren testuarekin (1823) eta Etxahunen epaiketei buruzkoekin (1828). Euskarak prentsan izan zuen lehen agerpenaren (*El Correo del Norte*, 1830) aurretikoak dira hauek, eta euskarazko kazetaritzak emandako hurrengo pausoa, Agosti Chahoren *Uskal-Herriko Gazetan*, bi zenbaki bakarrik argitaratu arren, bertsolaritzari tartea egingo zitzaion.

Lehen Karlistadarekin (1833-1840) abiaraziko da martxa sendo batekin kazetaritza moderno hori Hegoaldean, eta Iparraldean 1830eko Iraultzaren bueltan. Eta bertsolaritzak 1840ko hamarkadan izango du lehen aldiz arreta jarraitu bat Agosti Chahok *Ariel* aldizkarian eskaintzen dizkion testuekin.

1. grafikoa. Lore Jokoak (1845-1917) Argitaraturiko testu kopuruaren bilakaera hamarkadaka



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.I (Lore Jokoak datuak)

Argitaraturiko testu kopuruaren bilakaerari erreparatuta Lore Jokoen inguruko zikloaren aldi ezberdinak argi samar gelditzen dira marraztuta, azaldu den historiaren inflexio puntuekin bat etorritik. Honela, oinarritzat hartu den aldiaren (1845-1878) joera gorakorra izango du bertsolaritzaren presentzia mediatikoak, gailur gisa hartu diren hamarkadetan (1878-1898) eklosio bat emango da, eta mende berriarekin (1899-1917) fenomenoaren desprestigioak ekarritako joera beherakorra, ziklo amaiera adieraziko du. Edozein modutara ere, urteen joanarekin presentzia bat finkatzea lortuko da: zikloa irekitzen duen hamarkadan baino bost aldiz kopuru handiagoa izango da zikloa ixten duen hamarkadan.

Bilakaera orokor horren baitan, noski, hainbat ñabardura seinatu daitezke. Esaterako, 1860ko hamarraldian aurrekoan baino testu gutxiago topatu ahal izan da, akaso Abbadieren Lore Jokoen lehen hamarkadako berritasuna galdu ondoren arreta jaitzi zelako¹⁸³. Edota, 1900eko hamarkadan (gainbehera) eta 1880koan nahiz 1890koan (gailurra) baino kopuru handiagoa topatu da, besteak beste *Ibaizabal* aldizkariak (1902-1903) eginiko ekarpenarengatik, eta Pedro Mari Otañok Argentinan buruturikoei (1900ean opera, 1904ean ‘Alkar’ liburua eta euskarazko ‘katedra’) eginiko aparteko jarraipenarengatik.


Zikloari dagozkion 1092 testu bildu ahal izan dira guztira eta beste sei prehistoriatzat hartu direnak, zikloa hasi aurrekoak. Zikloak 72 urte dituenek (1845-1917) urteko batz besteko testu kopurua 15,16koa litzateke.

Esplikatu den historia nolabait dokumentatzen duen beste alderdi bat hizkuntza hautuaren bilakaera da. 1840koan Chahok Arielen egindako ekarpenarekin eta hurrengo hamarkadan Abbadieren Lore Jokoei *Le Messenger de Bayonne* edo *Le Courier de Bayonne* gisako egunkariak egiten dioten jarraipenarekin bertsolaritzaren oihartzuna, historia honen lehen hamarkadetan, frantsesez idazten da. Honela, bildu ahal izan diren lehen 100 testu zaharrenetatik 72 frantsesez dira, 25 gazteleraz, bi baino ez euskaraz eta bat alemanez.

Gazteleraz lehen ale batzuk 1840ko hamarraldian azalduko dira, hurrengo hamarraldian hasiko dira ugaritzen Iparragirri buruzko testuekin, eta 1870eko hamarraldiaren bigarren erditik aurrera, hain justu Hegoaldean foruen galeraren aurkako erreakzio ematen den inflexio puntuarekin, zikloaren gailurrekin bat etorritik, gaiaren tratamendurako hizkuntza nagusi bihurtuko da. Euskarazko eskaintza ere orduan abiatuko da. Lehen testuak nagusiki

¹⁸³ Bilketa lanean topaturiko mugen ondorio ere izan daiteke. Lehen hamarkada horietako bilketa da zailena.

gazteleraz ari diren Hegoaldeko aldizkari elebidun kulturaletan agertuko dira (aurretik agertu ziren Chahoren pare bat testuren salbuespenarekin) eta gero nagusiki euskaraz argitaratzen den Iparraldeko *Eskualduna* aldizkaria (1887-1944) nahiz Hegoaldean euskara hutsez aterako diren *Euskalzale* (1897-1899) eta *Ibaizabal* (1902-1903)¹⁸⁴ aldizkarietan hartuko du indarra. Frantsesak oraindik ere bigarren hizkuntza gisa eutsiko dio XIX amaieraraino¹⁸⁵, baina mende berriarekin euskararen erabilera gailenduko zaio. Zikloaren datu orokorrak honakoak izango dira: gazteleraz %64, frantsesez %18, euskaraz %17 eta besteak (ingelesa, alemaniera, katalana eta galegoa) %1.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.I (Lore Jokoak datuak)

Azterketa kuantitatiboak ere agerian uzten du Foruen galerak dakarren erreakzioa funtsezkoa izan zela bertsolaritzari buruzko kazetaritzaren bilakaeran. Zikloaren gailurra ez ezik gaztelerazko testuen nagusitasuna eta euskarazko testuen sorrera ekarriko ditu, eta baita kronika edo fikzioa gisako kazetaritza genero sofistikatuagoan sorrera ere. Hiru hizkuntzetan garatuko dira, gainera genero hauek, eta baita albistea edo iritzi generoak ere¹⁸⁶.

Ziklo honetan bertsolaritzaren historia soziala markatzen duen ezaugarrietako bat, ikusi den bezala, euskal gaiak atzerrian pizten duten interes bizia izango da. Bertsolaritzak utzitako oihartzun mediatikoan ere nabaritu da fenomeno hau. Honela, Euskal Herriko hiru hizkuntza nagusietatik kanpo idatziriko testuen portzentajea %1ekoa izango da eta kopuru totala 13 testukoa (zortzi ingelesez, bi alemanez, bi katalanez eta bat galegoz). Hurrengo zikloak ez dira berriro kopuru horietara iritsiko.


Euskal Herritik kanpo piztutako interesaren benetako dimentsioa erakusten duen datua, ordea, ziklo honetan bertsolaritzaz argitaratu duten medioen kokapenarena litzateke. Gehiago dira Euskal Herritik kanpoko kokatzen direnak, %67a, eta zikloaren hasieran proportzioa are handiagoa da: bertsolaritzarekin zerikusiren bat zuten lehen hiru testuak Euskal Herritik kanpoko argitalpenetan argitaratu ziren; bertsolaritzari buruz zerbait argitaratu zuten lehen 30 medioetatik 26, %86a, Euskal Herritik kanpokoak izan ziren.

¹⁸⁴ 1902 eta 1903 dira bertsolaritzaz prentsan aritzeko hizkuntza nagusizat euskara izango duten lehen urteak.

¹⁸⁵ Iparraldean Xurien eta Gorrien arteko lehiaren baitan azken hauek Abbadierenez gain euren Lore Jokoak antolatzeari ekingo diote eta ondorioz gaiak aritzeko aukera gehiago sortuko da. *L'Avenir des Pyrénées et des Landes* eta *La Petite Gironde* eutsiko diote nagusiki frantsesezko testuen eskaintzari.

¹⁸⁶ Ik. 2.7 KRONIKA: 1880- eta 2.8 FIKZIOA: 1880- azpiatalak.

3. grafikoa. Lore Jokoak (1845-1917) Argitalpenen eta testuen jatorria



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.I (Lore Jokoak datuak)

Kanpoko medioen proportzio altu hori esplikatzeko euskal gaiak atzerrian pizten zuen interesaz gain Euskal Herriko kazetaritzaren izaera berantiarra hartu beharra dago kontuan. Eta baita Iparragirrenen figurak Espainian, Frantzia nahiz euskal diasporan piztu zuen arreta. Edozein kasutan oso esanguratsua da ziklo honetan bertsolaritzaz argitaratu duten medioen %67a Euskal Herrikan kanpoko izaera eta testuen %31a euren eskutik etorri izana.

Beraz, laburbilduz, esan daiteke, lehen ziklo honetan bilakaera garrantzitsu bat izan zuela bertsolaritzari buruzko kazetaritzak, prentsan lehen urrats batzuk eman ahal izan zirela errenkadan, hainbat genero hiru hizkuntzatan estreinatuz. Gaineratu behar da lehen urrats horiek frantsesez eman zirela nagusiki hasiera batean, eta atzerriko begiradak garrantzia handia izan zuela lehen oihartzun horretan, baina foruen galerarekin eman zen erreakzioak ekarri zuen gailurra bertako medioek erdietsi zutela, nagusiki gazteleraz eginaz baina euskarari ere tarte bat irekiaz.


Prentsan izandako garapena, ordea, esanguratsua izan arren, ez da erabatekoa. Ziklo osoan ez da topatu ahal izan, adibidez, bertsolariei elkarriketarik. Atzerriko begiradak baino pisu handiagoa izango duen fenomeno ageri zaigu hemen: kanpotiko begirada. Bertsolaritzari buruzko kazetaritzak prentsan ere izango du zer estreinatua hurrengo zikloetan.

4.7.2 Argitalpen eta sinadura nagusiak

163 medio ezberdinetan jorratu izan da gaia, hurrengo zikloetan baino kopuru altuagoa, kazetaritzak XIX. mendean bizi zuen irakinaldiaren adierazgarri: argitalpenak ziztu batean sortu eta desagertzen dira garai honetan, gerora iraunkortasun gehiago izango dute eta ondorioz bakanagoak izango dira.

Gaiaz gehien argitaratu zuena, alde handiarekin gainera, *Euskal-Erria* aldizkaria (1880-1918) izan zen. Ziklo honetako gailurraren izpiritua, Foruen galeraren aurreko erreakzio kulturalista inork baino hobeto gorpuztuko zuen argitalpen honek, Lehen Euskal Pizkundearen funtsezko elementu egituratzaile bat izan zen baita, eta bertsolaritzaren lehen bulkada modernizatzailean ere garrantzitsua suertatu zen, urte luzez Donostiako Lore Jokoen

antolatzaile eta bozgorailu izanik eta bertso-saioen kronikaren ereduaz ezarritik¹⁸⁷. Gaiaren inguruko sinadura esanguratsu gehienek hartu zuten parte bertan.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.I (Lore Jokoak datuak)

Hamar argitalpen garrantzitsuenen zerrendan sartzetik gertu *Revista Euskara* (1878-1883) izango litzateke *Euskal-Erriaren* izpiritutik gertuen dagoena hamazortzi testurekin. Kultur aldizkaria, hilabetekaria, Arturo Campion buru zuen Asociación Euskara de Navarra argitaratua, Campion bera, Manterola, Iparragirre edo Becerro de Bengoa bezalako ilustreak izan zituen sinatzaile bertsolaritzari buruzko testuetan. *Revista de las Provincias Euskarasek* (1778-1881) ere, Fermin Herranek zuzenduriko hamabostekaria, antzeko testuingurua, ildo eta sinadurak izan zituen, eta ekarpen polita egin zuen baita (zortzi testu).

Euskal-Erriaren ondotik gehien argitaratu zuena Argentinako *La Baskonia* (1883-1943) izan zen. Euskal diasporaren ekarpenaren ikur gisa har daiteke eta diaspora horren parte izan ziren bi bertsolari ezagunenak, Pedro Mari Otaño eta Iparragirrerena, inguruko testuek protagonismo berezia izan zuten bertan¹⁸⁸. Bizitza luzea izan zuenez gaiari buruzko denetariko testuak argitaratzera iritsiko da, hainbat *Euskal-Erriatik* hartuak.

Euskal diasporaz haratago, gehien argitaratu zuten hamarren artean Iparragirrerena itzuleran funtsezkoa izan zen¹⁸⁹ Argentinako espainiar diasporako *El Correo Español* (1872-1905), Enrique Romero Jimenezek zuzendua, ageri da. Eta euskal diasporak herrialde honetan izan zuen indarraren erakusgarri deigarria suertatzen da bertsolaritzaz testuren bat argitaratu zuten Argentinako egunkarien zerrenda: *Diario del Comercio*, *El Diario*, *La Prensa*, *El Pueblo*, *El País*, *La Tribuna*, *La Nación*, *El Nacional* eta euskal diasporaren *Laurak Bat*, aipaturiko *La Baskonia* eta *El Correo Español de Buenos Aires*ez gain.

Aurreko puntuan aipatu da Euskal Herritik kanpoko argitalpenen ekarpena oso garrantzitsua izan zela lehen ziklo honetan. Eta Argentinako nahiz hamar garrantzitsuenen zerrendaz haratago, aipagarriak dira Madrilgo *La Correspondencia de España* (1860-1925), hamabi testurekin, *La España*, hamaikarekin, eta *La Paz*, zortzirekin, edota *La Iberia* (1854-1898), *La Época* (1849-1936) eta bakoitza hamarna testurekin. Paris edoartzelona egunkariak ez dira kopuru horietaraino iristen baina *Diario de Barcelona* (1792-2009), *La Vanguardia*,

¹⁸⁷ Ik. 4.5.3 Manterola eta *Euskal-Erria* aldizkaria pizkundearen artikulatzaile

¹⁸⁸ Ik. 4.5.7 Pedro Mari Otaño, ahoz baino, idatziz (1857-1910).

¹⁸⁹ Ik. eranskinetan I.I.II Prentsak bideraturiko itzulera

(1881-...), *La Presse* (1836-1927) edo *Le Siécle* (1836-1932) bezain egunkari handietan argitaratuko da bertsolaritzari buruzko aleren bat. Bestalde, argitalpen exotikoagoak ere bildu ahal izan dira bertsolaritzaren hemerografia historikorako: *Wiener Zeitung* austriarra (1703-...), *Eclectic Magazine* (1844-1898) eta *The New Englander* (1884-1917) estatubatuarrek (1884-1917), *Cornhill Magazine* (1860-1975) britainiarra, *Berliner Tageblatt* (1872-1939) alemaniarra eta abar.

Iparragirreraren inguruko kontuak izaten dira, gehienetan, argitalpen guzti hauen atea ireki ohi dutenak, baina bestelakoak ere jaso ditzakete (bertsolaritzaren edo honen inguruko ikerketa nahiz libururen bati buruzko azalpenak, Bilintxi buruzko berriak, euskal lore jokoei buruzkoak, bertsolariren bat tartean daukan fikziozko lanen bat...).

Bertsolaritzaz ziklo honetan gehien argitaratu zuten medioen zerrendara itzuliaz, *Euskal-Erriaren* eta *La Baskoniaren* ondotik euskara hutsezko lehenengoa ageri da, *Ibaizabal* (1902-1903), eta haren aurrekaritzat har daitekeen *Euskalzale* (1897-1899) ere hamar garrantzitsuenetatik gertu aurkitzen da, hogeitabat testurekin.

Ibaizabalen kopuru berak eskaintzen ditu Iparraldeko *Eskualduna* (1887-1944) astekari elebidunak. *Eskualdunak*, hurrengo zikloetan sortuko diren *Gure Herria* eta *Herriarekin* batera bertsolaritzari buruzko kazetaritzaren iturburu oso garrantzitsu bat finkatuko dute Ipar Euskal Herrian, bere bidea propioa egingo duena (sinadura, gaitegi, protagonista propioekin) eta Hegoaldean testuinguru politikoa iluntzen denean erreferente nagusi izatera ere iritsiko dena. Lehen ziklo honetan, ordea, sinadurarik gabeko testu laburrak eskainiko dira gehienean, Lore Jokoen inguruko aipamen soilak, Gratien Adema *Zaldubiren* ‘Art poetique basque’ artikulu sorta eta Jean Etxepareren kronika solte batzuren salbuespenarekin.


Ipar Euskal Herritik ziklo honetan etorriko den beste ekarpen nagusia bertako Lore Jokoen berri ematen duten egunkari frantsesena izango da. *L’Avenir des Pyrénées et des Landes* (1881-1908) ezkertiarra izango da testu gehien argitaratuko duena eta *Le Messager de Bayonne* (1851-1865) eta *Le Courrier de Bayonne* (1852-1947) kontserbadoreak ere ziklo honetan gehien argitaratu duten hamar medioen zerrendan sartuko dira.

Azkenik, Hegoaldeko enpresa egunkariaren ekarpena ere garrantzitsua izango da. *Diario de San Sebastian* (1872-1887) liberal foruzalea, lehen zuzendari Manterola izan zuena, garrantzitsuenen artean bostgarren kokatuko da. Bilintxen kalbarioaren estaldura informatiboan erreferentziala izango da, eta Iparragirreri eta Donostian ospaturiko Lore Jokoei buruz ere testu mordoxka argitaratuko ditu. Gisako eredu bat jarraitzen dute baita ekarpen polita egin zuten *El Noticiero Bilbainok* eta *El Pueblo Vascok*, lehenak hamabost testu eta bigarrenak hamazortzirekin.

Zerrendatik kanpo gelditurikoen artean, ordea, *Chahoren Ariel* da gehien argitaratu zuena, 21 testurekin. Aipagarriak dira baita ere *Riev*, *Euskalerrriaren alde*, *Baserritarra* eta *Le Petite Gironde* guztiak ere hamar testutik gora argitaratuz¹⁹⁰.

¹⁹⁰ *La Voz de Guipúzcoa* eta *El Aralarrek* hamar garrantzitsuenen artean sartzeko adina argitaratu zuten kopuruz, 30 lehenengoak eta 28 bigarrenak. Egunkari gipuzkoarraren kasuan erdiak baino gehiago Otañoren joanerako diru eskaria egiteko dei soilak dira, ordea, eta naparrarenak ‘El bardo de Uribe’ folletoiaren atalak guztiak. Hortaz, biak zerrendatik kanpo uztea erabaki da.

5. grafikoa. Lore Jokoak (1851-1917) Sinadura garrantzitsuenak



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.I (Lore Jokoak datuak)

Bertsolaritzari buruzko garaiko testuen %48 sinadurarik gabe ageri da, %47 izen abizenekin edo ikerketan zehar argitu ahal izan diren izenorde nahiz inzialekin sinaturik, %3 argitu ahal izan ez den izenorde batekin eta %2 ezezagunak suertatu diren inzialekin. Sinadurarik gabekoen kopurua oso altua da, garai hartako kazetaritzan ohikoa den moduan.

Ricardo Becerro de Bengoa gasteiztarra (1845-1902) lehen postuan ageri bada, neurri handi batean Iparragirrenen kronista ofizial modura funtzionatu izan zuelako da¹⁹¹. Espainiako Gorteetan senatari, Gasteizko kronista ofizial, Fisika eta Kimikako katedratiko, Historia eta Arte Ederretako Erret-Akademiako kide... Pertsonaia polifazetikoa izan zen, garai hartako jende ilustratuaren artean nahikoa ohikoa zena. Honela, idazle, ikerlari edo ilustratzaile gisa bere kolaborazioa izan zuten argitalpenen zerrenda amaitezina da: *Euskal-Erria*, *Revista de las Provincias Euskaras*, *La Vanguardia*, *Revista Euskara*, *La Paz*, *La Iberia*, *La Mañana*, *La América*, *La Ilustración de Alava*, *El Solfeo*, *Revista de Vizcaya*, *Ateneo*... Prestigio handiko kazetaria ez ezik Araban protonazionalismoaren bultzatzaile nagusienetariko bat izan zela Fermin Herranekin batera (Aizpuru, 2000: 64).

Zerrendan bigarren agertzen den Agosti Chahoren inguruan luze eta zabal hitz egin da euskal kazetaritzaren eta bertsolaritzaren irudikapen modernoaren aitzindari gisa¹⁹². Manterolak *Diario de San Sebastianen* eta batez ere *Euskal-Erria* aldizkariaren zuzendari gisa eginiko ekarpena, Hegoaldeko lehen Lore Jokoen eragiletzan jokaturiko papera eta bertso-kronika finkatu zuen kazetari gisa izan zuen garrantzia ere azaldu dira nahikoa.

Julien Vinson (1843-1926) paristarra zen sortzez, baina 1866an Baionako Basozain Nagusi postua atera ondoren euskararen eta euskal kulturaren ikerketan murgildu zen buru belarri. Berea da bertso-saio baten lehen kronika, 1870ean *Revue de Linguistique et de Philologie comparée* aldizkarian 'Concours de Poésie Basque a Sare en 1869' izenburuarekin argitaratu zuena¹⁹³. Iparraldeko Lore Jokoen berri emaile nagusienetariko bat izango da bertako

¹⁹¹ Ik. eranskinetan I.I IPARRAGIRREK XIX. MENDEAN IZANDAKO OIHARTZUN MEDIATIKOAREN NEURRIA

¹⁹² Zerrendan doikuntza batzuk egin dira, bakoitzak buruturiko ekarpenaren argazki zehatzagoa izatearren. Honela, Chahoren Aitorren kondairaren berrargitalpenak, esaterako, ez dira kontuan hartu. Hauek gehitu izan balitzaizkio berea izango zen sinadura joriena 37 testurekin. Chahori buruzkoetan sakontzeko Ik. 4.4.1 Chahok ereindako haziak

¹⁹³ Ik. eranskinetan I.III.I Lehenengoa: Vinsonek *Revue de Linguistique et de Philologie Comparée* aldizkarian, frantsesez (1870)

egunkari garrantzitsuenekin kolaboratuz. Berea da garaiko euskal bibliografia ezaguna: 'Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque' (1891).

Zerrendako bosgarrena Francisco Lopez Alen (1866-1910) eta bederatzigarrena Antonio Arzak (1855-1904)¹⁹⁴, bederatzi testurekin zerrendan sartzeaz gelditu den Adrian Loyartekin (1882-1962) batera, Manterolaren ondoren *Euskal-Erria* aldizkariak izan zituen hiru zuzendariak dira eurak: Arzak 1884tik 1904ra, Lopez Alen 1904tik 1910era eta Loyarte 1910etik 1918ra. Antzekotasun handiak dituzte euren artean, lehen biak Donostiako Udal liburutegiko zuzendari izan bait ziren baita, eta hiruek ekarpen garrantzitsua egin baitzieten hiriko garaiko kultur bizitzari: Arzakek Orfeoiaeren sortzaile gisa, Lopez Alenek pintore modura eta Loyartek musika hamabostaldiaeren sortzaile bezala. Garaiko kulturgileei zegokion gisan hirurek egin zuten euren bidea literato gisa ere eta hainbat kultur akademiatako kide izan ziren. Donostiako Lore Jokoen antolaketa hiruak ibili ziren buru, eta Arzak eta Lopen Alen bertso-jartzaile gisa ere sarituak izan ziren.

Zerrendako seigarrenak, Wentworth Webster (1828-1907) britainiarrak, apaiz anglikano gisa atera zuen bizibidea, baina goi mailako ikasketez horniturik, Oxforden Master of Arts titulua zuen eskuratua, folklorista gisa lan itzela egin zuen bere bizi guztian zehar. 1864tik aurrera Ipar Euskal Herrian kokatu zuen bere bizilekua, eta berehala erakutsi zuen bertako kulturarekiko interesa euskal gaien inguruan buruz 'Basques Legends' (1877), 'Grammaire Cantabrique Basque' (1900) eta 'Les loisirs d'un Étranger au Pays Basque' (1901) liburuez gain Frantzia, Estatu Batuetan, Britainia Handian eta Espainian argitaratu ziren artikulu andana osatu zuelarik. Bertako intelligentsiarekin ere oso harreman onak izan zituen eta hainbat aldizkariarekin kolaboratu zuen: *Euskal-Erria*, *Euskalerraren Alde*, *Euskalzale...* Bertsolaritzaz idatzi zituen hamabi testuetatik zortzi ingelesez izan ziren, tartean hizkuntza honetan egindako lehen kronika: Londreseko *The Cornhill Magazine* 1882an argitaraturiko 'Festival among the Basques'¹⁹⁵. Websterrek, Vinsonekin batera, atzerriko begiradaren garrantzia erakusten du, hura bezala bertakotua eta euskaldundua izan arren, ez baitzuen bidaiariaren ikusmina eta ikerlariaren ezagutzeko grina uztartzen zituen begirada galduko.

Becerro de Bengoa Iparragirrenen kronista ofiziala izan bazen, beste hainbeste gertatuko da, ikusi den bezala, Antonio Peña y Goñi eta Bilintxekin. Donostiarra (1846-1896), musika kritikari gisa egin zen ezagun, Madrilgo Musika Eskola Nazionaleko irakasle izan zen eta hainbat liburu argitaratu zituen gaiaz. Zezenketen kritikari bezala ere itzal handia izan zuen, ordea, eta euskal pelotari buruzko testugintzan aitzindari garrantzitsua izan zen 'La pelota y los pelotaris' (1892) liburuarekin. Kolaboratzaile izan zuten medioen zerrenda amaitezina da.

Gratien Adema *Zaldubik* (1828-1907) hurrengo urteetan ere garrantzitsua izango den eskola bat ordezkatzeko zerrenda honetan: Iparraldetik eta bertako medio erreferentzian argitaratuz, kasu honetan Eskualduna, kultur kontuetan itzal garrantzitsua duen elizgizonarena. Bertso-jartzaile oparoa izan zen, Abbadieren Lore Jokotan hainbatetan saritua, eta bere testuen artean 'Art Poétique Basque' artikulu sorta nabarmentzen da, bertsogintzaren mekanismoak argitze aldera osaturikoa.

Zerrendako ezezagunena Ernike Elizetxea (1873-1947) izan daiteke. Bertso-jartzaile, idazle eta politikari errepublikano honek *Ibaizabalen* argitaratu zituen bertsolaritzari buruzko bere testu gehienak, tartean Joxepa Antoni Aranberrirekin neska-zaharren inguruan jarri zituen bertso batzuk zirela eta piztu zen polemika ezagunaren ingurukoak, baina baita *Euskal-Erria*

¹⁹⁴ Arzaki ez zaizkio aintzat hartu Euzkerazko Itz-Jostaldien Batzarreko arduradun gisa Donostiako Lore Jokoen deialdi gisa argitaraturiko testuetan hainbatetan jarri izan zuen sinadura. Testu berari datu batzuk baino ez zitzaizkion aldatzen (data, sarien kopurua eta abar) eta testu hauek aintzat hartzeak bere ekarpena distortsiona zezakeela begitandu da. Beste hainbeste gertatu da Toribio Altzagarekin eta Alfredo Laffitterekin.


¹⁹⁵ Ik. eranskinetan I.III.IV Lehenengoa ingelesez: Websterrek *The Cornhill Magazine* (1882)

edo *Baserritan* ere. Bertso-jarrien inguruko iruzkinak, Fernando Amezketarraren pasadizo eta ateraldiak eta kronikaren bat topa daitezke bere ekarpenaren baitan.

Azkenik, aipatu, heuri buruzko berriak ez ezik bertsolariak ere iristen direla erredakzioetara lehen ziklo honetan. Batetik, garai hartan gaiari buruzko sinadura garrantzitsu asko (Duvoisin, Otaegi, Arzak, López Alen...) Lore Jokoetan parte hartzen zuten bertso-jartzaileak ziren. Bestetik, garai hartan oihartzun mediatiko handietan izan zuten bertsolariak harreman estua izan zuten kazetariekin. Honela, Iparragirreraren itzulera prentsatik antolaturiko operazio bat izan zen. Edo Otañori joanekoan lagunduko zioten, eta nota baten bidez zabaldu zuen bere esker ona. Bata zein bestea prentsako sinadura bezala agertuko zaizkigu gainera. Iparragirrek eskutitz modura hainbat testu argitaratuko ditu medioetan bere itzuleraren inguruko gora beherak edo Gernikako Arbolaren egiletzaren ingurukoak argitu nahian. Eta Otañok bertso-jarriez gain fikzio laburren bat edota Fernando Amezketarraren pasadizoren bat argitaratuko ditu. Bi bertsolariok egunkariaren erredakzioetara eginiko bisiten berri ere badago jaso, prentsarekin izandako harreman estuaren adierazgarri¹⁹⁶. Agerikoa da bi bertsolari hauek prentsa garai hartan hartzen ari zen garrantziaren jakitun zirela, eta euren lanaren zabalkunderako baliatu zutela. Oihartzun mediatiko garrantzitsu bat izan zuen hirugarren bertsolaria, Bilintx, kazetari lanetan ibili izan zenaren zantzuak ere badaude, bere testurik topatu ez den arren.

Zikloan zehar bertsolaritaz aritu zen 156 sinadura ezberdin topatu ahal izan dira guztira. Horietatik 17 dira (%11) Bertsolaritzaen Datu Basearen arabera, bertsolari, bertso-jartzaile, antolatzaile edo epaile gisa bertso munduarekin lotura zuzenen bat izan zutenak.

4.7.3 Gertakari eta protagonista mediatikoak



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.I (Lore Jokoak datuak)

Bertsolaritzarekin zerikusiren bat izanik prentsan argitaraturiko testuen artean bertsolari zehatz bati buruzko informazioaren bat ematen dutenak, dira ohikoena, eta Iparragirre, Otaño eta Bilintx buruzkoak dira gisa honetako gehienak¹⁹⁷. Eta bertsolariaren biografia osatzen dutenei bertsolariari laguntzera bideraturiko ekimenak (Bilintxen familiari laguntza,

¹⁹⁶ *El Correo Español de Buenos Airesek* 1877/VIII/21an kontatzen du erredakzioan izan duten Iparragirreraren bisita eta *La Baskoniak* 1909/III/30 datarekin Otañorena.

¹⁹⁷ Zalantza egin da bertsolaritza buruzkotzat har daitezkeen Otañoren operari edo Iparragirreraren emanaldiei buruzkoak, esaterako, baina bertsolariaren biografia osatzeko balio dutenez aintzat hartzea erabaki da.

Iparragirreraren itzulera, Otañoren joanekoa) edo bertsolariaren omenaldi gisa buruturiko ekitaldiak (mausoleoa, kalea, urteurrena eta abar) gehituz gero testuen herena baina gehiago lirarteke gisa honetakoak.

Bigarren testu mota nagusia, kopuru osoaren heren bat kasik, Lore Jokoei buruzkoa da. Etiketa honen azpian lehiaketarako deia, izango diren sarien azalpena edo Jokoen kronika aurki daitezke. Deialdia edota sarien kontaduria xedetzat duten testuetan bertsolaritza ez da aipamen soil bat baino egingo, eta kronika gehienak bertso-saioari paragrafo bat edo pare bat eskainiko dizkioten Jokoen kronika orokorrak izango dira. Baina guztiek ematen dute bertsolaritzaaren historian sakontzeko baliagarria izan daitekeen daturen bat eta aintzat hartzea erabaki da. Baita bapateko saioaren erreferentziarik egin gabe euskarazko poesia lehiaketari buruz ari direnak ere, poesia hori bertso-jarriak direla ulertzen baita. Bertso-saioaren kronika zabalak izango dira interesgarrienak, noski, eta horrelakoa dezente bildu ahal izan da baita.

Lore Jokoetatik kanpo buruturiko bertso-saioen berri ematen duten prentsako testuak ere topatu ahal izan dira. Hauen kasuan ere batzuetan kartela baino ez da iragarriko, eta beste batzuetan festako kronika zabalagoaren baitako paragrafoa baino ez zaie eskainiko bertsolariari, baina tartean topa daitezke kronika interesgarriak ere. Saio hauei egiten zaizkien erreferentziak ez dute Lore Jokoei buruzkoek duten jarraitasunik, ez dira urtero agertzen, baina kopuru polit bat bildu ahal izan da (46 testu), Lore Jokoetan bapatekoei buruz esaten direnekin osaturik garaiko bertsolariak ezagunenak zein ziren, nolako bertsoakera plazaratzen zen, edo ze gaitegi erabiltzen zen ezagutzeko bidea eskaintzen duena.

Dezente jorratuko den beste alor bat fikzioarena izango da. Izatez, fikziozko lanak osotasun gisa harturik ez dira hainbeste¹⁹⁸, baina diren horiek folletoi gisara, atalka, eman ohi direnez eta hauetako batzuk hainbatetan berrargitaraturko direnez (Chahoren Aitor bost aldiz eta Otañoren ‘Auntza Larrera’, Agirreraren ‘Iru-erezi nahiz Benitez Osesen ‘Peruchu’ hiru aldiz bakoitz bakoitza) testu kopuru altua batuko dute. Edozelan ere bertsolaritza integratzen duen fikzioak inoiz baino protagonismo gehiago izango du ziklo honetan¹⁹⁹.

Bertsolaritzaari buruz gogoeta eta azalpena eskaintzen duten bertsoen kopurua ere kontuan hartzeko modukoa da. Chaho, Duvoisin, Bladé, Vinson, Webster, Campion, Lopez Alen, Adema, Mujika, Salaverria, Etxegarai edo Jamar bezalako sinadurak ageri zaizkigu, euskal metrikaz, euskal doinuez, euskarak errimarako eskaintzen dituen erreztasunez, bertsolaritzaaren historiaz, generoaren garrantziaz edo hutsaltasunaz eta gisako beste hamaika konturen inguruan euren iritziak eta argudioak eskaintzen.

Azkenik, pasadizo eta ateraldiak ere testu kopuru garrantzitsua batuko dute. Azaldu den bezala, Bilintx eta nagusiki Fernando Amezetarraren inguruan garatuko da genero hau²⁰⁰.


¹⁹⁸ Hau litzateke zerrenda osoa: . Chahoren ‘Aitor-Legende Cantabre’ (1845, *Ariel*), Becerro de Bengoaren ‘Señor amo imprentualista del Solfa’ (1875, *El Solfeo*), Mogelen ‘Peru Abarka’ (1880, *Beti-bat*), Ortiz y San Pelayoren ‘Episodio de un Bascongado’ (1884, *Euskal-Erria*), Zabalaren ‘Gabon gau bat Euskal-Erriko baserri batean’ (1889, *Euskal-Erria*), Vicente Aranaren ‘El Bardo de Uribe’ (1892, *El Aralar*), Txomin Agirreraren ‘Iru Ezezi’ (1898, *Euskalzale*) eta ‘Garoa’ (1907, *RIEV*), Laffitteren ‘El versolari de Aloñaga, leyenda bascongada’ (1899, *Euskal-Erria*), Otañoren ‘Auntza Larrera’ (1903, *La Baskonia*), Truebaren ‘El bardo euskaro’ (1903, *La Baskonia*), Lopez de Saáren ‘El Versolari’ (1903, *Blanco y Negro*), Loyarteren ‘El Bersolari’ (1904, *Euskal-Erria*), Lotiren ‘Ramuntcho’ (1906, *ABC*), Benitez Osesen ‘Peruchu’ (1907, *El Cantábrico*) eta d’Elbeeren ‘Un domingo en el País Vasco’ (1914, *La Baskonia*)

¹⁹⁹ Ik. Eranskinetan I.IV FIKZIOA: 1880-

²⁰⁰ Ik. 4.5.6 Fernando Amezetarraren arrakasta: (1884-)

Eta Lore Jokoetatik kanpo argitaraturiko bertso-jarrien inguruko iruzkinak eta bertsolaritza ukitzen duten liburuen iruzkinak osatuko dute gai garrantzitsuenen zerrenda²⁰¹.

Badira askoz ere modu puntualagoan landuriko beste gai batzuk ere, hala nola, Santa Eskea, bertsolari emakumeak²⁰², atzerriko gisako fenomenoak edota bertsolaritzaren inguruko hitzaldiaren iruzkina.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.I (Lore Jokoak datuak)

Esana gelditu da ziklo honetan oihartzun mediatiko handiena izan zuten bertsolariak Iparragirre, Otaño eta Bilintx izan zirela. Azalduta daude dagoeneko baita bakoitzak utzitako arrasto mediatikoaren nondik norakoak ere. Bakarrik gaineratzea Iparragirreri eskainiriko testuek beste bien baturak baino askoz kopuru handiagoa ematen dutela. Ikusgarria da Iparragirreren itzala.

Bertsolari bati buruz topaturiko zaharrenak, Etxahun Topeten epaiketen edo bere bizitzaren ingurukoak, baziren bertsolari konkretua gai nagusitzat zutenak edo gutxienez bere figurari ekarpen bat egiten ziotenak²⁰³, baina gerora, Iparragirre, Otaño eta Bilintxi eskainirikoez aparte, gutxi izango dira gisa honetako lanak. Garaian garaiko bertso jartzaile garrantzitsuenen inguruan aurki daitezke batzuk, baina nekez pasatzen da bakoitza dozena erdi testutik gora. Joan Bautista Elizanburu, Jean Duvoisin eta Felipe Arrese Beitia dira hauen artean arrasto mediatiko esanguratsuenak utzi dutenak, urte eta medio ezberdinetan argitaratu baitzen heuri buruz. Gainerakoetan heriotza zela eta *Euskal-Erria* aldizkariaren zenbaki batean omenaldi gisa eskainiriko testu sorta zen tratamendu estandarra.

Bapatean aritzen zirenen artean Jose Zapirain Irastorza *Txapillori* eskaini zitzaion horrelako bat, bertsolari lanez gain Donostian egiten ziren Lore Jokoetan epaimahaiko nahiz aurkezle

²⁰¹ Michelen 'Pays Basque sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique', Manterolaren 'Cancionero Vasco', Otañoren 'Zerbait' eta 'Alkar', de la Quadra Salcedoren 'El versolari', Uriarteren 'Aires Baskos' eta Arrese Beitiaeren 'Asti orduetako bertsozko lanak' dira prentsan iruzkindurik topatu diren gaiak ukitzen dutenak.

²⁰² Ik. Eranskinetan II.I BERTSOLARI EMAKUMEAK PRENTSA HISTORIKOAN

²⁰³ Ik 4.3.2 Etxahunen epaiketen kronikak: 'Assasinat commis par méprise' (1828) eta 4.3.3 bertsolari baten figuraz lehenak: Jean Baptiste Chahok Etxahun (1838)

gisa edota *Euskal-Erriaren* kolaboratzaile gisa ere ezaguna zelako²⁰⁴. Bertsolarien tartekoa bezain beste izan zen Zapirain garaiko kultur gizonen zirkulokoa.

Bertso jartzaile hauek edota Zapirainek baino aipamen gehiago dituzte Pello Errotak, Txirritak edota Jose Bernardo Otañok, guztiak ere bertsolari eskolatu gabearen garaiko irudi klasikoaren jitekoak. Gehienetan Lore Jokoetan edo bestelako bertso-saioren batean izandako parte hartzearen aipamen hutsa baino ez da egiten, ordea, kronika labur bateko lerro pareta. Salbuespena, azaldu den gisan, Pello Errota litzateke. Garaiko bapateko bertsolari loriatuena izanik zenbait kronika zabaletan dezenteko tartea eskaintzen zaio. Asteasukoa eta Fernando Amezketarra dira kopuruz Otaño eta Bilintxen ondotik bertsolaritzaren garaiko protagonisten hirugarren lerroa osatzen dutenak.

Artistaren garrantzia eta honek medioetan izandako oihartzuna ez dira beti eskutik joaten, eta garai hartan, euskal kultura eta prentsa elkar ezagutzen hasi berriak baino ez zirenez, gisako diskordantziak are errazago eman zitezkeen. Honela, orduko bertsolari handienetako batek Frantzisko Petrirena Xenpelarrek (1835-1869), ez zuen, *Ibaizabal* aldizkarian argitaraturiko bertso-sorta batzuetatik haratago, inolako arrastorik utzi. Gazterik hil izan ez balitz, Hegoaldean bertsolaritzarekiko interesa bizkortu baino urte gutxi batzuk lehenago, eta Pello Errotaren adin beretsukoa izanik, hark bezainbesteko arrastoa uz zezakeela pentsa daiteke. Bertso paperetan erakusten duen bikaintasuna ikusirik baita garrantzitsuagoa ere. Baina gazterik hil zen eta herriaren gogoan gordeta iraungo zuen bere figurak prentsan hurrengo zikloan azaleratzeko.

Alderantzizko kasuak ere topa daitezke, alegia, gerora ahanzturan galdu diren arren garai hartan prentsak garrantzia bat eman zien bertsolarien kasua. Eta kasu hauek ere interesgarriak dira, prentsa historikoaren gaineko ikerketak bertsolaritzaren datu base historikoa osatzeko daukan potentziala erakusten baitute.

Honela, Jose Manuel Imaz bertsolariari buruz, adibidez, egun, Bertsozale Elkartearen Bertsolaritzaren datu-basean topa daitezkeen izen abizen soilak, bertso sorta bat eta berak plazaratua behar duen bertso doinu bat baino ez da ezagutzen²⁰⁵. *El Nervión* egunkariak, ordea, bere heriotzaren berri ematen digu, 1909ko maiatzaren 27ko zenbakian, lehen orrialdean, galerna batek eragindako hildakoen kontaduriaren baitan: “Del bote ‘San Francisco’ que naufragó entre Deva y Zumaya: José Manuel Imaz, soltero de 32 años, versolari; deja madre viuda”. Beraz, Imaz 1877an jaio zela, 1909an hil zela eta ogibidez arrantzalea zela gehitu daiteke datu-baserako.

Jose Zubiriak ere ez du sona handirik gorde. BDBan izen abizenak eta bertso doinu bat daude jasota, ez besterik. Garaiko prentsan oihartzuna izan zuen, ordea. Bere heriotzaren berri ematen dute *La Correspondencia de España*, *El Globo*, *La Unión* eta *Crónica de Cataluña* egunkariak, lehenengoak 1884/V/04 datarakin eta beste hiruek biharamunean. Denek aipatzen dute Durangoko ospitalean hil zela baina *Crónica de Cataluña* xehetasun gehiagoz:

“Este lunes 28 del mes próximo pasado y hora de las cuatro de la tarde, llegó á esta villa, en carruaje particular, procedente de la inmediata de Eibar, el

²⁰⁴ 1914ko *Euskal-Erriaren* bigarren zenbakian Adrián Loyarte, Joaquín Muñoz Baroja eta J. Bengoetxeak artikulua bana eskaini zioten eta sinadurarik gabeko beste bi ere jasotzen ziren. Aldizkariak haratago iritsi zen ordea bere heriotzaren oihartzuna: *El Pueblo Vascon* (1914/VIII/28) Gabriel María Laffitekin sinaturiko ‘José Zapirain’ eta Alfredo Laffitekin (1914/IX/01) sinaturiko ‘El veterano Chapillo ha pasado a mejor vida’, edota *Berrizalek Euskalerrriaren Alde* aldizkarian (1914/VIII/30) argitaratu zuen ‘José Zapirain’.

²⁰⁵ Helbide honetatik berreskuratua: <http://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/3399-jose-manuel-imaz> [2018/IV/13]

popular bardo vascongado, compañero del inmortal Iparraguirre, D. José de Zubiria, pero vino en estado de postración, que mas que persona parecia cadáver (...) A la mañana siguiente se le dieron los santos sacramentos, y á las dos de la madrugada de este dia ha entregado su alma al Creador. ¡Dios le tenga en sú santa gloria! Ha muerto en la mayor miseria, pues no se le ha encontrado ningun dinero, lo único que ha dejado es algunas ropas de su uso y el reloj (...)"

Bertsolariari buruzko arrasto interesgarri gehiago ere topa daiteke. Honela, *Revista Euskarak* Iparragirrekin zuen loturaz dihardu, bide batez bapatean ere aritzen zela aditzera emanaz: "(...) su querido e inseparable compañero, el cantor e improvisador Zubiría, que acudió a su lado cuando aquél ya no existía, acompañó llorando los restos de José Mari, desde el caserío de Sosabarro hasta el Camposanto de Villarreal de Urrechu" (*Revista Euskara*, 1881, IV. liburukia, 122 or). Edota *Euskal-Erria* aldizkariak miserian hil baino urtebete lehenago Isabel erreginaren aurreran kantatzera iritsi zela eta Iparragirre karlistaren laguna liberala zela azpimarratzen du:

"D. Antonio de Egaña tuvo el honor de poner en las Reales manos un zortzico que el bardo D. José Zubiria habia dedicado á S. M. y de traducir al castellano sus estrofas en bascuence. D^a Isabel se mostró muy complacida por aquel obsequio y, queriendo conocer á su autor, mandó llamarlo é hizo que cantara el nuevo zortzico (...) El Sr. Zubiria fué objeto de señaladas distinciones por parte de D^a Isabel, quen le significo su nunca desmentida liberalidad. Antes de partir le encargó, con grande empeño, que le remitiera la letra del ¡Adios! en castellano." (*Euskal-Erria*, 1883ko uztaila, 325 or.)

Hirugarren eta azken adibide bat ematearren, Jose Antonio Zugasti *Ixkina*, ez da datu basean ez beste inon ere agertzen²⁰⁶, baina bere heriotzaren berri ematen dute *La Libertad* eta *La Justicia* egunkariak 1890/XII/26 datarekin. Bigarren honek soslai oso bat eskaintzen du gainera 'Un hijo del pueblo' izenburuarekin:

"En Guipúzcoa ha muerto un hombre popularísimo, ingenioso versolari. Era José Antonio Zugasti Ishquiña, un donoso hijo del pueblo que, sin instrucción ninguna componía romances originales que eran muy celebrados cuando los cantaba en público, improvisándolos en muchas ocasiones.

Desde que hace lo menos veinte o más años, el Ayuntamiento de San Sebastián construyó (...) un modesto frontón donde lucían sus habilidades los célebres rebotistas Cashca-chri, Belarri y otros, dedicosé al oficio de corredor, y en el mismo oficio le ha sorprendido la muerte.

Era de un carácter tan alegre y tenía ocurrencias tan felices que su presencia era reclamada en las fiestas populares. En Bilbao era también conocido.

Su muerte ha producido en San Sebastián sentimiento general, porque gozaba de generales simpatías."

Zapirain bertsolariak idatziriko testu bat ere badakar *Euskal-Erriak* 1911 urtean²⁰⁷, 'Alkandora' izenburupean Ixkiña hil zenetik hogeitertietatik gora igaroak izan arren, bera eta Pello Errotaren arteko saio bat gogoratzen zuena. Lehen lerrotik bertatik da benetan kurioa: "Ez ziran oraindik sortu aidian ibiltzeko pisti berri oyek; bañan alaz guztiz, sagardo ona

²⁰⁶ Aipamen bakarra topatu da, Zavalaren Bilintxi buruzko liburuan honek 'Anton Iskiña' dalako bati jarritako bertso sorta dela eta (Zavala, 1993c: 67)

²⁰⁷ *Euskal-Erria*, 1911 urtarrila, 479 or.. 'Alkondara'. Zapirain, Jose.

nonbait asten zanian, urruti samar izanagatik, nola edo ala alderatzen ginañ”. Topaketaren berri ematen du jarraian: “Ala arkitu nitzan bein, eta arkitu ziran nerekin batian, Pello-Errota eta Iskiña, Billabona-ko erriyan, sagardo gain gañeko baten upel onduan. Etzan arritzekua alako tokiyan alako jendiakin arkitzia. Noiz nai ere, elizan baño sagardotegiyan geyago ikusten ziran”. Eta Ixkiñaren jitea zirriborratzen du hurrengo lerroetan: “Iskiña oitu bezela zegon panparroi; Donostiyan, erderazko itzakin euskeraz esan oi dana: “veintico baño dotoriago”. An zebillen bat chuliatu, bestia zirikatu, jende guztien bizkar far eragin azitzen”. Pello Errotaren topo egin eta bertsoan hasten diren arte: “Ontan ikusten du Pello, eta bere aldamenian nola baldar samar iruditu zitzayon; zezen-iltzaliak zezenen aurrian jartzen diran bezela, zuzen eta arro jarririk, ara zer esan ziyon ez bat eta ez bi (...)”.

Bina bertso jasotzen ditu Zapirainek, hainbat xehetasun tartekatuz: “Laster erantzun ziyon Pello-k Iskiña-ren aterakai orri. Ez zuben liburu zarrak biribiltzen lanik izan. Iskiñak azkeneko itza esan ordurako, abua ichi baño len; onla erantzun ziyon Pello-k “(...). Eta garaiko bertso kronika gehienek egiten duten bezala Pello Errotaren gaitasuna azpimarratuz: “Zuriya edo beltza, lisibetan sartu gabe, aguro astindu zuben Pellok. Panparroi bazegon ere, aterazizkan chuliatzeko gogouak. Ez da errotariya lenbizikuan eta bigarrenian ere, mutututa gelditzen danetakua”.

4.8 PROIEKTUA: KULTURA POPULARRAREN DESKUBRIMENDUA

4.8.1 Nortasun modernoaren ikur eta ideologia modernoaren erroale

Euskal Herriaren jatorrizko independentzia irudikatzen duen balizko Urrezko Aro batean kokatzen du Chahok Aitorren kondaira. Ohiko ariketa zen iraganaren erreferentzia hau garai hartan Europan zehar loratzen ziren nazionalismoen mitoetan:

“(…) se vuelve a ese pasado con una serie de mitos: mitos de orígenes y linaje, mitos de liberación y emigración, mitos de la edad de oro y de sus héroes y sabios, y, probablemente, mitos del pueblo elegido que va a renacer tras haber pasado un largo periodo de letargo que lo llevó a la decadencia o al exilio. Todos estos mitos-motivo (myth-motifs) juntos conforman una amalgama de mitos nacionalistas y un drama de salvación” (Smith, 1997: 59)

Idazle zuberotarrak bertso-saioak jartzen ditu gerra osteko ospakizunetako ikuskizun nagusi gisa eta taulatu gainera euskaldunen patriarka igoarazten du, bakarkako ariketan euskaldunen jatorriari buruz kantatu dezan. Bertsoaritzaren elementu garrantzitsu bat da, bada, Chahoren mitoan eta horrela erreparatzen dio Madariagak ere:

“La recuperación de la libertad nacional se vincula en Chaho a la cultura y la lengua en el rasgo que se supone más genuinamente vasco: el de la oralidad (...) La vindicación de lo oral, plenamente romántica, seña de identidad, proclamaría la nobleza y voluntad nacional de los vascos.” (2008: 90)

Lore Jokoak Iparraldean bakarrik antolatu ziren bitartean bertsoaritzaren ikur izaera hori nahiko oharkabean pasa zen bertako prentsako testuetan. Hegoaldera pasatzerako, ordea, Aitorren kondairak ere muga zeharkatu berria zuen: Francisco Navarro Villosladak eleberrigisa argitaraturiko kondaira berri batean, ‘Amaya o los vascos en el siglo VIII’ txertatu zuen (1877), Campionek Chahoren testuaren gaztelerarako itzulpena argitaratu zuen *Revista Euskara* aldizkarian (1878.), eta Juan Mañe y Flaquerrek Euskal Herritik kanpora ere zabaldu zuen ‘El Oasis. Viaje al País de los Fueros’ lanarekin (1879). Harrera beroa egin zitzaion kondairari.

Ameriketatik itzuli berria zen Iparragirre ere (1877). 1853an ‘Gernikako arbola’ sortu zuenetik ‘euskal askatasunen bardoaren’ mitoak dimentsio nazional bat hartua zuen eta itzulerak izandako oihartzun mediatikoak azpimarra berezia jarri zion. Hezur haragizko ikurra eta fikziozkoa elkarren eskutik agertu ziren, bada, eszenan²⁰⁸.

Beste hainbeste gertatuko da ‘Peru Abarka’rekin ere: Mogelek mende hasieran idatzi zuen arren, Iparragirren itzulera eta Aitorren itzulpenarekin batera agertuko da lehen argitalpena (1881). Baserritarren berezko jakinduriaren balioan azpimarra jartzen zuen basati onaren bertsio euskaldunak ere oso harrera ona izan zuen, eta azkar ikusi ziren bertsolarien berezko bizkortasunarekin egin zitezkeen paralelismoak²⁰⁹.

Mende haseratik euskal erakundeek eta euskarak jasandako oldarrak kezka eta erantzun beharra zorroztuak zituen, eta, Europatik iritsitako Erromantizismoaren haizeek eta interes etnologikoak hauspotuta, diskurtso etnonazionalista bat gorpuzten hasia zen ordurako:

“Se tiende a adscribir la narrativa nacional vasca a la mitología de Sabino Arana y sus seguidores. Pero la base genuina del despertar de los vascos a la idea de que ellos se merecen una historia propia hay que buscarla, en general, en los discursos de los apologistas, lingüistas y finalmente antropólogos de generaciones anteriores.” (Zulaika, 2000: 39)

Europako hizkuntzalaritzak eta antropologia fisikoak kontinenteko indigena gisa identitate moderno bat eskaini zien euskaldunei eta bertako *intelligentsiak* bertsolaritzari toki garrantzitsu bat egin nahi izango zion identitate horren garapenean. Izan ere, iraganarekiko erreferentzia funtsezkoa zen nazioaren eraketan²¹⁰ eta bertsolaritzak oso antzinakoa behar zuen. Bestalde, euskal erakundeen gainbeherarekin, komunitatearen subalternitatea inoiz baino nabarmenago bistaratu zen garaian, inork baino hobeto ordezkari zitezkeen bertsolaria bezalako ertzeko figura batek²¹¹, Chahok proposatu eta Iparragirreraren kasuak erakutsi zuen bezala. Bertsolaria eszenara igota herriaren ahotsa goititzea lortzen zen batetik, eta bestetik, Gabilondoren arabera, Europako indigena gisa estreinaturiko nortasun modernoa berresten zen fenomeno kultural aurremodernoari fokua jarrita:

“The fact that the bertsolari did not embody any political order, given his or her subalternity, but at the same time, bore witness to the language and oral literature of a “primordial” Basque Country, made him or her the perfect representative of a nation and culture still to come.” (2016: 197)

²⁰⁸ Iparragirreri eskaini zaion azpiatalean Chahok Iparragirre Aitorren kondaira idazten ari zela ezagutu zuela eta fikziozko pertsonaiak urretxuarraren hainbat ezaugarri dituela seinatu da. Ik. 4.4.4 Iparragirre, lehen bertsolari mediatikoa (1820-1881). Bestalde, Iparragirreraren itzulerak izandako dimentsio mediatikoa, eta urretxukoaren ikur izaera eranskinetan jorratu dira. Ik. I.I IPARRAGIRREK XIX. MENDEAN IZANDAKO OIHARTZUN MEDIATIKOAREN NEURRIA

²⁰⁹ ‘Peru Abarka’-ren inguruko gora behera guztiak eranskinetan jorratu dira. Ik. I.IV.I Juan Antonio Mogelen ‘Peru Abarka’ *Beti-Bat* egunkarian (1880). Bertsolaria eta basati onaren arteko lotura goiztiarrena bertsolaritzaren historiako lehen lerroak idatzi zituen Iztuetaren ekarpenen artean aipatu da.

²¹⁰ Etnosinbolismoaren arabera nazio ororen eraketan zaindu ohi da iraganarekiko lotura hori: “Komunitate senidetza lortzeko oinarritzko denbora erreferentzia iragana da. Iraganak antzinatasuna ematen baitio taldeari, eta haren birjabetzak aitzineko belaunaldienganako jarraitutasun sentimena eskaintzen du” (Gandara, 2015: 151).

²¹¹ Iritsi zaizkigun biografietan, Fernando Amezketarrarena, Etxahunena, Pello Errotarena, Txirritarena eta abar, argi ikusten da subalternitate hori. Eta bestelako kultur maila bat zuten figurek ere, zenbaitetan klase altukoaren artean ere prestigio bat irabaztera iritsi arren, gertuago ibiliko dira euren bizi esperientzietan ertzekotasunetik hegemoniatik baino: Iparragirre, Pedro Mari Otaño edo Iztueta bera.

Bestalde, garaiko bertsoetan jorrotzen ziren gaiek ere subalternitatea zuten marka nagusi: “When the entire corpus of bertsolarism in the 19th century is analyzed, it is clear that its main concerns have to do with the conditions of subaltern, rural peasants and villagers, from farm evictions and economic migration overseas to murder, alcoholism, and military draft.” (Gabilondo: 196-197)

Bidartek ere esanahi bera esleitzen dio Lore Jokoetan bertsoaritzaren inguruan eratu zen ikurrari: “Par les “fêtes basques”, pour la première fois, l’expression orale, incarnée dans l’acte d’improvisation, est érigée en symbole du populaire primitif basque (...)” (1998, 275). Eta bertsoari bidez eginiko iraganarekiko lotura etnonazionalistaren sorburua Chahoren mitoan ikusten du berak ere: “(...) la position d’Augustin Chaho, le républicain “illuminé”, qui décèle, on l’a vu, une continuité historique entre les temps primitifs, celui des Voyants – dont témoigne la pratique de l’improvisation-, et les temps présents” (id.: 267).

Nortasun modernoaren ikur gisa ez ezik ideologia modernoaren erroale gisa ere funtzionatuko du bertsoaritzak. Azaldu den gisan Gerrate Karlistetan karlisten nahiz liberalen propagandarako bitarteko gisa eman zen bertso-paperean loraldia²¹², eta Lore Jokoetan ere bertsoari apologia bilatzen zuten gaiak (euskara, ‘Zazpiak bat’, bizitza tradizionala eta abar) jarri ohi ziren askotan. Zentzu honetan Jokoek abertzaletasunaren idearioaren sorreran izandako garrantzia aipatu izan da: “D’Abbadie fue, este sentido, el principal impulsor del ‘Zazpiak bat’, mucho antes de la aparición del nacionalismo político” (2001: 33).²¹³.

Edozelan ere, ikur izaerari erreparatuko dio gehiago bere testuetan garaiko *intelligentsiak*, ideologiaren erroale gisa izan dezakeen balio instrumentalari baino.

4.8.2 Bilketa eta hedabideratzea

Bilketa izango da bertsoaritzaren inguruan ikusiko den lehen eginbearra. Erromantizismoak egindako kultura popularraren bilketarako deiaren oihartzuna XIX. mende haseran Iztuetarengana iritsia zen: “Erbestearrak berak ematen digute biderik aski, geren jostaketak itzkribuz aundizkatzeko ez ezik, biotzez ongitxo maitaturik, naierara gozaten ditugula, gordakiaitzeko ere (...)” (1990: 147). Bi urtetara ‘Euscaldun anciña ancina ta are lendabico etorquien on iritci pozcarri gaitzic gabecoen soñu gogoangariac beren itz neurtu edo versoquin’ (1826) argitaratuko du eta bere ondotik euskal kulturak urte hauetan izandako eragile garrantzitsu gehienek egingo dute euren ahalegina:

“Bertso paperen ugaritasuna eta eskea ikusita, bati baino gehiagori gogoratu zitzaion bilduma bat egitea. Horien artean izen hauek aipa daitezke: Bonaparte printzea, berak jasotako bertso inprentatuak gaur Chicagon aurkitzen direlarik. Beste bilduma bat, Chahok hasi eta Lacombe osatu zuena, eta gaurregun T. Monzonen etxeok dutena. Beste bat, D’ Abbadiarena, gaur Parisen gordetzen den sorta. Jose Manterolak ere bilduma ederra utzi zigun, karlisten bigarren gerarteko bertsoan oso aberatsa” (Lekuona, 1985: 464)

Lan horri ekiteko arrazoiak azaltzerakoan Iztuetak norbere kultura goratu beharra aipatzen du: “Greziatarrak bezalako gogo balute Euscaldunak beren jaioterriko usuario gogoangariak itzkribatzeko, gaurko egunean aurkitzen diraden baño apainduagoak, indarsuagoak, eta goragotuagoak egongo lirake gure jostaketa gozatsu, banaita, atsegingarriak (...)” (1990: 147). Chahok, aldiz, bapateko bertsoaritzak berezkoa duen izaera galkorra seinalatzen du: “(...) les productions de la Muse nationale, après être restées gravées quelque temps dans des mémoires privilégiées, se perdent sans retour au bout d’ un petit nombre de générations”²¹⁴. Eta Manterolak, hamarkada batzuk beranduago, proiektuak beste garapen maila bat duenaren adierazgarri, azalpen zabalagoa eskainiko du:

²¹² Ik. 3.5.3 Bertsoaritzaren garrantzia lehen euskal pizkundean

²¹³ Ik. 4.5.2 Campionen ‘Euskar’ak eta Donibane Lohitzuneko ‘Zazpiak bat’

²¹⁴ *Trilby, journal non politique*, 5 zbkia (1844/VIII/11). ‘Chants Basques’.

“El estado de postración á que ha llegado en nuestros días la hermosa lengua euskara, merced entre otras causas, á la culpable indiferencia con que el mismo país vascongado (...) unido al completo desconocimiento que existe de nuestra especial literatura, muchas de cuyas producciones, dignas ciertamente de ser estudiadas, por el sabor especialísimo que las caracteriza, se han perdido unas, y yacen otras en el más completo olvido, me hicieron concebir la idea de intentar (...) un noble esfuerzo en pró de la rehabilitación del maravilloso idioma (...) y en favor de la conservación y el desarrollo de nuestra propia y especial literatura.” (1877: 7-8)

Bertsolaritzak ikur identitario gisa hasiera batean zeukan potentziala eta gerora hartu zuen indarraren erakusgarri, hiruek aipatzen dute euren ekarpenak ‘eraikuntza nazionalarekin’ izan dezakeen zerikusia. Iztuetak, mende hasieran, tentu gehixeagorekin: “(...) coleccion que ofrezco al público, y qué no debe mirarse solo como un objeto de pasatiempo, sino como un verdadero monumento nacional que tiene y debe tener mas importancia que la que acaso á primera vista, aparece” (1826: 8). Chaok, lotsagabeago: “C’ est pour dérober à ce grand naufrage ce qui nous reste encore de nos chants nationaux et de notre mélodie primitive que nous avons résolu de hasarder cette publication (...)”. Eta Manterolak zuzenean bere egitekoa abertzaletzat hartuz: “Encariñado con tal proyecto, que cada día que pasa me parece más útil y patriótico, me he dedicado durante muchos meses al estudio de las producciones literarias en lengua euskara, y muy especialmente al de nuestra poesía popular (...)” (1877: 8).

Europa mailan eman zen fenomeno bat izan zen kultura popularraren bilketarako grinarena Burkek azaltzen duenez, eta galtzear zen mundu bat gordetzeko ahalegina ikusten du mugimendu Erromantikoak buruturiko lanketa horren atzean:

“La cultura popular hacia 1800 fue descubierta en el momento justo, o al menos así lo creían sus descubridores. El tema de una cultura en vías de extinción, que debía recuperarse antes de que fuera demasiado tarde para recurrir a sus escritos, nos muestra una cierta similitud con el interés actual por las sociedades tribales en proceso de extinción.” (1991: 52)

Euskal kulturaren kasuan, gutxiagotua eta nagusiki ahozkoa izanik, kezkarako motiboak are nabarmenagoak ziren eta horrela ikusi zuen bertsolaritzarengandik urrunago mugitu ziren biltzaileek ere. Honela, hainbatek jaso zituzten bertsoak euren lanetan: Francisque Michelen ‘Le Pays Basque’ (1857), Julie Adrienne Carricabururen ‘Souvenirs des Pyrénées’ (1869), Pierre-Henri Lamazouren ‘Cinquante Chants Pyrénéens’ (1869), Julien Sallaberryren ‘Chants Populaires du Pays Basque’ (1870), Charles Bordesen ‘Uskal Noelen Lilia y de Dix cantiques populaires basques en dialecte souletin’ (1897) edota ‘Douze Chansons Amoureuses du Pays Basque’ (1898), eta Jaurgainen ‘Quelques légendes poétiques du pays de Soule’ (1899).

Bertso bilketa zabal eta sistematiko bat burutzeko ideia gero indar handiagoa hartuz joan zen mendeak aurrera egin ahala, eta mende bukaeran ardura horretarako Pedro Mari Otaño bertsolariari lanpostu bat eskaintzen zion proiektua ere planteatu zen, porrot egin bazuen ere:

“Malen eta Pello Marik Argentinara joateko zituzten asmoen zurrumurruak zabaltzen hasi zirenean, zirrara kolektibo bat sortu zen gizartean. ‘Alkar’ liburua, 1895ean, argitaratu ondoren, Pello Mariren obra jendearengana heldu eta berarentzat lan postu bat sortzeko proiektua proposatu zen, hau da, bertso eta abesti herrikoiak letrak bildu, batu eta argitaratzea. Ideiak, ordea, porrot egin zuen. Lanbide hartarako pertsona egokia ez zen nonbait. Horrela kontatzen du *La Baskonia* aldizkariak: “...se pidió a la Diputación de Guipúzcoa que creara una plaza de recopilador de cantos populares... pero los diputados carlistas no podían hacer nada por el poeta que era liberal y los

diputados liberales no podían hacer nada por el poeta que era un desordenado...” (Hernandorena Kultur Elkarte, 2010: 115)

Lehen ziklo honen baitako proiektuaren beste ardatz bat, hedabidetzearena, oso goiztiarra izango da, baita, eta hain zuzen ere bilketarekin lotuta bistaratuko da hasiera batean. Bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren historiaren abiapuntua, zaharragoak diren ale solte batzuk prehistoriatzat hartuz, 1845ean jarri da, urte horretan argitaratu baitzituen Chahok bere kantutegiko bertso-sorta iruzkinduak eta Aitorren kondaira eta Hegoaldean ere urte horretan topatuko baitira prentsan bertsolaritzaren lehen aipamenak.

Era berean, bertsolaritzaren presentzia mediatikoak ziklo honetan bizi izandako gailurrean, *Euskal-Erria* aldizkariak eskainiriko arreta berezia funtsezkoa izan zen, eta aldizkari honek argitaraturiko kronikak izan ziren ziren kazetaritza ikuspegitik gailur honen ekarpen esanguratsua. Aldizkari horren zuzendaritzan eta kronika horien sinadura nagusi gisa beste bertso biltzaile garrantzitsu bat topatzen dugu, Jose Manterola. 1877 eta 1880 artean argitaratu zuen bere ‘Cancionero Vasco’-a eta eragile garrantzitsu bat izan zen Donostiako Euzkerazko Itz-Jostaldien Batzarrearen lehen antolatzaileen taldekoa²¹⁵.

Bistakoa da bertsolaritzarekiko kezka berezi bat erakutsi zuten figura hauek bi eginbeharrak ikusi zituztela garbi: bai bilketa eta baita hedabideratzea ere.

Ez ziren bertsolaritza prentsara eramateko ardura bere gain hartu zuten bakarrak izan eta ezta *Ariel* edota *Euskal-Erria* horretarako erabili ziren plataforma bakarrak ere. Buruturiko ikerketa kuantitaboan 156 sinadura ezberdin aurkitu dira, 163 hedabide ezberdinetan argitaratuak, eta zerrenda horretan proiektuarekin konprometitua zegoen hainbat lagunen izenak topa daitezke, Jokoetan epaimahaiko, antolatzaile edo bertso-jartzaile bezala parte hartutakoak guztiak: Vinson, Herran, Campion, Otaegi, Arzak, Lopez-Alen, Zapirain... Pedro Mari Otaño edo Jose Mari Iparragirre gisako figurek ere oso garbi zuten prentsak euren bertsoak zabaltzeko izan zezakeen garrantzia, harreman handia izan zuten garaiko kazetari nahiz eragileekin eta bertsoak ez ezik hitz-lauzko testuak ere argitaratu zituzten.

Bereziki esanguratsua begitandu da Jean Duvoisinin kasua. Iparraldeko Lore Jokoetan Abbadie izan zen figura zentrala, berak abiarazi zituen, berak jartzen zuen sarien dirua, bera gurtzen zuten euskaldunen patriarka gisa, baina Lore Joko haien inguruan mugitu izan zen jendearen posta-trukearen azterketatik antolakuntzaren zamarik handiena Duvoisinin gain ezarri ohi zuela ikus daiteke (Aizpuru, 2000: 61; Davant, 2012: 90). Antolakuntza horren baitan egun komunikazio arduradun deitzen zaionaren papera ere gauzatu duela ikus daiteke ikerketa kuantitatiboan bilduriko testuei erreparatuaz gero: Lore Jokoak Iparraldean bakarrik jokatu ziren lehen fase horretan prentsan argitaraturiko testu gehienak Davanten sinadura daramate. Proiektua hedabideratzeari ematen zion garrantziaren beste zantzu esanguratsu bat Lore Jokoei buruzko aldizkari bat argitaratzeko egin zuen planteamendua litzateke²¹⁶.

4.8.3 Praktika modernoaren sustapena

XIX. mende hasieran praktika kultural aurremoderno bat da bertsolaritza. Modernitateak ez dio arretarik jarri, Labordek aipatzen duen gisan ikusezina da kasik, paisaiaren baitako elementu bat:

²¹⁵ Ik. 4.5.3 Manterola eta *Euskal-Erria* aldizkaria pizkundearen artikulatzaile

²¹⁶ Ik. 4.4.3 Iparraldeko Lore Jokoen estaldura eta aldizkari baten proiektua

“L’improvisation orale est une manière de disputer publiquement, une manière de rapporter des événements, de les commenter, une manière de se divertir, une manière de se quereller, une manière d’accompagner des danses... Mais, contrairement à ce qui se produira à la fin du siècle, nul ne songe alors à faire de cette situation courante de la vie quotidienne un trait culturel chargé de caractériser une culture menacée ou un moyen d’alimenter en productions orales une langue fragilisée par des formes de domination politique (...) C’est en ce sens qu’il faut comprendre qu’elle se fonde dans le paysage.” (1998: 603)

Mendearen azken alderako, ordea, dezente aldatu dira gauzak:

“Ce qui se produit, peu à peu, et de façon accélérée dans le dernier tiers du XIXe siècle, c’est l’émergence d’un nouveau type d’attention que l’on porte à l’improvisation orale. A travers des processus sociaux diffus, difficilement localisables, l’improvisation poétique est repérée, nommée, c’est-à-dire déplacée, portée sur scène, mise en spectacle. Des tours de parole sont définis, des critères d’évaluation sont élaborés: un dispositif de représentation est mis en place.” (Laborde, 1998: 603)

Foruen galerak eragindako erreakzio kulturalistaren baitan euskal literaturaren garapena lehentasunezko kezka bihurtuko da, eta bapateko bertsolaritza literatur genero gisa lantzeko ahalegina ekarriko du honek: “Rendre la notion de littérature plus accueillante, c’est, en même temps, légitimer l’inscription de l’improvisation orale en son sein. La porte est étroite, certes, mais elle s’entrouvre” (id.: 607).

Aurreko atalean azaldu da kultura popularra ikuskizun moderno bihurtzeko joera hori Europa mailan eman zen fenomeno bat dela Burkeren arabera²¹⁷. Eta Smithek berresten du ideia:

“(…) los beneficiarios de este retorno a una etnohistoria reconstruida son los miembros de la ethnía movilizada, porque en el proceso de movilización vernácula su status cambia completamente: no sólo porque se ponen en marcha y dejan de ser objetos pasivos de una dominación externa, sino más concretamente porque los intelectuales historicistas se apropian en cierto modo de su cultura folclórica y la elevan a la categoría de cultura literaria ‘superior’” (1997: 118).

Euskal Herrian prozesua nola eman zen luze eta zabal azaldu da, Abbadieren Lore Jokoekin abiarazi zela eta gailurra Joko hauek Hegoaldera pasatzean lortu zela erakutsiaz²¹⁸.

Bertsolaritzari literatur genero estatusa eman nahi bazitzaion emanaldiak gisako sorkariekin izan ohi zituzten parametroetara egokitu beharra tokatzen zen. Honela, azaldu den gisan, Abbadiek frontoira eramango du lehenengo eta Hegoaldean antzokietara lekualdatuko da ondoren. Helburu berarekin beste hainbat aldaketa ere burutu ziren, ordea, mende haserako desafioen eta Lore Jokoetako sariketen arteko alderaketa eginaz Pello Esnalek aletzen dituenak. Honela, ezberdintasun formal gisa, gai jartzailearen presentzia eta bertsolari kopuru altua azpimarratzen ditu: “(...) desafioetan ez zegoen gai emailerik, gai jartzailerik, eta ez inor, beraiek hasi, beraiek bukatu, beraiek segi, beraiek gaia aldatu, (...) sariketatan gai jartzaile bat behar dute, bederatzai baitira parte hartzen, edo hiru, eta norbaitek banatu behar ditu gaiak” (Esnal, Egaña eta Sarasua, 2002: 809). Bigarren ezberdintasuna, jarduneko ezberdintasun gisa izendatzen du: “(...) Sariketa datorrenean, jarduna aldatu egiten da;

²¹⁷ Ik. 3.4.2 Kultura popularra ikuskizun moderno

²¹⁸ Zikloaren oinarria eta gailurrari dagozkion azpipuntu guztietan jorratzen da gai hau, baina arreta berezia jartzen zaio ondokoetan: 3.5.4 Bertsolaritzaren lehen praktika modernoak, 4.4.2.3 Planteamendua eta ekarpena eta 4.5.4 Frontoitik antzokira, aipamenetik kronikara

bertsolariak hasten dira ez beraien artean, baizik eta jendeari begira” (id.: 809). Epaietarako irizpideetan ere ikusten du ezberdintasuna: “(...) Desafioetan ez dira forma eta mamia bereizten, (...) Kontua da batak bestea mendean hartzea (...) ahari jokoan bezala (...) Sariketetan, ordea, bestelako irizpidea erabiliko da: zeinek hobeto egin bertsoetan, zeinek egokiago erabili euskara” (id.: 809). Honek, halaber, epaimahaiaren konposizioa aldatzea dakar, desafioan bertso kontuetan aditua baino ez zena sariketetan literatura eta hizkuntza kontuetan jantzia izan beharko baitu. Villabonako 1802ko desafioan epaileak Fernando Amezketarra eta Aizarnazabalgo sakristaua izan zirela seinalatzen du Esnalek, biak analfabetoak, eta 1881eko Irungo Lore Jokoetan edota 1893ko Azpeitiakoetan epaimahaian Arturo Campion, Resurrección María Azkue, Txomin Agirre edota Felipe Arrese Beitia eseri zirela azpimarratu : “Gogora dezagun lau kidez osatuta jaio zela Euskaltzaindia 1918an; lau kide horietatik bi, Arturo Campión eta Resurrección María Azkue. (...) Eta hurrengo urtean, hau da, 1919an osatuko da (...) Domingo Agirre hartzen dute (...)” (id, 809).

Burkek eta Smithek mugimendu etnokulturalek tradizioaz egiten dituzten berrirakurketetan kultura popularra jasotzea bilatzen duten ekimenak ohikoak direla azaltzen duten arren, azpimarratzeko modukoa da, ikusi den bezala, Europako hainbat herrialdeetan antolatu ziren Lore Jokoen artean hemengoak izan zirela bat-batekoari toki bat egin zioten bakarrak²¹⁹. Honek popularra eta jasoaren hibridazio gordinago bat ekarri zuen, parte hartzaileen arteko kontrasteaz: “Cultured poets such as Elissamburu or Arresebetia participated in the floral games with illit-erate bertsolaris, such as Etxahun, an improviser known for his notorious criminal past” (id.: 192-193). Esperimentuaren originaltasuna azpimarratzen du Gabilondok:

“ (...) subaltern voices and subjects were incorporated by high Basque literature in a polyphony of voices that was not reducible to the categories of genuine tradition or sheer fabrication (to use Hobsbawn’s terms). It was precisely the polyphony of voices inscribed in this literature that made its invented discourse genuine and false, historical and invented, subaltern and modern.” (id.: 193)

Eta baita topaketa hauek ekarri euskal kulturgintzari ekarri zioten bulkada eta irakinaldia ere: “(...) made the mixing of subaltern and (lower) middle-class literatures a very permeable environment where texts, myths, tropes, and rhetoric flowed in every direction while cross-pollinating each other in a polyphonic fashion” (id.: 192).

Arturo Campionek *Revista Euskara* aldizkarian 1878an Manterolaren kantutegiari buruz argitaraturiko testuari erreparatu besterik ez dago XIX. mende amaierako lehen euskal kulturgile haiek topatu zuten egoeraz jabetzeko. Baudrimont delako batek euskaldunek inoiz ez zutela literatur sorkuntzarako joerarik erakutsi idatzia zuen eta nafarrak gabezia hori ez dela berezkoa erantzuten dio: “Es inútil buscar en otra parte solución al problema que nos ocupa. El aislamiento es la única causa de la falta de gran literatura que en los pueblos vascos se nota (...)” (1878: 58). Alegia, gabezia ez zela berezkoa, baina bazela. Eta berezkoa ez zela demostratzeko bertsolaritzaren adibidea jartzen du, bide batez bertsolaritzak garai hartan zuen indarra erakutsiaz:

“Al País Vasco le ha sido imposible tener literatura trascendental; pero como la raza euskara no carece de sentimiento poético, sino que por el contrario le posee y muy desarrollado, se ha desenvuelto en plena libertad la poesía popular. La estructura maravillosa de la lengua vasca se presta admirablemente á la versificación; así es que los poetas ó coblakeris pululan en la Euskal-Erria,

²¹⁹ Ik. 4.4.2.2 Aurrekariak eta sorburua eta 4.4.2.3 Planteamendua eta ekarpena

y no hay fiestas ni regocijos, ni duelos ni quebrantos públicos, sin que de la boca de los versolaris broten composiciones adecuadas al suceso que se celebra ó deplora” (1878.: 60).

Herritarren jarduera kulturalak baldintzatu zuen, bada, Lehen Euskal Pizkundearen lehen olatu hartako intelligentsiaren erabakia. Euskaraz ongi funtzionatzen zuen genero idatzi bakarra bertso paperena zenez, bertso-jarrien moldeak hautatu behar izan zen euskarazko poesigintza abiarazteko. Bat-batekoari ere tarte bat egin behar izan zitzaion, Lore Joko haiei jaramonik egingo bazitzaion. Eta pixkanaka bat-bateko horren moldaketari ekin behar izan zitzaion, popularra eta aldi berean jaso izan zedin: “Ainsi, par ses performances, le peuple basque impose la représentation de l’activité poétique comme un art populaire; la théâtralisation dont cette activité est l’objet vise à accréditer un art, majeur, du populaire” (Bidart, 1998: 276).

Labordek ‘Bifurcation esthétique’ kontzeptua erabiliko du bertsolaritza genero literario eta ikuskizun moderno gisa hautemateko burutu zen prozesu hau izendatzeko (1998: 614). Bidartek ere antzeko terminologia darabil: “(...) Il s’agit là de la première instrumentalisation idéologique et esthétisation de l’ensemble des traditions rurales populaires basques” (Bidart, 1998: 268). Esnalek, aldiz, ikuspegi ezkorragoa du prozesu honen inguruan eta ‘modernitatearen zauria’ terminoa deritzaio (Esnal, Egaña eta Sarasua, 2002: 811). Edozein kasutan, bertsolaritza atzera bueltarik gabeko prozesu batean murgilduko da.

5. BIGARREN ZIKLOA: EUZKO PIZKUNDEKO ESTREINALDI ARRAKASTSUA. PRENTSA (II), ERAIKUNTZA.

*Inbentu ederra egin digute
gure euskera zabaltzeko;
inpernutako sorgiñak dira
nere ustetan tarteko!
bañan alare onik artzen det,
ez da gauza tristetzeko,
baldin emendik kanta al badet
euskaldunak agurtzeko.*

Txirritak Radio San Sebastianen, txapeldun atera berritan, 1936.

5.1. TESTUINGURUA: PIZKUNDEAREN OLATU ABERTZALEA

5.1.1 Euskal kulturaren lehen instituzionalizazioa

XIX. mendean zehar hainbatetan aipatu zen euskararen akademia baten beharra. Lehenengo biak Ulibarri eta Aizkibel izan ziren (Díaz Noci, 1998: 64; Intxausti, 2014a: 116; Lizundia, 1998: 656). Jose Pablo Ulibarrik, Azurmendik (1980: 143) bertsolari gisa aurkezten duena, honela zioen, 1832an idatziriko gutunean: “Ogeta lau gizon / bear dira izentau / Gernikako batzarrean / euzkararen ganean / egiteko alegin au”. Jose Franzisko Aizkibelek, berriz, 1856an aurkeztu zuen bere planteamendua, Iparragirrek hizkuntzaren jakintsu gisa ‘Gora Euskera’ kantua eskaini zion urte berean (Intxausti, 2014a: 124-125).

Hurrengoa Aristides Artiñanoren proiektua izan zen, 1886ko Durangoko Lore Jokoetan saritua. Hainbat ataletan banatzen zen lana eskaini zuen, akademiaren beharra jendarte modernoarekin, besteak beste kazetaritzarekin, eskolarekin eta administrazioarekin lotuz:

“Por más laudables que sean los generosos esfuerzos de tan dignos escritores, hay que imprimir al bascuence un impulso más vigoroso y decisivo; hay que infiltrarlo en la masa del pueblo euskaro; llevarlo á la cátedra y á las escuelas; colocarlo en el libro y en el periódico; hacerlo necesario, por todos los medios y á toda costa, mandando, si así fuere preciso, que cuantos aspiren á puestos y cargos en el País, posean ese idioma y lo hablen corrientemente”... “Mas para llegar á ese desideratum; para conseguir tales resultados, conviene adoptar un camino seguro y que, aunque lento, sea eficaz. Una Corporación, con el prestigio y autoridad suficientes (...)” (‘Proyecto de Academia Bascongada’, *Euskal-Erria*, 1886ko uztaila, 432 or)

Foruen galerak ekarritako erreakzio kulturalistan, ikusi den gisan, euskal erakundeek ere izango dute bere parte. Pixkanaka euskararen eta euskal kulturaren instituzionalizaziorako urratsak ematen hasiko dira, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Lore Jokoen antolaketan lagundu zuen bezala, Bizkaikoaren lehen urratsetariko bat 1888an Bilboko Institutuan euskarari buruzko katedra bat sortzea izango zen. Katedra hori betetzeko lehiaketa edo oposizio modukoak deitu ziren eta Resurrección Maria Azkue gazte batek lortuko du postua lehiaketan, besteak beste, Miguel Unamuno eta Sabino Aranaren aurretik geldituz.

Artiñanoren proiektuak, ordea, ez du Aldundien laguntzarik jasoko (Díaz Noci, 1998: 65). Honenbestez, akademiaren finantzaketarako Abbadieren laguntza eskatzeko deia egiten dio Gratien Adema *Zaldubik* Azkueri 1894ean igorririko eskutitzean: “(...) On Abadia jauna hil baino lehen nahi nuke Akademia edo jakintsueri eskuara bat baginagoka Frantziako eta Espainiako Eskualherri guzientzat” (‘Del epistolario de R. M. de Azkue’, Euskera, 1957, 335 or.). Hernandezek azaltzen duenez, Abbadiek laguntzeko borondatea erakutsi zuen, baina heriotzak eraman zuen ezer burutu aurretik. Alargunarengana jo zuten ondoren: “Euskalzale batzuek asmoa izan zuten d’Abbadieren alargunarengandik dirua lortzeko, senarraren ametsa errealitate bihurtzeko. Alargunak Azkueri gonbidapena egin zion gaztelura joateko eta d’Abbadieren liburutegia nahi zuen beste erabiltzeko” (Hernandez, 1998: 248).

1896tik Sabino Aranak nahiz Azkuek euskeraren ortografiaren bateraketarako proiektu bana aurkeztua zuten: Aranak ‘Lecciones de ortografía del euzkera bizkaino’ eta Azkuek ‘Proyecto de ortografía, sometido a la censura de los que se dedican a cultivar el euskera’. Eta 1901ean gai honekin aurreratu eta akademiaren ideari jarraitasun emateko batzorde iraunkor bat eratuko da. Batzordea martxan jartzerako, ordea, Abbadieren alarguna ere, Virginie Sait Bonnet, hil egin zen, senarraren gisan finantzaketaren arazoa bideratu gabe eta testamentuan ezer jaso gabe. 1902an Hondarribian buruturiko kongresu baten ondotik, giroa gaiztotu eta egitasmoa bertan behera gelditu zen batzordea bera ere (Hernandez, 1998: 250-253). Buruturiko saretze lanetik, ordea, Iparraldeko Eskual Zaleen Biltzarra sortu zen.

1902 urte hartako hainbat hilabete kartzelan egin behar izan zituen Sabino Aranak. Kartzelatik gaixorik irten zen eta 1903an hil, 38 urterekin. Bere proiektuaren aldaera berri bat ere ekarri zuen, ordea, kartzelalditik, independentziarako ekimen politikoa eta euskalgintzarako ekimen kulturalaren arteko lehenetsunak nolabait aldatzen zituen:

“(...) bigarren formulazio-saio bat egin zuen Aranak, ongi ezaguna denez, 1901-1902 urteetan. Horrela, Engrazio Aranzadi "Kizkitza"ri egindako eskutitzean lehenik eta jendaurrean ondoren, integrazio politiko-operatiborako Estatu propioa sortzea bultzatu ordez Euskal herriaren osakera soziokulturala, eta bereziki euskararen gerorabidea, segurtatzeko eskuragarriago izan zitezkeen xede-helburu eta jokamoldeen garrantzia azpimarratu zuen saioaldi berri honetan.” (Zalbide, 1988: 396)

Bere heriotzaren ondotik jeltzaleek geroz eta garrantzi handiagoa hartuko dute eta beste hainbeste gertatuko da hauen baitan Aranak azken urteetan azpimarraturiko kulturgintzak ere. Engracio Aranzadi *Kizkitza* eta Evaristo Bustintza *Kirikiño*, biak kazetariak, lehenengoa *Euzkadi* egunkariaren zuzendari eta bigarrena bertako euskarazko atalaren sortzaile, izango dira belaunaldi horretan ildo sabindarra jarraitzen duen kulturgintzako figura garrantzitsuenak (Díaz Noci, 1995b: 72-73). Zalbidek jasotako *Kizkitza*ren hitzok erakusten dute hartutako lan-ildoak: "No es el aspecto político lo único ni lo eminente de la acción nacionalista, (...) Hay que trabajar por la identidad étnica y social de la nacionalidad" (1988: 396).

Ildo sabindarra beharrean Azkuek irekia izango da, ordea, akademian gorpuztuko dena²²⁰.

²²⁰ Aranaren ortografian, garbizaletasunean eta bizkaieran oinarrituriko ereduari Azkueren ortografian, garbizalekeriarik ezean eta gipuzkeran oinarrituriko ereduak gainjarriko zaio. Katedrarako lehia irabazi izanak erakusten duen bezala, badirudi hizkuntzalari gisa bigarrenak gaitasun gehiago zuela: “(...) Aranak bazekien euskara eta euskal kulturaren zenbaiterainoko pisua zeukan Azkuek. Bitxia da nola Sabinok ez zuen Azkuerengan konfidantza politikorik, baina kulturaliki begirune handia zion; eta, aldiz, Azkuek Arana politikoki errespetatzen bazuen, kulturaliki eta batez ere hizkuntz gauzetan ez zuen inoiz ere kontuan izan” (Díaz Noci, 1995b, 68).

Katedra irabazi ondoren historiako lehen ikastola irekitzea izan zen eman zuen lehen urrats garrantzitsua. 1896an izan zen, Bilbon, erlijioari loturiko mutilentzako eskola pribatu gisa. Etxeberria, Arregi eta Auzmendik azaltzen dutenez (2012: 741) 1899 arte iraun zuen lehen saiakera honek, arazo ekonomikoengatik itxi beharrean aurkitu ziren arte, baina hurrengo bi hamarkadetan beste hainbat saiakera egin zituen lekeitiarrak bide horretatik.

Bere hurrengo pausua euskara hutsezko aldizkariaren proiektua izan zen, aurreko atalean aipatu diren *Euskalzale* (1897-1899) eta *Ibaizabal* (1902-1903) aldizkariak, Azkuek euskara bizimodu moderno eta hiritarrean txertatzeko zuen setaren lekuko (Díaz Noci, 1993, 395)²²¹.

Ez zen, noski, Azkue euskararen eta euskal kulturaren instituzionalizazioaren bidea egiten ari zen bakarra. 1907ean Julio Urkixok *Revista Internacional de Estudios Vascos* aldizkaria jarri zuen martxan, euskal kulturaren ikerketa zientifikora bideratua. Urte berean euskal kulturaren sustapenerako Euskal-Esnalea elkarte sortu zen, 1908an izen bereko euskarazko aldizkaria eta 1911n *Euskalerrriaren alde* argitaratzeari ekin ziolarik, Gregorio Mujikaren zuzendaritzapean. 1915ean Euzkerazko Itz-Jostaldien Batzarrearen arduretatik zetorren Toribio Altzagak Euskal Iztundea zeritzon euskal antzerki eskola jarri zuen martxan... Geroz eta intentsitate handiagoko lanketa nahiz saretzea nabari ziren eta mugimendua funtsezkoa suertatuko zen erakunde berri batean gorpuztuko zen: Eusko Ikaskuntza.

Eusko Ikaskuntzak bere I. Batzarra 1918ko irailean burutuko du Oñatin, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesletzarekin. Batzar hura mugarri garrantzitsu bat izango da euskal kulturagintzaren historian, Lehen Pizkundearen bigarren olatua bertan lehertu baitzen: “1918an jo zuen aldi berri honek, Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko Biltzarrean, bere goi-erpina. Gerra-garairarteko epealdi osoan gaitzakerik izan ez zen moduko indar-biltzea lortu zen han, Euskal herriaren konfigurazio etnokulturalaz gogoeta-lan sakon eta emankor bat bideratuz” (Zalbide, 1988, 398). Euskarazko akademiaren proiektua ere bertan taxutu zen eta lau Foru Aldundien laguntzarekin 1919ko irailean eratu zen Euskaltzaindia, lehendakari Azkue izendatuaz. Gauzatua zen, azkenean, hainbat euskaltzale belaunaldik hamarkada luzez aldarrikaturiko ametsa.

5.1.2 Euskarazko kazetaritzaren eta irakaskuntzaren sustapena

Eusko Ikaskuntzak zazpi batzar antolatu (1918an Oñatin, 1920an Iruñan, 1922an Gernikan, 1926an Gasteizen, 1930ean Bergaran, 1934ean Bilbon eta 1936an Lizarran), liburuak argitaratu, erakusketak, omenaldiak eta estatistikak egin, ikastolak lagundu, Euskal Herrikoako unibertsitatea eskatu, eta hiru aldizkari argitaratu zituen: *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, *Anuario de Eusko Folklore* eta Urkixoren *R.I.E.V.*.

Díaz Nocik prozesu guzti honetan kazetaritza munduan murgildurik zeuden eragileek izandako garrantzia seinalatzen du: “El primer tercio del siglo XX es también el tiempo en el que la lengua vasca trata de institucionalizarse y convertirse en idioma de cultura, con toda una nueva generación de literatos –y periodistas– como nombres decisivos” (2012: 127). Eta Euskaltzaindiaren sorrerako osaketan protagonismo hori are nabarmenagoa izan dela azpimarratzen du: “Irizpidea euskal aldizkariaren zuzendari guztiak euskaltzaintzat hartzea izan zen (...) badirudi asmo nagusia euskaldunon hizkuntzaz idatziriko hedabideen idazkera batzea zela” (Díaz Noci, 1998: 65-66). Honela, Azkuek gain, Campion, *R.I.E.V.*-eko

²²¹ Azkue ere jeltzalea izanagatik ez zen aranista. Bai lehen ikastolak eta bai aldizkari hauek (inprenta ere erosi zioten) EAJ barruan aranismoari autonomismoa eta kulturalismoa aldarrikatuaz kontrajartzen zitzaion Sagarminaga eta Sotaren euskalerrrikoek finantzatu zituzten, Banco de Bilbaoren zuzendaritzan eskua baitzuten (Díaz Noci, 1995b, 90-91)

zuzendari zen Urkixo eta *Euzkadiko* zuzendari zen Eleizalde izan ziren Oñatiko Biltzarrean bertan burutu ziren lehen izendapenak. Berebat, Euskaltzaindiaren lehen osakeran ere kazetaritzarekin lotura zuzena zuen izendapen gehiago eman ziren: Jean Blaise Adema *Eskualdunako* zuzendaria, Damaso Intza *Zeruko Argiakoa*, Jose Agerre *Napartarrakoa*, Georges Lacombe Urkixorekin batera *R.I.E.Ven* sortzaile eta bertako idazkaria, edota Juan Bautista Eguzkitza *Jaungoiko-Zale* eta *Ekin* aldizkarietan lan handia egindakoa.

Hizkuntzalaritza aranistaren esentzien zaindari papera hartu zuen *Kirikiñori* ere eskaini zitzaion izendapena baina uko egin zion, eta Pierre Lhandek zuzendurik Euskaltzaindiaren bozeramaile gisa argitaratu zen *Eusker*a aldizkariari *Euzkerea* argitalpena kontrajarri zion.

Garaiko euskal *intelligentsiako* kideak hedabideratzearen garrantziaren jakitun ziren, baita elizgizon atzerakoenak ere²²². Euskarazko kazetaritzaren sustapenari ekingo zion, bada, Euskaltzaindiak, hizkuntzaren normalkuntzarako bitarteko garrantzitsu bat izan zitekeelakoan. Honela azaltzen zuen bere xedea 1919an bertan: “(...) proyectamos una subvención metálica para aquellas revistas cuya mayor parte de texto se escriba en euskera y cuyo original alcanza anualmente el número de páginas de un libro corriente” (Díaz Noci, 1998: 67)²²³.

Bigarren ekimen bat ere abiarazi zuten alor honetan 1920an, Euskaltzaindian bertan erdal egunkariei euskarazko testuak eskaintzen zizkien erredakzio bat antolatuaz. Díaz Nocik azaltzen duenez (1998: 67-68), zuzendari bat, zuzendari-ordea eta hiruzpalau kazetariren beharra aurrakusten zen 1921ean eta 8.000 pezetatako urteko aurrekontua. Gaineratzen du *Euzkadi*, *La Gaceta del Norte* eta *La Tarde* egunkariak hasieratik eman ziotela baiezkua astero materiala jasotzeari, milana pezeta jarritz, eta gutxira *El Pueblo Vasco* eta *El Pensamiento Navarro* ere batu zitzaizkiela. Eta baita erredakzio hori bera aurrera begira euskara hutsezko lehen egunkari baten hazi gisa ikusten zuela Euskaltzaindiak:

“1920ko abenduan bidali behar omen zen gutun baten inprimakiaren erdiak (...) halaxe dio: “Facultado por la Academia de la Lengua Vasca para fundar en Bilbao una Redacción encargada, por el momento, de suministrar original vasco a seis de los siete periódicos de la localidad, y más tarde, cuando sea posible, de lanzar a la publicidad un diario exclusivamente (...) [en lengua vasca]” (1998: 68)

Euskarazko egunkariaren egitasmoa ez zen aipamen horretaz haratago iritsi eta euskal testuen hornikuntzak ere ez zuen aurrakusten zen erantzuna jaso erdal egunkariaren aldetik: “La idea tiene una regular acogida, y aunque durante unos años se suministran originales a los diarios, en realidad es la propia Academia quien termina pagando los gastos” (Díaz Noci, 2012: 270). Euskarazko argitalpenen garapena ere nahi baino ahulago sumatzen zen Damaso Intzak (*Zeruko Argiak* zuzendaria) eta Zirilo Arzubiagak (*Jaungoiko-Zaleren* zuzendaria) 1921ean Euskaltzaindiara bidali zuten eskutitz batean irakur daitekeenez: “Euskal izparringi (papera) ta aldizkingiak (revista, revue) zorionez ugarituaz dijoaz; baña ez da onen neurrian ugaritzen euskeraz irakurtzeko zaletasuna ta beraz, idazleak gogotsu lan egin arren, onen lanak ez dira

²²² Honela zioen, esaterako, Jaungoiko-Zale aldizkariko Gabriel Manterola zuzendariak 1924ean: “Ilustraziñoko gizaldian bizi gara. Egunerokoen gizaldian. Eguneroko izparringiak goxariaz batera esku gustietara ia eltzen dira (...). Irakurtea ba garrantzitsua da (...). Irakurrigai txarra, Yaungoikoaren etsayak, gogoak betiko galtzeko asmau daben izkillu kaltegarriena dala esanda be, larregi ez genduke esango (...)” (Díaz Noci, 1995b: 183). *Jaungoiko-Zale*, 1924.eko azaroak 15, 243. zenbakia.

²²³ 1924ko kopuruak eskaintzen ditu Díaz Nocik: “1924an *Zeruko Argiak*, *Jaungoiko Zalek* eta *Euskal Esnaleak* bostehuna pezeta jaso zuten; *Argiak* 200; eta *Euskerak* 300. Gainera, aldizkari gehienek liburuak argitaratzen zituzten, eta beraien truke dirulaguntza bana ere jaso zuten: (...) Guztira, urte hartako literatur ekoizpena sustatzean Euskaltzaindiak 7.773 pezeta gastatu zituen.” (1998: 69)

errira eltzen” (Díaz Noci, 1998: 68). Bigarren hanka falta zitzaion euskarazko kultura idatziari: testuez gain bere hizkuntzan alfabetaturiko irakurleak.

Erderetan buruturiko alfabetatzeak aurrerapauso garrantzitsuak zituen emanak azken hamarkadetan. Dávila, Eizagirre eta Fernandezek eskaintzen dituzten datuen arabera (1994: 78-80) 1860tik 1930era bitartean gazteleraz alfabetaturikoak %41,5etik %75,1era pasako dira Araban, %19,6tik %72,5era Gipuzkoan, %28,4tik %68,6ra Nafarroan eta %26,3tik %70,6ra Bizkaian. Azaltzen dutenez Estatu mailako hazkunderik handiena izan zen Euskal Herrikoa (Estatuko batz bestekoa %55,6koa zen 1930ean). Bizkaia nahiz Gipuzkoako industrializazio prozesuekin lotzen dute fenomenoak, eta foruen galeratik euskara ordezkatzeko hezkuntzaren bidez egindako ahalegin bereziarekin ere (Dávila, Eizagirre eta Fernandez, 1994: 72).

Erdarazko alfabetatzearen hazkunderen aurrean, euskarazkoaren lehen pausoak emango dira, berriro ere erreakzio defentsibo gisa. 1920ko hamarraldiko Bizkaiko auzoetako-eskolak Gipuzkoako nekazal guneetako eskola txikiak eta ikastolak aipatzen dira bide urratzaile gisa (Dávila, Eizagirre eta Fernandez, 1994: 73 eta 86). Lehen biak nekazal eremuak alfabetatzeko irakaskuntza elebidun gisa planteatu ziren Belgika, Suiza, Gales, Irlanda edota Alsazia-Lorenako esperientziak kontuan hartuz. Ikastolak, aldiz, euskara hutsean ikasteko sortu ziren eta sistema ofizialetik at garatuko ziren: Donostian 1914ean, Tolosan 1921ean, Erreterian 1928an, Sorluzen, Bergaran, Iruñean eta Lizarran 1932an, Gasteizen 1933an, Elizondon 1935ean eta abar²²⁴.

Azkenik, Euskal Unibertsitate bat sortzeko proiektua ere hainbatetan planteatuko zen urteotan (Estornes, 1989: 92; Euskaltzaindia, 1977: 429-430).

Kazetaritza eta eskola, kultura modernoaren oinarritzko instituzio biak, euskalgintzaren lehen mailako kezka bihurtuko dira aldi honetan, bada: “(...) euskaltzaleek ederki ulertu zuten euskara biziko bazen, irakaskuntza, alfabetatze eta euskalduntze lanak, eredu idatzi estandarrak eta masa-gizarteko hizkuntza guztien ezaugarriak eskuratu behar zituela” (Díaz Noci, 1998: 70).

5.1.3 Tradizioa bersustraituz

Euskal Pizkundearen bigarren olatu honek aire berriak zekartzan XIX. mende bukaeran altxa zenarekin alderatuaz: “Ordurarteko esan-eginekin alderatuz urtealdi haietako euskalgintzak berritasun-aire nabarmenak ekarri zituen berekin” (Zalbide, 1988: 391). Bere praktikak modernitate zantzu argiak izan arren diskurtso antimoderno batean oinarritu zen aurreko aldia; berriak, aldiz, diskurtso modernista bat planteatu behar izan zuen praktika modernizatzaileari bultzada irmoago bat emateko.

Díaz Nocik Gregorio Mujikaren hitzak dakartza modernotasun berri hori ilustratzeko:

“Evolución y movimiento son vida: hagamos, pues, que el euskera entre de lleno en la evolución de las ideas, en el movimiento general de las cosas todas, y le veremos bajar de los montes al llano e invadirlo todo encarnando las ideas últimas, las teorías nuevas” (*Euskal Esnalea*, 1908/II/15, 2. zbkia., 12 or., Gregorio Mujika; Díaz Noci, 1998: 68)

²²⁴ Mugimenduaren sustengu gisa hainbat ekimen bideratuko ziren: besteak beste, 1932tik aurrera Bilbon antolaturiko Euskal Ikastolen Batza (Etxeberria, Arregi eta Auzmendi, 2012: 741); Euskaltzaindiak 1934tik aurrera argitaraturiko *Laguntzalleak Deia* aldizkari espezializatua (Díaz Noci, 1998: 69); edota Aldundiek irakas materiala sortzeko emandako laguntzak (Dávila, Eizagirre eta Fernandez, 1994: 86).

Zalbidek azaltzen du Modernitateak ekarritarako euskal mundu aurremodernoaren galera, XIX. mendearen bigarren erdian eman ziren Foruen Galera, industrializazio prozesua eta erdal immigrazio masiboekin atzeraezin bihurtu zela ulertu ahal izan zuela belaunaldi horren baitako gehiengo handi batek eta biziraupenerako egokitzapena hobetsi zuela estrategia gisa: “(...) euskal gizartea bere lehengo izate hartara berriro eramaterik ez zegoenez, Euskal herriak herri gisa bizirik jarraitzea nahi bazen aro berriari ongi egokituko litzaizkiokeen oinarri eta lokarri etnokultural eguneratuak asmatu eta ezarri beharrak zeudekeen” (1988: 397). *Modernity* eta *authenticity* uztartzeko ahaleginaz dihardu ikerlariak, eta mugimendu hari hainbatetan egotzi izan zaion izaera atzerakoia gezurtatzen du (Zalbide, 1988: 400).

Honela, burutu ziren ekimenak bizitza kaletarrari egokitzen zitzaizkiola azpimarratzen du: “Osasun onez edo makalik, galtzear edo are zeharo hilik zeuden etnokulturazko elementu guztietatik batzuk bakarrik gordetzen eta berpizten ahalegindu izan da, horregatik, euskaltzale-jendea: begiz jotako gizarte-asmu hiritar-modernorako egoki eta beharrezko zeritzanak hain zuzen” (1988: 401). Usandizaga, Azkue eta Guridik musika alorrean eginiko ekarpenak aipatzen ditu, Europan egiten zenarekin erabateko sintonian leudekeenak, edota Gabon kantak eta Olentzeroren ospakizuna Tolosa edo Donostia gisako guneetatik berrabiarazi izana. Gregorio Mujikaren hitzak dakartza Zalbidek ere:

"Iñork esatenbadizute ezertarako balio ez duten zarkeriak ekartzea dala guk naideguna, erantzuiozute Euskalherria jarri nai degula *bide berrian* [azpim. nerea] eta jarraitu azi aurrera beti; gure gauza zarretatik batzuek betiko utzi nai ditugula, antolatu oraingo berrak betetzeko beste batzuek” (*R.I.E.V.*, 1907, 1. zbkia, 544 or., ‘Euskeraren alde’, Gregorio Mujika; Zalbide, 1988: 397-398)

Larrinagak, berebat, Euskal Pizkundearen bigarren olatu honen izpiritu zientifizista azpimarratzen du lehenengoaren izaera erromantikoaren ondoan: (...) garai horretan gizarte zientzien aurrerapenak legitimatu egin zuen gizartea bera aztergai hartzea eta, maila politikoan, hura giza interbentziorako prest zegoen artefaktu modura hautematea” (id.: 135-136). Eta Zulaikak Pizkunde harren inguruan esandakoak ere ildo berekoak dira:

“En esta época de prosperidad económica, patriotismo nacionalista y cambio social, los estudiosos de la cultura vasca y los profesionales se reunieron para programar una ‘renovación’ de la sociedad vasca (...) Este entusiasmo por la ingeniería social estaba muy lejos del tradicionalismo nostálgico de los nacionalistas de fines del siglo.” (2000: 109)

Jada azaldu den bezala XIX. mendearen bigarren erdian antropologia fisikoak indar handia hartu zuen Europa osoan zehar, eta arreta berezia eskaini zion euskal arrazari, testuinguru honek Sabino Aranaren diskurtsoan arrazari ematen zitzaion garrantzia ahalbideratuko zuelarik. 1920ko hamarralditik hasita, ordea, antropologia kulturala izango zen geroz eta indar handiagoa hartuko zuena, garaiko ikerketetan fokua etniaren ezaugarri fisikoetatik bere praktika kulturaletara pasako zelararik. Euskal *intelligentsia* berrian ezagutza zientifikoak zuen maila zela eta fokatze berri honen oihartzuna iritsi zitzaien eta kulturalismoak are pisu handiagoa hartuko zuen abertzaletasunaren baitan²²⁵.

²²⁵ Amezagaren iritzi, antropologia kultural horren sortzailearen, Franz Boasen, ekarpena garrantzitsua izango da komunitate gutxiagotuen kultura popularren berpizkunderako. Honela, Boasen ikuspegi partikularista Tylorren ikuspegi unibertsalistari kontrajartzen dio (Amezaga, 1994: 120-124). Tylorrek kultura ezberdinak gizateriaren garapenaren etapa ezberdinen adierazle gisa irudikatuko litzuzke, logika eboluzionista batetik, zibilizazioaren eta garapenaren izenean, herrialde gutxiagotuen desnazionalizazioa zilegiztatuko litzatekeelarik. Tylorrek (1871ko ‘Primitive Culture’ izan zen lanik entzutetsuena) antropologiara ilustrazioaren planteamenduak ekarri zituen bezala, Boas (1920ko ‘The Methods of Ethnology’ lanarekin lortu zuen bere sona) Herderren

Izatez, orduan abiaraziko dira bertako hainbat ikerketa antropologiko kultural ere: “Durante las décadas de 1920 y 1930 Barandiaran se dedicó desde el seminario diocesano de Vitoria a organizar con los seminaristas el estudio sistemático de los diversos aspectos sociales y etnográficos del País Vasco” (Zulaika, 2000: 105). Manuel Lekuonak bertsolaritzari eginiko funtsezko ekarpena garai eta giro horretan gauzatu ziren hain zuzen.

Faktore guzti hauen eraginez oinarritzko gora behera batzuk marraztuko dituen ibilbide bat izango du Euskal Pizkundearen bigarren olatu honek. Intxaustik honela laburbiltzen du: “Lehenengo ekinaldi instituzional bizi baten ondoren, Diktadorekin ahalegin-mota hori epeldu egin zen, baina 20ko hamarkadaren hondarrea (1926-1930) prestatu zen Errepublikako loraldia (1931-1936)” (2014a: 54). Errepublikako loraldi horren ginga, berriz, Eusko Ikaskuntzak 1930ean Bergaran buruturiko Batzarrean abiarazirik Autonomia Estatutuaren proiektua izango zen: 1931n eman zen burututzat, 1933an Espainiako Gorteetan trabaturik gelditu zen, eta, azkenik, 1936an onartu zen, Lehen Euskal Pizkunde hau eta bere emaitza guztiak sarraskituko zituen gerra hasi berrian (Estornes, 1989: 95-104).

5.2 OINARRIA: ARRETA BERRITUA BERTSOLARITZARI (1918-1934)

5.2.1 Jarrera aldaketaren lehen zantzuak eta Mujikaren arrakasta

Esan bezala, 1918a urte garrantzitsua izango da euskal kulturgintzaren historian, Eusko Ikaskuntzaren sorrerak eta erakunde honek Oñatin burutuko duen lehen kongresuak XIX. mende amaieran garatu zenarekiko hainbat berrikuntza zituen proiektuaren oinarriak ezarriaz.

Bertsolaritzaren historiari dagokionean aurreko zikloaren haustura nazionalismo berriaren garbizalekeriak eragindako gutxiespenak ekarri zuen: Erromantizismoaren kultura popularrarekiko lilura eta basati onarekiko mirespena lausotuz joan ziren kultura nazional jaso bat eraiki behararen beharraz. 1918 hartan bertan, ordea, bertsolaritzak proiektu berrian bere tokia topatu zezakeenaren lehen zantzuak agertuko dira, bertsolaritzaren historiak ere, euskal kulturgintzaren eskutik, ziklo berri bat irekitzen zuela ikusarazten duten lehen markak.

Ez zen Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko Biltzarrean izan, baina bai mugimendu beraren baitan paper garrantzitsu bat jokatu zuen Barandiaran eta enparauen Gasteizko Seminarioan. 1918tik 1919rako ikasturtearen irekiera hitzaldia apaiz gazte bati egokitu zitzaion, Manuel Lekuona oiartzuarrari eta honek ‘La Métrica Vasca’ hartu zuen gaitzat. Gaia zabalagoa izan arren bertsolaritzari ere egin zion tarte bat bertan, hain zuzen ere aurreko belaunaldiarengan nagusitu zen mesprezu jarrera salatzeke:

“Nos referimos a la poesía popular, la desdeñada poesía de los koplaris o bertsolaris, tan injustamente despreciada de muchos de nuestros cultos, no menos que lo era de los trovadores cortesanos el romance castellano, que era sin embargo, por su arraigo en el pueblo, el llamado a constituir el metro, que más apropiadamente pudiera llamarse metro nacional.

Tal ocurre, aunque en parte nada más, con la institución verdaderamente popular, si las hay, de nuestros improvisadores, testimonio viviente a una con la música y la danza vascas de las apreciables condiciones artísticas del vasco, a la par que ella sola es prueba palmaria de la flexibilidad y corte verdaderamente primitivos de su habla.” (Lekuona Etxabeguren, 1918: 14)

erromantizismoan oinarritu zen, kultura gizateriaren zibilizazio prozesu orokorraren une baten adierazlea baino herri bakoitzaren adierazle propio gisa definituaz: “Euskal antropologiaren zatirik handiena, lerro honetatik hurbilago legoke, lehenengotik baino” (1994: 124).

Erakundeen aldetik euskal kultura popularrarekiko arretak jaso zuen bulkada berriaren adierazgarri 1918 hartan bertan baita, Bizkaiko Foru Aldundiak Azkuerentzat urteko 6.000 pezetako ordainsari bat onartu zuen folklore bilketa lanetara bideratua (Euskaltzaindia, 1977: 440). 1912an lau Aldundiek antolaturiko herri kanten bilketarako lehiaketan irabazle izan ondoren bere lana osatzeko eman zitzaion bultzada berri hau eta 1922tik 1925era bitartean hamaika tomatan argitaratu zuen ‘Cancionero Popular Vasco’ erraldoia izan zen azken emaitza. Kantutegian bertsoak ere bazuen bere tokia, noski.

Hirugarren zantzua Aldundiek antolaturiko lehiaketa hartan bigarren gelditu zen Jose Gonzalo Zulaikak 1919an emaniko hitzaldi batean topa daiteke. Aita Donostia bezala zen ezagunago Zulaika, eta ordurako itzal handia zuen musikari, musikologo eta folklorista bezala²²⁶. Joxerra Garziak jasoa da argitaratu gabea den hitzaldiaren pasartea:

“Las sesiones de bertsolaris son un recuerdo imborrable para quien una vez las haya presenciado. ¡Qué gracia en las respuestas, qué ingenio en ‘restar’ y devolver la pelota a su contrincante! No hay partido que pueda compararsele. Es inagotable el repertorio del malicioso que quiere burlarse, por ejemplo, del caballo del vecino, flaco que casi llega a transparente...; de las Hijas de María que no son perfectos modelos en su comportamiento... del sacerdote que no es irreprochable en su vida... Con palabras, alusiones más o menos veladas, más o menos transparentes, el bertsolari, el poeta popular llega a decir, a insinuar todo lo que pretende.” (2000: 418)

Esan bezala, Lehen Pizkundearen bigarren olatu honek, 1910eko hamarraldiaren bukaeran gailur bat izango du, 1920ko hamarraldian Primo de Riveraren diktaduraren eraginez motelaldi bat pairatu eta 1930ekoan, II. Errepublikarekin, berriro bizkortzeko. Bertsolaritzak euskal kulturgintzaren testuinguruan egiten du bere bidea, eta kasu honetan ere 1920ko hamarraldia nahikoa bare joango da. Ahozko ondare kulturala eta bertan jasotako bertsoak prestigiatu zituzten Azkue eta Aita Donostiaren kantutegiez gain Gregorio Mujikak 1925ean argitaratu zuen Fernando Amezketarren ateraldi eta pasadizoen bildumak izan zuen arrakasta izango da hamarraldi honetan bertsolaritzaren historia sozialerako nabarmentzeko moduko gertakari bakanetarikoa.

Eta nabarmentzeko modukoa da ‘Fernando Amezketarra’ren arrakasta itzela izan baitzen. Gabilondoren arabera garaiko libururik irakurriena izan zen: “Gregorio Mujika’s humorous tales about a popular character, compiled in a book with the homonym title of Fernando of Amezketa (1925), were probably the most read and celebrated narrative of the time” (2016: 224-225). Gogora dezagun Intzak eta Arzubiagak *Zeruko Argiako* eta *Jaungoko-Zaleko* zuzendariek 1921ean Euskaltzaindiari euskarazko irakurzaletasunaren hazkunderik eza dela eta erakusten zioten kezka, ez zen batere ohikoa euskaraz idatzitako testuek zabalpen handirik izatea, baina Fernando Amezketarraren ateraldiek bigarren argitaldi bat behar izan zuten 1927an bertan²²⁷.

Gregorio Mujika ere, Euskal-Esnalea elkarteko lehendakari eta *Euskalerrriaren Alde* nahiz *Euskal-Esnalea* aldizkarien zuzendari izandakoa figura garrantzitsu bat zen garaiko euskal kulturgintzan, eta genero honi heldu izana bera ere ematen ari zen jarrera aldaketaren zantzu gisa har daiteke. Hori baino esanguratsuagoa suertatuko da, ordea, bere lanaren arrakasta, euskaldungoarekin konektatzeko zailtasunak izaten ari zen euskal *intelligentsiari* pista

²²⁶ 1921ean argitaratuko zuen honek bere bilketaren emaitza, ‘Euskal eres-sorta’ izenburupean. Eta gerora izugarri ibilbide oparoa izan zuen hainbat alorretan Euskaltzain izatera ere iritsiko zelarrik.

²²⁷ Arrakasta horrek honako gogoeta eragiten dio Gabilondori: “In short, subaltern culture began to have modern media in which to represent itself” (2016: 225).

garrantzitsu bat emango baitio. ‘Pernando Amezketarra’-ren bigarren argitaldiaren urte berean argitaratu zuen Nikolas Ormaetxea *Orixek* bere ‘Euskal literaturaren atze edo edesti laburra’. Euskal *intelligentsia* horren baitan puntako figura zen Orixe, garaiko euskal literaturaren egoeraz gogoetatzen zuen bere lanean, eta ondorio gisa, ‘Irakaspena’ dauka izena azken atalak, problematika eta pistaren irakurketa laburbiltzen zituen:

“Geldixeago joanen ba gara ere, deramagun erria gerekin eta tinkoago goazke. Erri literatura landu bear dugu leenik. Begiemozu bertsoarietaz esan dizudanari. Gure erria bertsoetarako itoa den ezkeroz, emaiizkiogun landuxegoak, baino erritarrak (...) gaur euskaldunak —silaba arrotzetara oiturik baitago— bereak arrotzago ditu, ta neke apurra artu egin bear du (...) ¿Neke ori noiz artuko du? Gaia emagarri (interesante) denean. Gregorio Muxika'k ederki aski asmatu du Pernando'rekiko liburu ori agertzean (...) Ori bai, iritxiko da erriraino. Norbait asmoetan dabila, diru asko balu, erriz erri ibili, arkitzen dituen gertakariak bildu, Pindaro'k bezala bertsoetan ipini, ta periz-peri kantatzeko, kantutegietatik artutako musika mintzoagoakin, euskera gal ez dedin” (1991: 44)

1930eko hamarraldian mugimendua bizkortzearekin batera Lekuonak 1931ean eman zuen hitzaldi batek emango zion behin betiko bultzada bertsoaritzaren alorrari.

5.2.2 Lekuonaren formulazio jantzia

5.2.2.1 Lekuona, inspirazioa (1894-1987)

Oiartzuarrak Gasteizko Seminarioan egin zituen apaiz ikasketak eta gazterik, 1916an, Euskarako katedra lortu zuen bertan, besteak beste euskara eta euskal literatura ikasgaiak eman zituelarik hogeitaz urtez. Eusko Ikaskuntzaren sorreran parte hartu zuen eta garaiko hainbat aldizkaritan kolaboratu: *RIEV*, *Euskalerrriaren alde*, *Antzerti*, *Euskera*, *Anuario de Eusko Folklore...* Hainbat antzezlan eta narrazio ere argitaratu zituen eta euskal idazle gazteak sortzeko Kardaberaz Bazkuna jarri zuen martxan 1924ean. Gasteizko Seminarioaren baitan zuzendu zuen elkarte hau, eta Seminario honen inguruan eratu zen ikerlari eta kulturgile taldea izan zuen lagun:

“Irakaskuntzan ari zelarik, eta Seminarioko bizikidetzan bizi, oso jakina du orduko lagunartea. Aldian aldian biltzen ziren, gaiak eguneratzeko eta idaztortza zorrotzeko bildu ere, A. Pildain, Canarias-ko Gotzaina izango zena, J. M. Barandiaran, L. Arabiotorre, J. M. Arizmendiarieta eta M. Lekuona. Batzarre hauek badute zerikusirik Seminarioko ikerkuntzetan, aldizkarietan eta polemiketan.” (Intxausti, 1987: 2)

1920an Lekuonak ikasturte irekierarako euskal metrikari buruzko hitzaldia eman eta bi urtera Gasteizko Seminarioan Pirinioko Geologia, Euskal Prehistoria, Etnografia eta euskal gizartearen ideia erlijiosoaren historia bezalako ikasgaiak txertatu ziren Gasteizko Seminarioan. Handik urtebetera, ‘Eusko-Folklore’ Elkarteak sortuko du bertan Barandiaranek, Eusko Ikaskuntzaren babespean, eta *Anuario de Eusko-Folklore* aldizkaria argitaratzeari ekingo zaio. Zulaikak azaltzen ditu Lekuonaren lana ulertzeko funtsezkoa den inguru horrek eta bertan burutzen zen lanak eragin zituen erreakzioak:

“Todo esfuerzo por investigar la cultura vasca topó desde un principio con obstáculos políticos. Etnólogos de renombre como Van Gennep o Graebner elogiaron estos estudios, pero la sociedad de folklore vasco fue atacada desde sus inicios por periodistas y políticos que solo podían ver en ella un semillero de separatismo político.” (2000: 110)

Debeku eta presioak ohikoak dira zikloan zehar. Primo de Riveraren diktadura hasi berrian, 1924ean, Bizkaiko Foru Aldundia izango da Eusko Ikaskuntzari bere laguntza erretiratuko diona, honen jarrera ‘antiespañola’ zela eta, edota 1932an, Errepublika martxan zela, alegia, Madrilgo Gobernuak Barandiaranek sorturiko Filosofia, Soziologia, Etnologia eta Psikologiako laborategiak ixteko aginduko du, arrazoi berberetatik (Zulaika, 2000: 158-159). Lekuona eta bere inguruko lanak oztopo ugari topatuko ditu, bada, bidean: “El derecho a crear un discurso propio en una universidad autónoma, en la que se pueda investigar con independencia intelectual, es por supuesto una concesión que el estado central apenas puede permitir (...) Una narración antropológica autóctona era anatema” (Zulaika, 2000: 159).

Bertsozetasuna etxetik zetorkion, aitarengandik²²⁸, baina 1918ko Oñatiko Eusko Ikaskuntzaren Kongresuan bizi izandako gora behera batek piztu zuen Lekuonarengan bertsozari ikertzeko harra. Donostiako kazetari batek Alemaniako nekazariak Goethe eta Schillerrekiko zuten zaletasuna eta euskaldungoak bertsozarietako zeukatena alderatu zituen, euskaldungoa eta bertsozariak gutxiesten: “Egia da, Oñatiko Batzar Nagusian entzun nuala nik, jakintsu-usteko jauntxo baten aotik, bertsozariaren kontra esan ditekeen despreziozko itzik txoroenetako bat: Bertsozariak Igande arratsaldeetan, sagardotegietan zozokeriak besterik esaten ez dituztelako iritzi iguingarria” (Lekuona Etxabeguren, 1985: 9)²²⁹. Hitzok Seminario klaseetan bertsozariaren inguruko kontuak txertatzea eta jada aipatu den 1918-1919ko ikasturte irekierako hitzaldia ematera akuilatu zuten oiartzuarra:

“Ori entzun nuanean, asi bait nitzan ni, Gasteiz’ko Seminarioan ematen nituan Lekzioetan BERTSOLARIEN BENETAKO APOLOJIA egiten. 18’gn urte artan bertan izan eta argitaldu bait nuan Itzaldi Akademiko bat –ain xuxen, Oñati’ko Batzarren urtean, grippe aundi urtean- “De métrica vasca” izena zuana, euskal-bertsoen neurri ta metrikari buruz...” (id.: 9)

Esan bezala, 1930eko hamarraldi hasieran emandako bigarren hitzaldi bat izango da, ordea, hurrengo urteetako loraldian funtsezko suertatuko dena: “Bañan gauza guzti onen leertzea –eklosioa- Bergara’ko Batzarrean izan zan” (id.: 9). Kasu honetan Anjel Apraiz izan zen zirikatatu zuena, Bartzelonako Unibertsitatean irakasle, Eusko Ikaskuntzako idazkari eta euskal unibertsitate baten aldeko garaiko mugimenduan funtsezkoa izan zen gasteiztarra:

“Apraizek, esan zidan: "Oiga usted, don Manuel, ya sabe usted que tenemos un congreso en Vergara de arte popular" —sí— "Tendría usted inconveniente en dar una lección sobre literatura popular, mejor dicho, este, poesía popular?". "Ya tengo algo que decir y con muchísimo gusto" —esan nion—.” (Oh! Euzkadi, 1982ko otsaila, 14. zbkia. ‘Manuel Lekuona’)²³⁰

Bazeukan bai zer esana. Bere luzeretatik bi zatitan eman behar izan zuen bere hitzaa, eta bigarrena bat-batekoari eskaini zion, Chahorena bezain garrantzitsua baina jantziagoa izango zen apologia eraikiaz. Honela, bertsozariaren garrantzia azpimarratu zuen batetik:

²²⁸ Honela kontatzen du Lekuona berak: “(...) behin aittari hauxe entzun izan nion: "herriko pesta, herriko pestarik ederrenak —berak esaten zuen— nerretzat meza nagusi eder bat, haren ondotik pelota partido polit bat, bazkari on bat eta arratsaldean bertsozariak". Eta nik bertsozariak entzun nittuen eta gustatu ere bai, ez nekien zergatik gustatzen zitzaidan baina aittaren bultzada harek asko egin zidan neri.” (Oh! Euzkadi, 1982ko otsaila, 14. zbkia. ‘Manuel Lekuona’).

²²⁹ Hainbatetan kontatu izan zuen Lekuonak beretzat erabakiorra izan zen pasarte hura: 1985ean Egan aldizkarian ‘Basarriren figura euskal kulturari’ izenburupean argitaraturiko testuan, Oh! Euzkadi aldizkarian eskainiriko elkarrizketan (Oh! Euzkadi, 1982ko otsaila, 14. zbkia. ‘Manuel Lekuona’), eta Martin Ugaldek buruturiko Aitzolen biografian (Ugalde, 1988: 79).

²³⁰ ‘Basarriren figura euskal kulturari’ testuan ere kontu bera dakar, kasik hitzez-hitz (M. Lekuona, 1985: 9)

“Un bertsolari no es tan sólo un «cantador» de coplas. Ni es tan solo un poeta que ‘hace’ versos. El bertsolari es un improvisador en el sentido estricto de la palabra (...) y aquí estriba precisamente, como después diremos, su raro, rarísimo interés (...) el bertsolari, considerado desde cierto punto de vista, es una verdadera institución en la sociedad vasca. El bertsolari nunca es un poeta que canta solo; es el poeta que canta juntamente con el pueblo que le escucha (...)” (1934: 20-21)

Ahokotasuna prehistoriatik datorren kulturaren ondare gisa defendatu zuen jarraian eta munduan zehar aurki zitezkeen gisako beste fenomeno batzuk aipatu, alor honetan memoriak eta formulek jokatzeko duten papera azalduz edota erabili ohi diren hainbat edergailu zerrendatuaz. Bestalde, bertsolaritzaren historiari ere eman zion errebasoa Lore Jokoak, Xenpelar, Pello Errota, Txirrita eta beste hainbat aipatuaz eta fenomenoaren balio literarioa azpimarratu nahi izan zuen dozenaka ale eder ekarri eta iruzkinduaz.

Ez zion bertsolaritzari aurreko hamarkadetan egotzi zitzaizkion gaitzak planteatzeari uko egin. Eta bertsolariak jantzi beharra eta euskal *intelligentsiak* egokitzapen horretan bere gain hartu beharreko ardura azpimarratu zituen:

“Las causas de este desprestigio son, sin duda, primero la ramplonería de la mayor parte de los conceptos que vierte el poeta aldeano en sus versos; y segundo, el léxico desatinadamente bárbaro en que canta su inspiración. Dos causas, en efecto, que si hacen bajar mucho los quilates literarios de la obra del improvisador, pero, desde luego, son perfectamente separables de la esencia del bertsolarismo y de la rara técnica artística de los bertso-berriak (la prueba la tenemos en los hermanos Enbeita y en los bertsolaris de allende el Bidasoa); y por otra parte dos causas de cuya existencia nos alcanza la culpabilidad a todos los vascos cultos que no nos hemos preocupado de proporcionar a nuestros pobres bardos la cultura a que eran acreedores por su significación social.” (1934: 21)

Bukatzeko idazle berriei eta euskal erakundeei luzatu zien deia:

“Es la expresión de mi anhelo—hondísimo anhelo—de ver rehabilitada en la apreciación teórica y práctica de los vascos, a nuestra ignorada poesía popular (...), si me fuera permitido, terminaría haciendo un doble llamamiento primero, a nuestros noveles poetas, para que en sus afanes poéticos volvieran la vista al modelo popular, que quizás sea lo finito nuestro capaz de interesar en el mercado poético actual, que hastiado de ciertos moldes gastados, vuelve la vista a las formas primitivas; y segundo, a las corporaciones y entidades culturales de la región, para que todos prestaran una mayor atención a nuestro bertsolarismo (...)” (1934: 34)

Garziaren arabera Lekuonaren teorizazioaren lehen zirriborro garrantzitsua ekarri zuen hitzaldi honek. Eta teorizazio hori guztiz borobildua geldituko zen 1936an argitaratu zuen ‘Literatura oral euskérica’ lanean (2002: 793)²³¹. Oiartzuarraren lanaren abanguardiazko izaera ere azpimarratzen du Garziak, ahokotasunaren inguruko ikerketa nazioartean bere lehen pausoak ematen ari zenean burutu baitzuen: “Mylman Parryk Homero ulertzeko eta aztertzeke ikuspegia guztiz aldatu zuen bezala, eta garai beretsuan, Manuel Lekuonak ahoko literaturaren balioez ohartarazi zuen orduko jende ikasia” (id.: 793). Zentzu berean, Marcel

²³¹ Bere ikerlari ibilbide luze eta oparoaren errebasoa egiterakoan lan hau nabarmentzen zuen baita Lekuonak berak: “Nik egin dudana lanik serioena ‘Literatura Oral Vasca’ [izen hori izan zuen hurrengo argitaldian] izan da. Hori, denak despreziazkoa bezala zeukaten garaian, eman nion zera bat, biziera bat. Horixe da nere gauzarik ederrena, horixe da” (*Oh! Euzkadi*, 1982ko otsaila, 14. zbkia. ‘Manuel Lekuona’).

Jousseren lanak ekarpen honetan izandako eragina azaltzen du Aulestiak (1994: 31-40), Lekuona bere garaian mundu mailako puntako ikerketan ildotik aritu zela nabarmenduaz²³². Parryrenak bezain berritzaileak ei ziren ahozkotasanaren inguruan burutzen zituen ekarpenak.

5.2.2.2 Aitzol entzuleen artean

Bertsolaritzaren historiak gaurdaino idatzi diren lanetan berebiziko garrantzia aitortu ohi zaio Lekuonaren hitzaldi honi. Garziak, esaterako, honela dio: “Habló de poesía popular, puso ejemplos, sistematizó la mecánica del bertsolarismo, clasificó sus géneros... En una palabra, dio una clase magistral dejando sentadas las bases del estudio científico del bersolarismo” (2000a: 418). Bertsolaritzaren arreta garaiak eskatzen zuen maila zientifikoaz hornitzeaz gain, hitzaldi hark Aitzolengan eragin zuen lilura aipatu ohi da, bertsolaritzaren historiako ziklo honetako gailurra izango ziren 1935 eta 1936ko txapelketak antolatzea eramango zuen lilura. Zavala da, Lekuona iturritzat hartuz kontu hau zabaltzen duena: “Don Manuel Lekuona'k (...) Bergara'n, gure erri-poesiaren apologia egin zuanean, Aitzol zana, Don Manuelek berak arestian esan duanez, txundituta gelditu zan. Aitzolek, euskeraren salbazioa olerkariak ekarriko zutela uste omen zuan. Itzaldi ori entzundakoa, bertsolariak euskeraren salbatzalle seguruagoak juzgatu zituan (...)” (1980a: 128). Lekuona berak ere berresten du ondoren: “Bergara'ko nere Itzaldia entzun zuan ezker, ikusten zuan nunbait, Olerkiaz gain – Poesi-Olerkiaz gain- ba genduala Euskalerrian beste palanka bat, Erria esnatzeko, Erria zutikatzeko: BERTSOLARITZA; eta or asten da Bertsolaritzaren palanka manaiatzen, erabiltzen: Kurtsaaleko Txapelketak eratzen” (1985: 12).

Badirudi, ordea, proiektua egosten hasia zela zerbait lehenagotik Aitzolen buruan. Lekuonaren hitzaldia 1931koa da²³³, eta Aitzolek 1930ean bertsolaritzaren inguruko hainbat artikulu argitaratuak zituen prentsan. Donostian entsegu gisa antolatu zuen saioa ere 1930eko Santo Tomas egunekoa da, eta garaiko proiektua azaltzeko aletu den ‘Concursos de bertsolaris’ (Renovando Costumbres de antaño)’ artikulu mamitsua 1931ko urtarrilaren 10ean argitaratu zuen *Euzkadin*.

Lekuonak aipatzen duen hitzaldiko lilura ez da zalantzan jartzen. Ezta Lekuonak inspirazio gisa Aitzolengan izan zuen itzala ere. Baina prozesua gradualagoa izan zela dirudi. Izatez, 1918an Oñatiko Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresu famatuan ezagutu zuten elkar: “Oñati’ko Batzar Nagusi artan, juxtu-juxtu ezagutuak nituan nik bi apaiz-gai, Gateitz’en ez baño Komillas’en estudiantzen zebiltzanak; biok Komillas’en, Orixeren Ikasle ziranak –ikasle gotor eta azkar- : Nemesio Etxaniz azkoitiarra, eta Jose Ariztimuño tolosarra – gero ‘Aitzol famatua izango zana-.’” (Lekuona Etxabeguren, 1985: 10). Eta bere ikasleen artean izan gero: “Eta, nik Oñati’n ezagutu ondoren, biotan bat, Jose Ariztimuño, Comillas’tik ‘dimititua’ or azaltzen da Gasteitz’en, anartean naiko aurreratua zeukan Apaiz-karrera Gasteiz’ko gure Seminarioan bukatzera.” (id.: 10). Jada aipatu den gisan, 1918tik bertsolaritzari buruzkoak txertatu izan zituen Lekuonak bere klasetan, eta litekeena da Aitzolen interesa klase haietan ernatu izana. Horrela dio Lurdes Otaegik: “Askotan esan izan da Aitzolek bertsolaritzarekin zuen zaletasuna Manuel Lekuonak itsatsia izan daitekela. Izan ere, Manuel Lekuona irakasle izan bait zuen Aitzolek Gasteizeko apaiztegi” (1993: 83). Eta hitzaldia entzun

²³² Jousse antropologia linguistikoko katedratikoa zen urte haietan Sorbonan eta Lekuonak ‘Literatura oral euskérica’ honetan behin bakarrik aipatu arren (1978, 266) Aulestiak erakusten du 1925ean argitaraturiko ‘Style Oral rythmique et mnémotechnique chez les verbo-moteurs’ lanaren eragin garrantzitsua izan zuela.

²³³ Honela kontatzen du Lekuona berak: “(...) llegó una gripe, y no se pudo inaugurar el Congreso de ese año (1930), y hubo de retrasarlo hasta enero-febrero del año siguiente, y este trabajo lo leí yo en febrero de 1931...” (Ugalde, 1988: 80). Esan bezala, hitzaldia bi zatitan egin zuen eta bigarrenean aritu zen bertsolaritzaz, Donostian.

ondoren ere, aurrerago azalduko den prozesu luze baten ondotik etorriko da 1935 eta 1936ko bertso-guduak antolatzeko erabakia.

Edonola ere, Lekuona-Aitzol bikoia funtsezkoa suertatuko da bertsolariaren ziklo honetan:

“Bakoitzak bere aldea lantzen digu. Lekuonak ahozko literaturaren kontextuan ezartzen digu gertakaria, kultur eta soziologi baldintzen barruan kokatuz bertsolariaren. Eta kontuan ditu testu-azterketa, antropologia eta psikologia, batez ere ‘Eusko Folklore’ taldearen barruan eta Marcel Jousse-n metodologiatik hurbil. Eta Ariztimuñok ‘Bertsolari-Eguna’ antolatzearekin bideratu zuen bertsolariaren gauregungo moldeetara, bertso-saioei jaialdi-eite beteagoa emanez.” (Lekuona, 1985: 467)

5.2.3 Makazagaren moldiztegia eta *Bertsolariya*

1930eko hamarraldiarekin, bada, bizkortze bat eman zen bertsolariari jartzen zitzaion arretan. Eta bizkortze honen lehen adierazpen eta eragile garrantzitsu bat Makazaga inprentaren lana izango da. Juan Jose Makazagak (1887-1963) haurra zelarik familiarekin Madrila bizitzera joana, bertan arte grafikoak ikasi eta 1920ko hamarraldiaren bukaera aldera Erreterian Euskal Herriratzea erabaki zuenean. Carcedoren arabera (2012: 198) euskara erdi galdua zuela itzuli bazen ere bertsolariarekin euskaraz egiteko adina moldatzen zen. Eta Zavalak azaltzen du nola bertsozaletu zen:

“Moldiztegi ontan bertso-paper asko eta asko argitaratzen zan: batzuk berri-berriak, jartzaillearen enkarguz; eta beste batzuk lengo zaarrak, Xenpelarrenak eta abar, bertso-saltzailleak ala eskatuta. Azkenerako, Makazaga jauna bera ere guztiz bertso-zaletu zan. Eta arrezkerotik bera bere kontu bertsoak argitaratzen asi zan; eta bertso-paperak ez-ezik, liburutxo batzuk ere bai.” (1992: 447)

Txirritaren bertsoekin osaturiko ‘Txirrita’ren testamentua’ argitaratu zuen 1930ean, Luis Jauregi Jaurtakolen hitzaurrea zeraman ‘Xenpelar’en bertsoak’ 1931ean, ‘Bilintx’en bertsoak’ 1931 edo 1932an²³⁴, eta datarik gabeak badira ere garai honetakoak behar duten ‘Euskal Erriko kanta zarrak’ hiru liburukitan²³⁵.

Liburu hauen ondotik, astero, *Bertsolariya* goiburuarekin, bertso-jarriez, zahar nahiz berri, osaturiko lau orri argitaratzeari ekin zion, urtearen buruan liburu bat osatzeko ideiarekin. 1931ko irailaren 20an argitaratu zuen lehena, eta honela aurkezten zuen ideia bertan: “Asteroko Bertsolariya izeneko au, atera da zeren ikasi naya edo gogoia dagoen bertsoetarako, eta denbora berian ez dalakoz xamur lengo bertso zar eder ayek billatzen nolana (...). Geyenian gertatzen dana, zere lagun edo adiskideari eman irakurtzeko, gero arrek ez digula atzera bihar bezala eman, au da, berriz zu gana eskutaratzeko ondatu edo orri batzuek kenduak (eta au da okerre) agiyan geyago libururik zugar iritxi ez”. Eta honela jarraitzen du: “Bertsolariya asteroko onen asmoa da bertsolari ederrenak bildu, eta liburu bikaiñ bat egitea (3.500) zar eta berri urte betean izango ditu gutxienez, lau orrialdi, aurreneko biyak bertso berriyak, eta beste bi bertso zarrak asko aztuta txokoan dauden Xabalategi, Pernando, Udarregi, Xorrola, Ardotx, Xenpelar (...) Txirritak itza eman digu, astero orri bat osoa beteko dubela bere bertso berriyak eta gañera ondoren, Lexoti, Sailburu, Telleri-Txiki (...) eta gañerako gogo duten guziyak, zarrak eata gaztiak izango dute lekua nai badute idatzi (...)”.

²³⁴ Honela dio Zavalak: “Liburuak ez du urterik esaten, baiña 1931 edo 1932-koa izango da” (1993c: 127-128).

²³⁵ Liburu hauen garrantzia azpimarratzen du Zavalak, gerora berak eta beste hainbatek egingo zituzten bildumetarako oinarri gisa funtsezkoak suertatu zirela azalduz (1996c: 249-250).

Zazpi pezeta zen urteko harpidetza, urte bukaeran liburua osatzeko tapak bidaliko zirela agintzen zen, eta zenbaki solteak 15 zentimo balioko zituela iragarri. Urtean birritan lau beharrean zortzi orrikoa aterako zela eta hori 25 zentimo izango zela ere abisatzen zuen. Eta lehen orri hori Txirritaren argazki handi batekin osatzen zen, bertsolariak garai hartan zuen itzalaren erakusgarri: “Ondo ikusten zuan Txirritaren izenak erostunik asko bilduko ziola” (Zavala, 1992a: 448).

Txirritan kolaborazioa zen, bada, argitalpenaren zutabe nagusietako bat²³⁶: lehen hamasei astetan hutsik egin gabe argitaratuko dira hernaniarraren bertsoak eta gerora baita beste asko ere. Zavalak nabarmentzen duen bezala harrigarria da bertsolariak, adinean oso aurrera zioan arren, erakusten zuen bertsogintzarako afana: “1931'garren urtean, irurogei ta amarretik gora asia zan. Eta orduan, atsedetik artu bearrean, bertso jartzeari iñoiz baiño gogotsuago ekin zion (...) bere-berea zuan lantegian (...) erretirorik artu gabeko langillea izan zala esan genezake, beraz” (Zavala, 1992a: 148).

Zenbaki ezberdinei gainbegiratu bat emanda ikus daiteke Makazagak baliabide gehiago ere jarri zituela martxan. Lehen hiru zenbakietan kolorea sartu zuen eta ahal zuen guztietan, ez oso sarri, baita bertsolarien argazki eta marrazkiak ere. Ia zenbaki guztietan ageri ohi zen ‘Astero, astero erosi zazu Bertsolariya’ leloa, ‘Erosi zazu Xempelarren bertsoak, bere doñu ta guziyakin jarriyak’ ere oso ohikoa zuen, eta hamargarren zenbakitik aurrera, askotan, ‘Datorren asteen Bilintx’en bertsoak, oso ederrak eta farragarritzkoak, pezeta bana’ iragartzen zuen. Hogeigarrentik aurrera gazteleraz ere egin zuen promozioa: “Todo el que desee alguno de los números, puede solicitarlo a nuestros vendedores o a ‘Bertsolariya’, Viteri 32, Renteria (...)”. 37.an nahi zuenak bertsoak bidaltzeko gonbita luzatzen zuen, “betire ateratzeko morukuak badira” eta 45.etik aurrera kasik astero eskaini zituen Fernandoren pasadizoak.

54.a da azken zenbakia, 1932ko irailaren 25ean utzi zion Makazagak argitalpena kaleratzerari. Carcedok uholde batzuk aipatzen ditu etenaren atzean: “¿Por qué desapareció "Bertsolariya" al cabo de poco tiempo? (...). Una inundación de mal sino truncó irremisiblemente su continuidad” (2012: 199). Lehen zenbakian iragarri ziren asmoak irakurrita, ordea, badirudi proiektua burututzat eman zuelako eman zitzaioela amaiera: urtebetean zehar argitaratu zen, liburu eder bat osatzeko adina eman zion eta bukaeran azalak ere banatu zituen, agindu bezala²³⁷.

Aldizkari gisa izendatu ohi da *Bertsolariya*, eta Díaz Nocik urte haietan sortu ziren lehen euskal kultur aldizkari tematikoen baitan sailkatzen du:

“1931.ean *Bertsolariya* aldizkaria sortu zen, Juan José de Makazagak zuzendua (...) Urte berean Antonio M^a Labaienek zuzendutako *Antzerti* aldizkaria sortu zen. (...) gipuzkerazko antzezlanak argitaratzen zituen. Txistularien Elkarteak ere 1928.etik *Txistulari* bere aldizkaria argitaratzen zuen. Honek erakusten digu 20. eta 30.eko hamarkadetan euskal kulturaren berpiztea.” (1995b: 241)

Aldizkakotasun bat duen argitalpen bat den neurrian ontzat eman daiteke pertzepzio hau. *Bertsolariya*ren edukiek, ordea, ezer gutxi daukate kazetaritzatik, iruzkinik gabeko bertso-sortekin osatzen baita nagusiki. Bestalde, lehen zenbakian ematen den proiektuaren azalpena

²³⁶ Zavalak esplikatzeko Txirritaren ilobak jasotzen zituela idatziz honek diktatzen zituen bertsoak, eta iloba horren ahotik bertsolaria eta Makazagaren arteko tratua berri ere ematen du (1992: 448): asteen 12 bertso bidaltzen zizkion Txirritak zortzi duroren truke eta horietatik bat ilobari ematen zion transkribapen lanengatik.

²³⁷ Aipatu gerra ondoren beste zenbaki bat argitaratu zuela Makazagak (Zavala, 1993a: 143) eta goiburua berdinarekin 1990etik 1995era sei zenbaki argitaratu zituela urtekari gisa Errenteriako Lau Haizetara Bertso-Eskolak (Albiztur, 2012: 99).

gertuago dabil faszikulu gisa argitaraturiko liburu batetik prentsaren produktu batetik baino. Azken emaitza ere horretan gelditzen dela esan daiteke: ez da kazetaritza lanak eskaintzen dituen bertsolaritzari buruzko aldizkaria, bertsoak eskaintzen dituen argitalpen aldizkatua baizik.

Makazagaren ekarpenaren zehaztapen bat baino ez da hau, ez du inolaz ere gutxien. Izan ere, aitortu beharra dago Juan Mari Lekuonak aipatzen duen gisan argitalpena garrantzitsua izan zela garaiko bertso giroa pizteko: “1931-1932 bitartean Makazagaren *Bertsolariya* ateratzen da. Makazagak izugarritzko propaganda egiten du. Bertsolaritza asko zabaltzen da” (Dorronsoro eta Lekuona Berastegi, 1987: 9). Zavala ere bat dator lortutako oihartzuna azpimarratzerakoan: “El Bertsolariya se difundió mucho por todo el país. No es raro encontrarlo aún hoy [30 urte beranduago] en caseríos, habiendo sido cuidadosamente guardado semana tras semana, hasta lograr completar al cabo del año el tomo apetecido” (1996c: 251). Bestalde, garbizaletasunetik bertsolaritzarekiko sortu ziren kritikak gainditzeko bidea hasi zuela ere gaineratzen du: “Otro dato a su favor es que, en aquella época en que por prejuicios puritanos las reediciones de poesía popular se hacían modificando el texto, este hombre, sin mayor preparación o estudio, mantuviera una escrupulosa fidelidad a las fuentes” (id.: 251). Garaiko bertsolaritzaren azterketarako corpus bikaina osatu zuela ere gaineratzen du: “(...) un gran volumen de trescientas treinta páginas, que constituye la más completa recopilación de nuestra poesía popular publicada hasta hoy [1964ko hitzak dira]” (id.: 251). Garzia ere bat dator aurrekoekin izandako arrakastaren eta bildutakoaren balioaren garrantzia azpimarratzerakoan (2000a: 415).

5.2.4 Aitzolen hurbilketa

5.2.4.1 Aitzol, antolatzailea (1896-1936)

Tolosan Gipuzkoako EAJen baitan erreferentziala bilakatu zen koadroa osatu zen urte haietan: Emeterio Arrese, Isaac Lopez de Mendizabal, Jon Andoni Irazusta, Antonio Maria Labayen, Jose Mari Agirre *Lizardi* eta abar. Tolosarra izanik Aitzolen eragin garrantzitsuenetako bat izango da talde hau.

Hamahiru urterekin Comillaseko seminariora aldatuko da, eta han ere bere bizitzan erabakiorra izango den euskaltzale taldearekin egingo du topo: Orixe, Nemesio Etxaniz eta Pio Montoya, besteak beste.

Bere jarrera euskaltzaleengatik arazoak izan zituen Comillasen eta aipatu den gisan Gasteizko Seminariora jo zuen ikasketak amaitzera, bertan, berriro ere garaiko euskal kulturgingtzako figura garrantzitsu gehiagorekin (Lekuona eta Barandiaran) topo eginaz.

Apaiztu eta berehala misiolari ardurak eman zizkioten: “Orduko Apezpikuak bidali omen zuen misioetara, apaiz berriak euskal kontuei buruz zeukan interesa ikusita. Baina egoskorra zen "Aitzol", eta garai horretan ere euskal kutsuko ekintzetan aritu zen. *Gure Mixiolari* aldizkaria sortu zuen misiolari euskaldunekin²³⁸” (Urkaregi, 1987: 138). 1925ean Erromara bidaltzen dute, 1927an Lovainara eta 1928an Bartzelonara. Bere antolatzaile sena nabarmenduko zen ordurako eta Kleroaren Misiolari Batasunaren Idazkari Orokor izendatua zuten, 1929an Bartzelonan egin zen Kongresuan hainbat ardura hartu zituelarik.

Ardura guzti hauek gaixotzera eramango dute, ordea: “(...) kargu horien nekeek eragindako makalaldia dela medio, guztiak utzi eta Donostiratzea pentsatzen du” (Otaegi, 1993: 67).

²³⁸ 1925ean sortu zuen aldizkari elebidun hau eta 1927an *Illuminare* izeneko bigarren bat.

Bronkioetako eritasun bat zuen nonbait, eta larria behar zuten, misiolaritza nahiz apaizgoaren arduretatik libratzera baitaramate (Otaegi, 1998: 4).

Orduan murgilduko da burubelarri euskalgintza lanetan. 1930ean Lizardik ordurarte berak zuzendu zuen Euskaltzaleak elkartearen zuzendaritza eskaini zion. Elkartea abiarazteko ideia Aitzolek planteatua zen, izatez, Primo de Riveraren diktaduraren jazarpena salatzeke idazle gazte talde batek Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiaren babesarekin Arrasaten antolaturiko Euskararen Egunean: “Literatura eta gainerako expresabide kulturalak euskara erabiltzen has zitezten, beste herrialdeetako pizkunde-mugimenduetan izan ziren talde eragileen antzeko bat sortzea proposatu zuen Aitzolek 1927ko Arrasateko Euskal Egunean, Euskaltzaleak taldea, hainbat ekintza kultural eta literarioen antolatzaile izateko” (Otaegi, 1993: 20-21). Lizardiren zuzendaritzapean Euskararen Egun berriak ospatuko dira Zumarragan (1928), Andoainen (1929) eta Bergaran (1930), eta Euskal Umearen Eguna Seguran (1930), edota euskara hutsezko egunkari baten proiektua ere zirriborratuko da (1929-1930), besteak beste. Aitzolekin lanak martxa berari eutsiko dio, bi Bertso-Guduez gain 1930etik 1936ra zazpi Oleriti Egun (urtero bana), hiru Euzko Antzerti Egun (1934tik urtero), Euzko Eleberri Egun bat, Euskal Idazleen Kongresu bat, Kirikiño literatura sariak edota euskarazko literatura tailerrak antolatu zituen Euskaltzaleak-ek. Bi mila bazkide lortu zituen.

1930ean baita *El Día* egunkariaren sorreran funtsezkoa izan zen Aitzol, Comillasen ikaskide izan zuen Pio Montoyak finantzatu zuen egitasmoa, eta hurrengo urteetan ere paper garrantzitsua beteko zuen bertan: “(...) erredakzio kontseilukoa izan zen, editoriala erabakitzen zen bilkurara etortzen zen egunero, buruetarik bat zen eta antolatzaile lanetan jardun zuen” (Altzibar, 1996: 471). Zuzendariak ere berak ekarri zituen: “(...) berak ekarri zuen zuzendaria, J. Landaburu, eta gero, hau diputatu izendatzean, Jose Lekaroz, *Euzkaditik*” (id.: 471). Eta egunkariaren euskal atala, lehen orrian agertu ohi zen *Eguneroko Xaltxa* zutabeak eta azken orriko *Errietako Berriak* sekzioak osatua, berak zuzendu eta Ander Arzelus *Luzearrekin* idatzi ohi zuen (Altzibar, 2005: 561; Díaz Noci, 2012: 272)²³⁹.

El Día Donostian *El Pueblo Vasco*k utzitako hutsunea betetzera zetorren, egunkari kristau eta euskaltzale gisa, eta Gipuzkoako egunkari irakurriena izatera iritsi zen 11.000 aletako salmentarekin (Garitaoinaindia, 1990: 61), bere arrakastaren adierazle gisa *El Diario Vasco* honen aurreko erreakzio modura sortu zela aipatzen delarik (Altzibar, 1996: 471). Egunkariak bere posizioari esker euskal kulturari eman ahal izan zion bultzada garrantzitsua nabarmentzen du Otaegik: “El Día-ko orrien bidez ordurarte inoiz izan gabeko oihartzuna izan zuten aktibitate euskaltzaleek (...) Sarritan, egunkariko portada edo azalean kokatzen zituen berri euskaltzaleak, apurka-apurka duintasuna, prestigioa eta errekonozimendua eratzeki zielarik euskararen eta euskal kulturaren alde eginiko ekintzei” (1998: 6).

Bigarren proiektu bat ere jarri zuen martxan 1933an, *Yakintza* aldizkaria, Euskaltzaleak Elkartearen bozeramaile funtzioa betetzen zuena, kasu honetan zuzendari kargua hartu zuelarik²⁴⁰, eta hainbat argitalpenetan kolaboratu zuen, *Euzkadi* egunkari jeltzalean ohiko sinadura bat izan zelarik: “Aitzolek euskal gizartean eragin handiko egitasmo kristaua, abertzalea eta euskaltzalea gauzatzeko ametsa zeraman barnean eta, batez ere, gizarte-

²³⁹ Garitaoinaindiak beste hitz batzuekin laburbiltzen du: “Egunkariak iraun zuen sei urteetan zeharreko zuzendaria, Jose Lekaroz izan zen administratzailea –argitaratzaile- eta kudeatzaile-lanak eginez Ricardo Leizaola. Hala ere, bere animatzaile nagusia Jose Ariztimuño (Aitzol) apaiza izan zen” (1990: 60).

²⁴⁰ Honela dio Díaz Nocik: “Ariztimuño zuzendua, idazkaria José de Arteche zen. *Euskal-Erria* eta *Euskalerraren alde* aldizkariaren tradizioari jarraitzen zion, Aitzolen hitzetan. Lehenengoa azalekoa bazen, folklorez eta literaturazkoa, *Euskalerraren alde* serioagoa zen, euskal kulturaren aldizkaria. *Yakintza* haruntzago doa, eta egitasmo orokorrago batetan kokatzen da: egitasmo abertzalean” (1995b: 205).

komunikabideetan eta irakaskuntzan eragiteko premia nabaritzen zuen, euskal kulturaren norabidea berak nahi zuen aldera gidatzeko” (Otaegi, 1998: 5-6).

Proiektu jeltzalearen baitan aritu zen lanean eta egitura politikoan inolako kargurik hartu nahi izan ez bazuen ere 1931n Madrilen Euskal Estatutua negoziatzen aritu zen taldeko kide izan zen, hezkuntza alorrari zegokion ordezkari izan zen (Ugalde, 1988: 36). Izatez, proiektu politikoaren baitako alderdi kulturala jorratzea izan zen bere lehentasun nagusia (Altzibar, 1996: 470; Otaegi, 1998: 6; Urkaregi, 1987: 139-140). Planteamendu kulturalista honek garaiko debekuak saihestu nahian Euskaltzaleak neutraltasun politiko batekin aurkeztera eramane zuen (Altzibar, 1996: 469) edota hizkuntzalaritza arantaren garbizalekeriatik urrundu eta Azkueren Gipuzkera osatuaren aldeko hautua egitea erraztu zion (Díaz Noci, 1993: 204; Otaegi, 1993: 56)

Deigarria suertatzen da tolosarrak bere bizitza laburrean garatu ahal izan zuen aktibitatearen zabalera. Urkaregik (1987) egiten duen errepasoan dozena batetik gora dira Aitzolek landutako alor ezberdinak²⁴¹. Medioetan zuen presentzia dela eta proiektu publiko handia izan zuen bere aktibitate honek guztiak: “Satorraren lana maite ez zuelako, azaldu egiten zen gizona zen” (Urkaregi, 1987: 139). Nortasun indartsua zuen gainera: “Aitzolek jite eta jenio handia zuen, ukitu autoritarioa ere bazuen jokaeran (...) errespetutik beldurrerako tartea laburra zen Aitzolekin, askorentzat” (Lasa, 2008: 584). Ezaugarri horiekin eta Euskaltzaleak elkarteko zuzendari izanik, ez da harrizkoa Aitzolek ziklo honen gailurra markatuko duten Bertso-Guduen antolaketaren buruzagitzaren bere gain hartu izana: “Aitzolen aitzindaritzaren erabateko honen eragina euskal kulturaren eremu zabalera hedatu zen, berak kulturari buruzko proiektu oso bat eskaintzen bait zuen (...)” (Otaegi, 1983: 18). Eta esku artean hainbeste kontu izanda ez da harrizkoa erabaki hori hartzea kostatu izana ere.

5.2.4.2 Olerkigintza lehentasun

Lekuonak honela deskribatzen du urte haietako Aitzolen obsesio nagusia:

“Olerkia. Olerkia... Ura izan zan aldi artan gure Aitzol'en ametsa ta apeta euskal-problematikari buruz. Olerkiak, Olerkariak salbatu bear zuten Euskalerrria. Olerkariak zutitu bear zituan euskaldunak, Olerkiak esnaerazi Euskalerrria. Erria esnatu bear zan; eta Erria esnatzeko esnatzailerik onena Schiller bat, Goethe bat zan; Schiller bat, Goethe bat bear genduan. Poema 'nacionala' egingo zuan Poeta aundi bat.” (Lekuona Etxabeguren, 1985: 11)

1930ean Euskaltzalearen buruzagitzaren hartu berria duen Aitzolez ari da Lekuona, Otaegiren hitzetan: “Aitzolek 1933rarteko epean argi eta garbi promozionatu zituen literatura arloan Europako literaturaren bidetik jotzen zuten olerkari berrizaleen lanak. Abangoardiako lana egiten zutenen alde, bideak urratzen ziharduten Lizardi, Loramendi eta Lauaxetaren lanen promozio sutsua egin zuen (...)” (1996: 504). Urte horietan egunkarietan argitaraturiko artikuluetan Europako kultur komunitate gutxiagotuen baitan emandako pizkunde prozesuekiko interesa eta ezagutza on bat, misiolariaren antolaketan European zehar eginiko urteetan sakonduak, erakusten zituen Aitzolek, eta alor honetan olerkigintzak pizkundearen abanguardian jokatu ohi zuen funtzioa azpimarratzen zuen (Altzibar, 1996: 477-478; Otaegi, 1983: 19 eta 1996: 503-504).

²⁴¹ Hauek guztiak aipatzen ditu: Aitzol humanitarista, Aitzol euskaltzale, Aitzol kultur eragile, Aitzol folklorista, Aitzol misiolari, Aitzol literatur kritikari, Aitzol idazle, Aitzol kazetari, Aitzol sermolari, Aitzol hizlari, Aitzol polemista, Aitzol militante, Aitzol abertzale, Aitzol apaiz gorri, Aitzol teorilari, Aitzol azterlari, Aitzol bertsozale eta Aitzol modernista.

Urte hauetan euskarazko literaturak bere lehen urrats sendoak emango zituen, hain zuzen ere norbere kultura norbere hizkuntzan egiten denarekin identifikatzen denaz geroztik. Gabilondok seinalatzen du logika nazionalista hau: “In the 1920s and 1930s, Unamuno and Arana’s nationalist theories had the effect of turning Basque literary production into literature written solely in Basque—and correspondingly texts written exclusively in Castilian into Spanish literature (...)” (2016: 219). Baita Apalategik ere:

“El nacionalismo fija como objetivo la emulación de las naciones dotadas de un estado (...) la reunificación en un solo proyecto cultural y político de las dos almas, la vasca y la universal. A partir de ahí los escritores seguirán creando personajes modernos –es decir dotados de un alma doble, un alma herderiana, y un alma universal ligada a la cultura de la urbe y a la idea de la modernidad-, pero las obras hablarán en euskara.” (2013: 620)

Euskarazko poesia herri kontzientziaren pizgarri gisa ulertzen zen, eta proiektuaren ginga gisa Orixek ‘Euskaldunak’ poemaren idazketari ekin zion euskal alegoria nazionala eratu nahian. Aitzolen aginduz ari zen Orixe (Otaegi, 1993: 71 eta 77), eta agindu honek nazioartean ematen ari zen mugimenduaren ildoari jarraitzen zion:

“Furthermore, from the Harlem Renaissance in the USA and the Irish Revival in Ireland to the Catalan Renaixença in Catalonia or the Nós Generation in Galicia, many minorities or oppressed cultures attempted to write a similar national work that would legitimize them as a nation in their own and other nations’ eyes.” (Gabilondo, 2016: 219)

Frédéric Mistralek, aipatu den gisan Lore Jokoak bere sorterrian berpiztea lortu zuen idazleak, 1859ean idatzi zuen ‘Mireio’-k funtzio hori bete zuen Probentzan, eta nazioarteko onespena ere lortu zuen 1904ean Nobel Saria eman zitzaionean. Aitzolek gaztetan irakurria zuen lana eta 1930ean Mistralen jaiotzaren urteurrena zela burutu ziren ospakizunen berri izatean eredu gisa hartu zuen (Altzibar, 1996: 478; Gabilondo, 2016: 219; Lasa, 2008: 576; Otaegi, 1983: 20 eta 1993: 70-71). Hainbat artikulutan azpimarratuko du ‘Mireio’ren eredu hori²⁴², Orixeri itzulpena eginaraziko dio, eta Maillaneko poetaren ildoan jarriko du lanean.

Emandako urrats hauek belaunaldi oso baten proiektuan txertatzen ziren: “(...) helburu eta eskuarteko nagusi hauek, poema nazionala eta sariketak, Lizardiren 1927-30 epeko artikuluetan jadanik iragarririk ikus daitezke” (Otaegi, 1993: 68). Euskaltzaleaken buruzagitzan Aitzol sartu zenean, ordea, epe laburragoko emaitzak bilatzen zituen bulkada nabaritzen du Otaegik: “Lizardik literaturari autonomia bat aitortzen dio eta kulturaren bilakabidean izan lezakeen indar eragileaz epe luzerako proiektuak ditu. Belaunaldiak behar direla deritzo. Aitzolek aldiz, epe laburrean fruituak ikus daitezkeelakoan, literatura indar bizkorreko gizarte eragileztat hartzen du” (1993: 69).

5.2.4.3 Bertsolaritzara oreka komunikatiboaren bila

Bere kideek burutzen zuten poesia modernistak herritarrengana iristeko arazoak zituela konturatuko da, ordea, tolosarra: “Laister nabaritu zuen Aitzolek idazle berrizaleen lanek ez zutela irakurleagoan eta euskaldunen artean berak nahi eta espero bezalako erantzunik sortzen; bere ustez, arazoa idazlan horien maila jasogian zegoen, berrizaleen hizkera zail eta bihurria zen zabalkunde motel horren errudun nagusia” (Otaegi, 1996: 504). Gasteizko seminarioan izandako eragina dela medio, Lekuonaren hitzaldiak berretsiriko eragina, kultura popularrak pizkunde hauetan izan ohi duen garrantziaz ere jabetzen zen Aitzol, eta molde tradizionalak

²⁴² *Euskadi*, 1930/IV/13, ‘El cantor de un pueblo’; *Euzkadi*, 1930/IV/16, ‘Mistral y los poetas vascos’; *El Día*, 1931/I/25, ‘Mireio y el euskera’; *Euzkadi*, 1931/IV/14, ‘Mireio de Orixe’.

herritarrekiko ematen zen komunikazioa erraztu zezaketela otu zitzaion (Altzibar, 1996: 481; Otaegi, 1996: 505). *El Día* egunkarian argitaraturiko ‘Antziñako oituren piztutzea’ litzateke Otaegiren aburuz Aitzolen estrategia aldaketaren lehen zantzua:

“[Koplak] irakurri utsaz eta entzun utsaz errex aditzen dira. Eta onelako olerkiak bear ditugu. Irakurleak eta euskaltzaleak gere bertso zail eta idazlan ezin entendizkoaz aspertu ditugu (...) Iñor mintzeagatik ez diot. Neroni naiz erruduna. Baña guztiak bide txarrak utzi eta bide onera jo dezagun (...) Gure elburua euskera piztutzea da. Gure baitan sar gaitean eta erabaki egokiena gureganatu dezagun.” (El Día, 1933/II/05, ‘Antziñako oituren piztutzea’. Ariztimuño, Jose Aitzol)

Aitzoli erantzunez Lizardik olerkigintza zaila egiteko eskubidea aldarrikatu zuen, eta Lauaxetak, umorez hartzea erabaki: “‘Oiei, oiei’ deritzan artikuluan berrizaleak gaizkile eta lapurtzat hartu dituen gizarte bat deskribatzen digu, haien pertsekuzio eta ejekuzioa proposatuz’ (Otaegi, 1983: 22-23)²⁴³. Gabilondok, berebat, garai beretsuan Orixerekin izandako eztabaida dakar:

(...) the debates between Aitzol and Orixe, the leading cultural intellectuals of the moment, focused on the populist or elitist style in which the national allegory had to be written (...) Yet, the populist tendency defended by Aitzol gave priority to the subaltern tradition (bert-solaritza, koplak zaharrak, etc.), whereas the classicist alternative defended by Orixe opted for a more elitist, purist poetic option, which was supposed to be based on both classical poetry (Greek and Latin) and Catholic religion” (2016: 221).

Aitzolek bereari eutsiko zion eta literatur sariketetan molde herrikoia jarraitzen zuten olerkariak saritzen hasiko zen. 1934ko abuztuan *Yakintza* aldizkarian argitaraturiko ‘Eusko olerti-kerak berezia’ lanean koplak zaharrek ‘euskal estetika’ gordetzen dutela zioen: “(...) [ordurako] erabakia zuen literaturan bide herrikoia eta ulerterrazagoetara jotzea (...)” (Otaegi, 1983: 23).

1934aren bigarren erdian erabakiko du bertsolari txapelketak berriro abiaraztea ere.

Poesiak kontzientzia pizgarri gisa espero zuen emaitzarik ez ziola ematen ikustean ekin zion Aitzolek bertsolari txapelketak antolatzeari (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 9; Garzia, 2007: 83; Otaegi, 1993: 83-84; Urkaregi, 1987: 143-144). Instrumentala izan zen, bada, bertsolaritza sustatzera eraman zuen motibazioa: “(...) it quite clear that the value being assigned to bertsolaritza was, even in the best of cases, instrumental rather than intrinsic (...)” (Garzia, 2007: 83)²⁴⁴.

Instrumentala zen poesia modernistari eskaini zion arreta ere. Kontzientzia nazionalaren pizkundea bilatzen zuen ingeniari sozialaren ikuspegitik ulertu behar da, beraz, buruturiko ibilbidea. Gabilondok seinatzen du poesia modernistarekin egin zen ahaleginak ez zuela helburu hauetarako balio, hain zuzen ere euskaraz alfabetatu gabea zen herriarengan nagusi zen ahozko kulturatik urrundu zelako:

“The ultimate contradiction of this modernist poetry relied on the fact that it had no readership. Most of the Basque speakers still preferred bertsolaris (a

²⁴³ *El Día*, 1933/II/12, ‘Gure bideko mugarrak’. Agirre, Jose Mari *Lizardi*. Eta *Euzkadi*, 1933/II/16, ‘Orreri, orreri!’. Urkiaga, Esteban *Lauaxeta*.

²⁴⁴ Otaegik ñabardura hau egiten du: “Aitzolek bertsolaritza sustatzen duenean ez du bere proiektuaren motore edo tresnatzat aipatzen. (...) Halere, ez dezakegu aipatzeko utzi ziurrenik Aitzol konturatua zela ahozko literatura moeta honek zuen jendea erakartzeko eta berotzeko gaitasunaz” (1993: 84)

national tournament was held precisely in 1934 in San Sebastian) or popular theater (mainly comedy written by authors such as Toribio Alzaga, Ignazio K. Nuñez Arizmendi, and Marcelino Soroa) while the educated masses favored reading in Spanish or French.” (2016: 224)²⁴⁵

Zaitegiri bidalitako eskutitzean (1935/III/15) antzeman daiteke Aitzolek zekusan panorama:

“El poema de Orixe, estoy con ello, y tengo una preocupación grande : necesito diez mil pesetas para editarlo y no sé de dónde van a salir . A nadie le importan los temas del euskara y nuestra cultura, no se lee nada... Nuestro Curso de Poesía Vasca ha sido un rotundo fracaso, no ha venido nadie a escucharnos . Y para lograr adhesiones para "Euskaltzaleak" y para otras actividades euskéricas nadie ofrece un céntimo ...” (Otaegi, 1993: 80)²⁴⁶

Gandarak oreka komunikatiboa deitzen diona bilatzen zuen, bada, tolosarrak bere arreta poesia modernistatik bertsolaritzara aldatzean:

“Ondare kulturalaren jabetza jarraituak, belaunaldiz belaunaldi eginak, eskainiaren eta hartzaile berrien arteko harremana konpentsatua izatea eskatzen du. Hau da, batetik, berritasunaren eta ezagunaren arteko oreka mantendu behar da; bertzetik, eskainiak momentuko garaiari egokitua izan behar du, eta, garai horretan hartzaile nagusi den belaunaldiarendako, funtzionala.” (Gandara, 2015: 225)

Hori horrela izanik, bertsolaritzarekiko zinezko interes bat ere aitortu behar zaio, ordea, Aitzoli. Honela, 1932tik 1936ra bitartean bertso bilketan murgildu (Zavala, 1997a: 171-172; Urkaregi 1987: 141-142) eta bilduma garrantzitsua osatu zuen: “Aitzolek herri-poesia edo kantu eta bertso zaharren bilketa-lana beharrezkotzat jo ez ezik biziki maite zuen” (Alzibar, 1996: 479). Eta bere artikuluetan askotan jorratu zuen bertsolaritzaren alorra, baita txapelketak abiarazteko erabakia hartu aurretik ere: ‘El Bertsolari/Su significación histórica y social’ (*Euzkadi*, 1930/IV/05), bertsolaritzak herritarrengan zuen arrakastari buruzkoa; ‘Concursos de Bertsolaris/Renovando costumbres de antaño’ (*Euzkadi*, 1931/I/10), Santo Tomas egunez egindako lehen probaren inguruan idatzirikoa; Otañori eskainitako ‘Pampero y poeta vasco’, (*Euzkadi*, 1931/I/17); Santa Eskeaz idatzitako ‘Una tradición sugestiva’, eta ‘Tradición y renovación’, (*Euzkadi*, 1931/II/5, eta 1931/II/20); ‘¿Desapareciera el bertsolari?’-n (*Euzkadi*, 1931/IV/06), bertsolaria jantzi beharraz; ‘La Poesía Popular y el alma de la raza’ (*Euzkadi*, 1932/VIII/24), bertso bilketarako Finlandia eredutzat hartuz²⁴⁷ ...

“Bertso minez genuen beti, bertso minez, eta buruz ikasiak zituen anitz” dio Joseba Zubimendik (2002: 39), eta argitaratu zituen hainbat artikulutan bertsolariekiko miresmena ere nabari zaio²⁴⁸.

²⁴⁵ Honakoa dio Lizardiren poesiari buruz: “Yet, Lizardi’s poetry void of any reference to subaltern poetry, lacked readers. It was addressed to an empty nation” (Gabilondo, 2016: 222). Eta honakoa Orixerenaz: “Orixe’s was twice anti-modernist, as it opposed the subaltern tradition that a nationalist literature was supposed to incorporate and did not meet the high-art standards set by modernism” (id.: 221).

²⁴⁶ 1933rako amaitua zegoen arren ‘Euskaldunak’ ez zen 1950 urtera arte argitaratu ahalko.

²⁴⁷ Deigarria suertatzen da nazioartean kultura popularraren inguruan burutzen ziren proiektuen inguruan erakusten duen ezagutza: “Esta colaboración de los patriotas euskaltzales puede conducirnos a conseguir lo que Finlandia ha realizado: archivar en un soberbio edificio más de medio millón de poesías, cuentos, leyendas y refranes populares finlandeses (...) ese edificio sería el mejor Museo y la Historia más interesante de la raza euzkeldun a través de los siglos.”

²⁴⁸ Honela dio, esaterako, bertsolariak jantzi beharra dagoela planteatzen duen artikuluan berean: “¿Quién no ha comprobado la sutileza e ingenio de nuestros ‘bertsolaris’? Pero muy pocos pueden, (...) testificar el caudal imaginativo, la rapidez creadora de la fantasía de un ‘bertsolari’ cuando pone en tensión las fibras de su alma de

5.2.5 Bertsoa irratian

5.2.5.1 Euskaltzaleen kazetari grina: Zubimendi (1898-1939) eta *Luzear* (1898-1939)

Adin berekoak ziren bi donostiarrek elkarlanean buruturikoa da hurrengo ekarpenaren historia: “Zubimendi eta Arzelus, Arzelus eta Zubimendi. Bi izen horiek, elkarrekin doaz. Elkarren adiskide minak, biak aurrezki kutxetako enplegatu ziren —bata Probintzialean bestea Munizipalean—, baina beraien lan nagusia euskalgintzan egin zuten” (Ordozgoiti, 2012: 12).

Ander Arzelus *Luzear Argia* aldizkariaren sortzaile izan zen 1921ean Ambrosio Zatarain, Ricardo Leizaola, Gregorio Mujika, Victor Garitaonandia, Ramon Inzagaray eta Jesus Carrerakin batera. *Euskal-Esnalearen* esperientziatik abiatuaz garaiko euskarazko kazetaritzako proiekturik arrakastatsuen eraikitzea lortu zuten hainbat urtetan astean 11.000 ale banatuaz: “(...) un número importante si tenemos en cuenta (...) que diarios de la época, escritos en castellano, como el nacionalista *Euzkadi* o el socialista *El Liberal*, vendían alrededor de 25.000 ejemplares” (Díaz Noci, 2012: 271). Hizkuntza ereduarekin asmatu izana eta kazetaritza moderno bat egiteko ahalegina seinatzen ditu Díaz Nocik gako gisa:

“(...) el semanario donostiarra utilizó desde el principio toda suerte de recursos tipográficos y gráficos que lo convirtieron en un verdadero medio de comunicación de masas, En especial, es de destacar la utilización que hizo de la fotografía de prensa, de la mano de aquel gran fotógrafo eibarrés que fue Indalecio Ojanguren” (id.: 272).

1929an aldizkariko zuzendari ere izendatu zuten *Luzear*. Ez zen luzerako izan, ordea, 1930ean Aitzolek *El Día* egunkaria sortu eta bertako euskarazko lanen ardura eman baitzion. Sorreratik zen baita Euskaltzaleak taldeko idazkari ere, eta bertatik ezagutu behar zuen tolosarrak. *Argiako* zuzendaritza utzi behar izan zuen orduan, familiako ardurei eta bulegoko lanari *El Díako* gehitu bazitzaizkion, baina ez zion aldizkarian kazetari bezala lan egiteari utzi, eta antzezlanen bat idatzi, beste batzuk moldatu eta itzulpenak egiteko ere bazuen denbora: “*Luzear* euskaltzale nekagaitz eta eragile handi bat izan zen” (Mujika, 2012: 42).

Zubimendi Donostiako Orfeoiko tenor bakarlari gisa egin zen ezagun oso gaztetan eta Eusko Abesbatzaren sorreran parte hartu zuen ondoren. Bertso-jartzailea ere bazen eta bi bertso liburu argitaratu zituen: ‘Aberri oyua’ (1932) eta ‘Zumalakarregi’ (1935). Euskadiko Euzko Gaztediko arduradun izanik lehen liburuari lehendakari izango zen Jose Antonio Agirrek egin zion hitzaurrea. Altzibarrek azaltzen duenez (1996: 480), garaiko euskarazko liburu arrakastatsuenetako bat izan zen, 5.000 ale salduta, eta Aitzolen laudorioak ere irabazi zituen *Euzkadin* 1932/VI/10 datarekin argitaraturiko ‘De oficinista a trovador’ artikuluan²⁴⁹.

Luzearrek bezala kazetaritzaren harra euskaltzaletasuna bezain barneraturik zuen Zubimendik. *Euskal Esnalean*, *Gipuzkoarran Argian*, *El Dían* eta *Euzkadin* kolaboratu zuen eta 1931an *El Pueblo Vasco* monarkikoan euskarari tarte bat egitea lortu zuen, urteetan astero

artista, cuando su bullente imaginación precipita los conceptos con vertiginosa celeridad y un secreto resorte presta color, ilusión, encanto y vida al verso obligado, al ritmo ferreo, a la melodía ondulante que el jurado arbitraria y repentinamente propone.” (Euzkadi, 1931/I/10, ‘Concursos de Bertsolaris/Renovando costumbres de antaño’. Ariztimuño, Jose Aitzol)

²⁴⁹ Honela dio besteak beste: “No es el mecanismo modelo de las Oficinas de las Cajas de Ahorros, campo propicio para alentar la inspiración (...) Inquieto y nervioso logra, al fin, fuera de su oficina plasmar en versos euskaldunes, la idea que torturaba su mente (...) ¿Cual es su mérito? (---) Son más modestas sus ideas poéticas. De menos relieve, ciertamente. Pero hay en ella vibración, ideas escogidas, dulzura... Y, sobre todo, manifiéstase en ella una gran preocupación, la de amoldar la forma y el pensamiento a la inteligencia y gustos populares”.

‘Euskal Eresi ta Izkuntzaren Alde’ atala argitaratuko zuelarik: “Kazetari osoa, beti zeraman Kodak kamera aldean, erreportaiak egiteko hango eta hemengo herrietara irten behar izaten zuenean bereziki” (Izagirre, 2002: 12).

5.2.5.2 Bide berria urratzen

Euskarazko kazetaritzan dena zen berri samarra garai hartan, baina berrikuntzarik handiena Zubimendi eta Luzearrek elkarrekin ekarritakoa izan zen: euskarazko irratsaio finkoa. Urratsa inguruko hizkuntzekin bateratsu ematea lortu zuten gainera.

1920ko azaroaren 2an Pittsburg-eko KDKA kateak AEBetako presidentetzarako hauteskunde berri emanaz buruturikoa izan zen lehen irrati-emanaldia munduan, eta Europan, esaterako, 1922an sortu zen British Broadcasting Company enpresa, bost urte geroago British Broadcasting Corporation (BBC) izena hartuko zuena. Frantzian 1921an egin ziren lehen probak, Espainian 1924ko maiatzean jarri zen indarrean lehen arautegia, eta Euskal Herrian lehen emanaldiak *Radio Club de Vizcaya* irratiak eskaini zituen 1925eko urtarrilean. Euskarazko lehenengo irrati-uhinen albistea, berriz, Jose Zabala *Nabarriztarrak* eman zuen *Argian* urte bereko urriaren 4ean: “Lengo eguneko arratsaldean (...) belarrikoa jarri nuaneko nabaitu nuan poza! Doniane Loitzuneko txadun-abestaldea abesten ari bai-zan! Etxeko guztiak, belarriko bana genuela zortziakarte entzuten egon giñan”.

Astebetara, euskarazko programazioaren edukiak zerrendatzen ziren, *Argian* baita, ‘Radio-Donostia’ izenburutzat zeraman testuak: Toribio Altzagak euskaraz emaniko ‘Qui Tolis’ bakarriketa, Errenderiko Etxeberria delako batek abesturiko Eusko-Rapsodia, Egileorrek kontaturiko Fernando Amezketarraren ipuinak... Eta Luzear da hurrengo zenbakian formatu berriaz diharduena: “Bat edo batek galdetu du onuzkero ¿baña nola dabil gure euskera egaz? ¿Nola? Emen aurrean daukaten tresnatxoa zure aurrean bazeneuka etzenuke ori galdetuko (...) ‘Fernando Amezketarraren ateraldiak’ Eskozia’tik Marruekos’eraño entzun dituzte (...)” (*Argia*, 1925/X/18, ‘Euskara egaz’. Luzear). Díaz Nocik seinatzen du *Argiaren* inguruan oso harrera beroa egin zitzaioela irratiari alfabetatze arazoak saihestuaz nekazariengana iristeko bitarteko gisa (1992: 368). Irratiari eskainiriko atal bat ere sortu zuten 1926an hainbat hilabetetz Nabarriztarrak sinatu zuena.

Tartean behin agertu ohi ziren eduki solteak ziren lehen urteetan Donostiako Union Radiok euskaraz eskaini zituenak, Díaz Nociren arabera, musika piezak, gai erlijiosoak eta baserriaren ingurukoak nagusiki (1992: 368-370). Euskarazko irratsaio finkoak zerbait gehiago itxaron behar izan zuen. Hain zuzen ere Luzear izango da 1931ko irailean Zubimendik *El Pueblo Vascon* zuen euskal atalean ideia mahairatu zuen lehena. ‘Irudipen zoroak’ bezain izenburu esanguratsua jarri zion testuari:

“Oroitzen al aiz, Joseba? Atzo, zinean izana nauk. Gabero, radio entzun oi diat. Eta antzoki, zine ta radio naastu dituk cocktailik biurrienean; burua zoratu zidatek. Eta irudipenik zalapartarienak irten nai bizian zebizkiat. Irudipen zoro oiek, Euzko Gaztediara eskaini nai zizkioat. Zoro batek, eun zintzo zoratu oi dituala etziotek ba? Ia ba zorakeri abek, norbaitek egi biurtzen ote dizkiken. «Antzokia! (Teatro). Irudibiltegia!! (Zinea). Irratizkiña!!! (Radioa). A zer iru lagun, gure zabalkunderako! Ta irurok, gure deiaren zai-zai bezela dauzkagunak. Jakina, gauza guzietarako bezela, diru apur bat bear. Ta diru apur ori, duanaren eskutatik eypadator...” (*El Pueblo Vasco*, 1931ko iraila; Ordozgoiti, 2012: 12)

Zubimendiri zuzentzen zitzaion, lagun bezala ziurrenik, baina baita Euzko Gaztediko burua zelako bai Euskadi Mailan eta baita Donostian ere. Eta honek erabat sintonizatzen zuen lagunak euskararen zabalkunderako medio berria baliatzeko zuen kuraiarekin:

“Aspalditik amets gozo bat bezela gure buru barruan jiraka zebillen asmo bat, laster betetzeko bidean jarri zaigu. Ez da txantxetako asmoa. Irratizkiñez, radioz, astean ordu bete osoa euskeraz egitea. Radio San Sebastian-ek badakizute nola egunero bialtzen duan bere abotsa ludi guziak entzun dezan. Ba, leku orretatik bertatik, berak pozik guri utzita, euskal abotsa, ludiko bazter guzietara, zabalduko degu. Ludi guzian entzungo dan euskerazko ordu bete!”
(*El Pueblo Vasco*, 1932ko otsaila; Ordozgoiti, 2012: 13)

1932ko martxoaren 2an eskaini zuten lehen emanaldia eta aurrerantzean asteazkenero eskainiko zen 20:00etatik 21:00etara. Zubimendi zen zuzendaria, Luzear eta biak esatari nagusiak, haren alaba Amale Arzelusekin batera, Anjel Lizarraga aritu zen produktore lanetan, eta Txomin Olano nahiz Bruno Imazek jartzen zuten zuzeneko musika, pianoa joz. Lan talde honek Pizkunde hartako hainbat izen garrantzitsuren babeseta eta kolaborazioa izan zuen: Aitzol, Lizardi, Monzon, Emeterio Arrese, Orixe, Hernandorena, Toribio Alzaga, Beorlegi, Basarri, Elbira Zipitria, Dunixi, Tomas Garbizu, Aita Donostia, Aita Migel Altzo, Jean Lafitte eta Oxobi aipatzen ditu Ordozgoitik (2012: 6) etenpuntuak jarri aurretik. Eta baita Aldundiaren sustengua ere: 1.500 pezeta 1932an eta bi milana 1933 nahiz 1934ean.

Arrakasta izan zuen proiektuak. 100. emanaldia ospatzeko lau ordutako emanaldi berezia egin zuten Kursaaletik, Eusko Abesbatzaren, Errenteriko txistularien, Orkestra Filarmonikoaren kontzertuekin eta Basarriren bertso-saioarekin²⁵⁰, besteak beste. Lehen, aldiz, urteurrena ospatzeko honela zioen Lauaxetak: “Artzeluztar Amaletxu edonork darau bere abotsa entzun dogulako ez behin, sarritan baino. Zubimendi azkarra, Luzear eta abar geure adiskide egin dira. Eta zelan gero? Irratijaren bidez! Holakorik entzuteko bere!” (Ordozgoiti, 1992: 6). Eta, elkarrizketatuak ere izango dira Zubimendi eta Luzear irratsaioaren arduradun gisa²⁵¹.

Kasik mende bateko atzerapenarekin eman zituen bere lehen urrats sendoak euskarak prentsan²⁵². Telebistan ere atzerapena nabarmena izango zen gerora: “Telebista Frantzian emititzen hasi zenetik hogeita hamahiru urtera, Espainian hasi zenetik hogeita seira, jaio zen Euskal Telebista” (Garmendia, 2012: 47). Irratian, aldiz, salbuespen positibo gisa, Luzear eta Zubimendiren ekimen honi esker inguruko erdarekin bateratsu eman zen pausoa (Díaz Noci, 1992: 367; Garmendia, 2012: 47; Martinez, 2012: 55; Ordozgoiti, 2012: 7-9). Eta gerora ere errazago egingo da bidea formatu honetan: “Hedabide guztien artean, historiako etapa ezberdinetan, irratia izan da beti euskarak azkarren eta indar handienarekin irabazi duen lurraldea” (Martinez, 2012: 55). Izan ere, euskal komunitatearen subalternitateak eragindako gabeziak, prentsaaren garapenerako funtsezkoa den alfabetatzearena, edota hamarkada askotan telebistaren garapenerako funtsezkoa suertatu izan den estatu egituren babesarena, errazago saihesta daitezke irratia kasuan.

²⁵⁰ Basarriren bertsoa jasotzen du Díaz Nocik (1992: 371) 1932 hartan argitaratua: “Euskera eder zoragarria/orra irratetxetan/ txiro ta aberats artean, etxe ta ikastoletan, itxaso zabal, baso ta mendi, kale ta baserrietan./ Biotz zabalez aitortzen degu:/ ¡Maite zaitugu benetan!/ Gaurtik aurrera garalle bear/ dezu alde guztietan”.

²⁵¹ *El Día*, 1933/III/07, ‘En el aniversario de las emisiones euskéricas’ (biei eginiko elkarrizketa). *El Día*, 1934/I/27, ‘Radio euskera’ (Luzearri eginikoa).

²⁵² Ik. 4.5.5 Bertsolaritza euskarazko kazetaritzaren lehen pausuetan

5.2.5.3 Bertsolaritzari eskainiriko minutuak

1934ko otsailaren 10ean irrati bidez eduki politikoak zabaltzeko debekua ezarri zuen Errepublikako gobernu eskuindarrak. Lehen emisioetatik eman izan ziren euskarazko irratsaioaren inguruko kexak, euskaraz burutzen zirelako batzuetan eta ideologia abertzalea zabaldu ei zutelako besteetan (Lasa, 2008: 400-401; Ordozgoiti, 2012: 18-20). 1934ko urriaren 5ean Asturiasko matxinada eman zen, biharamunean Companysek Kataluniako Estatua indarrean sartzen zela deklaratu zuen, eta Madrilgo gobernuak egoerari erantzuteko abiarazi zuen errepresioa oldearen baitan ezarri zen, urriaren 10ean, otsaileko legea aintzat hartuz, euskal irratsaioen debekua.

137 emanaldi izan ziren guztira, eta grabaziorik gorde ez bada ere, *El Dia*, *El Pueblo Vasco*, *Argia* eta *Euzkadin* eskainitako informazioek irratsaioan eskaintzen ziren edukien arrastoa jarraitzeko modua ahalbidetzen dute (Izagirre, 2002: 17-18; Ordozgoiti, 2012: 21 eta 52). Itxieraren berri emanaz *El Díak* urriaren 31n argitaraturiko ‘¡Han muerto las emisiones euskéricas!’ artikuluak, esaterako, errepasso orokor eta joria eskaintzen du. Honela, emanaldietan parte harturiko herri ezberdinetako batzokiak aipatzen ditu, Hernaniko eta Pasaiako ‘Schola Cantorum’-ak, Donostiako poxpolinak, antzerki munduko Beorlegi eta Egileor, Donostiako Orfeoiko bakarlariak, Eusko Abesbatzako partaideak, Donostia edo Errenteriako txistulariak... Eta bertsolariei ere egiten die aipamena: “Bertsolaris se presentaron muchos y buenos. Un botoncito de muestra, los conocidos Arizmendi, Arostegi y el popular “Azcoiti” de amenidad considerable”.

Topatu ahal izan diren erreferentzietatik ondoriozta daiteke bertsoa elementu garrantzitsua izan zela euskarazko lehen irratsaio hartan. Lehen emanaldia, esaterako, Zubimendik Etxepareren ‘Kontrapas’ famatuari keinu bat eginaz propio sorturiko bertsoekin eman zitzaion hasiera: “Ua, ua emendik, otsa!/abil azkar, pizkor, abotsa! /Gure izkuntzen agur laztana, /ludiko euskeldun danorengana (...)” (Ordozgoiti, 2012: 15-16). Eta Zubimendik berak azpimarratzen du bertsolariek bere irratsaioetan eskaini nahi izan zitzaizen tokia:

“Bertsoak, herri-mamiko bertsoak ere, bazuen leku, eta ez laburrena: gure harriak hain maite dituen koplak zaharrak, sarritan entzuleen belarri ertzean; baina eguneko bertsolaria ez zegoen ahazteko. Bertatik igaroak ditugu anitz bertsolari” (2002: 108).

Bestalde, hamalau irratsaio ezberdinen amaieran parte hartzaile guztiekin Zubimendik ateratako argazkiak ere eskaintzen ditu Ordozgotiren lanak. Honela, 1933/I/25eko saioan Basarrik parte hartu zuela ikus daiteke (Ordozgoiti, 2012: 54), eta 1933/II/08koan Joxe Mari Lopetegi izan zutela gonbidatu (id.: 55). Eta argazkietan azaltzen ez bada ere Matxin Irabola ohiko bat zela gaineratzen du ikerlariak (Ordozgoiti, 2012: 6).

Basarrik irratsaio hauekin lotura berezia izan duela ere ikus daiteke. Aipatu den gisan 100. emanaldiaren ospakizunetan ageri da ‘bertso-berriak’ eskainiz eta baita prentsan irratsaioa goratzen duten bertsoak jartzen ere. *Euzkadin* argitaratu zituen kolaborazioetan, bestalde, hainbatetan jorratzen du irratsaioaren gaia²⁵³. Batean irratsaioaren sorrera nola eman zen azalduko du Zubimendi eta Luzearren biografiekin batera, hurrengoan Txomin Olano musikariak pianora egiten duen ekarpena da goratzen duena, edota beste batean ehungarren emanaldiaren ospakizuna iragartzen du.

Bestalde, badirudi bertsoak ez ezik bertsolaritzari buruzko hitzaldiak ere eskaintzen zituela irratan. 1933/XII/22 datarekin eta ‘Bertsolariak’ izenburupean topatu ahal izan da hitzaldi

²⁵³ Guztiak ‘Euzkel-Irratsaioak’ izenburuarekin eta *Euzkadin*: 1934/I/09, 1934/I/13, 1934/I/18 eta 1934/I/23.

horietako bat *El Día* egunkarian. Bertan irakur daitekeenez oso maiz hartzen zuen parte Basarrik irratsaioan: “Agur irratentzule biotzekoak: Bein da berriro ere emen nazute zorioneko tramankulu onen aurrean ta gaurkoan, eusko bertsolariatzaz, labur itzegin nai nuke”. Eta hala ere labur egiten zitzaion eskaintzen zioten denbora: “Gai onetan, nire esku balego denbora geixeago beteko nuke baña emen, amar ‘minutu’ soileko tartea bakarrik euki. Beraz, nik esan nai nituzken gauz asko ta asko eziñ aitatu denborik ez dagoalako”. Diskurtsoan lehen zati batean bertsolariak goratzen ditu: “Arrigarri ta zoragarritzko asmoak dituzte beren bertsoetan. Ta oyen kantuzko egokitasun ta bikaintasuna neurtu gaitza izaki”. Jarraian jaió vs. egin ardatzari erreparatu eta nahikoa ikuspegi esentzialista eskaintzeko: “Berezkua ezpada jayotzazkoa ezpada, mila erakuslari ta nai ainbat ‘maixu’ izanagatik ere, ez dago bertsolaria ateratzerik (...) Ikasiaz ez dago bertsolaria egiterik berezkua ezpada. Eta garaiko *intelligentsiaren* diskurtsoarekin lerratzen da erabat hurrena, besteak beste sagardotegiak eta abar aipatuaz: “(...) Tamalgarria. Garrantzi gabeko gauzetan nekatu dituzte beren adimenak. Ardandegi ta sagardotegietan neurtu dituzte beren almenak. Ango ardo kontua, emengo neskazarra ta alkarri alakoak esaten: askotan asarretzeraño gañera”.²⁵⁴

Ehundik gora irratsaiotan gai bera hizlari gehiagoren ahotan ibili zela suposa daiteke, azkenik. Aitzolen lokuzioa aipatzen du Ordozgoitik, *El Día*n 1932/IV/21 datarekin argitaratua. Otañori zion sinpatia azpimarratzen zuen buruzagi jeltzaleak bertan:

“Donostiatik irrati entzuleei agur! Argentina mugagabetako zelai aspergarrietan aspaldian loretu zitzaigun olerkariari buruz itz egiteko natorkizue. Argentinako panpetan ernaitutako eusko bertsolari gorenetaz: Iparragirre-Otaño artzai Argentinan ibiliak. (...) Bietatik neretzat kutunena Otaño apal eta umila. Otaño euskaltzaleak, eusko-gogoa yayoago senti eta biziago azaldu du. Iparragirre euskaltzalea zela nork uka ote lezake? Ala ere, Otanoren olerki emaietan eusko odol bat aberatsagoa darabil. (...) Iparragirre “dieltanti” xamar ote zen esan genezake.” (Ordozgoizti, 2012: 30)

Itxieraren ondoren, irratian kolaborazio puntualak egiten jarraitu zuten Luzearek eta Zubimendik, esaterako, Kontxako estropaden historiako lehen zuzenekoak, Igeldon jarritako linea batetik 1935eko irailaren 19an Zubimendik lokutatua. Pixkanaka kolaborazio horien garrantzia eta maiztasuna areagotuz joan ziren eta 1935ko abenduaren 5etik aurrera irratsaioaren bigarren aldi bat abiaraztea lortu zuten, ostegunero emititzen zen programarekin. Aurreko aldiaren lantaldea Euzko Gaztediren izenean ari bazen bigarren honetarako profil politiko lausoagoko erakunde baten babes bilatuko zen, eta Donostiako Euzko Pizkundera Kultur Elkartea agertuko da paperetan. Irratsaioak aurretik irekitako bide berari jarraituko zion, ordea: akordeoi eta trikitixa joleen parte hartzeak, Nikanor Zabaleta arpajolearena, udal musika bandena, Poxpolinako haurrena, ikastoletako hainbat andereñoena... Luzearek emandako irrati bidezko euskara ikastaroa izan daiteke berrikuntza azpimarragarriena:

“Euskal Autonomia Estatutua Errepublikako Gorteetan onartua geratu zen 1936ko ekainean, eta hilabete horretan euskarak irratian beste urrats garrantzitsu bat eman zuen. Orduan sortu zen irrati bitarteko lehen euskara ikastaroa (...) Irrati bitartez euskara irakastea Luzearren buruan euskal irratsaioa 1932an hasi zenetik zegoen. Orduan idatzi zuen horren beharraz (...)”

Bertsolaritzak bigarren aldi honetan ere izan zuen presentziarik. Honela, Txirritak 1936ko txapela jantzi ondoren irratsaioari egindako bisitaren berri ematen du Zubimendik:

²⁵⁴ Esanguratsuak suertatzen diren kontu gehiago ere esaten ditu irratsaio honetan eta aurrerago azalduko dira, Basarri eskaintzen zaion azpipuntuan.

“Txirritak saria jaso zuen urtean (...) handik kantatu zuen, eta gogoan hartua du jendeak bertatik zabaldutako bertso hau: ‘Inbentu ederra egin digute/ gure euskera zabaltzeko;/ inpernutako sorgiñak dira/ nere ustetan tarteko!// bañan alare onik artzen det./ ez da gauza tristetzeko,/ baldin emendik kanta al badet/ euskaldunak agurtzeko.’” (2002: 108)²⁵⁵

5.2.6 ‘Euzkadi’, lehen ikus-entzunezkoa

5.2.6.1 Hernandorena, akuilua (1898-1994)

Teodoro Hernandorena ere Gasteizko Seminario famatutik pasa zen (1911-1915) baina apaiz bokaziorik ez zuela ikusi eta medikuntzara bideratu zen, karrera Zaragozan eta praktikak Basurtoko ospitalean egin (1917-1922), eta itsasontzi bateko mediku gisa Atlantikoko hainbat herrialde ezagutu ondoren (1924), azkenik, Villabonan kontsulta irekitzeko. Madrilen Odontologia ikasketak burutu zituen jarraian eta *Argia*, *El Día* edo *Pueblo Vascon* topa daitezke euskara hutsez jarri zituen Donostiako ‘ortzalari’ kontsultaren iragarkiak.

Etxean erdaraz bakarrik irakatsi zioten arren, kalean euskaldundu eta euskaltzaletu zen Hernandorena, eta 1931an Zubimendirekin batera Eusko Abesbatzaren sorreran parte hartu ondoren Eusko Gaztedin sartu zen. Nortasun bizikoa zen zizurkildarra, ekintzaile petoa eta hizlari sutua eta 1931ko ekainean bere lehen mitina Zubimendiren ondoan eman ondoren Donostiako Euzko Gaztediko buruzagitza bere tokia hartzeko eskatu zion honek. Gipuzkoa Buru Batzarreko buru izendatu zuten 1932an eta urte hartan bertan Irlandan zen hitzaldiak ematen. 1933an, aldiz, Galeuzcaren sorreran murgildu zen eta Argentina eta Uruguaira ere bidaiatu zuen, diasporarekin harremanak berritzeko...

Goizetik gauera EAJren ekitaldi politikoaren karteletan ohikoa bihurtu zen bere izena: “Sona galanta lortu zuen Teodorok Errepublikako aldiaren. Nonahi eta noiznahi gonbidatu zuten abertzaletasuna sozializatzeraz” (Lasa, 2008: 165). Hertsiki politikoa zen aktibitate honek, ordea, ez zuen inoiz kulturgintzatik aldentu, eta alor honetan Aitzol izan zuen gertueneko bidelaguna: “Ia gehienetan gerra aurreko euskalgintza pertsonaiarik eragileena gertatu zen Jose Ariztimuño Aitzol apaiz nekazaren aldamenean jardun zuen” (id.: 57). Jada azaldu den gisan nortasun handikoa zen Aitzol baina Lasaren arabera Hernandorenari errespetu handia zion: “Teodoro zen Aitzol *eramaten* zekien bakanetakoa (...) Teodoro autoritatea zen eta bere izaera ausarta eta suhartsuari esker bazekien erabiltzen botere hori, baita Aitzol bezalako pertsonaia ukiezin baten aurrean ere!” (id.: 584-585)

Azaldu berri den euskarazko irratsaioaren historian ere izan zuen bere parte. Bera izan zen Union Radiorekin asteen ordubeteko emanaldia erosteko negoziazioa burutu zuena:

“Euskara irradian lur hartu gabe zegoen, baina egingarria ikusten zen (...) Unión Radio San Sebastián-eko zuzendaritza batzordera jo zuen abiadan

²⁵⁵ Esan bezala, irratsaio hauetako grabazioak ez da berreskuratu ahal izan. Horrek ez du esan nahi garai hartako audiorik ez dagoenik. Txirrita berari egindako grabazio bat da, Juan Iñurrietaren Donostiako Columbia Gramophone Company disketxeak Regal zigiluarekin eta ‘Asteasu y Txirrita’ tituluaz 1926 eta 1930 artean kaleratua, bertsolari baten lehen audiotzat hartzen dena. Harribitxi hau aspaldi egin zen ezagun, euskal kazetaritzarentzat mugarririk izan zen 1976ko ‘24 orduak euskaraz’ ekitaldiaren irekierarako baliatu baitzen (Martinez Martinez, 2012: 59). Eta azken urteotan ere izan du oihartzunik, audioan entzun daitekeen bigarren baten nortasunari buruzko hipotesi ezberdinak planteatu izan baitira. Audioan ‘Asteasu’ deitzen dio entzule batek bertsolari honi eta hasiera batean Pello Errota izan behar zuela uste izan zen asteasuara baita hau. Jaione Landabereak diskoaren datak 1926-30 bitartekoa behar zuela ezarri zuen, ordea (2012: 80), Pello Errota 1919an hil zenez bigarren bertsolariak beste norbait izan behar zuela ondorioztatuz eta bertsolari hori Jose Maria Sorozabal izan daitekeela planteatuaz (2012: 82). Gerora prentsan argitaratu denez (Berria, 2018/IV/21, ‘Iragana orainari josteko beste hari bat’) Joxean Goikoetxeak ‘Asteasu’ Jose Migel Bitoria *Anbuerrri* izan daitekeela defendatu izan du.

Teodorok. Bizpahiru bilera eduki eta lortu zuen honen konpromisua astean ordubeteko saioa egiten uzteko (...)” (Lasa, 2008: 394)

Irratsaioen finantzaketa ere berak lotu ei zuen: “Irratsaio mordoa emititu zelarrik eta egitasmoa bera jada sendotu zelarrik, Teodorok Diputaziora jo zuen ate joka. EAE-ANVko Uria Batzorde Gestoreko kidearekin hitz egin eta urtero 1.500 pezetako dirulaguntza lortu zuen irratsaioarentzat” (Lasa, 2008: 403). Eta hizlari bezala ere parte hartu zuen hainbatetan, Estatuaren aldeko kanpaina eginez (1932/VI/15) edota irratsaioaren lehen urteurrenaren ospakizunean (1933/III/05).

Bestalde, euskarazko kirol-kazetaritzaren aitzindarietako bat izango da Zubimendirekin batera: honen sorreratik *El Dían* kolaboratu zuen pilotari buruzko testuekin, pixkanaka herrietako berriemaile osatuaz eta 1935ean ‘Gipuzko Pilota Batza’ eguneroko euskara hutsezko orri erdiko atala zuzenduaz. Pilotazale amorratua zen zizurkildarra, berau sustatzeko elkarte baten eraketan murgildurik zebilen garai hartan eta proiektuari bultzada bat emateko asmoz jarri zuen martxan *El Díako* atal finko hau.

Lasak azaltzen duenez, pelotazale bezain bertsozalea ere bazen Hernandorena: “(...) bertsolarietarekiko zaletasuna haurtzaroan, Zizurkildik atera gabe barruratu zitzaion. Ez ziren izan, ez, gurasoak edo eskolako irakasleak halako grina transmititu ziotenak. Kanean edan zuen bertsoarekiko maitasuna, euskararen ezagutzarekin gertatu zitzaion eran” (Lasa, 2008: 570). Teodorok berak azaltzen duenez, Pello Errota izan zen bertsoarekiko harra sartu ziona: “Igandero etortzen zen irina ekartzera Zizurkila, asto pare bat eta mandoa zakuz kargatuta. Sekulako bertso-saioak egiten zituen beste zizurkildar batekin. Zoratzen egoten nintzen haiei begira. Zortzi edo bederatzi urte izango nituen...”. Juan Bautista Otaño herrikidea, Txirrita, Gaztelu eta Frantsez Txikia ere ezagutu zituen herriko festetan kantuan.

5.2.6.2 Bertsolariak ‘Euzkadi’-n (1933)

Propagandarako berezko sena zuen Hernandorenak eta hedabide modernoak horretarako ezinbesteko bitarteko gisa ikusten zituen: “Askotan entzun dit euskararen etsai aundiak dirala izparringiak, zinia ta irratsaiuak. Nere erantzuna beti izan dek auxe: txarrak diran bezela onak biurtu litezkela” (*El Día*, 1935/XII/21, ‘Atarrene’ri Tolosa, Zarautz eta Oretatik. Hernandorena, Teodoro).

Hernandorenak ez zuen zineari buruzko inolako ezagutzarik: “Teodoro berak tutik ere ez zekien nola landu behar zen, teknikoki eta artistikoki, kultur diziplina hori” (Lasa, 2008: 454). Baina Irlandara ordezkari abertzale gisa egindako bidaian kamera txiki batekin irudiak hartzen aritu zen, eta hortik sortu zitzaion ideia. Hasiera batean ‘Euzkadi-Europa’ leloarekin Donostian ospatzekoa zen 33ko Aberri Eguna filmatzea zen zizurkildarraren asmo zehatza, baina bere irrikak askoz ere proiektu handiago batera bideratu zuen pixkanaka. Lasak azaltzen du filmaketa prozesua (2008: 455-462): Bartzelonako Cine-Foto etxeko operadorean etorraraziaz Aberri Eguneko ekitaldiak eta ekitaldi hauetara gonbidaturiko nazioarteko ordezkariekin biharamunean Gipuzkoan zehar buruturiko txangoa filmatu zituen lehenik; Aitzolekin batera Galeuzca sortu berriaren markoan ordezkarietza katalan baten anfritioi izatea tokatu zitzaion handik aste pare batera eta kamerak lagunduta ibili ziren probintzia ezberdinetan barna hainbat kultur eta kirol erakustaldi grabatzen; eta gero bere kasa jarraitu zuen euskal estampa ezberdinen bilketan. Grabaketa sistema audiorik gabea zenez audioaren grabaketa etorri zen hurrena: mitinetako irudietan ageri ziren hizlariak (Agirre, Irujo, Ammende eta Monzon) euren hitzaldiak bikoiztu behar izan zituzten Bartzelonako estudioan eta beste hainbeste egin behar izan zuen gainerako soinuekin ere (errebote partidako ikusleen animoak Bartzelonako Batzokiko bazkideek antzeztu zituzten, esaterako). Aita Donostiaren

aholkularitzaz hautaturiko euskal musikaren grabaketa etorri zen ondoren, Bartzelonan burutu beharrekoa baita, Orfeo Catala, Bartzelonako Udal Banda eta beste hainbat jarri zituelarik euskal piezak zuzenean interpretatzen...

Erabat bide urratzailea zen Hernandorenaren ekimena. Lehen euskal dokumental soinudun luzea da berau (Lasa, 2008: 453; Martinez, 2015: 192), Euskal Herriko ikus-entzunezkoen ekoizpena hutsaren hurrengoa zen garai batean burutua (Lasa, 2008: 454-455), euskal zinema nazionala egiteko lehen saiakera (Martinez, 2015: 190) eta Estatu mailako lehen filma politikoa (Lasa, 2008: 453-455). Hain proiektu berritzailea izanik, EAJren inplikazioa lortzea, esaterako, oso nekeza suertatu zitzaion zizurkildarrari, ekimen pertsonal bat izan zen erabat, gasturik gehienak bere poltsikotik ordaindu behar izan zituelarik (Lasa, 2008: 462-466)²⁵⁶. 1933ko abenduan 'Euzkadi' tituluarekin eta 110 minutuko metrajearekin estreinatu zenean, ordea, arrakasta polita izan zuen: "Prensa kronikek diotenez, antzokia lepo jarri zen saio guztietan. 'Gora Hernandorena!' garrasi ozenak entzun ziren maiz, eta azken batean, zine emanaldiek ekitaldi abertzalearen kutsua hartu zuten" kontatzen du Lasak (2008: 474); "Publikoaren aldetik, gaitzeko arrakasta lortuko du filmak eta zinearekin ordurarte uzkur ziren abertzaleak, haren aldeko kanpainan sartuko dira" gaineratzen du Martinezek (2015: 196). 1936rarte luzatu ziren emanaldiak, Aitzolen laudorioak, Orixeren 'Euskaldunak'-ekin filma egiteko Mokoroak luzatutako deia, Madrilen eta Ameriketara estreinatzeko saiakera antzuak²⁵⁷, eta eremu abertzaletik at izandako oihartzun eskasa etorri ziren ondoren.

1936ko estatu kolpearen ondotik frankistek desagertarazi egin zuten filmaren kopia oro, baina 1983an Hernandorenari eginiko elkarrizketen bidez Santos Zunzunegi irakasleak gidioa berreraikitzea lortu zuen. Lan honi esker filmak bost zati zituela ezagutzen da, eta bigarrenean 'Juegos, Deportes y Danzas' delakoan bertso-saio bat txertatzen zela. Honela dio gidoi berreraikiak: "Planos de exhibición de bertsolaris [irudiak]. Bertsos: Zazpi euskalerrriak/bat egin dezagun/ guziak, beti, beti/ gauden gu euskaldun [audioa]" (Martinez, 2015: 194).

Formatu berria estreinatu berritan, lehen euskal filmatzat har daitekeenean²⁵⁸, bere tartea aurkituko du, bada, bertsolaritzak, fenomenoak hedapen bide modernoetan oso modu goiztiarrean sartzeko izan duen ahalmena erakutsiaz, beste behin.

Hernandorenaren bertsozaletasuna ezagututa ez da harrizkoa bere filmean bertsolariak sartu izana. Lasaren arabera, ordea, ez zen hori izan zizurkildarrak alor honi egindako ekarpen bakarra, Aitzolgan bertsolaritzara eman zen hurbilketan funtsezkoa izan zela gaineratzen baitu (2008: 584-587). Euren arteko harreman estua zela medio, tolosarrari bertsolaritzaren berezko balio literarioa bistaratzen eta euskal pizkundea hauspotzeko olerkariak baino bitarteko egokiagoa izan zitezkeela ulertarazten erruz saiatu omen zen: "Horretarako, edozer baliabide egin zitzaion egoki, herriko bertso-saioetara eramanez, buruz zekizkien bertso historikoak (Pedro Mari Otaño herrikidearenak, Pello Errotarenak...) bere aurrean kantatuz..." (2008: 585). Donostiako Euzko Gaztedik edota Euskaltzaleakek

²⁵⁶ Josu Martinezek ere EAJk proiektuarekiko erakutsitako ezaxola azpimarratzen du eta gastuen inguruko xehetasun batzuk eskaini: "Pagatu ere, bere poltsikotik pagatuko du kasik osorik. Gipuzko Buru Batzarrak 2.000 pezeta baino ez dizkio emango (...) Nolanahi dela, Bilboko eta Donostiako estreinaldiekin bakarrik inbertitutako diru guztia errekuperatuko du" (2015: 192).

²⁵⁷ Ameriketara estreinatzeko egokitzapen bat ere burutu zuen Hernandorenak, filmari hainbat zati gehituaz, baina 1934ko urriko matxinadak eman ziren eta Errepublikako gobernuak debekatu egin zuen filmaren atzerriratzea.

²⁵⁸ Martinezek euskal gaia jorratzen duten beste bi aurrekari aipatzen ditu (2015: 169-188): Eusko Ikaskuntzaren eskutik Manuel Ynchaustik gauzaturiko 'Eusko Ikasgayak' dokumental laburrak (1922) eta Maurice Champreauxek zuzenduriko 40 minutuko 'Au Pays des Basques' dokumentala (1930). Hauetan euskal kulturari hainbat irudi jasotzen da, baina bertsolarien arrastorik ere ez. Martinezek azaltzen duen bezala, ordea, 'Euzkadi' hartzen da euskal zinemaren baitako lehen film luze gisa.

militanteentzako afariak antolatzen zituenean beti saiatzen omen zen bertsolariren bat eramaten, eta 1933ko Aberri Egunaren mitin nagusian Agirre eta Monzonen aurretik Matxin Irabolaren saioa jarri izana ere Hernandorenaren burutazioa izan omen zen: “(...) bizkorra oso, herrikoia eta herriak oso maitatua. Bertute horiek gutxi ez eta erlijio gaiak menperatzen zituen biziki: ezin egokiagoa beraz, Aitzolentzat” (id.: 586).

1935eko Bertso-Guduaren finalaren bezperan *Euzkadi* egunkarian argitaraturiko Otaño familiari buruzko ‘Una dinastia de bertsolaris’ artikulua azpituaren azpitituluan Hernandorenari eskaintza egiten dio Aitzolek: ‘(At. de Hernandorena, el enamorado del bertsolari euskaldun)’. Lasak zizurkildarrak buruturiko bide-erakusle lanaren eskertza modura ikusten du eskaintza hau (2008: 586-587). Eta honela laburbiltzen du buruturiko ekarpena: “Horrenbestez, esan daiteke Aitzolentzat Lekuona izan zela akuilu intelektuala eta Teodoro akuilu praktikoa” (id.: 587).

5.3 GAILURRA: ESTREINALDI ARRAKASTATSUA BI BERTSOLARI-GUDUEKIN (1935-1936)

5.3.1 Txapelketa abiarazteko erabakia

5.3.1.1 Lore Jokoen gainbehera eta 1930ean egindako proba

Lore Jokoak oraindik urtero ospatzen ziren 1920ko hamarraldian. 1929an, esaterako, Andoainen, Donostian eta Bilbon jokatu dira. Baina Gipuzkoako Foru Aldundiak herriz herrikoak antolatzeari utzia zion 1915etik, Iparraldeko adarrak 1920an antolatu zuen azkena Iholdin, eta 1851an hasitako bidea 1932an agortuko da²⁵⁹.

Belaunaldi berri batek hartua zuen euskal kulturgintzaren buruzagitza eta egiteko modu berriak hobetsiko ditu. Aldizkarien alorrean emango da lehenik erreleboa aurreko olatuaren ikur den *Euskal-Erria* 1918an itxita, bere tokia garai berrien ikur diren *RIEV* (1907), *Euskal-Esnalea* (1908) eta *Euskalerrriaren alde* (1911) argitalpenek hartu eta zabalduko dutelarik. Bere gailurrera foruzaletasunak eramane zituen Lore Jokoen tokia, aldiz, abertzaletasunak gai baten inguruan antolaturiko egun bakarreko ekitaldiek (Euskararen Eguna, Olerti Eguna, Euzko Antzerti Eguna, Euzko Eleberri Eguna eta abar) hartu eta zabalduko dute.

Bertsolaritzak Donostiako Euzkerazko Itz-Jostaldien Batzarreak antolaturiko jokoetan bakarrik eutsiko dio 1930ko hamarraldiraino eta Aitzolek azaltzen du *intelligentsia* berriak ospakizun honetaz zuen ikuspegia: “(...) desapareció la vitalidad del Consistorio de los Juegos Florales Euskaros. Si existe, es un cuerpo sin alma, una forma sin esencia...” (*Euzkadi*, 1931/I/10, ‘Concursos de bertsolaris’ (Renovando Costumbres de antaño)’. Ariztimuño, Jose Aitzol; Ariztimuño, 1988a: 97). Artikulu berean, esan bezala, aurreko belaunaldiek alor honetan eginiko lana aitortu ere egiten du, ordea, eta artikulua bera bide hori jarraituaz buruturiko probako lehen ekitaldi bat antolatu ondoren idazten du.

1930eko Santo Tomas egunean Donostian Toribio Alzagaren omenez antolatu zuten lehen entsegu honen inguruko gora behera guztiak ere Aitzol berak eskaintzen ditu 1935 eta 1936ko Bertsolari-Guduaren inguruan Zubimendik argitaratu zuen liburuaren hitzaurrean:

“Koplakarien il bear onek lari genkarzkin Euskaltzaletakoak. Alegiko errotan alkartu giñan ‘Lizardi’ zana, Yauregi olerkaria, Labaien antzezlaria eta Erauzkin bertsolari, gaitz orrentzako sendagairik aurkitzen ote genduan edo

²⁵⁹ Gerra aurretik oraindik beste bi ospatuko dira, bata Madrilan 1934ean eta bestea Bilbon 1935ean. Gero, formatua berreskuratzeko ahalegina egingo da frankismoa amaitzean: Bilbo 1978, Markina 1983, Durango 1986 eta Gernika 1988.

(...) Donosti zazeran aiton bizargile bati bertsolari guduak antziñako erara taiutzen trebe zala igarri genion. “Consistorio de los Juegos Florales” zalako aietan epaile bezela ibilia bait-zan Uranga’tar Iñaki (...) Toribi yaunaren omenez “Centro Católico” antzokian 1930’garen urtean Euskaltzaleak lenengoz eratu zuen Bertsolari-gudua onetxek zuzendu zigun. Txirrita, Lujanbio, Telaetxipi, Zabaleta, Agirre eta Bitoria zanak, lege zarrera gudu arrigarria egin ziguten. Trebe asko eta zorrotz Uranga olerkari aitonduek bertsolariak zirikatu zituan. Txapelkun, ao batez, Bitoria aukeratu genduan.” (Ariztimuño, 1936: 18)²⁶⁰

Une hartan bertsolaritza ez zen, ordea, Aitzolen lehentasunetan sartzen eta lan-ildo hori aparkaturik geldituko zen: “Durante la República la posibilidad de acción política directa hace que la reglamentación del bersolarismo quede postergada. En la actividad propiamente cultural, los Olerti-Eguna, los Umeen-Eguna, los Antzerti-Eguna ocuparon durante varios años los esfuerzos de Euskaltzaleak” (Garzia, 2000: 422). Hala ere, ideia baztertu ez zutenaren adierazgarri, bertsolaritzari tarte bat egin ohi zitzaion antolatzen zituzten bestelako ekitaldi gehienetan (Ugalde, 1988: 61). Edota Zubimendiren hitzek ere argi uzten dute asmoa bazutela, baina tarte bat hartzea zela falta zitzaiena: “Lendik ba-zuan ‘Euskaltzaleak’ bazkunak egun ori eratzeko asmoa; baina, gaur gertaera onek eragozten ziola; biar beste batek garrantzi geiago zeukala; urrengoan politika gaia nagusi, eta orrela, batean ta bestean gure bertsolari eguna atzera” (*Yakintza*, 1935eko apirila, 14. zbkia., 140 or.. ‘Lenengo bertsolari eguna’. Zubimendi, Joseba). Baita Aitzolenak ere: “Bidea urratu arren aurreruntz yotzeko garaia etzan eldu artean [1930ean buruturiko lehen entseguaz ari da]. Olerti-Egunak, Euskal-Egunak, Antzerti-Egunak berekin zeramakiten lanik asko sortu eta iraurarazteko”(1936:19).

5.3.1.2 Basarri, hautagai perfektua (1913-1999)

Zubimendi bera da bertsolari txapelketak berriro ere martxan jartzeko erabakia noiz, nola eta zergatik hartu zen argi asko azaltzen duena: “Honek [Basarrik] asmatutako bertso bati zaio zor Bertsolari Egunaren sortzea, eta bera izan zen lehenengo saritua” (2002: 34).

‘Bertsolari egunaren sortzea’ izenburuaz kontatzen du gertakaria *Euzko Deyan*²⁶¹. 1934ko udazkeneko egun batean kokatzen du gutzia: “Udazkeneko gau giro ederra zen. Eusko Gaztediko areto berria, leihoak zabalik, haize egarri Donostia jostarian. Bazkideak mahaietan, han-hemenka, eguneko lanaren atsedean, akeita hartuz edo museko ‘Hordago!’ borobila boteaz jokoan (...)”. Protagonista aurkezten du jarraian: “Bat-batean, ustekabe, hor sartu zaigu gazte sail alai bat aretoan (...) Zarauztarrak dituzu, eta, beren artean, ‘Basarri’. Agurrak, bosteko estutzeak, bizkar gaineko esku-zartak. Gure artean jarri dira eta, hau etengabeko berriketa!”. Baita antagonista ere: “Baina haien artean bada bat berriketari lotuta ezin egon dana. Bihurri samarra berez, barruan daukan pozari ezin eutsi eta mingainarekin ez ezik, oin, beso, buru eta guztien beharrean aurkitzen da poz hori agertzeko. Mutila nabarmentzen hasi zaigu, lainezaren bultzadaz, harroxko”. Korapiloa eta amaiera datoz, azkenik:

“Eizmendi gure mahaian, ezin eramanik, sutan. Halako batean, zutik jarrita, beroaren bero, bertso hau zuzendu dio bere adiskideari: Aizazu gazte, lagun

²⁶⁰ Gaurko euskarara ekarrita Luis Jauregi *Jaurtakol* olerkaria, Xenpelarri buruzko liburua argitaratu zuena, Patxi Erauskin bertsolaria, *Argian* hainbatetan kolaboratzen zuena, eta Euskaltzaleakeko Lizardi, Antonio Labaien eta Aitzol dira Alegiko Errotan bildu zirenak. Irabazlea Goikoetxeak ‘Txirrita y Asteasu’ grabaketan kokatzen duen Jose Migel Bitoria *Anbuerrri*.

²⁶¹ *Euzko Deya*, 1939/III/05, ‘Bertsolari egunaren sortzea’. Zubimendi, Joseba. Testu bera ‘Bertso minez’ liburuan dago jasota (Zubimendi, 2002: 37-40).

nerea,/ zertan zabilta horrela?/ Ez al dakizu ainbat jaun prestu/ ortik begira daudela,/ era ortako jolasketarik gutxi maitatzen dutela/ Egizu kontu zuk Donostiko/ Euzko Gaztedin zaudela; umekeriak baztatu itzazu/ ta ibilli gizon bezela!

Bertsoaren indarra! Gazte bihurria ez zen gehiago sentitu; lainezak ihestu zitzaizkion; harrotasunak urtu. Itsas barearen antzeko leun gelditu zitzaigun”.

Hor ikusi zuten Euzko Gaztediko buruzagiek txapelketak abiarazteko unea zela, eta garaiko proiektuari zegokion gisan, erabat ikuspegi instrumentalista batetik egingo zuten gainera:

“Bertso batek horrelako indarra izanik, zenbat eta zenbat egin lezakete bertsolariek, bide zuzenean jarrita, gure egiaren zabalkunderako! Hau izan zen une hartako oldozkuna. Une hartatik hasi zen Bertsolari Egunaren jaiotza.

Zortzi egun geroago, Argia eusko asterokoan, ‘Bertsolariak behar ditugu’ idazpuru pean, Euzko Gaztediari eskainita, buruhauste hau agertu zan.”

Iñaki Eizmendik 21 urte baino ez zituen bertso hura bota zuenean. Baina nahiko meritu pilatua zuen ordurako txapelketa haiek antolatzen jarriko zirenen begietara.

Zavalari kontatzen dionez mitin batean egin zuen lehen aldiz bertsoan, hain zuzen ere Alegiko errotako bileran parte hartu zuen Patxi Erauskinekin buruz buru: “Amazazpi edo emezortzi bat urterekin kantatu zuan leenengoz jende aurrean. Egun batez, Zestoara joan lagunekin, an bertsolari bat kantuan ari mitin batean: Ordizian bizi zan Erauskin Errotaria edo Patxi Errota zaldibitarra; lagunak bultza eta, oartu zanerako, bera ere bertsoan asi” (Zavala, 1992b: 12). Kazetari lanetan orduantxe hasi zen baita, 1931koak baitira bere lehen testuak²⁶², berak 17 urte zituenekoak. Lehen aukerak Luzear eta Zubimendik eman zizkioten hain zuzen ere: “Luzear izenordea zuana bazan orduan. Andres Arzeluz, izen-abizenak. Ederki idazten zuan. Arek bultzatu niñun. Baita Zubimendi ta oiek ere. Ala, asi nintzan El Día'n, Euzkadi'n, El Pueblo Vasco'n, eta Argia'n batez ere. Nere Bordatxotik jarri nion izena nere saillari” (id.: 14). Ikusi den bezala, irratiko kolaborazioak etorriko ziren berehala, 100. Emanaldiaren ekitaldian bera izan zen bertsolari bakarra, eta *Argian* argitaratutako irratsaioei buruzko testuetan Olanoren eta Luzear nahiz Zubimendiren ekarpena goratu zituen.

Txapelketak antolatu zirenean Basarrik ez zuen goi-mailako ikasketarik, ezta horretarako adinik ere, baina bai ikasteko grina:

“Basarrik etzituan eskolan urte asko egin. Amaika-amabi urterekin utzi zion joateari, gau-eskolan jarraitu bazuan ere (...) beste eskola mota bat izan du bere burua janzteko: irakurtzeko zaletasuna. Liburuak txikitandik eta benetan maite izan ditu. Irakurtzeari ordu asko eman dizkio, bai egunez eta bai gaez, loari puska kenduz. Eta iru izkuntzatan irakurri ere: euskeraz, gazteleraz eta frantzesez. Orixe da beraren kultura mailla altxa eta zabaldu duana.” (Zavala, 1992: 12)

Eta garaiko *intelligentsiak* proposatzen duena xurgatu eta bere egin zuen. Aipatu den bezala, irratian 1933/XII/22 datarekin *El Día*n argitaratu zen irratsaioeko bere hitzaldian erabat lerrokatzen zen hauek sagardotegiko bertsolarien inguruan esaten zituztenekin:

²⁶² Joxe Mari Iriondoren arabera (2013b: 58) 1931/XI/11ean argitaratu zituen *Euzkadin* lehen bertsoak eta Zarauzko lehen kronika, *El Día*ko ‘Euskal Orria’n 1931/XII/13an hasi zen kronikekin eta *Argiako* lehen artikulua 1932ko irailekoa da.

“Tamalgarria Pello Errota, Udarregi, Gaztelu Gorri, Ugarte, ‘Prantxesa’ ta beste geyagon izenak, goi malletara iritxi gabe urratzea. Tamalgarria orien jakinduri ta egokitasunezko iturri agortu gaitza, oraiñ beian gelditzea, garrantzi gabeko gauzetan itzaltzea. ¡Tamalgarria bai, milo bider esanda ere! ¡Zenbat egin zezaketen beste modu batez jokatuta!” (*El Día*, 1933/XII/22. ‘Bertsolariak’. Eizmendi, Iñaki Basarri)

Bertsolarien kultur maila igo beharraren inguruan eta bertsolaritza mezu abertzalea zabaltzeko baliatu beharraren inguruan pentsatzen zirenekin ere bat egiten zuen:

“Euskera apaindu ta goraltzen, aberriari abesten, Abenda edo ‘arraza’ zarra indartzen, erriko jayetari ñora deitzen bazaiote, erriko zaindarian bizitza zerbait jakin ta berekin batean erriya poztu ta onesten (...) ta beste olako gauzetan lenen lenengo beardu bertsolariak, askotan izlari askok baño geyago egin lezakete ta. Bide ontatik jokatzen diran bertsolariak, Euzkadi gure aberri maitearen aldezerik bikañenak dira, ta onelakoak euskaldun zintzo guziak txalotzen dituzte.”

Kepa Enbeita jarraitu beharreko eredu gisa ikusten zuen (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 13; Garzia, 2000a: 436), berekin saio batzuk egin zenez agurra ere luzatzen diolarik: “¿Nolatan da orrean ospagarria Enbeita bertsolaria? Ez dago esan bearrik. Euskera ta Euzkadiren aldeze onenetako dalako. Bada gaur Bizkaiko urretxindorrari agurrik biozkorrena dagiot, irratitexxe ontatik”. Eta eredutzat seinalatzen zuen Pedro Mari Otaño ere:

“Gaurko bertsolariak Pedro Maria Otaño’ren izena ere gogoan bear degu. ¡Aizer ixpilu ederra berau! ¡Onak bai euskera ta aberriari abesten ziola! Erosi ta irakurri zazute ‘Alkar’ bere bertso olerki liburua. ¡Bai biotz ikuitzailea! (...) Anai oleskariak, gogoan izan ta jarraitu bide oni.”

Aipatu da nola Lauaxetak txapelketako antolatzaileen izenean Enbeita eredu gisa ezartzen zuen. Otañoaren eredu, aldiz, Aitzolek seinalatu zuen ‘Alkar’ liburua berrargitaratu eta hitzaurre batekin osatuaz. Liburu honek izan zuen eragina azpimarratzen du Juan Mari Lekuonak: “Aitzolen hitzaurrearekin, Otañoaren ‘Alkar’. Honek merezi du azpimarratzea: horrek ireki bait du bidea, 1932an²⁶³, Berez 1904ean argitaratua zen, Buenos Airesen. Baina 32ko berrargitarapenak inpakto handia izan zuen” (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 9-10). Belaunaldi berriarengan izan zuen itzal garrantzitsua: “Basarri eta Uztapideren eskola berria hortik sortu da. Utzi Txirrita, eta beren testu-eredua Otaño izango dute. Hori aldakuntza handia da” (id.: 10)²⁶⁴.

Irratiko estudioan emaniko hamar minutuko hitzaldian garaiko *intelligentsiak* bertsolaritzaren inguruan zuen proiektua laburbiltzea lortu zuen, bada, Basarrik.

5.3.1.3 Txapelketa martxan

Zarautarrak honela gogoratzen du Zubimendik kontatzen zuen gertaera hura:

“1935.eko txapelketa famatu haren aurretik apenas ibili nitzan bertsotan. Baina, laguntzaileak banitun Donostian: Txomin Olano, Joxe Zubimendi. Haiek beti eztenka izaten nituen atzetik: hik honetan dek abildadea eta etzak

²⁶³ Eskaintzen den datua okerra da. Aitzolen hitzaurrea daraman berrargitalpena 1930ean inprimatu zen Donostiako Iñaki Deunaren moldiztegian. 1930erako, bada, bazuen Otañori buruzko hitzaurre dotorea idazteko bezainbesteko ezagutza.

²⁶⁴ Basarrik hainbat testu eskaini zizkion prentsan Pedro Mari Otañori: 1934ko martxoaren 14ean *Euzkadin* ‘Aitona Gizagaxoa’ izenburuaz, eta 1940an martxoaren 10 nahiz 20an eta apirilaren 10ean ‘Pedro Mari Otaño’ izenburuaz *Euzko Deyan*.

laga... Behin gazte talde bat jun ginan Donostira, 35eko txapelketa baino zerbait lehentxeago. Eusko Gaztedin sartu ginan da, Mariano Lazkano pilotaria sartu zan. Haiek baztarretik zirika: merezi likek ba horretxek, horretxek merezi likek ba!... Hiru edo lau bota nitun, serioak, eta joe, ikaragarri gustatu Txomin Olano eta Zubimendi eta horiei. Gero, bertsolari txapelketa bat antolatu behar litzakela eta han aritu ginen” (*Mazantini*, 1991, 1. zbkia., ‘Basarri’-rekin buruz buru’. Perurena, Patziku)

Bertsoaren indarrak harritu zituela zioen Zubimendik, harridura horrek eraman zituela txapelketa bat antolatu beharra zegoela erabakitzea Bertsoaren indarraren kontzientzia hamarkada hasieratik zuen, ordea, euskal *intelligentsiak*. Falta zitzaiena txapelketa horretan euren proiektuari bultzada bat emango zion bertsolaria zen. Enbeita erretiraturik zegoen ordurako eta Txirrita eta enparauekin ez ziren fio. Egun hartan deskubritu zutena lan hori burutzeko hautagaia izan zen, Basarri nahikoa zailduta egon zitekeela otu zitzaien.

Berehala ekin zioten antolakuntzari: “Eusko Gaztedik zebilkien politika arazoak atzera ez zitzan bertsolariak, Euskaltzaleak bazkunari eskaini zitzaion lehendakaritza. Bai Ariztimuñotar Joseba ‘Aitzol’ zenak pozik hartu ere. Geroztik bi bazkunak bat eginik jarraitu zioten lan onurakor honi” (Zubimendi, 2002: 39).

Bigarrena Zubimendi berak, 1934/XII/23ko datarekin, *Argian* argitaraturiko testua izan zen. ‘Bertsolariak bear ditugu’ zeraman izenburutzat, lehen orriko testu nagusi gisa argitaratu zen eta bertan bertsolarien jardunaren maila jasotzeko beharra aipatzen zuen ideia nagusi gisa, Donostiako Eusko Gaztediko gertaera xehetasun guztiz azalduz. Basarriren izena eta bere egokitasuna espreski azpimarratzen zituen donostiarrak²⁶⁵: “(...) baña han zegoen bertsolaria, guk nai genduken erako bertsolaria (...) Zarauztarren artean ‘Basarri’ Eizmendi jatorra arkitzen zan (...)”.

Handik astebetera Basarriren erantzuna dakar *Argiak*. Bertan Zubimendirekin bat eginaz bere idearioaren sintesi gisa aipatu den irratsaioko hitzaldiari egiten dio erreferentzia: “Gai bera artuta jardun izan naiz neroni ere. Gogoratuko zera Donostiar irratetxetik egiñ nuen itzalditxo aretzaz. Zuk bezaiñ apainki ezpada ere, zure asmo ori agertu nuen oker aundirik gabe. Geroztik zerbait idatzi ere egin det dakizun bezela” (*Argia*, 1934/XII/30, ‘Zubimendi’ tar Joseba’ri’. Eizmendi, Iñaki Basarri). Eragile eta parte hartzaile gisa ari da, ordea, nolabait Basarri, berria da hori bertso munduan (azken zikloan ohiko bihurtuko den arren) eta posizio hori desenkusatu beharra ere ageri zaio jarrarian: “¡Ai zer mutill arroputza orixe! –esango du norbaitek- Bera bertsolaria danean, bertsolariak nola zuzenduko, ta bere esanetara nor makurtueraziko zebillek”. Erabat posizio defentsiboa hartuko du, bada, gerora hainbatetan egingo duen bezala: “Gezurra ordea guzia. Ez nabil ni asmo orrekiñ (...) sentitzen dedana esaten dakit ta kito. Nik neu baño bertsolari obeak ta etorri trebeagokoak asko ikusi baiditut ta ikusten ditut oraindik”. Hala ere, ez dio inoiz bertso-mundua proiektu jakin batetara lerratzeke ahaleginari uko egingo: “(...) bertsolari obeak ta etorri trebeagoak asko ikusi baiditut ta ikusten ditut oraindik ere: pena ematen dit ordea erabiltzen dituzten gaiak erabiltzea. Asko lezakete beste modu batez jokatuta. Zuk zeniozun bezela, erria piztu arazteko bideak artu bear ditugu (...)”

²⁶⁵ Hemen kontatzen du lehen aldiz gertaera, gero txapelketa ondorenean *Yakintza* aldizkariaren 14. zenbakian (1935eko apirilean) ‘Lenengo bertsolari eguna’ izenburuarekin, eta hirugarrena jada aipatu den 1939ko *Euzko Deyako* artikuluan. Guztietan lotzen du gertakari zehatz hori txapelketak martxan jartzeko erabakiarekin. *El Dían*, 1936/I/21 datarekin argitaratuko ‘A manera de prólogo’ testuak ere, sinadurarik gabea, kontakizun bera eskaintzen du.

1934ko abenduaren 30eko *Argia* hark Aitzolen testu bat ere bazekarren: lehen orrialdeko tokirik garrantzitsuenean kokaturik zetorren txapelketarako deia. Hainbat alderdi azpimarragarri ditu testu honek ere. Honela, tituluan (Bertsolari Eguna/ Euskal-piztutzearen kima berria) nahiz lehen lerroetan bertsolaritza pizkundearen proiektu orokorraren baitan txertatzen dela seinalatu daiteke: “Euskeraren piztutze argal, urri eta zekenak kima berritxo bat dakarkigu negu gorrian (...) Ea, bada, beste landaretxo bat euskal baratzan ernaitzen ote degun. Ortaraxe goaz ‘Bertsolarien Eguna’ betirako sortu niaz” (*Argia*, 1934/XII/30, ‘Bertsolari Eguna/ Euskal-piztutzearen kima berria’. Ariztimuño, Jose *Aitzol*).

Antzerkia edota poesiaren inguruan antolatu dituzten Egunak aipatzen ditu jarraian tolosarrak ‘loratzen asi berritako kimatxo bildurti’ baino ez direla zehaztuaz eta bertsolaritzarekiko arreta zorroztera eraman duen olerkarietako desengainua nahikoa modu gordinean adieraziaz:

“Gure olerkari –edo bertsolari jakintsu oek- erriarekin asarre xamar dabilzkigu. Asmatzen dituzten bertsoak ez dituzte errex antzean asmatu nai izaten, erriak entenditzeko neurrian. Eta jakiña, erriak orrelako olerkarietako uko egiten die. Ez erri xeak bakarrik, euskaraz irakurtzeko griña duten irakurle askok ere beste ainbat egiten diete.”

Bertsolaritzarekin 1930ean buruturiko entseguak zeinen ongi funtzionatu zuen dakar gogora ondoren eta aurrerantzean ‘Bertsolari-Gudua’ urtero ospatzeko asmoa azaltzen du, deialdiarekin bukatzeko: “Gaurtik Bertsolarien Egun onetarako Euskalerriko bertsolari guztiei ots egiten diegu, Zuberoa’tik Bizkai’ra bitartean eta Naparro-Saraitutik Gipuzkoa’ko itxasertzerano liraken bertsolari guztiei gudu onetara aurkezteko ‘Euzkaltzaleak’ eta ‘Donosti’ko Euzko Gaztedia alkarteak’ dei egiten diote. Oietxek lelenegoz Bertsolarien Eguna eratzen bai-dute!”.

Zenbaki berean, 9. orrialdean hurrengo hiru astez luzatuko den diru-bilketari ekingo zitzaion, ‘Bertsolariak/Euskeltzaleak eta Donosti’ko Euzko Gaztediak eratuta’: “Sari edarrak banatzeko asmotan dira eta txapelketa oni dagokion garrantzia eman nairik, egun oietako eginbearrak ordaintzeko arpide bat ireki dute (...) Euskera egiz maite dutanen izenak emen azalduko dira. Ona lenengoak: (...)”. Lehenengoak Euskaltzaleak (50), Pizkunde (50), Zubimendi (5) eta Aitzol (5) agertzen dira hurrenez-hurren. Beste hogeitun bat izenekin batera Txomin Olano (2) edota Hernandorena (5) ere agertzen dira.

1935eko urtarrilaren 20an, igandea, egin zen txapelketa, Poxpolin antzokian (Kursaal antzokia). Kanporaketarik jokatu gabe zuzenean finalerako txartela izan zuten izena eman zuten 22 bertsolariak. Etxezarretak azaltzen duenez, giroa berotze aldera ostiralean Luis Jauregi Jaurtakolek Xenpelarri buruz eskainiriko hitzaldia eta larunbatean Dionisio Azkue Dunixik Bilintxi buruz eskainirikoa egin ziren: “Bi itzaldietan jendetza izugarria izan zan, eta sartu ezinik ere asko gelditu ziran” (1993: 46).

Abestuko ziren bertsoak jasotzeko lana Euzko Gaztediko talde bati egokitu zitzaion.

Manuel Lekuona, Aitzol, Zubimendi, Txomin Olano, Toribio Alzaga eta Jose Olaizola aritu ziren epaimahaiko. Aurkezle eta gai-jartzaile lanetan Zubimendi.

5.3.2 35eko Txapelak eredu berria lehenetsi

5.3.2.1 Sagardotegiko bertsolaria vs. gorbatadun bertsolaria

1935eko txapelketaren muina bi ereduren arteko talka litzateke:

“Bi belaunaldiren tenka dago. Tenka horretan bi elementu desberdin kontrajartzen dira. Batetik, pertsonak berak. Txirrita (...) 150 kiloko gizonpuska, mutilzaharra, bi makulurekin ibiltzen zen. Tabernaz taberna ibili-zalea, zelebrequerietan. Ogibidez, alfer famakoa, etab. Basarrirekin beste gizon-klase bat agertu da bertsolari: gaztea, mutil apaina, gorbatarekin; profesionalki kazetaria, etab.; baina bertso aldetik ere bai. Basarrik beste bertsolaritza bat egin nahi du, beste proiektu bat dakar.” (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 10)

Hain zuzen, Basarriari tokatu zitzaion txapelketako lehen bertso puntuagarria botatzea, eta lehen bertso horretatik bertatik markatu nahi izan zuen bere bidea: Uso zuri bat inguratu zait/ goizean egun argitzez/ alaitasuna hartzek sortu dit/ jaun maiteak, bere hitzez/ eta ni orain zuen aurrean/ nauzute pozaren pozez/ lendabiziko, entzule onak,/ agur danon bihotzez.

Garziak honela seinalatzen du berritasuna: “Se trata, con toda probabilidad, de la primera vez que un bersolari ‘ficcional’ con una paloma en un verso no amoroso” (2000: 423). Bertso honek Poxpolin antzoki hartan eragin zezakeen zirrara iradokitzen du Juan Mari Lekuonak: “(...) mutil gaztea, dotorea, gorbataz jantzia, eta hasiera horrekin, literatura erromantikoan jantzia agertuz, sentsazioa egin behar zuen” (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 13). Eta Zubimendik berari eragin zion zirrara deskribatzen du: “Neurketa hasieran horrelako agurtza entzunda, bertsolariak arrote, ezjakin, gaizki haziak direla, ea nork esango duen berriz!” (2002: 44).

Zarauztarraren beste bertso honek ere atentzioa deitu izan du: Bertsolariak eman diote/ Txeko herriari gorantz/ Mireio batek edergailutan/ josia zuen Provenza./ Ene Jainkoa egin zaiguzu/ guri behar dan laguntza,/ ahal dan azkarren sendatu zagun/ gaixo dan euskel hizkuntza. Edukiaren sofistikazioa azpimarratzen du Payak: “Txekia eta Provenza ez dira ordura arteko sagardotegietako jaun eta jabe ziren bertsolarien ohiko erreferentziak. Egun hartan, nolabaiteko sofistikazioa atea jotzen ari zen bertsoaren etxean, zenbait bertsolariren aldetik” (2012: 44). Garaiko *intelligentsiarekin* erakutsitako sintonia da Garziak: “(...) está al tanto de los modelos propugnados por los renacentistas para una renovación de nuestra poesía (...)” (2000a: 423). Eta ildo honi jarraituz abertzaletasuna hauspotzeko ere baliatu nahiko du aukera zarauztarrak, besteak beste Sabino Aranari abestuz: "Au esanikan joan zitzaigun/ Arana-Goiri aundia:/ 'Il naiago det ikusi baiño/ aberriaren amaia!'" Epaimahaiaren erreakzioa iradokitzen du Garziak: “Aitzol estaría radiante, al menos aliviado: el bersolarismo comenzaba a elevarse sobre las cuevas de alcohol” (id.: 424).

Txirrita ez zen gorbatarekin taularatu: “(...) Aurpegi guri, borobil handia (...) begiak, ilargi bete borobil hartan, bi zulo txiki ezin geldiak biraka beti; ohiturako bruxa beltza soinean, oro estaldu eta ilara (...) ‘obispo’ itxura gehiago, gaurko egiazko askok baino.” (Zubimendi, 2002: 120). Eta belaunaldi berriaren proiektua urrun gelditzen zitzaion: “Txirrita se adaptaba mal a la competición. No se dejaba encandilar por la trascendencia del acto, su desenfado rayaba en la falta de respeto” (Garzia, 2000a: 432). ‘Euskara’ gai gisa jarrita gainerako bertsolari gehienak euskarari bibaka aritu ziren bitartean hernaniarrak bota zuen bertsoaz ari da Garzia: Larogei urte gainean ditut/ nago hanketako miñez/ Donostiara etorria naiz/ herren haundia egiñez/ bi bastoiekin txit larri nabil/ pausorik eman eziñez/ euskera ia aztu zait eta/ erderaritan jakin ez/ maixu batekin eskolan laister/ hasi behar det latiñez. Bertsoa bota bitartean bastoiekin Aitzol seinalatu zuela iritsi da gaurdaino (Dorronsoro eta Lekuona,

1987: 12; Esnal, Egaña eta Sarasua, 2002: 810; Garzia, 2000a: 432; Lasa, 2008: 592; Sarasua, 1992, 14)²⁶⁶. Eta keinu honekin eragile berrien asmoak auzitan jarri nahi izan zuela ere interpretatu izan da: “Bertsoa esanez batera, epaimahaikide zen Aitzoli egin zion keinu makilaz. Bertso ironiko batez dena geratu zen esplikatua, denek ulertu zuten Txirritak bidalitako mezua, eta algarak egundokoak izan ziren” (Lasa, 2008: 592). Hurrengo txapelketan ere jarrera berari eutsi ziola azpimarratuz:

“(…) gaia ‘Kristoren jaiotza eta gabon ohiturak izaki, Moxo-k hasi eta buka Sabino Arana goraiatu zuen sutuki, eta “zeruan egongo zela” esanez amaitu zuen. Txirritaren txanda etorri zenean, honek zera bota: bera bazkaltzen ari zela zeruan sentitu zela baina han Sabino Aranak ez zuela ikusi!” (Lasa, 2008: 593)²⁶⁷

Irakurketa ezberdinak egin izan dira bitasun honen inguruan. Xabi Payak, esaterako, foruzaletasunaren eta abertzaletasunaren arteko tenka aipatzen du: “Txirritak foruzaletasuna sinbolizatzen zuen txapelketa hartan, balio tradizionalen izaera estatiko eta irmoa; Basarrik, ezizenetik bertatik, euskal balio tradizional horiei erreferentzia egiten zien, baina euskal irudi kanonikoaren eguneratzea zekarren berarekin –txapela eta gorbataren nahasketa horren metafora argigarria da–” (2013: 43). Irakurketa guzti hauen baitan, ordea, Txirritak eta Basarrik gorpuzten duten bitasuna bertsolariaren izaera aurremoderno eta modernoaren artekoa dela ikus daiteke. Juan Mari Lekuonak azaltzen duen moduan Txirrita izaera aurremodernoaren, sagardotegiko bertsolariaren, ordezkari goren gisa har daiteke: “Eskolatu gabeen artean (...) Txirrita agertzen zaigu aitzindari (...) ahozko tradizioaren gordailurik apartekoenetako bat, eta poesi teknika zaharrak hobekien erabiltzen dakiena” (1982: 101). Eta Basarri bertsolariaren proiektu modernizatzailearen lehen ordezkari gailen gisa: “(...) iraultze joera baten indarra zekarren, orduko gazte askoren joera aberrikoa. Baina bazekarren, baita ere, sozio-kultura mailako joera orokor bat, zibilizazio berriago baten eskakizuna (...): apain jantzia, hizketa txukun eta aberatsa, errespetuzko jokabidea, eskola eta garaiaren garaiko pentsamolde zehatzagoa” (1982: 213).

Esnalek, ikusi den bezala, modernitatearen zauria Lore Jokoetan ireki zela zehaztu arren aurremodernitatearekiko benetako talka Euzko pizkundeko txapelketetan eman zela gaineratzen du:

“Orain arte, hantxe zeuden Azkue, Domingo Agirre, Arturo Campión eta abar (...) Azken batean, etena sortu da, baina bertsolariak beraiek ere oraindik jarduten dute pixka bat desfioetan bezala. Baina 1935ean ez, han epaimahaia aparte dago. Hor ematen da lehenbiziko zatiketa, lehenbiziko bereizketa. Modernitatea sartzen ari zaigu pixkanaka-pixkanaka (...) berriro ere gailurrean dago bertsolaritza baina zatiketa –edukia/ forma, herria/ epaileak– barne-muinetan duela. Eta bertsolaria eskizofreniko bihurtzeko zorian.” (Esnal, Egaña eta Sarasua, 2002: 810)

Bigarren zikloan protagonismo handia izango duten eta kasik gaurdaino iritsi izan diren zenbait gogoeta eta eztabaida ez dira sagardotegiko bertsolaria (Txirrita) vs. gorbatahun bertsolaria (Basarri) horren garapen bat baino izango: bertsolari eskolatuen eta eskolatu

²⁶⁶ Honela bizi izan zuen Zubimendik bertatik bertara: “Hona hemen egiatako Txirrita, herriak ezagutu eta maite duen bertsolari xede zorrotz, eztenkaria. Euskara goraltzeko, indartzeko, asmo berria: latina ikasi! Apaiz jauna baitzen epaikari, eta bera zirikatzeak akuilukada beharago, bertsolariaren ustez, emandako gaiari buruz sendakinak agertzea baino.” (2002: 120)

²⁶⁷ 1936ko txapelketakoa da pasartea. Etxezarretak ere kontatzen du (1993: 70).

gabeen arteko bereizketa, jaio vs. egin eztabaida, aintzinako bertsolarien eta freskotasunaren nostalgia...

5.3.2.2 Erabaki (gaurdaino) eztabaidatua

Basarrik irabazi zuen txapela. Txirrita, puntuaketetan ez zen lehenengoan artean sartu.

Bertsolaritzaren historiako txapeldun gazteenari Zarautzko Azken Portun gurasoek zuten tabernan sartu zitzaion bertsolaritzaren harra, kontatu izan duenez²⁶⁸. Eta txapelketa haien atarian zaletasun itsua zuela ere gaineratu izan du: “Nik garai artan ez nun izaten bertsoa besterik buruan. Nere gozamina ura zan” (Zavala, 1992b: 12). Ez dirudi, ordea, bere gaztetasuna zela medio, Poxpolineko final haren aurretik plaza asko egiteko modua izan zuenik. Txapelketara nolatan apuntatu zen azaltzerakoan behintzat, ez du soberako asko zeukanik adierazten:

“(…) Txomin Olano nun oso laguna. Baita Zubimendi ta oiek ere. Donostitik lagunak giñan. Eta joateko eta joateko asi zitzaizkidan, arren ta arren. Ala, derrigorrean bezela joan nintzan. Nik egun artan pasa nitun bildurrak eta izuak! Ura zan dardarra, ainbeste bertsolaritatik gazteena neu ta ... Ume bat. Eta andixe asiera, poliki-poliki.” (Zavala, 1992b: 12-13)

Eta Patziku Perurenari eskainiriko elkarrizketak plaza gabezia hori espreski aitortuko du: “1935eko txapelketa famatu haren aurretik apenas ibili nitzan bertsotan” (*Mazantini*, 1991, 1. zbkia., ‘Basarri’-rekin buruz buru’. Perurena, Patziku).

Txapelketa jokatu aurreko urteetan, aurrerago ikusiko denez, garaiko bertsolaririk onena Txirrita zela aipatzen zuen prentsak. Basarri hasiberria horrek ordurako mitoaren tamaina hartua zuen bertsolariari gailendu izana errezelo puntu batekin hartu izan da, beraz. Eta, jada seinatu diren zantzuak azpimarratuz, erabaki hura eztabaian jarri izan du hainbatek.

Juan Mari Lekuonak, esaterako, nahikoa modu lausoan iradokitzen du: “Jendeak susmoa zuen barnetik bilatzen zen zera hura pertsona konkretu batengan gauzatua ikusi zela: Proiektu berriak badu bere gizona, horri dagokio bertsolaritza berritza, etab” (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 8-9).

Perurenak Lekuonaren interprete lanak egiten ditu, esaldia hizkera gordinago batera itzuliaz:

“Nik garbi daukat, zer esan nahi duen [Lekuonaren aurreko esaldiaz]. Basarrik bazakiela ederki zertara zihoan, bere korbata eta guzi, dotore jantzita, 21 urteko mutil gaztea, atzetik zebilkion hiritar burges taldetxo haren eredu eredu ez baitzen kasualidadez azalduko, eta haiek bertsolaritzari eman nahi zioten prestutasun eta goi maila erakusteko ere apropos prestatua zetorren gure Basarri gaztea. Hara zeren fruitua izan zen Basarrik alde aurretik eskuan ekarri zuen txapela.” (*Mazantini*, 1991, 1. zbkia., ‘Basarri’-rekin buruz buru’, Patziku Perurena)

Hurrengo zikloko txapelketen antolatzaile nagusi izango zen Alfontso Irigoienek ere ahobizarrrik gabe planteatzen du kontua Sarasuak eginiko elkarrizketan:

“Gerra aurrean bertsolaritza kontua mespretxu itxuraz begiratzen zen (...) Basarrik irabazi zuen horregatik hain zuzen ere, lege berrikoa zelako. Orduan

²⁶⁸ Honela dio Zavalari: “Emen, Zarautzen, bazegon Nekazabal zana-ta, Sasi zana-ta, Exkerra Igeltseroa-ta, pixka bat aritzen ziranak. Tabernarako ta sagardotegirako poliki egiten zuten. Baiña bertso zarrak ere entzun egiten nitun: Xenpelarrek au ta ura jarri zula; Txirritari au kantatu ziotela (...) Gaztelu ere askotan izan gendun gurean (...)” (1992b: 11)

purismoa (euskararen garbizalekeria) zegoen nagusi eta Basarrik bazekien puristen argot guztia. Bazekien zer egin behar zuen. Hor Txirrita gelditu zen tartean. Donostiako txapelketan bota zuen bertso sonatuak bazuen esanahia.” (Sarasua, 1992, 14)

Ikerketa honen xedea ez da, noski, txapel hura nork merezi zuten ebaztea. Garai hartako eragileek markatu zuen proiektuaren nondik norakoa azaltzea baizik, eta txapelaren kontu hauek esanguratsuak dira zentzu honetan. Hortaz haratago deusik ez. Basarrik kontatzen duenez Txirrita eta biek bakeak egin zituzten gainera:

“Txapelketa ondore hartan Zarautza etorri zan Txirrita, eta Euskalduna deitzen genion taberna batean jarri zan ostatur (...). Berehala zabaldu zan herrian, Txirrita hemen zala, eta bi aldiz edo bialdu zitun mandatariak gure aitagana, Azken Portura, esanaz ni hara joatea nahiko lukela (...). Txirrita han zegoan nere zai. Hasi ginan bertsoan, hark bota eta nik erantzun, hark bota eta nik erantzun... Halako batean negarrez hasi zitzaidan, eta esan zidan: «Oraintxe gustora hilko naiz; enun sekula sinistuko holako gazterik zetorrenik. Oraintxe gustora hilko naiz». Hura gustora eta nire bai. Halaxe bukatu zan gure arteko zera.” (Mazantini, 1991, 1. zbkia., ‘Basarri’rekin buruz buru’, Patziku Perurena)²⁶⁹

5.3.2.3 35eko Bertsolari-guduaren estaldura mediatikoa

‘El Día del bertsolari fue una manifestación radiante del alma artística de la raza vasca’ ekarri zuen *El Día* txapelketa lehen orriraz; ‘Una fiesta inolvidable. Alto exponente de nuestro ingenio y cultura’ egiten zuen beste hainbeste *Euzkadik*, eta ‘Una fiesta inolvidable. Alto exponente de nuestro ingenio y cultura’ izenburua zeraman kronika ere bazekarren; ‘Gure ezagueran Donostin euskera alde egin dan jairik ederrena, igandean izantzan’, *Argiak*, lehen orrian baita, eta Madrilgo *El Solek* ere eman zuen finalaren berri ‘Tamborrada y versolaris’ titularrarekin²⁷⁰.

Guztiek Basarriren garaipena seinatu zuten, bere gaztetasuna, dotorezia eta abertzaletasuna:

“Ogei ta bat urteko gazte auxa dezute igandean bertsolari guduaren lenengo saria irabazi zuana. Gazte apal da zintzo bezin lagun maitea degun oni bijoakio guk gure biotz txoko-txokotik bialtzen diogun zorion-agurra (...) Aberri alde lan egiteko jaioa aiz, Iñaki, ta jarrai zintzo orain arteko bideari.” (*Argia*, 1935/I/22, ‘Eizmendi’tar Iñaki ‘Basarri’)

²⁶⁹ Basarri izango da gainera Txirritaren mitoa betiketoz lanik handienak hartuko dituen. Gerra ondorenean kazetari lana berreskuratu zuenean Txirritari eskaini zion lehenengo testuetako bat eta gerora errenkada bat idatzi zituen hernaniarrak, beti errespetu eta begirune handiz. *Aranzazu* aldizkarian argitaratu zuen Txirritari buruzko lehenengo hori, 1946/XII/15 datarekin eta ‘Txirrita’ren ateraldiak’ izenburuz. Dozenaka gehiago etorriko ziren hurrengo urteetan: *La Voz de España*, 1947/03/09, ‘Anectotas sueltas’; *La Voz de España*, 1950/VI/16, ‘El difunto Chirrita’; *La Voz de España*, 1951/I/30, ‘Anécdotas de viejos versolaris/ Chirrita, hombre de ingenio y gordo’; *La Voz de España*, 1959/I/10, ‘Chirrita’; *Zeruko Argia*, 1963/V/19, ‘Txirrita’ren omenez’; *La Voz de España*, 1963/V/14, ‘Homenaje a Chirrita’; *Zeruko Argia*, 1963/V/19, ‘Txirrita gogoratuz’; *Zeruko Argia*, 1964/VII/19, ‘Txirrita eta Prantses Txikia’; *Zeruko Argia*, 1964/VII/19, ‘Txirritaren ateraldi bat’; *Zeruko Argia*...

²⁷⁰ *El Día*, 1935/I/22, ‘El Día del bertsolari fue una manifestación radiante del alma artística de la raza vasca’, *Txantxangorri*; *Euzkadi*, 1935/I/22, ‘El primer día del Bertsolari. La fiesta resultó un acto bellissimo y una demostración del elevado valor artístico del bertsolarismo’; *Euzkadi*, 1935/I/25, ‘Una fiesta inolvidable. Alto exponente de nuestro ingenio y cultura’, Artetxe, Jose; *Argia*, 1935/I/27, ‘Gure ezagueran Donostin euskera alde egin dan jairik ederrena, igandean izantzan’; *El Sol*, 1935/I/23, ‘Tamborrada y versolaris’.

Argiak zortzi testu zekartzan 1935eko egun hartan, Jaurtakol, Manuel Lekuona, Antonio Labayen, Basarri edo Fermin Irigarai bezalako sinadurekin²⁷¹. *Euzkadik* lau testu zekartzan egun berean, Lauaxeta nahiz Aitzolenak tartean, eta *El Díak* Jaurtakolena²⁷².

Gertakariaren ondorengo jarraipen zabalena berriro ere *Argiak* burutuko zuen, hurrengo zenbakian Basarri egindako elkarrizketa eta Zarautzen txapeldunaren omenez burutu zen ekitaldiaren kronika eskainiaz²⁷³. Azkenik, apirilean argitaraturiko *Yakintza* aldizkariaren hamalagarren zenbakian Euzko Gaztediko talde batek buruturiko bertsoen transkripzioekin josiriko kronika zabala argitaratu zuen Zubimendik²⁷⁴. Honela iruzkindu zuen Bilboko *La Tarde* egunkariak donostiarraren lana:

“En las actividades de Euskaltzaleak se incluye un amplísimo artículo-crónica sobre el Primer Día del Bertsolari, debido al euskaltzale don José de Zubimendi. Minuciosa descripción de aquella jornada memorable y de gran valor por haberse recogido en él gran número de estrofas y de las más valiosas de las improvisadas por los bertsolaris en aquella contienda. Enriquece, pues, extraordinariamente es número la publicación de bellísimos versos (...) lo que hará que este número de ‘Yakintza’ sea solicitado y reclamado por todos los amantes del euzkera y de la cultura vasca.” (*La Tarde*, 1935/IV/11, ‘Libros y revistas/Revista Yakintza’)

Esan ohi da txapelketa modernoak 1935eko honetan hasten direla, sagardotegitik antzokirako pausoa, gai jartzailearen papera eta ariketa ezberdinak aitatu ohi dira. Ikusi den bezala, ordea XIX. mende bukaeran Lore Jokoak Hegoaldera pasatzean emana zen jada frontoitik antzokirako pausoa eta han hasi ziren gai jartzailea eta ariketa ezberdinak baliatzen. Gazteleraz topatu den kronikarik zaharrenean Manterolak deskribatzen duen 1880ko Donostiako Antzoki Zaharreko saioa, esaterako, ez da oso ezberdina alderdi hauei dagokionean, Poxpolin antzokian burutuarekiko.

Alde handiagoa ikusten zaio gertakariaren dimentsio mediatikoari. Alderdi kuantitatiboari bakarrik erreparatzen bazaio, 1880ko Donostiko hark, bost testu ekarri zituen prentsan, 1935ekoak, aldiz, 46. 1880ko hura arreta gehien piztu zuen ekitaldietako bat izango da gainera Lore Jokoen²⁷⁵, ohikoena ekitaldiak bizpahiru testutako estaldura izatea litzatekeelarik. Bigarren olatu honek txapelketaren ikusgarritasunean ematen duen jauzia ikusgarria da, bada.

Eta bilakaera ez da kuantitatiboa soilik, kualitatiboki ere ematen dira nabarmentzeko moduko urratsak. Honela, esaterako bertsolari bati historian egindako lehen elkarrizketa ekarriko du 1935eko txapelketa honek: Basarri *Argian* egin zitzaiona.

XIX. mende amaieratik 1935etara hedabideek etengabeko garapena bizi izan dute eta kultura masa ikuskizun gisa hautematen duen ulerkera errotzen hasia da jendartean. Amezagak,

²⁷¹ *Argia*, 1935/I/20: ‘Bertsolari gudaketa nola egingo dan’; ‘Bertsolariaren eguna’; Lekuona, Manuel; ‘Astea’; ‘Bertsolari eguna dala ta’. Jauregi, Luis *Jaurtakol*; ‘Bertsolariak, erri gogoaren sugeldo’, *Altzo*; ‘Udarregi’, Arduñbe, ‘Doña Manuela bertsolari’, Labayen, Antonio Maria *Ayanbe, L.*; ‘Bertsolariei, biotzez agur’, Irigarai, Fermin *Larreko*; ‘Bertsolari eguna/Aurrekoen oroipena/Bautista Gaztelu Bertsolaria’, Eizmendi, Iñaki *Basarri*.

²⁷² *Euzkadi*, 1935/I/20: ‘El día del bertsolari’; ‘Ante la fiesta de hoy. ‘Maestro de bertsolaris’, Urkiaga, Esteban *Lauaxeta*; ‘Una exhibición de bertsolaris’; ‘¿Qué es el bertsolari? (Ansias de eternidad. Hoy, en el día de su consagración)’, Ariztimuño, Jose *Aitzol. El Día*, 1935/I/20, ‘El día del bertsolari’. Jauregi, Luis *Jaurtakol*.

²⁷³ *Argia*, 1935/II/03: ‘Basarri goraltzeko euskaltzalle pillo ederra bildu giñan’, *Txaldatxur*; ‘Basarri’, *Atarka*.

²⁷⁴ 1936ko txapelketarekin beste hainbeste egingo du Zubimendik, eta gero, bi kronikekin ‘Bertsolari-Guduak’ liburu argitaratuko du. Liburu hau ziklo honetako bertsolaritzari buruzko kazetaritzaren ikur batenez aurrerago eskainiko zaie tarte garrantzitsuago bat Zubimendiren kronika hauei.

²⁷⁵ 1894ean Donibane Lohizunen ospaturikoa da arreta mediatiko gehien piztu zuen ekitaldia, 9 testurekin.

esaterako, kultura popularrak masa kulturara izandako eraldaketan mugarriztat jotzen du II. Errepublika: “Errepublikarekin batera, herriari zuzenduriko kulturak leku handiagoa hartuko du estatuaren politikan. Batetik, hezkuntza sistema hedatu egingo da. Bestetik, komunikabideek —liburugintza, irratia eta zinema— zein ikuskizun masiboek —futbola, boxeoa— hedapen handia izango dute garai honetan” (1994: 153).

Testuinguru aproposan eman zen, bada, txapelketaren estaldura mediatikoaren jauzi kuantitatibo eta kualitatibo hau. Eragileek eurak, azaldu den gisan, hedabideen bitartekotzaren garrantziaren kontzientzia garbia izatea, euren proiektuan bertsoariaren hedabideratzea txertatu nahi izatea funtsezkoa suertatu zen, ordea: txapelketaren berri eman zuten hedabide guztiak, Madrilgo *El Solen* salbuespen bakarrarekin, hedabide abertzaleak izan ziren.

5.3.3 36ko txapelak bertsoariaren klasikoaren aitortza

5.3.3.1 Txirrita, mito bizia (1860-1936)

Ereñoizuko Latze baserrian jaio zen Jose Manuel Lujanbio, zazpi anai-arreben artean bigarrena, baina hamairu urte zituelarik lur haietan fabrika bat jarri zenez Errenteriako Txirrita baserrira aldatu zen familia, eta hortik datorkio ezagun egin zuen ezizena.

Zavalaren arabera eskolan sartu irtenen bat egin bazuen ere (1992a: 21)²⁷⁶, baserriko lanak tokatuko zitzaizkion gehiago, eta inguruko bertsoariari jarriko zien arreta. Umeagoa zela botatuko bertsoariaren bat ere jaso den arren, plazako saioetan hamalau urterekin egin zuen debuta: “Milla zortzireun irurogei ta/ hamalau urte urrian,/ lenengo plazan kantatu neun/ nik Ernaniko lurrian/ San Antonio deitzen diogun/ ermita baten aurrian,/ lagunak alkar istimatuaz/ lengo oitura zarrían” (id.: 443).

Adin berarekin karlistadetara soldadu joan zen baita. Etxe bakoitzetik gizonezko bat eskatzen zuten eta bere burua eskaini zuen aitaren lekuan (Zavala, 1992a: 30). Handik bueltan, semerik zaharrena izaki, baserriaren maiorazkoa zegokion, baina ez zuen ardura hori gogoko eta uko egingo zion, tarteka hargin edo morroi bezala lan egin, baina batez ere plazaz plaza bertsoariaren ibiltzeko: “Arto-maiorazkua nintzan/ nere tokamentuz/ serbitu izan banu/ aita pulamentuz (...)” (id.: 36).

Aurreko zikloan azaldu den gisan enkarguz egindako bertso batzuegatik epaitu zuten 1916an. Zavalak kontatzen duenez berak jarritako bertsoak salduaz ere atera izan zuen bizimodua. Antzeman daiteke pertsonaiaren jitearen zantzu bat hemen ere:

“Txirrita bera ere ibilli zan bertso-paperak saltzen. Milla bederatzireun eta amabigarrengo galernari jarritako bertsoak, bi egilleak, Fermin Imaz eta Txirritak saldu zituzten, Errenteria'n beintzat, igande-goiz batez eliz-atarian kantari asita. Beste batean, Txirrita Irun'en ari zan bertso saltzen. Neska bati jarritakoak ziran eta erretoreari ezin ba gustatu. Txirritagana joan, zeukan paper mordoak zenbat balio zuan galdetu, Txirritak esan, erretoreak pagatu eta eramán egin zuan, orrekin festa bukatua zala pentsatuaz. Bañan Txirrita berriz ere inprentara joan zan, sail ura osterá inprentatu-arazi zuan eta hurrengo igandean an zan berriz ere Irun'en, bertsoak saltzen.” (1980a: 125)

Kalitate goreneko bertsoariaria zen hernaniarra: “El bertsoarismo improvisado del primer tercio de siglo está dominado por la imponente figura del hernaniarra Jose Manuel Lujanbio,

²⁷⁶ Honakoa ere gaineratzen du tolosarrak: “Irakurtzen ba omen zekian, moldeko letrak bakarrik ordea; ez eskuz egindakoak. Baiña oso gutxitan saiatzen omen zan” (1992a: 248).

Txirrita (1860-1936), que ya a comienzos de siglo era una de las referencias fundamentales del bertsolarismo de su época” (Garzia, 2000a: 429). Plazarik plaza herri xehearen begirunea pilatuz joan zen eta ehunka bertso, ateraldi eta pasadizo utzi zituen memoria kolektiboan:

“Tipologia aldetik harrigarria Txirritaren nortasuna. Fernando Amezketarraren mailara iristen ez bada ere ba du antzeko zerbait, beste guzien artean nabarmentzen duena: sortu ditu hamaika zelebkeria, eduki ditu hamaika ateraldi eta neurritz kanpokoak da haren umorea. Gaiez eta gizalegez kabida haundiko gizona da, herri-herriko pentsamolde arrunten ispilu jatorra” (Lekuona, 1982: 217)

1930eko hamarraldia iritsi zenerako bere gorenean aurkitzen zen bertsolariaren fama: “Bizirik zegoen mitoa zen ez bakarrik bertsozaleentzat baita bertsolarientzat ere. Maisutzat zeukaten horiek, izugarri gurtzen zuten, eta bera nora joan sekito ikusgarria izaten zuen inguruan beti” (Lasa, 2008: 598). Adinak eta kiloek nahieran mugitzea eragozten bazioten ere, jendeak bere bertsoak eta presentzia eskatzen zituen bezala plazarik plaza jarraitzen zuen: “Alde batetik bestera gurdiz edo automobilean eraman behar izaten zuten” (id.: 598).

Bere kalitateak eta izaera subalternoak mitoaren maila eman zioten, bada, artean bizirik zela. Bertsolaritzaren historian estatus hori lortuko duen bertsolari bakanenetako bat izango da hernaniarra²⁷⁷: “(...) su figura nos llega velada por ese halo de leyenda que también poseen otros bertsolaris más lejanos a nosotros en el tiempo, como Etxahun, Pernando Amezketarra o Xenpelar” (Garzia, 2000a: 429).

5.3.3.2 Prentsako arrasto zaharrenen bila

1936ko txapelketarekin hasiko da medioetan mito hori bidea egiten. Aguretuta iritsi zen, ordea, txapelketa horretara, herri xehearengan arrasto sakona utzi zuen ibilbide luze bat eginda, eta ahalegin bat egin da prentsari txapelketa aurretik arrastorik utzi zuen argitzeko.

Esan bezala aurreko ziklotik dator Txirrita baina ziklo horretan Iruñean 1916an egin zitzaion epaiketaz idatzitakoez gain Lore Jokoetako izandako parte hartzeen aipamen soilak baina ez dira jaso izan²⁷⁸.

Ziklo berrian topatu den lehen testu esanguratsua 1926an argitaratu zen Madrilgo *La Voz* egunkarian. Luis Antonio De Vegak sinatzen du eta bertsolari batzuekin nola topo egin duen kontatuaz ekiten dio: “Son tres y famosos en todas las anteiglesias y villas (...) Dicen los versos con rima fácil y sus manos desprecian las herramientas agrarias y los utensilios marinos” (La Voz, 1926/VI/16, ‘Han bajado los versolaris’. De Vega, Luis Antonio).

Pello Errota da lehenengo deskribatzen duena. Asteasuarra 1919an hil zenez data horren aurrekoa behar du, bada, topaketak: “Mientras los otros discuten, él se ha dormido filosóficamente, con el agudo mentón apoyado en la tabla de la mesa. Un mechón de pelos canos asoma con notoria irreverencia por el borde de su boina.”. Herriak asko miresten duela dio, joan berri den mende amaieran bera zela bertsolaririk onena, baina gainbeheran dela: “Me han dicho de él que no inventa nuevas trovas, que se limita a repetir las antiguas y a beber sidra blanda en compañía de los viejos curas carlistas, a quienes distrae con referidos de los tiempos de bandería”. Etxekoandreek eskainiriko txokolatea eta bizkotxoa gustura hartu dituela baina ardoa gusturago hartuko zuela esanaz osatzen du erretratua.

²⁷⁷ Bere aurrekoen artean Iparragirre izango da ziurrenik horreftaraino iritsi zen bakarra.

²⁷⁸ Ik. 4.6.4 Etxahunen epaiketarekin hasi eta Txirritarenarekin bukatu

Ollokiegi deritzon bertsolari gaztea da hirugarrena. Bere euskarak ‘erre’ ugari dituela eta arrantzaleen nahiz nekazarien bizitzari oso apain abesten diela seinalatzen du kazetariak: “Pero cuando en la plazoleta aldeana se perfilan curiosos los rostros femeninos, entonces Olloki se olvida de que existen la montaña y el mar, eligen sus ojos a la más bella y dicta para ella sus versos amorosos y cándidos”. Bertsolari fina bezain mutil lerdena izanik neskaten artean jarraitzailerik baduela ere gaineratuaz: “Las muchachas vascongadas que lo saben acuden a las contiendas de versolaris por oír a Olloki y un poco también con la esperanza de que aquel día se consagre a su belleza la glosa euzkelduna del adolescente poeta del mar”.

Tartean Txirritari eskaintzen dizkio hainbat paragrafo, eta deskribapen fisikoa da deigarria suertatzen den lehen elementua, ez baitira inondik inora ageri txapelketetako kroniketan hainbeste azpimarratzen ziren kiloak eta errenak:

“Es un mozo rubio, con dos ojos azules demasiado claros (...) Sólo cuando los octubres mueren Txirrita se retorna a la casería de su anteiglesia, y allí, los días no lluviosos, juega a la pelota como un pelotari, siguiendo la poma blanca con saltos elegantes (...)”

De Vega 1900ean jaioa zen eta kazetari ibilbidea 1917an hasi zuen Bilboko *El Nervión* egunkarian. Gertakariak, bada, 1919 baina lehenagokoa izan behar du baina ezin du askoz ere lehenagokoa izan. 50 urtetik gora dauzka Txirritak, kazetariak pilotan irudikatzen duenean.

Bertsoarekiko esleitzen dion grina falta ere nahikoa harrigarria suertatzen da: “(...) te diré que no ama su bello oficio de versolari, y que muchos de los versos que dice son oídos de bocas de versolaris vascofranceses (...)”. Eta aipatzen duen lehiakortasunik ezarekin ere beste hainbeste gertatzen da: “En todas las contiendas le vence su compañero más bien; pero a él eso no le preocupa”.

Bilbotarra kazetariaren zehaztasunetik baino idazlearen sorkuntzatik gertuago dabilela suma daiteke testuan zehar, eta bere ibilbidean ere alor horretan nabarmendu zen gehien, baina beste zenbait pasartetan bai ikusten dira Txirritari buruzkoetan gero ohiko bihurtuko diren kontuak. Honela, hernaniarraren bizi filosofia deskribatzerakoan: “Su lema parece ser vencer la tristeza del reposo, no soportar lo duro de la tarea agrícola, caminar, caminar sobre sus dos pies calzados con abarcas, decir primero los versos y después bailar en todas las romerías”. Edo bere jendetasuna azpimarratzean:

“(...) cogido del talle de una moza, moviendo sus piernas sobre el berilo de las hierbas en las campos romeras o bebiendo y hablando recio en todas las merindades de nuestro señorío Txirrita es integralmente feliz (...) amigo de todos los malos trabajadores y de todos los buenos bailarines (...)”

Ez da horrelako luzerarik eta sakontasunik duen hernaniarrari buruzko beste testurik topatuko 1936ko txapelketa iritsi arte. Badago, ordea, ale interesgarririk.

Lehenengoa Malagako astekari grafiko batek argitaratuko du, *La Unión Ilustrada*, 1930/X/05 datarekin, eta ‘Eibar’ izenburua duen fotoalbistea izango da. Elkarrekin zerikusirik ez duten fotoalbistez osaturiko orrialdearen ertz batean Txirrita eta bere lehengusu eta bertsokide Juan Jose Lujanbio *Saiburu* ageri dira aulki banatan eserita. Blusa beltzarekin, bastoiarekin eta bere kiloekin ageri da hernaniarra eta testuak honela dio: “El arte popular de los ‘versolaris’ tiene una magnífica representación en ‘Chirrita’ y ‘Zaiburu’, que conservan puras las tracciones vascas”.

Bigarrena Madrilgo *Estampa* astekari kulturalak dakar, 1931/XII/12 datarekin argitaraturiko zenbakian. J.E. Muñagorrik sinatzen duen testuak ‘Las festivas improvisaciones de los ‘bersolaris’’ darama izenburutzat eta kronika modura hasten da bidea egiten: “El rumor de las conversaciones en ‘euzkera’ vuelve a poblar (...) el ambiente de la sidrería. “¡Ale ‘Kilimon’!, sácate ‘esos’ coplas ‘nuevos’- dice uno de los que forman el grupo de ‘casheros’”. Kilimon honek Eusebio Mugertza ‘Mendaro Txirristaka’ behar du izan, ezizen horregatik eta egiten den deskribapenagatik: “‘Kilimon’ es un producto híbrido de músico y poeta: fabrica –como él dice- letras adaptables a las canciones en boga (...) es bajo, rechoncho y algo ‘huruandi’. Tiene unos ojos pequeños y maliciosos (...) y un bigote negro (...)”. Aulki batera igo eta bere bertso elebidun famatuak abesteari ekiten dio gainera: (...) después de mirar intencionadamente a los recién venidos comienza: Conosco unas pulanas/ Donostia onetan/ De verlas con precuensia/ goizeko mezetan/ Con modesta mantilla/ Beltza buruetan/ Con rosario y un libro/ Gañera eskuetan”²⁷⁹. Eta ikuskizuna xehetasun guztiakin azaldu ondoren, tonua aldatu eta bertsolaritzari buruzko oinarrizko topiko batzuk eskaintzen ditu kazetariak: Ertarotik datozen baladak eta Leloren kantua, bapateko bertsolariek duten sona eta erraztasuna eta abar.

Testuak, Txirristakaren berri emateaz haratago, bertsolari honi buruz aurki daitekeen erreferentziarik zaharrena izango da ziurrenik, ez du aparteko interesik. Testua jazteko argitaraturiko argazkiena, ordea, beste kontu bat da.

Zazpi argazki dakartza bi orrialdeetako erreportajeak²⁸⁰ eta bertsolaritzaren historiako lehengotakoak dira hauetako batzuk. Indalecio Ojanguren (1887-1972) argazkilari eibartarrak ateratakoak dira guztiak, aipatu den gisan *Argiako* argazkilari gisa ibili ohi zenak (Díaz Noci, 1995a: 272). Bere lana jasotzen duen funtsean kontsulta daitekeenez²⁸¹ Txirrita, Goiburu eta Olegario jendez inguratua erakusten duena, esaterako, 1915ekoa da. Nabari zaio, gaurdaino iritsi diren gainerako argazkietan baino dezente arinago zegoela ikusten baita. Pello Errotari bere etxe atarian ateratakoa ere oso zaharra da, 1916koa, eta Kepa Enbeita dotore asko ageri dena 1921ekoa.

Deigarria suertatzen da baita bertsolariak posatzen jartzen direnean, seitik hirutan, Ojangurenek ardo botila batekin jarri nahi izana. Eta baita Txirrita eta Saibururen argazki-oinean irakur daitekeena ere: “El mejor ‘bersolari’ de la actualidad, Chirrita, y su rival Lujambio (...)”.

5.3.3.3 36ko bertsolari.guduaren estaldura mediatikoa

Bigarren Bertso-Gudua ere Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedik antolatu zuten elkarlanean. Aurrekoa erdi inprobisatua izan zen, hilabete eskasean atondua eta oraingoan antolakuntza maila hobea ikusiko da. Honela, nobedade nagusia Tolosan (1935/XII/29), Azpeitian (1936/I/01), eta Elizondon (1936/I/21) buruturiko kanporaketak izan ziren. Hogeitahamar bertsolarik hartu zuten parte berauetan, gipuzkoar, nafar eta lapurtarren artean, Tolosakoa Txirritak irabazi zuen, Azpeitiakoa Zepaik eta Elizondokoa Joanes Iriartek. Basarrik ez zuen

²⁷⁹ Euskarazkoak itzulita datoz jatorrizkoan.

²⁸⁰ Lehenengoan Pello Errota ageri da, bere etxeko atarian; bigarrenean Juan Ignazio Odriozola Aizarna bertsolaria ikus daiteke, ardo botila baten aurrean eserita; *La Unión Ilustrada* zekarren bera da hirugarrena, Txirrita eta Saibururekin; Kepa Enbeitari ateratakoa da laugarrena; hurrengoan Txirrita, Goiburu eta Olegario ageri dira lurrean eserita, jendez inguratutik eta Goiburuk eskuan ardo botila duela; seigarrena Frantzes Txikiari ateratakoa da, mahaian bi lagun eta ardo botila erradoi batekin eserita; eta azkenengoan Prantzes Txikia ageri da plaza bateko kioskoan bertsotan.

²⁸¹ Indalecio Ojanguren argazki biluma. Helbidea honetan kontsultatua:

<http://www.guregipuzkoa.eus/bildumak/indalecio-ojanguren-bilduma/> [2018/XII/11]

Txapelketan parte hartu, aurreko garaileak ez zuela parte hartuko ezartzen baitzuen araudiak eta epaimahaiko izan zen. Aitzol eta Zubimendi ere epaile aritu ziren kanporaketa guztietan, Zubimendi aurkezle ere bai, eta Lopez de Mendizabal, Mujika, *Manezaundi*, Detxepare eta *Larreko* ere aritu ziren epaitzen kanporaketaren batean.

Finala Donostiako Victoria Eugenia Antzokian egin zen, urtarrilaren 19an, bederatz bertsolarirekin. Epaimahaiko Aitzol, Altzaga, Lekuona, Olaizola, Leizaola eta Basarri aritu ziren. Azken honek Zubimendi ordezkatu behar izan zuen aurkezle gisa: “(...) Zubimendi Jaunari, amagiarreba il zitzaiolako egunborean” (Etxezarreta, 1993: 84).

Txirrita aterako da garaile, 75 urterekin bertsolaritzaren historiako txapeldun zaharrena izango delarik. Txapelketa hartatik gerora gehien gogoratu izan diren bertsoak ere bereak izan ziren, batez ere, ‘Gerra’ gaitzat jarrita abestu zuen hau: “Zenbat errezo egin izan det/ nere denboran elizan,/ ta pozik nago ikusirik/ pakian nola gabiltzan/ Ni naizen bezin kobardieran/ iñor ezin leike izan/ semeak gerra ez joateatik/ mutilzahar gelditu nitzan”. “Nos imaginamos la reacción del público: Txirrita no era conocido precisamente como frecuentador de iglesias, y había cantado muchas veces sus fracasos amorosos de forma jocosa, prometiendo organizar una corrida de toros con Machaquito y Bombita el día de su boda...” dio Garziak (2000a: 433); “Hara ‘txirritakada’ osoa, bete-betekoa” Zubimendik (2002: 122).

El Díak euskaraz, ‘Bertsolari eguna zala-ta jayen edertasun arrigarrizkoa’ nahiz ‘Eguneko xaltxa’, eta erderaz, ‘El II Día del Bertsolari centenarios de euskaltzales rindieron homenaje a los poetas populares de la raza’ nahiz ‘A manera de prólogo’, lau aldiz ekarri zuen bere lehen orrira. Argiak ere eskaini zion lehen orria, ‘II Bertsolari eguna. Victoria Eugenia Antzokia bete-betea zala egin zituzten bertsolariak beren saioak’ izenburua zeraman albiste nagusi gisa. Eta *Diario de Navarra* ere Txirritaren soslai txiki bat ere eraman zuen azalera, egun batzuk geroago izan bazen ere²⁸².

Azken hau pieza berezia da. Batetik, aparte maketaturiko testu gisa, argazkia ere badakar, oso gerora ohiko bihurtuko diren bertsolarien soslaien aurrekari gisa har daitekeelako. Bestetik, Txirritaren kiloak direla medio burutazio aldrebesa dakarrelako:

“Este es Txirrita. Ganó el primer premio en el certamen de versolaris que se ha celebrado recientemente en San Sebastián. ¿Poeta entonces con esos carrillotes y ese abdomen suculento (...) Fue poeta con todas las de la ley el gran Arcipreste de Hita, socarrón, glotón, zumbón como es este Txirrita (...).”

Aipatu berri den bertsoa azpimarratzen du gainera, momentu hartan izan zuen oihartzunaren adierazgarri: “Txirrita, por ejemplo de lirismo, dice que permanecerá soltero mientras haya en el mundo una amenaza de guerra sobre los hijos (...)”.

Finalari buruzkoak 1935ekoak baina gutxiago izan ziren. Zentzu honetan deigarria suertatzen da *Euzkadi* egunkariak eskainiriko arretaren murrizta, testu bakarra, Jose Artetxek sinaturiko ‘Un espectáculo definitivamente prestigiado’, bederatz egun beranduago eta bosgarren orrialdean. Edozein modutan estaldura orokorraren testu kopurua 1935ekoa baina zerbait altuagoa izango da, 46 testu beharrean 55. Hazkunde honen atzean kanporaketei eskainiriko testuak (lau pieza) leudeke batetik, eta txapeldunari egindako omenaldiari buruzkoak

²⁸² *El Día*, 1936/I/21: ‘El II Día del Bertsolari centenarios de euskaltzales rindieron homenaje a los poetas populares de la raza’; ‘Bertsolari eguna zala-ta jayen edertasun arrigarrizkoa’; ‘A manera de prólogo’; ‘Eguneko xaltxa/II Bertsolari Eguna’, *Xaltxero. Argia*, 1936/I/26, ‘II Bertsolari eguna. Victoria Eugenia Antzokia bete-betea zala egin zituzten bertsolariak beren saioak’; *Diario de Navarra*, 1936/II/01, ‘Este es Txirrita’.

(Basarrireanean hiru, Txirritareanean zortzi) bestetik. Azpimarratzeko modukoa da baita Aitzolen *El Día* egunkariak eginiko ahalegina, bere estaldura *Argiak* eskainitakoaren parera iritsiko delarik (*El Día*k 15 testu eta *Argiak* 16).

Enrike Zubiri *Manezaundi* kazetari nafarraren hitzek erakusten dute bertsolaritza hartzen ari den dimentsio mediatikoa:

“Gipuzkoarrek, phertsulariak goretsi nahiz eta behar den heineraino altxatzeko (...) erabaki zuten zoin-gehiagokoak egitea heien arthian urthe guziz, hoberenen hautatzeko eta saristatzeko. Aurthengoak hiru lekhotan egiten dituzte lehenikan, Azpeitin, Tolosan eta Elizondon (...) Orain artio LA VOZ DE NAVARRAK ez du hitzik ere aipatu hortaz. Donostiako «El Día» bi aste badu ori dela mintzatzen egun guziz, eta guk, hemen, ezpainak yosiak ditugu, den gutieneko axolarik gabe, iduriz (...) ez ginezakea beste hainbeste egin behar? Edo bethi pikaren azken umiak othe girea?...” (*La Voz de Navarra*, 1936/I/10, ‘Nahas-mahas’. Zubiri, Enrike *Manezaundi*)

5.3.4 Bertsolariei eginiko lehen elkarrizketak

5.3.4.1 Genero oso berantiarra, bertsolarien subalternitatearen eraginez

Elkarrizketa kazetaritza genero gisa XIX. mendearen erditik aurrera garatuko da:

“Christopher Silvester, el editor del Libro Penguin de entrevistas (...) asegura en su larga y documentada introducción que la primera entrevista moderna, tal y como hoy la concebimos, fue publicada en el New-York Tribune el 20 de agosto de 1859. Se trataba de una conversación con Brigham Young, un líder mormón, y fue hecha por Horace Greeley, un periodista norteamericano bastante célebre (...) el británico Silvester se centra sobre todo en el mundo anglosajón (...) en cualquier caso este género periodístico debió de iniciar su andadura en torno a esas fechas, o sea, a mediados del siglo XIX” (Montero, 1997: 2)

1823an topatu da prentsako bertsolaritzari buruzko testurik zaharrena, 1845etik aurrera gaiaren arreta mediatikoak jarraitasuna duela ikusi da, 1880kotik bertso-saioen kronika zabalak topa daitezkeela... Bertsolariei eginiko elkarrizketak, ordea, ez dira 1930eko hamarraldiraino estreinatuko.

Silvesterrek azaltzen duenez, generoaren lehen hamarkadetan prestigio handiko pertsonaiak izan ohi ziren elkarrizketatuak, eta Henri de Blowitzek, *The Times*ek European zuen korrespontsala, buruturiko lehen elkarrizketak zerrendatzen ditu adibide gisa: “(...) figuras públicas, como el rey Alfonso XII de España, Maurice Gambetta (arquitecto de la III República francesa), el príncipe Bismarck, el Sha de Persia, el papa León XIII y el sultán Abdul Hamid II de Turquía (...)” (1997: 13).

Bertsolariek, ikusi den bezala garai hartan eta Lore Jokoen bueltan prestigiatze bat bizi izan zuten arren, ez zioten figura subalterno bat izateari utzi. Subalternitate horrek esplikatu luke bertsolartzak eta generoak prentsan hainbat hamarkada egin ondoren bertsolari bat elkarrizketatzea inori ez bururatu izana. Dozenaka aditu eta sasi-adituri emango zaio bertsolaritzaz gogoetatzeko hitza bertsolari bati galdetu baino lehen. Ia mende oso batean zehar bertsoak jartzeko bakarrik emango die ahotsa prentsak bertsolariei. Fikziozko testuetan bertsolariek esan ahal dituzten hitz batzuk eta Iparragirrek nahiz Otañok sinaturiko hitz-lauzko testu bakanen bat dira salbuespen bakar.

1930eko hamarraldian buruturiko elkarrizketak bertsolariek eta bertsolaritzak irabazitako estatus berri baten zantzua ematen digute, bada, nolabait.

Basarri egingo zaio lehena, 1935eko txapela irabazi ondoren, hain zuzen ere bertsolariaren bertsio jantziago bat estreinatzen duen zarauztarrari, bertsolaritzari buruzko gogoetak argitaratzen dituen lehen bertsolariari. Bigarrena Txirritari, txapela jantzi berritan baita.

Gerra zibila tarteko, beste hogeitau urte pasa arte ez da gisako elkarrizketa gehiagorik topatu ahal, eta bakantasun honek harribitxi bihurtzen ditu bi testuok. Berauetan murgildu aurretik, aurrekaritzat har daitekeen beste testu bat aipatu beharra dago, ordea. Aurrekoak baino harribitxi bitxiagoa dela esan daiteke gainera, bertsolari emakume batekin izandako hizketaldia jasotzen baitu, subalternitatea eta elkarrizketen ausentziaren artean zirriboratu berri den lotura hankaz gora jarriz: gizonezko bertsolariarena figura subalternoa bazen, emakumezkoarena zer esanik ez.

Marie Abbadiek Parisko *La Femme* aldizkarian 1896eko urtarrilaren 15ean argitaraturiko ‘La femme dans le Pays Basque’ da aipaturiko testua eta Lekorneko Aña Etxegarai (1873-1939) ahotsa ematen zaion lehen bertsolari hori. Askoz ere zabalagoa den testu batean txertaturiko kronika luzea jantzeko erabilitako baliabide bat baino ez da eskaintzen den elkarrizketa laburra. Galde-erantzunak beharko lukete testu osoaren funtsa berau elkarrizketa modernotzat hartu ahal izateko. Baina aurrekari interesgarri bat bada ez bairik gabe. Bestalde, bertsolari emakumearen presentzia mediatikoaren arrasto gisa ere badu interesik. Alderdi hori bigarren eranskinaren lehen azpipuntuan jorratu da²⁸³.

5.3.4.2 Basarri elkarrizketa *Argian* (1935)

Basarri 1935eko otsailaren 3an *Argian* eskainiriko testua bai josten da hasi eta buka galde-erantzunekin. Hau da, bada, bertsolaritzaren historia mediatikoko lehen elkarrizketa.

Analisiaren lehen puntu gisa seinlatu behar da esanguratsua suertatzen dela testua euskaraz idatzia izatea. Ikusi den gisan euskara frantsesa edo gaztelera baino beranduago agertu izan da gainerako kazetaritza genero guztietan, baina bertsolariari ahotsa zuzenean ematerakoan aurrea hartuko du lehen aldiz. Euskararen komunitateak bertsolariari estatus hori erderarenek baino errazago aitortu ahal ziotelako eman zen aitzindaritza hori ziurrenik. Bertsolari emakume baten lehen elkarrizketatzailea emakumezkoa izatea ere kasualitatea ez den bezala.

Elkarrizketa luzea da, izenburutzat ‘Basarri’ daraman hau, aldizkariaren bigarren orrialdearen bost zutabetatik bi betetzen dituena. Ez dakar argazkirik. Egilearen *Atarka* izenordearen atzean nor dagoen ezin izan da argitu. Basarri elkarrizketaren une batean ‘Kepa’ deitzen dio, ikusten da elkarren ezagunak direla, eta gertu samarrekoak behar dute gainera, Atarkak hitanoa baitarabil hainbat galderatan, baina ezin izan da izena osatu²⁸⁴.

Txapela burutik erantzeko denborarik eman gabe burutu da elkarrizketa eta epaia ezagutarazi den unearen kontakizuna baliatzen du sarrera gisa kazetariak:

“Oturuntza amaitu da eta ‘Aitzol’ek du itza. Lehenago bañan ere dardar aundiagoak nabaritzen dira entzuleetan. Jaunak: epai-maiak erabaki du lendabiziko saria Zarauz’ko ‘Basarri’rentzat dala (...) ango txalo eta diadarrak (...) Orain dek neria nion nere buruari. Baiñan (...) nola utzi bioi bakarrik? ¡Ango zorionak! ¡Ango basarkadak! Alako batean ere, orratiok, asi gera.”
(*Argia*, 1935/II/03, ‘Basarri’, *Atarka*)

²⁸³ Ik. Eranskinetan II.I BERTSOLARI EMAKUMEAK PRENTSA HISTORIKOAN

²⁸⁴ *Argian* argitaraturiko Astigarragako kronikak eta zenbait elkarrizketak ere sinadura berdina dakarte.

Bi lerrotan aurkezten du kazetariak adinaren datua emanaz eta gurasoen etxean bizi dela zehaztuaz eta Basarrik lehen erantzunak Euskaltzaleak eta Eusko Gaztediri bere esker ona erakusteko eta txapelketen bidetik bertsolaritzak hobera egingo duela adierazteko baliatzen ditu. Hirugarren galderarako konkretura jotzen du kazetariak:

“¿Zer lan iruitu zaik gaur zallena? - Irugarrena, ori da, doñuba eta oña epai-maiak astia (...) gaztiak gera, esatekoan berriak, eta orrenbeste jende aurrian ikusi, mai aundi batian 8 edo 10 epaikari eta antzokian, badakizu, beti alako zerbait (...) ¿Lasaia go Iñaki? - Bai lagun ez dudikan ere.”

Ordurarte buruturiko plazen kopuruaz ari da hurrengo galde erantzunean, Perurenari hainbat hamarkada beranduago esandakoetatik urrun samar: “¿Gutxi-gora-bera Iñaki zenbat jai aldietan izandu aiz? - Askotan Kepa, askotan; ezin zenbatu nezazke. Gipuzkoa'n egin diran eusko jai geyenetan izandu naiz eta bai Bizkaya'ko uri askotan ere (...)”. Eta ibilbide horretan izandako pasadizoren bat eskatuta Donostiako Kurasaalean botatako bertso batzuk datozkio gogora: “(...) jai aldia asteko garayan bururatu zitzaidan antzeztokitik (escenario)'tik begiratzea zer nolako jendea zegoen; jango sonbraillu, mantilla eta jende aundiki eta dotoreak! Ura ikusi eta nire buruari nion (...) Jende aundiki oyek abertzaleak ote dira? (...) ¡Ura ikara! (...)”. Bere aurretik atera ziren ezpata-dantzarien ikurrinari txaloka ikusi zituenean lasaitu omen zen eta sekulako arrakasta izan azkenik: “Beriala an nituben jende aundi guztiak besarkatzen eta zorionak ematen. Euskeran alde jai ederrak, Kepa; egun oyek ez dira nai eta ere aztutzen”. Deigarria da nola lotzen dituen zarauztarrak bere bertsogintza eta mezu abertzalea.

Eredu izan dituen artean Enbeita izendatzen du, bada, baina baita Txirritaren jitekoa den Gaztelu ere: “Nere ustez eta juaten bagera abertzale gayak ibiltzen zituzten bersolarietara, ez da Enbeita'tar Kepa bezelakorik. ¡Enbeita aundia da! Beste gayetan ezagutu deanik onena Gaztelu'tar Bautista”.

‘Lehengo bertsolariak ala oraingoak’ galdera topikoari berriaren aldeko hautua eginez erantzuten dio, geroz eta euskara hobea erabiltzen dela eta bertsolariak ikasiagoak direla argudiatuaz. Halaber, finaleko bertsolarien inguruan galdetuta ere bustitzen da zerbait: “Ezin nezake iñor berexi; danak dira bersolari onak. Orain bai, oyetatik badago jarraitzen badu orain arte bezela, etorkizun aundikoa izango dana eta ori nire adizkide on ‘Zepai’ da”.

Nahikoa elkarrizketa landua da, besteak beste kazetariak galde-erantzunen segida soilaz haratago elkarrizketaren inguruko xehetasunak tartekatzen dituelarik: “Galdera oyek egiten ordu bete igaro degu. ¡Iñaki, ator onera, dio batek! ¡Iñaki, urrutizkiñera! ¡Iñaki, argazkiak ateratzea! ¡Iñaki, olako aldunek juateko! (...) or dabilkite gure mutil gazte jator au”.

Ordubeteko elkarrizketa izanik badakartza kontu gehiago ere, baina aipagarrienak itxiera gisa funtzionatzen duten elementuak izan daitezke. *Argiarekin* daukan konplizitatea erakusten du kazetariak irakurleentzat eskatzen dion bertsoan: “(...) ARGIA onen irakurleok/ Egon zaitezke jakiñik/ ez asterikan utzi iñola/ irakurri gabetanik/ Astekari onek Europa zear/ ez dauka ba berdiñik”. Eta beste hainbesteko konplizitatea erakusten dio kazetariak ordainetan:

“Arduategi eta jate-etxea dauka Zarautz'en eta bertan naiz eta lan asko izan, ez du beñere asterik igarotzen izparringiako euskeraz idaztez. Orrelako euskotar jatorrai lagundu egin bear diogu. ¿Nola? Zarautz'a juaten geranean bere etxera juanaz. Euskotarren dirua gelditu dedilla euskotarren artian. (...)”

5.3.4.3 Txirritari elkarrizketa *Estampan* (1936)

Bertsolari baten lehen elkarrizketa euskaraz egin izanak, esan bezala badu bere logika. Eta, honenbestez, *Argian* topatu izana ez du inor harrituko, aldizkari honek, modernizaziorako joera garbi bat izanik, euskarazko kazetaritzan aurrerapauso politak ekarri baitzituen (Díaz Noci, 1993: 395-396; 1995a: 270-272; 1995b: 171 eta 2012: 153-155)

Harrigarriagoa suertatzen dena, bertsolaritzaren historiako bigarren elkarrizketa aldizkari Madrildar batean, *Estampan*, topatzea da. Aipatu berri den ‘Las festivas improvisaciones de los ‘bersolaris’ erreportajea eskaini zuen medio berak argitaratu zuen 1936ko apirilaren 4ean ‘Campeones vascos/ Un poeta de 150 kilos’ izenburua zeraman lana²⁸⁵.

1928an sortu eta 1930eko hamarkadan *Crónica*ekin batera Espainiako kultur aldizkariaren merkatuko salduena izatera iritsi zen *Estampa* hori 200.000 aleetako tiradarekin. Txirritaren hitzak jende dezente irakurri ahal izan zituen bada Espainian zehar. Pérez Álvarez eta Gómezen arabera argazkiz ongi hornituriko irakurketa arina zen argitalpenaren funtsa eta arreta berezia jarri ohi zion bitxikeriari buruzko kazetaritzari: “En general, se puede decir que *Estampa* estaba centrada en la informaciones gráficas sobre acontecimientos curiosos, pintorescos o exóticos, en las noticias sobre gente famosa y en abundantes reportajes sobre lo cotidiano, con los cuales se identificaban los lectores” (2010: 6). Eta pertsonaia ezezagun bitxien biografien ildoan baitan kokatuko litzateke hernaniarrari eginiko elkarrizketa: “Los personajes anónimos (...) ocupan las páginas de las revistas gráficas por ser considerados pintorescos, por haber sido testigos de acontecimientos históricos relevantes, o por protagonizar una noticia, sea ésta positiva (un récord mundial, por ejemplo) o negativa (...)” (Pérez Álvarez eta Gómez, 2010: 7-8).

‘Campeones Vascos’ izena duen sail baten baitan argitaratzen da Txirritarena, eta saila irekitzen duen testuan, Jose Aranburu Keixeta aizkolariari eginiko elkarrizketa (El rey de los ‘aizcolaris’ tiene cincuenta y cuatro años, 1936/III/21), honela aurkezten ekimen honen atzean dagoen ideia:

“Vasconia es la tierra de los campeones de todas clases, populares y pintorescos. Hay el que corre más kilómetros en el anillo de una plaza de toros, el que corta más troncos, el que siega más de prisa, el que levanta una piedra más gruesa, el que se come una merluza en menos tiempo: corricolaris, aizcolaris, segalaris, tripa-aundis (...) Vamos a presentar a nuestros lectores unos cuantos campeones populares de Vasconia. Los más famosos en cada especialidad. Verán cómo además de ser esforzados tienen una gracia un poco primitiva pero muy simpática.”

Euskaraz egindako lehen elkarrizketatik erdaraz egindako bigarren honetara dagoen aldea nabarmena da, beraz: euskarazkoak bertsolariaren estatus jasoago bat ospatzen eta aldarrikatzen duen bitartean, gazteleraazkoak ertzekoaren exotismoa bilatzen du; euskarazkoa elkarrengandik gertu dauden bi berdinen arteko hizketaldia den bitartean, gazteleraazkoan ‘bestetasuna’ dario bertsolariari.

Txirritaren elkarrizketak hiru orrialde hartzen ditu, sinaturik ez dauden lau argazki berrirekin, eta argazki oinek jarraituko den tonuaren berri ematen dute: ‘Academia de versolaris [sagardotegia]’; ‘Chirrita’ celebra sesión con otros dos compañeros [sagardotegia berriro]’; ‘Cuando la sidra es buena, surge espontáneamente el versolari [botilaz inguratirik]’; ‘Harto de

²⁸⁵ Santa Eskeari buruzko erreportaje bat ere eskaini zuen aldizkari berak: *Estampa*, 1931/XII/12, ‘Costumbres Españolas/Los coros de Santa Agueda’.

corretear por su mundo, ‘Chirrita’ ahora desgrana mazorcas y les canta coplas a sus sobrinos [familiaz inguraturik]’.

Tartekiak ere esanguratsuak dira. Lehenengoak ‘Poeta aldeano’ dio eta honela ekiten zaio bertsolariaren aurkezpenari:

“El versolari más famoso de Guipúzcoa es hoy *Chirrita*, el del caserío de Gastelu-enea. Tiene setenta y cinco años y ciento cincuenta kilos de humanidad. Para poeta romántico le sobrarían arrobas: pero no le dañan las que tiene para ser vate aldeano, despreocupado y zumbón, parroquiano de sidrería. En cualquiera de las de Guipúzcoa - ¡quién las cuenta!- darán razón de *Chirrita* por este nombre. Por el suyo de bautizo casi no le conocen ni en su casa. Ese, en caso de que *Chirrita* la tuviera. No la tuvo nunca. A los quince años le ahogaba ya la de su padre. y huía a menudo de ella para ir a tomar lección de los maestros cantores, que la dan junto a un tonel. Sus academias las tuvo siempre al lado de las *kupelas de sagardúa*, y dio sus mejores conferencias rimadas a la puerta de una taberna cualquier día de mercado en Hernani o Andoain.”

Deskribapenak eta irudiak bizi biziak dira, Pérez Álvarez eta Gómezen arabera (2010: 12) gisako argitalpenetan II. Errepublikan nagusitu zen estiloaren adierazgarri:

“Entre sus años y sus kilos, ya no le dejan andar. Cuando le reta un versolari joven algún día de feria, le llevan en un carro tirado por dos novillas. Va la carreta cantando por caminos de aldea, y *Chirrita* encima, henchido de ricos jugos, como un dios mayor del Olimpo vasco, vencedor del ácido úrico.”

Bigarren tartekiarekin, ‘Las estrellas se fueron y salían las gallinas’, zuzeneko elkarrizketa hasten da²⁸⁶:

“- ¿Cuáles son los poetas que más le gustan a usted, *Chirrita*?- le he preguntado el otro día, después de haber sido coronado triunfador en el certamen de versolaris de San Sebastián.

- ¿Poetas *dises*? ¿Y qué es, pues, las poetas o eso?

Le explico que poetas son unos versolaris famosos, que escriben libros de versos, y *Chirrita* se sonríe:

- Buenos versolaris no me *parese* a mí que serán esos, creo – me dice en su jerga, que yo no acertaría a reflejar bien-. Los versos se hacen cantando. Ni en la papelera de Rentería hay papel bastante para escribir todos los *berso-berriak* que yo he cantado en mi vida...”

Ikusi denez Txirritak itzultzailea behar izan zuen Iruñean epaiketa egin zitzaionean, baina badirudi erderaz egina behar duela elkarrizketak. Hori bai, argi uzten du kazetariak bertsolariaren erdera maila eskasa: jerga berezi batean ari dela azpimarratzen du eta testu guztia ‘dises’, ‘parese’, ‘ziricarnos’ eta gisakoekin zipriztintzen du. Tartekiak, bestalde, Pello Errotarekin eguna argitu arte bertsoan egindako parrandari egiten dio erreferentzia, berriro ere ertzekotasuna markatuaz. Bertsolari asko analfabetoak direla dakar jarraian:

²⁸⁶ Kazetaritza generoen hibridazioa ere ohikoa zen gisako testuetan: “(...) para hablar de la vida de personas, se imponen dos técnicas: el reportaje, pues favorece la narración, y la entrevista (...) los autores de la época, más que usar uno u otro género intencionadamente, recurren a ellos para ayudar a mejorar la narración y muchos textos son híbridos entre distintos géneros” (Pérez Álvarez eta Gómez, 2010: 12)

“Chirrita, Pello Errota, Zepai, Udarregi, Lezoti... son nombres de poetas populares vascos geniales y analfabetos las más de las veces. Versolaris. No hace falta saber escribir para hacer versos. Los suyos no están recogidos en antologías, ni escritos en ninguna parte, pero el público los repite de memoria. Cada uno de sus oyentes es como una página del libro que no han escrito. Entre todos, el libro entero. Hasta con notas marginales.”

Idazkera aldetik bikaina da testua, Basarriri eginiko elkarrizketa baino dezente hobeia, gerora ‘Kazetaritza Berria’ deituko zaion estiloari gerturatzen zaiolarik. Pertsonaiaren eta bertsolaritzaren ezagutza ona erakusten du, bestalde, kazetariak: Jose R. Ramos²⁸⁷.

Gerra osteko lehen sariketa garrantzitsuaren kronika Jose Rodriguez Ramos delako batek idazten du *Juan de Hernani* ezizenarekin. Jose R. Ramos sinadurak berea izan behar du, izen osoa eta laburtua ez ezik bateko nahiz besteko estiloak ere oso antzekoak baitira. Berari buruz bildu ahal izan direnak, ordea, esanguratsuagoak suertatzen dira Frankismoaren testuingurua azaltzeko, eta hurrengo atalerako uztea erabaki da.

Testuarekin jarraituz, Txirritaren pasadizo bat dator jarraian, gerora hain ugaria izango den Txirritaren pasadizoen alorra estreinatuz: Parrandan mozkorturik dantzan ari zela txorkatila bihurritu eta etxera bueltan egiten zuen errenagatik galdetu ziotenean botatako bertsoak jasotzen ditu. Bertsoa hizkuntzaren gimnasia zoragarria dela dio Ramosek, berriro ere bertsolariaren analfabetismoarekin kontrastea egiteko: “Se pondría luego a escribir una carta a la familia y no sabría empezar”²⁸⁸.

1936ko finalaren errepeaso labur bat egiten da ondoren. Bertsolaritzaren alderdirik subalternoena azpimarratzen da beste behin. ‘¿Te gusta el besugo?’ dakar ladilloak eta sagardoari buruz bertsolariek esandakoak dakartza gogora. Euskarari edo gerrari buruz abestu zirenak, ordea, Aitzol eta enparauek sustaturiko gai jasoagoak, ez ditu aitatu ere egiten.

Azkenik, Txirritaren biografiari ere egiten zaio tarte bat: ‘Vida errante de un poeta selvático’. Izena baserritik datorkiola kontatzen da, lanerako izan duen zaletasun eskasa ilustratzeko beste pasadizo bat kontatzen da, maiorazgoari nola uko egin zion azaltzen da, “también Chirrita vendió su progenitura, como Esaú; pero con más elegancia”, eta hori ere anaia gazteari botatako bertso baten bidez egin zuela. Andregai kontuetaz galdetuaz amaitzen da:

“- Y usted, Chirrita –le pregunto- ¿cómo no se ha casado? ¿No ha tenido nunca novia?

- La tuve una vez y me duró una hora (...) Toda esta importancia da a las cosas serias de la vida este cigarrón imprevisor, que se pasó su verano cantando alegremente. Menos mal que es hermano de una hormiga trabajadora, la echeko-andre del caserío Gastelu-enea. Y en su agujero ha encontrado definitivamente abrigo seguro para el invierno.”

Adierazgarria da bukaerako oharra ere: “Esta serie de informaciones termina en el número próximo, con la que lleva por título: “El hombre que se comió 236 croquetas y después cenó...””.

²⁸⁷ Zortzi urte lehenago gaiari buruzko testu bat argitaratu zuen *Estampas* bertan. Sagardotegian ‘Erricoechea’ eta ‘Juan Ignacio’ bertsolariek buruturiko bertso-saioa kontatzen zuen, bertsoak jasoaz. Ik. *Estampa*, 1928/X/30, 22 or, ‘Manzanas, sidra y ‘bertsolaris’ en los caserios vascos’, R. Ramos, José.

²⁸⁸ Bertsoen euskarazko transkribapena dakar: “Albaiteruen salan/ demoniuen artan/ Demoniosko estraposo bat/ egin nuen bertan./ Demoniua emen,/ demoniuk an/ Demoniuk beti/ gorputsaren bueltan/ Demoniuk sasoi sukaten/ demoniuetan”. Eta gaztelarazko itzulpena: “La traducción castellana no puede tener la misma gracia que el original (...)”.

5.3.5 Zubimendiren ‘Bertsolari-guduak’ (1936)

Ziklo honetako bertsolaritzari buruzko kazetaritzaren beste gailur bat, bertsolariei eginiko elkarrizketek baino askoz ere entzute handiagoa izan duena gainera, Zubimendik 1936an argitaraturiko ‘Bertsolari Guduak 1935-1936’ liburua izan zen. *Yakintza* aldizkarian Zubimendik argitaraturiko bi txapelketen kronika luzeen²⁸⁹ berrargitalpena zen hau, Aitzolen hitzaurrearekin²⁹⁰, argitaratzaile lanak Euskaltzaleak egin zituelarik. Buruturiko ekarpena baloratzen du Izagirrek:

“(…) Zubimendi egon zen 1935 eta 1936ko Bertsolari Egunen antolamendu gaitz haien oinarrian. Horretarako derrigorrezkoa zen lan astunaz gainera (...) eman zien haize publizitarioa gero, bertsoak argitaraziz eta jardun haiei buruzko komentarioak eginez. Mende erdi luze bat joan da hil zenetik, eta orain altxor preziatu gisa irakurtzen ahal ditugu hartaz idatzi zituenak.” (2002: 16-17)

Historian lehen aldiz txapelketa hauetan bertso guztiak transkribatzeko ahalegina egin zen. Honela azaltzen du Aitzolek: “Orainalditxo oietan Egun ederrok aizetu ditzazuntzat idazki au argitara dakarkigu. Ez da lan errexik, diotenez; ez da ere nolanaiko bertsolarien apaldi guztiak zintzo eta txukun yasotzea. Eusko gaztediko mutilak leiatsu etabiziki bertsolarien aboetik bertsoka-bertsoka apaldi guztiak osotu dizkigute” (1936: 19)²⁹¹. Eta honek espaziorik handiena bertsoei ematen zien kronika zabalak egiteko aukera eskaini zion Zubimendiri, gaurdaino luzatu den eredu finkatuaz.

Bertsoez gain ekitaldien inguruko xehetasun guztiak ere jaso zituen kazetari donostiarrak: epaimahaiaren osaketa, puntuazio sistema, taulatu gainean bertsolari bakoitzak eta epaimahaikideek betetzen zuten tokia, ariketa bakoitzean eskatzen zena eta erabili ziren doinuak... Bestalde, giroari buruzko erreferentziak ere tartekatu zituen. 1935eko kronika, esaterako, honela hasten zen: “Goizeko amarrak ziran eta Poxpolin aretora etengabeko yendetza ziyoan (...) gerorako lekurik izango etzan beldurrez goizik asko zetotzen bertsozaleak. Amar terditan, bertsolari geienak epaikarien aurrean zeuden, eta Poxpolin-antzokia berriz, ostez gaiñezka” (Zubimendi, 1936: 3).

Bertsoaldien iruzkin laburrekin hornitu zuen testua: “Oraingo onetan, doiñua epai-maiekoak bertso batean ematen zuana bearrezkoa zuten (...) Gaia ere epaileak esandakoa besterik etzeukaten erabiltzerik. Baldintza auetara etziran guztiak bear bezela lotu. Tamalez, beartutako bidetik iges, asko ibili ziran” (id.: 11). Baita publikoaren erreakzioekin ere: “Saio au amaitu zanean, txalotsa izugarri bat entzun zan aretoan. Ordurako entzuleak, antzezlekuko bazter guztiak artuta zeuzkaten. Abeetatik mats-alearen iduri, buruak zintzilik” (id.: 15). Eta bukaeran azken sailkapena eta sari banaketaz gain bertsolariei eskainiriko bazkariaren berri

²⁸⁹ *Yakintza*, 1935 apirila, 14. zbkia., 140 or., ‘Lenengo bertsolari eguna’, Zubimendi, Joseba. *Yakintza*, 1936 apirila, 20. zbkia., 141 or., ‘Bigarren Bertsolari Eguna’, Zubimendi, Joseba

²⁹⁰ Kazetaritza ikuspegitik berrikuntza Zubimendiren kronika zabalak izan arren, Aitzolen hitzaurreak ere badu interesik. 1930ean bertsolaritzari buruzko lehen testuak argitaratu zituenetik alor honetan sakontzeko tolosarrak buruturiko ahaleginaren emaitzak ikus daitezke bertan. Honela, Erdi Aroko bukaerako euskal nobleziako bertsolari emakumeen berri ematen du, hiletarien ohitura eta Mila Lasturkoa aipatuaz, besteak beste (Ariztimuño, 1936: 7-9). Edota pizkundearen lehen olatuan egiten zen bezala bertsolariak herriaren ahotsa direla planteatzen du: “(...) asieratik diogu, erriaren abotsa koblakariak dirala; oien eztarriaren bidez barruko antsiak eta pozak gure aberriak adierazi dizkigula” (id.: 16-17)

²⁹¹ Lekuonak ñabartzen duenez 1936koan 1935koan baino dezente hobeto burutu zen transkripzio hori, lehenengoan pilaturiko esperientziak lagundu bait zien. Hala ere 1936koak ere hutsuneak dituela gaineratzen du: “Ba al dakizu nola egin zuten 36koa jasotze hori? Elkartu ziren taldetxo bat, bakoitzak bertso bana kopiatzen zuten, eta gero bata bestearen ondoren josi. Baina bakoitzat bakarra hartuz, edo ez zutela eskuz ondo idatzi, edo ez ondo ulertu, dena dela, akats askorekin atera zen. Eta ez dena.” (Dorransoro eta Lekuona, 1987: 19)

ere eman zuen, xehetasun guztiakin, besteak beste 1935eko menuan irakur zitekeena zehatz mehatz jasoaz: “(...) bazkari txarteletan au irarri-azi zuten: (...) Asteko txorakeriak/ Euzko Gaztedi arroza zilipurdika/ Bertsolari erako legatza/ ‘Euskaltzaleak’ arkume erria, patata prejituakin/ Euskadi’ko goxo ta prutxa/ Ardorik onenak-Sagardorik bikaiñenak/ Kafia, esteak erretzekoa ta naiko kia ateratzekoa/ Ondoren: bota bertsuak!!” (id.: 28).

Azpimarratzeko beste alderdi bat material grafikoarena da: berrogei bat argazki dakartza liburuak bi kroniken artean, gehienak bigarren txapelketari ateratakoak badira ere. Epaimahaia ageri da argazki batzuetan eta parte hartzaile guztiak gainerakoetan, banaka nahiz taldeka, kamerarentzat posatzen edota finalean kantuan ari direla, publikoa ere ikusten delarik. Argazkilaria nor den ez da zehazten, baina ‘Velasco foto’ ikus daiteke hainbat iruditan²⁹². Egia esan argazkiak ez dira propio libururako ateratakoak, aurretik prentsan argitaraturikoak baizik, baina bertan biltzen den kantitateak dokumentua garaiko bertsolaritzaren argazki album gisa balioztatzea dakar.

Zubimendiren liburua, finean, ikur bat da. Bere kronikak liburu gisa berrargitaratzeak bertsolaritzari buruzko kazetaritzak estatus bat lortu duela erakusten du, eta baita txapelketak ikuskizun moderno gisa duen potentzial mediatikoa ere: egunkarietako biharamuneko kronikan, aldizkarietako kronika zabalagoan eta gordetzeko pieza gisa taxutzen den liburuaren edizioan, gertakari bera hiru aldiz izan da salgarri. Aitzol bezalako figura baten hogeit hamar orrialdetik gorako hitzaurrearekin dator gainera lana, eta bertsolarien argazkiekin, bertsolaritzak euskalgintza modernoaren baitan atzera bueltarik gabeko prestigiatzea lortu duenaren seinale: “ (...) inork zalantzan jartzen ez duena zera da: gerra aurreko bi txapelketek bertsolaritza bazterkeriatik onespren intelektualera eraman zutela” (Lasa, 2008: 596).

5.4 HAUSTURA: GERRA ETA GERRAONDOKO TRISKANTZA (1936-1944)

5.4.1 Txirritaren omenaldiko argazkia

5.4.1.1 Bertsolaritzaren historiako irudirik ikonikoena

1936ko martxoaren 22an egin zitzaion omenaldia Txirritari. Hernandorenari otu zitzaion, oihartzun handiagoa izango zuelakoan Donostian egin behar litzatekeela planteatu zuen Aitzolek, eta bertsolariak mugitzeko zituen arazoak ikusita, Erreterian bizi zenez, bertako batzokian egitea erabaki zen azkenik (Lasa, 2008: 598). *El Díak* eta *Argiak*²⁹³ iragarri zuten ekitaldia eta bertsolari nahiz eragile mordo bertaratu zen, “Eliz eskalletatara bateratsu eldu giñan Txirrita ta gu. Gu onez, ura automobillean. Ta automobil inguruan jende pilla polita zuala, ingeles ministroak bezalaxe arkitu genuan gure Txirrita zarra” kontatzen du Luzearrek *El Dían* idatzitako kronikak. Mezaren ondotik txistulariek lagunduta jo zuen taldeak batzokira, eta bertan Aitzolen hitzaldia entzun zuten, Euskaltzaleakeko lehendakari bezala erreleboa eman berri zion Monzonek agertu ahal ezin zuelako. Gutxira ‘Bertsolari-Guduak’ liburuaren hitzaurrean argitaratuko zituen konturik gehienak aipatu zituen tolosarrak bere hitzaldian, Mila Lasturkoa eta abar, baita Txirritaren maisutasuna aitortu ere:

“Txirrita bertsolarien erori aldian, antzu aldian, guzien eusle, buru, biotz, maixu izan baita. Bertsolari guziak aitortzen diote maixutasun au (...) “Ta orain (...) izlariak zeruetaraino jaso, lasterkari pizkorrenak saritu ta

²⁹² Ezin izan da argitu ‘Velasco foto’ honen inguruko ezer.

²⁹³ *El Díak*: 1936/II/08, “Txirrita”ri omena’. Olea, Antonio *Andoni*; 1936/III/13, ‘Txirrita’ri omena Errederi’n, Jorraila’re 22’an’. *Litargi*; eta 1936/III/14, ‘Nere bordatxotik/Bildutako sortatxoak/Txirritari omena’. Eizmendi, Iñaki *Basarri*. *Argia*, 1936/III/22, ‘Gaur Errederi’n Txirrita’re 22’an’.

ukabilkariak aberasten diran egunetan, ¿ez ote zan legezkoa gure izakera, oiturak, gure izkuntzan goratu ta abesten Laburdi, Gipuzko ta Naparroan saiatu dan oni gorasarrea eskeintzea egoki?” (El Día, 1936/III/24, ‘Txirritari bertsolari bikaiñaren omenez’, Arzelus, Ander Luzear)

Bazkaria, dantzarien erakustaldia, pilota partidua eta erromeriari buruzko kontuak ere badakartza Luzearren kronikak. Tarteka xehetasun kuriosoak eskainiaz: “Monzon berandu xamar azaldu zan. Arek jakin nunbait inportantzia bere buruari ematen. Ango txaloak etorri zanean”; edota ““(…) neska politik ikusi baikenun antxe. Baña gazte aien zanko biziai begira guk baino gehiago sufrutuko zuana izango zan an: Txirrita zarra. Uztapidek bazkalondoan esan ziona ordea: zankoz nagi egon ezpalitz etziotela makilik erregalatuko”. Bertsoa bazkaritan eta bazkalondoan, eta beste saio bat erromeriaren aurretik: “Ango bertsoak jaso izatera gaurko izperringi osoa txikia genuke guzientzat. Kilometroka neurtzekoa zen atzoko etorria”. Tartean, Luzearren kronikan jaso ez bazen ere, Txirritaren bertso antologikoa. Agintariek oparitu zioten makila zela eta, lehenagotik bi makulurekin ibiltzen zenez, zertarako balio zion abestuz zirikatu zuten hernaniarra: Hirurogeita hamasei urte,/ garaia det umiltzeko,/ bultza beharrik ez nadukake/ goitik behera amiltzeko;/ bi makil hoiek aski nitun nik/ munduz mundu ibiltzeko,/ hirugarrena andregaiari/ arkakusoak hiltzeko.

Bertsolari eta eragileen belaunaldi haren familia argazkia ere atera zuten tartean: “Argazki hori izango da, zalantzarik gabe, bertsolaritzaren historiako erretraturik ezagunena eta famatuena” (Lasa, 2008: 600). Hernandorenaren ideia hau ere: “Erretratu mitikoaren ideia eta antolaketa ere Teodoro Hernandorenarena izan zen, ohartu baitzen Txirrita entzutetsua apenas izan zela erretratua bere bizitzan eta Errepublika garaiko euskal berpizkunde kulturalari familia bertsozalearen erretratu ofizial bat falta zitzaioa” (Lasa, 2008: 600). Eta Eugenio Figurski alemaniarra izan zen argazkilaria Euskal Herrira I. Mundu Gerratik ihesi iritsi ondoren Erreterian estudioa jarri eta inguruetan sona handia lortu zuen profesionala²⁹⁴.

El Díak 1936/III/26 datarekin argitaratu zuen prentsan argazkia, eta gerora bertsolaritzaren historiari erreferentziaren bat egin dion argitalpen orotan baliatu izan da²⁹⁵. Edozein bertsozaleri ezaguna egiten zaion irudi bat da, beraz: Txirrita ageri da erdi-erdian eserita, albo banatan Aitzol eta Basarri dituela. Eserita baita, Alkain aita semeak, Lexo eta Txapel, denak bertsolariak. Hauen atzean zutik Hernandorena, Zubimendi, Luzear eta Txomin Olaizola, omenaldiaren nahiz txapelketaren antolatzaile gehiagorekin eta Uztapide, Saiburu eta Tellaetxipi bertsolariekin.

²⁹⁴ Honela dio *Renteria* aldizkariaren 1954ko iraileko zenbakiaren ‘Los que se van para siempre’ atalean topatu den heriotza oharrak: “A la edad de 74 años, y rodeado de la consideración general como artista y como persona, D. Eugenio Figurski Teschner, acreditado fotógrafo y, como tal, una verdadera institución en Rentería, donde fundó una familia, casando con una hija de este pueblo. Era alemán, y desde hacía 40 años residía en España. Por su estudio de la Villa — aquí llevaba viviendo 35 — desfilaron varias generaciones de comulgados y casados de toda esta comarca (...)”

Pako Aristik *El Diario Vascon* 1992/I/22 datarekin argitaraturiko testu laburrean, aldiz, austriarra zela dio, Txirritaren omenaldiko erretratuari buruzko lantxoari ‘Erreteriarako austriarraren erretratu’ jarriaz izenburu gisa. Rafael Bandresen lan bat aipatzen du idazleak, baina *Renteria* aldizkariaren informazioak fidagarriagoa dirudi, behintzat lehen eskukoa baita: “Muchas veces, desde los primeros números de la revista *RENTERIA*, colaboró Figurski en estas páginas (...) era el decano, se va el último de los primitivos colaboradores de nuestra revista y un viejo amigo a quien de veras apreciábamos.

²⁹⁵ Bestelako erabilerak ere eman zaizkio. Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Josu Zabalak osaturiko Gu ta gutarrak musika taldeak, esaterako, 2007an euren aurkezpen-kartel gisa erabili zuen, jolas ganberroa proposatuaz: Txirrita eta Aitzol ez gainerako guztien aurpegiak euskal kulturako figura ikonikoenen aurpegiengatik trukatu zituzten (Mikel Laboa, Zakilixut eta abar).

Lasak gaineratzen du hain ezaguna ez den xehetasuna: “(...) antzematen da Iñaki Alkain gazteak nola erakusten duen sarrera bertso-saiokoa. Gaztea oraindik ez izan oso ezaguna, sarrera erosiara ziomen zioten” (2008: 601).

5.4.1.2 Txirritaren heriotza

Jai giroan eta umore onean ateratako argazkiaren protagonistek ez zuten susmatzen gainera zetorkiena. Lau hilabeteren buruan Francoren estatu kolpea etorriko zen eta gainetik pasako zitzairen. Txirritaren zikloaren itxiera irudikatu behar zuen argazkiak loratu berritan erraustu zuten belaunaldi oso baten irudia jaso zuen azken buruan.

Argazkiko protagonista nagusia izan zen libratu zen bakarra, mutilzahar gelditu bazen semeak gerrara ez bidaltzeagatik izan zela abestu zuen bertsolariak aurrea hartu baitzion gerraren etorrerari. Omenaldia jaso zuenetik bi hilabete baino ez ziren pasatu Txirrita oso larri zegoela zabaldu zenean:

“El teléfono nos trae la fatal noticia del ataque sufrido en Goizueta el domingo por el célebre bertsolari ‘Txirrita’ (...) Con motivo del ‘Día de la Patria’ y solicitada su colaboración por el Batzoki, acudió a Goizueta en unión de Zainburu, sintiéndose indispuesto y dándole después un ataque, paralizándole medio lado. Trasladado a Alza hacia las dos y media de la tarde del domingo a su caserío en grave estado, ayer, lunes, al atardecer, recibió con extremado fervor los Santos Sacramentos” (El Día, 1936/VI/02, ‘A consecuencia de un ataque en Goizueta ‘Txirrita’ moribundo’)

Biharamunean hil zen hernaniarra, eta *El Diak*, *Euzkadik*, *El Pueblo Vascok* edota *Argiak* eman zuten hurrengo egunean heriotzaren berri. “El ataque que días pasados (...) sufrió en las fiestas de Goizueta el popular bertsolari «Txirrita», culminó ayer tarde en el último suspiro que con admirable resignación cristiana exhaló nuestro vate”, ekiten zion kontakizunari *El Diak*; *Argiak*, “Txirrita bezelako bertsolariak gustatzen zaizkate gure baserriarrei: zirikalariak. Eta zirikalarietan bazan ba bat gure Txirrita ospatsua. Irakurle, Aita gure bat Txirrita'ren gogo alde” batekin bukatzen zuen bere testua; edota Joseba Zubimendik “Zeñek agertu leku labur onetan bere bertso laneko berri guziak? Gipuzko osoa bere adiskide zuan. Gaztelu, Xenpelar, Udarregi, Pello Errota, beti berekin leian; baña alkar adiskide. Ezpaizan berealakoan asarretuko gure gizona (...)” esanaz hasten zuen bere ibilbidearen errepasoa. Bertso sorta bat baino gehiago ere eskaini zioten han eta hemen²⁹⁶.

5.4.1.3 Aitzolen fusilamendua

Estatu kolpearen lehen orduetan geldituko dira Araba eta Nafarroa faxisten esku. Donostian ere sartuko dira baina hainbat borrokaren ondoren uztailaren 28rako kontrolpean izango dute Errepublikaren aldeko indarrek (Díaz Noci: 1995a: 276).

Manuel Irujo eta Jose Mari Lasarte buruzagiek uztailaren 18an bertan adierazi zuten EAJ Errepublikari leial mantentzen zitzaiola, hain zuzen ere Donostiako Radio San Sebastianen irakurritako ohar baten bidez (Díaz Noci, 1992: 372-373). Lasak azaltzen duen gisan, ordea, ideologikoki nahiz moralki komunistak edo anarkistak baino gertuagoko sentitzen zituztenez

²⁹⁶ Hauek dira albistearen inguruan prentsan topatu ahal izan diren testuak: *El Día*: 1936/VI/02, ‘A consecuencia de un ataque en Goizueta ‘Txirrita’ moribundo’; 1936/VI/04, ‘Txirrita ha muerto’; 1936/VI/06, ‘¡Agur Txirrita!’ (Bertso-jarriak), *Errenderi*. *Argia*: 1936/VI/07, ‘Txirrita il da’ eta ‘¡Gora Txirrita! (Bertso-jarriak)’, *Iturralde*; 1936/VI/14, ‘Txirrita’, Zubikarai, Augustin *Arteta* eta ‘Txirrita zanari agur (Bertso-jarriak)’, Erauskin, Patxi *Errotari*. *Euzkadi*: 1936/VI/05, ‘Eztakixu...?! Txirrita zana’, Txirritaren heriotzari buruzko fotoalbistea eta ‘¡Txirrita! (Bertso-jarriak)’, *Erltxu*; 1936/VI/06, ‘Txirrita’. Zubikarai, Augustin *Arteta*. *El Pueblo Vasco*, 1936/VI/07, ‘Txirrita’ joan zaigu’. Zubimendi, Joseba.

alderdiaren sektore batek, gerraren lehen asteetan ez dio ukorik egingo karlistekin akordioaren batetara iristeko esperantzari. Hor kokatzen du Aitzol ere, gerra hark erabat ezustean hartu zuena: “Aitzolek Altxamendu faxista ez baizik eta ezkertiarren iraultza zetorrela pentsatu izan zuen, uztailearen 18aren aurretik bizi zen giroa ikusita” (2008: 609). Eta egoerak gaindituta irudikatzen du tolosarra: (...) giro nahasi eta beldurgarriak eraginda noraezean aurkitu zen, etsipen sakonenean galdu zen (...) Aitzolen gisako ekintzaile bizi, aiurri sutsuko eta buru argikoek muturreko egoeratan hondoa jo dezaketela dioen teoria aipatu izan da apaiz martiriaren jokaera azaltzeko” (id.: 609-610).

Artean errepublikaren kontrolpean zegoela, abuztuaren 2an, Hendaiara ihes egin zuen ELAko buruzagi Jose Mari Benegasekin batera. Teodoro Hernandorenarekin egin zuen topo bertan eta mugaz bestaldetik iristen zitzaizkien lehen bonbardaketen berrien aurrean Sarako auzapezaren laguntzaz Gipuzkoako ofentsiba zuzentzen zuten militar faxistekin gutxienezko gizatasunezko neurri batzuk negoziatu beharra zegoela otu zitzairen: “Inozokeria dosi nabarmena zeramaten eurekin, ez baitzuten uste faxistek gero egingo zituzten sarraskiak egiteko gauza zirenik” (Lasa, 2008: 610). Ozta-ozta lortu zuten Etxalarko Guardia Zibilaren kuarteletik ihes egin eta bizia salbatzea.

Belokeko konbentuan gorde eta hurrengo asteetan odol-isurtzeak gelditzeko saialdi gehiago egin zituen hainbat karlistarekin harremanetan jarritz. Handik ere aldegin beharrean aurkitu zen, ordea: “Aitzolen ibilerak jakinik, Molak Belokeko abadeari mehatxua luzatu zion: Aitzoli babesa ematen segitzen bazion monastegian, errepresaliak ezarriko zizkiela Lazkaoko beneditarrei” (Lasa, 2008: 612).

Konbentua utzi eta Baionan Galerna untzia hartu zuen urriaren 14ean, urriaren 1ean Errepublikak Euskal Autonomi Estatutu onartu ondoren Bilbon eratu berri zen Eusko Jaurlaritzarekin bat egin nahian. Itsasontzia tropa frankistek harrapatu egin zuten, ordea, eta tolosarra Ondarretako kartzelara eramanez. Urriaren 17tik 18rako gauean fusilatu zuten: “Ondarretako gartzelan sekulako torturak jasan ondoren, Hernaniko kanposantu inguruan fusilatua izan zen. Hilerritik kanpo ehortzi zuten, beste fusilatuekin batera. Garai hartako Elizak ez zion elizkizunik egin”(Urkaregi, 1987: 144)²⁹⁷.

Martin Ugaldek seinalatzen du nazional-katolizismoaren Gurutzadak elizgizona izan arren barkatu ezin izan zion ‘bekatua’: “Teodoro Hernandorena me decia que cuando enterraron a Aitzol, no estaban enterrando sólo su cuerpo, sino que lo hicieron con la intención de enterrar para siempre la Cultura Vasca que promocionó con tanto entusiasmo” (1988: 81)²⁹⁸.

²⁹⁷ Berekin preso egondako Jean Pelletier frantziarraren testigantza dakar Lasak tolosarraren torturen inguruan (2008: 613). Bestalde, Euzkadi egunkariak fusilamenduaren inguruko xehetasun esanguratsua dakar, izan dezakeen sinesgarritasuna bermatzerik ez badago ere: “Algunos periódicos extranjeros publican detalles acerca del fusilamiento del sacerdote vasco doctor José de Ariztimuño, facilitados por uno de los requetés que formaron el pelotón ejecutor, refugiado ahora en Francia (...) Según estas informaciones (...) Lo único que pidió el doctor Ariztimuño a los facciosos fue que se le permitiese dirigir la palabra a sus ejecutores. Y tales debieron de ser los términos de exaltación patriótica y de fervor religioso que puso en sus frases, que los que formaban el piquete, hondamente conmovidos rehusaron por dos veces obedecer a la voz de mando que ordenaba hacer fuego, y sólo ante la conminación y la amenaza del comandante, hubieron de disparar.” (*Euzkadi*, 1936/VIII/26, 1 or., ‘El fusilamiento del presbítero doctor Ariztimuño’)

²⁹⁸ Aitzol berak urte batzuk lehenago idatzitako hitzoi oihartzuna suma daiteke bere patuan: “Al despertar los pueblos a su vida nacional han emprendido una senda dura y desabrida (...) Casi siempre, esta meta está teñida de sangre. (...) La muerte de los héroes, sin gloria, en la tenebrosa noche de una cárcel; otras, con la aureola del martir acribillado a balazos (...)” (Ariztimuño, 1988a: 191).

5.4.1.4 Hernandorena, etenik gabeko ekintzailletza

Aitzolekin batera Etxalarko kuarteletik ihesi utzi dugu Hernandorena. Lasak azaltzen du hortik aurrera gerra urte haietan bizi izandako odisea guztia (2008: 58-70 eta 613-636).

Aitzol Beloken utzita Donostiara mugitu zen lehenik, eta mediku gisa lanean jarri zen Antiguako behin behineko ospitalean. Donostia erortzear zela, irailaren 3an, Donibane Lohitzunera aldatu zen, eta han utzi zuen familia urri hasieran eratu berria zen Eusko Jaurlaritzaren aginduetara jartzeko Bilborako untzia hartu zuenean. Bere ibilbide profesionala zela eta Osasungintza Sailean eman zioten lehen ardura Odontologia Militarreko Ikuskatzaileen zuzendari gisa. ‘Euzkadi’-ren filmaketan hartutako esperientzia zela medio Propaganda eta Kanpo Harremanetarako Azpisailaren baitan zinemagintzako gabinetearen eraketarako ere deitu zioten. ‘Gernika’, ‘Euzko-Deya’ eta ‘Elai-Alai’ filmak ekoitzi zituen gabinete honek Jaurlaritzak bertan behera utzi behar izan zuen arte. Azkenik, Kultura Sailaren baitan Heziketa Fisikoko Ataleko buru ere izendatu zuten. Kargu honen egikaritzan, gerra bete-betean zela Bartzelona nahiz Parisen egonaldi bana egitera iritsi zen bertako hezkuntza sistemen funtzionamendua aztertzen, eta, besteak beste, Gernikako haurren Elai-Alai dantza taldea jarri zuen martxan.

Gernikako bombardaketarekin taldea deseginda gelditu zen, baina Bilbo erortzear zela, 1937ko ekainean, batzeko prest agertu ziren kide guztiak bildu eta 50 dantzari, bi txistulari, pandero-jotzailea eta albokaria Iparraldera bidean jarri zituen zizurkildarrak. Jaurlaritzaren laguntza deia zabaltzeko nazioarteko bira bat antolatzea zerabilen buruan, eta uztailearen 9an Santanderren ontzi bat hartuta batu zitzairen, hurrengo hilabeteetan Frantzia nahiz Belgikan hainbat emanaldi burutzeko (Parisen bakarrik Wagram Entzutegia, Gaité Lyrique, San Martin, Chaillot eta Nazioarteko Dantzen Artxibategian aritu ziren besteak beste): “[Eresoinka abesbatza eta Elai-Alairi buruz ari da] Euskal Herri errepublikanoak European eduki zituen kultur enbaxadarik eraginkorrena gertatu ziren (...)” (Lasa, 2008: 63). Taldeak II. Mundu Gerra hasi arte jarraituko zuen bere itzulia, baina Hernandorenak familiaren ondora jo behar izan zuen lehen emanaldien ondotik, eta dentista gisa lanean jarri: “Inazio Etxebeste pilotari handia izan zenak (...) harategia zeukan Saran eta haren atzekaldean, gela txikia utzi zion Teodorori, dentista kontsulta jar zezan. Etxebeste hau, nola ez, kontrabandista handia ere bazen” (Lasa, 2008: 64). Frantziako titulazio ofizialik gabe ari zelako salatu egin zuten ordea, eta epaileak debekatu egin zion bere lanbidearekin jarraitzea. Kontrabandoan murgildu zen orduan buru belarri. Zortzi seme-alabari eman behar zien jaten.

Lasak azaltzen duenez, Zizurkilen sartu zirenean zuzenean bere jaiotetxera jo zuten faxistek, eta Villabonan ere beste hainbeste egin zuten bere dentista kontsultarekin: “(...) ez zaigu zalantzarik gelditzen: Teodoro atzeman izan balute hormaren kontra balez zulatutakoarena izango zen haren azkena” (2008: 615). Gerrako urte haietan egin zituen joan-etorri ugarietan tokatu izan zitzaion bizi-arriskuan egotea ere, baina bere ekintzarako grinaren tamainakoa izan zen bere zorte ona²⁹⁹.

Berak zuzendurik ‘Euzkadi’ filmak, bertsolarien irudiak jasotzen zituen lehen ikus-entzunezkoak, esan bezala, ez zuen hainbeste zorte izan:

²⁹⁹ Etxalarko kuarteleko jazoeraz gain ‘Galdames’ merkatalontziarekin gertaturiko kontaktzen du Lasak (2008: 627-631). Arazo tekniko batzuk zirela medio lehenengo eta bihozkada bati kasu eginez gero, Baionatik Bilbora eraman behar zuen untzira ez igotzea erabaki zuen Hernandorenak. Frankistek untzia atzeman eta bezperan zizurkildarrekin afaldutako Manuel Carrasco politikari kataluniarra atxilotu egin zuten. Fusilatuta egin zuten handik aste batzuetara.

“[Hernandorenaren hitzak] Donibane Lohitzunen erbesteratuta nengoelarik Parisera egin nuen bidaietako batean, Jose Artetxe GBBkide ohi eta Manuel Odriozola Casino Kursaleko zuzendariarekin egin nuen topo. Esan zidaten: ‘Ahaztu ezazu pelikula. Frankistak idazkaritzan sartu [EAJko Donostiako egoitzan zegoen gordeta filma: bai negatiboa eta bai kopia positiboa] eta bilatu zutenean, lehenbizi ikusi egin zuten. Gero labean sartu zuten errausteko’ (...) Naziak juduak Auschwitz bezala, gorroto berberarekin erre zuten filmea labean. Apaizak ere fusilatzen baziren, zer ez zuten egingo dokumental politiko-kultural batekin!” (Lasa, 2008: 478).

5.4.1.5 Luzear, kazetari espetxean eta erbestean ere

1936ko irailean, Donostia erortzean, Jose Antonio Agirre, Franzisko Basterretxea eta Juan Ajuriagerrarekin batera, hegazkina hartu eta Madrila egin zuen Luzearrek Euskal Estatuari azken bultzada emango zion negoziaketetan parte hartzeko (Mujika, 2003: 19). Handik bueltan Bilbora mugitu zen familia berarekin eramanez eta Jaurlaritzaren aginduetara jarritz. Kazetari eta itzultzaile lanak eman zizkieten: Euskarazko lehen egunkaria, *Eguna*, orduan jarri zen martxan eta kolaboratzaile izan zen sorreran nahiz idazketan, Jaurlaritzak martxan jarri zuen Radio Bilbaok asteen behin eskaintzen zuen ‘Euzkel Orduba’ euskarazko irratsaioa zuzendu zuen baita, eta Gobernuaren boletina euskaratzen zuen taldean ere egin zuen lan (Agirreazkuenaga, 1989: 102; Arzelus, 2003: 17; Díaz Noci, 1995b: 258; Mujika, 2003: 19).

Bilbo erortzean zela familia Iparraldera ebakuatu eta Santoñarako bidea hartu zuen berak. Preso hartu zuten bertan eta heriotza zigorra jarri zioten. Zigor hori gauzatu zain El Dueson eta Larrinagan egin zuen urtebetean, eta hori altxa ondoren Burgoseko kartzelan bete behar izan zituen hurrengo lauetan, kazetari lanekin eta euskalgintzarekin jarraitzeko modua aurkitu zuen donostiarrak.

Díaz Nocik Larrinagako presoek eskuz idatzirik aldizkari baten berri ematen digu: “‘Espetxean’, Larrinagako kartzelan eskuz idatzitako aldizkaritxo batek hasiera ematen die klandestinitatean, izkutuan kaleratutako aldizkariei” (1995b: 267). Ezagutzen den lehen zenbakia 1937ko abenduaren 8koa dela dio, hainbat zenbaki argitaratu ondoren desagertu egin zela 1938 erdialdera, baina berriro agertzen dela 1941ean, oraingoan Burgoseko kartzelan eta eskuz beharrean moldiztegitik pasata. Euskarazko testuak bazituela ere gaineratzen du: “Haien artean bazegoen euskaldunik, bat behintzat, euskarazko testu guztiek esku bakar batek eginak ematen bait zuten.(...) Guregana heldu diren izen bakarrak hiltzera kondenaturik zeuden presoek ditugu” (id.: 267).

Litekeena da euskaraz idatzitako testu horiek Luzearrenak izatea, honela osatzen baitu Arzelusek Díaz Nociren informazioa: “*Espetxean* izeneko aldizkaria argitaratzeari ekin zioten Luzearrek eta honen kartzelakideek. Aldizkaria EAJk kartzelan izan zuen argitarapena bilakatu zen. Eskuz oso txukun idatzitako aldizkaria eskuz esku pasatzen zuten, eta presoek izpiritua indartzeko artikulak idazten zituzten” (2003: 21). Burgoseko presondegian argitaraturikoen atzean kazetari donostiarraren eskua legokeela gaineratzen du Arzelusek: “Aldizkari honen argitaratzea Burgosko Presondegi Zentralean segi zuten Luzearrek eta honen lagunek, oraingoan kartzelan zegoen inprentagailuaz ezkutuki baliatuz” (id.: 21). Eta sinadura ilustre gehiagoren presentzia seinalatzen du Alzibarrek: “Kartzelan *Espetxean* aldizkaria sortu zuten EAJko abertzaleek; esaterako, hor hasi zen idazten Koldo Mitxelena 1938 inguruan. Katea ez zen eten” (2005: 593).

Donostiarraren borondatea ez zen badaezpadakoa: Presoen animoa igotzeko himno bat ere argitaratu zuen aldizkarian, Salvador de Rada musikari irundarrarekin batera konposaturikoa,

eta antzerkia idatzi ('Marrakatxarra', 'Gonagorritxo' eta 'Dirugosea' lanak) edota Dickens lanak ('Christmas Tales' eta 'The Cricket on the Hearth') euskeratzeari ekin zion (Mujika, 2003: 27-28). Baita presoei euskara irakasteari ere, oinarritzat Radio San Sebastianen garatu zuen sistema baliatuaz (Ordozgoiti, 2012: 36), eta kartzelariei alemana irakasten ari zela sinestaraziaz (Arzelus, 2003: 22; Mujika, 2003: 11).

1943an utzi zuten aske, eta Koldo Mitxelenarekin egin zuen etxerako bueltako bidaiaria. EAJren aginduetara jarri zen berriro eta alderdiak Gipuzkoan zuen sare klandestinoaren buru izendatu zuten. Hainbat operazio arriskutsu burutu ondoren, etxera bila etorri zitzaion polizia teilatutik ihes egin, hilabete batzuk gehiago Donostian ezkutaturik egin eta azkenik 1946an mugaz beste aldera pasa zen (Mujika, 2003: 21-23). Alderdiaren aginduz Euzkadi Irratia sortu zuten Joseba Rezola eta biek, eta irratiko zuzendari nahiz euskarazko edukien arduradun lanetan aritu zen. Geroz eta pisu handiagoa hartu zuen erbesteko EAJren egiturari eta EBBko lehendakariorde izatera ere iritsi zen, minbiziaz gaixotu zen arte: "Gerra zibilaren ondoren 1949an hil zen arte Andres Arzelusek eginiko lana hain izan zen handia historialariak bat datozela Luzear garai hartako erresistentziaren pertsonaiarik garrantzitsuenetakoa izan zela esaterakoan" (Arzelus, 2003: 26).

Ordainetan, hilerriraino jazarri nahi izan zuten agintari frankistek. Familiak Donostian egin nahi izan zuen hileta baimendu zuten, baina itsusikeria egiteko: "(...) poliziek ez zuten gorpua egun berean ehortzen utzi, lurperatzea biharamonean egingo zela esanaz. Haatik, goizez familiartekoak hilerrira bertaratu zirenean, gorpua goizeko 7ak aldera ehortzita izan zela jakin zuten, ehorzketaren lekuko bakarrak poliziak, lurperatzaileak eta hauek exijitutako apaiza izan zirelarik" (Arzelus, 2003: 27).

5.4.1.6 Erbestealditik *trabajadore*etara Basarri

Basarri gaztea Gipuzkoako frontean ibili zen lehenengo: "Zaraten-eta, Bidanin-eta, ibili nintzan. Loiolan osatu gendun batalloia. Gero, altuenak aukeratu egiten zituzten eta ertzaina artu niñuten. Gure kapitana Iñaki Leclerc izan zan (...)" (Zavala, 1992b: 14-15). Gipuzkoa faxistek hartu zutenerako Bizkaira mugitu eta Arratiako frentean egotea tokatu zitzaion ondoren. Eta *Euzkadin*, *Egunan* edota *Gudarin* argitaratzen ziren bertsoak jarri eta testuak idazten zituen aldiro³⁰⁰: "Egiten nitun noizean bein lantxoak (...) billa etortzen zitzaizkidala uste det (...)" (id.: 15). Tartean bertsolaritzari buruzko testuak, Gaztelurekin hasi berritan izan zuen saioa, Txirritak 1936ko txapelketan botatako bertsoak, edota honen ateraldiren bat, esaterako³⁰¹. Eta baita fronteko berriak ere: "Lehenengo Ertzain eta gero gudari izan zen garaian, gudako kazetaritza lanak egin zituen batez ere" (Iriondo, 2013a: 175).

Irratiko kolaborazioak ere egin zituen, bestalde, Radio Bilbaoren 'Euzkel Orduba'n :

"Basarri bertsolariak, Donostian egin zuen bezala, Bilbotik egindako irratsaioetan parte hartzen segitu zuen. Bertso hau irratitik zabaldu zuen, 37ko apirilean, Durangoren bonbardaketa ondoren:

Etsai zakarrok, entzun zazute,/ entzun, bai, arrats onetan:/ gorrotoa ta edena baizik/ ez da zuen biotzetan (...) Ene maltzurrok, odolzaleak/ zerate beintzat benetan!

³⁰⁰ Egunakoa atal finko samarra izatera iritsiko da: "Nere bordatxotik: Basarrik betetzen zuen. Azken zenbakietan, gogoeta sakoneko artikulua idatzi zituen" (Agirreazkuenaga, 1989: 104)

³⁰¹ *Euzkadi*, 1938/X/25 eta 27, 'Nere Bordatxotik. Bildutako sortatxoak'. Eizmendi, Iñaki *Basarri*.

Egoki asko joka zerate/ ene Durango aldean (...) Ainbat aurtxo ta emakume on,/ amairu moja tartean!/ Etxe illarak txit apurturik,/ antxe gorputz loi artean...(...)

Zeuen ustetan ori guzia/ euskotarrak bildurtzeko (...) Dana batekoz bestera izan da/ lenez gain indartuzeko (...) emen guztiok gertu baigaude/ aberri alde iltzeko.” (Ordozgoiti, 2012: 39-40)

Bilbo erortzean Santoñara aldatu zen, Jaurlaritzarekin batera, eta hemendik mugaz bestaldera ihes egitea lortu zuen: “Monzonek asko lagundu zidan orduan. Ta ingles barku batean - Sarastone izena-, umc, elbarri ta gaixo artean joan nintzan Nantes ondoko erri batera” (Zavala, 1992b: 15). Landetako pinudietan basomutil gisa topatu zuen ogibidea hemen eta horrela egin zituen hilabeteak, tarteka erbesteko Jaurlaritzak Parisen abiarazi zuen *Euzko-Deya* egunkarian edota Iparraldeko erbesteratuek Orixe buru zutela Baionan sortu zuten *Euzko-Enda* aldizkarian kolaboratuaz (Díaz Noci, 1995b: 269).

Egoera luzatzen joan zen eran itzultzeko ideari bueltaka hasi zen, ordea:

“Lau urte egin zituen Landetako pinudietan basomutil, muga aldera sarri inguratuz, herriminez. Bere guraso, senide eta lagunak etxera etortzeko eskatzen ari zitzaizkion: –“Gure ama gaixoa etxera etortzeko eta etortzeko ari zitzaidan beti, gauzak konpondu zirala-ta. Ez zitzaidala ezer pasatuko esaten zidan” (...) Horrela uste nunbait ama alargun gaixoak, eta horrela nahi semeak ere.” (Iriondo, 2013a: 178)

1940ko apirilean *Euzko Deyako* bere azken artikuluak idatzi zituen, Otañori buruz³⁰².

Itzuli eta atxilotu egin zuten:

“Baiña artu ta iru urte *trabajadoreetan*: Aritxulegi, Bejar, Palentzia, Madrid eta ez dakit zenbat tokitan ibili arazi giñuzten. Nun ez? Afrikan beintzat bukatu, Campo de Infantarax'en, Melillatik emezortzi kilometrora. Nere denbora guzian ez det poz aundiagorik izan, libre etortzeko txartela eman zidatenean baiño (...) Hainbeste urtetan katigatuta, eta azkenean libre (...) Ez dakit orain ziur, baiña 1943'a zala uste det. la zazpi urte etxetik kanpo.” (Zavala, 1992b: 17)

5.4.1.7 Ezkutalekuan preso Lekuona

Manuel Lekuona ez da argazki ospetsuan ageri, baina ekarri beharrekoa da argazki honetara, egun hartan Errenterian egon izan balitz ohorezko lekua gordeko baitzioten bertan.

Lagunari bisitan harrapatu zuen Altxamenduak, Burgosko mugan zegoen herrixka batean, eta egoera ikusita bertako apaizetxean gelditzea erabaki zuen. Bere bi anaia fusilatu egin zituztenaren berria iritsi zitzaion gutxira, eta Gasteizko Seminarioan falangistak berataz galdezka ibili zirela esan zioten:

“Antzemanik Don Manuelek bere bila zetoze, ihesari eman zion bizirik aterako bazen. Horrela, 1936ko abenduaren zortzian, paisano jantzita, Lasartera etorri zen autobusean, gero Lasartetik Frantziara edo joateko asmotan. Gau hartan Orian egin zuen lo. Eta hurrengo egunean, Don Antonio Abauntzek, Brigaden kapeilauak, bere etxean opa zion gordeleku. Han bizi izan zen ezkutuan (...)” (Lekuona, 1995: 19)

³⁰² *Euzko Deya*, 1940/III/10 eta 20, eta 1940/IV/10: ‘Gure bertsolariak/Pedro Mari Otaño’.

Seminarioko klaseetako girora eta euskal pizkundeko talde-lan bizira ohitutako gizona, gordelekuko bizitza bakartiari egokitu behar izan zitzaion. Konbentuko artxiboan sartu eta bertako dokumentu zaharren ikerketari heldu zion: “Konbentuko babespean idatziak ditu historia lokaleko hiru monografia: La Parroquia de Lasarte, 1939an bukatua, El convento de las Brigidas de Lasarte, Don Antonio Abautzi 1941ean eskainia, eta Del Oyarzun antiguo, urte haietan idatzia, nahiz eta 1959an argitaratu zen” (Lekuona, 1995: 20). Euskal gaien inguruko ikerketa, aldiz, bazterrera geldituko zen: “(...) ikusiz euskal lanek, debekatuak izateaz gainera, arrisku gogorra zekartela (...)” (id.: 20).

Lau urte egin zituen ezkutalekuan preso, harik eta 1941ean bistaratzera ausartu zen arte:

“Ikusi zuenean egoera aldatu zela, normaldu nahi izan zuen bere ezkutuko bizimodua. Beste hainbat apaizekin egin zuten bezala, Euskal Herritik aldegitia eskatu zioten agintariak, gerraurreko jokabidearen zigor bezala. Orduan berak Calahorra berezi zuen erbeste-leku (...) han zeudenez euskal elizaren zati bati zegozkion eliz artxiboak (...) Elizbarrutiko artxiboetan murgildu zen, erbestean, eta noiz arte ez zekiela (...)” (Lekuona, 1995: 22).

1955 arte itxaron behar izan zuen Euskal Herrira itzuli ahal izateko.

5.4.2 Argazki orokor batzuk

5.4.2.1 Euskarazko prentsaren eraispena, lubakietan loratu arren

1936ko uztailaren 18an estatu kolpe faxista eman bezain pronto euskarazko prentsaren arrasto oro desagertaraziko zen Araba eta Nafarroan: “(...) cuando estalla la Guerra Civil. Desde un primer momento, caen en manos de los facciosos Álava y Navarra, de las que desaparece todo rastro de prensa contraria a las ideas sublevadas, y por supuesto toda aquella escrita en euskera” (Díaz Noci, 1995a: 275). EAJren *Amayur* aldizkariaren, nahiz Iruñeako kaputxinoen *Zeruko Argiaren* itxierak aipatzen ditu zehazki Díaz Nocik (1995b: 247-248) euskarazkoen artean eta baita euskarari tarteren bat egiten zioten *La Voz de Navarra* jeltzalea eta Aitzolek zuzenduriko *Gure Mixiolaria*.

Gipuzkoan Union Radioren Radio San Sebastian ez beste guztiak isilduko ziren lehen une batean, uztailaren 27tik aurrera errepublikaren aldeko indarrek Frente Popular egunkaria argitaratzeari ekingo zioten arte (Garitaonandia, 1990: 27). Irailaren 13an herrialdea faxisten esku gelditu zenetik euren aldeko argitalpenek baino ez zuten bidea egingo, tartean Altxamenduaren bezperan kolpea emateko kontsigna argitaratu zuen *El Diario Vasco* (Díaz Noci, 1995b: 247; Gonzalez Gorosarri, 2009a: 332)³⁰³. Euskarari toki bat egiten zioten guztiak itxita geldituko dira: *Antzerti*, *Anuario de Eusko Folklore*, *Argia*, *El Día*, *Eusko langille*, *Igandeko Orria*, *Poxpolin* eta *Yakintza* dira Díaz Nocik (1995b: 248) aipatzen dituenak. *El Pueblo Vascorekin* ere beste hainbeste gertatuko da.

Bizkaian hainbat hilabete eutsi ahal izan zion Jaurlaritzak eta lubaki horretan euskarazko prentsaren historian garrantzitsuak ziren urrats batzuk eman ziren suntsiketa prozesuan parentesi bat irekiaz.

Aipatu den gisan 1920 hamarkada hasieran Euskaltzaindiak euskarazko erredakzio bat sortu zuen egunkariak euskarazko edukiz hornitu eta denborarekin euskarazko egunkari bat

³⁰³ Honela azaltzen du kontsignaren kontua Maria Gonzalez Gorosarrik: «Mañana hará buen tiempo», zioen 1936ko uztailaren 17ko *Diario Vasco*ko azaleko albiste nagusiak. Errepublikaren aurkako estatu-kolpearen mezua zen” (2009a: 332).

ateratzeko (Díaz Noci, 1998: 67-68 eta 2012: 270). Lehen saiakera serioa³⁰⁴ hamarkadaren amaieran etorri zen *Argia* aldizkarian oinarriturik eta Lizardi buru zuen Euskaltzaleakek sustatua, eta 1929ko uztailean lau orrialde zituen zero zenbaki bat argitaratzera ere iritsi ziren, baina bertan behera gelditu zen bideragarritasun ekonomikorik ez zuelako (Agirreazkuenaga, 1989: 97-98; Díaz Noci, 1995a: 272; 1995b: 164-166 eta 2012: 127, Gonzalez Gorosarri, 2009a: 329). Gerraren erdian burutu zen saiakera izango zen azkenik aurrera aterako zena, *Eguna*, historiako euskarazko lehen egunkaria³⁰⁵. Gerrak eragindako paper eskasia zela medio Euzkadiren orrialde kopurua jaitsi eta euskarazko orria bertan behera uztea erabaki zenean orri honen arduradun zen Lauaxetak eta Manu Ziarsolok jarri zuten martxan proiektua. Ziarsolo zen zuzendaria, Agustin Zubikarai zuzendariordea eta hiru kazetarik osatzen zuten erredakzioa: Alexander Mendizabal, Eusebio Erkiaga eta Jose Mari Arizmendiarrera (gero Arrasateko kooperatiba mugimenduaren sortzaile izango zena. Kolaboratzaile talde zabala zuen, tartean, esan bezala, Basarri eta Luzear, *Excelsior* aldizkariaren lokaletan jarri zuen bulegoa eta *Euzkadiko* inprentak botatzen zuen. 1937ko urtarrilaren 1etik ekainean Bilbo erori arte argitaratu zen, 10.000 aletako tiradarekin eta gerrako kontuez gain hainbat gai jorratu zituen kazetaritza bat eginez, argazkiz eta irudiz ongi hornitua: Laburbilduz eta orohar, egunkariaren modernotasunaren zeinuak (...) nabarmenak ditugu eta berriz ere azpimarratu behar dugu ez dela gerraren produktu edo seme soila (...)” (Agirreazkuenaga, 1989: 106).

Díaz Nocik azaltzen duenez (1995a: 277; 1995b 251-252 eta 373-374), ez zen gerraren erdian euskarazko kazetaritzak irabazi zuen tarte bakarra. Honela, Euskal Gobernuko Nekazaritza Sailak, A.N.V.ko Gonzalo Nardiz sailburua zela, euskara hutsezko Ereintza aldizkaria kaleratu zuen, Lauaxetak zuzendu eta lubakietan zabaltzen zen *Gudari* aldizkariak euskarari tarte handia eskaintzen zion, A.N.V.ren *Tierra Vasca* bezala, eta ELAren *Lan-Deya* ere elebiduna zen. Edota Jaurlaritzak 1936ko irailaren 30ean bereganaturiko Radio Emisora Bilbainaren emisioetan ere inoiz baino euskara gehiago entzun zen, euskarako buletinekin, politikarien euskarazko hitzaldiekin edota ‘Euzkel Orduba’ euskarazko irratsaioarekin.

Bilbo erortzean denak isilduko dira, ordea, aurreko hilabeteetan Bizkaian euskarazko kazetaritzak zeuzkan euskarriekin gertatu bezala: *Jaungoiko Zale*, *Ekin Euskera*, *Euzkerea*, *Karmen'go Argia*, *Bizkaitarra* eta *Txistulari* (Díaz Noci, 1995b: 248 eta 2012: 277).

Aurreko urteetan bizi izan zen pizkundean neke handiz altxatu ahal izan zuen eraikin guztia eraitsita geldituko da, bada, gerraren ondorioz.

Baita Iparraldean eraikirikoa ere, II. Mundu Gerra etorriko baita gutxira. 1940an emango dira lehen itxierak: “Naziek Ipar Euskal Herrira sartu eta bertan argitaratzen ziren bi aldizkari mututu zituzten: *Gure Herria* eta *Euskaltzaleen Biltzarra* (...)” (Gonzalez Gorosarri, 2009b: 35). 1944ean azkena:

³⁰⁴ Aurretik ezagutzen zuten elkar 1932tik 1934ra argitaratu zen euskarazko *Euzko* astekaria ateratzeko funtsezkoa izan zen elkarlanetik. *Argiaren* ereduja jarraituaz baina hizkuntzari dagokionean eredu sabindarretik gertuago eta ideologikoki EAJrekiko lotura argiagorekin Bizkaian argitaratu zen. Ez zuen, ordea, astekari gipuzkoarraren arrakastarik izan. Díaz Nocik azaltzen ditu *Euzkoren* ingurukoa hainbat kontu (1995b: 192-200) eta garai hartan Ziarsolok euskarazko egunkari bat ateratzeko planteamendua egin izan zuela ere kontatzen du tartean: “[Ziarsolo] se levanta en una reunión del Bizkai Buru Batzar (Comité Regional de Vizcaya) para insistir en la idea de la necesidad de un diario ‘Euskeldun’ y para lanzar una frase que en aquel momento pareció fanfarronería: ‘Si me dais dinero, yo lo hago’. Eso debió ocurrir hacia el año 1932 (...) pero nadie le dio crédito (...)” (1995: 193).

³⁰⁵ Hainbat egilek jorratu izan dute *Egunaren* historia, besteak beste: Altxibar (2005: 592-593), Agirreazkuenaga (1989: 98-113), Díaz Noci (1995a: 277-278; 1995b: 156-165; 1998: 68-69 eta 2012: 269) eta Gonzalez Gorosarri (2009a: 334)

“1936.ean bere politika propioari jarraituz —erlijioaren aldekoa itsu-itsuan, dakigunez— Frankoren armadaren alde agertu ziren. Ospetsua da «Mola jeneralaren soldat eskualdunek zaintzen dute Gernikako arbola» dioen pasarte hura, asaldatuek Gernika bonbartzatu ondoren idatzia (...) Euskarazko aldizkaririk iraunkorrenak, euskara eta euskal kulturarentzat hain garrantzitsua izandakoa, oso bukaera txarra eta itsusia izan zuen: Frantziako Erresistentziakoek 1944.ean (...) *Eskualduna* itxi eta berriro kaleratzea debekatu zuten [Nazien alde lerrokatu zelako]” (Díaz Noci, 1995b: 221)³⁰⁶

5.4.2.2 Lurperaturiko bertso-paperak eta desagerturiko liburua

Gerraostea ez zen gozoagoa izango, garaileek ez baitzuten garaituekiko inolako errukirik erakusteko asmorik. Euskal Pizkundean parte harturiko hainbat izen ezagun aipa daitezke erra hori pairaturikoak: Lauaxeta, esaterako, 1937an hil zuten, fusilatua; Arturo Campion altxamenduaren aldeko adierazpen publiko bat egitera behartu zuten, 83 urte zituela, eta gutxira hil zen, 1937an; Toribio Altzaga antzerkigilea kartzelara sartu zuten 75 urterekin eta 1941ean hil zen; Juan Bautista Eguzkitza euskaltzain eta kazetaria ere kartzelatik pasa ondoren hil zen 1939an; Orixe Gurseko (Frantzia) kontzentrazio-zelaian eduki zuten...³⁰⁷

Pertsona konkretuen aurka ez ezik, kultura oso baten aurka bideratzen da errepresioa: “En junio de 1937 las tropas nacionales toman Bilbao. Todo vestigio de cultura vasca se aplasta de manera inmisericorde. En 1938 las nuevas autoridades emiten un decreto por el que prohíben la utilización pública, oral o escrita, de la lengua vasca” (Díaz Noci, 2012, 189). Txikizioa zen kontsigna:

“No es difícil figurarse lo que en el orden práctico alcanzó la aplicación de dicho criterio, si recordamos como ejemplo el saqueo y quema, a la entrada de las tropas franquistas, de la biblioteca que D. Isaac López Mendizabal (miembro correspondiente de Euskaltzaindia y propietario de la Casa Editorial de su nombre) poseía en su casa de Tolosa.” (Bilbao, 2003: 849)

Suntsipenak izua eragiten du eta izuak suntsipen gehiago:

“Gerra etorritakoan, berriz, bertsoak biltzen asi nintzanean makiña batek esan zidanez, bertso-paper mordo ederrak erre ziran agintari berrien bildurrez. Beste batek, berriz, kaja batean sartu eta lurperatu egin zituan. Denboraren buruan lurpetik atera zituztanean, urak ondatuak eta ustelduak zeuden danak ere.” (Zavala, 1997a: 173-174)

Aitzolek inprentarako prest zuen lan bat aipatzen du Martin Ugaldek giro hartan galdurikoen artean. ‘La poesía popular en el renacimiento de los pueblos’ zeraman izenburutzat eta aleren bat Antonio Elortza eta Antonio Maria Labayenen eskuetara iritsi izan zelako ezagutzen da bere berri (Ugalde, 1988: 14). Urkaregik, berriz, honela dio lan beraren inguruan: “Belgika eta Finlandiaren exenpluak aztertu zituen eta garbi ikusi zuen herri-olerkigintzaren bidez herriaren izpiritua erakutsi beharra. Herri-olerkigintzak Europako herrien pizkundean

³⁰⁶ Aldizkari honek 1936ko Gerraren eta II. Mundu Gerraren inguruan izan zituen posizionamenduek askotarako ematen dute. Frankismoaren alde argitaraturiko testuren bat eta jarrera horren inguruko azalpenak jasotzen dituzte Agirreazkuenagak (1989: 109-110), Díaz Nocik (1995b: 221 eta 2012: 176-177) eta Gonzalez Gorosarrik (2009b: 35). Naziekin izandako lerrokatzearen inguruan, berriz, artikulua argitaratu du Imanol Muruak. Ik. MURUA, I. (2018): Supporting German occupiers: the pro-Vichy stance of the Basque newspaper 'Eskualduna'. *Communication & Society*, 31 liburukia.

³⁰⁷ Izen apalagoekin zerrenda luzatu egiten da, noski. Altzibarrek, esaterako, gerran eta gerraostean fusilaturiko euskal kazetarien izen batzuk eskaintzen ditu: “(...) Martin Lekuona Oiartzungoa; Jose Markiegi Debakoa (...), Arrasaten fusilatua; Elgoibarko Gotzon Osoro «Aberri», sortzez motrikuarra, Kirikiñoren garaietako berriemailea Euzkadin (...) erreketek Larruskainen (Markina) harrapatu eta Donostian fusilatu baitzuten (...) ; Josu Peña «Aitza»; Jose Mari Azkarraga «Lurgorri», Aramaiokoa (...)” (2005: 592).

jokatutako papera aztertu zuen. Hortik sortu zen La poesía popular en el renacimiento de los pueblos izeneko liburua” (1987: 141). Liburua topatu ezean ezin da ezer baieztatu, baina Aitzol bere lidertzan olerkigintzatik bertsolaritzara egiten ari bidea ikusita, litekeena da lan hau bertsolaritza Euzko Pizkundearen erdigunean espreski jartzeko planteamendu bat teoriko bat izatea. Hala balitz, eta gerrak moztu izan ez balu, bertsolaritzaren sustapenari urte interesgarriak zetozkion.

Bestelako errealitate bat nagusitu zen, ordea. Dorrnsorok deskribatzen du: “Bertsolariak ihesi joan dira, edo espetxean daude, desterruan. Entzulerik ere, egoera hartan, ezin egon. Urte batzuetan behintzat zeharo ezkututzen da bertsogintza guztia alde honetatik, bai bapatekoa, bai idatzia” (1987: 14). Eta Garziak ‘Isiltasun aldia’ deitzen dio bertsolaritzak 1936tik 1945era bitartean egin behar izan zuen etapa honi (2000a: 436-440).

Ezkutatu arren bertsoa ez da desagertuko, noski. Garziak Zapiraindarrek garai hartako min sorgorrari jarritako bertsoak aipatzen ditu, esaterako, ezkutuan kantaturiko bertsolaritzara haren adibide gisa³⁰⁸. Aurreko zikloan euskal *intelligentsiarekin* gutxiespenarekin gertatu bezala, gerraren eta agintari frankistaren errepresioaren eraginez neguko kanpamenduetara erretiratuko da bertsolaritza: “Berez zetorren bilakaera 1936-39ko gerrak eten zuen, eta bertsolaritza gordeleku zaharretara itzuli zen. Lagunarteko girora gehienetan, erromerietara berriro. Ahaztu plaza handiak eta egunkarietako kronikak, ahaztu sustatzaileak eta kultur egitasmoak, ahaztu bertsolaritza euskararen berpizkundearekin lotzeko ahaleginak. Ahaztu” (Barandiaran Amillano, 2011: 17).

5.4.2.3 Bertso mina Parisko *Euzko-Deyan* (1939)

Bilboren erorketarekin Eusko Jaurlaritza Kataluniara joan zen ihesi eta Katalunia erotzean handik Frantziara. Milaka euskaldun izango dira erbesterako bidea hartu beharko dutenak, eta beste hainbeste egingo dute euskal kulturgintzak eta kazetaritzak ere: “Espainiako Estatu berriaren etortzearekin batera, milaka euskaldunek herbestera joan behar izan zuten. Herbestean, batez ere, sortuko ziren gerra ondorengo kazetaritzaren urrats berriak, eta oro har, euskal kulturarenak” (Díaz Noci, 1995b: 266). Erbestean II Mundu Gerrarekin egingo dute topo gainera, eta berriro ere ihes egin beharra tokatuko zaio hainbati. Jaurlaritzaren bozeramaile gisa sortu zen *Euzko-Deyaren* egoitza nagusiak izan zituen aldatetek erakusten dute bizi izandako odisea: 1936an Parisen sortu ondoren, 1939an Buenos Airesa aldatuko da Londresetik pasa ondoren, eta 1942an Mexikora doa, 1945ean Parisa itzultzeko (Díaz Noci, 1995b: 271).

Euskarazko orri bat zuen aldizkari honek, eta topa daiteke aldi ilun hau ilustratzeko baliatu nahi den azken argazki orokor bat. Txirritaren omenaldiko argazkian ageri den lagun batek sinatzen du gainera: Joseba Zubimendik.

³⁰⁸ Bertso jarrietan kontaturiko historia familiar latz bat da Zapiraindarrena. Gripearekin hildako emazteari jartzen dizkio lehenengo bertsoak Juan Kruz Zapirainek, edota gerra dela eta kartzelan edo ihes eginda dauzkan semeen historia kontatzen du jarraian... Honela dio bertso batean: “Sentimendu asko dauzkat nerekin/ orain kontatu beharrak/ ez dakit nola zuzenduko diran/ egin dituzten okerrak,/ pazientzitik ez naiz atera/ Jaungoikoari eskerrak;/ leku askotan jarri dituzte/ tristura eta negarrak,/ lehen hamar lagun ginan etxean/ ta orain hiru bakarrak.” (Garzia, 2000a: 437). Fusilaturik hilko duten semea Joxe Zapirainek ere bertsotan bidali zien azken agurra etxera. Honela hasten zen gutuna: “Bertso batzuk jarriko ditut/ jendeari adierazteko/ kulparik gabe sar gaituztela/ giltzapean egoteko;/ hori gertatu behar zuenik/ inork ez zuen usteko/ ez det bihotzik gertatu dana/ aita, zuri esateko.” (Garzia, 2000a: 438).

Pio Perez Aldasoro ikerlariak frankismoak isilarazitako historia, garaituen sufrimenduaren testigantza, ikertzeko iturri gisa baliatu ditu bertso hauek berak. Ik. PÉREZ ALDASORO, P. (2011): Zapirainarren bertsoak: Guda Zibilaren inguruko testigantza tragikoak. Kobie, 15. zbkia., 23-36 orr..

Gerra piztu eta Eusko Gudarostea antolatu zenean Itxarkundia bataloian sartu zen donostiarra, intendentziako komandante izendatu zutelarik (Mujika, 2012b: 45). Biriketarik gaixotu eta Aizerrota mendiaren magaleko San Jose eritetxera eraman zuten, Gernika ondora:

“Horrela gertatu zen hiriaren erraustearen lekuko, gelako leihotik ikusten zuen bonbardaketa. Kronika hunkigarri batean islaturik utzi zizkigun hondamendiak sortu zizkion sentimenduak eta leiho hartatik ikusi zituenak: ‘Orotan sutxinpart hotsak etengabe. Garrezko zelaian, ahalegin biziz, zaldi bat ihes, ero antzo, bat-batean, buruz aurre zabuka, hilda geldi...’. Gero Picassok oihal ospetsuan ezarri zuen zaldia, Zubimendik aurrez ikusia.” (Izagirre, 2002: 20-21)

Gernika utzita Bilbora iritsi eta handik Lapurdira ebakuatu zuen Jaurlaritzak, postarako erabiltzen zuen hegazkinean sartuta eta Kanbon egin zuen bat hilabete batzuk lehenago Donostiatik ihesi muga zeharkatua zuen familiarekin. Bertan hartu zuen bizileku eta bere gaixotasunak beste ezertarako biderik ematen ez zionez idazteari lotu zitzaion: “Eguneroko betebeharretik baja hartuta, euskalgintzarik ez zegoen inguru patxadatsuan, Joseba Zubimendi, agian lehen aldikoz, bere astiaren jabe izan zen. Eta musika bera baino indar haundiagoz maite zuen bertsolaritzaz idazteari ekin zion” (Izagirre, 2002: 22).

“Aspalditik nabilkizu bertso minez. Gai honi buruz zerbait idazteko asmoa zorrozki ernatua dabilkit buruan, eta ezinegon urduria asmo hau bete arte. Has nadin, bada, nire oldozpenak agertzen” dio 1939ko otsailaren 5ean *Euzko-Deyan* argitaratu zuen lehen artikularen irekieran. ‘Bakezalea dugu beti gure bertsolaria’ jarri zion izenburua testuari eta 1936ko txapelketan bertsolari ezberdinek gerraren aurka abesturiko bertsoak zekartzan gogora. Bigarrenak otsailaren 16an ikusi zuen argia ‘Bakezalea dugu beti gure bertsolaria’ izenburuarekin, eta handik aurrera astero bidaliko zuen testuren bat Parisa.

Basarriren figuran sakontzen du batean (1939/II/26, ‘Iñaki Eizmeni ‘Basarri’), Bertsolari Egunaren ideia nola ernatu zen azaltzen du bestean (1939/III/05, ‘Bertsolari Egunaren sortzea’), 35eko txapelketan bizi izan zen giroa deskribatzen du hurrengoan (1939/III/05, ‘Poxpolin jauregian’), bertsolari ezberdinen soslaiak eta txapelketan buruturiko ekarpenak jorratzen ditu ondorengoetan (1939/III/19, ‘Zepari’ edo ‘Santakutz’ eta 1939/III/26, ‘Alkain aita-semeak’)... Gerrak mila puskatan egindako Txirritaren omenaldiko argazkia osatu eta zabaltzea da idazlearen xede ederra, euskalgintzaren eta bereziki bertsolaritzaren inguruan bildu zen jendarte haren bizi-indarra eta grina gogoan iltzatzea.

Txirritari hainbat artikulatu eskaintzen dizkio (1939/VI/25, ‘Jose Manuel Lujanbio ‘Txirrita’, Lege Zahar maitale’; 1939/VII/02, ‘Txirrita bertsolaria azken urteetan’; 1939/VII/09, ‘Zepairekin uztarri tratuan, Txirrita itzain’). Ez dauzka ahazteko Larralde (1939/IV/16, ‘Larralde luhusoar bertsolaria’), Uztapide (1939/V/14, ‘Eusko Nekazari Bazkuna eta ‘Uztapide’ bertsolaria’), Saiburu (1939/V/22, ‘Juan Jose Lujanbio bertso egoitza zaharrea’) edota Matxin (1939/VIII/06, ‘Senperen, Matxin zena oroitzuz’). Bertsolaritzari buruzko oroitzapenen eskutik euskalgintzakoak datozkio: Eusko Abesbatzaren sorrerakoak (1939/VI/11; ‘Eusko Abesbatzaren sortze eta bizitza’), irratian eginiko lanaren bueltakoak (1939/VI/18, ‘Donostiako Irratetxetik euskara haizatzen’), Lore Jokoen ingurukoak (1939/VI/04, ‘Donostiako Euskal Batzarrak’)... Eta tarteka, bertsoa aitzakiatzat hartuz, gerrako bizipen garratzen inguruko gogoetak ere ekarriko ditu, bere belaunaldiaren inguruko argazki horri zabaltasuna ez ezik sakontasuna ere erantsiaz (1939/IV/23, ‘Gernika erraustearen bigarren urteurrenean’; 1939/VII/23, ‘Errauts itzazu, Jauna, gudazaleak’; 1939/VII/30, ‘Libertatia zoinen eder den’; 1939/VIII/20, ‘Agur, eusko anaia, agur t’erdi’)

Oso gaixo egon arren, ez zen atsedean askorik hartzekoa donostiarra. Honela, Kanbon egin zituen hilabeteetan euskara-frantsesa hiztegi batetarako 325 fitxa osatu zituen, esaterako. Edota Iparraldeko bertsolarien inguruko informazioa biltzen aritu zen: “(...) batera eta bestera mugitu zen bertako bertsolari zahar eta gazteen berri biltzeko” (Izagirre, 2002: 21). Asteroko artikulua haria ez zuen inoiz galduko, ordea. Eta muga zeharkatu zuenetik Basarriren bisita izango zuen tarteka, oroitzapenak freskatzeko lagungarri: “Aldian behin Basarri azaltzen zen kasu egitera, eta baratzea lantzen zien. Gozatuko zuen orduan Josebak, mirespen handia zion” (Izagirre, 2002: 21)

Basarri izan zen hain justu prentsan, *Euzko-Deyan* bertan, berri tristea eman zuena: “Tinta ordeaz malkoak ditut beatz artean dardarka dabilkidan lumatxoan. Ez naiz pio lan onik egin nezakeanik. Nolaz nai dezute, adiskide min aren ilberria sinetsi nai ezik banago oraingoz?” (*Euzko-Deya*, 1939/X/15, ‘Il da gure Zubimendi’. Eizmendi, Iñaki Basarri). 1939ko irailaren 28an hil zen, *Euzko-Deyan* bere azken artikulua idatzi eta hamabost egunetara, bertso minez 29 artikulua argitaratu ondoren.

Kazetaritza ikuspegitik ziklo honetako gailurra Basarri eta Txirritari egindako elkarrizketak, bi txapelketen estaldura mediatikoa eta Zubimendik ‘Bertsolari-Guduak’ liburuan argitaraturiko bi kronika luzeak baziren, gerraren erdian eta bere bizitzaren azken apurretan idatzitako artikulua sorta hau izango da gailur horren ginga:

“Kronika luze honetan idazle heldu gisa ageri zaigu Joseba Zubimendi. Idazkeraren teknikak artikulugintza ugari batean landuak eta menderatuak dituela, bere bizitza aberatsean bildutako gertaerak txertatzen ditu historian, datuari lekukoaren oroitzapena eransten dio, bertsolariaren kantuari entzulearen gogoeta, exiliatuaren mindura, gerlako bizirauna denaren sentimenduak... Saio berezia oso, gure literaturan” (Izagirre, 2002: 22)

Azken bi artikulua Pedro Mari Otañori eskaini zizkion Zubimendik. Eta Basarrik Pedro Mari Otañori buruzko hiru artikulua argitaratu zituen honen heriotzaren ondotik, lagunaren lanari jarraipena eman nahi izango balio bezala. Ahalegin hori ere eten egingo zen honek etxerako bidea hartu eta atxiloturik hiru urtetarako lan behartuak egitera bidali zutenean. Handik irten ondoren, hurrengo zikloaren hasieran kontatuko den bezala, beste hiru urte pasako dira zarautzarrak prentsan argitaratzen jarraitzeko modua aurkitzen duen arte.


5.5 OIHARTZUNA: EREDU GARATUA PRENTSAN ETA LEHEN PAUSOAK IRRATIAN

5.5.1 Emandako pausoak eta bilakera

Irratian bere lehen pausoak emango ditu bertsolaritzak ziklo honetan. Azaldu den gisan Zubimendi eta Luzearek Union Radioren Radio San Sebastianen zuten asteroko ordubeteko euskarazko irratsaioan presentzia garrantzitsu bat izango du 1932tik gerra lehertu arte, 1934 bukaeratik 1935 bukaera bitarteko etenarekin batera. Irratsaio horren lehen programa bertso batekin irekiko du Zubimendik, baina aurretik ere, 1925etik aurrera irrati berak eman zituen lehen emanaldietan ere topatu dira bertsolaritzaren arrastoak. Gerraren erdian Bizkaian setiatua eratu zen Jaurlaritzak martxan jarritako irrati emanaldietako asteroko ‘Euzkel Orduba’-n ere Basarriren bertsoak izan zirela jaso ahal izan da.

Historikoki euskarazko kazetaritza atzerapenez garatu ohi bada ere, irratia kasuan inguruko erdarekin oso parean emango du kasua, eta lehen unetik bertsolaritzak toki bat izango du bertan.

Gaiari buruzko 538 testu bildu ahal izan dira 1918tik 1944ra, urtean 20,7 testu batez beste. Aurreko zikloan batz besteko hori 15ekoa zen. Bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren kontsolidazio bat emango da, bada, eta zikloaren gailurrean nabarmenago: 78 ditu 1935ak.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.II (Euzko Pizkundea datuak)

Gerraren hausturak errotik moztuko zuen gailurrera iritsi berria zen zikloa. Beraz, gainerakoak baina ziklo laburragoa izango da, eta hamarkadaka baino urtez-urteko bilakaerari erreparatu zaio. 8. Grafikoa ikus daitekeen bilakaera, edozelan ere, bai iristen da oinarri-gailurra-haustura eskema islatzera: Oinarrian goranzko joera bat ematen da, 1930etik aurrera bertsolaritzaren inguruko giroa berotuz doanez (Lekuonaren hitzaldia, *Bertsolariya*, euskal irratsaioa, Aitzolen norabide aldaketa) dezente indartsuagoa dena; txapelketekin gailurra egiten du; eta gerrarekin haustura ematen da.


Gerrak moztu duenez kuantitatiboki kasik airean gelditzen den kontsolidazio hori, hainbat zantzu kualitatibok ere berresten dute. Batetik, aurreko zikloetan pikorik altuenak figura konkretuen inguruan ematen ziren bitartean (Bilintxen heriotza, Iparragirrenen itzulera), ziklo honetan txapelketaren estaldura da arreta mediatikoaren iturburu potenteena, fenomeno da protagonista. Bestetik, bere genero guztietara iritsiko da prentsako kazetaritzaren garapenarekin: bertsolariei lehen elkarrizketak, soslaiak eta liburu formatuko kronikak.

Halaber, euskarazko kazetaritzaren eskutik emango da kontsolidazio hau neurri handi batean. Aurreko zikloan ikusi denez frantsesez ziarduten bertsolaritzari buruzko lehen testuak, 1850eko hamarralditik aurrera gaztelera sartzen hasten zen, hizkuntza nagusi bihurtzeraino, eta 1880ko hamarraldian ageri zen euskara, datu orokorretan kasik frantsesaren pareraino iristeko: gaztelera %64, frantsesez %18 eta euskaraz %17. Ziklo honetan, aldiz, euskarazko kazetaritzak bizi izandako loraldiaren eraginez³⁰⁹, gaztelerazkoen pareraino iristen dira euskarazkoaz, eta baita, gutxiatik, gainditu ere.

³⁰⁹ Honela laburbiltzen du Díaz Nocik euskarazko prentsak urte haietan bizi izandako gailurra: “Especialmente entre 1919 y 1921, la eclosión de nuevos periódicos es notable: 17 nuevos títulos. Sólo el trienio 1930-1932, a comienzos de la República, será más fecundo para la prensa en euskera: 22 nuevas publicaciones ven la luz esos años. Sin embargo, serán las del primer trienio citado las que alcancen mayor estabilidad (...)” (2012: 268)

9. grafikoa. Euzko Pizkundea (1918-1944) Argitaraturiko testuen hizkuntza hautua

■ EUSKERA ■ GAZTELERA ■ FRANTSESA ■ INGELESA




Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.II (Euzko Pizkundea datuak)

Honela, kualitatiboki garrantzitsuenak diren ekarpenak ere euskaraz hitz egingo dute. Lehen elkarrizketa euskarazkoa izango da, lehen aldiz genero bat hizkuntza honek estreinatuko duelarik, txapelketen estaldura onenak ere euskarazkoak izango dira, *Argiarenak*, eta beste hainbeste gertatuko da Zubimendiren ‘Bertsolari-Guduak’-ekin edo gerra garaian bertso minez idatziriko sailarekin.

10. grafikoa. Euzko Pizkundea (1918-1944) Argitalpenen eta testuen jatorria

■ MEDIOAK ■ TESTUAK



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.II (Euzko Pizkundea datuak)

Gehiago dira gaiaz argitaratzen duten Euskal Herritik kanpoko hedabideak (eremua askoz zabalagoa da, eta askoz ere medio gehiago dago), baina oso pareko proportzioak ageri dira, aurreko zikloan kanpokoak bertakoen bikoitza baino gehiago zirenean. Eta bertako jatorria duten testuen proportzioa disparatu egiten da, kanpokoak baino kasik sei aldiz gehiago, aurreko zikloan bikoitza baino ez zenean.

Sakoneko aldaketak nabari daitezke guzti honen atzean. Aurreko zikloan Euskal Herritik kanpo ere bertsolaritzaren interesa piztu zuen Erromantizismoak indarra galtzean kanpoko interes hori ahulduz joango da. Eta bertako nazionalismoaren, kulturgintza modernoaren eta kazetaritzaren indartzeak, aldiz, barruko interesak gora egitea ekarriko du. inspirazio erromaniko bat zuen bertsolaritzaren interesak, eta Erromantizismoa horrek indar handi zuen Euskal Herritik kanpo.

Atzerriko lanetan, normala denez, markatuagoa da kanpoko begirada, eta honek, azaldu den gisan, bertsolaritzaren esentzializazioa indartu eta bertsolaritzaren izaera subalternoa azpimarratzen du. Bertako hedabide eta testuen proportzioak gora egitean lausotu egiten da hau guztia. Honela, ziklo berri honetan, aurrekoarekin alderatuz, modu askoz ere kontzienteagoan baliatuko da bertsolaritza ikur gisa, askoz ere kontzienteagoa izango da fenomeno jasotzeko ahalegina, bertso-eskola modernoari gerturatzen zaizkion lehen planteamenduak egingo dira eta ahotsa emango zaio bertsolariari, Basarri bezalako bertsolari-kazetari figura sortuko delarik.

Joera berriak horiek dira, baina aurreko oinarria ere mantentzen da neurri handi batean. Honela, kutsu erromantikoko lilura edo kostunbrismoa, ez dira arraroak suertatuko aldi honetan ere³¹⁰.

5.5.2 Argitalpen eta sinadura nagusiak

1918an itxiko da *Euskal-Erria* aldizkaria eta nolabait ziklo baten amaiera adieraziko du honek. Foralismoari abertzaletasunak hartu dio erreleboa euskal kulturaren sustapenean eta argitalpen abertzaleak izango dira bertsolaritzari jarraipen estuena egingo diotenak. Euskal Herriko prentsan dezente aldatu da panorama, aurreko zikloan gaiak gehien argitaratu zuten argitalpenetatik bik bakarrik eutsiko diote ziklo berrian zerrenda horretan: lehen diasporako ordezkari nagusi izaten jarraitzen duen *La Baskoniak* (1883-1943) eta Iparraldeko prentsa frantsesaren hegemoniari eutsiko dion *Le Courrier de Bayonnek* (1852-1947).

Aurreko ziklotik dakarten inertziari jarraituko diote gainera neurri handi batean. *La Baskonian* Iparragirre buruzko kontuak eta Pernando Amezketarraren ateraldiak dira nagusi, aurreko belaunaldietako bertso jartzaileei buruzko testuez gain (Iztueta, Arzak, Artola eta abar). Eta *Le Courrier de Bayonnek* Iparraldeko Jokoei eta euskal festei jartzen die fokua.


Lidergoa hartuko duena *Argia* (1921-1936) izango da. Esan bezala, garaiko egunkari garrantzitsuenen tiradara gerturatzeko gaitasuna izan zuen euskara hutsez eta Gipuzkoara mugaturik lan egin arren:

“Argia consigue en aquellos años consolidar todo un público lector en euskera, nutrido por una parte por las clases urbanas donostiarras (...), por otra parte por el nuevo público lector compuesto por niños y jóvenes, ya alfabetizados en su propia lengua, y finalmente por las clases rurales de la provincia.” (Díaz Noci, 2012: 271)

Bertsozaleak derrigor euskalduna izan behar duenez, logikoa dirudi euskal kazetaritzaren lehen loraldiaren enblema izan zenak, bertsolaritzari argitalpen erdaldunek edo elebidunek baino garrantzia handiagoa ematea. Ikusi den bezala txapelketen inguruko estaldura osotuena

³¹⁰ *Estampa* aldizkari madrildarrean esaterako: 1928/X/30, R. Ramos, José, ‘Manzanas, sidra y ‘bertsolaris’ en los caserios vascos’; 1931/II/07, De Muñagorri, J. E., ‘Costumbres Españolas/Los coros de Santa Agueda’; 1931/VIII/22, Alonso Abaitua, Luis, ‘Iparragirre, el hombre que hizo el ‘Guernikako Arbola’; 1931/XII/12, Muñagorri, J.E., ‘Las festivas improvisaciones de los ‘bersolaris’; 1936/IV/04, Ramos, Jose R., ‘Campeones vascos/Un poeta de 150 kilos’.

berea izango da, lehen txapelketarako deialdia eta diru-bilketa ere bere bidez egingo da, eta bestelako bertso-saioak, iritzia, edota bertsolarien inguruko albisteak ere jorratuko ditu.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.II (Euzko Pizkundera datuak)

Bertsolaritza eta euskal irakurlegoaren arteko lotura ikus daiteke garaiko argitalpen garrantzitsuenen zerrendako hurrengo postuetan ere. Euskal atala³¹¹ deritzona jorratzen duten egunkariak ere ekarpen garrantzitsua egingo dute: *El Día* (1930-1936), *Euzkadi* (1913-1937) eta *El Pueblo Vasco* (1903-1936)³¹².

El Pueblo Vasco aurreko ziklotik dator baina euskal atala 1931ean abiaraziko du Zubimendik eta orduan hasiko da bertsolaritza jorratzen. *Euzkadiren* kasuan sorreratik bertatik funtzionatuko du atal horrek baina Aitzol, Lauaxeta eta Basarriren parte hartzearekin hartuko du presentzia garrantzitsu bat gaiak, 1930eko hamarraldian baita. *El Día*n, aldiz, 1930ean sortzen denetik aurkitu ahal dira atala eta bertsolaritzari buruzko testuak.

Euskarari eginiko tarteaz gain, ideologia abertzalea da lau hedabideok partekatzen duten ezaugarri nagusia. *Euzkadi* EAJren bozeramaile ofiziala da, *Argia* eta *El Día*, alderkiko hedabide gisa aurkezten ez badira ere³¹³ partiduko militanteek argitaratzen dituzte, eta *El Pueblo Vasco* ere ildo berean lerratu da, sorreran monarkikoa zen enpresa egunkari bat izan arren, Rafael Pikabea jabeak hainbat alderditan ibili ondoren 1930eko hamarraldian jeltzaletasunari lotzen zaionean.

Argiaren lidergoa argia den arren, lau hauen kopuruen artean ez da aurreko zikloan *Euskal-Erria* eta hurrengoan artean ematen zen bezalako desorekarik ematen. Interes jarraitu oso

³¹¹ Honela deskribatzen du Alzibarrek: “Euskarazko kazetalariek bilduta ageri ziren orrialdea edo tokia zen euskal atala. Halakoak Francoren diktaduraren ondorengo egunkariak ere (Deia, Egin, Diario Vasco) izan dituzte” (2005: 561).

³¹² *El Pueblo Vasco* aurreko ziklotik dator baina euskal atala 1931ean abiaraziko du Zubimendik eta orduan hasiko da bertsolaritza jorratzen. *Euzkadiren* kasuan sorreratik bertatik funtzionatuko du atal horrek baina Aitzol, Lauaxeta eta Basarriren parte hartzearekin hartuko du presentzia garrantzitsu bat gaiak 1930eko hamarraldian baita. *El Día*n, aldiz, 1930ean sortzen denetik aurkitu ahal dira atala eta bertsolaritzari buruzko testuak.


³¹³ Díaz Nocik hainbatetan aipatzen du *Argia* 1920ko hamarraldian tentu handiz ibili izan zela kuestio politikoetan, eta Estatutuaren aldeko kanpainak hasi zirenean lerratu zela argiako. *El Día*k ere ez zuen bere burua jeltzale gisa aurkeztu hasiera batean, kristau eta euskaltzale gisa baizik.

garrantzitsu bat ematen da, bada, hainbat hedabideetan, ez da bakarrean zentralizatzen. Txapelketen estaldura orokorraren eraketan, esaterako, lauek hartuko dute parte, eta bertsolaritzari buruzko gogoetari dagokionean *Euzkadi* eta *El Diak Argiak* bezainbesteko garrantzia izango dute.

Badago ekarpen garrantzitsu gehiago ere. Iparraldean *Eskualduna* (1887-1944) eta *Gure Herria* (1921-1940) izango dira bertsolaritzarentzako plataforma nagusiak. Aurreko zikloan Louis Etcheverryk sortu eta Hiriart-Urruty kalonjeak zuzenduriko aldizkaria Jean-Blaise Adéma kalonjea eta Jean Saint-Pierre apezpikuaren zuzendaritzetan I Mundu Gerrak ekarriko estualdiak gaintitu Domingo Soubetelek kalonjearenean 8.000 ale saltzera iritsi zen, Arotçarena abateak eskuinerako geroz eta joera nabarmenagoa muturrera eraman eta itxieran bukatu zen gainbehera ekarri zuen arte (Díaz Noci, 1995b: 77). Gure Herriak, elebiduna baita, jite zientifikoago bat zuten Hegoaldeko kultur aldizkari berrien ildo jarraituko du, posizionamendu politiko zabalagoak jorratu eta Jean Elissalde, Louis Dassance, Jean Barbier edota Pierre Lhande bezalako idazleen lanean oinarriturik. Etxahuni buruz edo Matxinen heriotzaz irakur daiteke bietan, baita Iparraldean bertso jartzen aritutako Duvoisin, Barbier edo Oxobiri buruz, edota bertako bertso-saio zenbaiti buruz. Gogoeta interesgarriak ere badakartzate eta sariketak antolatzen dituzte.

Eta Nafarroako prentsan *La Voz de Navarra* (1923-1936) jeltzaleak eta *Diario de Navarra* (1903-gaurdaino) enpresa egunkari kontserbadoreak ere gaiari buruzko testu kopuru polita argitaratuko dute. Biek emango dute 1936ko Txapelketako Nafarroako kanporaketaren berri, eta herrialdean burutzen diren saioen kronikak tartekatuko dituzte denetarikoa gaiekin.

Guztira 72 dira tarte honetan gaiari buruzko testuak argitaratu zituzten hedabideak, eta testuen %63ak dakar sinaduraren bat, ezizenen proportzioa oso altua delarik. Izen osoarekin 101 sinadura ezberdin identifikatu ahal izan dira eta hauetatik 19 dira (%18,1) Bertsolaritzaren Datu Basean agertzen direnak (bertso-jartzaile, bertsolari, epaile, eragile, ikerlari gisa bertsolaritzarekin harremana izandakoak).



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta V.II (Euzko Pizkundera datuak)

Zikloan bertsolaritzari buruz testu gehien idatzi zuten hiru izenak aski ezagunak dira. Zubimendi da oparoena, eta joritasun horren neurria *Euzko-Deya* gehien argitaratu duten hamar medioen zerrendan laugarren tokiraino iritsi izanak ematen digu, bere testuekin iristen baita horraino.

Euzko-Deyan ez ezik *Argian*, *Yakintzan* eta *El Pueblo Vascon* ere argitaratu zuen bertsolaritzaz. Azaldu den gisan aitzindari izan zen, Luzearrekin batera, bertsolariei irratiko atea irekitzen eta txapelketetan ere eragile garrantzitsua izan zen. Burutu zuen kazetaritza lanaren bolumenari, edukiari eta lorturiko arretari (*Yakintzan* argitaraturiko kronikak iruzkinduak³¹⁴ izan ziren eta ‘Bertso-Guduak’ liburuan berrargitaratu ziren, eta *Euzko-Deyan* argitaraturikoak ere ‘Bertso Minez’ izenburuarekin berrargitaratu zituen Koldo Izagirrek sei hamarkada beranduago) erreparatuz ziklo honen kronista ofizialaren titulua merezi luke ezbaierik gabe.

Aitzolek gaiaz argitaraturiko testu kopurua ere oso garrantzitsua da, eta 30.eko hamarraldiaren lehen erdi osoan barreiatzen da (Zubimendiren testu gehienak 1939an idatziak dira). *Euzkadin* eta *El Día* argitaratu zituen bertsolaritzari buruzko testu hauetako gehienak, baina baita *Argian*, *Yakintzan* eta Uruguaiako *Euskal erria* aldizkarian ere. Ziklo honetan bertsolaritzak izandako ideologo eta eragile garrantzitsuenetako bat izango da, nagusia ez bada, eta Zubimendik kronista ofizialaren titulua merezi badu beste hainbeste aitortu ahalko zaio tolosarrari artikulugile edo iritzi-emaile nagusi gisa.

Basarri da kopuruz aurreko biei gerturatzen zaien bakarra, eta bien ikasle aurreratua dela ere esan daiteke, kronika jorratzean Zubimendiren egiteko modua eta iritzia lantzerakoan Aitzolen ideiak nabari baitzaizkio. Txapeldun, eragile eta irratiko kolaboratzaile gisa ere nabarmenduriko zarautzarrak bertsolaritzari buruz argitaraturiko testu hauek *Euzkadi*, *Argia*, *El Día* eta *Euzko-Deyan* topa daitezke.

Gainerako sinadurak, esan bezala, hauen kopuruetatik urrun geratzen dira. Ekarpenean interesgarriak egiten dituzte, ordea, ez dira badaezpadako izenak, eta askotariko perfilak erakusten dituzte³¹⁵.

Gregorio Mujika ormaiztegiarra (1882-1931) Eusko Ikaskuntzaren sortzailetako bat eta lehen idazkaria izan zen (aurreko zikloko zerrendatik irauten duen bakarra da), eta Euzko Pizkunde honen funtsezko figuratako bat izan zen (Díaz Noci, 1998: 63) *Euskal Esnalea* eta *Argiaren* sortzaile izan zen eta *Euskalerraren Alde* aldizkariaren sortzaile eta zuzendari. 1925ean Fernando Amezketarri buruzko liburua argitaratu zuen ‘Fernando Amezketarra. Bere ateraldi ta gertaerak’ arrakasta itzelarekin. *Euzkadi*, *El Pueblo Vasco* eta *Argian* argitaratu zituen bertsolaritzari buruzko testuak, gogoetak, eta Iparragirre nahiz garaiko bertsolarien inguruko ekarpenak tartekatuz.

Madrilen jaiotako Jose Maria Salaverria donostiarrak (1873-1940) ibilbide oparoa egin zuen kazetari eta idazle bezala: *Euskal-Erria*, *ABC*, *La Vanguardia*, *Diario Vasco*, *La Nación*, *La Voz de Guipuzcoa*... Eleberriak (‘Vieja España’, 1907; ‘Nicéforo el Bueno’, 1909; ‘La Virgen de Aránzazu’, 1909...), bidaia liburuak (‘Tierra Argentina’, 1910; ‘España vista desde América’, 1914; ‘Viaje a Mallorca’, 1920...), saiakera (‘El Perro Negro’, 1906; ‘Alma

³¹⁴ Aipatu da jada *La Tarde* egunkariak 1935eko txapelketaren kronikari egindako iruzkina: *La Tarde*, 1935/IV/11, ‘Libros y revistas/Revista Yakintza’. 1936ko txapelketaren kronikari buruzkoa *Gure Herriaren* argitaratuko da: *Gure Herria*, 1936 maiatza, 258 or., ‘Concours de Bertsolaris’, *Adichkidea*.

³¹⁵ Zerrendan laugarren tokia Jean Baptiste Daranatzki zegokion kopuruz, hamar testuekin, baina denak Duvoisini buruzko ikerketa beraren atalak direnez (‘Correspondance du Capitaine Duvoisin’ daramate guztiek izenburutzat) bertatik ateratzea erabaki da.

vasca’, 1920...). Argentinako payadorerik ezagunenaren biografia ere, Martin Fierrorena, berea da (‘Martín Fierro’, 1934) eta Iparragirrenen biografia bat ere argitaratu zuen (‘Iparraguirre, el último bardo’, 1932). Bertsolaritzari buruzkoak nagusiki *El Pueblo Vascon* argitaratu zituen baina baita Argentinako *Caras y caretas*, Uruguaiako *Euskal erria* edota Bartzelonako *La Vanguardian* ere. Iparragirre zen bere espezialitatea baina bapateko bertsolaritzaren aipamenak ere egin zituen.

Ramon Berraondo gipuzkoarra (Martin de Anguiozar zuen ezizena) *RIEV*, *Euskalerrriaren Alde* eta *Yakintzan* ohiko kolaboratzaile zen eta arrakasta handia izan zuen bere ‘Los Vascos en 1800’ artikulu bildumak. *La Voz de Navarra*, *Diario de Navarra*, *La Baskonia*, *Euskalerrriaren alde*, *Txistulari* eta *Yakintzan* argitaratu zituen bertsolaritzari buruzkoak.

Jules Martin Moulier *Oxobik* (1888-1858), bertso-jartzaile izateaz gain, hainbat liburu argitaratu zituen genero ezberdinak jorratuz: ‘Botz, oihu, deiadar, negar!’ (1913), ‘Alegiak’ (1926), ‘Heiatik zerura’ (1935) ‘Haur elhe haurrentzat’ (1944) eta argitaratu gabeko ‘Gure mendiak’, ‘Urrikalmenduzko parabolak’ eta ‘Nola gauden eskualdun’ pastoralak. Euskaltzain izatera iritsiko zen (1952) Bidarraiko sema hau eta euskal alegi egile onena izan zela esan ohi da³¹⁶. *Eskualdunako* kolaboratzaile eta idazkari izan zen, *Gure Herria*-ren sortzaile eta *Euzkadi* egunkariaren Iparraldeko korrespontsal. *Eskualduna* eta *Gure Herrian* argitaratu zituen bertsolaritzaren ingurukoak, besteak beste Matxin Irabolari buruz.

Fermin Irigaray *Larreko* (1869-1939) garai hartan EAJk Nafarroan izan zuen eragile eta kazetari garrantzitsuenetako bat izan zen (Díaz Noci, 1995b: 75-76). Medikua ogibidez, Iruñeako Eritetxe Probintzialeko zuzendari izatera zen. Nafarroako ‘Euskararen Adiskideak’ elkartearen sortzaile eta euskaltzain urgazle Euskaltzaindiaren sorreratik euskaltzaletasuna izan zuen pasio. Kazetari gisa, bera da Nafarroako prentsan euskarazko lehen testuak argitaratu zituen (Irigaray, 2004: 6), eta orduak eskaini zizkion langintzari *Tradición Navarra*, *Eskualduna*, *Gure herria*, *Euskal-Esnalea*, *Euzkadi*, *La Voz de Navarra*, *Argia* eta *Napartarran*. 1936ko txapelketako Nafarroako kanporaketan epaimahaiko aritu zen eta bertsolaritzaz *La Voz de Navarra*, *Eskualdunaren* Nafarroako atalean eta *Argian* idatzi zuen.

Luis Jauregi *Jaurtakol* (1896-1971) eta Patxi Erauskin *Errotari* (1874-1945) dira zerrenda ixten dutenak³¹⁷. Lehenengoa Euzko Pizkundean parte hartze zuzena izan zuen apaiz olerkaria *Euzkadi*, *Euskal Erria*, *Zeruko Argia*, *Yakintza*, *Argia*, *Bertsolariya* eta *Euskal-Esnalean* kolaboratzaile eta hainbat ipuin eta olerki liburuz gain gerraosteko isilune luze baten ondoren ‘Xenpelar bertsolaria bizitza ta bertsoak’ liburua argitaratuko zuen 1958an. Bigarrena bertso-jartzaile oparoa, bertso paperetan saltzeko edota aldizkarietan argitaratzeko garaiko gertakari entzutetsuenen inguruan (krimenak, kirol jazoerak, gaurkotasunezko politika kontuak eta abar) errimatuz, hitz-neurtuzko kazetari moduko bat izatera iritsi zena. Jaurtakolek Xenpelari eta txapelketari buruz idatziko du *Yakintzan*, *El Dían* eta *Argian*, eta Patxi Errotarik berriz bertsolarien heriotzen berri emango du edota Txirrita eta biek argitaraturiko bertsoek eragindako polemikan murgilduko da *Argian*.

³¹⁶ Honela dio Xabier Etxanizek Auñamendi entziklopedian: “Koldo Mitxelena ustez ‘...Oxobi... el mejor fabulista en lengua vasca. Por su vivacidad, por la maravillosa flexibilidad y poder expresivo del lenguaje, construye una verdadera creación en un género que casi por definición es tan poco original”. Aita Villasantek, berriz, La Fontainerekin konparatzen du (...)” (Etxaniz, 2018). Helbide honetatik berreskuratu: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/moulier-jules-martin/ar-78017/> [2018/XII/22]

³¹⁷ Hamarreko zerrendan denak sartzen ez zirelako kanpoan utzi dira hauei bezala launa testu topatu zaizkien Luis Antonio de Vega, Jose Artetxe eta Ernike Zubiri *Manezaundi*, izen esanguratsuak hauek ere.


5.5.3 Gertakari eta protagonista mediatikoak

Ziklo honetan kasik aipamenik egin ez bazaio ere, aurreko zikloko bertsolari bera izango da alde handiarekin testu gehien eskainiko zaiona: Jose Mari Iparragirre.

1920an, bere jaiotzaren 100. urteurrena dela eta, hainbat egunkaritan jasoko dira urretxuarrari buruzko testuak. Hurrengo urtean, bere alargunaren heriotza albiste bihurtuko da, eta Ameriketara gelditu zen familiaren berri emango dute hainbat egunkarik. 1933an, ‘Gernikako Arbola’ abestiaren 80. urteurrena dela Urretxun omenaldia eskainiko zaio eta testu mordoa argitaratuko da berriro, bertsolariaren hainbat alderdi jorratuko dituena: hil zen baserriari buruz, bere musikarako dohainei buruz... Salaverriaren biografia ere urte honetan argitaratuko da hainbat iruzkin izango ditu prentsan.

Esan bezala bertso-munduaren eta euskal iruditeriaren mugak gainditu dituen mito bat da urretxuarrarena. Oraingoan ere Espainiako argitalpenetara iritsiko da bere oihartzuna (*El Cruzado Español, La Hormiga de Oro, La Libertad, Mundo gráfico, Hogar...*), eta baita Argentinara ere (*La Baskonia, La Prensa, Caras y Caretas...*). *The Timesek* ere aterako du Salaverriaren liburuaren iruzkina:

“Emblem of lost liberties, the Tree of Guernica is also the emblem of this resurgence; and Iparragirre’s famous hymn, ‘Gernikako Arbola’ which reflects this symbolism has come to be a racial, if not quite a national anthem. The inclusion of Sr. Salaverria’s biography (...) is a tribute as much to this spirit as to the personality of his protagonist. There is, nevertheless, much that is interesting to chronicle in the vagaries and vicissitudes of this strange figure (...)” (The Times [Educational supplement], 1933/IX/21 ‘Iparragirre: el último bardo’)



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.II (Euzko Pizkundera datuak)

Iparragirreraren ondotik bi txapeldunak dira prentsak aitatuena, beteranoenaren ibilbideak eta karismak Txirritari Basarri bano kopuru dezentez altuagoa ematen diolarik.

Bertsolari garaikideen artean Matxin Irabola eta Kepa Enbeita izango dira itzala egingo dieten bakarrak. Senpereko bertsolariak zikloko gailurrean protagonismo garrantzitsua izango

du, 1935eko txapelketan Basarriren atzetik bigarren egin zuelako eta ibilbide luze bati eginiko aitortza horren ondotik gutxira hil zelako. Bi gertakari hauek izango dira bertsolariari buruzko testu gehienen iturburu, baina aurretik ere badago bere parte hartzea aipatzen duen bertso-saioen kronikarik. Bizkaitarra, aldiz, hainbat ekitaldi politikoren kronikatan topa daiteke, militantei bertso-saioa eskainiaz, eta gailurrean eredu bezala jarriko dute Lauaxetak, Aitzolek edota Basarrik beste zenbait artikulutan.

Hortik aurrera bertsolari klasikoak dira protagonismo gehien dutenak, mediatikoki aurreko zikloan funtzionatzen hasitako Fernando, Pedro Mari Otaño, Bilintx eta Etxahunen.

Amezketarraren pasadizoak izango dira, alde handienarekin, oihartzun handiena izango dutenak. Esan bezala Mujikak eskaintzen dion liburuia euskarazko lehen *best-sellerra* izango da eta bertsolariarekiko interesa puri-purian dagoela ikerketa ere egingo da pertsonaiaren inguruan, Zufiriak *Euskalerraren Alde* aldizkarian bere jaiotza, ezkontza eta heriotza agiriak argitaratuko dituelarik, edo bertsolaritzaren historian txertatuko da, Aitzolek 1802ko desafioak gogorarazten dituenean, esaterako³¹⁸. Bere heriotzaren ehungarren urteurrenean ekitaldia burutuko da Amezketan eta honek ere ekarriko ditu prentsako testu batzuk, baita Mujikaren liburuak ere. Aurreko zikloan bezala pasadizo eta ateraldiak izango dira prentsako arretaren iturburu nagusi, euskaraz idatziak, baita generoa Argia bera baino gehiago jorratzen duen Argentinako La Baskonian ere³¹⁹. Eta Madrileraino iritsitako ale soltea ere topa daiteke, bere datu biografikoak, ateraldiak eta lortu duen oihartzunaren azalpena uztartzen dituen:

“(…) Llegado a sus mocedades, casose con la linda amezketarra Mari Joxepa de Sagastume el 3 de mayo de 1790. Nueve hijos y una hija nada más les dió Dios (...) Las salidas, chascarrillos y originalidades de ‘Pernando Amezetarra’ son perfectamente conocidos en todo el país vasco (...) Los dicen los ‘aitonas’ en las luengas veladas de ‘artazuritze’. En las horas del mus, los domingos, los repiten los jóvenes en la taberna, risueños, junto al vaso de ‘ardoas’ (...)” (*El Sol*, 1930/VIII/31, 2 or., ‘Estampas de Vasconia/El Quevedo vasco: Pernando Amezeterra’, *Beti Izan*)³²⁰

Otaño ere dezentetan aipatuko du prentsak, esan bezala, Enbeitarekin batera eredu gisa hartuko baitu garaiko *intelligentsiak*. Bilintxen inguruko lanek ere bere bidea egiten jarraituko dute, eta Etxahun Iparraldeko argitalpenetan berragertuko da ahanztura luze baten

³¹⁸ Ik.. *Euskalerraren Alde*, 1927 apirila, 152 or., ‘Pernando Amezetarra: sus partidas de nacimiento, casamiento y defunción’, Zufiria, J.. Eta *Euzkadi*, 1935/I/12, ‘Una famosa contienda del 1802 (El día del bertsolari)’, Ariztimuño, Jose *Aitzol*.

³¹⁹ *Argian* sei pieza topatu dira eta *La Baskonian* zortzi, horietatik zazpi euskaraz: 1918/I/10, 156 or., ‘Amezketako Pernandorenak’, Alegiko Pernando; 1922/X/20, 25 or., ‘Pernandokeriak’, Ataun’dar I.A.O.M Cap.; 1929/V/20, 360 or., ‘Pernando Amezetarra’ren ateraldi ta gertaerak/Erretorearen amorraiak’; 1929/VI/10, 394 or., ‘Pernando Amezetarra’ren ateraldi ta gertaerak/Olasko-ezurak’; 1929/VII/30, 474 or., ‘Pernando Amezetarra’ren ateraldi ta gertaerak/Emaztea itzik-gabe’; 1929/VIII/30, 522 or., ‘Pernando Amezetarra’ren ateraldi ta gertaerak/Pernando ta Ametza’; 1930/II/20, 218 or., ‘Pernando Amezetarra’ren ateraldi ta gertaerak/Astoa pozez saltoka’.

³²⁰ Egunkari Madrildar honek gaiari eskaintzen dion arreta aipagarria da: 1919/VIII/06, 5 or., ‘Navarra/Una fiesta francoespañola’; 1923/VII/23, 8 or., ‘Informaciones de Iberoamerica/Homenaje a un versolari/Pedro Enbeita’; 1930/VIII/31, 2 or., ‘Estampas de Vasconia/El Quevedo vasco: Pernando Amezeterra’, *Beti Izan*; 1930/XII/19, 4 or., ‘País Vasco/San Sebastián/Fallecimiento (Pedro Tolosa bertsolariaren heriotzaz laburra)’; 1932/IX/25, 2 or., ‘Renacimiento de la poesía vasca’, Rodríguez Aldave, Alfonso; 1934/IX/14, 1 or., ‘Réplica a un abogado sobre la intimidación vasca’ (Iparragirrerri buruz); 1935/I/23, 2 or., ‘Tamborrada y versolaris’.

Testu hauetako batzuk Manuel Aznar egunkariko zuzendari zela argitaratu ziren. Etxalarren jaioa (1894) *Euzkadi* egunkariaren sortzaile eta erredaktore eta EAJko militante izan zen Espainiako presidente ohiaren aitona, bere ibilbidea Madrildo eta Kubako hainbat egunkariren zuzendari bezala osotu eta Altxamendua babesten bukatzeko.

ondoren³²¹. Pierre Lhande izango da *Gure Herria* aldizkarian 1923ko uztaila, abuztua eta irailean, hiru zatitan argitaratu zuen ‘Le barde Etchahoun’ artikulua luzearekin Barkoxekoa berriro zirkulazioan jarriko duena. Honen ondotik bere biografia fikzionatuko du Picochetek, bere bertso ezezagun batzuk argitaratuko ditu Gallopek eta Aingeru Irigarai Chamisso alemaniarren bertsolariaren figuran oinarriturik idatzirik poema emango du ezagutzera³²².

Xenpelarren deskubrimendua da ziklo honetako prentsaren beste ekarpen garrantzitsu bat. Errenteriakoa aurreko zikloari dagozkion urteetan bizi izan zen arren (1835-1869), bere garaiko prentsan eta hurrengo urteetan argitaraturikoan ez zuen inolako aipamenik izan, bere bertsoen bat argitaratzeaz haratago. Aipatu berri den Jaurtakol izango da 1930ean Argian bere figuraz idatzitako artikulua batekin herrikidearen figurari medioetarako bidea irekiko diona, bere atzetik Aitzolen artikulua luzea eta Lekuona, Basarri nahiz Zubimendiren aipamenak etorriko baitira³²³. Eta aurrekari gisa La Baskonian lehenago argitaraturiko testu bat aipa daiteke, datu biografiko batzuk, errenteriarraren sona eta ‘Betroi bati’ sorta ezaguna testuinguratzen duen pasadizoa jasotzen dituen, sinatu gabea:

“Los pueblos que en Gipuzkoa han producido más poetas en estos últimos años, han sido Rentería y Asteasu. Uno de ellos ‘Shempelar’, de Rentería, muerto ya, es sin duda alguna el que ha obtenido más éxitos ante el juicio popular, que canta numerosas producciones de este payador basko zumbón (...) Era capaz de tomar ‘el pelo’ en verso a cualquiera hasta cansar al auditorio que a voces le pedía que terminara y no se ensañara más con el ‘pobre diablo’ (...)” (*La Baskonia*, 1925/VII/20, 454 or.. ‘Nuestros bertsolaris/Una composición de ‘Shempelar’)

Aipatuenean zerrenda Uztapide hasi berri batek itxiko du³²⁴. Hurrengo zikloan Basarriekin batera protagonista nagusi izango den bertsolari gazteak 1936ko txapelketan parte hartuko du itxura polita emanez eta hainbat aipamen egingo zaio biharamuneko kroniketan edota distantzia gehixeagorekin Zubimendik egindakoetan.


³²¹ Aurreko zikloaren lehen urteetan, hainbatetan jorratu zen Barkoxekoaren figura, baina 1851etik aurrera 1907ko aipamen bat bakarrik topatu da: *Eskualdun Ona*, 1907/III/29, 4 or., ‘Ametsetarik’ (Oxalde eta Etxahuni buruz), Constantin, Albert *Joanes Garaztarra*.

³²² Ik. *Gure Herria*, 1926 azaroa, 632 or., ‘Etchahun’ (Etxahunekin fikzionatzen), *Picochet; Gure Herria*, 1930 uztaila, 305 or., ‘Colectanea vasca: Deux poèmes d’Etchahoun-Barkoche’, Gallop, Rodney A.; eta *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 1933, 618 or., ‘Una poesía de Chamisso sobre Etchahun’, Irigarai, Aingeru *Apat-Etxebarne*.

³²³ Ik. *Argia*, 1930/VI/01, 1 or., ‘Xenpelar bertsolaria’, Jauregi, Luis *Jaurtakol; Euzkadi*, 1930/XII/09, ‘El bertsolari Xenpelar’, Ariztimuño, Jose *Aitzol; Euzkadi*, 1932/IX/02, ‘Euzko-erri jakintza/Bertso-zarrak’, Eizmendi, Iñaki *Basarri; El Día*, 1933/IX/02, ‘Lau bertsolariaren bizimodua’, Lekuona, Manuel *Goikolako txoria; Yakintza*, 1935 abendua, 407 or., ‘Bertsolaria nor zaigun: Xenpelar eredu’, Jauregi, Luis *Jaurtakol; Euzko Deya*, 1939/VII/23, ‘Errauts itzazu, Jauna, gudazaleak’, Zubimendi, Joseba.

³²⁴ Etxahunek eta Uztapidek testu kopuru bera zuten zutenez hamarrekoa beharrean hamaika protagonistarekin osatu da grafikorako zerrenda.

14. grafikoa. Euzko Pizkundera (1918-1944) Gai nagusiak



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.II (Euzko Pizkundera datuak)

Lore jokoek 1935eraino jarraituko dute, baina izandako garrantzi galeraren adierazgarri, prentsan askoz ere oihartzun meharragoa izango dute. Hamaikagarren tokira eroriko da ziklo honetako zerrendan aurreko zikloan arreata mediatiko handiena lortzen zuen gertakaria.

Bertsolari-guduek hartuko dute hauen tokia, eta jada azaldu den gisan testu kopuru handiagoa izango du 1936koak 1935ekoak baino.

Lehen tokia bertsolari konkretu baten figura jorratzen duten edota bertsolari honen biografiarako informazioa eskaintzen duten testuek betetzen dute. Iparragirrerri buruzkoak izango dira ugariak, eta aipaturiko gainerako bertsolari klasikoei buruzkoak (Fernando Amezketarra, Otaño, Bilintx, Xenpelar eta Etxahun) eta zikloko bi garaileei buruzkoak (Basarri eta Txirrita) gehituko zaizkie.

Aurreko zikloan zortzigarren tokian ageri zen bertso-saio arruntari buruzko testua bigarren tokian ageri da ziklo honetan. Saioen albistegarritasun honek adierazten du beste ezein datuk baino nabarmenago bertsolaritzak kultur fenomeno gisa irabazitako pisua, formatu biluziengan, figura konkretuen itzala, *intelligentsiaren* antolaketa edota bestelako apaingarririk gabe lortzen baitu prentsarako sarbidea.

Fenomenoaren eta honen inguruko proiektuaren kontzientzia hartze nabarmenago bat ere ematen dela erakusten duen datua, aldiz, alorrari buruzko gogoeta edo azalpenetan oinarritzen den testuen kopuruarena litzateke. Aurreko zikloan bosgarren tokian ageri zen etiketa hau, eta 67 ziren 72 urteko epealdian argitaraturiko gisako testuak. Ziklo honetan 56 izango dira 26 urteko epealdian argitaraturikoak eta zerrendako hirugarren tokira igoko da etiketa hau. Aitzol izango da, alde handiarekin, artikulu hauek gehien landuko dituen, baina beste izen asko ere topa daitezke gogoeta eta azalpen hauen atzean: Salaverria, Mujika, Oxobi, Berraondo, Gallop, Lauaxeta, Lizardi, Duhourcau, Rodriguez Aldave, Agerre, Labaien, Harrigaitz, Wundt, Laffitte, Leizaola...

Bertsolaritzak harturiko garrantzia horren eta fenomenoaren prestigiatzeko ahaleginaren beste zantzu bat gaiari buruzko hitzaldi eta liburuen berri ematen duten testuen ugaritzeak dakar³²⁵. Aurreko zikloan apenas topatu ahal izan zen hitzaldien erreferentziarik, eta liburuei buruzkoak ez ziren ziklo honetakoak baino askoz gehiago denbora epea askoz ere zabalagoa izan arren.

Bertso-jarrien testuinguratzean edota iruzkinean oinarrituriko artikuluek ere kopuru garrantzitsu bat hartuko dute, baita, azaldu den gisan bertsolarien ateraldi eta pasadizoak jasotzen dituztenek ere.

Azkenik, bertsolariak azaltzen diren fikziozko lanek ere bere presentzia izango dute garaiko prentsan, aurreko zikloarekiko beherakada nabarmena emango bada ere³²⁶.

Pena da gainbehera hori, testu mota honek bertsolaritzaz garai bakoitzak egiten dituen irudikapenen inguruko informazio interesgarria eskaintzen baitu.

5.6 PROIEKTUA: KULTURA NAZIONAL BATEN ERAIKUNTZAN

5.6.1 Bertsolari-guduak: Lore Jokoekin jarraidura

Euskal Pizkundearen bigarren olatuaren ekarpenari eskainiriko artikuluan landu ziren alor ezberdinen errepassoa egiten du Zalbidek (1988: 399-400). Honela, historiaurrean eta antropologian Jose Migel Barandiaran, Telesforo Aranzadi eta Enrike Egurenen lanak aipatzen ditu (leize, harrespil, trikuharri, jentil-baratze eta euskal buru-hezurren inguruko ikerketak); euskal dantza-molde, musika-tresna, aho literatura eta herri-kanten bilketa eta lanketa (Azkue eta Aita Donostiaren kantutegia, galbidean ziren txistu, alboka, txalaparta eta abarren berreskurapena eta hainbat dantzaren inguruko lana aipatzen ditu espreski; herri-kirolei eman zitzairen bultzada berria eta hauen inguruan *Anuario de Euskofolklore* edota *Yakintza* gisako aldizkarietan eraiki zen esangura; Artzain-nekazarien bizimoduaren bertan sustraituriko antzinako euskal instituzio juridikoez Juan Thalamasek eta Engracio Aranzadik buruturiko ikerketak; elementu ximpleenetatik hasita (argizaiola, mendiko makila, zurezko kutxa zaharrak) forma osatuenetaraino (baserri-arkitektura), herri-arteaz burutu ziren bilketa eta azterketak; edota deitura-lanketen eta heraldikaren inguruan burutu zen lanketa.

Lehen olatuaren hainbat oihartzun suma daiteke zerrenda honetan. Herri-kirolei emandako bultzada, esaterako, aipatu den gisan, Lore Jokoetan bertan abiarazi zen. Eta XIX. mende bukaerako kultur aldizkarietan murgilduz gero, errez samar topa daitezke euskal kanta zaharrei, musika-tresnei, heraldikari, deiturei, antzinako instituzio juridikoei, edota arkitekturari buruzko testuak. Jorratu zen gaitegiaren inguruan, bada, jarraidura bat emango da XIX. mende bukaerako Pizkundearen lehen olatua eta XX. hasierako bigarren olatuaren artean, bigarren honek lanketa zientifikoago bat, mugimendu egituratuago bat eta proiektuaren janzkera nazionalista bat ekarri bazituen ere.

³²⁵ Hauek dira bertsolaritzari erreferentziaren bat egiten dioten hitzaldien inguruan topatu ahal izan diren testuetariko batzuk: *El Pueblo Vasco*, 1918/IV/02, 3 or., 'Las conferencias de Euskal Esnalea. La obra de "Bilinch"; *La Baskonia*, 1918/X/20, 45 or., 'Poesias y Poetas Baskos/Conferencia del dr. Dobranich', R.E.; *El Pueblo Vasco*, 1930/IX/07, 5 or., 'Conferencias de Apraiz, Padre Donosti y Lecuona'; *Le Courrier de Bayonne*, 1931/IX/17, 1 or., 'Au musée basque. Conférence avec auditions sur la musique basque'; *El Día*, 1931/XII/01, 5 or., 'Texto íntegro de la bellísima conferencia pronunciada por "Dunixi" sobre Indalecio Bizcarrondo'; *El Pueblo Vasco*, 1935/I/18, 1 or., 'Conferencia de Luis de Jauregui'; *La Tarde*, 1935/VII/16, 1 or., 'Revoloteos/Letras vascas (Otto Wundtek hitzaldia bertsolaritzaz)', *Atxerre; Eskualduna*, 1941/IV/11, 2 or., 'Baiona. Bi ore gocho' (Lafitteren hitzaldia). Liburu iruzkinduak, aldiz, Mujikak Fernando Amezketarrari buruz idatzirikoa, Iztuetari buruzko bat, Salaverriak Iparragirreari buruz argitaraturikoa eta Zubimendiren bertso-jarriak eta kronikak lirarteke.

³²⁶ Ik. II.III FIKZIOA II

Zalbideren zerrendan ez da falta bertsolaritza ere. Honela dio donostiarrak: “Bertsolaritzari, agergune eta jardungai berriak erantsiz, emandako bultzada, orobat, mende-hasiera horretakoa da” (1988: 400). Ikerketa honetan luze eta zabal azaldu denez, ordea, bertsolaritzaren modernizazioa XIX. mendeko Lore Jokoetan abiarazi zen. Izatez, ziklo berriko eragile garrantzitsuena izan zen Jose Ariztimuño *Aitzolek* berak aitortu zuen aurrekari honen garrantzia: ‘Concursos de bertsolaris’ (Renovando Costumbres de antaño)’. Testuaren gorputzean Manterolaren Lore Jokoei egiten zien erreferentzia: “Cuando los primeros iniciadores de nuestro renacimiento literario en Donostia trabajaban a fomosos por hacer brotar las primeras floraciones literarias del euskera, comprendieron, sin duda, el valor y la significación literaria del ‘bertsolari’” (Ariztimuño, 1988a: 95)³²⁷. 1930eko abenduaren 21ean Toribio Alzaga antzerkigilearen omenez egin zen entseguaren ondotik idatzi zuen testua eta Kataluniako Lore Jokoak ere aipatzen zituen, hain zuzen, Manterolaren ekarpenak Katalunian Joko hauei zaiena bezalako estimua izan beharko lukeela nabarmendu nahian:

“Esa generación catalana, que inició el renacimiento literario organizado, es la que vivió alrededor del año 1858, fecha en la que se inauguró la institución de los Juegos Florales de Cataluña. Años más tarde, en 1877, se organizaban en Donostia, por su Ayuntamiento, los Juegos Florales Eúskaros. Tan venerable, como para los catalanes aquélla generación, debe ser para nosotros la guiada por el caballero vasco don José de Manterola (...)” (id.: 96-97)

1877ko data ez da zuzena, Donostian ospatu ziren lehen Lore Jokoak 1879koak baitira. Bestalde, Elizondoko Lore Jokoak eta Abbadie ere aipatzen ditu, baina azken hau ez aurrekari bezala, behar lukeen gisan. Hutsune hauek gora behera, ordea, argi zeukan Donostiakoak, Labordek azaltzen duen bezala, planteamendu ezberdinak ekarri zituela:

“Este consistorio de los Juegos Florales Eúskaros había organizado el año 1877 el concurso de ‘bertsolaris’, tal como la Sociedad ‘Euskaltzaleak’ lo ha hecho revivir el día 21 de diciembre (...) El concurso organizado por el Consistorio donostiarra difería totalmente de las contiendas de ‘koplakaris’, que Antonio de Abbadie organizara más tarde en Mauleón y la Asociación Euskara de Nabarra en Elizondo, en 1880. En estas contiendas dejabase ancho campo a la inspiración medida del ‘bertsolari’.

En cambio, en los certámenes organizados por el Consistorio (...) se recurría a todos los resortes para valorar la inspiración y arte versificador de los ‘bertsolaris’. Diferentes medidas de versificación, asuntos imprevistos, rima y consonante obligados. Esta contienda enardecía al ‘bertsolari’ o inyectaba sacro fuego en su imaginación...” (id.: 97)

Iraganetik etorkizunera luzatzen den bidea marraztuz borobiltzen du testua tolosarrak:

“Después de muchos años ha vuelto a resurgir el ‘Bertsolarien Gudea’ (...) merced al dinamismo del vigoroso ‘Euskaltzaleak’. Se han instaurado las normas tradicionales. El protocolo de antaño será en adelante el de hogao. El concurso que con motivo del homenaje del genio del teatro vasco, señor Alzaga, tuvo lugar, ha sido un ensayo. Fecundas enseñanzas han brotado de el (...)” (id.: 97)

Gandarak jarraiduraz ematen duen definizioari ezin hobeto egokitzen zaizkion hitzak: “(...) iragan partekatua, orainaldi bateratuaren eta etorkizunera begiratzen duen proiektu komunaren bizipen jarraitua (...)” (Gandara, 2015: 128).

³²⁷ Prentsan argitaratua da testua: *Euzkadi*, 1931/I/10, ‘Concursos de bertsolaris’ (Renovando costumbres de antaño), Jose Ariztimuño *Aitzol*. Eskaini den erreferentzia Aitzolen lanen bildumakoa da.

5.6.2 Bertsolaria jantzi nahian: jaso nahiaren jarraidura

Bigarren ziklo honek lehenengoarekiko duen jarraidura, ez da, noski, Aitzolek aurrekariaren lanari jarraitasuna emateari buruz egiten dituen aipamen literal hauetara mugatzen.

Artikulu berean aurreko zikloan nabarmendu izan diren hainbat ardatz berreskuratzen ditu tolosarrak. Honela, jada azaldu den gisan³²⁸, aurreko zikloan bertsolaritza kultura jaso zeritzonarekin parekatzeko xedez antzokira eraman eta literatura genero gisa garabide bat eman nahi izan bazitzaion (Amezaga, 1994: 45; Bidart, 1998: 276; Gabilondo 2016: 192-193; Laborde, 1998: 602-618) beste horrenbeste proposatuko du Aitzolek:

“Se ha dicho que el ‘bertsolari’, como floración genuina popular donde mejor encuadra es en el libre paisaje del campo. Pero, ¿andarían desacertados los que creyeren que nuestros improvisadores no pueden lucir sus aptitudes en un programa literario-artístico, sin que nada desmerezcan del valor estético de una velada culta y amena?” (Ariztimuño, 1988a: 96)

Ikuskizun modernoaren parametroetara egokitzeko ahalegina aurretikoa dela azpimarratu izan da ikerketa honetan, baina Aitzol izango da termino horiek espreski lehen aldiz erabili zituen eragilea: “¿Y por que nuestro ‘koplakari’, discretamente tocado con arcaicas vestiduras, resucitando un motivo legendario, suscitando una contienda de amor, iluminando los futuros senderos de la raza no ha de ser considerado como *motivo espectacular y cultamente literario* [azpim. neurea]?” (id.: 96).

Smithek azaltzen du ohikoa dela nazionalismoak popularra kultura jasoarekin parekatu nahia, eta ahozkoa idatziarekin parekatzeko ahalegina ere eman daitekeela gaineratzen du:

“El nacionalismo, en cuanto ideología y simbolismo, legitima toda configuración cultural, apelando a los intelectuales dondequiera que estén para que transformen las culturas «inferiores» en culturas «superiores», las tradiciones orales en escritas, con el fin de preservar para la posteridad su fondo de valores culturales insustituibles.” (1997: 10)

Zalbidek ere, bigarren olatu honen ekarpenak zerrendatzerakoan, ildo horretan koka daitekeen metafora bat eskaintzen du euskal kultura popularra ‘handiki-soinekoz’ jantzi zela dioenean: “Euskal gizarte berriari kultur jatortasun sendoa emateko balio zezaketen behialako dantza-moldeak eta musika-tresnak, aho-literaturaren ondasunak eta herri-kantuak ardua bereziz jaso, noiz edo noiz "ondu" eta, "handiki-soinekoz" jantzi ondoren, euskaldun-euskotarren artean ezagutarazi eta indar berriz berrezartzeko saio bereziak egin ziren” (1988: 399). Aitzol, ordea, bertsolaria jantzi behar hori, lehen artikulu honetan behintzat, literalki planteatzera iristen dela dirudi. Azaltzen duenez, saioa gustatu zaio, altxorra deskubritu du, baina bilgarriak ez du komentitzen: “Admiración intensa y enajenadora produjo el concurso de bertsolaris (...) Sin embargo, el acto fué la revelación eléctrica de un tesoro envuelto en rústicos y plebeyos celajes” (Ariztimuño, 1988a: 95). Aldaketa egin behar:

“Había de reducirse todo a variar y retocar detalles insignificantes. Crear el ornamento del vestuario, cambiar radicalmente la prosaica decoración de una sala anodina por un paisaje impresionante y apropiado del asunto y dar cierta movilidad, muy poca y discretísima a la mímica declamatoria del bertsolari.” (id.: 95)

Paisaia ikusgarria dekoratu gisa, bertsolariaren dramatizazioa, antzinako trajeak... Deigarria suertatzen da Aitzolek proiektatzen duen ikuskizun honek eta Chahoren Aitorren kondairako

³²⁸ Ik. 4.2.2 Kultura jasoarekin parekatu nahian, ikuskizun moderno

bardoak eskainirikoak dituzten antzekotasunak: “¿No sería un motivo ornamental y de evocación artística el que en la escena aparecieran los románticos trovadores de doradas guedajas, que con finísimas voces nos relataran las gestas legendarias de la raza?” (id.: 95)³²⁹

Mende hasierako garbizalekeriak eragindako mesprezuaeren arrastoak ere nabari zitezkeen Aitzolek bertsolaritzaz idatziriko testuetan. Honela, 1930eko maiatzaren 6an Euzkadi egunkarian ‘¿Desaparecera el bertsolari? (Una inquietud...)’ izenburupean bertsolarien zabarkeria dela medio bertsolaritza galtzearen dela mahaigaineratzen du:

“Sin parar, por la pendiente de la decadencia euskérica, vemos aún hoy en día que esta nuestra simpática y peculiarísima institución de los bertsolaris va decayendo en una ramplonería y plebeyez cada vez más pronunciadas, yendo camino de su total extinción.” (Ariztimuño, 1988a.: 20)

Bertsolaritzak ez zuen horrelako arriskurik bizi. Zavalak dioen bezala mende hasieran bertako intelektualek baztertu egin zuten baina bertsolariek ez zuten intelektualen beharrik euren jardunarekin jarraitzeko:

“(...) el bersolarismo es fuerte; tiene seguridad en sí mismo. No vive mirando a lo que los extraños puedan decir (...) brota porque es una necesidad en el pueblo vasco: necesidad de cantar en el bersolari y necesidad de escuchar en la masa. Existía siglos antes de que le aplaudieran los cultos. ¿Por qué habría de callar ahora que le vituperan? El bersolarismo seguirá adelante en su camino.” (1996c: 225-226)

Antzokiak itxi zitzaizkionez sagardotegietan jarraituko dute bertsotan, eta sagardotegietako bertsolaritza hori da hain zuzen Aitzolen errefusa eragiten duena:

“Ya no cantan los bertsolaris en el campo ni en la heredad, sino que se esconden al calor del vino en los tugurios insanos de las tabernas. Y cuando salen de ellas oímos con dolor que sus canciones huelen a mosto y hieden, alguna vez, a podredumbre...” (Ariztimuño, 1988a: 20-21)

Aitorren kondairako bertsolariarena bezalako eszenaratzerik gauzatzera ez da iritsiko tolosarra, baina bai eutsiko dio bertsolaria sagardotegitik atera eta gorbatarekin apain-apain aurkezteko bere setari.

Ziklo honetan tolosarrarekin batera bertsolaritzaren ideologo garrantzitsuena izango den Manuel Lekuona ere bertsolaria jantzi beharraz ari zen *Argian* ‘Bertsolariaren Eguna’ izenburupean, 1935eko lehen finalaren bezperatan:

“Maite izan. Eta goratu. Goratu. Esanez eta egitez. Jaso, itz batean. Jaso, batez ere bertsolariaren kultura. Landu, landu bertsolarien gogua. Erakutsi bertsolariei euskera garbia. Itzak, itz garbiak (...) Erakutsi batez ere Aberriaren edestia. Aberriaren ipuinak, erakutsi beren olerkietan erri-jakintza bear bezala erabiltzen. Gaia eman. Gai goititu xamarra eman. Poema-gaiak ere bai. Ia orain arteko zenbait gaiaz gaiñera goitituagoak ere kantatzen dizkiguten.” (Etxezarreta, 1993: 63)

Tonuak, agerikoa denez, ez du tolosarrarenarekin zerikusirik. Ekintzailearen hitzak dira bata, eta ikerlariarenak besteak. Bestelako errespetu bat erakusten du Lekuonak:

“Bañan gaiak ematean, Jaungoikoagatik! Ez galduarazi len duten etorri jatorrik. Len duten ixuri garratx bixirik, ez Jaungoikoagatik moteldu (...) ez

³²⁹ Ik. 4.4.1.3 Aitorren kondaira bertsolari baten ahotik

dezatela galdu beren nortasunik. Nortasunik (...) gabeko aunditasunak baño ondotoxoz gehiago balio du nortasun apur-apur batek ludiko kultura perietan... Nortasunik gabeko aunditasuna berriz, gaurko ogi ta bigarko gose. Utsa..." (id.: 63)

Baina, finean, proiektu beraren baitan ari dira biak.

5.6.3 Jarraidura bilketaren eta hedabideratzearen ardatzetan

Testuinguruari eskainiriko azpiatalean ikusi den bezala, XX. mende hasiera honetako euskal kulturgintzak garrantzia handia eman zion euskarazko prentsaren sustapenari. Gizarte modernora egokitzeko hedabideratzeak duen garrantziaren kontzientzia hori bertsolaritzaren eragiletzan murgilduko direnek ere izango dute, noski.

Aurreko zikloko proiektuan hedabideratzea oinarritzko ardatz bat izan zen, beraz, jarraitasun bat emango zaio ardatz horri ziklo honetan, baina masa kultura lehen urrats batzuk ematen hasi den testuinguru batean ahalegin hori kontzienteagoa eta indartsuagoa izango da.

Ziklo honen gailurra suposatuko duten 1935 eta 1936eko Bertsolari-Guduen eragile garrantzitsuenek, lotura estua izan zuten kazetaritzarekin. Proiektuaren liderra, Jose Ariztimuño Aitzol, *El Día* egunkariaren eta *Yakintza*, *Gure Mixiolari* eta *Illuminare* aldizkariaren sortzaile izan zen, hiru aldizkarietan zuzendari lanetan eta egunkarian euskal atalaren arduradun ibili zelarik. Kolaboratzaile garrantzitsua izan zen baita EAJren hedabide garrantzitsuenean, *Euzkadi* egunkarian. Txapelketak abiarazteko pausoan funtsezko paper bat jokatzeaz gain lehenengoan gai-jartzaile eta aurkezle lanetan aritu zen Joseba Zubimendik Ander Arzelus Luzearrekin batera irratiko ateak ireki zizkion bertsolaritzari. Zubimendi *El Pueblo Vasco* egunkariko euskal atalaren arduraduna ere izan zen, eta kolaboratzaile garrantzitsua *Argian* edo *Euzko-Deyan*. Aitzolen *Yakintza* aldizkarian argitaratuko zituen txapelketen bi kronika luzeak bertsolaritzaren historiako funtseko dokumentu bihurtuko dira, liburu formatuan berrargitaratu ondoren. Eta Luzear, berebat, *Argiaren* sortzaileetako bat izan zen, aldizkariko zuzendari ere bai tarte batez, eta Aitzolek *El Dían* zuzentzen zuen euskal ataleko erredaktore nagusi.

Manuel Lekuona edo Teodoro Hernandorena bezalako beste bi izen garrantzitsuk ere, Aitzolen akuilu intelektuala bata eta akuilu praktikoa bestea, gehiago edo gutxiago garaiko hainbat argitalpenetan kolaboratu zuten. Hernandorenak lehen aldiz jaso zituen bertsolariak ikus-entzunezko batean berak zuzenduriko 'Euzkadi' filman.

Azkenik, Iñaki Eizmendi *Basarri*, 1935eko txapelketan txapeldun eta 1936koan antolatzaile, aurkezle nahiz epaimahaiko bezala funtsezko paper bat jokatutakoa, kazetaria izango da bertsolari bezainbeste, gerora hainbat bertsolarik jarraituko duten bidea irekiaz. *Euzkadi*, *Argia*, *El Día*, *Eguna* eta *Euzko-Deyan* idatzi zuen ziklo honetan, baita bertsolaritzaz ere, eta Zubimendi eta Luzearren irratsaioan ere kolaboratzaile finkoa izan zen, bertsoak ez ezik bertsolaritzari buruzko gogoetak eskainiaz.

Eragile hauen eskutik, prentsan bertsolaritzak duen presentzia kuantitatiboki nahiz kualitatiboki egonkortzea lortuko da ziklo honetan, aurrekoan lehen pausoak eman ondoren. Elkarriketa, soslaia edo bertsoen transkripzioan oinarrituriko kronika zabala estreinatuko dira eta estaldura mediatiko moderno bat emango zaie txapelketei.

Lore Jokoetako proiektuari eskainiriko azpiatalean ikusi ahal izan den bezala, zikloko eragile nagusiek hedabidetzeari ez ezik bilketari ere arreta berezia jarri zioten euren proiektuaren

oinarrizko egiteko gisa. Chaho eta Manterolaren kantutegiak aipatu dira bi figura hauek bertso-laritzaren lehen hedabideratzean jokaturiko paper garrantzitsuaren ondoan³³⁰.

Kantutegiaren bide honek beste hainbat gertakirekin batera ziklo honei hasiera ematen dion Azkuerenean (1918) izango du bere gailurra, eta aurreko atalean azaldu den gisan, Azkuek abiarazi zituen *Euskalzale* nahiz *Ibaizabal* aldizkarietan osagai oso garrantzitsua izan ziren bertso-jarrien lehiaketak eta bertsolarien pasadizo eta ateraldien generoa³³¹.

Aitzol izan zen Euzko Pizkundeko ziklo honetan bilketari arreta gehien jarri ziona. Honela, bilketarako deia egin zuen 1932an, eredu bezala Finlandian buruturiko egitasmo bat jarriaz:

“Esta colaboración de los patriotas euskaltzales puede conducirnos a conseguir lo que Finlandia ha realizado: archivar en un soberbio edificio más de medio millón de poesías, cuentos, leyendas y refranes populares finlandeses (...) Y ese edificio sería el mejor Museo y la Historia más interesante de la raza euzkeldun a través de los siglos.” (*Euzkadi*, 1932/VIII/24, La poesía popular y el alma de la raza (Iniciativa fecunda), Jose Ariztimuño *Aitzol*)

Eta ez zen aipamen puntual bat izan. Esaterako 1933ko irailaren 25ean Euzkadin ‘La poesía popular letona en el renacimiento nacional’ izenburua zeraman testuan berriro ere bilketaren gaiari helduko dio, Finlandiako eredu Letoniakoarekin osatuz eta zereginerako Kataluniako Patxot institutua bezalako erakunde bat sortu beharko litzatekeela mahaigaineratuz.

Antonio Zavala izango da gerora, 1955ean bere bilketari ekin zionean, Aitzolen bilduma Aldundiaren atxiboetatik berreskuratu zuena:

“Aitzol zanari, guda asi eta emendik aldegin bear izan zuanean, beste kezka askoren artean noski, bere bertso-bildumarekin zer egingo zuan bururatu zitzaion, eta onelatsu pentsatu zuan: «Nik nere bilduma ori nun utziko det? Politikarekin gutxien kutsatutako etxea Diputazioa izango da, dudarik gabe. Seguruena or egongo da. Berari entregatuko diot” (Zavala, 1997a: 171)

Azaltzen duenez, 1932an hasten da bilketa, Aitzolek prentsaren bidez lehen dei hori egin zuen urtean, eta urtero burutuko zen gisako dei bat, Euskal Herri mailakoa, 1936ra arte:

“(…) urtearen garai berdintsuan deia egiten zan andik eta emendik bertso eta kantak bialtzeko; eta ango eta emengo jendeak zintzo erantzun ere bai (...) Bidasoaz onunzko probintzi geienetatik bada zerbait. Gipuzkoatik geiena; Bizkaitik eta Naparroatik ez gutxi; Arabatik ere zerbait; eta baita Lapurditik ere.” (Zavala, 1997a: 173)

Jasotakoa altxorra dela azaltzen du, baina bertso-paperak ez bildu izana botatzen du faltan:

“Zergatik etzituan inprentako bertso--paperak eskatu? Bearbada aurre-iritzi oker bat zualako. Erri literatura edo aozko literatura izanik, agian zera usteko zuan: jende zaarraren burua beste bizilekurik etzeukala arek, eta iturri bakarra bera zala” (Zavala, 1997a: 174)³³²

Ez da tolosarra garaian bilketaren kezka erakutsi zuen bakararra, ezta dei hori egin zuen bakararra ere. Hainbatetan topatu ahal izan da gisakorik, esaterako, Lauaxetak argitaraturiko

³³⁰ Ik. 4.8.2 Bilketa eta hedabideratzea

³³¹ Ik. 4.5.5 Bertso-laritzaren euskarazko kazetaritzaren lehen pausuetan

³³² Ikusi den bezala Aitzolek ongi ezagutzen zituen Europan kultura popularraren inguruan garatu ziren teoriak eta egitasmoak eta badirudi kasu honetan bere ekarpenaren kaltetan izan zela, Zavalak aipatzen duen aurreiritzi horren atzean Europako Erromantizismoak kultura honen inguruan eraikuriko topikoak aurki baitaitezke: primitibismoa, esentzializazioa eta abar.

hau: “Pozik jasoko doguz biladu gura dauskubezan bertzuak. Antziñatik entzun dogu batek badiñardubela bertzuak batzen, baña eztira agertzen. Aldija ostera aurrera dua. Premiña dogu arintxu egiteko” (*Euzkadi*, 1931/V/26, 1 or.. ‘Azalpenak’. Urkiaga, Esteban Lauaxeta).

Izatez, bilketaren alorrean garai honek emango dituen ekarpen berritzaileenak Makazagaren *Bertsolariya*, bertso-jarrien bilduma hedabideratua dena, eta Zubimendik prentsan argitaraturiko kronika luzeen oinarrian dagoen 1935 nahiz 1936ko Bertsolari Guduetako bat-bateko bertsolaritzaren zuzeneko transkripzioa izango dira.

5.6.4 Ikur eta eroale

Aurreko zikloan bezala euskal nortasunaren ikur gisa ere funtzionatuko du bertsolariak, fenomenoaren antzinatasunari, originaltasunari eta herriaren ahots gisa betetzen duen funtzioari erreferentzia eginez. Ikur izaera horri baino kasik arreta gehiago jarriko zaio, ordea, ideologia abertzalearen bozgorailu bezala bete dezakeen paperari. Honela dio, esaterako, Lauaxetak:

“Bertsolariak euren barruko sua agertzen dabenean, erria bizkor daroe. Igandean Elorrión ikusi genduan zelako indarra daukoen bertsolariok abertzaletasuna ereiteko, Euzkadiren maitasunean jentea piztuteko. Bertsolariak ez daukoe uriko ederkariak daukozan zidorrak. Jentearen aurrean soinutsik paraten dira, gogo utsik. Eta eusko gogoan indarririk asko dago, edertasunik lar, entzuleai zirkin eragitateko.” (*Euzkadi*, 1931/V/26, 1 or.. ‘Azalpenak’. Urkiaga, Esteban Lauaxeta)

Bideari potentziala ikusten dionez propaganda abertzalerako olerkariak egiten duten lanean bertsoaren moldea erabiltzea gomendatzen du jarraian, gerora, ikusi den gisan, Aitzolek berari eta belaunaldi hartako hainbat olerkariri eztabaida artean eskatuko zien bezala³³³:

“Euzkotarrakitsuak izan dira bertsoak entzuteko. Erromeri batera jo egizu, an ikusiko dozulako zelako pozagaz dagozan bertsolariai entzuten. Ez da izaten iñork ez dakien gauzarik diñoalako, danen nabaritasunak suaz agertzen dauzalako baiño. Olerkari diran batzuk egin bear leukeez bertso saillak, gero abots ona daukoen batzuk jaietan oguzi dagiezan. Oba da bertsolariak berak egitea, baiña larregerik ez dagoan ezkerero, onexetara lagunduko deusagu aberriari.” (*Euzkadi*, 1931/V/26, 1 or.. ‘Azalpenak’. Urkiaga, Esteban Lauaxeta)

Bestalde, Kepa Enbeita bertsolaria ere aipatzen du, bertsolariak herriaren ispilu gisa burutu lezakeen lanketaren eredu gisa:

“Orain alditxo, Enbeitatar Kepa ospatsua zelaietan agertzen zanean, zeruko igarle bat baletorran paratzen ziran guztiak. Bertsolari orren agotik aberriaren suak urteten eban (...) Bertsolarien agotik neurtitzetan kanpora etorzan aberriaren miñak, abendaren ezilkortasun naiak, erriaren askatasun zaleak. Bakoitzak barruan eukoza leiak, oldozmenak, edertoago agertzen ziran bertsolarien agotik.” (*Euzkadi*, 1931/V/26, 1 or.. ‘Azalpenak’. Urkiaga, Esteban Lauaxeta)

Gerora hainbat bertsolari belaunaldi eman dituen klan garrantzitsuen lehena katebegia da Kepa Enbeita (1878-1942) muxikarra. Abertzaletasun jeltzalean militatu zuen lehena bertsolari

³³³ Ik. 5.2.4.3 Bertsolaritzara oreka komunikatiboaren bila

ezaguna izan zen eta lotura honek erabat markatu zuen bere bertso ibilbidea³³⁴. Mitinetako saioetan espezializatu eta bestelako saioak alde batera utzi zituen eta 1935eko nahiz 1936ko Bertso-Guduetan ez zen parte hartzera ere iritsi. 1935eko finalaren egun berean, ordea, berriro ere eredu gisa aldarrikatuko du Lauaxetak: “Hoy, que se reunirán varios bertsolaris de altura e ingenio, queremos que el ejemplo de Enbeita les sirva de alimento y de lección. Nadie como este buen bizkaino pudiera señalarles un camino” (*Euzkadi*, 1935/I/20, 1 or.. ‘Ante la fiesta de hoy/Maestro de bertsolaris’. Urkiaga, Estaban *Lauaxeta*). Enbeitaren bidea seinalatzerakoan ez da iritzi pertsonal bat ematen ari olerkaria³³⁵. Izatez, lehen esaldiaren aditza pluralean jokutzen du, txapelketaren antolatzaile guztiak, muxikarra bezala, militantziako kide baititu. Eta lotura hori nahiz fede kristauarekikoa dira hain zuzen eredugarritzat seinalatu nahi diren bi alderdi garrantzitsu³³⁶.

Bertsolaritzaren instrumentalizazio hau ez da berria. Azaldu denez, Karlistadetan karlisten nahiz liberalen propagandarako bitarteko nagusia bertso-paperak izan zirela, eta Lore Jokoek abertzaletasun berriaren sorreran izan zuen garrantzia. jarri ohi ziren askotan. Jarraidura bat emango da, beraz, alor honetan ere, baina beste dimentsio bat emango dio abertzaletasunaren bulkadak. Dorronsorok, esaterako, honela dio txapelketak abiarazi zituen mugimenduz: “(...) EAJ-PNVren presentzia garbi sumatzen da bertsolaritzaren berrikuntza horretan, Aitzolen eraginaz gain, Euskaltzaleak elkartea tartean zebilen, eta EGI. Bi erakundeok Bertsolari Egunaren antolaeran parte hartzen dute eta, gero, epaimahaian ere bai (...) Ez da dudarik, hor EAJ-PNVren pentsaera dabilela.” (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 10).

Zentzu honetan, txapelketak ekarritako aldaketan eta bertsolaritzaren instrumentalizazioaren arteko lotura egiten du Fredi Paiak. Desafioekin alderatuz gai-jartzailearen figurak hartzen duen garrantzia eta bertsolari bakoitzak eskain dezakeen bertso kopuruaren murrizketa aipatzen ditu, biak ere bertsolariaren mezuaren kontrolerako mekanismo gisa:

“Bertso kopurua gaur egungo kopuruetara ekarri zuten. Gaiak zehaztu zituzten. Gai-jartzailearen irudiak zentralitatea hartu zuen. Bertsolari kopurua sekula baino handiagoa zen. Helburua bertsolari asko biltzea zen, eta txapel bakarrera neurtu, inoiz baino bertso gutxiagotan (...) Helburua koplariet euren mezu politikoa indartzea zen” (Paia: 2011: 104)³³⁷.

³³⁴ Garziak azaltzen duenez, lehen aldi batean Txirritaren gisako bertsokera zirtolariarekin puntako izatera iritsi zen, 1903an Getxon jokaturiko lehiaketa batean Pello Errota edo Txirrita bera garaitzea lortu zuelarik. Sabinoren doktrinak ezagutu ondoren, ordea, erabat aldatu zuen bere bertsogintza: “Abandoning the simple, direct style of his earlier period, he attempted to apply Arana’s linguistic teachings to the art of sung verses. The result was a loss in the freshness and vigor of his verses, which became more artificial, elaborate, and ideological. Kepa Enbeita participated in nationalist rallies and his verse speeches were a huge success.” (Garzia, 2007: 88)

³³⁵ Garaiko beste olerkari garrantzitsu batek ere, Nikolas Ormaetxea Orixek beste bertsolari guztien gainetik nabarmendu nahi izan zuen Enbeita 1927an argitaratu zuen ‘Euskal literaturaren atze edo edesti laburra’ lanean bertsolaritzari eskaini zion atalxoan: “Gaurko bertsolarien artean aipagarri dugu Enbeita Muxikarra” (1991: 17).

³³⁶ Garziaren aburuz Enbeitaren bertsogintzak freskotasuna galdu zuen bere instrumentalizazio ideologikoarekin, baina aldi berean, bertsolaritza modernoaren aurrekari bat izan zen honen indar komunikatiboaren inguruan burutu zuen lanketa kontzientean: “Enbeita knew exactly how to make the most of the emotional elements of his art (melody and voice) in order to reach out effectively to a public (...) Kepa Enbeita is in this sense a modern bertsolari, the precursor of the bertsolaritza of our era, not so much as regards style and ideology, but definitely in relation to intentions and objectives.” (2007: 90)

³³⁷ Paiak desafioa fondoko proba zela dio, eta txapelketa, aldiz, fondoko proba dela (2011: 101-102). Esnalek desafioetan irabazlea, ahari jokuan bezala, zutik irautea lortzen zuena zela dio, eta Lore Jokoetako sariketetan egokitasuna gisako irizpideak gailendu zirela (Esnal, Egaña eta Sarasua, 2002: 810). Batek nahiz besteak aipatzen dituzten aldaketetan Ongek Lincoln eta Douglasen buruz buruko eztabaidetatik telebistako hauteskunde kanpainetarako eztabaidetara emandako aldaketekiko antzekotasunak suma daitezke. Ik. 3.5.3 Bertsolaritza hedabideratzeko bide gisa

Bestalde, Lasak bertsolariak EAJren propaganda ekitaldietan jokatu zuten paperaren garrantzia azpimarratzen du, 1936ko otsaileko hauteskunde kanpainari erreparatuz: “Bertsolariak Gipuzkoako EAJren ia agerraldi politiko guztietan parte izan ziren; 28 bertsolari ibili ziren denera, harat-honat politikoen bidaide, botoa eskatze lanetan. Hona zenbait, denak ere finalistak: Nekezabal, Zepai, Txapel, Basarri, Ezeiza, Uztapide, Kortatxo, Iñaki Alkain, Etxeberria Mendillegi...” (2008: 597). Bat bateko saioak horrelako modu masiboan baliatzea berritzailea izan zen, Lasaren iritziz: “(...) Inoizko kanpaina politiko batean gertatu ez zen berrikuntza deigarria izan zen horiena. Bertsolarien presentziarekin, helburu bat baino gehiago lortu nahi izan zituen nazionalismoak: ekitaldi politikoari kutsu kulturala itsatsi, bertsoa eta abertzaletasuna identifikatu, bozka euskalduna eta baserritarra erakarri...” (id.: 597).

Gerora ere gisako fenomenoak hainbatetan errepikatuko dira. 1960-70 hamarkadetan, esaterako, ‘bertsolaritza soziala’ deritzon fenomenoak emango da, bertsolariak frankismoaren kontrako protestaren bozeramale papera hartzen dutenean. Edota 1980ko hamarraldia eta hurrengoetan ere, aurrerago ikusiko denez, taulatu gainean burutzen duten jardunean ezker abertzalearen posizioekin lerrokatuko dira bertsolari asko. Jeltzaletasunetik hurbil aurkitzen diren zenbait sektorek planteamendu politiko jakin batzuren menpeko instrumentalizaziotzat salatuko dute egoera. Norbait izatekotan, ordea, Jeltzaleak izan ziren bide hori estreinatu zutenak: “Zalantzarik gabe, Monzon, Irazusta, Pikabea, Irujo eta Lasarte hautagaien edo Hernandorena bezalako hizlarien ondoan bertsolariak ikusteak esanahi berezia zeukan: jeltzaletasun ofizialak bertsolariari egundoko garrantzi sinbolikoa ematen zion jada, eta berebiziko herri erakarmena aitortzen zion.” (Lasa, 2008: 597)

5.6.5 Berrikuntza: bertso-eskolaren eta elkarrearen ideien lehen zantzuak

Aurrekoaren jarraidura edo garapena ez ezik berrikuntzak ere ekarriko ditu garaian garaiko proiektu bakoitzak. Kasu honetan, nola ez, Aitzolen, zikloko ideologo nagusiaren testu batean, topatu da ordura arte entzun gabea zen musika:

“Nobilísimo empeño el de ‘Euskeltzaleak’, que para dignificar y ennoblecer al bertsolari se propone fundar una Sociedad para suscitar vocaciones de jóvenes improvisadores grabándoles los ideales que engrandezcan su estro, para que esta nuestra poesía popular se desborde sobre la alegre campiña (...) cuajada de lores y sobre las muchedumbres vascas, iluminadas por los rayos solares de un vigoroso renacimiento” (*Euzkadi*, 1930/V/6, ‘¿Desaparecerá el bertsolari? (Una inquietud...)’)

Bistakoa da bertsolariaren instrumentalizazioak gehiago kezkatzen duela transmisioa baino. Baina ‘fundar una Sociedad para suscitar vocaciones de jóvenes improvisadores’ dezente geruratzen zaizkio elkarrearen-bertso-eskolaren ideiarei.

Lauaxeta, zerbait gehiago gerturatzen da:

“Gaur bere bertsolari onak daukoguz, Bizkaikuari bakarrik nagola, ona Uriarte, Enbeita gastia, Zidorra, ‘Eulia’ eta abar. Baña bertsolari guztiokaz bazkun bat egin bihar geunkela uste dot, gure laguntasuneaz barriak sortu daitazan (...) Gazte asko dogu orretarako yayuak diranak, baña baserriko bakartasunian ezin dira umotu. Eureka eldu gaitezkan, eta bertsolari ona ixateko bidiak erakutsi (...)”. (*Euzkadi*, 1931/V/26, 1 or.. ‘Azalpenak’. Urkiaga, Esteban *Lauaxeta*)

Bertso zaharren bilketaren gaia ere aipatzen du baita, baina oraingoan bertsolariaren ikasketarekin lotuz: “Tamalez eztago bertzo zarrakaz idazti bat. Idazti orretan ikasiko leukie

ze erataraz antziñakuak jotzen eben. Eredu, ikasbide izan daitezkan bertzo zarrak, len bai len liburu bat egin biarko dogu (...)”.

Badago Lauaxeta baino pauso bat harago iristen denik ere. Honela, Beñat Harrigaitzek *Euzkadin* ‘Pertsulari gazter’ izenburuarekin 1935/VII/06an argitaraturiko artikuluan Pierre Lafittek kaleraturiko ‘Koblakarien legea’ lanaren berri ematen du eta bertsoarako oinarritzko ikas-material gisa aurkeztu: “Pertsulari gazteak ikhas ditzala lehenik bere legeak: gerochago bertze liburu gothor batean irakhurriko ditu (...) nola aldatu diren legeak mendetik-mendera, ez othe litakeien bertzelako neurthitzik egin (...)”. (*Euzkadi*, 1935/VII/06. ‘Pertsulari gazter’. Harrigaitz, Beñat). Bertsozintza, bada, ikasketaren bidetik garatu daiteke, edozein arte edo ofiziorekin gertatzen den gisan: “(...) pertsulariak behar du bere eginbidea ezagutu, bere ofizioa ikhasi. Gostua, jainua baitezpadako dohainak dira segurki: ez dute ordean kalipurik asko berek ofiziale on baten egiteko. Orok eskola behar, ala bederen apendizgo pochi bat; hos, erakhuslerik gabe, jakintasan guti”. Eta Lafittek esaten dituenak bertsoen epailetzarako ere baliozgarriak izan daitezkeela gaineratzen du, rol hori ere garabidean jarri nahi denaren seinale: “Gure iduriko, sei kapituluño horiek laburzki emaiten dauzkute pertso ontzeko konseilu zuhur guziak, bai eta irakasten nola behar diren bertzen koblak jujatu”.

Lafitteren artikulua hori *Gure Herriak* argitaratu zuen 1935ean, gehigarri gisa. Berrito ere bertsolari gazteen harrobia eta jaio ala egin dikotomia harremanetan jartzen ditu, dikotomiari 1980ko hamarraldian emango zaion irtenbidea aurreratuz:

“Askotan galdegin daukue zerbait lege bazenetz koblakari berrien gidatzeko, ala zerutikako dohain batek behar zituenentz nolazpait argitu (...) Jainua, jiteak emaiten du, beraz Jainkoarengatik heldu da. Jakitatea, parte jitetik, parte ikhasetatik.” (Lafitte, 1935: 1)

Jarraian, bertsozintzaren mekanismoak azaleratzeko ahalegina egingo du 1980ko hamarraldiaren hasieran bertso eskolen sorrerarako funtsezkoa izan zen Amurizaren ekarpenaren aurrekari xume gisa. Honela, gaiari nola heldu aholkatzen du: “Hoberena beraz chede edo mugen finkatzea, jakiteko nundik has, zertarik burura, eta nola antola arteko mami balios hura” (id.: 4); saioari indartsu ekitea garrantzitsua dela azpimarratu: “Hastapenak munta handia du: harek emaiten diozkate kobleri beren abiadura, usaina eta ozentasun berezia” (id.: 4); edota indartsuago amaitu beharra dagoela bistarazi: “Bazkarietan berdin, arno eta jateko bikainenak azkenik” (id.: 5). Eta besteak beste³³⁸ gaiaren tonuari ongi egokitzen zaion doinua aukeratu beharra seinatzen du, neurria doinuak ezartzen duela gaineratu eta neurririk ohikoenen zerrenda eskaintzeko (id.: 6).

Lafitteren artikulua honetan, baina baita Lauaxetaren, Aitzolen edota Harrigaitzen testuetan ere, bigarren olatu honetan eskolatzeak herri kulturaren modernizazio eta biziraupenerako hartu duen garrantziaren itzala nabari daiteke. Kezka hau berria da XIX. mende bukaerako olatuarekin alderatuz, aurreko belaunaldian bertsolariaren basati onaren mitoaren lilurari jartzen baitzaio azpimarra, jada ikusi den gisan. Eskolaren inguruko bulkada berriak, bada, bertso-eskolaren ideia modernoaren atariraino daramatza eragile hauek, bertsolariaren bilakaeran funtsezkoak izan diren eskola hauek sortu baino mende erdi bat lehenago, eta bertsolari elkarte baten aipamena ere egiten da, egitasmoaren balizko sustatzaile gisa.

³³⁸ Garaiko garbizaletasunaren korronteari jarraiki, moralitasuna zaintzea ere galdatuko du: “(...) gauza zikhinak ez ditu aiphatuko, edo neholaz aiphatu gabe ez baditu uzten ahal, polliki eta inguruka mintzatuko da hetaz (...)” (id.: 10); baita erderakadak saihestea ere: “Bainan kasu! Eskuaraz ari den koblakaria ez dadila othoi frantseserak lerra, bere hizkuntza eder ustez (...)” (id.: 11). Errimatu beharraz (‘koblatu’ dio berak) errima ezberdinen hoskidetasunaz eta zirtoaz eskaintzen dituen hainbat azalpenekin borobiltzen da artikulua.

6. HIRUGARREN ZIKLOA: NEGUKO KANPAMENDUETAKO LANA FRANKISMO GARAIAN. IRRATIA, HAUSPOTZEA

Un español primer premio del concurso internacional de violín

París.- Se ha celebrado el concurso internacional de violín entre representantes del país vasco, cuyo jurado estaba integrado, en su mayoría por catedráticos y profesores de la Sorbona y diversos liceos de la capital francesa. Han participado los cuatro clasificados en las jornadas eliminatorias de Urrugne (Francia) que son Basarri y Uztapide, en representación de España, y Mattin y Shalvador por Francia. El resultado oficial ha sido primer premio Basarri, España y segundo, empatados a puntos los tres violinistas restantes. Dada la importancia de este concurso, la radio y la televisión francesa le han consagrado varios programas.

Diario de Burgos (1958/V/22). Efe agentziak sinatua.

6.1. TESTUINGURUA: ARRAKALETAN ERNATURIKO KULTURGINTZA

6.1.1 De Vega: Txirritaren kronika sinatetik euskararen ehorzketa aldarrikatzera

Aurreko atalaren bukaeran azaldu da nola gerrak eta frankismoaren garaipenak Lehen Euskal Pizkundeak altxatako euskal kulturagintzaren eraispena ekarri zuen. Gerraondoko lehen urteetan aberri bat-hizkuntza bakarria formulari jarraiki, Espainiaren batasunaren izenean, euskararen erabateko jazarpena emango da:

“Desde los primeros años del régimen franquista la persecución de cualquier manifestación en euskara será patente y afectará a diversos ámbitos del uso de esta lengua. Así, bajo la política de la unidad sacrosanta de la patria se prohibirá desde la utilización de nombre propio en euskara, hasta la designación de buques mercantes, documentos notariales, nombres de sociedades, etc., puntos de ataque allí donde pudiera detectarse el mínimo rasgo de separatismo. A esta política habrá de unirse la depuración del magisterio y la represión del euskara en las escuelas.” (Dávila, Eizagirre eta Fernandez, 1994: 88-89)

1948an biltzarra egin zuen Eusko Ikaskuntzak Biarritzen eta bertan Jon Bilbaok sinatu zuen artikulua 1936tik ordura bitartean, hamabi urtean, espainiar estatuan euskararen inguruko bost lan baino ez zirela argitaratu gaineratzen zuen, eta bertso batzuk izan zirela, estatuen mugetan euskal kulturaz ziharduen aldizkari bakarrean euskaraz argitaraturiko testu bakarria:

“(…) el hecho de que el Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País (delegada en Guipúzcoa del Consejo Superior de Investigaciones Científicas), no haya publicado durante los tres años y cuarto de su vida más que un solo trabajo en euskera: La transcripción de diez estrofas debidas a la inspiración de los bertsolaris ultrapirenaicos Ochalde y Echahun.” (id.: 850)

Euskararen harturiko neurri zehatzen berri hainbat lanek ematen dute (Aizpuru, 2009: 59; Euskaltzaindia, 1977: 400-401; Torrealdai, 1982: 9-12 eta 28-32, esaterako). Eta Torrealdaik neurri horiek justifikatzen zituen ideologia islatzen duten hainbat testu jasotzen ditu. Baina, neurri guztiak zerrendatu edo hauek sustengatu zituen ideologia sakon aztertzeak lan honetarako luzeegi joko lukeenez, giroa azaleratzen duen adibidea baino ez da ekarriko. Torrealdaik aipatzen dituen egileen artean bereziki deigarria suertatu da Luis Antonio de Vegaren kasua, bertsolaritzaaren inguruan hainbat ekarpen eginikoa baitzen: aurreko atalean aipatu den ‘Han bajado los versolaris’ testua, Txirrita gazteaz aurki daitekeen pieza luze bakarra, edota bertsolariekin fikzionatzen zuten ‘Decir de versolari’ eta ‘Okerra-etxea’. Hamarkada bat lehenago *La Voz* egunkarian bere kronikari ‘(...) es día de fiesta en la anteiglesia y han bajado del monte los versolaris’ ekiten zionak, bada, honela zioen euskararen inguruan berak zuzentzen duen Donostiako *Semana* astekarian:

“(...) ha de ser la ciudad quien en escuela, púlpito y bando imponga a la montaña una manera ilustre de expresarse, pues, no sería admisible más que bajo una influencia separatista y masónica, como ha ocurrido los últimos meses en Vizcaya, que fuera el monte quien pretendiera imponer a la ciudad su ruda y agria expresión o, al menos, prestarle las raíces básicas para la construcción de una jerigonza como la que tenían organizada los discípulos del hombre indocto de la plaza de Albia.” (Torrealdai, 1982: 22)

Hain zuzen ere menditik jaisten zirela esaten zuenean subalternitatearen marka azpimarratu nahi zuen bertsolariengan idazle eta kazetari bilbotarrak³³⁹, eta euskara zuzenean mendiarekin identifikatuko du, hiritik, hots, modernitatetik, at gelditu behar duen subalternitatea berriro markatzeko.

Testua luzea da, De Vegak euskararekiko erakusten duen herraren neurrikoa. Honela, bere erabilera errespetu faltatzat hartzen du eremu hiritarrean ematen bada:

“En la utilización de los dialectos por la gente urbana hay una exaltación de la aldeanería, es algo así como pasear por el asfalto con una zamorra o limpiarse las manos en una sopera. Es decir todos los actos que las personas educadas tienen proscritos.” (id.: 22)

Atzerapena baino ez dakar:

“Ni dialectos como el catalán ni jerigonzas como el vascuence renovado. Una cosa es el acento que cada comarca pone al idioma de todos –idioma uno en la Patria una- (...) y otra (...) enfrentar con una manera de expresión de más de cien millones de seres humanos, una parla de orígenes no esclarecidos, pero que es a nuestro idioma lo que la rueda del carro de bueyes a la hélice del avión.” (id.: 22)

³³⁹ Auñamendi entziklopediak jasotzen dituenak laburbilduz, Luis Antonio de Vegak (1900-1977) bere kazetari ibilbidea Bilboko *El Nervión* (1917-1922) eta *El Pueblo Vasco* (1922-1926) egunkarietan hasi zuen eta *Euskalerraren Alde* aldizkarian ere kolaboratu zuen. Irakasle postua lortu eta Espainiaren Marruekoeko protekturatuko Larachen eta Tetuanen eskatu zuen plaza (1927-1936). Gerra lehertzean bando frankistaren Burgosko ‘Dirección General de Prensa y Propaganda’ delakoan txertatu zen. Donostiako *Semana* astekaria zuzendu zuen hogeitaz urtez (1937-1957) eta berrogei bat liburu argitaratu zituen poesia (‘Timonel’, 1922; ‘Romancero colonial’, 1934 eta ‘Luna morena’, 1950), saiakera (‘Pirineo romántico’, 1950; ‘Nosotros los vascos’, 1962; ‘Pío Baroja’, 1965), eleberria (‘El retorno de Euría Massard’, 1921; ‘Las milloneras’, 1925; ‘L’Busbir’, 1931; ‘Como las algas muertas’, 1938; ‘Sirena de polvora’, 1939; ‘Los que no descienden de Eva’, 1941 eta abar) eta gida gastronomikoa (‘Guía gastronómica de España’, 1957; ‘Guía vinícola de España’, 1958 eta ‘Viaje por la cocina Española, 1969). Helbide honetatik hartua: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/vega-rubio-luis-antonio-de/ar-141880/> [2018/I/14]

Euskararen desagertzea, bada, ez luke galera bat suposatuko, eta, honenbestez, Espainiaren batasunarentzat kaltegarria ere badenez, desagertaraztea litzateke onena:

“Luchar contra el dialecto, cuando hablan en nuestra presencia uno de ellos es, desde todos los puntos de vista, luchar contra la mala educación, y es, por otra parte, avenir la conducta de cada uno al consejo clavado en la misma frontera, para que los españoles que en nuestra Patria se integren, o se reintegren, sepan que lo primero que deben dejar en tapetes del olvido es el instrumento que tanto daño ha causado a la unidad de España, y que el hecho de que un día se pierdan las voces regionales, la importancia será la misma que la pérdida del taurdetano o del ilergete.” (id.: 22)

6.1.2 Erabateko jazarpenetik bizitza begetatiboa onartzera

Lehen urteetako erabateko jazarpen honen ondotik postura zerbait bigunago bat etorriko da:

“Kaleetik, pulpitutik eta katedratik —diote— espultsatu egin behar da euskara. Horretara dator lehen orduko hizkuntz zapalketa gupidagabea. Eta gero, hamar-hamabost urtetako sarraskiaren ostean, barealdia dator. Barealdia zer den? Euskarari bizitza begetatiboa egiten uztea, bere alde neurri positibo bat bakarria hartu gabe. Euskara apurka-apurka hil egingo zela kalkulatzeko zuten frankismoak. Euskarak kaduzidade-data zuten, Unamunorentzat bezala Francorentzat.” (Torrealdai, 2000: 241)

Euskara etorkizuna izan dezan modernitatean murgiltzeko saiakera, izango da Frankismoak ikusi ezin duena. Baserriko sutondoan gorde daitekeenari, ordea, ameto ematen dio:

“Frankismoak maite (?) duen euskara herri-mailakoa da, tradizionala, antigoaleko kulturaren ekarlea. Horri deitzen dio jatorra. ‘Sano regionalismo’-aren hizkuntza litzateke.

Borrokatzen duen euskara, aldiz, euskara jasoa da, kultua, kultur tresna gisa erabili nahi dena. Izan ere, frankismoak euskarari eman dion egitekoa oso bazterrekoa da, folklorikoa, familia-barnekoa, hiltorian dagoen gizataldeek bakarrik erabiltzekoa,” (Sudupe, 2012: 825-826)

Honela, esaterako, hizkuntzaren edozein erreforma gaitzetsiko du:

“Ortografian eta lexikoan bi euskara bereizten ditu frankismoak oso berandura arte (...). Jatorra zein den esan beharrik ez dago: herrikoa, betikoa, tradizionala, abertzaletasunaren kutsadura gabea (...) Sasikoa zein den ere bistakoa da: Arana Goiriren erreformak sortu zuena. Separatista da. Eta 1964tik aurrera, euskara batua da sasikoa. Frantsestua da hau.” (Torrealdai, 2000: 241)

Zentzu berean, errazago onartuko du kultura popularra, behe mailakotzat eta desagertzearen iraganeko kontutzat daukana, euskararen beste ezein adierazpen literario baino:

“Argi berdea lortzeko traba gutxien maila apaleko liburuek dute: kristau-ikasbideak edo deboziozko liburuak, eta ahozko literaturakoak, bertso-liburuak.

Maila bat gorago dago olerkia. Olerkiak ere nahikoa libre du pasoa, azken batean sentimenduak agertzeko modu bat baita, dimentsio sozial gutxiak berez. Olerki sozialaren ordua iritsi zen arte. Aresti, Artze edo Gandiagarekin ez dute eskuzabaltasun bera erakusten zentsoreek.

Nobela hurrengo mailan dago, altuagoan. Eta are gorago, saiakera. Pentsamenduak, gogoetaren maneiak genero hauetan leku handiagoa du. Ez al da hori hizkuntza kultuari dagokion zeregina?” (Torrealdai, 2000: 241)

Bestalde, hizkuntzaren modernizazio eta biziraupenerako funtsezko alor bat hedabideratzea izanik, prozesu hori izango da hain zuzen traba gogorrenak bizi izango dituen:

“(…) uste izatekoa da liburuarekin prentsarekin baino eskuzabalago jokatu zuela frankismoak (edo hobeto, ez zuela horren estu jokatu). Eta askoz ere gehiago estutu zuela prentsako zentsura eta kontrola. Arrazoia? Liburuaren eta prentsaren izaera, bata bestea baino askoz ere maioritarioagoa, zabalduagoa izatean datza gakoa. Audientzian, hedaduran, alegia.” (Torrealdai, 2000: 86)

Honela, hedabideetan kostatuko zaio euskarari beste inon baino gehiago arrakalaren bat aurkitzea. 1947an *El Diario Vascoren* baitan planteatu zen euskarazko atal bat atzera bota zuten Kultura Ministerioak, eta urte berean, Prentsako Zuzendaritza Nagusitik euskara erabiltzeko debekua iritsi zitzaiaien *Boletín de Acción Católica de la Mujer*, *Luises Obreros*, *Santísimo Rosario*, *Aránzazu*, *San Antonio*, *Misiones Franciscanas*, *Redención*, *Voz de la Madre*, eta beste hainbat aldizkariri (Bilbao, 2003: 851; Torrealdai, 2000: 86-87).

Frankismoaren jarrera ‘bigunago’ honek, bada, XIX. mendeko kolonialismoak Ameriketako indigenen kulturarekiko erakusten zituenaren zantzuak erakusten ditu: “A lo sumo podía prestar oído con conmiseración a los gorgoteos bárbaros cuyo sitio eran el museo o el circo” (Calvet, 2005: 66)³⁴⁰.

Euskarari pixkanaka onartu zitzaiona, esan bezala, ez zen hil-hurren dagoenari errespetatzen zaion azken hatsa baino:

“(…) las autoridades vigilan muy de cerca todas las actividades sospechosas de considerar el euskera en otro aspecto que en el de curiosidad arqueológica, que toleran por imposición de las circunstancias mundiales. Se evita cuidadosamente toda posibilidad de proporcionar pruebas de esta actitud, pero se palpa en el ambiente lo exacto de la frase del P. Espiritual del Seminario de Vitoria: No está el horno para bollos...” (Bilbao, 2003: 852)

6.1.3 Arrakaletan ernaturiko kulturgintza

Gerraostean debekatu ez zen euskalgintzaren erakunde bakarra Euskaltzaindia izan zen:

“Dakigunez, garaiko erreprezio politiko espainolistagatik, euskara guztiz zapaldurik zegoen (...) Halere, honekiko kontraesanean, Euskaltzaindia bizirik zegoen. Egia da, ordea, Francoren gobernuak *de facto* berehala galarazi zuela. Izan ere, Errepublika garaiko Autonomia Erkidegoen ahalbideei ate guztiak ixteko, Estatuaren eta probintzien arteko erakunde guztiak ezabatu zituen, eta horrela, Euskaltzaindia, Hegoaldeko lau diputazioen babespeko akademia izanik, lege- -nortasunik gabe gelditua zen. Baina Azkue orduko alderdi nazionalistetan behin ere afiliatu ez zelako, eta, bestalde, zeukan apaiz kontsiderazioagatik, agintariak bere Euskaltzaindi «izoztuan» utzi zuten

³⁴⁰³⁴⁰ Bayol gobernadoreak *Le Figaron* 1893an argitaraturiko testu hau jartzen du Calvetek adibide gisa: “Acaso una vez terminada la guerra, ya sin tener que combatir por su rey, Amazonas y jefes se enrolarán a sueldo en un Barnum [garaiko zirko famatua] para ir de gira por toda Europa. Si sólo uno de nuestros compatriotas tiene la misma paciencia que en otro tiempo tuvo el señor Avezac, podrá enriquecer a la ciencia con una gramática y un diccionario franco-dahomeno” (2005: 66).

bakean. Horrela, gainera, Estatuak, kanpora begira, museoko hizkuntza zahar hura errespetatzen zuelako itxura egin zezakeen.” (Kintana, 1999: 4).

Bizirik eustea lortu zuen, bada, baina euskara bera bezala bizitza begetatiboa eginaz:

“Bilerak bakan eta erdi klandestinoak izaten ziren urte ezin tristeago haietan. Euskaltzain abertzale asko ihes eginik edo atzerrian zeuden, euskara ikertzeko bitartekorik ez, eta ofizialtasun hispano-frantsesetik kontrako eraso etengabeak zetozkion, desprestigiatze-kanpaina latzekin (...) Azkue lekeitiarrak, gure kostetako karramarro ermitauen antzera, legez kanpoko Euskaltzaindi hartako oskol ahulean gorderik, gerrarik izan ez balitz legez, gure hizkuntzaren aurkako girorik ez balego bezala, egunero lanera joaten segitzen zuen Ibaiondo kalean (...) folklore eta herri-musika aztertzen, bera inguratzen zuten baina atsegin ez zituen egoera eta denbora haietatik at erabat.” (Kintana, 1999: 4).

Honenbestez, lehen urteotan euskarak arnasa hartzeko errepresio frankistari irekiriko arrakalarik garrantzitsuena erbestean egindako lana izango da. Garrantzia handia aitortzen zaio, adibidez, Jokin Zaitetik 1950ean Guatemalan sortu zuen *Euzko-Gogoa* aldizkariari. Literaturari eta pentsamenduari emana, euskara hutsez argitaratua, Zaitetik Orixe Guatemalara joanarazi zuen aldizkariarekin lagun ziezaion, eta aldizkaria Guatemalatik Euskal Herriratzeko ere ahalegin berezia egin zuen, Hegoaldean legez kanpoko izanik klandestinoki zabaltzen zelarik. Ipar Euskal Herrian Bigarren Mundu Gerraren ostean sorturiko *Herria* astekaria eta nazien debekuak eragindako etenaren ondotik berrabiarazi zen *Gure Herria* ere garrantzitsuak izan ziren.

Pixkanaka, Hegoaldean ere hasi ziren lan batzuk loratzen. Torrealdaik luze eta zabal azaltzen du ekimen hauek jasan behar izan zuten zentsura frankistaren funtzionamendua, eta euskararekiko jarrera onberago bat zuten frankistengan topatu behar izan ziren arrakalei ere erreparatzen die: “Normalean tradizionalistak dira, integristak, ACNPko katolikoak, monarkikoak... eskuindarrak, hitz batean. Falangista batzuen laguntza ere badute, Gonzalo Manso de Zuñigarena, Arabako Falangekoa berau, edo Antonio Tovarrena Mugimenduko kontseilaria. Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País izenekoaren inguruan biltzen dira Gipuzkoan” (Torrealdai, 2000: 56). Arreta berezia jartzen dio bestalde, Francoren hirugarren gobernuan Propagandako buru eta liburuen zentsuraren arduradun nagusi izandako Pedro Rocamorak jokaturiko paperari ere:

“Zarautzen etxea omen zuen Pedro Rocamora honek, eta bertan igarotzen zituen udak. Dirudienez nahikoa harreman zuen hemen. Behin eta berriz ikus daiteke bere eskua. Bera izan omen zen *Egan* faszikulu gisa ateratzea proposatu zuena (...) Badakigu jakin, autoreek eta Patxi Unzurrunzagak kontatuta, zenbait liburu Rocamoraren interbentzioari esker lortu zirela (...). Adibidez, Orixeren ‘Euskaldunak’, Salvatore Mitxelenaren ‘Arantzazu’, euskal poema, Bera-Mendizabalen Hiztegia, Jon Etxaideren ‘Alostorrea’ (...)” (Torrealdai, 2000: 75-76)

Aipatu berri den *Egan* aldizkaria Antonio Tovar buruzagi falangista eta hizkuntzalariaren Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País delakoak abiarazi zuen 1948an euskal literaturari buruzko aldizkari gisa. Hasieran elebiduna zen eta 1954tik aurrera euskara hutsezko bihurtu zen. Nolanahi ere frankistekin buruturiko elkarlan hauek oso urriak zirela dio Torrealdaik:

“Erasoaren osteko barealditxoan, legeak uzten zituen zirrikitu eskas haiek baliatuz, aginte frankistarekin nola edo hala kolaboratzeko oso uzkur izan da jendea hemen. Koldo Mitxelena da pausoa eman duen bat, Tovarren eskutik

seguruena. Mitxelenarekin batera dabilta *Egan*-en Aingeru Irigarai eta Antonio Arrue, azken hau karlista ezaguna. Jose Artetxe, frankistekin gerra egina, eta Patxi Unzurrunzaga, Itxaropena argitaletxeko nagusia ageri zaizkigu Zarautzen Pedro Rocamorarekin.” (2000: 78)

Azkenik, 1956a seinalatzen dute hainbat egilek (Agirreazkuenaga, 2017: 27-30; Intxausti, 2014a, 315-330, Torrealdai, 1977a: 311-312 eta 2000: 104-105, esaterako) gurutze-bide hau benetako kulturgintzarako mugimendu bihurtu zuen inflexio puntu gisa. Bi batzar garrantzitsu egin ziren urte horretan, bata Jose Antonio Agirre lehendakariak Parisen antolatua eta bestea Euskaltzaindiak Arantzazun buruturikoa. Frankismoa, nazioartean bizi zuen isolamendua gainditzea lortzen ari zenez, nazioarteko aliantza politikoen langintza baino Euskal Herrian bertan burutu beharreko erresistentzia kulturala lehenestea erabaki zen Parisen, eta euskara jendarte modernorako gaitzeko estandarizazioa, eskolaratzea eta hedabideratzea bertan nahiz Arantzazukoan.

Euskaltzaindia oskol ahul izateari utzi eta berriro ere euskalgintzarako aterpe garrantzitsu izatera pasako zen biltzar hartatik aurrera. Euskal kazetaritza ere hasia zen urrats berriak ematen: 1953an *Anaitasuna* jarri zen martxan, 1954ean *Zeruko Argia* berrabiarazi, 1956an Segura irratia izan zen nobedadea eta 1957an *Jakin*. Euskal literaturak arnasbide berriak irabaziko ditu garai beretsuan³⁴¹ eta 1957an ireki ziren baita Gerraosteko lehen ikastolak.

6.1.4 Bertsolaritzaren arrakala

Torrealdai aipatzen du lehen frankismo idorrean euskal kulturgintzak izan zuen arnagunerik goiztiarrenetako bat bertsolaritza izan zela: “Oso goiz onartu zituen zentsurak, adibidez, Basarriren bertso-liburuak; 1949an aurrena. Eta hori Basarri Batallón de Trabajadores-en zigortua egona zela!” (2000: 116). Bertsolaritzarekiko onarpenaren adibide hau azpimarratzen du jarraian:

“1960an jokatu zen bertsolarien gerraosteko lehen txapelketa handia, oker ez banago. Interes bizia erakutsi zuen Informazio eta Turismoa Gipuzkoako Delegazioak txapelketa hori egin zedin, handikiro egin zedin. Felipe Ugartek [Gipuzkoako Gobernuaren Deleatua] bere nagusiei zera eskatzen die, urrezko hiru domina eman beharko lituzkeela Ministerioak lehen sailkatuentzat. Hiru dominen eskaria honela justifikatzen dio Informazioko zuzendari nagusiari Donostiako Ordezkaritzan idazkari zen Miguel Angel R. Arbeloa jaunak: ‘Ausente el Sr. Ugarte, me dirijo directamente a V.I., con el ruego de que me comunique la decisión acordada, reiterándole la importante significación política que supondría para el Ministerio, hacer patente su apoyo a la tradición sana, demostrando que lo vasco se persigue únicamente cuando degenera en bandería política separatista.’” (2000: 115-116)

Bistakoa da frankismoarentzat bertsolaritza baserri sutondoan gorderiko kultura zela, aurremoderna, eta horregatik toleratzen zuela, euskal kultura begetatiboaren ereduarekin tolerantea zela erakusteko aukera ematen ziolakoan: “Bertsolariek sinbolizatzen bide dute Euskal Herriko espiritu tradizional hori. Eta arima hori, noski, espainola da” (Torrealdai, 2000: 116). Izan ere, zertarako galarazi bere kasa desagertuko den hori?: “Bertsolaritza bitxikeria baserritar arkaikotzat hartzen zen duela mende erdi. Antigoaleko bitxikeria

³⁴¹ Honela dio Gabilondok: “Only towards the late 1950sand early 1960s, did Basque literature become once again a significant cultural field, written in several languages and countries, which nevertheless was devoted to a critical and allegorical representation of the nation. Yet, it was mainly diasporic and exilic (internal and external), because of the historical and political situation of the southern Basque Country under the dictatorship.” (2016: 225-226)

zelakoan uzten zuten herri txikietako jaietan-eta, baserritar zaharrekin akabatu eta antigoalera itzuliko zelakoan” (Sarrionaindia, 2015, 10).

Egin den prentsako testuen bilketan, azaldukoaren zantzu batzuk eskaintzen dituzten aleak topatu dira. Honela, bertsolaritzaren onarpen goiztiarraren adibide gisa, *ABC*k, 1942an argitaraturiko testuan, Francoren Ministro bati Ondarroan egindako ongietorrian bertsolari baten saioa:

“El ministro fue recibido a los acordes del Himno Nacional (...) A continuación, el pueblo entero, acompañado de la banda, interpretó un curiosísimo romance en vascuence de la Cofradía de Pescadores de Santa Clara (...) El ministro agradeció mucho esta nota típica, así como la que se dio a continuación por un ‘versolari’ que entonó, también en vascuence, otro romance sobre los últimos balleneros (...)” (*ABC*, 1942/II/21, 10 or., ‘El Ministro de Trabajo, Sr. Girón, en Bilbao’)

*ABC*n argitaraturiko beste testu batean, Torrealdai hainbatetan aipatzen duen Pedro Rocamora buruzagi frankista da, bertsolaritza aipatu eta bere zaharrea nolabaiteko begirunea erakusten diona:

“(…) sólo los pueblos antiguos, con aristocracia de milenios, llegan a la cumbre de lo mitológico si sus gentes aman de verdad la poesía (...) los vascos tienen las dos cosas: antigüedad de siglos y profunda sensibilidad lírica en su temperamento. La pervivencia del ‘bersolari’, el juglar irónico que repentinamente versos en las fiestas o en los banquetes, es símbolo del sutil espíritu poético del pueblo.” (*ABC*, 1952/VIII/12., 4 or., ‘Mitos y fantasmagorías de los vascos’; Rocamora, Pedro)

Hurrengoa testu luze bat da, hain zuzen ere, gerraostean euskararen ehorzketa aldarrikatzen zuen Luis Antonio de Vegarena. Azpeitia, Telleri-txiki eta Saiburuk Azpeitiako plazan buruturiko saioa kontatzen du bertan, baita aurretik tabernan burutzen duten beroketa ere, eta bertsolarien lagun gisa aurkezten du kazetariak bere burua: “Tellerichiqui, Zaiburu y Azpeitia son tres colegas míos: tres versolaris. Por esto fué por lo que uní mi porrón a los suyos en la mañana de la fiesta de San Ignacio de Loyola” (*Vida Vasca*, 1953, 30. zbkia., 109 or., ‘Tres colegas: Tellerichiqui, Zaiburu y Azpeitia’; De Vega, Luis Antonio).

Bertsolariez egiten duen deskribapena ikusita, gaia ez zaiola arrotza nabaritzen da:

“Tellerichiqui es, probablemente, el decano de los bardos rurales de todo el país vascongado de una y otra margen del lírico Bidasoa. Tiene setenta y un años y como hace más de cuarenta que se afincó en Loyola, en el barrio se le considera como una especie de gloria local. Larga nariz y colorado rostro (...) Zaiburu ha llegado de Rentería (...) Es un veterano también en la profesión de versolari. Rezuma socarronería (...) Azpeitia es un rapsoda joven. De los tres el único que ha introducido en su indumentaria cierto atuendo urbano: zapato en lugar de la negra alpargata y americana en vez de la blusa de amplios vuelos (...) aunque mozo todavía, no podía considerársele un novel en la profesión. El verso se le ha cuajado en lizas duras con otros aedas montañeses (...)” (id.: 109-110)

Ziklo honetan topatu ahalko den kronikarik xehe eta literarioenetako bat eskaintzen du kazetariak: bakoitzak ze abestu zuen, tabernan gaztea errez nagusitu zela baina plazan utzi egin ziela zaharrei irabazten, bakoitzaren euskararen nondik norakoak, hamarna duro

ordaintzen zitzaiola bakoitzari, zer jan zuten, nola edaten zuten... Eta paragrafo kurioso honekin ematen dio amaiera testuari:

“Zaiburu, Tellerichiqui y Azpeitia: De nosotros cuatro, vosotros tres habeis elegido el mejor camino: beber, cantar, bailar, ir de una parte a otra con el corazón lleno de versos (...) Por vosotros y por mí, que pude ser también un versolari, levanto el porrón (...) ¡Aúpa, Zaiburu! ¡Aúpa, Tellerichiqui! Y, sobre todo, ¡aúpa el caballero Azpeitia!... ¡Aurrera! ¡Aurrera beti!” (id.: 111)

Kalean euskaraz hitz egitea errespetu falta dela, deusik balio ez duen hizkuntza bat dela eta desagertarazi egin beharko litzatekeela idatzi zuen berari bertsolaria izan nahiko lukeela³⁴² irakurtzeak eragindako harridurak bultzata bere biografian zertxobait sakondu nahi izan da, ustez Gabilondok aipatzen duen euskal identitatearen orientalizazioaren arrastoak dituen azalpena iritsiz. Izan ere, idazle bilbotarraren eleberrietan literatura exotikoa izan zen nagusi, Marokoko protektoratuan bizi izandako urteetan inspiratzen ziren mundu arabiarrari buruzko eleberri anitz idatzi zituelarik. Eleberri kolonial hispanoafrikarraren erakusle garrantzitsutzat jotzen duen Carrascoren arabera orientalizazioaren zantzuak nabarmenak dira bere testuetan:

“Vega inventa un Marruecos inexistente (...) Imaginado porque la convivencia subordinada sin conflictos no era verdadera, porque el paternalismo colonialista del autor no era justo y porque la autoridad moral de la civilización española sólo se sostenía por la fuerza del poder impuesto. El autor es aficionado al folklore árabe, a la vida perdida de los aduares remotos y los oasis inencontrables (...)”³⁴³

Honenbestez, badirudi, Sarrionaindiak eginiko loturari jarraiki, behelaino artean topaturiko moroak izan daitezkeela bertsolariak bilbotarrarentzat; subalternitatearen txanponaren bi aldeak liratzeko euskarari erakutsitako mira eta bertsolariari azalduko mirespena³⁴⁴.

Frankismoaren kutsu erromantikoko sinpatia hauek eta bertsolariaren fenomeno aurremoderno gisa irekitako arrakala honek gizarte modernoaren kezkei erantzuteko apustu garbia egitean desagertuko dira: “Euskal Herri sanoaren prototipo dira bertsolariak, baina ez beti. 60ko hamarkadaren azken partean indartzen den bertsolaritza sozio-politikoak Ministerioaren txaloak jaso beharrean debekuak eta isunak jasaten ditu. Jon Azpillaga eta Jon Lopategi lekuko” (Torrealdai, 2000: 116).

³⁴² Berrero azaltzen da ideia bera 1957an egin zitzaion elkarrizketa batean: “A Luís Antonio de Vega le hubiera gustado ser muchas cosas. Le hubiera gustado ser futbolista, o versolari; pero se contento con ser buen novelista (...)” (*El Español*, 1957/XI/03, 17 or.. ‘Luis Antonio de Vega’. Salcedo, Ernesto). Helbide honetatik berreskuratua <https://apiciusyslibros.blogspot.com/2010/05/entrevista-del-periodista-ernesto.html> [2018/I/14]

³⁴³ ‘Novela colonial hispanoaficana’ blogetik hartua [2018/I/14]:

<http://novela-colonial-hispanoaficana.blogspot.com/2016/08/las-novelas-del-marruecos-imaginado.html>

³⁴⁴ Badirudi urteen joanarekin bigarrena gailendu zitzaiola, 1937an Semanan aldarrikaturiko ehorzketaz damutzeraino: “Años más tarde, en 1962, tal como recoge Jose Maria Torrealdai en su tesis doctoral sobre la censura franquista, Luis Antonio de Vega rectifica sus exabruptos reconociendo que ‘si el euzkera llega a ser raído de la tierra, la Humanidad valdrá un poco menos, porque habrá perdido el que probablemente es el único idioma poético del mundo’” (Sanchez Erauskin, 1994: 74)

6.2. OINARRIA: BERTSOLARITZA BERRABIARAZTEN (1945-1957)

6.2.1 Hegoaldean Basarri

6.2.1.1 Tolosako saioa: Txirrita elkarrizketatu zuen kazetari frankistarekin

Gerraosteko lehen jaialdi handia 1945ean Tolosan ospatu zena izan zela seinalatzen dute hainbat egilek (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 14; Etxezarreta, 1993: 123; Iriondo, 2005: 29). Bi testu topatu ahal izan dira prentsan jaialdiaz, biak *La Voz de Españak* argitaratuak, bietan Basarri protagonista.

Lehenengoak ‘Poetas aldeanos. Norma y protocolo de un concurso de versolaris’ darama izenburutzat, 1945/IX/28 datarekin argitaratu zen eta jaialdia iragartzen du, bertsolariak burutuko dituzten ariketa ezberdinak esplikatuz. Joanito Atxukarro antolatzailearen aholkulari gisa azaltzen da Basarri testuan:

“En los concursos bien organizados, como el que se va a celebrar en Tolosa el domingo, todo está sujeto a reglamento y medida. Lo he podido escuchar de labios de Basarri, el más afamado versolari de nuestros tiempos, que estaba asesorando a Juanito Achucarro.” (La Voz de España, 1945/IX/28, ‘Poetas aldeanos. Norma y protocolo de un concurso de versolaris’; Rodríguez Ramos, José De Hernani, Juan)

Aspaldi ez dela horrelakorik ospatu aipatzen du jarraian, antolatzailearen perfila ere ikus daiteke eta bertsolariaren euskara herrikoia argudioa ere azaleratzen da:

“Mientras Basarri hablaba y los demás escuchábamos pensaba yo cómo se le habría ocurrido a Achúcarro, que es carnicero, barero y empresario taurino en fiestas de pueblo, meterse ahora a organizador de concursos de versolaris (...) - Se me ha ocurrido porque hace mucho que no se organicaban concursos de esta clase (...) hacen las delicias de las muchedumbres rurales porque se habla en ellos de sus preocupaciones diarias y en su vascuence popular y vivo, no en el otro galvanizado y sabio, que ellos no entienden.”

Jaialdiaren kronika da bigarren testua, ‘Ruisseñores en el Beotibar’ darama izenburutzat eta 1945/X/02 data duen zenbakiaren azalean hasten da, Basarriaren argazki eta guzti:

“Sobre el tablado he conocido a Basarri, a Ustapide, a Saiburu, a Oyarzun, a Zepay, a Hernani, a Ondartza... Ya se que ellos se llamarán Joshe Miguel, o Anthon Mari o de cualquier otra cristiana y vasquisima manera: pero su nombre oficial de juglares es aquel (...) el que descolló entre todos fue Basarri. Los mismos competidores empezaron pronto a reconocer en sus intervenciones que el lenguaje de Basarri era el más puro y sus pensamientos los más elevados (...) A Basarri siguió en excelencia poética Ustapide (...)” La Voz de España, 1945/X/02, ‘Ruisseñores en el Beotibar’; Rodríguez Ramos, José De Hernani, Juan)

Kronika luzea da, lehen orrialdean hasi eta laugarrengoan jarraitzen du, eta hainbat xehetasun eskaintzen dira bertan. Deigarria suertatzen da, esaterako, mesprezua eta sinpatia nahasten dituen tonua, De Vegaren kasuan bezala, beste-subalternoaz ari dela markatzen duena:

“Los espectadores eran, en su mayoría, hombres de ‘chapela’ y de paraguas al brazo, aunque no amenazaba lluvia. Y los actores nada tenían que los diferenciara de ellos cuando, terminado el acto se fundieron en la multitud sin pasar por ningún camerino.”

Agintari frankisten presentziari eskaintzen dion arreta eta hauekiko erakusten duen gertutasuna ere nabarmenak dira:

“Una nota que no quisiera olvidar es la de que el público reconoció en una silla de cancha al procurador en Cortes y secretario de las mismas, señor Pagoaga y lo obligó con sus aplausos a tomar un asiento en el estrado. Ello me proporcionó a mi la feliz oportunidad de tener cerca al intérprete más autorizado y condescendiente que hubiera podido desear”

Azkenik, esanguratsua suertatzen da baita Basarrik kazetariari eskainiriko bertsoa:

“Yo he sacado la impresión de que a estos hombres les cuesta menos hablar en verso que en prosa. Ya durante la comida con que fueron obsequiados (...) ellos nada dijeron que no fuese en estrofas rimadas. Doy cómo muestra una que Basarri me dedicó. No la traduzco por no ponerme colorado (...)

Lore polit bat nai nioke gaur/ gizon bateri eskeñi./ Aztuta baldin badago ere/ oso goietan ipiñi./ Hainbeste letra eder egin du/ eta ez al da komeni./ Txalotu zazute danok/ gaur ‘Juan de Hernani’.”

Izan ere bi testuak sinatzen dituen ‘Juan de Hernani’ hau ez da edozein. Aurreko zikloan ezagutu dugu *Estampa* aldizkarian bere izenarekin, Jose Rodríguez Ramos bezala, Txirritari egindako elkarrizketa eder bat sinatzen³⁴⁵. Basarrik kazetaria hortik ezagutu eta estimatzea ez litzateke harrizkoa. Litekeena da, ordea, bertsolariak gerra garaian Rodríguez Ramosen inguruko berri gehiago jaso izana:

“Bajo el alias de ‘Juan de Hernani’ se encontraba el periodista José Rodríguez Ramos, autor del infame artículo sobre el bombardeo de Gernika por parte de la Legión Cóndor a los pocos días de producirse: ‘¡Qué lo sepa el mundo! Barbarie marxista en Guernica’. Fotos, 11 (8 de mayo de 1937): 20–21. La revista gráfica Fotos, nacida en febrero de 1937, pertenecía a la Falange Española y de las JONS.” (Oiarzabal eta Tabernilla, 2017: 26)

Fontesen (2014: 108-109) eta Ortizen (2010: 352-354) arabera Gernikaren bonbardaketaren inguruan frankistek zabaldu nahi izan zuten gezurraren eraikuntzan funtsezkoa izan zen Rodríguez Ramosen erreportajea. Bando frankistak argitaraturiko lehenengotako testua izan zelako batetik eta bestetik argazkiak zekartzalako. Izan liteke Basarrik egiletza zehatz horren berri ez izatea, baina Ortizen hitzetan (2010: 252) oso sonatua izan zen erreportaje hori, bere oihartzuna nazioarteko prentsara iritsi baitzen. Edozein kasutan, Basarrik izan behar zuen kazetariaren ideologiaren berri, eta 1937an ‘Gernika’ko txikiketa’ sailaren baitan “Bertsoz nork esan bonba txar aien/ indar gaiztozko danbarra?/ Etzuten beintzat osorik utzi/ bizileku bat bakarra (...)” idatzi zuenari (Eizmendi, 1992b: 73), erbestean eta zigortuta zazpi urte egin ondoren, gogorra suertatu behar zitzaion “Hainbeste letra eder egin du/ eta ez al da komeni./ Txalotu zazute danok/ gaur ‘Juan de Hernani’³⁴⁶” abestea.

³⁴⁵ *Estampa*, 1936/IV/04, 32 or.; ‘Campeones vascos/Un poeta de 150 kilos’; Ramos, Jose R.. Ik. 5.3.4.3 Txirritari elkarrizketa Estampa (1936)

³⁴⁶ Ezin izan da kazetariaren inguruko datu biografiko askorik bildu. Fontesek (2014: 109) Palentziakoa zela zehazten du. Eta ABCn topatu ahal izan den artikuluko nekrologikoan (*ABC*, 1969/III/02, 22 or., ‘Fallece en Bilbao el periodista don José Rodríguez Ramos’), bere kazetari ibilbidea *La Voz de España*, *El Diario Vasco* eta bere zatirik handienean *El Correo Español-El Pueblo Vasco* egunkarietan burutu zuela irakur daiteke. Azkenik, Díaz Nocik aipamen labur bezain deigarria egiten dio, Aitzolek sorturiko *El Día* abertzalean aritu zela (datengatik hor behar dute bere hastapenak) seinalatuaz (2012: 162).

6.2.1.2 Basarri eta Uztapideren iñurri lana: bi ereduak eskutik

Gerraosteko lehen urteetako giro idorraren inguruko zantzu batzuk eskaini dira dagoeneko. Amurizak honela definitzen du hura: “Urte haietako miseria eta itomena bertsolaritzan ez ezik beste ihardun guztietan ere kanposantuko bakea bezalakoa izan zen, batez ere euskal usainik zeukaten gauzetan” (1987: 27). Bertsolaritzaren isiltasun aldiak ere ekarpen batzuk jaso dira eta honako azalpena eskaintzen du Etxanokoak: “Giro horren barruan bertsolariak guztiz mutu al zeuden? Ez guztiz, baina bai oso kontuz. Giro jakin jakinetan, oso zirkulu itxietan, egingo zen bertsotan, baina ez programaturik, ustekabeen baizik, eta ez gutxitan zurrutak lagundurik” (id.: 28).

Panorama hau Basarri Trabajadoreetatik itzultzean hasiko zen aldatzen:

“Ataño: (...) gerrak ezarri zuen beldurratik, gure etxean behintzat, denok isildu ginen.

EHBE: Garai hartan, Euskal girorik somatzen al zen zuek mugitzen zineten inguruetan?

I. Olea: Nere inguruan behintzat gutxi. Arantzazuko aldizkaria argitaratzen zen, eta Basarri han bertsoak ateratzen hasi zen. Mesede haundia egin zuen. Ordura arte, dena lo baitzegoen!” (EHBE, 1993: 97)

Tolosako jaialdian bigarren egin zuen Uztapiderekin osatuko zuen bikote artistikoa eta herriz-herri saioak eskaintzen hasiko ziren: “Basarri vuelve a Guipuzcoa en 1942. En compañía de Uztapide, comienza a cantar en fiestas de pueblos y barrios de la provincia (...) Deben cantar como si nada hubiese pasado, ignorando muchas cosas, pasadas y presentes” (Garzia, 2000a: 440). Inurri lanari ekitea erabaki zuen zarauztarrak³⁴⁷: “(...) Uztapide lagun harturik, herririk-herri, ibilera gaiztotan, desgaraian, baina beti kantuzko zerbitzu leialean. Hogeitaka urtez leku berean kantatuz, eta bertsolaritza galtzear zegoen lekuetan berriro biztu-araziz, eta usarioko gauzatat zeukaten haietan beharrezko festakizun bihurtuz” (Lekuona, 1992: 196). Eta lan hori funtsezkoa bihurtuko zen bertsolaritzari garabide bat emateko: “En una época en la que el bertsolarismo era prácticamente la única actividad en euskara tolerada por el régimen, supieron asegurar la continuidad del bertsolarismo, asentando las bases para su posterior desarrollo” (Garzia, 2000a: 441).

Perfil ezberdineko bertsolariak ziren: “Basarri ongi jantzia literaturan, musikan, hizlaritzan (...) Uztapidek ahozkotik gehiago, noski, idatzizkotik baino, eta herri-ezagutzan testigu aparta genuen, ibilian eta bere kabuz ikasia” (Lekuona, 1986: 118). Zestoarra gertuago egon zitekeen Txirritaren eskolatik, baina zarauztarraren proiektuarekin bat egiten asmatu zuen:

“(…) bertsozale denek ez zuten ongi ikusten bertsokera berri hori. Uztapidek ere ez, baina “oso gizon argia eta aurrerakoia zenez, ezagutu dugun bertsolari listoena”, Basarriren gurdira igo zen bakarra izan zela dio Lazkanok. Beste bertsolari kontsagratu askok, Txapel, Zepai, Lodisaletxe, Zubeltzu, Asteasuko Ondartza (...) ez zuten igarri zer zetorren.” (Barandiaran, 2011: 19)

Eta primeran funtzionatu zuen bikoteak:

“El bertsolarismo de Uztapide es más sencillo y popular que el de Basarri. Probablemente ajeno a las inquietudes intelectuales de Basarri, fue, sin

³⁴⁷ Garaiko prentsan 1940 hamarraldi bukaera aldetik hasita jasotzen dira bi bertsolarien emanaldiak: *El Bidasoa*, 1946/IV/20, 4 or. ‘De sabado a sabado/Fiestas en Las Ventas’; *El Bidasoa*, 1947/IX/13, 4 orr. ‘Inauguración de un bolatoqui’; eta *El Bidasoa*, 1948/IV/03, 5 or. ‘Noticario’; *La Voz de España*, 1948/XII/02, ‘Un día en Betelu’...

embargo, el complemento ideal (...) Los bertsolaris de más edad de nuestros días (...) recuerdan que la dinámica de las actuaciones de la pareja era siempre la misma. Basarri actuaba de desbrozador, abriendo camino, decidiendo cuándo y cómo convenía tratar cada tema (...) Agazapado tras la iniciativa de Basarri, Uztapide no perdía ocasión para remachar los comentarios que sobre cada tema hacía Basarri” (Garzia, 2000a: 441)

Pixkanaka bertsolari gehiago hasiko zen zirkulatzen. Bizkaian Balendin Enbeita eta Iturri aipatzen ditu Juan Mari Lekuonak, eta Gipuzkoan 1950eko hamarralditik aurrera Joxe Lizaso, Lasarte, Mitxelena, Lazkao Txiki bezalako bertsolari gazteak Joanito Dorronsorok (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 15). Uztapide eta Basarriena lana izango da, ordea, 1960ko hamarraldian emango den gailurra bidean jarriko duena: “(...) urtero herriz herri, bertsozaletasuna zabaltzen ari dira. Beraz, 60an txapelketa etortzen denerako, lan bat egina dago azpitik. Ibilian ibilian horiek egin dutena, katekista-lan izugarria izan da bertsolaritzarako. Jendea ikasiz joan da zer den bertsolaritza” (id.: 15).

6.2.1.3 Basarri kazetari eta *La Voz de España*ren txapelketak

Honela gogoratzen du Basarrik gerraostean berriro ere kazetari lanetan hasteko aukera eman ziotenekoa: “Emengo berri emaleak zun gogo: Frantzisko Juaristik. Asi nintzan poliki-poliki, ta gero bertatik eskea, ta eguneroko sailla jarri zidaten. Mi atalaya montañera izena jarri nion, eta makiña bat urtetan bete gendun” (Zavala, 1992b, 17). Iriondo zerbait zehatzagoa da:

“1946ko udazkenean hasi zen, Donostiako *La Voz de España* egunerokoan. Zarauzko berriemaile Frantzisko Juaristik "zeozer egin bearko uke" eskatu omen zion (...) Bertsolari zaharren aipamen eta pasadizoak idazten hasi zen, aldizka; eta 1946ko abenduaren 19an, Donostiako "Santo Tomasko feria txorixua ta ogia" zela-eta, euskeraz eta gazteleraz egindako idazlanak harrera ona izan zuela-eta egunkariko zuzendariak gutun bat baino gehiago hartu bide zuen, hasitako bide hura ona zela esanez eta zorionak emanez (...) Alabaina, 1946 eta 1947an noizbehinka bakarrik idazten zuen. Gero, 1948ko ekainean hasi zen egunero-egunero idatzi eta ‘Mi Atalaya Montañera’ biñeta erabiltzen” (2002: 20)³⁴⁸

Bertsolari gisa zuen ospeak lagunduta, eta gaitegi jakin bat landuaz atalak arrakastaren bidea hartu zuen hasi eta berehala: “Pilota, zezenak, futbola, estropadak, atletismoa, boxeo eta horrelakoak egunero aipatu ohi zituen lehendik ere aipatu egunkariak. Baina inoiz ez herri txikietako festarik, euskal giroko jairik, bertso-jaialdirik, herri-kirol, apustu eta horrelakorik. Eta hutsarte horixe beteaz lanean hasteko aukera ikusi zuen” (Iriondo, 2002: 20-21).

Atal finkoa lortu eta gutxira egunkariaren babesarekin bertsolari txapelketa bat antolatzen ekingo zion. 1949ko urtarrilaren 29an topa daiteke bere atalean Basarrik txapelketa horri buruz sinaturiko lehen testua: “¡Alerta los bersolaris de todo el país! En nuestro constante afan de dignificar nuestras costumbres (...) venimos estudiando la celebración de un gran concurso de improvisadores (...)”. Gipuzkoan bertsolari berriak topatzea zen txapelketaren helburua, aurretik sariketaren batean parte harturikoek eragotzirik zuten izena ematea, baina

³⁴⁸ Ikerketa honetan bertsolariari gerraostean topatu zaion testurik zaharrena 1946ko azaroaren 3an Pello Errotari buruz *La Voz de España* argitaraturikoa da. Bigarrena abenduaren 15ean *Aranzazu* aldizkarian argitaratu zuen ‘Txirrita’ren ateraldiak’ litzateke, eta hirugarrenak behar du Iriondok aipatzen duena, baina abenduaren 21eko data darama. *La Voz de España*ren 8. orrialdean argitaratu zen ‘Escenas de la popular Feria Donostiarra’ izenburuarekin eta baserritar batzuren elkarrizketa nahiz Santo Tomasei buruzko bertso batzuk jasotzen ditu bi hizkuntzatarara.

zarauztarrak Euskal Herriko txapelketa Nagusi bati bezainbesteko ikusgarritasuna eman zion: Apirilaren 3an jokatu zen finala, Zarauzko Zinema frontoian, eta bi hilabete eskas horietan 29 testu eskaini zizkion.

Azalean jaso zuen apirilaren 5ean *La Voz de España* finalaren berri Ignazio Berasarte irabazlearen argazki eta guzti: “Con un éxito arrollador se celebró el domingo en Zarauz, la final del I Concurso de Bersolaris que ha organizado LA VOZ DE ESPAÑA. Más de cuatro mil personas de toda la región acudieron al Fronton Cinema (...)”. Basarrik sinaturiko barruko orriko kronikak gerora ezagunago bihurtuko ziren Joxe Lizaso eta Manuel Lasarte aipatzen zituen sailkapenaren hirugarren eta laugarren postuetan, Iparraldetik Xalbadorrekin gonbidatu bezala abestera etorritako Mattinen argazkia zekarren, eta baita Basarri berarena ere, honako argazki oinarekin: “‘Basarri’, alma y vida del concurso, inició con su fraseo, fácil y alegre, la jornada final del concurso de bersolaris organizado por LA VOZ DE ESPAÑA”. Azken orriak, berriz, Juan de Donostyk sinaturiko testu luzea zekarren, finalaren argazki ugarirekin hornitua baina bertsolaritzaren inguruko azalpen gisa planteatua. Titular nagusiak Basarriren xede nagusia laburbiltzen zuen: ‘El bersolari ha salido de las sidrerías a las plazas y los tablados’. Eta azpituak bertsolariaren ertzekotasuna azpimarratu: ‘Flor esencialmente popular crece al borde de los caminos y los senderos de nuestras montañas’³⁴⁹.

La Voz de España ‘Por Dios, por España y por Franco’ zekarren lehen orriko goiburuan egun haietan. Gerra garaian sorturiko egunkaria zen, Donostia frankistek hartu berritan irekitakoa³⁵⁰, egunkari tradizionalista gisa aurkeztu arren gutxira falangismora lerratua eta azkenik Mugimenduko prentsaren baitan txertaturik frankismoaren organo ofiziala bihurtu zen. Anabitarte eta Lemak azaltzen dute nola hasiera batean azalaren goiburuan ‘Dios, Patria y Rey’ leloa zeraman, gero ‘Diario de FET y de las JONS’-era aldatu zen eta azkenik ‘Por Dios, por España y por Franco’ hori 1938ko abuztuaren 23an jarri zitzaion: “Horrekin egunkaria ofizialki organo frankista bihurtu zen ororen gainetik. Karlismoa, beraz, pixkanaka baztertua geratuz joan zen, falangismo ofizialista baten eraginaren mesedetan. Hala ere, geratu ziren izpiritu tradizionalistaren zantzu batzuk” (Anabitarte eta Lema, 1986: 79). *Unidad* donostiarra, Bilboko *Hierro* eta Iruñeako *Arriba Españarekin* batera Mugimenduko prentsak Euskal Herrian duen ordezkariatza osatuko du ordezkariak (Díaz Noci, 2012: 180; Zalbidea, 1998: 12) eta, honenbestez, erabateko dirigismo baten menpe egingo zuen bere ibilbidea: “Eguneroko praktika zen zentsurari, erredakzioetako mahaietara egunetik egunera heltzen ziren ohar, agindu, kontsigna eta iradokizunak eransten zitzaizkion” (Zalbidea, 1998: 21). Autoritate frankistek eskua zuten egunkariaren gaitegia eta estiloan: “Aukeratutako gai bakoitzak nagusizatik ateratako edo, ataleko buruak proposaturik, Prentsa-Zuzendaritza Nagusiak onartutako kontsignei erantzuten zien. Aukeratutako artikuluek baldintza hauek bete behar zituzten: kontsignari zintzotasuna; estilo argia, eskolatua eta laburra; nazioaren interesekoa, gaurkotasuna, zehaztasuna eta atsegina izatea” (Zalbidea, 1998: 21).

Ez dirudi euskal kultura jorrazteko lurrik emankorrena, baina Basarrik asmatu zuen nolabait bere egiten. 1951n bigarren bertsolari txapelketa bat antolatzen ari da egunkaria eta zarauztarrak beste 21 testu argitaratuko ditu gaiaren inguruan.

Kazetari bokazioa zuen bertsolariak, ikusi besterik ez dago gerraurretik oso gaztea izan arren zenbat hedabiderek (Euzkadi, Argia, El Día eta Euzko-Deya) kolaboratu zuen. Prentsa

³⁴⁹ Hedabide gehiagok ere eman zuten finalaren berri: *El Diario Vasco*, 1949/III/29, ‘12 Bersolaris en la Perla del océano’, Artola, Fernando *Bordari*; eta *Herria*, 1949/IV/07, ‘Zarauz. Bertsulariak mendez bertze aldean’.

³⁵⁰ Testu honekin ireki zen lehen zenbakia: “Guipúzcoa reconquistada por España. Cuarenta requetés, al mando del capitán Ureta, entre el entusiasmo delirante, rompen el silencio de la ciudad mártir con el grito de ¡Viva España!” (Anabitarte eta Lema, 1986: 76).

bezainbat gustatzen zitzaion gainera Zubimendi eta Luzearrekin aurreko zikloan estreinatu zuen irratia eta *La Voz de Españarekin* lehen txapelketa antolatu eta gutxira alor horretako jarduna ere berreskuratuko du:

“Gerra ondoren, 1949ko udazkenean, hasi ziren Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntasunez, Radio San Sebastian irratian Basarri, Jose Artetxe, Beorlegi, Maria Dolores Agirre, Milagros Bidegain eta talde bat irratsaioak egiten astero. Hitz egin eta bertsoak kantatzen zituen Iñakik. Zazpi-zortzi urte iraun zuen halaxe irratsaio hark.” (Iriondo, 2013a: 180-181)

Bi adarretan gauzatuko du ibilbide luze bezain oparoa. Prentsan ikerketa honetarako bildu ahal izan denaren arabera *La Voz de Españaz* gain *Aranzazu*, *Vida Vasca*, *Mundo hispánico*, *El Diario Vasco*, *Zeruko Argia*, *Principe de Viana*, *Goiz-Argi* eta *Hoja de Lunes de San Sebastián*en argitaratu zuen bertsolaritzaz hurrengo hiru hamarkadatan³⁵¹. Irratian ere aurrera egin zuen Radio San Sebastián-eko etapa bukatu ondoren:

“1957an ekin zioten berriro, Donostiako La Voz de Guipúzcoa irratian, Basarri, Maria Dolores Agirre herritarra, Manu Oñatibia eta Enrike Zurutuza albaiteroak, Jose Mari Etxebeste, eta abar, ostiral arratsetan. Ordu hortan zain eta adi egoten zen jende asko ezagutu genuen (...) *Nere Bordatxotik* atalean, kontakizun eta albisteak eman ohi zituen, eta azkenean, bertso bat edo bi kantatu aurrez aipatu zuen gai bakoitzari bere moralina erantsiz.” (Iriondo, 2013a: 181)

Luzea eta oparoa ez ezik arrakastatsua izango da Basarri kazetariaren ibilbidea. Iriondok aipatzen duen bezala bera tartean zen irratsaioek entzule asko izan zituzten, eta ‘Mi Atalaya montañera’-k ere jarraitzaile mordoa zuen. Honela dio Zavalak: “Aren egunkarietako saillak ainbat irakurle biltzen zituena idazkirik ez da bearbada gure artean izan. Nik, aurreraxeago esango dedanez, erri-jende asko jarri det idazten. Baiña oietako asko Basarriren saillaren irakurleak zirala ez det dudarik egiten” (2006a: 28). Eta 1970eko hamarraldiaren bukaera aldera bere zutabea *La Voz de Españatik Diario Vasco*ra aldatzea albiste bihurtu izanak ere Basarriren lanak urte luzez hartu ahal izan zuen dimentsioa erakusten du: 1978ko azaroaren 30ean, aldaketaren berri eman zuen *El Diario Vasco*k lehen orriari argazki eta guzti (‘La columna diaria de ‘Basarri’/Desde mañana, ‘Nere Bordatxotik’) eta baita *La Voz de Españak* ere (‘Basarri’ cede el puesto a Garaiko/Garaiko, nuevo titular de la sección’). Biharamunean berriro ere ongi etorria egiten zion *El Diario Vasco*k (‘Ongi etorri, ‘Basarri’! ¡Bienvenido, ‘Basarri!’’).

Bertsolari bezala izandako ibilbideari hedabideetan izandako protagonismo hori gehituko zaionez erabat figura erreferentziala izango da zarauztarra frankismoak iraun zuen hainbat hamarkadatarako ziklo honetan. Askok esan eta idatziko du bertsolaritzaz eta Dorronsorok aitortzen duen bezala pisu garrantzitsu bat izango dute guzti horiek: “Irrati-kontuan ere Basarriren katekesia, periodikoan egiten zuenarekin batera, inportantea izan da” (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 19)

³⁵¹ Ikusi den bezala *La Voz de Españan* hasi bezain pronto sartu zituen euskarazko pasarte batzuk. Testuak elebitara ateratzen hasterako urteak joango dira, ordea. Ikerketa honetan jasotakoaren arabera 1967an hasiko dira testu bera bi hizkuntzatan argitaratzen duten artikulua: “Asieran euskeraz etzan libre. Baiña gero, noizean bein, bertsolari zarren pasadizoak sartzen asi nintzan euskeraz, eta bertsoren bat edo beste (...) Eta azkenean, urteen buruan, bertako zuzendariak, ez daukat orain gogoan zein zan, erderaz eta euskeraz erdibana egiteko eskatu zidan” (Zavala, 1992b: 17).

Testurik gehien egunkari honetan argitaratu zuenez erdarak proportzio garrantzitsua izango du bere produkzioan baina *Aranzazun*, *Zeruko Argian* eta *Goiz-Argin* ere testu ugari argitaratuko ditu, eta hauek guztiak euskaraz izango direnez gehiago izango da hizkuntza honetan argitaraturikoa.

Hainbat ekarpen egingo ditu, baina garrantzitsuenetako bat bertsoaritzaren hedabideratzean buruturikoa izango da. Honela azpimarratzen zuen, jada 1960an, Aita Karmelo Iturriak:

“Bai, ogeigarren gizaldiak aurrerapenik ekarri dio munduari. Edozertan aurrerapenak. Jakintzatan eta teknika-gauzetan, gogozko eta besozko gauzetan, danetan. Bertsoaritzan ere bai. Ta ogeigarren gizaldiko bertsoaritzaren eragille, egille ta eredu, Basarri degu. Azalez eta mamiz. Bertso-mamiari, bertso-gaiari begiratu ezkerro, berak jaso du bertsoaritzaz gaur duan mailla ederrera (...) Azalari begiratu ezkerro berriz, berak eraman du bertsoaritzaz periodikua ta radioetara.” (1992b: 22)

6.2.2 Iparraldean Hernandorena

6.2.2.1 Bertsolari bila ikerlari pribatu baten pare

Gerratik ihesi muga zeharkatu zuen Hegoaldeko jende askok. Errealitate gordin horrek ondorio positiboren bat ere izan zuela seinatzen du Dorronsorok:

“Baina txarra ere ez da dena. Alabeharrez, beti gertatzen den eran, Euskal Herriaren egoera eta sasi-muga hori tartean dela, askok beste aldera joan behar izan du eta han bertsoagintza bizteko aukera dator. Hernandorena han dabil. Baita Monzon ere. Basarri ere bai, gerra ondorengo hiru urtetan behintzat. Errexil bertsolariak ere, hor mugan goardian dagoela, pentsatzen du "bueno, nik joan egin behar diat hemendik" eta hanka egiten du bere metraileta eta guzti Francoren zeretik beste aldera. Bertsolari bat gehiago Iparraldean.” (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 14)

1960ko hamarraldian *Enbata* mugimendu abertzalea loratu aurretik II. Mundu Gerraren bukaerarekin Iparraldean abiarazten den pizkunde kulturalaz dihardu Martinezek: “Garaia ezaugarritzen duen ekimen kulturalen oparotasuna gerra bukatu eta berehala hasiko da” (2015: 80). 1946an Baionako bikarioak antolaturiko udaleku euskaldunak aipatzen ditu, urte berean Euskal Gazteriaren Biltzarrak Baionan antolaturiko euskal dantzen erakustaldia, 1948an Biarritzen ospaturiko Eusko Ikaskuntzaren Kongresua, edota urte horretan Baionan ospaturiko ‘Euskal kantaren gala’ eta Ramuntxo euskarazko antzezlanaren estreinaldia. Eta loraldi honetan gerratik ihesi muga zeharkaturiko errefuxiatuek izandako parte hartzea seinatzen du: “Kultur mailan, errefuxiatuek pisu handia izango dute euskal kulturaren biziberritze eta hedatzean” (Martinez, 2015: 79). Hernandorenaren ekarpena espresuki azpimarratuaz: “Teodoro Hernandorenak, bertsoaritzaz berpizteko lan erraldoia egingo du, eta Lapurdi, Baxenafarroa eta Zuberoa puntarik punta bertsolari bila zeharkatu ondotik, besteak beste, Xalbador eta Mattin plazaratzearen arduradun nagusietakoa izango da” (id.: 79).

Aurreko atalean azaldu da nola errefuxiatu zen zizurkildarra Iparraldean³⁵². Ez zen geldirik egoteko gizona: Gernikako Elai Alai haurren dantza taldearekin European zehar hainbat emanaldi egin zituen hilabete luzez; familiaren ondora itzuli behar izan zuenean dentista kontsulta bat jarri zuen; hura itxi ziotenean kontrabandoari ekin zion, inportazioa eta esportazioari gero... eta 1940ko hamarraldiaren erdialdean bertsoaritzaren eragiletzan buru-belarri murgiltzea erabaki zuen.

Bazekien zertan ari zen. Erabakiorra izan zen Aitzolek txapelketen antolaketari ekiteko hartu zuen erabakian³⁵³, eta Txirritaren omenaldiko argazkitik zetorren. Are gehiago bera izan zen

³⁵² Ik. 5.4.1.4 Hernandorena, etenik gabeko ekintzazailtza

³⁵³ Ik. 5.2.6.1 Hernandorena, akuilua (1898-1994)

argazkiaren antolatzaile³⁵⁴. Txapelketen jarraipena izango zen bere proiektua: “1935-36ko arrakastatik ondo ikasita zetorren Teodorok, beraz, txapelketaren filosofia ezarri zuen, non ezarriko eta ahal izan zen Euskal Herriko zatian, Iparraldean, alegia. Ziur edukita, bertsolaritzaren erakuslehiorik arrakastatsuen zela eta bertsolaria eta betsozaleak modu horretan mobilizatzen zirela aisa” (Lasa, 2008: 769).

Eusko Alderdi Jeltzaleari planteatu zion bere egitasmoa, baita Euskaltzaleen Biltzarrari ere, baina, gerraurretik nahiz gerran buruzagi jeltzale garrantzitsu bat izana zen arren, ez zion inork kasu handirik egiten. Honela kontatzen du Hernandorena berak: “(...) bi alderdiko buruzagiei, eten gabe, bein da berriz eskatzen genien, bertsolariak billatzen saia zitezela, euren bilkurak alaitzeko eta bide batez, gizon aien doai miresgarriak Erriari ezagutarazteko. Erantzuna beti bera zan: ‘alde ontako Euskalerrian ez dago bertsolaririk!’” (*Principe de Viana*, 1974 abendua, ‘Sumbilla’ko Ximun Ibarra bertsolariari’; Hernandorena, Teodoro). Esan bezala, ez zen, ordea, geldirik egoteko gizona:

“Gogoan dugu, bein batez, Donibane Loitzuneko kalean, Eskualtzaleen Biltzarreko buruzagi bat³⁵⁵ arkitu gendun (...) bertsolarien arazoa berriztu gendun. Eta berak erantzun: “Zuen aldean, Gipuzkoan bai; badira pertsulariak: baiña emen, ez. Leen bazen bat, Senpereko Mattin; baiña ura... il zan. Gainera, zertarako dituzu pertsulariak? Bistrotan (tabernetan) irri eginarazteko bertzetarako ez dute balio!’ (...) une artan bertan artu gendun, gure iduriz bide bakarreko zan erabaki bat: Ipar Euskalerriko baztar guziak, zeatz-meatz miatzen saiatuko ginan, bertsolariak ba-zen edo ez jakiteko.”

Esan eta egin, bertsolaritzaren historian hainbatetan gertatu den gisan bakarlanean buruturiko ekimen harrigarria burutu zuen: “Bakar bakarrik hasi zen, inongo kultur erakunderen laguntzarik gabe. Erbi zakurren edo ikerlari pribatu baten pare ibili zen, non zer suma, Ipar Euskal Herrian zehar” (Lasa, 2008: 774)

Hamarkada batzuk geroago prentsaren bidez azaldu zuen nola burutu zuen lan hura, eta hari horri tiraka, Lasak egiten duen bezala (2008: 776-782), ibili zuen bide osoa berregin daiteke. Honela, *Principe de Viana*ren 1975eko urtarrileko zenbakian kontatzen duenez, Mattin izan zen bere peskizei esker topatu ahal izan zuen lehen bertsolaria:

“(...) Bertsolari billa Ipar-Euskalerrian miatzen asi giñanean Donibane-Lohitzunen bizi giñan eta lendabiziko ‘bertsolari-arrastoa’ bertan eta Sarako erri inguruan atera gendun. ‘Bai, -esan ziguten- Sarako festetan entzun izandu omen zuten bertsolari bat...’, baiño nor zan eta nungoa zenaren arrastorik gabe. Galdetuz-galdetuz Ahetzekoa ote zanaren susmurra izan gendun.

Bereala erri ortako jaun erretorearengana jo gendun, eta baita ere onek, guk bilatzen gendun bertsolariaren baserria erakutsi (...) Atea jo bezain laixter, Mattin bera azaldu zan gure aurrera (...) ‘Ba...! tarteka tabernan aritzen gera, pixka bat berotzen geranean’ (...) ‘Ez, nik dakianik ez da bertzerik inguru oietan. Lenago Lohussoako Larralde ezagutzen nuen baina ura il zan’ (...)” (*Principe de Viana*, 1975 urtarrila, 6 or., ‘Euskalerrian zear, bertsolari billa’, Teodoro Hernandorena)

Dorronsorok aipatu berri duen Errezil bertsolaria, metraileta utzi eta muga zeharkatu zuena, EAJk iparraldean errefuxiatuekin antolatu zuen zenbait bilkura eta afaritara joana, eta hortik izan zuen Hernandorenak bere berri. Iratiko basoan lanean zebilenaren entzutea zuten:

³⁵⁴ Ik. 5.4.1 Txirritaren omenaldiko argazkia

³⁵⁵ Aristorenaren (1992: 7) eta Iriondoren (2004: 22) arabera Louis Dassance zen buruzagi hura.

“(…) Iratiko basoa ordea, Naparroa, Baxe-Naparratik eta Zuberoa’gandik mugatzen zuan urrutiko baso aundi-zabal bat zan (...) ‘Inun izatekotan, Donibane Garazin jakingo dezu lantoki orren berri’ (...) iru seme-alabak artu eta Garazira joateko erabakia artu gendun (...) mendi azpian zeuden kable batzuk aurkitu genituen eta, oien ondoan, mendi-gora zijoan bidexka bat (...) Basoan, lanean ari zan tokira inguratu giñan (...) ‘Zure billa nator Goikoetxea’. ‘Nere billa mendi punta ontara? erantzun zidan berak arrituta.’” (*Príncipe de Viana*, 1975 otsaila, 6 or., ‘Bertsolariak’, Teodoro Hernandorena)

Goikoetxearen bidez jakin zuen Ximun Ibarra zeritzon Sunbillako bertsolaria Iratiko etxola batean bizi zela. Hau ez zen, ordea, aurreko biak bezain prest agertzen zizurkildarrak antolatu nahi zuen sariketan parte hartzera: “Begira, nik neguan errira, Sunbillara itzuli bear det. Eta euskerazko festa batean ibili naizela jakiten badute, zigortuko naute (...) herrian euskeraz itzegite utsa ere galerazita dago eta, ondo ulertuko dezun bezela, askoz okerrago litzateke...” (*Príncipe de Viana*, 1975 martxoa, 6 or., ‘Euskalerrian zear... Bertsolari billa. Ximun Ibarraren ezagutza eta bataioa’, Teodoro Hernandorena). Izen faltsuarekin (*Zubikoa* gisa bataiatu zuen, lagun baten baserriaren izena) aurkeztu zitekeela iradoki eta gaiak ez zirela konprometituak izango ziurtatu ondotik lortu zuen bere kausara apuntatzea.

1936ko finalean bertsolari gazteenaren saria eraman zuen Felix Iriarteren ezagutza ere bazuen. Garazin eta Baigorri ibili zen honen bila, azkenik Banka herrian topatu zuen arte. Baiezkoa eman zion eta baita beste bertsolari baten berri ere:

“(…) Aldudeko ostatuan noizian beinka aritzen den mutiko bat ezagutzen det’.

- ‘Oso ondo. Gazte ori ere ekarrarazi bear genduke Donibanera. Non bizi dan badakizu? Joango nitzake bera ikustera. Berarekin, bosteko taldea osatuko genduke: saioketa baterako naiko.’

- ‘Utzi ori nere kontu, erantzun zigun Iriartek; bear dena nik egingo det...’” (*Príncipe de Viana*, 1975 apirila, 6 or., ‘Euskalerrian zear... bertsolari billa/Iriarte’ren bidez, Xalbador’, Teodoro, Hernandorena)

Fernando Aire zen mutikoa: “Bertsolari gazte ura, ‘XALBADOR’! zan; Urepel’eko bertsolari gaztea, denborarekin, Euskalerria’k egundaino ezagutu dituan bertsolari goragarrietan, goren-gorenko bat izango zan bertsolaria” (*Príncipe de Viana*, 1975 apirila, 6 or., ‘Euskalerrian zear... bertsolari billa. Iriarte’ren bidez, Xalbador’, Teodoro Hernandorena).

6.2.2.2 Hernandorenaren lehen txapelketak

Hamasei bertsolari bildu zituen saialdi hartan eta txapelketaren lehen saioa, aurrerago jokatu zuen finalaren kanporaketa gisa antolatu zuena, Donibane Lohitzunen ospatu zen, 1946ko irailaren 22an. Bere poltsikotik ordaindu behar izan zituen gastu guztiak, baina ez zitzaion batere damutu:

“Lohitzunen eratu nuan txapelketa hura neretzat atsegingarria izan zen, ez nire patrikarentzat, orduko 50.000 franko baiño gehiago kostatu zitzaidalako, baiño bai nire satisfaziorako, eta barkatu othoi esaten badut, nire urgulloarentzat, an lerrokada aundi batean ezarriak ikusten bai nitun, Ipar Euskalerriko bazter guzietatik etorritako bertsolariak EUSKALTZALEEN BILTZARREKO buruzagien aurrean, eta nik, biotzkada batek eragiñik sakrifizio aundi baten ondoren, bertara ekarriak. Egun artan konturatu ziran Euskaltzaleen Biltzarreko buruzagiak, bertsolariak etzerala bistrotan irri egiñarazten ibiltzen zirenak.” (Lasa, 2008: 783)

Finala Hazpamen jokatu zuen azaroaren 17an. Mattin irten zen garaile. Ez batera eta ez bestera ez ei zen jende askorik hurbildu. Bigarregora azaldu zirenei, ordea, ez zitzaizen kategoriarik falta:

“Errana dizuet Donibanen –ene moltsaren zorigaitzez- etzela jende aunitzik bildu pertsulariak entzuteko. Itxaropen osua nuan Haspamen gehiago izango zala. Lau orenetan astekuak ziran pertsulariak. Ni, lauak eta laurdenak pasaturik sartu nitzan trinketera eta bertan zeuden lau pertsona, Agirre Lehendakaria bere emaztea eta bi seme alabarekin. Bertze nior ez...” (*Herria*, 1965/III/18, 4 or., ‘Pertsulariak’; Hernandorena, Teodoro)

Hurrengo zortzi urtetan gisa horretako hamazazpi saio antolatuko zituen zizurkildarrak. Eta Lore Jokoetan nahiz Euzko Pizkundean garaturiko bideari jarraiki ahalegin berezia egingo zuen bertsolaritza prestigiatzeko. Honela, apaiz, politikari, auzapez, idazle, mediku eta gisakoak eseri ohi zituen epaimahaian: “Apropos hartutako erabaki zen hori. Argi dago bertsolaritza eta bertsolarien izena eta izana goratzeko kanpainaren barruan kokatzen zela hautaketa selektibo eta elitista hori” (Lasa, 2008: 805). Edo, lehen saioan Agirre lehendakaria gonbidatu zuen bezala hurrengoetan autoritate nahiz figura prestigiotsuak ekarri ohi zituen entzutera ahal zuen guztietan³⁵⁶.

Hasiera hasieratik bilatu zuen, bestalde, Hegoaldeko bertsolariak ekarri eta Euskal Herri osoko sariketa burutu ahal izatea (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 14-15; Lasa, 2008: 827). Saran 1948ko apirilaren 4rako antolatu zuen saiora Uztapide eta Basarri ekartzen saiatu zen. Hegoaldeko organigrama frankistarekin harreman oso onak zituen Sarako alkate Dutoirrek lagundu zion, baina etzuten muga pasatzerik izan. Hurrengo urtean lortuko zuen, 1949ko Urruñako saioan. Handik aurrera urtero ekarriko ditu Hegoaldekoak: Basarri eta Uztapidez gain, Mitxelena, Lasarte, Azpillaga, Lopategi...

Zizurkildarrak berezko sena zuen propagandarako aurreko atalean aipatu den gisan. Eta txapelketa hauen antolaketan oso kontutan hartuko du alderdi hau. Aipatu den gisan 1944ean *Herria* aldizkaria sortu berria zen, sei hamarkadatan Ipar Euskal Herriko euskaldunen artean hegemonikoa izan ondoren naziekin lerratu zelako itxi zuten Eskualdunaren lekukoa hartzeko³⁵⁷, eta Hernandorenak bertako zuzendari Pierre Lafitterekin harreman ona egin zuenez aldizkari hau baliatu zuen plataforma nagusi gisa. Saio hauen guztien iragarpen, deialdi, kronika eta iruzkinak argitaratu zituen, eta bestelako sinadura batzuk ere batuko zitzaizkion pixkanaka lan horretan. Honela, eta Hegoaldeak frankismoaren lehen hamarkadan bizi zuen erabateko blokeoa zela medio *Herria* izango da 1940ko bigarren erdian bertsolaritzaz gehien argitaratuko duen medioa, alde handiarekin gainera. Eta Hegoaldean Basarrik *La Voz de España*ekin egingo duen bezala Hernandorenak *Herriaren* babesletzaz antolatuko du bere txapelketaren bat (1953an antolaturiko bigarrena, esaterako).

Herriako testu horietako batzuk ematen dituzte, hain zuzen, Hernandorenak hedapenari jartzen zion arretaren zantzu gehiago. Honela, esaterako, 1947ko irailaren 8an Donibane Garazin ospatu zen txapelketari buruzko kronikan zera irakur daiteke: “Pertsulariak chafaut-gain batean ziren, zortziak. Chafauta gorritz apahindua zen. Dilindan gibelachago eskualdun bandera (...) Jujeak jarririk zeuden hauen oinetan (...) Ondoan bi andere Paristar gaztek

³⁵⁶ Lore Jokoen inguruan Bidartek aipatzen zuen Abbadiek jokabide hori bera izan ohi zuela epaimahaiaren osaketari eta gonbidatu ilustreri zegokienean. Ik. 4.4.2.3 Planteamendua eta ekarpena

³⁵⁷ Astekariaren sorreran Louis Dassance, Pierre Lafitte eta Saint-Pierreren papera azpimarratzen du Díaz Nocik, baita Jean Elissalde *Zerbitzari*, Telesforo Monzon eta De la Sota laguntza ekonomikoa ere; Eskualdunak azken urteetan galduriko irakurleak berehala berreskuratu eta 10.000 ale botatzeari ekin ziotela gaineratzen du, bestalde (2012: 194-195).

tresna berezi batekin bertsolarien kantuak hartzen zituzten” (*Herria*, 1947/IX/11, 1 or., ‘Bertsularien bigarren eguna’)

Aipatu da Zavalak 1960ko txapelketari buruzko liburuari egindako hitzaurrean txapelketa lehen aldiz magnetofoiiaz grabatu zela aipatzen zuela nobedade nagusi eta garrantzitsu gisa. Gerora hainbat egilek errepikatu dute datu hori (Esnal, Egaña eta Sarasua, 2002: 801; Etxezarreta, 1993: 168; Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 18; Iriondo, 2010: 14-15). *Herriako* testuak agerian uzten du, ordea, Hernandorenak antolaturiko txapelketetan hamahiru urte lehenago egin zela grabaketaren bat.

1952ko abenduaren 28an Saran jokaturiko saioaren kronikak, aldiz, honela dio: “Kazeta egile parrasta bat mendiz bi aldetakoak: Donostiarren artean ezagutu ditugu Echaide eta Bordari. ‘Radio-diffusion’ delakoak ere hari dira, ondoko egunetan (...) emaiteko T.S.F.-az (...) Stern jaun Amerikanoa ere hor zen, film bat ari baita aphailatzen Eskual-herrian” (*Herria*, 1953/I/01, 1 or., ‘Mattin Aheztarra chapeldun’, *Han zen bat*).

Batetik, kazetari ugariren presentzia, bada, urte haietan *El Diario Vascon* euskal gaiak lantzen zituen Fernando Artola *Bordari* eta Jon Etxaide idazlea espresuki izendatuaz³⁵⁸. Bestetik, grabaketa berriro ere, kasu honetan irati emanaldi baterako. Eta, azkenik, zinegile baten presentzia³⁵⁹. Bada interes mediatikoa 1950 hamarraldiaren hasieran partikular batek antolaturiko bertso-saioa izateko.

Hegoaldeko bertsolariak parte hartzen hasten direnean Hegoaldera ere iritsiko da oihartzuna. 1949an, Basarri lehen aldiz aurkeztu eta txapeldun irtetea, *La Voz de España* lau testu eskainiko dizkio gertakariari³⁶⁰. Tartean baita bertsolaritzaren historiako hirugarren elkarrizketa ere:

“Y Basarri, nuestro compañero que deleita con su ‘Atalaya Montañera’ todos los días a los lectores de LA VOZ DE ESPAÑA, venía nada menos de proclamarse campeónísimo en el difícil arte de improvisar en verso (...) Suspendimos un tanto los placeres y me lo arrastré a mi despacho. Puso sobre la mesa la copa (...) - ¿Se había presentado usted alguna otra vez? (...) - ¿Cuántos bersolaris contendían?” (*La Voz de España*, 1949/XI/22, ‘Basarri campeón del mundo de bersolaris’, Engrazio Aranzadi *Basa Jaun*)

Hortik aurrera egunkari donostiarrak kasik urtero emango du Hernandorenaren txapelketen berri, eta 1953an, Luhuson taldeka egin zen txapelketan gipuzkoarrek (Uztapide, Lasarte eta Lizaso) irabaztean, *El Diario Vasco* ere batuko zaio³⁶¹.

Lortu dute Hernandorenak eta Basarrik bata Iparraldetik eta besteak Hegoaldetik aurreko zikloaren jarraitasunerako buruturiko ahaleginak uztartzea.

³⁵⁸ Bordari bertsolaritzaren eragile garrantzitsu bat (gai-jartzaile, aurkezle, epaile eta antolatzaile) izango zen 1960ko hamarraldian. Jon Etxaidek Etxahuni buruzko eleberria eta hainbat artikulua argitaratu zituen.

³⁵⁹ Hari honi tiraka ez da askorik topatu ahal izan. Lasak (2008: 791) abizenari izena gehitzen dio: Kurt Stern. Eta sarean saltseatuaz amerikarra ez baizik eta alemaniarra zela argitu ahal izan da. Euskal Herriari buruz zuzenduriko film edo dokumentalen arrastorik ez.

³⁶⁰ *La Voz de España*, 1949/XI/19, ‘Campeonato de bersolaris en Urrugne’; *La Voz de España*, 1949/XI/20, ‘Basarri: campeón del mundo de bersolaris en Urrugne/Uztapide, Xalbador, Mattin, empatados’; *La Voz de España*, 1949/XI/22, ‘Basarri campeón del mundo de bersolaris’; eta *La Voz de España*, 1949/XII/02, ‘Me siento apocado’.

³⁶¹ *La Voz de España*, 1950/X/03, ‘Basarri, otra vez campeón mundial de bersolaris’; *La Voz de España*, 1951/IX/26, ‘Jornada de poesía improvisada’; *El Diario Vasco*, 1953/V/27, 4 or.. ‘Vencieron los bersolaris gipuzcoanos’; *La Voz de España*, 1953/VIII/03, ‘Premio de Herria’.

6.2.3 1950eko hamarraldiaren bigarren erdiko bulkada berria

6.2.3.1 1956: indarberriturik berrekiteko erabakia

1956a mugarri bat izango da euskal kulturgintzaren historian: “1956ko urte hura, gure euskalgintzaren ibileran, epe baten ataria dela esan liteke, beldur handirik gabe; asko eta esanahitsuak izan ziren hamabi hilabete haietan sortutako kultur gertakariak” (Intxausti, 2014a: 315).

Karmel aldizkariaren sorrera, bi urte lehenago euskara hutsean hasi zen *Egan* aldizkariak bere orrialdeak seitan biderkatu izana eta bertan Koldo Mitxelenak burutzen duen euskal literatur kritika berritzailea, Guatemalako *Euzko-Gogoa* Ipar Euskal Herrian kokatu izana eta urte hartan argitaraturiko euskarazko berrargitalpen eta itzulpenak aipatzen ditu Intxaustik (2014a: 315-316). Torrealdaik Euskaltzaindia berriro ere *Euskara* argitaratzen hasiko dela ere gaineratzen du, eta *Jakin* aldizkariaren sorreraren garrantzia azpimarratu:

“(…) nace Jakin, en Aránzazu, reuniendo en torno a si ecuménicamente a religiosos y seminaristas y luego a laicos deseosos de preparar los caminos universitarios del euskera. En torno a esta publicación se reúne por primera vez para trabajar en equipo la generación que no ha conocido la guerra” (1977: 312)

1954an ere, esaterako, eman ziren hainbat gertakari garrantzitsu. Aipatu den gisan *Egan* orduan hasi zen euskara hutsean, *Zeruko Argia* urte hartan berragertuko zen baita, edota Torrealdaik aipatzen duenez euskarazko literatura lanen kopuruak hazkunde handi bat izan zuen urte hartatik aurrera (1977: 311). Beraz, data zehatza baino urte haietan sortzen ari den giro berria da garrantzitsua: “Frankismoak inposaturiko politikaren aurrean, euskal gizartea modu esanguratsuan orain hasiko da erreakzionatzen” (Torrealdai, 2000: 104). Hala ere bai Torrealdai nahiz Intxaustik giro hori euskal intelligentsiaren erabaki kolektibo gisa 1956an, Arantzazun eta Parisen antolaturiko Biltzar banatan, gauzatu zela azpimarratzen dute Torrealdai nahiz Intxaustik.

Arantzazukoa Euskaltzaindiak antolatu zuen, irailaren 14tik 16ra bitartean, eta gerraostetik antolatzen zuen lehen Biltzar irekia izan zen. Euskararen egoera larriari buelta emateko burutu beharreko modernizazio lanaren inguruko eztabaidari heldu zitzaion bertan: “Hizkuntzari balio praktiko eta funtzionala eskatu behar zitzaiola esaten zuen tesiaz ari gara. Euskara, kultura modernoaren zerbitzuan jartzean ikusten zen funtzionaltasun hau. Ideia honetan bat zetozen, elkarrekin, Villasante eta Txillardegi ez ezik (...) Biltzar osoa” (Intxausti, 2014a; 318). Garbizaletasunaren betiereko istiluak baztertu eta batasunari heldu beharra ikusten da, bestalde: “(...) beharbada orduantxe eman ziren, lehenengoz, hizkuntzaren kultur eskakizun berriei erantzuteko irizpide berriak. Libreki eta garbizaletasun gogortu baten ortopediarik gabe aztertu nahi zen arazoa” (id.: 320). Torrealdaik funtsezkotzat jotzen du Biltzar haren ekarpena: “Hamar-hamabi urte geroago euskarak izango dituen desarrolloak hemen daude lorea hazian bezala” (2000: 105).

Testuingurua ez zen, ordea, hamar-hamabi urte beranduago emango zena. Honenbestez, lehen pauso egingarrien artean bilketa aipatu zen berriro. Ibarren hitzak dakartza Intxaustik:

“Nuestro idioma vasco (...) está condenado a muerte de asfixia mientras tenga impedido el libre acceso a la radio, a la prensa diaria, la escuela, el teatro, el cine... (...) mientras dure el actual estado de cosas (...) no está en nuestra mano el organizar la verdadera defensa del Euskera (...) Con todo, [...] ninguna traba nos habría de impedir, seguramente, organizar y llevar a cabo ahora mismo cierta vasta operación de salvamento indirecto, de incalculable

alcance (...) El objetivo inmediato de la operación sería lograr el inventario más completo y manejable posible de nuestra lengua en su vocabulario, locuciones, folklore y producción literaria” (id.: 317)

Zavalak hain zuzen Biltzar hartan eman zuten bere egitasmoaren berri. Eta ezin hobeto egokitu zitzaion xede orokor honi. Intxaustik bere garrantzia aitortzen dio, kasu honetan euskararen historia sozialaren markoaren baitan:

“Hiru egunetako mintzaldiak, eskierki, bi sailetan bana ditzakegu: a) batzuek beren bilketa-lanen azalpena egin zuten (...); b) besteek hizkuntzaren etorkizunari buruz hainbat gogoeta eskaini zuten (...). Hemen, gurerako interesgarrienak bigarren hauen hitzaldiak dira, baina azpimarratu behar da, orduan aurkeztu zela harrezkero halako segida izan duen Zabalaren bertso-bilketaren asmoa ere. Hau ere, esan liteke, asmo mugarrria izan zen.” (2014a: 316-317)

Parisko Biltzarre Eusko Jaurlaritzak antolatu zuten, urte bereko irailaren 23tik urriaren 1era. Hitz hauekin luzatu zuten deia Jose Antonio Agirre lehendakariak:

“El Gobierno ha estimado que ha transcurrido desde su proclamación el tiempo suficiente que aconseja la organización de una asamblea de la amplitud de la que en su día se reunirá en París (...) Desde 1936 hasta hoy ha surgido una nueva generación cuyos sentimientos y opiniones es del más alto interés conocer y pulsar.” (Askoren artea, 1981: 13)

Munduan zehar erbestealdian bizi ziren hainbat norbanako eta erakunde bertaratuko ziren, baita Ipar Euskal Herriko errefuxiatuak eta, neurri apalagoan, Hegoaldetik datozen ordezkari batzuk ere. Politikari, sozio-ekonomiari, Munduko euskaldunei” eta kulturari buruz ziharduten lau sailetan banatu zen Biltzarra eta azken honetan jorratu zen euskararen egoera, hainbat txosten aurkeztu zelarik: “Oso balio ezberdineko lanak dira. Aipa ditzagun interesgarrienak: FEVA (Federación de Entidades Vasco-Argentinas), Amezaga, Krutwig, Umandi, Ekin, Zaitegi, Hernandorena eta abarren lanak edo eztabaidak argigarriak dira garaiko planteamenduak eta iritziak ezagutzeko” (Intxauste, 2014a: 324). Kultura Sail honen diagnostikoak, Euskaltzaindiako Biltzarretik jaso diren Ibarren hitzek bezala, eskolaren eta hedabideen garrantzia azpimarratu zuten:

“Arrojado [el euskara] de la escuela y de la prensa diaria encerrado en los límites de uso doméstico, impedido su acceso a los medios de expresión con los que la técnica moderna llega hasta el interior de los hogares, el acoso a la lengua vasca es de tal naturaleza que obedece a un premeditado plan de exterminio” (Askoren artean, 1981: 48-49)

Eta kulturagintzari indarberriturik berrekitearena izan zen azken ideia garrantzitsuenetako bat:

“Francoren pean eta nor bere herritik urruti jada 20 urte, majo zimeldu dira Euskal Herri askearen esperantzak (...) Franco une batetik bestera eroriko zela uste zuten hasieran diasporako jendeak, eta erorketa hori eragin nahirik zebilen kanpotik. Baina Franco ez zen erori. Aitzitik, nazioarteko onarpena lortu zuten, eta orduan kitto esperantzak. Aliatuen traizioaz mintzo da exilioa aho batez. Zer ondorio? Kanpoan barik, barruan egin behar da borroka. Politikan bakarrik ez, kulturari eta hizkuntzaren alorrean egin behar da lan. Hauxe da Parisko Mundu Biltzarrak erabaki zuena.” (Torrealdai, 2000: 105)

Energia berritu honek ekarriko zuten ziklo honen gailurra, eta baita hausturaren hazia ere:

“En 1956 comienza seguramente una de las etapas más vitales y creadoras de la historia de la cultura vasca. Conviene anotar que es precisamente ahora cuando se da el relevo generacional, si bien la ruptura generacional con el subsiguiente enfrentamiento se produce a partir de los años 60” (Torrealdai, 1977a: 312-313)

6.2.3.2 Euskaltzaindiaren aterperako elementuak: Arrue, Zavala, Lekuona eta Irigoien

Euskaltzaindiaren sorreratik bertako zuzendari izan zen Resurrección Maria Azkue 1951n hila, 1952an Inazio Maria Etxaide izendatu zuten Euskaltzainburu. Profil egokia zuen honek kargurako: abertzalea izan gabe oso euskaltzalea zen.

Erakundea pixkanaka hasia zen gerraosteko tristura atzean uzten. Zentzu honetan garrantzitsua izango zen 1947an euskaltzain oso izendaturiko gazte baten lana. Federiko Krutwigek artean kasik nerabe bat zela egin zuen harremana ordurako 80 urteen bueltara gerturatua zen Azkuerekin: “Hamazortzi urte inguru zituenean, euskal zaletasunak Federiko Euskaltzaindira erakarri zuen, gerra galduaren ondoko bakartasunean ia erabat ahantzirik zegoen erakundera. Han R. M. Azkue ezagutu zuen eta laster biak lagun minak izatera heldu ziren” (Kintana, 1999: 3). 21 urterekin euskaltzain urgazle izendatu zuen lekeitiarrak eta euskaltzain oso 26rekin, inoiz eman den izendapen goiztiarrean. Esan bezala, beste martxa bat eman nahi izan zion erakundeari:

“Krutwig pausoka Euskaltzaindiaren barne-funtzionamendua eta egitura egokitzen saiatu zen. Ordurarte bilerak erdaraz egiten baziren, berari esker euskara «lan-tresna» izatera pasatu zen. Hori, garai hartarako, urrats garrantzitsua izan zen, eta aurreko mentalitatearekin haustura garbia zekarren. Bestalde, euskaltzain berri batzuk izendatzea ere proposatu zuen. Horietako batzuk frankismoak begi onez ikusiriko euskaltzaleak ziren, horiei esker gobernuak Akademiak izan zitzakeen susmo txarrak uxatzeko (...)” (Kintana, 1999: 5)

Antonio Arrueren kasua aipatzen du Sudupek:

“Hasiera batean, N. Etxaniz eta Joseba Rezola jeltzale euskaltzaleek-eta ez zuten txarretsi Lojendio eta Arrue karlistak euskaltzain egitea; alderantziz! Hona horren frogak: 1953ko abuztuan, Etxanizek Ibinagabeitiari gutuna: ‘(...) Gure jokaerarik egikorrena, Amigos del País bazkunaren itzalpean lan egitea izango genuke. Horrela baimenak errezago iritxi genezazke. Gañera, karlista euskaltzale batzuek gurekin artzea, mesede genuke. Aldundiko Lendakaria, Caballero, ta Arrue´tar Antonio, lege-gizona, ortarako egokiak izango ditugula, uste det.’” (Sudupe, 2012: 831-832)

Koldo Mitxelena eta Aingeru Irigarairekin batera *Egan* aldizkariaren eraberritzean murgildu berria zen Arrue, gastronomiari buruzko euskarazko artikuluak argitaratzen aitzindari zen, eta literatur kritikan ere hasia zuen bere bidea. Ez ziren horiek, ordea, bere izendapena ekarri zuten merituak:

“1954an egin zuten Antonio Arrue euskaltzain, euskararen alde eginak zituen merituengatik baino gehiago egin zitzakeenengatik, besteak beste, euskarazko liburuak argitaratzeko eta biltzarrak egiteko baimenak lortzen eman zezakeen laguntzagatik; karlista tradizionalista izanik, euskaltzale gerra-galtzaileek ez zituzten adiskideak eta harremanak zituen erregimenean norbait zirenen artean, bera ere izan baitzen norbait Francoren erregimenaren baitan –Alfonso XIII.a erregeak 1926an sorturiko Meritu Zibilaren Ordenaren domina eman zioten

1964an, Espainiako estatuaren zerbitzuan egindako merituengatik, eta 1967tik 1971era, familia ordezkari izan zen Espainiako Gorte Organikoetan.” (Sudupe, 2012: 836-837)

Bestalde, zentsura frankistarekin izandako loturaren susmo orokortua ere gaineratzen zitzaion Arrueren curriculumari:

“Lekuko askoren ahotan dabil Antonio Arrueren izena. Arrue karlista eta abokatu ezaguna zen, Asteasun jaio eta Donostian bizi izan zena. ‘Asteasuko beltza’ zuen gaitzizena. Egan-en zuzendari izan zen Koldo Mitxelena eta Aingeru Irigarairekin batera. Euskal literatura ongi baino hobeto ezagutzen zuen, eta bereak dirudite txosten batzuek” (Torrealdai, 2000: 50)

Curriculum hori gora-behera, edo curriculum horri esker, Arrue elementu garrantzitsu bat izango zen 1960ko hamarraldian Euskaltzaindiak bertsolaritzari eskaini ahal izan zion aterpean. Bere bitartekotzaz lortu ziren Auspoa liburuak argitaratzeko eta bertsolari txapelketak antolatzeke behar ziren baimenak. Epaimahaiko ere izan zen txapelketa hauetan, eta Zavalaren hitzetan, ezagutza bazuena: “Asko edo gutxi bertsoa epaitzen bagenekian danok ere. Baiña Arrueren epaia etzan kamutsena izaten; alderantziz baizik. Aren iritzia zorrotza eta fiña benetan” (2008: 15-16).

Ageriko elementua izango zen gainera, agertu zalea izanik proiektio publiko handia izan baitzuen. Honela, 1956ko Arantzazuko Euskaltzaindiaren Biltzarrerako baimena lortzeko bitartekari garrantzitsua izan ondoren (Zavala, 2008: 13-14), berak eman zuen Biltzarreko itxiera hitzaldia (Intxausti, 2014a: 316). Eta 1960ko hamarraldiko lehen hiru txapelketa nagusien finalean ere bere agurrarekin bukatzen zen sari banaketa.

Elementu garrantzitsu gehiago ere izango ditu aterpe honek. Manuel Lekuona izan daiteke horietako bat. Aurreko atalean Calahorran erbesteraturik utzi dugu³⁶² eta erbestealdi honetan zela izendatuko zuten Euskaltzain oso, 1950ean. Bertan zela apailatu zuen Euskaltzaindiak agindu zion Axularren ‘Gero’-ren laugarren edizioa ere, 1954ean. Azkenik, ezkutuan lau urte eta erbesteraturik beste hamalau eman ondoren, 1955ean eman zioten Euskal Herrira itzultzeko aukera.

Lekuona ez zen Arrue bezain agertu zale. Izatez, 1960ko hamarraldian jokatu ziren txapelketetan ez zen inoiz epaimahaiko aritu, 1935ekoan eta 1936koan lan horiek burutu zutenetik bizirik gelditzen zen bakarra bera izan arren (edo agian horregatik). Baina Euskaltzaindian pisu handia izan zuen oiartzuarrak, Euskaltzainburu ere izango zen 1967tik 1970era, eta gerra aurreko zikloan bertsolaritzak bizi izan zuen pizkundearen inspiratzaile nagusia izanik, ziklo honetan Euskaltzaindiak bertsolaritzaz arduratzeko emandako pausoen izan behar zuen zerikusirik. Ahozko literatura ikertzen eta bertsolaritzaz artikuluak argitaratzen lan egin zuen ziklo honetan ere.

Zavalak Arantzazuko 1956ko biltzarrean ezagutu zituen Arrue eta Lekuona: “Arantzazuko biltzar artan ni ere an izan nintzan, erri literaturari buruz itzaldi bat egitera deitua. Antxe ezagutu nuen Antonio Arrue jauna. Bera, Manuel Lekuona eta Luis Mitxelena izaten ziran geienetan mai-buruan” (2008: 14). Eta Euskaltzaindian hauek baino beranduago sartu arren, 1961ean izendatu zuten Euskaltzain urgazle eta 1964ean Euskaltzain oso, Euskaltzaindiak bertsolaritzari eskainiriko aterpearen baitako elementu garrantzitsu bat izango da bera ere, 1960an ospatuko zen lehen txapelketatik epaile eta antolakuntza lanetan arituko zelarik.

³⁶² Ik. 5.4.1.7 Ezkutalekuan preso Lekuona

Euskaltzaindiak bertsolariaren inguruan buruturiko lan hauetatik adiskidetasun estua sortu zen gainera Arrue eta bien artean: “Ainbestetan biltzen giñanez, lagun miñak egin giñan” (Zavala, 2008: 16). Eta adiskidetasun horrek eskaintzen du Auspoak zentsurarekin izan zituen erraztasunen beste gako garrantzitsu bat. Zavalak, Torrealdaik aipatzen duen susmo orokortuaren kontrara, zentsore gisa beharrean baizik zentsura gainditzeko laguntzaile gisa aurkezten du Arrue: “Arrue etzan bein ere zensura egille izan; baiña beraren esana agintariak ontzat artzen zuten” (2008: 20). Jarraian, euren sistema agertzen duelarik:

“(…) liburu bat prestatutakoan, eskutitz bat idazten nuen onelatsu esanez: “Habiendo leído el libro , no encuentro en él nada impropio”. Ondoren, liburugaia eta eskutitz ori Arrueren etxera eramaten nituen. Berak nik idatzitako eskutitza firmatzen zuen, liburugaia eta eskutitza zensurara bialtzen zituen, eta baimena ematen zuten. Joko ori auskalo zenbat aldiz egin genuen.” (id.: 20)³⁶³

Euskaltzain gehiago ere inplikatu ziren 1960ko hamarraldiko txapelketekin: Koldo Mitxelena, Jose Mari Satrustegi edo Juan San Martín, esaterako, epailetzan aurkituko ditugu eta bakoitzak bere ekarpena egin zion bertso-munduari. Guztien figura eta ekarpena hona ekartzea ezinezkoa suertatzen denez, ordea, beste elementu bati erreparatuko zaio azpipuntu hau ixteko: Alfonso Irigoieni.

1963an izendatu zuten euskaltzain oso, baina 1950eko hamarraldiaren bigarren erdian ardura garrantzitsuagoa ere bazuen: bera zen Euskaltzaindiak zeukan soldatapeko bakarra. Euskaltzaindiaren aterpeak alor praktikoan eskaini zezakeen babesaren zantzu bat ematen du, bada, bere testigantzak:

“[Euskara aldizkariak ari da] Euskaltzaindiaren aldizkari gisa atera zen, baina ideia eta ardura guztia nirea zen. Gogoan dut Vicente Uriguenek -euskaraz ez zekien askorik- nola esan zidan: «Yo tengo muchas amistades y te conseguiré suscritores». Eta hasi eta bostehun edo seirehun harpidedun egin genituen. Aldizkaria harpidedunen diruz ordaintzen zen. Euskaltzaindian ez zegoen ezer. Nik lau mila pezetako soldata neukan urtean (...)

-Eta orduko Euskaltzaindia zer zen, ba, edo zer egiten zuen?

-Hilean behin batzartu. Horixe zen Euskaltzaindia.

-Eta eguneroko martxa?

-Hori neuk egiten nuen dena. Bizkaian neu nintzen eguneroko langile bakarra. Gipuzkoan ez zegoen ezer.” (Amuriza, 1993: 75)

Honenbestez berari tokatu zitzaion hurrengo hamarraldian antolatuko ziren bertsolari txapelketen antolakuntzaren ardura nagusia hartzea ere.

³⁶³ Jokoak ez zuen, ordea, autozensura galarazten: “Era ortan zensurari tranpa egiten geniola esan det. Itxuraz bai, baiña berez etzan orrelakorik. Orrela jokatu aal izateko, izan ere, nere liburuan zer esaten nuen ongi eta zeatz neurtu bear nuen (...)” (Zavala, 2008: 20-21)

6.3. GAILURRA: BERRIRO ESZENAN EUSKALTZAINDIAREN ESKUTIK (1958-1967)

6.3.1 Hernandorenaren txapelketen gailurra Parisen: lehen aldiz telebistan

6.3.1.1 Pariseko lehen egonaldia (1958)

Hernandorenaren txapelketek eten bat izan zuten 1950eko hamarraldiaren erdialdera. Parisera aldatu zuen bizitokia familiarekin eta Parisko Cervates dispensarioan lortu zuen lana dentista gisa. Dispensario hau SIA (Solidaridad Internacional Antifascista) erakundeak sortu zuen errefuxiatu espainiarrei laguntza zerbitzuak eskaintzeko eta hamar urte egin zituen bertan lanean zizurkildarrak.

Parisen egonagatik, ordea, ez zuen bertso-munduaren eragiletzari uko egin. Pariseko Euskaltzaleen Biltzarrak, Euskalduna erakundeak eta Euskal Etxeak urtero Eskuararen Eguna antolatzen zuten, tartean ibiltzen zen Hernandorena ere, eta 1958ko ekitaldirako bertsolari txapelketa bat antolatzea erabaki zuen. Urruñan egin zuten lehenengo kanporaketa saio bat eta Basarrik, Uztapidek, Mattinek eta Xalbadorrek lortu zuten maiatzaren erdialdean Parisera joateko txartela.

Euskal Herrian dezenteko jarraipena egin zitzaion txapelketari, tartean Basarri irabazlearen kontakizuna jaso³⁶⁴. Erbesteko euskal prentsan ere izan zuen oihartzunik, Hernandorenaren eskutik³⁶⁵. Bestalde, 1960ko hamarraldian antolatu ziren txapelketen harira Iparraldean ez zela bertso-mundua mugitzen esan zion norbaiti erantzunez, Parisen buruturiko saioen berri zehatzagoa eman zuen Hernandorenak berak 1965ean argitaratu zituen hiru artikulutan³⁶⁶. Eta Uztapidek ere kontakizuna eskaini zuen ‘Lengo egunak gogoan’ liburuan. Bertso-saioez haratago, Parisen bertsolariek egindako hiruzpalau eguneko egonaldiaren inguruko hainbat xehetasun ezagutzen da, beraz.

Honela, egun haietan Frantziako hiriburuak bizi zuen giroa dakar gogora Hernandorenak: “Algeriako gerla zala ta egun oietan Parisen beldur aundia zegoen mementu batetik bertzera erreboluizonea sortuko ote zen. Paris arras itxusia zegoen gendarmez eta karroz josia” (*Herria*, 1965/IV/22, ‘Pertsulariak Parisen’; Hernandorena, Teodoro). Sorbonako unibertsitatean Hernandorena berak bertsolaritzaren inguruan emandako hitzaldiarekin ekin zioten finalaren egunari. Gero, Eiffel Dorreari egin beharreko bisita etorri zen Uztapidek kontatzen duenez:

³⁶⁴ Hernandorenaren txapelketekin gertatu ohi zen bezala gehien argitaratu zuena *Herria* izan zen, lehenengo txapelketa iragarriaz, (‘Urrugna / Ikusgarri-ondo’ eta *Paristarrak* sinaturiko ‘1958’ko eskuaren eguna eta pertsularien chapelketa’, biak apirilaren 3ean), Urruñako kanporaketaren berri emanez (‘Bertsularien txapelketa Urrugna’n’, apirilaren 10ean), Pariseko saiora joan nahi duenari argibideak emanaz (‘Parisetik, bertsularien eguna’ maiatzak 8an eta ‘Parisetik, pertsulariekin’ maiatzak 15ean), eta Jean Irigarayren kronika bi zatitan eskainiaz (‘Parisen, koblakariekin’ maiatzak 22 eta 29). Aranzazuk Urruñako (‘Bertsularien eguna’, maiatzak 15ean) eta Parisko (‘Euskal-Bertsulariak Paris’en’, uztailak 15ean) saioen berri emango du eta *El Diario Vasco* Urruñakoaren berri (‘Bertsularis en Urrugne’, apirilak 15ean *Bordarik* sinatua). *La Voz de Españak* Basarri elkarrizketatuko du bueltakoan (‘Basarri triunfador en el concurso de París’, Lekuonak sinatua maiatzak 20an), eta egun berean nahiz hurrengoan bere zutabea eskainiko dio zarauztarrak gaiari.

³⁶⁵ *Amerikako Euzko-Deyak* txapelketa iragarri zuen apirilean (‘Un concurso de bertsularis. El 18 de mayo’) eta Hernandorenak sinaturiko kronika zekarren uztailan (‘Concurso de versolaris de París’). *Pariseko Euzko-Deyak*, berebat, Urruñako kanporaketaren kronika (‘Admirable concours de Bertsularis à Urrugne’) eta Hernandorenak sinaturik Parisko finala iragartzen zuen testua (‘Paris’en amaitutako bertsolari txapelketa’) argitaratu zituen apirilean.

³⁶⁶ Hiruak *Herrian* argitaratu zituen: lehena 1965eko apirilaren 15ean ‘Pertsulariak Parisen’ izenburuz, bigarran apirilaren 22an izenburu berarekin eta azkena uztailaren 22an ‘Pertsulariak. Azken zeaztasunak’ izenburupean.

“Lenbiziko lana Torre Eiffel ikustea egin genduan. Gora igo puntara, andik bera begira jarri ta lurrean gizona txikia gelditzen zan, txindurria bezela (...) zerbait artuaz, egon giñan piska batean (...) Paris ederki andik ikusten da. Erdi-erdian dago ori, torre ori, ta alde guzietara begiratu ta urruti zeuden aren egalak” (1975: 226)

Finala jokatu zuten ondoren, jendez mukuru zen Euskal Etxean. Hernandorenak hainbat gonbidatu ilustre aipatzen ditu: “Bainan Eskual-Etxean bildu zen jendia Unescoco bat edo biga, jakintza gaietako jende aunitz, Euskadiko Lendakaria Agirre, Eskualtzaleen Biltzarreko buruzagi Dassance eta abar” (*Herria*, 1965/IV/22, ‘Pertsulariak Parisen’; Hernandorena, Teodoro). Basarrik epaimahaiko egondako izen batzuk gehitzen dizkio: “(...) todo el Jurado estaba integrado por catedráticos y profesores de la Sorbona: catedrático M. Possonpiez, Padre Echarriton, profesor Cabillon, profesor Dagorret, etcétera” (*La Voz de España*, 1958/V/20, ‘Basarri triunfador en el concurso de París’; Lekuona). Eta *Herriako* kronistak epaiaren inguruko zalapartaxoa jasotzen du: “Hernandorena jaunak erran duelarik: ‘orai jujeak joanen dira deliberatzera’ jendea hasi da botz batean erraiten: ‘Mattin!, Mattin!...’. Eta pena hartu du dudarik gabe, jakin duelarik jujeen arrapostua: lehen Basarri, bigarren Mattin, hirugarren Chalbador eta Uztapide” (*Herria*, 1958/V/22, ‘Parisen, koblakariekin’; Irigaray, Jean). Ematen duen azalpenak gero Xalbadorrek 1967ko finalean jasan beharko zuen arazoa ekartzen du gogora: “Zendako nahi zuen jendeak Mattin? Eskuara Basarrik baino aiseagoa duelakotz Frantziako eskualdunen dako –eta hok ziren gehienik intzutera jinak- eta (...)”.

Sariak besapean hartuta oraindik ere turismo gehiago egiteko animoa izan zuten bertsolariek: “(...) visitar el Panteón de los Hombres Ilustres, Los Invalidos, etc (...)” (*La Voz de España*, 1958/V/20, ‘Mi Atalaya Montañera’; Eizmendi, Iñaki *Basarri*). Hernandorenak kontatzen duenez metroa ez zebilen langileen greba zela eta, eta joan etorri guztiak oinez egin behar izan zituztenez nekatuta bukatu zuten, batez ere Xalbador eta Mattinek. Hala ere, gauean kabareta ikustera animatu ziren denak: Lido, Parisen ezagunenetako kabaret bat da. Eta bertara ez da sos batekin edo birekin sartzen... (...) Sartu baginan sartu, amar minutu baino lehen Xalbador lo gelditu zitzaigun maiaren gainean burua emanaz. Basarri, aldiz, begibelarri zegon bertako ikuskizun politari begira” (*Herria*, 1965/IV/22, ‘Pertsulariak Parisen’; Hernandorena, Teodoro). Uztapidek ere graziaekin kontatzen du pasarte hau:

“An bata baño bestea politagoak asi ziran ateratzen, eta Mattin bereala asi zan lepo-luzeka. Bestela ezin zuan, ba, ezer ikusi (...) Besteak santuak giñan, baña iñor ez nuan atzera begira ikusi nik. Xalbadorrek, artxek lo piskaren bat egin zuan (...) Ala, txanpana edan genduan eta espektakulo ederra ikusi ere bai (...)” (1975: 227)

Biharamunean ere turismo gehiago egiten jarraitu zuten. Eta baita bertsoan egiten ere:

“Ikusi genduan museo ori; baña gure Ernandorenak bertsoak botatzea nai eta an ziran komeriak. An bertsoarako giroa palta, eta girorik gabe ez da bertsoan egiten. Lenbizi amaiketako ederra egin, eta gero, norbere gustoko lagun batzuek jiran dituanen, orduan bertsoarako gogoia etortzen da (...) ordea, Hernandorena etzen errez etsitzekoa. Gero museoaren gañera atera giñan, eta Paris guzia ikusten zan, andik begiratuta; eta an aurrean zer ikusten genduan kantatzeko esan zigun Ernandorenak.” (Olaizola, 1975: 228-229)

Bueltakoan bere proiektuari eusteko animo berrituekin nabari zen Basarri:

“Desde nuestras primeras actuaciones (...) hace unos veinticinco años, tomamos la firme resolución de (...) dejar a un lado los procedimientos de los

bersolaris que nos precedieron; con la sana idea de elevar un poco el nivel del bersolari (...) Nos consta a nosotros que gustabamos en la provincia.

Era una evolución inesperada y el público no estaba suficientemente preparado para aceptarlo de grado (...) ¡Cuánto se ha avanzado en pocos años a este respecto! (...) bersolari actual que, de las lóbregas tabernas, ha pasado a las aulas de las Universidades: Salamanca y la Sorbona, por ejemplo.” (*La Voz de España*, 1958/V/20, ‘Mi Atalaya Montañera’; Eizmendi, Iñaki Basarri)

Uztapide, berriz, kontentu baina nekatuta: “Iru egun pasa ta urte bete pasata bezelaxe aspertu edo ez dakit, ba, zer esan ere. Gu Parisen izan giñala, ta poz orixe. Ernandorenari eskerrak joan giñan gu Parisera; bestela ez giñan joango sekula igual” (Olaizola, 1975: 230).

6.3.1.2 Nazioarteko prentsa, irratia eta telebistaren arreta

Aipatu da Hernandorenak 1965ean Parisko final honi buruzko hainbat xehetasun argitaratzera jarri bazen norbaitek 1960ko hamarkadako txapelketa nagusiak Iparraldean zerbait gehiago egiteko eredu gisa jarri zizkiolako izan zela. Zizurkildarrak ez du zalantzarik egiten, txapelketa hura bai izan zela eredugarri: “(...) ez dugu uste inork ezeztatuko duanik sekulan pertsulariak izandu duten goralkirik aundiena izandu zutela egun artan” (*Herria*, 1965/IV/22, ‘Pertsulariak Parisen’; Hernandorena, Teodoro). Eta alderaketak egiteari ekiten dio, telebistaren presentzia azpimarratuaz: “Konparazioeak on dira noizian bein (...) Donosti’ko Anoeta pilota tokian 4.000 entzule-ikusle zituztela pertsulariak. Paris’en aldiz miliunka eta miliunka Frantziako telebisiuan bitartez”. Jarraian final hark izan zuen estaldura mediatiko osoaren garrantzia azaltzeko:

“Donostiako Anoetan bizpahiru dozena radio-entzule zituzten pertsulariek. Parisen aldiz, chunka edo miliunka kontatu bear ziran radio frantsesa, radio inglesa, alemana eta espainola entzun zutenak pertsolarien txapelketa aipatzen. Gainera radio ingelesak oren laurdeneko galde-erantzunak izan zituzten Eskualtzaleen Biltzarreko presedenta Dassance jaunarekin. Jakingarri da ere Pariseko eta Frantziako Eskual-Herriko eta Madrideko egunkariak txapelketa horren berri eman zutela”

RTVEk 1967ko finalari buruz Caro Barojaren dokumentala eskaini baino bederatzita urte lehenago Parisko finalari buruzko irudiak eskaini zituen Frantziakoak, beraz. Eta ez da Hernandorenak soilik eskaintzen duen datu bat. Honela dio Basarrik itzuli berritan egin zioten elkarrizketan: “Los demás se quedan en Paris hasta el miércoles. Yo no podía por mis trabajos. Prácticamente, he estado dos días en la capital francesa, que (...) han sido de mucha actividad, pues hemos trabajado para la Radio y la Televisión” (*La Voz de España*, 1958/V/20, ‘Basarri triunfador en el concurso de París’; Lekuona). Eta berrito errepikatzen du egun berean argitaratu zuen zutabearen: “Nosotros, simples y modestos versolaris (...) Nunca nos hubiésemos imaginado que nos veríamos precisados a actuar en la capital de Francia, ni que pudiésemos pasar por los estudios de la Radio y de la Televisión francesas” (*La Voz de España*, 1958/V/20, ‘Mi Atalaya Montañera’; Eizmendi, Iñaki Basarri). Azkenik, Uztapidek ere kontatzen du pasartea, xehetasun berriak erantsiz: “Biaramon-goizean joan giñan telebisiara ere, an kantatu bear zala eta. Baña denbora gutxi gendukan, eta guk ez genduan izan kantatu bearrik; Xalbadorrek eta Mattinek kantatu zuten, eta Basarrik eta nik ez” (Olaizola, 1975: 228).

Bertsolaritzaren historia mediatikoan gertakari garrantzitsua da Parisekoa, ikus-entzunezko batean lehen aldiz Hernandorena beraren ‘Euzkadi’ filmean agertu ondoren³⁶⁷ hemen agertuko baitira lehen aldiz telebistan. Honela azpimarratzen du Iriondok: “Propagandari eta marketinari behin-behineko garrantzia eman zioten (...) jaialdi honen inguruan egin zen zabalkundearen eraginez, telebista, irratia eta egunkari askok esku hartu zuen. Gure historian lehenengo aldiz agertu ziren bertsolariak telebisio-pantailatan” (Iriondo, 2004: 25). Aristorenak ere erreparatu dio datuaren garrantziari: “Lehen aldikoz zabalduko zen bertsolarien irudia Euskal Herritik kanpo, Frantziako telebista eta britaniar nahiz alemaniar irratien bidez” (1992: 8). Lasak, berebat, ideia bera azpimarratzen du, Frantziako telebista ez ezik Alemaniakoa ere interesatu zela gaineratuaz: “Frantziako Tele-Paris, Alemaniako Telebista publikoa, eta Ingalaterra eta Alemaniako irratia. Espainiako Radio Nacionalek ere grabatutako zati bat eman zuen. Lehenbiziko aldia zen bertsolaritzaren historian, bertsolariak munduko irrati telebistetan agertzen zirela” (2008: 793). Eta Frantziako telebistan euskaratik frantseserako itzultzailearekin aritu zirela jasotzen du: “Teodorok bertsolariak Frantziako telebista publikora (Tele-Paris programa) eraman zituen erakustaldia egitera; ondoan itzultzailea zutela jardun zuten” (id.: 794).

Telebistarako irudi horiek ezin izan dira topatu, ezta xehetasun gehiago ere. Irrati emanaldien inguruan, ordea, aipa daiteke zerbait gehiago. Basarrik honakoa kontatzen du: “(...) toda la fase final ha sido tomada en cinta magnetofónica y será radiada el domingo, día veinticico, a través de Paris, entre las diez y once de la noche. Como es natural, los trozos más selectos” (*La Voz de España*, 1958/V/20, ‘Mi Atalaya Montañera’, Iñaki Eizmendi *Basarri*). Eta grabazio horien edukiaz honakoa gaineratzen du Iriondok:

“(…) Euskal Etxeko pilotalekuan egin zen lehiaketaren hasierako bere [Hernandorenaren] lehenengo hitzak grabatu ez baziren ere, bigarren zatia honelaxe zioen, emozioz gainezka:

Jaun-andereak: Bihotz-miñez, hastera nijoakizue bigarren saioa presentatzera. Bihotz--min hori haundiagotu zait Dassance jauna hemen ikusita. Eta Dassance jauna hemen ikusirik etzait iruditzen Oxobi jauna bazterren batean ikusi behar ez dedanik. Baina, zoritxarrez, ez degu ikusiko. Otoitz egin degu goizean bere ohorez, eta orain bertsolariak eskeñiko diote bere omena.” (2004: 26)³⁶⁸

Azkenik, Madrilgo egunkariak ere aipatzen ditu Hernandorenak. Eta pista gehiago ere ematen ditu, egunkari horietako baten despistea agerian utziz:

“(…) txapelketa ori dala eta, Madrideko eta Bartzelonako izparringi aundainak eman zuten berria (...) oiek ez dituzte ba gure bertsolariak biolin jozaliakin nastu...? Ikusten al dezute Uztapide bioliña kokoz azpian estutu ta, begiak zuri zuri zeru aldera biurturik, Guridiren edo Usandizagaren musika jotzen?” (*El Bidasoa*, 1959/I/03, ‘Bertsolariak eta...biolin-jozaliak’, Teodoro Hernandorena)

Ez dira Madril eta Bartzelonako egunkari handi horietan argitaraturikoak topatu ahal izan, baina bai zizurkildarrak aipatzen duen testua, Efe agentziak sinatua eta Burgoseko egunkari batean jasoa, hain zuzen ere atal honi sarrera egiten dion aipuan jasoa:

³⁶⁷ Ik. 5.2.6.2 Bertsolariak ‘Euzkadi’-n (1933)

³⁶⁸ Grabazioak non egon daitezkeen ere ematen du pista: “Horko grabazioa Jokin Zaitegik egin zuen lenegotako zintatan. Gero Euskaltzaindian entregatu zituen eta San Martinek edo Iriogienek hartu zituen Egan-en zenbaki batean argitaratu zen transkripzioa egiteko. Teorian San Martinen fondoan GFAan edo Irigoienengan BFAan egon behar du” (Irigoien, 2017)

“Se ha celebrado el concurso internacional de violín entre representantes del país vasco, cuyo jurado estaba integrado, en su mayoría por catedráticos y profesores de la Sorbona y diversos liceos de la capital francesa (...) El resultado oficial ha sido primer premio Basarri, España y segundo, empatados a puntos los tres violinistas restantes. Dada la importancia de este concurso, la radio y la televisión francesa le han consagrado varios programas.” (*Diario de Burgos*, 1958/V/22, ‘Un español primer premio del concurso internacional de violín’, Agencia Efe)

6.2.1.3 Radio Pariseko ‘Bertso Festa’ (1960)

Ez zen hau izan Hernandorenak bigarren aldi honetan antolatu zuen txapelketa bakarra. 1959ko maiatzaren 10ean Heletan jokatu zen sariketan Xalbador suertatu zen garaile. Eta 1960an bi urte lehenago bezala lehen kanporaketa bat Ipar Euskal Herrian (1960/IV/03, Sara) eta finala Parisen (1960/IV/24) izan zuen txapelketa antolatu zuen.

Badirudi txapelketa honek ez zuela bi urte lehenagokoak izandako oihartzun mediatikoa izan³⁶⁹, eta topatu diren testuetan ez da estaldura honen inguruko xehetasunik topatu. Hala ere, bai ematen da bi saioen berri, lehenengoan sailkatuak Xalbador, Mattin, Etxahun Iruri eta Mitxelena izan zirela eta finalean Mattinek irabazi zuela azalduaz. Jarraipen mediatikoaren inguruko daturik interesgarriena Josu Martinezek eskaintzen du. Azaltzen duenez Jesus Insaustik hainbat urtez euskarazko irratsaioa burutu zuen Radio Parisen: “Gerra galdu ondean, erbestetik, euskal abertzaleek irratsaioak egiten segitu zuten. Horien artean garrantzitsuenetakoak, Jesus Insausti “Uzturre” EAJko kideak gidatutakoak izan ziren. 1959tik 1965era, “Radio Paris”-en emanaldiak egin zituen Uzturrek, sasoi batean “Irrintzi” deitu zen irratsaioan” (2012: 59). Eta Pariseko finalari ere eskaini zitzaion tartea ‘Bertso festa’ gisa izendatu zen saioan: “(...) 1960an Radio Paris-en bitartez antolatu zuten “Bertso festa” izeneko bat ageri da. Iduriz, bertsolariak Parisera eramane eta han bertso afari bat eta emankizun bat antolatu zituzten; bertan ziren, besteak beste, Joxe Joakin Mitxelena, Xalbador, Mattin eta Etxahun Iruri”(id.: 60). Jose Antonio Agirre lehendakari zendu berriari Mitxelena eta Xalbadorrek eskainiriko bertsoen grabazioa behintzat gordetzen omen da.

Hernandorenaren txapelketa hauek bertso-munduari egin zioten ekarpena ez da hedabidetzearen alorrera mugatzen. Honela, lau oinak emanda egin beharreko bertsoaren ariketa bertan asmatu zen:

“(...) Garai artan, bertsularien zabalkundea egiten ari giñan, lehen saioketetan, gure adixkide Pierre Lafittekin bere Herria astekariko lan tokian moldatzen genizkion saioketako gai garrantzitsuenak. Egun batez guk erran: “Zer derizkiotzu ahal bezain lau itz traketsekin bertsoa moldatzeko eskatzen badiegu?”. Eta berak irri-parrez erantzun: “Proba liteke, ez dira ez ixilik geldituko”.

Horrela, 1958an Urruñan egindako saioketa zoragarri artan, bertsularien hixtoriaren lehen aldikotz, bertsulariak era berri ortan, gero ainbertze errepikatuko dan eran kantatu zenduten Urruñan. Eta hala bearrez, lerroan lehena hintzalakotz, hi izandu hintzan lehena kantatzen nik

³⁶⁹ *Herria*: 1960/III/10, ‘Pertsulariak Sara’n. Ondo epaitu edo jujatzeko konseiluak’; 1960/III/17, ‘Pertsulariak Saran. Ondo epaitu edo jujatzeko konseiluak’; 1960/III/31, ‘Pertsulariak Saran igande untan’; eta 1960/IV/07, ‘Sara. Jende-alde handi baten aintzinean bertsularien eguna ederki iragan da anaitasunean’, guztiak Hernandorenak sinatuak. Baita 1960/V/01, ‘Parisen’ ere, *Han zen bat* izenordearekin sinatua. *El Bidasoa*: 1960/III/26 eta 1960/IV/02, biak ‘Concurso de Bertsolari en Sara’ izenburuarekin eta Hernandorenak sinatua. *Aranzazu*, 1960/V/15, ‘Sarako bertsolari txapelketa’, Basarrik sinatua. Eta, azkenik, *Euzko Deya*, 1960/V/25, ‘Pariseko Euskaltzaleen Biltzarra’, sinadurarik gabea.

emandako hitz horiekin: berldu... gezur... elur... ezur...” (*Deia*, 1978/III/18, ‘Agur Mattin’, Teodoro Hernandorena)³⁷⁰

Gisa honetara osaturiko lehen bertsoa ere badakar artikuluak. Mattinek sortu omen zuen:

“Nere oroitian ez bide/ du ein oinbertze elur./ Olakorik izanen zela/ nior etzen ez beldur./ Menditar oiek ez dute/ erranen untaz ainiz gezur/ Alimaliak egongo/ zirela an larru eta ezur’. Ango oiur larru eta txaloak bertsoa entzutean! Larre adixkideak bere magnetophonoan izango dizkiz bertso horiek.”³⁷¹

Beste berrikuntza bat 1960an Saran jokatu zen kanporaketan epaile entzuleak jartzearena izan zen. Horretarako epaile lan horiek egiteko irizpide batzuk eskaini zituen saioaren aurretik ‘Pertsulariak Sara’n. Ondo epaitu edo jujatzeko konseiluak’ izenburuaz Herrian argitaratu zituen bi artikulutan: “Apirilaren 3an Saran egingo dan txapelketan, adizale berak epaitu edo jujatuko dituzte pertsulariak. Herriak badaki pertsu onak txar batetik bereixten... Ala ere on izango dira kontseilu zombait (...)” (*Herria*, 1960/III/10, ‘Pertsulariak Sara’n. Ondo epaitu edo jujatzeko konseiluak’, Teodoro Hernandorena). Artikulu hauetan hainbat kontu interesgarri jorrazten zituen, esaterako, epaitu beharreko zazpi alor bereziaz: gaiaren erabilera, ondo neurtua egotea, euskara, denbora, zirtoak, gai seriosekin moldatzeko gaitasuna eta bukaera.

Indartsu zebilen, bada, zizurkildarra bere eragiletzan, eta Pariseko bigarren finalaren ondoren, 1960an bertan, kanporaketa saio berri bat antolatu zuen Luhuson. Bilera batera deitzen dute, ordea, Monzon, Labegerie eta Dela Sotak. Saioen antolakuntzarekin dirua ateratzen ari ote den ematen diote aditzera eta aurrerantzean antolakuntza oro Euskaltzaleen Biltzarraren esku gelditzen dela (Lasa, 2008: 839-851). Bost urte beranduago honela kontatzen zuen Hernandorenak saio hartaz gogoratzen zuena:

“(...) Egun ortan bi pertsulari oieiri [Xalbador eta Mattin] egin zitzaizoten Amerika’ra jua aintzineko agurra. Agur orrek osperik aundiena izan zezan, Louhoso’n batu ziran (...) Gipuzkoa’tik Uztapide, Lazkao-Txiki, Mitxelena eta Garmendia. Bizkai’tik etorri ziran Azpillaga eta Mugartegi (...) Lekuona D. Manuel jaunak egin zigun itzaldi balios bat pertsularietzaz (...)”. (*Herria*, 1965/VII/22, ‘Pertsulariak. Azken zeaztasunak’, Teodoro Hernandorena)

Eta honela adierazten zuen bere sumindura: “Zeaztasun oiekin bururazten degu gure ixtorio ttipia. Bertze gauza bat ere agertu nahi genduke bukatzeko: Bilkura ura izandu zela guk azkeneko parte artu dugun bilkura. Ez gure borondatez eta bai bortxaz”.

6.3.2. Euskaltzaindiak lau txapelketa nagusi zazpi urtean

6.3.2.1 Alfonso Irigoien, bat-batekoan moldatzen zen akademikoa (1929-1996)

Gerraostean 14 urterekin lanean jarri behar izan zen osabaren okindegian, baina lanetik Matematikak eta Fisika ikastera joan ohi zen akademia batera. Kontabilitatea ere horrela ikasi zuen eta 18 urterekin okindegiko lanari fabrika bateko kontable postuari zegozkionak gehitu. Hizkuntzalaritza gehiago interesatzen zitzaion, ordea, eta Euskaltzaindiara jotzen zuen geroz eta sarriago. Honela, bertan lan egiteko hartu zuen 1955ean eta euskaltzain urgazle izendatu 1957an: “(...) Euskaltzaindikoko langile bakarra genuen Alfontso Irigoien Etxaideren eskutik

³⁷⁰ Basarrik berresten du alderdi hau: “(...) Beste ekinaldi bat Frantzia aldean bakarrik egiten dana: juradoak izendatu bertsolarietara lau puntuak, eta bat batetan bertsolariak modatu bear bertsoa nai ta nai ez puntu oiekin bukatuaz” (*Aranzazu*, 1958/VII/15, ‘Euskal-Bertsolariak Paris’en’, Iñaki Eizmendi *Basarri*)

³⁷¹ Ikus daitekeenez magnetofonia jada ohiko bihurtu da Euskaltzaindiaren txapelketak abiatzerako.

egin zen euskaltzain. Etxaide hau Jon Etxaideren aita zen. ‘Ez zen abertzalea, baina oso euskaltzaile bai’” (Amuriza, 1993: 75).

Euskara aldizkaria zuzendu zuen 1956an berrargitaratzen hasi zenetik, eta Nazario Oleaga idazkariari ere laguntzen zion, honen heriotzarekin idazkari kargua hartuko zuelarik 1963tik 1966ra. Euskaltzaindiaren egoitzan euskal eskolak ere ematen zituen Xabier Peña eta Eusebio Erkiagarekin batera, eta gerraostean Bizkaian irekiriko lehen ikastolaren bultzatzaile ere izan zen: “Ikastolen mugimenduari ere bere emaitza egin zion Alfonsok, berak Diputazioan egindako gestioei esker Juliana Berrojalbiz andrea aurrera atera nahian zebilen R. M. Azkue ikastola, Bizkaian legez onartu zen lehenbizikoa, 1958.ean ireki baitzen. Zentro hau geroago Lauroko Ikastola bilakatuko zen” (Krutwig eta Kintana, 1997: 402).

1950eko hamarraldiaren bigarren erditik aurrera hizkuntzalaritzari loturiko hainbat ikerketa argitaratzeari ekin zion³⁷². Eta Euskaltzaindiaren baitan garbizalekeriaren aurka posizionatzea ere tokatu zitzaion: “(...) Irigoienek, korrontearen kontra abiatuz, Villasante eta Mitxelenarekin batera, purismoaren aurkako eta euskal lexiko tradizionalaren aldeko adierazpen famatuaren aide jokatu zuen 1959ean, erdal jatorriko euskal lexikoa patrimonialtzat aldarrikatuz” (Krutwig eta Kintana, 1997: 402). Bistan denez, bazuen nahikoa lan bestela ere, baina Euskaltzaindiak bertsolari txapelketak antolatzeari ekin zionean gogotsu ekin zion erronka berriari. 1958ko Bizkaiko txapelketa izan zen lehenengoa: “Baina garai honetan Alfonsok lanik nabarmenena bertsolaritza alderantzian alde bete zuen. Bera izan genuen, Santi Onaindia, Manuel Lekuona, Antonio Zavala, Jose Maria Satrustegi eta Pedro Díez de Ulzurrunekin batera, herri-literaturaren arlo hau birpizten sutsuenik saiatu zirenetako bat (...)” (id.: 402)

1958ko Bizkaiko txapelketa izan zen lehen pausoa. Honela gogoratzen du Irigoienek:

“Aitzolek, ostera, gerra aurrean lan handia egin zuen, bertsolaritza bultzatzen. Teodoro Hernandorena bide horretatik zetorren, eta honek gerrostean bertsolariak Parisera eramane eta halako txapelketak edo demak antolatu zituen. Guk horren entzutea bagenuen, eta behin esan genuen: ‘Zergatik ez dugu hemen ere zerbait egiten?’. Eta pentsatu eta egin.” (Amuriza, 1993: 75)

Nafarroakoa etorri zen jarraian. Iruñeko euskaltzale multzo baten eskariari erantzunez, Diputazioak ‘Euskararen aldeko saila’ deitua sortu zuen 1957an Príncipe de Viana kultur erakundearen barnean³⁷³. Eta sail honen buru egiten zuen Pedro Díez de Ulzurrun mediku gazte euskaltzalea Irigoienekin harremanetan jarri zen: “(...) Bizkaian hasi ginenean Pedro Díaz de Ulzurrunek esan zidan Nafarroan ere egin behar zela. Han ere antolatu genuen (...)” (Sarasua, 1992: 12).

³⁷² Honela zerrendatzen du Kaltzakortak lehen urte haietako produkzioa: “Garai honetan *Euskera*-n argitaratu zituen lan miragarriak hauexek dira: ‘Aportaciones al diccionario vasco’ (1956), ‘Cartas de Mariano Mendigacha a Don Resurrección María de Azkue, escritas en roncalés y castellano’ (1957), ‘Del epistolario de Azkue’ (1957), ‘Berkak eta izkuntza’, (1959), Aita Mokoroarekin batera ‘Sermones manuscritos antiguos, Fr. Francisco Tristán de Huandurraga (1822), Fr. Juan de Ajuria (1800) (1806)’ (1956), eta batez ere gerora argiago agertuko zuen ikerlari sen handia eta begi zorrotza erakusten duen artikulua bikain bat: ‘Curiosidades y observaciones sobre el dialecto vizcaíno literario’ (1958) (...) Ordukoak dira, era berean, Lardizabalen Testamentu Berriko Kondaira edo Historia (Bilbao, 1957) liburuko edizio eta hitzaurrea eta ‘Euskal kantak’ (Bilbao, 1959 eta 1960) bilduma tipia.” (1999: 3-4)

³⁷³ Nafarroa Garaiko kultura erakunde hau Nafarroako Foru Aldundiaren eskutik sortu zen 1940an, herrialde horretako arte, kultura, folklore, arkeologia eta historia ondarea zaindu eta ezagutarazteko xedearekin. Urte horretan berean argitaratu zuten lehenengoz erakunde horren aldizkaria, gaztelaraz, eta 1966an hasi zen zabaltzen eranskina euskara hutsean.

Gipuzkoakoa antolatu zuten gero eta herrialdeko hiru txapelketa horiek sailkapen fase gisa hartuaz 1960ko Euskal Herriko txapelketa nagusia jarraian. Eta hauek izandako arrakastaren ondotik hiru txapelketa nagusi gehiago eta aldiko herrialdeko beste hainbeste txapelketa etorri ziren.

Nafarroan Príncipe de Vianaren baitako Euskara Sailak aurreratzen zituen hainbat lan³⁷⁴: “Gerla aitzinean Elizondoko saiorako "Euzko Etxea"koak bertsolari bila ibili ziren gisara, edota Ipar Euskal Herrian Teodoro Hernandorena herriz herri ibili zen gisa berean, Nafarroa Garaian Pedro Diez de Ulzurrun arduratu zen lan honetaz, laguntzaile batzu ere berarekin zituelarik (...)” (Aristorena, 1992: 27). Eta beste herrialdeetan ere izango zuen laguntzailerik, baina Irigoienek egiten zuen guztien arteko lotura. Honela gogoratzen ditu, esaterako, Nafarroako txapelketarako joan-etorriak:

“Bezperan autobusa hartu eta Iruñera joaten nintzen. Han Unzurrunek itxoin eta hotelera eramaten ninduen. Biharamonean berak autoz eramaten ninduen behar zen lekura. Gauean berriz hotelera eta biharamonean autobusa hartu eta Bilbora. Han gainera milako bat-edo ematen zidaten eta pozik. Bizkaikoetan ez nuen ezer kobratzen” (Amuriza, 1993: 76)

Hamarkada hartako txapelketetako saiorik gehienetan bera izan zen aurkezle eta gai-jartzaile:

“-Eta gaiak eta abar nork egiten zuen?”

-Ah, bai. Neuk, jakina! Dena neuk egiten nuen. Gaiak asmatzea ez zen hain zaila, edozer ipinita ere, dena berria bait zen. Orduan alde horretatik ez zegoen oraingo koskarik. Orduan dena zen berria eta dena onartua (...) Gero, batez ere Gipuzkoako finalean eta Euskal Herrikoan, epaimahaikoak ere jarri genituen lanean, gaiak asmatzen (...)”. (Amuriza, 1993: 75-76)

Eta zabalkundeaz ere bera arduratzen zen, nahiko modu oinarrizkoan, izatez: “Hori ere ez zen hain zaila. Telefonogidan, herrietan ‘Bar’ ipintzen zuten guztietara sobre bat bidaltzen nuen, eta gero eurek jartzen zuten tabernan. Jendea oso ondo enteratzen zen. Batzuren batzuk sobreari muzin egingo zioten, baina gehienek pozik jartzen zituzten kartelak (...)” (Amuriza, 1993: 75).

Saltsa guzti honen erdian 1961ean, 32 urterekin, batxilerra ateratzeari ekin zion, eta jarraian Salamancako unibertsitatean Filologia Klasikoen titulua atera zuen. 1963an izendatu zuten euskaltzain oso. Bertsolaritzaren eragile garrantzitsuenekin gertatu ohi denez, ez zen geldirik egoteko gizona, eta txapelketen ziklo hau igarota, 1970etik 1978ra Euskaltzaindiako liburutegiaren arduradun ere izango zen. Deustuko euskal filologiako katedraren arduradun ere izan zen urte luzez eta artikulu eta liburu errenkada argitaratuaz: “Hainbat alorretako lan zientifikoak burutu zituen Alfonsok. Zenbait sail izendatuko bagenitu, Gramatika historikoa, Morfologia, Sintaxia, Antroponimia, Onomastika, Toponimia eta Lexikografia liriateke. Testu zaharren aurkitzaile eta argitaratzaile ere izan zen” (Kaltzakorta, 1999: 11). Poesia, pintura eta eskultura ere jorratu zituen.

Bertsolaritzaren historiari egiten zaizkion errepasoetan bere ekarpena azpimarratu ohi da. Garziak, esaterako: “(...) Euskaltzaindia realiza una labor ingente, recorriendo la geografía

³⁷⁴ Diez de Ulzurrun buru ibiliagatik talde zabal bat zen lan hauek aurrera zeramatzana. Tartean zen, esaterako, medikuaren izen eta abizen berak zituen apez zaharra. Aristorenak xehetasunkuriosoa ematen du pertsonaia honen inguruan: “Ez zen gainera nornahi Irañetan sortutako apeza Pedro. 1936an Goizuetan zegoen koadjutore Txirrita bertsolaria bertara kantatzera zihoalarik gaizkitu zenean. Diez de Ulzurrunek igurtzi zuen olio sainduz Txirrita eta Elizakoak eman” (1992: 28).

vasca en busca de bertsolaris (...) y organizando campeonatos provinciales (...) Fruto de estos esfuerzos, en los que destaca sobre todo el académico Alfontso Irigoien, es el campeonato de 1960 (...)” (2000a: 443). Edota Etxezarretak: “Meritoa izugarria Alfonso Irigoienek du. Bere eskutik agertu bai ziran Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta azkenik Euskalerriko txapelketa mordoa” (1993: 148). Bere biografiek, bestalde, bere bertsozaletasuna azpimarratu ohi dute, eta baita bat-batean aritzeko zeukan gaitasuna ere. Krutwig eta Kintanak, adibidez: “(...) umorez zegoenean, bera ere bertsoetan hasten zen, eta orduan bere ohiko ironia zerion” (1997: 405). Baita Amurizak ere:

“Gogoan daukat behin Mugartegirekin Lekeition zein saio luzea egin zuen, taberna batean. Niretzat Alfontso bertsotan nahiko zuzen eta korrektu egiten zuen, eta bere grazia ere bazeukan. Nahiko temosoia zen gainera. Inor hasten bazen, berak segi, eta inor hasten ez bazen, bera denak tentatzen (...)” (1993: 45)

6.3.2.2 Gailur berria Anoeta pilotalekuan

II. Mundu Gerra amaieran nazioartean erabat isolaturik eta planteamendu ekonomiko autarkikoetan harrapaturik gelditu zen frankismoa gutxika hautsitako zubiak berreraikiz joan zen 1950eko hamarkadan³⁷⁵, eta hamarraldi berrian, Opus Dei-ko teknokratek ekonomiaren gidaritza hartzean, Bigarren Frankismoa deritzon aldiari ekingo zaio, nazioarteko harremanak eta atzerriko inbertsioak normalizatuaz. Torrealdaik azaltzen duenez (1982: 10-11) irekitze honek bere isla izango du euskal kulturari eskaintzen zaion tratuan ere. Aldaketa hori, berebat, bertsolaritzaren eragiletzaren planora dakar Lekuonak: “60an aurkitzen dugun egoera sozio-kulturala zerbait bestelakoa da jadanik. Zentsura eta errepresio-giroa zerbait lasaitu da (...) eta horrela ulertzen da zergatik Gobernadoreak onartzen duen bertso-txapelketa bat [Txapelketa nagusi bat] berriro antolatzea” (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 16).

Bestalde, hainbat urtean egindako lanaren fruituak ere hasi dira bistaratzen: “Basarri, Uztapide, Mattin, Xalbador, Lazkao Txiki, Lasarte, azpeitiarrak ere bai, saila dago eta jende oso ona dago. Azpillaga gaztea, Basarri eta Uztapideren ondoren hirugarren egingo duena 62ko txapelketan, Lopategi ere badator, Mitxelena, Garmendia (...)” (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 17).

Testuinguru hobea eta urteetako lana uztarturik zikloaren gailurra emango da, bada, Euskaltzaindiak antolaturiko txapelketekin: “(...) 35etik zetorren uhin berri hura orduantxe dago sasoi bete-betean, berrogei urte inguruan, onenean daude eta hamarkada honetan bultzada izugarria emango diote bertsolaritzari, 60tik hasita (...) 60tik 68ra plazako bertsolaritzaren gailurra eman dela esango genuke. Urre Aro antzeko bat” (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 17).

1960ko txapela Basarrik jantzi zuen, bere bigarrena, eta hurrengo hiruak Uztapidek irabazi zituen jarraian. Gerra aurreko txapelketetan Txirritaren eta Basarriren figuren inguruan ardazu bertsolari tradizionala eta eskolatu-modernoaren arteko tenka Uztapide-Basarri dikotomian gauzatuko da ziklo honetan. Bakoitzaren txapel kopuruari erreparatuta Uztapide aterako da garaile, eta aurrerago azalduko den gisan, zaletuen artean ere jarraitzaile gehiago izango ditu.

³⁷⁵ NBERen aholkuari jarraituz nazioarteko enbaxadoreak Madrilerara itzultzen hasiko ziren 1950ean, Estatu Espainiarraren sarrera onartu zen UNESCOn 1952an, 1953an Vatikanoren Konkordatuaren izenpetu zuen Gobernu frankistak, eta urte berean Estatu espainiarrak Ameriketako Estatu Batuekin Laguntza-Tratatua sinatu zuen... (Intxausti, 2014a: 332-333)

Nagusitzen den bertsolaria eskola zaharrekoa izan arren, txapelketaren berrikuntzak eta modernizazioak ez du etenik. Ariketen sofistikazioa, esaterako, geroz eta nabarmenagoa da. Txapelketa hauetan probatu zen lehen aldiz ‘kartzelako gaia’ deritzona: “Lehia-modu berriak behar ziren. Eta Bordari izan zen Kartzelako lana bezala ezaguna den ariketa asmatu zuena. Bakarka kantatu arazi, bertsolari bakoitzaren abildadeak eta sormen gaitasuna gehiago nabarmentzeko (...)” (Ezeiza, 2002: 18). Prenda bidezko gai-jartzea ere Bordarik asmatu zuen: “Orain urte batzuk, ohiko bertso jaialdietan hain erabilia izan zen prenda bidezko gai-jartzea, hogeitaka urte lehenago esperimentatu zuen. Bordarik plazaratu zuen, hain zuzen” (Ezeiza, 2002: 19). Edota azken oina gai bezala jartzearena Jesus Lete *Ibai-Ertzek*: “Azken oin bezala erabili beharreko hitzaren bitartez gaia adieraztearen formula; azken txapelketetan, ezin-besteko bihurtu den ariketa hori 1962ko San Jose bezperan estrenatu zuen Tolosan Jon Azpillaga, Uztapide, Basarri eta Jose Lizaso bertsolariekin” (id.: 19). Bestelako berrikuntzak ere aipatzen dituzte Dorronsoro eta Lekuonak: “Euskaltzaindiak gaiak denentzat berdintsu jartzen ditu; gainera, zotz egiten dira gaiak (...) Konposizio aldetik ere, lehenengo bertsoan zer esan, bigarrengean, hirugarrengean, ikusten da bertsolariak asko begiratzen duela. Lopategi, Xalbador eta Lazkao Txikiren influentziari zor zaio hori seguruenik” (1987: 18)

Bestalde, hainbat bertsolari kontsokratu eta beste hainbat ezagutzera emateko balioko zuen txapelketak: “Izen berri asko plazaratu eta famaratu ziren, txapelketarik gabe hain ezagun egingo ez zirenak. Ez dut zerrendarik eman nahi (...) baina txapelketa haietan zenbat bertsolari haundi azaldu zen nornahiren begi bistan dago” (Amuriza, 1987: 33).

Txapelketen inguruan sekulako giroa sortu zen. Honela gogoratzen du Irigoienek: “Orduan ez zegoen ez telebistarik ez ezer, eta euskaldunek bazuten halako egarri gorde bat, zerbait euskaraz jarri ezker, jendea aisa erakartzen zen, eta bertsolaritzan bezala, txapelketa usaina izanez gero, askoz gehiago (...) Bizkaian eta Gipuzkoan batez ere ikaragarria izaten zen” (Amuriza, 1993: 76).


1960ko finala Victoria Eugenia ospatu zen. Milaka zaletu gelditu ziren sartu ezinik. 1962koa Astoriara aldatzea erabaki zen, baina arazoak bere horretan zirauen: “Garbi zegoen alferrik zela, horietan ez zegoen lekurik. Jende-pila geratzen zen kanpoan, egunak aurretik sarrera bat lortzeko eromena izaten zen” (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 19). Honela, Lore Jokoak Hegoaldera pasatzen, kultura jaso gisa jantzi nahian saioak frontoitik antzokira aldatu baziren, alderantzizko bidea egingo da orain eta 1965etik aurrera Anoeta pilotalekua hartuko da eszenatoki gisa. Aldaketa honek beste dimentsio bat emango dio ekitaldiari: “(...) hurrengo txapelketa Anoetara eraman behar izan zen, 65ekoa. Hortik, publiko gehiago ezezik, beste giro bat hartu du jaialdiak” (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 19).

1962ko txapelketatik aurrera hasiak dira irrati bidezko zuzeneko emanaldiak eta 1967koaren irudiak telebistaz ere eman ziren. Masa kulturara gerturatzen hasia da bertsolaritzaz.

6.3.2.3 Estaldura mediatikoa

Bertan nazioarteko hedabideek izan zuten presentzia dela eta hedabidetzeari dagokionean zikloaren gailurraren hasiera Hernandorenak Parisen 1958an saioak markatuko badu ere, Euskaltzaindiak antolaturiko txapelketak izango dira gailur horren ardatza.

Hernandorenaren saio honek oihartzun mediatiko polita lortu zuen prentsan eta gertakari honen inguruko 18 testu bildu ahal izan dira. 1960ko txapelketen inguruan, ordea, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, dezente testu gehiago argitaratu zen.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.III (Frankismo Garaia datuak) Hernandorenaren txapelketarekin egin bezala sailkapen faseko saioen inguruko testuak ere hartu dira kontuan datu hauek osatzerakoan. Honela, guztira txapelketei buruzko testuak 260 badira, horietatik 155 sailkapen fase bezala funtzionatzen zuten Nafarroako, Gipuzkoako eta Bizkaiko herrialdeetako txapelketei eskainiriko testuak izango dira. Gainerako 105 testuak, aldiz, lau finalei eskainirikoak.

15. grafiko honi erreparatuaz txapelketaren inguruko interes mediatikoak gora egin zuela ere ikus daiteke: 1960kotik 1967kora kasik bikoiztu egiten da prentsak eskainitako testu kopurua.

Bestalde, Hernandorenaren txapelketarekin alderatuaz, 1958ko hartan testu gehien argitaratu zuen media Ipar Euskal Herriko Herria aldizkaria zen bitartean, eta honen atzetik erbesteko Amerikako Euzko-Deya eta Pariseko Euzko-Deya kokatzen baziren, Euskaltzaindiak antolaturiko txapelketen kasuan Gipuzkoan kokaturiko hiru medio eta Nafarroako laugarren bat izango dira arreta gehien jarriko dutenak: *El Diario Vascok* 80 testu argitaratuko ditu, *La Voz de Españak* 46, *Diario de Navarrak* 34 eta *Zeruko Argiak* 31. Lehenengo biak Gipuzkoako lidergorako lehia zebiltzan bi egunkariak dira, *Diario de Navarra* liderra da Nafarroan eta *Zeruko Argia* euskarazko prentsaren baitan.

Euskaldungoaren zatirik handiena aurkitzen den eremuko medioek bere egingo dute, bada, txapelketarekiko arreta.

Lau medio nagusi hauek gain, zabala da, berebat, gaia jorratu zuten medioen zerrenda, euskarazko medioen sarea zabaltzen hasi denaren eta gaiak sortzen duen interesaren adierazle: *Olerti*, *Anaitasuna*, *Gure Herria*, *Euskera*, *Aranzazu*, *Herria*, *Hierro*, *El Bidasoa*, *Príncipe de Viana*, *Goiz-Argi* eta *El Correo Español*.

Euskal Herritik kanpora, berriz, oihartzuna apala izango da, testu banaka batzuk baino ez³⁷⁶.

El Diario Vascok eta *La Voz de Españak*, txapelketa guztietan eramango dute lehen orrira albisteak: 1960an ‘Basarri campeón mundial de bersolaris’ titulatu du *El Diario Vascok* eta

³⁷⁶ *Hoja Oficial del lunes* (Madril) 1960/XII/19, 8 or., ‘Se celebró en San Sebastián el certamen mundial de versolaris’; *Hoja Oficial de la provincia de Barcelona*, 1960/XII/19, 33 or., ‘Campeonato mundial de bersolaris’; *Diario de Burgos*, 1961/I/11, 5 or., ‘Vizcaya’; *ABC*, 1965/I/03, 79 or., ‘Campeonato de versolaris en San Sebastián’.

La Voz de España titularrik gabeko fotoalbiste gisa jasoko du, bi testuek 1960/XII/20 data izango dutelarik; 1962an *La Voz de España* ‘Uztapide, campeón de bersolaris 1962’ dakar 1963/I/01 datarekin eta *El Diario Vasco* ‘Uztapide, campeón’, baina bigarren honek, bi egun beranduago, txapelkunari eginiko elkarrizketa ere badakar azalera ‘Uztapide en su caserío’ izenburuarekin; 1965eko urtarrilaren bian ‘Uztapide, nuevamente campeón’ eta ‘Otra vez campeón’ titulazten dute azalean *La Voz de España* eta *El Diario Vasco* hurrenez hurren; eta, azkenik, 1967ko ekainaren 13an ‘Uztapide campeón’ eta ‘Uztapide Txapelkun’. Eta testuoi erreparatuta, lehenengotik azken txapelketara azalean okupatzen den espazioa zerbait handiagoa dela ikus daiteke. Gaiari ematen zaion garrantziaren hazkunde kualitatiboaren zantzu hau *Zeruko Argiaren* azalek berresten dute, bestalde: 1965eko txapelketari hiru azal eskainiko dizkio, 1967koari lau eta aurreko biei batere ez³⁷⁷.

Txapelketen estaldura honek bertsolarien elkarrizketak zerbait ohikoago bihurtuko ditu. Honela, txapelketen aurretik elkarrizketatzen zen bertsolari bakarria Basarri baldin bazen txapelketekin, txapelkun berriari hainbat elkarrizketa egingo dizkiote, berezkoetik, ikasketarik gabe, egiten duen baserritar azkarraren irudia eraikiz: *El Diario Vasco*, 1962/XII/28, Vicente Escudero, ‘Uztapide el bersolari nos dice: “Tengo mucho respeto a los participantes del Concurso Mundial, y especialmente al campeón”’; *El Diario Vasco*, 1963/I/03, José Berrialde, ‘Así es y así vive una figura popular del país: “Uztapide”’; *El Diario Vasco*, 1967/VI/11, Jose Acosta, ‘Hoy defiende su título/Visita a Uztapide en su caserío de Ergoyen/Lo que importa es la gran fiesta del euskera. Luego ya se vera quien gana el campeonato’’. Eta pixkanaka beste bertsolariengana ere irekitzen hasiko da abanikoa: *Zeruko Argiak* lauiko elkarrizketa bat eskainiko du (1964/II/16, ‘Lesaka erri politean ‘Basarri’, Arozamena, Mitxelena eta ‘Lazkao-Txiki’-rekin berriketa’); *El Diario Vasco* Patxi Etxeberria eta Nikolas Zendoia txapelketako parte hartzaile gisa elkarrizketatuko ditu (1967/III/07, ‘¡Zorionak! Patxi’ eta 1967/III/14, ‘Aurrera Nicolas!’); edota *Diario de Navarra* Mitxelena (1967/VI/15, ‘José Miguel Michelena, campeón de bersolaris vascos ha intervenido en 2500 justas poéticas’).

Kronika izango da, noski, kazetaritza generoen artean errege. Estaldurarik indartsuenaren lehian zebiltzan Gipuzkoako bi egunkarien artean, esaterako, urtero aurki daiteke finalari buruzko pieza kuriosoren bat. 1960koari buruz, esaterako, honela ekiten dio *La Voz de España*:

“Abarrotado estaba el Victoria Eugenia mañana y tarde, habiéndose agotado las localidades y quedando fuera del teatro centenares de personas, que siguieron las incidencias del concurso a través del servicio de altavoces instalado. Y cuidado que hacía frío. Pero ello no enfrió el entusiasmo de quienes tenían ‘localidad’ al aire libre.” (La Voz de España, 1960/XII/20, 6 or., ‘Basarri renovó su título de campeón de bersolaris tras una competición que constituyó un rotundo éxito’; M. V.)

1962ko buruz burukoaren hasiera honela kontatzen du *El Diario Vasco*:

³⁷⁷ Hauek dira 1965eko txapelketari buruzko azalak: ‘Azkoitia’n ta Markina’n bertsolarien txapelketa’ (1964/VIII/16); ‘Bertsolari txapelketaren azken saiaketak/Eibar’en Tolosa’n Bilbao’n eta Donosti’an’ (1964/XII/06); eta ‘Uztapide berriz txapelkun’ (1965/I/10). 1967koari dagozkionak, aldiz, hauek: ‘Bertsolarien azken saioa Durango’n’ eta ‘Euskalerrri ta Napparroa’ko Bertsolarien txapelketak’ (biak 1966/XI/13); ‘Bertsolarien azken txapelketa. Uztapide txapelkun-Gora Xalbador!’ (1967/VI/18); eta ‘Bertsolarien txapelketa, 1967. Maiburuko baten pentsakizunak’ (1967/VI/25). Aurreko bi txapelketetako hutsunea nolabait azal dezake, bestalde, gerra nahiz gerraosteko etenaren ondoren 1954etik martxan bazegoen ere 1963ra arte astekari bezala funtzionamendu indartsu bat ez izateak.

“La elección no era difícil, ahí les tenemos de nuevo frente a frente a los dos colosos de siempre, a los dos veteranos, a los dos amigos. Y la lucha va a ser reñida, muy reñida.

En los versos de punto forzado hay ligera ventaja para Basarri. En el de los cuatro pies forzados, Uztapide alcanza a Basarri (...) Hablan de escoger un Santo Patrón para los bersolaris. Uztapide no entiende gran cosa en estos menesteres, es el bardo arlote, de sentido común, de mucho corazón y de la manera que puede (...) quiere que Pedro Mari Otaño sea el Patrón de los bersolaris. Basarri, el sapiente, cuaja dos estrofas de antología (...)” (*El Diario Vasco*, 1963/I/01, 7 or., ‘Uztapide, campeón de bersolaris’; Koplari)

1965ekoari buruz *La Voz de España*n kronikatik iruzkinerako pausoa ematen du Basarrik:

“Michelena, de Oyarzun, hasta el momento que le toco abordar el tema del ‘vestido de su esposa difunta’, para mi apreciación particular, merecía ir a la cabeza (...) Es aquí donde dio un bajón impresionante (...) Los nervios, en un campeonato, no estan en su sitio (...) ‘Lazkao-Chiki’, el subcampeón (...) Es como el perro libre –si vale el simil- que sigue atentamente las huellas de la pieza” (*La Voz de España*, 1965/I/02, 9 or., ‘Mi impresión’; Eizmendi, Iñaki Basarri)

Edota 1967an xehetasun batean topatzen du Anthon Gazteluk giro kronikaren hari muturra:

“Lo que no ha sabido ‘Xalbador’ y posiblemente ninguna de las casi cuatro mil personas qu ese hallaban el domingo en el Frontón de Anoeta, es que una mujer –joven y bonita, todo hay que decirlo- lloro cuando el vasco-frances cantó su berso, haciendose oír entre los desafortunados e injustos silbidos del publico (...)” (*El Diario Vasco*, 1967/VI/13, 13 or., ‘Aplausos, pitos y lagrimas de mujer en la jornada final de Anoeta’; Gaztelu, Anthon)

Estalduaren bolumenean eragina duen elementu garrantzitsu bat txapelketen inguruan sorturiko polemikei eskainiriko testuena izango da. Zenbaitetan prentsan sorturiko polemikak izango dira. Honela, esaterako, 1962ko ekitaldian txapela Uztapideren alde galdu ondoren Antonio Valverde Ayalde ‘Basarri y Uztapide’ artikuluan plateaturiko eskolatua-berezkoa dikotomiarekin haserretu eta txapelketak uzten dituela iragarriko du Basarrik, Hernandorenaren artikulua sorta ekarriaz³⁷⁸. Edota, 1965ekoan Antonio Arruerekin izango du eztabaida gai umoretsuen egokitasunaren inguruan³⁷⁹. Beste batzuetan txapelketan bertan emandako polemiken inguruan idatziriko testuak izango dira. Ezagunena Xalbadorren txistuen ingurukoa, 11 testu ekarriko dituen.

Azkenik, aipatu estalduaren berrikuntza handiena irratia eta telebista izango direla, baina hauek aurrerago aztertuko dira, aparte banatan.

³⁷⁸ *El Diario Vasco*, 1963/I/05, 16 or., ‘Basarri y Uztapide’, Antonio Valverde Ayalde; *La Voz de España*, 1963/I/06, ‘En defensa propia’, Iñaki Eizmendi Basarri; eta *El Diario Vasco*, 1963/I/09, 16 or., ‘En torno a Iparraguirre’, Antonio Valverde Ayalde. Hernandorenak sei artikulua argitaratuko ditu polemikaz *El Bidasoan* ‘El caso Basarri’ izenburupean (urtarrilaren 9, 16, 23, 30ean eta otsailaren 7 eta 14ean). Ez du erantzunik izango.

³⁷⁹ *La Voz de España*, 1965/I/07, 7 or., ‘Mi Atalaya Montañera’, Iñaki Eizmendi Basarri; *El Diario Vasco*, 1965/I/08, 7 or., ‘Más sobre bersolaris / ¿Por qué no se puede improvisar sobre temas jocosos?’. Arrue, Antonio (‘Un espontaneo’ ezizenaz); *La Voz de España*, 1965/I/09, 7 or., ‘Mi Atalaya Montañera’, Iñaki Eizmendi Basarri; *El Diario Vasco*, 1965/I/10, 7 or., ‘Para Basarri: “Defendella y no enmendalla”’. Arrue, Antonio (‘Un espontaneo’ ezizenaz)

6.3.3 Markinako batzarrak: elkarte baten beharra eta *Bertsolari* aldizkari baten proiektua

6.3.3.1 Bertsolari elkarte baten beharraren aipamenak

Ez dira txapelketak ziklo honen gailurrak ekarriko dituen emaitza bakarrak. Bertsolariak bertsolaritzaz hitz egiteko buruturiko lehen bilkuren berriak garai honetakoak dira.

Markinako fraile karmeldarren konbentuan burutu zen lehenengoa, ‘Bertsolarien Biltzarra’ izenarekin 1962ko urriaren 12an. Eta handik aurrera urtero egitea erabaki zen, Migel Mari Juaristi priorearen antolatzaile nagusi zela eta Pilarika egunez: “(...) egun horretan Espainiako poliziak eta Guardia Zibilak jai hartzen zutelako Hispaniar Arrazaren ospakizunetarako” (Paya, 2012: 7).

Lasak eskaintzen du urtero jarraitu ohi zen egitarauaren eskema:

“(...) eguna mezarekin hasten zen, ondoren aditu baten hitzaldia etorri ohi zen; horrek bukatuta, usadioa zen Aita Juaristik batzarra irekitzea: urtean zehar bertso jardunean gertaturiko gaiak aztertzen ziren, eta etorkizunerako aurreikuspen eta ideia berriak denon artean aztertzen ziren. Bazkaria zetorren ondoren. Bazkal ostean, kantatzeko berotzen zen edonork edukitzen zuen aukera hartarako; librean nahiz gai-jartzailearekin (...) Azkoitia frailearen hitzalditxoarekin eta Agur Jaunak kantatuz amaitzen zen” (2008: 890-891)

Eta Iriondok IX. biltzarrean, 1970an eman zuen hitzaldian aurreko urteetan ponente izandako zenbait izen zerrendatzen ditu: “Aurreko urteetan ere izan dira hemen hitzaldiak, eta ni baino hizlari iaioagoak gainera, alafede! Gogoan izango dituzue aita Akesolo, Xabier Amuritza, Juan Mari Lekuona, Nemesio Etxaniz, Gabriel Aresti eta abarrek esanak” (1970: 2)

Itxura dauka bertso-munduaren inguruko planteamenduak egiteko hitza hartzen zutenak adituak, eragileak edo fraideak zirela bertsolariak eurak baino gehiago, baina hurrengo zikloan funtsezkoa izango den bertsolaritzaren autoeraketarako ideia, Bertsolari Elkarte bat sortzearena, hainbatetan mahaigaineratu zela dirudi.

Iriondok berak honela zioen 1970eko bilkurako hitzaldi hartan:

“Bertsolariok denok berdin izateko, denok bateratsu jokatzeko erabakiak hartu beharra duzue: Zenbat jaialdi hartu hilabetean, zenbat kobratu jaialdi bakoitzean, antolatzaileei zer baldintza jarri, nolako gaiak erabili, nondik-nora jokatu... Eta orainaldian aipatzen den profesional karneta nondik nora lortu liteken ere gestioak egiteko abokatu baten laguntasuna eskatzea ona izango litzake (...) Bertsolarion elkarte bat sortzea ere ez litzake txarra, gauza guztien beharra izango baita gaur edo bihar, egora hau behingoz aldatzen denean.” (1970: 1)

Garaiko prentsan irakur daitekeenez ez zen gaia aipatzen zen lehen aldia. Honela dio Deunoro Sarduik bertsolariak *Anaitasunan* handik urtebetera: “Euskal Herriko bertsolari guztiak batzeko elkargo bat egitea ere esan izan da hainbat alditan, eta berdin gertatu da” (*Anaitasuna*, 1971/V/30, ‘Díaz de Ulzurruneri gutun irekia, Bertsolariak’, Deunoro Sardui). Gertatu dena da Markinako bilkura horietan ez dutela aurrera egiterik lortzen: “Bizkaian urtero bertsolari batzar bat egiten da. Batzar honetan (hamargarrena ospatuko da aurten) urtero proposamendu ugari egiten da, baina gutxi edo ezer gutxi egitea lortu”. Beharrezkotzat jotzen du, ordea, bertsolariak egitasmoa:

“(…) bertsolarien elkarte bat sortu behar dala uste dot. Elkarte hau legetu eta bertsolari guztiak batu. Gero, batasun hau gaurko Euskal Herriak joan behar dauan bideetatik zuzendu ahal leukeen norbaitzuk bilatu eta arlo honetan arduratzea lortu: bertsolari gazteentzat txapelketak jarri (...) Ea noizbait asmo honek egia bihurtzen diren!”

Pedro Díez de Ulzurruni zuzentzen zaio Sardui, Nafarroako eragile nagusiari, elkarlana proposatuaz: “Euskal Herriaren alde benetan dagoz Nafarroa eta Bizkaia; eta alderdi honetan bertso giro zintzo ta jator bat lortzea nahiko litzateke, gainerako guztiek ere bide hau hartzeko. Zure berrien zain gelditzen naiz. Agindu!”.

Anaitasunan bertan erantzuten dio Ulzurrunek. Bat dator Sarduiaren helburuarekin baina ez du egingarri ikusten³⁸⁰:

“Arrazoi duzu esatean, bertsolariak elkarren arteko Laguntza Elkarte bat behar dutela. Baina tamalez, zu bertsolaria izan arren eta hamar urtez Elkarte horren alde hainbeste lan eginez, ‘gutxi edo ezer gutxi egitea lortu’ delako (...) esan nahi daut, ez zuk ez eta nik ere ez dugula ezer egingo.” (*Anaitasuna*, 1971/VII/15, ‘Deunororen gutun irekiari erantzuna’, Pedro Díez de Ulzurrun)

Elkartearen egitasmoak hainbat zailtasun zituen, bada, aurrera egiteko. Ulzurrunek, ordea, ez du etsipenaren bidea hartzen:

“(…) Euskaltzaindiak, orain arte egiten duenaz gainera (txapelketak, sariketak) bertsolarien Elkarte hori asmatzen, eratzen eta sor arazten lagundu beharko luke. Oraindik gehiago: Euskaltzaindiak berberak sor arazi behar luke bere barruan (...) bere jakintasun eta berezko eginkizunarekin, bere agintaritzaz eta nagusigoarekin, Euskal Herri guztiko Bertsolarien Elkarte egin lezake.”

6.3.3.2 *Bertsolari* aldizkari baten proiektua

Bertsolarien IX. Biltzarrean bertsolari buruzko aldizkari baten proiektua aurkeztu zuen Joxe Mari Iriondo. Honela aipatzen du Lasak: “1970ean batzarra bat etorri zen bertsolariak aldizkari propio bat behar zutela irizterakoan. Jose Mari Iriondok, kazetari zen aldetik, aldizkariak ukitu behar lituzkeen gaiak, estiloa..., azaldu zuen” (2008: 893).

Iriondo berak argitaratu gabea den hitzaldiaren jatorrizko testua helarazi digunez, proiektuaren inguruko hainbat xehetasun emateko moduan gara. Honela azaldu zituen, esaterako, ideiarekin nondik norakoa eta egitasmoaren xede nagusia:

“(…) orain astebete Larrean izan nintzan, gaurko bilera honetarako zerbait garbitu beharrez. Besteak beste, BERTSOLARI izena eta izana bildu eta hezurmamitu lezakeen aldizkari baten premia aipatu genuen han, elkarren arteko harremanak, zuetako askoren bertso-paperak, bertsolariak dagozkion albiste eta azterketak, dena argitara eman eta zuetako bakoitzari, eta, halaber, bertsozale guztiei epeka-epeka zabaldu ahal izateko” (1970: 2).

Datu garrantzitsuak eskaintzen ditu testuak. Batetik, aldizkari bat planteatzen du ‘epeka’ zabaldu beharraz ari denean, eta aurrerago argitzen du hilabetekari edo bihilabetekari gisa funtziona dezakeela egokien. Izena ere zehazten du, gerra aurreko zikloan Makazagak argitaraturiko *Bertsolariyari* erreferentzia egin eta hari jarraitasuna eman nahian: “BERTSOLARI izena egokia dela iruditzen zaigu, lehen ere horrelako zerbait egin baita

³⁸⁰ Bitxia da Ulzurrunen erantzunaren ondotik Sarduiaren gutuna berriro publikatzen dela *Diario de Navarra* (1971/VII/29). Eta gero erantzuna bitan argitaratzen dela berriro: *Diario de Navarra* (1971/VIII/08) eta *Príncipe de Vianan* (abuztua).

Euskal Herrian, eta haren jarraipena izan ditekeelako” (id.: 2). Baina proiektu berria ez da *Bertsolariya* hura bezala bertso biltzaile soil izatera mugatzen. Kazetaritza lana gehitzen dio, albisteak eta iritzia jorrazteko aukera: “Bertso-alorrean maisu direnen iritzia eta komentarioak, bertsolarien artikuluak, bertsopaperak, bertsolaritzari dagozkion albiste eta komentarioak... Horixe dena eta gehiago jasoko luke aldizkariak” (id.: 3).

Azpeitiarrak Markinara eraman zuena ez zen ideia soil bat, lanketa batez hornituriko proiektua baizik. Honela, aldizkari berezitu gisa definitu zuen egitasmoa: “(...) aldizkari espezialduak (hau bezelakoak, alegia) ez du arazo larririk izan behar, harpidedunak egiten badira behintzat. Ezagutzen ditugu ondo samar funtzionatzen duten aldizkari espezialduak” (id.: 3). Egun xede-taldea deitzen zaiona ere zehazten zuen: “Bertsolarientzat bakarrik? Ez, noski. Lehenik, bertsolarientzat; eta gero, bertsozale nahiz euskalzale diren guztientzat. Edozein euskaldunentzat, alegia, denontzat ere osasungarri izango da-eta, seguru asko. Bertsolarientzat, ongarri, eta bertsozaleentzat, mesedeko” (id.: 2-3). Eta bideragarritasun ekonomikoa ere aurreikusten zitzaion: “Mila bat harpidedun beharko lirake aldizkariari duintasunez eusteko. Eta hogeit edo hogeita hamar duro urtean ordainduz bizi liteke BERTSOLARI aldizkaria (...) Lehenengo eta behin bertsolarietatik hasi behar da (...) gero, bertsozaleetara jo. Bertsolari bakoitzak bere lagunak harpidetu beharko litzuzke (...)” (id.: 3).

Lan taldearen inguruko zantzu batzuk ere eskaini zituen. Markinarako proposamena lantzeko alde aurretik egindako bilkuran Deunoro Sardui eta Santi Onaindiarekin bildu zela aipatzen du eta azken hau proposatzen du zuzendari lanetarako:

“(...) Larreako aita Santi Onaindia langile purrukatua dela uste dut, eta lan hauetan ondo ikasia. Prest legoke gainera lehenengo urteetako urratsak markatzen hasteko. Orain arte BERTSOLARI izeneko liburua, Mila euskal olerki eder, Olerti, Karmel eta beste lan asko egina da. Denporaz ere (ez nuke esan nahi fraileak alperrak direnik) gutako edozein baino lasaiago ibiliko dela nago, seguru asko. Eta ez dute kontuak hartuko dizkien emaztekiaren beldurrik ere, eta...” (Iriondo, 1970: 4)

Bertso-saioen grabaketarako sarea herrialdeka antolatu beharko litzatekeela ere seinatu zuen, hainbat izen proposatuaz: Gipuzkoarako Inozentzio Olea bertsolaria eta Donostiako Herri Irratiko Nikolas Aldai; Bizkaiarako Deunoro Sardui, Santi Onaindia, Enbeitatarrak eta Bilboko Herri Irratiko Pedro Mari Goikoetxea; Iparralderako Mixel Itzaina eta Emile Larre...

Eta erabili beharreko euskararen inguruan luzatu zen azkenik. Luzatu, euskara batuaren inguruko afera puri-purian zegoelako orduko hartan (bi urte baino ez ziren Euskaltzaindiak euskara batua erditu zuenetik). Eta idazle bakoitzari bere hautua errespetatuko zitzaiola baina gutxieneko zuzentasun gramatikal eta ortografikoa zaindu beharra zegoela esateko:

“Norbaitek esan du honezkero beste bandora pasatu ote naizen. Ni, egia esan, ez naiz sekula ortografia honen aldeko izan. Baina gaur egungo gehiengoaren joerak, irakaskintzarako hartutako erabakiak onartu beharra, komunikabideetan, literaturan eta abar batera jo beharra garbi dago. Eta nik errespetu eta itzal handia diot horri.” (Iriondo, 1970: 5)

Proposamena argia bazen ere, ez zuen erantzun garbirik jaso. Honela dio Iriondok hitzaldiaren testuan jasotako oharrak: “Hitzaldiaren ostean, elkarrizketa eta berriketan aritu ginen bazkari aurretik eta bazkalondoa; baina nik ez nuen hango aktarik jaso, eta badakit ez genuela erabaki zehatzik hartu, ez bertsolarien elkarte bat sortzeari buruz ez BERTSOLARI aldizkaria egiteari buruz” (id.: 5). Eta honela gogoratzen du azpeitiarrak ikerketa honetarako egindako elkarrizketan: “Proiektuaren defendatzaile nagusiak Prudentzio Egiguren

“Artañola” errezildarra eta neu izan ginen, eta aita Migel Mari Juaristi. Baina ez zen beste gestiorik egin, eta hartan ito zen ordukoz... Bertsolariek berek ere ez zuten berotasun handirik erakutsi” (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18).

Sarduik ere aipatzen du aldizkariaren afera Díez de Ulzurruni zuzenduriko prentsako eskutitzean. Lasak bezala proposamena onartzera iritsi zirela aipatzen du, baina ez zela fundamenturik egin gaineratuaz: “Joan dan urtean (...) herriz herri kantatu nahiz paperetan jarritako bertso berri jakiteko asmoarekin aldizkari bat ateratzea proposatu eta onartua izan zan; baina, ahaleginak gora-behera, erabaki honek ere asmo on guztien bide berdina daroa” (*Anaitasuna*, 1971/V/30, ‘Díaz de Ulzurruneri gutun irekia, Bertsolariak’, Deunoro Sardui)

Lore Jokoen zikloan Duvoisinek eginiko planteamenduaren ondoren, bertsolaritzari buruzko aldizkari bat argitaratzeko porrot egiten duen bigarren proiektua izango da, bada, Iriondorena. Tartean, Euzko Pizkudearen zikloan Makazagaren eskutik argitaratu zen Bertsolariya aldizkari bat baino faszikuluka argitaraturiko bertso-jarrien liburu bat izango delarik.

6.3.3.3 *Príncipe de Vianaren* ‘Bertsolari’ saila

Aipatu den bezala Nafarroako Diputazioak, ‘Euskararen aldeko saila’ deitua sortua zuen 1957an Príncipe de Viana kultur erakundearen barnean eta Pedro Díez de Ulzurrun buru zuela. Talde honek 1967an Príncipe de Viana izenarekin euskarazko aldizkari bat argitaratzeari ekin zion. Honela kontatzen du Díez de Ulzurrun berak: “1.967an Satrustegi, Kortés Izal, J.M. Lasarte, eta M. Izeta, Urmenetak izendatuta Diputaziora lan egitera etorri ziren. Urmenetak pentsatua zuen etxe guztietan banatzeko euskarazko aldizkari bat argitaratzea. Aldizkari horren aurrean ni jarri ninduen” (La Boina Taldea, 1984: 16). Askotariko taldea bildu zen aldizkariaren inguruan: Antton Erkizia, Sagrario Aleman, Aingeru Irigarai, Damaso Intza, Markelin Garde, Fermin Ixurko, Patxi Zabaleta, Mariano Izeta, Juan Garmendia Zeleta eta abar. Tartean, aipaturiko azken biak, adibidez, oso bertsozaleak zirenak. Eta dezenteko arrakasta izan zuen egitasmoak: “Hilabetero 7 edo 8.000 ale ateratzen genituen. Urtean 10. Sanferminetan eta eguberrietan inprentak itxita zeudenez gero, bi horiek lodiagoak egiten genituen bi hilabeterako zirelarik” (id.: 17).

Markinako bilkuretan Elkarte bati buruz planteaturiko beharrak ez zuen erantzunik izango hurrengo zikloraino, baina aldizkariaren ingurukoak nolabaiteko aterpe bat topatu zuen *Príncipe de Vianan*.

Aldizkariaren eragileak Euskaltzaindiaren txapelketetan Nafarroakoa antolatzen zuten berak ziren hein handi batean eta eurengana jo zuen muga zeharkatu eta Markinako bilkuretan parte hartzen hasia zen Teodoro Hernandorenak:

“Hurrengo urtean ere [1971ko Markinako Bertsolarien Biltzarraz ari da] gaia eztabaidagai izan zen [bertsolaritzari buruzko aldizkari bat ateratzearena], baina erabaki deusik hartu ezinik geratu zen batzarra. Orduan, Teodorok proposatu zuen Principe de Viana hilabetekariari orrialde bat eskatzea bertsolaritzarentzako. Denek aho batez onartu, eta Teodororen bizkar utzi zituzten gestio lanak” (Lasa, 2008: 893)

Aldizkariak orrialde bat beharrean hilero bi argitaratzeko ardura hartu zuen, eta testu honekin estreinatu zuen saila 1972ko urtarrilean:

“Ekiñaren gaiztoa! Azkenean ere argitaratu behar zaitugu. Zu bai, orri maite, lehego bertsolarien kondaira ta gaurkoen iraupena lortu-arazi behar dozun orri hori.

Etzara, ez, egin bakoa. Ba diru ia hiru urte Markiñako bertsolari egunean lehenengoz aipatu ziduguzala.

Geroztik komisiñoak sortu, batzarrak egin, eta holakoak ugari. Batak au esaten euskun: ‘Ezin dagike oraingoz’; besteak: ‘Diru asko kostatzen da...’. Hor ibili da, bai, umea leporaiño uretan, noiz itoko.

Aurtengo bertsolari egunean bultzada bizi bat artu eban, gure asmo zahar honek. Gaiñerakoa, hemendik aurrera, zeuk esango daukuzu, ‘Principe de Viana’-n, hilleoro, bertsolarien eta bertsoaren kondaira eta misterioak argitaratuaz (...)” (*Príncipe de Viana*, 1972 urtarrila 4 or., ‘Orri berria’)

Sailari ‘Bertsolari’ jarri zioten izena, nolabait Iriondoren zapuzturiko proiektuaren jarraipen bat zirela adieraziaz. Sailaren ekarpena, ez zen aldizkari batean egin zitekeenaren parera iritsiko, noski, baina proiektuak aipatzen zituen eduki guztiak argitaratu zituen: bertso-jarriak, bertso berriak, albisteak, iritzi artikuluak eta abar. Pedro Díaz de Ulzurrun 1973an zuzendaritzatik kendu zutenean ere eutsi ahal izan zion, eta argitalpenaren itxieraraino, 1978raino, argitaratu zen kasik saila. Honela, asko baino beranduago hasi eta hilabetekaria izan arren, gaiaz gehien argitaratu zuten medioen artean kokatuko da, *Zeruko Argia*, *El Diario Vasco*, *La Voz de España*, *Diario de Navarra*³⁸¹ eta *Herriaren* ondotik.

Izatez, ikerketak planteatzen duen aldizkatzearen baitan, bai Iriondoren proiektua eta bai *Príncipe de Viana*ren saila. Baina Markinako bilkuren emaitza gisa hartu dira biak, eta bilkura hauek zikloaren gailurraren emaitzat hartuaz bertara ekartzea egokitzat hartu da, bide batez hedabidetzea bertso-munduaren baitan kezka orokortua izan zela adierazteko.

6.3.4 Auspoaren sua eta bertso-paperen azken hatsa

6.3.4.1 Antonio Zavala, langile nekazina (1928-2009)

Funtsezko ekarpena egin duten aurpegi berriak ere badauzka ziklo honek. Antonio Zavala, esaterako.

Aurreko ataletan ikusi denez bertso produkzioaren bilketaren kezka konstante bat izango da garaian garaiko bertsolaritzaren modernizaziorako egitasmo ezberdinetan: Lore Jokoak Iparraldean hasterako Chahok egindako ahalegina, Lore Jokoak Hegoaldera pasatzerako Manterolak argitaraturiko kantutegia, Euzko Pizkundean Aitzolek egindako bilketa lana... Zavalak Frankismo Garaiko ziklo honetan abiarazi eta bizitza osoan zehar buruturiko ekarpenak, ordea, ez du parekorik izango.

55 urte luzatu zen langintzaren iturburuan bere haurtzaroko bertso saltzaileen oroitzapena seinatu izan du tolosarrak: “Eskolapioetatik etxera bazkaltzera nindoala, bat edo beste han izaten zen kantari larunbatetan, merkatu-eguna egun horrekin izaten da eta. Bertso-saltzaile hauek dira umetan nik ikusi eta urteen buruan bidea erakutsi zidatenak” (Garzia, 2001: 76-77). Bilketari, ordea, beranduago ekin ziola kontatu ohi du, 1954ean, oinarritzko ikasketak egin ondoren Jesuita sartu eta hauen formakuntzaren baitan Urduña, Loiola eta Oñati pasa ondoren eta Xabierren irakasle zela³⁸². Egitasmoa martxan jarri zuen gertakaria ere kontatzen du Joxerra Garziak eginiko elkarrizketan:

³⁸¹ *Diario de Navarra* bertsolaritzaz urte luzez argitaratu zuten sinadura nagusiak *Príncipe de Viana*ko berak izango dira: Pedro Díaz de Ulzurrun eta Mariano Izeta.

³⁸² Guztira hamasei urte luzatu zen formazio prozesua burutu zuen Zavalak, tartean hiru urte irauten zuten filosofiako ikasketak eta lau urtetako teologia karrera egin zituelarik.

“Mutiko baserritar bat bazen bere etxeko kanta-paperak sarritan aitatzen zituen. Ekartzeko, bada, haiek esan nion, Eguberrietako oporretatik itzultzerakoan. Ekarri zizkidan. Hogeita bost bat bertsopaper ziren. Orduan nik regla de tres bat egin nuen: baserri batean horrenbeste badago, Euskal Herri guzian zenbat?. Lehenengo kartaz hasi nintzen biltzen, lagunei eskatuaz” (Garzia, 2001: 80)

Isilka eta bakarrik hasi bazen ere laster zabaldu zen bere lanaren oihartzuna eta Euskaltzaindiak gerraostean egin zuen lehen batzar irekirako bere lana azalduko zuen hitzaldia eskatu zioten. 1956ko irailaren 15ean eskaini zuen hitzaldia ‘En busca de la poesía popular a través del País Vasco-Bertsos berrien billa Euskalerrian zear’ izenburuarekin, eta ordurako 50.000 bertso bilduak zituela azaldu zien bertaraturikoei: “Inork besterik eskatu ez nonbait, eta gazteleraz hitz egin zuen, ‘Hace ya dos años que no hago sino leer y copiar bertso berriyas’ aitortuz” (Iriondo, 2010: 13).

Hasiera batean ikerketaren emaitzekin eta bilduriko bertsoekin lan mardul bat argitaratu ahal izatea zen bere asmoa. Espero zuen laguntza jaso ez zuenez argitaletxe propioa sortu behar izan zuen, ordea, eta honek aukera berriak ireki zizkion: “Antonio Zavalak, jesuita izanik, uste zuen Konpainiak argitaratuko ziola obra. Baina Konpainiak ezezkoa eman eta, ondorioz, bere argitaletxea sortu behar izan zuen (...) Hala hasi zen eskuetan zeukana plazaratzen, nahiz eta aurreikusitako lana erabat amaitu gabe izan” (Esnal, 2015: 101). 1961ean ekin zion Auspoarekin bildutako materiala argitaratzeari, eta gogotsu ekin ere: urte hartan sei liburu argitaratu zituen, 1962an hamabost, 1963an hamabi, 1964ean hamaika, 1965ean zortzi... Ikerketaren emaitzak, berebat, 1963an EUTGn eskainiriko hiru hitzalditan eman zituen ezagutzera, eta 1964ean argitaraturiko ‘Bosquejo de historia del bertsolarismo’ liburuan.

Bere formazio garaiaren amaierarekin eta irakasle lanen hasierarekin kointziditu zuen Auspoaren sorrerak. Donostiako San Ignacio Ikastetxean eman zituen klaseak hainbat urtez, eta EUTGn ere bai zerbait 1972ean bere egitasmoa burutzeko liberatu egin zuten arte: “Konpainiak 1972an liberatu zuen, buru-belarri gauza zezan egitasmo erraldoi hura. Lehenago, 1964an, halako zerbait eskaini zioten. Eta EUTGn egon zen bitartean ez zuen eskolarik eman. Baina 1966an berriro irakasle ikusten dugu Donostian bertan, San Ignacio ikastetxean, 1972a arte” (Esnal, 2015: 42).

1964ean Euskaltzain oso ere izendatu zuten eta bertako Herri Literatura Batzordean aritu zen. Euskaltzaindiak antolaturiko txapelketa guztietan epaimahaiko izatea ere tokatu zitzaion (1960, 1962, 1965, 1967, 1980 eta 1982), antolaketa lanetan ere murgildu izan zen, eta nagusiki *La Voz de España* nahiz *El Diario Vascon* artikulua ugari argitaratu zuen bertsolaritzaz. Ezerk ez zuen desbideratu, ordea, bere egitasmo nagusitik: Auspoa sailean kultura popular xeheenari aterpe bat eskaintzea.

Bakarlanean aritu izan zen gehienez:

“(…) bertsopaperak bildu, gaiez eta egilez klasifikatu, iturri ezberdinak aztertu eta parekatu, bertsopaper bakoitzaren historiari zegozkion oharrak eta argitasunak jaso, egile ezberdinen biografiak osatu, argitara emateko behar zituen baliabideak eskuratu, liburuak banatu/saldu, dena berak egin zuen (...) Lehenengo, arreba Arantxak lagundu zion banaketan; geroago, Sendoa argitaletxeak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (KM); baina liburua hasi eta amaitu artekoa berak egin zuen beti.” (Iriondo, 2010: 2)

Eta ez zion inoiz etsi: “(...) biltze langintza ontan, gizonaren beste zer egin guztietan bezela, batzuetan asmatu eta besteetan utsegin, baiña beti ere aurrera jo bear dezu; artutako asmoan

jarraitu eta iraun” (Agirre, 1997: 60). Eta 300dik gora liburu argitaratzera iritsi zen: “(...) sekula inoiz inork gurean egin duen bat-batekotasunaren eta kontu zaharren bilduma harrigarriena eginez” (Iriondo, 2010: 2)

6.3.4.2 300 titulutik gora ekarriko dituen bilketa lana

1961ean Auspoa bilduma abiarazi zenean bertso jarriez osaturiko liburuak izango dira gehienak: “Horiekin hasi zuen Auspoa bilduma. Horiek zabaldu zizkioten gainerako arloen atea” (Esnal, 2015: 112). Bertso-paperean bilketa izan zen tolosarraren lanaren abiapuntua eta gero aldizkarietan argitaraturiko bertsoetara edo jartzaileek argitaratu gabe gorde zituztenetara zabaldu zuen bere bilaketa. Topaturikoa bertsolarika antolatu ohi zuen normalean. Honela, klasiko garrantzitsuenen lana berreskuratuz Bilintx, Otaño, Pello Errota, Xenpelar eta Txirritari buruzko hainbat liburu argitaratu zituen, azken honen kasuan esaterako, zazpi. Hain ezagunak ez ziren bertsolariei ere egin zien tokia, baita jartzaile soilak izandakoei ere, antzinakoak nahiz garaikideak tartekatuz: bapatean ibili gabekoei ere: Ramon Artola, Pepe Artola, Ramos Azkarate, Fermin Imaz, Paulo Iantzi, Mariano Izeta eta abar. Gaiaren arabera osaturiko liburuak izango dira beste hainbat: ‘Euskal mutillak armetan’ (gerra karlistei jarritakoak), ‘Ezkontza galtutako bertsoak’, ‘Afrika’ko gerra eta abar.

Liburu hauek ezin daitezke kontzeptuaren esanahirik hertsienean kazetari lan gisa hartu. Bertsolarien biografiak osatzen ditu, askotan lehen aldiz argitaraturikoak direnez ikerketa lan eskerga eginez (eliza eta udal artxiboetan arakatuaz, ondorengoak elkarriketatuz eta abar), eta zenbaitetan pasadizo nahiz ateraldiez ere hornituaz. Edota gertaera historikoei buruz argitaraturiko bertsoetan gertaeren inguruko azalpenak eskainiz. Lanaren muina bertsoen bilketa eta argitarapena izan ohi da, ordea.

Prentsan bigarren bizitza bat izan ohi dute, ordea, liburu hauek. Kazetariak edo euskal kulturaz idazten duten sinadurek euren iruzkinak argitaratzen dituzte batetik. Beste askotan, batez ere 1965-1966 urtealdian *La Voz de España*n eta 1967-1972 urtealdian *El Diario Vascon*, Zavalak hainbat artikulua argitaratzen ditu liburuetako materiala berrerabiliz³⁸³.

Zavalak Auspoan bere proiektu pertsonala gauzatzeaz gain, garaiko bertso munduaren proiektu kolektiboan ere parte hartzen du eragile garrantzitsu bezala. Epaimahaiko izango da 60ko hamarkadako txapelketa guztietan, antolakuntzan ere hartuko du parte, eta Auspoaren bidez beste ekarpen garrantzitsu bat egingo du 1960ko hamarraldiko Euskal Herriko txapelketetako bertso guztiak argitaratu eta zabalduaz. Tolosarrak argitaratu zuen lehen liburua 1960ko txapelketari buruzkoa izango da hain zuzen ere: “(...) Zavalaren lehen obra, Auspoan ez baina, Itxaropena argitaldariaren Kulixka Sortan plazaratu zen, 1961ean: Bertsolarien txapelketa–1960. Datu esanguratsua da (...) tolosarrak, nonbait, ez zuen aurreikusiko, artean behintzat, bat-bateko bertsoak bere bilduman argitaratzea” (Esnal, 2015: 115). Zubimendik aurreko zikloan ‘Bertsolari-guduak’ liburuarekin bete zuen funtzioa ziklo honetan Zavalak hartuko du, bada, bere gain. Donostiarraren kronika luzeekin alderatuta, ordea, tolosarrarenak askoz ere soilagoak izango dira kazetari ikuspegitik, magnetofioan grabaturikoaren transkripzio hutsa, aurre-kanporaketen berri modu telegrafiko batean

³⁸³ 1966an, adibidez, ‘Gaztelu bertsolaria’ liburua Auspoan argitaratu ondoren, honakoak etorri ziren prentsan, denak *El Diario Vascon*: 1967/X/01, ‘Noviazgo del bersolari Gaztelu’; 1967/X/03, ‘El bersolari Gaztelu y la noche de San Juan’; 1967/X/04, ‘Las trasnochadas del bersolari Gaztelu’. Eta 1967an argitaraturiko ‘Iru bertsolari : Agustín Zakarra (1816-1886) Patxi Bakallo (1832-1898?) eta Pedro Santa Cruz (1839-1905)’ liburutik beste hainbeste eta gehiago: 1967/IV/30, ‘Un partido en el viejo Frontón de Jai-Alai’; 1967/V/02, ‘La liebre de Aduna’; 1967/V/03 ‘Una sátira contra los mutilzarras y sus consecuencias’; 1967/V/16. ‘Patxi Bakallo, el bersolari de Osiñaga’; 1967/V/17. ‘Patxi Bakallo y Xenpelar’; 1967/V/18, ‘Patxi Bakallo en América’; 1967/V/19 ‘Nuevas desventuras de Patxi Bakallo en América’.

emanaz. Giroari buruzko aipamen bakarra 1967ko Xalbadorri egindako txistuena izango da, eta azken bietan bakarrik jasoko dira argazki bakan batzuk, sinadurarik gabeak.

Txapelketekin irekitako bideari jarraituz, bertsolari jakin baten edo saio jakin bateko bat-bateko bertsoekin osaturiko liburuak argitaratu zituen jarraian Auspoak: ‘Errege eguneko bertso-sayoa : (1962)’, ‘Noizbait’ (Uztapideren saioen bilduma), ‘Bertso mordoxka’ (Lasarteren saioen bilduma), edota ‘Zapai bertsolaria’, guztiak ere biltzaile ezberdinek magnetofoi bidez grabatuak eta transkripzio hutsa eskaintzen dutenak. Eta beste bide bat ere hauspotuko du tolosarrak: “Zavala berehala ohartu zen zer-nolako balioa zegoen testigantza haietan eta zenbait lekukok kontatzeko zuen gaitasunean. Hala, herritar askoren testigantza osatu zuen Txirritaren biografia; eta bakarraz, alabarenaz, Pello Errotarena” (Esnal, 2015: 116). Hurrengo pausoa bertsolariak beren bizipenak kontatzen jartzea izan zen, idazten zekiena idaztera animatuaz eta ez zekienari bere bitartekotza eskainiaz³⁸⁴. Lehen proba bat Sebastian Salaberriarekin egin zuen 1964a, baina hamar urte beranduago Uztapideren autobiografia jasotzen zuen ‘Lengo egunak gogoan’ biografia argitaratu zuenean ireki zitzaion ate hori parez pare. Aurreko zikloan salmentarik handienak izan zituen euskarazko liburua Gregorio Mujikaren Fernando Amezketarrari buruzkoa izan bazen, ziklo honetan berriro ere bertsolari bati buruzkoak izango dira euskarazko best-seller garrantzitsuenak. Bere bizitzaren kontakizunak bigarren edizioa eskatu zuen urtebete eskasera, eta gutxira argitaratu zen ‘Sasoia joan da gero’ bertso-bilduma ez zitzaion atzean gelditu: “(...) bere azken lan idatzia, ‘Sasoia joan da gero’ (1976), eta buruz ari banaiz ere, hamarkada horretako *best seller* arrakastatsuen bihurtu zen. Liburu honek milaka ale saldu zituen, Arestik edota Saizarbitoriak baino gehiago” (Gabilondo, 2009: 20). Garziak argitzen du arrakastaren gakoak: “Sus memorias, publicadas en Auspoa por el padre Antonio Zabala, son un monumento de la prosa popular, y una gran lección de bien narrar” (2000a: 441).

Arrakasta honen ondotik hainbat bertsolari jarri zituen Zavalak langintza horietan, Esnalek zehazten duenez (2015: 97) urteen joanarekin gisa honetako hirurogeita sei liburu argitaratzera iritsiko zelarik, hogeita hamaika egile ezberdinenak. Hurrengo zikloan prentsako zutabegintzan ere jarriko ditu tolosarrak egile hauetako asko. Batzuk lan horiek gaurdaino beteko dituzte.

Bildumak ere hurrengo zikloraino eutsiko dio bere ekarriari³⁸⁵. Zavalaren eskutik guztira kultura popularraren inguruko 300dik gora³⁸⁶ liburu argitaratuko direlarik, gehienak bertsolaritzari buruzkoak: “The name of the collection has proved much more than a mere metaphor. Auspoa means “bellows,” and the collection has indeed been and continues to be a true bellows, constantly reviving and strengthening the flame of oral literature” (Garzia, 2007: 95).

³⁸⁴ Zavala jakitun zen esku artean zuen altxorraz: “Prosa onek garrantzi aundia duala derizkiot. Emendik aurrera, izkuntza bikoak izango dira euskaldunak, nai ta nai ez. Baiña erri-jende ori oraindik izkuntza bakarrekoa da. Alegia, euskera utsez pentsatzen duana, naiz-ta erdera ulertu eta lardaskatu. Euskera utsez pentsatutako euskera ori atera bear da oien burutik, eta almatzen aundi bat osatu. Izkeraren jatortasunaren altxor bat, alegia (...) Eta gero or dira literatura, kondaira, etnografia, antropologia ta abar ta abar, liburu oiekin aberastuko diranak.” (Esnal, 2015: 49)

³⁸⁵ Zavala 2009an hil ondoren ere martxan da Auspoa Saila.

³⁸⁶ Iriondok (2010: 16) 339ko kopurua eskaintzen du Auspoaren baitako hiru bildumen (txikia, ertaina eta Auspoaren Sail Nagusia) eta bilduma hauetatik kanpo argitaraturiko ale solteen batura eginaz. Esnalek (2015: 103), kontaduria zorrotzagoa eginaz (bi zenbakitan banaturiko lanak obra bakartzat hartuaz eta abar) 281era jaisten du kopuru hori Auspoaren baitako eta Biblioteca de Narrativa Popular bildumakoak gehitzen dizkio (gazteleraz, erdal kultura popularrak argitaraturiko 22 lan) azken kopurua 303an utziaz.

6.3.4.3 Azken bertso-papera

Tolosan umetan ezagutu zituen bertso-paper saltzaileak izan ziren Zavalaren egitasmoaren inspiratzaile, bertso-paperen bilketa izan zen egitasmo honen abiapuntua, baina paradoxikoki, Auspoa bilduma indar guttiz bere lehen pausoak ematen hasi zenean, 1960ko hamarraldian, eman zen hain justu fenomeno desagertzea.

Definizio hau eskaintzen du Zavalak berak: “(...) bertso edo kanta-sortaren bat eskeintzen digun papera edo papela. Bañan beti ere paper askatua, bakarra, sueltua. Eta inprentaz argitaratua” (1980: 115). Eta fenomenoaren historia ere jorratzen du, XVIII. mendean sortu eta Lehen Gerra Karlistan orokortu zela azalduaz. Mende luze batez euskarak inprentan zuen sarbide nagusia paper hauek izango ziren:

“(...) durante muchos lustros, en nuestra tierra nunca dejó de ser primavera, porque, fuera el mes que fuera, no cesaban de brotar hojas. Hojas de poesía popular, los bertso-paperas, que se vendían en mercados y romerías (...) A veces pienso que a nuestro pueblo le entró una auténtica bertso-manía.” (2006b: 213-214)

1936ko gerraren eta gerraostearen aizkorakadari ere eutsi zion sorkuntzak: “(...) recibió el hachazo de la guerra civil de 1936. Aunque también durante ésta se siguió versificando. Y en la posguerra el viejo árbol echó nuevos brotes. Hubo quienes supieron torear la censura” (Zavala, 2006b: 214). Laster etorriko da, ordea, azken hatsa: ”Hay hojas fechadas en los años 50 y hasta en los 60. En esos años, tras siglo y medio de vida, murió el bertso-papera, la hoja impresa de poesía popular” (id.: 214)

Esnal data zehatzagoa ematera ere animatzen da:

“(...) berak 1964an argitaratutako ‘Amar urteko bertso-paperak (1954-1963)’ liburuan, bada 1963an inprimatutako bertso sailik. (...) Zavalak berak argitaratua da, 1984an, Sebastian Salaberriaren Nere soroko emaitzak. Eta liburu honetan daude jasoak Salaberriak 1964ko irailaren 27an Iturriotzen jokaturako sega-apustuari jarritako bertsoak. Donostiako Grafikas Izarran izan ziren argitaratuak. Azkenekoak ote? Hala balitz, 1964. urtean ipini beharko genuke bertso-paper horien heriotza-data.” (2015: 113)

Tolosarrak argi seinalatzen du desagertzea honen arrazoia: hedabideen bitartekotzak hartutako garrantzia. Eta gaineratzen du bitartekotza hori izan dela bertso-jarriari bizirauteko transformatzeko aukera emango diona:

“(...) bertsoa liburu eta aldizkarietara pasa da. Eta, olakorik aitatu ez badegu ere, kaset eta diskoetara ere sartu dala danok dakizute. Beraz, gorde edo bizileku zaarra galdu badu ere, bizileku berririk arkitu du bertsoak. Berri txarra ez da. Osasuntsu dagoala esan naiko du.” (Zavala, 1980: 132)

Bertso-papera desagertuko da baina bertso-jarriak bere bidea egiten jarraituko du, bada. Bertso-jarriez osaturikoak izango dira, hain zuzen, Uztapideren ‘Sasoia joan da gero’ eta Xalbadorren ‘Odolaren mintzoa’, esaterako, Auspoak 1970eko hamarraldian argitaraturiko liburu arrakastatsuenetako batzuk. Bertso-paperren desagertzea hau, ordea, hurrengo zikloan nabarmenduko den bertso-jarrien motelaldiaren lehen sintoma izango da. 90eko hamarraldian honela dio Zavalak berak:

“Los periódicos y revistas de los años posteriores se nutrían con las producciones de nuevos versificadores (...) Durante tres décadas se publicaron así miles de estrofas, de buena calidad en general (...) Pero también esta

floración cesó. La poesía popular vasca ya no se imprime. Se organizan concursos de composiciones en verso y se conceden los premios; pero no se publican o es difícil conseguirlas. ¿Será que a los directores de los órganos de prensa no les gusta el género? ¿O que el pueblo apaga su sed en otra fuente?” (Zavala, 2006b: 214)

Eta honakoa gaineratzen du Auspoako bertso-liburuez:

“Cuando empezaron a ver la luz, se encontraron con dos tipos de lector: uno popular y otro culto. El popular o tradicional los adquiría para leerlos en casa como antes lo hacía con los bertso-paperas que compraba en el mercado (...) Ahora (...) mientras el segundo tipo de lectores se mantiene o incluso ha aumentado algo, el primero ha ido disminuyendo hasta casi desaparecer.” (id.: 222-223)

Ez da, noski, bilakaera honetaz ohartu den bakarria. Amurizak gerra ondorenean jartzen du jarrien gainbeheraren hasiera: “Bertso jarrien desagertzea edo gutxienez indar galtzea gerra ondoko kontua da, txapelketak hasi eta gero segitu izan duena” (1987: 31). Gandarak, aldiz, gerraurrean bapatekoak izan zuen loraldian: “Bertsolaritza molde biek –bat-batekoak eta paratuak– euskal kulturaren zituzten kokaguneak trukatzeko joan ziren; bertso paratuen artean, bertso-paperak, mendearren lehen herenetik hasita, bazterrerara jo zuten, eta bat-bateko arituak, aldiz, gune aldera” (2015: 183). Bilakaera honen atzean batari nahiz besteari egokituriko funtzionalitate berriak seinatzen dituelarik: “Herriko kantak eta bertso paratuak (...) iraganarekiko erlazioan ziren identitate beharrekin lotu ziren (...) Bat-bateko bertsolaritzak, ordea, komunitatearen orainaldiko errepresentazioa bereganatu zuen: lehenik 60-70etan gailenduriko parte-hartze liturgikoaren mugetan gauzatua, eta, 80etatik aitzina, (...) barne-baliabideen birmoldatze garaikidea garatuz” (Gandara, 2015: 191).

Azken zikloan, 1980tik aurrera garatuko den horretan, behin eta berriz aipatuko da bertso-jarrien hedabidetzeak duen arrakasta eskasak eragiten duen kezka.

6.3.5 Basarriren polemikak

Txapelei dagokienean, lautik hirurekin, Uztapide izango da gailur honetako bertsolari ikurra. Bertsolaritzaren eragile gisa izandako pisuagatik, medioetan zeukan ikusgarritasun apartekoa zela medio, eta bi ziklo ezberdinetan txapela irabazitako bertsolari bakarria izanik, bertsolaritzaren inguruko eztabaidetan Basarriren iritzia izango da erreferentziala gailur honetan: “Bertsolaritzaren behi sakratua, instituzio bat zen alde horretatik Zarauzkoa” (Lasa, 2008: 877). Bere itzal hori asko hari zen luzatzen, ordea, tartean gerra eta gerraosteko parentesia eman bazen ere, bi hamarkadatik gora ziren posizio hori gehiago edo gutxiago berea zela, moralismoa eta sermoia txertatu zituen gainera bere proiektuaren inguruko diskurtsoan, eta gustuko horrelakoetan gertatu ohi denez ‘behi sakratuaz’ aspertzeko hasitako hainbat polemista gurutzatu zitzaizkion bidean: “60ko eta 70eko hamarkadetan, baina, eman zen saltsa eta istilu ugari. Horien erdian Basarri topatzen dugu gehienetan, borondatez nahiz borondatez kontra” (Lasa, 2008: 877).

Arruerekin izango du 1965eko finalean jarri zuten gai baten egokitasunaren kontura (Arrue gai umoretsuen defentsan, Basarri bertsotan txisteak kontatzea zaila dela argudiatuz), Hernandorenarekin bertsolaritza krisian ote dagoen eztabaidatuz edota autozentsura politikoaren inguruan, Gereñorekin bertsolaria poetatzat har daitekeen edo ez...

Guztien erreposoa interesgarria litzateke. Ziklo honetan bertsolaritzaren inguruan ematen den eztabaida neurri handi batean Basarriren figuraren eta bere proiektuaren nahiz iritzien

inguruan ardatzen baita. Gehiegi ez luzatzearren, ordea, Ayalderekin eta Arestirekin izandakoetan zentratzea erabaki da, mamitsuenak izan daitezkeelakoan.

6.3.5.1 Ayalderekin: sagardotegikoa vs. gorbataduna

Honela, Basarriren lehen haserre sonatua 1962an Uztapideren alde txapela galdu berritan Antonio Valverde Ayaldek argitaraturiko artikuluak eragin zion. Artikuluak Basarri eskolatua Iparragirrekin eta Uztapide eskolatugabea Xenpelarrekin parekatzen zituen:

“Dije una vez que Basarri es el Iparraguirre de nuestra época. Un Iparraguirre motorizado, que en su 4x4 (...) va de plaza en plaza (...) bueno estará parangonar a Uztapide con Xenpelar, y tan solo por considerar a estos últimos como los representantes del bertsolarismo agreste y tradicional” (*El Diario Vasco*, 1963/I/05, 16 or., ‘Basarri y Uztapide’, Antonio Valverde *Ayalde*)

Dikotomia hori planteatu ohi denean beti dakar berarekin herriak ‘lehenago bertsolaria’ alegia, eskolatu gabe-sagardotegikoa maiteago ote duenaren errezeloa, eta halaxe egiten du Ayaldek:

“Es curioso como perviven las ideas y prejuicios antiguos. A Iparraguirre, los rústicos de su tiempo lo tenían por ‘señorito’ porque cantaba con estilo y hacía música. Pues bien, esta misma tarde, un vigoroso abuelo de Oyarzun, comentando el tan sonado torneo último y declarandose acérrimo partidario de Uztapide, me decía, en tono entre admirativo y despectivo, de Basarri: ‘Ori solfeo-ko gizona da (...) El viejo Mathías caía en el mismo perjuicio de Xenpelar (...)’”

Eta idazten duenak meritu guztiak aitortzen dizkio Basarriri, baina desagertzearen mundu horren nostalgia dario Uztapidez hitz egiterakoan, bertsolariaren irudi erromantiko orientalizatuaren magia beste behin:

“(...) El publico de hoy y los jóvenes bersolaris actuales saben leer, leen y leerán cada vez más (...) En Uztapide veo el esplendor, la llamada última de una Euskal-erria entrañable que se nos va por momentos. La cultura nos traerá una etapa nueva –puesto que al bersolarismo y al euskera les ha dado por no morirse- de poesía popular, de la que Basarri es el precursor”

Min egin zion artikuluak zarauztarrari. Batetik, egia zelako herriak Uztapide gehiago maite zuela. Honela aipatzen du Garziak: “El bertsolarismo de Basarri es más intelectual, por decirlo de algún modo. Responde, como bien a indicado Juan Mari Lekuona, a un proyecto bien definido. La admiración del aficionado medio, sin embargo, se dacanta más por Uztapide” (2000a: 441). Gordinago Perurenak: “(...) galdetu Basarri eta Uztapide ibili ziren herritan zein zuten maitena, eta baserritarrak beti Uztapide esanen dizute; nabaritzen baitzuten besteak zein hanketatik egiten zuen urgun” (Mazantini, 1991, 1. zbkia., ‘Basarri-ekin sahieska bertsolaritzari buruz’. Perurena, Patziku). Eta Uztapiderekin beti harreman oso ona izan bazuen ere, badirudi faboritismo honek une hartan zapuztu egin zuela³⁸⁷.

³⁸⁷ Perurena berak Basarriri eginiko elkarrizketan ere ateratzen da gaia: “Gai jartzen ere aritu omen zinen bolada batez. Nik aitak kontatua dakit, behin Zepairi jarri zenion puntea: ‘Zein da bertsolaik onena/gure probintzian?’. Eta Zepaik onela osatu omen zizun bertsoa: ‘Manuel Uztapide/ nere iritzian./ Ala juzkatzen dute/ Gipuzko guztian./ naiz Basarrik premia/ atera Fraintzian’.” (Mazantini, 1991, 1. zbkia., ‘Basarri-ekin buruz buru’. Perurena, Patziku). Eta bertsolariaren erantzunean argi gelditzen da Uztapiderekiko adiskidetasuna eta 1962ko zapuzaldiaren behin behinekotasuna: “Ba, ba,... lagunak ginan eta hor eztago... Bertsolaritzan, pilotaritan bezela da. Batzuri gai arintxeagoak gustatzen zaizkie; besteri sakanogoak; beste batzui berriz alkarren arteko pikia (...)”

Bestalde, jada azaldu den gisan Txirritari 1935eko txapela irabazi zionetik zekarren zarauztarrak sagardotegiko bertsolaria vs. gorbataduna dikotomia horren zama³⁸⁸. Hainbatetan somatuko zuen gizon jantzia izanik benetako bertsolaritzat har ote zitekeenaren zalantza. Eta lehertu egin zen:

“El amigo Ayalde puede comunicar al viejo Mathias y a todos los habitantes del Globo que ‘Basarri’, desgraciadamente, es un ignorante en solfeo y música (...) También andan equivocadísimos quienes me creen un hombre culto, un hombre de formación, un intelectual (...) Sepan todos los que me leen que ‘Basarri’ solamente pisó la escuela hasta los once años de edad (...)” (*La Voz de España*, 1963/I/06, 9 or., ‘En defensa propia’, Iñaki Eizmendi *Basarri*)

Deigarria suertatzen da oso bere burua defendatzeko eskolarik ez duela argudiatu beharra.

Bertsolaritza sagardotegitik eta taberna zulotik atera eta prestigiatzeko bere egitasmoa azaltzen du beste behin jarraian. Denak ez dituela konbentzitu aitortzeko:

“He podido comprobar que aún existen quienes opinan que el verso tiene que ser eso; que el bersolari ha de ser una especie de bufón, el hazmerreir de las gentes. Muy negro veo el horizonte de nuestro país si la tendencia de las gentes es favorable a este criterio.”

Eta nahikoa egin duelakoan txapelketak uzten dituela iragartzen du: “Caros lectores míos, ‘Basarri’ ha finalizado su obra. No se los años que me tendrá reservados el bondadoso Dios, pero he tomado la radical determinación de no participar nunca más en un certamen o en un campeonato de bersolaris”.

Lasak azaltzen duenez bi testu hauekin hasitako polemikak bazter guztiak harrotu zituen:

“(…) bi ‘bando’ sortu ziren Uztapide zein Basarriren aldekoak. Ika-mika planteatu zen eran egiazki bazeukan morbo punturik. Bi titularretan labur zitekeen: diszipuluak maisua garaitu du edo ezjakinak ikasia garaitu du (...) iskanbilla aski erradikalizatu zen eta bertsozale gehienak batera edo bestera lerrokatu ziren; apenas geratu zen taberna zuloetan, kalean, prentsan... iritzia eman ez zuen inor!” (2008: 879)

6.3.5.2 Arestirekin:poesiarekiko harremana eta sagardotegikoa vs.gorbataduna II

Gabriel Arestirekin izandako eztabaida ezagunena beste ardatz baten bueltan ematen da. Gabilondok azaltzen duen bezala (2009: 16-17), Arestik euskal poesia ahozkotasuneko tradizioarekin uztartu nahi izan zuen, ahozkotasuna kultura idatzia baino askoz ere errotuagoa zuen herriarekin konektatu nahian. Eta ildo horretatik bertsolariak herri-poetak zirela defendatzen zuen. Basarrik, aldiz, bertsolaritzarentzat marko propioa aldarrikatzen zuen, poesiarekiko autonomia, Garziaren tesiaren argitara (2000b) egokia zen planteamendutik.

Arestik hasten du sestra: “Artikulu labur honetan gauza bakar bat esan diezaioket Basarri, bertsolariak ere poetak direla (...) Nik eztut Basarri gorrotatzen, baina uste dut ‘emplio txar batetan dala metitu’ (*Zeruko Argia*, 1963/XI/17, ‘Basarri bertsolariari’, Gabriel Aresti).

Ez da badaezpadakoa bertsolariaren erantzuna ere:

“(…) poetarik onenak bertsolariak dirala ezteke esan iñolako moduz. Arrantzalerik onenak mineroak dirala esatea añakoa da ori.

³⁸⁸ Ik. 5.3.2.1 Sagardotegiko bertsolaria vs. gorbatadun bertsolaria

Gure artikuluak euskal literaturaren kaltean datozela idatzi dezu baitere. ¡Bejondeizula! ¡Zuk atera dituzu babak lapikotik! Betoz ugari ta ordu onean, euskal literaturaren onerako izango diran Gabriel Aresti'ren artikulu giartsuak. Gauden ixil eta mutu kaltea egiten ari geranok.” (*Zeruko Argia*, 1963/XI/24, ‘Gabriel Aresti jaunari’, Iñaki Eizmendi *Basarri*).

Egia esan, hemen jaso daitezkeen lau hitzak baino askoz ere gehiago dakar testu trukaketa honek. Gehiago eta interesgarria, eta gehienez errespetuzko tonu batekin adierazia. Baina egin nahi den planteamenduarentzat esanguratsuenak izan daitezkeenak bakarrik seinaltatu behar direnez, bi xehetasun Arestiren hurrengo erantzunean. Batetik, Basarriren ‘Nire bordatxotik’ famatuari erreferentzia eginez tituluari gehitzen dion ‘Nire oficinatik’ maleziatsua. Bestetik, eztabaidan Txirritaren figura txertatu izana:

“(…) nire iritzian, bertsolaria izateko, eskola orretakoa izan bear da (...) Basarri ere eskola orretakoa da, eta ez apurrena. Eztakit nik orain ze aize biurrik itzuli duen pauso oker orretara, baña Basarrik Txirritaren eskola ukatzen badu, bere burua ere ukatuko du.” (*Zeruko Argia*, 1963/XII/29, ‘Nire oficinatik: Basarri bertsolariari (jarraipena)’, Gabriel Aresti)

Urte batzuk beranduago argitaratu zuen artikulu batean helduko dio bete-betean poetak sagardotegiko bertsolaria vs. gorbataiduna dikotomiari. Basarriren proiektua kritikatzeko egingo du:

“Hasta la saciedad nos han repetido (quizá el que más fuerte y más veces nos lo ha repetido ha sido el ex campeón de bersolaris Ignacio Eizmendi, nuestro nunca suficientemente ponderado Basarri) que por fin los bersolaris salieron “sagardotegui-txulotik”, del agujero que es la sidrería, y se aventuraron en empresas más encomiásticas (...) lo peor de todo es que nos lo creímos; y que somos muy pocos los que nos hemos dado cuenta de aquel espejoso engaño.” (*Hierro*, 1966/VII/02, ‘La sidrería y el convento [O sobre cuál es la mejor escuela para un bersolari]’, Gabriel Aresti)

Hernandorena eta Basarriren arteko polemika bat³⁸⁹ baliatzen du bere iritzia plazaratzeko. Hernandorenak Iparraldeko bertsolaritzaren motelaldia aipatzen du, eragiletzaren krisia seinalatuz eta saioek jende gutxiago erakartzen dutela azpimarratuz. Basarrik ez du horrelakorik ikusten. Arestik beste ertz batetik heltzen dio gaiari:

“(…) los bersolaris van perdiendo su básico carácter, que no es, en contra de lo que tanta gente cree, la improvisación (...) sino que dicho básico carácter es su calidad de poetas sociales, de críticos de la sociedad, de denunciadores de vicios y corrupciones”

Kamustasun hau fenomeno prestigiatu nahian klase jasoei gustua emateko bilatu da bere ustez. Nolabaiteko klasismo bat legoke herriarekiko deskonexioaren oinarrian: “Ya no son pueblo, ya están más arriba. Ya quizá por eso (...) el pueblo empieza a aburrirse con ellos”.

Zentzu honetan adierazgarria iruditzen zaio Arestiri Markinako urteroko Bertsolarien Biltzarra konbentu batean burutzea:

³⁸⁹ *Zeruko Argia*, 1966/III/06, ‘Gauzak bere neurrian’, Iñaki Eizmendi *Basarri*; *Herria*, 1966/IV/07, ‘Pertsulariak aspergarri!’, Teodoro Hernandorena; *Zeruko Argia*, 1966/IV/10, 3 or., ‘¡Pertsulariak aspergarri...!’, Teodoro Hernandorena; *Herria*, 1966/IV/14, ‘Urrugna’ko bilkuraren ondotik. Pertsulari solas’, Teodoro Hernandorena; *Herria*, 1966/V/05, ‘Ez.Bertsulariak ez dira errudun... Bertsolari solas’, Teodoro Hernandorena; *Zeruko Argia*, 1966/V/08, 3 or., ‘Pertsulariak larri-aldian’, Teodoro Hernandorena; *Herria*, 1966/V/19, ‘Bertsulari solas’, Pierre Lafitte; *Zeruko Argia*, 1966/V/29, 6 or., ‘Gauzak bere neurrian II’, Iñaki Eizmendi *Basarri*; *La Voz de España*, 1966/V/31, 7 or., ‘Mi Atalaya Montañera’, Iñaki Eizmendi *Basarri*...

“Actualmente los bersolaris hacen su reunión anual en el convento de los Padres Carmelitas de Marquina. A semejante reunión no hubieran arrastrado a Txirrita ni atado (o a menos que le hubieran dado una buena soldata). Txirrita se hubiera quedado en la sidrería.”

Berak maiteago du sagardotegiko bertsolaria konbentuan batzartzen dena baino:

“Desde que los bersolaris se han acercado al convento por dejar la sidrería, no creo que haya bersolari que se dé cuenta de cuál es su misión, de por qué y para qué compone y canta. Se dedican a hacer reír o hacer llorar, olvidándose de que lo que tienen que hacer, es hacer temblar (...), los bersolaris viejos no me dejan elección, me tengo que quedar con ellos o quedarme sin nadie”³⁹⁰

Sagardotegiko bertsolaria vs gorbata duna dikotomia hau izango da Baserriren polemiken artean gehien errepikatuko dena eta gordinena.

Izatez, Uztapide ere gorbata jantzita ibili ohi zen, baina inork ez zion horregatik konturik eskatuko. Parisko 1958ko saioaren kronika honek argi uzten du etzekiela korapiloa egiten: “Uztapidek bazuen krabata. Edan eta berotu eran kenduko zuen gogotik, bainan ez du egin, ez zelakotz fida korapiloa errensituko zuela. Nola baitzuen korrapiloa arrunt kausitua, aitortu dauku emazteak zekola egina Españatik Frantziara buruz abiatzean” (*Herria*, 1958/V/29, 2 or., ‘Parisen, koblakariekin’, Jean Irigaray).

Baserriren figuran zentratzen diren kritikak bertsolaritzaren modernizazio prozesuari egindako kritikak dira finean. Desagertzearen mundu baten nostalgiak eragindako transformazioarekiko erresistentzia izango da kasu batzuetan. Edota, Arestiren kasuan bezala, transformazio horri eman zaion janzkeraren ingurukoak (sagardotegitik ateratzea, gorbata) beste batzuetan.

Itzal luzea izango du eztabaida honek, bere adiera ezberdinetan, hurrengo hamarkadetan ere. 2007an burutu zen azterketa soziologikoan ikus daiteke, esaterako, jarrera nostalgikoaren jarraitasunaren zantzu garrantzitsu bat: %29 konforme edo oso konforme azaltzen zen ‘lengo bertsolariek grazia gehiago zeukaten’ baieztapenarekin (Aierdi, Aldaz et al., 2007a: 69).

Basarri berari ere bi hamarkada luze beranduago Perurenaren kritika pairatzea tokatuko zaio. Honela, Arestik bezala prestigiatzea zurikeriarekin lotuko du, baina modu gordinagoan:

“(…) bertsolariak disimulo haundiz, baina, holako egia gordinak isilik gordetzearen alde jarri zituen kantari, eta nola ez ba: orduan jauntxoak oso kontentu, haien gizatasuna zurituko zuten bertsoak entzunez (...) Basarrik kaletar eskuxirien eta nekazari eskulatzen arteko zubia egin nahi izan du, beti ezinezko izan den zubi fantasma bat (...) gure bapateko bertsolaritza eredian izandu den bertsolaririk arrotzena eta desegokiena Basarri izandu da, inolako zalantzarik gabe; hain zuzen ere, bertsolaritzak inoiz berezkoak izan ez dituen zurikeria guziak beregandu baititu.” (Mazantini, 1991, 1. zbkia., ‘Basarri-rekin sahieska bertsolaritzari buruz’, Patziku Perurena)

Gordinago aritzeaz gain urrunago ere iristen da leitzarra: “Basarrik etzuen inorekin gaizki gelditu nahi, eta gaurko bertsolari ofizialak ere ez (...) Gutxi goitibehiti, haren eskolakoak baitira geroztikako guziak: denendako ahoa zuri, eta egi gordin gutxi”. Eta baita gehiago ere: “Bertsolaritza benetan arte miragarria izana da, baina, gaurregungo gizartean lekurik geratzen ez zaioneko artea, nahiz Txirrita, Xenpelar, Udarregi, Pello Errota, eta abar luze baten

³⁹⁰ Askok idatzi zuen prentsan Arestik bertsolaritzaz. Denak hemen sartu ezin zirenez eta gehienak interesgarriak zirenez eranskinetara eraman dira hainbat kontu. Ik. eranskinetan II.IV.I Gabriel Aresti

garaian kasik leku guzia berea izan. Beraz, ez da zertan agonia luzatzen ari beharrik” (*Korrok*, 1987, 9. zbkia, ‘Bapateko bertsolaritzak jada ez dit balio niri’, Patziku Perurena)

Planteamendu hauek oinarritzko arazo batekin egiten dute, ordea, topo. Hain zuzen ere Basarri sutu zuen Ayalderen testuan aipatzen zena: “La cultura nos traerá una etapa nueva –puesto que al bersolarismo y al euskera les ha dado por no morirse- de poesía popular (...)” (*El Diario Vasco*, 1963/I/05, 16 or., ‘Basarri y Uztapide’, Antonio Valverde *Ayalde*)

6.3.6 Eredu garatua irratian Loiolako Herri Irratiaren eskutik

6.3.6.1 Euskararen gutxikako bidea garaiko irratia uhinetan

1959an Eliza katolikoak, Estatuarekin akordioa sinatu ostean, COPE (Cadena de Ondas Populares Españolas) irratia-katea jarri zuen martxan Espainiako irratigintzaren garapenean parte hartzeko asmoz. Sare horren baitan herrialde bakoitzeko Gotzaindegien ekimenez abiaraziko ziren Iruñea (1959), Bilbo (1959) eta Donostia (1962) hiriburuetakoko Herri Irratiak. Baita Jesusen Lagundiak Alfaro izeneko emisora txiki baten jarraipen gisa Loiolako Santutegian sortu zuen Loiolako Herri Irratia ere (1961).

Irati Agirreazkuenagaren arabera (2017: 66-68) hiriburuetakoko Herri Irratien artean Iruñeakoa izan zen Gotzaindegiarekin loturarik estuena zuena eta euskarari tarterik gutxien eskaini ziona (Patxi Zabaletak 1967tik 1975era eskaini zuen euskara ikasteko programa baino ez). Bilbokoak ere oso lotura estua izan zuen eta euskarari programa bakarra eskaini zion (‘Irrintzi’, 1964-1966) 1973an FM-arekin lanean hastean kanal hau euskararentzat eta OMa gaztelerarentzat gordetzea erabaki zen arte. Donostiakoa, aldiz, hasiera batean euskara nahikoa modu sinbolikoan erabiltzen bazuen ere, batez ere 1971tik aurrera, Loiolako Herri Irratiarekin bat egitean eskaintza garrantzitsu bat osatzera iritsi zen. Izan ere lehen lau urteetan euskarari egin ahal izan zioten tokia mugatuagoa izan bazen ere Loiolako irratia izan zen, alde handiarekin, urte haietan uhinetara euskara gehien igorri zuen katea.

Elizaren bebespean zerbait lehenago sorturiko irratia parrokiak izango dira euskararen beste aliatuak alor honetan: Arrate Irratia, Segura Irratia, Tolosa Irratia, Arrasateko Irratia, Irurita Irratia, Arantzako Irratia eta Beruetekeko Irratia. 1964ean Frekuentzia edo maiztasun Modulatura aldatzeko aginduak guztien itxiera ekarriko du, baina 1970eko hamarraldian Arrate eta Segurak berriro martxan jartzea lortuko zuten. Oso oinarritzko programazioa eskaintzen zen berauetan, baina euskaraz.

Gainerakoan SER katearen barnean kokatzen ziren Radio San Sebastián, Radio Bilbao, Radio Requeté de Pamplona eta Radio Vitoria; Estatu Frankistak Mugimenduko hedabide gisa sorturiko La Voz de Guipúzcoa, Radio Juventud de Eibar, Radio Juventud de Bilbao, La Voz de Navarra eta La Voz de Alavak; eta RTVEren baitako Donostiako eta Bilboko Radio Nacional de Españak osatzen zuten Euskal Herriko irratigintzaren garaiko mapa. Emisora guzti hauek ale solteak baina ez dira topatu ahalko euskaraz. Batzuk garrantzitsuak izango dira, ordea, esatera, La Voz de Guipúzcoa, jada aipatu den gisan, 1957tik ostiral arratsaldero Basarri eta beste hainbat laguneren ahotik eskaintzen zuten ordubeteko saioa.

6.3.6.2 Iriondo, aurkezle eta eragile (1938-)

Goiz zaletu zuen bertsoak azpeitiarra: “Bertsolariak lehenengoz Aratzerrekan ikusi nituen, San Isidroan, zortzi-bederatzi urte nituela. Sakristiako bi balkoitan, Txapel eta Joxe Lizaso. Hango umeek hurrengo egunetan jolas hori egin genuen etxe batetik bestera, atetik atera. Handik aurrera beti izan dut bertsolaritzaren mirespen bete hori” (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

Basarriren irratsaio nahiz bertso-liburuek ere arrastoa utzi zioten:

“(...) Gabirian ikasle nerabe nintzela, irakasleen liburutegian Baserriren bertsoak topatu nituen Kulixkak ateratakoak. Bere entzutea banuen Ameriketara geneukan osaba baten bidez. Liburu guztia eskuz kopiatu eta buruz ikasi nuen. Oraindik ere gai nahiz bertso haietako batzuk buruz kantatzeko... Liburu hura deskubritu nuenetik Basarriren idatziak eta irratan egiten zuen lana oso-osorik jarraitzen nituen.” (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

Gabiriako pasiotarretan ikasle zela bertsoa jartzen irakatsi zioten: “Koldo Sarasola irakasleak erakutsi zidan silabak kontatuz bertsoak nola neurtu, bertso batzuk jartzen hasi nintzen, eta zuzendariaren urtebetetzea zala eta abar bertsoak eskatzen zizkidaten (...)” (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18). Eta Afrikako Sidi-Infinito soldaduska egiten ari zela dezente idatzi omen zituen: (...) soldaduskan nengoela *Txapelen* seme Migel zen *Olatz* aldizkariko zuzendari eta bertsoak eskatu zizkidan. Dozena erdi bat sail bidali nion. Edo Eguberrietan etxera idatzi nuen lehenengo karta ere, koplatan idatzi nuen. Gordeta daukat gutun hori. Koplak kaskarrak dira, baina oroitzapena polita” (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18).

Kazetaritzarako harra ere soldaduska egiten ari zela sartu zitzaion. Bertara joan aurretik Donostiako Aurrezki Munizipalean eta Banco Vizcayan oposizio bana egin eta bi plazak atera zituen, baina irratia ezagutzea tokatu zitzaion Afrikako egonaldi behartuan: “Afrikara soldaduska egiten ari nintzela Radio Juventud de Sidi Ifni ezagutu nuen kasualitatez. Denbora-pasa joaten nintzen bertara, ez lanera. Baina irratia txiki baten “barrunbea” orduan ikusi/ezagutu nuen lehenengo aldiz, eta enamoratu nintzen lehenaz gainera” (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18). Honela, andregaiak Loiolako Herri Irratia irekitzekotan zirela eta jende bila zebiltzala kontatu zion eskutitz batean, eta soldaduskatik bueltatu bezain pronto, 1961eko abuztuan, bankura lanean beharrean irratira jo zuen lan eske.

Jarraian azalduko den bezala bertsolaritzaren inguruko irratia emanaldien eredu garatu bat gauzatu zuen Iriondok Loiolako Herri Irratian. Ez zen hori izan, ordea, bertsolaritzari egin zion ekarpen bakarra. Gai jartzaile eta bertso-saioetako aurkezle gisa lan handia egin zuen, 1962an hasi eta batez ere hurrengo 20 urtetan, hainbatetan urtean 70 saiotik gora eginaz (Ubeda, Arozena eta Lasa, 2008: 18). Saio guzti hauek eta gehiago irratan emateko grabatu egiten zituen gainera, bertsolaritzaren hamarkada haietako artxiborik oparoenetako bat osatzera iritsi zelarik (Azkune, 2000: 68; Martinez Martinez, 2012: 63). Bestalde, antolaketan ere murgildu zen eta hurrengo zikloan Euskaltzaindiak antolaturiko 1980ko eta 1982ko txapelketetan eragiletzaren buru ibili zen, esaterako.

Ez dok Amairuren sorreran ere hartu zuen parte. Irratian euskal kantari berriei eskaintzen zien tarteari erreparatu eta bere lehengusua Lourdes Iriondoren bidez deitu zuten taldearen lehen bilerara eta aurrerantzean lan handia egingo zuen taldearen kontzertuak antolatu nahiz aurkezten eta oro har euskal kantagintza berriaren hedabideratzean. Bestalde, trikitixari ere bultzada garrantzitsua eman zion, irratan jarriaz, edota txapelketak antolatu eta aurkeztuz. Honezkerok beste hainbat eragiletan ikusi ahal izan den lanerako eta saltsa guztietan sartzeko gaitasuna suma daiteke, bada, azpeitiarrarengan: “Jose Mari Iriondok Urola aldean entzun nuen esaera hura gogorarazten dit: lapiko guztietako buruntzalia” (Atxaga, 2008: 36).

Irratian eredu garatu bat ekartzen lehena ez ezik, telebistan lehen pauso batzuk ematen ere aitzindari izango zen, 1975etik 1981ra Herri Irratiko lanarekin batean RTVEren Telenorte programan bertsolaritzaren berri eman eta bertso-munduko jendea eramane baitzuen. Gerora, 1983ean EITBrako plaza bat oposizio bidez atera eta ibilbide oso garrantzitsua burutu zuen

bertan: 1983-1985 bitartean Euskal Telebistako informatiboetako arduradun eta kiroletako zuzendari; 1985-1987 bitartean ETBko zuzendari eta programazio buru; eta 1987tik 1996ra Radio Euskadi, Radio Vitoria eta Euskadi Irratiko zuzendari eta koordinatzaile (Ubeda, Arozena eta Lasa, 2008: 28-29).

6.3.6.3 Bertsolaritza *prime time*an eta txapelketen zuzeneko emanaldiak

Loiolako Herri Irratia martxan jarri eta hilabete gutxira sartu zen Iriondo lanera. Hasieran kontabilitatea eramaten eta fonoteka ordenatzen jarri zuten. Logroñoko aita Verdu jesuita kazetaria jarri zuten lehen zuzendari eta honek inguruetako gazte euskaldunak hautatu zituen kolaboratzaile: “(...) idatzirik egon ez arren badirudi hasieratik irrati elebiduna (gaztelania-euskara) sortzeko ahalegina zegoela” (Agirreazkuenaga, 2017: 73). 1962an Juan Lekuona jesuita tolosarra zuzendari berri izendatzean, areagotu egin zen euskararekiko atxekimendu hori: “(...) Lekuona zuzendari izendatua denetik (...) euskaldun izatea eta euskaldun nortasunari eustea. Horixe bultzatzen saiatuko dira bertako langileak (...)” (id.: 74). Eta Iriondori ere berehala sortu zitzaion bere aukera:

“Larunbat arratsaldetan (hori bai benetako prime time-a, izan ere, telebista gutxi zegoen garai hartan eta, gainera, telebistan kate bakarra) ‘Beti Jai’ izeneko saioa ematen zen gazteleraz. “Aita Lekuonak esan zidan ea ausartuko nintzen programa hura euskaraz egiten eta nik, bi aldiz pentsatu gabe, baietz erantzun nion, noski” (Martinez Martinez, 2012: 65-66)

Euskal kanta berriak ematen zituzten astero, baita irrati-antzerkia ere Iriondok idatzi eta irrati langileek antzetzua eta abar: “Beste irratsaio asko ere egin nuen, baina “Beti Jai”ren arrastoa gelditu da, bereziki (...) 1962ko azaroan hasi nintzen eta 1983ko martxoaren 30ean Loiolatik despetu nintzen arte, astero-astero egin genuen (...)” (Iriondo, 2007). Bertsolaritzak ere atal finkoa zuen magazinean. Inazio Zubizarretak kantatzen zituen bertso zaharrekin hasi ziren, baina bertsolariei deika hasi zen berehala:

“Txapel zen ezagutzen nuen bertsolari bakarra eta haren bidez egin nituen lehen kontaktuak. Lehen bileratik hiru-lau egunera prest agertu zitzaidan bera kantatzeko, ‘Jarri alcahuetea martxan’ esan zidan, eta zazpi bertso kantatu zizkidan Gernikako arbola gai hartuta. Irratiz eman eta, badaezpada ere, zinta etxera eraman nuen. Denuntzia izan zen, baina zintarik ez zutenez topatu, libre” (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

Txapelaren bidez Azpeitiako Joxe Agirre, Joxe Lizaso edo Imanol Lazkano etorri ziren hurrena, eta haien atzetik beste mordo bat, astero gaia aurretik emandako sei zazpi bertso, aurrez grabatuak, eskainiko zirelarik. Tarte honi bestelako aldaerak txertatu zizkioten dena den, entzuleek proposaturiko gaiekin arituaz adibidez. Eta gai batek arrakasta zuela ikusiaz gero, trama luzatu eta korapilatuaz: “Entzuleek proposatzen zituzten bertsolariei jarri beharreko gaiak (Martinez Martinez, 2012: 66).

Esan bezala, Iriondo gai-jartzaile eta aurkezle ere ibiltzen zenean saioak grabatzeko aprobetxatzen zuen, eta grabaturiko saio horietako bertsoaldi hautatuak ere emititzen zituzten, ‘Beti-jai’-en edo Herri Irratiko beste hainbat programatan³⁹¹. Eta baita saio haien bueltan zarauztarrak bertsolariei egiten zizkien elkarrizketak ere:

“Elkarrizketak ia beti kanpoan, beren giroan. Asko. Urte batean Areatzako bertso-eskolakoekin Enbeita aita eta hiru seme, Lopategi, Ireneo Ajuria, Sardui

³⁹¹ ‘Saski-Naski’ programan ere, igande eguerdian, grabaturiko bertso hautatuak askotan emititzen zituzten (Iriondo, 2007)

anaiak... Grundig handia hanka artean hartu eta haraino joan nintzen ire Vespan 'Beti-jai'-rako bertsoak jasotzera; baina argia joan eta esku hutsik etorri nintzen etxera. Enbeita eta Lopategiri elkarrizketa bana grabatuta etorri nintzen, ordea." (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

Txapelketen jarraipena ere egiten zuten eta bertako hainbat saio zuzenean eman: 1962ko finala eta 1965eko nahiz 1967ko finalaurrekoak eta finala. Emanaldi hauek arrakasta handia izan ohi zutela gogoratzen du: "Bertso-gose handia zegoen gure entzuleen artean, eta egarri horri erantzuten saiatu ginen beti" (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18). Baita 1967ko txapelketan Xalbadorri jo zitzaizkion txistuak zirela eta gelditu zitzaion arantza ere:

"Hamar urte Xalbadorren itzalean' liburuan kontatzen dut, pena daukadala ez nintzelako ausartu Xalbador elkarrizketatzen. Ez nintzen kazetari bezala portatu egoera hartan. Hain egoera psikodelikoa zen hura, ikaragarri sufritu nuen... ez nekien txistuak disimulatu... Erabaki nuen komentarioekin ateratzea, 'ikaragarri gogorra da hau'... pena ez nintzela ausartu elkarrizketatzera (...)" (J.M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

Zentsurarekin izandako gora beherak ere ondo gogoan dauzka:

"1962koan baimena eskatu genion, zuzendariak esanda, Euskaltzaindiari. Inazio Maria Etxaide zan buru, integrista bat, Aste Santuan etxeko oilategian oiloak eta oilarrak aparte jartzen zituen, eta jokoz kanpo harrapatu genituen; ez zekiten zer erantzun. Ordurako justu ezagututa nengoen Antonio Zavala, banekien Arrue, Asteasu Beltza, ezagutzen zuela, eta harekin hitz egin ondoren baietz erantzun zidaten. Erregimeneko gizona zen Arrue baina sui generis samarra, karlista foruzalea zelako. Euskara eta bertsolaritza maite zituen eta oso hiztun ona zen... Información y Turismotik gai guztien zerrenda behar zutela etorri zitzaigun, ordea, hurrena. Jakina gairik ez geneukan, txapelketa Euskaltzaindiak antolatzen zuen... Berriro ere Arruek lortu zuen traba hori gainditzea" (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

Eta kompetenziarekin³⁹² ere izan zuten liskarren bat:

"1965ekoa lotsagarria izan zen. Donostiko Radio Popularrak Hernaniko Aitor Zineman egin zen saiora Luis Mari Bereziartua euskalduna eta Onofre Gomez Nisa izeneko galego bat, frankista totala, bidali zituen eta geuk hartuta geneukan tokian jarri nahi izan zuten. Bertsoen ondoren erderazko komentarioak egiten zituzten..." (Iriondo, 2007)

Finean, ordea, bertsolaritza irratiz emateko eredu garatu bat gauzatzea lortu zuten: zuzeneko emanaldiekin, grabaturiko saioetako bertso hautatuakin, estudioan bertan sorturiko bertsoaldiekin, informazioa nahiz elkarrizketak eskainiaz eta entzuleekin feedbacka landuz.

³⁹² Arrate eta Segura aipatzen ditu Iriondok garai hartan bertsolaritzaz ardura bat erakusten zuten beste bi medio gisa: "Inoiz edo behin Segurak edo Arratek bertsoak ematen zituzten. Horretarako jende finkorik gabe, ordea. Bizpahiru laguneko enpresak ziren eta gu hamazortzi ginen" (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18). Ez du gogoratzen La Voz de Guipúzcoa Basarriren zutabeaz aparte beste ezer eskaini izan zuenik, baina 1962ko finalari buruz behintzat bestelako informatzaile bat izan zuela irakur daiteke garaiko prentsan: "Así ocurrió en el torneo último en diversos pasajes a desarrollar el tema final 'Ama' [tema que, sorprendentemente dejó de citar el locutor 'Egui aundi' al comentar la fase final del campeonato. 'La Voz de Guipúzcoa, 31-12-82]" (*El Diario Vasco*, 1963/I/05, 16 or., 'Basarri y Uztapide, Antonio Valverde *Ayalde*). Gerora Pedro Mari Goikoetxeak Bilboko Herri irratian gaia landu zuela gaineratzen du eta saioen grabaketen elkartrakerako tratua egin zutela. Beste irratikateek ezer egin zutenik ez du gogoratzen.

6.3.6.4 Bertsolari gazteen sariketa

1962tik 1972ra, Gobernuaren aginduz irratia itxiarazi zuten 1966 eta Gipuzkoa Salbuespen Egoeran aurkitzen zen 1971 urteetako salbuespenaz³⁹³, urtero irratiz burutzen zen bertsolari gazteen txapelketa bat antolatu zuen Loiolako Herri Irratiak. Azkunek azaltzen duenez, arrakasta handia izan zuen txapelketa honek, eta bitarte horretan bertsolari gazteek izan zuten erakusleho bakarra izan zen kasik: “(...) izugarrizko arrakasta izan zuen eta 10en bat urtezedo Loiola Irratia izan zen Gazteen Txapelketa leku ia bakarra. 72 urteaz gero hasi baitziren Zepai, Lizardi, Xenpelar, Artxanberri eta Patxi Errota, Orixe.... gazteen sariketak” (2000: 68). Agirrezkuenagak (2017: 83-84), Dorronsoro eta Lekuonak (1987: 19), Martinezek (2012: 66-67) eta Ubeda, Arozena eta Lasak ere (2008: 20) azpimarratzen dute irradi bidezko sariketa hauen arrakasta eta garrantzia.

Irratian antzeko ideia batekin bueltaka zebiltzan Joxe Agirre *Alkiza* apezaren eskutitza iritsi zitzaizanean: bertsolari gazteekin astero jokatu zen liga moduko bat egin nahi zuen irratiz, asteroko irabazlea entzuleek eskutitz bidez igorritako bozkekin erabakiko litzatekeelarik. *Oena* pentsuen babesletza zekarren honek, *Biona* pentsuena ere lotuta zuten eurek eta *Fagorrek*in parte hartuko zuten entzuleentzako saria lotuta sei bertsolariarekin astero buruzburukoa antolatzeari ekin zioten.

Apirilaren lehen burutu zen lehen saioa, Txomin Garmendia eta Koxme Lizasoren artekoa. Astelehenera bat eskutitz iritsiko ote ziren esperantza zeukaten egina irratian, eta ia 1000 iritsi zitzaizkien lehen aste hartan: “Lekuonak [zuzendaria] zioen ‘pero estos chavales tienen tanta capacidad de convocatoria?’ ‘Pues, ya ve’. Harrituta geu ere. Mundu bat ireki zitzaigun” (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18). Beste bost saio egin zituzten ligaren baitan, maiatzaren 6ra bitartean, egunero jendearen parte hartzea eskatzen zuten iragarki laburrak aireratuaz, larunbatero aurreko asteko emaitza argituaz, eta 10.000 eskutitz iritsi zitzaizkien guztira, asko eta asko euren bozka bertsotan ematen zutenak. Lehen saioa irratiko estudioan egin zuten, zuzenean, baina publikorik gabe aritzea bertsolarientzat hotzegia suertatzen zenez hurrengoak Loiolatxo soziedadean egitea erabaki zen: “Loiolatxoko soziedadean bazegoen tablatu bat. Bete-bete egiten zan eta han grabatzen genuen igandero 11etatik 12etara, gero irratian 13etatik 14etara emateko” (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18). Finala maiatzaren 20an egin zuten Azpeitiko Zelaitxo antzokian. Sei bertsolariak hartu zuten parte baina epaimahaiak ligako saioetan bozka gehien lortu zuten bien artean erabaki behar izan zuen garailea:

“(...) Txomin Garmendia berrobitarra izan zen garaile; eta bigarren, Patxi Etxeberria Lasarten bizi zen oriotarra. Jauregi miarrak (Zarautz) bigarren sariari uko egin behar izan zion, zegokiona baino astebete lehenago Orioko taberna batean 300 boto bildu baitzituzten bere alde, eta guk horren berri jakin” (Iriondo, 2000: 3)

Hurrengo urteetan eskema berarekin egin zuten lan, parte hartzeko aukera bertsolari gazteei ez ezik lehen lerroan ez zebiltzanei ere irekiz, zenbait urtetan liga seirekin beharrean zortzi bertsolariarekin osatuaz edota Zelaitxo soziedadetik Joxe Lizasoren tabernara aldatuaz eta

³⁹³ 1965eko uztailaren 22an itxi zen, 1966ko uztailaren 31 arte, Estatu Espainiarreko irratigintzaren eremua ordenatzera zetorren 1875/1965 dekretuaren aplikazioz. Dekretu honek Uhin Ertainean (OM) emititzen zuten irradi-kate guztiak Maiztasun Modulatuan (FM) ere emititzera behartzen zituen. Inbertsio handia suposatzen zuen honek eta horretarako behar zen dirua bildu bitartean egon zen itxirik Loiolakoa. Emisora guztiak ez zitzairen berdin aplikatu, ordea: “Tolosa, Beruete, Arantza, Arrate, Segura eta Loiolako irratiak mututuak izan ziren (euskaradunak denak); aldiz Donostiako, Bilboko eta Iruñeko Herri Irratiek esaterako OMn edo Uhin Ertainean emititzen jarraitu zuten lasai asko, FMrako aldaketa 1970. hamarkada bueltan egingo zutelarik” (Agirrezkuenaga, 2017: 89).

finalen bat Azkoitiako pilotalekuan eginaz. Guztietan Irigoien aritu zen antolatzaile, gai-jartzaile eta aurkezle, eta final batzuetan bestelako ikuskizunak ere eskaini ziren osagarri bezala: 1963an Loiolako Herri Irratiko ‘Coro de Camara’ abeslari taldea; 1964ean Garaiondo eta Azpiaturen dantza suelta; 1965ean Sakabi eta Egañazpi trikitalariak eta Lourdes Iriondo abeslaria; 1970ean berriro ere Sakabi eta Egañazpi eta hauez gain Legazpiko Zaigor taldea; eta 1972an ‘Euskal Gaztedi’ dantzari txikien taldea eta Benito Lertxundiren kantaldia (Iriondo, 2000: 5-8)³⁹⁴.

Ikuskizun konpletoa izaten zen bada finala, txapelketak berak ere oihartzun handia izaten zuen, prentsaraino iristen zena, eta bertsolari mordoa ezagutarazi eta promozionatzeko balio izan zuen³⁹⁵.

6.3.6.5 Irratiaren ekarpenak eta eraginak

Agirreazkuenagak Loiolako Herri Irratiak urte haietan egin zuen ekarpena azaltzen du, euskarari euskal komunitatearen nortasunaren ikur gisa esfera publikoan eman zion ikusgarritasuna azpimarratuz: “Using the Basque language on the radio gave the language a public status and its impact was much greater than when used in print media. Speaking in Basque language over the radio was a political act and a commitment” (2012: 506). Eta hurrengo zikloan gorputzuko zen euskal irrati publikoaren enbrioi gisa funtzionatu zuela ere seinalatzen du, euskarazko kazetaritzaren lehen eskola bat izan zela:

“Indeed, once the Basque Parliament was settled in 1980, meetings were held with the Minister of Culture to discuss the feasibility of media broadcasting exclusively in the Basque language (...) Apparently, the creation of a Basque-language radio station was seen as the more viable option due to the pool of professionals trained at the Popular Radio stations as well as the Basque-speaking audience that those radio stations had been able to attract (...) PRL can be considered the equivalent of the first Basque-language school of journalism.” (id.: 505)

Loiolako irratiaren euskarazko eskaintzaren elementu garrantzitsuenetariko bat bertsolaritzari buruzko emisioak izan ziren. Berriro ere hizkuntza eta nortasuna lotzen dituen korapiloaren erdian bertsolaritzarekin egingo dugu topo elementu nabarmendu gisa.

Bestalde, aurreko zikloan Zubimendi, Luzear eta Basarrik lehen pauso batzuk eman zituzten arren, eta frankismopeko diktadura honetan Basarrik jarraipena eman bazien ere, Iriondoren emanaldiekin deskubrituko du irratiak bertsolaritza eta bertsolaritzak irratia.

Ez da badaezpadako deskubrimendua gainera. Alorra formatu ezberdinetan landu izan duen Garziaren iritzi irratia da fenomenoari modu naturalenean egokitzen zaiona: “Prentsa idatzia ez bezala, irratia guztiz egokia dugu bat-batekotasuna jaso ahal izateko. Bera dugu hedabideetan espon taneoena, bat-batekotasunaren mirari txiki hori bereganatzeko aproposena” (1993: 87-88). Eta espresuki azpimarratzen du Herri Irratiek egin zuten lanaren garrantzia: “Hasi ere, irratia azkar asko hasi zen bertso-kontuetan. Gipuzkoa eta Bizkaiko

³⁹⁴ Saio guzti haietatik grabazio bakarra dauka: “Grabazioa ere bakarra eta bera erdizka gordetzen da egin ziren sariketa guztietatik. 1972an Azkoitiko pilotalekuan egindako jaialdiaren zati bat da, besterik ez. Zinta hutsaren balioari gehiago begiratzen zitzaion izan ere garai hartan. Pena da besterik ez gorde izana” (Iriondo, 2000: 4).

³⁹⁵ Gaiari buruzko argitaratu gabeko dokumentua helarazi digu Iriondok ikerketarako egin zaion elkarrizketan. Bertan hainbat xehetasun eskaintzen dira, tartean txapelketaren ekitaldi ezberdinetan parte hartu zuten berrogei bat bertsolari ezberdinen izenak. Irabazleen zerrenda ere badakar: 1962an Txomin Garmendia irabazle eta Patxi Etxeberria bigarren, 1963an Jon Azpillaga irabazle eta Jesus Lafuente Basakarte bigarren, 1964ean Jon Mugartegi irabazle, 1965ean Patxi Etxeberria, 1967an Jose Luis Gorrotxategi, 1968an Iñaki Azarola, 1969 Jose Luis Gorrotxategi berriro ere, 1970ean Jose Agirre Oranda eta 1972an Anjel Larrañaga (Iriondo, 2000: 5)

Herri Irratietako jarduna aipatu eta goraiatu behar, zalantzarik gabe, horri dagokionean. Guztien errebasoa interesgarria litzateke. Ziklo honetan bertsolaritzaren inguruan ematen den” (id.: 88).

Medio berriak, teknologia berria zekarren, eta bitartekoak sorkuntza bera baldintzatu ohi duenez, berrikuntza honek hainbat eragin izan zituen bertsogintzan. Dorronsoro eta Lekuonak, adibidez, mikroaren eraginari erreparatzen diote:

“Mikrofonoa ere jadanik sartu da, bertsogintza asko aldatu duen bitartekoa (...) Esan izan da, bestela eztarria behar bait zen, Lazkao Txiki bat, adibidez, mikrofono gabe ez zela egingo egin den bertsolaria (...) Eta agian mikroak izango ditu beste alderdi batzuk: ez ditugu aztertu, baina ahots handian kantatu beharrean, xuabe egin ahal izanez, agian inprobisazioan bertan badu zerikusirik, lirika egiteko ahalbideren batzuk beharbada ematen ditu (...)” (1987: 17)

Baita Egaña, Garzia eta Sarasuak ere:

“(...) XX. mendearen erdi aldea arte bertsolariak nahitaez behar zuen ahots sendo indartsua edozein plazatan aritu nahi bazuen. Gerora, bozgorailuen iritsierarekin, baldintza horri leundu egin zitzaion ezinbestekotasuna. Egun, ahots indartsu edo ahots ona baino garrantzia handiagoa du une bakoitzean, leku bakoitzean eta eduki jakin bakoitza adierazteko kantaera egokia erabiltzen asmatzek.” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 82)

Abesturikoa grabatu, audioa gorde eta gero nahierara zabaltzeko aukera ere berria izango da. Eta honek ere eragina izango du bertsogintzan: “(...) bertsolariak kezka berria zuten, leku batean kantatuak ez baitzien beste leku batean balioko” (Azkune, 2000: 68). Irudimena eta errimategia gehiago estutu beharko dute bada aurrerantzean, baita doinutegia ere, Dorronsorok azaltzen duen bezala: “35eko txapelketan bi edo hiru doinutan dago dena, ez dago besterik (...) 67ko txapelketako azken saioan 20 doinu ezberdin erabili zituzten” (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 19-20).

Irratiak bertsolaritza eta bertsozaletasuna bizitzeko bide berri bat emango du. Aurrez aurreko bide tradizionalaz gain irratiaren aukera mediatua eskaintzen da. Honek, noski, bertsolaritzaren hedapenari mesede egingo dio: “Bertso-saioak IRRATIZ ematen dira eta bertso-tradiziorik ez duten herrietan ere, Arrasaten edo Eibarren, bertsozaleak sortzen dira horrela” (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 19). Garziak azaltzen duen moduan bertsolaritzaren hedatzepeenerako nahikoa modu naturala suertatuko da irrati-uhinen bidezkoa. Egañak gaineratzen du bertsozaletzeko edota bertsolaria entzuleekin komunikatzeko ere xarma handia izango duela medio honek:

“Aitortu beharrekoa da irratiek bertsolaritzaren hedapenean izan duten eragina. Sukaldeko irrati zaharraren bitartez izan nituen nik ere bertsolaritzaren lehen zantzuak. Duela berrogei urteko saio eta txapelketetan ohikoa zen lehen edo azken agurrean, aurrez aurreko entzuleei diosala egiteaz gain, irrati-entzuleei ere egitea. Gaur ez zaigu burutik pasa ere egiten telebista ikus-entzuleak agurtzea. Seguraski, orduan, irratiak bazuelako sutondoraino ahotsa eramateko majia-kutsu hori, gaur telebistak galdu duena.” (Egaña, 2004: 165)

6.3.7 Lehen ikusentzunezkoak

Irratiaren eredu garatuaz ez ezik ikus-entzunezkoetan emandako lehen pauso batzuk ekarriko ditu ziklo honen gailurra. Parisen 1958an Hernandorenak berak antolaturiko saioaren inguruan Frantziako Tele-Paris eta Alemaniako telebista publikoak eskainiriko emanaldiak aipatu dira dagoeneko. Jarraian topatu ahal izan diren beste ale batzuk eta euren inguruko azalpenak.

6.3.7.1 Madréren ‘Gure Sor Lekua’ (1956)

Josu Martinezek bere tesia lan honi eskaini dio, audiorik topatu ahal izan ez badu ere, gidoiari erreparatuz euskarazko lehen filmatzat hartuz. Eta berriro ere Hernandorenarekin egingo dugu topo hemen, filmaren sorburua Hernandorenak Parisen emaniko hitzaldi bat baita antza³⁹⁶. Filmaren zuzendariak Madrék 1956an *Gure Herria* aldizkarian argitaraturiko testua dakar Martinezek (2015: 260-261). 1952an Pariseko Euskararen Egunean Hernandorenari entzun zion hitzaldia azpimarratzen da bertan³⁹⁷. Diasporari zuzenduriko filma ei da: “1952ko Euskararen Egunean hartuko du lanari lotzeko erabakia, urrun dauden euskaldunei Euskal Herria iruditan oparitzeko helburu bakarrarekin; idealismo hutsez” (Martinez, 2015: 261).

André Madré Hazparnen jaioa zen, Belokeko seminarioan ikasitakoa, frantziar armadan abiadore bezala karrera egin ondoren lehenengo koronel eta gero Frantziako Aire Armadaren Buruzagi izatera iritsiko dena Afrikan, deskolonizazio prozesu guztia lehen lerroan biziko duena. Aberri handi-aberri txiki eskemarekin funtzionatzen du, frantsesa eta euskalduna sentituz, Iparraldeko euskal komunitatean nagusitu zen identitate formulari jarraituz: “Dударik gabe eskola zaharreko pertsonaia da: burges plantakoa, frantses eredugarria, euskaldun zintzoa eta fededun handia. Alta, paradoxikoki bera izango da, ziklo berriari dagokion tren bat (zinema) lehen aldiz euskarara ekarriko duena” (Martinez, 2015: 259).

Filmak garai hartan Euskal Herriari buruz egin ziren beste hainbaten modura euskal bizimoduaren irudi bukoliko bat eskaintzen du. Honela, euskaldun fededun baserri baten bizitzaren aldi ezberdinen kontaketa da filmaren ardatza: haurtzarora, gaztarora, helduarora eta zahartzarora, aldi bakoitzari lotzen zaizkion pausoei dagozkien irudiekin (haurtzaroko jolasak, gaztetako maitemintzea, helduaroko baserriko lanak...) eta euskal geografiari nahiz euskal giroko bizimodu tradizionalari (pilota, mus txapelketa, festak eta abar) dagozkienekin osatua.

‘Bertsolariak’ deritzon sekuentzia filmaren bukaera aldera dago jasota, zehazki 1:14:38tik aurrera, eta pare bat minutu irauten du. Honela deskribatzen du Martinezek:

³⁹⁶ ‘Euzkadi’ filmaren zuzendariak, maila horretako proiektu batean berriro murgiltzera iritsi ez bazen ere, zinemazale amorratua izaten jarraitzen zuen. Aktore lanetan hastekotan ere ibili zen Aristorenak (1992: 8) eta Iriondok berak (2004: 19-20) kontaktatzen dutenez. 50eko hamarkadako lehen urteetan Robert Breson zuzendariak Loiolako San Ignaziori buruzko film bat egiteko castingerako deitu zuen: “Hazparne, Maule, Baiona, Donibane Garazi eta barrualdeko beste herri askotan zehar Loiolakoaren antza zuenik aurkitzen ez eta «Teodoro, San Ignazioren papera egiteko ez dut ikusten zeu baino egokiagorik», esan zion Bressonek Hernandorenari. Halaxe, Parisera joan, eta Billancourt estudiantara eraman zuten, gau batez, hitz egin, bere keinu eta jestoak aztertu eta hiru ordu luzeko kasting- proba egiteko.” (Iriondo, 2004: 19). Breson eta Graham Greene gidoilariaren arteko liskarreatatik bertan behera gelditu omen zen proiektua, Hernandorenaren disgusturako: “Bere bizimodua goitik behera alda zezakeen aukera eskuetara zetorkiola ikusten zuen zizurkildarrak” (Iriondo, 2004: 19-20)

³⁹⁷ Honela dio artikuluan: “En sortant de la réunion de l’Euskararen Eguna, ma décision était prise: j’allais essayer le film basque réclamé par le Docteur Hernandorena” (Martinez, 2015: 260). Iriondok ere lotura bera seinatzen du, bestalde: “1953ko urte hondarretan, Parisen egin zen urteko Euskararen Eguna bileran, hitzaldi beroa egin zuen Hernandorena jaunak. Eta harekin erabat txundituta gelditu zen M. André jauna, eta Sort Lekua filma egiteko erabakia hartu zuela jakinarazi zien antolatzaileei, hantxe bertan. Eta hizlari harekin hitz egin nahi zuela bere asmoaren berri emateko.” (2004: 20)

“Hazparneko patronajean, zenbait gizon, gazte eta zahar; bazkaloste goxoan. Marcel Recalde eta Domingo Eiherabide apezka bereiz daitezke, besteak beste.

Bertsotan edo kantuz, Manex Otxobi hazpandarra ari da. Otxobi ez da kantari ez eta bertsolari bereziki famatua. Haren semeek ere gutxitan entzungo omen dute kantuan. Hala ere, grabatzerako orduan hori ez zen oztopo bat; irudia bakarrik hartzen baitzuen kamarak. Soinua, esana dugun bezala, muntaia denboran gehitu zitzaion filmari” (Martinez, 2015: 313)

Ez dago, bada, ziur esaterik Otxobi kantuan edo bertsotan ari den. Martinezen lanak dakartzan fotogrametan zutik ageri da mahaian dauden gainerakoak begira dauzkan bitartean. Bertsoa balitz, bertsolaritzak ikus-entzunezkoetan egindako bigarren sartu irtena litzateke, Hernandorenaren ‘Euzkadi’ (1933) filmaren ondotik, ‘Gure Sor Lekua’ 1956koa baita, Hernandorenak Parisen antolaturiko saioak telebista bidez izan zuen emanaldia baino bi urte lehenagokoa. Bertsotan ari denaren hipotesia ontzat hartuaz, badirudi Martinezek hala egiten duela sekuentzia horri ‘Bertsolariak’ izena jarriaz, euskarazko lehen filmean ere bertsolariak agertu zirela baieztatu liteke, era berean.

6.3.7.2 Gotzon Elortzaren ‘Aberria’ (1961)

Gotzon Elortza (1922-2012) bilbotarrak erbestera jo behar izan zuen tropa frankistek Bilbo hartzean eta Parisen finkatu zen bizimodua delineante gisa lan eginaz atera zuelarik. Bertako euskal komunitatean txertaturik bizi zelarik, euskal kulturaren egoeraren kezka eraman zuen ikus-entzunezkoekin probatzera:

“Euskal Herritik urrun bizi izanagatik, Pariseko euskal giroan presentzia aktiboa zeukan Elortzak. Gernika taldean txistulari ibiltzen zen, hainbat ekitalditan argazkilaria amateur. Le Monde egunkarian hizkuntza minorizatuei buruzko artikulu bat irakurrita sortu zitzaion euskarazko filmak egiteko ideia.

‘Zera irakurri neban: “ikus-entzunen munduan sartzen ez dan edozein hizkuntza minorizatu, hizkuntza hila izango da epe motxean”. Inpresionatuta gelditu nintzan horregaz, eta argazkigintza nozio batzuk baneukazenez, beste inork egiten ez baeban, euskal zinea neuk egin behar nebala erabagi neban”’ (Martinez, 2016: 180-181)

Emaztearekin oporretan Euskal Herrira jaitsi eta 16 milimetroko kamerarekin erdi ezkutuan grabaturiko irudiak baliatuz ‘Ereagatik Matxixakora’ (1960), ‘Aberria’ (1961), eta ‘Elburua Gernika’ (1962) film dokumental laburrak osatu zituen oso modu amateurren³⁹⁸. Bestelako jite bat zuen ‘Avignon’ (1964) dokumentala ere burutu zuen Elortzak³⁹⁹.

Bertsolariak ‘Aberria’-n ageri dira. Bere garaian ‘Herria’ izenarekin aurkeztu behar izan zuen zentsura ekiditeko baina aberriaren irudikapen bat dakar filmak. Honela, *offeko* ahots baten bitartez zuzendariarentzat aberria zer den definitzen da filmaren hasieran:

“Aberria zer dan inok ezin deike esan, ze bakotxak daroa bere aberria bihotz barrenian. Niretzako aberria hasten da aittite ta amamaren ondoan, neure

³⁹⁸ Euskal Filmotekak 2011n zaharberri eta Sarean ikusgai jarrita dauzka:

<http://www.filmotecavasca.com/eu/fondos-colecciones/gotzon-elortza> [2019/II/15]

³⁹⁹ Martinezek azaltzen du euskal paisaiak Avignongoengatik aldatzearekin Elortzak bilatzen zuena: “(...) ‘Avignon’-ekin euskarak edozein gairi buruz mintzatzeko balio zuela demostratu zuen Elortzak, baita frantses hiri baten bisita turistikoa bezalako gai bati buruz ere. Eta gaur egun begi bistakoa dirudien arren, orduan afera ez zegoen horren argi. Euskara tradizioetat mintzatzeko erreserbatzen zen hizkuntza “maitagarria” zen, baina beste edozertaz mintzatzeko, ez zen baitezpada aproposa ez eta baliagarria. Film honekin, zineman edozein gairi buruz mintzatzeko gai zen hizkuntza bihurtu zuen Elortzak euskara.” (2016: 182)

lehenengo hitzekin, geure hizkuntzan. Euskaraz. Txistuaren hotsa mendibarretan, aurrekulariaren oinkadak geure zelaietan eta bertsolariaren goi argia baserriko zuhaitzartetan. (...)”.

Hamabost minutuko iraupena du guztira lanak eta Euskara, Dantza eta Bertsoa jorratzen ditu, bada, hiru kapitulu bailiran. Balendin eta Jon Enbeita aita semeak laster agertzen dira, bigarren hau oraindik ere galtza motzetan dabilen mutikoa dela, baserri ondoan idi parearekin lanean. Hitzik ez da egiten lehen agerraldi honetan, ezta hurrengo minutuetan Jon Enbeita abereak gobernatzen agertzen denean ere. Victor Olaeta dantzariaren aurrekua dator ondoren, eta honen ondotik aita semeak berriro idiekin lanean, oilar eta oilo hots artean. Jon Lopategi oso gazte bat laguntzera azaltzen zaienean hasten dira bertsoan Balendin eta biak. Bakoitzak bina bertso botako ditu. Hauek dira lehen biak Lopategi hasita:

“Nire begiak ernari dagoz/ hara ta hona begira/ oraintxe doaz ibarretara/
oraintxe barriz mendira/ Haize gozua egun hontako/ eguzkiaren dizdira/ zeruan
dagozan grazi guztiak/ jatorkuz Euskal Herrira.

Euskal Herriak beragaz ditu/ hamaikatxo mendi edar/ Gorbeia, Aizkorri eta
Ernio/ Urbasa eta Aralar/ Aurreko zaharrak honeek zainduten/ ibili ziran su ta
gar,/ guk bere bardin maite badoguz/ zaintzen egin daigun indar.”

Soroan ari den amonaren irudiekin bukatzen da filma ‘Agur jaunak’ doinuak lagunduta.

‘Euzkadi’ suntsiturik dagoenez, Pariskoaren irudirik topatu ez denez eta Madréréna ziurtzat ematerik ez dagoenez, hau liteke bertsolaritaz gordetzen den lehen ikus-entzunezkatat.

6.3.7.3 Grenholm eta Olsonen ‘Basker’ (1963)

Dan Grenholm (1921-1995) eta Lennart Olson (1925-2010) erreportari suediarrek 1963ko urtarrilean eta otsailean, Euskal Herria bisitatu zuten hainbat astez, eta euskal kulturari eta folkloreaki buruzko bi dokumental etnografikotarako filmazioa egin zuten. ‘Basker’ (Euskaldunak), 24 minutukoa, eta ‘Bonde i Baskerland’ (Nekazaria euskaldunen herrian), 17 minutukoa, Sveriges Radio TV suediar telebista publikoan eman ziren urte bereko udan.

Argibel Eubak tesia osatu du dokumental hauen inguruan, eta Grenholmen ekimena seinalatzen du proiektu honen atzean. Musikaria, gitarra-jole aparta eta abenturazalea, flamenkoa ezagutu eta gitarra espainiarraren ikasketan sakontzera hainbat bidaia egingo ditu Espainiara 1947tik aurrera, eta 1957tik Mallorcan jarriko du bere bizitokia. Etnografo lanak egiten ditu, Andaluziako kulturaren inguruko hainbat grabaketa burutuaz eta Suediako irratian zabalduko ditu hainbat programetan: “1952ko Urtezahar-gauean eman zuten bere lehen irrati-programa Suedian: Den röda jordens sager (Lur gorriko abestiak). Danek aurreko urteetan Espainiako hegoaldean egindako grabazio etnografiko ugarietako batzuk erakusten zituen programak (...) iberiar musikari buruzko programa interesgarrien segida bateko lehenengoa izan zen” (Euba, 2016: 75). Euskal Herrira ere lehen bidaia bat egin zuen 1954, Olson argazkilari eta zinemagilea 1959tik ezagutzen zuen, Andaluziari buruzko bi dokumental egin zituzten elkarrekin 1962an fandagoa eta flamenkoari buruz, eta euskal folkloreaki inguruan gisako zerbait egiteko proiektua proposatu zion.

Eubak azterketa xehea egiten du suediarren Euskal Herrian burutu zuten lanerako izan zituzten gidari eta anfitrioiaren inguruan: “Argi dago ondotoxo zekitelara zer eta nor filmatu; non, noiz eta nola” (2016: 120). Honela, Aranzadi Elkarteko kideekin izandako harremana aletzen du, Joxe Migel Barandiaran, Jesus Elozegi, Jose Maria Busca Isusi, Manuel Laborde eta Luis Peñaren figurak seinalatuz (2016: 124-128), Academia Errante izeneko taldeko hainbat kide

ere aipatzen ditu, bereziki Luis Pedro Peña Santiago eta Josu Oregi, eta Donostiako KTEren laguntza garrantzitsua izan zela azpimarratzen du.

‘Bonde i Baskerland’-en badago bertsolaritzaren arrastorik. Kantuari dezenteko tartea eskaintzen zaio, eta Pedro Mari Otañoren ‘Mutil koxkor bat’ entzun daiteke (Euba, 2016: 58), esaterako, baina ‘Basker’ da benetako protagonismoa ematen diona. Bi eszena ikus daitezke bertan, bata bestearen jarraian. Lehenengoan, 18. minututik hasita minutuko iraupenarekin Basarri eta Uztapide ageri dira bertsotan, Berrizen, Pedro Juanen tabernan, 1963ko urtarrilaren 27an, Jesus Loroño txirrindulari erretiratu berriarekin batera egin zitzaizen omenaldian. Bazkalosteko mahainguruan ari dira bertsotan, bien tartean Pedro Mari Azpiri Berrizko alkatea eta albo batean Pedro Zenarruzabeitia apaiza dutela. Puru handiek, ardo kopa ugarik eta bertsoekin algara batean lehertzen diren hainbat gizonezkoak (ageri diren guztiak gizonezkoak dira) osatzen dute eszenografia:

“Praktika aintzatetsia eta instituzionalizatua izanik, bazituen aspalditik bere egiturak, ekitaldi formalak eta lehiaketak. Alabaina, Basker filmak erakusten dituen eszenetan, janariz edo edariz betetako mahaien inguruan abesten dute bertsolariek, berriro ere adierazpen informala bilatuz. Basarri eta Uztapide oholtza gainean kantatzen erakuts zitzaizketen (...) hala filmatu baitzituzten Berrizen), baina albo batera utzi zituzten irudi horiek” (Euba, 2016: 164)

Greholmek, bertsolaritzaren ezaugarri batzuk azaltzen ditu *off*-eko ahots gisa:

“Jaiari zehar, abeslariak borroka moduko bat egiten dute. *Bertsolari* deritze. Hitzak zera esan nahi du: ‘poesia egiten duena, kantuak egiten dituen’. Bi abeslariaren arteko elkarrekintza da, maiz elementu satiriko eta barregarriak dituen, baina poesia sofistikatuz ere osa daitekeena. Badira bertsolari profesionalak, publikoa dibertitzeko jaira gonbidatu dituztenak. Baina horrek ez du ekiditen beste batzuk, modu espontaneoan eta inspirazioak gidatuta, baita ere lehian hastea, hitz kantatuen bitartez beren pentsamenduak trukatzuz”

Off-eko ahotsaren azpitik entzun daitezkeen bertsoek ere badute interesik:

“*Basarri*: Gai hori utzita orain,/ norabaitera alde./ Nire bihotzak hauxe/ ez lezake gorde/ Suezia ere dago/ Europaren mende./ Joango ginduke biok,/ soltero bageunde. *Uztapide*: Eran egin behar nik/ galdera etortzian/ Ta zelebriak gera gu/ honela jartzian./ Sueziako anaiak/ hemen gure etxian./ danok bat izango gera/ mugak libratzian.”

Bergarako Umore-Ona Elkartean Jesus Alberdi *Egileor* eta Jose Mari Gabilondok buruturiko saioa dator segidan⁴⁰⁰, kasik bi minutu luzatzen den sekuentziarekin. Oraingoan baso eta kopak ez, botilak dira mahaia alderik alde betetzen dutenak, eta inguruko (berriro ere guztiak gizonezkoak) ke eta algara artean edanari buruzko bertsoak osatzen dituzte bi bertsolariek puntuka. Planorik moztu gabe batetik bestera ziztu batean dabil kamera, saioa bera bezalaxe, eta Greholmek bere azalpenak zabaltzen ditu, ikuspegi pertsonalago bat eskainiaz: “Neurri batean bertsolariek flamenkoa gogorarazten dute. Gaiak maitasunetik, politikatik, naturatik nahiz eguneroko arazo sozialetatik datoz. Melodia beti da berdina, eta, horregatik, hitzek musika jarraitu behar dute, nahiz eta hitzak inprobisatuak izan”⁴⁰¹.

‘Basker’-ek Iturengo eta Zubietako inauteria, pilota partida Oiartzunen, kalejira eta aureskua Abadiñon, Sakabi eta Egañazpi, idi-dema eta Jose Antonio Lopategi *Agerre IIa* harri-

⁴⁰⁰ Eubaren arabera suediarrentzat antolatutako erakustaldia izan zen saio hau (2016: 49).

⁴⁰¹ Eubaren liburuak DVDa ere badakar. Eta honek euskarazko azpigituluak eskaintzen ditu. Hortik atera da.

jasotzailearen erakustaldia Aiako plazan, Zabale aita-semeen txalaparta saioa Martutenen (soinu-tresna honen inguruko irudirik zaharrenak dira), Zumarragako trikitixa eta Ondarruko taberna batetako kantua eta irrintzia erakusten ditu sekuentzia ezberdinetan bertsolarietaz gain. ‘Bonde i Baskerland’-ek, aldiz, nekazal bizitzaren inguruko hainbat irudi. Euskal Herrian ordurako nagusitzen ari zen gizarte industrializatuari ez zaio erreferentziarik egiten:

“Euskal etnizitatea ente objektibo, reifikatu eta museifikatu gisa aurkezten duen ikuspegi esentzialista baten aurrean gaude (...) Euskal kulturak inguruko herriekiko dituen desberdintasunak azpimarratzen ditu euskal nazionalismotik gertu dagoen narratiba horrek, euskal historia eta kultura Espainiaren barne hartzen dituen diskurtso estatalarekin kontraesanean” (Euba, 2016: 186)

Telebista publiko suediarrek zuen kanal bakarrean *prime time*an eman ziren bi dokumentalak: ‘Basker’ 1963ko ekainaren 29an, larunbata, 21:10etan; eta ‘Bonde i Baskerland’, uztailaren 5ean, ostirala, 21:45ean. Eubak garaiko prentsa suediarrean argitaraturiko kritikak jasotzen ditu, gehienak positibioak (2016: 193-197). Euskal Herrian ez zen inolako emanaldirik izan.

6.3.7.4 Pio Caro Barojaren ‘El País Vasco’ (1966)

Pio Baroja idazlearen iloba eta Julio Caro Baroja antropologoaren anaia, Pio Caro Barojak (1928-2015) dokumentalista eta idazle gisa hainbat lan interesgarri eman zituen argitara.

Madrilen Zuzenbidea ikasi ondoren Mexikon (1952-1959) kritikari gisa izan zituen lehen hartu emanak zine munduarekin eta 1956an estreinatu zen zuzendari gisa folklore aztekari buruzko ‘El carnaval de Tepozotlán’ eta euskal folkloerari buruzko ‘Fiesta vasca en México’ dokumentalekin. Mexikotik bueltan *Documentales Folclóricos de España* ekoiztetxea sortu zuen anaia Juliorekin batera eta honen gidoiarekin urte hartan bertan filmaturiko ‘El carnaval de Lanz’ dokumentalak kritikaren harrera ona eta sariren bat jaso zituen.

Bere hamahirugarren lana izango da bertsolariak jasotzen dituen ‘El País Vasco’ hau. Lan honetan, ordea, ez da anaia Julioaren eskurik nabari: “(...) bere begirada beti suertatu zen kanpotik eta goitik so egiten duen intelektualarena, kasik ‘Nanuk Eskimala’ filmatzen ari balitz bezala. Eta azalekoa, anaia Julio Caro Barojaren sakontasunetik urrun zegoena” (Martinez, 2011: 26). Bestetasuna berriro ere, hainbatetan agertu den beste exotikoarekiko lilura, orientalizazioa.

Koherentzia handirik ere ez ei du errelatoak:

“Autorea bezain kontradiktorioa da filma. 1966 urtea arren, Lesakako Erreka Dantzarekin hasten da El País Vasco, eta berehala, off ahotsak Orreagako bataila kontatzen digu, epikotasuna azpimarratuz. Alta, horren ondotik, bandera espainiarrak ateratzen dira zeinahi tokitan, bai Ondarroako portuko itsasontzietan nola Kontxako traineretan edo herri bateko balkoietan.” (Martinez, 2011: 26)

Eta bertsolariak, elementu subalternoei dagokien lez, ahotsik gabe ageri dira:

“Manuel Lasarte eta Uztapide ere halaxe ikusten ditugu, piper-poto handi batek estalitako balkoian kantari. Alta, ikusi egingo ditugu bakarrik. Entzun ez. Izan ere, etnografoari ez zaizkio bertsoak interesatzen eta postal turistiko bat

gehiago gisa erakusten ditu bertsolariak, traineren, alardeen, baserrien eta dantzen artean” (Martinez, 2011: 26)⁴⁰²

6.3.7.5 Pio Caro Barojaren ‘Fiesta. Bersolaris, poetas populares vascos’ (1967)

Urtebete beranduago burutu zuen lanak interes eta balio handiagoa du. 1966tik hasita, 1968ra bitartean TVEk Espainiako herri ezberdinetako festa eta tradizioei eskainiriko ‘Fiesta’ serie dokumentalen baitan 1967an emititu zen ‘Bersolaris, poetas populares vascos’ izenekoak hain zuzen⁴⁰³.

Parisko emanaldiaren irudirik agertzen ez den bitartean bertsolaritzari propio eskainiriko lehen ikus-entzunezko monografikoa litzateke hau, eta balio historiko handia du 1967ko finala baitu ardatz.

Emisio dataren inguruan informazio kontrajarriak topatu dira: RTVEren artxibo historikoak 1967ko ekainaren 20ko data ematen du⁴⁰⁴; Joxe Mari Iriondori ikerketa honetarako eginiko elkarrizketan, aldiz, ekainaren 11 aipatzen da, emisioa finalaren egun berean burutu zela azpimarratuz:

“Gogoan daukat egun bertan emititu zutela, TVEren bigarren katean, gaueko 11etan. Garai hartan TVEren montaje lan guztiak Madrilen egiten ziren, ez zegoen bidalketak egiteko gaur dagoen teknologiarik, eta ez sinestekoa da hori lortu izana. Zortziretan bukatu zen finala eta hiru ordutara montatu eta emititzeko helikopteroan bidalia behar du derrigor. Ziurrenik Gipuzkoako Gobernadorearen eskua egongo da hor.” (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

Handi samarra dirudi Iriondok esandakoak, baina emisio data bera eskaintzen du bertsoa.eus-ek Urola Kostako Hitzatik hartutako testuan, dokumentala berreskuratzea lortu dela eta Uztapideren jaiotzaren 100 urteurrenerako antolaturiko ekitaldi gisa emanaldia eskainiko dela azaltzen duen albistean⁴⁰⁵.

26 minutu eta erdi irauten ditu dokumentalak, zuri beltzean ikusten dira irudiak, eta garaiko NO-DOa dakar gogora ezaugarri formalei dagokienean: “Forma aldetik ‘El País Vasco’-ren antzekoa da ‘Fiesta’: teknikoki txukun egindako erreportaje klasikoa, NODOaren estilokoa, ponpa handiz narratua baina batere pretentsio artistikorik gabea” (Martinez, 2011: 27).

Kredituetan, Mikel Laboaren ‘Txinaurriak’ entzuten den bitartean, operadoreak ageri dira lehenengo: Jose Aguayo, Jose Luis Uguia eta Carmen Aguado. Iriondok eskaintzen du

⁴⁰² *Bertsolarirako* idatzi zuen artikulua luzean kuriositate modura Rafael Gil zinemagile frankistaren ‘La nueva vida de Pedrito Andia’ (1965) aipatzen du Josu Martinezek Pio Barojaren lan honen aurretik. Joselito haur kantaria protagonistatzat izan zuten filma ugarietako bat izango da hau, oportetan Euskal Herrira etorri eta Isabeltxu nola konkistatzen saiatzen den kontatzen duena. Bertsolaritzari eskaintzen zaiona ikusita filma zerrendatik kanpo uztea erabaki da, baina kuriositate modura oinoharrera ekartzea. Honela kontatzen du Martinezek: “Erromeria batean, Pedritok, aureskulariz jantzita doalarik galdi baten gainean, bertso batzuk kantatzen dizkio Isabeltxuri, atzetik orkestra oso batek lagunduta: Audabaria datorenean/ neu jakingo de cer egin/ Artaxurale rapalean/ aporrea re tala gin./ Al pie del olmo rústico/ dijo la moza al galan/ Al pie del olmo rústico/ lara, la, ra, ra, ra... Bertso ahaztezin horien ostean, Pedrito Andiak Afrikako edozein triburen Euriaren Dantza lirudikeen aureskua dantzatzen dio Isabeltxuri.” (Martinez, 2012: 29-30)

⁴⁰³ 66 atal izan zituen guztira serieak eta tartean badaude Euskal Herrian kokaturiko gehiago ere. Honela, ‘El Valle de Iraurgi: Azcoitia y Azpeitia’ edota ‘San Fermin’ ere, biak 1966koak, errepasatu dira baina ez da bertsolaritzaren arrastorik topatu.

⁴⁰⁴ Helbide honetan dago ikusgai datua eta baita dokumentala bera ere:

<http://www.rtve.es/alacarta/videos/fiesta/fiesta-bertsolaris-poetas-populares-vascos/3706444/> [2019/II/15]

⁴⁰⁵ Helbide honetatik berreskuratua [2019/II/15]:

<https://bertsoa.eus/albisteak/434-caro-barojaren-bertsolaris-filma-aurkeztuko-dute-gaur-uztapideren-mendeurrenean>

xehetasun gehiago: “Grabazioa Jose Luis Urkiak egin zuen, Caja de Ahorros Munizipaleko segurtasuneko burua zen, eta bere emaztea Carmen Aguadok, TVEko korresponentsala zena. 16 milimetrotako kamerak erabiltzen ziren orduan.” (J. M. Iriando, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18). Madrilen muntaia ziztu batean egin behar izan zuen teknikariaren izena ere ageri da: Guillermo S. Maldonado. Baita gidoigilearen izena ere: Padre Zabala S. J. (alegia, 50 urte beranduago ‘v’-rekin sinatzen zuenari euskara batuaren grafia jarri zioten telebista frankistan). Eta azkenik, Pio Caro dator zuzendari gisa.

Laboaren kantua luzatzen den bitartean Donostiako hainbat irudi ikusi ondoren, *off*-eko ahotsak dokumentalak bertsolarien finala eskainiko duela aurreratzen du, baina sarrera gisa bertsolaritzaren inguruko azalpen bat eskainiko duen Zavalari emango zaiola hitza. Berrogei urte ez dituen tolosarrak bapatekoa eta jarriak bereizten ditu, bertso-paperen fenomenoaz azaldu eta herriaren historiaren ispilu direla seinatu, bapatekoaren izaera inprobisatua azpimarratu, XIX. mendeko desafioetatik XX. mendeko txapelketetara eman den aldaketa azaldu... Guztia urduri samar begiak testutik kasik altxa gabe irakurriaz. Eta bertsolaritzaren historiarekin jarraitzen du biltzaile handiak, Fernando Amezketarra, Xenpelar, Bilintx, Iparragirre, Pello Errota eta Txirritari erreferentzia eginaz.

Iparraldeko bi partaideak aipatzen ditu *off*-eko ahotsak, Xalbador eta Mattin, eta azken hau baserriko lanetan erakusten dute irudiek. Anoetako pilotalekuko sarrerakoak datoz ondoren, pixkanaka barrura dijoan jendetza erakutsiaz, narratzaileak txapelketan zehar burutu diren kanporaketa saioen berri ematen duen bitartean. Saioari ekin aurretik, ordea, epaimahairi ematen dio hitza dokumentalak: Arruek epaitzeko darabiltzaten hainbat irizpide azaltzen ditu, oso hizkera ponposoarekin; Bordarik epaile lanaren nekeak aipatzen ditu, bertsolariak euren lagunak direla eta bertsoaren balorazio objektiboa ezinezkoa dela azpimarratuaz; eta Juan Mari Lekuonak zerbait gehiago sakontzen du balorazio irizpideetan.

Narratzaileak agurra zer den azaltzen du jarraian, finalista guztien agurrak eta hauen oinarritzko itzulpen bat eskainiaz⁴⁰⁶.

Basarriri eginiko elkarrizketak hartzen ditu hurrengo minutuak:

“Liburuz betetako bulego batean, kazetari batek Basarri elkarrizketatzen du, bertsolaritzaren *patriarka* gisa aurkeztuz, kasik *zibilizatutako salbaje ona* balitz bezala (...) Serio-demonio, Cervantesek baino gaztelania dotoreagoan erantzuten die kazetariaren galderari; hainbeste ze, bistakoa da alde aurretik ikasi dituela, edo planoan ikusten ez den lekuren batean irakurtzen ari dela” (Martinez, 2011: 27)

Martinezek epaimahaiaren eta Basarriren interbentzio hauekin nolabait berriro ere bertsolariei ahotsa ebatsiko litzaiekela seinalatzen du bere lanean: “Bi sekuentzia horiekin, badirudi Caro Barojarentzat bertsolaritzak ez daukala nahiko maila kulturalik, azkenean baserriarren xeblekeria bat izaten segitzen duela eta horregatik, jende letratuaren intermediazioaren beharra duela ikusleak, dela Basarri edo direla epaileak” (2011: 27).

Hurrengo tarte bertsolari klasikoaren errebasoari eskaintzen zaio, euren jaiotetxeak, argazkiak edota euren omenez altxa diren eskulturak erakutsiaz, baserriko lanetan ageri den azken txapeldunaren, Uztapideren, irudiekin bukatzeko.

⁴⁰⁶ Lopategi finala irratir bidez jarraitzen duten entzuleei zuzentzen zaie. Gorrotxategik, Cadizen egiten ari den soldaduska finalean abesteko utzi ahal izan duena, Vietnamgo gerraren kontra eskaintzen du berea.

Azken minutuetan buruz burukora pasatu berritan publikoaren txistuak jasan ondoren publiko hori bera txaloka jarri zuen Xalbadorren bertsoa entzun daiteke: “(...) lehen planoan Urepeleko artzaina ageri zaigu, bere bertsorik ezagunena kantatzen: ‘Anai arrebak, ez otoi pentsa...’. Irudi zirraragarria da, Xalbadorren aurpegiak erakusten duen ezinegona, nola eusten dion haserreari, nola irensten duen listua...” (Martinez, 2011: 27). Kamerak, ordea, ez dio bukaeraraino eusten:

“Alta, Caro Barojak ez du ulertzen zer ari den ikusten; ez da ohartzen seguru aski bizitzan ez duela horrelako beste momentu historiko bat grabatzeko aukerarik izanen, eta beraz, txistuak gehiegi luzatzen direnean, planoz aldatzen du, Xalbadorren azken puntuari itxaron gabe. Hala, ikusleak betiko galdu du ‘Txistuak jo dituzute baina/ maite zaituztet oraindik’ zoragarri hura berriro bizitzeko aukera.” (Martinez, 2011: 27)

6.4. HAUSTURA: PIZKUNDE BERRIA ETA BERTSOLARITZA SOZIALA (1968-1979)

1960ko hamarraldiaren bigarren erdirako giroa oso nahasi batek hartu zuen euskal jendartea. Frankismoaren azken hamarkada estreinatzen zen, borroka politiko eta sozialaren irakinaldi beteko hamarkada bat. Hurrengo urteetan Euskal Herria hainbat mailatan baldintzatuko zuen ETA erakundearen jarduera armatua ere orduan abiatu zen, 1968an.

Gorabehera politiko-sozial hauek isla nabarmena izan zuten kultura arloan ere. Belaunaldi berriak Bigarren Euskal Pizkunde bat jarriko du martxan, aurrekoaren izaera defentsibokontserbadorearekin hautsi eta ikuspegi modernozale-aurrerakoi batean oinarritua. Honela marrazten ditu Larrinagak aldaketa guzti hauen arteko loturak:

“(...) kultura esparrua estu lotzen zaio gizarte egitura orokorrari, halako moldez non, azken horretan gertaturiko eraldaketek zuzenean eragiten duten era guztietako kultura adierazpenetan. Horrenbestez, gizarte egitura astintzen duten errotiko aldaketa ekonomiko, sozial edo politikoak kultura esparruan ere azaleratu ohi dira bizkortasun handiz. Aldaketa horiek esparruko behinolako orekak hautsi eta indarrean zeuden jokamoldeak eta arauak beste berri batzuekin ordezkatzeko dituzte.” (2007b: 144)

Bertso-munduan eragin nabarmena izango dute gorabehera hauek. Frankismo Garaiko zikloaren hausturan sartzen gara, eta haustura horrek bi marka ditu: batetik, aurreko belaunaldiaren lanean oinarrituriko Euskaltzaindiaren txapelketak eten egingo dira; bestetik, bertsolaritza soziala deitu izan den protesta fenomenoaren emango da, belaunaldi gazteenek sustatua.

Juan Mari Lekuonak bere aldizkatzean ‘bertsolaritza soziala’ izendatzen du aldi hau, eta honela zedarritzen du: “Azken txapelketa egin ondoren, 1967an alegia, eta borroka armatua hasi zenetik, diktaduraren ondoren bertsolaritza bir-planteatzen hasi arte” (1982: 120). Eta honako ezaugarriak seinatzen ditu, besteak beste, jarraian: “Baserriaren atzerakada eta uriarteko bizitza. Demokrazi deiadarra (...) euskal ezkeraren mugimendu berriagoak (...) Gaiaren eta ikusmoldeen politizapena, beste gaiak baztertzerainokoa (...)” (id.: 120-121).

6.4.1 Testuingurua trantsizioan

6.4.1.1 Aldaketa garaia

1940 eta 1950eko hamarraldietan gerra galdu zuen belaunaldiak, belaunaldi kolpatu eta hautsi hark, eutsi behar izan zion ahal zuen moduan, euskalgintzaren eta euskal nortasunaren

lekukoari. 1960ko hamarralditik aurrera, ordea, belaunaldi berriaren ahotsa sumatuko da, eta haize berriak dakartza:

“Gerra baten galtzaileak nekez galtzen du gudazelaian zuen arrazoia eta kontzientzia. Barruan darama hori. Koldartu, beharbada koldartuko da, baina ikaratuen eta nekatuenari ere ez zaio agian barne-argi isila erabat itzaltzen. Eta, nolana ere, guraso nekatuen seme-alabak ez dira nekatuta jaiotzen, eta aurrekoen mezu isildua ezagutu egiten dute... Orduan hasi zen Euskal Herria, erbestean ez ezik, barnean ere berriz ibiltzen, are bizkorrago gerra bukatu eta hogeiren bat urteren buruan (1960...)” (Intxausti, 2014a, 133)

Belaunaldi berriaren grinak bat egin zuen nazioartean nabari ziren aldaketa zantzuekin. Dorronsoro eta Lekuonak aipatzen dituzte zantzu hauetako batzuk: “(...) Joanes XXIII.aren eta Kontzilioaren garaia da, Elizan batez ere aldakuntza handiak nabari dira, horrek asko esan nahi du frankismoan eta Euskal Herrian ere, Kennedy, Khruschev, etab., egoera optimista bat dago, indarberritu nahi bat (...)” (1987: 17). Amezagak eskaintzen ditu beste zenbait eragin: “(...) Euskal Herrira nola edo hala heltzen ari ziren kantagile europar edota amerikarraren eraginak. Frantzia aldetik George Brassens, Iparrameriketatik Bob Dylan eta Joan Baez, eta Latinameriketatik Violeta Parra, Atahualpa Yupanqui edo Victor Jararen ahotsek oihartzuna izan zuten euskal gazte askorengan” (1994: 198).

Frankismoa bera ere bilakabidean da. Aipatu den gisan, ‘gerra hotza’ dela medio, Estatu Batuen aliatu gisa bere nazioarteko isolamendua hautsi ahalko du erregimenak, eta honen laguntza ekonomikoarekin, gerraosteko sistema autarkikoa utzi eta kapitalismoan murgildu ahalko da estatuko hainbat lurraldeetan bigarren industrializazio prozesua deritzona garatuaz: “Aldaketa berrien karietara, epealdi teknokratiko eta modernizatzaileari hasiera eman zitzaion” (Larrinaga, 2007b: 144). Kultura alorrean aukera berriak ireki zituen honek: “Erregimena teknokratizatu ahala, kultur politika "populistagoa" bihurtuko da, ideologikoki hain kontrolaturik ez zeuden eremu nimiño batzuk zabalduz” (Amezaga, 1994: 153). Funtsean erregimenak bere izaerari eutsi bazion ere: “Aldaketak aldaketa, modu batera edo bestera, helburu berberaz mantenduko da kultur politika frankismo osoan zehar: boterea harturik zuten klaseek, bere horretan irautearen helburua, hain zuzen ere” (Amezaga, 1994: 153). Irekiera zuriketa ahalegin bat baitzen: “Erregimenaren Irudi garbitze horren giblean, Europako demokraziengandik onargarritasuna lortzea zen helburua” (Gandara, 2015: 122)

Hego Euskal Herria izan zen bigarren industrializazio prozesua indar handienaz garatu zuen lurraldeetako bat. Honek, XIX. mende amaieran bezala, aldaketa demografiko eta soziokultural garrantzitsuak ekarri zituen. Euskararen kaltetan berriro ere.

Aldaketa isil ugariren baturak pixkanaka euskal jendartearen irakinaldia ekarri zuen. Larrinagak dioen bezala hainbat planotan garatu zen trantsizio aldi bati ekin zitzaion:

“(...) trantsizio garaia zen erregimen frankistarentzat — gerraondoko ezegonkortasunetik behin betiko instituzionalizaziorako iraganbidea burutu zuen hark—, trantsizioaldia bizi zuen euskal gizartearen egitura sozioekonomikoak —azpigarapen industrialetik industrializazio masiborako bidea eginez—, eta, azkenik, trantsizioaldia gertatu zen euskal erresistentzia politiko-kulturalaren barnean ere, —erbesteko munduaren hegemoniatik barneko gizartearen nagusitasunerako bilakabidea (...)” (2007b: 146)

6.4.1.2 Euskal Pizkunde berria

1960ko euskal gizarteak antzekotasun gutxi zeukan XIX. mende amaierako Eusko Pizkundeko kulturgileenarekin: “(...) modernizazio ekonomikoak, industrializazioa,

immigrazioa, nekazari munduaren gainbehera eta antzeko eragin sozioekonomikoak ez ezik ondorio kulturalak ere ekarri zituen berarekin, sekularizazioa eta balio tradizionalen krisia, esaterako (...)" (Larrinaga, 2007b: 147)

Lehen Pizkundean praktika modernoak ere bultzatu ziren arren diskurtso kontserbadore eta tradizionalista bat nagusituko zen. Industrializazioaren eraginez XX. mendean zehar langileria zabalduz joan zen, ordea, euskal komunitate horren baitan, eta langileria hori goi mailako hezkuntza sistemara iritsiz joan zen geroz eta kopuru handiagoan. Hezkuntza horrek pentsamendu abangoardistak eskuratzeko ahala eman zion, eta honekin, aurreko belaunaldiak proposatzen zuten markoa haustekoa. Lehen Pizkundean oinarritutako izango den abertzaletasun jeltzaleak diskurtso identitario gisa erabili izan duen euskal baserriaren ekosistema jendarte hiritarrak irentsita desagertzear zela ikusirik errealitate horri egokituriko planteamendua egingo zen: "(...) intelektualeria berriaren kontzientzia modernoa, urbana eta abangoardista nazionalismo berriaren eta nazio kulturaren definizioetan islatu zen" (Larrinaga, 2007b: 149).

Krutwig eta Txillardegi bezalako egileen eskutik nazioaren ikuspegi dinamiko eta integratzaileago bat abiaraziko da. Honela, hizkuntza jarriko da nazioaren elementu objektibo zentral gisa (edonorentzat eskuragarria den elementu bat aurreko nazionalismoak irizpide nagusi gisa zerabilen arraza ez bezala), abertzaletasuna bera ere kontzientzia politikoarekin loturiko elementu subjektibo gisa ulertuko da, eta nazio askapena klase borrokarekin lotu (Amezaga, 1994, 50-72).

Belaunaldi berriaren indar berrituak eta abertzaletasun berriak euskarari ematen zion erabateko zentraltasunak Pizkunde berri bat ernatuko zuten frankismoari arrakala berriak ireki eta zaharrak gehiago zabalduaz. Berrito abiarazi zen ikastolen proiektua, eta gerrak suntsitu zituen 1920ko lehen kimu haiek ez bezala, mugimendu indartsu bat ernatu zen. Euskarazko kazetaritza ere indartuz joango zen, gerraurreko garapen maila berreskuratu eta gaintitza lortuz. Gerraurrean literaturak Lizardi, Lauaxeta eta Orixerekin bizi izandako gailurrari, gailur berria gehituko zioten Aresti, Mirande, Txillardegi, Saizarbitoria eta beste zenbaitek. Edota herri antzerkiak sekulako indarra hartu zuen, gerraurretik Toribio Altagaren inguruan sorturikoa baino askoz ere fenomeno zabalagoa gauzatuz.

Gerraurrekoarekiko berriak ziren elementuak ere agertu ziren. Euskal Kantagintza Berria, esaterako. Edota arte plastikoetan Gaur taldeak (Oteiza, Txillida, Zumeta, Basterretxea eta abar) egindako ekarpena edota zineman Basterretxea eta Larruquerten 'Ama Lur' filmak egindakoa, euskararekin lotura lausoagoa izan arren euskal kulturgintzari ematen dioten bulkada dela medio Pizkunde honen baitan ezinbesteko bezala kokatu beharrekoak.

Abertzaletasun berria indar sortzaile bezainbeste izan zen gatazka iturri. Alorrik politikoenean ETA erakunde sortu berriak hartu zuen planteamendu berri hauen gidaritza eta 1968tik aurrera borroka armatuari ekin zion. Frankismoaren ahuldadeak agerian jarri zituen borroka horrek baina errepresioa areagotzea ere ekarri zuen. Kulturgintza borroka politikoaren baitan txertatu zuen Fronte Kultural gisa eta gidaritza politiko nahiz kulturalaren inguruko lehia piztu zen abertzaletasun jeltzalearekin. Ahalmen sortzaile haundiko garaia izango da, bada, baina baita haustura aldi gatazkatsua ere:

"(...) mezu ideologikoen bat-bateko sarrera-beste paraje europar batzuetan baino patxada gutxiagorekin, olatu azkar moduan heldu zena- emozio karga handiko elementua izan zen. Gogo-aldarte berria ekarri zuen, estrukturala, belaunaldi progresistaren jardurena: haustura-oldarra. Hautsi egin behar zen aurreko belaunalditik zetozen hainbat jarraidurekin, hautsi egin behar zen

mitoekin, hautsi egin behar zen sustrai kristauekin, hautsi egin behar zen baserri-munduaren ikuspegi positiboarekin (...) Hautsi, aurreko ikuspegiei oldartu, berria sortzeko orubea aldarrikatzeko. (...) Euskalgintza eta herrigintzari dagokionean, sorkuntza artistikoa aberastu egiten du gogoaldatearen elementu honek. Bai energien entropia gehitu eta eraikuntza konplikatu ere.” (Sarasua, 2013: 140-141)

6.4.2.2 Bertsolaritzari arreta berria berriro: Oteiza, Aresti eta Ez Dok Amairu

Mugimendu askotarikoa eta zabala izan zen Bigarren Pizkunde hau gorpuztu zuena, baina elementu klabe batzuk identifika daitezke. Hainbat egilek Jorge Oteiza eta Gabriel Arestiren garrantzia azpimarratzen dute, esaterako, Gabilondok: “Although other writers such as Jon Mirande or Frederico Krutwig also participated in this discourse, the dialogue between Oteiza and Aresti is the one that determined culture in the Basque Country at that time” (2016: 230).

Arestik 1964ean ‘Harri eta Herri’ poema liburua argitaratu zuen. Gerraurreko poesia modernistak ez bezala harrera bikaina izan zuen irakurleagoaren aldetik, belaunaldi berriaren ikur bihurtu eta poesi Bigarren Pizkunde honen muin efektiboan kokatuz:

“(…) ‘Harri eta Herri’ euskal literatura guztiko liburu inportantenetak bat dateke. ‘Harri eta Herri’-k lortu zuen literaturaren eta irakurleagoaren arteko desegokitasuna apurtzea, egiazko literatura batek (hau da irakurria den literatura batek) bete behar dituen baldintzak adieraziz eta euskarazko literatura erreale baten posibilitatea erakutsiz.” (Sarasola, 1971: 84-85)

Oteizak 1963an euskal arimaren interpretazio estetiko bat burutuaz argitaratu zuen ‘Quosque Tandem’ lanak, berebat, euskal kulturaren planteamendu abangoardistetarako ildo bat markatu zuen, euskal kulturgintza berriaren esparru oso zabaletan eragin handia izan zuena. Izatez, Arestiren lanean ere suma zitekeen eragin hori:

“In ‘Quosque Tandem’, Oteiza turns (Neolithic) Basque culture into an essentialist culture that, at the same time, becomes “the essence” of the European avant-garde and, more generally, of modern art. In short, thanks to Oteiza, the Basque Neolithic becomes the teleology of modern art.

This idea also influenced poet Gabriel Aresti, hence the title of his most important work, ‘Rock and Country’ (Harri eta Herri, 1964). In the 1960s, Aresti marked the beginning of modern Basque poetry, of the reunification of the Basque language, and, most importantly, of the first successful representation of a Basque nationalist identity centered on the metaphor of the rock (...) ‘Rock and Country’ makes many references to the Basque sculptor Jorge Oteiza (...)” (Gabilondo, 2016: 232)

Oteizak euskal komunitatea modernitatearekin sintonian jarriko zuen berezko estilo prehistorikoaren berreskurapena funtsezkotzat jotzen zuen. Eta bertsogintza jartzen zuen estilo horren eredu gisa: “(...) erreferentziatzeko hondarreko pertsonaren berrinterpretazioa aldarrikatu zuen, bertsolariarena. Bertsolariaren irudia euskal herriaren islarik garaiena gisa atzeman zuen; espiritualki, herriaren barren-barreneko egia kultural puru eta koherenteenaren isla gisa” (Gandara, 2015: 214). Garziak bere tesian azpimarratzen duen bezala funtsezkoa izan zen bertsolaritzaren prestigioatze berrian: “Oteizak prestigio handia eman zion bertsolaritzari, gainerako arteetako parametro estetiko baliaturik bertsolarien lanaren gaurkotasuna aldarrikatuz” (2000b: 137).

Arestiren ekarpenak berebat, beste hainbesteko garrantzia aitortzen zion bertsolaritzari: “Aresti poetak bertsolaritzaren birmoldatzean praktikoki eta teorikoki parte hartu zuen:

bertsotan eskribitu zituen bere lanetarik zenbait (...) poesiaren nahiz bertso moldeen mugei buruzko hausnarketak plazaratu zituen (...) aski ezaguna da Basarrirekin, 1963an, izaniko debatea” (Gandara, 2015: 250).

Oteizak bertsolariekin izandako harremanaz ez da ezer askorik topatu: bertsolaritza jarraitzen zuela, garai hartakoak Uztapide eta Basarri ezagutzen zituela eta azken honekin gerora lagun egin zirela (Agirre, 1997: 6). Askoz ere ezagunagoa da Arestik bertso-munduarekin izandako tratua. 1965eko Euskal Herriko txapelketan epaimahaiko ibili zen, Bizkaiko txapelketaren batean ere bai, eta antolakuntzan ere lagundu izan zuen: “Aresti bera ere asko ibili zen saioak antolatzen eta entzuten. Kronikak idazten ere bai. Nik beti errebindikatu izan dut Arestik bertsolaritzaren alde egin zuen lana. Bertsolari gisa ere garrantzitsua izan zen; plazan ez zuen kantatzen, baina bertso asko idatzi zuen” (X. Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02). Bertsolaritzari buruz prentsan poetak idatzitako hamahiru testu topatu dira, *Zeruko Argian*, *Anaitasunan*, *Txistularin* eta Mugimenduko *Hierron*. Markinako Bertsolarien Batzarrera joatera ere iritsi zen: “Gogoan dut urte batean Markinako bertsolarien bilkura haietako batean hitzaldia eman zuela eta dena hankaz gora jartzen saiatu zela” (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18).

Ez Dok Amairu taldea izango da Bigarren Pizkunde horren enblemetako bat, 1961ean Michel Labeguerieren lehen diskoarekin estreinatzen den Euskal Kantagintza Berriaren baitako talderik ezagunena. Kataluniako Nova Cançó-aren enbrioia den Setge Judges taldearen ereduari jarraiki Mikel Laboak sortuko du 1966an Ez Dok Amairu. Lourdes Iriondok, Benito Lertxundik, Xabier Letek, Artze anaiek, Nestor Basterretxeak, Jose Angel Irigaraik, Julen Lekuonak, Mikel Laboak eta Jorge Oteiza berak osatu zuten taldea, izena oriotarrak jarri ziolarik. Oteizaren eragin nabaria izango zuen, bada taldeak, eta lan eskerga egin zuen ahozko ondare kulturala biziberritu eta modernizatzen. Eta Arestiren bertsolaritzarekiko loturak izango du eraginik eurengan: “Aresti Laboaren lanetan trantsizio izan zen; erran nahi baita –Laboak eginiko ahozko ondare kulturalaren birmoldatzean– poetak markatu zuela bertsolaritza idatziaren erabilera garaikidea, eta, ondotik, 60-70etako olerkariak eginiko bertsoen erabilera garaikidea ere eskaini zuela kantariak” (Gandara, 2015: 348). Eta bertso moldean gauzaturiko olerkigintza garaikidea musikatzearen ildo horren jarraipena Leteren, Artzeren edo Sarrionaindiaren testuekin burutu zela seinatzen du aurrerago (Gandara, 2015: 350).

Joxe Mari Iriondok oso gertutik ezagutu zuen taldea. Sorrerako bileran egon zen, euren kontzertuen antolatzailerik eta aurkezle lanak egin zituen hainbatetan, eta Herri Irratian aparteko bozgorailua eskaini zien. Honela gogoratzen bertsolariekin izandako harremana:

“Bertso saio asko egin ziren taldeko kideen jaialdien osagarri. Lourdes Iriondoren osagarri, edo Lourdes eta Xabierren jaialdien osagarri. Benito eta Mikelen osagarri gutxiago. Eta Ez Dok Amairu talde bezala aritzen zenean nik behintzat ez dut gogoratzen bertsolariekin aritzen zirenik (...) Otañori egin zitzaion omenaldi batean Miren Auzmendi urnietarrak bertso batzuk egin zituen eta Lourdesek abestu zituen, eta gogoan daukat Garmendia, Basarri eta Uztapide Urnietako aingerua gora eta behera ibili zirela. Letek ere estimu handia zien. Urnietan urtero egiten zen San Migeletako bertso saioa antolatzen Xabier ibili zen asko.” (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

Xabier Amurizak ere lehen pertsonan bizi izan zuen guzti hura, eta Euskal Kantagintza Berriko mugimenduaren eta zenbait bertsolarien arteko sintonia azpimarratzen du: “Esango nuke sintonia bat eman zela, kontzientzia mailakoa mugimendu hau eta zenbait bertsolarien artean. Lopategi eta Abel Muniategik esaterako oso kontzientzia politiko argia zuten” (X.

Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02). Ez Dok Amairuz haratago ere eman zen, noski, harremanik:

“Nire debutean bertan sei bertsolari izan ginen Gernikako *Jai Alai* frontoian eta gurekin Oskorri. Bi mila lagun bildu ziren. 1966an izan zen hori. Eta bakarkakoan kantatu nituen bertsoak gero Oskorrik erabili zituen ‘Huelgan daude’ kantuan. Eta kartzelatik atera eta gero ere, ni kantuan hasi nintzenez askotan izaten ziren kantariak eta bertsolariak” (X. Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02).

Jaialdi handien urteak ziren. Kantariak, bertsolariak, euskal dantzariak, txalapartariak, dultzaineroak abar, guztiak elkarrekin aritzekoak. Aristorenak eskaintzen du adibide bat:

“Príncipe de Viana’-tik eraturako azken "Euskal Besta" Beran ospatu zen 1967.eko agorrilaren 27an (...) Iruñeko udaleko dantza taldea, Leitzako kantari talde bat, ohi bezala Peru Txiki txiste kontalaria eta ‘Ez dok hamahiru' taldeko Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Xabier Lete eta Lourdes Iriondo aritu ziren. Mariano Izeta gai jartzen zutelarik berriz, Xalbador, Manuel Lasarte eta Migel Arozamena bertsolari nafarrek abestu zuten (...)” (1992: 45)

Giro politikoa eta sozialak irakinaldia bizi zuen, urteetan isildutakoak borborka azaleratu ziren protestak hartu zituen kaleetan, eta jaialdi hauetan kultur adierazpen ezberdinekin nahasian aldarrikapen politikoak ere protagonismo garrantzitsua izaten zuten:

“(...) bertso saio nahiz kantaldi bakoitza —sarritan biak batera konbinaturik— mitin edo manifestazio haundi bat bezala izaten zen. Jaialdiak gehiago ziren horretarako aitzakiak, beren izatearen agerpen baino. Ez gara jaialdi haiek zertatik zenbat zuten zehazki neurtzen hasiko, dena batera bait zen, baina hirurogeita zortzi ingurutik hemengo udal hauteskundeak artekoa abalantxa bat bezala izan zen.” (Amuriza, 1987: 35)

Aldaketa garaiak, baina bertsolaritzari ere bere tokia aitortzen ziotenak: “Bertsolariak zerbait berria esaten hasi zirenean, 65erako, gazteria mugitzen hasita zegoen, ETA, Herri Gaztedi eta hainbat gauza zeuden martxan. Mugimendu horrek eta mugimendu kulturalak kalean nahi zuen bizirik bertsolaritza, ez baserrian. Berrikuntza handi bat ari zen ematen maila guztietan” (X. Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02).

6.4.2 Txapelketa zikloaren haustura

6.4.2.1 Xalbadorri txistuak (1967)

1967ko txapelketa giro nahasian burutu zen. Honela, zeinbait bertsolari garrantzitsuk ez zuten parte hartu⁴⁰⁷, edota antolatzaileen eta epaimahaikoen lana zalantzan jarri zuen hainbatek:

“Txapelketa katramilatsua gertatu zen; epaimahaiaren lana, gaiak... auzitan jarri ziren gauza asko (...) Zalantzak aineratu ziren diru irabaziak Euskaltzaindiak nola banatzen zituen galdetuz, (...) hiruzpalau eskaera zuzen egin ziren: epaitze sistema garbia izatea epaimahaiko bakoitzaren puntuazioa bistan jarritz; sariak potologoak izatea (...)” (Lasa, 2008: 862)

⁴⁰⁷ 67ko hartan ez zuten parte hartu Agirre, Lazkano edo Lasartek, eta Uztapidek, finalean Xalbadorrekin gertaturikoa ikusi ondoren, esan zuen horrelako saltsak izatekotan hobe zela batera txapelketarik ez egitea. Basarrik, jada azaldu den gisan, txapelketetan parte hartzeari uko egina zion 62koaren ondotik.

Epaimahaiak buruz burukoa Uztapiderekin jokatzeko Xalbador aukeratzen zuela adierazi zuenean entzun zen txistu hotsa ikusi da dagoeneko 'Fiesta' dokumentalean deskribaturik. Azaldu behar da Hegoaldeko entzuleek, Anoeta pilotalekuan erabateko gehiengoa, zailtasunak zituztela Urepelekoa ulertzeko eta horregatik egin zutela txistu. Gaineratu behar da, baita, keinu itsusi horrek txapelketaren inguruko giro txar guztia lehortarazi zuela. Honela dio Lasak: "Xalbadorri egindako txistu jotze zalapartatsuak giroa mikaztu zuen erabat" (2008: 862). Eta Garziak gehiago dio: "(...) no se sabe exactamente si contra Xalbador o contra el jurado. La pitada fue sonora y larga (...) Debido en gran parte al escándalo, la Academia dejó de organizar compeonatos de bertsolaris" (2000a: 450-451).

Hurrengo eguneko prentsan Uztapideren txapela bezainbesteko protagonismoa izan zuten publikoaren erreakzio itxusiak eta txistuak txalo bihurtu zituen Xalbadorren bertsoak: *La Voz de España* (1967/VI/13) 'Bronca'; *El Diario Vasco* (1967/VI/13), Anthon Gaztelu, 'Aplausos, pitos y lagrimas de mujer en la jornada final de Anoeta'; *La Voz de España*, Javier Aramburu, (1967/VI/13) 'Uztapide, campeón de bersolaris/Xalbador se adjudicó el título de subcampeón/Brillante jornada, con división de opiniones'.... Eta hurrengo asteetan ere ondorengo luzea izan zuen kontuak: *Zeruko Argian* (1967/VI/18) 'Bertsolarien azken txapelketa. Uztapide txapeldun-Gora Xalbador!'; Jon Etxaidek *Herrian* (1967/VI/22) 'Gure lotsagarria'; *Zeruko Argian* (1967/VI/25) *Entzule bat* izenordearekin sinatua 'Negargarria benetan' eta Juan Mari Lekuonak 'Bertsolarien txapelketa, 1967, Maiburuko baten pentsakizunak'; *Zeruko Argian* berriro (1967/VII/25) Juan Goikoetxeak, *Iru-Garate* izenordeaz, 'Euskalerria'k Anoetan galdutako partidua'; *Diario de Navarra* (1967/IX/03) Aingeru Irigarai 'Apostillas a la final de bersolaris'; *Aranzazun* (1967/IX/15) Julian Albiztur *Aztirik* 'Anoeta'ko Uztapide ta Xalbador bertso eta asarrea'...

Xalbadorrek txistu artean abesturiko bertsoak eragin zituen txaloen ildo beretik joko du prentsako erreakzio honek: txistuen itxusikeria salatu eta bertsolariari elkertasuna eskaini nahi zaio, bere figura nahiz bertsokera aldarrikatuaz. Izandako oihartzunaren dimentsioa Irigarairen artikuluak ematen du:

"La última competición de bersolaris (...) ha sido pródigo en comentarios (...) Bueno será que se saquen algunas enseñanzas, de entre los juicios publicados en los periódicos (...) En *Herria* de Bayona, publicó el donostiarra J. Echaide un sentido artículo en el que denostaba en nombre de sus coetáneos, la grosería cometida con el koblakari Shalbador (...) Entzule en *Z. Argia* (...) Recomienda (...) aprender un poco del vascuence de Shalbador; 'entonces se percatarán de que ningún bersolari ha superado la capacidad y la clase del navarro'.

El conocido escritor *Ayalde* se lamentaba también en *El Diario Vasco* del bochorno sufrido por el fino y sensible poeta navarro, que, a pesar de la conmoción sufrida, añadimos, aún tuvo habilidad para cantar inspiradas estrofas (...) (*Diario de Navarra*, 1967/IX/03, 13 or., 'Apostillas a la final de bersolaris', Aingeru Irigarai *Apat-Etxebarne*)

Zauri hau goxatzea lortu zen, bada: "Herria konturatu zen Xalbador bertsolari aparta zela eta saiatu zen eskuratzen, oso ongi saiatu. Inor baino maitatuagoa izan da gero Xalbador hemen" (Dorronsoro eta Lekuona Berasategi, 1987: 22). Beste zauri batzuk, ordea, irekita gelditu ziren. Honela, epaimahai hartako kide gisa, epaimahaiari egindako mina aipatzen du Juan Mari Lekuonak: "67ko txistualdiarekin, epaimahaia nahikoa erreta geratu zen (...) Bestetik, pixka bat nekatua ere bazegoen, ikusten zuelako herrian edo bazegoela deskontentu-modu bat" (Dorronsoro eta Lekuona Berasategi, 1987: 22). Eta beste biktima bat ere seinalatzen du: "(...) epaimahaiak Xalbador bereizitakoan txapela buruz buru Uztapiderekin jokatzeko,

aretoan entzundako txistuak ez zirela Xalbadorri joak izan, ezta epaimahaiari joak ere; Euskaltzaindiari berari baizik. Aurretik ibili zirela bazterrak berotzen batzuk [Lekuonaren hitzak Esnalen ahotan]” (Esnal, 2008: 87).

6.4.2.2 Oena sariketa (1968)

Lekuona baino gordinagoa da Etxezarreta: “Nolabait ere Euskaltzaindiaren eskutatik bertsolari txapelketa kentzea zen kuestioa...! Eta naiko arazo ezkutak erabiliaz lortu egin zuten, bertan bera txapelketa guziak utziaz eta Euskaltzaindia baztertuaz” (Etxezarreta, 1993: 242). Eta horrela ibili zirenak zein izan zitezkeen iradokitzen ere iristen da: “Kanpotik kritikatzan ari zirenak ikusten degu zer egin zuten, sariketa aundinaiko bat jarri eta ortan bukatu zan dana...” (id.: 242).

67ko finalean aurkezle eta gai-jartzaile aritutako Irigoienek zerbait argi gehiago ematen du:

“PNVko batzuk, izenak ez itzazu jarri, posibilitatea ikusi zuten txapelketen ingurutik dirua lortzeko. Hauek zeharka Lekuonaren baimenarekin txapelketa bat egin zuten gure sistematik kanpo. Bertsolari onenekin bakarrik. Gurea moztuta gelditu zen. Gero beraiek ere ez zuten jarraitu eta gu baztertuta gelditu ginen. Ez dira kontatzeko gustoko gauzak. Alderdikeriaz jokotuta, hobe usteko bat egin zuten, goi mailako bertsolariekin, sari haundiekin. Diru asko irabazi zuten antolatzaileek. Zenbait bertsolari irabazi horien kontra gogor mintzatu zen. Baztertuta utzi gintuzten ordurarte horretan ari ginenok. Ni miseria gorrian aritu nintzen beti” (Sarasua: 1992: 16).

Guztiek 1968ko otsailean ‘Pensos Oena’-k babesletzarekin egin zen sariketa seinalatzen dute, eta antolakuntzan ibili ziren Oñatibiatarrak aipatzen ditu Etxezarretak (1993: 265).

Sariketa berrirako epaimahaitik kanpo utzi zuten Euskaltzaindia: “68koan ez da Euskaltzaindiaren epaimahaia aintzakotzat hartu. Esaten dizute: mahaikoek gutxiago izan behar dute; bertsolaritza hurbil-hurbildik ezagutzen dutenak izan behar dute, etab” (Dorronsoro eta Lekuona Berasategi, 1987: 22). Eta gardentasunaren izenean puntuaketa guztiak bertsoz-bertso jendaurrean emango zirela erabaki zen. Sariak ere beste itxura bat zuten: ‘Oena’-k garaiko 100.000 pezeta jarri ziren irabazlearentzat. Eta txapelketara animatu ez zen hainbat bertsolari garrantzitsuk eman zuten izena: “(...) bertsolari guzti-guztiak presentatu ziren hor, txapelketara joaten zirenak eta ez zirenak, erretiratuta zeudenak, puntakoak behintzat denak” (Dorronsoro eta Lekuona Berasategi, 1987: 22).

Zeruko Argiak, La Voz de Españak, Diario de Navarrak, Anaitasunak eta Príncipe de Vianak eman zuten sariketaren berri. Tartean ‘La industria apoya a la cultura: los bersolaris’ bezalako titular deigarriekin:

“Cuántas veces nos hemos lamentado todos de que nuestra floreciente industria no cuidara más su aportación a la cultura del país. La firma comercial que promueve este concurso da un alto ejemplo invirtiendo casi el medio millón de pesetas (...) Es de desear –y da igual que los fines sean publicitarios- que la industria guipuzcoana apoye decididamente estas y otras manifestaciones culturales (...)” (*La Voz de España*, 1968/II/04, 10 or.. ‘La industria apoya a la cultura: los bersolaris’, Javier Aramburu)

Guztira 17 testu topatu dira sariketaren inguruan, ordea: oihartzun polita baina, besteak beste saio gutxiago izan zirelako, bi baino ez, aurreko txapelketa nagusiek baino apalagoa. Giroak ez zuen hobera egin, gainera. Sariketak jarraitasunik izango ote zuen zalantzan jartzen zen:

“Nos escribe un lector algo alarmado. "Veo anunciado, ya próximo, el "1 Gran Premio de Bersolaris". Tras el éxito de una cafetería, viene siempre la apertura de otra similar (...) pienso que los antiguos organizadores de los campeonatos de bersolaris no se van a atrever a montar un quinto campeonato, dada la diferencia de premios (...) ¿Ofrece continuidad este "gran premio? ¿Supone lo que se organiza mayor ventaja? O ¿mayores inconvenientes?" (El Diario Vasco, 1968/II/92, ‘Escriben los lectores/‘Sobre bersolaris’)

Basarrik, 1962an txapelketak utzi ondoren sariketa honetarako izena ematean⁴⁰⁸, bere neurrira prestaturiko lehia ote zen zurrumurruak indar handia hartu zuen gainera:

“(…) Es un poco extraño el concurso que se nos anuncia: se elige a los participantes a dedo. Hasta ha habido que convencer y sujetar la musa de un poeta. La forma del anuncio parece indicar que todo el bersolarismo depende de un hombre, lo cual puede injuriar no sólo a los demás participantes, sino a los bersolaris en general. ¿Se puede pensar que ya el vencedor está preseleccionado?”.

Zurrumurruak ez zuen erabat asmatu. Xalbadorrek sekulako saioa egin eta biak, Xalbador eta Basarri, eman zituzten garaitzat. Gainerakoan, ordea, nahikoa zuzen zebilen irakurlea.

Sariketak biharamun txarra utzi zuen. Eredu berriarekin kritikoak ziren iritzi batzuk argitaratu ziren: sarien gehiegizkoa, bertsolarien hautaketa, epaimahaiaren osakera etab salatuz (Abel Enbeita ‘Bertsolariak ala ito?’ (1968/II/15) eta Zabale (1968/III/15), biak *Anaitasunan*). Eta erantzunen bat ere izan zuten: “Zuzendari jauna, naiago neban olako idazki memelueri ez erantzun. Nere denporak, ori baiño geiago balio dau gure euskeraren alde; baiña uste oker orreik oindiñok okerragoak ekarri leikiez elako beartu naiz” (*Anaitasuna*, 1968/IV/15, 158 zbkia., ‘*Anaitasunaren zuzendariari, Bertsolari sariketari buruz*’, Juan San Martin)

Bertsolarien ukoak zirela eta ez zirela, epaimahaikoen erabakiak zirela eta ez zirela, saioen antolakuntzatik ateratzen ziren diruak norentzat ote ziren edo ez ote ziren... giroa nahikoa saturatuta zegoela ikus daiteke, eta, itxuraz behintzat, nekea gailendu zen: “Sariketa famatua etorri zan eta gauzak zuzendu be arrear okertu egin zirala esango genduke (...) Euskaltzaindia naikoa minduta erretiratu egin zan ixiltasunean, beste antolatzaile berrien esku dana utziaz, baiña auek ez zuten jarraipenik izan, dana bertan-bera utziaz” (Etxezarreta, 1993: 270).

6.4.2.3 Hernandorenaren azken ahalegina (1968-1970)

Egon zen, hala ere, *impasse* egoera hau hausten saiatu zenik. Lehenengoa, nola ez, Teodoro Hernandorena nekaezina. Prentsan epaimahaiaren osaketa eta epaiketarako irizpideen inguruan arauketa oso xehetu eta landua argitaratu ondoren⁴⁰⁹ Iparraldearen eta Bizkaiaren arteko taldekakoa antolatu zuen, hiru saiorekin: Saran 68ko maiatzean lehenengoa, Parisen 69ko abenduaren 3an bigarrena eta Gernikan 1970eko urtarrilaren 3an azkena. Bizkaitarrek, Azpillaga eta Lopategik, irabazi zuten. Eta herrialdekako bigarren bat ere antolatu zuen jarraian, Gipuzkoa, Bizkaia, Lapurdi eta Nafarroaren artean. Honek ere hiru saio izan zituen:

⁴⁰⁸ Honela esplikatzeko zuen zarauztarrak bere erabakia: “No es éste un campeonato, sino un concurso especial. Yo vivía despreocupado de este género de actividades. Soy muy sensible y he visto que participan todos los que no lo hacían desde hace tiempo, tales como Lasarte, Aguirre, Lazcano ... He tenido muchas presiones. Hasta última hora no he dado el sí. Cuando he visto que se presentaban los antes citados es cuando he accedido.” (*La Voz de España*, 1968/II/04, 13 or., ‘100.000 pesetas para el mejor/Los bersolaris ante el concurso de hoy’, Javier Aramburu).

⁴⁰⁹ ‘Bertsolarien txapelketa nagusia’ (1968/V/30), ‘Bertsolarien txapelketa nagusia. Bertsolarien jokabide barria’ (1968/VI/15) eta ‘Epaiketarako bide barria. Bertsolarien txapelketa nagusia’ (1968/VI/31), hiruak *Anaitasunan*.

Leitzan 70eko apirilaren 26an, Bergaran Maiatzaren 3an eta Gernikan maiatzaren 10ean. Gipuzkoarrak, Lazkano eta Gorrotxategi, garaile.

Ez batak eta ez besteak ez zuten apenas oihartzunik izan medioetan. 15 testu bien artean, oso gutxi sei saio izan zirela kontuan hartuz, Hernandorenak gainera gehienak⁴¹⁰.

Hortik aurrera ez zion segidarik eman. Lasak bi hipotesi aipatzen ditu Hernandorenaren erretiro hau azaltzeko (Lasa: 876). “Bata, Teodorok uste sendoa edukitzea Euskaltzaindiak berehala indartuko zuela Txapelketa Nagusiaren dinamika, eta beraz, bera bezalakoen ahalegin antolatzaileak ez izatea premiazoak. Ez zen harritzekoa Teodoro uste horretan egotea, izan ere, 1970az geroztik maiztasun handiz zabaldu ohi zen Euskaltzaindiak txapelketari berriro helduko zion zurrumurrua (...) Bigarren arrazoia, bertsolari handiak elkarrekin neurtzen ibiltzerik nahi eza litzateke, eta, beraz, trabak jarri izana Teodoro saiatuari, herrialdeen arteko txapelketaren antzekoak antola zitzan”.

Ez zen Hernandorena izan txapelketen dinamika berriro abiarazten saiatu zen bakarra. Alfontso Irigoienek ez, nola ez, egin zuen bere ahalegina. Kasu honetan traba aurrekoak baino prosaikoagoa suertatu zen: “Hainbat urte geroago, politika mundua. ETA eta abar, pilpilean zegoen, eta Lizundia etorri zitzaidan txapelketa bat egin behar genuela. Bizkaiko Garain egitea pentsatu genuen. Joan ginen eta Goardia Zibilek dena metrailetaz hartua zeukaten, eta ezin izan genuen egin” (Sarasua, 1992: 16).

Bategatik ez bazen bestearengatik 1979 urtera arte luzatuko da txapelketen bigarren eten hau.

6.4.2.4 Urteurrenak, Bertsolari-Eguna, gazteen sariketak eta beste

Txapelketa nagusirik ez ospatu izanagatik bertsolaritzak ez zuen presentzia mediatikoa galdu. Beste gisa bateko ekitaldiek hartu zuten protagonismoa.

Esaterako, bertsolari klasikoen jaiotza edo heriotza urteurrenetan ospatzen zirenek oihartzun handia izan ohi zuten: Hamarkada hasieran, 1964ean Fernando Amezketarraren jaiotzaren berrehungarren urteurrenean Amezketako herriak eskaini zion omenaldiak, testu sorta garrantzitsua ekarria zuen prentsara, 16; Xenpelarren heriotzaren berrehungarren urteurrenean Erreterian urte guztian zehar antolatu ziren ekitaldien berri emanaz 23 testu argitaratu ziren 1969an; Bilintxen heriotzaren berrehungarren urteurrena gogoratzen zuten ekitaldien inguruan 29 testu 1976an; edota 1978an Iparragirreraren itzuleraren berrehungarren urteurrenaren kariatz antolatu zirenen inguruan 18.

Bertsolari garaikideei eginiko omenaldiek ere arrakasta handia izan zuten. Txapelketan eten eta urtebetara, 1968an antolatu zen lehenengoa:

“1968. urtean hasi zen antolatzen. KTE erakundeak –Donostiako Kultur eta Turismo Ekintzetxeak– San Sebastian jaiaren barruan bertsotarako plaza bat jarri nahi izan zuen. Orduko txapelduna, Manuel Olaizola “Uztapide” izan zen omendua estreinako urte hartan. Lehenengo hura polito joan zenez, KTEk antolatzen segitzea erabaki zuen. Bertsolari Eguna izena hartu zuen eta garaiko bertsolari ugariren omenaldi eguna izan zen urte askoan.” (Mujika Telleria, 2015: 23)

1994 arte luzatu zen Bertsolari-Egunaren tradizio hau. Urte hartan Elkarteak Bertsolari-Eguna Bertso-Egun bihurtu zuen eta gaur daukan funtzioa eman, bertsolaritzaren inguruko

⁴¹⁰ Parisekoaren inguruan, esaterako, hamar urte lehenago Hernandorenak berak Parisen sekulako oihartzunarekin antolaturikoarekin kontrastean, ez da erreferentzia bat bera ere topatu.

gogoetak eta esperimenduak plazaratzea. Aztergai dugun Frankismo Garaiko zikloan, bada, urtero ospatu zen ekitaldia, 1971 eta 1980ko salbuespenekin⁴¹¹. 1968an, esan bezala, Uztapide omendu zen⁴¹², 1969an Xalbador, 1971n Lasarte, 1972an Mattin Treku, 1973an Basarri, 1974ean Balendin Enbeita, 1975ean Pedro Ortuzar *Iturri*, 1976an Lazkao-Txiki, 1977an Jose Lizaso, 1978an Mitxelena eta 1979an Jose Agirre⁴¹³.

Lehen urteetan Astoria antzokian, gero Carmelo Balda pilotalekuan, eta azkenik Anoetakoan ospatu izan zen ekitaldi hau oso jendetsua izan ohi zen, eta prentsaren arreta erakartzea lortzen zuen.

Ekitaldi jendetsuak izaten ziren, Donostiako Udalaren laguntzarekin lehengo urteetan Astoria antzokian gero Carmelo Baldan eta geroago Anoeta pilotalekuan ospatzen zirenak, eta hamarkada horretan, lehen mailako bertsolarien txapelketarik egin ez zelako agian, medioen arreta erakartzea lortzen zuten. Lasarteri 1971n eskainitako Bertsolari-Egunaren inguruan, esaterako, 16 testu argitaratu ziren prentsan; Mattini hurrengo urtean eskainirikoak 12 testu ekarri zituen; hurrengoan Basarriri eskainirikoak 14; Balendik Enbeitari hurrengoan egin zitzaion omenaldiak 10...

Testu hauek, ekitaldiaren berri emateaz gain, omenduriko bertsolariaren figuran eta ibilbidean sakontzeko baliatu ohi ziren normalean.

Bestelako omenaldien berri ere eman izan zuen prentsak. 1974n burutu zen bertsolari zaharren omenaldi ekitaldiak, adibidez, prentsaren interesa piztu zuen (15 testu), eta 1975ean bertsolarien emazteen eguna ere egin zuten, prentsako aipamen batzuekin (hiru testu). Bestalde, nolabaiteko egoera txarrean egon zitezkeen bertsolariei laguntzeko ekitaldiak ere antolatu izan ziren. Manuel Lasarteren alde, adibidez, ekitaldi bat baino gehiago egin zen bere gaixotasunak zirela-eta, eta, hain zuzen, omenaldi hauek zirela medio prentsan pilaturiko oihartzunak bultzada emango dio bertsolari honi ziklo honetako bertsolari mediatikoenen artean sartzeko.

Azkenik, txapelketa nagusirik ezean, gazteen edo bigarren mailako bertsolarien sariketek ere protagonismo handiagoa hartuko zuten: “Baina goazen 68.tik 80.ra bitarte horren ildo nagusiak ematera. Alde batetik garai horretan txapelketa nagusirik ez zela izan esan badugu ere, beste maila bateko txapelketak asko zabaldu ziren, gazteen artekoak batez ere” (Amuriza, 1987: 36). Etxezarretak (1993: 270-271) zerrendatzen ditu hainbat: Añorgan Joxe Mari Aranalde antolaturiko Orixe eta Antton Aranburuk antolaturiko Saizar sariketak; Idiazabalen Jesus Azurmendik antolaturiko Zepai eta Ampo; Gabirian Osinalde saria, Eusebio Igartzabalen eskutik; Zaldibian Rufino Iraolak martxan jarri zuen Artxanberri; Zarautzeko Lizardi saria, Pedro Artetxek sustatua; Mallabiako gazte talde batek antolatzen zuen Bizkaiko Bertsolari Gazteen saria; Lesakan Dionosio Mujikak zeraman Nafarroako Bertsolari Gazteen Saria; Errenderin antolatzen zen Xenpelar saria; Mendarokoa, bertako elkarte batek antolatua; eta Urolaldekoa, Zumaiaiko elkarte batek eskutik.

⁴¹¹ Lehenengoaren ospakizuna gobernu frankistak ezarritako salbuespen egoerak galarazi zuen. Bigarrenarena hainbat gertakarik: “1979. urteko bertsozaleek Imanol Lazkanoren aldeko boza eman zuten hurrengo urtean, 1980. urtean, omendua izan zedin Bertsolari Egunez. Baina Lazkanok ez zuen onartu, 43 urterekin omenaldirik ez zuela behar esanez. Hartara, bigarren bozkatuena izan zen Etxahun Iruriko omentzea erabaki zuten antolatzaileek. Baina, gauzak zer diren, Etxahun omenaldiaren eguna baino lehen hil zen. Dagoeneko entzuleek aukeratzeko tarterik ez zuten, 1980. urtean ez zen omenaldirik izan” (Mujika Telleria, 2015: 26)

⁴¹² “Omenaldira bildutako entzuleek erabakitzen zuten hurrengo urtean zein izango zen bertsolari omendua. Hartara, sarrera txarteletan jartzen zuten omendua izatea nahi zutenaren izena” (Mujika Telleria, 2015: 26).

⁴¹³ Hortik aurrera Paulo Txikia, Loidisaletxe, Mugartegi, Xanpun, Txomin Garmendia, Egileor, Patxi Etxeberria, Jon Azpillaga, Madariaga anaiak, Lexoti... 1991ean omenduen alorra zabaldu eta eragileak ere omentzea erabaki zuen Elkarreak, baina guzti hauek une honetan aztergai den ziklo honetatik kanpo gelditzen dira.

Sariketa hauek ez zuten oihartzun handirik izaten medioetan, baina asko antolatu ziren eta gisako 55 testu bildu ahal izan dira ziklo guztian zehar, gehienak azken hamarkadakoak.

6.4.3 Gorbatarik gabeko bertsolariak

6.4.3.1 Aurreko belaunaldia agorturik

Uztapide, ziklo honetako txapeldun handia, mutu gelditzen zen bertso-saio baten erdian:

“1972ko (...) apirilaren 30a zen eta bertso saioa zen Anoetako (Donostia) Atano III. Pilotalekuan. Kantari, Joxe Lizaso, Joxe Agirre, Gorrotxategi, Mattin Treku, Xalbador, Azpillaga, Lopategi eta zortziek ziharduten, gai jartzaile lanetan, berriz, Joxe Mari Iriondok. Bakarkako lanerako deitu zion horrek Uztapideri, eta ohi baino denbora gehiago hartu zuen. Bertsoa kantatzen hasi, eta gelditu egin zen; berriz ekin, eta ez zitzaion esandakoa ulertu. Buelta erdia eman eta bere lekuan eseri zen Manuel.” (Martin, 2009: 36)

Xenpelar Dokumentazio Zentruan aurki daiteke audio hura eta benetan zirrara eragiten du: ‘Barkatu’ da txapeldun handiari ulertzen zaion hitz bakarra.

Medikuarengana eraman zuten saioa bukatu bezain pronto eta bihotzekoa izan zuela argitu zuen honek. Zestoarrak ezin izan zuen gehiago jendaurrean bertsozik eskaini. Azpillagak saio hartan emandako agurrak erakusten du bertsolariak zeukan itzala eta bere hutsuneak suposatzen zuen galera: “Bertsolarien buruzagia/ hartu baitigu ondoezak/ ta haren partez agurtutzea/ ongi iduritutzen zat;/ agur ta txalo eder bat danok/ Uztapide zarrarentzat/ oker bat gertatu izan zaigu/ ta hartzekua da aintzat” (Martin, 2009: 36)⁴¹⁴.

Hamarkada bat bazen Basarri txapelketetatik erretiratu zela. Lasarte ere ondoezik zebilen. Xalbadorren heriotza tragikoa etorriko zen 1976an, bere omenaldi egunean gertaturikoa... Ziklo hau bere gailurrera eraman zuten bertsolariak agortzen hasiak ziren 1960ko hamarraldia bukatu zenerako. Haustura dator hor ere, eta belaunaldi berriari tokatuko zaio bidea egiten jarraitzea. Honela adierazten dute Joanito Dorronsorok eta Juan Mari Lekuonak:

“(…) Uztapidek bere bizitza idazteak, etab., esan nahi du, bertsolaritza prosagintzaraino heldu den honetan —gogora Lasarterena, Xalbador-ena—, belaunaldi honek bere gorena jo duela. Proiektua bete du. Eta inguru honetantsu Uztapide ere isildu egiten da, lehen Basarri bezala (...) Edozein moduz ere, gogor samar esanda, 67/68 aldera, beranduenik Auspoa-ko liburu horiekin, gizaldi hau beheraka sartzen da. Uztapide, Mattin, Xalbador bera laster. Emateko hoberenak eman balituzte bezala, AUSPOA-ko liburu horiek testamentu antzera ikus genitzake, bai Uztapiderena, bai Xalbador-ena. Jarraiko urteetan ikusten duguna, belaunaldi berri baten errelebu da, oro har.” (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 21)

⁴¹⁴ Garaiko prentsan ere topatu ahal izan da gertakariaren erreferentziaren bat: “Eguna ere ez ain egokia eta eguraldia, berriz, mendirutz bultzatzen zuena. Jaialdiaren berria ere gutxi zabaldua eta berandu (...) Ez zan Anoetako pelota-lekua geiegi betetzerik izan (...) Ezbear txiki bat izan zan tartean: Uztapideren ondoeza. Baiña oni zaion maitasuna agertzeko egokiera izan zuen jendeak: Zenbat txalo Uztapideri! Ezin eta obeto amaitu zuen Azpillagak agurra, Uztapideren izenean” (*Zeruko Argia*, 1972/V/14, 2 or., ‘Bertsolariak jai’, Mikel Atxaga, *Mutiozabal*)

6.4.3.2 Bertsolaritza soziala: Amurizak Lopategiri eginiko elkarrizketa

Belaunaldi berriak harturiko protagonismoa seinalatzen du Garziak ere: “En la década de los setenta, prácticamente retirados del circuito bertsolarístico Basarri y Uztapide, el protagonismo recae en los bertsolaris que habían aparecido en escena a raíz de los campeonatos de la década anterior” (2000a: 451). Eta protagonismo berriari jarrera berria lotuko dio: “A medida que se percibe el fin inminente del dictador, aumenta la necesidad de decir las cosas de una manera más directa, con o sin permiso de la autoridad gubernativa”.

Testuinguru berriak bertsogintza berria dakar beste behin. Dorronsorok honela azaltzen du:

“Onena'-ren Sariketaren ondoren hilabete-pare batera gertatzen da Etxebarrietaren hilketa, ondoren etorri den guztiarekin. Giroa oso bestelakoa da. Gaien aldetik egundoko aldakuntza dator, ezta?, eta gaien trataeran ere bai. Nolabait, bertsogintzari ondo datorkio, gehiegikeriak aparte, kontrabandoko mezu bat transmititzen aritzea. Edozein gai jartzen zitzaiela, bertsolariek aterako zioten puntta politikoa.” (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 22)

Amurizaren kontakizunak ere beste hainbeste dio:

“Burruka armatua sortu zen, apaizak “lotsagabeturik” zebiltzan, gazteriak egundoko sua zekarren, adin gehiagokoez, gerran ibiliek eta beren baitan abertzale mina gorderik zeukatenez, pozez eta emozioz ikusten zuten “buelta” hura. Gizarteko estamentu guztiak ukitu zituela mugimendu hark esan liteke (...) bertsolaritza ere harrapatu zuen, gai politikoez garrantzi handia hartzen zutelarik (...) gai sozialak ere sartzen hasi ziren, besteak baino ahulkiago bazen ere. Grebak eta gainerako arazo sozialak gero eta leku gehiago zeukaten bertsogintzan” (1987: 33)

Saltsa hartan barruraino sartuta zebilen Amurizak Lopategiri *Anaitasuna* aldizkarirako 1967an egindako elkarrizketak ezin hobeto islatzen du bertsolaritza sozial honen izpiritua. Eta badu bestelako esangurarik ere, bertsolari batek beste bertsolari bati eginiko lehen elkarrizketa baita, bertsolariek eremu mediatikoan inolako bitartekotzarik gabe, berezko ahotsaz, aritzeko garatzen ari diren gaitasunaren erakusle:

“— *Gaurko Euskalerrriak ze bertso-tankera eskatzen dauala uste dozu, bertso-gaiari begiratu batez be?*

— Gaurko Euskalerrriak gaurko gaiak eta gaurko bertsolariak gura ditu. Bertsolaria barre eragiteko bakarrik ezta, batez beerriaren itxartzalle baño. Eta erririk ezin leiteke itxartu gai sakonak eta gaur-gaurkoak sarriago erabili ezik.” (*Anaitasuna*, 1967 urria, ‘Yon Lopategui, Bertsolari Aundia’, Xabier Amuriza)

Gerra aurretik Lauaxeta edo Basarrik egiten zuten bezala Kepa Enbeita hartzen da eredutzat, ordura arteko bertsolari politikoa:

“— *Euskalerrrian izan diran eta gaur dagozan bertsolari guztietatik bateri monumentu bat egitekotan, zein aukeratuko zeunke? Zegaitik?*

— Kepa Enbeita. Bere momentuari beste inok baño obeto erantzun eutsolako, gaurko ta aurrerantzeko bertsolarien eredu edo ejenplutzat jarritea merezi daualako.” (*Anaitasuna*, 1967 urria, ‘Yon Lopategui, Bertsolari Aundia’, Xabier Amuriza)

Arestik eskatzen zuen bertsolari eredia, kritika sozialera bideraturikoa, nagusituko da. Baina sagardotegira bueltatu beharrik gabe, berriro ere bertsolari jantzia jartzen baita xedetzat.

Tradizionalismoak, *sano regionalismo*-ak, hainbeste maite duen behe kulturaren irudikapen horrekin hautsi nahi da ezbairik gabe:

“— *Bertsolaritza barriztatzeko ta gaurkatzeko ze bide ikusten dozu ta nundik jo bear dala uste dozu?*”

— Bide bakar bat baño eztago: Kulturadunen artean bertso-zaletasuna sortuarazotea, edo obeto esanda, bertsolari sentitzen diran gazteai al danik jakintza aundiena emotea. Muniategi lako dozenerdik Euskalerrria euren donura dantzatuko leukie.” (*Anaitasuna*, 1967 urria, ‘Yon Lopategui, Bertsolari Aundia’, Xabier Amuriza)

Muniategi jartzen du Lopategik adibide gisa. Hain zuzen ere hilabete batzuk lehenago Amurizak berak iruzkindu eta goratu zuen. ‘Abel Muniategi bertsolari eta unibertsitario/Bertsolaritza bide barriak zabaltzeko kapaz da’ zeraman izenburutzat testu hark, *Zeruko Argian* argitaratu zen kasu honetan, eta honela egiten zion sarrera Amurizak:

“Bertsolaria ta bertsolaritasuna, oraiñarte behintzat, geien batez baserriari eta langille-gendeari loturik egon da. Bertsolarien artean, naizta azkarrak eta burutsuak izan, eskoladun gitxi daukagu oraindik. Orrezgañera edo orrexegatik bear bada, bertsolaria modatik pasatzeko arriskuan dago, gazte-entzule askoren belarrientzat gaurkotasunik eztaukan antxiñako ots besterik ezpaita (...) Euskalerrri barri bat altza naiez ari dan gazte (...) oneitariko asko dagoz bertsolaria euskal-kontzientziaren pizgarri bezela aintzat artzen eztabenak (...) Origaitik aspaldiz nengon bertsolari gazte baten izena *Zeruko Argira* ekarri naiez, naizta ia askok lendik ezagutu, gaztea, eskolatua eta gaurkoa dalako.” (*Zeruko Argia*, 1967/II/26, 12.or.. ‘Abel Muniategi, bertsolari ta unibertsitarioa. Bertsolaritza bide barriak zabaltzeko kapaz da’, Xabier Amuriza)

Bertsolariak herriaren ahotsa behar duela aldarrikatzen duen Muniategiren bertsoa azpimarratzen du, besteak beste, Etxanokoak: “(...) Altaboz on bat izatia da/ bertsolariaren lana/ ni ez naiz emen zure aurrian/ zerbait esaten dedana/ Euskalerrria bera da gure/ agoz kantatzen dauana” (*Zeruko Argia*, 1967/II/26, 12.or.. ‘Abel Muniategi, bertsolari ta unibertsitarioa. Bertsolaritza bide barriak zabaltzeko kapaz da’, Xabier Amuriza). Baita bertsolaritzaren berritzeko grina, eta aldaketa politikoeikiko konpromisoari abesturiko hau ere: “Aurreratuz doa erria/ mudantzak datoz aukeran/ ta zuk diñazu bertsolaria/ ia estankatu ote dan./ Gaurko mensaje barria dator/ guk darabilgun euskeran/ itz egiteko deretxua ezin/ ukatu leike ezelan/ bertsolariok kantauro dogu/ plazan ez bada kartzelan”. Eta honela bukatu: “Muniategi orrexegatik da aipagarri: gaurko giroko ta sentikerako gurpilla dakarrelako. Orregatik nun nai aparteko txalo biziak aterako ditu, bertsoren batean gaurko problemaren bat sakon eta garratz adieraziko dau-ta.” (*Zeruko Argia*, 1967/II/26, 12.or.. ‘Abel Muniategi, bertsolari ta unibertsitarioa. Bertsolaritza bide barriak zabaltzeko kapaz da’, Amuriza).

6.4.3.3 Debekuak eta zigorrak: Azpillaga eta Lopategiren ausardia

Jon Azpillaga (1935-2017) eta Jon Lopategik (1934-2019) ez zuten behar izan Atxagak zirika zitzan. Biak altxamendu militarren bezperatan jaio ziren eta barru-barrutik pairatu zuten gerra bidegabe haren sufrimendua: “Azpillagaren aita, Itsasalde batailoiko gudaria, 1937ko maiatzaren 9an hil zen gerra frontean, semeak hamasei hilabete zituenean eta emaztea haurdun zuenean. Lopategiren aita, ostera, kartzelatu egin zuten bi lehengusu Artxandan galdu ondoren” (Larreategi, 2012: 20).

Lopategi 1961eko edizioan Bizkaiko txapeldun atera zen, Azpillaga 1962koan, eta handik aurrera elkarrekin aritzeko deitzen hasi zitzaizkien plaza askotatik. Bertsolari asko eta belaunaldi gazteeneko gehientsuenak lotu zitzaizkion bertsolaritza sozialaren olatuari, baina garai batean Basarri eta Uztapide bezala herriz-herriko ibilieran bikote artistikoa osatu zuten muxikarra eta mutrikuarra olatu honen ikur bihurtuko dira. Honela aitortzen du Dorronsorok: “Txapelketarik egon ez den denboraldi horretan—jaialdiak, ordea, asko egon dira— esan dugun Azpillaga eta Lopategiren bertsogintza soziala desarroilatu da. Bueno, ez horiena bakarrik. Herriz herri dabilzan guztiena”⁴¹⁵ (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 21). Baita Garziak ere: “Un bertsolarismo más directamente político-reivindicativo se impone poco a poco (...) Destacan en esta época dos bertsolaris, Jon Lopategi y Jon Azpillaga, vizcaínos los dos, el primero de nacimiento y el segundo de adopción” (2000a: 451). Edo Amurizak: “Joera berri honen aintzindariak Lopategi eta Azpillaga izan ziren. Basarri eta Uztapide bikotea hain ezaguna izan zen bezala, garai honetan bizkaitar bikote gazte honek arrakasta izugarria hartu zuen, nonahitik zetozkien deiei abastorik eman ezinez” (1987: 33). Larreategik azaltzen du arrakasta honen neurria: “(...) urte berean sei aldiz izan ziren Zaldibian eta Ataunen (...) egun berean lau saio behin baino gehiagotan egin zituzten. Lopategik haietako egun bat gogoratzen du oraindik: 12:00etan Artean izan ziren, 14:00etan Miraballesen, Munitibarren 17:00etan eta Gizaburuagan 21:00etan” (2011: 21-22).

Aho bizarrik gabe abesten zutelako deitzen zituzten batetik eta bestetik: “Dударik gabe, jorratzen zituzten gaietan topatu behar dugu bikotearen arrakasta (...) herrietako arazoez eta bestelako ohiko gaiez ere aritzen ziren bertsotan, baina biek aitortzen dutenez, publikoak zirikatzea eta egurra ematea exijitzen zien; politikaren alorrean gertatzen zirenei buruz abestea” (Larreategi, 2011: 28).

Bota ohi zituzten bertsoen adibide asko daude jasota batean edo bestean. Bi hauek, esaterako, egun ere zigortuak izango lirateke ezbaierik gabe:

“Hona Azpillagak garai hartan botatako bertso baten azken bi puntuak: Guardia Zibilak joango balira/ ta gu utzi bakarrikan,/ orduan ez zen hemen izango/ metraileta beharrikan. (...) Lopategi ere ez zen atzean gelditzen: armak hartuta legien kontra/ bestien lurra berendu/ berak indarra daukatelako/ txiki daneri gailendu/ arma beharrik gaur ez litzake/ elkar maiteko bagendu.” (Paya, 2013: 54-55)

Lehenengo isuna Urnietan abesturiko saio baten ondoren etorri omen zitzairen. Azpillagak Franco gaixorik zegoela bota zuen eta Lopategik belar txarra ez dela errez garbitzen erantzun. Herriko gazteek ordaindu zuten orduko hartan isuna. Gehiago etorri ziren ordea: “Honezkero kontua galdu duten arren, 7.500 eta 10.000 pezeta arteko bospasei multa behintzat jarri zizkieten hamarkada batean” (Larreategi, 2011: 39). Eta isunen ondotik guardia zibilen bisitak eta kuartelerako hainbat-joan etorri. Baita debekuak ere: 1967tik 1970era eta 1972tik 1975era plazan aritzeko debekua ezarri zion bikoteari Bizkaiko Gobernadoreak. Karteletan beste bertsolari batzuren izenak jarriaz plazak egiten jarraitu zuten, ordea. Honela azaltzen du Azpillagak: “Gu horretaraxe jarri ginen eta benga! Guardia zibilak eta txibatoak bazter guztietan egoten ziren. Baita Iparraldera joaten ginenean be. Askotan, saio biharamunean

⁴¹⁵ Imanol Lazkanok, esaterako, garai hartan bertsolari gazte baita, honela kontatzen du bere esperientzia: “Bertsolari sentitzen ginen, Lekuona jaunak zioen bezala herriaren ahots baginen, ezin genuen hutsik egin. Guk esatea ez dakit ondo dagoen’ dio Lazkanok, ‘baina gure hondar alea jarri genuelakoan nago. Gainera, herriak egarri biziz entzuten zituen. Gauzak esateko beste bide guztiak kontrolatuta zeudenez, apaiz batzuek elizan eta bertsolarien plazan bakarrik genuen aukera.” (Barandiaran, 2011: 20)

tailerrera guardia zibilak agertu eta koartelera, zer esan genduen eta multa eta kristoa. Baina segi!” (Barandiaran, 2011: 20).

Kartzelan ere egin zituen egun batzuk Lopategik, bertsotan egiteagatik jarritako isunak ordaintzeari uko egin ziolako, ‘arresto sustitutorio’ zeritzona betetzen (X. Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02).

Ez ziren, noski, gisa honetara ibili ziren bertsolari bakarrak. Joxe Agirre, Joxe Lizaso, Lazkao Txiki, Gorrotxategi, Igartzabal eta bera ere aritu izan zirela aipatzen du Lazkanok (Barandiaran, 2011: 20). Txomin Garmendia ere aitutzen du Lopategik (Larreategi, 2011: 41). Lazkao-Txikik guardia zibilekin izandako pasadizoa, esaterako, ezaguna da oso: “¿Y qué van a cantar ustedes?”. “No sabemos”. “Pues vaya cantaores de los cojones” (Barandiaran, 2011: 20).

Lazkao-Txikiri jazotakoa Getariako saio batera bidean izan zela gogoratzen du Iriondok, eta bera aurkezle zen saio batean, Uztapideri bihotzekoak eman zion hartan, gertaturikoa kontatzen du:

“Uztapide bera, Joxe Lizaso, Gorrotxategi, Azpillaga eta neuri isuna ezarri ziguten. Gaia zera zen: “Odolkiak ordainetan”, eta itzulpena egiterakoan, “una tradición antiquísima en el país” jarri nuen. Uztapide zen hasten, eta “nola egingo ditugu ba odolki onak, zerririk haundienak Madrilen daude eta” bota zuen, eta Lizaso-Gorrotxategi-Azpillagak bide berdinari jarraitu zioten. Garai hartan Carlos Claveria zen Gipuzkoako Delegacion de Turismo buru zebilena eta ez zen inor bakean uztekoa. Ez dut esango nor zen, baina badakit “txibatza” zein “euskaldun jatorrek” sinatu zuen bakoitzari berrehun pezetako isuna proposatuz.” (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

Zavalak, berebat, Arruek Lazkao-Txikiren alde egindako gestioak aipatzen ditu:

“Igande batez, ez dakit zein urtetan, bazkalondoan, telefono dei bat izan zuten Arrueren etxean. Nor izango eta:

–Xalbador bertsolaria nauzu. Goierriko alako erritan naiz, bertsotara etorria. Lazkao-Txiki ere kantatzekoa zen, baiña zensurak galera egin dio. Ez al zenuke aren alde zerbait ere egingo, emendik aurrera eragozpenik izan ez dezan?

–Bai. Aalegiñak egingo ditut–erantzun zion Arruek.

Ala, urrengo egunetan ate joka jardun zan, Lazkao-Txikiri mesede ori egitearren, bertsolari au ere asko maite baitzuen.” (Zavala, 2008: 21)

Amurizak ere badauka: “Neuri ere gertatu zitzaidan Izurtzako ermita batean Santa Agedan, Abel Enbeita eta biok kantuan, ni gazte-gaztea sotanarekin, eta dantzariak ikurrina atera zutelako Goardia Zibila agertu eta arrapaladan handik ihesi joan beharra” (X. Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02).

Harrigarriagoa dena, baita Sarrionaindiak ere: “Ni bertsolaritza zela-eta egon nintzen lehenengoz Guardia Zibilaren kuartelean, ez preso, teknikoki, baina preso sentsazioarekin” (2015: 10). Abel Muniategiren hitzaldi bat antolatu zuten eta honek Mugartegi ekarri hitzaldia bertsoekin osatzeko :

“Gu, saiatu ginen esplikatzan Mugartegiren parte hartze laburrak bertso inprobisatuak zirela. Ez zirela abesti subertsiboak, baizik bertso-neurrien eredu adibide inprobisatuak. Guardia zibilak ez zuen gure aitzakia ametitzen:

‘¡A mí no me importa que improvisen, lo que quiero es la letra de la canción con una semana de antelación, traducción y dos copias!’” (Sarrionaindia, 2015: 11)

Garaiko prentsan, batez ere *Anaitasunan*, hainbat testu topa daitezke debeku eta zigor hauek salatuaz. Arantza Lasak, esaterako, Azpillaga eta Lopategiri elkartasuna adierazten zien 1969ko abenduan: “Eta orain, gaurko bertsolari biren egoera azaldu gura dot. Biak dira bizkaitarrak, biak egiaren burrukalari, biak Erriaren albistari. Orain kastigatuta dagoz: Gipuzkoan kantatzea debekatua dauke (...) Ezin gaitkez isilik egon bertsolari honeen egoera ikusirik (...)” (*Anaitasuna*, 1969 abendua, ‘Bertsolari bi’, Arantza Lasak). Xabier Gereño da kezka agertzen duen beste bat: “Zer gertatzen da bertsolariekin? Hauen jaialdi gehienak debekatuak izaten dira; eta horrek arrisku bat dakar: gure kulturako landararik balotsuenetariko batek fruiturik ez ematea, behar den moduan hazteko aukerarik ematen ez zaiolako” (*Anaitasuna*, 1972/I/15, 2 or., ‘Herriz-herri. Bertsolariak’, Xabier Gereño). Eta urtebete beranduago antzeko hitzak dakartza: “Urteak dira Bizkaian bertsolariak entzuteko erarik eduki ez dugula, agintariek baimenik ematen ez dutelako. Ezagutzen ez dena, ez da maitatzen; eta gure belaunaldi gaztea aurrera doa, bertsolaritza zer den ezagutu gabe” (*Anaitasuna*, 1973/I/30, 9 or., ‘Neure lantokitik atala/Bertsolariak’, Xabier Gereño). Armendaritz izenordearekin sinaturik dator hurrengoa: “Durangoko liburu azoka zela eta bertsolariak egotekoak ziren Andre Dona Mariaren elizaren aterpean, bai eta hazilaren 11n, Lekeition E. M. Azkueren omenaldian. Bizkaiko gobernadoreak, ordea, ez du horretarako baimenik eman (...)” (*Anaitasuna*, 1973/XI/15, 6 or., ‘Gure munduko albisteak/Bertsolariak galerazirik’, *Armendaritz*).

Debekuek eta zigorrek ez zuten, ordea, Gereñoek kezka iradokitzen zuen bezala belaunaldi gaztearen arreta urruntzen. Alderantzizko efektua zutela esan daiteke: “Anekdotak hori kontatzen dut, bertsolaritza ezezaguna zelako, oso baserritarrekin lotua, eta geuri ere, debekatua eta marjinala zelako interesatzen zitzaigulako. Zeren gu ja bertso libreen haritik gindoazen. Ezra Pounden eta Gabriel Arestiren haritik, poesia egiteko orduan” (Sarrionaindia, 2015: 11).

6.4.3.4 Barne arrakala: Loiola Irratiko sariketaren boikota

Bertsolaritza soziala ez zen guztien gustuko suertatu, noski: “Joera horrek zenbait jenderengan muzina eta azpijana sorrerazi zuen, gisa honetako esamesak zabalduz: ‘Hori ez duk bertsoaketa, politika baizik’. ‘Orain bertsolari txarra ere ona izan zitekeek, politikan pixka bat sartuz gero’” (Amuriza, 1987: 33).

Basarri bera, esaterako, deseroso agertzen da egoera berriarekin:

“Politikan sartu ezkerreko, onengatik edo arengatik egundokoak esan ezkerreko, txalorik zaratatsuenak irabaziak (...) Berdin da bost xentimo balio ez duan bertsoa bada (...) Beste batek mundukorik onena kanta dezala, ta iñor iraintzen ezpadu, politika kutsurik ezpadu, ixiltasun nabarmena (...) ez dago txalorik eta esker onik.” (*Goiz-Argi*, 1977/XI/05, ‘Bertso jaialdiak obetzeko’, Iñaki Eizmendi *Basarri*)

Politika gaiez haratago egiten den bertsolaritza aldarrikatzen du:

“Politika bearrezkoa da, errigintza dalarik. Guk ere ba-degu geurea, ta txalogarri derizkiogu gaiñontzekoek izatea.

Bertsolari jaialdi bat, ordea, ez da mitin bat bezela. Bertsozale purrukatu diranak bertsoak entzutera joaten dira, ta ez mitiña entzutera.

Politikari bere sailtxoa emanarren, andik kanpo egiteko aundiak ditu bertsolariak. Sail zabalagoak, alegia, ontaz eta artaz itzegiñaz.” (*Goiz-Argi*, 1977/XI/05, ‘Bertso jaialdiak obetzeko’, Iñaki Eizmendi *Basarri*)

Deigarria suertatzen da gerra aurretik bertsolaritzaren egiteko politikoa aldarrikatuz argitaratu zituen hainbat testurekin alderaketa egitea⁴¹⁶. Esaterako, 1935ean *El Día*n argitaraturiko hau: “Euskera apaindu ta goraltzen, aberriari abesten, Abenda edo ‘arraza’ zarra indartzen (...) ta beste olako gauzetan lenen lenengo beardu bertsolariak, askotan izlari askok baño geyago egin lezakete ta. Bide ontatik jokutzen diran bertsolariak, Euzkadi gure aberri maitearen aldezerik bikañenak dira” (*El Día*, 1933/XII/22, ‘Bertsolariak’, Iñaki Eizmendi *Basarri*)

Bistan denez ez zaizkio alferrik pasa berrogeita lau urte. Ez da, ordea, bertsolaritzaren politizazio horrekin disgustura dagoen bakarra. Zalegoaren zati bat bertsolaritzatik urruntzen ari dela abisatzen du zarauztarrak *Goiz-Argi*ko artikuluan: “Benetako bertsozale urrutiratu oiek inguratu bear dira berriro. Ortarako, ordea, iñoiz utzi bear etzan bide zuzenari ekin bear dio jendeak” (*Goiz-Argi*, 1977/XI/05, ‘Bertso jaialdiak obetzeko’, Iñaki Eizmendi *Basarri*).

Amurizak hainbat ñabardura egiten dizkio Basarrik planteatzen duenari. Honela, politizazioa gorabehera beste esparruak ere jorratzen zirela dio batetik: “(...) bertsolari haiek ez zuten ‘bertso politikoa bakarrik’ egiten, ‘bertso politikoa ere bai’ baizik (...) Bertsolaritza zaharreko jolas edo ziri bertsoari eutsi beharra zegoen eta eusten zioten. Eta batez bestekoa joez gero, umorezko bertsoak gehiago ziren bertso politikoak baino” (1987: 34). Bestetik, bertso politikoa bertsolaritzaren historiako ziklo guztietan eman izan zela gogorarazten du: “Bertsolaritza-ren historian zehar izen haundirik gehienak izan dira bertsolari “politiko-sozialak”. (...) Xenpelarren bertso sortarik kantatuena beharbada “Ia guriak egin du” izan-go da, guztiz politikoa (...) Txirrita oso bertsolari politikoaizan zen eta ez dago bere lanari begirada bat botatzea besterik” (Amuriza, 1987: 36). Aldi berriaren nobedade nagusia formatuan legoke Etxanokoaren iritziz: “Hirurogeitik hirurogeita hamarrera bitarte horretan gertatu zen nobedadea ez zen hainbeste bertso politikoa populartzea, gai horiek bapateko bertsoketara pasatzea baizik. Txirritak bertso jarrietan egingo zukeena hauek bapateko saioetan egiten zutela (...)” (1987: 34)⁴¹⁷. Hamarraldi hauetan jarriak izandako motelaldiarekin lotzen du, azkenik, aldaketa hau.

Ñabardura hauek garrantzitsuak izanagatik bistakoa da Basarrik iradokitzen duen barne arrakala hori egiaz ematen dela. Eta badirudi abertzaletasunak ezker abertzalearen garapenarekin bizi duen barne arrakalaren isla litzatekeela. Honela azaltzen du Koldo Tapiak Barandiaranen liburuan:

⁴¹⁶ Ik. 5.3.1.2 basarri, hautagai perfektua (1913-1999) eta 5.3.4.2 basarri elkarriketa *Argian* (1935)

⁴¹⁷ Bertsolaritzak beti izan duen izaera soziala Zavalaren aipu honek ere azpimarratzen du: “Todas las cuestiones laborales y sociales de nuestro pueblo han tenido reflejo en los bertso-paperas. Una edición cronológicamente ordenada de este material daría incluso una exacta visión de la transformación de los modos de vida y de trabajo del país” (1996c: 232-233). Eta bertsolaritzaren izaera politikoaren historiari Xabi Payak ematen dio errebasoa ‘Komunitate inprobisatuak’ (2012) lanean. Etxahunen, Xenpelarren, Iparragirrenen, Otañoren, Elizanbururen, Txirritaren, Basarriren, Uztapideren eta Xalbadorren bertsoetan ideología politikoak utzitako markak aztertzen ditu, Lopategi eta Azpillagarekin berdina egin aurretik.

“Tapiak esplikaturakoaren arabera, bi joera zeuden nagusi: bata balio tradizionalan oinarritzen zuena —moral kristaua, ohitura zaharrak, errespetua...—, eta bestea nahas-mahas handi batean frankismoaren kontrako borroka giroan sortutako joera —tradizioa bai, baina eguneratuagoa; erabakietan esku hartzea; independentzia; moral irekiagoa...—. Parametro horietan erabaki behar zuen bertsolariak bere jardunaren nondik norakoa, eta, ia legea den bezala, bertsolari heldu gehienak lehen joerakoak ziren eta bertsolari gazte gehienak bigarrenekoak. “Horregatik, ‘Lehen bai bertsolariak!’ hori. Eta bestea zen: ‘Hauek bai bertsolariak!’, haiek bai esaten zutelako zer egin behar zen. Ja ez zen nahikoa askatasuna esatea; independentzia edo sozialismoa esan behar zen.” (Barandiaran, 2011: 24)

Markinako bilkurak egiteari utzi zitzaion 1973 (Lasa, 2008: 893-895). Ez da topatu barne-arrakala horren eraginez gertatu zela adierazten duten zantzurik, baina uste izan daiteke belaunaldi ezberdinen arteko giro nahasiak ez zuela asko lagunduko.

Arrakalaren adiera garbiagoa Loiola Irratiko bertsolari gazteen sariketaekin gertaturikoak ematen digu. 1972an IX. sariketa ospatu ondoren, 1973an Gipuzkoan ezarritako Salbuespen Egoerak galarazi zuen. 1974ean, ordea, antolakuntzari ekin zitzaion berriro: “Zailtasun gogorrek sufritzen zituen urtero honelako sariketa bat antolatzeko Loiolako Herri irratia. Baina entzuleen eskariak merezi zuela eta aurrera egin nahi genuen” (Iriondo, 2000: 8). Nobedadeekin zetorren gainera urte hartako sariketa; Loiolak ez ezik Donostia eta Bilboko Herri Irratietatik ere eskainiko zen, eta lehen aldiz entzuleen bozketa bidez aukeratuko ziren parte hartzaileak. Hamabi bertsolari bozkatuenekin⁴¹⁸ bilera deitu zuten, bada, urriaren 31n Loiolan, azaroaren 8an hastekotan.

Bertsolari gazteen belaunaldiaren ezezkoarekin egin zuten topo, ordea:

“Ematen zuten lehen arrazoia zen ez zeudela sartuta bertsolari gazte guztiak, alegia, ‘denak ala inor ez’. Baina hori ezinezkoa zen guretzat, handiegia esku artean geneukan liga formatuan egiteko. Bestalde, bestelako formatu batekin ezinezkoa zitzaigun entzuleen bozketak bideratzea, azpiegiturarik ere ez geneukan bertsolari askoren arteko saio asko antolatzeko...” (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

Eta giro politikoari ere egin zioten erreferentziarik: “Bigarren arrazoi bat ere gaineratu zuten orduan: ‘Gure herria borrokan ari den bitartean, bizi den egoera politiko eta sozialarekin, horrelako lehiaketa batean parte hartzea fribolitate bat da’” (Iriondo: 2017).

Planto hitza darabil Iriondok: “(...) garbi zegoen denak hartuko genituela (ezinezkoa zen hori) esan izan bagenie, beste aitzakiren bat izango zutela orduan. Gure nahiari “planto” bat ematera etorri bait ziren batzuk (...)” (2000: 8). Jarrera horren atzean, bertsolari gazteek euren profil propioa, bertsolaritza sozialari lotua, markatu nahi izan zutela planteatu daiteke. Izan ere, Loiola Irratia abertzaletasun klasiko tradizionalistaren izpiritua islatzen zuen nolabait:

“(...) *Anaitasunako* kazetariak (Anjel Zelaieta) Loiolako irratia “baserri kutsuduna eta neokapitalismoaren barrutikoa” bezala deskribatzen zuen. Kontuan izan behar dugu hori garaiko ezkerreko euskaltzale batzuen ikuspegia zela, Anaitasuna 1971ko euskaldungo berritzaile baten adierazpidea batzen

⁴¹⁸ Hauek ziren hamabi bertsolariok eta bakoitzak jasotako bozka kopurua: Angel Peñagarikano (146 boto), Mendizabal (143), Olalde (122), Telleria (118), Ziarda (110), Sebastian Lizaso (109), Salbador Laka (98), Aittola (91), Elgetzu (69), Iñaki Murua (41), Angel San Migel (38) eta Jesus M^a Jauregi Altzo (35) (Iriondo, 2000: 10).

zuen aldizkaria baitugu (...) Loiolako irriatiak euskaldungo tradizionalaren irudia betetzen zuela esan nahi zuen kazetariak, hots, Loiolak irudikatzen zuen Euskal Herria Basarri kazetariak bere zutabeetan erakusten zuenetik hurbilago zegoela *Anaitasuna* berak erakutsi nahi zuen Euskal Herri berritzaile horretatik baino.” (Agirreazkuenaga, 2017: 119)

Abertzaletasunaren arrakala, belaunaldi artekoa, mugimenduaren lidergotzaren ingurukoa... arnasten ziren giroan. Eta guztiak laburbilduz betiko *klasikoa vs. berria* dikotomia ere. Honela, 1960ko hamarkadan eragile garrantzitsua izandako Arrue karlista, jada zahartua, 1970eko bertsolaritzak arrotzia deskribatzen du Zavalak:

“(…) Oiartzunen bertsolariak zirala eta nik eraman nuen. Bertsoak entzun zituen. Ezagunak, bertsolariak eta bertsozaleak, gustora agurtu ere bai. Eguerdirako etxera bueltatu nuen. Bidean onela esan zidan: “Gaurko bertsolaritzak artifizialkeriz kutsatzeko arriskua du”. Ez da arritzekoa Pello Errotaren garaia ezagutu zuenak ori esatea (...) Azkenekoz Hondarribin ikusi nuen. Aurrezki Kutxak Premios Ciudad de Irún izenekoak antolatzen zituen eta antxe. 1976 urtekoak zirala uste det, urriaren bukaeran. Bera ere etorri zan eta oso erorita ikusi genuen.” (Zavala, 2008: 22)

Diktadorea hila zen ordurako. Ziklo berri bat zetorren. Baita bertsolaritzan ere. Arruek maite zuen sagardotegiko bertsolari klasikoa, bertsolaritzaren eredu tradizional eta subalternoa, atzean gelditzeaz zen ekosistema zaharraren behin betiko desagerpenearkin.

6.4.4. Kazetaritza alorraren irakinaldia

6.4.4.1 '24 orduak euskaraz' eta bertsolaritza (1976)

Giro orokorrak bezala 1960ko hamarraldiaren bukaeratik aurrera sekulako irakinaldia biziko zuen Euskal Herriko kazetaritzak. Euskarazko kazetaritzak ere bai, eta garai berrien ikur gisa, 1976ko martxoaren 27an Loiola, Donostia, Iruñea eta Bilboko Herri Irratiak '24 orduak euskaraz' izeneko ekitaldia burutu zuten:

“Francoren heriotzaren biharamuna zen, ez ahaztu, 1976. urtea, eta euskal hedabideetan sekulako optimismoa bizi zen. Legitimatuta sentitzen ziren inoren aurretik jartzeko, zentsuraren itzal luzeari aurre egiteko, haren kateetatik lehenbailehen askatzeko. Itxaropen izugarria sumatzen zitzaizen etorkizunaren aurrean, ordura arte egin ezinik utzitakoak bururatzeko. Horren adibide sinbolikoena, “24 orduak euskaraz” izeneko ekitaldia izan zen.” (Garmendia, 2009: 15)

Egunaren 24 orduak hartuko zituen euskarazko emanaldia egitea zen ideia:

“El hecho más destacable en pro de la normalización de la presencia del euskara en las ondas fue la iniciativa 24 ordu euskaraz (...) 24 crónicas desde diferentes lugares el País Vasco, trece mesas redondas sobre la cultura vasca, 30 entrevistas, la transmisión en directo de la reunión que Euskaltzaindia mantenía en San Sebastián (...) y de la fiesta final con presencia de los más destacados cantantes vascos en el velódromo de Anoeta.” (Díaz Noci, 2012: 212)

Jose Ramon Beloki kazetaria izan zen antolakuntzaren arduradun nagusia, Herri Irratietako euskarazko programazio zeraman jendea bildu zuen lantaldeak⁴¹⁹, Jose Luis Zumetak egin

⁴¹⁹ Jada ezagunak suertatzen diren hainbat izen: “(...) Joxe Mari Iriondo, Joxe Mari Otermin, Karmelo Otaegi, Txaro Arteaga, Iñaki Zubizarreta eta Nikolas Aldai, besteak beste” (Agirreazkuenaga, 2017: 131).

zuen kartela, eta garaiko euskalgintza osoak hartu zuen parte: “(...) makro-programa honetako parte-hartzaileen zerrenda garaiko euskal intelligentsiaren zerrenda da. Ziren guztiak daude” (Garmendia, 2009: 15).

Denetariko gaiak jorratu ziren egun historiko hartan: euskalduntze-alfabetatzea, ekonomia, hezkuntza edo literatura, arte plastikoak, komunikabideak... Euskarak bizitza modernorako beste ezein hizkuntzak bezala balio zezakeela, euskaraz edozein gairi buruz hitz egin zitekeela erakutsi nahi zen: “Ekitaldiaren izenari erreparatuz gero, bada beste ñabardura bat: “24 orduak euskaraz”, ez “24 ordu euskaraz”. Martxoaren 27koa ekintza bakana izan zen, oasi bat, baina asmoa igartzen da izenburuan: 24 orduak, gaur, bihar eta etzi, beti, eta jarraian, euskaraz” (Garmendia, 2009: 15)

Denetariko horretan bertsolaritzak garrantzia nabarmena izan zuen. Honela, Agirreazkuenagak egun hartako programa aletzean dioenez, antolatu ziren hamabi mahainguruetako bat⁴²⁰ bertsolaritzari buruzkoa izan zen eta egunean zehar burutu ziren hemeretzi elkarrizketetatik hiruk (Pierre Bordazarre Etxahun Irurikoa bertsolaria, Manuel Lekuona eta Pierre Lafitte) zerikusia zuten bertsolaritzarekin. Bertso-saioak ere eskaini ziren gainera, garrantzitsuena, Anoetako belodromoan 12.000 lagunuen aurrean gaueko bederatzietatik aurrera burutu zen jaialdi erraldoian buruturikoa: “Hainbat gai hizpide, bederlatzi bertsolari ibili ziren bertsoak eskainiz. Belokiren hitzetan, beharbada gutxi sartu zituzten, “jende askok hitz egin zezan” denbora izateko (...)” (Agirreazkuenaga, 2017: 136)⁴²¹.

6.4.4.2 1976 Euskal prentsaren urtea

1976a ‘Euskal Prentsaren Urtea’ izendatu zuten *Anaitasuna*, *Goiz Argi* eta *Zeruko Argiak*:

“Honezkerok kazetaritzako lehen mailako ikasleek ere badakite -jakin beharko lukete- *Anaitasuna*, *Goiz Argi* eta *Zeruko Argiak* hala aldarrikatu zutela urte hura, 1976.a, Euskal Prentsaren Urtea. Jexumari Zalakainek, geroak eskaintzen duen ikuspegiarekin, Euskal Prentsaren fundazioa hor gertatu zela dio, ‘...urte hartan hasi baitzen definitzen bi hitz horiekin zer esan nahi zen eta zer eginkizun zuen euskal prentsak’” (Garmendia, 2009: 114)

‘24 orduak euskaraz’ hartan Euskaltzaindian komunikabideen inguruan irakurri ziren lanak ere emititu ziren, horien artean *Zeruko Argiako* Mikel Atxagak egiten zuen aldarri hau:

“(...) Munduak gutaz eritzi ona izatea ez da aski. Ezta geure artean ditugun deseuskaldunduak edo euskaldundu gabeak euskaltzaletzea ere. Euskal Herri osoa euskaldundu behar dugu. Eta Euskal Herria euskalduntzeko bideetarik bat euskal komunikabideak ditugu.

Hortik urtearen haserako garrasia: 1976garren urtea euskal kazetaritzaren urtea. Itxurazko euskal aldizkariak egiteko hainbat irakurle eta kazetari sorturik da dagoeneko. Astekarien orduak jo digu. Erdarazkoen inbiririk gabeko astekariak egiteko garaia iritzi zaigu.” (Atxaga, 1977: 55)

Idea ez zen aldarri soilean gelditu: “Legez informazio orokorreko aldizkariak izateko burubideak egin zituzten *Anaitasuna*, *Goiz Argi* eta *Zeruko Argiak*, eta lehendik zekarten bokazio hori betetzeko bidea sendotu zuten” (Garmendia, 2009: 114). *Zeruko Argiaren*

⁴²⁰ Hauek dira hamabi mahainguruak: Euskalduntze-alfabetatzea, Poesia, Arantzadi, Folklorea, Komunikabideak, Euskal Herriaren Ekonomia, Artea: Margolari-eskulturagileak, Liburu argitaraldiak, Irakaskuntza: Haurtzaindegitik unibertsitatera, Nobela eta saiakera, Bertsolaritzak eta Kantari eta diskoetxeak.

⁴²¹ Lazkano, Xalbador, Lazkao-Txiki, Amuriza, Lopategi, Gorrotxategi, Igartzabal, Azpillaga eta Joxe Agirre.

historian mugarri bat izan zen urte hura: “Para *Zeruko Argia*, 1976 es un año crucial, cuando empiezan a producirse cambios importantes. En aquel momento, los principales periodistas de la revista eran Mikel Atxaga, Donato Unanue y Luis Alberto Aranberri, a quien sustituyó Elixabete Garmendia (...)” (Díaz Noci, 2012: 207). Edota *Anaitasuna* frantziskotarren jabetzakoa izatetik Iaundegi enpresaren eskuetara pasa zen.

Urte hartan *Anaitasunaren* zuzendari izendatu zuten Torrealdaik ere honela zioen ’24 orduak euskaraz’ en emanaldirako Euskaltzaindian komunikabideen inguruan eman zuen hitzaldian:

“Aldizkari nagusietatik hiru arras aldatu zaizkigu, urtearekin esan dezakegu: Goiz Argi, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna*. Itxurazko aldakuntza bakarrik ez da; planteamoldeak ere kanbiatu dira, kazetaritza ulertzeko eta gizartean duen eginkizuna baloratzeko kategoriak ez dira lehengoak. Dinamika berri bat bereganatu du euskal kulturaren eta euskal gizartean kazetaritzak.” (Torrealdai, 1977b: 59)

Elixabete Garmendiak lizentziatura zuten lehen kazetari euskaldunen agerpena aipatzen du: “1976an euskal giroak eta hedabideak. Eta abagune horretara iritsi ginen lehen kazetari lizentziatuak, karnetdunak beraz, eta euskaraz alfabetatuak. Belaunaldi berri baten lehen ale bakanak, baina segida izango genuenak” (Garmendia, 2009: 15). Aranburuk ’24 orduak euskaraz’eko emanaldian Euskal Herriko egunkariaren inguruan eman zituen datuen arabera, bazen kazetari hauen beharra: “Ez dugu zuzendari bat bakarrik ere euskaraz dakienik. Eta hau garrantzizkoa da. Eta 178 kazetarietatik, 7 bakarrik mintzatzen dira euskaraz. Hau da: 100etik 3,9. Zenbaki tristea noski. Ondorekoak zuek ateratu” (Aranburu, 1977: 68).

Lehen ikastoletan edo helduen lehen alfabetatze eskoletan ikasitako belaunaldiaz dihardu Garmendiak, sortu berria zen Informazio Zientzien fakultatetik pasa ondoren ofizioa egikartzeko galdatzen zen karneta eskura zezaketen lehen hasi berriez, euskarazko medioetan kazetari profesional gisa lan egin nahi zuen gazte batzuren ilusioaz. Honela deskribatzen du *Zeruko Argiako* lantaldea:

“Kontatuko dizuet nola 1976ko talde horrek ezarri zion bere buruari eginkizun larri bat: euskarazko kazetaritza modernoa garatzea. Ez zen inolako manifesturik egin hori aldarrikatzeko, baina barnean bageneraman konbentzimendu hori. Artean fraideen eta apaizen gonapetik irten gabe zeuden euskarazko aldizkariak, eta gure uniforme bakeroa zen. 1970az geroztik kalean hezitako jendea ginen, kontzientziatuak, politizatuak, askatasun haizea arnasten genuenak...” (Garmendia, 2009: 16)

Eta ustekabeko erreferentzia ere egiten dio bertsoaritzari:

“Apalagoak ginen hizkuntza kontuetan. Hor bai, jabetzen ginen gure ahuleziaz eta pairatzen genuen ezina behin eta berriz; hartaraino ze, noizbehinka gaztelaniaz emango genituen manifestuetako ahapaldi korapilatsuenak, itzultzeko gai ez-eta. Uztapideren “Lengo egunak gogoan” edo “Sasoia joan da gero” argitaratu berriak dastatzen genituen mirespenez, hor kazetaritzarako ere balio zezakeen kontraera bat bazegoela sumatuz, baina ez genekien hizkera hura gure kontatu beharretara egokitzen.” (Garmendia, 2009: 17)

6.4.4.3 Euskal egunkariaren urtea (1977)

Erdal prentsak ere garai gorabeheratsuak bizi zituen. Batetik hainbat egunkari itxi ziren: Díaz Nocik azaltzen duenez (2012: 203) Mugimendukoak ziren *Unidad* eta *Hierro* gobernuaren aginduz, eta *La Voz de España* bertako kazetariak jabetza hartu eta porrot egin ondoren, eta *La Gaceta del Norte*, *El Pensamiento Navarro* nahiz *Norte Exprés*, garai berriei egokitzen

asmatu ez zutelako. Bestetik berriak ere sortu ziren, nobedaderik handiena *Deia* eta *Egin* egunkari abertzaleek ekarri zutelarik: “1976a “Euskal Prentsaren Urtea” izan zen, eta 1977a, “Euskal Egunkarien Urtea”, *Deia* eta *Egin*en sortzearekin. Hala izendatzen zuen Manolo Pagolak *Jakinen*” (Garmendia, 2009: 17).

40 urteko ziren frankismoak egunkari abertzale guztiak itxi zituela. Luzea izan zen euskal gizartearen gehiengo abertzaleak jasan behar izan zuen isilaldia. Eta ilusio handia piztu zuen egunkarion irekierak:

“1977ko ekainaren 8a egun gogoangarria izanen da. Gerra ondoko Euskal Herriko lehen egunkaria sortu zen eguna.

Bagenituen, eta baditugu oraindik, Euskal Herri osoan (Ipar eta Hego) zortzi goizeko egunkari. Baina gure arteko berririk jakin nahi izanez gero, Madril eta Parisa jo behar zenuen, edo gauez, klandestinitate giro batean, atzerriko irratia sintonizatzen leher gaizto egin, edo astebete geroago *Cambio 16* edo antzeko astekariren bat eros, edo euskal aldizkariren bat irakurri.

Lehen aipatu egunkariak, erdaldunak izateaz gain ezaugarri batbera zuten: Madrilgo gobernuaren bozgorailu izatea (...) Informaziorik eza, informazio deformatua, faltsoa, ezkutatua edo benetakoa, baina beti Madrilgo begiez (...) zulo hori betetzera dato *Deia*. Eta xede berbera du, noski, udazkenean kaleratuko zaigun *Egin*-ek” (Pagola, 1977: 84)

Azaldu da nola euskara aldizkarietan 1950eko hamarraldian agertuko zen gerraosteko isilaldiaren ondoren. 1960ko hamarralditik garaiko egunkarietan ere hasiko zen bidea ekiten. Aranbururi (1977: 66-67) hartu zaizkio datuok: *El Diario Vasco* 1962ko azarotik aurrera ostegunero baserritarren merkatuko gora beherak elebitan argitaratzen zituen; 1966ko apiriletik aurrera *Diario de Navarra* ‘Nafar izkuntzan orria’ kaleratuko du hamabostean behin; urte bereko uztailaren 3tik aurrera Basarrik egunero elebitara idatziko du *La Voz de Españako* bere zutabea; 1969an *El Diario Vasco* igandeko ebanjelioa bi hizkuntzatan eskaintzeari ekingo dio eta urtebete beranduago euskal orria argitaratzen hasiko da; 1971an Donostiako *Hoja del Lunes* izango da eduki batzuk euskaraz ateratzen hasiko dena eta urte berean *La Gaceta del Nortek* orrialde elebidun bat argitaratzeari ekingo dio; 1975ean *La Voz de Españak* ‘Igandeko euskal orria’ sortuko du... *Egin* eta *Dei*arekin oso gutxikakoa zen aurrerabide horrek jauzi kualitatibo bat izan dezakeela arnasten da giroan eta 1976an eraberrituriko euskarazko aldizkarietatik egunkari hauetarako bidea egin zuen askok:

“Kontua da egunkari bien proiektuek erabat zurrupatu zutela euskal mundua, iman ikaragarri indartsu baten eraginpean. Bertako egunkariak sortzea ez zen makaleko erronka (...) Baina ahaleginak merezi zuen; areago, gizartearen sektore dinamikoenek oinarritzko behar bat bezala sentitzen zuten bertan sortu eta bertako gakoekin funtzionatuko zuten egunkariak izatea. Eta horren barruan sartzen zen, jakina, euskarari ere tokia egitea (...) *Zeruko Argia* hustu egin zen. Donato Unanue, astekariaren kudeatzailea, *Egin* sortzeko lanean murgildu zen. Xalbador Garmendia euskara zuzentzaileak ere harako bidea hartu zuen. Mikel Atxaga eta Amatiño, berriz, Martin Ugaldek fitxatu zituen *Deiarako* (...)” (Garmendia, 2009: 117-118)

Usteak erdia ustel suertatu ziren neurri handi batean. 1980ko hamarraldi hasierako salatzen du Amatiñok (1982: 70-82), esaterako, hasiera batean elebidunak izan bide ziren egunkariok oso tarte murrizta eskaini ziotela euskarari. Aldamiz-Etxeberriak dioen bezala, ezereza baino hobe izango da, ordea, apurra:

“Euskarari dagokionez, *Egin* eta *Deia* izan dira bide berriak nolabait urratu dituztenak (...) hala ere –eta apurra ezereza baino hobea dela onartuz-, azken batean, ez ote den testimonialismo hutsa egiten galda genezake. Agian eginkizun pedagogiko bat ere badateke. Bi egunkarion euskaragintzak, nolani ere, beste egunkariren batetan euskara gehitzeko ahalegina ekarri du. Donostiako *El Diario Vascon*, esate baterako.” (1982: 49).

Bertsolaritzari dagokionean ere nabaritu da prentsa abertzale honen agerpena. *Deian* 46 testu topatu dira bertsolaritzari buruz, eta gaiaz ziklo honetan gehien argitaratu duten hamabost hedabideen zerrendan sartu da. Zikloa ixtetik hiru urtera sortu zela kontutan hartuaz, bada zer bait.

Eginen testu gutxiago topatu dira, hiru bakarrik, 1970eko bukaera honetan. Baina hurrengo zikloan agente oso garrantzitsu bat izango da bertsolaritzaren hedabideratzean.

6.4.5 Ikus-entzunezkoetan presentzia irabaziz

6.4.5.1 Larruquert eta Basterretxearen ‘Ama Lur’ (1968)

Ziklo honen gailurrean ez ezik, haustura aldiaren ere agertuko dira bertsolariak ikus-entzunezkoetan. Bigarren Euskal Pizkundearen ikur izan zen ‘Ama Lur’ film dokumental luzean, esaterako.

Nestor Basterretxeak (1924-2014) eta Fernando Larruquertek (1934-2016) 1968an Donostiako Zinemaldian estreinatutako filma mugarriz hartu da euskal zine garaikidearen historian: “Ama Lur, largometraje que abre las puertas de la cinematografía moderna de Euskadi, aporta un primer intento de fijar unas claves de identidad específicamente vasca a partir de una propuesta basada en la resolución técnica del film” (Roldan, 1999: 20). Baita Pizkunde berriak zinemagintzan izan zuen lehen adierazpen gisa ere:

“(…) ‘Ama Lur’ tuvo un impacto excepcional en la sociedad vasca, ya que supuso un revulsivo radical en el tratamiento de las reivindicaciones políticas del hecho cultural vasco, en una época en que tales manifestaciones estaban radicalmente prohibidas. Todos los cineastas del país la recordamos como una “Muga” (...) que marcó un punto de inflexión en la actitud de los cineastas vascos ante el compromiso político” (Gutierrez, 1997: 169)

Euskal kulturaren sustraietan oinarrituriko kontatzeko modu propioa garatzeko saiakera garrantzitsu bat izan zen filma: “(...) un intento de elaborar un cine vasco desde premisas nuevas, frescas, auténtica y profundamente vascas” (Gutierrez, 1997: 169). Eta diktaturak desagertarazi nahi zuen nortasun berezituaren aldarrikapen bihurtu zen Euskal Herriaren irudi eta soinu bilduma kaleidoskopiko gisa gorpuzturik, nortasun hori osatzen zuten elementu ugari jorratzen baitzuten: artea, heriotza, herri kirolak, folklorea, historiaurrea, erlijio-magia mundua, herriko jaiak, industria, historia modernoa, hiria... Nestor Basterretxea euskal arte plastikoa tradizionalismotik abanguardiarara eraman zuen *Gaur* taldeko kide izanik, eta Larruquert taldeko kideen lagun, planteamendu abanguardista hauetan oinarriturik burutu zen lan guztia. Izatez filmaren kartelak *Gaur*-eko buru zen Jorge Oteizaren Arantzazuko bederatzigarren apostolua hartu zuen irudi nagusi gisa: “(...) film horren atzean, inoiz baino argiago agertzen da Orioko erraldoiaren itzala” (Martinez, 2011: 34)⁴²².

⁴²² Basterretxearekin batera Amable Arias, Rafael Ruiz Balerdi, Eduardo Txillida, Remigio Mendiburu, Jorge Oteiza, Jose Antonio Sistiaga eta Jose Luis Zumetak osatzen zuten taldea. Bi urte eskas iraun bazituen ere (1966-1968) sekulako itzala izango zuen euskal arte garaikidean eta Bigarren Pizkunde horretan.

Basterretxea eta Larruquertek 1964an sorturiko *Frontera* ekoiztetxeak sustatu zuen lana 2500 harpidedunek egindako ekarpenekin finantziatu zen. Eta zentsura espainiarra gainditzeko bizi izandako prozesu bereziki korapilatsu eta luzeak ere beste dimentsio bat eman zion filmaren oihartzunari. Bi urte eta erdi iraun zituen errodatearen ondotik, ia beste bi urte behar izan ziren espainiar zentsura gainditzeko. Esaterako, Picassoren ‘Guernica’-ren irudiak eta elurrak estaliriko Gernikako Zuhaitzarenrena kenduarazi ziren, edota ‘España’ gutxienez hirutan aipa zedin exigitu⁴²³.

Bertsolaritzak filmean zuen garrantziaren lehen zantzua honen aholkulari lanak egiteko osatu zen hamabi laguneko batzordean Lekuona eta Basarri aurkitu izanak ematen digu:

“Se formó una Junta de Honor consultiva formada por Ricardo de Apraiz, conservador del Museo de Vitoria; Jose Miguel de Barandiarán, arqueólogo; Jesús Bilbao Garbizu, crítico cinematográfico, Julio Caro Baroja, etnólogo; Ignacio Eizmendi Basarri, ‘bertsolari’; Antonio Esparza, industrial; Manuel de Lecuona, euskerólogo; Luis Mitxelena, lingüista, Jorge de Oteiza, escultor (...)” (*Bilbao*, 1995 martxo, 38 or., ‘‘Ama Lur’ o lo que ‘la censura nos dejó’, Alberto López Echevarrieta)

Bertsolaritzari eskainiriko tarte bat ere badu ‘Ama Lur’-ek⁴²⁴ filmaren 62. minututik 67.nera luzatzen dena (guztira 100 minutuko luzera du, Gutierrezen arabera gerraostean Euskal Herrian egindako lehen luzea litzatekeelarik). Bertan Abel Muniategi eta Xalbador entzun daitezke bertsoan eta euren irudiak ere ageri dira instant batez. Gainerakoan Muniategi hasita txandan bost bertso abesten dituzten bitartean⁴²⁵ laiarekin lanean ari diren gizon batzuk, bertsolariak irudikatzen dituen Soroaren koadroa, baserriko lanen irudi gehiago, aiton-amona batzuren irudiak, tokan jolasean ari diren gizonak eta mahai luze baten bueltako irudiak ageri dira, Artze anaien txalaparta saioarekin bukatzeko.

Txalapatarien minutu erdiko saioa amaitzean Oteizak idatzitako testua irakurtzen du *off*-eko ahotsak, bertsolariek abesturikoaren oinarritzko itzulpen bat eskainiaz:

“(...) bersolaris nuestros. El pastor Xalbador y Muniategi el universitario. Se han reunido desde los dos lados del Bidasoa llamados por la fuerza del amor fraterno y se han abrazado en las viejas playas incadas en la tierra. Nos dicen que son hijos de un mismo pueblo; ramas de un mismo árbol, y hablan una misma lengua. Nos recuerdan la antigüedad de nuestro ser vasco; las razones vitales que la mantienen y la obra siempre renovadora de la juventud.”

Eta hainbat euskal jauregi eta baserriren fatxadak ikusten diren bitartean bertsolaritzaren inguruko azalpena borobiltzen du Oteizaren testuak:

“Txirrita, Udarregi, Pernando Amezketarra, Enbeita, Basarri, Uztapide y tantos otros... Voces de la conciencia popular, crítica, sátira, los bersolaris improvisan sus ideas y las plantan en las plazas y frontones de nuestros pueblos; antiguas y nuevas voces; palabras proféticas; imagen viva del alma vasca; alma de un pueblo cuya historia podría reducirse al lema que ostenta una vieja casa de Laburdi: ‘Ni tiranos ni esclavos’. La flor de lo intelectual en

⁴²³ *Bilbao*, 1995 martxo, 38 or., ‘‘Ama Lur’ o lo que ‘la censura nos dejó’, Alberto López Echevarrieta.

⁴²⁴ Helbide honetan dago ikusgai: https://www.youtube.com/watch?v=ExxIJJE_oUc [2019/II/17]

⁴²⁵ Martinezen lanean Muniategi azaltzen duenez, ikasle unibertsitarioa eta artzainaren arteko kontrastea bilatu nahi izan zuten zuzendariak Xalbador eta biak aukeratuta: “Nestor eta Jose Luis Etxegarai produktorea ezagutzen nituen, eta ni baino bertsolari handiagoak baziren arren, filmaren gakoetako bat ‘kontrastea’ izatea nahi zutelako ditu zidaten” (2011: 35). Bertsoen grabaketa bera nahikoa inprobisatua izan zela ere gaineratzen du bertsolariak: “Irungo txalet batera eraman eta jardineko zuhatzi batetik mikroa eskegita, ‘Aqui mismo’ bertsoan hasteko eskatu zieten (...) ‘Ez zen ohikoa egoera eta, ez genekien ondo zer egin. Xalbador poltsikoan korbata zuela etorri zen Urepeletik, pelikulan dotore atera behar zuela eta. Orduan, ea zenbat bertso kantatu behar genituen galdetu genien’ (...) ‘Pues... pocos, pocos’ (...) Eta gaia? ‘Pues sobre lo que queráis’ (...) ‘Tira, saioa ondo atera zen eta beraz, ez dago gaizki. Baina... askoz hobeto egon zitekeen’” (Martinez, 2011: 36).

la rama, la rama de lo popular en el tronco, y el tronco y la raíz de la lengua y la tradición en la tierra”

Basarri eta Lekuonak eskaini zitzaizketen aholkuena edo sekuentzia hauena baino pisu gehiago du bertsolaritzak ‘Ama Lur’-en. Esan bezala, kontatzeko modu propio bat bilatzen zuen filmak eta bertsogintza hartu zuten eredu: “‘Euskal arnasa’ bilatzen duen muntaketaren kontzeptzioa da, dudarik gabe, ‘Ama Lur’ berezi egiten duena (...) filmak euskal erritmoa izan zezan, bertso baten egiturari jarraitzen saiatu ziren (...)” (Martinez, 2011: 36). Honela azaltzen du Gutierrezek:

“La técnica del ‘Atzekoz Aurrera’ tan querida por los Bertsolariak está presente en la génesis del film (...) Basterretxea y Larruquert tuvieron claro que el tema Gernika –sus fueros- el juramento de los reyes españoles, el árbol como símbolo de la independencia vasca, etc., tenía que ser el punto de llegada hacia el que había que dirigirse (...) antes de los títulos de crédito, esboza los temas del final (...) La parte central no es más que el desarrollo del tema presentado (...) El final retorna al punto de partida, enriquecido con la parte mediana, y saca la conclusión a la que se quería llegar” (1997: 172)

Xalbador eta Larruquerten arteko elkarrizketa batetik sortu zen egituraketa horren ideia: “Fernando Larruquert narró a este cronista una charla que mantuvo con el pastor-bertsolari Fernando Aire, inolvidable ‘Xalbador’: ‘Cuando me han señalado un tema (...) Primero se me ocurre el final (...)’ ‘Ama Lur’ está construida de esta manera” (Gutierrez, 1997: 172). Edo behintzat, elkarrizketa hori garrantzitsua izan zen ideia gorpuzterakoan:

“Recuerdo que comentaba con Xalbador la manera de abordar mis documentales. Yo lo primero que hago es preguntarme, ¿cómo termina?, entonces ruedo el material. Una vez establecido cómo va a terminar me planteo cómo empezar el resto ya. “¿Y qué te crees que hacemos nosotros?”, me responde Xalbador.” (Roldan, 1999: 21)

Gutierrezek garrantzi handia ematen dio uztarketari, (1997: 26-48) euskal zinearen tempoari buruzko lanean lehen kapituluaren zati eder bat Ahozko Literaturari eta bertsolaritzari eskainiaz (1997: 26-48). Eta Roldanek ere azpimarratzen du esperimentuaren garrantzia:

“(...) aunque sus autores en principio no pretendieran que su película fuera el inicio de un ‘cine vasco’, es evidente que el tratamiento dado al montaje encierra un deseo de dotar a su obra de una personalidad diferente. La película se estructura mediante un montaje de relación, basado en las técnicas del ‘bertsolari’” (1999: 20-21)

Ez da, gainera, ‘Atzekoz Aurrera’-koa filmak bertsogintzatik eratortzen den teknika bakarra:

“Otra técnica de literatura oral utilizada en la construcción de “Ama Lur” es la ya citada de utilización de la lógica poética en los encadenamientos o Transiciones, propia de las Koplak Zaharrak (...) Es un “saltar de rama en rama”, al abrigo y amparo de relaciones no intelectuales sino sensibles” (Gutierrez, 1997: 172).

Roldanek buruturiko elkarrizketan Larruquertek espresuki aipatzen du teknika honi erreparatu izana: “También me he fijado en las Koplak zaharrak (coplas viejas), en los textos del siglo XVII, XVIII, XIX, que relacionan el mundo interior con la naturaleza” (1999: 21). Eta filmean zehar gisako hainbat lotura ikus daitezke: leihoen egur horizontalen plano batetik, zuhaitzen bertikaltasuna nagusi den basoaren planora; bizkarrera harrizko bola jaso duen harrijasotzailearen planotik, frontoian hegaka dabilen pilotaren planora... (Gutierrez, 1997: 172-173; Roldan, 1999: 22)

Bertsogintzaren teknikan oinarrituriko kontatzeko modu hau funtsezkoa da ‘Ama Lur’-en modernitatea azaltzerakoan: “(...) Ama Lur, más allá de las opiniones que la tildaron de

producto desordenado y anárquico, transmitía una lógica profundamente vasca y, lo que es más curioso, una lógica cinematográfica de sorprendente modernidad” (1997: 173). Martinezek azaltzen duenez, ordea, ez du apenas jarraipenik izan lan ildo horrek: “Bertsoaren lengoia zineman aplikatzeko saiakera honek ez zuen jarraipen handirik izan. Hala ere, egin dira gerora ere antzeko esperimentu batzuk. Berriena, agian, 2007an Juanmi Gutierrezek berak ondutako ‘Angor’ dokumentala, non egileak, hamarreko txiki baten egitura segitzen duen narrazioaren bizkarrezur gisa” (2011: 37). Ez dio horrek, noski, garrantziarik kendu ‘Ama Lur’-en egindako saiakerari: “Lo que sí está claro, y ya ha sido señalado por José María Unsain y Santos Zunzunegui, es que Ama Lur marca el punto de partida de la imposible búsqueda de una definición del concepto de ‘cine vasco’” (Roldan, 1999: 24).

6.4.5.2 Pontramierren ‘Noël à Bordeaux’ (1968)

Frantziako telebistarako egindako Jean Michel Pontramierren ‘Noël à Bordeaux’ (Gabonak Bordelen) jite klasikoko dokumentala da. Etnografia lan bat, pretentsio artistiko eta sinbolikorik gabea. Eta zuzendariak ez da topatu 6 minutu eta 45 segundu dituen dokumental labor hau Sarean ikusgai⁴²⁶ jarri duen Institut National de l’Audiovisuel-ek eskaintzen duen informazioa baino gehiago.

Biltegi digitalean zuzendariak sinaturiko 46 pieza aurki daitezke 1965 eta 1978 artekoak guztiak ere telebistarako egindako dokumental motzak eta Sarean saltseatuz gisakoak 1950 hamarkada bukaeran ere egin zituela ikus daiteke.

Lillen kokaturiko *Office national de Radiodiffusion Télévision Française* da ‘Noël a Bordeaux’ honen ekoizlea eta dokumentala 1968ko gabon egunean emititu zen ‘Vivre en France’ (Frantzian bizi) programaren baitan, eredu berari jarraitzen zioten beste hamabi piezarekin batera: ‘Noël a Grenoble’, ‘Noël a Strasbourg’, ‘Noël a Nancy’, ‘Noël a Amiens’, ‘Noël a Poitiers’, ‘Noël a Bourges’, ‘Noël a Antilles’, ‘Noël a Rouen’, ‘Noël a Limoges’, ‘Noël a Toulouse’, ‘Noël a Lyon’ eta ‘Noël a Lille’.

Lehen sekuentzietan Santxo artzaina ageri da, 81 urtekoa eta 1914ko Lehen Mundu Gerran zauritu zutenetik maingu gelditurikoa. Ardiak dakartza bideetan zehar Baigorriko baserri batean sartzen dituen arte. Basarriko sukaldeko sutondoan esertzen da ondoren, hainbat lagunekin, eta artazuriketari ari den Xalbadorren eta ondoko aulki batetik erantzuten dion Ximun Ibarra *Zubikoaren* bertsoak entzuten ditu.

Xalbadorrek ekiten dio: Aizu zu Sancho, egon zaite ba/ ene eskerraren jabe/ zuri so gaude hemengo denak/ zera hemengo errege/ mendian zinen aspaldi joaina/ oroitu zira halere/ eguerri egiazkoik etzela/ neon artzainikan gabe

Zubikoak jarraitu: Negu aldi izaten degu/ generalean egun motza/ ta gehienian denbora txarra/ haizia berrizen hotza artzain gaixoa zu ikusita/ nik hartutzen dedan poza/ zenbateraino alegratu naizen/ ez dakizu gaur ontsa

Eta Xalbadorrek bigarren bertsoaren ondotik Betti Bidarten txistu soinuak lagundurik kantuan jartzen dira jarraian *off*-eko ahotsak euskal gabonei buruzko azalpen batzuk eskaintzen dituen bitartean. Eguerritako euskal meza ikusten da jarraian. Koruan Erramun Martikorena gazte bat ageri da.

Gabonetako ohiturei buruzko dokumentalean ageri da, bada, bertsolaritza, berriro ere kostunbrismoa eta tradizioen markoan.

⁴²⁶ Helbide honetan dago ikusgai [2019/II/17]:
<http://www.ina.fr/video/CAF93052982/noel-a-bordeaux-video.html>

6.4.5.3 De La Sotaren 'Nortasuna' (1976)

Gaur taldeko Remigio Mendiburu eskultorearen lanari buruzko metraje ertaineko filma (55 minutu), 'Nortasuna' izango da bertsolariak pantaila handira eramango dituen hurrengoa.

Pedro de la Sota (1949), zuzendariak erbesteraturiko familia abertzale baten altzoan Buenos Airesen, Parisen egin zituen zine ikasketak eta bere lehen filmak frantsesez filmatu zituen. 'Nortasuna' honekin egin zuen lan lehen aldiz euskaraz eta Euskal Herrian, Aralai ekoiztetxearen sustenguaz.

Lanak Mendibururen zurezko eskulturak euskal izaeraren abanguardiako irudikapen gisa aurkezten ditu, euskal paisaiaren inguru naturaletan kokatu eta honekin harremanetan jarriz: "(...) una reflexión sobre las relaciones arte-naturaleza. Por momentos la cámara no se limita a describir sino que pasa a interpretar subjetivamente la obra del escultor" (Unsain, 1985: 170). Eta naturarekin batean bertsolariak ageri dira, Oteizak azpimarraturiko ildoari jarraiki, euskal arimaren jagole gisa: "Dena historiaurretik datorren armonia batean dagoela dirudi; ura borborka dakarren ibaia, zuhaitzez betetako basoa, Mendibururen eskultura mendiaren erdian... eta txandaka, Mikel Laboa eta hiru bertsolari kantuan zurez eta lastoz egindako etxola batean" (Martinez, 2011: 31).

Imanol Lazkano, Jose Luis Gorrotxategi eta Xalbador dira hiru bertsolariak: "Oso modu teatralean, bakoitza etxolaren alde banatan kokatzen dira, zutik: Lazkano atean, Gorrotxategi erdialdean eta Xalbador hondoan. Haien aurrean, lasto gainean eserita, hainbat gazte entzuten" (Martinez, 2011: 31). Eta 'Ama Lur'-en ez bezala filmak erakusten duenaren hariari estu lotzen zaizkie, ongi prestaturik dauden bertsoen bidez.

Lazkanok, esaterako, euskal inguru naturalaren jarraitasunaren inguruan josten du berea: Mendiak beti gauza handi bat/ erakutsi digu guri/ Baina aspaldian mututzen doa/ honek gezurra dirudi/ Gizaldiz gizaldi gorde degu/ geure izatean irudi/ Lehen zugaitz eta pago zirenak/ bihurtu dira pinudi.

Baita Xalbadorrek ere: Zeruaren ta lurraren jabe/ gaur jaunak beha gaitzala/ Galtzetik zuhaitz gaixuaren/ usaia eta itzala/ Ikusten degu gizonak haren/ aurka sendo dabiltzala/ ez ote zagon askoz hobeki/ jaunak egin zun bezala?

6.4.5.4 Frankoren 'Kilometroak 77' (1977)

Juan Jose Frankok (1934), perittoa ikasketaz eta urte batzuetan Bilboko Ingeniaritza Eskolako irakasle izandakoa berrogeigarren hamarkada bukaeran ekin zion argazkigintzari eta 1960koan dokumental motzen grabazio amateurrari. Gisa honetakoa da 1977ko urriaren 16an Gipuzkoako ikastolen alde lehen aldiz ospatu zen jaiaren 13 minutuko grabaketa⁴²⁷.

Egun hartako giroa erakusten eta gertakari nagusiak (hasiera ekitaldia, bazkaria, herri kirolak...) jasotzen dituzten irudiak eskaintzen ditu filmak eta *off*-eko ahotsak *Kilometroak* festak zertan datzan azaltzen du, besteak beste.

Bertan buruturiko bertso-saioan grabaturiko bertsoak dira filmaren hasieratik bukaerara soinu bandaren elementu nagusienetako bat, eta 3:40tik 4:40ra bitartean saioaren irudiak ere ikus daitezke, bertsolariak kantuan eta publikoaren erreakzioa jasoz.

⁴²⁷ Helbide honetan dago ikusgai: <http://www.filmotecavasca.com/eu/kilometroak-77> [2019/II/18]

Super8 deritzon teknikarekin dago eginda grabaketa. Saio hartako bertsolarietako batek, Lazkao-Txikik, gisako kamera batekin grabatzeko afizioa zuela jakin zen 2000 hamarkadan, ‘Bertsolari’ filma grabatzen ari zirela, bere etxean grabaturiko materiala topatzean⁴²⁸.

6.4.5.5 Mattin TF3rako (1978)

1971ean telebista frantsesak euskarazko emanaldiak emateari ekin zion:

“Dentro de una política de morigerada descentralización, la televisión francesa puso en marcha en 1971 un magazine en lengua vasca producido por el centro comarcal (Aquitania) de su tercer canal. Era la primera vez que el euskera llegaba a los receptores de televisión, pero, ciertamente, quince minutos de emisión quincenal no constituían un alarde de generosidad.” (Unsain, 1985: 315)

TF3an emandako euskarazko ordu laurdeneko erreportaje horien artean Mattin Trekuri eskainirikoa aurki daiteke. Hegoaldean hurrengo urteetan emango diren bertsolari jakinei buruzko erreportaje biografikoen aitzindari izango da Martinezek azaltzen duen moduan, aro berri batean sartzen ari da bertsolaritza eta ikus-entzunezkoen arteko harremana:

“Francoren heriotzak aro berri bat ekarri zuen Hego Euskal Herrira, eta dena posible zela uste zen sasoi hartan, nolabaiteko pizkundera eman zen hainbat arlotan (...) Gauzak horrela, ez da harrizkeoa, zinema eta bertsolaritzaren arteko harremanetan aro berri bat hastea urte haietan (...) gutxika gutxika, bertsoaren ikuspegi folkloriko edo esentzialistatik harago agertzen hasi ziren bertsolariak (...) Horren adibide dira, amateur mailan egiten hasi ziren bertsolarien erreportaje biografikoak. Jadanik, bertsolaria ez zen gehiago euskal paisaiaren zati mudakaitz bat, belarraren edo zuhaitzaren pareko; bertsolariak (...) erreferente kultural ziren heinean, horien bizitzak bazuen interesa ikusleentzat” (2011: 38-39)

Unsainek euskarazko tarte honek baliabide oso mugatuekin lan egiten zuela aipatzen du: “(...) la penuria de medios técnicos y presupuestarios era -y es- notoria, en comparación con los puestos a disposición de otras producciones regionales.” (1985: 315). Baina lan handia egin zela gaineratzen du: “Dicho esto hay que aplaudir el entusiasmo desplegado por Maite Barnetche como principal responsable del programa” (id.: 315). Bertsolariari eginiko elkarrizketa behintzat lan txukun bat da.

Bertsotan egiten die ongi etorria Mattinek kazetariei bere etxean: ‘telebistako langile batzuk bere lanean dira ari/etorri zaiten adiskideak bihotzez ongi etorri’. Eta euskaraz elkarrizketatzen du emakumezko kazetariak (Maite Barnetche izan daiteke Unsainek eskaintzen duen pistaren arabera). Bertsoa nola egiten den kontatzen du, Auspoarako liburu bat prestatzen ari dela eta abar⁴²⁹. Etxeko martxa ikus daiteke tarteka, emaztea eta biak baratzean lanean, emaztea semeari jaten ematen, eta senar emazteen arteko zirrikada batzuk ere badaude jasota. Zenbaitetan irudiekin lotura duten bertsoak entzun daitezke Mattinek abestuenak. Libururako bertsoak nola jartzen dituen ere ikus daiteke.

Ahetzen ageri zaigu ondoren bertsolaria; bankutik atera txaketarekin dotore eta tabernara dijoa. Bertsotan egiten du bertan Xanpun eta Txomin Ezpondarekin. Luze elkarrizketatzen dute berriro eta bertsotara itzultzen dira jarraian... 1978an egin zioten omenaldirako prestakuntzak ere ikusten dira Ahetzeko plazan... Baserrira itzultzen da eta emaztea

⁴²⁸ Helbide honetan topatu da albistea: <http://www.eitb.eus/eu/bideoak/osoa/769988/lazkao-txiki-bertsolariak-grabatutako-super8ko-bideo-irudiak-aldiz-ikusgai/> [2019/II/18]

⁴²⁹ 1981ean argitaratu zen, bildumaren 151. zenbakiarekin eta ‘Etxe xokotik’ kantari izenburuaz.

elkarrizketatzen dute. Umore ederrean ikus daiteke Mattin eta bere ingurua erreportaje guztian zehar.

Bertsolari bati buruzko ikus-entzuneke monografiko bat eskaintzen den lehen aldia da⁴³⁰.

6.4.5.6 Pio Caro Barojaren 'Gipuzkoa' (1979)

1966ko 'El País Vasco' eta 1967ko 'Bersolaris, poetas populares vascos'-en ondotik, Pio Barojaren ilobak berriro filmatuko ditu bertsolariak Donostiako Kutxak bere mendeurrena ospatzeko enkargatu zion 'Gipuzkoa' film luzean. Proiektu handia izan zen, hiru urteko grabaketa lanak eskatu zituen, bere ehungarren urteurrena ospatzen zuen Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak finantziatua. Anaia Julio Caro Barojarenak izan ziren testuak eta Documentales Culturales de Euskadi izan zen ekoiztetxea. Bi bertsio kaleratu ziren: gaztelera hutsekoa eta elebiduna.

Teknika aldetik oso lan txukuna burutu zuen Caro Barojak, berrikuntza handirik ez zekarren arren: "Mientras Ama Lur daba más importancia a la innovación del lenguaje cinematográfico, en 'Gipuzkoa' la realización es más plana, pues el propósito del cineasta es más arqueológico en el sentido de perpetuar una riqueza etnológica en vías de extinción" (Roldan, 1999: 187).

Galtzar zen Gipuzkoako nekazal gizartearen memoria historiko kultural bat osatzea zuen xede: "(...) Estaba destinada a la recolección de tradiciones antiguas que se encontraban en trance de desaparecer" (Gutierrez, 2005: 15). Eta jasota utzi behar horretan jada desagertuak ziren ohiturak fikziozko berreraikuntzak ere egin zituen:

"Estamos viviendo la transformación de una sociedad agrícola en una industrial. Es la muerte de una sociedad y hay que recuperar lo poco que tenemos a mano de nuestra historia'. En 'Gipuzkoa' ese concepto de «recuperación» de elementos positivos del pasado, le llevó incluso a la reconstrucción de costumbres y técnicas desaparecidas" (Unsain, 1985: 173)

Hiru ordu eta erdiko (206 minutu) luzemetraia modu autonomo batean funtzionatzen duten zortzi ataletan dago banatua: Gizona, Harria, Belardiak, Zuhaitza, Nekazaritza, Burdina, Itsasoa eta Hiriak⁴³¹. Bertsolaritzak, soinu banda gisa, filmaren hainbat pasartetan izango du presentzia. Honela, sarrerako kredituetan Iparragirrenen 'Nere etorrera' entzun daiteke, IV. atalean (Zuhaitza) Iparragirrenen 'Ezkon gaitan' doinua edo Xenpelarren 'Iparragirre abila dela' bertsoak, V.ean (Nekazaritza) Iparragirrenen 'Agur Euskal Herria' eta 'Nere amak baleki', baita toberak jotzen diren bitartean entzuten den koplarenean, VI.an (Burdina) Bilintxen 'Triste bizi naiz eta' edota VIII.ean (Hiriak) Xenpelarren 'Pasaiko Herritik'. Bestelako agerpenak ere baditu: VII.an (Itsasoa) identifikatu ez den bertsolaria ageri da San Pedroko elizan, eta VIII.an (Hiriak) Iparragirre eta Bilintxi buruzko azalpenak eskaintzen dira.

Bertsolaritzari eskainiriko tartea, ordea, V. atalean kokatzen da, Nekazaritza deiturikoan. Bertan sagardogintzari minutu batzuk eskaini ondoren, Basarri⁴³² eta Gorrotxategik ageri dira Martuteneko Barkazitegi sagardotegian bertsotan (78. minutua). Hiruna ale abesten dute sagardotegiek bertsolaritzaren gordeleku gisa izandako garrantzia azalduz, eta bertsolaritzaren historiako figura garrantzitsu batzuk aipatuaz. Aipatuak diren einean Uztapide, Xenpelar, Pello Errota, Pedro Mari Otaño edo Txirritaren irudiak erakusten ditu filmak. Mattin eta Kosme Lizasok Hondarribiako Udaletxearen balkoitik abesten ikus daitezke jarraian (83. minutuan) bertsoak beharrean narratzaileak bertsolaritzaz ematen dituen azalpenak entzuten direlarik (bapatekoaren eta bertso-jarrien arteko bereizketa egiten

⁴³⁰ Xenpelar Dokumentazio Zentroan dago ikusgai.

⁴³¹ DVD formatuan dago ikusgai: 'Gipuzkoa: Dokumentala'. Kutxa Fundazioa, 2005.

⁴³² Bertsolaritzarekin lotua ez bada ere, badu beste agerpen bat Basarrik: Zuhaitza atalean esaterako bere ahotsa entzun daiteke, irudiek erakusten duten aizkora apustuaren esatari lanetan.

du), Lazkao-Txiki eta Mattinek Pasai Donibaneko plazako kioskoan eskaintzen duten saioa entzunaz bukatzeko (zazpi minutu dira guztira bertsolaritzaz).

Nekazaritza munduari, sagardotegiari eta festari lotua aurkezten du Caro Barojak bertsolaria: “Bertsolarien interbentzioak kostunbristak dira erabat” (Martinez, 2011: 30). Bertsolaritzak Gipuzkoako gizarte tradizionalan daukan pisua ongi islatzen du, ordea, soinu bandaren zati handi bat bertsolaritzaren eskutik osatuz eta bertsolaritzaren historia erakusteko ahaleginaz.

6.4.5.7 Larruquerten ‘Euskal Herri Musika’ (1979)

Fernando Larruquetek ‘Euskal Herri Musika’ izeneko metraje ertaineko lana (64 minutu) zuzenduko du hamarkadaren azken hondarretan: “(...) proyecto promovido por el Banco de Vizcaya y llevado a cabo bajo la marca Lankor, una cooperativa formada por Fernando Larruquert, José Angel Rebolledo y Javier Aguirresarobe, unidos en la tarea de “recuperar la cultura de modo urgente” (Roldan, 1999: 188). Sei kapituluz osaturiko serie baten lehena izan behar zuen, baina lehen filma honekin agortzen da egitasmoa, eta baita kooperatiba bera ere: “(...) ésta era tan sólo la primera de seis partes que iban a tratar diversas manifestaciones de la cultura popular, pero una serie de cambios producidos en la cúpula de la entidad bancaria acabaron con la idea inicial” (id.: 188).

Euskal musika popular tradizionala azaltzea da lanaren muina: “Bajo la dirección de Fernando Larruquert Euskal Herri-Musika se convirtió en un verdadero tratado sobre la música popular tradicional” (Unsain, 1985: 176). Eta bertsolariei toki garrantzitsu bat gordeko zaie bertan: “(...) Euskal Herriko jatorrizko musikaren inguruan egiten duen ibilbidean, leku garrantzitsua aitortzen dio bertsolaritzari” (Martinez, 2011: 32).

Irungo, Hondarribiako eta Iruñeako koruak, Jean Michel Bedexagar abeslaria, Goikoetxea eta Artze anaien txalaparta, Maurizia Aldeiturriagaren trikitia, Juan Mari Beltranen Supriñua, Argia dantza taldea, Intxixu antzerki taldea, eta dozenaka abeslari, instrumentista eta talde gehiago ageri dira filmean. Baita Koxme Lizaso eta Felix Iriarte bertsolariak ere. Bi hauek kantuan ari dira, ordea, ez bapatekoan. Bertsolaritzari eskainiriko tartea Jon Lopategi eta Lazkao Txikik gauzatzen dute, baserriko sutondoan saioa eskainiaz, Artzetarren txalaparta erakustaldiaren ondoaren. *Off*-eko ahotsak zera dio:

“Gure literatura jatorra bertsolaria da, eta bertsolariak ez ditu behin ere bere kantuak idatzita ipini. Parra-parra hitzetik dariola kantatzen du beti. Gure literatura jatorra bertsolarien ezpainetan bizi da. Beste herrietako literatura liburuetan dago, ura putzuetan bezala. Gure literatura ez da putzua, iturria da.”

Azalpen hauek ez ditu ematen Lopategik edo Lazkao Txikik: “Larruquetek beharrezkoa du fenomenoaz azalduko duen boz autorizatu eta kultu bat. Kasu honetan (beste askotan bezala), apaiza izango da hori” (Martinez, 2011: 33). Beste behin ere kanpoko begirada eta bertsolaritzaren subalternitatea markatuko dira, bada, marka hori sakontzeko borondate batekin ñabartzen den arren: “Haren begia [Larruquertena], Pio Caro-rena bezala, kanpoko izanik ere, sakontasunaren bila abiatzen da eta Oteizaren bidetik, bertsoaren esanahi sakona bilatzen du (...)” (Martinez, 2011: 32).

‘Ama Lur’-ekin antzekotasun handiak izango ditu ‘Euskal Herria Musika’ honek: “Realizada al igual que Ama Lur sin guión previo, ya que el cine de Larruquert es siempre de búsqueda, de plantear interrogantes sin afán de hacer tesis, Euskal Herri-Musika de nuevo sublima las actividades cotidianas del mundo rural en arte” (Roldan, 1999: 189). Eta berriro ere bertsogintzaren teknikez baliatuko da, sekuentziak josi eta lana egituratzerakoan:

“Como en ‘Ama Lur’ la preocupación de vincular el lenguaje cinematográfico a la literatura popular estuvo presente. Según expresó Larruquert: ‘Hay una búsqueda profunda de lenguaje propio, mediante las koplá zaharrak,

construcciones euskéricas y continuas referencias, muy pequeñas y humildes.⁴³³ (Unsain, 1985: 176)

‘Ama Lur’-ek baino harrera hotzagoa izango du, ordea, lan berriak. Hamarkada bat ez da alferrik igaro, kulturalismoa gaudituz eta mezu politiko garbiak eskatzen ditu zenbait jendek: “La reivindicación de un cine comprometido con la causa nacionalista y la llamada de apoyo a las instituciones van monopolizando y radicalizando el debate durante este tramo final de los 70” (Roldan, 1999: 25). Eta kritikak ere hainbat hutsune seinalatuko dizkio:

“El cineasta irundarra recuerda la mala acogida de la película por parte de la crítica. Frases como ‘país sin cerebro’ o ‘no toda la música popular es así’ caen sobre el film. En *Egin* se llega a decir que la película se olvida de la música actual y la influencia de ésta en la lucha del pueblo vasco (...). Estas críticas no son justas ya que a la música tradicional, tema en que se centra el film, le iban a seguir otros aspectos diferentes de la música vasca.” (Roldan, 1999: 188)

Oteiza aterako da filmaren oso alde:

“‘Euskal Herri-Musika’ es una magistral realización cinematográfica que nos acerca, nos explica, nuestra naturaleza, nuestro entorno natural como partitura de inspiración visual para nuestras canciones, en integración estética con nuestra vida, nuestros oficios, nuestros juegos, nuestros sentimientos y tradiciones (...) Como cine, la propia estructura narrativa se comporta como canción, imágenes, luz, movimiento, la cámara canta en euskera (...)” (Unsain, 1985: 176-177)⁴³⁴.

Roldanek azaltzen duen bezala, euskal gaia jorrazten zuen zinearen planteamendu kostunbristen errepikapena nekea eragiten hasia zen, ziurrenik aurretik euskal gaia jorrazten zuen literaturan ere planteamendu berak egin zirelako mende luze batez, baina ukalezina da Larruquertek zinea eta bertsozintza uztartzeko egindako saiakeraren izaera berritzailea:

“A la película de Larruquert se le puede achacar ese ensimismamiento en los típicos paisajes que se repiten sin cesar en las producciones vascas de la época y que van a llegar a ser odiados por el espectador (...) Pero pocos podrán negar (...) la originalidad del lenguaje cinematográfico empleado, donde de nuevo, el mundo de relaciones íntimas de las Koplak zaharrak está presente.” (1999: 188)

6.5 OIHARTZUNA: GAILURRA IRRATIAN ETA LEHEN PAUSOAK TELEBISTAN

6.5.1 Emandako pausoak eta bilakera

Ikusi den bezala irratian eredu garatu bat lortuko da ziklo honetan Loiolako Herri Irratiaren eskaintzarekin, ikus-entzunezkoetan lehen pausoak ere emango dira, hauetako batzuk telebistan: 1958an Tele-Parisek eta telebista alemaniarrek eskainiriko Parisko saioa; telebista publiko suediarrek 1963an emititu zuen ‘Basker’ dokumentala; 1967an TVEek ‘Fiesta’ serie dokumentalaren baitan eskaini zen ‘Bersolaris, poetas populares vascos’, txapelketaren finala ardatz zuena; telebista frantsesak 1968an emitituriko ‘Noël à Bordeaux’ eta Mattini buruz 1978an filmaturiko erreportajea...

Hedabideratzearen bilakaera orokorraren inguruko datuak, ordea, aurreko zikloekin alderatzeko aukera ematen dizkigutenak, prentsaren inguruan bildurikoak izango dira. Honela, aipatu behar da ‘Frankismo Garaiko’ deitu zaion ziklo honen baitan, 1945etik


⁴³³ *Deia*, 1978/VIII/17, ‘Entrevista con F. Larruquert’.

⁴³⁴ *Deia*, 1980/I/31, ‘Un documento etnográfico revelador...’, Jorge Oteiza.

1979ra bitartean bertsolaritzaren inguruko prentsako 2529 testu bildu ahal izan direla. Honek, urteko 74,38 testuko batez-bestekoa ematen digu, aurreko zikloetakoa baino nabarmen altuagoa, Euzko Pizkundeko zikloan (1918-1944; 538 testu) urteko 20,69koa baita bataz bestekoa, eta Lore Jokoen zikloan (1845-1917; 1092 testu) 15,16koa.

Tamainako hazkunde orokorrak parametro guztietan izango du bere isla. Honela, gaiari buruzko testuak argitaratu dituzten 248 sinadura ezberdin identifikatu dira, Euzko Pizkunderan 101 eta Lore Jokoetan 156 ziren bitartean. Presentzia mediatiko garrantzitsu bat izango duten bertsolariak askoz gehiago izango dira, eta askoz ere zabalagoa izango da arreta mediatikoa pizten duten bertsolaritzaren inguruko gaien abanikoa.


Salbuespen bakarra gaia jorratzen duen hedabide kopuruarena litzateke: 84 hedabide ezberdin identifikatu dira, Euzko Pizkunderan 72 eta Lore Jokoetan 163. Datu hau esplikatzeko kazetaritzak berak izandako bilakaera hartu behar da kontutan. Izan ere XIX. mendean panorama mediatikoa askoz ere ezegonkorragoa zen, bizitza laburragoa izaten zuen egunkari edo aldizkari bakoitzak eta berriak ere askoz sarriago sortzen ziren.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.III (Frankismo Garaiko datuak)

Bertsolaritzaren presentzia mediatikoak ziklo honetan izandako hazkunderen neurri kuantitatiboa datu absolutuek argi uzten badute ere, argitaraturiko kopuruaren bilakaera hamarkadaka erakusten duen 16. grafiko honek hazkunde horren dimentsio kualitatibo berri bat jartzen du mahai gainean. Izan ere aurreko bi zikloetan oinarria-gailurra-haustura eskemak behetik hasi gora egin eta berriro behera egiten zuen kurba bat jarraitzen zuen bitartean, ziklo honetan hausturan ere gora egiten jarraitzen du argitaraturiko testu kopuruak.

17. grafikoa. Frankismo Garaia (1945-1979)
Hizkuntza hautuaren bilakaera hamarkadaka



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.III (Frankismo Garaia datuak)

Ziklo honen bilakera berezi horren funtsezko klabe bat 17. grafikoa erakusten digu. Hamarkadaz hamarkada ikus daiteke frantsesez argitaraturiko testuen kopurua, erabat residuala, bere horretan mantentzen dela. Gaztelera argitaraturikoek 1950eko hamarralditik 1960kora bai egiten dute gora, ia hirukoizteraino, hamarraldi horretan Euskaltzaindiaren txapelketek ekarritako gailurrekin logikotzat har daitekeena. 1970eko hamarraldian, ordea, mantendu egiten da kopuru bera.

1970eko hamarraldiko hazkundera oso osorik jaten duena euskarazko kazetaritza da. Oinarritik gailurrera ia laukoiztu egiten da kopurua, baina gailurretik hausturara berriro ere bikoiztera iristen da ia. Bigarren Euskal Pizkundearen eta euskarazko kazetaritzaren loraldia ere bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren hazkundera asentatzeko funtsezkoak izan zirela ikus daiteke, bada.

Hizkuntza hautuaren bilakaera orokorrak ere bide beretik eramango gaitu. Lore Jokoen zikloan, portzentaje orokorreari begiratuaz gero, gaztelera izan zen hizkuntza erabiliena %68 batekin, frantsesa zetorren jarraian %18arekin eta hirugarren tokian euskara %17arekin. Hizkuntza hautua hamarkadaka aztertzen zuen 2. grafikoa erakusten zuenez⁴³⁵, bestalde, lehen hamarkadetan frantsesa izan zen nagusi, gero gaztelera hartu zion aurrera, eta azken hamarkadetan iritsi zen euskara frantsesaren portzentaje orokorra kasik berdintzera. Euzko Pizkundearen zikloan, aldiz, jada euskara izan zen hizkuntza erabiliena, %47 batekin, gaztelera oso parean zeukan arren, %45 bat. Frantsesa urruti gelditu zen %8 batekin⁴³⁶. Eta azken ziklo honetan euskarak gaztelerekin aldearekin egingo du, %61 eta %38 hurrenez hurren, frantsesa %1 batean geldituko delarik.

Euskarak erabilera moderno bat, hedabideetako, irabazten duen neurri berean irabazten du, beraz, bertsolaritzak presentzia mediatikoak ematen dion dimentsio modernoa. Eskutik doaz euskararen inguruko kontzientzia, euskara ekosistema modernora egokitzeko egiten den hedabideratze ahalegina eta bertsolaritzaren hedabideratzea, fenomeno ekosistema modernora egokitzeko egiten dena.

⁴³⁵ Ik. 4.7.1 Emandako pausoak eta bilakera

⁴³⁶ Ik. 5.5.1 Emandako pausoak eta bilakera

Kazetaritza mailan ere frankismoko ziklo honetan lortzen da oinarrizko bilakaera bat bururaino eramatea, aurreko zikloan zintzilik gelditu zen azken generoari, elkarrizketarenari helduaz. Euskarak hedabideetan sartuaz bere subalternitateari aurre egiten dion bezala, bertsolaritzaren subalternitatea ere gainditzeko bidean jarriko da, bertsolariei ahotsa emanez.

Lore Jokoen zikloan ez da bertsolari bati eginiko elkarrizketarik topatu, Euzko Pizkundeko zikloan lehen biak baino ez dira argitaratuko, eta ziklo honetan dozenaka izango dira, tartean baita bertsolari batek beste bati, Amurizak Lopategiri, eginiko lehenengoa ere⁴³⁷.

Bestalde, lehen bertsolari zutabegilea kontsolidatuko da ziklo honen oinarrian, Basarri bera hain zuzen ere, eta pixkanaka gehiagok ekingo diote bertsoak jartzeaz haratago kazetaritza testuak sinatzeari: Xabier Amuriza, Abel Enbeita, Deunoro Sardui, Txomin Garmendia... Bertsolaritzaz idazten dutenak geroz eta gehiago dira, gainera, bertso-mundukoak: Lore Jokoen zikloan sinaduren %11a dago jasota Xenpelar Dokumentazio Zentruaren Bertsolaritzaren Datu Basean, Euzko Pizkundearen zikloan %18, eta Frankismo Garaiko ziklo honetan, sinadura kopuruak nabarmen gora egin arte, %22.

Beraz, barruko begirada indartuz doa kanpokoaren aurrean, bertsolariek eta bertso-munduak geroz eta gehiago esku hartzen baitute argitaratzen den horretan hedabidetzea garatu ahala.

6.5.2 Argitalpen eta sinadura nagusiak

Parametro guztietan bolumen handiago bat manejatu denez, ziklo honetan grafikoak hamar garrantzitsuenen zerrenda beharrean hamabostekoa izango dute oinarritzat.


Aipatu den gisan 84 dira ziklo honetan bertsolaritzaz arituko diren hedabideak. Eta hauetako asko izango dira bi digitu dituen kopuru bat eskainiko dutenak.

Sinadurak inoiz baino ugariagoak izango dira, 248. Kazetaritzaren bilakaerak berak ere esplikatzen du hazkunde hau, geroz eta ohikoago bihurtuko baitira sinaturiko testuak: Lore Jokoen zikloan %48koa zen sinatu gabeko testuen proportzioa, Euzko Pizkundean %51koa eta Frankismo Garaiko honetan %24koa. Bestalde izenordeen atzean zeuden izenak errazago argitu ahal izan dira ziklo honetan gerra aurrekoan baino: Euzko Pizkundean %9 ziren argitu gabeko izenordeak, azken ziklo honetan %5.

18. grafikoan ikus daitekeenez *Diario de Navarra* da gerraurretik garrantzitsuenen zerrendan dirauen bakarra. Agertzen diren berriek argitaratzen duten kopurua, ordea, askoz ere altuagoa izango da.

⁴³⁷ Ik. 6.3.2.3 Estaldura mediatikoa eta 6.4.3.2 Bertsolaritza soziala: amurizak lopategiri eginiko elkarrizketa


18. grafikoa. Frankismo Garaia (1945-1979) Argitaratzaile Nagusiak



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.III (Frankismo Garaia datuak)

Sinadurekin ere beste hainbeste gertatuko da. Garrantzitsuena, Basarri, izango da gerraurrean estreinatu zen bakarra, baina kopuruak oro har askoz ere altuagoak izango dira aurreko zikloan baino⁴³⁸:

19. grafikoa. Frankismo Garaia (1945-1979) Sinadura Nagusiak



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.III (Frankismo Garaia datuak)

Gaiaz gehien argitaratuko duen medioa *Zeruko Argia* izango da, aurreko zikloan paper berdina bete zuen *Argiaren* oinordeko zuzena. 1963an abiatu arren, eta astekaria izan arren, ia 500 testu argitaratzera iritsiko da, bertsolaritza kasik atal finko gisa landuko duelarik. Garaiko sinadura nagusi gehienek bertan dezente idatzi izan zuten.

⁴³⁸ Ziklo honetan, bildutako kopuru guztiak aurrekoetan baino askoz ere altuagoak direnez (hedabide, sinadura, gai eta protagonista garrantzitsu gehiago) hamarrekoak beharrean, hamabosteko zerrendak egitea erabaki da.

Ziklo honetako sinadura garrantzitsuena, eta prentsa historikoan alde handiarekin gaiaz gehien argitaratu duena, Iñaki Eizmendi *Basarrirena* da. Esan bezala *Zeruko Argian* asko argitaratu zuen, *Goiz-Argi* eta *Aranzazu* aldizkarietan beste hainbeste, baina bere lanaren zatirik handiena *La Voz de Españan* argitaratu zuen. Bere kazetari ibilbide eta ekarpenaz nahikoa esan da honezkero⁴³⁹.

Aurreko zikloetan bezala Frankismo Garaiko honetan ere eragile garrantzitsuenak izango dira prentsan gaiaz gehien idatziko dutenak. Honela, Basarriren ondoren, honen testu kopuruaren herenera iristen ez bada ere, Antonio Zavala dator. Basarri bezala *La Voz de Españan* hasi zen idazten gero *Diario Vascore* pasatzeko, baina honek ez bezala bigarren honetan eskaini zuen bere lanaren zatirik handiena. Gehiena 70 hamarkadan argitaratu zuen eta nagusiki bertso zaharretatik abiatuta berreraikitako pasarteak izan ziren (pasarte historikoak, bertsolari zaharren biografiak, bertsolaritzaren historiako kapitulu ezezagunak...). Hala ere, tarte batean bestelako kazetaritza egitera ere animatu zen eta 1970ean Hernandorenak antolaturiko herrialde arteko txapelketaren kronista lanak egin zituen.

Gipuzkoako bi egunkari nagusien arteko sinadura trukaketa hori ez zen bi sinadura garrantzitsuenen artean bakarrik eman. Javier Aramburu, Iñaki Linazasoro, Antonio Valverde *Ayalde* (epaimahaiko 1962koan), Santiago Aizarna, Fernando Artola *Bordari* (epaimahaiko hamarkadako txapelketa guztietan) edo Joxe Mari Otermin ere, guztiak kazetari edo kolaboratzaile gisa bertsolaritzari jarraipen esanguratsu bat egindakoak, bietan idatzi zuten.

Aipatu diren hauetatik Javier Aramburu (1931-2014) hondarribitarra eta Santiago Aizarna (1928) oiartzuarra dira hamabost sinadura garrantzitsuenen artera iristen direnak. Biak ere ibilbide luzeko kazetari profesionalak, lehenengoak nagusiki *La Voz de Españatik* eta bigarrenak gehiago *El Diario Vasco*tik hainbat urtetan bertsolaritzari jarraipena egindakoak. Aramburuk *El Diario Vasco* eta *Deian* ere argitaratuko du bertsolaritzaz, beti gazteleraz, eta bere kazetari ibilbidean Donostiako zinemaldiko edota Eusko Jaurlaritzako hainbat Sailetako komunikazio arduradun izatera iritsiko da. Aizarnak, Aramburu bezala literatur lan sorta bat argitaratu eta sariren bat irabazitakoa, *Hoja de Lunes de San Sebastian*, *La Voz de España* eta *Unidaden* ere argitaratuko du bertsolaritzaz, azken urteetan euskaraz.

Lehia polita izango dute Gipuzkoako bi egunkari erreferentziales eta jaso ahal izan den testu kopuruari dagokionean oso parean geldituko dira. Sinadura garrantzitsuena, Basarrirena, *La Voz de Españak* izan arren, *El Diario Vasco* geldituko da hedabideen zerrendan bigarren *Zeruko Argiaren* atzetik. Hirugarren geldituriko *La Voz de Españari* buruz dagoeneko eskaini dira hainbat datu esanguratsu⁴⁴⁰. *El Diario Vasco* aski ezaguna da egun, Gipuzkoako egunkaririk salduena denez. Bakarrik gaineratu aurreko ziklotik datorrela (1934ean sortu zen, urte hartako altxamendu ezkertiarrei erantzun nahi zion egunkari monarkiko eta katoliko gisa), altxamendu frankistaren erabat aldekoa izan zela, ez zela *La Voz de España* bezala Mugimenduko egunkari bat, enpresa egunkaria baizik, eta Frankismo Garaian euskarari tarte jarraitu bat eskaini zion lehen egunkaria izan zela⁴⁴¹.

Gehien argitaratu zuten hiru medioak nolabait Gipuzkoari lotzen bazaizkio ere, Nafarroan eta Iparraldean ere plataforma garrantzitsuak izango ditu bertsolaritzak.

⁴³⁹ Ik. 6.2.1.3 Basarri kazetari eta *La Voz de Españaren* txapelketak

⁴⁴⁰ Berriro ere 6.2.1.3 Basarri kazetari eta *La Voz de Españaren* txapelketak

⁴⁴¹ Altxamenduaren inguruko jarreraren aipamena ik. 5.4.2.1 Euskarazko prentsaren eraispena, lubakietan loratu arren. Gerraostean euskaraz argitaratzen hasteko lehen ahalegin antzuarri buruz ik. 6.1.2 Erabateko jazarpenetik bizitza begetatiboa onartzera. Euskarari irekitako bideari buruz ik. 6.4.4.3 Euskal egunkarien urtea (1977)

Nafarroako egunkari erreferentziala, *Diario de Navarra*, izango da hedabideen zerrendan laugarrena, eta Nafarroako Diputazioaren babesaz hainbat urtetan ‘Bertsolari’ atala atera zuen euskarazko *Príncipe de Viana* aldizkaria bosgarrena. Bietan Nafarroako bertsolaritzaren eragiletzan funtsezkoak izango diren Pedro Díez de Ulzurrun *Ikusle* eta Mariano Izeta *Anzanarri* izango dira sinadura aktiboenak, sinaduren zerrendan bosgarrena eta hirugarrena hurrenez hurren. *Diario de Navarrari* eta *Príncipe de Vianari* eta Díez de Ulzurruni (1924-1994) buruz eskaini dira ikerketan zehar hainbat azalpen⁴⁴². Mediku euskaltzaleari buruz bakarrik gaineratzea 1960ko hamarkadan antolatu ziren Nafarroako txapelketa guztien antolakuntzako buru aritzeaz gain Euskal Herrikoan ere epaimahaiko izan zela 1960, 1962 eta 1965ekoan.

Mariano Izeta (1915-2001) baztandarrak merezi du aparteko bat. Gerraurreko 1936ko txapelketan antolakuntza lanetan ibilia, 1960ko hamarraldian Nafarroako txapelketekin ere lagunduko du, 1967ko Euskal Herrikoan epaimahaiko izango delarik. Baztan aldeko hainbat saio antolatuko ditu baita eta gai jartzaile ere ibiliko da hauetan hainbat urtez. Berandu samar hasiko da idazten: “Lekarozeko Aita Aurelio Ezkerra, sortzez Etxarri Aranazkoa zen kaputxinoak, luzatu zion 1957an idazten hasteko gomitea. Berrogei urte beteta ekin zion beraz, geroztik hain gogoko izan duen lanari” (Aristorena, 1992: 10). Bertsolaritzari buruz etenik gabe argitaratuko du 1960ko hamarraldiaren bigarren erditik aurrera, Nafarroako bi hedabideez gain *Herrian* eta *Zeruko Argian* ere dezente idatziaz eta gehienetan Baztan inguruetako saio guztien berri emanaz⁴⁴³.

Hauek bezainbeste testu argitaratu ez arren Nafarroako bi medio hauetan bertsolaritzaren inguruan lan garrantzitsua egin zuen beste izen bat Aingeru Irigarai *Apat-Etxebarnerena* da. Jada aurreko zikloan gaiaren inguruan argitaratu zuen *RIEVEN* edo *El Dían*⁴⁴⁴ eta ziklo honetan ere testu mordoxka argitaratuko du (hamahiru topatu dira, zerrendan sartzeko puntu-puntuan gelditu delarik), 1960ko txapelketa Nagusian epaimahaiko izateaz gain.

Iparraldean II. Mundu Gerra bukatu berritan itxi zen *Eskualdunaren* tokia hartuaz erreferentziala bihurtu den *Herria* astekaria eta *Gure Herria* bihilabetekari beterranoa izango dira hedabide jorienak, hurrenez hurren zerrendako bostgarren eta bederatzigarren postuetan kokatuko direlarik⁴⁴⁵. Izatez, 40 hamarkadan kasik eurak izango dira gaiaren inguruan lanean jarraituko duten bakarrak, Hegoaldean gerrak utzitako triskantza dela eta. Bestalde, deigarria suertatzen da lehen aldiz Iparraldeko egunkari frantsesak hedabide garrantzitsuenen zerrendatik desagertu izana.

⁴⁴² *Diario de Navarrari* buruz ik. 5.5.2 Argitalpen eta sinadura nagusiak; *Príncipe de Vianari* eta Pedro Díez de Ulzurruni buruz ik. 6.3.2.1 Alfonso Irigoien, bat-batekoan moldatzen zen akademikoa (1929-1996) eta 6.3.3.3 *Príncipe de Vianaren* ‘Bertsolari’ saila.

⁴⁴³ Hurrengo zikloan ere nekaezin jarraitu zuen bertsolaritzaren berri ematen: *Deia, Navarra Hoy, Euskaldunon Egunkaria*, Xorroxin eta Irulegi irriatiak eta abar. Baita gaijartzaile lanetan ere: “(...) gaijartzaile gisara ere lan ederra egin du Marianok (...) Irigoienen ereduari jarraikiz, Nafarroako anitz herritan bete du egiteko hori. Lehen aldikoz, 1962an, Elizondon eta azkenekotz, 1991ko San Pedroz, Erratzuko bestetan (...)” (Aristorena, 1992: 11). Edota, Nafarroako Txapelketetako epaimahaiko nahiz Baztan inguruetako saioetako antolatzaile eta gai-jartzaile ere. Honenbestez, Bertsolari Elkarrekin merezitako omenaldia egin zion 1992ko Bertsolari Egunean Teodoro Hernandorena eta Emile Larrerekin batera.

⁴⁴⁴ Sinadura nagusien artean, aipatu den gisan, Basarri da aurreko ziklotik errepikatzen duen bakarra, gerrak suposatzen zuen hausturaren adierazgarri, baina jarraidura bat ere ematen da, eta zerrendatik kanpo badago bi ziklotan errepikatzen duen sinadura gehiago: Luis Jauregi Jaurtakol, Jose Artetxe, Jules Martin Moulier Oxobi, Nikolas Ormaetxea Orixe, Luis Antonio De Vega, Jose Rodriguez Raos *Juan de Hernani*, Manuel Lekuona, Antonio Maria Labayen...

⁴⁴⁵ Hauei buruzko erreferentziak ere eskaini dira. Gure Herriari buruz Ik. 5.5.2 Argitalpen eta sinadura nagusiak. Eta Herriari buruz Ik. 6.2.2.2 Hernandorenaren lehen txapelketak.

Herriaren baitan Teodoro Hernandorena izango da sinadura jorienean, alde handiarekin. Bera da sinadura garrantzitsuenen zerrendan laugarrena, eta Basarri, Zavala eta Mariano Izetarekin batera hiru digitutatik pasatzen den bakarra. Honezkero ez du aurkezpen handirik behar⁴⁴⁶.

Gure Herrian, aldiz, Pierre Lafitte (1901-1985) Luhusoarra, izan zen gaiaren inguruko sinadura garrantzitsuenen. *Aintzina* eta *Herria* aldizkarien sortzaile eta zuzendari, 1952an Euskaltzain oso izendatua, saiakera nahiz euskarazko fikziozko lan ugariaren sortzaile, hamarkada hauetan Ipar Euskal Herrian euskal kultur gintzak izango zuen figura garrantzitsuenetariko bat izango da eta bertsolaritzaren alorrean ere itzal luzea izango du (Hernandorenak antolaturiko txapelketetan epaimahaiko eta 60ko Nagusian ere bai). Sinaduren zerrendan zazpigarren, *Gure Herria* izan zuen plataforma nagusi (jada aurreko zikloan ageri da sinatzaileen artean) baina *Herrian*, *Eusko Jakintza*, *Euskera*, *Príncipe de Viana*, *Zeruko Argia*, *Bulletin de la Societe des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, *Fontes Linguae Vasconum* eta *Gure Almanakan* ere argitaratu zituen bertsolaritzari buruzko testuak. Hainbat liburu ere argitaratu zituen gaiari buruz: ‘Koblakariaren legea’ (1935), Pierre Topet-Etxahun (1970) eta Mañex Etchamendi bertsularia (1972).

Goiz-Argi (1958), *Aranzazu* (1921) eta *Anaitasuna* (1953-1982) aldizkariak izango dira medioen Top-10a osatuko dutenak. Hiruak oso profil ezberdinetakoak (lenengo kultur aldizkaria, bigarrena erlijiosoa eta hirugarrena euskal ezker berriaren adierazpide), hiruek ere bertsolaritzaren inguruko testuetarako sinadura esanguratsu mordoxka eskainiko dute. Aranzazun Pedro Anasagasti zuzendariaren gain Luis Villasante, Julian Alustiza *Aztiri* edo Demetrio Garmendia *Antzi*, edo Basarri bera esaterako. *Goiz-Argin Basarri* eta Hernandorena ez aipatzearen *Aranzazuko* Alustiza eta Garmendia berriro. *Anaitasunan* Deunoro Sardui, Abel Enbeita eta Xabier Amuriza bertsolariak, esaterako, edota Xabier Gereño, Bernardo Atxaga eta Gabriel Aresti idazleak.

Azkenik, *Deia* (1977), *Egan* (1948), *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País* (1945), *Euskera* (1919-1936 eta 1957-) eta *Olertik* (1959-1969 eta 1980-1995) osatuko dute hamabostekoa. Bertsolaritzak lortu zuen, bada, euskal literatur aldizkariaren (*Egan* eta *Olertiz* gain Gernikak ere testu mordoxka bat aterako du), gerraostean Euskal Herrian funtzionatu zuen kultur aldizkari bakarraren, Euskaltzaindiaren eta ziklo bukaerako egunkari abertzale berriaren arreta bereganatzea.

Olerti da orain arte aipatzeke zegoen bakarra⁴⁴⁷. Eta berari lotuta sinadura garrantzitsu bat ageri zaigu, zerrendako hamahirugarrena: Santi Onaindia. Amorotoarrak (1909-1996) fraide karmeldarra izanik ordenaren babespean bi urte lehenago sortu zuen Karmel aldizkariaren gehigarri bezala sortu eta zuzendu zuen aldizkaria, olerkien ondoan bertsoari ere bere tokia eginez: “(...) *Olerti* aldizkarian ere gauza bera egin ohi du Santi Onaindiak bertsoak, bertso onak, sekula ere ez ditu baztertzen” (Baraiazarra, 1993: 21). *Euzko-Gogoa*, *Boletín de la Real Sociedad Vascongadas de Amigos del País*, *Zeruko Argia*, *Príncipe de Viana* eta *Karmel* aldizkarietan ere argitaratu zuen bertsolaritzari buruz, eta ‘Milla euskal olerki eder’ (1954), 1964ean Jose Antonio Agirre saria merezi izan zuen ‘Gure bertsolariak’ (1964), ‘Enbeita

⁴⁴⁶ Ik. 5.2.6.1 Hernandorena, akuilua (1898-1994); 5.4.1.4 Hernandorena, etenik gabeko ekintzailatza; 6.2.2 Iparraldean Hernandorena; 6.3.1 Hernandorenaren txapelketen gailurra Parisen: lehen aldiz telebistan; eta 6.4.2.3 Hernandorenaren azken ahalegina (1968-1970).

⁴⁴⁷ *Deiari* buruz Ik. 6.4.4.3 *Euskal egunkariaren urtea* (1977). Aipatu da *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País* Gipuzkoako zenbait frankista euskaltzalek jarri zuten martxan 1945ean Antonio Tovar hizkuntzalari buru zutela eta honen literatur gehigarri elebidun gisa abiarazi zela *Egan* 1948an, 1954tik aurrera euskara hutsez arituko zelarik Ik. 6.1.3 Arrakaletan ernaturiko kultur gintza eta 6.2.3.2 Euskaltzaindiaren atzerreko elementuak: Arrue, Zavala, Lekuona eta Irigoien. Eta *Euskerari* buruz ik. berriro ere 6.2.3.2 azpizuntua.

oleskaria' (1966), 'Enbeita'tar Kepa, gure urretxindorra' (1971) liburuak ere argitaratu zituen alor hau jorratuaz. Bizkaiko lehen txapelketetan epaimahaiko ere ibili zen⁴⁴⁸.

Jesus Lete *Ibai-ertz* (1921-2000) da hamabost sinadura garrantzitsuenen artean agertzen den beste bat. *Zeruko Argia* eta *Príncipe de Vianan* idatziko du, bertso-munduaren jarraitzaile gisa unean uneko berriak eskainiaz. Bertso jartzaile joria da Lete, sariketa txikietan gai-jartzaile eta aurkezle ere ibilitakoa.

Juan San Martinek (1922-2005) bestelako profil bat izango du. Gerora Eusko Jaurlaritzan postu garrantzitsuak betetakoa, euskaltzaina, 1962 nahiz 1965eko Euskal Herriko txapelketetan epaimahaiko eta antolatzaile eta aurrekoak baino jasoagoa, *Oleri*, *Hoja del Lunes de San Sebastián*, *Egan*, *Zeruko Argia*, *Guerediagan* argitaratu zuen bertsolaritzaz gogoeta eginaz, garaiko polemiketan parte hartuaz eta bertsolari zenbaiten (Bilintx, Iparragirre, Xalbador eta abar) figuran sakonduaz⁴⁴⁹.

Jon Etxaide (1920-1998) idazlearen kasua deigarria suertatzen da. Hogeitu testu topatu zaizkio eta hamabigarrena da sinaduren zerrendan. Testuok gainera sakabanatuak ageri dira: *Gernika*, *Euzko-Gogoa*, *Zeruko Argia*, *Egan*, *Herria*, *Príncipe de Viana* eta *Sociedad Vascongada de Amigos del País*. Gaia, ordea, ia beti bat eta berdina izango da: Etxahun. 1955ean 'Joanak Joan' eleberria idatzi zuen, bere bizitza fikzionatuaz, eta liluraturik geratu zen Barkoxekoaren figurarekin. 1957an idatziko du prentsan bertsolariari buruzko lehenengoa, 1979an azkena, eta tartean beste hamalau.

Hamabostekoa Joxe Mari Aranaldek (1933-2005) itxiko du, 1970eko hamarraldian nagusiki *Zeruko Argian* idatziriko hamalau testurekin. Bertso jartzaile, epaile eta gai-jartzaile gisa lan garrantzitsua egingo du urteotan. Eta hurrengo zikloan ere sinadura garrantzitsu bat izango da *Deiaren orrialdeetan*.

6.5.3 Gertakari eta protagonista mediatikoak


Aurreko bi zikloetan, alde handiarekin gainera, protagonista mediatiko nagusia izan ondoren, ziklo honetan lehen aldiz hartuko diote aurrea Jose Mari Iparragirreri. Lau bertsolari izango dira gainera, hurrenkera honetan zerrendaren lehen lau tokiak hartuaz: Xalbador, Uztapide, Basarri eta Mattin.

Ez da kasualitatea lau bertsolari hauek zerrendaren goikaldean topatzea: Hegoaldean Basarri eta Uztapide eta Iparraldean Xalbador eta Mattin dira ziklo honen oinarriak nahiz gailurrak izango dituen bi bikote erreferentzialenak.

⁴⁴⁸ 1993ko Bertsolari Egunean omenaldia eskaini zion Bertsolari Elkartek Alfontso Irigoienekin batera. Torrealdai zentsura frankistaren lehen intsumisioa izatearen meritua ere aitortzen dio: "Autore editore gisa jokatu ohi zuen horretarako. Lege-tramitaziorik gabe ateratako liburu horiek, legearen arabera, klandestinoak ziren. Bekatu larria zen hori frankismoan, baina bost axola Onaindiari. Honela idatzi zidan berak 1985ean: 'Liburu asko daukadaz idatzita, argitaratuta. 'Euskal Literatura'rako neure fitxa egiterakoan, 45'tik gora agertu jataz. Guzti orreik irarkolaria emotean iñoiz bai eskatu det baimena, baiña geienetan ez. (...) Orrela jokatu ez ba neu, ez neban egundo libururik azalduko'" (Torrealdai, 2000: 95).

⁴⁴⁹ Hamabosteko zerrendatik kanpo bada ere Euskal Herriko txapelketetan epaimahaiko izandako euskaltzain gehiagok ere sinatuko ditu bertsolaritzari buruzko testuak garaiko prentsan. Honela, Juan Mari Lekuonari (1960, 1962 eta 1967ko txapelketetan epaimahaiko) hainbat mediotan barreiaturiko hamahiru testu topatu zaizkio; Koldo Mitxelena (epaimahaiko 1960 eta 1962koan) hamabi testu; Jose Mari Satrustegiri (epaimahaiko 1965 eta 1967koan) hamaika, edota Alfontso Irigoieni (antolatzaile, gai jartzaile eta aurkezle 1960ko hamarraldiko guztietan) zazpi.

20. grafikoa. Frankismo Garaia (1945-1979) Protagonista Nagusiak



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.III (Frankismo Garaia datuak)

Xalbadorrek bertsolari mediatikoenaren titulua hainbesteko aldearekin ateratzea suertatzen da deigarriagoa. Bikoiztu egiten ditu beste hiruen kopuruak (288 Xalbadorrek eta 153-135 tartean gainerakoek). Datua ulertzeko hainbat faktore eta gertakari hartu behar dira kontutan. Hasteko, Hernandorenak antolaturiko hainbat txapelketa irabaziko ditu: 1948an Saran ospaturikoa, 1949an Luhuson ospaturikoa (Mattinekin batera), 1951 Baigorri (Baserrirekin batera), 1953 Baigorri, 1959 Heleta, 1960 Sara, 1960 Paris eta 1968 Sara (taldeka). Bestalde, Txapelketa Nagusian ere, txapelik irabazi ez arren beti puntan ibiliko da: lau txapelketetan finalera ez ezik finaleko arratsaldeko saiora pasatzea lortu zuen eta 1967koan buruz burukora.

Buruz burukora pasatzerakoan entzun behar izan zituen txistuena izango da, ordea Xalbadorren figura mediatikoa kotsakratuko duen lehen gertakaria. Bertso-mundua zorretan sentitzen da Urepelekoarekin, eta zor horren ordainak presentzia gehiago emango dio prentsan: finalaren ondorengo egunetako zalaparta⁴⁵⁰, Uztapiderekin batera finalaren protagonista bezala gutxira egingo zaion omenaldia; 1967 bukaeran egingo zaion bigarren omenaldia; 1969an, bigarren Bertso Egunean, lehenengoan Uztapide omendu ondoren egingo zaion hirugarren omenaldia...

Urepelekoaren figurari beste ezein bertsolarik ez bezalako dimentsio bat emango diona, ordea, 1976an bere bertsoak jasotzen zituen diskoa eta 'Odolaren mintzoa' argitaratu berritan bere omenaldian gertaturiko heriotzaren tragikoa izango da. Aurreraxeago azalduko den bezala ez dago ziklo honetan egun hari baino orrialde gehiago eskaini zaionik.

Uztapide eta Basarri bikoia dator Xalbadorren ondotik. Eta testu kopurua erdira jaisten bada ere hauen dimentsio publikoa ere ikaragarria dela esan daiteke.

Egin zitzaizen omenaldi andanari erreparatu besterik ez dago. Basarriri lenengoa 1951ean egingo diote Donostian; bigarrena 1960an Zarautzen, Txapelketa Nagusia irabazi ondoren; hirugarren bat, berriro Zarautzen, umetatik bizileku izan zuen herrian, 1961ean; laugarrena

⁴⁵⁰ 6.4.2.1 Xalbadorri txistuak (1967)

1964ean, Errezil bere jaioterrian; 1968an beste behin Zarautzen, Onena Sariketa irabazi ondoren; eta, azkenik, seigarrena, 1973ko Bertsolari-Egunean Donostian.

Javier Arambururen titularrak ematen digu egun haiek izan zitezkeenaren zantzu bat: ‘Magno homenaje a ‘Basarri’, el domingo/Aplausos y emoción en el Astoria y seiscientos comensales en La Salle’ (*La Voz de España*, 1973/I/23). Eta prentsan utzitako arrastoa nabarmena izango da: 1964an Errezilgo herriak antolaturikoaren aitzakian, esaterako, *Zeruko Argiak* ere (1964/V/17) Basarriren figura goratu nahiko du Antonio Zavala, Jose Artetxe, Ayalde, Bordari, Manuel Oñatibia eta Aingeru Irigarainen testu banarekin.

Omenaldi kopuruari dagokionean Uztapide ez zaio atzean geldituko. 1956an Donostian; 1963an, lehen Txapelketa Nagusia irabazi ostean, Mitxelenarekin batera Oiartzunen; 1965ean, bigarren txapelarekin, Endoian; eta 1968an, hirugarren txapelarekin lehen Bertsolari Egunean, Donostian. 1972an ondoezak emanda erretiratu behar izan zuen eta honek beste omenaldi olatu bat ekarri zuen: 1973an Donostian, 1975ean Ereñozun eta 1978an, zazpigarrena hogeitun urtean, Zestoan.

Kazetaritza ikuspegitik gainerako bertsolariekin egin ez diren gauzak egingo dira bi hauekin. Elkarrizketa luzeak egingo zaizkie, euren pertsonalitatea eta bizimodua erakusten duten testuak landuko dira, ñabartu egingo da euren figura⁴⁵¹.

Aipatu da bertsolari bati egindako lehen elkarrizketa Basarriri egindakoa dela eta elkarrizketa gehien egin zaiona ere bera izango da. Hernandorenak hegoaldeko bertsolari eta guzti antolaturiko lehen txapelketa irabazitakoan, adibidez, bere sentimenduak erakusten zituen, ‘Me siento apocado’, *La Voz de España* (1949/XII/02); Bertso-Egunean egin zioten omenaldiaren ondoren bertsolaritzaz gogoeta egiten zuen *Zeruko Argian* (1973/I/14), ‘Leen baino kontentagaitzago da erria’; edo bere bizitzari buruzkoak azaldu zituen *El Diario Vascon* (1978/XII/03): ‘Basarri, ex-ertzaña: “Nunca he trabajado en la clandestinidad”’. Bestalde, Jose Artetxek erretratua egin zion 50eko hamarkadaren hasieran (*La Voz de España*, 1951/IV/05, ‘Basarri, el versolari de la elegancia’) eta Francisco Maria Labayenek bisita bere jaiotetxean (*La Voz de España*, 1951/XI/27, ‘Una visita a ‘Granada-Erreka’ donde hace 38 años nacio ‘Basarri’/Tuvo su cuna en un humilde caserío en donde se comen unas truchas esquisitas’’).

Uztapideri ere, beranduago hasita eta kopuruz zerbait gutxiago badira ere, egingo zaizkio hainbat elkarrizketa eta soslai⁴⁵². Izatez, Basarriri bere kazetari lanek ematen zioten erreferentzialtasuna, edo prentsan izandako hainbat polemiketan harturiko protagonismoa gora behera, Uztapidek, gutxigatik bada ere, bere hiru txapelei eta Auspoan argitaraturiko liburuen arrakastari esker aurea hartuko dio presentzia mediatikoari dagokionean: 153 testu zestoarraren inguruan eta 144 zarautzarrari buruz.

Mattin Treku ere Euskal Herriko txapelketaren final guztietan izan zen, Hernandorenaren txapelketa guztietan puntaren puntan ibili zen hainbat txapel irabaziak eta Xalbadorrekin bikote artistikoa osatu zuen mugaren alde bietan. 1940 hamarkada bukaeratik guztietan egon zenez oso altua da aipamenean bat egiten dion testu kopurua (135). Gehiago erreparatu zitzaion, ordea, Xalbadorren heriotzaren ondoren. Ordukoa da bere bigarren omenaldia,

⁴⁵¹ Jada azaldu den gisan, badago bestelako bertsolariei eginiko elkarrizketa eta soslairik ere, baina ez dago bi elkarrizketa baino gehiago egiten zaion bertsolaririk. Eta bertsolariaren ‘pertsonajea’ sakontzeko asmorik erakusten duenik ere ez. Xalbadorren heriotzean argitaraturiko testu andana izan daiteke salbuespen bakarra.

⁴⁵² 6.3.2.3 Estaldura mediatikoa

Auspoako bigarren liburua eta TF3ak eskaini zion erreportajea, bertsolari bati buruzko lehen ikus-entzunezko monografikoa.

Zikloko hamabost bertsolari mediatikoen artean zortzi beste garai batzuetan bizi izandako bertsolariak dira: Iparragirre (135 testu), Bilintx (72), Etxahun Barkoxe (65), Xenpelar (63), Fernando Amezketarra (32), Pello Errota (29) eta Pedro Mari Otaño (24). Bizirik dauden bertsolarien kasuan testu asko Bertsolari Eguneko omenaldietatik edo txapelketetatik sortzen diren bitartean bertsolari klasiko hauen kasuan euren jaiotza edo heriotza urteurrenetan pilatuko dira testuak⁴⁵³. Garrantzitsuak izango dira baita bertsolari hauei buruz argitaratuko diren liburuen iruzkinen kopuruak.

Aurreko zikloetan bezala, Iparragirre suertatuko da mediatikoena. 1953 eta 1977ko urteurrenen jarraipena egiten duten testuen edo Labayen eta Castresanaren liburuen iruzkinetatik haratago urretxuarraren figura eta biografia ertz anitzenetatik aztertzen dituzten artikulua aurki ditzakegu: Linazisorok koadro baten historia kontatzen du (*La Voz de España*, 1978/IX/21, 'Hace 100 años que el pintor tolosano Lecuona lo llevó al lienzo'), edo urretxuarraren azken bizitokia izan zen baserria bota berri dutela azaldu (*La Voz de España*, 1968/III/03, 'Desaparece el caserío Zozabarro'); bizi behar izan zuen txirotasunaz dihardute Jose Busca Isusik (*La Voz de España*, 1964/VIII/24, 'Etiam Periere Ruinae') eta M.L.I. siglekin sinatzen duen norbaitek (*Deia*, 1979/VIII/12, 'Iparragirre: un bersolari especialista en 'vivir al día'); Jose Artetxek Lertxundi generalarekin edo Egaña senatariarekin izan zituen hartu emanetan sakontzen du (*Zeruko Argia*, 1964/VII/19, 'Lersundi'ren paperak'; *Zeruko Argia*, 1964/V/10, 'Egaña eta Iparragirre'); Eusebio Erkiagak elkarrizketa fiktizio bat asmatzen du (*Gernika*, 1953 uztaila, 'Iparragirre'kin solasian), Ana Etxaidek bere bertsoak hungarierara itzuli dituztela kontatzen du (*La Voz de España*, 1979/IV/18, 'Iparragirre hungaroz'); edo Francok Washingtonen daukan enbaxadorea ere animatzen da 'euskal bardoaz' idaztera (Jose Maria Areilza, *ABC*, 1971, 'La otra tentación'...

Bilintx, Etxahun Barkoxe eta Xenpelarri eskainiriko testu kopurua ere oso garrantzitsua da, baina Fernando Amezketarri buruzkoak suertatzen dira agian deigarriago. Euskarazko kazetaritzak baliabide berriak irabazi dituenez, pasadizo eta ateraldien generoak behera egiten du nabarmen ziklo honetan, eta ondorioz amezketarrari buruzko testu kopurua apalagoa da. Baina, aldi berean, bestelako eremuetara iristen da: aurreko zikloetan oso fenomeno lokala zena, *ABC*ren orrialdeetaraino ere iristen da oraingoan (*ABC*, 1964/IX/09, 40 or.. 'Pernando Amezketarra'), edo baita mendizale aldizkarietara ere (*Pyrenaica*, 1963 iraila, 'Pernando Amezquetarra', J. Araluce)

Manuel Lasartek oso goiz egin zuen bere lehen agerpena, Basarrik *La Voz de Españarekin* antolaturiko lehen txapelketan⁴⁵⁴ eta puntako bertsolaria izan zen. Baina bada apur bat harritzekoa beste hainbat bertsolariaren aurretik 96 testurekin zerrendan seigarren agertzea. Bertsolariaren osasun pattalak esplikatzen du neurri batean datua, laguntza gisa prentsan oihartzuna izan zuten hainbat omenaldi antolatu bait zitzaizkion: 1963an, 1975ean, 1971ean eta 1979an. Gerora Aian eta Orion bizi izan zen arren, Leitzan jaioa izanik, oso bertsolari maitatua zen Baztan aldean, ohiko bertsolaria izaten inguru haietako saioetan, eta urteetan Mariano Izetak saio hauei estaldura bikaina eskaini zenez, Eliozondokoaren aipamen ugariak ere lagundu zuten bertsolariaren presentzia mediatikoa indartzen.

⁴⁵³ 6.4.2.4 Urteurrenak, Bertsolari-Eguna, gazteen sariketak eta beste

⁴⁵⁴ Albiste honetan ageri da finalisten artean, txapelketa polita egin zuelarik: *La Voz de España*, 1949/IV/05, 6 or., 'Ignacio Barasarte vencedor del concurso de Bersolaris/Éxito apoteósico de la organización', Iñaki Eizmendi Basarri.

Mikel Arozamena ere zerrendaren goiko partean ageri da. Hainbatetan izan zen Nafarroako txapeldun, Euskal Herrikoan ere parte hartu zuen, eta Xalbadorren antzeko datetan hil zen, berari propio egindako omenaldia ez ezik Xalbadorri egin zitzaizkionetan ere hainbatetan aipatu zelarik.

Lazkao-Txikik, Mitxelenak, bertsolaritza sozialaren protagonista nagusi eta Bizkaiko txapeldun izan ziren Azpillaga eta Lopategik eta Etxahun Irurikoak osatzen dute hamabostekoa. Azken honek ospea pastoral egile bezala lortu bazuen ere, eta horregatik ageri da gehienetan prentsan, bapateko bertsolari gisa hasi zuen bere ibilbidea, Hernandorenaren hainbat txapelketetan ageri da, eta gerora ere bertsolaritzat hartzen dute bere aipamenen bat egiten duten testuek.

Protagonisten puntu honekin amaitzeko zerrendan agertzen ez direnen garrantzia aipatu behar da. Izatez, zerrendatik kanpo geraturiko bertsolarien presentziaren bolumena askoz ere garrantzitsuagoa da aurreko zikloetan baino: 575 erreferentzia. Euzko Pizkundean 69 ziren, eta Lore Jokoen zikloan 108. Egia da Frankismo Garaiko ziklo honetan parametro guztietan ematen dela hazkunde handi bat, baina proportzioan gehiago hazten da aipamen gutxi duten bertsolarien presentzia aipamen asko dituztenena baino. Honela, ziklo honetan aipatuaren presentziaren bikoitza dute zerrendatik kanpoko bertsolarien aipamen hauek, Euzko Pizkundean erdia izango dira eta Lore Jokoetan ere erdia. Alegia, askoz bertsolari ezberdin gehiago ateratzen da prentsan azken ziklo honetan, fokoa zabaldu egiten da, zalantzarik gabe hedabideratzea garatuagoa dagoenaren seinale.

Enbeitatarren hiru belaunaldi (Kepa, Balendin eta Jon), Bordel, Joxe Bernardo Otaño, Udarregi, Oxalde edo Joxe Zapirainek ere bi digitutik gorako kopuruak dituzte. Eta hurrengo zikloan ere protagonista izango diren Joxe Lizaso, Joxe Agirre edo Imanol Lazkano ere hainbatetan ageri dira.

Baita, gerora erabat ezezagunak suertatuko zaizkigun hainbat bertsolari ere. Topatu den kasurik pintoreskoena, *ABC*k bere zezenketa kroniketan dakarren hau izango da agian:

“Me dicen que es usted un buen ‘versolari’ que improvisa versos en su nativo idioma vasco con gran facilidad y galanura. Dedique una poesía a D. Salvador Guardiola, que le envió a usted un gran toro con el que usted, ‘versolari’ y torero, construyó un poemita, si falto de cualidades artísticas, sobrado de emoción humana, de la humana emoción de un hombre que se juega la piel con buen talante y ánimo esforzado” (*ABC*, 1958/VIII/17, ‘Sexta Corrida/Tarde tristoná’, Antonio Díaz-Cabañete).

Juan Mari Recondo⁴⁵⁵ toreroaz ari da kritikaria. Baita bigarren kronika honetan ere:

“José Maria Recondo ha refrendado en Madrid sus grandes éxitos en dos corridas de la semana grande de San Sebastián. El bravo versolari cortó la oreja del tercero y la cortó muy a ley (...) ¡Cuánto siento no saber vascuence para dedicarle a Recondo un párrafo en la lengua de su gran colega Iparraguirre, el de los zorricos inmortales!” (*ABC*, 1958/IX/09, ‘Media Corrida muy ‘apañada’’, Antonio Díaz-Cabañete).

⁴⁵⁵ Itxura denez Recondo (1931-2006) donostiarra dezente ezagunagoa izan zen toreatzaile gisa, batez ere 1950eko hamarraldian, bertsolari gisa baino. Añamendi Entziklopediak ere egiten dio aipamena helbide honetan: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/recondo-rementeria-jose-maria/ar-125017/> [2019/III/01]

21. grafikoa. Frankismo Garaia (1945-1979) Gai Nagusiak



Iturria: Egileak moldatua⁷. Oinarriak eranskinetan V. (Zerrenda) eta VI.III (Frankismo Garaiko datuak)

Aurreko zikloan bertso-saio arrunta zen dagoeneko bertsolariaren inguruko testu baten atzean zegoen gertakari ohikoena. Frankismo Garaiko honetan alde handiagorekin emango da fenomeno hau.

Bertsolaritzak berak, beraz, bere agerpenik ohikoenean, txapelketa, omenaldi, hitzaldi edo dena delako ekimen zehatzez haratago badu hedabideen interesa pizteko gaitasuna. Hedabideratze prozesuaren garapen maila altu bat erakusten du honek.

Saio arruntaren ondotik txapelketa izango da bertsolariaren prentsaren orrialdeetara eramaten duen bigarren gertakaria. Jada azaldu den bezala geroz eta jarraipen mediatiko zabalagoa izango dute 1960ko hamarraldiko Euskal Herriko txapelketek⁴⁵⁶. Herrialdeetako txapelketen oihartzuna ere garrantzitsua izango da eta seigarren tokian kokatuko dira gai garrantzitsuenen zerrenda honetan. Eta Teorodo Hernandorak Iparraldean hainbat urtez antolaturiko txapelketak zortzigarren tokian⁴⁵⁷.

Hirugarren tokian Bertsolari Egunari eta figura garaikideei egindako omenaldiei buruzko testuak leudeke. Azaldu den gisan, 1960ko hamarraldiaren bukaeran txapelketak antolatzeari uzten zaionetik gisa honetako saioak eta zerrendan bosgarren tokian azaltzen den bertsolari klasikoen urteurren ospakizunak bihurtuko dira prentsaren arretagune nagusi⁴⁵⁸.

Zavalak Auspoa bildumarekin egindako ekarpena erraldoriaren neurria ematen du honi buruzko iruzkinak eta erreferentziak gai garrantzitsuenen zazpigarren tokian aurkitzea. Gisa honetako 144 testu topatu dira, esaterako, Hernandorenak hainbat urtetan antolaturiko

⁴⁵⁶ Ik. 15. grafikoa 6.3.2.3 Estaldura mediatikoa azpimuntuan.

⁴⁵⁷ Ik. 6.2.2 Iparraldean Hernandorena, 6.3.1 Hernandorenaren txapelketen gailurra parisen: lehen aldiz telebistan eta 6.4.2.3 Hernandorenaren azken ahalegina (1968-1970)

⁴⁵⁸ Ik. 6.4.2.4 Urteurrenak, Bertsolari-Eguna, gazteen sariketak eta beste.

txapelketa mordo horri eskaini zaizkionak baina gehiago. Gaiaz argitaraturiko Auspoaz kanpoko liburu guztien baturen inguruko erreferentziak ez dira erdira iristen, 59 testurekin⁴⁵⁹.

Edozein kasutan azpimarratzeko modukoa da bertsolaritzari buruzko liburugintzak ziklo honetan biziko duen hazkundera. Edo zehatzagoak izanda, hazkunde honek prentsan utzi duen arrastoa: Lore Jokoen zikloan 25 dira gisa honetako testuak, Euzko Pizkundearen zikloan 19, eta azken honetan 203.

Gertakari edo bertsolari konkretu bati lotu beharrean bertsolaritzari buruzko gogoeta eta azalpen orokorrak eskaintzen dituzten testuak geroz eta orokorrak dira. Oso maila ezberdinetako testuak aurki daitezke etiketa honen azpian, baina oro har gogoeta eta azalpen hauek sakontasunean irabazten dutela esan daiteke: aurreko zikloan kasik Manuel Lekuona, Aitzol, Lauaxeta, Zubimendi eta Basarri bakarrik baziren deskribapen soilaz haratago iristen ziren testuak eskaintzeko gaitasuna zuten bakarrak, ziklo honetan masa kritiko sendo bat gorpuzten da Basarri, Hernandorena, Juan Mari Lekuona, Juan San Martin, Aingeru Irigarai, Jose Mari Satrustegi, Gabriel Aresti, Pedro Díez de Ulzurrun, Abel Enbeita eta abarrek. Oso ugariak dira txapelketari buruzko gogoetak (epailetzari, antolamenduari, egin beharreko ariketei), bertsolaritzak eskaini beharrekoaren ingurukoak, bertsolari gazteen beharra seinatzen duten aldarriak, bertsolari ezberdinak alderatzen dituzten iruzkinak...

Gogoeta eta azalpen hauei polemikak gehitzen badizkiegu kopurua zerrendaren bururaino iritsiko litzateke. Eztabaida hauen artean, gogoeta eta azalpenei dagokienean bezala, Basarri izango da sinadura joriena⁴⁶⁰.

Hedabideratze prozesuaren arrakasta mailaren beste zantzu argi bat hedabideek antolaturiko txapelketek emango digute. Loiola Irratiak antolaturikoak izango dira ezagunenak, baina aipatu dira *La Voz de España* 1949an eta 1951n antolaturikoak ere, eta Herria astekariak ere antolatuko du besteren bat. Hedabide hauek sekulako oihartzuna emango diote, noski, eurek gauzaturiko ekimenei.

Bertsolariei ez ezik bertsolaritza sustatzen ari denei ere elkarrizketak edo bestelako testuak eskaintzen bazaizkie, bertsolaritzaren estaldura mediatikoa zabala denaren seinale. Azaldu da nola Pio Caro Barojaren dokumentalean Antonio Zavala, Antonio Arrue, Juan Mari Lekuona edo Bordariri hitza ematen zitzaaien bertsolaritzaz aditu gisa aritzeko. Prentsan 32 testu topatu dira protagonista nagusizat eragileren bat daukatena. Manuel Lekuona eta Antonio Zavala dira, lehenengoa hamabi testu eta bigarrena zortzirekin, aditu paperean gehien jorratzen diren figurak, baina zerrenda dezente luzatzen da: Alfontso Irigoien, Antonio Arrue, Juan Mari Lekuona, Teodoro Hernandorena, Santi Onaindia, Joxe Mari Aranalde...⁴⁶¹

⁴⁵⁹ Castresanak edo Labayenek Iparragirri buruz idatzitakoak; Onaindiaren 'Mila euskal olerki' edo 'Gure bertsolaria'; Lafitteren 'Koblakari legea', Satrustegiren 'Bordel bertsularia' edo Jaurtakolen 'Xenpelar bertsularia, bizitza eta bertsoak'; Haritschelharrek edota Etxaide eta Mirandek Etxahunen inguruan egindakoak...

⁴⁶⁰ 6.3.5 Basarriren polemikak

⁴⁶¹ Ausaz aukeraturiko adibide batzuk aipatzearen: *Diario de Navarra*, 1963/XI/17, 16 or., 'Don Alfonso Irigoyen. Vicesecretario de la Academia de Lengua Vasca', Joaquín Jiménez; *Zeruko Argia*, 1964/IV/19, 8 or., 'Berrogeita amar milla bertsoik gora arkitu ditu aita Antonio Zabala'k/Bertsorik geien Tolosa'n, Donostia'n eta Errenderin jaso ditu', Nemesio, Etxaniz; *La Voz de España*, 1967/VI/10, 24 or., 'Diálogo con Don Antonio Arrue: "Todos lo bersolaris tienden a expresarse en vascuence guipuzcoano"', Iñaki Linazasoro; *Zeruko Argia*, 1967/VII/11, 9 or., 'Euskal bertsolaritzaz Aita Antonio Zabala'rekin izketan', Juan Garmendia *Zeleta*; *Aranzazu*, 1968 urtarrila, 2 or., 'Riquísimo tesoro de la poesía popular vasca. Entrevista con el P. Antonio Zavala, alma de Auspoa', Pedro Anasagasti; *Zeruko Argia*, 1972/IV/23, 1 or., 'Joan Mari Lekuona: Bertsolaritza erri-izpirituaren arnas berria da', Mikel Atxaga *Errialde*; *Goiz-Argi*. 1973/III/31 'Hernandorena'. Iñaki Eizmendi *Basarri*; *Unidad*, 1976/V/21, 'La bertsolarística y la poesía en versión de D.Manuel de Lekuona', Santiago Aizarna...

Zerrendak eskaintzen duen beste isla interesgarri bat transmisioaren kezka da. Bederatzigarren tokian agertzen dira bertsolari gazteen sariketei buruzko testuak. Aurreko zikloetan ez zen horrelakorik egiten, eta orain gai albistegarri garrantzitsuenetako batean bihurtuko dira⁴⁶².

Bertsolaritzari buruzko hitzaldien inguruko berriek ere gora egingo dute, bertsolaritzak prestigio txo bat baduenaren beste zantzu bat eskainiaz⁴⁶³. Bertsolarien pasadizo eta ateraldien inguruko testuek, aldiz, zerbait behera egingo dute, bertsolariaren betiko irudikapen horren proiektzioa zerbait apalagoa izan ote daitekeenaren adierazgarri.

Bertso jarrien inguruan harilkaturiko artikuluek ere testu asko ekarriko dituzte. Eredu interesgarriena Zavalak 70. hamarkadan *El Diario Vascon* argitaratu zituen piezak dira. Auspoako liburuak osatzeko egindako lanaz baliatuaz, bertsolari baten biografiaren edo bertsolaritzaren historiako pasarte ezezagunen berri emateko aitzakia eta oinarri gisa baliatzen ditu bertso zaharrak. Bertsoez gain hauen testuinguru bat eskaintzen du, ikerketa lan baten emaitza den informazio jakin garri bat.

Gisa honetakoak beste hainbatek argitaratuko dituzte, bertsolari klasikoaren inguruan ari diren gehienek, normalean norbere ikerketaren emaitza baino aurretik jasotakoak berrerabiltzea egiten bada ere: Basarri, Lete, San Martin...

Xalbadorren heriotzean argitaraturikoek, Onena Sariketaren ingurukoek eta Markiñako Bertsolarien Biltzarrei buruzkoek osatzen dute hamabostekoa⁴⁶⁴.

Xalbadorren heriotzean argitaraturikoek aparteko bat merezi dute. 1976ko azaroaren 8tik 1977ko urtarrilaren 7ra, bi hilabete eskasean, 66 testu topatu ahal izan dira gertakari honen inguruan. Ez dago ordura arteko bertsolaritzaren historian oihartzun mediatiko handiagoa izan duen gertakaririk. Euskal Herriko 1965 eta 1967ko txapelketak, hurrenez hurren 73 eta 70 testurekin, gainera leudeke, baina finalaz gain hainbat kanporaketaren inguruko berriak ere barneratzen dituzte etiketa hauek.

Hoja del lunes de San Sebastián eta *Unidad* egukariak dira heriotzaren biharamunean berria zabaltzen duten lehenak: *Hoja del lunes de San Sebastián*, 1976/XI/08, 'Falleció el bertsolari Xalbador/Durante el homenaje que se le tributaba en Urepel/Estaba considerado como un gran poeta', Gorka, Reizabal; *Unidad*, 1976/XI/08, 'Ha muerto Xalbador'.

Igandean jazo zen berria eta egunkari gehienak ez ziren argitaratzen astelentetan. Bi egun beranduago zabalduko da modu indartsuago batean kioskoetara. *La Voz de España* azalean dakar, argazki eta guzti ('Trágica muerte del bertsolari Xalbador'); gertakariaren kronika Maria Francisca Fernandez-Vallesek sinatzen du, ('El domingo, en Urepel/Xalbador murió de emoción/Mientras bertsolaris de Vizcaya, Guipúzcoa y Laburdi le cantaban en su homenaje'), eta Basarri nahiz Santiago Aizarnak ere testu bana eskaintzen diote ('Ha muerto

⁴⁶² Ik. 6.4.2.4 Urteurrenak, Bertsolari-Eguna, gazteen sariketak eta beste

⁴⁶³ Ausaz aukeraturiko adibide batzuk hemen ere: *Gure Herria*, 1950 martxo, 65 or., 'Kobla eta othoitza. Donibane-Garaziko elizan bertsolarien egunean emana izan den hitzaldia', Pierre Lafitte; *Herria*, 1960/VI/02, 1 or., 'Lekuona jaunaren hitzaldia', Teodoro Henandorena; *El Diario Vasco*, 1961/III/19, 2 or., 'Conferencia de Don Antonio Arrúe en el Círculo de España'; *El Correo Español*, 1973/XII/08, 4 or., 'Bertsolarismo en la Universidad de Deusto' (Alfontso Irigoienek hitzaldia); *Zeruko Argia*, 1975/II/23, 6 or., 'Sozial Komunikabideak/Bertsolaritza' (Hitzaldia Aranalde, Lazkano eta Muniategik), Arrate Euskal Kultur Elkarteak; *Hoja del Lunes de San Sebastián*, 1976/IV/05, 'Hoy empieza el ciclo de conferencias sobre "Bilintx"'; *Unidad*, 1976/IV/06, 'Pierre Lafitte habló sobre la poética amorosa del otro lado del Bidasoa', Santiago Aizarna; *Unidad*, 1976/V/01, 'Caro Baroja habla de "recuerdos familiares y musicales sobre Bilintx"', Santiago Aizarna...

⁴⁶⁴ Ik. 6.4.2.2 Onena sariketa (1968) eta 6.3.3 Markinako bilkurak: elkarte baten beharra eta 'Bertsolari' aldizkari baten proiektua

el gran Xalbador' lehenengoak eta 'En la muerte de Xalbador' bigarrenak). Bertsolaritzaren berriemaile gisa lidergoa lehiatu ohi dion *El Diario Vasco*k oraingoan ez dakar zortzigarren orrialdeko berri labur bat baino: 'Ha muerto Xalbador'. *Diario de Navarra* ere jasotzen du: 'En el día de su homenaje: El domingo murió en su casa de Urepel el bertsolari Xalbador'.

Zazpi orduko omenaldiaren baitan adiskide guztiek besarkatu zuten, bertsolari lagunak hainbat bertso eskaini zizkioten, 'Odolaren mintzoa' liburuaren aurkezpena egin zen, Euskaltzain urgazle izendatu zuten... Urepelekoaren bihotzak, oraindik 57 urte baino ez zituen arren, ezin izan zion emozio uholde hari aurre egin. Fernandez Vallesen testuak Mikel Atxagaren kontakizuna hartzen du oinarritzat eta bertso-mundutik at datorren norbaitek bakarrik egin ditzakeen errataren bat dauka, baina ongi islatzen du egun haren tragikotasuna:

“Cada bersolari le dedicó un verso, menos 'Mattin' que le dedicó unos ocho. Xalbador escuchaba, seguía todo desde el estrado montado en el frontón y se reía mucho cuando los versos eran muy jocosos (...) El reloj va a dar las cinco de la tarde y Xalbador abandona el estrado (...) Hacia media hora que Xalbador se había retirado del estrado y sin embargo, el festival seguía normal. De pronto, todo el auditorio escuchó la voz de Xalbador cantando dos versos, pero no estaba en el escenario. La gente, así como su mujer Leoni, miraba a ver, si cantaba desde el público. Nadie se había dado cuenta de que se trataba de una cinta grabada (...) Mientras Xalbador agonizaba a pocos metros del estrado donde le dedicaban versos entrañables, entre el numeroso público (...) Las últimas palabras de Xalbador a su mujer fueron 'Ez ditut jendiak eskertzen ahal' (...)”

Sekulako zirrara eragin zuen bertsolariaren heriotzak, eta prentsaraino iritsi zen zirrara horren oihartzuna. Gertakariak harturiko dimentsioaren adierazgarri *Sud-Ouest* egunkariak ziklo guztian bertsolaritzari buruzko testu bakarra 1976ko azaroak 9 horretan argitaratuko du: 'A Urepel/La mort de Xalbador/a bauleversé le foule rassanblée pour lui rendre hommage'.

Deigarria suertatzen da baita, ireki berria den Madrilgo *El País* egunkariak ere, hainbat hamarkadatan Espainiako egunkari garrantzitsuena izango denak, azaroaren 10ean albistearen berri ematea, Jesus Ceberioek sinaturik 'Muere el 'bertsolari' Xalbador' izenburua daraman testuarekin. Hemen ere ez da bertsolaritzari buruzko gehiago argitaratuko urte askoan.

Hurrengo egunetan berriro ere *La Voz de Españak*, *El Diario Vasco*, *Diario de Navarra* eta *Hoja del Lunes de San Sebastianek* eta *Anaitasunak*, *Garaiak* (hiru orri eskaintzen dizkio aldizkari honek), *Herriak*, *Goiz-Argik*, *Zeruko Argiak* (hiru orri heriotza gertatu eta bi astetara ere), *Punto y Horak*, *Aranzazuk*, *Unidadek*, *Príncipe de Vianak* eta *Veteresek* hainbat testu eskaintzen dizkiote. Hiletaren eta ehorzketaren berri ematen da, hainbat herritan bere aldeko mezak burutu direla kontatzen dute, 'Odolaren mintzoa'-ren lehen iruzkinak egiten dira, bere figurari buruzko testuak argitaratzen dira bata bestearen atzetik... Ikusgarria da prentsaren bidez azken agur bat luzatu nahi izan zioten lagunak zerrenda: Basarri ('Au biotz-miña'), Emile Larre ('Agur, Xalbador'), Juan San Martin ('Xalbador'), Juan Mari Lekuona ('Xalbadorren ekarriaz'), Antonio Zavala ('Xalbador'), Jose Mari Satrustegi ('Ez adiorik!'), Joxe Mari Aranalde ('Haundia!!!'), Xabier Artzelus (Agur Xalbador, Euskal Herrian), Abel Muniategi ('Xalbador bertsolaria'), Aingeru Irigarai ('Xalbador, agur'), Andoni Lekuona ('Herriaren erraietan'), Mariano Izeta ('Xalbador'), Alfontso Irigoien ('Xalbador, Nafarroa Behereko txori euskalduna')... Tartean, azaroaren 22an, eskerrak eman nahi izan zituen familiak, Mixel Aire semeak *Zeruko Argian* argitaraturiko testu baten bidez: 'Xalbadorrenekoak esker onez'.

Hurrengo hilabeteetan hainbat omenaldi egin zitzaizkion Urepelekoari. Eta omenaldi hauek ere dezenteko oihartzuna izango zuten prentsan. ‘Odolaren mintzoa’ ‘Lengo egunak gogoan’-en oso bestelako lana izanagatik, kontakizunerako gaitasunean beharrean lirismoan oinarritua, Auspoaren bigarren salmenta arrakasta handia izango zen. Bertsolaritzaren historiako ziklo gehien markatu zuen figuretako bat izango zen Xalbadorrena.

6.6 PROIEKTUA: BERRESKURATU, GORDE ETA HAUSPOTZEN

6.6.1 Aurreko proiektuaren jarraitasuna: Basarri eta Hernandorena

Larrinagak azaltzen duenez gerra aurretik zuen proiektu berari heldu zion euskal kulturgintzak gerra ostean berriro ere bidea egiten hasi ahal zuenean; gerrak eta frankismoaren errepresioak asko ahuldu bazuen ere mugimenduak oinarritzko idea berak zerabiltzan esku artean:

“Gerraurreko kultura plataforma osoa hautsita geratu zen. Gerrak eta gerraosteko erregimen frankistak, hartara, egiazko parentesi kronologikoa ekarri zuen euskal kultura produkzioari dagokionez Hego Euskal Herrian. Baina, etenaldi bortxatu horrek ez du esan nahi pentsaera mailan aldaketarik ekarri zuenik (...) Belaunaldi beretsua da gerraurrean nahiz gerraoste garaian euskal kulturgintzan diharduena, XX. mendeko bigarren hamarralditik aurrera hasi zen belaunaldi huraxe, hain zuzen.” (2007b: 142)

Bertsolaritzarekin ere beste hainbeste gertatuko da: Txirritaren omenaldiko argazki hartan agertzen zirenetatik gerrari eta gerraosteko errepresioari bizirik eutsi ahal izan ziotenek emango diote jarraipena belaunaldi hark gerraurreko zikloaren gailurrean zirriboratu ahal izan zuen proiektuari.

Basarri aktore garrantzitsu bat izan zen: “‘Lehenengo Bertsolari Eguna’ 1935ean ospatu zenean, Basarrik saria irabazi ezezik, aintzindaritza bat hartu zuen bere bizkar, bertsolaritza berriagoan auresku izateko eginkizuna hartu. Eta gero, urte askoan gainera, zeregin hori bete (...)” (Lekuona, 1992: 295).

Juan Mari Lekuonak ‘Basarriren bertsolari proiektua’ izeneko artikuluan xehe-xehe aztertzen du zarauztarrak alor honetan egindako ekarpena, horretarako bertsolariak prentsan 1963tik 1984ra kaleraturiko hainbat artikuluko biltzen dituen ‘Bertsolaritzari buruz’ liburua oinarritzat hartuaz: “Liburuaren edukiaz jabetzen garenean, gauza nabaria da, Basarriren plazako kantugintzaren azpian bertsolari proiektu bat egon dela beti, egitasmo bat (...)” (Lekuona, 1992: 284). Honakoak lirateke Lekuonaren aburuz ditu proiektu horren ardatz nagusiak (id.: 284-286): 1) Zaletuek bertsolaritzaz zuten ezagutza maila igotzea 2) Bertsolaritza sagardotegietan egiten zenaz bestelakoa (gaien aukeraketan, tratamenduan eta abar) izan zitekeela erakustea 3) Gerraurreko *intelligentsiak* salatzen zuen bertsolarien euskara mordoiloa gainditzea 4) Bertso-saioak bertsolariarentzako baldintzarik duinenetan burutu behar direla azpimarratzea.

Finean bertsolaritza sagardotegitik antzokira eramateaz ari da, beraz, Basarri, aurreko zikloan Aitzol, Zubimendi eta enparauek martxan jarritako operazioa azken burura eramateaz⁴⁶⁵.

⁴⁶⁵ Aurreko atalean nahikoa sakondu da guzti honetan. Basarriren ideien eta XIX. mendeko Lore Jokoetan abiarazi ziren aldaketen arteko sintonia azalerraten duten aipu gutxi batzuk gaineratzea bakarrik. Honela, aipatu den gisan ikuskizun modernoaren parametroek plazatik toki itxira daramate kultura (Burke, 1991: 383-385) eta bide bera hartuko da bertsolaritzarekin XIX. mendearen bigarren erdian (Laborde, 1998: 610-611): “Bertsolari jaialdiak toki itxietan egin bear dira. Antzoki edo Teatroetan, pelotalekuetan eta abar.” (Eizmendi, 1984: 55).

Aurreko zikloan txapelketaren inguruan antolatu zen bertsolaritzaaren inguruko mugimendu guztia, Basarrik bide berari helduko dio eta, ikusi den gisan, 1949rako, Trabajadoresetatik itzuli eta sei urte eskasera, *La Voz de España* egunkari frankistarekin txapelketa bat antolatzen aurkituko dugu.

Hernandorena izango da Txirritaren omenaldiko argazkitik bizirik atera eta aurreko zikloko proiektuari jarraitasuna ematen itzelezko lana egingo duen beste eragile bat:

“Gerra aurreko eragile nagusienak hilak, preso edo erbesteraturik eta inolako egiturarik gabe, Teodoro bezalako langile bakarlariek eutsi zioten euskalgintzari. Iparraldean errefuxiatuak ziren bere belaunaldiko abertzale batzuek erresistentzia politikoaren hautua egin zuten bezala, Teodoro bertsolaritzaarekin geratu zen (...) Lehenik, bihotzean zeramalako herri kultura hori; eta bigarrenik, euskal aberria goratzeko bitarteko ezin eraginkorra zela zinez uste zuelako.” (Lasa, 2008, 767)

Basarrik bezala, txapelketetan ikusi zuen Hernandorenak gako garrantzitsu bat, eta zarauztarra baino lehenagotik, 1946an, hasia zen norgehiagokak antolatzen. Iparraldean ekin zion lanari, bertara ihes eginga baitzen, eta Hegoaldean baino testuinguru politiko samurragoa paratu zitzaion, baina edozein kasutan ere ez zen samurra izan bere gain hartu zuen zama: inolako egiturarik gabe aritu behar izan zuen, bertsolariak banan bana topatu eta oholtza gainera bideratuaz, antolakuntza lanei eta hauen gastuei bakarrik aurre eginaz... Hegoaldeko bertsolariak ekarri eta Euskal Herri mailako txapelketak ere jarri zituen martxan gutxira. Hainbat egilek azpimarratzen du (Aristorena, 1992: 8; Barandiaran, 2011: 18; Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 14-15; Etxezarreta, 1993: 135; Garzia, 2000a: 441; Iriondo, 2004: 24; Lasa, 2008: 767-771; Martinez Martinez, 2015: 79-80) ekarpenaren garrantzia.

Basarriren proiektua Hernandorenaren proiektua ere izango da, beraz, eta baita 60ko hamarkadan txapelketak antolatzeari ekingo dion Euskaltzaindiarena ere:

“(…) urrutira eramán du Juan Mari Lekuonak, eder-bideetan barrena, osabari hartutako lekukoa. Hari honetatik, oso esanguratsuak dira bere bi lan: “Txirrita eta Basarri: bi belaunaldiren arteko tenka” eta, batez ere, “Basarriren bertsolari proiektua”. Polita litzateke aztertzea zer neurritan dagoen bigarren lan honetan islatua Juan Mariaren beraren egitasmoa; zer neurritan isurtzen duen honek bere ikuspegia Basarri eskainitako lerroetan. Horrek, hala ere, ez gaitu harritu behar. Azken batean, iturburu bera dute bien egitasmoak: Manuel Lekuonaren egitasmoa.” (Esnal, 2008: 91)

6.6.2 Ikur eta eroale: lehen hamarkadetako kamustasunetik bertsolaritza sozialera

Badira Basarrik bertsolaritzaaren tokiaz edota bertsolariaren berezkitasunaz gerraurretik jorratu zirenez haratago helarazten dituen ekarpenak ere⁴⁶⁶, baina aurreko zikloarekiko

Saioen denbora laburtzea ekarri zuen desfioetatik txapelketarako aldaketak (Paia, 2011: 104): “Jaialdi batera biltzen dan jendea egarri antzean utzi bear da; berriz bueltatzeko gogo aundiarekin (...) aozabalka gelditzen badira, urrengorako etzazu izan aien itzaropenik (...) ta, okerreana dana, beste askori esango diete ez inguratzeko” (Eizmendi, 1984: 70). Edota gai-jartzailearen figura txertatuko da Lore Jokoetatik aurrera bertsolariaren jarduna bideratu eta maila jasoago batetara eramateko (Laborde: 609): “Euskal bertsoak eta euskal bertsolaritza (...) Eztaukate lokatzetan eta simaur artean ibilli bearrik. Askoz egiteko sakonagoa da beurena; askoz on geiago egin lezaiekete sorterriari eta izkuntzari” (Eizmendi, 1984: 118).

⁴⁶⁶ Juan Mari Lekuonaren artikulua hemen azaldu dena baino askoz ere zabalagoa da. Basarrik bertsolaritzaaren hainbat alderdi teknikoren inguruan eskainiriko iritziak ere aztertzen ditu, esaterako, eta zarauztarrak

ezberdintasun handiena, testuinguruak beharturikoa, mezu politikoaren kamustasuna izango da. Aurreko atalean ikusi da nola Aitzol eta enparauek bertsolaritza jeltzaletasuna zabaltzeko bitarteko eta ikur gisa baliatu zuten eta nola Basarri ere erabat bat zetorren asmo hauekin⁴⁶⁷. Frankoren diktadurapean, lehen hamarkadetan behintzat, ezinezko bihurtzen dira, ordea, kontu hauek guztiak:

“Gerra ondotik hirurogeigarren urtean Euskal Herriko txapelketa nagusia jokatu arte, zer gai eta giro izaten zen bertsoetan? Bertsolariek batez ere festa giroan kantatzen zuten, librean eta gai jartzailerik gabe. Librean kantatzeak ez du esan nahi edozer kanta zitekeenik. Gai politikorik jendeak apenas eskatzen zuen eta noizbait abertzale aldeko edo Francoren kontrako bertsoak entzuten bazen, halako dardara zabaltzen omen zen entzuleengan.” (Amuriza, 1987: 28)

Amurizak azaltzen duen bezala euskararen ingurukoak izango dira Basarri eta gainerako bertsolariek euren saioetan egin ahalko dituzten aipamen ‘politikoenak’:

“Bromatik aparteko gai nagusia euskara zen (...) Garai haietan euskarari ekiteak gaur baino konnotazio politiko gehiago zeukan. Politikaz zuzenean kantatzea ezinezkoa zenez gero, euskarak azpiko sentimentu isil guztiak bere gain biltzen zituen eta etsaiek ere bazekiten hori, eta ezin (...) jasan.” (1987: 28)

1960ko hamarralditik aurrera geroz eta gehiago izango dira neurri eta errimak dituen aldarrikapen politikoa egitera ausartuko diren bertsolariak, eta bertsolaritza soziala deritzonarekin indar osoz berreskuratuko dira bertsolaritzaren ikur eta eroale funtzioak. Ikusi den gisan gerra aurretik Lauaxeta eta Basarri berak egiten zuten bezala, hurrengo belaunaldiko bertsolari gazteak izango dira Kepa Enbeitak gorpuztu zuen bertsolari militatearen figura aldarrikatzen dutenak⁴⁶⁸, nahiz eta bertsolari hauek ahotsa ematen dioten ideologia beste bat izan: Bigarren Euskal Pizkundean ezkerreko abertzaletasunak hartuko du euskal kulturgintzaren lidergoa, Lehen Pizkundearen bigarren olatutik posizio horretan aurkitzen zen jeltzaletasuna ordezkatuaz, eta bertsolari gazte asko ideologia berriarekin lerrotatuko dira.

Mezu politikoen ugaritzeak eta zorrotzasunak erregimenaren debeku eta zigorren ugaritzea ekarriko du eta abertzaletasunaren baitako arrakalak bertso-munduaren arrakala. Basarri bera, esaterako, bertsolaritzaren ‘gehiegizko politizazioarekin’ deseroso agertuko delarik⁴⁶⁹.

Ikur izaerari ere eutsiko zaio, zikloaren lehen hamarraldietan gerraosteko errepresioak eta lehen frankismoaren giltzarrapoak baldintzaturiko kutsu folkloriko hutsalago batekin eta Bigarren Pizkundearen baitan Chahok sorreratik eman zion distira berreskuratuz. Gandarak, ikur izaera berritu honen oinarrian berriro ere ‘herriarekiko hurbiltasuna’ deitzen diona

bertsolaritzaren tokiari buruz edo bertsolariaren berezkotasunaz esandakoei garrantzia handia ematen die. Ik. 6.3.5 Basarriren polemikak

⁴⁶⁷ Zarauztarrak Zubimendiren irratsaioan esandakoak ekar daitezke gogora: “Euskera apaindu ta goraltzen, aberriari abesten, Abenda edo ‘arraza’ zarra indartzen, erriko jayetan iñora deitzen bazaiote, erriko zaindarian bizitza zerbait jakin ta berekin batean erriya poztu ta onesten (...) ta beste olako gauzetan lenen lenengo beardu bertsolariak, askotan izlari askok baño geyago egin lezakete ta. Bide ontatik jokatzen diran bertsolariak, Euzkadi gure aberri maitearen aldezerik bikañenak dira”. Ik. 5.3.1.2 Basarri, hautagai perfektua (1913-1999). Edota txapela irabazi berritan *Argian* egin zioten elkarrizketa: “Nere ustez eta juaten bagera abertzale gayak ibiltzen zituzten bersolarietara, ez da Enbeita’tar Kepa bezelakorik. ¡Enbeita aundia da!” Ik. 5.3.4.2 Basarri elkarrizketa *argian* (1935).

⁴⁶⁸ Ik. 6.4.3.2 Bertsolaritza soziala: Amurizak Lopategiri eginiko elkarrizketa

⁴⁶⁹ Ik. 6.4.3.3 Debekuak eta zigorrak: Azpillaga eta Lopategiren ausardia eta 6.4.3.4 Barne arrakala: Loiola irratiko sariketaren boikota

legekeela seinalatzen du: “(...) ‘herriarenganako hurbiltasun’ gisa deskribatuak komunitate modernoak bilatzen zuen balio sinbolikorako potentziala zuen: batetik, komunitateak iraganean, funtzionalitate praktikoz, erabiltzen zituen elementuak ahaidetasun eta izaera ‘esentzial’ baten oihartzun izan baitzitezkeen; bertzetik, edukiak marjinean geraturiko herri-istorio nahiz-historiekin baitzuen harremana” (2015: 229). Gabilondok Lehen Pizkunderako esaten dituen oso antzeko kontuak dakartza, bada, jarraitasun bat marraztuaz: “Bertsolarien atzemate horretan, pertsonaia subalternoaren irudia modernitaterako bide bihurtu zen: botere ofizialak isilarazia zuen herriaren lekukotza bizia” (id, 233).

Ikur izaera eraberritu honen bueltan, bertsolaritzarekiko arreta berri bat emango da berriro⁴⁷⁰, Bigarren Pizkundeko elementu garrantzitsu bihurtu eta hedabidetzea hauspotuz.

6.6.3 Zavalaren proiektua

Zavalaren pentsamenduan gehien sakondu duen ikerlariak, Pello Esnalek, tolosarraren lana ulertzeko hipotesi interesgarria eskaintzen du. Honela, goi-ikasketen bidea hautatu izanagatik Zavalak atzean utzi behar izan dituen sustraiak aipatzen ditu: “Bide berri horretan sartu ahala eta ahalean, atzean geldituz joan zitzaion umetako, mutikotako eta gaztetxotako paradisia; gero eta urrunago jolasetako lagunak (...) ez ditu inoiz ahaztuko bizipen oso eta gozo haiek” (2015: 67). Eta kultura popularraren lanketak sustrai horiek berreskuratzeko aukera eskaini zion: “Galdutako paradisia zen Antoniorentzat herri-literatura. Eta paradisu haren oihartzunaren bila ibili zen formazio-urteetan (...)” (Esnal, 2015: 71)⁴⁷¹. Hortik letorke bada bilketarako lehen bulkada: “Antonio Zavalak bizitza osoan eraman zuen kultur urradura sakon horrek eragindako zauria barne-muinetan. Ikasketek goi-mailara eraman nahi izan zuten tolosarra; baina berak bizi-mundua zuen maite (...) Eta erabaki sendoa hartu zuen: urratu hori sendatzen saiatuko zen gorputz eta arima” (id.: 244)⁴⁷².

Burkek kultura popularraren bestekotzea eta deskubrimenduaz eskaintzen duen azalpen orokorra, ezin hobeto egokitzen zaio bada Zavalaren kasu konkretuari: Kultura jasoaren bidetik urrunduta eta bestekotu egiten da tolosarra bere sustraietako herri kulturatik, eta atzean geldituriko kultura horren deskubrimendu erromantikoak, bestekotzeak eragindako exotismoaren lilurak, berreskurapenerako motor gisa funtzionatuko du.

Zavalak urradura hori ez zuen, noski, plano pertsonal batean bakarrik ikusten, ahozkotasuna nagusi zen ekosistema aurremoderno guztia ikusten zuen galtzar. Honela, esaterako, euskal komunitateak denbora gutxian bizi izandako transformazio sakona seinalatzen zuen:

“(...) el ambiente en que se criaron los abuelos de hoy, sobre todo los de ámbito rural, se parecía más a la Edad Media que a la era informática en que crecen sus nietos. Entre ambas generaciones hay más distancia que la que mediaba antes entre varios siglos” (Zavala, 2006b: 218)

⁴⁷⁰ Ik. 6.4.1.2 Euskal Pizkunde berria. 6.4.2.2 Arreta berria berriro: Oteiza, Aresti eta Ez Dok Amairu

⁴⁷¹ Garziaren elkarrizketan Zavalak berak eskaintzen ditu zentzu horretan seinalatzen duten arrasto batzuk. Honela, umezaroari zion estimua: “Urterik zorionsuenak ordukoak izaten ditu gizakiak gehien-gehienetan; eta nik ere bai” (Garzia, 2001: 75). Edota garai hura eta herri kulturaren artean egiten duen lotura: “Aitaren eraginik apenas izan nuen, nik hamar urte nituela hil zen bera eta. Amarengandik askoz gehiago. Hark herri-jakinduria eta herri-hizkuntza asko estimatzen zituen. Nola? Bera umetan bere amaren jaiotetxera joaten zen: Zubietako Zugaztira; eta bere aitonarengandik- eta gauza eta kontu asko jasoak zituen; gero guri kontatzen zizkigunak.” (id.: 75-76)

⁴⁷² Zavalaren hainbat aipu erabiltzen ditu hipotesiaren oinarri gisa. Honako hau, adibidez: “Nosotros, los estudiosos, para eso, para hacernos estudiosos, sorbimos en otras fuentes durante años enteros. Es una de las más fatales queiebras del vascuence, que toda cultura que se ingiera ha de ser forzosamente extraña y desviadora. Y, sin advertirlo, acabamos con otro contenido que no el puramente vasco en nuestra alma. Es entonces cuando iniciamos un periodo de reincorporación (...)” (1996a: 34)

Bere lanaren xede nagusia galera horri aurrea hartzea zela azpimarratzen zuen:

“Ésa es la labor que realizamos los llamados folkloristas, salvaguardando en libros lo que antes era vida en la mente y los labios del pueblo. Del mismo modo, otros recogen los utensilios de esas mismas gentes: las camas en que nacían, dormían y morían y las ropas que vestían; los pucheros en que cocinaban (...) para guardarlos cuidadosamente en museos. A veces se me antoja que éstos tienen mucho de libro; y los libros, por lo menos los que yo y otros como yo publicamos, mucho de museo” (Zavala, 2006b: 219)

Mundu horren galerarekin euskal kultura betirako gal zitekeela ikusten baitzuen:

“Nos toca a nosotros, más que conjeturar, trabajar por salvar el eus. Pero si muriese, y con él nuestro pueblo v, quedará en esta recopilación (bera orduan prestatzen ari zen bilduman], milagrosamente conservado, el deposito de sus deseos, penas, odios, alegrías, tris tezas, defectos, virtudes, amores y rezos; y, juntamente con ellos, pueblo e idioma habrán conseguido su más exacta y tenaz perduración.” (1996a: 40).

Kultura jasoaren eta popularraren artean azkenaren aldeko hautua egin zuen, bada, eta jende jantzia eta xumearen artean ere beste hainbeste: “(...) besteak beste, Antonioren meritu handietako bat jende xehearekin hitz egiteko beti izan zuen gogo aseezina, arreta eta begirunea izan ziren” (Iriondo, 2010: 9). Eta euskararen inguruan egin zuen hautua ere logika horren arabera esplikatzeko da: bertsoaren interesatzen ari zelarik garbizalekeria sabindarrak bertsoari euskara mordoiloari zion mesprezuaren arrastoekin egin zuen topo (Garzia, 2001: 80) baina bere iritzirako herri xehearen euskarak, euskaraz bakarrik pentsatzen zutenenak, hobea behar zuen erdaraz hezitako jende jantziarenak baino: “Yo me he acercado al pueblo, no para enseñar, sino para aprender (...) No he querido suplantarle y hablar yo, sino hacer que hablara él mismo” (Zavala, 2006a: 42). Izan ere, euskarak hainbat mende iraun bazuen herri xehearen praktikari esker izan zen hori:

“Yo diría que la vida del euskera ha venido siendo la historia de la deserción de los cultos y la adhesión filial de las clases iletradas. Evitemos que su muerte vaya a ser la deserción de las masas iletradas y de la adhesión, tardía ya, de los cultos.” (Zavala, 1996: 39)

Honela, euskara batua sortu ondoren ere, Euskaltzaina izan arren, ez zuen bere egin.

Azaldu da nola frankismoak ontzat hartzen zuen euskal kultura bakarra baserriko sutondo ingurukoa zen. Eta Auspoa jarri zion Zavalak izena bere bildumari. Tolosarraren motibazioek ez zuten, noski, inolako zerikusirik frankismoak euskarari opa zionarekin, baina bere egitasmoa bai egokitzen zitzaion ongi honek proiektatu nahi zuen kultur politikarekin. Alegia, frankismoak ez zuen euskal kultura jaso onartzen, eta Zavala herri kultura xumeenaren mailan ari zen lanean; frankismoak euskararen normalizazioa galarazi nahi zuen eta fraideak euskara arautua ez zuen maite; eta tolosarrak bere bildumari hartzen zion museo etnografiko kutsuak ere ondo egokitzen zitzaion garaiko agintarien plantemanduei.

Honela, aipatu berri den bezala Torrealdaik bertso liburuek zentsura frankista bestelako lan batzuk baino errazago gaitzen dituela esaten duenean, Auspoaren kasu konkretua jartzen du adibidetzat:

“Auspoaren lehen argitalpenetako batean (Malentxo Alarguna), zentsurako txosten arruntari zera erantzen dio Felipe Ugartek: ‘La Colección 'Auspoa', editora de este libro se dedica a la publicación de sus libros en un vascoence

puro y libre de neologismos separatistas y todos sus temas tratados (sic) con gran españolismo, por lo que esta Delegación considera de gran interés la autorización de todas sus obras.” (2000: 116)⁴⁷³.

Zentsurak emandako erraztasun hauek ez dute, noski, tolosarraren ekarpenaren meritua eta balioa inolaz ere zalantzan jartzen.

Zavalaren planteamenduek antz gehiago dute XIX. mendean euskal kultura popularra deskubritu zuten Mogel bezalako tradizionalistek egindakoekin⁴⁷⁴, XX. mende hasieran euskal kulturgintza modernoa kontzienteki planifikatu zuten Euzko Pizkundeko eragileek egindakoekin baino. Horrek ez du esan nahi ordea, tolosarrak Mogelek bezala kultura popularrari modernitaterako bidea ukatzen dionik. Honela, esaterako, Caro Barojak 1967an RTVerako zuzenduriko ‘Bersolaris, poetas populares vascos’ lanean, tolosarra izango da gidoilari. Edota txapelketa edo jaialdien formatuak bertsolaritza bere ekosistema naturaletik atera eta ikuskizun bihurtzen zutela kezka ikusten bazuen ere⁴⁷⁵, erabat inplikatu zen hauen antolakuntzan⁴⁷⁶, eta ondoren etorri ziren eragileen lana ere ontzat ematen zuen: “Que nadie malinterprete mis palabras estimándolas como condenatorias de nada. La labor de los bertsolaris modernos y demás promotores de las manifestaciones artísticas populares me han parecido siempre dignas de elogio. Que continúen adelante mientras tengan seguidores.” (Zavala, 2006b: 224)

Basarri, Hernandorena eta gainerakoen proiektuarekin, praktikan behintzat, bat egin zuen, bada, Zavalak. Eta proiektu orokor honi Auspoa bilduman gauzatu zen bere proiektu pertsonalaren ekarpena egin zion. Honela baloratzen du ekarpen hau Joxerra Garziak:

“Bertsolaritza aztertzeari ekin, eta (...) gizonarekin egiten nuen topo orain bai eta gero ere bai. Izan ere, ez dago inola ere bertsolaritza ulertzerik aita Zavalarik gabe. Are gehiago: Zavalarik izan ez balitz, zer azterturik ere ez genukeen izango gainerakoek (...) Ez da arrasto txikienaz teoria oso bat eraikitzen duten horietakoa. Aitzitik, arrastoak bildu eta iradokizun xumeak egingo dizkizu, gehien jota. Arrastoak, ordea, ez ditu edonork aurkitzen, biderearen eta bilatzen duenaren berri zehatza dakienak baizik.” (2001: 74)

⁴⁷³ Auspoaren inguruko zentsuraren hainbat txosten jasotzen ditu ikerlariak. 1962an Zavalak argitaraturiko ‘Euskal mutilak armetan’ lanari buruzkoa, esaterako: “Se recogen narraciones de la segunda guerra carlista de labios de veteranos de la misma y constituye un magnífico testimonio de lo que era el sentir vasco antes de que perturbaran las ideas separatistas” (Torrealdai, 2000: 143). Edota 1964ean argitaraturiko ‘Neronek tirako nizkin’ lanari buruzkoa: “El vascuence que se usa en la novela es el castizo del pueblo, y, consecuentemente, se halla desprovisto totalmente de neologismos y giros más o menos político-modernistas” (id.: 143).

⁴⁷⁴ Zavalak euskarari buruz esaten dituenetan, esaterako, Mogelek mende bat eta erdi lehenago izandako jarreraren oihartzuna suma daiteke: “No he procurado estudiar el vascuence de Larramendi, sino de los mismos rústicos y originalmente (...) Un rústico puede ser Doctor y Maestro de su lengua y ser Catedrático de ella, llamando a su escuela de las Montañas, á Clérigos, Frailes, Caballeros [...]” (Intxausti, 2014a: 112)

⁴⁷⁵ Hemen azaltzen du formatua eta ikuskizunaren arteko lotura: “(...) se cantan en un recinto cerrado, ante un público sentado, que quiere ver quién lo hace con más habilidad; o en una sobremesa, para quienes acaban de refocilarse con un buen festín. Es así un arte o espectáculo.” (Zavala, 2006b: 222). Eta lotura horrek eragiten dion kezka: “También las viejas costumbres, que antes eran vida y alma del pueblo, pasan a ser espectáculo, que viene a ser otro tipo de ornato y adorno” (id.: 220)

⁴⁷⁶ Adibide bat jartzearen, Pedro Díez de Ulzurrunek *Diario de Navarra* argitaraturiko testua: “Euskaltzaindia Euskal Herri osoko Bertsolarien Txapelketa berri bat antolatzekotan dago baño tamalez oztopo aundiak aurkitzen ditu bere asmoak aurrera eramateko. Izan ere Bizkaiko Gobernadoreak Bizkaia guztian bertsolari saio eta festa guztiak debekatu ditu, eta Gipuzko aldiari Bizkaiko bertsolari diren Azpillaga eta Lopategik publiko aurreran bertsoak kantatzea debekatua dute.

Euskaltzaindiaren izenez Aita Jesuita den Antxon Zabala gauzak konpontzeko ahaleginak egiten ari da eta bertsolarien har-emanak eta elkarhizketak egiten ditu oztopoak kendu beharrez.” (*Diario de Navarra*, 1972/VII/28, 19 or., ‘Nafar-Izkuntzan orria/Euskalerrian barna/Bertsolarien txapelketaren oztopoak’; Díez de Ulzurrun, Pedro).

Esan beharrik ere ez dago Zavalaren proiektua izango dela ziklo honetan bilketaren alorrean burutuko den ekarpenaren muina. Baina ez da lan hori burutuko duen bakarra izango. Era berean, alor honetan aurreko zikloarekiko berrikuntza handiena ere berea izango da, bere liburuetan bertsolariaren ahots subalternoari iragazkirik gabeko protagonismoa eskainiaz, eta bertsoari ez ezik bertsolarien prosari tokia eginaz⁴⁷⁷. Baina badira berrikuntza gehiago ere.

Honela, funtsezko berrikuntza izango da bertsoa grabagailuaren bidez jasotzeko irekiko den aukera ere⁴⁷⁸, eta grabagailuarekin saioz saio ibili zen hainbat laguneren lanari esker altxor garrantzitsu bat geldituko da jasota baita⁴⁷⁹.

6.6.4 Presentzia mediatikoa biderkatzeko apustua

Azaldu den gisan frankismoa ez da testuinguru samurra izango euskarazko kazetaritzarentzat. Ezta euskal gaien hedabideratzeko ere. Bertsolaritzaaren sustatzaileek, ordea, tinko eutsiko diote bertsolaritza hedabideen bitartez sustatu eta zabaltzeko apustuari. Honela, aipatu berri diren funtsezko hiru eragileak, Basarri, Hernandorena eta Zavala, garai honetan bertsolaritza prentsan gehien argitaraturiko sinaduren artean aurkitzen dira: Zarautarrak beteko du, hain justu, lehen tokia, 447 testurekin, bigarrena Zavala izango da 127rekin, eta Hernandorena laugarrena, 102ekin. Hirugarren sinadura joriena, 115 testurekin, Mariano Izeta litzateke, Nafarroako bertsolaritzaaren eragiletzan lan handia egindakoa baita.

Lore Jokoen zikloan gaiak prentsan gehien argitaratu zuen sinadurak, Becerro de Bengoak, 24 testu argitaratu zituela kontutan hartzen badugu, edota Euzko Pizkundearen zikloan lehen postuan aurkitzen den Zubimendik 33 sinatu zituela, argi ikusten da ziklo berriko apustua aurretik lortu zen presentziari eustea baino presentzia hori biderkatzea izango dela.

Basarri, ziklo honetako bertsolari erreferentziala, kazetaria izango da bertsolaria bezainbeste. Hori izango da hain zuzen ere ziklo honetan hedabidetzeak ekarriko duen berritasun nagusienetako bat: bertsolariak bere ahotsa (bertsolaritzaaren inguruko bizipenak, iritziak, gogoetak) kazetarien bitartekotzarik gabe hedabideari ekin dio, hasia da bere posizio subalternoa atzean uzten.

Basarriena izango da gehien zabalduko den ahotsa, baina ez bakarra. Pixkanaka bertsolariari eginiko elkarrizketak ugarituz joango dira batetik, eta bestetik Zavalak hainbat bertsolari jarriko ditu beren esperientziak kontatzen Auspoa sailean. Zikloaren amaiera aldera Amuriza ere azalduko da, kazetari lanetan murgilduriko bigarren bertsolari gisa. Eta bertsolari batek besteari eginiko lehen elkarrizketa ere argitaratuko da, Amurizak Lopategiri eginikoa.

Bertsolaritza prentsan duen presentzia mediatikoak bere hazkundearekin jarraituko du, bada, ziklo honetan, eta bertsolaritza buruzko aldizkari baten proiektua zirriborratzera ere iritsiko dira Markinako bertsolariak egiten dituzten batzarretan⁴⁸⁰.

⁴⁷⁷ 6.3.4.2 300 Titulutik gora ekarriko dituen bilketa lana

⁴⁷⁸ Honela azpimarratzen du Zavala berak 1960ko txapelketaren inguruan osatu zuen liburuaren hitzaurrean: “Orain arteko bertsolarien saioak, zenbat eta ederragoak izan, ainbat eta gauza tristeago bat zekarten beren ondoren: ainbeste bertso eder beti-betiko galdu bearra (...) txapelketa ontan bost bat magnetofon bazeuden agertokiaren saietsean. Eta saio guzian bertsolariak kantu-lanean eta tresna berri oien aria jira ta jira. Ari orrek eman du liburu au osatzeko bidea; bañan, oraingoan, letra bakar bat ere aldatu gabe.” (1996b: 103-104)

⁴⁷⁹ 1960 eta 1970eko hamarraldietan langintza honetakoen izen batzuk atera dira Aldairi eta Iriondori egindako elkarrizketetan: Zavala bera, Patxi Mujika, Joxe Mari Iriondo, Pedro Mari Goikoetxea, Ibarrako Beltza, Amezketa eta Alkizan erretore egondako Jose Agirre apaiz bertsolaria, Martin Ibarguren eta Soraluzeko Larraga (N. Aldai, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/26; J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

⁴⁸⁰ Ik. 6.3.3.2 ‘Bertsolari’ aldizkari baten proiektua

Irratian Joxe Mari Iriondok Loiolako Herri Irratian bertsolaritzari eskainiko dizkion emanaldiek formatu honen eskaintza kontsolidatu bat dakarte. Aurretik Basarri bera aritzen zen bertsolaritzaz La Voz de Gipuzcoan irrati esatari gisa, baina Iriondoren ekarpenak beste dimentsio bat hartuko du: Euskal Herriko txapelketak zuzenean eskainiko dira, hamarkada bat iraungo duen irrati bidezko bertsolari gazteen lehiaketa bat antolatuko da, entzuleei bertsolariei ariketak proposatzeko aukera eskainiko zaie eta abar⁴⁸¹.

Liburugintzan ere aurrerapausu garrantzitsua emango da, aurreko zikloetan baino askoz gehiago argitaratuko delarik. Neurri handi batean Zavalaren Auspoaren ekarriari esker emango da hori, baina Auspoatik kanpo ere hazkundera emango da. Honek eragina izango du bertsolaritzaren hedapenean baina baita bere presentzia mediatikoaren hazkundera ere: liburuen iruzkin ugari argitaratuko da prentsan, irakurketa hauek hizpidea emango dute berauetan jorraturiko bertsolariei edo bertsoei buruz medioetan aritzeko...

Azkenik, hurrengo zikloan funtsezkoa izango den formatu berria, ikus-entzunezkoa bere lehen emaitzak ematen hasiko da 1960ko hamarralditik aurrera⁴⁸².

6.6.5 Elkartearekin bueltaka Markinako batzarretan

Aurreko zikloan bertsolari gazteak trebatzeaz eta bertsotan egiten ikasteaz diarduten aipamen batzuk topatu dira. Ziklo honetan bide horretatik ez da asko aurreratuko. Garaiaren ilunak eta diskurtso hegemonikoak euskal kulturaz egiten duen irudikapen aurremodernoak ez du askorik lagunduko. Alorrari gehien hurbiltzen zaion hizketagaia sagardotegiko bertsolaria eta gorbatadun bertsolariaren arteko dikotomiaren ingurukoa izango da. Honela, 1960ko hamarkadan eskolatua izatea da Basarri hainbatek egozten dioten errurik larriena⁴⁸³. Berezko duen bertsolari menditar analfabetoaren irudiak sekulako pisua du oraindik.

1960ko hamarraldi horren erdialdetik aurrera hasiko da hori aldatzen, bertsolaritza sozialarekin. Fenomenoa bizitza kaletarrear, modernotasunean, txertatu beharra aipatzen da esplizituki, eta Amurizak, esaterako, Abel Muniategiri buruz egiten duen profilean, esaterako, bertsolaria ez ezik unibertsitarioa dela azpimarratzen du balore positibo gisa⁴⁸⁴.

Bertsolari gazteen txapelketek bai izango dute garrantzia⁴⁸⁵. Asko antolatuko dira eta oihartzun handia izango dute hedabideetan, baina bertso eskolei apenas egiten zaie aipamenik, eta egiten direnak oso zeharkakoak dira.

Aurreko zikloan, gazteak trebatzeko bitarteko gisa bertsolarien elkarte gisako bat sortu beharra ere aipatzen zuten Aitzol nahiz Lauaxetak⁴⁸⁶. Aipamen hauetan trebakuntza beharrarena baino azalekoagoak ziren elkartearen beharrari eskaintzen zitzaizkionak, baina Frankismo Garaiko ziklo honetan ibilbide gehixeago izango du bigarren honek.

⁴⁸¹ Ik. 6.3.6 Eredu garatua irratian Loiolako Herri Irratiaren eskutik

⁴⁸² Zavalak honela baloratzen du formatu berrietan lorturiko hedabideratzearen ekarpena: “(...) debemos reconocer un periodo de aprecio y favor por parte del sector culto, la época de la generación de Manterola. Vienen a continuación años de franca desestima, que duran hasta 1935 y 1936, en que, como diremos más adelante, cambian las cosas. Hoy tenemos otra tercera época, semejante a la de Manterola, pero con la diferencia de la aplicación a favor del bersolarismo de un mayor número de medios actuales.” (1996c: 226)

⁴⁸³ Honela defendatzen zuen bere burua Basarrik: “(...) También andan equivocadísimos quienes me creen un hombre culto, un hombre de formación, un intelectual (...) Sepan todos los que me leen que ‘Basarri’ solamente pisó la escuela hasta los once años de edad (...)” (*La Voz de España*, 1963/I/06, 9 or., ‘En defensa propia’, Iñaki Eizmendi Basarri). Ik. 6.3.5.1 Ayalderekin: sagardotegikoa vs. gorbataduna

⁴⁸⁴ Ik. 6.4.3.2 Bertsolaritza soziala: Amurizak Lopategiri eginiko elkarrizketa

⁴⁸⁵ Ik. 6.3.6.4 Bertsolari gazteen sariketa; 6.4.2.4 Urteurrenak, Bertsolari-Eguna, gazteen sariketak eta beste

⁴⁸⁶ Ik. 5.6.5 Berrikuntza: bertso-eskolaren eta elkartearen ideien lehen zantzuak

Honela, elkarteak sortu ez baina urtero Markinan batzar bat egiteko ohitura hartuko dute bertsolariek 1962tik 1973ra. ‘Bertsolarien Biltzarra’ jarriko diote izena. Ziklo garaikidearen gakoetako bat izango den autoeraketatik urrun aurkitzen dira oraindik, fraile karmeldarren bitartekotzat burutzen baitira batzar hauek, eta ohikoan ponenteak ez baitira bertsolariak⁴⁸⁷, baina bada aurrerapausu bat. Badirudi, gainera, bertsolari elkarte bat sortzearen ideia hainbatetan jorratu zutela: “Euskal Herriko bertsolari guztiak batzeko elkargo bat egitea ere esan izan da hainbat alditan (...)” (*Anaitasuna*, 1971/V/30, ‘Díaz de Ulzurruneri gutun irekia, Bertsolariak’, Deunoro Sardui). Baina, gauzatzeko nekeza zitzaien:

“Arrazoi duzu esatean, bertsolariek elkarren arteko Laguntza Elkarte bat behar dutela. Baina tamalez, zu bertsolaria izan arren eta hamar urtez Elkarte horren alde hainbeste lan eginez, ‘gutxi edo ezer gutxi egitea lortu’ delako (...) esan nahi daut, ez zuk ez eta nik ere ez dugula ezer egingo.” (*Anaitasuna*, 1971/VII/15, ‘Deunororen gutun irekiari erantzuna’, Pedro Díez de Ulzurrun)

Beharra ikusten zen behintzat, eta bertsolari gazteak trebatu beharrekina lotzen zen berriro:

“(...) bertsolarien elkarte bat sortu behar dala uste dot. Elkarte hau legepetu eta bertsolari guztiak batu. Gero, batasun hau gaurko Euskal Herriak joan behar dauan bideetatik zuzendu ahal leukeen norbaitzuk bilatu eta arlo honetan arduratzea lortu: bertsolari gazteentzat txapelketak jarri (...) Ea noizbait asmo honeek egia bihurtzen diren!” (*Anaitasuna*, 1971/V/30, ‘Díaz de Ulzurruneri gutun irekia, Bertsolariak’, Deunoro Sardui)⁴⁸⁸

⁴⁸⁷ (Lino Akesolo, Akesolo, Juan Mari Lekuona, Nemesio Etxaniz, Gabriel Aresti eta Joxemari Iriondo aipatzen ditu Iriondo berak ikerketarako buruturiko elkarrizketan (J. M. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18).

⁴⁸⁸ Ik. 6.3.3.1 Bertsolari elkarte baten behararen aipamenak

7. KULTURA POPULARRA BERANDUKO MODERNITATEAN ETA BIGARREN EUSKAL PIZKUNDEAN

“It is paramount to study the specific ways in which premodern, oral Basque culture has managed to mutate and flourish in television when mapping out the location of Basque culture in globalization.”

Joseba Gabilondo. ‘Before Babel. Global Media, Ethnic Hybridity, and Enjoyment in Basque Culture’. 1999: 32

7.1 KULTURA POPULARRA ETA MASA KULTURA

7.1.1 Kultura popularra masa kulturaren erregai

Hedabideek modernizazio prozesuaren bitarteko gisa izandako garrantziaz Thompsonnek egiten duen errepaso historikoa eskaini da Lehen Modernitateari testuinguru zabal gisa idatzitako atalean⁴⁸⁹. Atal hartan XIX. mendearen lehen erdian utzi da errepasoa, Lehen Modernitatea eta Beranduko Modernitatearen arteko trantsizioa seinatuz, produktua merketzeak eta biztanleria alfabetatuaren hazkundeak prentsa geroz eta publiko zabalagoetara iristea ekarri zuela zioen Thompson batekin.

Hortik aurrera, estatubatuarraren azalpenek erakusten duten bezala (1998, 108-113) ziztu batean emango dira aldaketak: elektrizitatean oinarrituriko komunikazio teknologien garapenak (telegrafoa 1840 eta telefonoa 1870) nazioarteko albiste agentzia handien sorrera ekarriko du mendearen bigarren erdian, eta hedabideetan oinarrituriko publizitatearen garapenaren ondotik komunikazio enpresa handiak sortuko dira garai beretsuan.

Prozesu honek, beste dimentsio bat hartuko du XX. mendean. 1920ko hamarralditik aurrera, azaldu den gisan, irratia abiaraziko da⁴⁹⁰, eta 1940ko hamarralditik aurrera telebista. Formatu berri hauek ez dute prentsaren bitartekotza hori osatu eta biderkatu baino egingo, hedabideak irudikapen kolektiborako jokaleku gisa are garrantzitsuago bihurtuz. Telebistarekin lehertuko diren masa kultura eta Beranduko Modernitateerako zubi gisa funtzionatuko duen irratiaz, esaterako, honakoa dio Marshall McLuhanek:

“Las profundidades subliminales de la radio están cargadas de los ecos retumbantes de los cuernos tribales y de los antiguos tambores. Ello es inherente a la naturaleza misma de este medio, que tiene el poder de convertir la psique y la sociedad en una única cámara de resonancia.” (1996: 307)

Masa kultura hedabide handiek zabaldu eta kontsumo masibora bideratzen duten kultura litzateke. Bere jatorria kultura popularra eta hedabideen arteko uztarketan legokeela ezarri

⁴⁸⁹ Ik. 3.4.1 Hedabideen papera kultur transformaziotan

⁴⁹⁰ Ik. 5.2.5.2 Bide berria urratzen

ohi da, baina Martín-Barberok azalpen osotuagoa eskaintzen du. Langileriak klase kultura bihurturiko kultura popularra kontsumora bideratuaz desmamitze bat bilatu zela azaltzen du:

“Como ha mostrado E. P. Thompson hay un momento en el desarrollo del capitalismo europeo en el que las luchas sociales transforman el sentido de la cultura tradicional (...) convirtiéndola en cultura de clase (...) mediante el uso rebelde que las clases populares hacen de sus tradiciones. Y bien, será precisamente esa cultura de los almanaques y la literatura de cordel, de las canciones, los espectáculos de feria y la taberna la que será neutralizada y desactivada, deformada por el proceso de masificación (...) la masificación consiste en el proceso de inversión de sentido mediante el cual pasa a denominarse popular en el siglo XIX la cultura producida industrialmente para el consumo de las masas.” (1987: 45)

Nazio-estatua ikusten du bilakaera honen atzean, Modernitatearen sorreratik gertatu bezala, kultura hegemoniko eta homogeneizatzaile batetik eratorriko litzatekeen zilegitasuna eraikitzen, eta horretarako hedabideak geroz eta modu masiboagoan erabiliz:

“Esa transformación del sentido de lo popular está ligada entonces no sólo ni principalmente con el desarrollo de los medios, sino, como lúcidamente comprendió Gramsci, con los procesos de centralización política y homogenización cultural —desintegración de las culturas populares— que exigió la constitución de los Estados nacionales, y con los procesos de desplazamiento de la legitimidad social que condujeron de la imposición violenta de la sumisión a la organización del consenso por hegemonía: a las relaciones del Estado-nación con lo nacional popular.” (id.: 46)

Amezaga bat dator azalpen honekin, hedabideek nortasungintzan burutzen duten papera seinatuz: “Historiari so eginez, esan daiteke, hedabideak izan direla, lehenago eskola izan zen bezalaxe, XIX. mendearen amaieratik aurrera estatueta nazio nortasunaren eragile handienak” (2009: 47-48). Hedabideek proiektatu ohi duten komunitateari ere erreparatzen dio: “Salbuespenak albuespen (adibidez, prentsa ‘erregionala’), mende oso batez komunikabide horiek irudikatu duten komunitatea estatu nazioaren subjektua izan da, hots, estatuak definitutako nazioa” (id.: 48). Eta aurrekoari lotuta ikur hedatzaile gisa duten garrantziari: “komunikabideak ikur hedatzaile garrantzitsuenak dira” (id.: 48). Honenbestez, tokian tokiko masa kultura neurri handi batean bertako Nazio-Estatuko kultura nazionala izan ei dela gaineratzen du: “(...) estatu-nazioa legitimatuko duen nazio kultura, hein handi batean, masa kultura deiturikoa izango da” (1994: 152). Eta Europar telebista eta irratiak luzaroan izandako kontrol estatala seinatuz biribiltzen du argudiaketa:

“Dudarik ez dago, mendebaldeko Europako estatuak babesle jarrera eduki ohi izan dutela "nazio kulturarekiko", agian oraindik Ilustrazioaren azken eraginek gidatuta. Hartzailego eta merkatu handiakoak bilatzen zuten jokabide "populista"ak, enpresa pribatuarentzat utzi izan dira. Estatu hauek (...) nolabaiteko kontrola mantendu nahi izan dute herrialde bakoitzean sortu eta garatzen zen kultura gintzaren gainean. Telebista eta irrati gintzaren jabetza eta kontrol estatalak, ondo erakusten du gertaera hau.” (Amezaga, 1994: 162)

Bestalde, nazio nortasunaz haratago, Martín-Barberok bezala, langile klaseak bere egindako kultura popularra sisteman integratzeko ahalegina ere aipatzen du, 1968ko maiatzeko iraultzari erantzunez Finlandiako hiriburuan buruturiko Biltzarraren ondorioei erreferentzia eginez: “(...) zera proposatzen da Helsinkin kultur politikaren helburutzat: kultura popularra,

‘alternatiboa’ edo ‘kontrakultura’ erreibindikatuz sistemaren aurka matxinatu diren gizarte sektoreak, kulturaren bidez sistema horretan bertan integratzea.” (Amezaga, 1994: 162)

Ñabardurak ere egiten ditu, ordea: batetik, Nazio-Estatua baino hartzailego eta merkatu handiagoei zuzenduriko eskaintza, geroz eta garrantzitsuagoa, enpresa pribatuaren esku utziko da hasieratik, bestetik AEBetan kontrol estatala askoz ere laxoagoa izan da, eta azkenik, Europako kontrola ere bigunduz joango da 1960-1970 hamarraldietatik aurrera (Espainian beranduago diktadurak eragindako isolamendua zela eta) besteak beste, kultura industriaren kontzentrazio eta transnacionalizazioak eragindako presioari amore emanez: “Arrazoi ekonomikoek eta politikoek bultzatuta, estatuen papera aldatuz joango da kulturgintzaren zuzendaritzan, merkatuko legeen indarra gero eta handiagoa izango delarik” (1994: 162).

Edozein kasutan, izan kultura tradizionala edota honen garapenez sorturiko kultura alternatiboa, izan estatuaren eskutik edota merkatu transnacionalen eskutik, kultura popularrak, kolektibitatearen sustrai esentzial gisa eta ikuskizun moderno bihurturik, geroz eta pisu gehiago izango du masei zuzenduriko hedabide modu berrietan.

7.1.2 Kultura mediatua eta tradizioaren bersustraitzea

Prozesu horrek guztiak hedabideak funtsezko kultur bitartekari bihurtuko ditu: “(...) kultura esparruko indar harremanak, masa hedabideek egituratutako esparru publiko eraberrituaren markoan gizarte ikusgaitasuna hedabideak artekari direla, erdiesten dira gero eta gehiago” (Larrinaga, 2007a: 199).

Egun ez du inork zalantzan jartzen bitartekotza honen garrantzia. Informazioaren gizartearen aroan bizi garela diote batzuek, hirugarren iraultza industrialaren lehengaia informazioa eta kultura direla besteak. Hiru zentzutan ematen den hedabideen bitartekotza bat aurkituko dugu ideia guzti hauen oinarrian: eskaintza kulturalari buruzko informazioaren iturri nagusia hedabideak dira, batetik; bestetik, eskaintza hori ulertzeko oinarriak ere, neurri handi batean hedabideetatik etortzen zaizkigu, eta, azkenik, kulturaren egokitzapen nahiz berrikuntza, neurri handi batean, hedabideen esparruan jokutzen dira.

Ariñok dioen bezala kulturak, izango bada, publikoa eta kolektiboa izan behar du (1997: 45). Kultura azken batean informazioa baita formalki, norbaiti zuzenduriko edukia:

“La cultura consiste en un sistema de simbolos, en información transmitida mediante aprendizaje social, en memoria no genética (...) las formas simbólicas son intencionales, es decir, que son (o son percibidas como) expresiones de un sujeto y se orientan a un sujeto.” (Ariño, 1997: 82)

Kulturaren igorleak, bada, informazioa igorriko du: “El sujeto creador o productor persigue determinados fines u objetivos, pretende expresarse a sí mismo o transmite un significado. Su obra es un mensaje que demanda atención y comprensión” (Ariño, 1997: 85). Eta gizarteari informazioa helarazteko bide nagusia hedabideak dira, egun: “En la modernidad, la comunicación no fagocita la cultura ni la sustituye, sino que la articula. La cultura actual, la de nueva creación y la del futuro se selecciona, distribuye y estabiliza preferentemente desde la comunicación mediática e intergrupala” (Garzia, Idoyaga eta Zallo, 1999: 433). Gizarte modernoaren konplexutasuna dela eta hedabideek publikatu ezean nekez iritsiko da ezein fenomeno kultural sektore zabalentzako konpartitua, alegia, kultura popularra, izatera. Garziak bertsolaritzari erreferentzia eginez dioen bezala komunikabideetan agertzen ez dena gizartearentzat kasik ez da existitu ere egiten:

“Bizi dugun gizartemodu honetan hedabideek betetzen dute behiala erlijioak bete ohi zuen funtzioa: zernahi giza jarduera, hitzarmen edo egoera sakralizatzearena, alegia. Hedabideetan agertu ezean izaterik ere ez dagoela esan liteke, gero eta gehiago (...) Kultur jarduera ere ez da horretan salbuespen. Eta bertsolaritza, zer esanik ez, kinka horretan dago: hedabideek eskatzen dioten bideari egokitu, horrek dituen arriskuekin, edota jatorrietako molde eta moduei itsu-itsuan atxiki, gizarte mailako ezein eragini behin betirako uko eginez.” (Garzia, 1993: 84)

Bizi komunitate batean sozializatzeko ezagutzen multzo gisa definitzen du kultura Rodrigok : “La persona interioriza unas maneras de pensar, de sentir y de actuar. A partir de esta interiorización no sólo comprende el mundo de su comunidad, sino que este se convierte en su mundo” (1999: 67). Pentsamolde horiek, sentitzeko edo egiteko modu horiek, mundu hori, Ariñok dioen bezala, sinbolo sistemak dira; hau da, zeinuaz ari gara (munduaren kodeketa subjektibo bat) eta ez errealitate objektiboaz (mundua). Pentsamolde horiek, sentitzeko edo egiteko modu horiek, ikasiak direlarik, ikasketa sozialaren bidez eskuratzen den informazioa dira. Ikasitakoak norbaitek irakatsia behar duela gaineratzen du Basterretxeak:

“Irakaste-prozesuan, begibistakoa da masa-hedabideek duten aparteko rola (...) Gaur egungo ezagutza, ezagutza modernoa batez ere, informazio publikatuan oinarritutakoa da (...) Egungo kate sinifikatzaileak, kate interpretatibo modernoak, hedabideak sortzen dituzten ulertarazle kolektiboen menpe daude. Inferentzia kolektiboa, zeinuen zeinua, ordezkoren ordezkia, interpretazio kolektiboa ulertaraztaile mass-mediatikoei baldintzatua da.” (1998: 57)

Kulturaren zabalkunderako ez ezik, honen ulerkera eta interpretaziorako ere funtsezkoa da hedabideen bitartekotza, bada: “La unión de estos dos conceptos –cultura y comunicación- se debe a la importancia de los flujos comunicativos en las sociedades modernas, en tanto reiteran y fijan valores, ideas, imágenes, temas, representaciones, interpretaciones, mitos (...)” (Garzia, Idoyaga eta Zallo, 1999: 433). Eta azkenik, eskolarekin batera, kulturaren berrikuntza eta egokitzapenerako ere bitarteko oso garrantzitsu bat izango dira hedabideak: “Los dos subsistemas institucionales especializados, volcados a la reproducción, renovación y adaptación de la cultura a los requerimientos de los cambios sociales, son el sistema educativo y el sistema mediático (...)” (Garzia, Idoyaga eta Zallo, 1999: 411).

Honenbestez, kulturgintzak hedabideen leiho horri jarri beharreko arreta funtsezkoa izango da, neurri handi batean kultura mediatuarekin lan egitea tokatuko baitzaio: “Masa hedabideek eta kultura industrien moldatutako esparru publikoak osatu du gaur egun kultura ekoizleak daukan komunikazio gunerik garrantzitsuena —ez bakarria— eragin proiektuak hezurramitu ahal izateko” (Larrinaga, 2007b: 201).

Kulturaren mediatizazioak kultura popular tradizionalaren inguruan izandako eraginaren inguruko hainbat gogoeta mamitsu eskaintzen du, J.B. Thompson soziologo estatubatuarrek. Honela, tradizioak historikoki funtzio hermeneutikoak, araukorak eta legitimatzaileak bete izan dituela azaltzen du eta nortasun iturri garrantzitsua izan dela gaineratu. Modernitateak tradizioaren galera dakarrela dioen ikuspegi klasikoari ameto emanaz, honen garapenak elementu araukor eta legitimatzaile gisa gainbehera nabarmena izan duela onartzen du, baina jarraian, ikuspegi klasiko horretatik urrunduz, beste bi funtzioei indartsu eusten diela azpimarratzen du: “(...) la tradición retiene su significado en el mundo moderno, particularmente como medio de dar sentido al mundo (aspecto hermenéutico) y como manera de crear un sentido de pertenencia (aspecto de la identidad)” (1998: 246).

Kultura mediatuaren agerpenak aurrez-aurreko elkarreraginean gauzatzen zen ahozko kultura tradizionalaren alternatiba indartsu bat eskaini du. Honela, Thompsonnek kultura honen ‘deserrotzea’ deritzon prozesua eman da: “(...) la transmisión de materiales simbólicos que comprenden tradiciones se ha separado progresivamente de la interacción social en un espacio compartido” (id.: 246). Baina ‘deserrotze’ honek ez du tradizio honen galera ekarri: “El papel de las tradiciones orales no fue eliminado, estas tradiciones fueron matizadas, y en cierta medida reconstruidas, a través de la difusión de los productos mediáticos” (id.: 55). Honenbestez, hedabide modernoek tradizioa ‘bersustraitzeko’, berreraiki eta indartzeko, aukera ireki dute:

“(...) la mediatización las dotó de una nueva vida: (...) el desarraigo no les privo de sustento (...) preparó el camino para ampliarlas, renovarlas y reincorporadas en nuevos contextos y unidades espaciales que se encontraban más allá de los límites de la interacción cara a cara.” (id.: 239)

Beranduko modernitatean, kultura mediatua eta masa kulturarekin lehertuko den fenomeno bat da hau, baina Modernitatearen sorreratik bertatik hasiko da ematen, inprentaren agerpenarekin. Burkek ahozko tradizioaren hasierako deserrotze baten hainbat zantzu kokatzen ditu XV. mendean bertan:

“El libro fue un peligroso competidor, porque el comprador del texto impreso podía evitar asistir al espectáculo, perdía todos los incentivos para permanecer en la plaza escuchando a un cantante itinerante. La expansión de la alfabetización coincidió con la decadencia de la épica en la Europa occidental, mientras que esta convivió con el analfabetismo en Sicilia, Bosnia o Rusia. Pero además, el libro fue un aliado traicionero, porque los textos impresos afectaban a la naturaleza de la actuación, favoreciendo la repetición – opuesta a la recreación – del cuento o la canción. Se ha sugerido que la alfabetización atrofia la capacidad de improvisar, al tiempo que elimina algunos de los incentivos que la favorecen.” (Burke, 1991: 357)

Hedabide berriak, inprentak, deserrotzeaz gain bersustraitzeko aukera ere ekarri zuen, ordea:

“El contenido del material popular impreso no nos sugiere una ruptura radical en la continuidad cultural. Muchos de los temas que fueron impresos, habían formado parte del repertorio de los actores que estaban dentro de la tradición oral y, desde luego, llevaban las marcas de su origen: baladas y diálogos, sermones fingidos y dramas sacramentales.” (Burke, 1991: 359)

Liburuak irakurketa pribaturako baino plazan altuan irakurtzeko baliatu zirela kontatzen du, eta lau mende geroago, Alemania nahiz Frantziako liburu saltzaile ibiltarien eskaintzetan, ahozko tradizioetik jasotako ipuin eta bertsoak zirela nagusi:

“Uno empieza a preguntarse si el libro impreso no sólo preservaba la cultura popular, sino que incluso lo extendía a otros lugares en vez de destruirla (...) Los viejos temas no desaparecieron entre 1500 y 1800, y además aparecieron otros nuevos. Los cambios culturales, en este caso como en otros, no fueron tanto ‘sustitutivos’ como ‘aditivos’.” (id.: 359-360)

Bertso-paperek ere antzeko eragin bat izan zutela ikus daiteke. Idatziak izan arren ahozkoaren zabalkundea ekarri zutela, aurrez-aurrekoarekin hautsi arren, nolabaiteko deserrotze bat eragin arren, fenomenoak bersustraitzeko balio izan zutela. Eta bertso-munduak XIX. mendean hasita bertsolaritza hedabideratzeko gaur arte egin duen apustu jarraitua ere Thompsonnek azalduko bersustraitzean kokatzen den ahalegin gisa uler daiteke.

Euskal kulturaren modernizazioa oso berantiarra izan denez, bertsolaritzaren hedabideratzeak eta habitat berrian lur hartzeko burutu diren moldaketek eragindako kezka, zalantza eta eztabaidak gaurdaino luzatu dira. Thompsonen arabera, deserrotze eta bersustraitze prozesuek alde guztietan eragin izan dituzte antzeko kezka, zalantza eta eztabaidak. Eta geurean ematen direnentzat harira etor daitezkeen pare bat azpimarra esanguratsu ere eskaintzen ditu. Batetik, azaltzen du kultura mediatua indartsu garatu izanak ez duela zertan aurrez-aurreko praktika kulturalaren galera ekarri:

“Los medios de comunicación pueden ser utilizados no sólo para desafiar y socavar los valores y creencias tradicionales, sino también para difundir y consolidar tradiciones. No resulta difícil dar ejemplos de cómo los media han sido eficazmente utilizados al servicio de la tradición.” (Thompson, 1998: 255)

Aurretik kulturari buruz aipatu direnak tradizioaren alorrera dakartza, bada: “La creación y renovación de tradiciones son procesos que cada vez están más ligados al intercambio simbólico mediático” (1998: 135). Eta tradizioa bersustraitzeak ez duela zertan tradizio horren esentzia kaltetu azpimarratzen du: “(...) las tradiciones que dependen en muchos sentidos de formas simbólicas mediáticas no son *ipso facto* menos auténticas que aquellas transmitidas exclusivamente a través de la «interacción cara a cara» (...)” (id.: 264).

7.1.3 Masa kultura eta euskal kultura: bertsolaritza berriro ere

Bistakoa denez, masa kulturak presentzia oso garrantzitsua du egun Euskal Herrian. Hain ohikoa ez dena, Amezagak azaltzen duen legez, bertako kulturak masa eremu horretan duen toki litzateke: “(...) masa kulturaren eraikuntza prozesuan, euskal kulturak ez du, kasik, presentziarik izan” (1994: 21). Erdalduna izan da, beraz, nagusiki, bertan hedatu den masa kultura hori: “(...) hezkuntza sistema finkatu eta komunikabideak hedatu ahala, erderak "herrikotzen" —hots, herriak bere egiten— joango dira, euskararen kaltetan” (id.: 21).

Amezagarentzat, ordezkatzeko prozesu honen atzean euskal kulturaren subalternitatea legoke:

“Estatuaren botereak eta merkatuaren indarrak ezartzen duten kultur kapitalaren ezberdintasunean, euskal kultura desjabetua da, hala kultur kapitalari dagokionez —euskal kultura ez baita kultura nagusia, ez "kultura landu" gisa, ez eta hegemoniko gisa—, nola kultur kapitala sortzeko edo "metatzeko" beharrezko dituen baliabideei dagokienez: komunikabideak, kultur politika, kulturaren industria, e.a.; azken funtsean, botere politikoaren eta ekonomikoaren eskura dauden baliabideak. Bestetik, estatu-nazioaren eraikuntzak eta kapitalismoaren bilakaerak ezarritako boteretik baztertuak izan diren eta oraindik ere baztertuak diren herri sektore batzuen kultura da euskal kultura.” (id.: 190)

Egia da euskarazko kultura popularrak aritzeko forma tradizioaletara jo behar izan dela, baina horrek ez du zerikusirik euskal kulturaren izaerarekin, populartasun modu berriak eskuratzeko izan dituen zailtasunekin baizik. Asko entzun izan dira euskal kultura atzeratua eta atzerakoia, kultura modernoaren garapenari kontrajarria dela esaten duten ahotsak, baina ez dira zapalkuntza kulturala modernitate saio gisa mozorrotzeko ahalegina baino. Amezagak azaltzen duen bezala, kultura tradizional-etniko vs kultura moderno dikotomiak ez du inolako funtsik: “Euskal kulturari buruzko auzia, beraz, tradizioa/modernitatea alternatibian kokatu nahi izatea, ikuspuntu desegokitzat jo behar dugu. Azken funtsean, Clifford Geertzek etnozentrismo politikorako dioena kulturarako jaso, zera esan beharko genuke: modernizazioak ez du etnizismoa desagertarazten, modernizatu egiten du” (Amezaga, 1994:

192). Errealitateak dio, behar diren indarrak bildu ahal izan dituenen eta hedabideetan sartzea lortu duenean, beste ezein bezain moderno izatera irits daitekeela euskal kultura:

“(…) kultura herritarrik inon bada, derrigor iraganetik datorrena behar du izan. Horrek esplikatu luke, gure iritziz, zergatik egungo kultur hedapenerako bideetan nola edo hala sartzea lortu duten adierazpideak, bertsolaritza kasu, aldi berean tradiziozko herri kultura eta egungo herri kultura gisa har daitezkeen. Eskolaren bidez edota komunikabide eta ikuskizun masiboen bidez lorturiko hedapenak, bertsolaritza euskal kultura herritar eta garaikidetzat ikustea ahalbidetzen digu.” (id.: 22)

Bertsolaritza aipatzen du, bada, Amezagak euskal kulturaren baitan masa kulturarekin hibridatzeko gaitasuna erakutsi duen alor gisa. Eta bigarren alor bat ere aipatzen du: “Gutxienez, honako arlo biotan ikusi dugu herri kultura, tradiziozko datorren kultura izanagatik, egungo praktiketako osagai gisa hartzeko joera: bertsolaritza bata, eta euskalgintza bestea” (Amezaga, 1994: 16). Zerrenda ez du asko gehiago luzatzen:

“1950ko hamarkadatik aurrera euskal kulturak izaniko modernizatzeko prozesu erraldoiarekin, egun inoiz baino ume gehiagok burutzen ditu bere ikasketak euskaraz (...) inoiz baino gai gehiago lantzen dira euskaraz unibertsitate mailan; inoiz baino komunikabide gehiago aritzen dira euskaraz; bertsolaritzan inoiz ez bezalako saio masiboak burutzen dira, komunikabideen, eskolaren, eta bestelako ekimenen laguntzaz (...); desagertzeaz zeuden zenbait musika tresnak —trikitiak, albokak, txalapartak— inoiz baino jole gehiago dituzte, bertsolaritzarekin batera musika molde berriekin konbinatzen hasiak direlarik —rock, rap, e.a. (...)” (Amezaga, 1994: 191)

Gabilondok, ildo beretik, bertsolaritzak globalizaziora sarbide bigun (‘smooth’) bat izan duela seinalatzen du euskal literaturaren historiari emandako erreposaren azken paragrafoetan:

“Finally, it is worth mentioning that the core of Basque literature, its oral tradition, has made a smooth transition to globalization. The *bertsolaris* or verse improviser has reemerged as the other auratic “writer” who is followed not only on stage but also across different platforms such as twitter, radio, television, youtube, or facebook. The *bertsolaris* hold a national championship every four years, which usually is sold out and gathers a public of over 10.000 spectators. From Xabier Amuriza and Andoni Egaña to Maddalen Lujambio, the first woman *bertsolari* to win the championship, they represent one of the liveliest aspects of Basque literature.” (Gabilondo, 2016: 281)

Egile urretxuarraren iritziz euskal kultura eta masa kulturaren arteko hibridazioa Euskal Telebistarekin abiarazten da, baina gaineratzen du aukera horri toki gutxi egina bertan:

“Therefore, at the moment in which Basque television constituted a Basque social space and self, it also brought about the hybridation of Basque culture with globalized mass culture in a ratio where the domestic production only occupied a symbolic or qualitative position, not a quantitative one.” (1999: 33)

Bertsolaritza eta euskal antzerkigintzaren oinordekotzat jotzen dituen telesailak lirarteke, euskal kulturari masa kulturarekin hibridatzeko eskainiriko eremu estu horretan euskaraz garatu ahal izan diren bakarrak :

“(…) historically speaking three types of programming have carried the most weight: soccer, programs of oral literature called bertsolaritza (rhymed oral poetry), and Basque soap operas. However, and as I will discuss below, when

one concludes that the origin and format of Basque soap operas is also oral, then we only have two types of programming: soccer and “oral” programs (...) In the case of bertsolaritza or oral poetry and soap operas, ETB1 drew from the limited resources already existing in Basque culture and, after several experiments, realized that in a first moment the bertsolaritza show on Sunday mornings became the program with the largest audience.” (Gabilondo, 1999: 34)

Bat dator, beraz, Amezagarekin euskal kulturak masa kulturaren dimentsioak salbuespen gisa bakarrik hartu izan dituela adierazi, horretarako hedabideetan toki bat topatu izana ezinbestekoa dela azpimarratu, eta salbuespen horien artean bertsolaritza seinalatzerakoan.

Beste kultur adierazpide batzuk lortu ez duten masa kultura dimentsio hori bertsolaritzak zergatik lortu ote duen ez da askorik sakondu. Mario Zubiagak eskaintzen duen gogoeta hau da, kuestio honen inguruan topatu ahal izan den bakanetako bat:

“Honela zioen duela gutxi Andoni Egañak: Bertsoa klinex bat da, bertsoa bota egiten da eta entzuleak erabili ahala ahaztu egiten du (...) Bertsoaren funtzioa ez da nagusiki artistikoa, komunikatiboa baizik eta egiteko horren barruan erabaki beharko dugu zer asmo duen leku eta une jakin horretan: asmo ludiko huts bat, asmo ideologikoa edo asmo sermoilari bat (...) bertsoa ondo egokitzen zaie gaurko kulturaren ezaugarriei: gauzak ez direla alegia sakondu, memorizatu eta gordetzeko; hartu, gozatu eta botatzeko baizik (...) merkatu komunikatiboak bere burdinazko lege ezkutua du: azkar, argi, arin. Hau da, edozein iritzi edo kultur adierazpeni agintzen zaion hirukoa.” (Zubiaga, 2001: 69-70).

Zuzeneko sorkuntza da, ikus-entzunezko elementuak biltzen dituen, aldiro berria, taldean gauzatzen denez sozializazio gune bezala funtzionatzen duena... bertsolaritzak masa kulturekin hibridatzerakoan izandako arrakasta azal dezaketen pista gehiago ere antzeman daitezke, baina, oraingoz behintzat, ez gara putzu horietan sartuko. Beldur handirik gabe baieztatu daiteke, ordea, bertsolaritzaren eragileen belaunaldi ezberdinek buruturiko lanak zerikusi handia izan behar duela kontu guzti honetan:

“Bertsolariek kantuan sortzen duten bat-bateko lilura horrek pizten du bertsolaritzaren metxa. Baina beste diziplina artistiko batzuek ere badauzkate sortzaile bikainak eta, hala ere, ez daukate halako oihartzunik. Beraz, ekoizpen artistikoaz gain, nabarmena da testuinguruak ere laguntzen duela, eta testuinguru hori proiektu soziokulturalak ekoizti du, ez da berez etorri” (Zubiri, 2018: 25)

7.1.4 Masa kultura eta ahozketasunaren susperraldia

Ikerketaren atariko puntuan aipatu da Walter Ongék ‘Ahozketasun primarioa’ eta ‘Bigarren ahozketasuna’ren artean buruturiko bereizketa. Orobat aipatu da baita ere masa kulturaren hedapenean funtsekoak diren ikus-entzunezko hedabideen bitartekotzak, euren ezaugarri teknikoak direla medio, eman dela ahozketasunaren susperraldi berri hau:

“(…) llamo "oralidad primaria" a la oralidad de una cultura que carece de todo conocimiento de la escritura o de la impresión. Es "primaria" por el contraste con la "oralidad secundaria" de la actual cultura de alta tecnología, en la cual se mantiene una nueva oralidad mediante el teléfono, la radio, la televisión y otros aparados electrónicos que para su existencia y funcionamiento dependen de la escritura y la impresión. Hoy en día la cultura oral primaria casi no existe en

sentido estricto puesto que toda cultura conoce la escritura y tiene alguna experiencia de sus efectos. No obstante, en grados variables muchas culturas y subculturas, aun en un ambiente altamente tecnológico, conservan gran parte del molde mental de la oralidad primaria.” (Ong, 2016: 47)

Ongek, 1980ko hamarraldiaren hasieran egin zuen ezagun bereizketa hau, eta, orduetik, Interneten agerpenak, are agerikoago bihurtu da. Honela, egun funtsezko bihurtu diren sare sozialetan, edo email bidezko mezu trukaketan, esaterako, idatziak ere ahozkoaren formak hartu ditu geroz eta nabarmenago.

Inprentaren sorreratik, XV. mendetik, modernitatea idatziarekin identifikatzen bazen, eta zentraltasun guztia idatziak hartu bazuen, badirudi, XX. mendearen bigarren erditik aurrera haizea alde jarri zaiola ahozkoari, eta bost mendetako ertzekotze prozesuaren ondotik posizioak berreskuratzen ari dela. Gabilondok argi ikusten du:

“Laburki esateko, hedabide elektronikoen —telebistatik internetera eta sakelakoetara— kulturari ahozkoaren bira eman diote, edo orokorkiago esanda, ikusentzutezkotasuna-ren bira deitu beharko geniokeen hori eman diote, azken batean performantze bihurtuz. Hots, idazketa eta ahozkoaren arteko hierarkia modernoa irauli egin dute: egun idatzizkoa ahozkoaren, ikusentzutezkoaren eta performantzearen azpisail baino ez da, efektu bat.” (2009: 13)

Bertso-munduak ere erreparatu dio aldaketa honi. Honela, Zavalak ahozkoaren primarioaren galera eta bertsolaritza lotzen dituen lanean:

“(…) voces que últimamente se han alzado para denunciar el excesivo racionalismo de nuestra cultura (...) observemos que tales voces surgen precisamente en el momento en que el hombre crea nuevos artilugios, que, al contrario de la escritura y la imprenta, prodigan y fomentan las imágenes visuales y que a lo mejor resultan ser las armas de un auténtico contraataque del pensamiento intuitivo sobre el discursivo, hasta el punto que empiece ya a hablarse de una nueva cultura de la imagen.” (Zavala, 1996f: 263)

Edo Garziak 2008an aurkezturiko Mintzolaen proiekturako idatzi eta Barandiaranen liburuan jasotakoetan:

“XXI. mendeko komunikazio mota berriek ahozkoaren zentraltasuna ekarri dute, edo bestela idazkera bat-batekoarena, oroz gain komunikatiboa, eta estandar idatziaren morrontzatik aske dena. Eta euskararen unibertso txikian behin eta berriro aipatutako kontraesana areagotu egiten da horrela: adierazkortasuna galtzen ari da, eta, denbora eta espazio berean, hizkuntzaren baliabide bat-batekoak garatu, modernizatu eta gailurrera eraman dituen kultur jarduna aparrean dantzan dago” (Barandiaran, 2011: 131)

Masa kultura eta ahozkoaren arteko konexio hau izango da ziurrenik bertsolaritzak masa kulturaren baitan txertatzeko erakutsitako gaitasuna esplikatzen duen beste faktore garrantzitsu bat. Hainbat belaunaldik idatziaren korrante hegemonikoaren kontrako norabidean garatu behar izan duen proiektuak, aldeko testuinguru zabala izango du azkenik.

7.2 GIZARTE MUGIMENDUAK KULTUR ERAGILE

7.2.1 Gizarte molde berrien emaitza

Masa kontzeptua iraultza frantsesaren baitan ernatuko da: iraultzarekin finkatu zen hegemonia burgesaren klase subalternoak izendatzen ziren horrela. Masa kulturak, esan bezala, klase subalterno hauen baitatik gorpuztu zen langile klasearen kultura popularraren hedabideratzean izango du bere abiaburua, XIX. mende amaieran hasita. Berebat, gizarte mugimenduen inguruko teorizazioen lehen aurrekaria ere XIX. mende amaiera horretan, langile klase horren portaera politiko-sozialaren inguruan buruturiko lehen azterketetan legoke. Azterketa hauek, hiri handietan pilatzen ari ziren klase subalternoen garapena kezka ikusten zuten, gizarte ordenarentzat mehatxu bat izan zitekeelakoan, eta Europar zibilizazioaren krisiaz ziharduten, masen portaeran, moral tradizionalaren gainbeheraren, zurrumurruen, edota hedabideen eragin kaltegarria antzematen zutelarik:

“Gizarte mugimenduei buruzko azterketa garaikideen aurrekariak aurkitzeko XIX. mendean masen egintza aztertzen zuten pentsamendu tradizioetara jo behar dugu. Tradizio garrantzitsuenen artean, XIX. mendeko masen jokabide irrazionalak azpimarratzen zituzten teoriak dauzkagu. Teoria horiek langile mugimenduaren aurkako tresna politiko-intelektual modura erabili izan ziren maiz.” (Larrinaga, 2007b: 15-16)

Elkarri loturik sortu dira, bada, masa kultura eta gizarte mugimenduaren lehen kontzepzioak.

Gizarte mugimenduen inguruko teorizazioaren alorrean eman den garapenean, 1970 arte gailendu ziren korrante ezberdinak, ikuspegi klasikotzat hartu ohi dira. Honela, ‘Masen Psikologiak’ gain (Gustave Le Bonen eta Gabriel Tarderen mende arteko hainbat lan hartu ohi dira lehen paradigma honen erakusgarri nagusitzat), honen ikuspegi ezkorra baztertu eta mobilizazioek sistemaren egokitzapenak ahalbidetzen dituztela gaineratu zuen ‘Jokabide Kolektiboaren Ikuspegia’ (Ralph Turner eta Lewis Killianek 1957an argitaraturiko ‘Collective Behaviour’ eta 1963an Neil Smelserrek kaleraturiko ‘Theory of Collective Behavior’ lirarteke formulaziorik landuenak) eta fokua tentsio estrukturaletan jartzen zuen ‘Gabezia Erlatiboaren’ teoria (Ted Gurrek 1970ean kaleraturiko ‘Why Men Rebel’ da lanik ezagunena) sartu ohi dira zaku horretan. Guztiek azpimarra norbanakoaren subjektibitatean jartzen dutenez :

“(…) gizarte mugimenduei buruzko ohiko ikuspegiak (alegia, jokabide kolektiboaren ikuspegiak, masa gizartearen ikuspegiak eta gabezia erlatiboaren ikuspegiak) gizarte eraldaketa bizkorrek eragindako egiturazko tentsioak hartu zituzten abiapuntu komun gisa. Modernizazioak ekarritako tentsio horiek, arrazoibide klasikoaren arabera, gizabanakoaren oreka psikologikoa hausten dute eta anomia, alienazioa eta gabezia sentimenduak sortzen dituzte haren baitan. Horrela, hipotesi espezifikokoak aldatu egiten diren arren, ikuspegi horiek argi azaltzen dute gizakiek mugimenduetan daukaten parte-hartzea alienazio eta gabezia sentimenduen emaitza izaten dela (...) Egintza instituzionalizatuen aldean, gizarte mugimenduen barruan burutzen diren egintzek partaideen irrazionaltasuna daukate ezaugarri nagusi modura” (Larrinaga, 2007b: 22)

1970etik aurrera, ordea, 1960eko hamarraldiaren bukaeratik Europa eta Estatu Batuak hartu zituen protesta oldearen behaketak planteamendu klasiko horiek aldatzera eramango zuen alorra:

“Une hartan ezinezkoa zen protesta egintzetan parte hartzen zuten gizakiak gizabanako anomiko eta irrazionaltzat jotzea. Aitzitik, adituek ikusten zuten

gizaki razionalak zirela, gizartean ondo integratuak, erakundeetako kideak. Bestalde, beraien egintzetan helburu zehatzak bilatzen zituzten, ez zegoen zalantzarik. Hartara, egintza kolektiboetan gero eta argiago sumatzen zen interesak razionalki antolatzeke helburu estrategikoak gailentzen zirela” (Larrinaga, 2007b: 21-22)

Aldaketa hori barneratzen gaurdaino alorreko bi eredu nagusiak izan direnak sortuko dira, Europan garaturiko ‘Gizarte Mugimendu Berrien Paradigma’ eta Estatu Batuetan garaturiko ‘Mobilizazioaren Teoria’, nolabait eredu kontrajarri gisa funtzionatu izan dutenak. Honela, lehenak arreta mugimenduaren motibazioan jartzen badu, bigarrenak mugimenduaren antolaketari erreparatzen dio; lehenak gatazka koordenada kulturaletan kokatzen badu, azpimarra balioen talkan jarriz, bigarrenak koordenada politikoetan egingo du, interes gatazka gisa planteatuz; nortasunaz ari da lehena, estrategiaz bigarrena...

Dikotomia hori zalantzan jarri izan da gerora, mugimendu guztiak, neurri batean edo bestean izaera politiko bat dutela eta aldi berean kulturgileak direla azpimarratuaz:

“Habermasen kontzeptuak erabiliz, Cohenek sintesi ikuspegi bat proposatu zuen, mugimenduak aldi berean instrumentalak eta komunikatzaileak zirela iradokiz, alegia, baliabideen mobilizatzaileak eta baliabideen sortzaileak. Orduetik aurrera, gero eta gehiago izan dira ezinezkotzat jo dutenak egintza instrumentalaren eta egintza adierazkorren arteko banaketa gizarte mugimenduen azterketaren eremuan.” (Larrinaga, 2007b: 133)

Gizarte mugimendu baten azterketa integral bat burutu nahi izanez gero, bi alderdiak hartu beharko lirake kontuan, beraz. ‘Mobilizazioaren Teoria’ri jarraiki mugimenduaren baliabideen, antolaketaren eta aukera politikoen ezagutzan sakondu beharko litzateke, besteak beste kideen parte-hartzearen artikulazioa, antolaketaren izaera horizontal edo bertikala, edo alderdi politikoekiko harremana aztertuz. Erabat interesgarriak dira kontu guzti hauek, eta bertso-munduak azken zikloan gauzaturiko eragiletzaren ezaugarriei buruz aritzeko kontutan hartuko dira hurrengo atalean. Testuinguru zabalaren eta bertso-munduak azken ziklo horretan bizi izandako garapenaren arteko loturak egiteko, ordea, egokiagoak irizten dira ‘Gizarte Mugimendu Berrien Paradigma’ren planteamenduak.

Proposamen horien arabera, kapitalismoak eta jendarte modernoak bizi izandako garapenean, XIX. mendea nahiz XX.aren lehen erdiko baldintzen erantzun gisa langile mugimendua garatu zen bezala, Bigarren Mundu Gerraren amaierarekin Ongizate Estatua zabaldu ondotik indarra galduz, gizarte postindustrialak ekarriko makroegiturazko aldaketa berrien aurreko erantzun defentsibo gisa ernatu ziren mugimendu berriak 1960ko hamarraldetik aurrera. Langile mugimenduarekiko berritasuna euren kokapenean zekarten (esparru hertsiki politikoan bainoago gizarte zibilean), euren xedeetan (botere politikoa baino berrikuntza kulturala) edota oinarri sozialean (klase ertainak euskarri nagusizat).

Mugimendu berri hauek askotariko aldarrikapenak bideratu izan dituzte: feminismoa, ekologismoa, antimilitarismoa, LGTBI kolektiboen eskubideak... Tartean baita etnokulturalak ere. Eredu honen teoriko garrantzitsuenetako batek, Alberto Meluccik, esaterako, honela dio:

“En las décadas de los años sesenta y setenta, los conflictos etnonacionalistas formaban parte de una ola más amplia de acción colectiva que afectó a las sociedades occidentales e involucro a grupos sociales diversos. La movilización nacionalista asumió a menudo una connotación ‘izquierdista’ explícita (...) Las nuevas generaciones de militantes nacionalistas incorporaron

los problemas culturales propios de la sociedad metropolitana industrial al repertorio de la tradición étnica y territorial. Este hecho estableció un nexo adicional con la praxis de antagonismo simbólico presente en el área más amplia de movilizaciones sociales.” (2001: 104)

Eta beste hainbat egile garrantzitsuk ere aipatuko dute fenomeno hau, mugimendu berrien motibazioen kontaduria egiterakoan: “Offe-ren (1985) arabera, gizarte mugimendu berriek arazo hauek nabarmentzen dituzte: lurraldea, bizimodua (gorputza, osasuna, nortasun sexuala), herentzia kulturala eta linguistikoa, (...) Mouffe-k (1984), berriz, arazo hauekin lotzen ditu gizarte mugimendu berriak: bizitza sozialaren merkantilizazioa, burokratizazioa eta kultur masifikazioa (...)” (Zubiri, 2016: 13).

Mugimendu etnokultural hauek oinarri oinarrian posizio subalterno batek ekarritako gabeziari erantzutera datoz, gainerako gizarte mugimendu guztiak bezala, baina kasu honetan menperaturiko kultura jakin baten subalternitatea da gainditu nahi dena:

“Esparru autonomo propioarik garatu ezin izan duten mendeko kulturei dagokienez, gizarte mugimenduek kultura instituzioen tokia hartu dute (...) instituzio politikoen ekimenik ezean, mugimenduen ekimenez sortu dira sozializazio erakundeak —eskolak, akademiak, hedabideak— eta mugimenduen inguruan hezi dira mendeko kulturaren eliteak ere.” (Larrinaga, 2007b: 97)

Melucciren aurreko aipuan ikusi ahal denez, erantzun honen baitan problematika zabalagoak jorratzea ere tokatuko zaie. Gehiago ere badio honen inguruan:

“Una dimensión de los conflictos que atraviesa todos los movimientos étnicos y culturales es completamente novedoso y no pertenece de modo privilegiado a estos actores sociales (...) en la sociedad de información de hoy, el modo en que denominamos a las cosas decide inmediatamente su propia existencia. El componente idiomático en los conflictos étnicos es, por lo tanto, no simplemente la reivindicación de un derecho tradicional. Ilumina la cuestión crucial de si es posible hoy en día denominar de un modo diferente. De este modo, el derecho de la autonomía en la construcción del mundo se afirma en la diversidad del idioma. Idiomas diferentes dan lugar a mundos diferentes (...) capacita al individuo para denominar el mundo como él o ella desea, resistiendo u oponiéndose al léxico estandarizado impuesto por los centros planetarios de la cultura de masas.” (Melucci, 2001, 117)

Beranduko Modernitatearen berezko problematika berriek, kulturaren mediatizaziotik eratorritako masa kulturaren eta globalizazioaren aurrean sorturiko nortasun eta autonomia beharrei erantzutera datoz. Eta erantzunerako lehengaia nortasun etnikoan topatzen dute:

“(...) el impacto de la transformación postindustrial ha creado una red de temas, actores y formas de acción conflictivos que pertenecen más bien a la sociedad metropolitana central. La identidad étnica con sus redes de solidaridad y su herencia cultural, demuestra que es capaz de proporcionar el lenguaje, los símbolos y los recursos organizativos mediante los cuales se pueden expresar nuevos conflictos.” (Melucci, 2001: 104)

Honenbestez, nazionalismoari lotzen zaizkion neurrian mugimendu etnokultural hauek Lehen Modernitatearen zenbait balioren jarraiera suposatzen badute ere, Bigarren Modernitateak ekarritako erronka berriei ere erantzuten dietenez, gizarte modu berri baten, postmodernitatearen, emaitza ere badira:

“Los viejos litigios sobre la nación, los procesos que fueron interrumpidos o históricamente reprimidos por el surgimiento del Estado-Nación son paradójicamente revitalizados por el desarrollo de un espacio global y transnacional. Los símbolos étnicos (...) constituyen una base real –por sus raíces en la lengua y la cultura- para la identidad de individuos y grupos en un contexto que ha perdido sus fronteras tradicionales. Los movimientos étnico-nacionalistas son al mismo tiempo los últimos vestigios del proceso de modernización y la señal de que el modernismo ha quedado atrás.” (Melucci, 1994: 129)

7.2.2 Mugimenduotako komunikazioaren garrantziaz

Gizarte mugimendu berriek, azaldu berri den paradigmaren arabera, euren mobilizazio parametro kulturaletan eta balioen gatazkaren alorrean planteatzen badute, eta mobilizazio hori Kultura Mediatuaren eta Informazio Gizartearen markoan burutzea tokatu zaienez, ezinbestean komunikazioak funtsezko elementu bat izan behar du euren jardunean. Korrante honen baitako beste egile garrantzitsu batek, Manuel Castellsek, azaltzen duen bezala, ordena global berrian informazioa ondasun baliotsuena izanik, berau izango da eraldaketarako bitarteko garrantzitsuen, komunikazio estrategiak izango dira agintariengan eragiteko, edota jendartea sentsibilizatzeko bitarteko nagusia:

“Estas reacciones defensivas se convierten en fuentes de sentido e identidad mediante la construcción de nuevos códigos culturales a partir de materiales históricos. Como los nuevos procesos de dominación a los que reacciona la gente están insertos en los flujos de información, la construcción de la autonomía ha de basarse en la inversión de estos flujos.” (Castells, 2003, 98)

Eta komunikazio estrategia horiek hedabide hegemonikoek eskaintzen duten kanaletik nahiz eurak sorturiko hedabide alternatiboetatik bideratzen dituztela gaineratzen du:

“El auténtico objetivo de la movilización de los activistas es la mente de la gente (...) vivimos en la era de la información, en la que la gente tiende a formar sus opiniones sobre la base de imágenes y sonidos procesados por los medios de comunicación. Por lo tanto, el movimiento actúa sobre este proceso de formación/información de la conciencia pública mediante dos canales principales. Por un lado, introduciendo nuevos mensajes en los medios de comunicación dominantes. Por otro, creando un sistema de medios alternativos (...).” (Castells, 2003: 187)

Mugimendu ezberdinen kasu praktikoek azterketan oinarritzen du Castellsek bere ekarpena. Honela, gizarte mugimendu hauen mobilizazio publikoa komunikazio beharrezkoen logikak artikulatzen duela planteatzen du, eta, besteak beste, globalizazioaren aurkako mugimenduen praktika jartzen du adibide gisa:

“Teatro callejero, payasos, marionetas, música, baile, atmósfera de carnaval son una constante expresión del movimiento (...) la celebración pública es un objetivo en sí mismo para el movimiento, el valor del disfrute, pero también es una forma de comunicación a los medios, aportar sonidos e imágenes interesantes que pueden canalizarse fácilmente en el lenguaje habitual de las noticias y el entretenimiento.” (Castells, 2003: 188)

Hedabideen arreta bilatzen duen mobilizazio publikoaren estrategia hau anarkista frantziarrek abiarazi eta 1968ko maiatzeko mobilizazioetan berreskuratu zen *l'action exemplaire*aren ildoan kokatzen du. Kasu honetan, mugimendu ekologista jartzen du adibidetzat:

“Gran parte del éxito del movimiento ecologista obedece al hecho de que, más que ninguna otra fuerza social, ha sido capaz de adaptarse lo mejor posible a las condiciones de la comunicación y la movilización en el nuevo paradigma internacional (...) Creando acontecimientos que llamen la atención de los medios, los ecologistas son capaces de alcanzar a una audiencia mucho más amplia que sus partidarios directos (...) los políticos suelen quejarse de que son los medios de comunicación, más que los ecologistas, los responsables de la movilización medioambiental (...) Muchos activistas ecologistas han practicado con gran imaginación las tácticas anarquistas francesas de *l'action exemplaire*, un acto espectacular que impresiona, provoca el debate e induce la movilización.” (Castells, 2003: 217)

Esan bezala, kasu konkretuetatik ateratzen ditu ezaugarri orokorrak. Honela, Zapatistak, Amerikar Miliziak eta Aum Shinrykio ere, mugimendu armatuak hiruak, espreski lotzen ditu *l'action exemplaire* terminoarekin:

“El vigoroso impacto de cada uno de estos movimientos ha obedecido, en buena medida, a su presencia en los medios de comunicación y a su uso efectivo de la tecnología de la información. Se busca o encuentra la atención de los medios realizando (...) *l'action exemplaire*: una acción espectacular que, por su gran atractivo, incluso mediante el sacrificio, atrae la atención de la gente hacia las demandas del movimiento (...) Al forzar a un debate sobre sus reivindicaciones e inducir la participación de la gente, los movimientos esperan presionar a los gobiernos e instituciones (...)” (Castells, 2003: 193-194)

Bestalde, esan bezala baita, komunikazioak mugimendu hauetan duen zentraltasunaren adierazle, norbere edukien ekoizpenean eta norbere hedapen sareen garapenean jarri ohi den indarra seinalatzen du. Zapatismoaren kasuan, *lehen gerrilla informazionala* deitzen dio mugimenduari, Interneteko Neta sareaz egin zuten erabilera azpimarratzen du, eta globalizazioaren kontrako mugimenduen kasuan, Indymedia sarea: “Al mismo tiempo que el movimiento actúa en los medios de comunicación dominantes, ha desarrollado su propio medio de comunicación. Un elemento clave es la red Indymedia (...)” (Castells, 2003: 188)

‘Gizarte Mugimendu Berrien Paradigma’ hau jorratzen duten egile guztiek azpimarratzen dute komunikazioak mugimendu hauetan duen garrantzia. Meluccik honela dio:

“(...) el conflicto sólo surge en la medida en que sus protagonistas luchan por el control del potencial para la acción colectiva que produce una sociedad. Este potencial ya no está exclusivamente basado en recursos materiales o en ciertas formas de organización, sino que progresivamente radica en la capacidad de producir información (...) Las formas de poder que están surgiendo en las sociedades contemporáneas se fundan en la capacidad de ‘informar’ (dar forma). La acción de los movimientos ocupa el mismo terreno (...)” (Melucci, 1994: 120)

Eta hainbatetan errepikatzen ditu ideia horren adiera ezberdinak, Castellsek seinalaturiko hainbat alderdirekin bat etorritik eta beste batzuk aberastuz: “El antagonismo de los movimientos tiene un carácter eminentemente comunicativo (...) Los movimientos contemporáneos recurren mucho a formas de representación como el teatro, el vídeo, los medios de comunicación” (Melucci, 1994: 145); “(...) la acción de los movimientos se plantea en el ámbito de los símbolos y de la comunicación” (Melucci, 1994: 146); “(...) proporciona los recursos de solidaridad que necesita y produce el marco cultural del cual surge la movilización (...) la solidaridad entre sus miembros, crea nuevos grupos y recluta nuevos militantes atraídos por la acción pública del movimiento (...)” (Melucci, 1994: 147)

Giugnik ere funtsezkotzat jotzen du gizarte mugimenduen arrakastan hedabideekiko hartu emanak daukan garrantzia:

“(...) a social movement interpretation, whereby legislation results from the joint action of social movements, public opinion, and media coverage. The latter appears as the most plausible interpretation, for not only does it take into account both movement actions and changes in public opinion, but it also acknowledges the fundamental role of the media for movement mobilization and outcomes. The way in which the media cover, frame, and interpret social movements has largely been neglected in the existing literature.” (Giugni, 1998: 380)

Eta gehiago ere luza daiteke alderdi hau jorratzen duten egileen zerrenda:

“Strang eta Soulek (1998) gizarte mugimenduen hedapena aztertzen dutenean, hainbat iturri identifikatzen dituzte, eta, horien artean daude, besteak beste, 1) hedabideak, ekintza kolektiboaren oihartzuna zabaltzen eta moldatzen dutelako eta protesta gehienak hedabideen inguruan antolatzen direlako (...) 3) testuinguru sozialaren kultur ikuspegia, zeren haren arabera ekintza egokia eta eraginkorra jotzen denean, ekintza azkarrago hedatzeko aukerak handitu egiten baitira (...)” (Zubiri, 2016: 14)

Frame analysis deritzona da ‘Gizarte Mugimendu Berrien Paradigma’tik gizarte mugimenduen komunikazioaren azterketarako eskaini den tresna analitikorik garrantzitsuenena. Esamoldeak mugimenduak sortzen duen interpretazio markoari egiten dio erreferentzia eta Larrinagaren arabera, 1980ko hamarraldian Erving Goffmanek zabalduko marko (‘frame’) kontzeptuan du bere jatorria: “(...) inguruan burutzen diren gertakariak bereizteko eta zentzuz hornitzeko, gizakiek interpretazio eskemak erabili behar dituzte. Horiexek dira markoak Goffmanen terminologian” (Larrinaga, 2007b: 37). Eta Goffmanek norbanakoaren pertzepzioaren inguruan eraturiko kontzeptuari dimentsio kolektibo bat emanda oso baliagarria suertatu da gizarte mugimenduen azterketaren eremuan, euren ekarpenik garrantzitsuenetako bat izendatzeko balio baitu:

“Mugimenduek mobilizazioaren aldeko sinestean eta ideien eroale eta igorle funtzioa betetzen dute, ez bairik gabe. Baina, horrez gain, gizakientzako — parte-hartzaile, arerio nahiz behatzaileentzako— esanahiaren ekoizpenean modu aktiboan diharduten eragileak ere badira (...) Ekoizpen lan hori dela medio, mugimenduek sortu ez ezik moldatu eta egituratu ere egiten dituzte sarritan gizartean dauden esanahiak eta diskurtsoak.” (Larrinaga, 2007: 40)

Eta ekarpen hori garrantzitsua dela aipatu bada, euren xedeak burutzeko ezinbestekoa suertatzen delako esan da:

“Nortasunaren eta markoaren kontzeptuak uztartuz, Polleta eta Jasper-ek (2001) diote gizarte mugimendu baten nortasunaren markoak baldintzatzen duela babesleak eta boluntarioak mobilizatzeko gaitasuna, publikoki ikusgarria izateko ahalmena, beste talde batzuekin lankidetzan aritzeko aukerak, eta aurkariak desaktibatze indarra.” (Zubiri, 2016: 15)

Aurrerago ikusiko denez, bertso-munduak 1980tik aurrera garatuko den zikloan gauzatu ahal izan duen ekarpenik garrantzitsuenetako bat bertsolaritzaz ordura arte nagusi zen ulerkera esentzializatu eta tradizionalistarekin hautsi eta fenomenoaren erabateko gaurkotzea ahalbidetu duen *frame* berriaren ekoizpena izango da hain zuzen.

7.2.3 Bigarren Euskal Pizkundeak ekarritako metamorfosia

7.2.3.1 Abertzaletasun berriak askaturiko korapiloa

Gerraosteko lehen urteetan, nerabezarotik atera berria, ordurako aguretuta zegoen Azkueren lagun egin eta honek 1947an euskaltzain oso izendatu zuen Federiko Krutwig, gerraren suntsiketak eta gerraosteko errepresioak oskol huts batera murriztua zuen Euskaltzaindia hura martxan jarri nahian utzi dugu aurreko atalean⁴⁹¹. Erakundeari dezenteko astindua ematen ari zela erbestera ihes egin beharrean aurkitu zen⁴⁹², ordea, eta benetako astindua, euskal abertzaletasunaren eta kulturagintzaren historia aldatuko zituena, erbestetik ekarritako zuen, hamarkada bat beranduago, 1963an, argitaratu zuen ‘Vasconia’ liburua. Bertan, mendeartean Sabino Aranak planteatu zenarekiko ezberdintasun handiak zituen abertzaletasun baten oinarriak zirriborratzen zituen:

“Hasteko, arrazan oinarrituriko nazionalismoaren aurrean, Krutwigek hizkuntzan ikusten du euskal nazioaren izaeraren gordailua eta gerorako itxaropena. Honekin batera, nazionalismoak Sabino Aranaren formulazioan zuen izaera defentsibo eta gordeor hutsa, modu dinamiko eta integratzailean ulertzeko bidea zabaltzen da. Gainera, PNVren nazionalismoaren ideologia burgesarekin hautsi nahi zuen mugimendu harentzat, proposamen honek nazionalismo aurrerakoia aldarrikatzen zuen, nazio askapena eta gizarte mailako askapena borroka batean bildu beharra azpimarratuz.” (Amezaga, 1994: 51)

Arrazari, berezkoari, lotzen zitzaion naziotasun esentzializatuaren orde, borondatez eraiki zitekeen naziotasuna aldarrikatuko du: hizkuntza da etniaren ezaugarri objektibo nagusia, eta hizkuntza ez da zerbait berezkoa, ikasia baizik; bestalde, nazioa ez da etniak subjektu politiko gisa garaturiko kontzientzia politikoa baino, eraikuntzan den zerbait hau ere, eta ondorioz, iraganari baino etorkizunari erreparatzen diona (Amezaga, 1994: 51-57).

Krutwigek erbestera jo behar izan zuen urte berean 1952an, ikasle-talde batek Ekin taldea sortu zuen Bilbon. Gerra galdutako etxeetako haurrak ziren, nerabezaroa gerraosteko errepresio giroan bizitakoak, eta 1950eko hamarraldi hasiera hartan, erresistentzia oro erbestean zelarik, trabakuntza politikoan eta euskal kulturaren sustapenean murgiltzea erabaki zuten. 1955ean EAJak bere gaztediekin, EGIrekin bat, egitera behartu zituen, baina abertzaletasun jeltzideak frankismoak planteaturiko negu amaitezinari erantzun bat emateko erakusten zuen ezintasunaren aurrean, bide autonomo berri bat urratu nahian EGI utzi eta Euskadi Ta Askatasuna sortu zuten 1958an Ekinen kideek. Taldeak erabat sintonizatuko zuen Krutwigen planteamenduekin. Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik*, euskarazko lehen eleberri modernotzat hartu ohi den ‘Leturiaren egunkari ezkutua’ren egile (1957), Ekin eta ETaren sortzaile eta hizkuntzalaria, garapen garrantzitsua eman zien ‘Vasconia’ko edukiei. Hizkuntzak, Krutwigek aipatu bezala pentsaera mailako batasuna ez ezik sentikera mailako anaikidetzeta eta nortasun partekatu bat ematen zituela azaldu zuen. Aranaren formulazioaren alternatiba gisa Campionena lehenesten zen⁴⁹³, beraz, baina hark ez bezala

⁴⁹¹ Ik. 6.2.3.2 Euskaltzaindiaren aterperako elementuak: Arrue, Zavala, Lekuona eta Irigoien

⁴⁹² Honela kontatzen du Xabier Kintanak: “1952.eko maiatzean Luis Villasante Kortabitarte jaunak bere sarrera-hitzaldia egin zuen Bizkaiko Diputazioaren Jauregian (...) Erantzunez, harrera-hitzaldia Federikok egin zion. Hartan, Krutwigek, garai hartarako ezin sinetsizko ausartziarekin, Franco pean Eliza Katolikoak euskararekiko zerabilen zabarkeria salatu zuen gogorki, hartatik kritika bortitza eginez (...) bertan zeuden agintari faxistetako batek, susmo txarrez, euskarazko hitzaldi hura eskuetatik kendu zion eta itzularazi, Krutwigen aurka kartzelaturia hartzeko asmoz. Federikok baina, ‘euskaldun separatista’ gisa salatuz gero 20 kartzela-urte luzeetan itzalpean egoteko gogorik ez eta (...) atzerrirako bidean abiatu nahiago izan zuen (...)” (Kintana, 1999: 8).

⁴⁹³ Ik. 4.5.2 Campionen ‘Euskaro’ak eta Donibane Lohitzuneko ‘Zazpiak bat’.

kultur komunitatearen biziraupenaren eta honen independentzia politikoaren arteko lotura estua eginaz:

“Lehenago bazitekeen herri batek —hiztun komunitate batek— mendeetan zehar bizirautea, erresuma propiorik gabe. Historiak halaxe erakusten digu, euskal herriaren kasuan bertan ere. Gaur egun, ordea, hori ezina da, besteak beste botere-gune garaikideek duten ahalmen handia dela medio. ... Erresumarik gabeko herria desagertzera kondenaturik dagoela esango du Txillardegik, auzi honetan Campionengandik erabat bereiztuz” (Amezaga, 1994: 67)

Abertzaletasun jeltzaleak bere sorreran diskurtso antimoderno eta jarrera defentsibo eta kontserbadoreak hartu bazituen, adar berriak, gizarte industrialaren ukazioak abertzaletasuna ezertara ez zeramalakoan, eta Europatik zetozen haize berriek hauspoturik, euskaltasunaren inguruko diskurtsoa, iruditeria eta proiektua errealitate horretara egokitzeke apostua egin zuen. Eta Euskal Herrian immigrazioak harturiko dimentsioa tarteko, honen integrazioarako bide gisa klase borroka ere hartu zen funtsezko oinarri gisa. Abertzaletasun berriaren eta jatorrizkoaren arteko etena emango da, bada:

“(…) zalantzatan jarri ziren bigarren horren mundu ikusmoldearen oinarriak: garbizaletasuna hizkuntza ereduan, nekazarien gizartearen erreferentzialtasun kulturala eta soziala, arrazaren goraiamena euskal desberdintasunaren ikurren artean, ikuspegi klerikala eta kontserbadorea gizarte ohiturei zegokienez eta egitasmu politikoaren nagusitasuna kultura proiektuen gaintetik (...) bestelako gaiak eta balioak aldarrikatu ziren: hizkuntzaren nagusitasuna euskal nortasun kolektiboaren definitzaile gisa, euskararen modernizazioa, estandarizazioa eta berreskurapena, proiektu politikoaren eta kulturalaren uztardura, munduaren ikuspegi sekularra, eta euskal gizarte industrializatuaren onespina, egokitzapen horrek zeuzkan ondorio guztiekin —nazionalismo integratzailea hizkuntzaren bitartez, auzi nazionalaren eta sozialaren elkarketa, eta ideologia berrien eskurapena (sozialismoa, marxismoa)—. (Larrinaga, 2007b, 166-167).

Jarduera politikoa erabat debekaturik zegoenez elementu kulturalak pisua irabazi zuen adiera ideologiko berrian eta, ondorioz, baita praxiaren ere, eta horrek bigarren euskal pizkunde bat ekarriko zuen:

“(…) erregimenak ezarritako debekuen ondorioz, ez zegoen ageriko jarduera politiko legitimorik bideratzeko aukera handirik. Testuinguru horretan, frankismoak 60ko hamarkadan baimendutako ekonomi eta gizarte aldatetarako zabalduriko egoera berrian, kulturgintzak berebiziko garrantzia eskuratu zuen, ez soilik kulturaren adierazpen soil gisa, baita euskal erresistentzia nazionalistaren jarduera ere esparru kultural horretara bideratu zelako hein handi batean.” (Larrinaga, 2007b: 165-166)

Frankismoak euskara eta euskal kultura ‘berez’ desagertzear ziren fenomeno aurremoderno gisa saltzen zituen, baserriar ezjakinen folklorekeria atzerakoi modura, eta diskurtso honi aurre egin nahian enpeinu berezia jarriko da pizkunde honen izaera modernoak azpimarratzean: “(...) euskara eta euskal kultura gizarte modernoak jarritako baldintzetara egokitzeke gai zirela erakustean, euskalgintzaren eragileek azpikoz gora jarri nahi izan zituzten behinolako interpretazio nagusiaren arrazoibideak. Halatan, euskalgintzaren jarduera kulturalaren zeharkako ondorioa gurtz politikoa izan zen” (Larrinaga, 2007b: 312).

ETAk 1960ko hamarraldiaren bukaeran borroka armatuari ekingo dio, eta erakunde marxista bezala emango ditu hurrengo pausoak, baina kulturaren dimentsio politikoa jorratzen duen

abanguardiarako mugimendu klandestino gisa funtzionatu zuen lehen urteetan. Eta belaunaldi gazteak bizi zuen berrikuntza behararen bulkadak, abertzaletasun berriari euskal kulturagintzaren lidergoa emango dio: “Interpretazio marko berriaren ezarrierak abertzaletasun eraberrituaren hegemonia ekarri zuen berarekin kulturaren arlora. Harrezkero, euskalgintza eta euskarazko kulturagintza, nazionalismoaren mugimendu orokorrari ez ezik bereziki ezkerreko abertzaletasunari lotuta geratu dira maila sinbolikoan.” (Larrinaga, 2007b: 167).

Bereziki larria zen euskal komunitateak Francoren diktadurapean bizi zuen egoera, eta egoera horri erantzuten zion belaunaldi gaztearen erreakzio horrek. Baina beste hainbatetan bezala testuinguru zabalagoan gertaturikoen isla ere bazen. Smithen azaltzen duenez, XIX. mende bukaeran Europan emango da bertako nazio-estatuetan zapalduko komunitateen nazionalismo etnikoaren lehen olatu bat (hor kokatuko litzateke lehen euskal nazionalismoa). XX. mendearen lehen erdian Europako estatuak munduan zehar zituzten kolonietan emango da bigarren olatua. Eta hirugarrena 1960ko hamarkadan, berriro ere Europaren baitako nazio azpiratuetan: “Desde los años sesenta una tercera oleada de movimientos en favor de la autonomía y la separación se ha propagado por gran parte de Europa occidental (...)” (1997, 114). Aurreko olatuak ekarritako diskurtso anticolonialistaren eragina izango dute mugimendu hauek eta Fanon bezalako egileen eraginez jite ezkertiar bat garatuko dute gehienetan. Lehen olatuarekiko jarraitasun bat ere egongo da Smithen hitzetan, “(...) ese incremento se producía sobre la base de medios e ideales que se habían forjado antes de 1939, y en algunos casos (Gales, Escocia, Cataluña, País Vasco, Bretaña) antes de 1914” (id, 129), baina baita etena ere, “(...) la guerra cultural de los ‘hijos contra los padres’, que se produce cuando la intelligentsia seglar se vuelve en contra de los viejos guardianes de la tradición” (ibid, 60). Eta edozein kasutan pizkunde kultural bat ekarri izan dute mugimendu hauek guztiek: En todos estos casos hubo un renacimiento cultural, literario, lingüístico e histórico que precedió a la formación de movimientos políticos que luego han exigido la autonomía étnica” (id, 129).

Etnosinbolismoaren alorrean britainiarren lanaren garapen interesgarrienetako bat burutu duen Montserrat Guibernauk ere, Kataluniako kasuaren azterketatik abiatuz, ETAk hasitako bidea joera orokor gisa definitzen du: “Montserrat Guibernauk identifikatu ditu –komunitate katalanaren adibidetik abiatuz, preseski– estatutiko homogeneizazioaren kontrako bi estrategia nagusi: Erresistentzia Kulturala eta Borroka Armatua” (Gandara, 2015: 138).

ETAren eragiletza baino askoz haratago doan ekimena izango da, noski, erresistentzia klabean burutuko den garaiko euskal kulturagintza. Euskal kulturaren aldeko mugimendu zabal eta anitz bat ernatuko da: euskal kantugintza berriko hainbat talde, tartean Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Xabier Lete eta enparauen Ez Dok Amairu famatua; artista plastikoen taldeak, tartean Jorge Oteiza, Jose Luis Zumeta, Eduardo Chillida edota Nestor Basterretxea eta beste hainbatek osaturiko Gaur taldea; Gabriel Aresti bezalako idazleak... eta sortzaile konkretuez haratago ikastolen mugimendu indartsu bat piztuko da, helduen euskarazko alfabetatze sarea aktibatuz, lehen euskal argitaletxe berriak sortuz... Guztiek, euren iharduera Francoren diktaduraren aurkako ekimen gisa ulertuko dute, hainbatek borrokaren Fronte Kulturala (ETAk erabiltzen zuen terminoa, baina baita, esaterako, Oteizak ere).

Erresistentzia kultural honek, Frankismoak euskal kulturari aurremodernitatearen azken kondar gisa baimentzen dizkion eremuak, mendiko erromeria, sagardotegia eta gisakoak, gainditu eta ikusgarritasuna bilatuko du: “(...) errepresio egoeretan, Erresistentzia Kulturaletako ekimenek lortzen dutela eremu publikoan estatuak duen kontrola –modu

sinbolikoan, bederen– haustea” (Gandara, 2015: 139). Eta bururatzen zaizkion bide guztiak baliatuko ditu horretarako, Guibernauk bereizten dituen tipo guztiak garatuaz:

“M. Guibernauk identifikatu ditu –egile, helburu eta ekintza motak kontuan izanik– eremu publikoan jorrraturiko lau Erresistentzia Kultural: ekintza sinbolikoak –“symbolic actions” pintada, grafiti, ikurriña...–, tartean sartze ekintzak –“interference actions” kontzertu batean himnoa kantatu–, elite ekintzak –“elite actions” Omniu Cultural edo Euskaltzaindiaren lanak– eta ekintza solidarioak –“solidarity actions” 24 ordu euskaraz–.” (Gandara, 2015: 144)

1965ean Durangoko Euskal Liburu eta Disken Azoka abiaraztea mugarri garrantzitsu bat izan zen ildo horretan: “Durangoko Azokak eremu publikoaren lehen garaipen nagusia irudikatu zuen” (Gandara, 2015: 138). Eta kontaezinak dira urte hartan sortzaile eta sorkuntza alor ezberdinak uztartuz euskal kulturaren inguruan burutu ziren jaialdi handiak.

Aurreko Pizkundekoarekin alderatuaz, beste ezaugarri batzuk dakartza Bigarren Pizkunde honetako lidergoa hartuko duen *intelligentsia* berriak:

“(…) industrializazioaren eraginez XX. mendean zehar klase berriak goi mailako hezkuntza sistemara iritsi ziren gero eta kopuru handiagoan; hartara, goi klasetik at eraturiko “proletargo intelektualaren” sorrera nabarmendu zen, bereziki, 60ko hamarkadatik aurrera sozializaturiko belaunaldi gazteen artean (...) Horrela, intelektualeria berriaren kontzientzia modernoa, urbanoa eta abangoardista nazionalismo berriaren eta nazio kulturaren definizioetan islatu zen” (Larrinaga, 2007b: 149)

Lehen Modernitateari dagokion testuinguru zabalari buruzko atalean aipatu den gisan, hizkuntza baten modernizatorako ezinbestekoa den arauketa⁴⁹⁴, euskararen kasuan bere ertzekotasunaren eraginez Beranduko Modernitatera arte burutu gabea, 1968an estreinatuko da Euskara Batuaren oinarriak onartu zituen Euskaltzaindiaren Batzarrarekin⁴⁹⁵. Garrantzitsuena pausu hori izanagatik, hainbat alorretan emango da euskal kulturaren modernizazio hori:

“1. Hizkuntzaren alorrean, euskararen batasuna, modernizazioa eta normalizazioa erdiesteko funtsezko oinarriak jarri ziren. 2. Euskara komunikazio tresna gisa erabiliko zuen euskal eskola sortzeko proiektua bultzatu zen; alegia, euskararen eta eskolaren arteko mendeetako banaketa hautsiz, ikastolen eskola eredia bideratu zen. 3. 1966tik aurrera helduak euskaraz alfabetatzeko mugimendua sortu zen (...) 4. Hizkuntza-berreskuratze prozesuak eragin handia izan zuen euskarazko literaturaren alor guztien garapenean eta berrikuntzan. 5. Azkenik, hizkuntza gizarte industrial moderno eta urbanora egokitzeko (...) sarbidea lortu zuen ordura arte galarazitako ezagutza zientifikoaren eremuetan: ekonomian, soziologian,

⁴⁹⁴ Ik. 3.3.1 Nazio-estatuak ordena modernoaren eraketan

⁴⁹⁵ Aurreko zenbait saio ez bezala bere fruitua eman zuen ekinaldi hau belaunaldi gazteaz abiarazi zuen, Txillardegiren zuzendaritzapean: “1960ko hamarraldian bazegoen jadanik belaunaldi berriko gazteen artean batuaren bilaketan grinatsu zebilen euskaltzale multzo esanguratsua —Hegoaldean Anaitasuna, Jakin eta Zeruko Argia aldizkarien inguruan eta Iparraldean Euskal Idazkaritza elkartearen bildutakoak—. 1963-1964 urteetan, Txillardegiren zuzendaritzapean, Baionako Euskal Idazkaritza hizkuntza batuaren oinarriak aztertzeke asmoa mamitzen hasi zen.” (Larrinaga, 2007b: 157). Azken fasea belaunaldi nagusiagoaren abaroan, eta nagusiki Mitxelenaren bultzadari esker, gauzatuko zelarik: “(...) idazle gazteek hizkuntzalari legitimatuen eta erakunde aintzatetsiaren eskuetan utzi zuten prozesuaren ondorengo garapena, alegia, kapital sinboliko tradizionala onarturik zutenen eskuetan, horrela mesfidati agertzen ziren sektore soziopolitikoak —bereziki, EAJren ingurukoak— abian zegoen jardunera erakarriko zituztelakoan.” (Larrinaga, 2007b: 157-158)

historian, filosofian, zientzia zehatzetan, fisikan, eta abar (...). Orogen buruan, euskal kulturaren alor guztietan —kantagintza eta arteak barnean hartuta— eragin sakoneko berrikuntza kulturala izan zen.” (Larrinaga, 2007b: 156-157)

Ildo honetatik folklorea eta kulturaren arteko bereizketa planteatu zuen garaiko *intelligentsiak* eta tradizioetik zetorrenari erabilera berri bat eman nahi izan zitzaion, jendarte berriarentzat funtzionaltasun bat izan zezan:

“Aldizkarietan irakurri behatuz, “folkloreak” barneratzen duen ondareak iduri du, etorkizuneko proiektuetan, baliabide edo tresna erabilgarri gisa garatzea saihesten duela; baliagarritasun ezak, komunitatearen garapena laguntzen duen tresna gisa ez garatzeak, folkloreak eremura mugatzen du ondarea. Aitzitik, “kultura”ren baitako ondareak —hala emana, landua eta atzemana denak— denboran eta bere euskaltasunean aitzina egiteko laguntza eskainiko lioke komunitateari.” (Gandara, 2015: 137)

Zenbaitetan, Artze anaien, Laboaren eta Oteizaren ekarpenetan, esaterako, berrikuntza hori abangoardiarraino eramango da, abangoardiak oso berezkoa duen biderei jarraiki:

“(…) abangoardiaren eta iraganaren arteko erlazioa, lehen kolpean iduri duena baino estuagoa da, normalki. Bourdieuk abangoardiako artean iraganak duen presentzia inoiz baino nabariagoa dela azaltzen du; izan ere, espazio horren menderatze praktikoa nahiz teorikoa eskatzen baitu: zer egin denaz eta egin ez denaz jabetzea.” (Gandara, 2015: 545-546)

Edozein kasutan, Bigarren Euskal Pizkunde honekin, euskal kulturari diskurtso hegemonikoetatik planteatzen zaion korapilo nagusia, tradizioa eta modernitatearen arteko dikotomiarena, askatutzat eman daiteke: “Beraien lanketan etnizitatea ez da dagoeneko tradizioari lotutako adierazpena, ezpada Aro Modernoan nazio taldearen bizitza objektibatzen duen baliabide soziala. Horrela, elementu etnikoaren formulazio berriak talde identitatearen definizio gaurkotua ahalbidetzen du” (Larrinaga, 2007b, 150)

7.2.3.2 Euskalgintza eta euskal kulturgintza gizarte mugimendu

Smithek 1960ko hamarkadan altxa zen olatua nazionalismoaren ikerketara bideratzen duen bezala, Meluccik, aipatu den gisan, gizarte mugimenduen alorretik begiratzen dio:

“El nacionalismo étnico en Occidente resurgió durante el periodo que culmina a finales de los sesenta. Los movimientos que vehiculan sus reivindicaciones a partir del repertorio de contenidos propagados a través suyo surgen como una forma particular de movilización social basada en la exhortación a un actor colectivo que posee una identidad étnica y una cultura específica (...)” (2001, 100)

Mugimendu hauen sorrera modernizazioaren azelerazioarekin lotzen du. Euskal Herrian gisako azelerazio bat eman zen 1960ko hamarkadan hasita, aurreko atalean azalduenez, Frankismoak urte haietan nazioarteko isolamendua hausteko nolabaiteko irekiera bat burutu zuelako, eta irekiera horren ordainetan garapen ekonomikoko aldi bati ekin ahal izan ziolako, euskal lurretan are nabarmenagoa izan zena eta XIX. mendean hasitako industrializazio prozesua azken bururaino eramanez:

“Lejos de facilitar la integración, los procesos acelerados de modernización han incrementado la diferenciación gracias a la intensificación de la comunicación, a la exposición de sectores aislados de la comunidad a modelos

centrales, y a la reducción de los constreñimientos impuestos por el estado.”
(Melucci, 2001: 101)

Egile italiarrak, modernizazioak hauspoturiko mugimendu hauek tradizioan sustraitzen direla ere azpimarratzen du, modernitatea vs. tradizioa dikotomia hautsiz, beste behin:

“La reafirmación de una herencia cultural (idioma, costumbres y tradiciones de un grupo étnico) ha proporcionado a las minorías un arma con la que enfrentarse al monopolio cultural y lingüístico de los grupos dominantes y resistirse a la integración forzosa en los sistemas de códigos simbólicos impuestos por el centro” (Melucci, 2001: 101)

Iduri du Euskal Herrian urte haietan gertaturikoa ondo egokitzen zaiola Meluccik planteatzen duen ereduari. Eta Odriozolak garai hartan Euskal Herria hartu zuen izpirituz egiten duen deskribapenari behintzat gizarte mugimenduaren traza garbiak hartzen zaizkio:

“Euskalzale andana baten ekimenari zor dio Ikastola-mugimenduak bere egungo garapena eta egoera. Bide beretik sortu eta hazi zen Euskalduntze-Alfabetatze jarduna. Gauza bera gertatu zen euskarazko liburugintza eta aldizkarigintzaren arloan ere. Eta orobat esan dezakegu gainerako agerpen eta ekinpide guztiei buruz. Egia da, ezin uka, urri eta bakan baziren ere, bazirela erakunde ofizial edo erdi-ofizialak euskara eta euskal kulturaren arloan; baina hauen joan-etorria bera ere esplikagaitza bihurtzen da aginte-espaziotik kanpo jaio eta garatu den euskal mugimenduaren koordinatuetan ez bada.” (1992: 26)

Larrinagak ez du zalantzarik egiten. Aipatu berri den bezala, mugimendu hauen definizio orokorrean subalternitate eratorririko erakunde ofizialen gabezia osatu beharra ezartzen du euren xede nagusitzat, eta beste hainbeste egiten du Bigarren Euskal Pizkundearekin ere:

“Beste mendeko hizkuntza komunitate askoren baitan gertatutakoaren antzean, euskaldungoaren gizarte botere eza haren gizarte azpiinstituzionalizazioan islatu da. Beraz, erakunde politiko eraginkorren eta erakunde kultural legitimoen gabeziak gizarte edo herri ekimenen molde jantzi ditu luzaroan kultura egintza gehienak. Halatan, euskalgintza denboran zehar gizarte mugimendu modura eratu den harremanezko esparrua ere bada, non era askotako eragile eta instituzioak sortu eta garatu diren, tartean euskal kulturgiletzat hartzen ditugun eragile eta tradizioak” (2007b: 121).

Euskal kulturgintza ez zen hasi berri bat 1960ko hamarkada hartan: Lore Jokoei eskaini zaien atalean azaldu den bezala, XIX. mende bukaeran emanak zituen bere lehen pausuak; Euzko Pizkudeari eskainiriko atalean ikusi ahal izan den gisan, bestelako sofistikazio eta instituzionalizazio maila bat lortu zuen XX. mendearen lehen herenean; eta frankismopeko bertsolaritzari buruz jorratu den atalean azaldu denez, gerraren suntsiketan ondotik neguko kanpamenduetako lan sorgorra burutu zen 1940 eta 1950eko hamarraldietan. Ziklo horietan molde ezberdinak izan zituen eragiletza honek: zela sentsibilitate foruzale tradizionalistaren erreakzio kulturalista gisa, nagusiki argitalpen kulturaletan gorpuztua; zela abertzaletasun jeltzalearen *intelligentsiak* diseinatutako kultur plangintzaren baitako ekimen kulturaletan... Euskal kulturgintzaren posizio subalternoa betierekoa da, eta, horren ondorioz, kulturgintza honek beti izan du gizarte mugimenduaren traza indartsua, baina mugimendu modernoaren parametroetan kokatzen den egitasmoa 1960ko hamarralditik aurrera garatuko da. Pixkanaka ernatuko den prozesu bat izango da: “(...) euskalgintzak beste esanahi bat bereganatu zuen, hiztun komunitatean ez ezik euskal gizartearen apurka-apurka txertaturiko mugimendu sozio-kultural zabal gisa” (Larrinaga, 2007b: 155).

Prozesuaren eragile garrantzitsu bat, garrantzitsuena ez bada, ikastolak martxan jarri zituen jendartea izango da: “(...) ikastolen mugimenduak bestelako mugimendu sozialak ere eragin zituen (...) 60.eko hamarkadako mobilizazio orokorraren markoan garrantzi berezia hartuz” (Fernandez, 1994: 123). Honela, Pizkunde osoaren ikur bihurtu zen euskarazko eskolaren proiektua, eta mobilizazio berriak ekarriko zituen beharrak eragingo zituen:

“60ko hamarraldiko kultura mugimenduaren ikur proiektu modura irudikatu zen hasieratik, argi baitzegoen euskararen birsorkuntza eta transmisioa —eta, hartara, haren berreskurapena— ezin zirela bermatu eskolarik gabe gizarte modernoan (...) irakaskuntzari lotutako rol kultural berrien iturburu izan ziren euskarazko eskolak —irakasleak, pedagogian adituak— eta euskarazko kultura merkatuaren sustatzaileak —argialetxeak, liburugintza, literaturgintza (...)” (Larrinaga, 2007b: 159)

Gizarte mugimendu gisa eratu zen hura guztia. Honela seinalatzen du Torrealdai: “La ikastola tiene todas las características de un movimiento popular” (Torrealdai, 1977: 464). Eta bat dator Fernandez ere:

“(...) ikastolek mugimendu sozialaren izaera hartu zutela esango genuke, Torrealdairekin batera (...) gizarte zibilean eratzten den fenomeno dugu, non sistematik ezarri nahi den zerbaiti (eskola ereduari) erantzuna ematen zaion (...) komunitate eskolarra osatzen duten estamentu guztien partaidetza ekintzailea dugu, guraso, irakasle, ikasle eta laguntzaileena. Erakundetu gabeko egoera partehartzaile honetan, non aldaketa eta eraiketakarako joerak ekintza sozialaren norabide bihurtzen diren, eskolaren behar guztiei erantzunak ematen hasi ziren ikastolak. Horrela, finantziabideak eta azpiegiturak jorratu, irakaslego berria formatu, ideologia oso bat eraiki, pedagogiaz hausnartu eta proiektuaren gizarteraketa eta legitimazioa burutu ziren” (Fernandez, 1994: 123)

Euskal Herrian eman diren gizarte mugimenduen mapa osatzera bideraturiko lanek ere toki garrantzitsu bat gorde ohi diote Bigarren Pizkunde hartan hasita euskalgintzaren eta euskal kulturgintzaren inguruan eratutakoari. Honela, Ajangiz eta Barcenaren arabera oso aberatsa izan da euskal jendartea gizarte mugimenduen presentziari dagokienean, baina guzti hauen artean zabalena aipaturikoa litzateke: “Xede, helburu eta norabideen espektro zabal hori dela eta euskararen eta euskal kulturaren aldeko gizarte mugimendua da, dudarik gabe, aztertuko ditugunen artean anitzena, zabalena eta askotarikoena” (Ajangiz & Barcena, 2001, 22). Halaber, Agirrebategik (1995) baliabideen erabilerari eta antolakuntzari erreparatuaz buruturiko tipologian euskararen ingurukoak dira gehien aipatzen direnak: erakunde tekniko empresarialak (Elhuyar, UZEI, *Argia*, *Euskaldunon Egunkaria*, SIADECO...) profesional sindikalak (idazleen, itzultzaileen, antzezleen eta abarren elkarteak) eta herri erakunde militanteak (Ikastolen Elkarteak, Euskal Herrian Euskaraz, Aek...).

Gizarte mugimenduena praktikaren bidez gauzatzen den eraikuntza kognitibo bat izan ohi dela azpimarratzen du Larrinagak: “Nortasun kolektiboa helburua izanik, egintzan jorratzen da, ez da alde zuzenetik finkatuta datorren errealitatea. Aitzitik, prozesu negoziatua izan ohi da; prozesuan zehar, egintza kolektiboan inplikaturik dagoen “gu” delakoa lantzen da. Horrela, apurka-apurka, esanahia hartzen du “gutasunak” (2007b: 43). Eta euskalgintzaren bidea ere halakoxea, praktika askorekin, teoria gutxirekin eta intuizioz egindakoa, izan zela azaltzen du Odriozolak: “Euskaltzaileen hizkuntz kontzientzia pitinka-pitinka bere heldutasun teorikora iristen ari da, eta guzti hori urte batzuetako borroka-ahaleginari esker: garbi dago,

hortaz, hemen ere praktika teoriaren aurretik doala, hitzok oso zentzu zabalean hartuta” (1992: 32).

Bigarren Pizkundean bizi izandakoa gizarte mugimenduen teorizazioarekin erkatuz lotura gehiago ere egiten ditu Larrinagak. Honela, euskal *intelligentsia* berriak buruturiko abertzaletasunaren nahiz euskal kulturaren irudikapen berria interpretazio markoaren eraikuntza gisa aurkezten du: “Horrenbestez, 1960ko aldaketa kultural eta politikoei abian jarri zuten, zalantzarik gabe, mugimendu zabalaren egintzaren ondorioz euskal mundu abertzalean sustraitu zen erreferentzi marko berriaren sorrera prozesua (Benford, Snow eta Huntetek landutako *framing process* delakoa)” (Larrinaga, 2007b: 165)⁴⁹⁶. Eta lanketa honek borroka antifrankistarekin lortu zuen sintonia terminologia espezializatua erabiliaz azaltzen du: “(...) *frame alignment*⁴⁹⁷ horri esker, euskal nazionalismotik at zeuden talde sozial askoz ere zabalagoen atxikimendu formalak —beraz, legitimazioa— atzeman zuen euskalgintzak frankismoaren garaian.” (Larrinaga, 2007b: 166).

Hainbat egilek *framearen* eraikuntza gatazkatsua dela azaltzen du. Larañak, esaterako: “(...) el consenso se construye a través de negociaciones y conflictos entre los seguidores del movimiento en torno a definiciones de la situación sobre las cuestiones que motivan su acción y la necesidad de intervenir en ellas (...)” (Laraña, 1999: 117). Edota Meluccik:

“Lo que empíricamente se llama un ‘movimiento social’ es un sistema de acción, que conecta orientaciones y significados plurales. Una sola acción colectiva, además, contiene diferentes tipos de comportamiento (...) Sólo separando diferentes elementos analíticos se puede entender cómo se mantienen unidos por una estructura “organizativa”, cómo se construye una identidad colectiva a través de un complejo sistema de negociaciones, intercambios, decisiones (...)” (Melucci, 1994: 123-124)

Euskalgintza eta euskal kulturgintzari ere beste hainbeste gertatuko zaio. Lehen Pizkundean onduriko ikuskeraren eta Bigarrenengan sorturikoan arteko talka emango da: “(...) euskalgintzaren eragile zirenen proposamenak —kulturgileenak barne— ez ziren beti bat etorri euskararen eta euskal kulturaren modernizazioari zegokionez. Aldiz, era askotako definizio eta proposamenak aritu ziren lehian esparrua eratzerakoan” (Larrinaga, 2007b: 171). Era berean, Lehen Pizkundean onduriko ikuskeratik jaiotako abertzaletasun jeltzalearen eta Bigarregotik sorturiko ezker abertzalearen arteko abertzaletasunaren baitako hegemonia lortzeko borroka *framearen* inguruko gatazkari dimentsio politiko bat eman zion: “Jarrera kontrajarriak hasierako nazionalismoaren eta nazionalismo berriaren ikusmoldeen isla ziren, eta, ondorioz, jarrera politikoei nahasirik zeuden. Hortaz, berriz ere eztabaida kognitiboa eta politikoa bateraturik agertu ziren erabat” (Larrinaga, 2007b: 171). Eta gutxira dimentsio politiko hori bihurtuko zen eztabaida guztiak baldintzatuko zituen ardatza, Larrinagak, gizarte mugimenduen alorretik harturiko terminoa erabiliz *master frame* deritzona⁴⁹⁸.

⁴⁹⁶ Ez da, noski, ariketa hori egiten duen bakarra. Honela dio, esaterako, Iñaki Martínez de Luna, euskalgintzak garai hartan eraiki ahal izan euskararen inguruko ulerkeraz: “*Framing* Aldarrikatzailea: XX. mendeko 60-70ko hamarkadetan zabaldu zena, zeinak euskal kulturaren eta euskalgintzaren sektore gehienetan zein abertzaletasunaren gotorleketan iraun duen, egokitzapen batzuekin bada ere. euskarak, hizkuntza gutxitua den aldetik, interbentzio eraginkorren eta aldeko neurri berezien premia du —diskriminazio positiboa, alegia— eta halakorik ezean desagertzeko zorian jarraituko du.” (Martínez de Luna, 2010: 57-58)

⁴⁹⁷ Honela definitzen du Larrinagak *frame alignment* Larrinaga berak: “(...) orientazio indibidualak eta mugimenduaren interpretazioak elkartzeko helburua bilatzen da, interes, balio eta sineste indibidualak mugimenduaren ideologia eta xedeekin bat etorri daitezen” (2007b: 40).

⁴⁹⁸ Snow eta Benforden definizioa eskaintzen du Larrinagak: “What we call master frames perform the same functions as movement-specific collective action frames, but they do so on a larger scale (...) Master frames are to movement-specific collective action frames as paradigms are to finely tuned theories. Master frames are

Euskara batuaren edota literatura berriaren inguruan sorturiko liskarrak eta ezinikusiak aipatzen ditu adibide gisa:

“Antzeko polemikak kutsatu zituen literaturgintza berriaren hastapenak ere, euskararen batasun prozesuan bezala, literatura, hizkuntza eta kulturari buruzko ikuspegi desberdintasunak, belaunaldien arteko desberdintasun eta eztabaida politikoekin batera azaleratu baitziren. Mota horretako eztabaidek behin eta berriro adierazten zuten euskal kulturgintza esparruan lehiari ari ziren bi mundu ikusmoldeen arteko borroka sinbolikoa.” (Larrinaga, 2007b: 172)

Aurreko atalean eskaini dira frankismoaren azken urteetan abertzaletasunaren baitako arrakala honek bertso-munduaren baitan izan zuen itzalaren inguruko kontu batzuk⁴⁹⁹. Francoren kontra nolabaiteko kidetasun bat mantendu zen, ordea. Hurrengo zikloan, 1980tik aurrera, Francoren erregimena Espainiako monarkia parlamentarioak ordezkatzeko duenean ezagutuko da *master frame* honen bertsiorik gordinena. Ardatz honek euskal kulturgintzaren baitako gizarte mugimenduen garapena asko baldintzatuko du. Hurrengo atalean sakonduko da zerbait.

7.2.3.3 Bertsolaritzaren garrantzia Bigarren Pizkundean

Bertsolariek ez zuten aparte batean bizi izan 1960 eta 1970eko hamarraldietan Euskal Herria hartu zuen giro nahasi hau. Batez ere belaunaldi gazteena gogoz inplikatu da Pizkunde berriaren olatuan. Imanol Lazkano bertsolariak, esaterako, honela gogoratzen du guzti hura Barandiaranen liburuan:

“Hirurogeiko hamarkada oso garrantzitsua izan zen Euskal Herrian. Gerra eta gerra ondorengo zapalkuntza hartan, jendea mutu eta kuzkur egonarazi bazuten ere, azpian abertzaletasunaren eltzeak irakiteari ez zion inoiz utzi. Horrek guztiak gaztedi berri bat sortu zuen, gurasoak baino ikasiagoa eta gaztetasunaren ausardiarekin. Protesta giroko hamarkada bat esango nuke nik. Lantegietako grebak, manifestazioak, eta abar. Lourdes Iriondoren abesti hark laburbiltzen du: ‘Gazte gera gazte eta ez gaude konforme, mundu garbiago bat bizi nahi genuke’. Hori zen giroa.” (Barandiaran: 2011: 20)

Frankismoaren lehen hamarkadetan bizi zen errepresio giro itoa zela medio, bere dimentsio aldarrikatzaile eta politikoa isilpean mantendu zuten bertsolariek, baina giro berri honetan isiltasun hori hausten hasiko ziren asko, abertzaletasun berriarekin lerratu ziren hainbat, eta ‘bertsolaritza soziala’ zeritzon fenomeno eman zen. Aurreko zikloan eman zaio errepaso zabal samar bat honi guztiari⁵⁰⁰, baina edukien inguruan Jexux Larrañagak bere doktore tesian esandakoak gaineratu daitezke hemen, bertsolaritza sozial honek inguruaren bilakaerarekin erakutsi zuen sintonia azpimarratzeko:

“Bertsozko tradizio diskurtsiboak aspalditik bizkarra emanda zetorren erlijiotasun estetika moralistari muzin eginez, tentsio soziopolitiko berriaren baldintzapean borborka egosten ari zen gizarte begirada soziala zabaltzeko garaia bizi du. Orain, gai sozialak eta giza eskubideak printzipio unibertsalaren etika-laikoaren norabidetik heltzeko garaia izango da, bertsozko tradizioaren iruditegi berrikuntzaren garaia.” (Larrañaga, 2014: 138)

generic; specific collective action frames are derivative (...)” (Snow eta Benford, 1992: 138; Larrinagatik, 2006: 555). Alegia, eztabaida guztien ama, eztabaida guztiak zeharkatzen dituen eztabaida.

⁴⁹⁹ Ik. 6.4.3.4 Barne arrakala: Loiola Irratiko sariketaren boikota

⁵⁰⁰ Ik. 6.6.2 Ikur eta eroale: lehen hamarkadetakako kamustasunetik bertsolaritza sozialera. Baita, 6.4.3

Gorbatarik gabeko bertsolariak, eta honen baitan bereziki 6.4.3.2 Bertsolaritza soziala: Amurizak Lopategiri eginiko elkarriketa.

Aurreko atalean Jon Azpillaga eta Jon Lopategi bertsolariek bertsolaritza sozial honen baitan buruturiko ekarpena azpimarratu da, jarrera berriarekin gehien nabarmendu zirenak eta gehien arriskatu zirenak eurak izan baitziren⁵⁰¹. Baina Imanol Lazkanok azaltzen duen gisan, bertsolari dezente inplikatu ziren kontu guzti honetan, eta inplikazio hau guztia funtsezkoa izan zen bertsolaritzaren egokitzean emandako hurrengo pausuetarako:

“Azpillaga eta Lopategi izan ziren ikurrak edo, eta haien inguruan bertsolari denak ez, baina hor busti ginen dezente. Azpeitiko hiru bertsolariak —neroni, Joxe Agirre eta Joxe Lizaso—, Lazkao Txiki bera, Gorrotxategi, Igartzabal. Esan behar da izan zirela bertsolariak espetxeratuak, isunak jarritakoak, eta kantatzeko debekuak ere jasan zituztenak. Eta ordura arte hain baserriarra izan zen bertsolaritza kaleko jendearengana iristen hasi zela, horrek daukan garrantziarekin. Gaurko begiekin begiratuta, gaur hain hiritartuta eta gizarte berriari itsatsita dagoen bertsolaritzak orduan egin zuen lehen urratsa. Eta eskerrak! Bestela, baserriarekin batera galbidera zihoalako. Orduan, kaletartze horretan lehen pausoa 60ko hamarkadan eman zen. Gero, horren eraginez etorri ziren bertso eskolak, lan garrantzitsua eginez.” (Barandiaran, 2011, 20)

Bigarren Pizkunde hartan izandako presentzia garrantzitsuaren erakusgarri, Larrinagak garaiko euskal kulturgintzaren gizarte mugimenduaren baitako elementutzat hartzen du bertsolaritza: “(...) aurreko hamarraldian era isolatu eta mugatuan agertutako kultura berpiztearen lehen urratsak, 60koan, adierazpen asko zituen herri mugimendu sendo bilakatu ziren (ikastolak, bertsolaritza, literatura eta euskal kanta berria, argitalpenak eta abar)” (2007b, 161).

Bigarren Pizkunde honen baitan bertsolaritzak izandako garrantzia, ordea, ez da belaunaldi gazteak bat-batean buruturiko bertsogintza aldarrikatzailerara mugatuko. Sortzaile berriek ahozko ondarrera joko dute tradizioaren berrikuntzarako lehengai bila. Eta euren funtzionaltasun praktiko-soziala galtzar zen kantu eta koplak zahar edo bertso-papereko⁵⁰² edukiei funtzionaltasun sinboliko bat eman zieten:

“60etarako, ez zuten kasik funtzio praktiko-komunikatiborik, herriaren gehiengoan, eta iraganeko komunikazio modu baten arrastoak ziren (...) Alabaina, 1960-1980 bitartean berreskuratu ziren Ahozko Ondare Kulturaleko elementuei bertze funtzio nagusi bat gaineratu zitzairen: kanta edo koplak zahar eta baladak funtzio sinbolikoa eskuratu zuten, orduko komunitatearen zati batendako. Komunitateak, iraganetik heldu ziren hitz ezezagun horiekin, arrazoiaz hara indiko atxikitzeak, taldekako bizipen emozionalak eta iraganeko garaien irudikatzeak bizi zituen.

Bertsopaperekin ere gauza bera gertatu zen; kasik akitua zuten funtzionalitate praktiko-sozialari funtzio sinbolikoa gaineratu zitzaion. Iragan bateratuaren atzemate iturri izateaz gain, etno-historiaren gordelekua zen corpus hori.” (Gandara, 2015: 182)

Askok izan ziren tradiziotik zetorren ondarea, egiteko modu berriekin eta esanahi berriekin hibridatu zuten sortzaileak, tartean Pizkunde hartan funtsezkoak izan ziren figurak. Honela, Jorge Oteizak aintzinako euskal pentsamendu estetiko edo estiloa berreskuratu beharra aldarrikatu zuen arte modernoaren moldeetara eta bizipen garaikideen berezko ulermen batera hurbiltzeko bide gisa, eta bertsolaria jarri zuen eredutzat: “Oteizarendako, oroitu beharreko euskal pentsamenduaren giltza nagusia bat zen: haren praktikatzailerak litzatekeen

⁵⁰¹ Ik. 6.4.3.3 Debekuak eta zigorrak: Azpillaga eta Lopategiren ausardia.

⁵⁰² Ik. 6.3.4.3 Azken bertso-papera

bertsolaria” (Gandara, 2015: 213). Eskultorea Pizkundearen aitabitxi moduko bat izan zen, eta bere planteamenduak prestigio berri bat eman zion bertsolaritzari intelektual berrien artean:

“1964ean Jorge Oteizak argitaraturiko Quosque tandem liburuak astindua ekarri zuen Euskal Herrira; bertan agertutako teoriak disziplina ezberdinetako sortzaileen artean berebiziko eragina izan zuten hainbat urtetan zehar. Hala, ordutik aurrera, bertsolaria Euskal Herriaren irudi folkloriko izatetik, bere arimaren ispilu izatera pasatu zen (...)” (Martinez, 2011: 30)

Gabriel Aresti poetak bertsolaritzaren elementu material nahiz formalak baliatu zituen olerkigintza modernorako. Sarasolaren iritziz bere ‘Harri eta Herri’ (1964) benetan irakurri zen lehen euskal poesia liburua izan zen: “Harri eta Herri’k lortu zuen literaturaren eta irakurlekoaren arteko desegokitasuna apurtzea, egiazko literatura batek (hau da irakurria den literatura batek) bete behar dituen baldintzak adieraziz eta euskarazko literatura erreal baten posibilitatea erakutsiz.” (Sarasola, 1971: 84-85). Eta Gandararen terminologia erabiliz iradoki daiteke bertsolaritzari gerturatzen zitzaion ildo hau jorratuz lortu zuela behar zuen ‘oreka komunikatiboa’, alegia, irakurria izatea, irakurleko berri zabal batekin, sekularizatua, politikoki berrizalea eta,aldi berean, euskaraz alfabetatzen hasi berria, konektatzea:

“Orixez gero, idatzizko poesiak ahozkorantz egiten duen bira honi esker, eta Aresti eta Miranderekin abiatuta, objektu ez-erlijioso bat topatzen du gerraondoan: herria, proletalgora, tradizioa, mitologia, paganismoa, eta abar. Beraz Arestik zein Mirandek beren objektu berria ez dute bakarrik ideologikoki topatzen, ariketa intelektual-politiko baten ondorioz, baizik eta ahozkotasunera hurbiltzearen ondorioz. Bestela esanda poesiaren errepresentazio objektua (proletalgora, euskal mitologia errurala) euskal subjektu historiko subalternoetara hurbiltzen da (langileak, baserritarrak, bertsolariak), komunikazioa eta performantzea ahalbidetuz.” (Gabilondo, 2009: 21-22)

Ez Dok Amairuk, bertsolaritzaren modernotasuna nabarmendu zuen, bertso zaharrak kanta berriak egiteko erabiliaz, edota idazleek eginiko moldaketak baliatuz:

“Ez dok amairu-k, era berean, bertsolaritzaren jite poetiko eta kalitatezkoa aldarrikatu zituen, bertsolaritzaren izaera herrikoa zela-eta, literatur behekerat gutxiesten zuten zirkulu askotan. (...) sakabanatu eta gero ere, Txirritaren bertsoak-en (1975), Letek eta Valverdekin egin zuten Txirriaren kanonizazio oso da efektiboa (...) Era berean Benito Lertxundiri eskerrak (...) maitasunezko lirika tradizional edo herrikoiak musikologiaren liburuak eta apalak utzi zituen, euskal abertzaletasunaren memoria kulturalen, geruza emozional eta afektibo ezin zentralagoa sortuz eta jalkiz. Mikel Laboaren lehen diskografia ere hemen sartzen da erabat.” (Gabilondo, 2009: 25)

Sortzaile hauek⁵⁰³ buru ziren euskal sorkuntzaren olatu eraberritu honetan, bertsolaritzak pisu benetan garrantzitsua izan zuen, bada:

“Hiru alderdi horien lantzeak ahalbidetu du euskal oinarri kultural berrizatuaren bidea sumatu, eta bide horren lan bateratua atzeman ahal izana: batetik, poetek, euskal ondare kulturaletik eguneraturiko irudiez gain, bertso moldeak berak baliatu izana; bertzetik, ahozko baliabideen erabilera modernoa; azkenik, baliatze berrizatu horretatik sortutako atzematearen abangoardiazko

⁵⁰³ Bakoitzaren ekarpenari buruzko zantzu gehiago eskaini dira aurreko atalean. Ik. 6.4.2.2 Bertsolaritzari arreta berria berriro: Oteiza, Aresti eta Ez Dok Amairu

eskaintza. Denak arlo desberdinetako kulturgileen lanari eskerrak lortuak (...).” (Gandara, 2015: 219)

Garaiko euskal aldizkari abangoardistetan ere, *Ustelan*⁵⁰⁴, esaterako, aurki daiteke pisu horren aztarnarik:

“Honela adieraziko nituzke euskal literaturaren abiapundurik garrantzitsuenak:

1. Herriaren genero tradizionalak landu. Kasu honetan, nabarmenenik, bertsolariak ditugu. Baita, ohizko genero hauetan oinarriturik, gauza modernoak egin. Galizan, "Cantigas d'escarnho e de mal dicer dos cancioneiros medievais galego-portugueses" lanetan oinarriturik, "neotrovadorismo" mogimendua sortu zuten Fermín Bouza Brey eta Alvaro Cunqueiro idazleek gerra aurrean. Geurean, Aresti zenaren koplak guztiz ezagunak dira. Ezin uka, bestalde, bertsolaritzak egungo kantagintzan duen garrantzia. Teatroan, hor dugu Intxixu taldea pastoralen tradizioaren bizkortzaile.” (*Zorion Ustela*, 1976. ‘Herria euskara literatura eta horrelako batzuk’)⁵⁰⁵

Ana Gandara bere doktore tesian Bigarren Pizkunde honetan bertsolaritza ikur garrantzitsu gisa hautatu izanaren atzean egon daitezkeen faktoreen azterketari lotzen zaio. Honela, ‘Iraganeko ondare alienatu’ izaera aipatzen du; ahozko transmisioak egokitzen garaikideak errazten zituela: “(...) ezagutza zuzenerako musikarien gisako ekimenak hagitik lagungarriak izan ziren (...) corpora moldatu beharko zen, garaian atzema izan ahal izateko (...) balio sinbolikoa komunitateak nahi eta behar gisara moldatzea aisago gertatzen zen” (Gandara, 2015: 198). ‘Garaiko egoerara egokitzeko tasunak’ aipatzen ditu; nagusiki bat-batekoak zentsurari ihes egiteko eskaintzen zuen erraztasuna: “Momentu jakinari atxikia izatea –beraz, iragankorra; bertan izan ezean, atzemateko zaila– eta mezu subliminalak kolektiboari altxatzeko ahalmena izatea hagitik tasun erabilgarriak ziren, balioztatze sinbolikoaren garapenerako” (id.: 198). Edo ‘Oraindik ere lotura garaikide batek bizirik irautea’: “(...) bertsolaritzak Ahozko Ondare Kulturalarekiko lotura finkatzeko bidea lagundu egiten zuen: iraganeko errealitatearen haria bizirik mantentzen zuen (...) aitzinez izana zuen betebeharra espresuki egokitzen zitzaion 1960-1975 bitartean komunitateak zuen behar zenbaiti” (id.: 198). Frankismoaren zapalkuntzaren aurrean ‘Ahotsa goititza’ zen, nagusiki, behar hori (id.: 199). Eta bertso-saioaren liturgiak ere, honen ‘atzemate zeremoniotsuak’, lagundu zuen honen ikur izaera indartzen, komunitateari plaza publikoan bizipen kolektibo bat izateko aukera ematen baitzion:

“Kantagintza emanaldietan eta bat-bateko bertsolaritzan sumatzen dira Ahozko Ondare Kulturalaren barneratzea elkartasunean egin izanaren eraginak: berauek gertatzen ziren giro nahiz atzemate zeremoniatsuan eta bertan eskaintzen ziren baliabide sinbolikoekiko inplikazio emozionalean. Hango giroak eta ondarearekiko jarrerak parte-hartzea bera saio liturgiko baten gisako bihurtzen zuen, parte-hartze hark senidetasun eta partaidetza kolektiboaren sentimenak sostengatzeko balio zuelarik.” (Gandara, 2015: 356-357)

Azkenik, lehen Pizkudean gertatu bezala, bertsolariaren izaera ertzekoak komunitate ertzekoaren identifikazioa errazten zuen: “Bertsolarien atzemate horretan, pertsonaia subalternoaren irudia modernitaterako bide bihurtu zen: botere ofizialak isilarazia zuen herriaren lekukotza bizia.” (Gandara, 2015: 233)

⁵⁰⁴ Bernardo Atxaga eta Koldo Izagirrek 1975ean sorturiko lehen zenbakiak Panpina Ustela zeraman goiburuan, eta 1976an beste bi zenbaki argitaratuko zituzten: *Zorion Ustela* eta *Mermelada Ustela*. 1977an aldizkaria utzi eta Ustela argitaletxea abiarazi zuten, eta zazpi urtean idazle gazteen 19 liburu argitaratu.

⁵⁰⁵ Helbide honetatik berreskuratua: <https://andima.armiarma.eus/stel/stel0204.htm> [2019/I/11]

Ekarpen aberatsa egiten du Gandarak. Nortasun ikur izaera honi ez ezik, kultur nahiz ideologia eroale edo sorkuntza ezberdinetarako molde gisa izandako erreferentzialtasunari ere egozten die bertsolaritzak Bigarren Pizkunde honetan izandako garrantzia. Honela laburbiltzen du gehiena paragrafo bakarrean:

“Batetik, beraz, corpusak moldearekiko zuen loturaren garrantzia; hau da, euskal Ahozko Kultur Ondarea osatzen duen corpusak bertso moldeekiko izan duen ageriko harremana. Bertzetik, “bertsolaritzarekiko miresmen” gisa izenda genezakeena: kultur gile zenbaitek identitate kolektiboaren bilaketa bertsolaritzan ardazu zuten, bai herriaren ahots gisa, bai euskaltasun ‘egiazko’aren gordeleku gisa, sumatu nahi izan zelakotz; herriaren bizipen paralelo ez-ofizialak bertan bildu, eta iraganeko ahotsak bertso moldeetan gordeak izanak ziren, denbora luzez. Azkenik, etno-(h)istori(ar)en bilgune gisa atzeman izanak ere eragina izanen zuen: errealitate horien agerpenaz haratago, komunitate isilduaren ahotsa gaitzeko tresna kultural gisa ulertu ahal izan zen. Hau da, bertsolaritzaren marjinaltasuna abangoardia seinaleztat berrinterpretatu zen, 60-70etan: atzemaite berri horretan nahasi egiten ziren herriaren bazterreko ahotsa, iragan atzendua eta bertsolariaren irudi mitifikatua.” (Gandara, 2015: 351)

Eta Lehen Pizkudean gertatu bezala Bigarren honetan ere hautua neurri handi batean halabeharrez egindakoa izan zela seinaleztatzen du:

“(…) bertso berreskuratuen eta garaikideen arteko harremanak euskal komunitatearen jarraitutasun sentimena sendotzeko aukera ematen zuen; hala nola, garaiei egokituriko gai bertsuak, komunitate berarenak, islatzeko aukera zen. Hala, bada, bertsoen presentzia nahiko halabeharrezkoa dela erran genezake: Ahozko ondare kulturalaren zati bat bertsoei atxikia izanik, ulergarria da corpus horren berreskuratze prozesuek molde hori hautatzea ekarri izana.” (Gandara, 2015: 351)

7.3 BERTSOLARITZA BERSUSTRAITZEKO MUGIMENDUA

7.3.1 Bigarren Pizkudearen haritik I: Ikastolen uharatik bertso-eskolak

7.3.1.1 Irudikapen erromantiko esentzializatuaren itzal luzea

Iztuetaren deskribapenetan behin eta berriro azpimarratzen da bertsolariak eskolatu gabeak direla, berezkoa dela euren jakinduria, natural bezain prestuak direla eta abar. Zenbait pasartek bere jakinduria naturalaz Maisu Juanen eskolako jakinduriari gailentzen zaion Peru Abarka ere ekartzen dute gogora:

“Letra bat bakarra ere ezagutzen ez duten artzain, atxurlari, ikazgin, eta oen gisako asko ikusten ditugu sarriro, edozein gauzaren gañean ematen zaioten itzpidea, erabakitzen dutela kantuz bersoetan zuzen ta garbiro, gizon jakintsuak arritzen diran moduan. Iñongo eskolatan beñere sartu bageko Gipuzkoatar oen esaera egoki, eta epaira zorrotzak zabalduko balira (...)” (Iztueta, 1969: 145)

Ezin daiteke ukatu Iztuetaren pasarte hauek deskriptiboak direnik. Lerrook idatzi zituenean bertsolari gehienek, euskaldungoaren gehiengo bezala, alfabetatu gabeak behar zuten, eta Iztuetak ez dio guztiak horrela zirenik ere (besteak beste bera ere bertsoan ibilia eta eskolatua zelako ziurrenik). Baina Iztuetaren lan guztia bustitzen du, nolabait, European

zabaltzen ari zen Erromantizismoak, eta pentsa daiteke egiten duen azpimarrak basati onaren mitoaren eragina ere jaso zuela⁵⁰⁶.

Gerora ere askotan egingo da azpimarra bertsolari analfabetoaren irudian, XIX. mende hartako funtsezko hainbat bertsolari, Iparragirre, Bilintx eta Otaño, esaterako, alfabetatuak izan arren. Eta ezagutzen diren lehen bertsolari handien artean baserrikoak ez ziren ofiziotan aritutakoak gehiengoak izan arren (aipaturikoez gain Etxahun, Xenpelar eta Txirrita esaterako) baserriarekin lotuko da behin eta berriro bertsolaria. Basati onaren mitoari eskainiriko azpipuntuan jasota gelditu den gisan⁵⁰⁷ Erromantizismoak kultura popular oro baserri munduarekin lotu zuela azpimarratzen du Burkek; esentzializazioa orokorra izan zen, beraz, alderdi honi dagokionean. Baina Euskal Herrian euskal nortasun modernoaren eraikuntzarako oinarri gisa hartu zen euskaldun (basati) onaren⁵⁰⁸ irudikapenarekin bat egin zuenez oso luze iraun zuen bertsolariaren irudi esentzializatu honek:

“(…) tradiziozale euskaltzaleagoak, norbere kultura eta hizkuntza eutsi guran, nortasun ereduan irauteko ahalegina egingo dute, bizimodu tradizionala goratu eta baserriar erlijiozale eta jatorraren goraipamena egin ahal izateko. Joera tradiziozale horri idealizazio maila nabarmena dario, izan ere, euskal identitatearen sena zintzoena, iraganeko erroak dituen bizimodu mitifikatu batetarantz begira dago oraindik. Nortasun kulturalaren objetibizatze ahalegina, tradiziozale eta foruzaleaz haraindi, garaiko ‘zientziak’ (antropologia eta literaturak batez ere) egindako aurkikuntzen ahaleginean areagotuko da (...) Euskaldun onaren gizarte errepresentazio hori euskal identitatea euskarritzeko eta modernizatzeko erabiliko den lehengaietako bat izango da (...) XIX. Mendearen amaieratik (...) XX. Mendeko lehen erdira bitarte bere eragina ez zuela galdu ikusiko dugu bertsolariaren iruditeriari dagokionean (...)” (Larrañaga, 2014: 98)

Abertzaletasun jeltzalearen idearioan pisu handia izan zuen doktrina guzti honek. Euskara-fedea-baserria hirukoak XX. mende amaieran oraindik ere indarra zuela ilustratzeko Javier Díaz Nocik abertzaletasun horren eroale gisa gehien nabarmendu zen bertsolariak, Basarrik, 1989an emandako elkarrizketa bat darabil:

“Gaur egun ere, askorentzat lehen bertsolari modernua izan denak zera dio: ‘Hemen hiru giro izan dira bereziak, eta horrexek salbatu du euskera. Euskal giroa, baserri giroa eta sinismen giroa (...) Euskararen unibersidadea baserria izan da’. 1989,eko hitzak ditugu, ia bi mende igaro dira Mogekek bere Peru Abarka sortu zenetik eta gauzak, dirudienez, ez dira asko aldatu.” (Díaz Noci, 1993: 396)

Irudikapen horren guztiz oinarritzeko premisa bat bertsolariaren berezkotasuna zen. Basati onak berezko jakinduria bat bazuen, eskola-modernitatearen artifizioaren aurretikoa eta artifizio horrek galbidera eramane zezakeena; beraz, bertsolari euskaldun (basati) onak ere, berez, ‘txoriek kantuan bere sen naturalari jarraituz egiten duten bezala’, egiten zuen bertsolariaren.

Premisa honen indarra bistakoa zen XX. mendearen bigarren zatiak aurrera eginda ere, esaterako, Basarri eta Amuriza eskolatuak izateagatik benetako bertsolari ote ziren zalantzan jarri zenean. Hainbat buelta eman zitzaizkion bertsolaria *Jai* vs. *Egin* dikotomiari, eta bertsolari eskolatuen eta eskolatu gabeen arteko bereizketari. Manuel Lekuona bezalako

⁵⁰⁶ Ik. 4.2.2 Juan Inazio Iztueta, lehen euskal folklorista (1767-1845)

⁵⁰⁷ Ik. 3.2.3 Basati ona

⁵⁰⁸ Ik. 3.2.4 Euskal kulturaren deskubrimendua: hizkuntzalariak, antropologoak eta euskaldun basati ona

figura klabe batek, XX. mendean bertsolaritzak bizi izandako prestigioatze eta modernizazio prozesuaren lehen inspiratzailea, esaterako, honakoa zioen:

“Bi eratakoak bai-ditugu ezik gure bertsolariak: eskolatuak eta eskolagabeak (...) Askotan ikusi izan degu nor edo nor, bertsolariak buruz lantua jotzen: tamala, lastima aundia dala, alegia, orrelako etorria duten gizonak eskolagabeak izatea! ... Olakoan iritziz, bertsolaria eskolatu balitz, askotaz ere ohea litzake (...) Ez diokegu ezetzik, baldin eta eskolak bertsolarietasuna kentzeko, galduezteko arriskurik ezpaleuka. Bañan kontuz, oso kontuz ibilli bearra dago ortan. Bertsolariak badu alako zer bat, eskolatuen artean izaten ez danik. Ez ezin izan leitekealako. Izan oi ez dalako baizik. Eta beldur izatekoa da, bertsolari jatorrak eskolatzen astean, olako zer ori galtzea. Arriskua dago (...) Zer da, ordea, zer ori? Bertsolarien zer berezi ori? Ez da errez esaten. Gatza? Bizitasuna? Azkartasuna? zorrotasuna? Nik al-dakit? Jatortasuna, bertsolarietasuna. Dana dala, letradun poetak, gutxitan, oso gutxitan izan oi duten zerbait. Eta bertsolari bati ori kendu ezker, poeta bat geiago izan dezakegu, bañan baita bertsolari bat gutxiago ere.” (Lekuona Etxabeguren, 1950: 4)

Jaio vs. Egin edo *Eskolatu vs. Eskolatu gabea* dikotomien azpian aurki daitezkeen gogoetarako alorrak sakona dira oso. Batetik, Manuel Lekuonaren kasuan bezala, Ongek ahozkotatasun primarioa deritzonaren galeraren atzean egon daitezkeen mundua hautemateko eta adierazteko modu baten galera seinatu daiteke⁵⁰⁹. Zabalak ere sakondu zuen ildo honetan, ahozkotatasun primarioan nagusi den pentsamendu intuitiboa eta kultura idatziaren garapenetik sorturiko pentsamendu diskurtsiboa bereiziaz⁵¹⁰, bakoitzaren abantaila nahiz desabantailak aletuz⁵¹¹, eta Lekuonak aipatzen duen bertsolarien ‘zer berezi’ hori intuitibotik eratorria dela iradokiz:

“(…) estamos ya en condiciones de afirmar que las diferencias que en un primer contacto empecé yo a vislumbrar en las mentes de los autores de nuestra poesía popular, diferencias que más tarde vi confirmadas en los escritos de don Manuel, tienen como causa principal el que brotan de cabezas en las que, al revés que en las nuestras, el pensamiento intuitivo domina sobre el discursivo.” (Zavala, 1996f: 264)

Ahozkotatasuna eta kultura idatziaren arteko korapiloa ez ezik, aurremoderno eta modernoaren talka ere jasotzen dute bitasun hauek, eta honenbestez azpimarra euskal izaera aurremoderno gordetzeko nahian jarri zuen Lehen Pizkundearen eta izaera horri modernitatera egokitu beharrean zentratu zen Bigarren Pizkundearen artekoa, edota euskal izaera esentzializatua ikur gisa hartu zuen abertzaletasun tradizionalista eta euskal izaera ireki bat planteatzen zuen abertzaletasun ezkertiarren artekoa.

⁵⁰⁹ 1930eko hamarraldian koplak zaharren erritmo bereziari buruz idatzi zuenean, "koplak zaarren ritmoa", adimen, logika eta kultura berezi bati buruz ari zen.

⁵¹⁰ Honela dio: “(...) el pensamiento intuitivo viene a ser como un cuadro que admiráramos o un panorama que contempláramos (...) así como todos esos elementos se dan a un mismo tiempo, también los del pensamiento intuitivo coinciden en una misma visión, pudiéndose decir que dos de sus cualidades sean la pluralidad y la coexistencia (...) pensamiento discursivo es, en cambio, como su nombre lo expresa, semejante a un discurso, en el cual las imágenes (...) se nos ofrecen (...) una detrás de otra, al igual que los eslabones de una cadena.” (Zavala, 1996f: 259-260)

⁵¹¹ Honela laburbiltzen du: “El pensador ideal sería, naturalmente, aquél que supiera echar mano, según lo exigiera cada momento o situación, del pensamiento intuitivo o del discursivo; de la misma manera que el futbolista ideal sería aquél que con igual pericia supiera combinar con el compañero que tuviera a dos metros como con el que se encontrara en la otra banda del campo.” (Zavala, 1996f: 261)

Abertzaletasun tradizionala, bada, eskolatu gabeko bertsolariaren, berezkoa duen, jaio egiten den bertsolariaren defentsan gotortuko da, euskaldunaren irudikapen esentzializatuaren lotuaz: ikasia, modernoa, kalekoa, ez da benetako bertsolaria. Bertsolariak ‘berez’ sortzen diren euskal baserri-munduaren inguruko kultur ekosistema hori urrituz joango da, ordea, XX. mendean Euskal Herriko industrializazio prozesuak eta euskal gizartearen kaletartzeak aurrera egin ahala. Eta bertsolariaren transmisioari begira erabat kontzeptu inoperatibo bihurtuko da berezkotasunarena. Andoni Egañak azaltzen du ondo asko:

“Baden ala ez den Jainkoak erabakitzen du, Jainkoak banatutako paxientziek nahiago baduzue (...) Beraz, zero-lurren egileak eman bazion eman zion eta ez bazion eman, zer egingo zaio bada, ez zion eman. Gainera, berezkoaren aurkakoa ikasia da. Berezkoa, hain kontzeptu harrapakaitza izanik kontrakoari esker definitu izan da eta ez dakigu zer den baina zerbait ona dela bai. Ondorioz, ikastea, ikasia izatea, ikasten ahalegintzea, eta abar, pekatu mortalen hurrengo izan dira zenbaiten mentalitatean, ezjakina izatea meritu bihurtzeraino.

Non ikusi da horrelakorik?” (Egaña, 1993: 31)

Zarauztarraren galdera erretorikoari erantzunez, aipatu Bigarren Euskal Pizkundearen bueltan horretan bertso gintzaren inguruan ez ezik kultur gintza osoaren baitan ere eman zirela Jainkoa bitarteko zuten eztabaidak:

“Rikardo Arregik ongi adierazi zuen euskal kultura tradizionalaren krisia gizarte industrializatuaren testuinguruan (...) ‘Euskaltzaleen Jainkoa Hil Behar Dugu’ izenburu esanguratsua eta tonu hauslea zeuzkan artikuluan: “Euskaltzaletasunean, beraz, euskaldunen eta baserriaren arteko identifikazio gisa bat izango da (...) Benetako euskal izaera ta gizartea nekazaritzan edo igarotako garaietan dagoela usteko da. Garai horiek erabat idealizatuak izango dira noski. Gizarte hori horrelakoa izatea Jainko batek nahi izandakoa dela. Jainko hori izango da gizarte hori horrela izatearen esplikazioa. Gizarte era honen kontra joatea Jainkoaren kontra joatea.” (Larrinaga, 2007b: 171)

Eta gaineratu beharko da ez dela euskal komunitatea bere kultura popularra esentzializatu duen bakarra. Joxerra Garziaren eta Jon Sarasuaren arteko elkarrizketa liburuan, azken honek Latinoamerikan ere eztabaida berberak ematen direla seinalatzen zuen:

“(…) Jaio edo egin egiten da bertsolaria, Jon?

Egin. Latinameriketan eta, oraindik oso mitifikatua zaukatek inprobisadorearen berezko dohai berezien kontu hori. Nik uste hemen garbi utzi behar dugula sortzaile inprobisatzaileak ez duela dohai berezirik sortzaile inprobisatzaile delako. Kontua duk sortzaile inprobisatzaileetan ere badaudela dohai gehiago edo gutxiago dutenak, baina horretan bezala beste edozein sorkuntza edo beste edozein aktibitateetan. Futbolari batek ere ikasi egin behar izaten dik, futbolearen ondo egiteko. Hori bai, denok ez zauzkagu Maradonaren hankak. Bertsolaritzan ere berdin.” (Garzia, 1998: 67)

1998an argitaratu zen Garzia eta Sarasuaren arteko elkarrizketa hori. Kasik bi hamarkada joanak ziren bertsolaria jaio ala egin eztabaidak bere puntu gorena hartu zuenetik, baina, bistakoa denez, oraindik ere gelditzen ziren itzali gabeko txingarrak.

Hamar urte igaroak ziren Fito Rodriguezek ‘Bertsolaritza, formarik gabeko heziketa’ doktore tesia ezagutzera eman zuenetik. Bertan, tesiaren aurretik Lekuonak eta geroago Zavalak

defendituriko hipotesia berresten zen batetik: bertsolari zaharrek, alfabetatu gabeek beste pentsatzeko modu bat zerabilten, ahozkotasan primarioari zegokiona. Bestetik, ahozkotasan primario horretan ere, bestelako heziketa sistema baten bidez izan arren, bertsolaritzaren artea ikasi egiten zela azpimarratzen zuen. Rodriguezek baino urte batzuk lehenago Ongke ontorio bera planteatu zuen, izaera orokorrago batekin bazen ere:

“Los seres humanos de las culturas orales primarias, aquellas que no conocen la escritura en ninguna forma, aprenden mucho, poseen y practican gran sabiduría (...) Aprenden por medio del entrenamiento —acompañando a cazadores experimentados, por ejemplo—; por discipulado, que es una especie de aprendizaje; escuchando; por repetición de lo que oyen; mediante el dominio de los proverbios y de las maneras de combinarlos y reunidos; por asimilación de otros elementos formularios; por participación en una especie de memoria corporativa (...)” (Ong, 2016: 44)

Alegia, ‘berezko’, ‘jaiotako’ edo ‘benetako’ bertsolaritzat hartzen zirenek ere bertsotan egitera iristeko ikasketa prozesu bat jarraitu behar izan zutela.

7.3.1.2 Bertso-eskolek haustura eta egokitzapenerako giltza

Bertsolariaren irudikapen esentzializatu betierekoa, ez zen ongi uztartzen 1960 eta 1970eko Pizkundeak ekarri zituen berrikuntza haizeekin. Honela azaltzen zuen desfasea *Oh! Euzkadi* aldizkariak:

“Beste kultur balore batzuk daude modan, herririk ttikienetan ere ofizinizatuzarako ikasten da, kotxea ugaltzen ari da, telebista indartzen eta erdara nagusitzen, sala de fiestasen fenomeno da dibertsio erarik garrantzitsuena, han erdaraz egiten da bai neskatan eta bai mutiletan (...) Bertsolaritza euskaldun aldeano inkulto eta edadetuei bakarrik gustatzen zaiena da. Behi eta zimausaia dario, txapela darama eta alkandora lepo zimurgaitzik ez da ikusten (Basarrirena bakarrik).” (*Oh! Euzkadi*, 1980ko uztaila, 3 zbkia, ‘Bertso txiki bat bota behar duk mesedez’)

Honela gogoratzen du Joseba Sarrionaindiak: “Mugartegi, esate baterako, ‘Ama Lur’ pelikulatik alde egindako pertsonaia bezalako zerbait zen niretzat, geure aittitte-amamen historia galdu berekoa” (2015: 17). Eta modu honetara definitzen zuen bertso-munduaren erroka Xabier Amurizak 1981ean kaleratu zuen ‘Hitzaren kirol nazionala’ liburuan: “Lehenago biziera eta gaurkoa oso ezberdinak dira. Beraz, dibertsio moldeak ere ezberdinak izan behar. Beraz, bertsolaritzaren toki sozialak ere aldatu egin behar” (1997: 187).

Urte hartan bertan gutxira Bertsolari Elkartearen sorreran eragin garrantzitsua izango zuen eta bere kokapenagatik zenbaitek bertsolaritzaren iturburu bakartzat hartu nahi zuen baserri-mundutik urrun aurkitzen zen Santutxuko bertso-eskolak sinaturiko testua argitaratu zen *Jakin* aldizkarian. Bosgarren puntuak izenburu esanguratsua darama, ‘Hiri-bertsolaria sortzearen alde’ eta aurrez aurre heltzen zion arazoari:

“Gauza ezaguna da, sarri aipatua izan baita, sagardotegietan zegoela bertsolarien ‘berezko eskola’ (...) aintzina, jende askorentzat jolastoki bakarra sagardotegi horiek ziren eta, beraz, orduko gizartean aparteko tokia betetzen zuten. Gaur egun, ordea, beste gizarte mota batetan bizi gara (...) baserriak kalearekiko izan duen pisua galduz doa. Bestalde, oraintsu arte baserria eduki da euskararen gordeleku nagusizat, baina gaur egun honetaz ere, hankaz gora geratzen ari dira lehenagoko eskemak. Euskarak burruka gogorrean dihardu kaleko (hirietako) bizitzan eta, dirudienez, biziko bada, gailendu egin beharko du burruka horretan (...) Gure ustez, bertsolaritza sendotuz joan dadin, hiri-

giro horretara egokitu, adaptatu beharko da. Labur esanda, Bilborako bertsolaria edo, zabalago esanik, hiri-bertsolaritza indartu nahi genuke.” (Santutxuko bertso-eskola, 1981: 175-176)

Eta testu berean, bertsolaritzaren irudikapen esentzializatuarekin hautsi eta errealtate berrira egokitzeko giltza bertso-eskola izan zitekeela seinalatzen zuten, adibide gisa euren esperientzia jarriz. Honela, eurek buruturiko ikasketa prozesuari buruzko hainbat xehetasun ematen zituzten, baldintza egokiak eta faktore eragileak zerrendatuaz (id.: 177-178). Euskaldunberriak ere bertsolari izan daitezkeela azpimarratu zuten: “Euskaldunberriak bertsolari izan ote daitezke? Geure erantzuna galdera batez emango dugu: Eta zergatik ez? Izatez, gure taldean badira horrelakoak eta modu normalean segitzen dute ikasketa-prozesua.” (id.: 178). Emakumeen parte hartzea ere nabarmentzen zuten, eta, batez ere, eskolan aritukoaren artean inork ez zela bertsolari ‘jaioa’: (...) taldekoak euskaldun alfabetatuak izan gara. Hasieran neskak eta mutilak kopuru berdintsuan (...) adinari dagokionez, 18-50 urte-tartean (...) Eta garrantzikoena: hasieran ideiarik ere ez bertsoei buruz” (Santutxuko bertso-eskola, 1981: 167). Azkenik, bertsolaritzak eta bertsogintzak ikastolen eskaintzan kontutan hartu beharreko materia izan beharko luketela seinalatzeko: “Bestalde, ikasketa-prozesua esan den bezalakoa bada, zergatik ez eraman ikastolara?” (id.: 179).

Bertso-munduak urte haietan bizi izandako erronka eta emandako erantzuna modu sintetiko batean azaltzen duelako hautatu da testu hau, baina aipatu behar da bertso-eskolen historia ez Santutxukoarekin hasten. Historia horren ingurukoak hurrengo atalean azalduko dira xeheago. Puntu honetan bertso-eskolen sorrerak ikastolen mugimenduaren loraldiarekin lotura izan behar duela iradoki nahi da, ez besterik.

Gerra aurreko Euzko Pizkundearen zikloari eskainiriko atalean ikusi ahal izan dira bertso-eskolaren ideiarekin lehen zantzu batzuk. Aitzolek 1930ean eta Lauaxetak 1931n *Euzkadin* argitaratutako testuetan bertsolari gazteak trebatu beharra aipatzen da. Pierre Lafittek ‘Koblakarien legea’ liburuxka argitaratuko du *Gure Herria* aldizkarian 1935ean, bertsolaritzaren teknikaz hainbat azalpen ematen dituen lana eta urte berean Beñat Harrigaitzek *Euzkadin* bertsolaritzaren irakaskuntzarako ikasmaterial gisa iruzkintzen duena⁵¹². Lehen ikastolen sorreraren ondotik ematen da hau, 1910eko hamarraldian hasi eta 1930eko hamarraldiaren lehen erdian ematen baita euskara hutsezko eskola sarearen zabalkundea (Donostian 1914ean, Tolosan 1921ean, Errenterian 1928an, Sorraluzen, Bergaran, Iruñean eta Lizarran 1932an, Gasteizen 1933an...) ⁵¹³. Kontatu da baita aurreko olatu erromantiko-tradizionalistak eraikiriko iruditeria bukoliko-esentzializatu mantendu arren, gerra aurreko olatu honek ikuspegi zientifikoa eta praktika modernoak ekarri zituela kulturgintzara eta Azkue edo Gregorio Mujika bezalako figurek euskara kaletartu beharra azpimarratu zutela⁵¹⁴. Atal horrek, beraz, euskararentzat mundu modernorako transmisiorako bitarteko gisa eman zen ikastolen sorrera eta bertsogintzaren ikasketarako lehen pausuen arteko lotura marrazten du.

Lehen pausu horiek Euzko Pizkundeko zikloko bertso-munduaren proiektu soziokulturalaren berrikuntza gisa txertatu baziren, ardatz hau desagertu egingo da Frankismo Garaiko proiektutik⁵¹⁵. Frankismo bete-betean, 1959an, gerora etorriko den bertso-eskolen zabalkundearen lehen aurrekaritzat har daitekeen esperientzia bat gauzatuko da: Garrikoko

⁵¹² Ik. 5.6.5 Berrikuntza: bertso-eskolaren eta elkartearen ideien lehen zantzuak

⁵¹³ Ik. 5.1.2 Euskarazko kazetaritzaren eta irakaskuntzaren sustapena

⁵¹⁴ Ik. 5.1.3 Tradizioa bersustraituz

⁵¹⁵ Ik. 6.6 PROIEKTUA: BERRESKURATU, GORDE ETA HAUSPOTZEN

bertso-eskola. Bertsolari helduek elkarrekin praktikatzeko eraturiko bilgunea izan zen, ordea, irakasle/ikasle eskema eta pedagogia jakinik jarraitzen ez zuena (Amuriza, 2006: 447-451). Ziklo honen oinarrian eta gailurrean ez da gisako beste esperientziarik emango, eta proiektua garatuko duen belaunaldia izango da gerora bertso-eskolekiko zalantza gehien agertuko duena *Jaio vs. Egin* eztabaidetan.

Ziklo berean, aurretik etxe eskola gisa funtzionatu zuten esperientziak eman ziren arren, 1960ko hamarraldian sortu ziren ikastolak, eta 1970eko hamarraldian emango zen fenomenoaren hazkunde handiena (Fernandez, 1994: 128-140). Alegia, zikloaren hausturan eman zen ikastolen mugimenduaren loraldia. Loraldi horren baitan, 1974an, sortu zen lehen bertso-eskolatzat hartzen dena (Barandiaran, 2011: 41), eta ikastola baten abaroan egin zuen:

“Hasiera Eskoriatzako Almen ikastolak emango dio. Larunbatetan ez zen eskolarik izaten, eta irakasleek egun horretan hainbat ekintza prestatzea nahi al zuten esan zieten gurasoei, eskulanak, pelota, mendi ibilerak... eta aitzakia horrekin bildu ziren (...) hiru eragile zorrotz eta berezi: Patxi Goikolea, Xanti Iparragirre eta Joanito Akixu. Bertsolaritza erakusten hasi ziren, artean inon bertso eskolarik existitzen ez zen garaian (...)” (Aristi, 1998: 2)

Jada aipatu den erronkari erantzun nahi zioten hiru lagunek: “Urte haietan egoera benetan larria zen. Leintz bailara ez da Urola han bertsozaleak benetan umezurtz zeuden. Ez zen bertsolari entzutetsurik (...) Eta euskararen egoera atzeraka lasterrean” (Aristi, 1998: 1-2). Ikastolako irakasleen bidez zabaldu zen deia, Akixu juntako kide baitzen, eta 125 umeak eman zuten izena. Lehen urtean doinuak ikasteari ekin zioten, eta bigarrean zortzi-hamar bizkorrenekin aparte batean bertsoaren teknikak lantzeari. Goikoleak kontatzen duenez, hasieran ez zuten garbi bertsozaleak irakats zitekeenik ere, baina beharrak eta ilusioak bultzata aurrera egin zuten: “Geuk ere bertsolariak berezkoa behar zuela uste genuen garai hartan (...) hitz egin genuen bertsozaletasuna nola sor zitekeen bailara honetan. Ez genuen burdina bakarrik jan behar, bertsozaletasuna sortu nahi genuen” (Aristi, 1998: 34). Laugarren ikasturterako plazak egiten hasi ziren umeak, irakasleek prestatu eta buruz ikasitako bertsoak abestuz, eta arrakasta izan zuen formulak: “[Goikolearen hitzak dira] Herri askotara joan ginen, Berriatua, Errearteria, Mendexa, izugarritzko efektua egiten zuen jendearengan umeak bertsoan ikusteak” (Aristi, 1998: 35). Ikastolen Federaziora jotzea izan zen hurrengo pausoa:

“[Goikolearen hitzak] Guk ikusi genuenean bertsolariak bazetozela, eta hori Almenen erraz egin genuela, pentsatu genuen, guk hau egin badugu, zergatik ez beste herri batzuetarako ikastoletara pasa? Abel Muniategirekin Ikastolen Federaziora joan ginen (...) Handik hilabetera beraiek deitu ziguten, ea joango al ginen, eta Laxaro Azkune eta Joanito Dorronsoro han ziren. Nonbait bilatu zituzten bertsozaleak, Amuriza kartzelatik irten berria, taldetxo bat zegoen, eta orduan bai, gogoarekin zeuden (...) bilerak egin behar zirela, oinarriak jarri (...)” (Aristi, 1998: 36-37)

1980ko hamarraldi hasieran ziztu batean zabalduko zen fenomenoak, ikastoletan nahiz ikastoletatik kanpo: “Irakaskuntza arautuan egindako lanaren ondorioz, eta Almeneko bertso eskolaren arrakasta ikusirik, Gipuzkoan berehala sortu ziren bertso eskolak hainbat herri garrantzitsutan: Hernani, Zarautz, Zumaia, Oiartzun...” (Barandiaran, 2011: 177).

Beste abiapuntu batzuk ere izan zituzten bertso-eskolek. Santutxukoa, esaterako, helduen euskalduntze eta alfabetatze mundutik sortu zen, edo Mallabiakoa bertako gazte mugimenduak antolatu zuen 1975ean, Abel Muniategiren ikastaro labur bati jarraipena emanaz (Amuriza, 2016: 454-455). Baina lehen bertso-eskola ikastolaren eskolaz-kanpoko iharduera bezala antolatu zela azpimarratu behar da, eta lehen zabalkunde sistematikoa

ikastolen sarearen bidez eman zela. Bestalde, ikastolen mugimenduan parte harturiko guraso, irakasle eta abarrek barneraturiko eskema funtsezkoa bihurtu zen bertsolaritza berezkotasunarekin hausten zuen premisa, bertsolaritza irakats zitekeela eta iraungo bazuen irakatsi beharra zegoela, zabaltzeko. Honela laburbiltzen du Almengo esperimentu hartatik irten zen bertsolari batek:

“Almen ikastola izan zen hemengo bertso-eskola sortzen lehenengoetako bat. Ez ziren oso intelektual jantziak, fabrikako langileak ziren, baina ikusi zuten ikastolak sortu zirela eta horiek zirela herriaren etorkizuna. Bertsozaleak izanik ildo beretik eman nahi izan zuten hurrengo pausua: ‘Ikastolarekin egin dena guk egin behar dugu bertsoarekin eta gainera ikastolaren olatua aprobetxatuz.’” (J. Sarasua, elkarrizketa pertsonala, 2017/X/06).

Ordura arte baserri eremu euskaldunenean bakarrik sor zitekeen bertsolaria, eta txapela buruan jarrita egin behar zuen kantuan. Euskal txapelarekin batera desagertzeaz zen espezia zen finean. Bertso-eskolak, ordea, bestelako jendea integratu zuen, eta bertsolariaren profila izugarri zabaldu zen, bertsolaria baserriko bezain kaletar, gizonezko bezain emakumezko, euskaldunzahar bezain euskaldunberri izan zitekeelarik: “Bertso-eskolak, beste gauza askoren artean, bertsolaritza desmitifikazio bat ekarri du. Diskurtso zahar dominantea pikutara bota du. Bertsolaritza bada dohaina, bada sena, bada berezkoa, baina teknika ere bai, literatur fenomeno ere bai, gizarte-gertakaria ere bai” (Torrealдай, 1987: 154).

Ikasteko prest dagoenak bertsolaria izatera iristeko aukera irekitzen denetik, bertsolaritza edozein jendartera egokitzeko aukera izango du.

7.3.2 Bigarren Pizkundearen haritik II: Euskal kulturgintza ildotik bertsolaritza gizarte mugimendua

1986an, bertso-eskolak abiarazi berritan, eta ordura arte Euskaltzaindiaren eskuetan egon zen txapelketa nagusiaren antolaketaren kontrola hartzeko, bertsolariak elkarrekin bat sortu zuten.

Bertso-eskolen sorrerak bertsolaritza transmisioan funtsezko aldaketa kualitatiboa ekarri bazuen, Elkartearen sorrerak beste hainbeste suposatuko du eragilezari dagokionean.

Ordura arte, XVIII. mendeko desafioak baztertu zirenetik, kanpotik antolatu izan ziren bertsolarien arteko norgehiagoka moderno guztiak: Lore Jokoak Abbadiek antolatu zituen hasiera batean eta gerora euskal erakundeak eta euskal intelligentsia foralistaren figura ezberdinak (Campion eta Manterola, esaterako) gehitu zitzaizkion; gerra aurreko Euzko Pizkundean *intelligentsia* jeltzaleak (Aitzol, Zubimendi, Hernandorena...) zuzenduriko Euskaltzaleak eta Euzko Gaztedik; Frankismo Garaian hasieran Iparraldean Hernandorenak eta Hegoaldean Basarrik, uneren batean garaiko hedabideen (*Herria* edo *La Voz de España*) laguntzarekin, eta ondoren Euskaltzaindiak; eta 1980ko hamarraldiko lehen biak Euskaltzaindiak. Norgehiagoken antolaketan ez ezik bertsolaritza epaitzen, iruzkintzen, gogoetatzen arituko direnak, ez dira bertsolariak izango, Basarriren salbuespen bakarrarekin. ‘Hartzaren besarkada’ deituko dio Fredi Paiak: “Helburua koplariak euren mezu politikoa indartzea zen, eurek euskal landarearen zaindaria bihurtzen ziren bitartean. Hartzaren besarkada izan zen, 1986a arte ez zen formalki apurtuko” (Paia, 2011: 104).

Eragilez nagusiki kanpoko izan zen bitartean kanpoko begiradak presentzia garrantzitsu bat izan zuen, eta honek bertsolariaren izaera subalternoa eta irudikapen esentzializatua, subalternoaren orientalizioa, erraztuko zituen. 1980ko hamarkada hasieran Amurizak txapeldun atera eta aurrerago xehatuko den barruko begirada berri bat ekarriko du,

bertsolaritzaren irakaskuntza erraztuaz eta antolaketa autoeratuaren oinarri gisa funtzionatuko duten gogoetak plazaratuaz.

Elkartearen sorrerarekin bertsoaritzaz gizarte mugimendu gisa eratu zela dio Harkaitz Zubirik: “Masa kulturaren garaian bertsoaritzak nola jokatu behar duen galdetu dio (...) bere buruari (...). Gizarte mugimendu bihurtzea da itaun horren erantzuna” (2016, 22). Izan ere, 1986ko txapelketa antolatzeaz haratago ekosistema aurremodernoren galerak zekarren deserrotzearen erronkari erantzuteko kultur proiektu zabal bat altxako du Elkarteak:

“XX. mendean zehar saiakera apalagoren bat izan zen arren, 1980ko hamarkadan gorpuzten den ekimenak erantzuten dio modu eraginkorrean garai historikoari, alde handiz gainera. Gizarte mugimendu sortu berriak transmisiorako guneak eraikitzen ditu, boluntarioen lana artikulatzeko kultur elkarte bat sortzen du, mobilizazio publiko handiak sustatzen ditu txapelketen bidez, bere burua definitzeko diskurtso berritzaileak plazaratzen hasten da, Amuriza bide urratzaile, eta laster hasiko da estrategia mediatiko garaikidea gauzatzeko. Antolatutako ekimena da iraupenaren eta ondorengo hedapenaren gakoa, garai historikoaren inertiak beste norabide batera bultzatzen zuenean.” (Zubiri, 2016: 23)

Zubiriren arabera gorpuzkera hori pixkanaka hartu du bertso-munduak. Elkarteak sortu aurretik ere bazituen gizarte mugimenduaren trazak, eta sortutakoan ere garapen prozesu bat emango da: “Ez zen izan aktore kolektibo bakarrak une jakin batean hartu zuen erabaki bat. Bertsozale Elkartearen pisu erlatiboa oso handia den arren, BMGaren⁵¹⁶ eraikuntza progresiboki gertatzen da (...)” (Zubiri, 2016: 16). Eta kontzeptua berak ere bide bat egina zuen Zubirik jaso aurretik. Honela, 2000. hamarkada hasieran mugimenduaz ziharduen Jon Sarasuak: “(...) tesi nagusia da... bertsoaritzaz bultzatzen ari den mugimenduak –nik uste dut mugimendu hitza orain arte gutxi erabili dugula baina erabili litekeela (...)” (Esnal, Egaña eta Sarasua, 2002: 812). Edota 2010eko hamarkadaren hasieran Zubiriren planteamenduan funtsezkoa den kultur ekosistemaren kontzeptua zekarren: “(...) bertsoaren inguruko ekosistema sortu eta zaindu du mugimenduak (...) Ekosistema horretan, artea ez da bertsoak egitea bakarrik izan (...) artea izan da bidea bera asmatzea, elementu konplexuen samalda bat abiarazi eta kudeatzea (...)” (Sarasua, 2013: 286).

Bertso-munduak bere azken zikloan gauzaturiko metamorfosia, praktika eta gogoeta kolektibo partekatuen emaitza da, guzti honen formulazioa Sarasuaren lanetan jasotzen bada ere. Zubirik egin duena formulazio hori gizarte mugimenduen teorizazioaren argitara tolestea izan da: “Bertsoaritzaz gizarte mugimendu gisa esplizituki kontzeptualizatzen den lehenengo aldia da (...) Marko hori aukera baliotsu gisa irudikatzen dut bertsoaritzaz praktika bezala irudikatzeke. Mende aldaketa eman zenetik ez zen horrelakorik gertatzen (...)” (Hernandez, 2019: 41). Eta bertsolariak eroso agertu dira soziologoak (Xabier Aierdi kidearekin batera) eta buruturiko planteamenduarekin:

“[Maialen Lujanbiorenak dira hitzak] Definizio horrek oso eroso sentiarazi ninduen, hala zen zerbait izena jarri baliote bezala. Bertsoaritzaz zaila baita definitzen: euskalgintzan dago, baita kulturagintzan ere, eta, era berean, herrigintzan. Eta horren hurrengo deitura gizarte mugimenduarena litzateke. Ze ikerketaren definizio teorikoak dio mugimendu eraldatzailea dela gizarte mugimendua, eta bertsoaritzaz badu eragin hori. Horren parte sentitzen naiz ni, gintza horri lotuta beste ardura batzuk ditudalako eta beste zerbaitetan ere ari garelako gure edukiekin, jokatzeko moduekin, funtzionatzeko erarekin,

⁵¹⁶ Zubirik BMG laburdura darabil Bertsoaritzaren Gizarte Mugimendua izendatzeko.

jardun ekonomikoarekin... Zentzu horretan gizarte mugimenduaren ideiarekin nahiko identifikatuta sentitzen naiz.” (Rubio, 2019: 61)

Bere sorreratik hurrengo hamarkadarako estrategia finkatzen duen gogoeta prozesu zabal bat burutu izan du bertso-munduak hamarkada bakoitzean, eta oinarri gisa ikerketa soziologiko bat erabili izan du. Azken bietan (2007an ezagutarazi ziren lehenengoaren emaitzak eta 2018an bigarrenarenak) hartu dute parte Aierdi eta Zubirik, eta azkenengoaren harira erkatu ditu donostiarrak gizarte mugimenduen inguruko teorizazioa eta bertso-munduaren praktika:

“Arraroa egingo zaio baten bati bertsolaritza gizarte mugimendu bat dela esatea, baina, egia esan, erraz defini daiteke hala: egiturazko arazo historiko bati erantzuteko antolatzen da, munduari begiratzeko eta funtzionatzeko ikuspegi bat eraikitzen du, aukera-leihoak aprobetxatzen ditu, gainerako agenteekin interakzioan sartzen da, jendea mobilizatzeko baliabideak martxan jartzen ditu, jende asko mobilizatzen du, eta, batez ere, bere egoeraren jabe egiteko eta bere existentziaren baldintzetan eragiteko antolatzen da. Agente bihurtzen da eta bere egoera eraldatzeko gai da.” (Zubiri, 2018: 26)

Hedabideekin harremanetan jar daitekeenari dagokionean bertsolaritzaren *l’action exemplairea* bertso-saioa eta batez ere txapelketa direla dio:

“(…) bertso-saioa da BGMren action exemplaire (...) estrategia informazional bat sortu zuen BGMk bere mobilizazio dinamika sustatzeko. Bi zutabe dauzka: bertso-saioen antolaketa eta politika mediatikoa (...) Nabarmentzeko modukoa da txapelketek izan duten garrantzia. Txapelketa baten antolaketari buruzko eztabaidaren testuinguruan jaio zen Bertsozale Elkarteak, esate baterako. Txapelketak hedapenerako tresna bezala erabili dira, modu gero eta informazionalago batean: BGMren baliabideak mobilizatzen dira txapelketa antolatzeko eta horren bitartez mobilizazio publiko masiboak eragiteko, baina estrategia horren eraginkortasuna areagotzeko politika mediatikoa lantzen da (...)” (Zubiri, 2016: 26-27)

Framinga ere aipatzen du, azken hamarkadetan bertsolaritzaren irudikapen berri bat ahalbidetu duen framing berri baten eraketan eragin duten hainbat ekarpen seinalatuz:

“BGMk bere burua kultur proiektu autonomo bezala definitzen duenean, framing orokorraren zutabeak ezartzen ditu. Bertsogintza ez dela literatura esaten denean, erretorikatik gehiago duela baieztatzen denean (Garzia, 2000), ekoizpen artistikoaren *framinga* egiten da (...) Hori dela eta, *framing* bezala uler dezakegu Joxerra Garzia, Jon Sarasua eta Andoni Egañaren ekarpen teorikoa (...) baita bidelagun izan zuten John Miles Foley-rena (...) Azken urteetan, halaber, generoa ardatz dutela egin dituzten hainbat ekarpen ere framingaren baitan koka ditzakegu (...) *Framinga* ez da soilik argitalpenen eremuan gertatzen. BGMk kanpora begira egiten duen *framingean* rol erabakiorra jokatzen dute mobilizazio jendetsuek (...), estrategia informazionalak, eta transmisio-partaidetza guneek (...). Halaber, BGMk lekuekiko politikan izan duen bilakaera ere erakusten du *framingean* izan den aldaketa: esate baterako, Txapelketa Nagusiko finalak Donostiako Belodromoan egitetik Barakaldoko Bilbao Exhibition Center-en egitera pasa ziren.” (Zubiri, 2016: 29)

Esku artean dugun ikerketa honek eskain dezakeena bertsolaritzaren egokitzapen eta bersustraitze prozesuaren perspektiba historiko luzeago bat da. Honela, ikusi ahal izan denez, lehen hiru zikloetako eragileek Lehen Modernitateak planteaturiko arazoei erantzuten zieten nagusiki. 1980tik aurrera irekiko den zikloan, aldiz, Beranduko Modernitateak

planteaturikoei ere erantzun beharrean aurkitu dira, eta garatu den proiektua aurrekoen jarraidura ere baden arren, jauzi kualitatibo bat eman da, berritasunaren muinean gizarte mugimendu bihurtu izana eta *frame* berriaren eraikuntza aurkitzen direlarik.

Perspektiba historiko horretatik, aurreko azpipuntuan ikusi den bezala, *framing* berriaren atea ireki duen giltza bertso-eskoletako praktika izan dela azpimarratu daiteke. Praktika horrek askatu zuen Lehen Modernitateari erantzunaz eraikiriko bertsolaritzaren irudikapen esentzializatuaren inertzia historikoak eragindako Jaio vs. Egin korapiloa. Praktika horrek testuinguru zabalagoan gertaturikoari, Bigarren Euskal Pizkundean loraturiko ikastolen mugimendua ernatu zuen jarrera eraldatzaileari erantzuten diola ere gaineratu daiteke:

“(...) euskara gizarte industrializatu eta urbanorako komunikazio- tresna egokia izan zedin (...) beharrezkotzat jo zen, besteak beste, euskara eskola hizkuntza bilakatzea. Aro Modernoan hizkuntza gutxituaren iraupen baldintza izanik, heziketa formalaren esparrua —alegia, historian zehar ukatu zitzaion sozializazio gune garrantzitsua— bereganatu beharra zeukan euskarak (...)” (Larrinaga, 2007b: 158)

Bistakoa dirudi, era berean, 1980ko hamarkadan bertso-mundua gizarte mugimendu gisa funtzionatzen hasi bazen, horrek zerikusiren bat izan behar duela 1960ko hamarraldian euskal kulturgintzak bide hori hartu izanarekin. Lotura konkretua ikusteko Elkartearen sorrerara jo behar da eta hainbatek Koldo Tapiari sorrera horretan aitortzen dioten paper garrantzitsura. Honela dio Alberto Barandiaranek Bertsozale Elkartearen historia egiten duen liburuan:

“Ikuspegi, intuizio, sen edo dena delakoa Bilbotik ekarri zuen Koldo Tapiak. Garai hartan Barakaldon ari zen lanean, eta harreman handia zuen Joxerra Etxebarria eta Iñaki Antiguiedad eta Santutxuko Bertso Eskolaren inguruan ibilitakoekin. Han, Santutxun, berehala ikusi zuten bertso eskolak euskal kulturaren sakontzeko tresna interesgarriak eta autonomoak zirela, eta hangoekin harremanetan, Tapiak ideia garbi batzuk eraman zituen bileretara. Oinarri ideologiko hori oso garrantzitsua izan zen Elkartearen sorreran, eta hasierako eztabaida eta elkarrizketak oso interesgarriak izan zirela gogoratzen dute denek.” (Barandiaran, 2011: 35)

Guzti hura lehen lerrotik bizi izan zuen Andoni Egañak, ziklo berriaren gailurrean Euskal Herriko txapela lau aldiz jarraian irabazita proiektuaren garapenean funtsezko figura bat izango zenak, berresten ditu hauek guztiak: “Suertea izan genuen Jon Sarasua Leioan hasia zela ikasten, Koldo Tapia Barakaldon zegoela, eta Juanjo Basterra ere han zebilela. Bilboko talde horren bueltan joan zen sortzen elkarte baten ideia, eta, batez ere, Elkarteak behar zuen norabidearen zantzua” (Barandiaran, 2011: 36). Eta Koldo Tapia berak esplizitatzen du gizarte mugimenduekiko lotura:

“Nik urte mordo egin nuen herri gaztedian, sindikalgintzan eta politikan ere bai, eta gizarte mugimenduetan. Barakaldon bizi nintzen orduan, euskararen mugimenduan sartuta nintzen, eta Santurtziko Udalean kultur eragile ari nintzen itzultzaile lanetan (...) nik planteatu nuen hemen elkarte bat sortu behar zela, eta elkarte hori gizarte mugimenduaren barruan kokatu behar genuela. Nik oso argi izan nuen, hasieratik, mugimendu hark guztiak egin beharreko bidea gizarte mugimenduen eta kulturgintzaren helburuetara lotu behar zela (...) (Barandiaran, 2011, 36).

Tapiak, bestalde, Jon Sarasua eta Imanol Lazkanoren ekarpenak ere azpimarratzen ditu:

“(…) Jon Sarasua azpimarratuko nuke. Gaztetxea zen, baina azkarra ere bai, eta esan behar dut harekin Bilbotik Zarautzera eta Zarautzik Bilbora autoan egin genituen joan-etorrietan eraiki genuela gure diskurtso osoa, hor asko lotu genuela egin beharreko bidea. Imanol Lazkano, berriz, aitaponteko gisako bat izan zen, guztiei babesa ematen ziena.” (Barandiaran, 2011: 36)

Sarasuak gerora Tapiari eskainiko zion bere lanik potoloenaren, ‘Hiztunpolis’, euskalgintza eta euskal kulturgintzaren proiektu orokorren gogoetatzeari emaniko liburua. Honela gogoratzen du bertsolariak Bertsozale Elkartearen sorrera: “Anarkistak, kooperatibistak, militante eskarmentatuak eta enpresa-estrategiak elkartu balira bezalako zerbait gertatu zen, ordea, laurogeiko bigarren erdian bertso munduan (nahiz eta tipologia horietatik ia bat ere inork ez bete, gehienak bertsolari eta bertsozale aski xaloak baikinena hasiera hartan)” (Sarasua, 2013: 284). Eta gogoeta polita eskaintzen du Euskal Herrian autoeraketak duen indarraren inguruan:

“Zergatik dago Euskal Herrian autoeraketaren dentsitate aipagarria, eta bereziki gune neuralgikoetan (industria, hezkuntza) (...)? (...) Autoeraketak talde-zentzu edo komunitate-sen bat behar du eta aldi berean autonomia jarrera bat, botere bertikalarekiko deslotura moduko bat (...) badira ikuspegiak diotenak euskal komunitatearen erro zaharrenean, neolitoko sustraietan, mitologian eta material kulturalean ageri direla elementu komunitarioak, eta gaur egungo gure gizarte psikologian ere horiek nolabait presente daudela (...) Edota hor daude baserri-kulturako ondasunekiko harremanari buruzko azterketak (...) Aipa litezke eragin berriagoak edo gertukoagoak ere (...) Frankismoko erreakzioak berak ere hainbat gauza azaltzeko balio dezake (...) Iduri duena da gure herriari badariola, ateratzen zaiola, nolabait, autoeraketarako joera (...) Aspaldiko sustraiengatik, beranduagoengatik edo duela gutxikoengatik. Edo denengatik.” (Sarasua, 2013: 165)

Aro Modernoari dagokionean behintzat, jaio baino egin egiten garela onartzen dugunez, komunitatearen subalternitatean aurki daitezke pista batzuk.

7.3.3 Masa kulturaren murgiltzeko apustua: bertso-mundua komunikazioaren garrantziaz

Gizarte mugimenduak gatazka testuinguru jakin batean sortu ohi dira, helburu jakinekin eta helburu horiek arriskutan jartzen dituzten inguruabar batzuk ematen direlako:

“Masa kulturaren garaian bertsolaritzak nola jokatu behar duen galdetu dio BGMk bere buruari (...) Gizarte mugimendu bihurtzea da itaun horren erantzuna. Baina hausnarketa horrek garbi iradokitzen du zer gatazka testuingurutan kokatzen duen BGMk bertsolaritza: erdal kultura eta kultura merkantilizatua du arerio, hots, kultur ondarea suntsitzen duen fenomeno bati aurre egiten ari zaio BGM, horixe baita bertsolaritzaren geroratzearen alde lan egitea BGMrentzat, beste kultura eredu horrekiko lehian sartzea, kultur hegemoniaren espazioa okupatu ez dezan.” (Zubiri, 2016: 17)

Bertsolaritzaren biziraupena da, bada, bertsolaritzaren gizarte mugimenduaren helburu konkretua, eta masa kulturaren testuingurua helburu horrentzat mehatxu gisa ikusten du, masa kulturak definizioz kultur adierazpen indartsuak hedatzen baititu, ahulagoak desagertaraziz. Honela adierazten du Sarasuak Garziak egindako elkarrizketan:

“(…) gaur egungo paradigma nagusia autopista bakar, zabal eta norabide bakarrekoa duk. Garai batean egon hituan beste autobideak, baina momentu

honetan bakarra geratu duk (...) Mexikorako idatzi nian behin ‘pero en esta autopista de muchos carriles, única dirección y ningún sentido, no dejemos de salir a caminar nuestros propios senderos’. (...) Aukera desberdin askoren ilusionismoa sortzen dik: karril asko eta kolore guztietako autoak. Baina bakarra du, eta hortik zebiltzak gure intelektualik gehienak (...) Bidexken aniztasuna martxan zegok, baina bazterretan. Ekologian bezala, aniztasuna bera duk erantzunaren erdia.” (Garzia, 1998: 42)

Norbere kultura gutxituaren aldeko borroka, aniztasunaren, kultur ekologiaren aldeko borroka ere bada, beraz, ikuspegi orokorrago batetik begiratuta:

“BGMren *framingean* esplizituki aipatzen da ekologiaren diskurtsoa (Garzia, 2007a; Sarasua, 2013), hau da, ardatz behinena ondarea zaintzea eta biziberritzea dela, existitzen den aniztasunaren alde egitea alegia, eta horretarako baldintza sozial aproposak sortu behar direla, kasu honetan bertsolaritza behar bezain beste hedatu dadin.” (Zubiri, 2016: 17)

Masa kultura arerio baino testuingurua dela kontutan harturik, mehatxu gisa ez ezik, aukera gisa ere ikusi behar izan du bertso munduak, bere helburua erdiesteko:

“Informazioaren Gizartea omen da gure egungo gizartea, eta gizarte horretan hainbat mehatxu eta aukera ditu bertsolaritzak (...) Bertsolaritzak, biziko bada, egokitu beharra dauka garai berrietara hedabide berrietan sartuz, globalizazioaren joko-arauak baliatuz. Egokitzapen hori nola egiten den, hortxe dago koska. Kosta ahala kosta egiten bada, egokitu nahi denaren funtsa galtzeko arriskua dago. Hori da mehatxua. Baina aukera ere hortxe du bertsolaritzak: egokitzapena taxuz egiten bada, irabazitan aterako da bertsolaritza, eta baita gizartea bera ere. Oreka zaila da, baina baita erakargarria ere: tokian tokikoa, geurea ez besterena den ondarea da zinez unibertsalak izateko dugun bide bakarra.” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 28)

Mehatxuez kontziente izatea da, bada, formularen lehen aldagaia, aukerez kontziente izatea bigarrena, eta arriskatzeko prest egotea hirugarrena. Egañak azaltzen du modu adierazkorrean azken alderdi hau:

“Bertsogintzak berezkoa du arriskua. Bat-bateko lanean estropezuaren arriskurik ez balego ni ez nintzateke ez bertsolari eta ez bertsozale. Pistolarik ez, baina arriskuak hartzera behartu izan dugu gure burua bertsolaritzari dagokionez ere. Ez geneukan beste biderik. Ez genuen nahi bertsolaritza ongi zaindua baina ertzekotua. Ez genuen fosil disdizaririk edo gorpu zurbil makillaturik nahi. ‘Lehen bezalaxe dago. Ez da batere aldatu. Ia-ia bizirik dagoela ematen du’. Hildakoagatik esaten dira horrelakoak hil-kutxaren jiran. Bertsolaritza bizi zedin, bizigintzan, behar zena maxiatzeko prest geunden, arriskuak arrisku.” (Egaña, 2004: 159)

Arriskuak hartzea eta aldi berean tentuz egin beharraren ariketa honetan, Sarasuak bertsolaritzak masa kulturarekin partekatzen ez zituen eta ondorioz arriskuan egon zitezkeen ezaugarriak seinlatu zituen, bertsolaritza 1990eko hamarraldian masa kulturarekin hibridatzen hasi zenean. Izatez, Garzia eta Egañarekin batera buruturiko teorizazioan bertsolaritzaren ezaugarri soziokulturalena izan zen atxalbadarrak bere egin zuen alorra, eta hainbat testutan garatu zuen: Sarasua, 1995; Garzia, 1998; Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001; Esnal, Egaña eta Sarasua, 2002; Sarasua, 2003; Sarasua, 2007; eta Sarasua, 2013. Berriena jaso da hemen, aldi berean sintetikoena ere badelako:

“Bertsolaritzak baditu ezaugarri batzuk, muinekoak, exzentrikoak direnak masa kulturarekiko. Hasteko, serieko erreproduzioaren bidez funtzionatzen ez duen adierazpide bakarretakoa da. Sorkuntzaren momentua eta adierazpenaren momentua bat ditu. Une eta gune bakar eta errepikaezinetan gauzatzen da. Unegune iheskorren jarduna da. Horrek bere izaera osoa baldintzatzen du. Feed-back edo berrelikadura zentralagoa du beste inon baino, eta sorkuntzaren unean bertan gertatzen da hori ere neurri batean.

Bestetik baditu beste ezaugarri batzuk, aurreko muinari lotuak: artistaren eskuragarritasun sozial eta ekonomikoa, izaera partehartzailea, kalekoa, ez-diferitua, taldekoa eta beste hainbat. (Sarasua, 2013: 298)⁵¹⁷

Gaia lehen aldiz plazaratu zuenean, 1995ean *Bertsolari* aldizkarian argitaratu zen Bertsolamintza jardunaldietako testuan, arrisku hipotetikoez baino praktika arriskutsuez ari zela ikus daiteke: “Kultur bide dominanteetan sartzeak bertsolaritzaren ezaugarri garrantzizko batzuk distorsionatzeko arriskua dakar. Zuzenekotasuna, pieza orijinaletan oinarritzea, espazio fisiko publikoa, harreman soziala bultzatzen duen gunea... ez dira betetzen bertsolaritzaren zenbait erabileratan.” (Sarasua, 1995: 45). Bistakoa denez, artearen berezko ezaugarri horiek betetzen ez zituen ‘bertsolaritzaren zenbait erabilera’ aipatzen zuenean, telebista bidez eskaintzen zen bertsolaritzari egiten zion erreferentzia.

Bertsolaritzaren gizarte mugimenduarentzat, ikusi denez gizarte mugimendu berri guztietan gertatzen den bezala, komunikazioa izango da bere helburuak lortzeko bitartekorik behinena. Ikusi denez, baita, bere action exemplairea ere edukiko du, gizarte mugimenduen alorrean ohikoa ez den izaera bat izango duen arren:

“BGMk ez du jarraitzen gizarte mugimenduetan ohikoa den mobilizazio publikoaren eredua. Ez dago protesta bilkura estandarrik. BGMren bereizgarri nagusia arte bat ardatz izatea denez, beharbada ez da harrizkoa arte horren adierazpen behinena izatea mobilizazioa gorpuzteko modua. Izan ere, bertso-saioa da BGMren *action exemplaire*. Aurretik existitzen ez zen estrategia informazional bat sortu zuen BGMk bere mobilizazio dinamika sustatzeko. Bi zutabe dauzka: bertso-saioen antolaketa eta politika mediatikoa.” (Zubiri, 2016: 26)

Bertso-saioa eta txapelketa, ordea, bere historia modernoaren sorreratik ezagutzen zituen bertsolaritzak. Eta politika mediatiko izatera iritsi gabe ere aurreko hiru zikloetan ere eman zen bertsolaritza hedabideratzeko ahalegina. Egia da hurrengo zikloan bi zutabe hauek muturreraino garatuko dituela, eta hainbat zalantza eragingo dituela apustu honek. Eta ezagunak dira, 1980ko hamarraldiaren amaieran Zulaikak planteaturiko jokoa eta jolasaren arteko dilemarekin hasita (masa kulturaren barneratzeak izan zituen arriskuen lehen ohartarazpena izan zen hau) txapelketak piztu dituen eztabaidak. Eztabaida hauen harira, honela zioen, esaterako, Sarasuak Bertsolamintza hartako testuan: “Ikuskizunaren sofistikazio mailan aukera desberdinak ditu bertsolaritzak (...) Goi mailako ikuskizun eredu bat garatzera joan, ala herritik eskurago dagoen jardunean mantendu, elementuak (ekonomikoak, teknikoak, bitartekoak...) gehiegi formalizatu eta sofistikatu gabe.” (Sarasua, 1995: 45). Apustu berria, mugimenduaren buru zebiltzanak gehien kezkatu zituena eta masa kulturarekin benetako hibridazioa zekarrena, bertsoa telebistaratzearena izan zen, ordea:

⁵¹⁷ Honi kontrajarrita masa kulturak serieko erreproduzioaren bidez funtzionatzen du, kontsumoa gehiagotan ematen da modu indibidualizatu batean kolektiboan baino, normalean harrera eta sorkuntza ez dira une berean ematen eta abar.

“Telebista energia nuklearra zela ohartu ginen laurogeita hamarretan. Arrakastaren aparra deskontrolatu zezakeen, bertsolarien arteko prestigio irizpideak bere erara mugitzeko arriskua zuen, muineko ezaugarri batzuk bortxatzen zituen, eta arriskuen sintomak ematen hasia zen. Ehun-berrehun mila pertsonak ikusten gintuzten igande bakar batean, urte osoan norberak plazaz plaza pasatako guztiak baino askoz gehiagok. Teleikusle horiek ikusten zutena jokaldi solte batzuk ziren, onenak, eta ez partida osoa. Ondo erabiliz gero energia handia zen bertsoaren alde, baina kontrolpean izan ezean, hamarraldietarako erasana ere bai.

Nuklearrari bai esan zitzaion” (Sarasua, 2013: 299)

Tentu izugarriarekin hartu zuten telebistaratzeko-hibridatzeko⁵¹⁸ apustua. Tentuaren tentuz telebistarekin haustera ere iritsi ziren, mugimenduaren diru-iturri nagusia bera zenean: “Oreka bilatzea, lehentasuna eta gidaritzza zein jarduera motak duen ikustea, eta osagarritasuna posible egitea dira une honetako erronkak” (Sarasua, 1995: 45). Eta berriro telebistara itzuli zirenean tentu berarekin jarraitu zuen:

“Posible ote da, ordea, indarren dauden joera eta baldintzetan funtzionatzearen eta nor izatearen arteko balantzari eustea? Non dago moldatzearen eta nortasunaren arteko oreka puntua? Sekula agortzen ez den galdera da, sustrai luzedun kultura kokkorrek behintzat etengabe erantzun beharrekoa. Moldatzearen eta nortasunaren arteko oreka puntuaren galderak badu erantzun bat bederen: jarrera sortzailea. Oreka zail hori aurkitzeko bidelaguna, norbere tradizioa maitatzeak eta gaurko errealitatera zabaltzeak bien artean sortzen duen tentsio sortzailea da. Bertsolaritzari ere senak hori esaten diola dirudi.” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 63)

Baita itzuli eta ondo gerora ere, pixkanaka alarmak leuntzen joan direla ikus badaiteke ere:

“(…) masa-kulturaren parte ere bagara (norbanako, talde zein adierazpide moduan). Gaur egungo kultur industria eta kontsumoaren ingurumarian kokatuak daude sustapen eta hedapen zereginak, eta bertso-mugimenduak bera ere parte den testuinguru horretan lantzen jarraitu beharko du eredu propioa, aukerak baliatuz eta arriskuei aurre eginez, bertsolaritzaren bereizgarriak kontuan hartuz, beti ere.” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 28)

Atal honen lehen partean euskal kulturak masa kulturaren izandako inkurtsio arrakastatsu bakanen artean bertsolaritzarena aipatu da (Amezaga, 1994: 16 eta 191; Gabilondo, 2016: 281). Gabilondok Euskal Telebistan euskal kulturak izan duen tarte arrakastatsu bakanetako bat bertsolaritzarena izan dela ere seinalatzen zuen (Gabilondo, 1999: 33-34). Eta buelta batzuk eman zaizkio arrakasta honen azalpenari.

Bertso-munduak hedabidetzeko eta bereziki telebistaratzeko egindako apustu indartsua ere kontutan hartu behar da azalpen horien artean.

Meritu handia izan zuen hartutako arriskuak. Arrisku hori hartu zuten tentuarekin hartu izana izan daiteke, ordea, mugimenduak masa kulturaren egindako murgilketa honetan meriturik handiena duena.

⁵¹⁸ Kultura popular oro hedabideratzean bihurtzen da masa kultura, eta batez ere telebistan sartu izan denean gertatu izan da hori.

8. LAUGARREN ZIKLOA: MASA KULTURA ERAKUSTALDIA GIZARTE MUGIMENDUAK. TELEBISTA, EZTANDA

Es significativo, como síntoma del prestigio que en los primeros noventa alcanzó el bertsolarismo, que el día en que se celebró el campeonato, y a escasos metros del Velódromo, en el entonces recién estrenado estadio de Anoeta, el público prorrumpió en aplausos al anunciar el marcador electrónico la victoria de Egaña. El asombro de los jugadores debió de ser mayúsculo, pues difícilmente podían entender a qué se debía semejante ovación cuando el balón circulaba rutinariamente por el centro del campo.

Joxerra Garzia, El bertsolarismo, del siglo XIX al XXI, 2000: 463.

8.1. TESTUINGURUA: ERAKUNDETZE AUTONOMIKOAK EKARRIRIKO GARAPEN ETA KORAPILO BERRIAK

8.1.1 Euskal erakundearen berreskurapena: aukera berriak euskalgintzak

Franko diktadorea 1975ean hil ondoren ziklo berri bat ireki zen Hego Euskal Herrian:

“Zalantzarik gabe, Hegoaldeko euskal gizarteak Francoren heriotzarekin ezagutu zituen aldaketa soziopolitikoek berebiziko eragina eduki dute azken hogeita hamar urteotan euskalgintzak bizi izandako bilakaeran. Ez, haatik, frankismoaren ostean erabateko haustura politikoa gertatu zelako. Bai, aldiz, Espainiako estatuaren birmoldaketak ekarritako instituzionalizazio berriak bestelako testuinguru sozial eta politikoa sortu zuelako Hego Euskal Herrian.” (Larrinaga, 2007b: 174)

1978an Espainiako Konstituzioa sartu zen indarrean, estatua Frankoren Erregimenetik Monarkia Parlamentario batera aldatu zuena. 1979an Euskal Autonomi Erkidegorako (EAE) Autonomia Estatutua izango da indarrean sartuko dena, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako probintziek gerran galduriko autonomia politikoa berreskuratuko dutelarik. Azkenik, 1982an, Nafarroa izango da bere foruen garapenetik (Amejoramiento) autonomia politiko eguneratua estreinatuko duena:

“Espainiako 1978ko Konstituzioa aspaldiko auziari irtenbidea emateko tresna gisa ulertu zuten haren sortzaileek. Izan ere, Espainiako nazio-estatuaren eraketa burutu gabe zegoen artean, eta zabaltzen ari zen epealdian prozesu horri amaiera eman nahi zitzaion estatuaren nazionalizazio demokratikoa abian jarrita. Horretarako, beharrezkoa zen, besteak beste, gizarte klaseen arteko eta erregio/nazionalitateen arteko desberdintasunak estatu antolaketan integratzea. Ildo horretatik, Konstituzioak “Autonomien Estatua” izenez ezaguturiko estatu deszentralizatua definitu zuen, hamazazpi erkidego autonomoz osatua; tartean zeuden “nazionalitate historikotzat” jo zirenak, hau

da, gerraurrean autonomia estatutua eduki zuten lurraldeak.” (Larrinaga, 2007b: 174)

Aurreko atalean azaldu den gisan, 1960ko hamarraldian hasita, Bigarren Pizkundean indarberituriko euskal kulturgintza legezketasunik gabe bada ere, ikastolen sarearen eraikuntzan murgildu zen, eta sare honen inguruan euskal argitaletxe berriak sortu ziren. Eta 1970eko hamarkadan euskal kulturaren instituzionalizazio horrek beste pauso garrantzitsu batzuk eman zituen; esaterako, Udako Euskal Unibertsitatearen sorrera 1973an, euskara eta zientzia uztartzera zetorren Elhuyarren sorrera 1974ean, edota helduen alfabetatzeaz arduratu hartu zuen Aek-rena 1975ean. Erregimen aldaketarekin, ordea, eraikuntza prozesu honek jauzi kualitatibo bat emango zuen, EAEn behintzat, legezketu berri ziren alderdi politiko abertzaleek gobernura iritsi eta bertatik euskal kultura sustatzeari ekingo baitzioten. Sistema politikoaren modernizazioak kultur sistemaren modernizazioa ekarri zuela dio Amezagak: “Sistema politikoa bezala kultura ere modernizatu egin zela esan dezakegu, modernizazio horretan kultura popularrek espazio batzuk irabazi zituztelarik” (1994: 159). Bigarren Pizkunda bigarren fase batean sartuko zela Gandarak: “Beraz, komunitatearen berpizteak bigarren fase nagusia hasi zuen, diktaduraren akierarekin batera. Aldi horren muina mundu modernoan bizirauteko oinarrizko garapena izan zen, eta erakundetzea, hain zuzen ere, hori lortzeko ezinbertzeko pauso” (2015: 409).

Nafarroan, aldiz, bestelakoa izango zen bidea nazionalismo espainiar eskuindarrak jarraituko baitzuen gobernuan: “Nafarroako Foru Erkidegoan autonomiaren kudeatzaile politikoek bultzaturiko instituzionalizazioak ez du inolako alderdi zalantzagarririk eduki (...) argi eta garbi, euskararen eta euskal kulturaren sustapenaren aurkakoak izan dira” (Larrinaga, 2007b: 178-179)

EAEn, bada, euskal kulturgintzari hazkunderako aukera irekiko zitzaion, alegia, gizarte mugimenduen inguruko ‘Baliabideen Mobilizazioaren Teoriak’ ‘Aukera Politikoaren Egitura’ (‘Political Opportunity Structure’) deritzona. Legea alde izango zuen euskarak estrainekoz: “(...) autonomien sistemarekin egokituriko legeek babes eremu mugatua estreinatu zuten” (Gandara, 2015:409). Honela, 1970eko hamarraldian hasi zen ikastolen legezkatze prozesu luze eta gorabeheratsuaren ondotik (Fernandez, 1994: 185) jada gerra aurreko Pizkundeak amestu zuen (Estornes, 1989: 92; Euskaltzaindia, 1977: 429-430) unibertsitate elebidun publikoa martxan jarriko da 1980an Euskal Herriko Unibertsitatearen sorrerarekin. Edota 1982an, hizkuntza politikako ekimenak garatzeko bidea zabaldu eta euskararen ezagutza eta erabilera berreskuratzeko erakundeen babesa ahalbidetu zuen Euskararen Legea onartu zen.

Frankismo Garaiko bilakaerari eskaini zaion atalean azaldu denez, euskal hedabideen alorrak bazekarren irakinaldi bat 1970eko hamarralditik⁵¹⁹, baina alor honetan ere jauzi kualitatibo bat emango da marko politiko berriaren eskutik: euskarazko irratia publikoa, Euskadi Irratia, estreinatuko da 1982an eta euskarazko telebista publikoa, ETB, 1983an.

Gabilondok seinalatzen duenez hedabide hauek euskarazko esfera publiko instituzionalizatu baten jaiotza ekarri zuten historian lehen aldiz:

“Till that point, only the Spanish television, the local press controlled by state censorship, and some small local radios had the ability to construct a public sphere of debate and political reasoning, but none addressed its audience as

⁵¹⁹ Ik. 6.4.4.1 ‘24 orduak euskaraz’ eta bertsolaritza (1976), 6.4.4.2 1976 Euskal prentsaren urtea eta 6.4.4.3 Euskal egunkarien urtea (1977)

Basque. The media under Francoism could not create a Basque public sphere, only Basque television (and Basque radio to a lesser extent) had that effect for the first time in 1982.” (1999: 33)

Bigarren Pizkundearekin abiatzen den prozesu gradualaren azken burukoa litzateke hau ere:

“The occupation of the social space that began with demonstrations, graffiti, and dictionaries, ended with the establishment of television. At that moment, the Basque community was no longer imagined as a public collective present to itself in the public space, but also as a collective of private and individual subjects that could imagine their selves (self-s) for the first time as Basque. In other words, television culminated the process of the creation of a social space divided in public and private spheres from which a national self was imagined as Basque.” (Gabilondo: 1999: 33)

Esfera publiko/pribatu honek potentzia berri bat eman zion eragile eta sortzaileek euskal kulturaren inguruko irudikapenak berritzeko zuten gaitasunari: “(...) hedabideen funtzioak direla eta, bi alderdi nabarmen litezke. Batetik, garaiari egokituriko forma eta ondasun sinbolikoak barreiatzeko bide berriak eratu ziren (...) Bertzetik, Sarasuak hedabideek hizkuntzaren estandarizazioan, hizkeren nagusitzan, komunitatearen autoirudian eta autokonfiantzan duten funtzioa azpimarratzen du (...)” (Gandara, 2015: 581-582).

Eta euskal kulturari, bere komunitate txikiaren mugen barruan bazen ere, masa kulturarekin hibridatzeko bidea ireki zion:

“At the same time, Basque Television brought about the introduction of American mass culture and commercials as a constitutive part of the Basque process of community- and self-imagination taking place in the new Basque public and private spheres. Therefore, at the moment in which Basque television constituted a Basque social space and self, it also brought about the hybridation of Basque culture with globalized mass culture (...)” (Gabilondo, 1999: 34)

8.1.2 Mugimendu kulturgilearen koska berriak: autonomiaren auzia, profesionalizazioa eta komunikatu beharra

Marko berriak euskal eskola bat eta euskal komunikazio sistema berri bat eratzeko modua eskaini zuen, bada, eta horrek hainbat aukera ireki zizkion euskal kulturgintzari: “Pentsamendu, sinbologia eta edukien partekatzea bideratuko zuten erakundeen eraikuntza komunitateen sistemak eginiko lanik eraginkorra izan zen, ziur aski” (Gandara, 2015, 408)

Testuinguru berriak korapilo berriak ere ekarriko zituen, ordea. Edo aurretik zetozenak estutu. Honela, frankismoaren bigarren zatian sortu zen arrakala sakondu egin zen⁵²⁰, abertzaletasun jeltzaleak estatuaren antolakuntza berriak eskainiriko irtenbide autonomista ontzat eman zuen bitartean ezker abertzaleak uko egin baitzion irtenbide horri. Desadostasun honetatik abertzaletasunaren baitako hegemonia lortzeko borroka gordina sortu zen, hurrengo urteetan emango zen mugimendu sozial, kultural eta politikoak dikotomia horren logikara tolesteko joera nagusituko delarik. Euskal kulturgintzaren garaiko bilakaeraren inguruko lan ezberdinetan jasotzen da fenomenoak: Honela, *Master Frame* gisa sailkatuko du Larrinagak (2007b: 180), eztabaida nagusi horrek zeharkatuko dituela azpimarratuz; edota marko politikoaren legitimazioaren inguruko eten politikoaz dihardu Sarasuak, eta euskal hedabideen sisteman izandako eragina ere seinatzen du:

⁵²⁰ Ik. 6.4.1.2 Euskal Pizkunde berria eta 7.2.3 Bigarren Euskal Pizkundeak ekarritako metamorfosia

“Marko politikoaren legitimazioaren inguruko eten politikoak baldintzatu du hogeita hamar urteotako bilakaera hedabideen gaian ere. Eten horrek zeharka determinaturik jokatu dute gizarte-ekimeneko erakundeek eta erakunde publikoek. Bietan eragiten saiatu dira hautu politiko bietakoak, espazio bakoitzean modu desberdinean.” (Sarasua, 2013: 313)

Instituzionalizazio politikoak gizarte mugimenduen hustuketa eta gizartearen despolitizazioa ekarri ohi dituela seinalatzen du Larrinagak:

“(…) instituzionalizazio politikoaren prozesuak martxan daudenean, burokrazia berriek berenganatzen dituzte gizarte bizitzako jardun esparruei dagozkien auzien eztabaida, kudeaketa eta ebazpena (...) auzi kolektiboak eguneroko kezketatik urrundu eta bizitzaren esparru pribatuan ezartzen dituzte euren jomugak: familiaren ongizatean, lanbide arrakastan, kontsumoan, eta abar. Ezaguna denez, bizitza sozialaren despolitizazioa eta pribatizazioa gizarte garatuetan indarrez gauzatutako joera osagarriak eta, neurri batean, orokorrak izan dira XX. mende erdialdetik hona.” (Larrinaga, 2007b: 176)

EAEn fenomeno hau, abertzaletasunaren barne lehiarekin gurutzatuko da. Abertzaletasun kontserbadorea hegemonikoa izan da erakunde publikoetan eta ezker abertzalea, aldiz, gizarte mugimenduen eremuan sentitu da indartsuago, eta bakoitzak bere botere eremua babestu nahi izan duenez, bikoiztasun bat emango da askotan euskal kulturgintzaren erakundetzaren garapenean. Honela, Amezagak erakunde publikoetatik gizarte-ekimeneko erakundeak ordezkatzeko ahalegina azpimarratzen du: “(...) ordura arte herri ekimen eta asmoak zirenak jaso, eta instituzioon politikan integratzen ziren (...) aldi berean, herri ekimenak administratibotik zuzenean kontrolaturiko ekimenez ordezkatzeko saioak egiten ziren (...) HABE sortu zen AEKren ordezkari, Antzerki herri antzerki taldeen ordezkari (...)” (1994: 159). Baita Larrinagak ere: “(...) esparru politiko autonomikoaren kudeatzaileek gogor jokatu zuten euskal kultura esparrua —ordura arte mugimendu politiko-kultural gisa antolatua— mugimendua indarrez hustu eta mendean hartu arte. Erabilitako estrategiak —bikoizketak, finantzaketa publikoak eta instituzionalizazioak berez dakarren desmobilizazioa— helburu horretara zuzenduta egon ziren (...)” (2007b: 313). Sarasuak, bere aldetik, lehia guzti honek ekarritako energia galera azpimarratzen du: “Abertzaletasun klasikoaren eta abertzaletasun iraultzailearen arteko lehia, esan liteke neurri batean *azpibaliatu* egin direla hamarraldi ireki haietan egon zitezkeen potentzialak” (2013: 115).

Diktadurapean homogeneo samarra izan zenak, garapen askoz ere anitzagoa izango du marko berria indarrean sartzen denetik. Agotek (1995:86) fase berriari botere estrategia (instituzio politikoaren ekimenean eragitea) eta kultur estrategia (esparru autonomo gisa funtzionatzea) duten elementuak bereizten ditu mugimenduaren baitan eta Agirrebaltzategik (1999:60) ikuspegi politiko-instituzionala dutenak (lidergoaren instituzio politikoaren esku), antropologiko-komunitarioa lehenesten dutenak (lidergoaren herri mugimenduen esku) eta ikuspegi soziologiko-dialektikoa darabiltenak (erakundearen eta mugimenduaren arteko kooperazioa eta koordinazioa bilatuz)⁵²¹. Orokortua den fenomenoaren ere, urteek aurrera egin ahala gailentzen joan den neke eta ezintasun zantzuena, hautematen da, ordea: “Badakigu, ordea, herri-mugimenduen eragin-indarra gezaldu egin zaigula azken bolada honetan. Honetan aho batekoak dira beste gauza askotan ez ahoz eta bestez batera ez datozenak ere” (Odroizola, 1992: 37).

⁵²¹ Bereizketa hauek ez dira euskal kulturgintzaren esparruan bakarrik eman, noski. Gizarte mugimenduen alorraz orokorrean diharduten sailkapeneetan ere ikus daitezke (Larrinaga, 2007b: 394).

Agotek (1995:83) duela bi hamarkada euskal mugimendu etnokulturalaren inguruan oso ikerketa gutxi burutu izan dela seinalatu arren, gerora dezente argitaratu da alor honetan, batez ere *Master Frameak* eragin duen energia galera eta planteamendu klasikoekin mugimenduaren xedeak lortzeko ezintasuna gainditu nahian, kultur estrategiari lehentasuna emanez alorraren autonomia eta despolitizazioa aldarrikatzen duten lanak. Aro berri batetara igaro beharra planteatu da, batzuetan sinbolismotik erabilerarako bidea, besteetan makrotik mikrorakoa, edota zenbaitetan nazionaletik tokikorakoa seinalatuz eta azpimarra berezia egin zaio mugimenduaren *framinari*, irudiari, diskurtsoari, alegia, fokua komunikazioak barneratzen dituen elementuetan jartzeari⁵²².

Joera honi erantzuten dioten diskurtsoak ere etorri dira, noski, kulturgintzaren dimentsio eta motibazio politiko-sinboliko-nazionalak aldarrikatuz:

“Interpretazio marko berriaren barnean garatu diren hizkuntzaren inguruko diskurtso “despolitizataileek” eta “desideologizataileek” era askotako gogoetak sortu dituzte euskalgintzako kulturgileen artean azken urteetan. Izan ere diskurtso horiek adarkadura eta ondorio asko dauzkate: sozialak, politikoak, linguistikoak eta estetikoak, besteak beste. Horien guztien inguruan daude etengabeko eztabaidak eta desadostasunak.” (Larrinaga, 2007b: 248)⁵²³

Gizarte mugimenduen inguruko beste eztabaida klasiko batek ere, profesionalizazioaren ingurukoak, eragin ditu gogoeta batzuk. Mugimenduen garapenean ohikoa den fenomeno bat da hau: “Gizarte mugimenduek era askotako zikloak bizi izaten dituzte sortzen diren unetik aurrera. Luzaroan irauten dutenean, instituzionalizatu eta profesionalizatu egiten dituzte beraien jarduerak eraginkortasun handiagoa lortzeko.” (Larrinaga, 2007b: 272). Gandarak azaltzen duen bezala (2015: 184-191) lehen eztabaidak frankismoan eman ziren: militantzia, komunitatearentzako sakrifizioaren ideia, funtsezkoa suertatu zen kulturgintza abiarazteko, baina honen abiada hartutakoan, kultur sortzailearen autonomiarentzat eta mugimenduaren garapenerako muga bat izan zitekeela ere ikusi zuen hainbatek. Larrinagak marko berriak ekarriko instituzionalizazioak ekarritako desmobilizazioak profesionalizazioa indartu zuela gaineratzen du: “Modu paradoxikoan, mugimenduaren desmobilizazio horrek haren etorkizuneko profesionalizaziorako eta barne dibertsifikaziorako oinarriak ere jarri zituen” (2007b: 313). Eta ordutik emandako gizarte balioen aldatetara norabide berean eragin dutela: “Gaur egungo gizarte eremuan zalantzan jarri dira duela 30 urteko mugimenduen aktibismoari lotutako oinarrizko kontzeptuak, militantziarena esaterako. Euskalgintzak — orduko beste mugimendu batzuek bezala— oinarrizko parte-hartzaile asko galdu ditu” (id.: 272).

Profesionalizazioak burokratizazioa eta espezializazioa ekarriko ditu: “(...) burokraziek eta adituek hartzen dute lehenago mugimenduak eta egintza kolektiboak betetzen zituzten jarduera esparruak. Ildo horretan, 90eko hamarraldiaz geroztik egitura berriak sortu ziren euskalgintzaren barnean, funtzioetan geroz eta espezializatuagoak (...)” (Larrinaga, 2007b: 273). Eratu ahal izan den egitura profesionala, ordea, ez da bere kabuz euskal kulturgintzaren betebeharrak guztiak gauzatzeko gai, borondatezko lanarekin osatu beharra du mugimenduak aurrera aterako bada, eta oreka puntua da orain eztabaidagai.

⁵²² Bakoitzak ikuspegi ezberdin bat eta azpimarra nahiz ñabardura bereziak eskaintzen baditu ere, joera honen baitakotzat har daitezke Apodaka, 2005; Amonarriz, 2003; Arrieta, 2001; Basurto, 2007; Fernandez 2006a eta 2006b; Etxegoien, 2004, edota Sarasua 2013, besteak beste.

⁵²³ Larrinagak saltsa guzti honen errepaso interesgarria egiten du (2007b: 212-249)

Profesionalizazio eta burokratizazioa gora behera, ordea, mugimenduak ez du bere esentzia ahaztu. Honela, mugimenduaren adar garatuenetarikoa den batek, euskara elkarteenak, honela dio irizi trukerako esparru gisa antolatu duen Topagunearen inguruan: “Gizarte mugimendu sendo izango bagara lan militantearen artikulazioan inbertitu behar da” (Topagunea: 2011: 17). Era berean, framina, irudia edo diskurtsoarekiko eztabaidak oraindik bide luzea izango badu ere komunikazioaren garrantziaren azpimarra berria erabat orokortu eta finkatu da: “Gure mugimenduak definitutako xede-taldeengan ilusio sortzaileak izango diren dinamikak jarri behar ditu martxan. Horretarako, komunikazioa ongi landuko da. Norengana goazen definitu behar dugu; zertara goazen; nola esan behar dugun ...” (Topagunea, 2011: 17).

8.1.3 Aukera eta korapilo berak bertsolaritzak ere

Marko berrian aurreko hamarkadetatik datorren bertsolaritza soziala leundu egin zela aipatzen dute Joanito Dorronsoro eta Juan Mari Lekuonak:

“Dorronsoro: 80koan aldakuntza nabarmenak ematen dira globalki: frankismoaren bukaera, Erreforma izenekoak, Alderdi politikoak.

Lekuona: Horregatik bertsolaritza sozialaren arazoa 80an espreski birplanteatzen da. Bertsolariek berek egin dute. Alegia, posible al den, komeni ote den, hortik jarraitzea. Hitz egiteko eta mitinak egiteko aukera orain badago eta bertsolariak lehengo moduan jarraitu behar al duen ala tradiziozko gai zabalak tratatu.” (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 23)

Bertsolariek burutu beharreko eguneratze ariketa aipatzen du Andoni Egaña:

“75ean Franco hiltzen da; 77an amnistia orokorra eta lehen hauteskundeak datoz; 78an Espainiako Konstituzioa eta 79an Erkidegorako Autonomi Estatutua. Denbora gutxian gauza asko gertatzen da. Eta bertsolariak bere burua egoera berrietara egokitu beharra dauka bat-batean (...) 78-79 aldera, bertsolariek ze jarrera hartu behar zuten ez zekitenez, gehiago zekien bati deitu zioten, (ez dakit ziur nor zen gehiago zekien hura baina Abel Muniategi zela esango nuke) hitzaldi batzuk eman ziezazkien. Hartaraino aurkitzen zuten nonbait galdua euren burua.” (Egaña, 2011: 34)

Azaldu den legez, abertzaletasun kontserbadorea eta aurrerakoiaren arteko arrakalak bertso-munduan izandako eraginak aurreko hamarralditik zetozen⁵²⁴, baina marko berriaren inguruko eztabaidak, hemen ere, sakondu egingo du arrakala hori:

“Aunque los primeros síntomas de desencanto y enfrentamiento ya se habían percibido, puede decirse que la aprobación, en 1979, del Estatuto de Gernika, marca la fecha a partir de la cual el bertsolari empieza a encontrar ante sí un público que en nada se parece al de la época franquista, dividido fundamentalmente en dos sectores: el sector que hace de la vía estatutaria su principal estrategia, y el sector que rechaza el Estatuto y reclama para el País la autodeterminación.

El enfrentamiento, lejos de ser meramente ideológico, se vive de manera visceral. Las cuadrillas se dividen, amigos de toda la vida se niegan el saludo... Está claro que en ese contexto el bertsolari no puede conseguir su fin con la mera mención de ciertos valores que ya no se comparten.” (Garzia, 2000a: 453)

⁵²⁴ Ik. 6.4.3.4 Barne arrakala: Loiola Irratiko sariketaren boikota

Bere doktorego tesian egiten duen bertsogintzaren historiaren aldizkatzean 1980an testuinguru aldaketak eragindako ziklo aldaketa bat ematen dela dio Garziak: inguru-testu⁵²⁵ trinkoko bertsogintzatik inguru-testu ezpalduko bertsogintza batera emango dela pausoa. Frankismoan euskararen komunitateak balore nahiz erreferentzia partekatu batzuen inguruan baturik agertzen zela dio, bertsolariak *Herriari* abesten ziola, eta balore edo erreferentzia horiek aitatzen asmatzearekin betetzen zuela bere funtzio komunikatiboa betetzeko. Gisako hainbat adibideren artean Txomin Garmendiak Lourdes Iriondo kantariari eginiko aipamena seinalatzen du: “(...) Garmendiak-eta aski zuten orduko gizarteak orohar eta bertso entzuleek bereziki partekatzen zituzten erreferentziak balio horietako bat aipatzea emozioa sor arazteko” (Garzia, 2000b: 210). 1980ko hamarraldian, ordea, partekaturiko balioen nahiz erreferentzien lotura lausotuagoa da askoz ere, eta *Herriari* kantatetik *Publikoari* kantatzera pasako dira bertsolariak:

“Basarrik bertsolariari eskatzen ziona, Herriarekin hitz egin zezala, alegia, gero eta zailago dago. Zatiketa politikoa dago batetik (...) Bestetik, berriz hamazazpi urteko etenaren ostean Euskaltzaindiak antolatu zuen lehen txapelketa (...) 1980koa arrakastatsua izan zen oso (...) Ordu arte bertsoetara inguratu gabeko jendea saioetara hurreratzen hasi zen” (Garzia, 2000b: 248)

Bertsoetara hurbildu zen jende berri horrek, Bigarren Pizkundearen inguruan garaturiko ikuspegi berria zekarren, entzule tradizionalarekiko oso ezberdina. Larrinagak euskal literatura berriaren irakurleen inguruan esanikoek ilustratu dezake aldaketa:

“(...) hezkuntzaren hedapenaren ondorioz bestelako publikoa agertu zen gerra osteko belaunaldien artean. Publiko irakurle horrek, jakina, beste irakur premia batzuk zituen. Industrializazio prozesuaren eraginez osatutako klase ertain urbanoetan zeukanez oinarri soziala, arrotz egiten zitzaion lehenagotik nagusi zen literatura eredu, haren molde soilak eta gai bukolikoak (...) literatura berriak gaien aldaketa ekarri zuen lehenik —gizaki urbanoen eguneroko errealitateari loturik zeuden gaiak jorratu ziren, auzi sozialak besteak beste—; bigarrenik, XX. mende aurretiko literatura tradizioari lotzean, garbizaletasun/arrunkeria binomioa saihestuz, herri literaturaren oinarriak ezarri zituen; hirugarrenik, edukietan ez ezik estiloan ere eguneratu zen literatura, horrela, literatura korrante garaikideekin bat eginez; azkenik, literatura laikoa nagusitu zen; hala, “euskaldun-fededun” betiereko identifikazioa eta ondorengo aurreritzi itogarriak baztertu zituen (...) Eraldaketa horiek ordura arteko euskal kultura esparruaren ohiko ikusmolde nagusia eta barne homogeneousuna hautsi eta itzulezinezko pitzadurak ireki zituzten pentsamendu tradizionalan. Iztuetak dioenez, aski izan ziren hamabost urte (1957-1972) euskal kulturak homogeneo izateari utz ziezaion.” (Larrinaga, 2007b: 164)

Formula berriak bilatu beharko ditu bada, bertsolariak Publiko zabal horrekin konektatzeko: “Inguru-testu ezpalduko bertsogintza da. Politikoki, hamarkadak aurrera egin ahala ezpaldutua da inguru-testua (...) Baina politikaz kanpo ere apenas ikusten den aipamen hutsez emozioa eragin dezakeen baliorik edo erreferentziarik” (Garzia, 2000b: 258).

⁵²⁵ Inguru-testu eta testuinguruaren arteko bereizketa zehaztapen metodologiko bat da Garziaren lanean. Honela azaltzen du: “‘Testuinguru’ (...) usadioaren arabera erabiliko dugu, testuz kanpoko zer guztien multzoa adierazteko. Testuinguruaren barruan, ordea, ‘inguru-testu’ eta ‘egoera’ bereiztuko ditugu” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 142). ‘Inguru-testua’ partekaturiko erreferentziak lirarete eta bertso bakoitza inguratzen duen sorkuntza (bertsoa kokatzen deneko bertsoaldia eta bertso saioeko ordura arteko bertso guztiak) ‘egoera’ saioan partekatzen den gainerako guztia (lekua, saioaren motiboa, tokia, gai-jartzailea, bertso-lagunak, giroa...).

Honela azpimarratzen du Egaña 1980ko hamarraldiko lehen txapelketa haietan jazotakoa:

“Begira itzazue 80ko txapelketako hamasei agurrak; begira 82koak ere. Ez dira batere politizatuak. 82koan, Amurizaren bigarrean, Bizkaia zoriontzen dute bertsolari gehienek (...) Eta garairik latzenak ziren (...) Bertsolari konprometituak baziren. Eta konsekuenteak! Baina ekimen politikoan, egunkarietako zutabe eta iritzietan eta horrelakoetan gehiago azaltzen dute alde hori bertsotan baino. Bertsotan beti joera erdigunera egitekoa dela esango nuke. (...) Jendarte hori gero eta askotarikoagoa delako (...)” (Egaña, 2011: 35)

Bertsogintza ez ezik bertsolaritzaren gizarte-mugimenduan ere eragingo du testuinguruaren *Master-Frameak* eta ezpaldurak. Honela, mugimendua gorpuztuko duen Elkartearen eratzekoan bere autonomiaren ingurukoa izango da, aurrerago ikusiko den bezala, finkatu beharreko posizio garrantzitsuenetako bat. Izatez, bertsogintzari baino gehiago eragingo dio, bertsolariek ezpaldura gora-behera bertso politikoak sortzen jarraituko duten bitartean, Elkarteak bere posizionamendua askoz ere tentu handiagoz zaindu beharko baitu, eta, ikusiko den bezala baita, bertsolarien bertso politikoak direla eta administrazioarekiko harremanetan gora-behera handiak izango baititu.

Gainerakoan, marko berriak euskal kulturgintzari eskainiko dizkion aukera eta korapilo berberak tokatuko zaizkio bertso-munduari ere. Honela, ‘Aukera Politikoaren Egitura’ baliatu ahalko du administrazioaren laguntza eskatuz, edota euskal komunikazio sare berria bere eraberritze eta hedapenerako kasik inork baino hobeto baliatuz. Edota, profesionalizazio eta espezializazio prozesuak, eta hauen inguruko eztabaidak, biziko ditu Elkartearen egituraketan.

1980an, hamazazpi urteko etenaren ondoren Euskaltzaindiak antolatu zuen lehen txapelketarekin, eta Xabier Amuriza txapeldunak erakutsiriko bertsogintza berriarekin, ziklo berri bat irekiko dela seinatzen dute alorreko lan guztiek (Barandian, 2011: 27; Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 24; Garzia, 2000a: 453; Garzia, 2000b, 206; Garzia, 2007: 82; Garzia, 2012: 51; Haranburu eta Iriando, 1980: 45; Larrañaga, 2014: 66-67 eta abar)⁵²⁶ eta aukerak nahiz korapiloak gora-behera, bertsolaritza indartsu sartuko da ziklo berri horretan: “80ko hamarkadako lehen erdian (...) literatur talde eta aldizkari militanteek indarra galdu ahala, euskal rock erradikalak (ska, punk eta hip hopa barne) eta bertsolaritzak bereganatu zuten aurreko bi hamarkadetan poesia performatuak izan zuen indar publikoa” (Gabilondo, 2009: 29).

8.2 OINARRIA: BERTSOLARITZA BERRIA, TEKLA BERRIAK (1980-1989)

8.2.1 Amurizaren berrikuntza eta barruko begirada

8.2.1.1 Txapeldun berritzailea aldi berri batentzat (1980-1982)

‘Xabier Amuriza, nuevo campeón con nuevas formas’ zeraman titulutzat *Deiak* 1980ko urtarrilaren 8an argitaraturiko kronikak eta ‘Amurizaren *semaforo gorriak* kable guztiak erre zituen’ egun bereko iruzkinak. “Hego haizeak jota joan nintzen txapelketara” kontatzen zuen txapeldunari egindako elkarrizketaren titularrak biharamunean. *Eginen* “Quisiera dedicarme a festivales de canto de versos con orquesta” zioen titularrak, finalaren biharamunean bertan. *El*

⁵²⁶ Data apur bat ezberdinak eskaintzen dituen bakarra Pello Esnal da (Esnal, Egaña eta Sarasua, 2002: 810). Aurreko zikloa 1982raino luzatzen du, mugarrira funtsatzeko Euskaltzaindiak antolaturiko azken txapelketa eta ETBren sorrera aipatuz. Berriaren hasiera 1985ean jartzen du Elkartearen sorrera eta ETBren txapelketa baten lehen emisioa urte hartan abiarazi zen txapelketaren inguruan emango zirelako. Azpimarratzekoa da bertsolaritzaren historiaren artikulazio honetarako eragiletza eta hedabideratzea, biak, hartzea ardatz gisa.

Diario Vascon finalak izandako publiko arrakastari erreparatzen zitzaion: ‘Los bertsolaris llenaron el Balda’.

Hamazazpi urteko geldialdiaren ondoren Euskaltzaindiak antolaturiko Euskal Herriko lehen bertsolari txapelketak zaletu asko ustekabean harrapatu zuen txapelduna izan zuen. Bigarrena ere, bertsolari berak irabaziko zuen, ordea: ‘Amuriza: "Bigarren txapel hau lehenengoaren konfirmazioa da" (*Deia*, 1982/XII/21); ‘Xabier Amuriza, txapeldun polemiko bat konfliktibo bihurtzeko bidean’ (*Egin*, 1982/XII/18); ‘Bi liburu berri Amurizak’ (*Egin*, 1982/XII/18); ‘La genialidad de Amuriza pudo con la regularidad de Lopategi’ (*Egin*, 1982/XII/21); ‘Amuriza revalidó en San Sebastián’ (*El Diario Vasco*, 1982/XII/21).

Lurrikara bat izan zen bertso-munduan Amurizak bi txapel hauekin egin zuen agerpena. Iriondo eta Haranburuk, esaterako, Basarrik 1935eko txapela irabazi zuenean bizitakoarekin alderatzen zuten:

“1935. urtean Donostiako Kurtsaal-ean egin zen txapelketa gogoangarri hartan, etendura bat sortu zela bistan da. Txirrita haundia han zen, eta harekin batean, Matxin, Zepai, eta eskola zaharreko beste zenbait bertsolari ere. Baina, bat-batean, zapla! Granada-errekako mutiko gaztea, hortxe agertu zaigu. Eta bertsozalea aho bete hortz utziz, epaia bere alde jaulki zuen. Orduko bertsozale guztiak ez ziren konforme izango. Nolaz, izan ere, Txirrita baten itzaletik, gazte bati txapela eman? Gizarte erabat baseritar batetan kokaturik zegoen bertsolaritzaren maldara, kaleume bat azaldu zen. Kulturaz ordurarteko gehienak baino zerbait hobekixe jantzia. Aire berri batez zetorren. Eta, etendura bat sortu zuen, berritze eta zuzpertzte guztiek berez ekarri ohi duten etendura antzeko bat.

1980ko urtarrilaren 6an Karmelo Baldako pelota lekuan ere, beste etendura bat gertatu zaigu. Lehen mailako bertsolari asko falta izan zen, bai azkenengo Txapelketa Nagusi honetan: Lopategi, Lazkano, Agirre, Lizaso, Lasarte, Lazkao-txiki, Uztapide, Basarri bera... Baina lehen maila hori ongi irabazirik duen bertsolari asko zen. Eta, Amuritzak, bat-batean, epai-mahaia bere alde jarri du. Joera desberdinak, gizon ikasiagoa, literatura idatzia ongi ezagutu eta landu dituen gizona dugu Amuritzak.” (Haranburu eta Iriondo, 1980: 44-45)

Haranburu eta Iriondo ez ziren edonor 1980 hartan. Euskaltzaindiaren babespean eurek antolatu zituzten, hamarraldi berriko lehen bi txapelketa horiek:

“(…) biok izan ginen 1978an Euskaltzaindiaren Ahozko Literatura Batzordean proposatu genuenak. Juan Mari Lekuona, Joxe Mari Aranalde, Jesus Mari Etxezarreta, Antonio Zavala etab zeuden batzorde horretan, eta balekoa eman ziguten (...) 1980koa horrela atera zen Haranburu eta biok kamikaze batzuk bezala lana eginda (...) 1982koa ere antzera joan zen. Eta eskolarteko bertsolari gaztetxoek txapelketa ere jarri genuen martxan.” (J. Iriondo, *elkarriketa pertsonala*, 2017/VII/18)

Txapelketa irabazi berritan etxanokoaren errimaren aberastasuna eta euskara landua azpimarratu nahi izan zituzten Haranburu eta Iriondok, baita bere sortzaile jarrera ere: “Bertsolari kreatora da, ohizko klitxe eta topikoetatik urrun, bere barne mundu baten eskaintza egiten duen bertsolaria” (1980: 43). Eta ez ziren guzti honi erreparatu zioten bakarrak izan. Urte hartan argitaraturiko artikuluan Juan Mari Lekuonak beste hainbeste famatzen zuen bertsolaria (1980: 112), eta bost urtera Dorronsororekin batera egindako bertsolaritzaren historiaren errepasoan honela zioen:

“Lekuona: Berritasun nagusia, denok ados izango gara horretan, AMURIZA da. Amuriza plazan lehendik dabil, eta 80an etortzen da, beste batzuk ez dira etorri, eta txapeldun atera da. Amurizarekin bapateko bertsogintzak zeharo beste maila bat erakutsi du. Han ikusi zen zer handitasunezko artea zerabilen bertsoan. Denean, gainera: musika berriak, gai biribilki emanak, hizkuntza landua euskara batuan, etab. Berrikuntza handia.” (Dorransoro eta Lekuona; 1987: 24)

Denboraren joanak ez du txapelketa haiek utzitako marka lausotu. Txapeldun handia izango zen Egañak, esaterako, bertsotarako harra Amurizaren saio haiek piztu ziotela errepikatu du hainbatetan: “Egia da Amurizaren 1980ko Txapelketa hari zor diodala bertsolari izatea. Bateko bertsoek, Baldako giroak... erakarri ninduten bertso-mundura” (2004: 55). Sarasuak, txapelketa haietatik kasik bi hamarkada joanda ere bere izaera berritzailea azpimarratzen zuen: “Begira, adibidez, Amurizari. Orain plazetan gabiltzanonean artean baserritarrenetarikoa bera duk, mendiari lotuena, mundu horren ezagutzaile eta maitale. Aldi berean bera izan duk berritzaileena, jantziarena, landuena eta konplexubakoena” (Egaña eta Sarasua, 1997: 158). Eta hamarkada bat luze geroago bertso-mundutik kanpoko ahotsek ere egiten zioten aitortza: “Orduan agertu zen Xabier Amuriza, kartzelatik irtenda, eta dena aldatzen hasi zen (...) Bertsolaritzaren doinuak, hizkera gaiak (...)” (Sarrionaindia, 2015: 12)

Garziak sakonduko du gehien etxanokoaren bertsogintzaren ekarpenaren analisisian:

“Mucho se ha hablado de la revolución inducida por Amuriza en el campeonato de 1980. – Por primera vez un bertsolari compone sus bertsos en euskara batua (estandar unificado) – Aparecen rimas antes nunca usadas – La imagineria de Amuriza, de gran calado poético, sólo tiene precedente en los bertsos improvisados de Xalbador – Por encima de lo inusual de las rimas, la ordenación de las mismas conforme a unas estrategias comunicativas predeterminadas. –El aprovechamiento estratégico de los recursos orales con una nueva intencionalidad.” (Garzia, 2000a: 455)

8.2.1.2 Pizkunde berriarekin konektaturiko pentsamendu askea

Bertsozaletasuna etxetik zetorkion, baina frankismo garaiko lehen txapelketekin beste dimentsio bat hartu zuen Amurizaren interesak:

“Nire bertsoarekiko arreta hamazazpi edo hemezortzi urte nituela hasiko zen, 1958an Euskaltzaindiak antolatu zuen Bizkaiko lehen txapelketarekin. Ni ikaslea nintzen artean eta saioetara joaten nintzen. Niretzako hori mundu zoragarria zen, frankismoaren itomenetik ateratzeko modu bat. Aurretik etxean asko entzundakoa nintzen, aita sasi-bertsolaria baitzen kopla nahiz bertso asko buruz zekizkiena eta askotan abesten zituen, baina txapelketarekin beste kontzientzia bat hartu nuen. Gogoan daukat 1960an Xenpelar eta Txirritaren bertsoak jasotzen zituen liburu bat argitaratu zuela Euskaltzaindiak eta Bilboko Verdes liburu-dendan erosi ondoren buruz ikasi nuela.” (X. Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02)

Apaiztu berritan, 1966an egin zuen debuta bertsolari bezala: “Nire debutean bertan sei bertsolari izan ginen Gernikako Jai Alai frontoian eta gurekin Oskorri. Bi mila lagun bildu ziren. 1966an izan zen hori. Eta bakarkakoan kantatu nituen bertsoak gero Oskorrik erabili zituen ‘Huelgan daude’ kantuan.” (X. Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02). Bizkaiko txapelketako epaimahaiko izateko ere deitu zuten urte hartan, eta Euskaltzainekin tratua izango zuen aurrerantzean: “Arruerekin tratu gutxi izan nuen. San Martin eta Irigoien

iruditu zitzaizkidan interesgarrienak. Bizkaikoan Alfonsori antolakuntzan laguntzen ere ibili nintzen zerbait.” (X. Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02).

Garai hartan bolo-bolo zebiltzan hainbat ideiak ez zuten gehiegi komentzitzen Amuriza gaztea: “Euskararen inguruko hainbat mitok indar handia izan zuten aurreko belaunaldiengan. Euskara Adan eta Evarengandik zetorrela eta gisakoak... Eta gure belaunaldiak mito horiek hausteari ekin zion.” (X. Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02). Esaterako, bertsolaritza munduan bakarra zela zioen kontua:

“Kultura pobrea denean zerbait eskusiboa ere gorde nahi izaten da. Ahulak gara baina bertsolaritza gurea bakarrik da. Horregatik esaten zuten hau ez dago beste inon. Berezkoa dela hausten bada, zalantzan jartzen da eskusibitate hori ere (...) Ni seminarioan bertan hasi nintzen lehen susmoak hartzen; gurea bakarrik izatea oso bitxia egiten zitzaidan. Gogoratzen naiz ‘Martin Fierro’ literaturan ikusi genuenean ohartu nintzela haiek Argentinan egiten zutena gurearen oso antzekoa zela (...) Hamabost hamasei urterekin bertsolaritza munduan bakarra zenaren mitoa nahikoa zalantzan neukan.” (X. Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02)

Bertsotarako gaitasunak berezkoa behar zuela zioen mitoa ere atzean gelditu zitzaion:

“Abel Muniategirekin seminarioan bertsoa lantzen hasi nintzenetik asko aurreratu nuen, nahiz eta sistemarik gabe lan egiten nuen. Urteetan bertsoa ezin bukatuz ibili eta gero ikusi nuen azkena pentsatuta errazago egiten zela. Eta pixkanaka horrelako deskubrimendu gehiago egin ondoren, argi ikusi nuen ikasketa prozesu hori nolabait sistematizatuz bertsotan ikasteko metodo bat garatu zitekeela (...) Ezjakintasuna izan ohi da mitoen bazkarik onena. Normalean karrera bat egin baduzu eta ikasten saiatu bazara, badakizu gauzak ikas daitezkeela. Harritzen ninduen zen jende kultuak nola defendatzen zuten bertsolariaren berezkotasunaren kontu hori.” (X. Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02)

Ikusi den bezala bertsolaritza sozialarekin konprometitua agertu zen 1960ko hamarraldian⁵²⁷:

“Bizi genuen itomen hartan begi onez ikusten zen euskararen alde zetorren guztia. Bertsolariak entzutera joatea errebindikazio identitario bat zen, kolektibo bat ginela sentitu, jende pilo bat ikusi eta txaloak jotzea (...) Bertsolariak zerbait berria esaten hasi zirenean, 65erako, gazteria mugitzen hasita zegoen, ETA, Herri Gaztedi eta hainbat gauza zeuden martxan. Mugimendu horrek eta mugimendu kulturalak kalean nahi zuten bizirik bertsolaritza, ez baserrian. Berrikuntza handi bat ari zen ematen maila guztietan.” (X. Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02)

Ez zen euskal Pizkunde hartan eta borroka antifrankistan buru-belarri murgildu zen elizgizon bakarra. Apaiz eta fraide gazte talde handi samar batek garaiko manifestazioetan parte hartu, pulpitutik borroka hauek sustatu eta itxialdiak edo gose grebak egiteari ekin zion eta 1968tik aurrera etorri zitzaien ordaina: behialako eskarmentua eman nahi izan zien erregimenak eta honen funtsezko sostengu zen espainiar Elizaren buruek, eta eurentzat propio prestatuturiko espetxean, Zamoran, hartu zituzten preso (Orbe, 2012). 1968tik 1976ra bitartean zazpi urte egin zituen presondegi hartan Amurizak, hiru espetxealditan.

⁵²⁷ Ik. 6.4.3.2 Bertsolaritza soziala: Amurizak Lopategiri eginiko elkarrizketa

Erregimena aldatu bitartean kartzelatik kanpo ez zuen bake handirik izan bada, aktibismo politikoari lotu zitzaien: lelo nagusizat Gogorkeriaren aurka Gogortasuna hartu zuen euskal elizgizon haiek eratu zuten Gogor taldeak. Espetxean, ordea, topatu zuen bestelako kontuetara jartzeko tarterik, eta Azkueren hiztegia atzekoz aurrera jartzeari eta hitzak kategoriaka sailkatzeari ekin zion, horrela sortu zuen bere ‘Hiztegi Errimatua’: “Kartzelan egon ez balitz, lan hori beharbada ez zuela egingo badaki. Orduko baliabideekin, dena eskuz egiten baitzen, denbora behar da lan hori guztia egiteko. Eta Azkueren hiztegia atzekoz aurrera jarri zuenean, ikusten hasi zen zer zegoen.” (Barandiaran, 2011: 22). Seminariotik bueltaka zerabilkien ideia, bertsolaritza ikasteko pedagogia bat sortzea, egosten hasia zen ordurako.

1977an kartzela behin betiko utzi zuen, baita apaizgoa ere. Eta 1978an lehenengo Gontzal Mendibilekin eta gero Josu Zabalarekin herriz-herriz bertso berri musikatuak abesteari ekin zion: “(...) jendeak bazuen gai sozial eta politikoen egarria. Bururatu zitzaidan tokian tokirako bertso jarriak prestatu eta bertsook musikarekin jantzita plazak betetzeko formula polita izan zitekeela, bertso jarriei toki bat egiteko modu egokia izan zitekeela” (Agirre, 2013a: 52). Herri batetik deitzen zutenean informazio bila joaten zen kontzertua baina bizpahiru egun lehenago. Afari bat egiten zuen antolatzaileek proposatutako kontaktuekin eta hortik ateratako informazioa filtratu eta ordenatu ondoren 60 edo 70 bertso prestatzen zituen hurrengo egunetan: “Kaleen izen frankistak zirela, herriko pertsonaia baten gora beherak zirela... Tokian tokirako propio prestatuak ziren bertso gehienak, baina tarteka orokorrago batzuk ere sartzen nituen. Gogoan dut Lemoizko zentral nuklearrari buruzko batzuk ia saio gehienetan abesten nituela” (Agirre, 2013a: 53).

Urte berean kazetari lanetan hasi zen abiatu berria zen *Eginen*: “Ni kazetari moduan hasi nintzen Bilboko egoitzan egun osoko lanean; titulurik gabe baina kazetari lana egiten nuen. Herrietako orrialdeak zeuden nire kargu” (X. Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02). Eta zutabegile izatera pasako zen gero: “(...) ekonomia aldetik oso larri zebilen proiektua eta nik egunkaririk kanpo ere bizimodua atera nezakeela esan nien arduradunei, neure burua ateratzeko boluntario gisa aurkeztuz. Orduan proposatu zidaten astean hirutan edo ‘Semaforo gorria’ idazteko eta gerora eguneroko zutabe bihurtu zen” (X. Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02). Gerora ‘Arrano Beltza’ zutabea ere eskaini zioten, hedaduraz zerbait luzeagoa, eta biak tartekatuz 25 urte egin zituen jarraian egunkari berean zutabegintzan. Bertsolaritza gutxitan jorratu zuen berauetan:

“(...) normalean gai sozialak eta politikoak lantzen nituen zutabe hauetan. Ezker abertzalearen barruko kontsumorako ziren gehiago. Hala ere jarraitzaile dezente nituen, baita ezker abertzalekoak ez zirenak ere. Lehen aipatu ditudan Antton Haranburu edo Joxe Mari Aranaldekin badakit irakurtzen zituztela, *Deiaren* orbitan zebiltzan arren.” (X. Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02).

Haranburu eta Iriondok Etxanokoak ekarritako iraultza Basarrik 1935ean buruturikoarekin alderatu zuten bezala, bi bertsolarien artean beste lotura bat ere marraztu daiteke, beraz: Amuriza izan zen Basarriren ondotik, kazetaritzan murgildu eta zutabegile erreferentzial gisa funtzionatuko zuen bigarren bertsolaria.

8.2.1.3 Barruko eta barrurako begirada: 'Ikuska 18' berrikuntzaren ginga gisa

Ez zegoen Amuriza geldirik egoteko: 1981n 'Hitzaren kirol nazionala' eta 'Hiztegi errimatua' argitaratu zituen, 1982an 'Laurehun herri mila bertso berri' eta 1984ean 'Zu ere bertsolari'.

Honela azaltzen du kartzelan egindako lanak hartu zuen oihartzuna:

“Espetxetik itzuli nintzenean, sorpresa handia izan zen, konturatu ginelako tripak bistaratu nizkiola bertsolariek egiten genuen horri, nahiz eta hori lanketa inkontzientea izan zen. Baina apunteak atera eta aurkeztu nituen, borondaterik onenez. Bilera handi batean banatu egin nituen, eta bertsolarien artean erreakzioa berehala izan zen, esan balute bezala, ‘baina orain honek irakatsi behar al digu bertsotan?’ Errespetuz hartu zuten, baina errezeloz ere bai: ‘Zertan ari duk hau?’ (Barandiaran, 2011, 22)

Egañak garbi dauka 'Hiztegi errimatua' hark suposatu zuen iraultzaren dimentsioa:

“Askoren ustearen kontra, Amurizak bertsolaritzari eman zion astinduaren oinarria gramatikala izan zen. Amurizaren inbenturik funtsezkoena honetantxe datza: hain zuzen ere, propio, errimak sail gramatikal desberdinetatik hartzean bertsoero. Honela, adjetibo bat, adizlagun bat, sustantibo bat eta aditz-erroa nahasiko zituen errima gisan bertso bakoitzean (...) Sail gramatikal bakoitzeko hitzek egitura gramatikal desberdinak eskatzen zituzten aurretik eta, ondorioz, gauza desberdin asko esateko era zeukan bertso bakoitzean.

Toki onean geratzen ziren Uztapidek edo Lasartek lau konpletibaz edo lau aditz laguntzailez bertsoak dotore osatzen zituzten garaiak!

Azken hamarkadako bertsolariak Amurizaren zordun gara alde horretatik.” (1993a: 22-23)

'Hitzaren kirol nazionala' ere iraultzailea zen, bertsolaritzaren garapen soziokulturalari lehen aldiz Bigarren Pizkundeak garaturiko ikuspegitik begiratzen baitzitzaion bertan. Testuinguru berriari egokitzeko bertsolaritzak hartu beharreko tokiaz, bertsolaritzaren transmisioaz eta beste hainbat konturi buruz aritu zen, beti ere bere esperientzia eta gogoeta pertsonaletik abiaraziriko ideiak plazaratuz: “Esku hartze soziokulturalaren alde egin zuen: bertsolaritza ez zela berezkoa aldarrikatu zuen, eraiki egiten dela, eta, bide batez, jardunerako hainbat tresna proposatu zituen. Proiektu soziokulturalari ateak ireki zizkion horrela” (Zubiri, 1990: 30).

Nobedade asko ekarri zituen, bada, Etxanokoak. Nobedaderik garrantzitsuena, ordea, guzti hauek bertsolari batek ekarri izana suertatuko zen: barruko eta barrurako begirada estreinatu zituen. Basarrik ere egin zituen ekarpenak, eta Amuriza bezain bertsolaria zen zarauztarra. Proiektu soziokulturalari zegokionean, ordea, kanpoko begirada zen berea, bertsolariak ez ziren gerra aurreko Aitzol, Zubimendi eta enparauengandik ikasitakoa. Bertsogintzaren alderdi teknikoek zegokionean, bestalde, ez zuen Amurizak erakutsitako barrura sakontzeko gaitasunik erakutsi. Izan ere, Amurizak, berak esan bezala, bertsoaren tripak erakustea lortu zuen⁵²⁸.

⁵²⁸ Hau horrela izanik nolabaiteko jarraidura bat badagoela ere seinlatu behar da, Joxerra Garziak egiten duen bezala: “Nik uste dut hari garbi bat dagoela hor: Basarri-Amuriza-Egaña/Sarasua lotzen dituela. Bertsolariak izaki, beren jardunari buruzko teoria ere landu dute eta oso garrantzitsua da hori, bertsolariak ez diren aztertzaileek ezarritako kategorietatik bertsolariei berei garrantzizko zaizkien kategorietara pasatzea baita interesgunea.” (Iraola, 2000: 136)

Barrenak ateratzeko ariketa hori Etxanokoak asmatu zuen, baina badirudi garaiak ere eskatzen zuela. *Jakinen* honela bukatu zuen 1980an ‘Bertsolarien barne prozesua’ izeneko artikulua: “Bukatzeko, lerro hauek ez dakit zuek nahi duzueneko askorik balio duten. Gauza hauek galdera gehiagori eta galdera konkretuei erantzunez beharbada hobeto azalduko nituen. Elkarrizketaz hobe izango zen (...) Nik nahiago nuke horrela, hemen jarri ditudanak ez baitatoz hain parera” (Amuriza, 1980: 137)⁵²⁹. Itxura guztien arabera, bada, enkarguz eta nahikoa deseroso ekin zion lan horri, baina praktikarekin primeran asmatuz bukatuko zuen.

Ariketa beste alor bateko sortzaileari, Antton Ezeiza zine zuzendariari ere deigarria suertatu zitzaion, eta dokumental bat egitea erabaki zuen. Lana prestatzen ari zelarik, azalpen hauek eskaini zituen *Egin* egunkarian 1983ko irailean emandako elkarrizketa batean: “Se trata de intentar reconstruir todo el proceso mental de los breves segundos que transcurren desde que al bertsolari se le da el tema e inicia su actuación. Vamos a intentar desentrañar los mecanismos de fondo de la creación poética.” (Martinez, 2011: 47). Horretarako 1980ko finaleko irudiak baliatu zituen, Amurizak ‘Aita’ gaiari bota zizkion bertsoaldikoak, bertsolaria gaia entzuten, bertsoa pentsatzen eta abesten erakusten zutenak, eta tarte horietako bakoitzean burura etorri zitzaizkion ideia eta pentsamenduei ahotsa jarri zien Amurizak berak.

1983an estreinatu zen *Ikuska18* dokumentala bertsolaritzaren barruko eta barrurako begirada erakutsi zuen prozesu honen ginga moduko bat izan zen. *Ikuska* saila urte haietan Euskal Herrian burutu zen ikus-entzunezko proiektu garrantzitsua izan zen (Martinez, 2011: 46). 1979tik 1984ra hamazazpi zuzendari ezberdinek landuriko hogeita bat dokumental labur eskaini zituen. Garaiko euskal zuzendari gazte garrantzitsu guztiek hartu zuten parte⁵³⁰, eta proiektu berritzailea izan zen: Euskal Herriko errealitatearen inguruko dokumentalak egitea zen asmoa, medio profesionalekin (Caja Laboral-en finantzazio garrantzitsua izan zuen proiektuak) nazio ikuspegi batekin eta euskaraz. *Ikuska18* honek prestigioa eta modernotasun kutsua eman zion bertsolaritzari. Antton Ezeiza pieza honen zuzendari ez ezik proiektu osoaren koordinatzaile izan zen gainera.

Gingaren prestigio eta modernotasuna gora behera, Amurizak egindako ariketa funtsezkoa izan zen bertsolaritzaren bilakaeran. Bertsogintzaren tripak ezagutzea ezinbestekoa zen bertsogintza irakasten hasteko.

Horretara zetorren Amurizak 1984ean argitaratu zuen ‘Zu ere bertsolari’ lana. Didaktika oso bat eskaintzen zen bertan.

8.2.2 Bertso-eskolen loraldia

8.2.2.1 Bertso-eskolak martxan

Amurizaren ekarpenak abantaila argi bat zuen ordura arte bertsolaritzaren inguruan egin zirenekiko, lanketa teorikoaren erakustaldi praktikoa egiteko gai zen egilea: “Teorizazio hori, bertsolari batek egindako gogoeta baten emaitza da (...) ordura arte Lekuonak, Onaindiak, Zavalak egindako lana ez bezalakoa. Amuriza bera jarduten da bertso eskola askoren giroa sustatzen eta bera bertsolaria izanik, bere teorizazioaz praktikan baliatzen da (...)”

⁵²⁹ Gisa honetako azalpenak eskaintzen ditu artikulua: “Azkena zintzilik edo ezin bilaturik edukitzea, horixe da txarrena, horrexek izorratzen nau gehien. Segurantzika psikologikoa da beste ezer baino gehiago, baina beharrezkoa soltuz kantatzeko. Gero bidean hoberik badator aldatzea han dago beti eta behin baino gehiagotan egiten dut hori, baina irteera bat seguru dagoenean” (Amuriza, 1980: 137). Biluzteko prestutasun ausart bat darie bertsolariaren hitzei, baina baita biluzteko soltura gutxi ere.

⁵³⁰ Montxo Armendariz, Imanol Uribe, Pedro Olea, Juanba Berasategi, Koldo Izagirre edo Jose Julian Bakedanok hartu zuten parte. Sail osoaren argazki zuzendaritza, berriz, Javier Agirresarobek burutu zuen.

(Larrañaga, 2014: 71). Lehen erakustaldi praktikoa Santutxuko bertso-eskolan eman zuten (Barandiaran, 2011: 22), eta toki guztietatik hasiko zaizkio deitzen:

“Bolada horretan, bertsolaritza gustagarri egiten zelako, edo euskara ikasteko eta praktikatzeko oso baliagarritzat jotzen zelako, edo jolas moduan tiratzen zuelako edo kulturaren adierazpen haunditzat hartzen zelako, edo arrazoi guzti horiek batera biltzen zituelako, bertso ikastaroak nonahi eskatzen hasi ziren. Laburragoak edo luzeagoak, baina gehienez hamar orduetatik gorakoak eta batzutan oso luzeak ere bai (...) Euskararen edo kulturaren alde etorri eta bertsozale irten. Ikastaroekin batera bertsolaritzari buruzko hitzaldiak eta mahainguruak ere asko zabaldu ziren.” (Amuriza, 1987: 36)⁵³¹

Bertso-eskolen mugimendua ez zen Etxanokoarekin hasi, eta bere ekimen pertsonala baino askoz ere prozesu zabalago bat izan zen. Baina bere ekarpenak eta figurak bai balio izan zuten fenomenoaren loraldia hauspotzeko: “Eibar, Elizondo, Hernani, Iruñea, Gasteiz, Donostia, Bilbo, Algorta... jendeak ikusi zuen proba zitekeela, material horrekin zer bait egin zitekeela. Neure meritua baino gehiago, uholde bat etorri zen, eta ni hartu ninduten seinale moduan” (Barandiaran, 2011: 24).

Barandiaranek eskaintzen du (2011: 41-42) kronologia osoa: Aipatu den gisan Almengo bertso-eskola izan zen martxan jartzen lehenengoa, 1974ean; hamarkada horren bigarren erdian Mallabiakoa, Durangokoa eta Lamikizkoa etorriko dira; 1979an Jean Pierre Mendiburuk bertso ikastaroa emango du Baigorri eta urtebete geroago Ipar Euskal Herriko Bertsularien Lagunak Elkarte sortuko da; 1980 horretan hasiko dira Amurizaren ikastaroak, lehenengoa, esan bezala, Santutxun, bertako bertso-eskola sortuko delarik; 1981ean Iruñean emango duen ikastarotik Zaldiko-Maldiko bertso eskola eta Nafarroako Bertsularien Lagunak Elkarte sortuko dira; Algorta, Gernika, Ondarroa, Arratia, Garriko, Larrabetzu, Mungia, Zumaia, Zarautz, Goierri eta Gasteizen bertso-eskola bana dute hamarkadaren lehen erdirako.

Bertso-eskola horietara bertsozale tradizionalaz besteko jende bat biltzen zela ikusten zen: “Gehienez jende gaztea edo gutxienez bertsozale klasiko horietaz desberdina zen. Baita ere gehienez jende eskolatu samarra zen, ikasten ari zirenak edo ikasketak amaituak zituztenak, batez ere euskara munduan irakasle zebiltzanak etab.” (Amuriza, 1987: 37). Baita euskaldunberriak ere: “Eskola horiek sortzearen helburua anizkoitza zen. Alde batetik bertsolaritza bera, ez hainbeste bertsolari izateko helburu zuzenez, bertsozaletasuna sartzeko baizik. Horrekin batera euskara lantzea eta praktikatzea ere helburu haunditzat zeukaten. Kontuan izan portzentaje handi bat euskaldun berriak zirela” (id.: 37). Edo emakumeak: “Beste kontu bat oso aipagarria emakumezkoen presentzia da (...) Horretan, beraz, historiaren lastrea gainditu da (...) Beste kontu bat da noiz hasiko diren emakume bertsolariak agertzen (...) Ibiliz egiten da bidea eta badira neska batzuk poliki bertsoan egiten dutenak ere” (Amuriza, 1987: 38-39). Ikusten zen askotarako eman zezakeela gune horrek: “Ordu horiek gero beste anitz lan eta ekintzetarako ere aukera emango zuten, lagunak ez bait dira ordu batzutarako bakarrik izaten” (id.: 37). Eta mugitzea lortu zen kopurua oso handia zela:

“Dabiltzanak eta ibiliak, denak batera jota, hots, ikastaro luze samar bat gutxienez egin duten guztiak jota, bildurrik gabe esan liteke milaka direla. Gehienak gazteak izanik, eta

⁵³¹ Amurizaren ‘Hiztegi errimatua’k, ‘Zu ere bertsolari’k, edo ikastaroek izandako arrakastak XVIII. mendean ‘Hocus Pocus’ek Europan izandakoa dakar gogora. ‘Kulturaren sekularizazioa’, mistifikazioaz gabetzea, deritzo Burkek fenomenoari: “‘Hocus Pocus’, otro libreto reimpresso en multitud de ocasiones, desvela los trucos de los malabaristas e ilusionistas, demostrando que era la destreza manual y no la magia la que les guiaba. Tales ejemplos nos sugieren que muchos de los cambios que ese produjeron en la cultura de los educados –notablemente esos complejos cambios pueden resumirse en la frase ‘la revolución científica’- estaban teniendo impacto en la cultura popular” (Burke, 1991: 361)

beste zenbait arlotan ere mugitzen direnak izanik, bertsolaritzak entzulego berri horrekin asko irabazi duela bistan dago.” (Amuriza, 1987: 39).

Almengo lehen bertso-eskola hartako arduradunek Ikastolen Elkartera nola jo zuten aipatu da, jada⁵³². Bide horretatik sortuko da fenomenoaren bigarren adarra, ikastoletan irakasgai edo ikastaro gisa txertaturik garatuko den bertsolaritzarena. Lehen ikastaroak Mikel Mendizabalek eman zituen 1981ean eta urte bat geroago Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Ikastolen elkarteak sinaturiko ‘Bertsolaritza Irakaskuntzan’ hitzarmenari esker liberatu gisa hasi zen Gipuzkoako ikastetxeetan. 1983an Lopategi izango zen Bizkaian lan hori egiten hasiko zena. Eta ikastoletako lanketaren eta bertso-eskoletakoaren arteko sinergiak hasi ziren:

“Andres Osa Sakonaren ekimenez, Gipuzkoako bideari jarraitzeko presioak hasi ziren, eta, azkenean, arduradunak konbentzitu eta, 1983-84ko ikasturtean, Jon Lopategik bertsolaritzaren ardura hartu zuen Bizkaiko ikastoletan. Lopategiren itzala handia zen Bizkaia osoan, 60ko hamarkadatik plaza gehien egindako bertsolarietako bat zelako, Azpillagarekin batera, eta Durangoko Bertso Eskolatik hots egin zioten. Hara joan, ikastolatik heldu ziren gazteak hartu, eta haiekin bertsoa lantzen hasi zen.” (Barandiaran, 2011: 79)

Arabako ikastoletan Abel Enbeitak 1984ean hartuko zuen ardura bera eta Nafarroako D ereduko ikastetxeetan 1985/1986 ikasturtean hasiko dira bidea urratzen, arduradun Lontxo Aburuza izendatuta, dirudienez Jorge Oteizaren laguna zen kultura zuzendariaren esku hartzea zela medio (Barandiaran, 2011: 43). Amurizak esplikatzen du arduradun hauek askotan bitarteko gisa funtzionatzen zutela: “Hauen eginkizuna batez ere irakasleei laguntza eta materiala eskaintzea da, berek ez bait daukate haur guztiekin zuzenean ibiltzerik, eta behar ere ez. Irakaslea da haurrengana iristeko bitartekorik zuzenena eta emankorra” (Amuriza, 1987: 40). Eta ekimenaren xedea zehazten du: “(...) bertsolari eskolen helburua bertsolariak zuzenki ateratzea ez bazen, ikastetxeetan bai badela hori bi bider esatekoa (...) Bertsolaritzarekiko harremana eta gustua eskaini zaien mila haur horiengan zerbait baino gehiago geratuko eta agertuko dela dudarik ez izan” (id.: 40). Baita kopuru batzuk eman ere:

“Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan (Nafarroan liberatua hasi berri baita) joan den ikasturteko sariketa idatzietan parte hartu dutenak lau milatik bost milara bitartean dira. Horrez gainera, sariketan parte hartu ez arren, urtean zehar bertsolaritzan ikaspide zerbait hartu duten guztiak joez gero, zazpi-zortzi mila haur tartean dabiltzala esatea ez da gehiegikeria izango. Sariketa idatziez gainera, bapateko txapelketak ere egiten dira. Horietan, jakina, askoz gutxiago izan behar, baina uste baino gehiago eta hobeak.” (Amuriza, 1987: 40)

Bat-bateko horiek ugaritzen hasi ziren, ordea, eta 1989an Eskolarteko bertsolarien Euskal Herriko I. Txapelketa antolatzea izango zen hurrengo pausoa.

8.2.2.2 Bertsolaria Jaio vs. Egin

Honela zioen Basarrik bertso-eskolen mugimendua loratzen hasi berritan:

“Asko itzegiten da gure egunetan Bertsolari Eskolaz.

‘Olako ta alako’ tokitan Bertsolari Eskolak sortu dirala.

Uztaidazute galdera au egiten: Ikasi ditekean zerbait ote da bertsolaritza? Berezkorik ez duanarentzat, itxasoan porruak aldatzea bezela dala esango nuke (...) sena berekin duala konturatu ezker, alakoari lagundu egin bear zaio, ori bai (...) Saillean mutiko danak batera artuta ez da ezer aurreratuko (...) Pagoari ez dago intxaurrik eskatzerik. Artarakoa ez danak ez dauka zer egiñik,

⁵³² Ik. 7.3.1.2 Bertso-eskolek haustura eta egokitapenerako giltza

ogei eskola pasatzen baditu ere.” (*El Diario Vasco*, 1981/VII/11, ‘Nire Bordatxotik’, Iñaki Eizmendi *Basarri*)

Bazen gordinago mintzo zen bertsolaririk ere. Honela kontatzen du Sarasuak Garziak eginiko elkarrizketa liburuan:

“Aspaldiko –eta ez hain aspaldiko- bertsolariek garbi zeukaten kontu hori: bertsolari jaio egiten da bat, hori gabe ez dago zer eginik. Jose Joakin Mitxelena zenak metafora bikoitz batez ematen zuen hori aditzera: berezko bertsolaria iturriko ura da; bertso-eskolan ikasia, berriz, depositokoa.” (Garzia, 1998: 66)

Eta askoz ere jantziagoak eta modernoagoak ziren zenbait ahotsek ere zalantzak agertu zituen:

“Berorietan, bertsoaren teknika irakatsi da, batez ere. Eta horren fruitu den bertsolaririk bada, gaurregun. Teknika ikasi, memoria landu, klixek egin (...) Hori ote da egiazko bertsolaria?, galdetuko du norbaitek.

Ez dakit zer erantzun. Antzinako bertsolariek, ez zuten horrelako biderik. Eta antzinakoen ‘jatortasun’ hori galduz doanaren seinale izan daiteke bederatzita puntukoaren galtzea, bat-bateko bertsoan bizitasuna galtzea, gaurregun bertsoan teknikoago eta hotzagoa egitea. Baina, joerak dira. Kultura idatziaren garaiak ekarri eta gizartean txertatu dituen joera berriak (...)” (Haranburu eta Iriondo, 1980: 46)

Izan ere, ikusi den bezala, bertso-eskolei ikaslerik falta ez bazitzaien ere kontra agertu zirenak ere ez ziren gutxi. Honela goratzen du Egaña: “Amurizari barre egiten ziotean batzuek, besteek muturra okertu, eta gutxi batzuk izan ziren bertsolaritza ikasi egin zitekeela eta urratsetariko asko taldean eman zitezkeela hasieratik onartu zutenak” (Egaña eta Sarasua, 1997: 154). Eta Amurizari egin zitzaion ‘markajea’ azpimarratzen du:

“Mito horren inguruan, uste tinko horren eraginez, gutxitan bezalako injustiziak egin izan dira bertso-munduan. Xabier Amurizak, birritan Euskal Herriko txapela jantzita gerora ere ‘proba’ asko jasan behar izan ditu. Adi eta erne egongo zen entzulegoaren zatirik klasikoen hura antiojodunak zer esango, nola esango eta batipat... non huts egingo. Ikasia zelako, beste askok ez bezala, erakutsi egin behar izan zuen begi-bistakoa: bertsolaria zela”. (Egaña, 1993: 30)

Aurreko atalean luze eta zabal azaldu da Jaio vs Egin dikotomiaren atzean Lehen Pizkundean finkatu zen euskalduntasunaren eta euskal kulturaren irudikapen esentzializatua eta irudikapen hori zalantzan jarri zuen Bigarren Pizkundearen olatu berritzailea aurkitzen zirela⁵³³. Modu soilagoan azaltzen du Joanito Dorronsorok:

“Berrikuntza guztietan gertatzen da, datozenean, planteamenduak zeharo garbi egin gabe etortzen dira, eta hasieran shock bat bezala eragiten dutela. Joera batean bertsolaritza zerbait mitiko samarra bezala zegoen hartuta. Berezkoa, Jainkoak emandako dohain ezkutua, etab., lilura bat duena, misteriozkoa denez. Beste joera batek hor misteriorik ez dagoela, esango du; bertsolaritzak teknika batzuk ditu, txikitatik hasiz gero ikas litezke, beste edozer gauza ikasten den moduan. Hori dela eta, hain zuzen, bertsolaritzaren oinarritzako kontzeptuak argitu beharra etorri da, eta ari dira argitzen. Zer den zehatz-

⁵³³ Ik. 7.3.1.1 Irudikapen erromantiko esentzializatuaren itzal luzea eta 7.3.1.2 Bertso-eskolek haustura eta egokitapenerako giltza

mehatz puntua, oina, edo zortziko txikia. Hiztegi bat ere ez zegoen egina, terminoak berak finkatzeko. Eskolan sartuko bada, ordea, teorizazio bat egin beharra dago, eta egiten ari gara.” (Dorransoro eta Lekuona, 1987: 24)

Pizkunde bakoitzetik abertzaletasun bana jariatua zen, eta bi abertzaletasunen arteko lehiak ere estutu zuen korapiloa. Amurizaren posizionamendu politikoa, eta bertso-eskolen inguruan lanean ari ziren beste hainbatena, Lopategi esaterako, ezaguna zen gainera. *Master Framea* berriro ere.

Eztabaidak gora behera, bertso-eskolek aurrera jarraitu zuten, ordea, eta bere fruituak ematen hasi ziren. Adibidez, 1986ko Euskal Herriko finalera iritsi zen 20 urte eskasekin, Jon Sarasua, Almengo lehen bertso-eskola hartako ume izandakoa:

“Ez zen bertsolari oso on, on, erdipurdiko edo txar epaitzen. Bertsolari “bada edo ez da” zen mugarrria. Eta hori horrela planteatzen duenaren epaiak badakizue ze bide hartuko zuen: ezezkoarena (...) Esentzialisten zigor, iritsi ziren Jon eta Aitor Sarasua, Aristorena, Arantzazu Loidi... Bertso eskolek bere bideari segi zioten (...)” (Egaña, 2004: 150)

Aipatu den bezala, irudikapen esentziazatuaren itzala luzea izan zen oso. 1987an, Sarasua finalera iritsi eta urtebetera, aktibo zeuden bertsolari guztien artean egindako inkestaren emaitzak argitaratu zituen Jakin aldizkariak, eta emaitzak esanguratsuak dira oso: %47,8ak bertsoetan ikasi egin daitekeela erantzun zuen, eta %45ak berezkoa dela (Torrealdai, 1987: 157). Zenbait ñabarduretan hartutako bideak itzulerarik ez zuela izango ere ikusten zen, ordea: berezko senaren garrantzia azpimarratzen zuten bertsolarien gehiengoa 50 urtetik gorakoa zen; eta hautu hori egiten zuten artean ere gehiengoa bertso-eskolen aldeko ageri zen, bertsolari guztien %91,4ak bertsolaritza zabaldu eta hobetzeko balioko zutela uste baitzuen; %7,2ak bakarrik egiten zuen balorazio negatibo bat, bertsolariak berdindu egingo zituztela, bertsolaritza hotzagoa zekartela eta gisakoak aipatuz (id.: 157-158 eta 172-173).

Edonor nekatzeko modukoak izan behar zuten eztabaida hauen erdian egon zen kontua umorez hartu zuenik ere:

“Bertsolaria jaio egiten omen dela askotan entzun dugu, noski. Eta hori egia izanik ere, ez da egia osoa. Joxe Agirre «Orandak», behin batez ‘estraineko jaio behintzat’ erantzun zidan jaio ala egin egiten zen galdegin niolarik. Eta ‘estraineko jaio’ egiten dela bistakoa bada ere, gero egin egiten da bertsolaria.” (Haranburu eta Iriondo, 1980: 45)

Gora-behera haien kondar batzuk jarraitu dute oso gerora ere. Honela dio, esaterako, Egaña 2004ean: “Bertso eskolek eman duten uzta ikusirik, normala da eztabaida antzu hori baretuxea egotea gaur egun: zaila da begi-bistakoa dena ukatzen. Hala ere, bada oraindik eztabaida horri plazer hartzen dionik ere.” (Egaña, 2004: 101). Baina, umorez hartzeko jarrera da nagusitu dena: “(...) Egiteko, aurrena jaio egin behar izaten dela esan izan dugu orain arte, txiste merke modura, gai hori saihestu nahirik edo. Txiste horrek ere badu bere buelta. Izan ere, inor jaioko bada, beste norbaitzuek egin egin beharko dute aurrena... beste horretan.” (Egaña, 2004: 101)

8.2.3 Profil berrien kontsolidazioa: bestelako bertsolari eta bertsozaleak

8.2.3.1 Bertsolariak

Bertsolari Elkarteak sortzear zela, eta honen sorrerarako burutu ziren gogoetarako oinarri gisa balio zezan, zentsaturik zeuden bertsolari guztien artean inkesta handi bat egitea erabaki

zen. 140 bertsolari galdekatu ziren, azterketa soziologikorako Siadeco etxeak burutu zuen kodeketa eta Juan Mari Torrealdai idatzi zituen Jakin aldizkarian argitaratu ziren emaitzak. 1980ko hamarkadaren erdialdeko bertsolariaren argazki errealista bat ateratzeko balio izan zuen lanak, eta argazkiak aldaketa zantzu garrantzitsuak eskaintzen zituen.

Ikasketa mailari dagokionean (Torrealdai, 1987: 109), esaterako, lanaren emaitzek lautik hiru batxilergora iritsi gabeak zirela erakusten dute, %61,1 ak oinarrizko heziketa edo gutxiago jasotakoak zirela, eta %3,5 bat bazegoen batere eskolarik gabea. Iztuetak XIX. mende hasieran egindako erretratu horren zantzuak ikus daitezke emaitzetan, baina baita bestelakoak ere: adin tarte gazteenean 15etik 24 urtera bitartean, %85,7ak lehen mailako ikasketetatik gora zuen.

Lanbideari dagokionean aldaketa nabarmenagoa zen (Torrealdai, 1987: 112). Bertsolaritza baserri-munduarekin lotzen zuen irudikapena 50 urtetik gorakoen artean bakarrik har zitekeen egiazkotzat, %46,9 zen baserritarra. 15etik 24 urtera bitarteko artean %9,5a bizi zen baserritik, 35etik 49era bitarteko artean lantokietan ari zen %64'6a eta 25etik 34 bitarteko artean ere langile-jendea zen gehiengoa, %18,4a irakaskuntzan zebilelarik.

Ondorioen artean aniztasunean, eta aniztasun honek suposatzen zuen normaltasunean, jarri nahi izan zuen azpimarra Torrealdai:

“Zein irudi eta tankera isladatzen du gaurko bertsolariak?

Zorionez, gaurko bertsolariaren irudi bat baino gehiago dago. Esan nahi dut: inguruan bezala, denetik dagoela bertsolarien artean ere. Populazio normala dela, alegia. Populazio marjinal bat identifikatzen errezago izaten da beti (...) Segurutik, askoz errazagoa zatekeen duela 50 urteko bertsolarigoa aztertzea, homogenoagoa zelako.” (Torrealdai, 1987: 164-165)

Aldaketa, normala denez, bertsolari gazteenek zekarten. Hurrengo hamarraldiaren hasieran Andoni Egaña bertsolari hauen etorreraren kronologia mailakatua eskaintzen zuen:

“1980-82 inguruan belaunaldi berri bat sortzen da bertso-munduan. Indarrez dator. Denak oso adin beretsukoak dira gainera: S. Lizaso, Peña, Telleria, Murua eta Mendizabal lirateke aipagarrienetakoak.

1985-86 aldera, berriz, beste belaunaldi bat iritsiko da. Besteak beste, Egaña, Sarasua eta Euskitze.

Hiru-lau urte geroago Sorozabal, Maia, Iturriaga, Elorza, Munduate, etab.” (Egaña, 1993: 17)

Aipatzen dituenen artean, bigarren erdian agertzen diren batzuk, bertso-eskoletatik ateratako lehen labekadakoak ziren. Hori zen Jon Sarasuaren, Jon Maiaren, Unai Iturriagaren eta Igor Elortzaren kasua. Gainerakoak bertso-eskoletatik pasa gabeko azken bertsolari gazteak izango ziren, Egañaren belaunaldia hain justu.

Bertso-eskoletatik pasa gabeak izanagatik, bertsolariaren irudi klasikoarekin zerikusi gutxi zuten: baserritar baino kaletarragoak ziren gehienak, ikasketa maila altu bat zuen hainbatek... Hauek ziren *Jakinen* argitaratu zen inkestako bertsolari gazteak. Irudi klasikoari ez zitzaizkion lotzen, ordea, adin ertainekoak ere:

“Sarritan —sarriegitan— bertsolariaren eredu eta irudi zahar eta zaharkitua darabilgu XXI. mende industriatsu eta hiritartuaren atarian. Bertsolaria berdin baserritar, eskolagabe, arlote, ezjakin. Txirritaren irudiak pisu handiegia izan du.

Gaurko bertsolaria, ordea, ez da honelakoa. Bertsolaria, gaur, ez da jendaurrean agertzen, txapela, abarka eta mahonezko galtzekin. Basarrik 1935ean gainditu omen zuen Txirrita: bertsolaritza sagardotegitik plazara atera da, brusatik gorbataraz igaro da.” (Torrealdai, 1987: 104)

Txirrita eta Basarriren arteko eredu talkaz ari da Torrealdai, Sagardotegikoa vs. Gorbataaduna dikotomiaz. Agerikoa da aurreko zikloan bertsolaria sagardotegitik ateratzeko Basarriren setak gorpuzten zuen modernizazioa gailentzea ekarri zuela denborak, baina artikulua argitaratu zen 1987 hartarako gorbataren irudikapena bera ere zaharkituta gelditua zen. Aipatu den gisan, Basarriren proiektuaren haustura bertsolaritza sozialak ekarri zuen, eta bertsolari haren aurpegirik ezagunenak, Lopategi eta Azpillagak, gorbata kenduta egin ohi zuten bertsotan. Egañaren belaunaldiak ere, bertsolaritza sozial horren ondoren etorriko zenak, gorbatarik gabe egingo zuen bere bidea. Eta Egañak hamarraldi bukaerako panoramaz egiten duen hurrengo argazkian tokitan gelditzen da Basarriren gorbata. Bertso-eskoletako lehen labekada praka bakeroak eta zapatillak jantzita igoko da taulatura: “Bertsolariaren perfila aldatu egin da. Egungo bertsolaria ez da beti baserritarra. Ez da beti ikasketarik gabea. Ez da beti gizonezkoa... Horrek izugarri baldintzatu du bertsogintza (...) bertsolaritza bera ere bai.” (1993a: 18)

8.2.3.2 Bertsozaleak

Abesten duena anitzagoa bada, errazagoa behar du entzutera doana anitzagoa izateak. Horrela gertatu zen bertsolaritzaren kasuan ere, eta 1980ko txapelketaz ari den *Oh! Euzkadiren* testuan ikus daitekeenez hamarraldi hasieratik: “Gero eta helburu gehiago, gero eta funtzionaltasun gehiago ditu bertsolaritzak, zenbait espezializatzen ere ari da, eta bide bakoitzak bere "suporterrak" ditu” (*Oh! Euzkadi*, 1980 uztaila, ‘Bertso txiki bat bota behar duk mesedez’).

Baieztapen orokorraren ondotik, ekarpen xeheagoa dakar artikulua. Honela, saioetara bertso politikoak entzutera doazenak aipatzen ditu lehenik:

“Bertso mota honek jende gehiago hurbilarazi du bertsolaritzara, kultoagoa eta neurri berean deseuskaldunduagoa eta urbanoagoa (...) ezeren beldurrik gabe, bertsolaritza kezka politiko hutsez jarraitzen duen jende mordoska dagoela esan liteke. Inolako esijentziarik ez duen jendea, bertsolaria bere proiektzio huts bihurtzen duena, hark honek isilean dauzkanak ahokada batean esan ditzan.” (*Oh! Euzkadi*, 1980 uztaila, ‘Bertso txiki bat bota behar duk mesedez’)

Euskaldun-berrien eta euskal filologoaren tribua dator jarraian: “Zeren bai baitauzkagu indikatiboa eta subjuntiboa eta deklinabidearekin maitemindurikakoak ere, joan zen alean aipatzen genizuen euskaldunberri birtutetsua adibidez, bertsolaritzan glotodidaktika aldarrikatuz. Honen txaloea denotazio arloan bakarrik entzuten da, eta badirudi hauxe dela bertsolaritzan nagusitzen ari den tendentzia.”

Eta azkenik, Iztuetak ‘artikaste aundiko’ deitzen zien horiena: “Eta amaitzeko, azken bolada honetako publiko eruditoa aipatu beharko genuke. Pizti peligeroso, gauza nahastuz bere burua jaun egin nahi duena, eta bertsolaritzaren sujetorik aktiboan, bertsolariak, akonplexatzeraz datorriguna. Apaiza, lizentziatua, kultoa, politikoa, superreuskalduna.”

Amurizak, hamarraldi hasieran baita, 1981eko baita testua dakarren ‘Hitzaren kirol nazionala’ liburuaren lehen argitalpena, dezente gehiago zabaltzen du abaniko hori: “Gaur entzulearen heterogenotasuna ideologian dago batez ere. Oraingo bertso saioetan abaniku guztia dakusu aurrean: alderdi politiko ezberdinak, antinuklearrak, ekologistak, feministak,

amnisti batzordekoak, preso ohiak, kiroltzaleak, gazte roczeak, plazara zerbait ikustera inguratu diren amamak, bertsolariak entzutera etorritako agure burusoilak... Denetik zerbait” (1997: 191)

Atal hau irekiaz testuinguruari eskainiriko puntuan Garziak nabarmenduriko bertsolaritza inguru-testu ezpaldua aipatu da, abertzaletasunaren baitako arrakala ideologikoak eragindako aniztasuna. Testu batak nahiz besteak berresten dute alderdi hau. Eta Larrinagak irakurleko berriari buruz esandakoei ere egin zaie tarte bat testuinguruari eskinitako puntu horrek; bi testu hauetan ikus daiteke Bigarren Pizkundeak ekarritako mundu ikuskera berrien beturrekoak jantzitako irakurleko berri zabal hori bertso saiotara ere sartua zela 1980ko hamarraldi hasieran.

Gehiago ere esan zuen Amurizak hamarraldiaren bigarren erdirako: “Entzulego berri horren presentzia laurogeita biko eta laurogeita seiko txapelketetan are gehiago nabarmendu zen” (1987: 36). Eta garbi ikusi zuen bertsolariari egokitzea tokatzen zitzaioela, baita aldaketak kalte baino onura gehiago ekar zezakeela ere:

“Oraingo entzulerian, beraz, heterogenotasun ugari hori alde aurretik jo beharra dago. Errezago al da? Zailago al da? Ezberdina da. Oso ezberdina (...) Entzuleri nahasiaren aurrean kantatzera mentaldu beharko (...) Baina aldakuntza horrek txar baino on gehiago dauka (...) Bertsolariak edozein gai edo gai baten edozein trataera lehen baino lasaiago proba dezake, arrotz gertatzeko bildurrik gabe. Hitz batez, irudimena askoz libreago eta zabalago erabil dezake. Hori aldeon handia da, lehengo entzuleak markatzen zuen bide estu samarraren aldean. (1997, 192)”

8.2.4 Euskadi Irratia Loiolakoarekin lehiatzera

8.2.4.1 1970eko hamarralditik zetorren eskaintza: Loiola eta gainerakoak

Ziklo berriaren lehen urteetan aurreko ziklotik zetorren irrati eskaintza izango zen nagusi. Eta eskaintza honen baitan Loiolako Herri Irratiarena. Joxe Mari Iriondok 21 urteko ibilbidea osotuko du bertan, 1983an sortu berria zen EiTBN sartzeko bere postua utzi behar izan zuen arte.

Utzi aurretik ale gogoangarriren bat eskaintzeko modua izan zuen, ordea:

“Gogoratzen dut EiTBNa pasa aurretik Herri Irratiak eta *Deiak* bina bertsolari eta Haranburu bidali zituztela pare bat urtean Andaluziara. Han ikusten zutenaren kronika bertsoan egin behar zuten bertsolarietako irratiarako eta hitz lauz Haranburuk egunkarirako. Urte batean Lazkao-Txiki eta Txomin Garmendia joan ziren. Beste urte batean Lazkao-Txiki eta Patxi Etxeberria... Taulatu batean dantzan ibili zirela eta horrelako kontuak ekartzen zituzten... Gehitxo esatea izango da, baina Haranburukeria bat izan zen.” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)⁵³⁴

Iriondok utzitako hutsunea Laxaro Azkunek bete zuen, eta ibilbide luzea egin zuen honek ere, bi hamarkadatik gorakoa, bertsolaritza protagonista nagusi izango zuten hainbat

⁵³⁴ Dezenteko zalaparta sortu izango zuen esperimenduak Aldaik ere aipatzen baitu: “Herri Irratiak 1980ko hamarraldi hasieran hiru bertsolari Andaluziara bidali zituen eta handik kronikak egiten zituzten bertsoan. Politza izan zen.” (Aldai, 2007). Eta baita Koldo Ordozgoitik ere: “Patxi Etxeberria eta Juan Narbaiza bertsolariak Euskaditik, Andaluziara -Benidormetik pasata- eramane zituzten, Antton Aranburu izan zuten lagun bidaian eta egunero egiten zituzten bertso emanaldietan eta berak zuzendu zuen atalka eskaini zen irratsaio hura” (Ordozgoiti, ‘Euskara irran ereiten’) Helbide honetatik berreskuratua: <https://euskalirratia.wordpress.com/irratipilulak/bertsolaritza-irran-ereiten/> [2019/VI/09]

programa zuzenduz: ‘Txinpartak’, ‘Kale Kantoian’, ‘Egonean Giro’ eta ‘Ari Naizela’. Bertso aukeratuak izango ziren programa hauen ardatza, Azkunek astero bertara joanda grabaturiko pare bat saiotatik ateratakoak, eta bertso-munduko albisteekin osaturikoak:

“Saioa bera irratian ematerakoan, Jose Mari Iriondok hasitako formula erabili izan dut, gaia neronek jarri gai-jartzailea nor den adieraziz eta bertsoak ondoren emanez, baina saio osoak beti ere (...) Bertsoak sortzen dituen albisteak, bertsolaritzan diren protagonistak eta bertsoak eragiten dituen jaialdiak nahiz ekitaldiak izan dira irratian astean zehar ere ematen ahalegindu naizenak, edozein kultur albisteren gisan (...)” (Azkune, 2000: 71)

Iriondok aurreko zikloan eredu garatu bat lortu zuen irratirako eta eredu horren jarraipen bat eman zen ziklo honetako lehen hamarraldian Loiolako Herri Irratian. Beste irratikate gehienetan bezala. Hainbesteko sona lortu zuten Herri Irratiko bertsolari gazteen txapelketak ez ditu berreskuratuko, ordea, Azkunek.

Aurreko ziklotik zetorren beste emanaldi bat Bilboko Herri Irratiko ‘Bertsolarien Txokoa’ zen. Aurreko zikloan Adolfo Arejita izan zen arduraduna 1973tik 1978ra, 1979tik 1983ra Pedro Mari Goikoetxeak hartu zion lekukoa, eta 1984tik Mikel Astelarrak. Loiolakoarekin grabazioak trukutzen zituzten eta antzeko formatua landu (Azkune, 2000: 72).

Arrate Irratian Eukene Landak eman zien jarraipena 1985etik aurrera aurreko zikloan puntualagoak ziren emanaldiei. Irratiaren artxiboko piezak emanez hasi zen, Jose Antonio Gesalaga Zaldubik grabatzen zituen inguruetako herrietako saioak emanez jarraitu zuen eta hamabost urteren buruan txapelketei edo bertsolari jakinen inguruko monografikoak eginez bukatu zuen, ordubete inguruko asteroko saioan (Azkune, 2000: 77-78).

Jesus Telletxeak Radio Adour-Navarren bertsolaritzari buruzko programa bat eskaini zuen 1981etik hasita. Garai hartan Ipar Euskal Herrian euskaraz emititzen zuen bakarra zen Irratikate hau 1978an sortu zuen Alexandre de la Cerdak, eta bi urteetan, lizentziarik lortzen ez zuenez, Herri Irratien bidez emititu zuen (Agirreazkuenaga, 2017: 103). 1985ean itxi zenean Telletxeak Gure Irratian eta Irulegiko Irratian eskainiko zuen saioa, eta honek utzitakoan Pantzo Hirigarai eta Aita Santos Belokik hartu zuten programaren ardura, aurreko biez gain Xiberuko Bozatik ere emititu zelarik (Azkune, 2000: 75).

8.2.4.2 Berrikuntza: Euskadi Irratiaren eskaintza

Zikloak irratia alorrean ekarriko duen nobedade esanguratsuen Euskadi Irratiaren eskaintza izango da. Eta eskaintza horren hastapenetan ziklo honetan pisu handia izango duen figura bat agertuko zen, Joxerra Garzia:

“Hasiera-hasierakoak izan ziren ikastaro berezi bat egin zutenak. Izaskun Barriola, Martin Tejeria, Jon Aizpurua... 82 bukaeran hasi ziren. Ni horiek hasi eta gutxira sartu nintzen. Martxan jarri eta bost hilabetera lehen oposaketak egin ziren, ni Tolosako ikastolan nenbilen filosofia irakasten, kasualitatez jakin nuen oposaketen berri, presentatu eta atera egin nituen.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Hasi eta bereala Antton Haranbururekin egin zuen topo gainera, eta, Iriondok esango lukeen bezala, bere Haranburukerietan:

“Albistegietan hasi nintzen, 83ko maiatzean. Antton Haranburu zen buru. Goizean iritsi eta *Deiako* albiste bana ematen zigun. Euskarara itzuli, berari pasa eta gidoia prestatzen zigun... Bolada batean albistegi batzuk bertsoan eman behar genituela ere tematu zen. Gogoan daukat San Juan bezperan

horrela egin genuela. ‘Eguerdikoa koplata egin behar dugu’, berak. Bion artean osatu genituen koplata batzuk, trikitixa musika jarri genuen lagungarri eta horrelaxe joan zen. Beste behin koplata egin behar genuela agindu zidan berriro baina Guardia Zibil bat hil zutela iritsi zela albistea eta alde batera utzi behar koplak. Bat baino gehiago joan ziren koplata.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Iriondok kontatzen duenez, Haranburuk Euskaltzaindiako Ahozko Literatura Batzordeko aktak bertsotan jasotzeko ahalegina ere egin zuen, eta ez zen harrizkoa izan irratiko esperimentu hura (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)⁵³⁵.

Udako informatiboetatik bueltan ‘Sorgin Afaria’ izeneko iluntzeroko kultur programari ekin zion Pello Zabaletarekin batera. Handik gutxira bertsolaritzari buruzko zerbait egiteko enkargua jaso zuen: “Oterminek esan zidan zerbait egin beharra zegoela bertso kontuetan, erreferentzialtasun guztia Herri Irratiak zuela eta hori ezin zitekeela horrela izan” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26). Hortaz, 1984ko urtarriletik aurrera astelehenetik ostegunera ‘Sorgin Afaria’ egiten zuten, eta ostiraletan, ordu berean, bertsolaritzari eskainiriko ‘Debaldeko Festa’:

“Kareta geronek abesturiko kantu batekin sortu genuen: ‘Ostiral iluntzean beatiak alde/ ostiral iluntzean beatiak alde/ nahi duenak badauka festa bat debalde /ai, oi, ai festa bat debalde. Grabaturiko bertso hautatuak jartzen genituen. Gero, *feedback* handia geneukan entzuleekin. Galdera mordo bat egiten genuen bertsoen inguruan entzuleek erantzun zitzaten. Eta gai bat ematen genuen bertsoak jarri zitzaten. Hilean behin irabazle bat izendatzen genuen eta irabazle horrentzat bertso afari bat antolatzen genuen berak aukeraturiko bertsolari bikotearekin. Azkenik zuzenean emititzen genuen afari hori. Gogoratzen dut afari horietako bat Anoetan antolatu genuela Peña eta beste batekin, Mañukortarekin Larruskain inguruan beste bat...” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Oroitzapen onak dakartzkio Garziari garai hark: “Bolada hartan egunero hamalau ordu lan egiten nituen. Saltsa denetan sartzen ginen (...) Entusiasmoa eta naturaltasuna kristorena genuen hasiera hartan Euskadi Irratian. Hilero egiten genuen mozkor afari bat lankide mordo batek” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26). Eta Pello Zabaletaren figura aldarrikatzen du: “(...) Pello Zabaleta oso ona zen idazten, beti testu bikainak egiten zituen, nahiz eta presakako lanak izan, jakintsu bat zen...” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26). Iriondo bat dator aldarrikapenarekin: “Oroitzen dut Zabaleta oso idazle ona zela, euskaldun bikaina” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18).

Bi denboraldi iraun zituen Zabaleta eta Garziaren programak. Ez zen izan, ordea, Euskadi Irratiak bertsoaren inguruan burutu zuen eskaintza bakarra. Basarriri ere egin zitzaion tartea, esaterako: “*La Voz de Guipúzcoa*koan 1970 hamarraldiraino jarraitu zuen, eta utzita zegoen urte batzuetan, baita pixka bat bajatzen hasita ere, baina Nire Bordatxotik eskaini zuen bolada lizean, betiko eskema jarraituz” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18). Eta

⁵³⁵ Honela oroitzen du Iriondok: “Antton Haranburuk ere egin zuen ekarpen zelebreren bat. Gogoratzen naiz informatiboak bertsotan eman behar zirela tematu zela bolada batean eta bat baino gehiago eman zutela horrela. Baina ez zuen ematen... Bertsotan konplikatua da informatibo bat, minutu bat behar da zortziko nagusi bat botatzeko eta denbora gehiegi da hori informatibo batean. Bertso bidez eman daitekeen informazioa ere nahiko mugatua da. Euskadi Irratiaren oso hasieran izan zela esango nuke. Otermin zen irratiko buru orduan eta nahikoa pazientzia izan zuen.” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18). Eta Haranbururen inguruko gehiago ere badakartza: “Oso bertsozalea da. Gai jartzen ere ibiltzen zen asko garai batean. Gai jostariak jartzea gustatzen zitzaion. Ez zen gai-jartzaile makala (...) Artista izan da...” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

Oterminek 1983an abiarazia zuen ‘Euskal Perlak’ irratsaioa, Patxi Mujikak aurreko bi hamarraldietan egindako grabazioetan oinarritua:

“Bera zen arduraduna eta ondoren aditu gisa balorazio bat egiten zuen Joxe Mari Aranaldek. Bere iritzia ematen zuen emititzen ziren bertso horietaz, bertsoa ematen hasi aurretik. Saioaren aurkezpena Oterminek eta hitza gero Aranaldek, zetozen bertsoak aurkeztu, gaia, balorea eta abar eta bere analisisa egiten zuen labur-labur.” (N. Aldai, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/26)

Nikolas Aldai aurreko 1970etik 1974ra Donostiako Herri Irratian lan egindakoa zen eta ‘Euskal Jai’ irratsaioan tartea egina zion bertsolaritzari: “(...) bertsolariekin elkarrizketak egiten nituen baita ere. Hortik pasa ziren, gogoan ditut Imanol Lazkano, Lizaso, Joxe Aierbe... garai hartan plazan zebiltzan bertsolari guzti horiek pasa ziren” (N. Aldai, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/26). Euskadi Irratian hasieratik sartu zen eta ‘Goiz Giroan’ magazinean aritu zen, baina Debaldeko Festa’ bukatu zenean berari eman zioten bertsolaritzaren ardura: “86an jende berritze bat eman zen, Otamendi, Arantxa Iturbe... haiek goizeko magazina hartu zuten. Orduan eman zidaten bertsolaritzaren ardura” (N. Aldai, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/26). ‘Euskal Perlak’ berak hartu zuen, eta bertsolaritzari buruzko eskaintza gehiago ere jarri zuen martxan. ‘Iturri Onetik Bertsotan’ izeneko bata: “Zaldubi hasita zegoen ordurako bertsoak grabatzen, eta hark jasotakoei nik jasotakoak batuta azken asteko bertso-saioen berri ematen nuen. Uste dut asteazkenetan gaueko bederatzietan hasi nintzela, baina hurrengo urtean ostiraletara pasa zuten...” (N. Aldai, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/26). Eta ‘Lehenagoak Gogoratuz’ bestea:

“Hamar minutuko tarte bat zen, bertso zaharrei buruzkoa. Hemen grabazioak beharrean liburuak hartzen nituen oinarritzat, herri memorian geldituriko bertsoak jasotzen zituzten liburuak, eta norbait ezberdina eraman ohi nuen saioko haiek kantatzera, askotan bertsolari gazteak. Hor dezente atzera joaten nintzen eta XVIII nahiz XIX. mendeko bertsolaritza dezente arakatu nuen. Oso luze iraun zuen azken honek.” (N. Aldai, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/26)

Txapelketen jarraipena ere egin zen: “1980 eta 1982koena ez, Euskadi Irratia oraindik martxan jarri gabe zegoelako, baina 1986tik aurrerako guztietan jarraipen osoa: kanporaketak, finala, elkarrizketak, adituen iritzia (...) herrietan egiten zirenei ere jarraipena egiten zitzaien: Orixe saria, Añorgan; Osinalde saria, Gabirian; Artxanberri saria, Zaldibian (...)” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18). 1986koaren jarraipena Joxerra Garzia eta Pello Zabaletak egin zuten, finalaurrekoetatik hasita, eta 1989koarena Nikolas Aldaik:

“1989koan finala eskaini genuen zuzenean goiz eta arratsalde eta hor bai ibili nintzen gidari. Pello Esnal eta Abel Muniategi izan nituen aditu gisa eta bazkalondoko tertulian Mixel Lekuonak, Juan Mari Lekuonak, Pello Esnalek eta Jon Sarasuak ere hartu zuten parte. Santi jatetxean bazkaldu genuen eta bertatik egin genuen tertulia hori.” (N. Aldai, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/26)

8.2.4.2 Fernando Amezketarra herri arteko txapelketa

Herri Irratian beharrean Euskadi Irratian berreskuratu zen aurreko zikloan hainbesteko arrakasta izan zuen bertsolari gazteen irrati bidezko lehiaketa: “Joxerra Garzia eta Pello Zabaletak (...) Fernando Amezketarra izeneko txapelketa ere antolatu zuten, pixka bat guk Loiola Irratian antolatu izan genuenaren traza batzuk bazituena. Programa polita egiten zuten eta arrakasta handia izan zuen” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

Joxerra Garziari bururatu zitzaion formatua: “Bigarren urtean [1984/1985 denboraldia] bururatu zitzaidan pilota eredu hartuta polita izan zitekeela herrien arteko bertsolari-txapelketa antolatzea” (Gaztelumendi, 2009: 62). Eta elitekoak ez ziren bertsolariak promozionatzea zuen helburu: “Parte hartzeko baldintza bakarra zen bertsolaria urtean gehienez hamar plaza egindakoa izatea. Andoni [Egaña] ere sartzen zan garai hartan. Soldaduskan zegoen eta Inazio Jauregi eta Luis Otamendirekin osatu zuen Zarauzko taldea” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26). Espero zutena baino arrakasta handiagoa izan zuen, ordea, deiak, eta espero zutena baino lan gehiago ekarri zien honek: “Pentsatzen genuen erraz egingo genuela, baina 31 herri apuntatu ziren. Pasatu genuen 1984ko udazkenetik San Juan egunera arte astero 2-3 saio egiten” (Gaztelumendi, 2009: 62). Jaso zuten laguntzaren tamaina ere ez zen atzean gelditu: “Eskerrak tokian tokiko jendeak antolatzen zuela: tokia hartu, afaria... Sekulako giroa sortu zen (...) Gaiak geuk jartzen genituen, aurkezle ere gu, geuk grabatu, bertsok aukeratu, montatu...” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26).

Bertsolari gazteen belaunaldia aritu zen epaimahaiko ere: “Lagun nituen bertsolariak hartu nituen epaimahaiko: Sebastian [Lizaso], Mikel Mendizabal, Telleria, Imanol Lazkano, Iñaki Murua eta Peña. Ez genien ordaintzen, afari truke zen, baina, klaro, hainbeste afarirekin Otermin larritzen hasi zen. Getari inguruan bazen saioa Elkanora joaten ginen...” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26). Gutxira, txapelketaren antolakuntzarako eta Elkartearen eraketarako ardurak hartuko zituen belaunaldi horrek, neurri batean Fernando Amezketarra herri arteko honek eskaini zien esperientziak animatuta eta esperientzia horretan oinarriturik:

“Txapelketa horretan puntuazioa bistara ematen hasi ginen. Nolabait laboratoriora modura funtzionatu zuen, bertsolariek egin nahi zituzten hainbat gauza probatzeko balio izan zuelarik. Hain zuzen ere 85 horretan hasi zen Euskaltzaindia frankismo osteko hirugarren txapelketa antolatzen eta bertsolariek planto egin zioten, gurean hartutako esperientziatik eurek antolatzeko ardura hartuz. Eta hain zuzen geurea ere ez zen berriro egin hurrengo denboraldian bertsolariek nahikoa lan baitzeukaten eurek antolaturiko txapelketarekin.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

8.2.5 Elkartearen sorrera eta hedabideratzeko apustu berritua

8.2.5.1 Tira-bira Euskaltzaindiarekin

Joxerra Garziak aipatu berri duen bezala, bertsolariek planto egin zioten Euskaltzaindiak 1985ean antolatu nahi zuen txapelketari. Honela gogoratzen du Iriondok:

“1985ean txapelketa nagusia antolatzeko talde bera jarri ginen lanera: Aranalde, Lekuona, San Martin, Irigoien, Juanjo Zearreta, Iñaki Behobide, Etxezarreta, Haranburu... Oinarriak egin, bertsolariak konbokatu Loiolako Kiruri jatetxean, eta problemak jartzen hasi ziren. Lehen bilera hartan esango nuke Lopategi izan zela epaimahaian bizkaitar gutxi zegoela eta planto egin zuena. Hurrengo bilerarako talde haundi samarra zegoen ezezkoan. Euskaltzaindiak dirua ateratzen zuela zioten, baina guk ez geneukan Jaurilaritzaren, Diputazioen, Udalen eta abarren laguntzarik, sarreretatik egiten genuen dena. Hori entzun eta erabaki genuen, bale, antolatu zeuok txapelketa. Euskaltzaindiari esan zitzaion eginkizun hura bertsolarien esku uzten zela eta hortxe bukatu ziren Euskaltzaindiaren txapelketak.” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

Txapelketak berriro abiarazi zirenetik puntuazio sistemaren inguruko zalantzak agertu zituen hainbatek. Joxe Ramon Etxeberriak, honela zioen, esaterako, 1982ko finalaren biharamunean Egin egunkarian: “Nire kezka nagusia, bertsolari eta bertso-entzule askorena den bezala, puntuatzeko sistemaren argitasun falta da. Esan dira gauza batzuk, baina oso etereoak dira (...). Ene eritzia, gakoa metodoa bilatzean datza. Eta jende askok ideiak ditu: hitz egiteko kontua da.” (Egin, 1982/12/21, 20 or., ‘Bertsolari txapelketaz zenbait gogoeta’, J.R. Etxeberria). Bestalde, baziren bi hamarkada euskal kulturgintza gizarte mugimendu gisa funtzionatzen hasia zela, 1980ko hamarraldiaren hasieratik bertso-mundua bertso-eskolak martxan jartzen eta ikastolekin elkarlanean ari zen, eta txapelketako antolakuntzan parte hartzeko gogo bat ernetu zen, beti kanpokoaren esku utzi beharrean, norberak ere erabakimena izatekoa:

“Bertsolarien artean bazen antolakuntza euren esku hartzeko gogo. Bertsolariek beraiek erabakitzea bertsolaritzaren bidea. Hor dago jarrera aldaketaren gakoetako bat, Joxerra Garziak azpimarratu duenez. “Bertsolaritzaren historian, une hori etorri arte, dena egiten zen bertsolaritzarenak berarenak ez diren parametroen arabera. Txapelketa, ikerketa... dena. Borondate onez, baina horrela beti. Aitzolek bertsolaritza bultzatu nahi zuen, bai, baina ez dakit zer salbatzeko. Euskaltzaindiak, berdin. Beti, kanpotik.” (Barandiaran, 2011: 29)

Barandiaranek azaltzen duen bezala (2011: 28-29), Iriondok aipatzen duen lehen bilera horretara aurretik euren artean adosturiko baldintza batzuekin joan zitzaizkien Imanol Lazkano, Jon Lopategi, Iñaki Murua, Sebastian Lizaso eta Mikel Mendizabal. Txapelketaren antolaketarako bertsolarien parte hartzea izango zuen batzorde baten eraketa eskatzen zuten, txapelketa irekia izatea (aurreko bietan hamasei bertsolari jokatzen hasi aurretik sailkatutzat ematen ziren, aurreko txapelketetan izandako puntuaketetatik), izena emateko epea luzatzea, epaimahaia bertsolariek hautatzea eta baita puntuazioak bistara izatea ere. Euskaltzaindiaren erantzunak eskakizunen bat eman zuen ontzat, baina antolakuntza batzordeaz ez zioen ezer eta epaimahaiaz azken hitza berak zuela azpimarratzen zuen. Bertsolari guztien artean adosturiko plantoa ekarri zuen honek:

“Lazkanok kontatzen duenez. ‘Kuadrilla handi bat etorri zen Loiolara. Han, Amurizak, guk aurkeztutako puntuak ikusita, esan zuen: ‘Euskal Herria txapelketarik gabe uzterik ez dagoenez, eta txapelketa antolatzeko daukagun inguruarekin sinisten dudanez, mahai honetan hitzematen bada geuk antolatuko dugula, nik bihar bertan emango diot ezezkoa lehengo izen emateari’. Izena emana zuten gainerakoek berdin esan zuten. Joxerra Etxebarria Euskaltzaindiaren bulegora joan zen eta zerrenda eraman zuen, denak baja emanda. Egiari zor, aitortu behar dut nik, behintzat, Euskaltzaindiari nion miresmenagatik, harekin hausteak pena handia eman zidala’.” (Barandiaran, 2011: 28)

Bertsolarien erabakia ordura arte antolakuntza lanetan aritu zirenentzat mingarria suertatu izan zitekeela pentsa daiteke, baina ezetz dio Iriondok:

“Elkartearen sorrera guretzat lasaitasun bat izan zen. Sartuta nenbilen gai batzordean, administrazio batzordean, antolakuntza batzordean, aurkezle... Eta xentimo bat kobratu gabe gehienetan. Urtean zenbat egun etxetik kanpora, ze neke... Etorri zirenean, nik sentitu nuen guk egin dugu zerbait, ahal genuena, eta orain etorri daitezela beste batzuk (...) Haranburuk ere berdin esango dizu. Logikoena euren eskuetan gelditzea zen. Beste ezer ez zegoen garaian Euskaltzaindiak egiteak bazuen bere logika, baina gerora, eurek hartu nahi bazuten eurek hartzea logikoena.” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

Euskaltzaindiaren txapelketak abiarazi zituen Alfontso Irigoienek ere, artean tartean zebilena, oso antzeko hitzekin gogoratzen du haustura hura:

“Azken finean Euskaltzaindiak egin izan ditu hainbat lan beharbada akademia batek egin behar ez zituzkeenak. Egoera anormalaren ondorio. Behin egoera apur bat aldatuz gero gauzak normaltzeko ordua da. Elkartea hor dago. Eta botere publikoen laguntza badu oso ondo. Izan ere gauza horiek ez dira egiten aberasteko.” (Sarasua, 1992: 16)⁵³⁶

8.2.5.2 Bertsozaleek lagundua eta kulturgintzara bideratua

1986ko txapelketa arrakasta handiz antolatuko zuten bertsolariek: “Parte hartzea inoiz baino altuagoa, antolakuntzan zer esanik ez, Belodromora aldatu behar jendea kabitzeko. 8,4 miloi peztako irabaziak” (Barandiaran, 2011: 31). Herrialde mailan jada ezaguna zen bide bat zen elkarteen eraketa, Ipar Euskal Herrian 1981etik martxan zen Bertsularien Lagunak Elkartea, 1983an sortu zen Bizkaiko Bertsozale Elkartea eta 1984ean Nafarroako Bertsularien Lagunak Elkartea⁵³⁷, eta txapelketaren ondotik nazio mailako elkarteen proiektuari ekin zitzaion.

Aipatu den gisan, buruturiko lanketen artean bertsolari guztiei zabaldu zitzairen inkesta bat egin zen. Elkarteen sorreraz ere galdetzen zen bertan: %52,9ak beharrezkotzat jo zuen, %45,7ak komenigarritzat, eta %1,4ak bakarrik erantzun zuen alferrikako ikusten zuela; eta inplikazio handia ere adierazi zuten, %56,4a Elkarlean aktiboki parte hartzeko prest agertu baitzen eta beste %31,4 lanik egin ez baina kuota ordaintzeko (Torrealdai, 1987: 160-161).

Bertsolariek Elkarleantzat aurrikusten zituzten egitekoen artean txapelketak antolatzea, bertso-eskolak bultzatzea eta epaile nahiz gai-jartzaile lanak bideratzea ziren, hurrenkera honetan, nagusienak. Baina bertsoak bildu, artxibatu nahiz argitaratzea, bertsularien interesak defendatzea eta bertso-saioak antolatzea ere aipatu ziren (Torrealdai, 1987: 161-162)

Elkarlearen osaeraren ingurukoa zen beste galdera garrantzitsu bat: gehiengoak, %81,3ak, bertsozaleak ere integratzen zituen Elkarlea nahi zuen, %15,1ak bakarrik egin zuen bertsolariak soilik barneratuko lituzkeen formularen alde. Ondorioetan honela zioen Juan Mari Torrealdai: “Bistan da, aukera honen arabera, izpiritu korporatibistarik gabeko kolektibo baten erantzuna dela hori. Gehiago ematen du kultur egitasmo baten izenean sortua, talde baten interesak defenditzeko baino” (Torrealdai, 1987: 161)

Eredu ezberdinak jarri ziren mahai gainean, enpresa modura eratzea ere planteatu zen, pilotarekin egin izan den moduan, baina kultur proiektu baten eragile izan nahi zuen gizarte mugimendua artikulatuko zuen elkarlearen ideia izan zen nagusitu zena (Barandiaran, 2011: 36). Aurreko atalean ikusi ahal izan den gisan⁵³⁸, Bigarren Pizkundetik sorturiko euskal kulturgintzaren gizarte mugimenduaren itzala funtsezkoa izan zen norabide hori nagusitzeko, eta esparru horretan hartutako esperientzia bertso-mundura ekarri nahi izan zuen Koldo Tapiaren figura klabea izan zen: “Intuizio garbiena Koldo Tapiak izan zuen, bai’, berretsi du Joxerra Garziak. ‘Seguru asko, Jon Sarasuak ere izango zituen oso intuizio politikak, baina bertsolaritzak zer behar zuen, hori uste dut Koldo Tapiaren buruan zegoela. Orain esaten dena, bisioa’” (Barandiaran, 2011: 36).

Inkestaren emaitzetan ikus daitekeenez, bertsularien gehiengoa bat etorri zen bisio horrekin. Baita, bertsozaleei toki bat egitearekin, eta hau, Zubiriren arabera, hautu berritzailea eta meritu handikoa izan zen:

⁵³⁶ Juan Mari Lekuonak ere antzeko jarrera izan zuela aipatzen du Esnalek bere aldetik (Esnal, 2008: 88).

⁵³⁷ Arabako Elkarlea eta Gipuzkoakoa Euskal Herrikoaren ondotik sortuko ziren, biak 1993an.

⁵³⁸ Ik. Bigarren Pizkundearen haritik II: Euskal kulturgintzaren ildotik bertsolaritzaren gizarte mugimendua

“(…) Arteetan indibidualtasuna eta, neurri batean, isolamendua ez dira ezohikoak. Gehienez, arte sistema barruko *lobby* txiki introspektibo eta lehiakideak sortzen dira, kolektibotasunerako eta eragin sozialera bokazio edo eraginkortasun handirik ez dutenak. Horrelakoetan litekeena da lehentasunezko aldarria kanpo agente batekiko exigentziak izatea. Ordea, bertsolariaren gizarte mugimenduaren sorrera eta hedapena beste parametro batzuetan gertatu dira. Anglosaxoien *do it yourself* leloari jarraituz bezala, *leitmotiv* hori kolektibizatu egiten dute. Artistak eta jarraitzaileak aktore autonomo baten baitan integratzea berrikuntza handia da, are gehiago kolektibo horren helburua antolaketa autonomoaren bitartez diziplina artistikoarentzat baldintza sozialak eraldatzea izanda. (…)” (Zubiri, 2016: 18)

Imanol Lazkanok modu soilagoan aurkezten du erabakia:

“Nik beti esan dut bertsolariak antolakuntzarako alferrak gabela”, dio Lazkanok. “Baina, gehienetan, alferrak izaten du begi argiena lana nork ondo egingo duen antzemateko, eta guk ere bagenekien nortzuk izango ziren beren borondate guztia jarriko zutenak. Eta bakoitza inguruan zer jende zeukan begiratzen hasi, eta bertsoa maite eta bertsoaren inguruan eroso sentitzen zen jende piloak elkartu eta buru-belarri hasi ziren lanean. Ilusio handiarekin etorri zitzaigun jendea, eta lanak banatu eta taldeak osatu eta horrela hasi ginen.” (Barandiaran, 2011: 30)

1987ko martxoan, Elkarteak nolakoa behar zuen adierazteko, ‘Bertsolari Elkartearen sortzeko Erizpide Nagusiak’ dokumentua aurkeztu zuen estatutuak prestatzen ari zen koordinazio taldeak: “Helburu garrantzizkoetako batek artxiboaren antolaketa beharko lukeela irakur daiteke dokumentuan, eta “profesionalizatutako elkarte hertsia baten izaeratik urrundurik”, bazkide talde zabal batean oinarritutako mugimendua izan beharko duela uste zuten sinatzaileek” (Barandiaran, 2011: 39). Azkenik, 1987ko ekainean, estatutuen bozketa egin zen, eta onartuta geratu ziren. Ohorezko bazkideen izendapena ere adostu zuten: Manuel Lekuona, Alfontso Irigoien, Teodoro Hernandorena, Antonio Zavala, Iñaki Eizmendi *Basarri*, Xabier Amuriza eta Sebastian Lizaso. Halaber, Imanol Lazkanok hautatu zuten Elkarteko lehendakari, aldeko 144 boto, hiru zuri eta balio gabeko batekin:

“(…) sortu zen Euskal Herrian bizi zen borbor kultural-politiko-sozial indartsu eta eraldatzailearen barruan. Sortu zen joko edo jolas edo artelan edo denborapasa irreberente eta zirikatzaile horren sortzaileak eta hartzaileak ohartu zirenean arma bat zela. Arma gizartearen eragiteko. Sortu zen arma hori haiena zela eta haiek erabiliko zutela erabaki zutenean. Sortu, sormenak bere zentzu osoa hartu zuenean: sortu, eragiteko.” (Barandiaran, 2011: 39)

8.2.5.2 Hedabideratzearen aldeko apustu berritua

Bertsolaritzak presentzia mediatiko handiagoa behar zuela barrundatzen zuen bertso-munduak 1980ko hamarraldiaren hasieratik. Honakoa zioten, esaterako, Haranburu eta Iriondok 1980an: “(…) biharko bertsolaritza oraindik landu gabeko bide eta urratsetara zuzendu beharko litzateke, bertsolariak dituen errekurtsoez baliatzen jakinez gero. Batipat irratia, telebista eta gainerako komunikabideetan behar luke (…)” (1980: 43).

Garzia, Sarasua eta Egañaren aipuak adierazten du orduko panorama: “Berrikuntza aroa (1980-1990). Hedabideek ez diote, salbuespenak salbu- eta eragin txikiko salbuespenak dira gainera-gerora eskainiko dioten tokia eskaintzen bertsolaritzari” (2001: 147). Eta Egañaren pasadizoak ere ilustratzen du egoera, apur bat esajeratutzat har daitekeen arren:

“(…) gogoratuko dut ni bertsotan hasi nintzenean, 81-82 urtean, udal liburategik 62ko, 5eko eta 7ko txapelketako liburuak lapurtu nituela. Bertsotan hasi nahi nuen, bagajea hartu nahi, eta egia da, 82an hor zegoen Joan Mari Lekuonak urte hartan argitaratu zuen bere liburua, urte t’erdi lehenago Xabier Amurizak argitaraturiko bere Kirol nazionala eta Errima hiztegia, baina hortik aparte ez zegoen nondik elikatu handirik. Loiola Irratiak, uste dut, astean behingo saio bat ematen zuela, baina ez zegoen gehiago.” (Esnal, Egaña eta Sarasua, 2003: 815)

Elkarteak zerogarren minututik egin zuen hedabideratzeko apustua. Bertsolariek antolaturiko lehen txapelketa, 1986koa, izango zen finalaren inguruko prentsaurrekoa izango zuen lehena (Larrañaga, 2014: 72). ETBk finala zuzenean eskainiko zuen bestalde, eta Euskadi Irratiak finalurrekoetatik hasita egingo dio jarraipena, esan bezala. Aurrekoetan EiT Brik ez zegoenez horrelakorik ezin zitekeen egin, baina lehen aukeratik bertatik arreta berezia jarriko zioten bertsolariek ETBekin egin beharreko hitzarmenari. Eta apustuak bere fruituak emango zituen: 1980ko finalari buruz 30 testu atera ziren prentsan, 1982koaz 31, eta 1986koaz 68.

Aipatu berri den 1987ko ‘Bertsolari Elkartearen sortzeko Erizpide Nagusiak’ dokumentuak ere, estatutuen zirriborroa egiten zuenak, erreparatzen zion gaiaren garrantziari:

“Elkartearen sortzea, erantzukizun maila bati aurre egin asmoz egiten bada ere, okerreko bidetik abiatuko ginateke, bertsolarien txapelketak edo antzeko ekintzak soilik antolatzeko behar duela aurreikusten badugu. Bertsolaritza, hori baino osotasun handiagoko erantzun baten eskean dagoela uste dugu. Diogunaren adierazpen lirarteke hurrengo puntu hauek (...) Bertsolariak, komunikabideen eraginaren aurrean, jarrera garbi bat gabe; Bertsolaritza telebista, irrati, prentsa idatzia eta gainerakoez nola baliatu behar duen irizpide garbi bat gabe aurkitzen da.” (Barandiaran, 2011: 39)

Hurrengo egunean, ekainaren 19an, Jon Sarasuak artikulua bat argitaratu zuen *Hemen* aldizkarian, ‘Bertsoa, bere kabuz doan errealitatea’ izenburupean, eta hor ere aipatzen zen, besteak beste, komunikabideetan eduki beharreko presentziaren inguruan burutu beharreko gogoeta (Barandiaran, 2011: 39).

Gerora Elkartearen komunikazio lanetan ibili diren Esti Esteibar eta Iñaki Iturriotz *Iturrik* sorreratik bertatik ikusten dute komunikazio estrategia bat Elkartearen baitan:

“Bertsozale Elkarteak, sorreratik bertsolaritza zaindu, sustatu eta ikertu eta bere transmisioa eta etorkizuna bermatu asmoz komunikazio estrategia bat jarraitu izan du. Balioek eta helburuek markatu dute Bertsozale Elkartearen komunikazio strategiaren norabidea. Garaian garaiko erremintak eta komunikazio irizpideak mantenduz modu orekatuan eta iraunkorrean egitasmoen komunikazioa, barne komunikazioa eta harreman publikoak zaindu dira bereziki eta Elkarteko kideen artean intuizioz jarraitu eta transmititu dira komunikazio irizpideok.” (Esteibar eta Iturriotz, 2008: 39)

8.2.6 Bertsolari klasikoa *El Diario Vascon* eta eredu berria *Eginen*

8.2.6.1 Zavalaren sarea eta Basarri

Frankismo Garaiko zikloari eskainitako atalean azaldu den gisan⁵³⁹, 1978ko azaroaren 30ean, ia 30 urtetan *La Voz de España*n egin ondoren *El Diario Vascon*a aldatu zen Iñaki Eizmendi Basarri. Ikusi ahal izan denez, ziklo horretan bertsolaritzaz gehien argitaratu zuen sinadura

⁵³⁹ Ik. 6.2.1.3 Basarri kazetari eta *La Voz de España*ren txapelketak

izan zen Basarrirena, euskal gaitzat hartzen zirenen (herri kirolak, euskal kultura eta gisakoak) inguruan erreferentziala izan zen luzaroan, irakurle asko zituen, eta Donostiako egunkarian ongi etorri beroa egin zioten, ‘fitxaketa’ egunkariaren azalean iragarritz.

‘Nere Bordatxotik’ zutabe klasikoari jarraipena eman zion bertan, 1992ko azaroaren 2an argitaraturiko testuarekin 64 urteko ibilbideari bukaera eman zion arte:

“Bizimoduak hartaraxe bultzata, beste zenbait ofizio ere bazuen Basarrik eguneroko lanbide, Aseguru kontuak adibidez. Baina kazetari izan zen ofizioz eta afizioz. 1931ko azaroaren 11n *Euzkadi* egunkarian argitaratu zituen bere lehen bertsoak (‘Nere arrebaxubari’), eta egun berean Errijetatik sailean, Zarauzko kronika idatzi zuen. Azkena, berriz, 1992ko azaroaren 2koa da, *El Diario Vascon* Kontu Kontari izenburuaz argitaratua.” (Iriondo, 2013a: 181)

Ez da kazetari asko egongo Euskal Herrian horren ibilbide luzea osatzera iritsi denik, ezta euskaraz Basarri baino askoz gehiago argitaratu duen euskal kazetari historikorik ere:

“Euskara azken hamarkadetan normalizatzen hasi den arte bertsolaritza gehien idatzi duena Basarri izan da eta euskaraz gehien idatzi duena ere bai. Paulo Iztuetak esan zidan behin, “Orixek baino gehiago?”. Bai, noski. Beste kontu bat da nolako euskara erabili izan duen batek eta besteak (...) Zaila da oraingo ikuspegitik hori neurtzen, baina Basarriren zutabeak ez ziren ahuntzaren gauerdiko ez-tula. Jendeak irakurri eta entzun egiten zituen, bai Gipuzkoan, bai Bizkaian, Iparraldean, edo Nafarroan ere. Eman zaion baino garrantzia gehiago izan zuen Basarrik bertsolaritza eta euskal kulturaren esparruetan.” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

Ikusi den bezala, jada 1960. hamarraldian polemika sonatu dezente izan zituen bertsolariak, status quo zalantzan jarri nahi zuen orok eraitsi beharreko behi sakratu gisa ikusten zuen ordurako, eta bertsolaritza sozialarekin ez zen batere eroso sentitzen⁵⁴⁰: “Basarriekin bazegoen halako kontra egiteko gogo bat, baina oso ikuspuntu interesgarriak defendatu zituen, gehienez behintzat, bertsolaritza zigokionean”⁵⁴¹. Lehen Pizkundean garatu zena zen Basarriren proiektua, Frankismoaren testuinguruak ezarritako berniz iluna inork baino gehiago barneratu behar izan zuen zarauztarrak⁵⁴², eta Bigarren Pizkundetik eratorritako berrikuntzek joko kanpo utzi zuten. Bere ibilbidearen azken zatian garai batean izandako itzala galduz joango da, eta kutsu atzerakoi bat duen iraganaren ikur gisa ikusiko du hainbatek: “Basarrik bere buruan frantziskotarren sermoilarien nostalgia ere bazuen. Oso itxia zen erlijio eta moral kontuetan, beti zebilen bere moralinarekin, eta jende dezente nekatu egin zuen horrekin” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

Aurreko zikloan Basarriren ondotik bertsolaritza prentsan gehien argitaraturiko hurrengo sinadurak, Antonio Zavalak, beste formula baten bidez egingo dio bere ekarpena Donostiako egunkariari. Urte luzez egin bezala bertsolaritza buruzko artikuluak argitaratu beharrean, bertsolariak jarriko ditu idazten: “Orain amalau urte, 1983-an, *El Diario Vasco* egunkariak euskal idazleren bat pozik artuko zuala jakin erazi zidan. Izen egoki bat bereala bururatu zitzaidan: Txomin Garmendia (1934) bertsolaria, aldi artan ezbear batean min artuta zegoana eta naiko denbora zuana” (Zavala, 1997b: 7). Eta arrakasta izan zuen formulak:

⁵⁴⁰ Ik. 6.3.5 Basarriren polemikak eta 6.1.4 Bertsolaritza arrakala

⁵⁴¹ Joxerra Garzia bat dator honetan Iriondorekin: “Basarriren ‘Bertsolaritza buruz’ liburua, adibidez, ikaragarria da. Ez dakit zergatik ez den gehiago aipatzen, ausart bezain argia da Basarri bere kroniketan” (Iraola, 2000: 137).

⁵⁴² Ik. 6.6.1 Aurreko proiektuaren jarraitasuna: Basarri eta Hernandorena, 6.6.2 Ikur eta eroale: lehen hamarkadetakako kamustasunetik bertsolaritza sozialera, 6.2.1.1 Tolosako saioa: Txirrita elkarrizketatu zuen kazetari frankistarekin eta 6.2.1.3 Basarri kazetari eta *La Voz de Españaren* txapelketak

“Egunkarikoak laster oartu ziran Txomiñen idazlanak arrera ona izaten zutela; erriak gustokoak zituala, alegia. Etzirala leku betegarriak bakarrik. Bestela ezer gutxi irakurtzen zutenak, idazki oien zai egoten zirala. Ala, orrelako beste idazle batzuk ere artuko zituztela esan zidaten” (Zavala, 1997b: 8). Txomin Garmendiaz gain, Mariano Ostolaitz, Martzelino Manterola, Manuel Lasarte, Joxe Mari Lertxundi, Teodoro Mujika, Bixente Barandiaran eta beste hainbatekin osatu zuen sarea.

Lanerako zerabilten mekanika ere azaltzen du Zavalak: “Oiek danak beren lanak eskuz idatzi oi zituzten; eta, ni artean Naparroako Xabierren bizi bainintzan, korreoz ara bialtzen zizkidaten. Nik, berriz, artutakoan, aal dan azkarren makinaz edo ordenagailluz idatzi eta egunkarirako bidean jarri” (id.: 8). Txomin Garmendiak, ordea, kolaboratzaile hauek guztiak bezala urteetan aurrera samar bazijoan ere, makinaz idazten ikasi zuen, ordea:

“Mesede ederra egin zidan neri. Kopiatzaille-lan ura gustora egiten nuan, eta nere euskera pobre eta traketsa obetzeko bidea ere banuan ura, denbora berean. Baziran egunak, beste zeregin guztiak alde bat utzi eta korreoak ekarritako lau, sei edo zortziraiño idazlan makinaratu bear nituanak. Ziur esateko ez dakit, baiña gutxi gora-beera seireun edo zazpiterun bat artikulu kopiatuko nituan nik era ortan urte aietan.” (Zavala, 1997b: 8-9)

Zavalaren hitzetan bertan ikus daitekeenez, sekulako bolumena hartu zuen bere bertsolari sarearen ekoizpenak, eta *El Diario Vasco*k bertsolaritzaren inguruan hamarkada hartan gauzatu zuen eskaintzaren oinarrizko zutabe bihurtu zen, Basarriren idatziekin batera. Garmendiak makinaz idazten ikasi zuenean, gainera, sarea zabaltzeari ekin zion Zavalak, oraingoan makinaz idazten zekiten bertsolariekin: Jesus Lete *Ibaiertz*, Joxe Aierbe eta Inozentzio Olea.

Makinaz edo eskuz idatzi, eskola zaharreko bertsolariak ziren guztiak: batuaren aurreko grafiaz idazten zuten, baserri-giroko kontuak, erlijioa, bertsolarien pasadizoak eta gisakoak zituzten hizketagai, eta buru soilduak edo ile urdindua txapelarekin estaltzen zuten.

Bertsolari klasikoaren eredu hori atzean uzten hasia zen bertsolaritza, eta kritikaren bat iritsi zitzaion Zavalari ere, itxura denez: “Baserri-usaia zan, beste batzuen iritiz, lan oien bigarren akatsa. Baiña ori akatsa balitz, gure erri-literatura guzia baztertu bear genduke; baita literatura eskolatuaren zati aundi bat ere; baita euskera bera ere. Baserria gure izkuntzaren eusgarririk sendoena ez ote degu, bada, izan?” (Zavala, 1997b: 10). Bere etnografo bokazioari, galtzear zen mundu hori gordetzeko ahaleginari, tinko eusten zion, egunkarikoak nolobait Auspoan egiten zuen lanaren gehigarri gisa ulertuz, ziurrenik:

“(…) egunkari-idazlan oiek erri-kazetaritza jator bat sortu edo osatu zutela esango nuke. Gure erria periodikoetan idazteko gauza zala erakutsi, alegia. Bere buruzbideak, pentsamentuak, iritziak eta kezkek itz-lauz ere azaltzen bazekiala. Ordurarte bertso- paperen bitartez egiña zuan lantegi ori. Orra bat-batean bide berri batetik gauza bera lortu. Garai bateko bertso-paperak irakurle asko zituztela badakigu. Baita egunkariko idazlan oiek ere. Arrazoi beragatik, gaiñera: bertso-paperetan bezala, erriak idazlan oietan ere bere euskera arkitzen zualako, arkaitz-iturri batetik ixurtzen dan ura bezin garbi eta preskoa.” (Zavala, 1997b: 11)

Hamarkada bukaeran bere eskaintza ekarpen modernoagoekin osatzen hasiko da Donostiako egunkaria. Honela, 1989ko finalari buruz Basarri, Santiago Aizarna edo Zavalaren sarekoek gain Pello Esnalena edo Rufino Iraolaren iruzkinak irakur daitezke, edota Felix Ibagutxiren kronikak. Beste belaunaldi batekoak dira hiruak, beste soslai bat dakartenak. Eta hurrengo

hamarkadetan geroz eta pisu handiagoa izango dute, Felix Ibargutxi denboran eta kopuruz ziklo bertsolaritzari jarraipen zabalena egin dioten kazetarietako bat izango delarik.

Edozein kasutan, 1980ko hamarraldi horretan *El Diario Vasco* bertsolaritza klasikoaren gotorleku bihurtu zela esan daiteke. Bertso-munduaren baitan eman ziren eztabaidetan, Jaio vs. Egin famatuan esaterako, posizio kontserbadoreenen bozgorailu. Eta hurrengo hamarkadetan ere, Zavalaren sareak iraun duen neurrian behintzat, arrakalaren alde horretara geldituriko posizioek toki bat izango dute bertan.

8.2.6.2 Eredua berria *Eginek*

1986ko txapelketaren inguruan, bertsolarien antolatutako lehena, prentsaurreko bat izan zuen lehena aipatu da nobedade garrantzitsu gisa. Telebistaz zuzenean emititu zen lehena izan zela ere aipatu da. Nobedade garrantzitsu gehiago ere izan zuen, ordea, estaldura mediatikoari dagokionean: *Eginek* finalari buruzko lehen gehigarri berezia kaleratu zuen.

Egun normalizatuta dagoen praktika bat da, egunkari batek baino gehiagok egin ohi du, baina garai hartan jauzi kuantitatibo eta kualitatibo garrantzitsua izan zen: 1989ko finalari buruz egunkari guztien artean 37 orrialde argitaratu ziren; Eginen ‘Bertsolari Txapelketa’ gehigarriak 26 zekartzan, estaldura osoaren bi heren.

Gehigarri bat ateratzea bera, eta gehigarriak zekarren testu kopurua, kualitatiboki ere, prestigio hazkuntzaren zantzu gisa, pauso garrantzitsutzat har daitezke. Tituluei erreparatuta bestelako berrikuntzak ere bazetozela ikus daiteke, ordea: ‘Euzkitze, zortzi-hamar silabetan pentsatzen duen mutila’, ‘Bertsolarien gorputzaren mintzoa’, ‘Bertsolaritzaren aurpegi femeninoak’...

Bertsolaritzaz idazteko estilo berri bat eskaintzen zuen egunkariak, 1989ko finalerako atera zuen gehigarrian are nabarmenagoa zena: ‘Lopategi West-eko heroea’, ‘Euzkitze, gramatiko bat bertsotan’, ‘Murua, txapelketak haurra ekarri dion mutila’, ‘Mikel Mendizabal, barruko bakearen bila burrukan’... Finalista bakoitzaren elkarrizketa bere bikotekide edo amaren elkarrizketarekin osatzen zen gainera bigarren honetan: Bertsolari bakoitzaren izaeraren erretratu xeheak, euren eremu pertsonalenean egindako sartu-irtenak, titular ezohikoa... :

“(...) bertsolaritzaren inguruan kazetaritza beste modu batera egiten genuela bagenekien. Oso sinplea da kontua: Estatu mailako egunkari batzuetan, El País-en bereziki, ‘kazetaritza berria’ deitzen zitzaion moldea jarri zen indarrean. Guk debozio handiz irakurtzen genituen Rosa Montero eta abarren erreportaje, elkarrizketa eta zutabeak. Zutabegintza bera izugarri aldatu zen urte horietan eta erreportajetan ikuspuntu ezberdinak erabiltzen ikasi genuen, lekukoen esanekin jokatzeko, testuak ireki eta aberasten. Ordura arte egindakoa monokordea iruditzen zitzaigun.” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27)

Egunkariaren sorreran sartu zen bertara lanera Joxean Agirre, eta hasiera batean herrietako informazioa egiten aritu bazen ere, sinadurarik ez duen 1980ko finaleko kronika berea delakoan dago: “Gogoan dut Amurizak lehen txapela atera zueneko kronika neuk egin nuela” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27). Hurrengo hamarkadetan bera izango zen egunkarian bertsolaritzaren inguruko kontuen arduradun, eta ziklo honetan Euskal Herriko txapelketetako finalei buruz gehien argitaratuko duen sinadura da: Agirrek hamar finalak jarraitu ditu eta 97 testu sinatu, *Eginen* eta *Garan*; bigarren Felix Ibargutxi litzateke, bederatzi final eta 54 testurekin, *Diario Vascon* argitaratuak; eta hirugarrena Amagoia Mujika, bost final eta 38 testurekin, *Garan* argitaratuak.

Gehigarriarena bere ekimena izango zelakoan dago:

“86rako Kulturako sailburu Jon Bastera zegoen, kazetari euskaldun eta euskaltzale bat. Beraz, harekin hitzartuko nituen gehigarri hori egiteko beharko nituen egunak (...) Normalean horrelako gehigarri bat egin behar zenean gutxi gorabeherako proiektu bat zirriborratu eta aurkeztu egiten zenuen eta onartu egiten zizuten.” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27)

Zaletasuna etxetik zetorkion, aita, Joxe Mari Agirre *Kostite*, bertsolaria baitzuen, eta gaia beti gogo betez hartu izan duela azaltzen du: “Nik bertsolari bati elkarrizketa bat egiten nionean Oteizari edo Txillidari elkarrizketa bat egiteko erabiltzen nuen grina beretsua jartzen nuen” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27). Eta elkarrizketa horietan ordura arte ohikoa ez zen konplizitate eta irekitze maila bat lortu zuen bertsolarien aldetik:

“Uste dut haiek ere familiarizatuta zeudela ‘kazetaritza berria’ren lan egiteko moduarekin (...) Uste dut bertsolaritza tratatzeko modu modernoago horrek bertsolaritzaren ulerkera berri batekin kointziditu zuela (...) bakoitzaren amarekin elkarrizketa labur bat egitea, ez zen posible izango hogeitaz urte lehenago. Egin genuen garaian ez zen inolako arazorik izan.” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27)

Egiteko modu berri horrek harrera ona izan zuen. Euskarazko Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren bigarren edizioan, 1990ean, erreportajerik onenaren saria eraman zuen 1989ko txapelketako lan bategatik, eta prentsa idatziko Argia saria ere eman zioten urte berean, bigarren edizioa zuen honek ere, txapelketari buruzko lanengatik baita.

Ez ziren Agirreraren testuak Eginen ukitu berritzailea zuten bakarrak. 1986ko txapelketaren estalduraren baitan, esaterako, ‘Kriston burundaie bertsolari txapelketan!’ irakurle gazteei zuzenduriko testua topa daiteke. Eta *El Diario Vascok* nagusiki ahotsa bertsolaritza klasikoaren posizioei ematen bazien, hemen bertsolaritza berriari, Bigarren Pizkundearen, bertsolaritza sozialaren eta Amurizaren iraultzaren ildotik garatu zen berritasunari egin zitzaion azpimarra: esan bezala, Amuriza zutabegile zen egunkarian; Euskaltzaindiaren antolakuntza zalantzan jartzen zuten testuak bertan argitaratu ziren (*Egin*, 1982/12/21, 20 or., ‘Bertsolari txapelketaz zenbait gogoeta’, J.R. Etxeberria); bertso-eskolen aldeko jarrerak izango ziren nagusi (*Egin*, 1986/III/23, ‘Bertsogintzaren tabuak ankaraz gora jarri dituzten eskolen berri’); bertsolari emakumeen presentziari erreparatzen zitzaion (*Egin*, 1986/III/23, ‘Bertsolaritzaren aurpegi femeninoak’, Joxean Agirre)...


Agirrek bai ikusten zuen kontra-eredu bat *El Diario Vascok* garai hartan egiten zuenean:

“Gaur dudan ikuspegia orduan izan banu, mirespenez eta kariñoz irakurriko nituen Zavalaren edo Basarriren lanak. Orduan gure lan egiteko moduaren antitesi gisa ikusten nituen. Beren idazteko moldea oso zaharkitua iruditzen zitzaidan eta irudipena nuen iraganeko bertsolaritza moldearen babestoki bilakatu nahi zutela egunkari hori. Hain zuzen ere molde zaharreko bertsolariak izan ziren Zavalaren eskutik idazten hasi zirenak (...)” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27)

Hala ere paralelismo batzuk eman ziren bataren eta bestearen artean ere. Honela, Zavalak bertsolari zaharrak zutabegile jarri zituen bezala, Agirrek bertsolari gazteak kazetari lanetan jarri zituen. Txapelketetan epaile lanetan ibiltzen zen Iñaki Sarriugartek egiten du aipamena, Agirre zuzendari zen *Eginen* euskarazko *Hemen* astekariari erreferentzia eginez: “Prentsa idatziari dagokionez, txalogarriak dira *Hemen* egunkariak oraintsu hasi duen “Bertsolariak Kazetari” gisako esperientziak” (Elkarlanean, 1987: 96).

8.2.6.3 Lidergo berria

Aurreko zikloan *Zeruko Argia*, *El Diario Vasco* eta *La Voz de España* izan ziren, hurrenkera honetan, bertsolaritzaz gehien argitaratu zutenak. Ziklo honetarako metodoa aldatu egin da, eta argitaratutako guztiak jaso beharrean, horrek manejatuz ezinezko bolumen bat emango zuenez, finalei buruz egunkariek argitaratutakoari erreparatu zaio. Eta metodo honekin, 1980ko hamarraldian, *Eginek* hartuko du bertsolaritzaren estalduraren lidergoa:



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.

Hamarraldi honetan bertsolaritzaz gehien argitaratuko duten hiru egunkarien artean 1980ko txapelketaz gehien argitaratuko duena *Deia* izango da⁵⁴³. Euskaltzaindiaren inguruan zebilen jendearen ekimenez abiarazi ziren berriro txapelketak eta Deiaren orbitakoak ziren gehienak.

Egin atzean gelditzen da lehen txapelketa horretan, txapelduna, Amuriza, bertako zutabegile garrantzitsu bat izan arren. Kultura sailaren osakera aipatzen du Agirrek: “*Egineko* Kultura saila erdaldunen esku zegoelako seguru asko. Oso kazetari onak zeuden, baina euskaraz fitsik ez zekitenak” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27). Bestelakoa da Amurizak eskaintzen duen azalpena:

“*Eginen* neu sortzaileetakoa izan nintzen eta bi jarrera zeuden barruan: Euskadiko Ezkerrakoak eta Herri Batasunakoak. Kultura Euskadiko Ezkerraren eskuetan zegoen hasiera hartan eta *Eginen* baino oihartzun gehiago izan nuen beste medioetan. 80ko txapelketaz zerbait bai, baina aurretik egin nituen ‘Larehun herri, mila bertso berri’ musikarien inguruan aipamenik ere ez zidaten egin.” (X. Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02)

Bigarren txapelketarako, ordea, *Egin* izango da testu gehien argitaratuko duena, eta ‘Amuriza faktorea’ aipatzen du Agirrek: “Txapelduna bera nominan edukitzea bada aski motibo gaiari beste tratamendu bat ematen hasteko (...)” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27).

⁵⁴³ Honako komentarioa egiten du Joxean Agirrek: “Irudipena dut *Deiak* ere ez zuela modu normalizatu batean bertsolaritzaren berri ematen eta gehiago zirela iritzi generotik oso gertu zeuden ‘artikuluak’. Uste dut hala deitzen zitzaiola orduan gisa horretako lanei, pixka bat Basarrik *Diariion* egiten zuena imitatuz edo” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27)

Amurizak ekarri zuen bertsolaritza berriak erakarririko jarraitzaile gazte, kaletar, ezkertiar andana egunkariaren irakurleak izateak zerikusi gehiago izango du, ordea, igoera hau esplikatuko lukeen ‘Amuriza faktorea’rekin.

1986koan eliteko bertsolarien belaunaldi berriak, bertsolarien esku gelditu zen antolakuntzak eta jarraitzaileen parterik handienak partekatzen du *Eginek* ere jarraitzen duen bertsolaritza berrituaren ildo eta bere lidergoa egonkortu egingo du egunkariak, neurri handi batean lehen gehigarri horren argitalpenarekin. Agirreren arabera, modu natural batean eman zen prozesu hau egunkarian, eta ez zen izan zuzendaritzak hartutako erabakien eraginez: “Ordurako Mariano Ferrerek dimisioa aurkeztu eta Juan Ramon Martinezek hartua zuen zuzendaritza eta ez bata eta ez besteak ez zuten sentiberatasunik bertsolaritzarekiko” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27)

Hamarkadaren bigarren erdian, Zavalaren bertsolari sarearen ekarpeni, Felix Ibargutxiren kazetari lanaren eta Pello Esnal edo Rufino Iraola bezalako iruzkingile berrien testuei esker *El Diario Vasco* ere aurrea hartuko dio *Deiari*.

Agirrek ez zuen lehiakide gisa ikusi izan *El Diario Vasco*. Ibargutxiren lana estimatzen du, eta bere meritua azpimarratu: “Ibargutxik gurearen antzeko ikuspegia zuen bertsolaritzaz, baina muga handiak zituen bere lanean (...) egunkari hori Gipuzkoara mugatzen zelako eta txapelketa nagusi baten jarraipena egiteko eta areago beste lurraldetako txapelketena egiteko inolako intereserik ez zegoelako zuzendaritza aldetik (...)” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27). Estimatu du Ibargutxi bera ere:

“Kultura arloko prentsaurreko, aurkezpen eta ekitaldietan elkarrekin tokatu izan gara urte askoan. Lagunak izan gara. Berak eskuineko belarria du hondatuta eta nik ezkerrekoa eta elkarren ondoan modu desegokian parejatuta esertzen ginenean lepoa luzatuta ibili behar izaten genuen belarri onaren bila ahopeka komentarioak egin ahal izateko. Ezagutzen ez gintuzten kazetariak harrিতuta eta intrigatuta edukitzen genituen gure maniobra horiek ikusita.” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27)

Eta Iraola edo Esnalen ekarpena ere seinalatzen du: “(...) Rufino Iraolak eta bereziki Pello Esnalek lan polita egin dutela esango nuke, aditu gisa noski” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27).

8.2.7 Ikus-entzunezkoetan ate joka

8.2.7.1 Iriondo Telenorten

1975ean, TVEk Euskal Herrirako zeukan delegazioan Telenorten hasi zen lanean Joxe Mari Iriondo. Loiolako Herri Irratiko lanak utzi gabe egin zuen eta 1983ra arte egin zuen horrela, EiTBN sartzeko bi lanok utzi zituen arte.

Astean behin emititzen zen ‘Euskalerrria’⁵⁴⁴ eta tarteka eskaini ohi zen ‘A fondo el hombre’ programak egokitu zitzaizkion. Eta bertsolaritzari tarte bat egin zion bietan, telebistan gaiak agerpen puntualaz haragoko presentzia bat lortzen zuen lehen aldia izango zelarik.

⁵⁴⁴ Izena dela eta garaiko beste eztabaidetako bat, ‘h’-aren ingurukoa, dakar Iriondok: Telenorteko zuzendari Maximiliano Alonso zegoen garai hartan, Aragoiko mutil gazte bat. Bilera egin genuen eta baiezkota eman nien, baina irratia ez uztekotan. Maximiliano honek bukatutakoan apartera eraman ninduen eta “¿La h es marxista?” – galdetu zidan. “¿Quieres que me haga el gallego?” esan nion eta, “No”. “En castellano es marxista la H?”. “No”. “Pues en euskera tampoco, por mucho que te hayan dicho; el marxismo no tiene nada que ver en esto”. “Es que aqui en el grupo dicen...” hasi zitzaidan. “Ya se, aqui la careta que teneis propuesta es ‘Euskalerrria’ sin ‘h’...”.

‘Euskalerrria’-n albisteak eta elkarrizketa laburren bat sartu izan zuela gogoratzen du, eta ‘A fondo el hombre’ hainbat elkarrizketa luze egin zuela: “A fondo, el hombre’ horretan Basarri, Uztapide, Hernandorena, Kepa Enbeita, Lopategi, Amuriza txapeldun bezala ere eraman nuen 1980an, eta bertsoak bota zituen elkarrizketaren bukaeran... 40 minutuko emisioa zen” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18). Guztiak ere euskaraz egindakoak: “Konpromisoa zen erderaz eta euskaraz egitekoa, eta nik orduan egiten nuen hasieran lau lineako aurkezpena erderaz eta beste dena euskaraz” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18).

Koloretan egiten zuten lan, zeluloidearekin, 16 mmko metrajearekin. Kalitate oneko irudiak behar zuten, bada. Denak galdu ziren, ordea: “Pena dena galdu dela. Ez zuten ezer gorde” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18).

Amurizak ere gogoan dauzka elkarrizketa haiek:

“Telenorten hiru bat aldiz egona naiz, beharbada lau. Bai Iriondorekin eta baita beste jende batekin ere. Uste dut, gainera, 1980ko finalaren irudiak programa horri esker kontserbatzen direla. 82koan ere nire txapela janztea eta beste hainbat irudi gorde dira. 1976tik bertsoan serio samar hasi eta banuen ibilbide bat, ‘Egin’en zutabegile ere banintzen, txapelak ere etorri ziren, eta dezentetan deitu ninduten Telenortetik. Gerora, ETBtik baino gehiago.” (X. Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02)

8.2.6.2 Bertsolaria euskal animazioaren hastapenetan ere (1981)

Urte hauetan hasiko da euskara marrazki bizidunen munduan sartzen, eta alor honetan ere lehen minututik izango du bertsolaritzak presentzia. Juanba Berasategi (1951-2017) pasaitarrak, euskal animazioaren aitzindari eta sortzaile garrantzitsuena izango zenak (Roldan, 2001), ‘Ekialdeko Izarra’ film laburrekin ireki zuen bidea 1977an, eta bigarren pauso gisa Fernando Amezketarrari buruzko lana ekarriko zuen.

Hamar minutuko film bat da 35 milimetrotan grabatua, Jaizkibelen eskutik Luis Goya eta Gurutze Peñalvak ekoitzia, marrazkilari nagusi Joxe Alberdi eta animatzaile Ion Etxebeste izango dituen, Alberto Iglesiasen musikarekin, Ramon Etxezarreta eta Koldo Izagirren testuekin, Jose Luis Azpiroz, Josetxo Lizartza, Eugenio Muñagorri, Joxan Muñoz eta Jone Tapiaren ahotsekin eta Josu Zabalaren soinuarekin⁵⁴⁵. Erretorearen zerriaren istorioa kontatzen da bertan, bere asto argalari ‘compañero’ deitzen dion Fernando burusoil batekin. San Martinak direnez herri guztia zerrien atzetik korrika dabilen bitartean sagardotegian ari da bertsolaria, patxada ederrean afaltzen. Aurretik berak botatako zapaburuak topatu ditu sagardoan, eta nagusiak doan eman dio jatekoa: Afari honek bapo kendu dit/ barruan nuen tristura/ etxean berriz goseak hiltzen/ inolaz ez da itxura/ zure gizona moldatuko da... Etxerakoan herriko zerririk dotoreena darama etxera bizkarrean, erretorearena, honek Fernandok agindu bezala hil ondoren leihoan denen bistara utzia zuena. Biharamunean, zerria falta duela ikusitakoan, Fernandoren etxera joko du erretoreak. Andrea eta biak umearen sehaska ondoan topatuko ditu. Etxe guztia arakatu arren ez du zerririk topatuko. Ondo ari dela komentatuko dio Fernandok, berak agindu bezala zerria denen bistan jarri eta gero lapurtu egin diotenaren itxura eginez. Sagardotegiko hurrengo eszenan herritarrek zerriaren desagertzeaz ari dira: batzuen iritziz Fernandok lapurtu dio, baina gehienek, sagardotegiko

H-arena mito bat egin zuten batzuk, egin genuen denok, Euskaltzaindia ere tartean...” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

⁵⁴⁵ Helbide honetan dago ikusgai: <https://www.ganbara.eus/fitxa/?vid=429> [2019/VI/15]

nagusia buru dutela, erretoreak ezkutaturik daukala uste dute. Fernandoren etxeko umearen sehaskan dagoela ikus daiteke azken eszenan.

Oso medio gutxirekin buruturiko lana izan zen. Honela kontatzen du Berasategik berriak egindako erreportajea:

Berasategi animazioko zinema garatu eta kanpoko menpekotasunik gabe Euskal Herrian errotzeko lanean zebilen, eta Jaizkibel ekoiztetxean bildu zituen horretarako indarrak. 1979an, ordea, ahulak ziren oraindik egitasmoaren zimenduak. Horregatik eskertu zuen Goiaren laguntza, Fernando Amezketarra filmari ekiterakoan. Hala azaldu du Berasategik orduko egoera BERRIAK egindako erreportajea: ‘Momentu horretan denetarik behar genuen, eta ez genuen batere dirurik. Adibidez, mahaia egin behar genituen marrazkilarientzat. Diru pixka bat genuen egurra erosteko, baina egiteko ez. Luis [Goia] ni baino trebeagoa zen lan horietan, eta horrela hasi ginen’.” (Berria, 2016/IX/11, ‘Luis Goiaren *abentura* etena’, Ander Perez)⁵⁴⁶

Baina medio gutxirekin egin izanagatik oso duina da azken emaitza. 1981ean estreinatuko da ‘Fernando Amezketarra’ film laburra eta urte hartan bertan Euskal Zinemaren Lehen Saria irabaziko du Zinebi Bilboko Zine Dokumental eta Laburmetraia Nazioarteko Zinemaldian.

‘Kukubiltxo’rekin (1983) jarraitu zuen bere bidea Berasategik eta ‘Kalabaza tripontzia’ (1985) etorri zen ondoren, euskarazko animaziozko lehen film luzea. Hurrengo urteetan ibilbide oparoa osatuko zuen Pasaiakoak, eta ibilbide horretan, aurrerago ikusiko den bezala, bertsolaritzak toki garrantzitsu bat izango zuen.

8.2.6.3 Dokumental biografikoak: Xalbador (1981) eta Uztapide (1983)

Aurreko zikloan, Frankismo Garaian, dokumentalgintzan bertsolaritzak emandako pausok jarraipena izango zuten ziklo berri honen lehen urteetan. Jauzi kualitatibo bat emango zen gainera, bertsolaria dokumentaleko aktore sekundario bat izatetik protagonista izatera pasako baita. Bertsolariei buruzko lehen dokumental biografikoak grabatuko dira, bere ertzekotasuna gainditzen hasiak direnaren adierazgarri:

“Francoren heriotzak aro berri bat ekarri zuen Hego Euskal Herrira, eta dena posible zela uste zen sasoi hartan, nolabaiteko pizkundea eman zen hainbat arlotan. Trantsizioko urte haietan, zinemagintzan euskal zinema eraikitzeko eztabaidak mahai gainean jarri, eta fortuna hobe edo eskasagoarekin, diruarekin edo dirurik gabe, hainbat film burutzen hasi ziren han eta hemen (...) Gauzak horrela, ez da harritzekoa, zinema eta bertsolaritzaren arte harremanean aro berri bat hastea urte haietan. Oraindik geldoa izango zen garapena, baina gutxika gutxika, bertsoaren ikuspegi folkloriko edo esentzialesatik harago agertzen hasi ziren bertsolariak (...) Horren adibide dira, amateur mailan egiten hasi ziren dokumental biografikoak. Jadanik, bertsolaria ez zen gehiago euskal Paisaiaren zati mudakaitz bat, belarraren edo zuhaitzaren pareko; bertsolariak ere pertsonak ziren, eta hala, erreferente kultural ziren heinean, horien bizitzak bazuen interesa ikusleentzat” (Martinez, 2011: 40-41)

Lehenengoa Juanmi Gutierrezen (1945-2019) ‘Xalbador gaztain kormutxa’ izango da Xalbadorren heriotza gaitzat hartuz 1981ean estreinatu zena. Gutierrez jesuita bezala egindako ikasketak Bruselako INSAS eskolan zinemako goi mailako ikasketekin osatu zituen

⁵⁴⁶ Adierazpenak Luis Goia ekoizlearen heriotzean *Berriak* egindako ‘Euskaldunon Goya’ ikus-entzunezko erreportajetik hartuak dira. Helbide honetan dago ikusgai: <https://www.youtube.com/watch?v=RyjVp1bJmPU> [2019/VI/15]

eta 8 mmko film ugari egiteari ekin zion⁵⁴⁷. Josulagunen konpainia utzi ondoren, bost urtez Donostiako Herri Irratian aritu zen lanean, eta bertan piztu zitzaion Xalbadorri buruzko zerbait egiteko gogo: “Saso hartan, Gutierrezek Herri Irratian egiten zuen lan, eta 1980an Urepelen Xalbadorri egin zitzaion omenaldiaren berri ematera joan ziren lankideek han bizi izan zutena kontatu ziotenean, erabat txundituta gelditu zen” (Martinez, 2011: 41).

46 minutu ditu filmak⁵⁴⁸, eta bazkaloste batean mahaiaren bueltan familiari eginiko elkarrizketa luzea da lanaren ardatz nagusia. Xalbadorren bizitzako eta bertso ibilbideko argazki, bideo eta audioekin osatzen da kontakizuna, eta baita Uztapide, Lasarte, Mattin eta Lazkao-Txikiri eginiko elkarrizketekin ere:

“Uztapide, Lasarte eta Mattin, mahai soil batean eserita ageri direla hizketan, dekorazio handirik gabe. Atentzioa ematen du honek, izan ere, ordu arte bertsolariak beti agertu zaizkigu eszenaratze zaindu batean, dela natura erdian, dela supazter goxoan... Oraingoan, balirudike bertsolarien hitzek berez badutela aski garrantzi plano bat betetzeko” (Martinez, 2011: 43)

Azkenik, adituen iritziekin jazten da guztia:

“Gutierrezek ere jende kultura erabiltzen du bertso-mundurako sarrera egiteko; oraingoan, Juan Mari Lekuona izanen da (apaiza, nola ez), sakristiatik aitzin-solas antzeko bat egingen duena, hitz batzuk esan eta bertso bat kantatuz. Gero, Joxe Mari Aranalde eta Emile Larreren interbentzio txiki batzuk ikusiko ditugu (...)” (Martinez, 2011: 42)

Michel Itzaina ere ageri da aditu bezala, eta kredituetan ere egiten zaio toki bat, baina adituen artean Juan Mari Lekuona da gehien azaltzen dena, tarte ezberdinetan minutu dezente egiten dituelarik kameraren aurrean Xalbadorren bertsogintza aztertuz.

Bertsolariaren bizitza osoari egiten zaio errepassoa: Hernandorenak nola deskubritu zuen kontatzen du familiak, berekin bizi izandakoak gogoratzen dituzte bertsolariek, bere bertsorik ezagunenak abesten dituzte adituek... baina bere omenaldi egunean jazoriko heriotzari eskaintzen zaio tarterik zabalena. Omenaldi eguneko argazkiak ikus daitezke, audioak ere entzuten dira eta 38. minutuaren bueltan Lazkao-Txikik kontatzen ditu egun hari buruzkoak:

“Jaialdian txandaka-txandaka binaka batzuek eta banaka besteek irten genuen bertsoak kantatzera, eta Xalbador gure ondoan egon zan. Hala, une batean hoztu zala eta atera zan kanpora. Guk ez genuen uste horren gaizki zegoenik (...) jaialdia bukatu zanean jendearekin hizketan eta hala esan zidan emakume batek: ‘Zu Lazkao-Txiki, Xalbador oso gaizki da, Xalbador hiltzen dago!’ Nik esan nion ‘ezin liteke! Oraintxe gurekin zen eta!’ Hala joan nintzen herriko etxeko gela batera eta han zegoen etzanda eta bazituen ondoan bere seme alabak eta (...) Labegerie medikuak esan zidan ‘oraintxe hil da’ eta bere andreak ‘Fernando, baina ez da posible!’ esaten zuen eta hartu eta jaso egiten zuen (...)”

Hil berritan ateratako argazkiak ikus daitezke, audioarekin osatzen diren bere hiletakoak, eta baita bertso munduko jendea erakusten duten bideo zatiak, lehenik Lazkano eta Azpillaga, Uztapide ondoren eta Manuel Lekuona, luze, 35. minutuaren bueltan. Emazteak laburbiltzen du bizi izandako sentimendua: “Ezin sinestekoa zen niretzat. Iduritzen zitzaidan edozein momentutan bertsotan hasiko zela”

⁵⁴⁷ Bizitza osoa emango zion euskalgintzari eta euskal dokumentalgintzari: HABEren ikus-entzunezko material ugari grabatu zuen 1980ko hamarraldian eta Ikuska saileko 15 lana, ‘Euskaldunberriak’ izeneko burutu zuen 1982an, Eusko Ikaskuntzako Zinema Saileko buru izan zen, zine ikastaroak eskaini zituen hainbat zentrotan, euskal zinearen ikerketa lanetan ere aritu zen eta dozenaka dokumental, luzeak nahiz laburrak, estreinatu zituen.

⁵⁴⁸ Helbide honetan dago ikusgai: <http://www.filmotecavasca.com/es/xalbador-gaztain-kormutxa> [2019/VI/15]

Bi urte geroago Juanjo Frankoren (1934) ‘Uztapide’ emango da ezagutzera, oraingoan Endoiakoaren heriotza dela eta: “(...) bereziki interesgarriak dira haren funeraleko irudiak, hainbat bertsolarik bizkarrean nola eramaten duten ikusten dugu, egun ezin grisago batean” (Martinez, 2011: 45-46)

40 minutuko dokumentala da⁵⁴⁹, Iñaki Zubizarreta eta Juanjo Frankok Joxe Mari Aranalde eta Juan Mari Lekuonaren laguntzaz idatziriko gidoiarekin, eta Zortzikoramak Euskadi Irratia, Herri Irratia eta Eresoinkaren laguntzarekin ekoitzia. Uztapide bera, Lizaso, Basarri, Gorrotxategi, Lazkano eta Lasarteren bertsoak entzun daitezke, narrazioaren haria Txaro Arteaga eta Iñaki Zubizarretaren ahotsek josten dute, baina Uztapide, Kontxita Iturain, Basarri eta Jose Lizasoren ahotsak ere entzun daitezke.

Hil-beilarekin hasten da filma. Bere jaiotetxea ikus daiteke jarraian eta gurasoei buruzko Uztapideren bertsoak entzun daitezke. Endoia eta Zestoa ikusten dira jarraian, trikitixa doinuek lagunduta. Arteaga eta Zubizarretak bertsolariaren soslai bat irakurtzen dute. Hiletakotxea ikusten da eta Lopategi, Etxeberria, Koxme Lizaso, Lazkano, Amuriza eta Azpillaga bertsolariek daramate hilkutxa bizkarrean. Malko batzuk ikus daitezke, bertso gehiago, Oiartzungo elizan emandako azken agurra, eta Iparragirre, Bilintx eta Xalbadorren mailan jartzen duen apaizaren sermoia. Uztapideren omenaldi ezberdinetako irudiak, berak irabazitako txapelketetakoak (buruz-burukoan Basarri irabazitakoa, Lazkao-Txikiri irabazitakoa, Xalbadorri irabazitakoa), irabazi berritan egindako elkarrizketa...

Erretiratzerara behartu zuen ondoreza eman zioneko audioa ere entzun daiteke, benetan zirraragarria. Iriondok gaia jartzen dio: ¡Manuel gazteak sarritan aitatzen dira, zuk ba al duzu gazteengan itxaropenik, esperantzarik?. ‘Nik’ hasten da, baina ezin jarraitu. Ulergaitzak diren hitz batzuk esaten ditu: ‘ende... nekune...’. Eta barkamena eskatu, ‘barkatu’. Txaloak. Merezitakoak. Bizitza osoa bertsoari eman ondoren, iktus bat taulatu ganean eman diolako bertsoa kantatu ezinik gelditu eta barkamena eskatzen duen txapeldun handiari eskainitakoak.

Zestoa plaza jarri zioteneko irudiak. Bertsolari zahartuaren emozio malkoak. Basarrik kontaturiko bien pasadizoak. Hiletako irudiak berriro. Agur Jaunak. Bertso gehiago. Txalaparta. Bere bertsoak laster dela zeruan berarekin amari esanaz. Endoiarrak bertsolaritzari egindako ekarpena laburtzen duen azken lokuzio bat.

Gutierrezen lana bezala, zine amateurra da Frankoren lan hau, baina intentzio guztiarekin egindakoa, urte haietan Euskal Herria hartu zuen gauza berriak probatzeko sukarrak hauspoturikoa. Izatez, elkarren lagunak ziren bi zuzendariak, pasio partekatu horrek egindako lagunak. Honela kontatzen du Gutierrezek:

“Atrás quedaban los años gozosos en los que recorríamos los pueblos de Euskal Herria con un proyector y nuestras humildes películas –la sábana-pantalla la ponían los que nos invitaban– llevando las películas en euskera del incipiente cine vasco. Allí proyectamos “El cielo es testigo”, “El atleta”, “Irudimenaren arriskua” o las hermosas cintas que Juanjo filmó sobre los bertsolaris ‘Uztapide’ o ‘Lasarte’⁵⁵⁰. Películas que realizábamos casi compulsivamente un grupo de entusiastas amateurs (reivindico la figura del amateur tan generosa y libre, pero con las exigencias técnicas del profesional) y que reuníamos en los míticos festivales de Cine Vasco “Zestoako Zine Topaketak” o “Lekeitioko Zinema Bilerak.” (Gutierrez, 2008)

⁵⁴⁹ Xenpelar Dokumentazio Zentroan dago ikusgai.

⁵⁵⁰ Gutierrezek aipatzen duen Frankoren ‘Lasarte’ hau ezin izan da topatu.

Aurreko zikloan aipatu da Frankoren ‘Kilometroak 77’ lana⁵⁵¹, Lazkao-Txikiren bertso-saioa jasotzen zuena. Lan hauen filosofia ere zehazten du Gutierrezek:

“(…) trabajo necesario que poco a poco contribuyó a la creación de la memoria histórica de nuestro pueblo. Faceta en la que se enmarcan las grabaciones que hicimos juntos de los famosos primeros Kilometroak en los años 77 y 78, cuando no existía todavía Euskal Telebista, ni la gente disponía de cámaras domésticas como hoy en día” (Gutierrez, 2008)

8.2.6.4 Lehen agerpenak ETBn

Euskal Telebistan ‘Hitzetik Hortzera’ hasi aurretik Sebastian Lizaso gazte batek irabazitako 1986ko Euskal Herriko txapelketa eta jada beteranoa zen eta hainbatetan gertu ibili ondoren 1989koan Jon Lopategik irabazi zuen txapelaren inguruko emanaldiak izango dira.

1982koa Telenortetik eskaini zuten: “1982ko finala bi kamerarekin grabatu genuen osorik, zeluloidean, eta astelehen eta astearte osoa hartu nituen postprodukzioa egiteko tekniko “moviolo” baten laguntzarekin. Ordubeteko emanaldia eskaini genuen, laburpen bat. Tamalez ez dut uste Telenortek artxibatu ere egin zuenik (...)” (2017, Iriondo). 1980koa ez da argitu ahal izan nork eta nola grabatu zuen, baina, ‘Ikuska 18’an irudiak jasota gelditu zirenez, grabatu zen behintzat: “Dorronsoro: Berrikuntza teknikoetan, lehen irratia bezala, orain bideoa sartzen da. 80ko txapelketa bideoan jaso da.” (Dorronsoro eta Lekuona, 1987: 23). Eta 1967koa Pio Caro Barojak grabatu zuen, ikusi den bezala, TVEn ‘Fiesta. Bersolaris, poetas populares vascos’ izenburuarekin dokumental gisa eskaintzeko⁵⁵². 1967tik aurrerako Euskal Herriko txapelketen final guztien irudiak jasota daude, bada, bideoan.

1986ko hura, ordea, berezia izan zen. Aurrekoak ekimen partikularren emaitza diren bezala, 86koa telebista publikoak hartutako erabakia izango zen, bertsolariekin hitzarmen bat lotu ondoren hartutakoa, eta aurrekoak ez bezala zuzenean emititu ziren irudiak, finala osorik eskainiaz. Honela, emisioa bera albiste bihurtu zen: *Jaiegin*, 1986/III/22, ‘Bertsolarien finala ETBn’; *El Diario Vasco*, 1986/III/23, ‘Amplia difusión de la final del campeonato de bertsolaris’; eta *El Diario Vasco*, 1986/III/23, ‘ETB: Campeonato de Bertsolaris, en directo’. Bertsolariek txapelketaren ardura hartzen zuten lehen aldia zen⁵⁵³ eta jauzi kualitatibo bat eman nahi izan zuten hedabideratzeari zegokionean:

“Baliabide guztiak erabili ziren: prentsaurrekoak, horma irudiak, egunkaria, irradi-telebista, denak lagunduko zuten saioak girotzen eta saioko bertsolarien argazki, elkarrizketa, eta abarrekoek zabalkunde handia hartu zuen. Gailur bat markatuko zuen hedabideetan izan zuen eraginean. Lehen aldiz sartuko zen EiTb saioaren zati bat zuzenean emanez.” (Larrañaga, 2014: 72)

Gainerakoan, bere lehen urteetan erreportaje eta elkarrizketa solteak izango ziren ETBn eskainiko zirenak. Adibidez, 1984ean Zumaiako bertso-eskolari buruzko erreportajea eskaini zen⁵⁵⁴, Arantxa Urretabizkaiak zuzendua. Edo 1985ean Joxe Mari Iriondok ‘Aurrez-aurre’ programaren baitan Basarriri edo Mari Treku, Mattinen emazteari, egindako elkarrizketa

⁵⁵¹ Ik. 6.4.5.4 Frankoren ‘Kilometroak 77’ (1977)

⁵⁵² Ik. 6.3.7.5 Pio Caro Barojaren ‘Fiesta. Bersolaris, poetas populares vascos’ (1967)

⁵⁵³ Bertsolari emakume batek Euskal Herriko txapelketa batean parte hartu zuen lehen aldia ere izan zen. Kristina Mardarasek eman zuen pausoa, Santutxuko bertso-eskolak animatuta. Aurretik, 1984ean, Amaia Osoa Arabako I bertsolari txapelketan parte hartua zen.

⁵⁵⁴ *Baleike* aldizkariak jarri zuen sarean: <https://baleike.eus/zumaiak/1505028209761-bideoa-zumaiako-bertso-eskolaren-hastapenak-1984ko-etbko-saio-batean> [2016/VI/15]

luzeak; Martin Ugaldek ‘Euskaldunek Hitza’ programaren baitan Basarriri 1986an eginiko elkarrizketa⁵⁵⁵...

8.3 GAILURRA: MURGILKETA MASA KULTURAN (1990-2005)

8.3.1 ‘Hitzetik Hortzera’: erreaktore nuklearra (1988-)

8.3.1.1 Telebistaratzeko erronka giroan

1980ko hamarraldiaren lehen erdia igarota bertsolaritza telebistaratzeko erronkari heltzeko gogo nabari daiteke bertso-munduaren baitan. *Jakinen* 1987an argitaraturiko lanean, aditu eta eragileei helaraziriko galdetegiaren seigarren galderak honela zioen: Bertsolaritzak nola baliatu beharko luke komunikabideez (prentsa idatziaz eta ikus-entzunezkoetz, alegia)? Amuriza, Aranalde eta Egañarenak dira lehen erantzunak eta gogoetatu beharra ikusten dute argien: “[Egañaren hitzak] Oraindik berriegia zait gaia ezer zehatzik azaltzeko. Komunikabideen garrantzia hor dago, eta bertsolaritza zabaldu beharra ere bai. Harreman estua beharko dute, baina ez daukat garbi-garbi nola gauza litekeen” (Elkarlanean, 1987: 93)

Pello Esnalen gisako beste erantzun baten ondotik Joxerra Garziak maila xeheago batera jaisten du gogoeta: “Ohizko jaialdia ‘transmititzera’ mugatu behar al dute komunikabideek? Bertso-kritika egin behar ote da komunikabideetan? Nork egin behar du aukera? Komunikabideak izan ote litezke bertsolaritzaren plaza berriak? Zein baldintzatan?” (Elkarlanean, 1987: 94). Eta Michel Itzaina garbi ageri da pausoa ematearen alde:

“Dela Euskadi Irratian, dela Iparraldeko euskal irratietan, bertso asko zabaltzen da. Baina egun telebistaren erreinuan sartuak gara. Hemen ere orain asko lekutan Euskal Telebista hartzen bait dugu, honek behar luke egun oroz 10 bat minutuko saio bat eman, eta hori ordu egoki batean.” (Elkarlanean, 1987: 94)

Manuel Lekuonak ere ez du zalantza handirik: “(...) Zinta sonoroetan egiten den lana bidez egin beharra dago orain baino gehiago, oso garrantzi handia izango bait du geroari buruz. (...)” (Elkarlanean, 1987: 95). Ezta Iñaki Sarriugartek: “(...) Telebistaz, zer esan? Lan eskerga egingo luke (burutuko al du!), saio nagusiak zuzenean emateaz gain, gazteak plazaratu edo ezaguteraziko balitu eta umeei zuzenduriko emanaldi bereziren bat eskainiko balu (...)” (Elkarlanean, 1987: 96). Edota Juan Mari Lekuonak ere:

“Ikus-entzunezkoen balioa azpimarratuko nuke, batez ere transmisio-lanetarako. Eta irradi-telebistetako emanaldiek, neurtuagoak eta landuagoak behar lukete izan, bertsogintzaren prestigiorako. Gai-jartzaileez genioenaren antzera, hemen ere esku profesionala eskatzen da (...) Zaindu behar lirateke une bereko gozaldi poetikoa, eta gerora begira eginiko kultur zabalkundea.” (Elkarlanean, 1987: 95)

Badirudi 1986ko finalaren ondotik bizitu zela eztabaida. ETBn bertan burututako eztabaida batzuk gogoratzen ditu Felix Irazustabarrenak:

“Gogoratzen naiz saltsa pixka bat egon zela aurretik bertso programa bat ateratzearen inguruan. ‘Eztabaida’ izeneko eztabaiden programa bat emititzen zen eta hor norbaitek esan zuen ea bertsolariek ordubete egingo al zuten segidan kameran aurrean eztabaidarako gai bat emanda. (...) Amuriza eta Lizaso eraman zituzten eta erloju bat ere jarri zuten. Arrakastatsua izan zen. Eurek ere egin zuten antzerki pixka bat: saioaren erdialdera Lizasok puru bat

⁵⁵⁵ Xenpelar Dokumentazio Zentroan topa daitezke hauek eta gehiago.

piztu zuen deskantsua hartzeko (...) Bigarren saio bat egin zen ‘Eztabaida’ horretan eta hor jada gaia seriotasun gehiagorekin landu (...)” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19)

Lehen programa bat abiaraziko zen 1987-1988 denboraldian, ‘Ahotik Ahora’ izenarekin, propio lau bertsolarirekin antolaturiko saioak grabatu eta osorik, telebistako aurkezlerik gabe hilean behin eskaintzen zituena. Zuzendaria Hasier Etxeberria izan zen (Garzia: 1993: 89; Gaztelumendi, 2009: 59), eta Elkarlotearekin elkarlanean burutu zen, honen eskuhartzea oso txikia izan bazen ere: “Elkarteak ez zeukan esku hartze handirik. Bakarrik eskatzen zuen zerbait oso gaizki ateratzen bazen kentzeko aukera izatea” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19). Bederatzi bertso saio eskaini ziren guztira, bakoitza herri ezberdin batean grabatua, Lizarrako zinean, Ordiziako zinean eta Gasteizko Villa Suson egindakoak gogoratzen ditu Irazustabarrenak.

8.3.1.2 Sorrera xumea

Felix Irazustabarrena 1990ean sartu zen ‘Hitzetik Hortzera’ren lan taldean eta postu batean edo bestean gaurdaino eutsi dio programarekin izandako loturari. Bizitza erdia eman du, bada, bertan, eta ondo ezagutzen ditu programaren xehetasun guztiak. Joxerra Garziak lehen programan esandako lehen esaldia ere gogoan du: “Edozein kasutan bidea ez zen erraza izango 1988ko abenduan, ‘Hitzetik Hortzera’ren lehen programari honela ekiten baitio Joxerra Garziak: ‘bueno, kosta zaigu baina azkenean hemen gaude...’” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19).

Programa hasi bitartekoak honela gogoratzen ditu Garziak:

“ETBk ez zeukan batere gogorik bertsoaren alde apustu egiteko eta hasiera izan zan Elkarte sortu berriaren presio latza. ETBk baiezkoa esan zuenean ez zuen esan zer eta nola. Hasieran ibili ginen Euzkitze jarriko ote genuen aurkezle, baina Euzkitzek ez zuen nahi eta nola ni irratian ibilia nintzen bertso kontuekin ba niri tokatu zitzaidan. Euskadi Irratia eta ETB bi enpresa diferente ziren erakunde berdinen baitan eta ez zen erraza batetik bestera aldatzea. Jarri nuen baldintza bakarra izan zen gutxiago ez kobratzea.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Izena berak asmatu zuen:

“Elkarteak interesa bazuen baina programaren diseinuan zero hartu zuen parte. Izena neurea da (...) ‘Debaldeko Festa’ jarri nahi nion hasiera batean, Xenpelarren bertsoetik hartua zen eta gustatu egiten zitzaidan, baina haurrentzat ‘Galde Debalde’ izeneko programa bat emititzen zen garai hartan eta ezezkoa eman zidaten ETBkoek. Buelta pare bat eman eta ‘Hitzetik Hortzera’ planteatu nien.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Eta dirudienez gainerako gehienak ere bai: “[Garziarenak dira hitzak] Hura bai izan zela ‘egin ezak nahi duana’. Halaxe. Ez bakarrik ETBren aldetik, Bertsozale Elkartearen aldetik ere (...)” (Gaztelumendi, 2009: 63). Galdetu zaion bakoitzean (Barandiaran, 2011: 61 eta Gaztelumendi, 2009: 63-66) kontatu izan du medioaren ezagutzarik gabe, erabat bakarrik eta oso modu prekarioan egin zuela lehen urtea: “(...) en 1988, había comenzado su andadura un programa de televisión, ‘Hitzetik Hortzera’, que, tras un arranque casi clandestino por falta de medios y confianza de los directivos de la televisión autonómica ETB (...)” (Garzia, 2000a: 460).

Ikerketa honetarako egindako elkarrizketan xehetasun batzuk gehiago eskaintzen ditu. Esaterako medioaz zuen ezezagutzaz:

“Telebistan proba egina nuen (...) ‘Paperezko Arkupea’ izena zuen kolaborazio bat egiten nuen literaturari buruz, baina hortik aurrera bideo bat zer zen ez nekien (...) Eskerrak Xanti Etxeberria errealizadorea lagun egin nuen. Hark, ahal zuenean lagundu egiten zidan, bere lanorduetatik kanpo. Kareta bion artean egin genuen: Oteizaren Xenpelarren irudia hartu eta bueltaka jarri eta bertso baten audioa azeleratuta (...) Produktore nagusia Iñaki Behobide zen. Nik Etxeberriari galdetzen nion ze behar nuen eta hark ‘postprodukzioa’ eta Behobideri esan eta hark ‘zertako behar dek?’. ‘Esango diat hurrengo bileran’ esan behar izan nion, ez nekien eta zer zen. Hurrena ‘fundidoak’ egin beharko genituzkeela Etxeberriak, eta “Fundidoak? Ba, ‘mariconadas’” Behobidek.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Edo baliabideen eskasiaz:

“Ez neukan ez talderik, ez toki bat erredakzioan, ez platorik... Sincro produkzio etxea jarri zidaten oso jende majoa baina erdalduna. Jaialdi batean grabaturikoa montatzen hasi eta konturatu nintzen gaiak ez zeudela hartuta. Eta Sincrokoak ‘ah, es que como es de bertsolaris yo pensaba que cuando hablaban no interesaba’. Beste batean, puntua emanda zen bertsoa, puntua ez zuten grabatu eta neuk grabatu behar izan nuen. Aurkezlea puntua ematen lehor samarra gelditzen zela eta gitarra joz egin nuen (...) Platorik ez neukanez, bideo batetik besterako trantsizioak kalean grabatzen nituen, Miramarreko eskailerak, 31 de Agosto kalea eta horrela (...) Dena nik egiten nuen (...) Gogoan daukat programa horietako batean kredituetan ideia originala, zuzendari, aurkezle, errealizadore, denetan Joxerra Garzia jarri nuela. Amatiñok deitu zidan ‘hi, hori horrela jartzea itsusia dek’ esanez, eta ‘itsusiagoa izango dek hori horrela izatea, ez?’ erantzun nion.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

8.3.1.3 Arrakasta ikusgarria gutxira

Hamar programa egin zituen horrela hilean behin, harik eta denboraldi berriaren hasieran, 1989ko irailean ETBk astero egitea proposatu zion arte:

“89ko udan oso ondo funtzionatu zuen ideia bat izan genuen. Koro Lasarte ere tartean zen. Pentsatu genuen polita izango zela hogeit bat bertsolarirekin afari bat egitea eta unitate mugikorrarekin, alegia ohikoa baino bitarteko gehiagorekin, egitea jarraipena. Liernin egin genuen, Laxaro eta hauek bakoitzak gai bat jarri zuen eta hor atera zen Lazkao Txikiren ispiluarena. Gainerantzean, hilean behineko honek, ez zuten batere iragartzen gainera, ez dut uste audientzia handirik izango zuenik, baina Lierniko afari horrek sekulako oihartzuna izan zuen. ETBkoek ikusi zuten merkea zela eta funtzionatzen zuela eta astero egitea proposatu zidaten.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Astean behin egitekotan talde bat beharko zuela ikusi zuten. Maite Odriozola eta Olatz Egia hasi ziren erredakzioan, Xanti Etxeberria errealizadore eta Pello Elizasu errealizadore laguntzaile, guztiak ETBko langileak:

“Denboraldi bukaerarako platoa lortu genuen eta Joxe Mari Gabiria ere sartu zen erredakziora. Besteek telebistaz bazekitan baina bertsoaz zekien lehenengoa bera izan zen eta laguntza handia izan zen niretzat. Ordura arte bertsoari buruzko erabaki guztiak neuk hartu behar izan nituen, oso bakarrik, eta Joxe Marirekin beste gorputz bat hartu zuen taldeak. Felix Irazustabarrena

ere batu zen laister eta hura ere bertsozalea zen.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Legazpiarra puntua harrapatzen hasi zitzaion medioari, taldearen lanarekin gora egin zuen programaren kalitateak, eta asteroko maiztasunak on egin zion ‘Hitzetik Hortzera’ren oihartzunari. ETBko nagusien aurpegietan nabaritu zuen lehenengo audientzia datuen gorakada: “Audientzia daturik ez zidaten pasatzen niri, baina ETBko jefeen aurpegietan nabaritzen zen ongi ari zela funtzionatzen. Emisio orduarekin ez geunden konforme Elkartea eta ni baina egia esan asteroko horrek igande eguerdietan audientzia pilatu zuen. Baserrietan ikusi egiten zen” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26). Kalean ondoren: “Pixkanaka kalean ere hasi nintzen nabaritzen jendeak ikusi egiten zuela. Bertsolari askok komentatzen zizkidaten programaren gora-beherak...” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26). Eta baita grabatzera zihoazen saioetan ere:

“Gogoan daukat hasieran neuk bakarrik egiten nituen programa horietan enbarazu baino ez zuela egiten telebistak: Irratiarekin mikro bat sartzen duzu eta bost minuturako ahaztuta dago jendea baina telebistarekin 2000 watio sartu beharra dago eta giroan ezaguna zen ez zuela inolako graziaz egiten. Pixkanaka, ordea, alderantzizko fenomeno eman zen: bi urtean pasa ginen traba egitetik saiora joan ez baginen eskean etortzera.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Audientzia datuak eskatzen hasi zen eta 1990-1991 denboraldian astero 150.000 ikusle zituztela ikusi ahal izan zuen. Zenbaitetan 200.000 izatera ere iristen zirela:

“[Garziaren hitzak] (...) 1991 inguruan oso altu zeuden. Gero apur bat apaldu zen, baina hala ere audientzia handia zen. Nik uste dut audientziarik onenetako bat geneukala ETB1en parrilan, kirol emankizunak salbu. Momentu batean uste dut 200.000 ikuslera iritsi ginela, %10era. Hori ETBn kirolak eta futbolak soilik lortzen dute.” (Gaztelumendi, 2009: 89)

Eta arrakastarekin pozak ez ezik buruhauste berriak ere etorri ziren. ETBren kontrolatu nahia ere geroz eta nabarmenagoa zen: “Audientziak salto handia egin zuen, eta dena aldatu zen. Ordura arte nik egin nuen nahi nuen guztia eta inork ez zidan ezer esaten. Hor hasi ziren ETBren aldetik presioak, ‘ea zer jartzen duzuen, ez da zentsura baina entzun nahi genuke aurretik’” (Gaztelumendi, 2009: 67). Eta Elkartearen aldetik geroz eta gehiago eskatzen zitzaion:

“Nire sententzia zen hasierako abandono totaletik, arrakasta hasi zenean, kasik gehiegizko fiskalizaziora pasa zela Elkartea (...) Millan Telleria eta Juanjo Hernanikoa etortzen zitzaizkidan Elkartearen izenean kontsigna batzuk ematera. Baina ez zegoen kontsigna guztiak betetzerik. Herrialdeen arteko oreka, eskolartekoak ere sartzea, erakargarria izatea baina aldi berean pedagogikoa...” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)⁵⁵⁶

ETBekin urtero berritzen zen hitzarmenaren kariaz, Elkartearen finantziario iturri nagusi ere bihurtu zen programa: “Bertsoarena ETBko saio arrakastatsuenetakoa izatera iritsi zen, eta ekonomikoki sekulako bultzada eman zion hasi berria zen Elkarteari, lehen finantziario iturri bilakatu zelako” (Barandiaran, 2011: 68).

⁵⁵⁶ Gaztelumendik eginiko elkarrizketan ere aipatzen da ideia hau (Gaztelumendi, 2009: 67 eta 70).

8.3.1.4 Telebistaren energia nuklearra eta bertsolaritzaren *booma*

Bertso-mundutik sortutako ideia izan zen bertsolaritza telebistaratzearena, eta telebistako arduradunek hasiera batean uste zutenaren aurka balekoa suertatu zen apustua:

“Geu ginen demandan hasi ginenak. Telebistako adituek ez zuten bertsolaritza ‘telebistagarri’ jotzen. Duela hamabost bat urte, berrogei segundoz ‘plano amerikano’ geldo bat jasango zuen tele-ikuslerik ez zela esaten ziguten adituek. Gureari eutsi genion guk. Eraman genuen bertsoa telebistara. Eta baietz frogatu da: ikusleak berrogei segundotan eusten diola plano-aldaketarik gabeko aurpegi doitu gabeari, baldin eta aurpegi horrek zerbait itxurazkoa esaten badu.” (Egaña, 2004: 160)

Arrakastaren dimentsioak, ordea, ezustean harrapatu zuen bertso-mundua bera. Honela, 1991tik aurrera zaletasunaren eta bertso-saioen eztanda harrigarria bizi zen: “(...) bertso-plazzen kopurua izugarri handitzen da, urtean 1000 saio baino gehiago egitera iritsi arte. Bertso-saioetara sekulako jendetza inguratzen da gainera” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 147-148). Eta bertsolaritza moda-modako kontu bihurtu:

“(...) a diferencia de lo ocurrido en los campeonatos anteriores, cuando se celebra el campeonato de 1993 los bertsolaris se han convertido ya en personajes conocidos de la cultura vasca. Los niños les piden autógrafos por la calle, su presencia en todo tipo de programas televisivos y radiofónicos es constante, y no hay acto social en el que el bertsolarismo no esté representado.” (Garzia, 2000a: 462)

‘Bertsomania’ edo ‘Bertsolaritzaren *booma*’ deituko zaio fenomenoari, eta gerora aparraldirik handiena 1991tik 1993ra biziko zuela ikusiko da. Aurrerago azalduko den bezala, hainbat faktoreren gurutzaketatik emango da aparraldi hori, baina telebistako arrakasta izango da garrantzitsuenetakoa bat:

“El programa ‘Hitzetik Hortzera’ (...) ha sido, sin duda, una de las claves del llamado ‘Boom’ del bertsolarismo, expresión acuñada hacia 1991 para reflejar la proliferación de actuaciones de los bertsolaris, la masiva afluencia de público a cada una de ellas, el acceso al ‘estrellato’-relativo, como todo lo que concierne a la lengua vasca- del bertsolari, y, en general, todos los síntomas de ese fenómeno (...)” (Garzia, 2000a: 406)

Bertso-munduak, bere apustuak izandako arrakasta neurrigabearen aurrean, gogoetatu beharra sentitu zuen, eta horretarako, 1987an *Jakinen* argitaratutako haren ondotik, bigarren ikerketa soziologiko handi bat eskatu zuen Elkartek. Siadecok inkestaren emaitzak eta emaitza hauen gaineko gogoeta partekatuarenak (sei eztabaida talde antolatu zituen bertso-munduko hainbat kiderekin) argitaratuko ditu berriro ere *Jakinen* 1995an. Bertan ikus daitekeenez bertso-munduak ez zuen egindako apustuaren damurik: “Azken urteotan bertsolaritzari mesederik handiena egin dion urratsa bertso-saioak telebistaz ematearena izan da. Gertakizun honek jaso du bertsolaritza kulturgintzako beste ihardunaldi altuenen parera. Azierto handi bat izan da beraz, bertso-saioak telebistaz ematearena” (Siadeco, 1995: 73). Egoera berriak kezka berriak eragin zituen, ordea: “Jendea, bertsozale arrunta, pozik da. Bertsoa eskatzen du eta berriketa gutxiago. Baina bertsozale arduratuen artean, bada kezkarik, bertsolaritzak bizi duen ‘boom’ hau dela eta ardura batzuk ere sortu dira” (Siadeco, 1995: 94). Azkar puztu zena azkar hustu zitekeela uste zuten batzuk: “Batziek uste dute (...) euskal abeslari edo kantautoreekin gertatu zen antzeko zerbait gertatzeko arriskua dagoela, hau da, ‘boom’ baten ondoren goitik behera etorri zela, puztu zen globoa puztu bezala hustu egin zela” (Siadeco, 1995: 34). Eta telebistaren eragina errezeloz ikusten hasiak dira: “Telebistan bertsolaritzari sarbidea emateak, dudarik

gabe, maila batean bederen, lortarazi dio ezagupen sozial edo notorietate maila bat. Orain kontua zera da: alde batetik, hori ez galtzeko bideak jartzea; eta beste aldetik, saturazio-puntura inoiz iritsi gabe, beti margina bat gordez funtzionatzea” (Siadeco, 1995: 40).

Gerora, Sarasuak azalduko du argien kuestioa:

“Telebista, bestalde, energia duk bertsolaritzarentzat, baina energia nuklearra: ondo erabilia kristona, gaizki erabilia deabruarena. Telebistaren erritmoa oso laburra duk, produktuak modan jarri eta erre egiten ditik. Bertsolaritzaren irudi karikaturazkoa eman zezakek: bertsogintza antologia huts bihurtuta, bertsoaren arnas luzea etenda, eta gainera zerbait gai-arlo zentsuratuta” (Garzia, 1998: 196)

8.3.2 Egañaren belaunaldiaren bertsogintza eta hedatu-grina: uraniorik aproposena

8.3.2.1 Bertsogintza egokirik gabe alferrik zen telebista

Ikusi berri den bezala, 1990 hamarraldi hasieran bertsolaritzak bizi izandako *booma* azaltzeko funtsezko faktore gisa telebistaratzea seinalatzen du Joxerra Garziak. Fokupean jarri ziren bertsolarien maila eta profila fokua jarri zien telebista bezain garrantzitsuak izan zirela azpimarratzen du, ordea, segidan:

“Konjuntzio bat izan zen: batetik bozgorailu gisa funtzionatu zuen bertso programa audientziatsua, baina bestetik sekulako maila zuen bertsolari multzo handi bat Egaña, Sarasua, Amuriza, Sebastian, Lopategi, Peñagarikano, Euzkitze eta abarrekin, gizarte molde berriarekin konektatzeko gai izan zena. Alegia, bertsolariak Garmendia eta Egileor eta gisakoak izan balira, eta niri gustatzen zaizkit bertsolari horiek ere, telebistak izan zezakeen bozgorailu funtzioa alferrik izango zen.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Aldi hau jorratu behar izan duen bakoitzean egin izan du gainera azpimarra hau. Honela, esaterako, Patri Urkizuk euskal literaturaren historiari buruz koordinaturiko lanerako landuriko testuan: “El programa (...) no es sino una entre varias causas del *boom* bertsolarístico. La fundamental (...) es la aparición de una nueva generación de bertsolaris hacia el final de la década de los ochenta” (Garzia, 2000a: 460). Edo Barandiaranek Elkartearen historiari buruz egindako lanean eskainiriko elkarrizketan: “(...) telebistan sartu ginenean Jon, Egaña, Peña ez baziren tokatu, hau da, bertsolaritzak ordurako zeukan baino publiko zabalago bat asetzeko moduan inprobisatzen zekien jendea, orduan gorakada egongo zen, baina ez *boomik*” (Barandiaran, 2011, 63). Eta Beñat Gaztelumendik *Bertsolarirako* ‘Hitzetik Hortzera’ren 20. urteurrenean atonduriko erreportajearen esandakoetan:

“Nik ematen nuen, baina beraiek izan ziren erakutsi zutenak. 1980. urtea arte bertsozaleak bertsoa zen kontsumitzen zuen produktu bakarra. Erraz konformatzen zen. 1990ean telebista, bideoklipak, musika... Kultura aldetik sibirita samarra zen kontsumitzaile ez-klasikoa. Peña, Euzkitze, Andoni, Jon eta horiei esker kultura kontsumoan sofistikatu samarra zen jendea konturatu zen bertsoan ere bazegoela gozatzeko moduko gauzarik (...) Bai, telebistari esker izan zen, eta telebistak erakusten zuen produktuaren mailari esker.” (Gaztelumendi, 2009: 70)

Ziklo honen oinarrian bertsolarien profil berriei eskainiriko puntuan azaldu den gisan, Garziak aipatzen duen 1980ko hamarraldi bukaeran agerturiko belaunaldi hori, 1990 hasieran gailurrera iritsiko dena kaletarragoa izango da baseritarra baino, jantzia eskolarik gabea

baino, eta gehiago edo gutxiago publiko zabalago batekin konektatzen duten gai eta ikuspegi berriak maila bikain batez lantzen dituen. Talde zabal batek osatuko du belaunaldi hori: Andoni Egaña, Jon Sarasua, Iñaki Murua, Mikel Mendizabal, Xabier Perez Euzkitze, Anjel Mari Peñagarikano, Sebastian Lizaso... Baina guztien buru ibiliko denak, Andoni Egañak, gorpuztuko ditu, ordea, beste inork baino gehiago, berrikuntza horren ezaugarriak.

1986ko finaleko ezustekoetako bat izan zen zarauztarra, 25 urte eskasekin. Baina final hartan bertan Ramon Etxezarretak behintzat hartu zizkion gerora izan zitekeenaren trazak:

“(…) deskubrimendu bat dagoen ustea dut eta bertsolaritzaren etorkizunak izen bat duela, erakutsi duen bidetik jarraitzen badu behintzat, Andoni Egaña (...) Orainaino Amurizak bakarrik zuen dohaia berekin du baina txispa gehiagorekin. Amurizaren eskola, Txirritartzen gipuzkoanotzen asmatzen duena izango da geroko urteetan nagusi. Ikusiak ikusiz hori Egaña jaun gaztea izan daiteke” (*El Diario Vasco*, 1986/III/25, ‘Hala ere deskubrimendu bat’, Ramon Etxezarreta)

1989ko finalean, zarauztarrak txapela irabazteko asmoz jokatu zuen lehenengoan, ez zuen eramaterik izan, baina ondo asetzeko modua izango zuen hurrengo urteetan, 1993, 1997, 2001 eta 2005eko txapelak irabazita. Ez dago bertsolaritzaren historian lau txapel irabazi dituen bertsolaririk, hamasei urtean jarraian txapeldun eta hogeitahiru urtean jarraian finalista izanda, nekez gaindituko den marka ezarri du, eta ziklo honen gailurra markatuko du erabat. Txapeldunari dagokion gisan, Elkartea martxan jarri zuen belaunaldiaren proiektuaren aurpegirik ezagunenetako bat eta eragile garrantzitsua izatea tokatuko zaio, eta gazterik txapeldundu zenez, hurrengo belaunaldiak ere bere eskutik zailduko dira taulatu gainean.

Belaunaldi honek bertsolaritzaren inguruan burututako teorizazioaren baitan, bera izango da bertsogintzaren alorra gehien jorratuko duena, eta honenbestez berak eman izan ditu 1990 hamarraldiaren hasieran *boomaren* protagonista izan zen belaunaldi haren bertsogintzaren gako batzuk. Honela, bertsolariek eskainitako edukien eta erregistroen aniztasuna nabarmentzen du berrikuntza nagusi gisa:

“Esan daiteke egun inoiz baino bertsolari diferente gehiago daukagula eta gainera bertsolari horietako bakoitzak kultur erreferentzia asko eta desberdinak dituela. Alegia, Lopategi, Murua eta Peñagarikano elkarregandik guztiz desberdinak izateaz gain, hiruretako bakoitzak badakiela gai bati serio, besteari txantxan, hurrengoari ironiaz eta beste bati dramatikoki heltzen. Inoiz baino gai gehiago jorra daitezke estilo eta ikuspegi bata bestearengandik oso urrunekotik.” (Egaña, 1993: 26)

Aniztasun honen atzean, bere ekarpenari eskainitako puntuan jaso den bezala, Amurizak bere ‘Hiztegi Errimatua’rekin ekarritako iraultza dakusa zarauztarrak:

“(…) Nork eskatzen dio bertsolariari gaur egun, errima estua edo bitxia erabil dezan? Inork gutxik. Nork erabiltzen du errima estua eta bitxia ondorioz? Inork gutxik baita ere. Aiarren bertsolari-taldeak, oso gutxi ibiltzen den bertsolari edadekoren batek, Goierriko zenbait bertsolarik... Amurizaren inbentua «aprobetxatzen» asmatu ez dutenek (...) Gaur «zer» esan den edukitzen du gogoan bertso-entzulearen ehuneko handi batek eta «nola» esan duen ez du kontuan eta gogoan hartzen (...) formetan berdintasuna beste era batera hausten da (...) bertsoaren ezkerretatik. Errimak sail gramatikal desberdinetatik hartu izanak bertsoaren ezkerretaldean jolas handiagoak egiteko aukera ematen duelako. Hor bai nabaritutako diogula bertso bati Peñarena den

ala ez, Lizasorena ala Agirrerena den, Egañarena ala Euskitzerena.” (Egaña, 1993: 23-24)⁵⁵⁷

Neurri handietarako joera da aipatzen duen beste berrikuntza garrantzitsu bat:

“Nagia txikian egiteko? Seguraski ez. Seguraski egungo bertsolariak hobeki tolestatzen ditu handian bere burutazioak. Txikia elipsia da, lotura ilogikoak, zorrotasuna; handia, berriz, jolasa, zertzelada, literatur baliabideetarako arloa. Litekeena da egungo gizakiak biltzen duen informazio-pila, duen formazio sendoagoak eta, ondorioz, sortzen zaizkion zalantza eta itzulinguruek ‘handia’ n arnas-leku hobe topatzea.” (Egaña, 1993: 24)

Garziak inguru-testuaren ezpaltzearekin lotzen du bertsogintzaren neurri handietarako joera hau. Ingurua konplexuagoa denez bertsolariak diskurtso konplexuago bat garatu behar du, eta, ondorioz, testu handiagoa behar du horretarako: “La tendencia a alargar el bertso parece estar relacionada con la necesidad de producir textos de mayor consistencia poético-retórica, necesidad que ha su vez ha de relacionarse con la pérdida de homogeneidad del contexto compartido” (Garzia, 2000a: 457).

Gauza ezberdin gehiago esatea tokatzen zaio bertsolariari, gauza horiek esateko modu ezberdinak asmatu beharra dauka gainera. Hortik dator testu handiagoaren beharra, edo indar-sortzailea hasieratik, bertsoaren ezkeraldetik, aktibatu beharra. Beste hainbeste gertatuko da bertsoaren dimentsio bertikalean ere. Hasieratik, lehen puntutik, ekin beharko zaio zerbait erakargarria eskaintzeari. Indar guztia azken puntuan jartzearena, aurrekoak betelan huts gisa planteatzea bukatu da baita:

“Bertsoak bi zati ditu beti. Pentsatu dugun hura eta pentsatu ez dugun hura. Gaur egun bertsolariak baditu baliabideak, batipat pentsatu duen hura behar bezain indartsua iruditzen ez bazaio, pentsatu ez duen hartan karga jartzeko, diren baliabideak direla medio. Hartara, bukaeran ohizkoa den interesgunea ‘igo’ egiten da eta, bidenabar, baita bertsoaren maila ere.” (Egaña, 1993: 24-25)

Amurizak ereindako bertsogintza berria garatuko du, bada, belaunaldi honek, eta inoiz ez bezalako maila batean jarriko du bertsoen sorkuntza:

“(…) Egaña encabeza una generación que ha sabido integrar en su bertsolarismo lo mejor de la tradición oral con aportaciones de la literatura, el comic, el cine, etc (...) el bertso improvisado de nuestros días es, sin duda, el de mayor nivel jamás conocido en la historia del bertsolarismo.” (Garzia, 2000a: 465)

8.3.2.2 Hedatu-grinaren belaunaldia

Aldaketa ez da bertsogintzaren mailan bakarrik ematen. Hori bezain garrantzitsua izango da, proiektu soziokulturalaren inguruan emango dena.

Aurretik eragile gutxi batzuen eskutik eman zen proiektuaren garapenaren diseinua. Aurreko aldian, esaterako, Basarrik kasik proiektu pertsonal gisa defendatzen zuen bertsolaritzaren modernizazioa, eta bera nahiz Zavala, bakoitza bere aldetik ibili ziren hedabideratze lanetan. Ziklo honetan, lehen pausoak Amurizak markatu arren, eta gerora bertsogintzan buru Egaña nabarmenduko den arren, Elkartearen sorreratik belaunaldi oso batek hartuko du proiektuaren

⁵⁵⁷ Amurizaren berrikuntzaren eragina gehiagotan ere jorratzen du. Esaterako, Garzia eta Sarasuarekin batera argitaratutako lanean (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 125-127).

gidaritzak: “93ko txapelketa Andonik irabazi zuen, eta berarekin batera belaunaldi oso batek, bertsolaritza eta bertsogintza ulertzeko modu berri batek. Talde-kontzientzia bizia duen belaunaldia da, auto-antolamendu proiektu zehatz batekin konprometitua, bertsotan egitez gainera bertsogintzaz eta bertsolaritzaz etengabe hausnarrean diharduena” (Garzia, 1998: 12).

Proiektu partekatuak, Elkartean gorpuztua, apustu garbi batzuk egingo ditu, eta apustu hauek bere emaitzak emango dituzte: “[Sarasuaren hitzak] Zer gertatu da guri tokatu zaigun entzulerian? Ba homogeneotasun hori apurtu egin dela, eta ez bakarrik zirkunstantzia historikoak aldatu direlako. Bertsolaritza biziberritzeko apustu horretan, jende berria asko erakarri duk” (Garzia, 1998: 50)

Bertsolaritzaren zalegoa zabaltzeko apustuaz ari da atxabaldar bertsolaria. Apustu horri, berebat, bertsolaritza hedabideratzeko apustua lotzen zaio. Aurreko zikloetan ere, ikusi ahal izan denez, apustu hori barneratzen zuen bertsolaritzaren inguruko proiektuak, baina ziklo honetan askoz ere modu kontzienteagoan eta nabarmenagoan jorratuko da ildo hori. Egindako ahaleginaren zenbaterainokoa erakusten du Egañak bere belaunaldia definitzeko elementu gisa baliatu izanak:

“Amurizari zor zioagu begiradaren zolia. Hark esan zian: ‘... garai batean, bertso-afaria zen lekura heldu ahala, dena Land Roverrak ikusiko hituen...’ Irudi polita duk orain hogeitau urte bertsoak entzutera ze jende mota joaten zen adierazteko. Arrakastaren eta bertsolaritza hedatu-grinaren belaunaldia izan duk bai gurea” (Egaña eta Sarasua, 1997: 197)

8.3.3 Gazteenekin fisioa: *Bertso Hop* (1990), *Hertzainak* (1993) eta 1997ko txapelketa

8.3.3.1 Bertso-eskoletako lehen belaunaldia elitera

Ez zen Egañaren belaunaldia izango 1990eko hamarraldi hasierako bertsolaritzaren *boomaren* protagonista bakarra. Adinean aurrerago zioan hainbat bertsolari ederki egokitu zitzaion olatu berriari: “Bertsomaniaren aroa (1991-1993) (...) Euskarazko kulturaren pertsonaia nagusietakoa bilakatzen da bertsolaria, sasoi beteko bertsolari batzuen jiran: Egaña, Sebastian Lizaso, Jon Sarasua, Euzkitze, Peñagarikano... (...) bertsolari beterano batzuk ezin hobeto egokitzen dira bertsogintza honetara: Lopategi, Amuriza, Enbeita, Mañukorta, eta abar” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 147). Gregorio Larrañaga *Mañukortak*, esaterako, baserritarra eta mutilzaharra, Amurizak aipatzen zituen Rand Roverraren estereotipoaren haragiztatzea, orduan biziko ditu famarik handieneko urteak, hainbeste modernitatearen kontrapuntu gisa, ziurrenik. Lazkao-Txiki ere lehen mailako protagonista izango da, eta bere heriotza, 1993ko apirilean, aparraldiaren punturik gorenean gertatuakoa, ziklo honetan oihartzunik handiena izango duen albisteetako bat izango da. Egañak berari eskaini zion bere lehen txapela. Eta eskola zaharrekoak izanagatik, Joxe Agirre edo Joxe Lizaso bezalako bertsolariek ere urtero plaza mordo bat egiten jarraituko dute luzaroan, akaso gaztetan egin izan zituztenak baino kopuru altuagoak lortuz.

Aniztasuna da garai berriaren marka, eta mailako bertsolari guztiek egin diezaiokete ekarpena.

Belaunaldi gazteagoak ere hartuko zuen bere tokia. Eta erabat funtsezkoa izango zen bere ekarpena. Honela, 1993an 19 urte baino ez zituen Unai Iturriaga eta 24 urteko Aritz Lopategi sailkatu ziren finalera. 1997koan Jexux Mari Irazu (25), Jon Maia (25) eta Maialen Lujanbio

(21) batu zitzaizkien aurreko biei. 2001ekoan Egaña zen bere belaunaldiko ordezkari bakarra: Igor Elortza (26), Aitor Mendiluze (26) eta Sustrai Colina (19) suertatu ziren debutariak.

Ia guztiak bertso-eskoletatik ateratakoak ziren, eskola-arteko txapelketetatik zuzenean herrialdeetako finaletara eta jarraian txapelketa nagusiko finalera jauzi egindakoak. Eta fenomeno zabalago baten ordezkariak ziren, nagusiko finalera iritsi ez arren, elitean sartuko zirenak gehiago izango baitziren: Estitxu Arozena, Iratxe Ibarra, Unai Agirre...⁵⁵⁸

Belaunaldi honekin uxatuko ziren azken garo usainak. Ekosistema berriari egokituriko transmisio bideetatik sortuak ziren, eta gehienek ekosistema zaharraren bizipenik ez zuten apenas. Nostalgiaren kritikak entzutea tokatu zitzaizen, beraz:

“Orduan plazaratu ziren gazteek ere jasan behar izan zuten beren gurutzaldia. Iturriagaren patilak eta belarritakoak aitzakia, Sarasuaren belaunaldiak “bada ez da bertsolari” jasan behar izan zuen gisan, bigarren labealdi honek “denak berdinak dira” etiketa eraman behar izan zuen bularrean. Ez omen zuten lege zaharreko euskara egiten, politikan aldero bakarra omen zuten, eta denak berdinak omen ziren. Berdin-berdinak. Inguruan genbiltzanok bagenekien ez zela horrela (...)” (Egaña, 2004: 151)

Heurei, itxuraz behintzat, kritika hauek kezka handirik eragiten ez zieten arren:

“[Maialen Lujanbioren hitzak] Badakit hori hasieratan egon zela, bertsolaria jaio egin behar zela ziotenak, eta hori guztia. Baina ez da oso presente egon den iritzia. Nik ez dut hori bizi izan. Gehiago bizi izan dut oso jarrera harkorra, irekia, eta talde lanaren ideia hori.” (Barandiaran, 2011: 76)

Belaunaldi honek, hurrengo hamarkadan sorkuntzaren inguruko lidergoa hartuko du, baina 1990eko hamarkada honetan ez dira aprendiz edo konpartsa soilak izango. Belaunaldi honekin bat egiten asmatu izana izan zen Elkartearen proiektuaren eta Egañaren belaunaldiaren arrakastaren gako nagusietako bat. Zubirik artikulazio deritzo bat egite honi:

“Azken hamarkadetan bertsolaritza baita hasi eta bukatu den artikulazio nabarmenenaren protagonistak bertsolaritza klasikoa eta rockaren belaunaldia izan ziren (...) Ez gara ari bi bertsoak estilo fusionatzeaz buruz. Bi talde soziokultural bertsolaritza aterkipean elkar topatzeaz buruz ari gara. Sortzaileak, publikoak, haien bizimoduak, mundu ikuskerak, espazioak.” (Zubiri, 2019: 31)

Telebistaren energia nuklearraren fisioa bi belaunaldi hauen uztarketatik etorri zen bada. Fisio horrek ahalbidetu zuen hamarraldiaren bukaeran, ustez iragankorra behar zuen *boomaren* aparraldia, hazkunde egonkortu bihurtu izana.

8.3.3.2 Publiko gazteena piztuko duen txinparta: ‘Bertso Hop’ (1990)

Bertsolari gazteenen presentziak bertsozale gazteenen presentzia ekarriko zuen. Baina fenomeno hau gertatzeaz zela, fisioaren lehen txinparta bat Egañaren belaunaldiko bertso batek ekarri zuen. Zehatzagoak izanda, Negu Gorriak taldeak Egaña eta Peñagarikanoren arteko bertsoaldi batekin egin zuten bertsoak. Egaña berak aipatzen du duela urte batzuk *boomaren* faktore eragileen artean: “Faktore asko gertatu zen aldi berean: telebista-programa

⁵⁵⁸ Belaunaldien arteko bereizketak egitea beti suertatu ohi da konplikatua, adinaz gain, igurtziak emandako kideetasunak, bizipen kultural partekatutak eta beste hainbat faktorek ere eragiten baitute. Hitza bertsolarietara ematea begitandu da egokiena. Maiak puntu honetan jartzen du euren eta euren aurrekoen arteko muga: “Adinez hurbilekoenak Sorozabal, Euzkitze eta Sarasua izango nituen, baina hirurak ere beraien aurrekoen kultur sustratotik askoz hurbilago ikusten nituen ni eta nire inguruko gazte guztienetik baino” (Maia, 2017: 89)

hasi zen eta gainerako hedabideek ere toki egin zioten bertsolaritzari (...) Negu Gorriakek Peña eta bion bertso batzuk bertsionatu zituen erritmo berezian. Bertsolari gazte eta oso maila onekoak bazetozten...” (Egaña, 2004: 150). Eta ikerketa honetarako eginiko elkarrizketan ere hala dio:

“‘Hitzetik Hortzera’ren arrakasta asko aipatu izan da, eta arrazoiz (...) Askoz gutxiago aipatu izan den beste kontu batek hedabideekin ez du zerikusirik baina bai hedapenarekin. Fermin Muguruzak grabatu zuen Peñagarikano eta bion ‘Batetikan korroska’ haren bertso-rap hark sekulako faborea egin zion bertsolaritzari. Hor ere azti-begia izan zuen Muguruzak eta bertsoa belaunaldi gazteari hurbilagoak zitzaizkion kultur adierazpideekin uztartu zitekeela erakutsi zuen. Kanean nindoala mila aldiz abestu edo eskatu zidaten ‘Batetikan korroska’” (A. Egaña, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Bertsolaritza eta rock kulturen uztarketa, Zubirik artikulazioa deitzen dion hori, aztertu duen Alberto Irazuk ere behialako garrantzia aitortzen dio Muguruzaren esperimentuari: “(...) luze joango da bi ‘gune’ horien ibilbideak gurutzatu arte. 90eko hamarkadan helduko da hori, Negu Gorriak taldeak bere “Bertso hop”-arekin ekarritako iraultzaren ondoren. Ordura arte, rock kontzertuen espazioa zen gaztetxea, eta bertsoarena, bertso eskola” (Irazu, 2017a: 14). Baita bertsolari gazteen belaunaldi hark hamarkada hartan bizi izandakoaren testigantza liburua osatu duen Jon Maiak ere:

“(...) kantu horrek muga asko lehertu zituen. Lehertu zuen bertsoaren ‘isolamendua’ rock kulturarekiko; lehertu zuen Negu Gorriak edo beste edozein euskal rock talde entzun zezaketen entzuleek bertsoarekiko zuten harresi kulturala (...) Beti pentsatu izan dut Bertso Hop kantuari esker entzun zutela lehenengo aldiz –kontzienteki bederen- milaka gaztek bertsoa. Formatu berri hartan (...) inoiz ibili gabeko espazioetan sartu zen: gazte haien belarrietan, irrati, gaztetxe, txosna, plaza, kontzertu (...)” (Maia, 2017: 116-117)

Irazuren lanean irakur daitekeenez, lehenagotik hasiak ziren lehen hurbilketak. Andoaingo gaztetxea ardatz hartuta hainbat kontu aipatzen ditu: 1985ean, gaztetxearen lehen urteurrenaren ospakizunetan antolaturiko bertso-saioa⁵⁵⁹ eta bertan argitaratzen zen *Peste* fanzinean saioaz egin zen kronika; bigarren fanzine batean, *Karkaxan*, urtebete geroago Ardantzari jarritako bertso-saila; Bap! taldeak kontzertuen hasieran beti abesten zuen lauko txikia, eta 1986ko maketan argitaratu zuten ‘Atzera begira’ kantuko bertsoak⁵⁶⁰; Ximorra taldeak punk modura kantatzen zituen bertsoak, *Destruye!* fanzinean argitaratuak... (Irazu, 2017a: 14-35). Negu Gorriakekin jauzi kualitatiboa eman zela azpimarratzen du, ordea: “Ordura arte, bertsoa rock aireetara ekarria izan zenean, musikariek ez zuten sekula ekintza hori argi eta garbi aldarrikatu. Aldiz, Negu Gorriakek ozenki errebindikatu zuen” (Irazu, 2017b: 122).

⁵⁵⁹ Jokin Sorozabal, Pablo Joxe Aristorena, Joxe Manuel Oiartzabal eta Joxe Mari Izeta izan ziren bertsolariak, lauak ere 1985 hartan 20 urtetik beherakoak. Eta Aristorena eta Izeta behintzat bertso-eskolatik pasatakoak. Gaztetxeko esperimentu hauen harira honela dio Irazuk: “Atzera begira, gauza batzuk nabarmen samar ikusten dira: 80ko hamarkadan ikusmira handia sortu zen bertso eskoletan sortutako bertsolari gazteen inguruan, eta, besteak beste, horrek ahalbidetu zuen gaztetxea eta bertsoaren arteko lehen konexio hura. Beste modu batera esanda: kimu berri horiek atera ez balira –beste aukerarik ez eta, gaztetxeok ‘oso itxura serioko’ gizon edo aitona batzuegana jo behar izan balute, alegia-, gaztetxean, beharbada, ez zuten saiorik antolatuko. Bi hitzetan: gaztetxeetan bertsoa sartzekotan, bertsolari gazteak behar ziren.” (Irazu, 2017a: 20)

⁵⁶⁰ Bap!-ekoen zaletasunaz gehiago ere badio: “1985ean, Tolosako *Pakean utzi arte* fanzinean aitortu zuten Bap!-ekoen bertsoak atsegin zituztela, elkarrizketatzaileak beren zaletasunez galdetuta. Gustuen zerrenda egiten hasita, laburra izan zen andoaindarren erantzuna: ‘Ska, regea, trikitixa (deskojonorik gabe), bertsoak eta, noski, jarkorra.’” (Irazu, 2017a: 35)

1986ko finalean Egaña eta Peñagarikanok sorturiko bertsoaldia izan zen esperimentuaren oinarria. Kantuaren hasieran gaia finalean eman zen bezala entzun zitekeen, Laxaro Azkunereren ahotsean: ‘Peñagarikanok egundoko parranda bota du, eta etxera bueltan, emaztearen ohean sartu orde, Egaña amonaren ohean sartu zara’. Egañaren bertsoak molde klasikoan entzuten ziren, eta Peñagarikanorenak Muguruzak rap moduan emanak⁵⁶¹. 1990eko ekainean atera zen Negu Gorriaken lehen diskoak zekarren, baina urte bereko abenduan *single* modura ere kaleratu zen eta honen azalean taldeko kideak eta bi bertsolariak ageri ziren kupela baten aurrean sagardoa edaten. Bertsolarien ausardia seinatzen du Maiak: “Andoni Egañak eta Anjel Mari Peñagarikanok bertsolariengan beti gustatu izan zaidan zerbait erakutsi zuten orduan eta izen bat jartzearen sanidadea esango nioke” (2017: 116). Irazuk, taldeak burututako bertsolaritzaaren errebindikazioaren lehen elementua ikusten du azal horretan, errebindikazio bisuala:

“Bigarrenik, bataiatu egin zuten ekintza: ‘Bertso Hop’ zen hura (...) Negu Gorriak-ek bertsoa hip hop munduarekin belzte proposatu zuen: rapa, break dancea eta *graffitien* estetika. Lotura ez da hutsala: rapak lotura estua du afroamerikarren ghettoen ahozko kulturarekin, eta bertsolaritzaaren neurrian izan ez arren, bat-batekotasunetik edaten du.” (Irazu, 2017b: 123)

Negu Gorriaken ekarpena ez zen *single* horretara mugatu. *Bertso Hop* filosofiari jarraiki euren bigarren diskoan, 1991ean kaleratu zen ‘Gure Jarrera’ lanean, bertsolari gazte bati, Jon Maiari, hainbat kantaren letrak egiteko eskatu zioten: “Esaten zidan [Fermin Muguruzak] bertsoaren formatua oso egokia zela beraiek egiten ari ziren musika motarako: rap, hip hop... Bertsoaren ezaugarriak erabili nahi zituen. Alegia, errima eta metrika erregularra, Bertso Hop kantuarekin hasitako ildoari jarraituz (...)” (Maia, 2017: 118).

Elgoibarko gaztetxean horretarako bertso kiderik topatu ez zuenez bakarrik egindako bertso-saio batean ezagutu zuten elkar Maiak eta Muguruzak. Artean 18 urte bete berriak zituen bertsolari gazteak ez zuen berehala ahaztuko hura: “Esan zidan ez zuela inoiz halakorik ikusi eta izugarria izan zela (...) etxera txoro haize gozo batek joa itzuli nintzen. Fermin Muguruzak nirekin zerbait egin nahi zuen! Kortaturen eta Negu Gorriaken abeslariak, -13 urterekin erosi nuen kasetearen egileak...” (Maia, 2017: 117). Eta bertsolari gisa ere gonbidatu zuen disko berriarekin egindako hainbat emanalditara. La Casillan lehenengoa, 5.000 lagunengoa aurrean:

“Mikrofonoaren aurrean jarri eta kantuan hasi, zer gertatuko zain. Lehenengoan jendea txaloka hasi zen; bertsoa botatzen ari nintzela txalokekin jarraitzen zidaten erritmoa. Sekula horrelakorik! Bigarrenean txiskeroak piztu zituzten pabilioi osoan, kantatzen nuen bitartean (...) uste dut han zegoen jendeak ez zekiela bertso bat nola entzun (...) ederra zen hura guztia. Astero egiten nuenarekin alderatuta, hura beste zerbait zen. Nire bertsoak entzuten ari zen hura ‘nire’ publikoa zen. Ez bestea ez zelako, baina bai hau bazelako.” (Maia, 2017: 122)

⁵⁶¹ Hona lehen biak: Egaña: Batetik kan korroska/ bestetik errena/ ohia okupatu du/ hori da txarrena/ ez da pinta kabala/ honek dakarrena/ gantzontzilorik gabe/ ohean barrena/ pixkat gutxio edan/ ezazu hurrena. Peñagarikano: Gaur parrandan jotake/ hor dabil gizona/ lenen pasilloan jo/ ta gero komona/ uste nuen hau zala/ nik nere moñoña/ laztantzen hasi naiz ta/ ez da horren ona/ mozkorra nator eta/ barkatu amona. Eta azkenengoak: Egaña: Ohean sartu zaigu/ kolpera onduan/ lapur gaizto ta trakets/ hoietxen moduan/ pixa egin ezazu/ toki seguruan/ kordea banatzeko/ hemen inguruan/ poltsa beroarekin joko det buruan. Peñagarikano: Poltsa beroarekin/ hortxe jo nau danba!/ ni ez naiz lotsatuko/ egia esanda/ amonan errezoa/ holaxe izan da:/ requiem est domine/ virgo veneranda/ gehio ez naiz etorriko/ amona edanda.

8.3.3.3 1997ko txapelketako eklosioa

Artikulazioa elkarrekin ez zeuden munduak elkartzeko ahalmen gisa definitzen du Zubirik eta bertsolaritzak izandako arrakasta ulertzeko funtsezkoa dela dio (2018: 33). 1990eko hamarraldian bertsolari gazteekin gertaturiko prozesua pixkanakakoa izan zela gaineratu du:

“Prozesua ez zen bat-batekoa izan. Lehenik, exotikoak ziren beste bertsolari horiei ongi etorria egin zieten. Testuinguru hartan sortu zen bertsolari gaztea kontzeptua. Aurretik ere baziren adinez gazteak ziren bertsolariak, baina kontzepturik ez zegoenez, denak ziren bertsolariak, adjektiborik gabe. Artikulazio prozesuaren hasieran, bertsolari exotikoek ahalegina egin behar izan zuten zaharren moldea ikasteko (...)” (Zubiri, 2019: 31)

Maiak esplikatzeko du bera hasi zenean kolore pixka bat emateko sartzen zituztela saioetan: “Gazte bat sartuko diagu kartelean’ (...) plazaz plaza hasi nintzenean, goikoa esaldi aski erabilia zen bertso-saioen antolatzaileen ahotan, eta esanguratsua da” (2017: 84). Bertsolari gazteek ez zuten dimentsio kolektibo bat: “(...) ez zegoen –gazte txapelketek egun jakin baterako osatutako taldeez gain-, bertsolari gazteen kolektibo sentimendurik ala ezaugarri komunik” (id.: 85). Eta 1993ko Euskal Herriko txapelketan 60 parte hartzaileetatik bertso-eskolatik sortuak lau bakarrik izan zirela, gaineratzen du (id.: 145).

Bertso-eskoletatik geroz eta jende gehiago ateratzen hasi zen, ordea, eta Negu Gorriak Jon Maiarekin irekitako bideari jarraipena emango zitzaion, bertsolari gazte hauei presentzia berri bat eta publiko berriekiko konexioa eskainiaz: “Alta, pixkanaka kopuruz handitu egin ziren, bai sortzaileak, bai publikoa” (Zubiri, 2019: 31). Garai hartan Negu Gorriakekin batera euskal talderik garrantzitsuena zenak, Hertzainak taldeak, Elortza eta Iturriagarekin egingo zuen topo:

“(...) talderik gustukoenetarikoa bat Hertzainak ziren. Kontzertu baten ostean Josu ezagutu genuen, eta hurrena Igorren eman zuten kontzertu batetan oholtzara igotzera animatu gintuen” kontatzen du [Elortzarenak dira hitzak]. Josu Zabalak ere gogoan du lehen hartu-eman hura: “Ikusten duzu mutiko batzuk badatozela zure kontzertuetara. Gerora enteratu ginen bertsolariak zirela. Gure publikoarekin geneukan hartu-emana oso naturala zen eta eurekin ere askotan hitz egin genuen, elkarrenganako sinpatia sortu zen. Gero, beti jendea liatzeko prest ere bageundenez hori zen gerta zitekeen errazena: liatzea” (Agirre, 2013a: 54).

1993an Hertzainak taldearen agurrerako eman zuen birako lau kontzertuetatik hirutan bertsolariak egon ziren oholtza gainean: Igor Elortza, Unai Iturriaga, Xabier Amuriza, Jon Lopategi, Haritz Lopategi, Jon Maia, Jon Sarasua eta Maialen Lujanbio. Hertzainak taldearen arima izan zen Josu Zabalak, hamabost urte lehenago Amurizarekin herriz herri bertso musikatuak eskaintzen ibili zen berak, honela kontatzen du: “Honekin taldekook adierazi nahi genuen bertsolariak eta gu oholtza bereko pertsonaiak ginela. Guretzat ohore bat izan zen euren parte hartzea. Bertso saio oso ona egiteko adinako plantela biltzea lortu genuen gainera” (Agirre, 2013a: 54-55).

Bertsolari gazte hauek aurrekoek zutenarekiko bestelako kultura batetik zetozen: “Euskal kultura berri bat urazalaratzen ari zen. Aurrekoarekin erabat apurtzen zuen euskal hiztun profil berria, rockarolari lotua, euskarazko telebistari, gazte mugimendu abertzale berri, informatikaren hastapenei, drogari, bideo jokoei, surfari edo literatura berriari...” (Maia, 2017: 88). Estetika berri bat zekarten: “Orduko bertsolari talde zabalera kolore berri, bota, belarritako eta obario gehiago agertzen hasi zen ttantaka (...) Esanguratsua da gure

garaikoentzat saio serio batean lehenengo aldiz galtza motzetan kantatu genueneko. Edo txankletekin, sandaliekkin, mototsarekin ala belarritakoekin aritu gineneko estreineko hura” (Maia, 2017: 177). Eta euren tokia hartzen hasi ziren. Gutxika hasieran: “Txapelketatik kanpo soilik bertsolari gaztez osatutako lehenengo saioak antolatzen hasi ziren han-hemenka. Baita publiko gaztearentzat antolaturiko lehenengo saioak eta gazteek antolatutako lehenengo (...) saioak ere” (Maia, 2017: 177). Publiko zabal batekin konektatu zuen zirkuitu alternatibo indartsu bat osatzeraino gero:

“Zirkuitu berri bat sortzen ari zen, bertsolaritzaren azpigeruza bat, era naturalean eta ez antolatuan. Gure ezaugarriek –hizkuntzak, janzkerak, rock kulturak, unibertso imajinarioak, jarrerak, lagunak, ezagunak, militantziak- bertsolaritzatik kanpo zeuden orduko gazteekin konektatzea ekarri zuen horrek guztiak. Euskal indarguneetara ere, antolakuntza taldeetara, herri aldizkarietara, euskara taldeetara eta abar hasi ziren gure belaunaldiko lagunak iristen, bertso eskoletatik pasatutakoak asko (...) beraien bizitzei buruz kantatzen genuela ikusten zuten. Bertsolaritza, berriz ere, etorkizuneko euskaldungoaren, euskaldungo berriaren ahotsetako bat bihurtzeko bidean jarri zen” (Maia, 2017: 184-185)

Nota exotikoa izatetik protagonista izatera iritsiko zen, bada, bertso-eskoletako gazteen lehen belaunaldi hura: “Errealitate berri bat sortzen denean, errealitate horrek bere lekua hartzen du lehenxeago edo geroxeago” (Maia, 2017: 138). 1993ko txapelketan parte hartzaile guztien artetik bertso-eskoletan sortuak lau bakarrik baziren, 1997koan finalisten erdiak izango ziren: “Presentsako lehen lerroak, elkarrizketak, erreportajeak eta iritzi artikulua esanguratsua ziren. Azken urteetan bistaratu zen ‘Bertsolari gazteak’ terminoa zizelkaturik geratu zen eta non-nahi agertzen zen. Kontzeptu bihurtu zen, estilo baten izendapen, zenbaitentzat beldur edo zalantza sortzaile, baina, oro har, esperantza iturri” (Maia, 2017: 213)⁵⁶².

Zumaiarrak aipatzen duen bezala, bertsolari gazteen presentzia nabarmenak zeresana eman zuen prentsan: abenduaren 12an *Eginen* gazteentzako *Gaztegin* gehigarriak Maialen Lujanbio zekarren azalean, ‘Maialen doinu eta neurri librean’ tituluaz; Iñigo Olabarrik ‘Zortziko bitxia’, ‘Haize berria txapelketari’ eta ‘Ziklo berri baten hasiera?’ jarri zien izenburutzat finalaren bezperan *Euskaldunon Egunkariaren* gehigarrian argitaratutako testu banari, eta Koldo Tapiari eginiko elkarrizketa ‘Txapelketa honek adierazten du belaunaldi berri baten finkatzea’ batekin hasten zen; esanguratsua da baita, egun berean Unai Iturriagak *Eginen* gehigarrian, ‘Batzentzat gure bertsoak ez du labelik’, planteatu izana elkarrizketaren titularrean; edo Andres Osa Sakonak finalaren egunean *Deian* ‘Gazteen artean sortu den bertso grinak bertsolaritza berebiziko sendotasunean jarri du’ titulatu izana.

Eta taulatu gainean ez ezik harmailetan ere gaztetua eman zela nabarmendu zen: “(...) publiko berri baten iritsiera izan zen txapelketa honen ondorio nagusienetako bat. Jende gaztearen presentzia nabarmendu zuten guztiek, aurreko txapelketekin alderatuta” (Maia, 2017: 219).

Hurrengo urteetan are nabarmenagoa izango zen joera hori:

⁵⁶² Bertsolari gazte horien ondotik bertsolari gazteagoak etorri direnez, Zubirik ‘rockaren belaunaldia’ terminoa erabili du berriki belaunaldi hura izendatzeko. Maiaren eta Irazuren lanetan egiten den loturan oinarritu da horretarako. Lehenagotik ere hainbatek seinatua zuen, ordea, lotura hori; esaterako, Gabilondok: “Aldi berean bertsolariak rockero planta handiagoa hartzen hasi ziren, Amuriza bezalako itxura garbiagoa alde batera utzi eta belarritako ia ofizialaren estetika bereganatuz gizonen kasuan—rock eta bertsolaritza arteko banaketa historikoa deseginez” (Gabilondo, 2009: 33)

“(...) sortzaile berriek kualitatiboki beren diskurtsoak garatu zituzten, eta publiko berriek kualitatiboki gustu berriak garatu zituzten. Horrela hasi ziren zentraltasuna masiboki okupatzen. Egoera horretan blaitu ziren molde zaharragoetan zebiltzan asko ekarpen berriekin. Artikulazioa bururaino eramane zuten, eta, ondorioz, bertsolaritza aberastu egin zen.” (Zubiri, 2019: 31)

Berrikuntzak ekarri zuen berriro ere aberastasuna, baina berriro ere jarraidura baten baitan:

“Galtzen ari zen folk kulturara jaio ginen gutako asko, baina gu pop ginen, rock ginen. Aristerrazun dantzan egiteko zain dagoen erromeriazalearen aurrean, Pet Shop Boysak agertzea bezala izan zen gure agerpena. Egaña, Peña, Murua, Mendizabal eta abar ez ziren pop eta rock, baina kultura berrirako zubia ziren, ye-yeak ziren. Zertzelada berriak ekarri zituzten.” (Maia, 2017: 256)

8.3.4 Euskarazko prentsaren garapena: *Egunkaria* eta tokikoak

Bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren hazkundera funtsezkoa da 1990 hamarraldi hasieratik bizi izandako *booma* ulertzeko. Aipatu den gisan, ETBn ‘Hitzetik Hortzera’ programak izan zuen arrakasta erabakigarria izan zen fenomeno hau hauspotzeko, baina ez zen izan, noski, ‘Hitzetik Hortzera’ mediatikoki bertsolaritzari oso alde jarri zitzaion haizearen hauspo bakarra.

Prentsa idatzian, azaldu den bezala, 1980ko hamarralditik *Deiak*, *El Diario Vascok* eta *Eginek*, batez ere azken biek eta bi hauen artean azkenak, jarraipen zabala egiten zioten bertsolaritzari, eta bide beretik jarraituko dute hurrengo urteetan ere. Alor honetan bazegoen lehenagotik zetorren eskaintza garrantzitsu gehiago ere: *Argiak*, Euzko Pizkundearen zikloan bertsolaritzari testu gehien eskaini zion *Argiaren* eta Frankismo Garaian lidergo horri eutsi zion *Zeruko Argiaren* oinordekoak, gaiaren aktualitatea jorratu, txapelketen estaldura oso bat eskaini eta bertsolariei eginiko elkarrizketak argitaratzen jarraituko zuen. Egun astekariaren zuzendari den Estitxu Eizagirre bertsolariak azpimarratzen duen bezala, 1965etik 2015era bitartean etenik gabe argitaratu zen bertso-jarrien atalarekin ere ekarpen garrantzitsua egin zuen: “*Argiak* egin duen ekarpen garrantzitsu bat hainbat hamarkadatan bertso jarriak modu jarraitu eta finko batean argitaratzea izan da. Sormenerako leiho bat zen eta jendeak aprobetxatzen zuen. Oso bertso onak argitaratu izan dira *Argiaren* orri horretan (...)” (E. Eizagirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/19)

Bestalde, 1990eko hamarraldi horretan, plaza berri bat ireki zitzaion bertsolaritzari: euskarazko herri-aldizkariak. 1988an Arrasaten martxan jarritako *Arrasate Press* izan zen lehenengoa, eta haren ereduari jarraiki 1990eko hamarraldiaren lehen erdian sekulako zabalkundera izan zuten herri euskaldunetan (Díaz Noci, 2012: 209). Euskarazko kazetaritzaren garapenean mugarri garrantzitsu bat izan zen hau, tokiko informazioari dagokionean euskara erdarek aurrea hartzera iritsi baitzen: “Lehen loraldia. *Arrasate Press* aldizkariaren sorrerarekin hasten da 1988an eta 90etan jotzen du goia, 50 aldizkariarekin, gehienak herri bakarrekoak. Arrakasta handia –urrezko domina– izan zen hurbileko komunikazioaren esparrua euskararentzat irabaztea” (Tokikom Gogoeta Taldea, 2013: 5).

Bertso-munduak azkar erreparatu zion irekitzen zitzaion aukerari: “Gero eta errealitate zabalduagoa dira herri-aldizkariak. Irrati eta telebistak ez hainbeste. Herriko euskaldun guztien buzoietan sartzen den aldizkaria toki pribilegiatua da mota honetako bertso-paperentzat. Alor ederra dago hor lantzeko” (Sarasua, 1993: 49-50). Hamarkada bat luze geroago Elortza, Sukia eta Muruak aukera hori errealitate bihurtu dela berresten dute: “Tokikoak. Besteren artean, bertso-eskola edo norbanakoen kolaborazio asko biltzen dute,

dela bertso sortak, dela gertakizun edo ekimenei buruzko informazioa” (2008: 77). 2007an argitalpen bakoitzak bertsoaritzari eskainiriko testu kopuruak ere eskaintzen dituzte: tokikoen batura 607 testukoa da, bost aldiz, *Argiak* argitaratutakoa (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 77:78).

1990 hasiera horretan tokikoan euskarak erdare aurrea hartzea historikoa izan bazen, ez zen gutxiago izan euskarazko egunkariaren sorrera. Erregimen frankistaren amaieratik bertatik entzungo dira Frankoren altxamenduak ekarritako gerraren erdian sortu eta sei hilabeteren buruan desagertu zen euskarazko egunkaria⁵⁶³ berreskuratzearen aldeko lehen ahotsak. Díaz Nocik (2012: 214-215) 1976an Santiago Aizarnak eta Manu Oñatibiak sustaturiko *Erria* egunkariaren huts egindako proiektua aipatzen du, eta honen atzetik etorri ziren hainbat: garai beretsuan *La Voz de Euskadi* egunkariak *Orria* euskarazko gehigarria egunkari bihurtzeko aipatu zuten asmoa; *El Diario Vasco* eta *Navarra Hoy* egunkariak gutxira egindako antzeko planteamenduak; Mikel Atxagak 1982an *El Diario Vasco*, *La Voz de Euskadi*, *Egin* eta *Deiaren* euskarazko gehigarrietatik egunkari bat ateratzeko egin zuen deia, hasiera batean Gipuzkoako Aldundiak babestekoa zena; edota 1983an *Eginek* eta *Deiak* aurkezturiko proiektu bana.


1986an hitzetatik ekintzetara pasatzea lortu zen Jaurlaritzaren diru-laguntzarekin *Eginek Hemen* eta *Deiak Eguna* martxan jarri zituztenean. Egunkari formatua zuten euskarazko astekariak ziren, egunkari baterako tarteko pauso gisa planteatu zirenak:

“El semanario que editó Orain se llamó *Hemen*. Lo dirigió Joxean Agirre. Salía los viernes, el primer número apareció el 26 de septiembre de 1986 y el último el 28 de septiembre de 1990. En 1989 tiraba 3.500 ejemplares. Por su parte, Iparragirre lanzó a la calle, los jueves, el semanario *Eguna*, que retomaba la cabecera y la numeración de aquel primer diario que apareció durante la Guerra Civil. Se lanzó el 5 de octubre de 1986, bajo la dirección de Luis Alberto Aranberri Amatiño. Los periodistas que componían su plantilla provenían, en su mayoría, de *Deia*. Vendía, según cifras de 1989, mil ejemplares menos que *Hemen*, 2.500, y su vida se prolongó hasta el 27 de septiembre de 1990.” (Díaz Noci, 2012: 215)

Pauso definitiboa Jaurlaritzak 1986an antolaturiko diru-laguntzetatik kanpo gelditu zen proiektuak emango zuen, ordea, *Argiaren* lantaldeak garaturikoak. Ez, ordea, jada hainbatetan aipatu den euskal Master Framearen madarikazioa sufritu gabe. 1989ko abenduan Durangoko Azokaren egunkariaren egitasmoa aurkeztu zuten, eta 1990eko urtarrilean ‘Egunkaria Sortzen’ izeneko talde eragilea jarri zen martxan (Uria, 1995: 53). Gutxira, apirilaren 4ean Jaurlaritzaren eskutik beste proiektu bat aurkeztu zen, uztailearen 12an *Eguneroren* zero zenbakia kaleratu zuena: “Egin beharreko lana hainbatekoa izanik Eusko Jaurlaritzak eta hainbat alderdi politikok traba ugari sortu zituzten. ‘Egunkaria Sortzen’ek proiektua osatuta zuenean eta onartu bezperan (apirilak 4) izendatu zuen Joseba Arregi Kultura sailburuak Jose Ramon Beloki egunkari hipotetiko baten nondik-norakoak marrazteko” (Uria, 1995: 53-54). Ezker abertzalearen ingurukotzat jotzen zuten herri-ekimeneko proiektuari kontrolagarriagoa zatekeen egitasmo publikoko ekimena kontrajarri nahi zitzaion: “Las acusaciones de orbitar en torno al mundo del MLNV se sucedieron por parte del Gobierno vasco y de los portavoces del PNV” (Díaz Noci, 2012: 219). 1989an Jaurlaritzak CIES etxeari eskatutako eginiko azterketak euskarazko egunkari bat bideragarria izan zitekeela erakusten zuen (Uria, 1995: 53), eta birentzat ez zegoela tokirik (Díaz Noci, 2012: 216-217). Herri-ekimenekoak

⁵⁶³ Euskarazko lehen egunkari harren inguruak jorratu dira jada. Ik. 5.4.2.1 Euskarazko prentsaren eraispena, lubakietan loratu arren

maiatzean diru bilketari ekin zion eta 90.000 herritarren eskutik 160 milioi pezeta batzea lortu zen, eta bere lehen zenbakia abenduaren 6an argitaratu zuen *Euskaldunon Egunkariak*. Ekimen publikokoa ez zen ezertara iritsi eta Jaurlaritzak laguntza ukatu zion gainera egunkari jaio berriari: “Eztabaida ez zen *Egunkaria*-ren sorrerarekin amaitu. Eta *Egunkaria*-ri diseinatutako hiru eszenategietatik okerreza bizitzea tokatu zitzaion. Hau da, ez subentziorik ez eta publizitate instituzionalik gabe geratuko zen aurrera ekin ahal izateko” (Uria, 1995: 54). Hiru urte egin behar izan zituen horrela, harik eta 1994 bukaeran, Euskaltzaindiak, Arartekoak eta Legebiltzarreko hainbat alderdik hala eskatuta, Jaurlaritzak 70 milioi pezetatoko laguntza ematea erabaki zuen arte. Ekimen-publikoko proiektuarentzat urtean 900 milioi pezetatoko aurrekontua aurrirakosten zen 1990ean, eta urte hartan ‘Egunkaria Sortzen’ek egindako laguntza eskaria 150 milioi pezetakoa izan zen (Uria, 1995: 56; Díaz Noci, 2012: 218)⁵⁶⁴.



Iturria: Egileak moldatua⁷. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinetan

Indartsu sartuko zen *Euskaldunon Egunkaria* bertsolaritzari buruz informatzera, eta hurrengo urteetan alor honetako lidergoa izateko lehia polita izango du *Eginekin*. Finalari eskainitako testu kopuruan 1997an Egin aurretik gelditu zen, baina 1993, 2001 eta 2005 aurretik egin zituen Egunkaria/Berriak. Urte horietan Egin/Garan⁵⁶⁵ bertsolaritzaren arduradun izandakoak

⁵⁶⁴ Abertzaletasunaren barne arrakalak kultur gintzan izandako eragina jorratzen duten egileek ere aipatzen dute *Egunkariaren* kasua. Amezagak paradigmaticotzat jotzen du: “Lehenengo unetik hona, ordezkatzeko politika hau areagotuz etorri dela esan daiteke, gaur egun euskalgintzaren, eta oro har herri kulturaren inguruan burutzen diren hainbat ekimen, instituzioetatik zokoratuak izateraino. Lehenago erabili ditugun kontzeptuak berrartuz, administrazioaren kultur politika, herri kulturarekiko, integrazio jarreratik ukazio jarrerara alboratu dela esan nahi dugu (...) Ildo beretik, *Euskaldunon Egunkariaren* aurrean Gasteizko Gobernuak izandako jarrera, adierazgarria da. Euskaraz argitaratzen den egunkari bakarra izaki, proiektua bera zapuzten saiatu zen Eusko Jaurlaritzak, egunkari ofizialaren egitasmoa plazaratuz. Beronek porrot eginda eta herri ekimenetik ateratako egunkaria kalean dagoea, gaur egun laguntza eza eta boikota ere jasan beharrean aurkitzen da *Egunkaria*. Jaurlaritzaren jarreraren arrazoiak, Kultura Sailburuak berak azaldu zituen bezala, politika mailakoak dira erabat (...)” (1994: 159-160)

⁵⁶⁵ 1998an polizia espainiarrak *Egin* itxi zuen eta hutsune hori herri-ekimenetik lorturiko finantzaketaren bidez irekiriko *Gara* egunkariak bete zuen. 2003an *Euskaldunon Egunkaria* izan zen politikoa itxi zuena eta *Berria* herri-ekimenak martxan jarri zuen proiektua. Egunkari bakoitzak eginiko ekarpena aztertzerakoan proiektu beraren baitan kokatu dira *Egin* eta *Gara*, eta beste hainbeste egin da *Euskaldunon Egunkaria* eta *Berriarekin*.

ere, Joxean Agirrek, aitortzen du lehia hori bazutela: “Lehia sentsazioa ez da bertsoaritzaren arloan bakarrik izan, euskarazko kulturaren jarraipenean oro har baizik. Kultura saileko arduradunen obsesioetako bat izan da” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27).

Euskal Herriko txapelketaren finala jarraitzeko eredu ezberdinak eskaini izan dituzte gainera bi egunkariak: *Egunkaria/Berriak*, egunkari euskalduna izanik, finalaz egunkari osoan zehar aritzeko aukera izan du. Iritzi sailean, esaterako, dezente testu gehiago eskaini izan ditu, kolaboratzaile denak euskaldunak eta asko bertsozaleak zirelako. Eta badaude kasuak, beste sailetako adituek, burtsari buruzko zutabea zeukan J.B. Andueza edo futbolari buruzkoa zeukan Aitor Manterola, esaterako, finalari buruzko erreferentziak erabiltzen zituztenak euren gaietan sakontzeko. Egin/Gara erdalduna izan da elebiduna bainoago, gainerako sailetan ez da egon izan bertsozetan handirik, indar gehiena gehigarri berezietan jarriz, kazetaritza ikuspegitik hainbat berrikuntza eskainiz (goizeko eta arratsaldeko kronikak bereiztea, edo elkarrizketetan gehiago sakontzea, esaterako) eutsi nahi izan dio bere lidergoari. Horretarako abantaila garrantzitsu bat izan du: *Egunkaria/Berriak* ez da gaia jarraitasun batekin landu ahal izan duen kazetaririk egon apenas, hiru txapelketetan aritu den Gorka Azkarate eta biren jarraipena egin duen Beñat Zamalloa dira eskarmentu gehien pilatu dutenak; *Egin/Garan*, aldiz, Joxean Agirrek hamar txapelketa egin ditu (berak dioen bezala sinatu gabeko 1980ko testuak bereak badira hamaika) eta Amagoia Mujikak bost.

Laburbilduz, nolabait esateko *Egunkaria/Berriak*ren eskaintza globalagoa eta diseminatuagoa izan da, eta *Egin/Gara*rena kontzentratuagoa eta sakonagoa. Ondorioz, finalik gehienetan *Egunkaria/Berriak* da testu eta sinadura gehien eskaintzen duena, orrialde kopuru gehien eskaintzen duena, normalean, *Egin/Gara* delarik.

Gehienetan distantzia handi samar batera, *El Diario Vascorena* izango da bolumenez finalen inguruko hirugarren estaldura. Zortzi txapelketa jarraitu dituen Felix Ibargutxi, zazpi jarraitu dituen Rufino Iraola, edo sei jarraitu dituen Pello Esnal bezalako ibilbide luzeko sinaduretan oinarritu da bere eskaintza. Deiak, beti koska bat beherago, *Egunkaria/Berriak* bezala ez du ibilbide luzeko sinadurarik izango: Joxe Mari Aranalde izan zen, lau txapelketarekin, gehien errepikatu zuena.

Gainerako egunkarien ingurukoak, eta hauen inguruko gehiago, finalen oihartzunari eskainiriko puntuan azalduko dira.

8.3.5 Bertsolari aldizkaria ere kalean (1991-)

8.3.5.1 Sorrerarako osagaiak: egoskorkeria, militantzia eta boomaren olatua

1990ean lau urtez zuzendu zuen *Hemen* proiektua agortzear zela, proiektu berria zerabilen bueltara Joxean Agirrek: bertsoaritzari buruzko aldizkari bat egitea.

Elkartera jo zuen baina ez zioten argi berderik eman bertan. Andoni Egañak azaltzen ditu ezezkoaren arrazoiak: “(...) Ez genuela argi ikusten horrelako aldizkari baten funtzioa eta etorkizuna. Lehen ere saltsa askotan sartuak geundela eta Bertsozale Elkartetik kanpoko horrelako ekimen bati ez geniola zentzu handiegirik topatzen” (Egaña, 2016: 33). Eta Joxerra Garziak xehetasun gehiago eskaintzen ditu:

“(...) berak deituta egin genuen lehen bileran (edo bigarreanean, Donostiako Antiguana izan zela uste baitut), horrelako aldizkari bat (*National Geographic* zuen Joxeanek eredutzat) bertsoaritzaren alorrean ezinezkoa zela erabaki genuen, aho batez erabaki ere (...) galdera alua egin nion Andoni Egañari, bere izaera kamaleonikoari men eginez beretzen hasia baitzegoen (...) nire kezka

zerrendan hamaseigarrena-edo izango duk hau, eta jakin nahi nitek hire kezken artean zenbatgarrena izango den...”. Isiltasuna are lodiago eta astunago bihurtu zen nire galderaren ostean, harik eta Andonik, bere estiloaren ezaugarri behinena den ironiarekin, honako erantzun hau eman zidan arte: “Hamaseigarrena? Ez, motel, nire zerrendan askoz atzerago egongo lukek aldizkari horrena” (Garzia, 2016: 205)

Alfer samarrik izan zen, ordea, ezezkoa. Garziak kontaktzen du: “Hurrengo egunean, ordea, Joxeanek telefonoz hots egin, eta zera esan zidan: ‘Hi, Joxerra, Joxean nauk, eta erabaki diat hala ere egin egingo dudala’. Jo-ta-ma geratu nintzen: zer esan horrelako baieztapen atzera bueltarik gabeko baten aurrean?” (2016: 206). Egañak antzera kontaktzen du: “Joxean Agirre Joxean Agirre da, ordea (...) Eta ezezkoa erabaki genuen arren, berak aurrera jo eta handik gutxira zen lehen *Bertsolari* ale hura gure eskuetan (...)” (2016: 33).

Agirrek Elkar argitaletxearen buru zebilen Joseba Jakarengana jo zuen. Hau bai konbentzitu zuen proiektuak, eta lehen bi aleak argitaratzeko finantzaketa eta kudeaketaz arduratuko litzatekeen anaia gaztearen, Xanti Jakaren, laguntza eskaini zizkion.

Sorrera aldrebesa izan zuen, bada, aldizkariak: “Horrelaxe hasi zen, kontrako eztairitik (...)” (Garzia, 2016: 206). Eta lehen lantaldearen osakera ere kurioso askoa izan zen:

“(...) aldizkaririk ez ateratzea erabaki bagenuen ere, ni konbentzitu ninduen Basarriren etxera joan eta lehen aldizkari hartarako elkarrizketa bat egin niezaion. Eta beti eskertuko diot Joxeani aukera eman izana, ordura arte ez bezalako hurbiltasunetik ezagutu ahal izan bainuen laurogei urteak urruti ez zituen bertsolari handia (...) Ezetz esan eta, halere, atera, eta ezetz esan genuenak, lanean jarri. Eta hori baino meritu handiagoa ere badu Joxeanen tamainarik oneneko gorreriak (...) kredituetan, editatzailearen izena eta koordinatzailearenaren ondoren, “erredakzio kontseilua” zetorren. Eta erredakzio kontseiluko partaide jarri gintuen: Laxaro, Joxerra, Kristina, Jon, ni neu... Alegia, lehen bilera hartan aldizkariaren sorrerari ezezkoa eman genionak!” (Egaña, 2016: 33)

Agirre ez zuen hainbeste harritu aldizkaria martxan jarri izanak, lortu zuen arrakastak baizik:

“Hogeita bost urte igaro dira eta niri batzuetan mirari txiki bat iruditzen zait ez aldizkaria atera izana, hori egoskorkeria kontua baita militantzia pixka baten laguntzarekin, baizik eta izan zuen arrakasta. 1991ko maiatzean kaleratu genuen lehen zenbakia eta urte horretako Durangoko Azokan bertsozaleek errenkadak osatu zituzten harpidetza egiteko” (Agirre, 2016: 14)

Horiek izan ziren aldizkariaren sorrerarako osagaiak. Egoskorkeriari buruz ez da gehiago esan beharrik izango, militantziari buruz, ordea, bai: Agirre hamazazpi urtean aritu zen aldizkariaren koordinazioan lan horregatik ezer kobratu gabe (zenbakiko kopuru bat oradaintzen da egun); eta Xanti Jakak, jada hainbatetan aipatu den Santutxoko bertso-eskolako partaide izandakoa, hamaika urtean egin zituen kudeaketa lanak musutruk (egun administrazio lanak soldata txiki baten trukean egiten dira eta komertzial lanak komisio bat kobratuz). *Boomaren* olatuak aldizkariari emandako indarrari buruz, fenomenoaren irakinaldi handieneko garaian atera baitzen aldizkaria, Agirrek berak ñabartzen du bere baieztapena: “Errenkadak esatea gehitxo izango da, baina onartu dezagun taldeka etorri zirela. Nik dakidala, jendea harpidetzak egiteko itxoiten eduki duen euskarazko aldizkari bakarra izango da Durangoko Azokan” (Agirre, 2016: 17).

Hiruhilabetekari gisa kaleratu zen aldizkaria. Jaurlaritzaren diru-laguntzak izan zituen bere sorreratik, eta publizitatetik ere sartu ziren diru batzuk, baina harpidetzak izan ziren finantzaketa iturri nagusia, bere punturik gorenean, 1990eko hamarraldiaren bukaera aldera, aldizkaria 1.700 harpidetik gora izatera iritsiko zelarik (egun 1.100 ditu). Bertsozaleak Kultur Elkarteak izango zen argitaratzailea, sorrerako bilera haietan ezezkoa emandakoek osatua, eta enpresa egiturarik ez zen apenas garatuko. Urtean behin egingo zen Erredakzio eta Administrazio Batzordearen bilera izango zen ekintza formalena:

“Urtean behin afaltzen genuen *Bertsolari* aldizkariaren kontura. Ez nolana: Zarauzko Telesforonean maizenik, inoiz edo behin sagardotegiren batean edo beste nonbait. Hori bai, horren truke geure ekarpentxoak egin behar izaten genuen afal ostean: hurrengo urteko aleetan gure ustez zer gai jorra zitezkeen erreportajeetan, zein pertsonaia elkarriketatu, zer berrikuntza egin aldizkarian...” (Garzia, 2016: 204)

Kolaboratzaile sare zabal baten bidez gauzatuko ziren testuak, ilustrazioak eta argazkiak. Bakoitzak bere etxetik lan eginez eta entregatutako horren trukean kobratuz. Lehen soldata Xanti Jakak 1997an administrazio lanak egiteari utzitakoan ardura hori hartu zuen Arantxa Ezeizarena izango zen, jornada laurden batekoa. 2002an administrazioaz gain, komertzial eta kudeatzaile ardurak neuk hartu nituenean jornada erdiko batera iristear ibiliko zen aldizkariaren baitako soldata bakar hori.

Zikloaren gailurrari dagokion urtealdian, 1990etik 2005era, Xanti Jaka eta Joxean Agirrez gain badira aldizkariaren lanetan jarraitasun batekin aritu ziren beste izen batzuk. Joxean Agirrez gain Pako Aristik, Laxaro Azkunek edota Andoni Egaña berak testu asko sinatu zituzten. Txema Garzia Urbinak diseinua eta maketazioa atondu zituen sorreratik. 1990eko hamarraldi amaieratik Conny Beireuther izango zen argazkilari erreferentziala. Eta ikerketa honen egilea ere hainbat lanetan ibilitakoa naiz bertan: ilustratzaile sorreran, testugintzan nahiz komertzial lanetan 1990eko hamarraldiaren bigarren erdian, eta, esan bezala, administrazioaren nahiz kudeaketaren arduradun hamarraldi berriarekin.

8.3.5.2 Mañukorta bizarra egiten eta Kubako dezima

Azaldu den gisan, *Eginek* Euskal Herriko Nagusiaren finalari buruzko gehigarriak estreinatu zituen 1986an, eta gehigarri horrek Joxean Agirrerren eskutik estilo berri bat zekarren, ‘Kazetaritza berria’ deritzon eskolatik edaten zuena. 1989an Rikardo Arregi Kazetaritza Saria nahiz Argia Saria irabazi zituen Agirrek ildo hori jorratzen zuten lanekin eta 1991ean aldizkariari ekin zionean bide horretan sakondu nahi izan zuen:

“Bertsolaria agertoki gainean ikusten ohituta zegoen bertsozalea. Agertokitik kanpo, ez horrenbeste. Aldizkariaren helburua, hasieratik, oso garbi izan genuen: bertsolariaren eguneroko bizimodua, bere baitako kezkak eta ametsak, ofizioari buruzko zertzeladak eta xehetasunak bertsozalearengana gerturatzea (...) Horregatik, oso gutxitan ikusiko da aldizkariaren lehen zenbakietan, eta gero ere, bertsolari bat kantuan. Bertsolariak bere etxean, kirola egiten, familia giroan agertuko dira. Beren zaletasunez mintzatzen dira, bertsolarien amak agertuko dira hurrengoan, dantzan ere ikusi genituen zenbaki batean, inkesta bat egin genuen emakume harpideen artean bertsolarien janzkerari buruz. Oso denbora gutxian, bertsolariei buruzko iruditegi zurruna hautsi eta aberastea lortu genuen.” (Agirre, 2016: 19-20)

Zentzu horretan, esanguratsuak suertatzen dira lehen urteetako aldizkariaren zenbait azal: lehenengoan Mañukorta bizarra egiten ageri zen; hirugarrenean bertsolariek urtero Antzuolan

jokatu ohi zuten futbol partidu bateko argazkia (Egañak hanka puskatu zuen eta halaxe ageri da, bi lagunen artean lesionaturik daramatela); bosgarrenean Peñagarikano igarle lanak egin zizkion Uliako sorginarekin; hamaikagarrenean Tourreko etapa bat egin eta euren kronika eskaini zuten bertsolariak kulotak jantzita...:

“Askotan, gaiak berak ematen du azala. Beste batzuetan, bila joan behar izaten da, edo bila joaten ginen, hasieran behintzat. Gogoratzen dut 19. zenbakian Gipuzkoako Txapelketan parte hartzera zihoazen bertsolariak taldeka banatu genituela, eta talde bakoitzaren argazkiak egin genituela. Erniopeko taldea, esate baterako, (Telleria, Loidisaletxe, Olaso, Lizarreta eta Bernardo Azpillaga) segan jarri genituen, belarra ebaki eta biltzen, argazkiak ateratzeko, eta Goierrikoak Lazkao Mendira eramanez genituen golfean jokatzera. Gogoan dut Imanol Murua Zarauzko alkateari eskatu nizkiola golferako bere trepetak. Pilotak ere ugari eramanez nituen, eta eskerrak, Xabier Zeberioek jotzen zuen bakoitzean pilota galdu egiten baikenuen. Iñaki Muruak iruditu zitzaigun zuela estilorik onena, eta haren irudi batekin egin genuen azala.” (Agirre, 2016: 30-31)

Bertsolariek dezente dute kamaleotik. Ofiziotan ematen zaien edozein paperetik kantatzeko gai dira, eta aldi berean moztararen azpitik beretik aritu daitezke. Bestalde, erraztasuna izan ohi dute edozerri, baita euren buruari, barre egiteko ere. Aldizkariaren lan hauetan kazetaritza ikuspegitik gauza berriak egiteko gogoari bertsolarien jolas hauetarako joera batu zitzaioala ikus daiteke. Baita, aipatu den lez, hedabideratzeko grina berezi bat zuen belaunaldi baten jarrera irekia ere: “Uste dut bertsolari belaunaldi berezi samarra egokitu zitzaigula parean, irekia, esperientzia berriak probatu zalea, eta ez zutela asko xaxatu beharrik izaten aldizkari azalean edozein egoeratan agertzeko” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27)

Jite arinagokoen artean askotariko gaiak eta ikuspuntuak jorratu ziren: kutsu etnografikoa zutenak (erromeriak eta neska laguntzak, Santa Eskea, bertsolarien pasadizoak, apaiz bertsozaleak...), kutsu esperimentalago bat zutenak (bertsoaren teknikei jarraituz idatziriko narrazio literarioez osaturiko monografikoa; gastronomia eta bertsolaritzaren arteko harremanean sakonduz errezeta eta pasadizo liburu bezala planteatu zena...), formatu berezikoak (argazkien bidez osaturiko bertsolaritzaren historia, Olariagaren ilustrazioekin osaturiko bertsolaritzaren historia...), bertsolarien bizitza pribatuari buruzkoak (lana, afizioak, ikasketak, familia, oporrak, parrandak...) eta abar.

Argazki deigarrien eta testu arinen ondoan, ordea, oso bestelako eduki asko ere eskaini zen. Honela, aldizkariaren ekarpen nagusienetako bat kanpoko fenomenoaren azterketa izan zen (Barandiaran, 2011: 89; Garzia, 2002: 793). Lehen zenbaitik hasi zen horretan, Joseba Sarrionaindiak Jose Miguel Arrugaeta ezizenaz sinaturiko Kubako dezimisten inguruko artikuluekin, eta herrialde ezberdinetako kasuak aztertuz jarraitu zuen urterik urte: Galiziako regeiferoak, Argentinako payadoreak, Toscanako trovadoreak, Sahara, Korsika, Gales, Etiopia eta abar. Lan hauetako gehienak tokian tokiko eragileekin harremanetan jarritz lortu izan ziren, baina salbuespen gisa aldizkariak propio bidalitako kazetariak ere idatzi izan zituzten. Jon Martin bertsolariari, esaterako, Kubarako bidaia ordaindu zitzaion eta aldizkariaren bi zenbaki osatu zituen bertatik. Edo Toscanara ere egin zen bisita, Jon Maiaren bitartekotzarekin:

“Tarteka, oso tarteka, bertara joanda egin genituen erreportajeak. Horietako bat izan zen Toscanako Altamante Togliarekin egindakoa. Gizona hunkitu egin zen eta ez zuen sinesten Euskal Herritik berarekin egoteko bakarrik joan ginetik

(...) Bere ikasle izandakoen artean Roberto Benigni zegoen, ‘La vita e bella’ film arrakastatsuen zuzendari eta aktore nagusia.” (Agirre, 2016: 23)

Lan serioagoen artean bigarren ildo bat Elkarteak buruturiko jardunaldi akademikoei publiko guztientzako formatu bat ematea izan zen. Eta hirugarren bat bertso-munduko kide guztiei ahotsa ematea eta aurpegia jartzea: herrialdeetako hainbat txapelketetan parte hartzaile guztiak, dozenaka lagun, elkarrizketatu ziren (zenbaitetan binaka jarri eta elkar elkarrizketatzeko eskatuz), edota, 2002an, Euskal Herriko bertso-eskola guztiei buruzko lan bat egin zuen Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariak, une hartan eskola hauetan zebiltzan kide guztien argazkiak argitaratu zirelarik 460 orrialdeetaraino iritsi zen monografikoan.

Bertsolaritzaren historia hurbila jorratzea izan zen laugarren ildo garrantzitsu bat. Honela, azken hamarkadetan bertso-munduan funtsezko paper bat jokatu izan zuten taldeen testigantza jaso zen: Enbeitatarrak, Landetako Unibertsitatea (Lizasotarrak, Agirre, Lazkano...), Goierriko taldea (Murua, Mendizabal, Iraola Igartzabal...), Almengo eskola (Sarasuatarrak, Loidi, Iñurrategitarrak, Iparragirre...) eta abar. Figura klabeiei eskainitako monografikoak ere egin ziren, esaterako, Amurizari buruzkoa, eta ildo honetan sakonduz hainbat biografia liburu ere atera zituen aldizkariak 2001etik 2005era bitartean: Xabier Amuriza, Joxe Agirre, Jon Lopategi, Jose Luis Gorrotxategi, Imanol Lazkano... Alor honetan, liburuen bidez eta aldizkariako eskaintzarekin, Auspoaren osagarri edo errelebo gisa funtzionatu zuen *Bertsolarik*. Zavalaren proiektuak bere bidea egiten jarraitu zuen ziklo honetan, baita Zavalaren heriotzaren ondoren ere, baina elite berrian egokitu ziren bertsolarien biografiak, *Bertsolarik* aterako zituen⁵⁶⁶. Honela, beste mundu ikuskera batekin eta kazetaritza tonu modernoago batez izan arren, Auspoarenaren antzeko bilketa sena erakutsiko zuen aldizkariak.

Izatez, Auspoko arduradunek gustuko zuten aldizkaria eta eskaintza ere helarazi zuten: “Gogoratzen dut Joakinek [Joakin Berasategi] begi onez ikusten zuela aldizkaria eta dagoeneko martxan geundela eskaintza bat egitera ere iritsi zitzaigula, Sendoa argitaletxearen itzalean funtzionatzeko aukera eman baitzigun. Ezetz erantzun genion” (Agirre, 2016: 27). Eta Zavalak bere lanaz egiten duen definizioa egokia suertatzen da *Bertsolariren* ekarpena azaltzeko ere: “Lo que tampoco acabo de dilucidar es si en mi trabajo hago historia, antropología, etnología, filología o literatura. Quizás contenga un poco de todo. Pero es algo que nada me preocupa y que casi me halaga” (2006b: 218).

Joxean Agirrek, ale gogoangarrienak aipatzeko eskatuta, argazki bat dakar: “Lazkao Txikiren azken argazkia gurea da. Biharamunean elkarrizketa bat egitekotan gelditu ginen eta ingresatu egin zuten eta oso denbora gutxian ale berezi bat prestatzeko gaitasuna izan genuen” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27). Aldizkariak zenbaki guztietan eskaintzen zuen argazki kopuru ikusgarriak ere erakusten du proiektuaren argazki-album bokazioa. Hain zuzen, aldizkariaren alderdi estetikoak izan zen arduradunek gehien zaindu eta irakurleek gehien baloratu zuten alderdietako bat: “Estetikoki izugarri gustatzen zait, eta gero Conny [Conny Beireuther, aldizkariako argazkilaria] izugarri ona da, pasada bat” (M. Lujanbio, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/17).

8.3.5.3 Tematikoa eta espezializatuaren arteko tentsioa

⁵⁶⁶ Bestelako liburuak ere argitaratu zituen aldizkariak: 2001eko txapelketari buruzkoa eta Garzia, Sarasua eta Egañak 2001ean euren teorizazioaren muina jasoaz lau hizkuntzatan argitaratu zutena, Elkartearekin elkarlanean; Elkarteak 2003an antolatu zuen Nazioarteko Jardunaldien edukiak jaso zituena; Joseba Zulaikak bertsolaritzaren inguruan argitaraturiko hainbat lan biltzen zituena; edota gaztetxoei zuzenduriko ‘Zaildu Gabeak’ bildumakoak, bertsolari klasikoek (Fernando Amezketarra, Txirrita eta Uztapide) biografia fikzionatuak eskainiaz.

Aldizkariak, azaldu den bezala, harrera ona izan zuen bertsozaleen aldetik Durangoko lehen Azoka hartan. Eta profesioari ere gustatu zitzaion eskaintza: 1991n Argia Saria eman zioten.

Elkartearen bueltan, ordea, proiektuak zalantza gehiago sortu zuen, 1993an Sidecok jasotako gogoeta partekatuaren testuan irakur daitekeenez:

“(…) *Bertsolari* aldizkariaren edukiari buruz erreflexio sakona egin beharko litzateke; zein publikorengana iritsi nahi den definitu eta horiei zein mezu igor dakieken diseinatu. Aldizkaria oso bertsozale direnentzat mezu teoriko eta sakonak eskaintzeko oso bitarteko estimagarria izan daiteke. Eta gaur egun, agian informazio zabalegia eta arinegia eskaintzen du hain aldizkari espezializatua izateko. Aldiz, aldizkarian datorren zenbait informazio oso bertsozale ez direnentzat ere egokia izan daiteke (batik bat bertsolari-pertsonarekiko notiziak eta berriak). Baina noski, horiek aldizkaria erostea askoz zailagoa da. Gure ustez, aldizkaria beste mota batzuetako informazio ‘kualifikatuagoa’ eskaintzeko aprobeztatu beharko litzateke, bertsozale-bertsozaleak sendotzeko eta ‘hezitzeko’. Eta aldiz horrelako informazio arina bertsozale moderatua iristen den lekuetarako utzi.” (Siadeco, 1995: 62)

Dirudenez, Elkartearen ahots kualifikatuek aldizkari espezializatua hobesten zuten aldizkari tematikoaren aurrean. Agirrek, ordea, biak uztartzeko ahalegina egin zuen:

“Aldizkari espezializatua dela entzun izan dut tarteka *Bertsolariri* buruz. Neuk ere esango nuen hori beharbada, baina aldizkari tematikoa dela esatea zuzenagoa dela uste dut (...) tematikoen arintasuna eta espezializatuen sakontasuna konbinatzen saiatu ginela esan daiteke (...) oso tonu ezberdinetako erreportaje eta elkarrizketak sartzen baikenituen” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27)

Garziak azaltzen ditu bi ildo horiek bateragarri egiteak dauzkan zailtasunak:

“Beti uste izan dut ia ezinezkoa zela bi ildo horiek uztartea, besteak beste ildo baten zale direnei ez zaizkielako beste ildoko lanak gustatuko. Esaterako, Bertsolamintza jardunaldien txostenak, nago lehor samarrak izango zitzaizkiola hainbat harpidedun eta irakurleri. Bestalde, bertsolarien bizitza pribatuko gorabeherak bost axola izango zitzaizkien asko eta askori...” (2016: 206-207)

Batzuk nahiz besteak, ‘arinzaleak’ nahiz ‘seriozaleak’, beharko zituen aldizkariak, ordea, aurrera ateratzeko behar beste erosle izango bazituen.

Bertsolarien bizitza pribatuaren alderdia jorratu nahiak ekarri zuen buruhauste gehien: “Geure aldetik batzuetan behartu ere egin genituen egoerak eta kontrakarrak ere jaso genituen, normala den bezala. Aldizkariaren gainean sektore batzuetan sentsazionalismoren mamua ikusi zen” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27). Eta nolabaiteko errefusa hau belaunaldi gazteenaren artean eman zen gehiago:

“*Bertsolarik* dauka bere garaian prentsa horira gerturatzen zela zioen irudipena zabaldu zela gure artean. Metabertsolaritza egitea tokatu zaio aldizkariari, gu gure buruaz hitz egiten, eta ni pixka bat saturatu egin ninduen kontu horrek. Ni neroni atera izan naiz udaran egin dudana bidaiara kontatzen... Eta horren aurrean sortu izan zaidan gogoeta da ni ez naizela pertsonaia bat, ez naizela, nolabait esanda, famatu bat, eta ez dudala kontatu nahi nora bidaiatzen dudana uda honetan.” (M. Lujanbio, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/17)

Agirrek onartzen du kritika hori, neurri batean bada ere: “Beharbada intimitatearen mugan ibili ginen, baina marrarik pasatu gabe” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27). Eta

honela justifikatzen du muga horietara gerturatu izana: “Ideologian, komunikazioan edo beste hainbat arlotan jarrera bat markatu nahi denean, pitin bat muturrera jotzea komeni izaten da hartzaileak ohar daitezen” (Agirre, 2016: 20). Egindakoaren dimentsioa ñabartzen du, azkenik: “Dena den, prentsak ez ditu bertsolariak pertsonaia bilakatu, ez du horretarako indarririk (...) Guk ez genuen Mañuren pertsonaia eraiki, berak ondo eraikita zuen saioen rankingean buru egon zen garaian. Guk, izatekotan ere, irudi hori zabaldu egin genion publiko zabalago bati.” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27).

Kontuak kontu, esan daiteke ‘horitasun’ estigma hori oso proportzionatua behintzat ez zela izan, mugan zebiltzanak ale bakan batzuk zirelako eta egindako eskaintza nahiz ekarpena hori baino askoz ere zabalagoa izan zelako. Honela dio Andoni Egaña: “*Amarillistagia* zela esan izan da beti, baina niri kalitatezko eskaintza bat iruditu izan zait (...) Urte askoan oso lan serioa egin duen argitalpen bat iruditzen zait.” (A. Egaña, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26). Eta horrela aitortzen du, Maialen Lujanbio ere: “Egia esan gure artean jarri genion fama hori ez da oso justua izan. Denboraren joanean aldizkariak erreportaje pila bat argitaratu ditu kontsultarako oso baliagarriak eta erreferentzialak suertatu zaizkidanak” (M. Lujanbio, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/17).⁵⁶⁷

1996an, aldizkariaren bosgarren urteurrenean, 40 harpidedun elkarrizketatu nituen hauek aldizkariak izan zezaketen koadroa osatu eta honekin erreportaje luze bat egiteko, eta arina eta serioaren arteko nahasketa defendatzen zuen gehiengoak: “Itxurari buruz ez dute kexurik, argazkien kalitatea azpimarratzen da. Lan serio edo arinagoen artean aukeratzeko eskatuta nahasketa 28 elkarrizketatuk defendatu dute, lan serioagoak 7k, eta arinxegoak 5ek” (Agirre, 1996: 55). Erreportajeak aldizkariaren sustengu nagusi zen harpidetzaren inguruko datu interesgarri gehiago ere eskaintzen ditu: 1.500 harpideetatik erdia baino gehiago gipuzkoarrak ziren, ehundaka batzuk Bizkaikoak, hirurogeina pasa ziren Nafarroan eta Araban, eta 30 Ipar Euskal Herrian. Harpideen helbideen artean 156 baserri izen topa zitezkeen eta bostetik bat izen-abizenik gabea zen (eskola, liburutegi, elkarte, euskaltegi eta abar). Euskal abeslarien artean arrakasta zuen aldizkariak Ruper Ordorika, Benito Lertxundi, Anje Duhalde, Ramuntxo Karrera, Pantxoa Irigarai, Peio Ospital, Amaia Zubiria, Gorka Knor, Mixel Aire, Erramun Martikorena, Natxo de Felipe eta Niko Etxart harpideak baitziren. Eta bestelako ‘ilustre’ batzuk ere hartzen zuten aldizkaria etxean: Jose Ramon Soroz, Xabier Mendiguren, Iñaki Perurena, Felix Iñurategi, Kike Amunarriz, Imanol Murua... Elkarrizketatutako 40 lagunak bataz beste bost bertso-saiotara joaten ziren urtean, eta gehiengoak lagunartean bertsoetan egiten zuen. Adin eta lanbide guztietakoak ziren, erdiek unibertsitateko ikasketak zituzten eta aldizkariaren balorazio positiboa egiten zuten orokorrean.

Hasiera batean ibilbide luzerik aurrakusten ez zitzaion eskaintzak aurrera egin zuen, bada, eta ziklo honen gailurrari dagokion urtealdiaren amaieran aurrera jarraitzen zuen. 2000 hamarkadaren bigarren erdian honela baloratzen zuen egindako lana bertsolariaren dimentsio mediatikoaz buruturiko ikerketak: “Aurrekariak aurrekari (Elkartearen

⁵⁶⁷ Urteen joanarekin apaldu egin da, gainera, aldizkariak bere sorreran bertsolarien alderdi pertsonala erakusteko zuen grina ere. Bestalde bitarte honetan hedabide askotara zabaldu da bertsolariaren alderdi pertsonala edo tratamendu arina ere jorrazteko joera hori, tartean baita Elkartek kudeaturiko eskaintzetara ere. Azkenik, aipatu behar da, lanketa horretan aldizkariak jauzi kualitatibo bat ekarri bazuen ere, ildo hori ez zela bertan estreinatu. Manuel Lekuona batek, esaterako, honela gogoetetzen zuen hedabideen lanaz: “Bertso-saioak aurretik iragartzeko, gero bertso grabatuak entzun erazteko (...), iragan bertso oroigarrienak errepikatuz, bertsolari zahar eta zenduak beren bertsoekin berriz piztuz (...), bertsolariak ezaguteraziz, ez bakarrik beren bertsoetan, baina ere beren bizileku eta bizibideetan. Zinta sonoroetan egiten den lana bideoz egin beharra dago orain baino gehiago (...)” (Elkarlanean, 1987: 95).

inplikaziorik barik sortu izanak edo tartean-tartean izan diren desadostasunak) eta iritziak iritzi, bertsolaritzaren lanketa jarraitu eta zaindua egiten duen aldizkaria da (...)” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 102). Eta hamarkada bat geroago bi ildoetan, arinean eta sakonean, bidea egiten asmatu izana aitortzen zion Garziak: “(...) gizarte kronikarena, ez dut hemen aztertuko, baina garbi dago bertsolariak izar ospetsu bihurtu zituela. Niri interesgarriagoa zait beste ildoak, ‘akademikoa’ izenda genezakeena, eta hor garbi daukat ekarpen handia egin duela aldizkariak” (2016: 206).

Bertsolaritzaz bakarrik aritzen den aldizkari batek funtzionatu izana bada mirari txiki bat. Gogora dezagun aurreko ziklo guztietan egon zirela gisako egitasmoak, baina inoiz ez zirela erabat gorpuztera iritsi: Lore Jokoetan Jean Duvoisinek planteaturikoa, Abbadierekin izandako gutun trukaketatik haratago iritsi ez zena; Euzko Pizkundeko Makazagaren *Bertsolariya*, urtebetez funtzionatzera iritsi zen arren, kazetaritza aldizkari bat baino bertso-bilduma bat izan zena; edota frankismoan Iriondok abiarazi nahi izan zuen *Bertsolari* aldizkaria, proiektu soilean gelditu zena. Mirari txiki bat izanagatik, ordea, ez da kasualitatez sortuko azken ziklo honetan, 1980ko hamarralditik aurrera eman zen euskarazko kazetaritzaren eta bertsolaritzaren garapenen uztarketaren emaitza izango baita.

Bertsolaritzak bertsolaritzaz bakarrik diharduen aldizkari bat irabazi zuen *boomaren* erdian, eroriko ez bazen espezializatuaren eta tematikoaren artean zabuka ibiltzen asmatu behar izan zuena, eta euskal kulturaren alor askok ez daukatena. 2016an, 1996ko hura bezalako beste lan bat osatzea tokatu zitzaidan, harpideek aldizkariak zuten iritzia ezagutzeko, eta honela erantzuten zuen Julen Gabiria idazleak: “Dena hobetu daiteke, baina, bestalde, idazle gisa, nahi nuke maila honetako aldizkari bat euskal literatur mundurako (...)” (Agirre, 2016b: 138).

8.3.6 Eta irratian hitza jolas bihurtu zen (1993-)

8.3.6.1 ‘Eta Hitza Jolas Bihurtu Zen’

Iriondoren arabera 1990eko hamarraldian lortuko zuen Euskadi Irratiak bertsolaritzaren alorrean Herri Irratiei aurrea hartzea: “1980ko hamarraldian esango nuke bertsolaritzari buruzko irratsaioen lidergoa Herri Irratiek mantendu zuela, Euskadi Irratiaren aurretik, baina Aldairen programak aurrea hartu ziela hurrengo hamarkadan” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18).

Zikloaren oinarrian azaldu den bezala Nikolas Aldaik Donostiako Herri Irratian hasi zuen bere ibilbidea, Euskadi Irratian sorreratik ari zen lanean eta 1986an bertsolaritzaren ardura eman ziotenetik hainbat programa zuzendu zituen. ‘Eta Hitza Jolas Bihurtu Zen’ izango zen Iriondok aipatzen duen bezala lidergoa emango zion programa. Martinezi kontatzen dionez, 1993an hasi zuen bere ibilbidea, *boomaren* irakinaldi handieneko tartean hau ere, eta denborarekin Euskadi Irratiko saiorik entzunena izatera iritsi zen:

“1993. urte inguruan, larunbat eguerdian irratsaio berri bat egiteko eskatu zidaten, franja horretan inork ez zuela Euskadi Irratia pizten eta pixka bat bizitu beharra zegoela. Hala, pixkanaka-pixkanaka hasi nintzen, mimo handiz eta harrotasun pixka batekin, egia esan behar badut, eta denborarekin, urte batean, Euskadi Irratiko saiorik entzunena izatera iritsi zen.” (Martinez, 2012: 77)

Lanketa handiko saioa zen, izenetik eta lehen kareetatik bertatik hasita. Xabier Sukiak, gerora programaren arduradun gisa Aldairi erreleboa emango zionak, honela azaltzen du:

“Eta Hitza Jolas Bihurtu Zen’ izena niretzako gaindiezina da, eta zeukan kareta ere oso ona zen: garai bateko lehen gizakia entzuten zen, “uuu, uuu”, komunikazioaren bilakaera adierazten zuten soinuak zeuden, txalaparta ere entzuten zen, eta bilakaera hori ‘eta hitza jolas bihurtu zen’ batekin bukatzen zen.” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14)

Aldaik berak azaltzen du gauzatu nahi izan zuen planteamendua: “Hasi zenean nire helburua zen erabateko tratamendu integrala egitea bertsolaritzari. Zer esan nahi dut horrekin? Alde batetik ikuspegi historikoa lantzea, bestetik egunerokotasun garaikideari garrantzia ematea eta azkenik entzuleei partaidetza bat eskaintzea” (N. Aldai, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/26). Martinezek jasotzen duen bezala bertsolaritzaren inguruko kulturen sakontzea zuen xede nagusi: “(...) bertsolaritzaren inguruan interesa zuen edozer lantzen hasi zen irratsaioa: egile eta sorta ezezagunak, elkarrizketa sakonak... “Nolabait esateko: bertso kultura”, azaldu du Aldaik. Saio horrek, asko irakurtzeko eta miloika bertso ezagutzeko aukera eman ziola nabarmendu du” (Martinez, 2012: 77). Eta Laxaro Azkuneraren iruzkinean irakur daiteke eskaintzaren soslai zerbait zabalagoa:

“(...) beti ere bertsozalearentzat atsegin eta zale ez denarentzat erakargarri izateko asmoz (...) Bertsozaleari ahalegintxo eskatu puntuari erantzunez, bertso zatiak asmatuz, bertsoak jarritz. Ahalegin berezia bertso kultura modu atseginean jasotzeko. Oreka bat gorde nahi izan du: Bertsolaritza osorik islatzea du helburu. Adin, estilo desberdinak, lurraldetasuna (...) entzuleak bertsolaritzaz ezagutza zabala eta sakona izatea nahi luke.” (Azkune, 2000: 80)

Urteen joanean denetariko eskemak probatu bazituen ere, ohikoena asteko agendarekin hasi, bertso-munduko norbaiti egindako elkarrizketarekin jarraitu, entzuleen parte hartzera irekitzen zen tartea egin eta aurreko asteko bertso saioetako grabazio hautatuekin bukatzea izaten zen.

Eskaintza horretatik gehien azpimarratu izan dena artxiboarekin egindako lana izan da: “Batez ere lan ikaragarri ederra egin zuen irratiko artxiboa ordenatzen. Eta programa ere oso txukuna zen” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18).

Artxibo lan horretan Patxi Mujikari Euskadi Irratiak erositako 1960 eta 1970 hamarraldietako grabazioak ziren lehen oinarria⁵⁶⁸ eta Jose Antonio Gesala Zaldubik, Aldai berak edo Elkartean Xenpelar Dokumentazio Zentruak grabatutako berriagoak gehitzen joan zitzaizkion: “Patxi Mujikaren bilduma erosi zuten, gero Zaldubik bildutakoekin funtzionatu zuten, gero Nikolas Aldai bera jarri zuten biltzaile eta orain XDZ” (Azkune, 2000: 80). Baita Iriondorenak ere: “(...) 1993 edo 1994an. Zalantzak izan nituen, bertsolarien eskubideen

⁵⁶⁸ Zeresan handia eman zuen figura da Mujikarena. Honela kontatzen du Iriondok: Oterminen meritua izan zen hori. Segituan hasi zen gainera: 82ko azaroaren 30ean hasi zen Euskadi Irratia emititzen, eta 83an hasi zen Mujikaren atzetik. Sekulako aguantea dauka Oterminen (...) Mujikak sare bat osotua zuen garai batean. Bera ez ezik, andrea eta beste mutil bat ere ibiltzen ziren grabatzen herriz herri. Jaso bai, baina ematea kosta egiten zitzaion (...) berebiziko artxibo gotorra egin zuen. Arazoa zen bere komentarioak grabatzen zituela bertsoekin batera eta honekin alferrik galtzen zuela hainbat grabazio (...) Nahiko lan eman zion Otermini. Dena batera pasa beharrean pixkanaka-pixkanaka joan zen pasatzen, diruaren trukean, noski. Beltzean eskatzen zuen gainera, baina Euskadi Irratiak ezin zuen horrelakorik egin, urtero bi auditoria pasatzen baitzituen...” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18). Eta kontu gehiago dakartza Aldaik: “(...) askotan bere komentarioak entzun zitezkeen bertsoaren gainetik: “eskua atzera eramane du”, “txapelari heldu dio”... Berak pentsatzen zuen bertsolaritza galdu egingo zela eta berak fenomenoaren altxor gisa jaso nahi zuen bere komentarioekin dokumentu etnografikoa osotuz. Ez zen konturatzen zer desastre zen hori emititzeko garaian. Edozein kasutan oso material interesgarria pasatu zigun, eta beste hainbeste bidean galdu zen: erdia bakarrik pasa zigula esan eta gutxira hil zen eta beste erdi hori ezin izan zen lokalizatu” (N. Aldai, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/26)

kontua zela eta abar. Debalde utzi beharra nuela ere ikusten nuen... Eta horrela egin nuen” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18). Eta Zavalarenak: “Antonio Zavalak ere grabaketa pilo a omen zuen gordeta, eta hari ere hainbat erosi omen zizkion irriatiak” (Martinez, 2012: 75).

Efemeride gisa egiten zuen grabazio historikoekiko lotura: “Data da aitzakia: gaur bezalako egun batez jaio zen halako bertsolaria edo eman zuten bertso saio hau eta abar” (Azkune, 2000: 80). Efemerideak oroimen kolektiboarekin konektatzeko aukera ematen ziolakoan: “(...) atzera begiratzen nuen eta memoria kolektibotik, egunari loturik ekarri zitekeen hori ekartzen nuen’. —Zergatik egunari lotuta? ‘Beti berritzen zen gurpil handi bat, martxan jartzeko, modurik onena zelako [Aldairen hitzak]” (Martinez, 2012: 77). Eta atzera begirakoan XVIII eta XIX. mendeetaraino ere iristen zen, grabazioen orde z liburuetan jasotakora joz (Azkune, 2000: 80).

Bakarrik egin izan zuen lan guzti hau gehienez: “Kolaboratzaileak izateko dirua ordaindu behar zen eta nire saioak ez zuen sekula aurrekonturik izan. Bakarrik txapelketetan. Orduan bai, kolaboratzaileak izaten nituen, ordaintzen zitzairen eta hortaz baliatzen nintzen” (N. Aldai, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/26). Baina izan zuen kolaboratzaile presturik ere:

“Egon zen jendea hainbat astez laguntzera etorri izan zena ere (...) ‘Lehengoak Gogoratuz’ek luze iraun zuen eta ‘Eta Hitza Jolas Bihurtu Zen’ en barruan ere txertaturiko atal gisa jarraitu (...) Atal honetarako Dorrnsoro etorri izan zen programa askotan bertso zaharrak kantatu eta erabilitako doinuari buruz azalpenak ematera.” (N. Aldai, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/26)

Egindako lanak, esan bezala, erantzun polita izan zuen bertsozaleen aldetik. Eta garaiko bertso-munduaren eragileek ere harrera ona egin zioten. Joxerra Garziak, esaterako, honela zioen 1993 hartan bertan: “Egin beharko litzatekeen ereditik gertukoena, akaso, Euskadi Irratiko ‘Eta Hitza Jolas Bihurtu Zen’ ataltxo dugu (...)” (Garzia, 1993: 90).

2006an erretiroa hartu zuen arte jarraituko zuen Aldaik programarekin. Eta Xabier Sukiak erreleboa hartu ondoren ere, ‘Hitza Jolas’ izenarekin, irratiko bertso-programa ezagunena izaten jarraituko zuen. Bi hamarkadatik gorako erreferentzialtasuna irabazi du, bada, ‘Eta Hitza Jolas Bihurtu Zen’-‘Hitza Jolas’ek, ondo egindako lanaren seinale.

Programaren buru egon zen urteetan egindako lanen artean arrasto gehien utzi ziotenak utzi apartatzeko eskatuta, Lazkao-Txikiri buruzkoa aipatzen du, kasualitatez, Agirrek galdera beraren aurrean apartatutako protagonista bera:

“Lazkaomendiko soziedadetik zuzeneko emanaldia egin genuen, bi orduko saioa: Murua, Gorrotxategi, Iraola eta Mendizabal, esango nuke zirela bertsotan. Manuel Lasarte ere eraman genuen, 1986tik erretiratua zegoena, baina Lazkao-Txikiri berak jarritako bertso batzuk abestu zituen eta honen pasarte batzuk kontatu ere bai. Aurretik entzuleei Lazkaomendikoari buruzko bertsoak bidaltzeko eskatu genien eta hiru onenak aukeratu eta haiek ere abestu genituen, oso bertso politak. Eta Lazkao-Txikiren beraren ahotsa ere sartu genuen, Patxi Mujikak grabatu zizkion txiste eta pasadizo batzuk. Oso ederra gelditu zen.” (N. Aldai, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/26)

Bere postua utzi zuenetik urteak pasa diren arren bertsozaleen oroimenez arrasto polita utzi duen irratsaioa da Aldairena. Honela dio Iriondok: “Orain esango nuke entzunena Sukiaren ‘Hitza Jolas’ dela. Ondo dago, baina Aldairena gehiago gustatzen zitzaidan” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18). Eta honela Estitxu Eizagirrek, Argiako zuzendari eta

bertsolariak: “(...) iruditzen zait nabarmen ezberdinak direla Aldairen aldia eta Sukiarena, baina biak gustatzen zaizkit. Aldaik ere mimo handiz egiten zuen. Kritikatzea erraza da, gaztea zarenean gehiago, baina sekulako lana egiten zuen hark ere...” (E. Eizagirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/19).

8.3.6.2 Eskaintza zabala irratian I

Irratiaren alorrean Euskadi Irratiaren lidergo hau izan zen nobedade garrantzitsuena, baina eman ziren gehiago ere. Honela, bertsolarietari buruzko geroz eta eskaintza zabalagoa topatu ahalko zen dialean.

Bilboko Herri Irratia birmoldatu eta Bizkaia Irratia sortu zen, bertsoari buruzko ‘Bertsolarien Txokoa’ programaren arduradun gisa Koldo Isusik hartu zuelarik Mikel Astelarraren lekukoa. 1993an ‘Zortziko Txikia’ saioa ere abiarazi zen aurkezle Jabi Onaindia eta Asier Txapartegi zituela: “Bizkaiko Bertsozale Elkartek eta Bizkaia Irratiak Bilboko Udalaren laguntzaz egiten duten saioa da. Bere helburua Bizkaiko Bertsozale Elkartek ikastetxeetan gaztetxoekin egiten diharduen lana bultzatzea batetik eta umeentzat giro erakargarria sortzea bestetik, euskaraz gozatuz egin dezaten” (Azkune, 2000: 74-75). Milurteko aldaketarekin oraindik martxan ziren bi programak.

Segura Irratian Lierni Elortza arituko zen ‘Afari Merienda’ izeneko saioan 1987tik 1995era: “Hurbileko saioak grabatu (berak edo Zaldubik) eta bertso onenen aukeraketa eman. Albisteak ere tartekatzen zituen. Txapelketak zirenean denbora gehiago eskaintzen zitzaion bertsoari; programa egokitu behar izaten zen” (Azkune, 2000: 87). Azkunek 1986an hasita eta milurtekoa aldatu arte Inozentzio Olea bertsolariak ‘Segura Aldetik’ saioan egiten zuen kolaborazioa ere aipatzen du, Basarrik garai batean bezala gai baten inguruan hitz egin eta horri buruzko hiru bertso eskaintzen zituen, eta 1999an Alaitz Sarasola bertsolariak martxan jarritako ‘Betiko Martxan’ artxiboko bertsoekin edo berak grabaturiko saioekin osatua.

Euskal Herria Irratian Mikel Bujandak zuzentzen zuen bertsoari eskainiriko tartea. Euskadi Irratiarekin gauzaturiko kolaborazio hitzarmenez baliatzen zen horretarako, eta Azkuneren arabera Nafarroako Txapelketari eta Iruñeako ‘Bertso Aro’ri arreta berezia jartzen zion (Azkune, 2000: 92). Estitxu Arozenak bertso-eskoletako hurrekin egindako tartea izan zuen.

Iparraldeko hiru euskal irratiek (Irulegi Irratia, Xiberuko Boza eta Gure Irratia) aurreko hamarkadatik zetorren eskaintzari eutsiko zioten. Santos Belokik utzi eta Pantzo Hirigaraik eutsiko zion bertso-programaren zuzendaritzari⁵⁶⁹. Azkunek azaltzen duenez (2000: 75-76) Euskal Kultur Erakundearen babesa zuen programak eta Xenpelar Dokumentazio Zentroak hornituriko grabazioez baliatzen zen. Nobedadeak 1990etik martxan jarritako ‘Puntutan’ atala, puntua jarri eta entzuleen bertso-jarriak jasotzen zituen eta bertso-afariak propio antolatu eta zuzenean emitituko zituen ‘Gau Izar’ saioa izango ziren. Bestalde, Gure Irratiak ‘Bertsu Zirika’ izeneko Hendaia eta Baionako bertso-eskolen arteko norgehiagokak ere antolatu izan zituen.

Egin Irratian Inaxio Usarralde zuzenduriko ‘Bota Punttuba’ izan zen beste eskaintza garrantzitsu bat. Usurbilgo Bota Punttuba bertso-eskolaren bueltan ibilia zen urte batzuk Usarralde, herrian Pagotxa izeneko irratian librea bertsolarietari buruzko programa bat ere eskeinia zuen eta Egin Irratikoek Elkartera gaia jorrazteko norbaiten erreferentzia eskean joan zirenean bere izena eman zioten. Egin Irratiko langile izaten bukatuko zuen Usarralde, eta hainbat programa zuzentzen, baina ‘Bota Punttuba’ ez zuen inoiz utziko. 1989an hasi zen,

⁵⁶⁹ Pantzo Irigaraik irratiko alorreko Argia Saria irabazi zuen 2002an.

urte hartako txapelketa zuzenean eskainiaz eta aurrerantzean bertsolaritzaren gaurkotasunaren jarraipen zabala egin zuen, bertsolariekin eginiko elkarrizketak eta entzuleentzako lehiaketaren bat tartekatuz eta bertsolaritzaren historiari buruzko kontuak ere jorratuz: “Egin itxi zuten goizean ere, uztailaren 15ean, Lesakako saioa entzunez zijoan lanera” (Azkune, 2000: 91).

Eukene Landak Arrate Irratian burutzen zuen lanak eta Laxaro Azkune berak, Herri Irratian egiten zuenak ere, biak aurreko hamarkadatik zetozenak eta ziklo honen gailurrak iraun zuen urtealdian eutsi ziotenak, osatzen zuten eskaintza aberatsa⁵⁷⁰. Baita tokiko hainbat irratietan egiten zenak ere. Honela, Andoni Egañak, Joxerra Garziak eta Jon Sarasuak eskaintzen dituzten datuen arabera (2001: 47), 2000an irradi nazionalak urtean 115 ordu eskaini zizkieten bertsolaritzari, bailara mailakoek 98 eta tokikoek 280. Bazegoen, bada, zer entzuna, eta Usarraldek Azkunereri kontatzen dion pasadizoaren (pasadizoa baina esanguratsua) arabera baita asko entzuten zuenik ere: “Gogoan du behin lagun bertsozale batek esan ziona: ‘ez zekiat zer zabilzaten, aste honetan irradi guztiak saio bera ematen ari zarete’” (Azkune, 2000: 92)

Hala ere, Elkartean buru zebiltzanen artean, ikusten zen, nola ez, zer hobetua ere. Honela, Joxerrak, gailurra hasi berritan, eskaintza hobetu beharra ikusten zuen: “Bertsogintzaren teknika, bertsolaritzaren historia, eta abar, apenas agertzen diren irratiko jardunetan. Egin Irratian, Euskadi Irratian, zertxobait egin izan da noizbait, baina jarraipen handirik gabe” (Garzia, 1993: 88). Eta Egañak, gailurraren bukaera aldera antzeko hitzak zerabiltzan: “Telebistan, hedapenari ikuspegi hezitzailea eranstea ez da teknikoki ere erraza. Irratiak berez baduke horretarako gaitasunik. Nikolas Aldaik-eta egin izan dituzte saiakerak. Halabaina, oraindik bide berriak jorratzeko gaudela uste dut” (Egaña, 2004: 166).

8.3.7 Hedabideratzearen arriskuak eta eraginak gogoetatuz

8.3.7.1 Abiadura berriak eragindako bertigoa eta gogoeta

‘Hitzetik Hortzera’rekin izandako arrakasta ikusita, telebista energia nuklearra izan zitekeela deskubritu duen bertso-mundua Siadecok zuzenduriko inkesta eta eztabaida taldeetan egoera berriaz gogoetatzen utzi dugu Joxerra Garziak martxan jarri zuen programaren inguruko kontakizuna. Bertsolaritzaren *boomean* telebistaren eraginaz gain Egañaren belaunaldiaren ekarpena eta bertso-eskoletatik sorturiko bertsolari gazteek eginikoa funtsezkoak izan zirela azaltzeko utzi da kontakizuna puntu horretan, eta urte haietan eman ziren *Euskaldunon Egunkaria*, *Bertsolari* aldizkaria eta Nikolas Aldairen irratsaioaren sorrerak aipatzeko ere aprobetxatu da, hauek ere, beste neurri batean izan arren, *boom* hori elikatu zutelakoan.

Parentesia itxi eta energia nuklearraren inguruko gogoetara itzuliko gara berriro, bertso-munduak emango zituen hurrengo pausoen testuinguruan sakontzeko.

1991tik 1993ra bitarteko aparraldi goreneko tarte horri erreparatuz gero, bertsolaritzak lorturiko oihartzun mediatikoa eta prestigio soziala da lehen begiratuan deigarrien suertatzen dena. Garziaren aipu batean bertsolariei kalean autografoak eskatzen zitzaizkiela irakurri ahal izan da. Esajeratzen ari ote den pentsa daiteke, baina ez da horrelakoak idatzi dituen bakarra:

“Ondo gogoratzen dut une jakin batean nola jendea autografoak eskatzen hasi zitzaigun bertsolarioi, telebista saioaren sorrera arte gertatzen ez zitzaiguna. Hasiera batean sinadura ukatzeko hautu kontzientea ere egiten genuen, hura ez

⁵⁷⁰ Laxaro Azkunereri 1993an irratiko alorreko Argia Saria eman zioten bere bertso irratsaioengatik.

zela gure estiloa eta. Gerora, laster etsiko genuen eta urte gutxiren buruan iritsi ginen eskoletako karpetetan bertsolarien argazkiak ikustera.” (Maia, 2017: 61)

Garziaren beste aipu honek ere distira horren zantzu bat ematen du:

“Es significativo, como síntoma del prestigio que en los primeros noventa alcanzó el bertsolarismo, que el día en que se celebró el campeonato, y a escasos metros del Velódromo, en el entonces recién estrenado estadio de Anoeta, el público prorrumpió en aplausos al anunciar el marcador electrónico la victoria de Egaña. El asombro de los jugadores debió de ser mayúsculo, pues difícilmente podían entender a qué se debía semejante ovación cuando el balón circulaba rutinariamente por el centro del campo.” (Garzia, 2000a: 463)

Distirarekin itsutzeko arriskua ere señalatzen dute Sarasuak Egañari zuzenduriko hitzok:

“Bertsolariongan ere sumatu diat arrakastaren sindromea. Garai batean ‘famatu’ papera jokatzen hasi gintuan. Bertsolari eta Elkarteko antolatzaileen arteko urteroko futbol partidara nor gonbidatuko, eta futbolista famatuak gonbidatu. Sintomatikoa. ETBko edozein programetan agertzen hasi gintuan, ez bertsolari gisa, famatu gisa baizik: galetan, festetan, babuarena egiten...” (Egaña eta Sarasua, 1997: 196)

Eta pasadizo edo gogoeta esanguratsuez haratago Siadecok 1992ko udazkenean buruturiko inkestaren emaitzak aipa daitezke: “Euskal hiztunen %15ak oso bertsozaleztat jotzen du bere burua, beste %35 batek bertsozalea dela dio, eta beste %28 batek baduela bertsozaletasun graduren bat. Hiru portzentaien baturak euskal hiztunen %78a, gehiago edo gutxiago, bertsozalea dela adierazten digu” (Siadeco, 1995: 14). Gehiago ere badio Siadecok *Jakinen* argitaratu zuen txostenak: 1992an 715 bertso-saio burutu ziren eta 258.000 lagun bertaratu ziren saio horietara (1995: 24)⁵⁷¹

Kultur eskaintza gutxi egongo da populazioaren %78 zaletzen dituen, eta 700.000 laguneko publiko objektibo batetik 258.000 mobilizatzea lortzen duena. Argi dago bertsolaritza, euskararena bezalako komunitate txiki baten mugen barruan bazen ere, masa kulturaren parametroetan murgildu zela.

Bistako distira horren azpian, ordea, apur bat sakontzen hasiaz gero, bigarren elementu bat ageri da indartsu: fenomenoak harturiko abiadura. Honela adierazten du Egañak: “1982ko Txapelketa Nagusiaren azkenera, nobedade handi gisan sartu ziren S. Lizaso eta Peñagarikano. Bederatzi urte geroago, 1991n, Gipuzkoako Txapelketaren azkenean beren adinkide zen Mendizabal zen parte-hartzailerik zaharrena” (1993: 18). Honela berresten du:

“1993-1994 urteetatik aurrera, bertsolariak sortzeak beharizan izateari utzi zion. Perretxikoen modura sortzen ziren (...) Gainerakoena zen arazo. Bertso- eskolara joan, begien aurrean beti punteneko bertsolarien eredia eduki, eta arrazoiren bategatik edo bestearengatik plazaz plaza arrakastaz aritzeko adinako mailarik edo zoririk ez zutenena.” (Egaña, 2004: 152)

⁵⁷¹ Oraindik pixka bat harrিতa dauka Sarasua saltsa guzti hark: “(...) egia da pixka bat gainditu egin gintuela erantzun horrek. Eta gaurdaino iristen dira orduko haren olatu urrun batzuk. Adibidez, nik garai hartan modu defentsiboan bizi nuen ospearena, sentitzen nuen jende batentzat ‘la ostia’ ginela eta ariketa pertsonal bat egiten nuen nire buruari azpimarratzeko, hori ez zela erreala, zerbait zirkunstantziala zela. Baina oraindik, eta hamazazpi urte daramatzat foko hartatik aldendua, jendeak gelditu egin izan nau kalean esateko zu niretzat edo nire amarentzat eta aitonarentzat ‘la ostia’ zinen. Ez naiz gai erabat ulertzeko garai hartan gertatu zena, ez daukat klabe guztiak.” (J. Sarasua, elkarrizketa pertsonala, 2017/X/06)

Gehiegizko distirak itsutzea ekar dezakeen bezala, gehiegizko abiadurak nekea eragin dezake. Sarasuak ‘bertsolaritza gainera etorri zitzaigun urte hartaz’ dihardu 1991ri erreferentzia eginez (Egaña eta Sarasua, 1997: 70). Urte hartan Gipuzkoako txapelketa irabaztear zela, txapelaren ukoa zekarren bertso bat abestua zuen atxabaldarrak lehiaren aurkako protesta gisa eta urte batzuk geroago deskantsuaren beharraz dihardu Garziaren elkarrizketa liburuan:

“(…) deskantsuaren ideia ari nauk kontsideratzen azken urte pare honetan (…) Nekatuta, ala? (…) somatu izan diat tentsio hori, emateko eta giroetara moldatzeko tentsio hori, besteen larruan jartzeko behar den grina hori, publikoarengana iristeko behar den gogo bizi hori galdu ote dudan. Tentsioa edo gaitasuna, horixe ez zakiat (…)”⁵⁷² (Garzia, 1998: 74)

Distiraren itsutzeko arriskuak eta abiaduraren nekeak bertigo puntua ere ez dute urrun izaten. Egoera berriaren aurrean gogoetatu beharra sentituko du bertso-munduak. Eta inkestaren datuak eskutan 1993an eztabaida taldeetan bildu zen bertso-munduaren gogoeta partekatu horretan bertigoaren zantzuak suma daitezke:

“Azken urteotako ezaugarri nabarmenetako bat bertsolaritzaren dinamikaren azkartzea izan da. Talde hauetan esan denaren arabera, bertsolaritzaren dinamikaz hitz egin ordez, bertsolaritzaren zurrunbiloaz hitz egin beharko litzateke (…) Nolabait esan daiteke gaur egungo bertsolaritza oraindik oso ongi nora doan ez dakigun abiadura azkarreko trena dela” (Siadeco, 1995: 27).

Telebistaren energia nuklearraren arriskuena izango zen, hain justu, gogoeta haietan hizketagai eta kezka nagusienetako bat:

“Koldok ‘Zaharren Kontseilua’ deitzen ziona urtean hirutan edo gelditzen ginen, sortzen zenean. Bazkaltzeko gelditu eta eguneko ordenarik eta bukatzeko ordurik gabe aritzen ginen, Koldo, Andoni, Sarasua, Iñaki Murua eta ni. Pentsamendu estrategikoaren gunea hori zen, eta hor sortu ziren arriskuaren ingurukoak (…) Gero Siadecori ikerketa handi bat eskatu zitzaion, hamarkada baterako estrategia finkatzeko balioko zuen ikerketa bat. Bertan hainbat elkarrizketa (…) egin zituzten, eta hor ikusi zen kezka garrantzitsuenetako bat telebistaren eta arrakastaren eraginen ingurukoa suertatu zela. 1993an izan zen hori.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

8.3.7.2 Arrakastaren arriskua

Bertso-munduari kosta egiten zitzaion bizi zuen arrakasta benetakoa zela sinestea:

“Hemen ere ez ote da gertatzen liburu eta diskoen esparruan gertatzen omen denaren antzeko zerbait? Liburuak eta diskoak produzitu, saltzen direnak baino askoz gehiago produzitzea, eta jendeak erosi, irakurtzen duena baino gehiago erostea alegia. Horrela agian, lehen aipaturiko gezur sozial horretan eroriz, eta behin eta berriz esanaz, gaur egun euskaraz liburu eta disko asko produzitzen

⁵⁷² Garai hark hartu zuen abiadura ikusgarriari ez ezik bertsogintzari, elite mailan behintzat, berezkoa zaion nekea ere izango zen, noski, Sarasuarena. Neke honen inguruan Basarrik dauka testu polita, Xalbadorren heriotzaren biharamunetan idatzia: “Bertsolaria buru puskatzen dago denbora guztian, etengabeko nekea du berekin (…) Entzulea trankil dagon garaian, astuna da benetan bertsolariaren buruaustea. Nasketa bizian du burua; lanean ari da une guztietan. Atsedetik ez du ezagutzen jendea aurrekaldean daukanean (…) Bertsolariak ez du gutxi eraman bear izaten erriz-erri dabillenean. Toki bakoitzean izaten baita amorragarri bat edo beste, eta danak bertsolarietara biltzen dira.” (Goiz-Argi, 1976/XII/11, ‘Bertsolariaren nekea eta eraman bearra’ Iñaki Eizmendi Basarri)

delá, ez al gara ari euskal kulturak inondik ere ez duen indar itxura bat baduela gizaritari sinistarazi nahian?” (Siadeco, 1995: 34-35)

Arrakastak izan zitzakeen arriskuen aurrean erne jarri beharra ere sentitzen zuen, ordea:

“Arrakastaren arriskua, gezurra edo kontraesana badirudi ere, oso kontuan hartzekoa da. Izan ere, telebistaz ematen diren saioak arrakasta lortzen duten heinean, arrakasta berri baten oinarri bihurtzen dira, eta horrela, arrakasta batek bestea eskatzen du eta arrakastaren zurrumbiloa sortzen da. Horrelako kasuetan eta arrakastaren arrakastaz, arrakastaren zurrumbiloen itotzea gertatu ohi da. Hau da, abiadura horrek eskatzen duen moduan produktu berririk eskaini ezina etortzen da. Garbi dago bertsolaritzari gisa horretako zurrumbiloen sartzea ez zaiola komeni eta arrakastaren kontrola kontu handiz zaindu behar duela.” (Siadeco, 1995: 74)

Eta gogoeta kolektibo horretan ez ezik, garaiko edo garaia buruzko ekarpen pertsonalagoetan ere islatzen da hau. Garziarenetan, esaterako:

“1993ko iraila: bertsomaniak gora jo du Euskal Herrian. Inoizko jendetzarik handiena azaltzen da jaialdietara; tokian tokiko xelebrea izatetik euskal kulturaren izar nagusietakoa izatera pasa da bertsolaria. Edozertarako deitzen zaio ekitaldi nahiz hedabideetara (...) Egoera berriak badu alde onik. Baina baita arrisku latzik ere.” (Garzia, 1997: 10)

Edo Egañarenetan:

“(…) gure gogoetagai izan da zenbateraino generatu eta zenbateraino ertzeko izan. Ez genuke nahi izar mediatiko bihurtu. Baina arriskua hor dago. Zorioneko arriskua, erakusten baitu gure eskuetan daukagula modua batera edo bestera jo ahal izateko. Eta gure kulturaren esparruan ez du edozeinek hainbesteko aukera izaten! Halere, eta irrati-telebistak orohar norantz doazen ikusita, kontu handiz ibili beharko dugu. Jon Sarasuak ederki laburbildu zuen: “Sorginen Laratzakoek nahi luketena da Bernardo Atxaga aureskua dantzatzen jarri euren programan. Bere azken nobelaren nondik norakoak azaltzea ez zaie batere interesatzen. Eta gainera, barre sortzailea delako edo, halaxe aitortuko diote aurpegira” (Egaña, 2004: 30)

Batean zein bestean ikus daitekeenez, arrakasta, eta arrakastaren arriskua, hedabideetan eta bereziki telebistan izandako arrakastarekin lotzen zuten. Izatez, arrakastaren nahiz hedabideratzearen inguruko gogoetak, zenbaitetan modu orokorrago batean formulatu izan baziren ere, eta beste zenbaitetan eremu zabalagora jo bazuten ere, ‘Hitzetik Hortzera’ren inguruko eztabaidak markatu zituen erabat.

‘Hitzetik Hortzera’ren inguruko eztabaida horren baitan hedabideratzeak bertsogintzan izan zitzakeen hainbat eragin identifikatu ziren, baita bertsolaritzaren bilakaerarako arriskutsuak izan zitezkeen hainbat alderdi ere. Jarraian zerrendatzen dira batzuk.

8.3.7.3 Saturazio arriskua

Hedabideetan gehiegi atera izanagatik hartzaileak bertsoaz saturatzeko, nazkatzeko harriskua da Siadecoren txostenak (1995: 74-75) aipatzen duenetako bat.

Egia esan, ‘Hitzetik Hortzera’ren arrakastak beldur hau berriro hauspotu bazuen ere, kasu honetan ez zen berria. Amurizak jada aipatzen zuen bere lehen edizioa 1981ean izan zuen ‘Hitzaren kirol nazionala’ lanean: “Komunikabideek –idatziek, irratzikoek, telebisibok-lehenago pentsatzerik ere ez zegoen presentzia daukate gaur bertsolaritzan, batzutan

saturatzen ari ez ote garen kezkatzeraino” (Amuriza, 1997: 189). Garai beretsukoa da Laxaro Azkunek irratian lanean hasi berritan entzundakoa ere: “Irratian hasi nintzenean izan ziren bertso gehiegi ematen zela irratian esaten zutenak, bertsolariak tartean, horregatik jendeak ez zuela bertso egarririk. Geroagoko urteetan etorriko zen bertsozaletasun zoroa ez genuen inork igarri” (Azkune, 2000: 71). Eta 1980ko hamarraldi horren bigarren erdian, oraindik ere telebistara iritsi gabe, kontuz ibiltzeko deia egiten zuen Jesus Mari Etxezarreta *Izazpik*:

“Bertsoak bere giroa behar du, erdal poema batzuek behar duten bezalaxe. Ordu guztietan edozerk aspertzen du. Egunkariz eta telebistaz balia liteke, baina kontuz: neurri batean, entzulegoa aspertu gabe, Gehiegikeriak arlo guztietan ondorio bera bait du. Komeni da entzulea gehiago entzuteko gosez, desiraz gelditzea.” (Elkarlanean, 1987: 94-95)

Beldurraren adiera berria Egañak seinalatzen duena litzateke, bertsoa beharrean bertsolaria izatea gehiegi ateratzen zena: “Ezetz esaten txarrak gara bertsolariak eta telebistak horrelakoak nahi izaten ditu. Edozertan eta edonoiz bertsolariak azaltzeko kinkan (...) Telebistan azaldu nahi dugu, baina bertsoan, ez platoko pizina batean globoak lehertuz, ez mister lehiaketa batean epaile lanetan, ez txiste kontalari...” (Egaña, 2004: 164-165).

8.3.7.4 Erretzeko arriskua

Siadecoren txostenean irakur daitekeenez adiera asko dituen beldurra da hau: “Azken urteotako ezaugarri nabarmenetako bat bertsolariaren dinamikaren azkartzea izan da (...) Honek, hemen aipatu den ‘erretzearen’ arriskua dakar: bertsolariak, gaiak, irtenaldiak, bertsozaleak ‘erretzearena’ alegia” (Siadeco, 1995: 74).

Bertsolariaren nekeari buruz aipatu da jada zerbait. Bistakoa denez ez zen Sarasuari bakarrik gertatzen zitzaion zerbait: “(...) bertsolari bat plazatan hasi orduko geratu gabe dabil batetik bestera; txapelketak sortzen duen dinamika konpetitiboa oso nekagarria, eta maila batean frustrantea suerta daiteke bertsolariarentzat, zenbaitek aurkeztu nahi ez duelarik (...)” (Siadeco, 1995: 74).

Gaiei eta irtenaldiei dagokionez, hedabideen bidez saioaz haragoko publiko zabalera iristen direlako gelditzen dira erreta, alegia, ezin dira beste saio batean baliatu:

“(…) en la época de Uztapide, un bertsolari podía prácticamente repetir el mismo bertso en dos o tres plazas. Hoy en día, las actuaciones de los bertsolaris se emiten por radio y por televisión, los mejores bertsos se recogen en antologías... si a eso añadimos que el número de actuaciones se ha multiplicado grandemente, podemos hacernos una idea del ritmo de creación y del grado de originalidad que se le exige hoy al bertsolari de elite.” (Garzia, 2000a: 464)

Arriskuari beti adiera negatiboa ematen zaion arren, kasu honetan ikus dakiokegu bere alde positiboa ere. Berrikuntzarako joera indartuko du erretzeko arriskuak, bai bertsolariengan eta baita gai-jartzaileengan ere:

“Durante los primeros noventa, debido en parte a la presencia de la televisión en muchas de las sesiones, los temas se complican no sólo en su contenido, sino también en la forma. Un mismo bertsolari ha de representar las dos partes de la controversia, cantando cada papel en un micrófono; en lugar de formular de palabra el tema se presenta una prenda cualquiera; se obliga a un bertsolari a identificar a sus compañeros, uno por uno, con algún animal, o a imaginar cómo serán en el futuro; o a hacer un retrato de cada uno de ellos.” (Garzia, 2000a: 464-465)

Errimen erretzea ere aipatzen du Egañak: “[Errimen antolaketarako baliatzen den bitxilorearen teknikaz ari da, bitxilore horren errima arruntenen orriaz] Orri honek bereziki sartu irten ugarikoa behar du, erabiliaz batera nekatzen baitira hitzak ere, orain eta bizkorrago gainera, hedabideek dena bizkor zabaltzen duten garaiotan” (Egaña, 2004: 133).

Bistakoa denez, hedabideratzeak bertsogintza baldintzatuko du.

Erretzeko arriskuaren inguruko gogoetak, berebat, edukiak errepikatzeko Euskal Telebistak izan ohi duen joera kontrolatu beharrera eramango du Elkartea:

“[Tapia] Bertsogintza etengabeko sorkuntzaren praktika da, eta berrikuntza txikiak izanik ere, askotan errepikatu egiten dira, eta bertsoak asteburu ezin dira denak originalak izan, errimak, soinuak, egiturak, oso txikia delako benetan berrikuntza gisa ulertu dezakeguna. Beraz, guk garbi genuen: argi hau etengabe esplotatzearekin! Bertsoa gauza hauskorra da eta zentzugabeko errepikapenak kalte handia egin diezaioko” (Barandiaran, 2011: 63)

8.3.7.5 Desitxuratzeko arriskua: jokaldirik onenak

Siadecoren txostenak telebistan eskainirikoak ‘jokaldirik onenak’ zirela azpimarratu beharra ere aipatzen du: “Ikusleak ulertu behar du bertsolaritzaren «Kirolez Kirob» programa dela” (Siadeco, 1993: 60). Eta Garziak laburbiltzen du arazoa:

“La difusión de los bertso por televisión, por otra parte, exige una gran contundencia en cada bertsu, en detrimento de la sesión entendida como un todo. Ocurre como los aficionados al fútbol que, acostumbrados a ver las mejores jugadas por televisión, se aburren al acudir al estadio y comprobar que durante un partido las jugadas interesantes suelen ser la excepción.” (Garzia, 2000a: 465)

‘Hitzetik Hortzera’k saio eta bertsoaldi ezberdinetako hautaketa bat eskaini ohi zuen, bada, eta hortik antologia eta errealtatea nahasteko arriskua sortu zen: “Irratian baino denbora gutxiago izaki, bertso-aukera estuago izan da beti telebistan, eta horrek, akaso, halako irudipen faltsu bat sortu du bertsozalearengan, telebistako intentsitate -rik ez baita bertso-saioetan” (Garzia, 1993: 91). Entzuleen jarrera aldaketa nabaritu zuten bertsolariak: “(...) telebistaz eta ohitutako jendeak kontundentzia eskatzen zian (...)” (Garzia, 1998: 61). Eta bertsogintza eskari horri egokitzeko joera zabaldu zen:

“(...) inguruko faktoreek (telebista eta irratiaren presentzia nagusiki) bertsoan egiteko moduarengan eragina izan dute. Bertsolariak jaialdian zehar intentsitatea bilatuko du, denbora gutxian gauza asko eta onak esateko modua, almazena hustekoa, betiere gailurren bila, ikuskizunera joan den entzulea asebetetzeko eta irrati nahiz telebistaz ‘emangarri’ den zerbait burutu asmoz.” (Egaña, 1993: 21)

Egañak azaltzen zuenez, eragin garrantzitsua izan zuen honek garaiko bertsogintzan:

“Honek azaletik dirudien baino garrantzi handiagoa du. Bertsolari-klase bat beste bertsolari-klase baten gaineratik ipini du; arrakasta duen bertsolaria noizbehinka gailurrak joko dituen hura da (...) Hargatik, ohizkoa hautsi nahian, erabiltzen ditu egungo bertsolariak hainbeste literatur baliabide.

Hargatik jokaten du hainbeste antzerki-elementuekin, dela keinu eta gorputz-mugimendua, dela ez dagokionean txandari lotzea...” (Egaña, 1993: 21)⁵⁷³

Eta kezka ere sortu zen, egiteko modu honek bertsogintzak berez behar zukeenaren kontrako norabidea hartzen ote zuen sumatu baitzen:

“[Sarasua] Bertsoaren arnasa berez ez duk hain kontzentratua (...) nondik hasten haizen, gero nola harritzen dituan, gero nora hoan, nola perzibitzen duan haien mundua, nola eragiten dioan haien munduari (...) jardun osoa duk, bere osotasunean, kontuan hartu beharrekoa (...) bertso bakoitzean kolpea jo beharra sentitzen diagu (...) Hori duk geure burua gehiegi behartzea, eta hala egin diagu urteotan (...) Jaialdietan jendeak bertso bakoitzean irudi edo esanahi kolpe bat espero dik, eta, ostras, ez gaituk hain onak.” (Garzia, 1998: 61)

Telebistagarria zen hori bilatzeko joera honek eragina izan zuen gainera, saioen formatu ezberdinen bilakaeran:

“Eskaintzen diren bertso-saiorik gehienak, gaijartzaileekikoak dira, eta hor ere bada desoreka handi bat, hori eskainiz hori promozionatzen delako gehienbat. Libreko saioak grabatu grabatzen dira, baina zail izaten da ikusentzuleekiko lotura (testuinguru amankomuna) lortzea. Afari eta abarretako tempus-a, gainera, ez da telebistarako egokiena. Teleikusleari ere ulergarri zaion testuingurua sortzea da, oro har, telebistako jardunak duen kokarrik handiena.” (Garzia, 1993: 91)⁵⁷⁴

Jarritako gai bati erantzuten dioten bertsoak ulertzeko nahikoa du hedabideak gaiaren berri ematen. Gai-jartzailerik gabeko saioetan bertsolariek testuinguruarekin duten hartu-emanan izan ohi da ardatza, eta testuinguru hori hedabideaz bestaldera iristaraztea konplikatua izaten da. Beraz, hedabideratzeak gai-jartzaileekin funtzionatzen duen saioa lehenesten du, eta formatu ezberdinen eskaintzaren nahiz eskariaren desoreka sortu.

8.3.7.6 Fokua elitean bakarrik jartzekoa

Telebistak ikusgarritasuna bilatzen du, jokaldirik onenentzat bakarrik du tokia, eta jokaldirik onenak normalean jokalaririk onenek egin ohi dituzte. Aurrekoaren adiera gisa uler daitekeen hori izan zen telebistari ikusitako beste arrisku bat: fokua elitean bakarrik jartzekoa.

Sarasuaren testuak jasotzen du garaiko ezinegona:

⁵⁷³ Gerora gehiagotan ere bueltatu izan da Egaña hedabideen presentziak bertsogintzan duen eraginera: “Egia da bertsolariek ere jakin behar duela egokitzen. Txokokeriari muzin egin eta Euskal Herri osoan ulertzeko moduko hizkuntza erabili behar du (...) Telebistagarri izatearen barruan ez da bertso ona bakarrik sartzen. Salgarria eta funtzionala ere behar du onaz gainera. Mikro-aktore ona izateko prestatu behar du (...) Joan zen Basarrik besoak zabalduz (...) “bagera edo ez gera” botatzen zuen garaia Gure ezarriko zuloraino iristen dira orain ikusentzuleak. Kamarek gorputz-imintzio guztiak, baita txikiak ere, harrapatzen eta handitzen dituzte.” (2004: 165)

⁵⁷⁴ Azalpen hau zabaldu izan da gehiago: “Gisa horretako saioetan inprobisatzen diren bertsoek asko galtzen dute hedabideetan. Hain zuzen ere egoerari estu-estu lotutako bertsoak baitira, eta egoeraren erreferentzia hori galduta, ia grazia guztia galtzen baitute horrelako bertsoek. Alferrik saiatuko da telebista bertsolariek zirikatzen ari diren sukaldariaren irudia erakusten: saioa etxetik ikusentzuten duenarentzat aurpegi soil bat da hori, eta bertsoak, hamarretik bederatzitan, ez dio graziarik egingo. Bertsoa kantatu zeneko unean eta gunean zeuden entzuleek, aldiz, sekulako barre algarak egingo zituzten bertso hori entzunda, unean uneko eta gunean guneko bizipena medio. Bizipen partekatu hori izan ohi dute horrelako bertsoek bere emozibide nagusi.” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 54). Eta garrantzia eman izan zaio gerora ere: “Hedapenari begira, telebistaz, irratiz edo euskarri fisikoetan, batzuk erraztasun gehiago ematen dute zatikatua eskaintzeko (gai-jartzailea duten formatuek esate baterako sortzailea eta hartzailea testuinguru berean kokatzen direlako gaia bide) beste batzuk baino (libreko saioak, bertso tramak... hari jarraitu bat duelako eta testuingurutzea eskatzen dutelako) eta hori oso kontuan hartzeko da (...)” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 40)

“Aspaldi honetan bertsolaritzan zerbaitek kexua sortu badu, bertsolarien banaketa izan da. Batzuk gehiegi dabiltzala, denontzako lekurik ez dagoela, bertsolari asko baztertzen dela... (...) Hainbat jenderengan dagoen arrenkura honen erakusgarri dira Bertsolari Elkartearen Gipuzkoako Batzordean gai hau bereziki tratatzeko bilera zabalak egin izana, ‘Hitzetik Hortzera’ programan bertsolarien banaketak sortu dituen ohar eta eztabaidak, eta abar. Erakusgarri izan liteke *Bertsolari* aldizkariaren lehenengo alean bertsolaritza utzi duten sei bertsolarirekin egindako erreportaia ere (...)” (Sarasua, 1993: 34-35)

Egañak azaltzen du ezinegon honekin telebistak zuen lotura: “Gehien azaltzen direnak hartuko dituzte aintzat bertso-saioen antolatzaileek. Eta plazan gehiago dabiltzalako, gehiago azalduko dira berriz ere telebistan, premiarik gutxien zeukaten haiexek” (Egaña, 2004: 164). Eta Garziari ere, programaren arduradun gisa, makina bat aldiz iritsiko zitzaion kritika: “(...) telebistak bereziki, elite bat promozionatu du, izar gisa kontsagratuz. Elite horren ingurukoak gero eta baztertuago bide daude (...)” (Garzia, 1993: 94). Berak, ordea, ez zuen horrela ikusten, eliteren fokuak elikaturiko *boomak* plazen ugaritzea eta, ondorioz, denentzako tokia ekarri zuelakoan:

“Kezka horren aurrean bada horrek hala behar duela dioenik. Elitearen jardunak sortuko duela zaletasunaren zurrumbiloa, eta hori bideratzeko beste bide batzuk bilatu behar direla. Hala egin izan da, eta egin da, beste alorretan (...) Datuek diotenez, gainera, saioren ugaltzeak bertsolari asko eta askorentzat aukera ekarri omen du, eta ez omen da egia bazterteraren hori.” (Garzia, 1993: 94-95)

Eta fokua mugatu beharra ere defendatu zuen: “Maila batetik beherako bertsolaria telebistan agertzeak ez telebistari, ez bertsolariari berari ez lioke mesede egingo. Bertso-eskolatik telebistara bada hainbat maila, edo izan behar luke behintzat” (id.: 95).

Askoren ahotan ibiliko zen kontua. Egañak, esaterako, gogoeta sotilenetako bat eskainiko zuena: telebistaren estereotipazio indarrarekin lotu zuen kontua.

Tarte polit bat eskaini zion planteamenduari, abiapuntu gisa indar horri erreparatuz: “Mass-mediek edozein ekimen, talde edo pertsonarekin egiten dutena tipifikatzea da, estereotipatzea, laburtuz definitzea, edozeini, edozer eta edonor ulergarri gerta dakion moduan” (1993: 27).

Bertso-munduan emandako prozesua aletzen zuen segidan:

“Oso urte gutxian bertsolari-sail bat definitu egin da, estereotipatu, lan hori hiru erpinetatik abiatu delarik: bertsolariak bere buruaz egin eta saldu duen imajina, komunikabideek bertsolariaz saldu duten erretratoa eta publikoak bertsolariaz egin duen ustea. Hiru bektore horiek, inorentzako traumarik gabe erdigune bakar batean topo egiten dutenean bertsolaria definitua gelditzen da.” (1993: 27)

Estereotipoak entzuleen espektatibetan nahiz bertsolarien komunikazio estrategietan zeukan eraginarekin josteko:

“Eta hori da egungo bertsolaritzaren ezaugarri nagusienetarikoa: entzulea, halako bertsolari nolakoa den jakinik, halako gaiari edo halako unean nola erantzungo duen jakin-minez joaten da. Potoa teknikoki zer den edo bertso bakoitzean zenbat errima erabiltzen diren asmatzen ez duen bertsozale dextente da. Denek dakite, ordea, S. Lizaso arrankeko bertsolari segurua dela, Peñagarikano xeble eta zirikatzailea, Euskitze txukuna (...), Murua bihozbera eta goxoa (...) Hori ez da kasualitatez lortzen. Lehen aipaturiko

Hirutasun Santu horrek estereotipo batzuk sortzen ditu eta estereotipo horiek, gaur egun inoiz baino gehiago izan arren, betiere mugatuak dira numeroan. Beraz, bertsolari denek bilatzen dute bere estereotipoa (Muruak adibidez exageratuki baxu kantatuz, gai guztiak alderik sentimentalenetik helduz (...), baina ez dute denek aurkitzen.” (Egaña, 1993: 27)

Eta fokuaaren arazoaren formulazio xeheago bat eskaintzeko: “Horretantxe datza arazoa. Bertsolari estereotipodunak bertso soilaren gaineko balio erantsi batez jokatzeko duen bitartean (...) mass-mediak sal diezaioten eta entzulegoak errekonozitu dezan lortu ez dutenek balio erantsi hori gabe jarduten dutela.” (Egaña, 1993: 28)⁵⁷⁵.

‘Hitzetik Hortzera’-ren inguruko eztabaidak, eta eztabaida horretatik jariatzen ziren eztabaida berriek askorako eman zuen, bada. *Boomak* eragindako merkatuaren banaketaren inguruko eztabaidatik, esaterako, bertso-eskolen funtzioaren inguruko eztabaida abiatuko da. Kasu honetan Sarasua ekarri zuen gogoeta sotila:

“Oinarriak birstortzen du elitea, baina ez da hori bere funtzio nagusia. Alegia, eskoletako eta herriko futbol-taldeen helburua ez dela Real Sociadarako jokalaria sortzea, baizik eta futboleko jokatzeko (...) Zer gertatzen da bertsolarietan? Nazio-mailakoa puztuta dagoela eta dena harrapatzen duela. Edo agian hobeto alderantziz esanda: herri-mailako jardunak ez duela funtzionatzen. Nazio-mailako bertsolari izateak ez bestek ez duela zentzurik dirudi” (Sarasua, 1993: 36)

8.3.7.7 Hezitzailea vs Ikuskizuna

Bertso-munduak telebistaren alderdi hezitzailea esploratu beharra ikusi zuen. Honela zioen Siadecoren eskutik egindako gogoeta partekatuak: “(...) telebista oso informazio iturri egokia izan daiteke neurri batean, baina formazio-iturri, ‘pedagogia sozial’ baten iturri izan ote daitekeen ere aztertu beharko litzateke” (Siadeco, 1995: 40-41). Eta horrela ikusten zuen urte hartan bertan Andoni Egañak ere: “Telebistak, berriz, meritu eta zerikus handia izan du bertsolariaren zabalkuntza-prozesuan. Jakina da telebista dela zerbait ezagutzera emateko modu egoki eta azkarrena. Orain zabalkuntza horretatik hezkuntza-une batera igarotzeko unean gaude” (Egaña, 1993: 19).

Ez dute denek berdín ikusiko, noski. Joxerra Garziak, esaterako, medioaren ezaugarrien inguruan eskarmentu handiena zuena, eta programaren arduradunari zegokion posiziotik, zalantzan jartzen zuen telebistak alor honetan egin zezakeen ekarpena, urte hartan bertan baita:

“Bertsoak eskaintzerakoan bidenabar egiten diren azalpen teknikoek gainera, teoriari propio atal bat eskaintzeko asmoa askotan gogoan izan bada ere, ez zaio irtenbide egokirik topatu orain arte. Egitekotan, eskola-kutsu edo sermoi-itxurarik gabeko zerbait behar luke, telebistaren baliabidez emana. Txotxongiloa eta marrazkiak erabiltzea ere pentsatu izan da, baina ezin izan da ezer tajuzkorik atera.

⁵⁷⁵ Egañak irekitako bide honek izan du jarraipenik gerora ere. Paiak, esaterako, hedabideek epaileen ikuspegia zenbat baldintzatzen duten azpimarratzen du. Honela aurrikuspenen sorkuntzaz ari da: “Bertsolari handi batek aurreko Bizkaiko txapelketaren aurretik gomendatu zidan prentsaren aurreko elkarrizketetan nire burua saltzeko, hau da, zein sasoi onean nabilen, zenbat entrenatu dudana... azpimarratzeko. Argitu zidan, sekula ez zidala urte batzuk lehenago gomendio hori emango, baina gaur egun komunikabideen iritziak eragin handia daukala epaileengan.” (Paia, 2011: 123). Eta hedabideek finkaturiko estereotipoen indarrak: “Txapelketako epaileentzat, oster, enklitxamendua derrigorrezko faktorea ei da bertsolariok epaitzeko orduan (...) astebururo saioetara joateko ohiturarik ez eta epaitu beharreko bertsolarien lanaren jarraipenik ezak fikzioan oinarritutako orokortze horien mendeko bihurtzen ditu epaile batzuk.” (Paia, 2011: 124)

Galdetzekoa litzateke, ordea, telebistari ote dagokion zuzenean bertso-alfabetatzeren lan hori, ez ote diren beste hedabideak horretarako aproposago. Gaur egun programak dituen emisio-egun eta orduak ere dexente mugatzen du horretan, igande-eguerdia ez baita berriketarako aproposena.” (Garzia, 1993: 92)

Hurrengo urteetan hainbat proba egingo ditu programak izaera hezitzailearen gradu egokia topatu nahian. Edozein kasutan, bertsolari belaunaldi berrien hezkuntzan funtsezkoa izango da, Pako Aristiren artikulu bat jasoaz Egañak dioen bezala: “‘Gehienek dute ‘Hitzetik Hortzera’ telebista-programaren eragina. Agian zuzeneko saioena baino gehiago; beraz, kalean baino gehiago, etxeko gelan, telebistaren bidez zaletu dira’” (Egaña, 2004: 158).

8.3.8 Gero arte Euskal Telebistari (1994-1997)

8.3.8.1 Tirabirak administrazioarekin eta telebistarekin

Elkarteak administrazioarekin zuen harremana bere lehen urteetatik hasia zen okertzen. Bertsolarien produkzioa jaso eta antolatuko zuen artxibategi bat jarri nahi zuten martxan eta 1988an beka baten deialdi publikoa ateratzea lortu zuten. Epaimahaia osatzera ere iritsi ziren, baina bertan behera geratu zen ekimena. Euskaltzaindiatik zetorren betoa eta bertsolaritza eragiletzan ibilitako Alfontso Irigoienek ahotik ezagutu zuten: “Lehen bileran Irigoienek esan zuen Euskaltzaindiak erabakita zeukala proiektu horrek ezin zuela aurrera egin, euskarazko literatura idatzia eta ahozkoa jasoko zuen proiektua Jauraritzaarekin negoziatzen ari zirelako; hau da, Liburutegi Nazionala. Betatu egin zituzten” (Barandiaran, 2011: 57).

Bigarren estrapozua Joseba Arregi Kultura Sailburuarekin izango zuten. Gero Siadecoren bidez gauzatuko den bertsozaletasunari buruzko azterketa soziologikoa egiteko diru-laguntza eskatu zioten eta bilera batean sei milioi pezeta hitzeman zizkien, baina Gugeheimaren proiektua gurutzatuko zen eta hara bidean galdu ziren diruak (Barandiaran, 2011: 63).

Harremanak eta tratua konplikatua zirela gogoratzen dute garaiko eragileek. Barandiaranek jasotzen dituen Koldo Tapiaren hitzotan esaterako:

“Joan proiekturen batekin, eta ‘aurreko aste honetan bertsolariak hau esan dute, eta beste honek hau kantatu du, eta bertsolariak noiz zibilizatu behar dituzue?’. ‘Bai, terminoak horiexek ziren’, dio Tapiak. ‘Haiek Elkarte laguntza nahi bagenuen, bertsolariak ‘demokraziaren parametroetan’ jarri behar genituela esaten ziguten. Baina guk oso argi genuen sortzailearen askatasuna Elkarteak ez zuela inoiz ukitu behar, eta bertsolari bakoitzak jakingo zuela une bakoitzean eta toki bakoitzean zer esan behar zuen eta zer ez’” (Barandiaran, 2011: 57).

‘Hitzetik Hortzera’ren arrakastaren aurrean telebistarekin zituzten harremanek ere bide bera hartuko zuten. Elkarteak buruturiko gogoeta partekatua ildotik, programa hezitzaile baten beharra planteatuko du, fokoa zabaltzeko beharra, edukiak gehiegi errepikatzeak erretzeko arriskua dakarrela... Telebistako arduradunek beste ikuspuntu bat zuten: “(...) [Garziaren hitzak] ez ziren bertsozaletu, baina proportzio bat egiten baduzu ze entzuleria zeukan eta ze kostu zeukan programak, oso merke ateratzen zen, eta prestigioa ematen zuen gainera (...) Hor mea-hobi handi bat ikusi zuten” (Gaztelumendi, 2009: 72). Programa luzeagoa, zurrunagoa eta komertzialagoa zen euren proposamena: “Bagenekien telebistak alderdi hezitzaile ere izan dezakeela. “Jendeak bertsoak nahi dizkik!” izaten zen telebistakoen erantzuna. Jendea ez omen zegoen inoren sermoiak irensteko. Jendea bost axola omen zitzaion bertsolari batek bertsoa osatzeko prozeduraz zer trikimailu kontatzen zituen (...)” (Egaña, 2004: 163).

Euren eredia inposatzeaz gain, udako deskantsurako urteko bertso onenen antologia programa bat egiteko agindu zioten Joxerra Garziari: “[Garziaren hitzak] 1993an banekien Elkarteak ez zuela udako programa hori nahi, eta neuk ere kontra egin nuen. Hala ere grabarazi egin zidaten” (Gaztelumendi, 2009: 71). 1993ko uztea erabaki zuen, baina orduan abiatzen zen Txapelketa Nagusia eta Elkarteak itzultzeko eskatu zion:

“Oso nekatuta nengoen ordurako. Telebistara pasa nintzenean irratiko soldata bera mantendu zidaten eta tira. Baina programa hileroko izatetik astean behin egitera pasa nintzenean ere ez zidaten igoerarik egin. Lau urte neramatzan horrela eta Amatiñori eskatu nion edo kontratua egiten nuen lanaren parera igotzen zela edo bestela hilean behin bakarrik egin beharko nukeela. Ez zidan inongo kasurik egin eta uztea erabaki nuen, 93ko udazkenean. Irratira bueltatu nintzen. Baina Elkartetik egunero neuzkan hoska, 1993ko txapelketa orduantxe ari zen martxan jartzen, eta ez zela uzteko momentua. Hamar egun baino ez nituen egin irratian. Itzuli eta txapelketarekin jarri nintzen. ETBkoek ez zidaten soldata igo, eta gainera, hilean behin beste programa bat egitera behartu ninduten. Zuzeneko bat zen eta horri bai lortu nuen ‘Debaldeko Festa’ jartzea. Uzten zidaten bakoitzean izen hori jartzen nuen (barreak).” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

8.3.8.2 Bertsolari gazteei zentsura

‘Debaldeko Festa’ren osagai nagusia bertsolaritzak behar zuen, eta aldiro bi bertsolari eramatea erabaki zuen Joxerra Garziak, zuzenean kanta zezaten. Zuzeneko musikak eta beste gonbidatu bati eginiko elkarrizketak osatzen zuen eskaintza. Lehen saiora Xabier Amuriza eta Andoni Egaña eramán zituen bertsotara eta Erramun Martikorena elkarrizketatu. Bigarreanean Manuel Lasarte izan zen elkarrizketatua eta Jokin Sorozabal eta Sebastian Lizaso bertsolariak. Hirugarrenean Bernardo Atxaga zen elkarrizketatua, Joseba Tapiaren taldea musika jotzen eta bertsolari gazteak, Irazu, Lujanbio, Elortza eta Iturriaga, kantuan:

“Esan zidaten kritika egingo zutela, eta esan nien inor iraintzen bazuten neronek moztuko nuela⁵⁷⁶. Espraia atera eta ‘Kalea guztiona da’ egin zuten pintada⁵⁷⁷. Ikusgarria izan zen, baina ez zitzaidan ezer larria iruditu. Gero bertsotan oso gauza graziosoak esan zituzten; batean ‘desinformazio gehiago orduoro Euskadi Irratian’ bukatu zuen Unai. Publizitaterako etena zetorren jarraian eta iragarkien tarte horretan zalaparta nabaritu nuen baina erredakzio taldekoa zen Martikorenak denak lasaitu zituen eta aurrera jarraitu genuen.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Gazteen ekintzak baino dezente gehiago harritu zuen Garzia ondoren etorri zenak:

“Publizitatetik bueltan Atxagaren elkarrizketa neukan eta oso majo zegoen, *sembrau*. Konturatzeko, ordea, Maite lankidea azaldu zen Atxagaren atzean

⁵⁷⁶ Gaztelumendiri emandako elkarrizketan xehetasun gehiago eskaintzen ditu: “Bertsolariek esan zidaten pentsatu zutela saio batean Teleberriaren imitazio bat egitea, eta spray batekin soporte grafikoa egiten ea utziko nien. Errealizadorearengana joan nintzen eta esan zidan ez zegoela arazorik. Ez ginen ezkutuan ibili. Unai esan zidan, agian, saio gogor samarra izango zela. Nik eskatu nien ez iraintzeko jendea izen-abizenekin.” (Gaztelumendi, 2009: 71)

⁵⁷⁷ Barandiaranek jasotzen du bertsolari gazteen ikuspuntua: “[Irazuren hitzak] Joan ginen plazetan egiten genuenaren ahalik eta antzekoena egitera, ez saboteatzera (...) [Elortzaren hitzak] Punka izan zen, espontaneo, barruak askatze bat (...) Oso harro itzuli ginen etxera, gauzak diren moduan, baina egia da ordurako bazegoela kanpaina gogorra Elkartearen aurka, ezker abertzalearen ingurukoa zela zabaltzen ari ziren etengabe, eta Elkarte hori zaintzen ari zen. Eta, beharbada, ikusi zen gure irteera aitzakia bat izan zitekeela administrazioarentzat (...) hordago bat jotzeko” (Barandiaran, 2011: 63-64)

paper batean zuzendaritzaren aldetik mozteko agintzen zidatela idatzita zeukala. Burutik pasa zitzaidan ‘Cacique hauek...’ baina Elkartearen bazegoen tartean eta txukun egiten saiatu nintzen. Atxagari galdetu nion “Oso fuertea iruditu zaik bertsolari gazteena?” eta berak, gero Unai eta hauek asko mindu zituen erantzun zidan: “Fuertea? Ez, batere ez. Aukeran ortodoxoegiak, agian”. “Ba itxuraz ez dago segitzerik eta hemen moztuko dugu” esateko beta eman zidan, eta zapla moztu zuten zuzen-zuzenean Afrikako lehoien erreportaje bat sartzeko.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Ez zuen ondorengo gozoa izan emanaldi hark. Iskanbila bulegoetan: “Beste ordu erdi batean segitzen utzi bagenie, pistolak aterako zituzten!” Filme beltz bateko esaldia dirudi. Euskal Telebistako bulegoetan esana omen da saio mitiko baten epilogo” (Egaña, 2004: 159). Zalaparta hedabideetan:

“Amatiñok, Mikel Atxagak, Mario Onaindiak, Joseba Tapiak, Andoni Egañak, Juan Luis Zabalak, Felipe Juaristik, Ines Intxaustik edo Jon Sarasuak iritzi artikulua idatzi zituzten alde zein kontra. ‘Provocación’, ‘Zentsura’, ‘Euskaldunen arteko zentsura’, ‘Etxeko profetak’, ‘Bertso versus Bertso’, ‘Debaldeko festa’, ‘De parte de la dirección se acabaron los bertsos’, ‘Bertsolari gazteak ETBren begipuntuan’ eta horrelakoak izan ziren iritzi artikulua eta prentsa lerro-buru ugariaren izenburuak.” (Maia, 2017: 141)

Eusko Legebiltzarrerainoko bidea egingo zuena: “Legebiltzarrera ere iritsi zen kontua HBk nahiz Eak eramanda eta Zarraoak EITBko zuzendari orokor gisa bere azalpenetan esan zuen gidoia ez zutela jarraitu bertsolariek. En fin” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26).

Zalpartak honek guztiak ez zuen telebistako arduradunen autokritika ekarri. Alderantziz:

“Bertsolari gazteen zentsuraren kapitulu honen ondotik are gehiago tenkatu ziren harremanak. Gazteenetik aurrera sugerentzia bat egon zen zuzendaritzatik esanez ‘Hitzetik Hortzera’ emititu aurretik eurak ikustea komeniko litzatekeela esanez (...) Otermini esan nion: “Orduan aurretiazko zentsura jarri didazue?”. Eta berak, “ez, ez, ez, begiratu bat emateko bakarrik.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Behin betiko hausturaren hasiera izan zen hura:

“Ni, jada, nazkatua nengoen telebistako lanarekin. Unibertsitatean hasi berria nintzen gainera. Urte bukaera arte segi behar izan nion, ordea, apiriletik abendura telebistan lan egiteaz gain klaseak emanez. Bitartean, 1994ko udan Añotako bilkura egin zuen Elkarteak eta erabaki zuen ETBekin zuen harremana etetea. Urtea bukatu zenean akordioa ez zen berritu eta nik telebista utzi nuen.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

8.3.8.3 Añotako batzarrak: etenaren erabakia eta elkartearen berfundazioa

Elkartearen eta ETBren arteko hitzarmena urtero berritzen zen. Eta 1994ko udatik bueltan ere eseri ziren hitzarmena negoziatzera. Bertso-mundua oso deseroso sentiarazi zuen telebistaren aldetik jasotako tratua, baina haustura ere ez zen erabaki erraza: “Telebistarekiko hitzarmenean (...) bertsolarien irudi eskubide guztien truke, elkarteak diru dezente tratua zuen. Eta hori zen diru-sarrera nagusia elkartearen langileak finantzatzeko. Telebistarekin hautsiz gero, kiebrara zihoan elkartearen, eta elkartearen langileak langabeziara. (...)” (Sarasua, 2013: 295).

Elkartek programaren egitura berrikusi nahi zuen, 1993tik planteatzen zituen eskariak (hezitzaileagoa, foku zabalagoa eta abar) txertatzeko. Telebistako arduradunak inoiz baino oldarkorrago erantzun zuten:

“ETBk proposamena onartu ez, eta, gainera, planteamendu itxi batez erantzun zuen, eta zuzendaria eta saioaren eredia bera ere ezarri nahi izan zituen. Saioa are gehiago kontrolatu nahi zuen, alegia; kasik erabat bertsoz osatutako eredia nahi zuten, adierazpen gutxikoa: bertso saioak lau-sei bertsolarirekin antolatu, herrietara joan, eta saioa bere horretan ematea.” (Barandiaran, 2011: 66)

Joxerra Garziaren iritziz agintekeria baino ez zen hura guztia:

“Nik esango nuke programaren diseinua printzipioz ETBri ez zitzaiola asko inporta. Ni egon nintzen urteetan ez zen horretan sartu. Kantitatearekin geneuzkan gora behera gehiago... Baina une jakin hartan bere agintea erakutsi nahi izan zuen. 1993a eta 1994a urte gogorak izan ziren giro soziopolitikoari zegokionean. Telebistan ez zen presoan aipamenik egiten, Korrikaren berri ere ez zen ematen... Eta bertsolariak ideologikoki lerratuegi ikusi zituzten ETBko agintariek.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Bestalde, diru kontuetan ere ez ziren ados jartzen: “Baldintza ekonomikoetan ere bazen aldea, eta Elkartek hori negoziatu nahi zuen. Besteak beste, ETBk askoz gehiago ordaintzen zituelako antzeko iraupena zuten beste saio batzuk” (Barandiaran, 2011: 66). Eta alor honetan ere tonu bera zerabilkiten telebistako arduradunek: “(...) programagatik ordura arte ematen zen baino diru gutxiago eskaini zuen ETBk (...)” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26).

Elkartek bere baitako gogoeta prozesua ireki zuen, ‘Añotako eztabaidak’ izenarekin ezagutzen dena, Azpeitiako Añota sagardotegian urte hartako ekainean, irailean eta urrian buruturiko hainbat bilerarekin. Bilera horietan erabaki zen telebistarekin hitzarmenik ez berritzea, honek zekartzan ondorio guztiekin:

“Telebistari baldintzak argi jarri zitzaizkion (programaren kontrola adostua izatea), eta erantzun egokirik izan ez zenez, gure aldetik hitzarmena bertan behera uztea erabaki zen. Langabeziara joan ziren elkarteko koordinatzaileak. Bazkide kuotaz aparte, bertsolarien artean ‘iraultza-zerga’ berezi bat jarri zen, bakoitzak egiten zuen saio kopuruaren arabera, une larrian elkarteari bizirik eusteko.” (Sarasua, 2013: 295)

Ez zen erabaki batere erraza izan, agerikoa denez:

“Zubi asko erre ziren erabaki harekin. Telebistan ez zuten erabakia ulertu, noski, baina Elkartean ere, denek ez. “Zer inporta dio bertsoa asko ateratzen baldin bada?”, galdetzen zuten ETBren baldintzak onartzearen aldekoek. Nagusitu zen jarrera, ordea, honako hau izan zen: saia gaitzen beste diru iturri batzuk lortzen, publizitate kanpainak egingo ditugu, berri dezagun dena. “Ni seguru nengoen telebistara itzuliko ginela”, dio Garziak, “bertsoa eskatuko zutela berriro.” (Barandiaran, 2011: 65).

Baina iritzi ezberdinak egon ziren arren, kontsentsu zabalez hartu zen erabakia:

“(…) [Sarasuaren hitzak]]Sinbiosia izan zen Elkarteko gidaritzan zeudenen eta garai hartako bertsolaritzaren elitean pisua zuten batzuen artean, eta lurralde desberdinetako arduradunen artean ere kontsentsua izan zen. Garai hartako elitearen gailurrean zeuden pertsonak, Andoni Egañarengandik hasita, apustu horrekin engaiatzeak eta lehen lerroan ikusteak garrantzi handia dauka; horrek

sinesgarritasun handia sortzen du mugimenduan. Irudikatu eliteko izar bat telebistarekin negoziatzen, izarrak telebistan gutxixeago atera eta programa zabalago bat egitearen alde, (...) horrek indarra sortzen du, kutsatu egiten da.” (Barandiaran, 2011: 73)

Erabakiaren atzean gogoeta sakon bat eman zen, buelta asko eman zitzaizkion autonomia ideologiko eta finantziarioaren gaiari, baina baita proiektu osoari ere:

“Erabakia garrantzitsua izan zen, bertsolari guztiek elkarte baten ikuspegitik jokatu zutelako. Talde gisa, sorkuntza indibiduala kultur proiektu baten helburu bati begira jarrita. Bestetik, administrazioarekin zer motatako harremanak nahi zituzten argi utzi zuten: elkarlana bai, baina guk gure bidea ondo markatu ondoren. Hori izan zen eztabaida: proiektua, testuinguruaren eta kanpoko eragileen presioen aurretik.” (Barandiaran, 2011: 65-66)

Ziklo honen ekarpen garrantzitsuenetako bati aurretik baino modu kontzienteago batean erreparatu zitzaion: bertso-munduaren kultur mugimendu autonomo izaerari, autoeraketaren bideari tinko eutsi beharri. Gogoetak, bada, telebistarekin eteteko erabakia baino askoz gehiagorako eman zuen: berfundazio moduko baten oinarriak jarri ziren. Honela, 1996an Bertsolari Elkarteak izatetik Bertsozale Elkarteak izatera pasako ziren, mugimenduaren muina zen zaletuen eta sortzaileen arteko elkarlana agerian utziko zuen izen aldaketarekin, eta Oteizak diseinaturiko logoa estreinatuko zuten, Elkartearen autoirudian funtsezkoak bihurtuko ziren bi balio, mugimendua eta oreka, adierazten zituen logoa (Estibar eta Iturriotz, 2008: 59-61).

Krisi egoerak ekarritako elkartasun beharrak, bada, proiektua argiago ikustera eramane zuten, eta, ondorioz, proiektua indartzera: “Azken batean, Bertsolaritzaren Gizarte Mugimenduaren nortasuna indartzeari eman zioten lehentasuna, hedapenaren kaltetan baina etorkizunera begira sendoago zabalduko zelakoan. Baina arteari ez ezik gizarte mugimenduari ere mesede egin zion erabaki hark, aitortza soziala eta prestigioa irabazi zutelako.” (Zubiri, 2016: 27)

8.3.8.4 ‘Bertsoz Bertso’: tentsio garaiak

Luis Alberto Aranbarri *Amatiño* ETBko zuzendariak 1995eko urtarrilaren 15ean *Argian* argitaraturiko elkarrizketan hausturaren aurrean telebista publikoak mantentzen zuen postura azaldu zuen: “ETBk ematen dituen programa guztien ardura gurea da, ez beste inorena, eta ez dugu horretan amore emango inoiz” ‘Hitzetik Hortzera’ren eredia ez zela inoiz Elkartearekin adostu defendatzen zuen, horrela behar zuela aurrerantzean ere, eta, besteak beste, ETBk aurreko urteetan egindako diru eskaintza mantentzen zuen⁵⁷⁸.

Jada zuzendari ohi gisa⁵⁷⁹, laster pasa zen erasora ere. Barandiaranek jasotzen duenez, *Euskaldunon Egunkarian* argitaraturiko artikulua batean ezker abertzaleko orbitako erakunde sektariotzat hartzen zuen Bertsolari Elkarteak, eta ildo horretakoak ez ziren zaletuak uxatu izana, belaunaldi klasikoekin hautsi izana eta modernitateari egokitzen ez asmatzea egotzen zizkion⁵⁸⁰. Gehiago ere erori zitzaizkion Elkarteari: “(...) Mikel Atxagak (...) antzera

⁵⁷⁸ Helbide honetatik berreskuratua [2019/VI/22]: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/1513/luis-alberto-aranbarri-etbren-programa-guztien-ardura-gurea-da-ez-beste-inorena-eta-ez-dugu-honetan-amore-emango-inoiz>

⁵⁷⁹ Eibarko alkatezarako hautagai gisa aurkeztu zen eta EITBko zuzendariak Iñaki Zarraok ETBko zuzendari kargutik kendu zuen martxoaren bukaeran, hautagaitza eta kargua bateraezinek zirela argudiatuz.

⁵⁸⁰ Artikulua ez da topatu ahal izan, baina Barandiaranek azaltzen duenez ‘Katea eten da’ zeraman izenburutzat: “Bitxia da oso, baina artikulua kaleratu zen garaian, Elkarteak hurrengo Bertso Eguna diseinatzen ari zen, eta egitasmoak ‘Katea ez da eten’ zuen izenburutzat: hiru belaunaldi batera taularatu nahi zituzten Donostiako Atano III.a pilotalekuan. Kasualitatea izan zen, baina Elkarteak leloa aldatzea erabaki zuen, ez zezaten artikuluari erantzun gisa ulertu.” (Barandiaran, 2011: 67-68)

idatzi baitzuen *Deian*. “Ohiko bertsozale askori ez zaio hain atsegin oraingo bertsozale, dirudienez. Badira politikako erretolirik eta leloak aldendu dituztenak ere (...) Iriondo kazetariak ere esana zuen bertso saioak baino, “mitin politikoak” egiten zituztela bertsozaleek” (Barandiaran, 2011: 68). Abertzaletasunaren baitako arrakala eta lehiaren *Master Framea*, bada, beste behin.

Elkarteari loturiko hainbat lagunek eman zuten erantzuna prentsan:

“Unai Iturriagak aldarrikatu zuen belaunaldiz belaunaldiko kate hori ez zela eten (...) Jon Sarasuak ‘Bertsogintza ez da aski jeltzalea’ izeneko artikulua idatzi zuen, eta Bertsozale Elkarteari ikuspegi dogmatikotik erasotzea leporatu zion Amatiñori (...) Laxaro Azkune bertsozaleak ere kritikei erantzun argia argitaratu zuen, azpimarratuz Elkartearen azken urteetako ibilbidea. ‘Bertsolaritza inoiz baino argiago ari da ikusten nondik nora jo behar duen eta berak izan nahi du bide horren gidari inoiz ez bezala (...) Xabier Amurizak politizazioaren topikoak errepikatzea gaitzetsi zion Amatiñori (...)’ (Barandiaran, 2011: 68)

Bertsolariek ETBko kameran aurrean bertsoan egiteari uko egin zioten, eta sonatua izan zen Lazkao Txiriki egin zitzaion omenaldiko plantoa: “Lazkaoko udalak antolatutako ekitaldia grabatu egingo zutela erabaki zuen ETBk; bertsozaleek, haiek han egon bai, baina ez zutela kantatuko, protesta eta desadostasuna argi azaltzearren” (Barandiaran, 2011: 66). Argazkia, bitxia suertatu baitzen oso: “(...) jaialdi hartan, hainbat kantari oholtzatik ari ziren bitartean, 40 bertsolari inguru publikotik mutu eta begira egon ginen. Bertsozale gabe omenaldia, nori eta Lazkao Txirikiri. Gai polita, Lazkao Txirik berak ziri-bertsoren batzuk jartzeko!” (Maia, 2009: 168-169).

Tentsioz beteriko egunak eta hilabeteak izan ziren. Eta eman zen albo-kalterik ere. Nikolas Aldairi, esaterako, telebistarekin izandako hausturarekin inolako zerikurisik ez zuen arren, EITBko langilea zenez, galarazi egin zitzaion bertsoak grabatzea:

“Zaku berean sartu gintuzten etxe honetako guztiak, eta hainbat denboran gaurkotasuneko bertsozaleei ezin emitituz ibili ginen”, gogoratu du Aldairi. Izan ere, Elkartearen eta EITBren arteko liskar harekin... Entzuleei egin zitzaion kalterik handiena; bertsozaleei. (...) Sukiak hartu du hitza, berriro. “Erantsi nahi nuke, Nikolasi benetan garai gogorak egokitu zitzaizkiola. EITB eta Bertsozale Elkarteko ezinikusien garai haietan, bera erdian egokitu zen, eta alde bietatik hartu zituen muturrekoak (...)” (Martinez, 2012: 80)

Joxe Mari Iriondori ere garai hartako gorabeherek utzi omen zioten bertso-munduan egin duen ibilbide luzean izandako oroitzapenik mingotsena:

“ETBk bere kasa, alegia, Elkartearekin akordio batetara iritsi gabe, programa berriro martxan jarri nahi izan zuen nonbait, eta niri proposatu zidaten gidaritza. Zarraoa zuzendari nagusiak proposatu zidan hori, eta ezezko borobila eman nion, ez nuela ezer jakin nahi saltsa hartan, kolpeak baino ez zizkidala ekarriko horrek batetik eta bestetik. Biharamunean, ordea, *Correo Españolen* eta *Deian* programa berria nik aurkeztuko nuela argitaratu zuten. Sutan jarri ninduen horrek. Eta mingarriena hurrengo egunetan etorri zen, hainbat kaskarinek nire kontra idatzitakoak (...) Hainbeste urtean hainbeste lan egin eta oso esker txarrekoa irudi zitzaidan esan zirenak esatea (...) Izan zen bere babesa emanaz deitu zidanik ere: Azpillaga, Lopategi, Amuriza, Joxe Lizaso...” (J. Iriondo, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/18)

Iriondok aipatu bezala, programa berriro abiarazi nahi izan zuen ETBk. Eta Elkarateak bertso-saioetan grabatzeko baimena ukatu zionez, aurretik emititutako saioak berrerabiltzea erabaki zuen. ‘Bertsoz-Bertso’ jarri zioten izenburua programari, 1995eko apirilean hasi zituen bere emisioak, Maite Odriozola, ‘Hitzetik Hortzera’n lantaldean ibilitakoa, jarri zuten zuzendari eta Arantxa Arzak aurkezle. *Argia* aldizkariari 1995eko maiatzean eskainitako elkarrizketan argi asko islatzen du Maite Odriozolak bere posizioaren deserosoa:

“Bertsolariek agian oso ondo ez dutela hartuko uste dut. Horrek esan nahi du formula honetaz aparte zerbait gehiago behar dela eta akordioa lortu beharko litzatekeela Bertsolari Elkartea eta ETBren artean (...) Horrelako saioa ezin da denbora luzean mantendu. Artxiboko material dena ematea ere ez dut uste egokia litzatekeenik. Konponbidea izango duela uste dut. Konponduko direla eta gauza berriak eta freskoak grabatzera plazetara itzuliko garelakoan nago (...) Nahiago nuke lehen bezala jarraitzea, baina momentu honetan ezin da eta bitarte horretan hau egin behar bada, egingo da (...)” (*Argia*, 1995/V/07, ‘Maite Odriozola: ‘Plazetara itzuliko garela uste dut’’, Ainhoa Gerra)⁵⁸¹

8.3.8.5 Itzulera

1996ko udazkenean egoeraren diagnostikoa eskatu zion *Bertsolari* aldizkariak bertso-munduko hainbat ahots kualifikaturi. Marilu Odriozolak jaso zituen iritziak ‘Bertsozaletasunari txekeoa’ izeneko lanean, eta ETBrekin etetea kontsentsuz erabaki zenetik bi urtetara, gaia pil-pilean zela ikus daiteke bertan.

Sarasuaren iritziak irekitzen du testua, eta gerora hainbatetan erabiliko zen aparraldiaren metafora estreinatzen du bertan:

“Azken hamar urtetan basoa txanpainaz betetzen jardun dugu eta likidoaz gain aparra izugarri azkar igo da. Orain apar hori beheraka dator. Somatzen genuen apar azkarregia zela, eta orain ona izan liteke likidoa non dagoen ikustea. Betetzearen alde nago, poliki, aparrarekin liluratu gabe, bere martxan (...) Gainezka egiten ez badu, lehen baino likido gehiago geratuko da. Gainezka egiten badu, txanpain kopuru bat galdu egiten da (...) Esperientzia berria da, momentu polita.” (Odriozola, 1996: 28)

Jokin Sorozabalek telebistaren etenaren ondoko beherakada horren neurriaz dihardu: “(...) asko modaren eraginez joaten ziren saioetara (...) Esan behar da zaletu hauek telebistak erakarritakoak izan direla (...) Nolanahi ere betiko bertsozale hori hor dago (...) Progama honen desagerketarekin batera, bertso eskoletako gaztetxoengan nolabaiteko hoztasun bat nabari da” (Odriozola, 1996: 31). Estitxu Arozenak ez du faltan botatzen telbista: “Jendeak ez zituen bertsolariak botatuko bertsoengatik ezagutzen, baizik eta telebistan agertzen zirelako. Telebista ez da bertsolaritzaren formatu natural bat, eta ezta ere egokia. Gainera, garai batean, errepikapenekin jendea nazkatzea ere lortu zuten (...)” (Odriozola, 1996: 33). Jon Lopategik, aldiz, bueltatu beharra azpimarratzen du: “Telebistak eta honelako erakunde instituzionalak, gaur egungo gizartean presentzia handia dute, eta nik uste dut elkarte batek ahaleginak egin behar dituela erakundeekin nolabaiteko harremana izateko” (Odriozola, 1996: 38). Eta Xabier Amurizak zalantzak ditu: “Telebista bezalako medio batek oihartzuna eta prestijioa ematen ditu. Baina telebistari audientzia interesatzen zaio, eta nik ez dut garbi ikusten bertsolaritzari audientzia interesatzen zaionik” (Odriozola, 1996: 35).

⁵⁸¹ Helbide honetatik berreskuratua: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/1529/maite-odriozola-plazetara-itzuliko-garela-uste-dut> [2019/V/23]

1994ko etena programaren kontrolaren inguruko desadostasunagatik eman zen, baina bertso-munduak garbi zuen hedabideratzeko apustua, eta honen baitan telebistaratzeara, oso garrantzitsuak zirela proiektuarentzat. Siadecok argitaraturiko gogoeta partekatuak, esaterako, telebistari hainbeste arrisku ikusten zizkiona eta etenaren aurretik burututakoa, honela zioen:

“Bertsolaritzak, komunikabide edo hedabide sozialetatik —euskarazko irratietatik eta Euskal Telebistatik bereziki— jaso duen indar eragilea eta biderkatzaileari esker, bere arrakasta euskal gizarte osora iristeko aukera izan du, inoiz izan duen proiektio sozialik handiena lortuz (...) bertsolaritzak erreproduktzio-bideak bermatu behar ditu, eta bide horietan hedabideek oso paper garrantzitsua betetzen dute: prentsak, irratia eta batez ere telebistak, ziurtatzen dute gertaera kultural batek behar duen sozializazio-prozesua. Eta esan beharra dago bertsolaritzak, gertaera soziokultural bezala, gaurko kultur munduan lekurik izan nahi badu, ezinbestekoa dela hedabide sozialetan presente egotea. Hedabide sozialetatik kanpo ez dago gaurko gizartearen bizibiderik edozein kultur, kirol edo gertaera sozialarentzat.” (Siadecok, 1995: 60)

Joxerra Garziak ere, garai beretsuan, ordurako programak eta telebistako arduradunek nahikoa nekatuta bazeukaten ere, argi zeukan bere hautua: “Bertsolaritza hedabideetara eramane beharra dago, beraz. Eta bertan txertatuko bada, hedabide horien izaerari egokitu beharko zaio, gutxi-asko. Galduko ditu orain arte funtsezkotzat genituen hainbat eta hainbat ezaugarri, eta orain arte pentsatu ere gabeko zenbait jardunbide sortuko da” (Garzia, 1993: 84).

ETBri ere interesatzen zitzaion taxuzko bertso-programa bat izatea. Haustura gertatu berrikan Argiari emandako elkarrizketa honela bukatzen zuen Amatiñok: “Guk interesa daukagu bertso programa telebistan emateko, eta lehengo lepotik jarraituko genuke” (*Argia*, 1995/I/15, “ETBk ematen dituen programa guztien ardura gurea da, ez beste inorena, eta ez dugu horretan amore emango inoiz”, Juan Jose Petrikorena). Eta Maite Odriozolak eskainitakoak ere titular esanguratsua zuen: “Maite Odriozola: ‘Plazetara itzuliko garela uste dut”.

1997ko Euskal Herriko Txapelketaren aurretik eman zen gerturatzea. Txapelketaren emisioa interes handikoa zen bi aldeentzat. Lehenengo Xenpelar Dokumentazio Zentroa finantzatzeko akordioa lotu zen Jaurlaritzarekin, eta ondoren ETBekin txapelketaren emanaldia eta ‘Hitzetik Hortzera’ren itzulera bideratu zituen. Maite Odriozola eta Iñigo Aiestaran izango zituen zuzendari eta aurkezle bi aldeek adosturiko proiektuak.

Zentsuraren mamua agertu zen berriro ere ibilbide berriari ekin eta berehala. ETBk ez zuen emititu nahi izan 1998ko urtarrilaren 11n Oiartzunen antolaturiko bertso jaialdiaren zati bat:

“Gaia Eusko Legebiltzarreraino iritsi zen, eta Iñaki Zarraoa EITBko zuzendariak onartu zuen agindua Jose Mari Otermin programen zuzendariarena izan zela, baina bere babes osoa zuela. Bertsoa zentsuratzeko arrazoia, bertsolarien mikrofonoetan Euskal Presoak, Euskal Herrira leloa azaltzen zela eta kamerek hartutako irudietan hori ikusten zela. Edurnezuri eta zazpi ipotxei buruzkoak ziren bertsoak.” (Barandiaran, 2011: 89)

Bertsozale Elkartek, ordea, berriro ere tinko eutsi zion bertsolarien adierazpen askatasunaren defentsari, eta aldi berean azpimarra berezia jarri zion askatasun horren eta Elkartearen autonomia ideologikoaren arteko bereizketari:

“Bertsolari bakoitzak bere jarrera eta barrua dauka, baina Elkartea ez da egon eta ez da egongo jarrera politiko bati lotuta’, esan zuen Jon Sarasua Elkarteko komunikazio arduradunak. ‘Baina, bestetik, ETBk ematen digun tratamenduan duintasun minimorik edota egin nahi dugun bidea betetzen ez bada, programa apurtuko da; horretan Elkarreak bere estiloa uste dut argi utzi duela beti.’” (Barandiaran, 2011: 89)

Sustoren bat gora-behera bi aldeen arteko harremanak normalduz joango ziren. Giro politiko orokorrak ere hobera egin zuen 1998eko irailean gauzaturiko Lizarra-Garaziko Hitzarmenaren karira. 1999 bukaeraraino eutsiko zioten hitzarmen honek eta giro berriak. 1999ko urte hasieran abiarazi zen etenaren ondorengo ‘Hitzetik Hortzera’ren bigarren etapan eta Elkarreak proposatutakoak ziren programaren zuzendari eta aurkezle lanetan hasi zen Josu Goikoetxea eta bigarren aurkezle gisa ekin zion Arantza Hirigoien. Bingen Zupiria zen aldi hartan ETBko zuzendari eta honela azaltzen du telebistaren jarrera berria: “Niri 1999an tokatu zitzaidan gaiari heltzea eta argi izan nuen lehen momentutik bertsolaritzari eta bertsozalearen buruzko saioa egitekotan hobe genuela Bertsozale elkartearen eskutik joatea” (Gaztelumendi, 2009: 73)⁵⁸². Elkartearen aldetiko jarrera ona ere azpimarratzen du eta hurrengo urteetan nagusituko zen bi aldeen arteko sintonia:

“Haiek ere horrela ikusi zuten eta uste dut alde biek ahalegin handia egin dugula elkarrekin ongi konpondu eta proiektu hau aurrera ateratzeko. Batzuetan gauzak errazak izan dira eta berez joan dira. Beste batzuetan zailago izan da; baina beti izan gara gai, bakoitzak bere bideari uko egin gabe, elkarrekin lan egiteko. Eta horretarako oso garrantzitsua izan da hasiera-hasieratik garbi hitz egitea, arauak ongi zehaztea eta konpromiso horri eustea.” (Gaztelumendi, 2009: 76)

2000 urtean irradi ezberdinekin ere hitzarmenak sinatzeari ekin zion Elkarreak. 1994ean Añotako Eztabaidetan erabaki zen Elkartearen baitan Hedapen Saila propio sortzea eta ordutik aurrera sail hau arduratuko zen lanketa guzti honetaz. 1997tik aurrera eta Sail honetako kide gisa bere lehen komunikazio arduraduna ere izango zuen Elkarreak, borondatezko langile gisa arituko zen Sarasua, Tapiak Elkartearen idazkari gisa zuen soldatapeko lanaren zati bat atxabaldarrari laguntzera bideratuko zuelarik (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27).

Telebistarekin izandako etena gora-behera, eta energia nuklearrak izan zitezkeen arriskuak arrisku, atzera bueltarik gabeko apustua zen hedabideratzearena. Honela zioen Sarasuak komunikazio arduradun hasi zen garai hartan: “(...) hori duk interesatzen zaigun gudu-zelaia. Badiagu konfidantza pittin bat arrisku horiek gure gain hartu eta aurrera egiteko” (Garzia, 1998: 29). Eta honela berresten zuen urte gutxira Garzia eta Egañarekin batera atera zuen lanak:

“Arriskuak hor direla jakin arren, borroka eremu horretantxe jokatu nahi du bertsolaritzaren mugimenduak. Bertsolaritza biziartzaren jarraila nahi du, bide berriek dakartzaten aldaketei aurre eginez, bat-batekotasun kantatuaren muinari eutsiz eta, ahal dela, muin hori sekula baino sakonago garatuz, bere xumetasunean, bere biluztasunean, inprobisazioaren benetakotasunean.” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 64)


⁵⁸² Zupiriak bertso.com atarian eskainiriko elkarrizketa batetik jasotzen ditu Gaztelumendik adierazpenak.

8.3.9 Marrazki bizidunak eta aparrarekin batera gora dioan likidoa

8.3.9.1 Bertsolarien marrazki bizidunen hiru telesail, bertsolaritzaren gantxo mediatikoaren erakusle

Bertsolaritzak presentzia mediatikoaren hazkunderak apenas nabarituko du ETBren izandako etenaren eraginik.

24. grafikoan ikus daitekeenez, 1997an zerbait motelduko da txapelketa nagusiaren finalei buruzko estaldura mediatikoaren hazkundera hori. 1989tik 1993ra kasik bikoiztu egiten den bitartean, 1993tik 1997ra mantendu egingo da argitaraturiko testuen kopurua, hazkundera txiki batekin bada ere. 2001ean zerbait gehiago haziko da eta 2005ean beste jauzi bat emango du.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskin ezberdinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.

Datu hauez haratago, bertsolaritzaren distira mediatikoa ‘Hitzetik Hortzera’-ren etena gorabehera bere horretan mantendu zela agerian uzten duen beste ebidentzia bat ETBk 1990eko hamarraldiaren bigarren erdian bertsolarien biografietan oinarrituriko animaziozko hiru telesail eskaini izana litzateke: ‘Fernando Amezketarra’ (1994-1995), hamabost minutuko 26 atalek osatua; ‘Lazkao Txiki’ (1998-1999) zortzi minutuko 76 atalek osatua; eta ‘Txirrita’ (1999-2000), zortzi minutuko 52 atal izan zituena.

Etenaren aurretik eta ondoren bertsolariei buruzko marrazki bizidunak eskaini ziren, bada, euskaraz inoiz egindako animaziozko lehen telesailak, eta arrakasta politarekin gainera. Honela irakur ditekete hiruretan zuzendari lanetan ibili zen Juanba Berasategi zuzendariak *Argiari* 1999ko urtarrilaren 24ean eskainitako elkarrizketan:

“Duela urte mordo bat, ETBra joan nintzen ‘Fernando Amezketarra’ren egitasmoa aurkeztera. Ez digu balio, esan zidaten, hemen ere arrakasta lortzeko pertsonaiak unibertsalagoak behar dute izan, ez hain hemengoak. Denborak ordea, arrazoia eman dit. Hain zuzen, ‘Fernando Amezketarra’ oso unibertsala da (...) audientzia fidela izan duela ikusita, sikiera aurrekontua pixka bat igoko baligute, produktu hobea egingo genuke (...) Audientzia aldetik ere ‘Txirrita’

ongi doala dirudi.” (*Argia*, 1999/I/24, ‘Euskal marrazki filmak txingurri ausartak dira’)⁵⁸³

Koldo Izagirre idazlea izan zen gidoigile hiruretan, eta bertso-munduak ere parte hartu nahi izan zuen berauetan, bertsolari ezagun batzuk marrazkietako pertsonaiei ahotsa jarriz eta beste zenbaitek aholkulari lanak eginez:

“[Berasategiren hitzak] Oso zintzo jokatu dute guztiek nirekin. Azpillagak, Lizasok, Lazkanok, Agirrek, Egañak, Peñagarikanok, Euzkitzek, Amurizak, Garmendiak, Iraolak... denek kolaboratu dute, eta beren grazia aparta erantsi diote sailari. Baita Joxemari Iriondok ere, hainbat bertso ezezagun nire esku utziz. Juan Mari Lekuonak ere bai, eta zer esanik ez Antonio Zavalak.” (Abril, 2000: 38)

Ziklo honen oinarrian azaldu denez, Juanba Berasategi euskarazko animazioaren lehen bidegilea izan zen. Esan bezala, euskarazko animaziozko lehen laburmetraia berak zuzendu zuen, baita lehen luzemetraia ere, eta bertsolariei buruzko lan hauek izan ziren euskarazko marrazki bizidunen lehen telesailak. Bidegile, ez ezik alorraren egile nahiz eragile nagusia ere bera izango zen⁵⁸⁴, eta ekarpen guzti horretan toki garrantzitsu bat beteko zuten telesail hauek. Berasategiren ibilbidea euskal animazioaren historiaren muina izan denez, bertsolaritzak historia horretan toki garrantzitsu bat izan duela esatea, ez da, beraz, gehiegikeria bat izango. Izatez, ez da ofiziorik egongo euskarazko marrazki bizidunetan bertsolariak baino gehiago azaldu direnik: 150 atletik gora, dozenaka ordu.

Eta Fernando Amezketarra, Lazkao Txiki eta Txirritaren protagonismo honek ere, mediatikoa baita, agerian uzten du, esan bezala, 1990eko hamarraldiaren bigarren erdian, ‘Hitzetik Hortzera’ren bi urtetik gorako etena eman bazen ere, bertsolaritzak modan jarraitzen zuela euskararen komunitatearen baitan.

8.3.9.2 Aparra ez ezik likidoa ere gora

Ikusgarria da 1996ko udan, telebistarekin izandako etenaren erdian, Andoni Egañak Jon Sarasuari deskribatzen dion trotea:

“San Juan, San Pelaio, San Pedro, San Martzial, Santa Ixabel eta San Fermin atzean utzi ditiagu hurrenez hurren. Hamabost egun egin ditiat segidan, goizeko ordubiak baino lehen etxeratzeke. Ibiliaren eta egonaren poderioz, kirol-oinetako eta galtzerdi zuri, babak irten zaizkidak oinpean. Lan-tresna dugun garuna nola dagokeen hortik kontuak atera!” (Egaña eta Sarasua, 1997: 182-183)

Txapeldunaren hitzetan behintzat ez da nabaritzen etenak motelaldi handirik ekarri duenik, *Boomaren* urterik zoroenen pareko abiadura eta nekea baizik:

“Polita duk, xarmangarria, aberasgarria... baina baita nekosoia ere.

⁵⁸³ Helbide honetatik berreskuratua: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/1700/euskal-marrazki-filmak-txingurri-ausartak-dira> [2019/VI/23]

⁵⁸⁴ Animaziozko luzemetraia ugari zuzendu zuen Pasaiaakoak: ‘Kalabaza tripontzia’ (1985) luzemetraiairean ondotik (Ohorezko Aipamena Donostiako Nazioarteko Zinemaldian 1986an), ‘Baiaenak’ (1991), ‘Sorkunde’ (1993), ‘Ahmed, Alhambrako Printzea’ (1997), ‘Barriola, San Adriango azeria’ (2008) eta ‘Tormeseko itsumutila’ (2012) gisako lanak etorri ziren. Eta sektorearen eragile lanetan ere murgildu zen: Euskal Ekoizle Independenteen Elkartearen lehendakari izan zen 1991tik 1997ra; Espainako Ikus-Entzunezko Ekoizleen Elkartearen Federazioko zuzendaritza batzordeko kide 1993 eta 1994 urte bitartean; eta Nazioarteko animaziozko filmaren Elkartearen sortzaile eta lehendakari.

Arrangurarik handiena baina, nire buruarekikoa diat. Anabasa honetan guztian maitatze-gaitasuna galduz niak, ez zioat lehengo begirunerik bertsoari, ez naik txarrak izutzen eta onak haixatzen. Pilotu automatikoarekin jardutea nahikoa diat batez bestekoarena emateko (...)" (Egaña eta Sarasua, 1997: 183-184)

Urtebete geroago, oraindik ere *boomaren* baitan daudela ulertzen du Garziak ere:

"Bertso-munduan hitzetik hortzera dabilen kontua da bertsolaritzaren *boomarena* (...) Gorakada horrek 1991 inguruan izan zuen bere goren puntua, eta, gerora apur bat apaldu bazen ere, goiari eusten dio oraindik ere (...) Euskararen unibertso txikiak duen izarrik distiratsuenetarikoa da gaur egun bertsolaria (...)" (Garzia, 1998: 19)

Eta kanpokoagoa den begirada batez, Gabilondok, hamarraldiaren bukaeran jartzen du gailurra: "(...) bertsolaritza fenomeno erabat masifikatua izatera ailegatu zen momentu horretan bertan, 90ko hamarkadaren azken aldian (...)" (Gabilondo, 2009: 35).

1990etik 2005era luzatzen den aldi honen ezaugarri garrantzitsuenetako bat izango da jaitsierarik izango ez duen aparraldiarena. Sarasuaren metaforari jarraiki, ordea, aparraren azpian egon litekeen likidoaren inguruko itauna sortzen da. Distira, abiadura, presentzia mediatikoa eta abar hor daude, baina ze bilakaera izan dute bertso saioen kopuruak, edota plazaz-plaza dabilen bertsolarienak?

Zubirik eskaintzen ditu hiru aldagai garrantzitsuren inguruko datuak (2018: 28-30 eta 2019: 20-21). Bertso saioen kopuruaren bilakaera litzateke lehenengoa: 419 izan ziren 1990ean, 1.125 1995ean, 1.237 2000n eta 1327 2005ean. Hazkunderik ikusgarriena 1990eko lehen erdian ematen den arren, joera gorakorrari eutsiko zaio hortik aurrera ere. Plazaz-plaza dabiltzan bertsolari kopuruarekin ere beste hainbeste gertatuko da: 290 dira 1990ean, 480 1995ean, 562 2000n eta 682 2005ean.

Saioetara joaten den bertsozale kopuruarena da bilakaera konplexuena erakusten duena: 1990eko daturik ez du eskaintzen Zubirik, baina 1992an 258.000 izan zitekeela kalkula daiteke Siadecoren txostena eskuan (1995: 24); 223.924 izan ziren 1995ean, 155.668 2000n eta 173.006 2005ean.

Hemen bai nabari daiteke 1991etik 1993ra bitartean goia jo ondoren, hamarraldiaren bigarren erdian *boomak* izandako beherakada, nobedadeak ekarri ohi duen beroaldia apaltzeari telebistako etena gehituta ulertu beharko litzatekeena. Saioetara bertaratzen direnen kopuru hori ere gorako bidean jartzen da, ordea, berriro milurteko berriarekin, eta beste bi aldagaien bilakaera ikusita, aparraren azpian dagoen likidoa ere gorako bidean ari dela nabari daiteke, ezbairik gabe.

8.3.10 Elkartearen egitasmo estrategikoak: XDZ (1992-) eta Lanku (1999-)

8.3.10.1 XDZ: proiektuaren baitako bilketaren ardatza jorratzera

Ikusi den gisan, Elkartearen sorreratik bertatik, 'Bertsozale Elkartea sortzeko Erizpide Nagusiak' dokumentuan bertan, artxiboaren antolaketa jartzen zen helburu nagusien artean (Barandiaran, 2011: 39). Bestalde, urte luzez artxibo horren finantzaketa izan zen Elkarteak Jaurlaritzarekin izandako harremanen koska nagusietako bat.

Bertsolaritzaren ikerketarako oinarri gisa balioko lukeen bilketa lana bideratzea hautematen zen artxiboaren xede nagusizat: "Helburua garbi samar izan zuten hasieratik: bertsolaritza Unibertsitateko ikerketaren mailara jaso behar da, bertsolaritzak baduelako nahiko nortasun

horrelako ikerketetan egoteko, baina hori egin ahal izateko, ezinbestekoa da ikertzaileak lan egin dezan egitura antolatzea” (Barandiaran, 2011: 56).

Lehen aurreakordio bat lortu zen Jaurlaritzarekin 1988an, baina gero ezertara iritsi ez zen Liburutegi Nazionalaren proiektu bat ere bazerabilen Euskaltzaindiak esku artean eta azkenean biak bateragarriak ez zirelakoan, bertan behera gelditu ziren Administrazioaren laguntza asmoak. Elkarrekin ez zuen etsi, ordea, eta telebistatik lorturiko diru-sarrerekin hasi ziren bidea egiten. Arantza Mariskal kontratatu zuten proiektua gauzatzeko eta honek artxiboa baino behar zutena dokumentazio zentroa zela planteatu zien:

“Mariskalek esan zigun dinamikoa behar zuela”, dio Tapiak. “Esan zigun ikerketa egin ahal izateko, ondare hori guztia prestatu egin behar genuela, gizarteak erabil zezan. Erabilgarri izan zedin”. Arantza Mariskal Bartzelonatik iritsi berria zen, eta han oso ondo aztertuta zeukaten zaharkitutako artxibo zentroetan zer-nolako kaosa zegoen, batez ere Espainia aldean. Eta Europako dinamikan, Alemania, Ingalaterra, Frantzia, beste eredu batzuk zeuden.” (Barandiaran, 2011: 58)

1989an ekin zion Mariskalek proiektua garatzeari, 1991n eman zitzaion gorputza eta 1992an ireki zituen bere ateak Xenpelar Dokumentazio Zentroak. Izena lehen egoitzatik zetorkion: Errenterian Xenpelar bertsolaria bizi izandako etxea izan zuen lehen kokaleku. Hamarkada bukaerarako Donostian Kutxak utzitako espaziora aldatua zen eta 2008an estreinatuko zuen egungo egoitza, Villabonako Subijana Etxea.

1997tik aurrera zerbitzu publiko bat eskaintzen zuenez hala zegoen laguntza publikoa ere hasi zen jasotzen, baina martxan jartzea eta lehen urteetako finantzaketa osoa Elkarrekin hartu behar izan zituen bere gain. Ekonomikoki larri ibiltzea tokatu zitzaion eta hainbat fronte irekita zituen erakundeak gisako proiektu batean hainbeste indar eta baliabide xahutzeak erakusten du bertso-munduak bilketan ardazturiko lan-ildoari ematen dion garrantzia:

“Elkarrekin zerbaitetan asmatu badugu, Xenpelar Dokumentazio Zentrua abian jartzean asmatu genuen. Eredugarri derizkiot erabili genuen jokamoldeari. Dena eskaparate den gizarte honetan, gu ere leihoratu ginen noizbait. Telebistan azaltzen hasi ginen ETBekin lankidetzan osaturiko Hitzetik hortzera programan. Programak sortzen zituen irudi-eskubideen sosa sartu genituen Dokumentazio Zentrua abiarazteko. Eskaparateak lortua almazenean inbertitu. Ez du inork lehen begi kolpera miretsiko, baina han dago txukun asko hurrena datorren eskaparatea ederragoa izan dadin.” (Egaña, 2004: 112)

1991an, ateak irekitzeke zeudela, honela azaltzen zuen Mariskalek proiektuaren garrantzia:

“Edozein dokumentazio zentru garrantzi handia dauka, herri baten ondarea biltzen duelako (...) bertsolaritza arrazoi gehiagorekin gertatzen da hori, bertsolaritza Euskal Herrian identifikazio izugarria daukalako, historian ere zerikusi handia eta gure nortasunaren zati bat delako (...) Herri baten memoria gordetzea da honelako zentru bat martxan jartzeak duen helburu nagusia, ez gainera geldirik egoteko, aurrera bultzatzea arazteko baizik” (Loidi, 1991: 26)

Ondare hori bertsolaritzaaren produkzioak (iraganekoa eta batez ere garaikidea), eta gaiari buruzko liburu, artikulua, argazki eta abarrek osatzen zutela gaineratzen zuen, bilketaz eta katalogazioaz gain erabilgarri jartzeko lana egin behar zela, eta erabiltze ikerlariak, kazetariak, Elkarrekin bera edo kontsultarako beharra zuen edonork izan zitekeela.

Hamarkada bukaerarako bi langile ari ziren bertan lanean eta bolumen ikusgarria zuen bildutakoak: 1.200 bertso-saio bideoan, 3.600 audioan, 7.000 argazki, 1.700 kartel, 4.500 prentsa artikulua eta 3.500 liburuz osaturiko liburutegia (Aranburu eta Mariskal, 1999). Koordinaturik lan egiten zuen biltzaile sare zabal batek ahalbidetzen zuen hori guztia: “(...) bertso-saioetako kartelak gaur, argazkiak edo bertso-paperak bihar, egunero jasotzen dugu baliogarri den hainbat dokumentu. Horrezaz gain, grabatzaile talde bat aritzen da plazaz-plaza herri eta txoko desberdinetan antolatzen diren bertso-saioak erregistratzen” (Aranburu eta Mariskal, 2019). Datu baseetan antolatutik eskaintzen zen dena eta digitalizazio prozesuan murgildurik zebiltzan.

Ordutik altxorra handituz joan da. 2009an 9.000 saio izango ziren bideoan jasotakoak, 30.000 bertso-saio buruzko fitxa osatu zituzten, eta 15.000 argazki nahiz 6.000 kartel bildu, besteak beste (Agirre, 2009b: 181). Bost langile zituen ordurako zentroak. 2015ean langile kopuru berarekin jarraitzen zuten baina 12.000 ziren jasotako bideoak, 37.000 prentsa artikulua, 5000 piezako liburutegi digitala zuten osatua eta 3.000 bertso doinu nahiz bertso-munduko 3.000 lagunaren biografiak ere bazeuden eskuragarri bertsolaritzaren datu basearen (BDB) baitan (Arruti, 2015: 48-49).

8.3.10.2 Lanku: profesionalizaziorako bidea

Bertsolaritzaren inguruko zenbait zerbitzu profesionalizatu beharra ikusten zen Elkartean. Esaterako, bertsolarien jardueraren arlo ekonomikoa erregularizatu beharra: “(...) bertsolarien jardunaren arlo ekonomikoa nolabait antolatu beharra zegoela aspaldian ohartuta zeuden Elkartean, antolatzaileek gero eta gehiago fakturak eta kontratuak eskatzen zituztelako bertso emanaldiak antolatzeko. Bertsolarietako batzuk profesionalki beste zeregin batzuetan ari ziren maiz, eta egoerak arazoak sortu zituen” (Barandiaran, 2011: 105). 1990eko hamarkada hasieratik ari ziren batzuk eskean: “Zenbait bertsolarik beren jarduera arautzeko eta erregularizatzeko enpresa bat sortzea proposatu eta defendatzen du” (Siadeco, 1993: 45). Eta enplegatzaileekin izan beharreko hartu-emanek ere gainditurik zeuzkan zenbait bertsolari, batez ere puntakoena:

“(...) produktore-papera askotan bertsolariak berak egin behar izaten du (irabazirik gabe jakina) (...) Horri erantsi behar diogu egungo zenbait bertsolariren perfila honakoa dela: (...) telefonoa duenez nahiko topaerraza (...) bertsoak botatzeaz gain bertsoaz teorizatzen ahalegintzen dena, kultur eta gizarte kontuetan zer esanik baduena... beste hitz batean esanda ‘denerako morroi’. Horregatik enbajada-piloa eroriko zaio (...) Profesionaltasun/ez-profesionaltasun nahasi batean mugitzen da, beraz, bai bertsolaria, bai inguruko egituraketa ere. Agian halaxe beharko du baina epe motzera aztertu beharreko gai gisara ikusten dut.” (Egaña, 1993: 20)

Behar guzti hauei erantzun profesional bat emango liokeen lantaldearen proiektua 1997an hasi ziren garatzen Elkartean eta 1999an Lanku sortu zuten: “(...) hasiera-hasieratik, bertsolarien kontuak kudeatzeko baino zerbait zabalagoa izan zen. Lierni Elortza izan zen lehen arduraduna, eta kudeaketa administratiboaren zerbitzua emateaz gain, Lanku kontratazioak erraztu, bertsolariek sortzen zituzten beste ekimenak merkaturatu, edo antolatzaileei ekimen askotarikoak proposatzeko tresna izan zen.” (Barandiaran, 2011: 105-106)

2003tik aurrera Elkartetik autonomia zen enpresa bezala eratu zen juridikoki, eta funtzio ezberdinak bereganatuz joan zen. Honela, txapelketetako ekoizpen lanak (eszenatokia montatu, soinua eta argia, kartelak eta abar) hartu zituen bere gain: “(...) txapelketa

antolatzeak eskatzen duen antolamendu guztia handia zela-eta, eta aldiro herrialde bakoitzean azpikontratatu egiten zirenez lan horiek guztiak, esperientzia galdu egiten zen, eta hori ere Lankuk hartu zuen bere gain” (Barandiaran, 2011: 106). Bertso-saio arruntetarako ere eskaini zuen zerbitzu hori jarraian: 2000 hamarkada bukaerarako bertso-saio guztien %28aren ekoizpena bere gain hartua zuen (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 45), urtean 500 saio inguru (Agirre, 2009b: 200). Eta bertsolariak beste sorkuntza alor batzuekin hibridatuz gauzaturiko saio berezien sustapen nahiz ekoizpenean sartuko zen azkenik:

“[Oskar Arantzabal Lankuko kidearenak dira hitzak] Beste esparru batean merkatu posible bat zegoela ikusi genuen, bertsolarekin lotutako antzerki, musika, literatura, umeen ikuskizunen produkzioan, alegia, eta gure lan-bolumena bikoiztea lortu dugu merkatu horri esker. Oso emaitza onak eman dizkigu. Hain bertsozalea ez den jendearengana iristeko bideak zabaldu dizkigu” (Agirre, 2009b: 198)

Elkartearen argitaletxe modura ere funtzionatu du denborarekin, txapelketen inguruko lanak argitaratuz, esaterako, edo baita bertsolarien argitaletxe modura ere, bertsolaritza jorratzen duten liburuak, edo bertsoarekin hibridatzen duten diskoak argitaratuz (Barandiaran, 2011: 106; Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 94). Edota bertsolarien egile eskubideen kudeaketaren ardura hartu du bere gain (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 54)⁵⁸⁵.

Hasieran Oiartzunen izan zuen egoitza, baina Andoainera aldatua da azken urteetan. Tarte batean ‘Hitzetik Hortzera’ kudeatzen zuen taldea bere Lankuren baitan txertatu bazen ere, ohikoena lau edo bost laguneko lantaldea izan da.

8.3.11 Barrurako begirada eta teorizazio kolektiboa

1980ko hamarraldian Amurizak bertsolaritza aritzeko bertsolariaren barruko begirada estreinatu zuela eta Elkartearen sorrera neurri batean begirada berri horren gorputze kolektiboa izan zela aipatu da dagoeneko. 1990eko hamarraldiaren bigarren erdian teorizazio kolektiboa ekarriko zuen barruko begirada horrek.

Proiektu soziokulturalaren inguruan Amurizaren ekarpena bera zirkulu zabalagoetan egosten zenaren kristalizazioa izan zen, eta aurrerantzean barne gogoeta partekatua izango da bertsolaritzaaren gizarte mugimenduaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat. Elkartearen sorreratik honen baitan bideratuko da gogoeta hori guztia: “Ezaugarri asko erants dakizkioke Euskal Herriko Bertsozale Elkarteari. Soilik irauteko ez, baizik bizitzeko gogoia; autokonfiantzan oinarritutako ibilbidea; ibilbide hori autonomo eta kritiko izateko borondatea. Baina, beharbada, denak laburbiltzen dituen hitza eztabaida da. Etengabeko eztabaidan ibiltzeko joera” (Barandiaran, 2011: 125)

Gogoeta kolektibo partekatu horri pentsamendu organiko deritza Sarasuak:

“Elkartean beti egon da hori; lehenago ere, jardun, pentsatu eta debatitua zen. Ez zen idatzira ekartzen, baina Elkartearen bidearen klabeetako bat izan da pentsamendu propio asko egon dela. Ez pentsa beti ados geundenik, e! Piperraldi ederrak ere izaten genituen (...) Pentsamendu organikoa izan zela uste dut, oro har, Elkartean garatutakoa, estrategiari eta norabideei lotua.” (Barandiaran, 2011: 48)

⁵⁸⁵ Luze gogoetatu eta jorratu izan den gaia da egile eskubideena: “Bertsolariak, ordea, beren sortzaile izaeratik sortutako eskubideak (irudia, autoretza...) kudeatzeko ordezkariak aitortu diote Elkarteari, trukean bere duintasunaren jagoletza soilik eskatuz, eta mozkin ekonomikoak Elkartearen esku utziz ia osoki” (Esteibar eta Iturriotz, 2008: 55)

Eta pentsamendu hori esperientzian oinarriturik modu intuitiboan garatu zela gaineratzen du:

“25 urtera pentsatzea galdetzen duzunean, uste dut hori oharkabean asko egin dugula Elkartean: bisioa sortu, etorkizuneko ikuspegia, alegia. Irudikatu genuen bertsoa hezkuntzan eta transmisio sistema propioarekin, irudikatu genuen bertsoa hedabideetan eta gaur egungo masa kulturalan tokia egiten, eta jakintza bideetan txertatuta eta beste hainbat gauza. Irudikapen horien atzetik etorri da estrategia jardun bat. Plan estrategiko eta parafernalia askorik gabe (...) Gero joan gara hitzak jartzen. Orain hasi gara hirugarren hankari jakintza deitzen; lehen artxibo deitzen genion, baina hori duela 25 urteko intuizioa da.” (Barandiaran, 2011: 52)

Horretan ere gizarte mugimendu berrien ezaugarri orokorrei ezin egokiago uztartzen zaie Elkartearen jarduna. Bertsolaritzaren mugimenduan egin beharreko bidea bertsolariak bertsozaleekin elkarturik eta modu organikoan erabaki duten bezala, gizarte mugimendu berrietan ere modu kolektibo eta horizontal batean funtzionatzen delako, batetik:

“Eyermanek eta Jamisonen ikuspegi zeharo interakzionista eta horizontala eskaintzen dute gizarte mugimenduen barneko ezagutzaren sorkuntzari dagokionez. Horrela, uste dute gizarte mugimenduen partaidetzak gizarte ikasketa bat jartzen duela abian (...) Partaide guztiak daude ikasketa horretan murgilduta (...) bazterrean utzi nahi dituzte (...) gizarte mugimenduetako aktibistak bi kategoriatan banatzen dituzten planteamenduak: hala nola, “liderrak” eta “mendekoak”, “antolatzaileak” eta “kide indibidualak”, “intelektualak” eta “ezjakinak”. Irizpide horren arabera, maila kognitiboan ere, haien ustez mugimenduaren parte-hartzaile guztiak dira, hein batean, mugimenduaren “intelektualak”, euren aktibismoaren bitartez mugimenduaren nortasun kolektiboaren eraikuntzan jarduten dutelako” (Larrinaga, 2007b: 64)

Eta bidea modu intuitibo batean ekinez egitea ohikoa delako bestetik:

“(…) gizarte mugimenduetako aktibistek “eginez” eta jardunez ikasten dute (...) ezagutza ez da dohain indibidualaren ondorioa, ezta Ikerketa eta Garapen sistemaren elkarreragin sistematikoen etekina ere (...) Ikasketa sortzaile hori (“praxi kognitibo” deritzetena) mugimenduen parte-hartzaileek aurretik ezagut ezin ditzaketan elkarreraginetan gauzatzen da; esaterako, euren jarduerak eztabaidatzen dituztenean, egintzak prestatzen dituztenean, etorkizunaz mintzatzen direnean eta iraganaz gogoeta egiten dutenean (...)” (Larrinaga, 2007b: 64)⁵⁸⁶

Sarasuak azaltzen duen bezala, edozein kasutan, horizontalki, praxiaren bidez eta intuitiboki sorturiko pentsamendu horrek konplexutasun maila gorena har dezake:

“Azken urteotan kooperatiben munduan jardun dut, eta tokatu zait estrategia, balioak edo bisioa bezalako kontzeptu enpresarialen bueltan lan egitea, eta entzuten duzu Estatu Batuetako guru nagusi bat azaltzen nola egin behar den

⁵⁸⁶ Eyerman eta Larrisonen aipu literala ere badakar Larrinagak: “La articulación colectiva de la identidad del movimiento puede compararse a un proceso de aprendizaje social en el que las organizaciones del movimiento actúan como fuerzas estructurantes, abriendo un espacio en el que pueda tener lugar la interacción creativa entre los individuos (...) Como un proceso colectivo. Significa que el conocimiento no es el “descubrimiento” de un genio individual, ni tampoco es el resultado determinado de las interacciones sistémicas dentro de un sistema establecido de Investigación y Desarrollo. El conocimiento es en cambio el producto de una serie de encuentros sociales, dentro de los movimientos, entre los movimientos, y quizás aún más importante, entre los movimientos y sus oponentes establecidos (Eyerman eta Jamison, 1991: 57). Ik. Eyerman, R. eta Jamison, A. (1991): *Social Movements. A Cognitive Approach*. Pennsylvania (AEB): The Pennsylvania State University Press.

enpresa bat, eta esaten duzu: “Joño, hau eta hau bazekiat, eta ez diat ikasi MCCn, hau Elkartean ikasi diat!” (Barandiaran, 2011: 52)

Bertsogintzaren alorrean, aipatu den gisan, barrukoa ez ezik barrurako begirada ere partekatu zuen Amurizak. Ondorengo belaunaldietan ohiko bihurtuko zen hori: “Ebaluaketa. Auto-ebaluaketa eta sekretokeria gailentzeak bertsolari askoren arteko komunikazio eta transmisio bideak zabaltzea ekarri du. Gaur bertso eta saio asko komentatzen da adin eta jatorri desberdineko bertsolarien artean ere” (Egaña, 1995: 7). Eta analisisia partekatze horretatik artearen ezagutza sakonagoa, norberaren exigentzia altuagoa eta garapena etorriko ziren:

“Nunca antes los bertsolaris han reflexionado tanto sobre su arte. Siguiendo el ejemplo de Amuriza, los bertsolaris actuales comentan entre ellos, al acabar las sesiones, sus respectivas actuaciones. Muchas de las estrategias que utilizan son fruto de una elaboración previa.” (Garzia, 2000a: 465)

Barruko begirada lehenetsi eta barrurakoa sustatzeko joera hau 1980ko hamarraldiaren hasieratik emango da, bada, baina 1990eko hamarraldiaren bigarren erdialdean iritsiko da bere heldutasunera. Bertso-munduak bertsolaritzarentzako nahi zuen proiektuaren diseinuan oinarriak Elkartearen sorreran jarriko dira, baina Añotako Eztabaidetan, esan bezala, beste kontzientzia maila bat hartuko da. Bestalde, bertso-gintzarako barrurako begirada ere garai berean orokortuko da, ariketa horretan trebaturik dagoen bertso-eskoletako belaunaldi gaztea elitera iritsitakoan.

Beraz, barruko eta barrurako begiradetan oinarrituriko teorizazioak ere, lehen ekarpen batzuk lehenago argitaratu ziren arren⁵⁸⁷, 1990eko hamarraldiaren bigarren erdi horretan eta milurteko berriaren hasieran plazaratuko dira modu oso eta egituratu batean.

Garziak, Sarasuak eta Egañak osaturiko hirukoa izango da lan hori egingo duena:

“‘Zozoak beleari’, ‘Ispilua’ eta ‘Bat-bateko bertsolaritza’. Lan horietan, ikertzaile horien kezka eta interesak agertu ez ezik, teoria oso bat gorpuztu eta zabaltu zen, besteak beste lehenago ez zelako teorizazio lan hori egin. Ahozkotasuna eta bat-batekotasuna Lekuonatarrek aztertua zuten noski, baina ez bertsolaritzak 80ko eta 90eko hamarkadetan jarritako parametroetan. Esan daiteke lan horiek azken hamarkadetakoa bertsolaritza eta Elkartearen inguruan sortutako mugimendu guztiaren hausnarketa ofizial bilakatu zirela. Batez ere, hiruren artean egindako azken hori.” (Barandiaran, 2011: 91)

Bistakoa da hiru egile hauek bertso-munduak garaturiko gogoetan aktore garrantzitsuak izan zirela, eta bakoitzaren talentu indibidualetik egindako ekarpena funtsezkoa suertatu zela teorizazioa garatu, artikulatu nahiz testuratzekoan, baina hori bezain agerikoa da euren lana prozesu kognitibo partekatu batean oinarritzen zela: “(...) bertso-saioen osteko solasak eta Bertsozale Elkarteko bilerak izan dira guretzat bertso-gintzari buruzko iturri “bibliografikorik” preziatuenak, bibliografiari dagokion atalean aipatzen ez badira ere” (Garzia, 2002: 804). Honela, batek liburuan zioena besteak artikuluan aipatu zuen urte batzuk lehenago, eta alderantziz. Bestalde, ekarpenaren dimentsio kolektibo hau azpimarratzen zuten teorizazio hori jaso zuten lanetan aukeratu zituzten formatuek ere: ‘Zozoak beleari’ (1997) Garziaren hitzaurrea dakarren Egaña eta Sarasuaren arteko gutun trukaketa da; ‘Jon Sarasua: bertso-ispiluan barrena’ (1998) Garzia eta Sarasuaren arteko elkarrizketa liburua; eta sei eskutara idatzita dago ‘Bat-bateko bertsolaritzaren gakoak eta azterbideak’ (2001).

⁵⁸⁷ 1987an lehen inkesta soziologikoaren emaitzen harira, eta 1993 nahiz 1995ean bigarrenaren inguruan *Jakinen* ateratakoak, edo 1995ean *Bertsolarin* argitaratutako Bertsolamintza jardunaldiko txostenak.

Lanen tonu dibulгатiboak ere testuok kolektibotik ez ezik kolektiborako idatziak izan zirela erakusten du. Irakurlearekiko gertutasuna bilatzen zuten, baita euren arteko gertutasuna islatzea ere: Egaña eta Sarasuaren arteko gutun trukaketa hitanoan idatzia dago, baita Garzia eta Sarasuaren arteko elkarrizketa ere, eta gogoeta mamitsuak elkarrekin bizitako pasadizoekin tartekatzen dira testu guztietan, umoreari eta idazkera jolastari ere protagonismoa emanez.

Helburua ez da akademian funtzionatuko duen teoria eraikitzea, edozein irakurlek ulertu eta gozatuko duen gogoeta eskaintzea baizik. Espreski adierazten du hau guztia Garziak Sarasua eta Egañaren ‘Zozoak beleari’ren hitzaurrean: “Guretzat zorionez, hausnarketak ez du itxura akademikoaren kutsurik hartu, lagunarteko, adiskide arteko aitorten moduan emanak daude zalantzak, beldurrak, eta gainerako ondorioak. Hausnarpen aitortuez osatzen da liburua. Aitorten hausnartuez” (Garzia, 1997: 11). Bertso-munduaz haratago, euskararen komunitateari zuzen zuzen zaizkio, gainera: “Beren jardunaren azterketa barne-parametroez soilik egiteko tentazioari amore eman ordez kultur-politika, euskalgintza eta herrigintzaren markoan kokatzen baitute bertsolaritza (...)” (Garzia, 1997: 12).

Azkenik, aipagarria da baita, teorizazio honen balio gisa barruko eta barrurako begiraden ekarpena azpimarratzen dela:

“Basarri eta Amuriza salbu, gutxitan sartu izan dira bertsolariak beren jardunari buruzko teorizazio lanetan. Gaur egungo bertsolariek, ordea, inoiz baino ohartuago dihardute beren jardunari buruzko hausnarketan.

Hausnarketa horren fruiturik aipagarriena Sarasua eta Egañaren ‘Zozoak beleari’ liburua da, alde askotatik paradigmaticoa iruditzen zaiguna. (...) bertsolarien benetako kezken berri lehen eskutik, sortzaileen ikuspegitik, ezagutzeko aukera demaigulako (...) Jon Sarasuarekin egin genuen elkarrizketa luzea ere (...) bertsolariek –eta ez bakarrik liburuetan– beren jardunari buruz diotena teorikoen esanen gainetik jartzen ahalegindu gara beti.” (Garzia, 2002: 803)

Prozesu guzti honen muina jasoko duen lana, Barandiaranek dioen bezala mugimendu osoaren hausnarketa ofizialaren maila hartuko duen, hiru egileen artean gauzaturiko ‘Bat-bateko bertsolaritzaren gakoak eta azterbideak’ izango zen. Bertsozale Elkartearen eta *Bertsolariren* baterako argitalpena izan zen eta lau hizkuntzan (euskara, gaztelera, frantsesa eta ingelesa) kaleratu zen. Egileen gainerako lanak baino gehiago gerturatu zitzaion ikerketa lanetan erabiltzen den tonuari, eta ekarpena beste lanetan baino estuago zedarritu zen bertsolaritzaren ikerketaren eremura.

Hiru atal nagusitan banatzen da lana, urte haietako gogoetatze kolektiboaren hiru ardatz nagusiak lirakeenak: batetik, bat-bateko bertsogintzaren ekarpen artistikoa baloratu eta aztertze marko bat eskaintzen da; bestetik, bertsolaritza definitzen duten ezaugarriak eta mugimenduak barruko begiradatik garaturiko proiektu soziokulturalaren oinarriak finkatzen dira; eta, azkenik, barrurako begiradaren garapenetik sorkuntza prozesuaren mekanismoen inguruan argitutakoak jasotzen dira. Aipatu beharra dago teorizazio honen baitako prozesu kolektiboak egiletzaren mugak asko lausotu bazituen ere, adar bakoitzaren atzean egiletako baten eskua nagusitzen dela nabari daitekeela. Honela, lehenengoaren atzean Garziaren tesia legoke, bigarrenaren atzean Sarasuak jorraturiko lan-ildoak eta hirugarrenean Egañarena⁵⁸⁸.

⁵⁸⁸ Gerora bakoitzak bere aldetik argitaratuko dituzten lanetan ildo hauetako bakoitzaren gailur bat gauzatu da: Egañaren ‘Hogeita bina’ (2004) bertsogintzaren esperientziatik ateratako lezioen bilduma harrigarria izango

Liburu honekin, bertsolaritzaren interpretazio marko berriaren oinarriak, ziklo honetan garatuak, idatzita geldituko dira, bada: “(...) *framing* bezala uler dezakegu Joxerra Garzia, Jon Sarasua eta Andoni Egañaren ekarpen teorikoa (...)” (Zubiri, 2016: 29).

8.3.12 Proiektuaren ardatz berritzaileak: ikerketaren eta nazioarteko harremanen sustapena

8.3.12.1 Ikerketa: Ikerketa baten erronka zirriborratzen

Ziklo berriko teorizazio kolektiboa eratu zuen hirukoaren baitan Joxerra Garziaren ekarpenak zuen jite akademikoena. Izan ere, 2001 urtean argitaratu zuten ‘Bat-bateko bertsolaritzaren gakoak eta azterbideak’ kanonikoan, berak ekarritakoak urtebete lehenago aurkezturiko doktore tesian jorraturikoetatik zetozen.

Bertsolaritzarekin lotura zuten hiru doktore tesi baino ez ziren ezagutzera eman ordura arte: Etxahuni buruz Haritschelharrek 1969an osatua, Rodriguezek bertsogintzaren transmisiorako bideen balio pedagogikoaz 1988an burutua eta Denis Labordek bertsolaritzaren balio identitarioaz 1993an argitaratu zuena. Alorrek bataz beste hamar urtean behin izaten zuen, beraz, horrelako ekarpen bat, eta tesia kaleratu izana bakarrik bazen pauso garrantzitsu bat. Aurrerago zerbait sakonago azalduko den gisan, ekarpen garrantzitsua egiten zuen gainera Garziaren lanak, bat-bateko bertsolaritzaren analisirako marko gisa erretorika epidiptikoa proposatuz. Bertsolaritzaren historiaren sorreratik bertatik zetozen bertsolaritzaren balio artistikoaren neurria azaltzeko zailtasunak nahiz poetika idatziaren betaurrekoak jantzirik bere balio literarioa ezdeusa zela zioten maiseatzaileen kritikak, eta Garziak hauek guztiak gainditu eta ikerketan aurrera egiteko erreminta eskaintzen zuen.

Beste nobedade garrantzitsu bat ere bazekarren lan honek. Egilea, aurreko Haritschelhar, Rodriguez eta Laborde ez bezala, garaiko bertso mugimenduaren baitako *intelligentsiako* kide garrantzitsua zen: elementu garrantzitsu bat izan zen Elkartearen sorreran eta ondorengo ibilbidean, bertsolaritzak bizi izandako *boomean* eta 1990eko hamarraldiaren bigarren erdian burututako teorizazio kolektiboan.

Garziak 1994an ‘Hitzetik Hortzera’ren zuzendaritza utzi zuenetik ibilbide akademiko bat hasia zuen unibertsitateko irakasle gisa. Hamarraldi amaierarako, Elkartearen sorreratik ordura bitartekoan bera bezainbesteko pisua izan zuen Jon Sarasua ere unibertsitateko irakasle hasia zen 1996an ‘Bi begiratu euskarazko kazetari hizkerari’ izenburuko lanarekin doktoretza lortu ondoren. Eta Andoni Egañak, Elkartearen ibilbidean funtsezkoa baita, argi erakutsia zuen analisi sortzailerako bere usaimen zorrotza urte hauetan argitaratutako artikuluetan nahiz ‘Bat-bateko bertsolaritza’ liburuaren hirugarren egile gisa.

Elkartek bere sorreratik markatu zuen ikerketaren sustapena funtsezko xede gisa, eta 1990 hamarraldi bukaerarako ildo horri bultzada berri bat ematen saiatzen hasteko moduan aurkitzen zen: ikerketarako corpusa elikatzen zuen dokumentazio zentroa finkatzea lortu zuen eta ikerketarako gaitasuna erakutsi zuen *intelligentsia* bat zeukan.

Honela azpimarratzen zuen Sarasuak ikerketaren garrantzia: “(...) Ikerketa lan handia diagu egiteko, eta transmisioa bera ere, eskoletan eta, bide okerretik egiteko arriskua zaukaugu,

da; Garziaren ‘Jendaurrean hizlari’ (2008) ahozketasunaren analisi eta didaktikarako proposamen landua, bertsolaritzako esperientziak harago ahozketasuna, pertsuasioa edota publizitatea bezalako alorretako ezagutza espezializatuz aberastua; eta Sarasuaren ‘Hitzunpolisa’ (1993) euskal kulturgintzaren inguruko gogoeta erreferentzial bihurtuko da, bertsolaritzako esperientziak gain hizkuntzaren ekologia eta kooperatibismoa bezalako alorretako edukietan oinarritua.

alde zuretik ikerketan oinarriak finkatu ezean” (Garzia, 1998: 39). Ikerketa hori lehen aldiz barruko begiradatik egitearen garrantzia eta aukera azpimarratzen zituen Garziak: “Horretarako aukera ezin hobea diagu, gainera, historian lehen aldiz inprobisadoreak berak ari direlako ikerketan, eta horrek txorakeria eta teorikeriak saihesteko modua ematen dik, hire ikuspuntua pareka dezakek bertsoak sortzen ari direnekin” (Garzia, 1998: 40). Eta ez zebilen oso urruti Egaña ere:“(…) bertsogintza oso esparru gutxiatik izan da ikertua. Gehienez ere poetikaren alorretik eta azken aldian ikuspegi poetiko-erretorikotik. Ze metafora darabilzki bertsolariak, ze argudiaketa-modu, ze komunikazio estrategia... Baina ikuspegi gehiago ere badaude. Pedagogiarentzat ikergai behar luke (...)” (Egaña, 2004: 27-28).

Bertsolaritzaren inguruko ikerketa ez da ziklo honetan asmatutako zerbait. Baina zikloaren hasieran, Lekuonaz haratago nabarmentzeko moduko gutxi ikusten du Azurmendik behintzat:

“Bertsolaritzaren inbestigazioa propioki hasi, Lekuona zaharrak hasi zuen gure artean (1918) —eta kasik bukatu ere bai, oraingo oraingoa, azken aldi honetan inpresioa egiten duenez— deus ezertan bada, ezer oso gutxitan pasa bait gara Lekuonak behin egindakotik aurrera. Lekuonak egindakoan estankatuta gaudela, ematen du. Errentatik bizitzen.” (Azurmendi, 1980: 140)

Garziak aurretik egindakoaren mapa eskaini zuen 2002an argitaratutako ‘Bertsolaritzari buruzko ikerkuntzak orain’ artikuluan. Bertan hiru ildotan sailkatzen ditu ordura arte buruturiko ikerketak (biltze lana, alderdi teknikoei buruzkoak eta alderdi poetiko-erretorikoei buruzkoak), egile bakoitzaren ekarpenaren errepaso eginez: Lekuonatarak, Zavala, Dorronsoro, Urkizu, Aulestia, Amuriza, Esnal, Lafitte, Oteiza, Haritschelar... Eta errepaso zabal honen ondotik, eginkizun zeudenen lehen zirriborro labur bat ere eskaini zuen: bertsogintzan erabiltzen diren baliabideez zehatzago aritzea, azterketa jaialdi nahiz txapelketez bestelako plazetara zabaltzea, bertsolari bakoitzaren estiloan sakontzea, eta bat-bateko bertsolaritzaren historia osotu bat gauzatzea besteak beste (Garzia, 2002: 805).

Ikerlerro berrien inguruko gogoeta 2004an argitaratutako ‘Amesten dudan ikergunea’ lanean osatu zuen. Kasu honetan bertsolaritzaren ikerketarekin uztartu litezkeen ezagutza alor ezberdinen kontaduria zen eskaintzen zuena: psikologia soziala aipatzen zuen, honen baitan persuasioaren inguruko ikerketak azpimarratuz, eta soziologiari, komunikazio zientziei, ahozkotasunari eta poetikari ere egiten zien erreferentzia (Garzia, 2004: 150). Eta ikerketa nahiz ikerlari ezberdinen arteko koordinazioa sustatu beharra seinalatuz jauzi kualitatibo bat ere ematen zuen bere planteamenduetan:

“Nire ustez, honako bi urratsok dira une honetan premiazkoen:

- 1) Ari diren jakintza alorrean ari direla ere, ahozkotasuna hobekiago ulertzeko ekarpen baliagarriak dituztenak koordinatzeko sistemaren bat asmatu eta eratu.
- 2) Ekarpen orotarikook ordenatu eta integratzeko bidea emango ligukeen marko teoriko zabal bat, ekarpen bakoitza non kokatu eta nola ulertu jakin dezagun.” (Garzia, 2004: 157)

Dokumentazio zentroak hamar urtetik gora dituelarik, hurrengo fasera pasatzeko gogo nabari da. 2003an Elkarteak antolaturiko Kultur Arteko Topaketetan irakurtzeko idatzi zuen testu hau eta izenburuan bertan aipatzen du Garziak ‘ikergunea’ kontzeptua, ikerketarako elkargune bat eratzea litzateke hurrengo fase hori:

“Bi puntu horietan gutxieneko adostasun batera helduko bagina, egia bihurtzen hasita ikusiko nuke nik aspaldidanik amesten dudan ikergunea. Gure horretan, jakina, hemen bildu zaretan guztiok nahi zintuzketet gune horretan ikerkide.

Seguru nago aurki bilduko litzaizkigukeela beste asko ere, munduko bazter guztietatik.” (Garzia, 2004: 157)

Ziklo hasieran ere, 25 urte lehenago, topa zitezkeen alorrek izan zitezkeen ikerketa-lerroen inguruko proposamen gehiago. Azurmendik, esaterako, bertsoaritzaren historia soziala egin beharra, historian zehar testuinguru zabalago batetik etorritako eraginen azterketa eta erabiltzen ziren lexikoa eta definizioak findu beharra aldarrikatzen zituen (1980: 141). Edo Joxe Azurmendi baina bertso-munduaren baitakoagoak ziren Antonio Zavalak nahiz Juan Mari Lekuonak ere egin zuten proposamen solteren bat. Honela idatzi zuen Zavalak: “Dударик gabe, Euskalerriko inprentaren kondairak eta bertso-papereen kondairak zer ikusirik asko izango dute alkarrekin (...) Bañan azterketa-bide eder bat badago or, dudarik gabe, iñork lan orri ekin nai badio” (1980a: 127). Eta honela Lekuonak: “Behar bada, textuaren aldetik izan ditzakete alderik berdinenak bapateko ihardunek eta jarritako bertsoek. Jakingarriak dira idatzitako textuen eta bapateko textuen artean dauden lokera eta batetik bestera iragaiteko legeak” (1980: 113).

Elkartearen estrategia gidatu zuen intelligentsiak alorreko ikerketaren koordinazioari ekin nahi bazion, Euskaltzaindiaren inguruan honetan aritutakoekin elkarlana sustatzea izan zitezkeen eman beharreko pausoetako bat. Sarasuak azaltzen duenez arrakastarik gabe saiatu ziren:

“Juan Mari Lekuonaren bidez saiatu ginen, baina bide hori berehala moztu zen. Nik ez nuen ulertu zer sentibilitate zegoen gurekiko. Uste dut jende askok ez zuela ulertu gure bidea. Eta errezeloak izan zirela. Lekuonak errespetu handia izan du beti bertsoaritzarekiko. Jarraitzen gintuen, eta animatzen gintuen. Dena dela, Euskaltzaindikoa aparte utzita, penatxoa dut hamarraldi horietako guztietako ikuspegi, lan eta apustu horietatik kanpoan geratu zirelako mundu jeltzaletik gertuen zeuden pertsona baliotsu batzuk.” (Barandiaran, 2011: 46)

Master Framearen etena berriro ere.

Edozein kasutan, Elkartearen inguruan ari zirenak ez zeuden geldirik egoteko. ‘Gaur egungo bertsoari baliopide poetiko erretorikoak. Marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa’ zeraman izenburutzat Garziaren tesiak, alegia, bertsoaritzaren analisisirako sistemaz gain, bertsoaren bidez eskoletan ahozkoahozkotasuna garatzeko proposamena zekarren. Baziren bi hamarkada bertsoaritzaren hezkuntza arautuan txertatzea lortu zela, eta ekimen horren xedea zabaltzea bilatzen zen⁵⁸⁹. Ildo horretatik aurrera egitea erabaki zuten:

“(…) Elkarreak bilera batera deitu zituen irakaskuntzan eta literaturan ari ziren hainbat lagun, bertsoaritzak irakaskuntzan eduki zezakeen tokiaz gogoeta egiteko. Han batu ziren, alde batetik, Elkarteko hainbat kide, tartean Koldo Tapia, Joxerra Garzia, Iñaki Murua eta Pello Esnal idazlea; bestetik, irakaskuntzan edo literaturan ondo trebatutako Jexux Mari Mendizabal, Lontxo Oihartzabal, Felix Etxeberria eta Anjel Lertxundi. Diagnostikoarekin denek bat egin zuten: ez zegoen inolako lotura logikorik ahozkoahozkotasunaren galbidearen eta bertsoaritzaren gorakadaren artean, eta hori kontraesan handia zen.” (Barandiaran, 2004: 97)

⁵⁸⁹ Bertso-munduan aurretik ere entzun izan zen gisako planteamendurik. Mikel Mendizabal eta Antton Kazabonek, hain zuzen hezkuntza arautuan bertsoaritzarekin egindako lanarekin pilotutako esperientziatik honela zioten 1990eko hamarraldiaren hasieran: “Bertsoaritzaren izena daiteke, beraz, oraindik ere, ahozko espresio jatorraren erabilpena berreskuratzeko bideetariko bat (...) ez bertsoaritzaren soilik, modu zabalean ulertutako ahozkoahozkotasuna baizik, non, bertsoaritzaren, eta batez ere bertsoaritzaren, zati garrantzitsu bat izango litzatekeen” (Kazabon eta Mendizabal, 1993: 118).

Ahokotasuna lantzeko fitxa batzuk prestatu ziren eta 2004/2005 ikasturtean proba egin zen 13tik 16 urtera bitarteko lau ikastetxeetako ikasleekin. Ikasturtean zehar ahokotasuna lantzeaz gain, urte bukaeran eskolan bertsoaritzaz lantzen zuten eta lantzen ez zuten ikasleen alderaketa ere egin zen: “Hori izan zen ahokotasuna lantzeari begira Euskal Herrian egindako lehen kontrastezko lana, lehen ikerketa, nolabait esanda” (Barandiaran, 2011: 97).

Aurreko zikloan Euskaltzaindiaren Ahokotasun Batzordearen bidez bazuten elkarren arteko lotura bat bertsoaritzaren ikerketan ekarpenak egin zituztenek. Ziklo honetan, ordea, Elkartearen babesaz, bilketari eta ikerketari eman nahiko zaion bultzadak beste dimentsio bat hartuko du, ikerketa proiektuaren elementu garrantzitsu bihurtzeraino.

8.12.2 Nazioarteko harremanak: Kultur Arteko Topaketak (2003) eta *Oral Tradition* aldizkarian monografikoa (2007)

Hemerografia historikoan buruturiko bilaketetan gaiari arreta jarri bazaio ere, apenas topatu ahal izan da bat-bateko kantu errimatuak nazioartean dituen beste fenomeno erreferentziarik. Lore Jokoen zikloan gisa honetako testu bakarra topatu da, eta Frankismo Garaiko zikloan beste bost⁵⁹⁰. Pieza bakan horiek harribitxi ederrak dira, esaterako Basarrik *La Voz de España* hasi berritan, 1949an, Kubako inprobisatzaileei buruz bi piezatan idatzi zuena⁵⁹¹, baina pieza hauen bakantasunak berak argi uzten du kanpoko fenomenoekiko loturak ez zuela interes handirik aurreko ziklo horietan. Bertsoaritzaren irudikapen erromantiko esentzializatuarekin hobeto ezkontzen zen euskaldunen berezko dohainei eta munduan bakarra zen fenomenoaz aritzea.

Ziklo berrian, 1990eko hamarraldiaren bigarren erdi horretan piztuko da atzerriko gisako fenomenoekin harremanetan jartzeko interesa: “Beharbada, hasiera bilatu liteke 1995ean Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroetan herri literaturaz Koldo Tapiak berak antolatu zituen ikastaroetan. Eta *Bertsolari* aldizkarian atzerrian ahokotasun inprobisatuaren antzeko esperientziei buruz agertzen ari ziren erreportaje eta lekukotasunetan.” (Barandiaran, 2011: 89). Bestelako esperientziak ezagutu eta norberarena partekatu nahiak motibatzen zituen:

“Euskaldunok oso emanak gaude gure zilborrera begira, gure penak elkarri kontatuz gure munduan besterik ez balego bezala”, dio Koldo Tapiak. “Hala ere, eta ziur ez genekien arren, susmatzen genuen kanpoan ere bazela

⁵⁹⁰ Hau da zerrenda osoa: *Euskal-Erria*, 1896 uztaila, 543 or. ‘Bertsolaris... ingleses’, A. Castel; *La Voz de España*, 1949/IV/29, ‘Los repentistas’, Iñaki Eizmendi *Basarri*; *La Voz de España*, 1949/IV/30, ‘Como dato curioso’, Iñaki Eizmendi *Basarri*; *La Voz de España*, 1963/XI/06, 16 or., ‘Un bersolari de Albacete’, Iñaki Linazasoro; *Zeruko Argia*, 1963/XI/17 ‘Albaketeko bertsolaria’, Iñaki Eizmendi *Basarri*; *Diario de Navarra*, 1976/XI/11, 11 or., ‘Notas del Report/Un bertsolari canario’, *Goiti*.

⁵⁹¹ Basarrik *La Voz de España*arekin urte hartan antolatutako bertsolarien txapelketak Kuban ikusitakoa ekarri zion gogora Miguel Herreria irakurleari, eta honek zarauztarrari eskutitz bidez helarazitakoak dira bi artikuluen oinarria. Honela, Kuban fenomeno oso zabaldua dela kontatzen da, eta saio baten egitura azaldu: “Comienzan los poetas por improvisar un saludo a los dueños de la casa y familia, saludos que se hacen extensivos a los invitados, en ocasiones personalizando. Más tarde, cada uno canta sus propios méritos y alabanzas, desprestigiando las del contrario; después se reconcilian y cada cual reconoce la valía del otro. Por ultimo, se despiden de los concurrentes” (*La Voz de España*, 1949/IV/29, ‘Los repentistas’, Iñaki Eizmendi *Basarri*). *El sinsonte Matancero*, Martín Silveira eta Miguel Puertas Salgadorek arteko saioaren kronikatxo ere eskaintzen da: “A las diez de la noche comenzaron los poetas a improvisar y eran las seis de la madrugada y continuaban improvisando; nadie se había movido de sus asientos, excepto en las innumerables veces que fuimos obsequiados a café, ron y coñac, que forzosamente se hacía un pequeño descanso” (*La Voz de España*, 1949/IV/29, ‘Los repentistas’, Iñaki Eizmendi *Basarri*). Azkenik, Sevillan 1924ean ospatu zen Expo-an kantatzeagatik inprobisatzaile hauetako bati 175.000 pezeta ordaindu zitzaizkiola kontatzen omen du eskutitzak. Basarri zur eta lur uzten du kopuruak: “¡Dichosos los poetas populares cubanos! Estamos convencidísimos de que aquí, en el País Vasco, sumando las cantidades percibidas por todos los bersolaris habidos en estos dos siglos, no llegarían a aproximarse, ni mucho menos, a esas cifras” (*La Voz de España*, 1949/IV/30, ‘Como dato curioso’, Iñaki Eizmendi *Basarri*)

bertsolaritza antzeko zerbait”. *Bertsolari* aldizkarian, esaterako, hainbat erreportaje atera berriak ziren Afrikako misiolariak han bilatutako bertsolariei buruz, eta Kubako dezimisten inguruan, eta Elkartean pentsatu zuten bertsolaritzaren errealitatea ere munduari ezagutarazi behar ziotela.” (Barandiaran, 2011: 89)

1996ko irailean antolatu zen lehen bidaia, Elkartearen ordezkari gisa Koldo Tapia eta Andoni Egaña Mexikora eraman zituen:

“Festival de la Décima Hispanoamericana delakora etorri gaituk (...) Estreinakoz irten gaituk kanpoko inprobisatzaileak ezagutzeko asmoz, eta lehen bi egunetan, kultur-kode desberdinen talkan egoskortu gaituk, kopetakoa hemen muturrekoa han (...) Protokoloak, txaloeak, musuek, esku muineak... lindo, padrísimo eta extraordinario sarriegiek ere txokea eragin zigutek (...) Hirugarren egunerako, ordea, haienera jarri gaituk, musu honi, besarkada hari, zorianak denei.” (Egaña eta Sarasua, 1997: 221-222)

Eta 1997ko txapelketa nagusiko finalera kanpoko adituak ekarri ziren:

“Finala ikustera eta gure antolakuntza egiturak eta bertsogintza hobeto ezagutzera lehenengo aldiz etorri ziren final hartara beste lurralde batzuetako adituak (...) Bertsolaritzak kanpoan ezagutza eta hedapen handiagoa merezi zuela esan zuten, lehenik eta behin. Berdinik gabeko fenomeno soziologiko gisara deskribatu zuten bertsolaritza, Kuban ere halako indarrak ez zuena.” (Maia, 2017: 229)

Milurteko berriarekin indartuz joango zen lan-ildo hau. 2000 urtean berriro ere gogoeta prozesua burutu zuen Elkartek, Orion burutu bazen ere ‘Añota II’ deitu zitzaiona eta bertan Jon Sarasuak nazioarteko harremanak saretzeari ekin behar zitzaiola defendatu zuen, ekimen hau komunikazio arloko pauso estrategiko gisa planteatuz (Barandiaran, 2011: 95). Eta 2001ean argitaratu zen ‘Bat-bateko bertsolaritzaren gakoak eta azterbideak lanean nazioarteko topaketa handi batzuk antolatzeke asmoa aipatzen zen:

“Azken urteetan elkarte nazioarteko harremanak lantzen ari da bereziki, ahozko inprobisazioaren inguruko nazioarteko topaketetan parte hartuz. Une honetan topaketa horiek Iberoamerika eta penintsulako esparrura mugatzen dira. Ikuspegi zabalagoko harremanak sortzen hasia da Bertsozale Elkartea, nazioarteko sare zabalago bat indartzeko asmoz, bost kontinenteetako ahozko inprobisazio kantatuaren protagonista eta ikerlariak bilduko dituen topaguneak sortzeko ametsa ipar hartuta.” (Garzia, Sarasua eta Egaña: 74)

2003an gauzatuko da egitasmoa Donostiako Miramar Jauregian eta Lugaritz Kultur Etxean Bertsozale Elkartek eta EHUko Ikus-Entzunezko eta Publizitate Sailak azaroaren 3tik 8ra antolatu zuen Kultur Arteko Lehendabiziko Topaketarekin. AEB, Argentina, Euskal Herria, Georgia, Kanariar uharteak, Kuba, Kurdistan, Maroko, Balear uharteak, Mexiko, Portugal, Jamaika, Sahara, Sardinia eta Uruguaiako inprobisatzaile eta adituek hartu zuten parte eta Bertsozale Elkartek guztiak koordinatuko zituen proiektua proposatu zien: “(...) Bertsozale Elkartek (...) epe luzerako proiektua eskaini zieten beste herrialdeetako ikertzaile eta inprobisatzaileei (...) lankidetzaren proiektuak, inprobisazioari buruzko harremana eta informazioa sarean trukatzeko, Argo zuen izena.” (Barandiaran, 2011: 98)

Izandako arrakastaren adierazgarri, bi liburu osotu ahal izan ziren jardunaldietan bildutako ekarpenekin, Bertsozale Elkartek lau hizkuntzatan argitaratutako ‘Ahozko inprobisazioa munduan topaketak’ (2004) eta Bertsolarik, aurrekoa osatuz argitaratu zuen ‘Inprobisazioa

munduan Kultur Arteko Topaketak' (2004). Bestalde, Argo proiektuan parte hartzeko bere konpromezua erakutsi zuen topaketetara etorritako hainbat kidek.

Abiatutako nazioarteko harremanen eta ikerketaren bideak Elkartea sortu zuen belaunaldiak egindako tarteari dagokionean behintzat, 2007an *Oral Tradition* aldizkarian argitaraturiko bertsolaritzari buruzko monografikoan izan zuen bere ginga. Aldizkari hau Missouriko unibertsitateak sortu zuen 1986an John Miles Foley ikerlariaren zuzendaritzapean, eta ahozko tradizioaren ikerketaren alorrean erreferentzia bat da mundu mailan, eta egun bere egoitza Harvarden dago. Foley berak 2003ko topaketetan parte hartu zuen, 2005eko txapelketa nagusiko finala zuzenean bizi ahal izan zuen ikerlari gonbidatu gisa, eta erabat liluratu zuen bertsolaritzaren bizi indarrak:

“Imagine selling 13,025 tickets for oral poetry. Imagine further an entire 6-7 hours of live performances broadcast on regional television as they happen, with excerpts, summaries, and expert commentary on national television. Imagine a one-day event—the final act in a multistage, four-year, Olympian drama of qualification and elimination—galvanizing ethnic, national identity to a degree unparalleled virtually anywhere in the world. Imagine the confluence of all of these phenomena and you have the Bertsolari Txapelketa (...)” (Foley, 2007: 3)

Sintonia ona sortu zen estatubatuarraren eta Elkartean ikerketa sustatzen ari zirenen artean eta hauek Oral Traditionen bertsolaritzaz artikulua bat atera ote zezaketen galdetu ziotenean ezustekoarekin egin zuten topo, 22. zenbakia osorik eskaini zion aldizkariak bertsolaritzari: monografiko bat eskaini zion aldizkariak bertsolaritzari, honen alde ezberdinak (txapelketak, historia, dimentsio soziala, bertso-eskolak, hezkuntza arautuko bidea...) jorratzen zituzten hainbat artikulua eta bertsolari ezberdinei eginiko elkarrizketak argitaratuz⁵⁹².

Garziaren pozak erakusten du egindako ikerketa lanaren eta argitalpen honen garrantzia:

“Ahozkotasanaren inguruko nazioarteko aldizkaririk onenari galdetu genion ea aipamenen bat argitaratuko zuen bertsolaritzaz. Eta aipamen bat ez, aldizkari osoa emango ziola agindu zigun! Hor dauden gauza batzuk oraindik euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu gabe daude. Eta gero esaten dute: ‘Meritua, ingelesez atera dute!’. Barregura ematen dit. Meritua ez da ingelesez ateratzea, meritua da gure kaxeroan lortu dugula modu estandar eta unibertsala gure gauza klabeak zein diren esplikatzeke. Lortu dugu lilura esplikatzea! (...) Eta hori da lana, eta inbestigazioa”.(Barandiaran, 2011: 98)

8.3.13 Apustua bikoiztuz: Sarerako eta BECerako jauziak

8.3.13.1 Sarerako jauzia: formatu berrian estreinatuz

Ikerketa honetan ikusten ari garen bezala ziklo bakoitzean hedabideen formatu batean garapen osoa lortzen du bertsolaritzari buruzko kazetaritzak, eta hurrengoan garapen hori lortuko duen formatu berria ere abiarazten da. Honela, Euzko Pizkundean Lore Jokoetan

⁵⁹² Foleyk ‘Basque Oral Poetry Championship’ sinatu zuen sarrerako gisa eta Garziak ‘Basque Oral Ecology’, ‘Bertsolaritza in the School Curriculum’ eta ‘History of Improvised Bertsolaritza: A Proposal’ sinatu zituen. Sarasuak idatziriko ‘Social Features Of Bertsolaritza’, Egañaren ‘The Process of Creating Improvised Bertsos’, Ainhoa Agirreazaldegiren eta Arkaitz Goikoetxearen ‘Verse Schools’, eta Alfredo Retortillo eta Xabier Aierdiren ‘A Sociological Study of Sung, Extempore Verse-Making in Basque’ testuek osatzen zuten artikuluen zerrenda. Azkenik, belaunaldi ezberdinetako hiru bertsolariri, Joxe Agirrerri, Andoni Egañari eta Maialen Lujanbiori egindako elkarrizketa banarekin osatzen zen monografikoa.

estreinaturiko prentsa idatzian eredu garatu bat lortu zen eta irratia estreinatu, Frankismo Garaian irratiko eredu garatua izan zen lortu zena eta telebista estreinatu, azken ziklo honetan eredu garatu bat lortuko zuena. Eta azken zikloan ere formatu berria agertuko da: Internet.

Koldo Mesok azaltzen duenez (2008: 51-52) 1990eko hamarraldiaren bigarren erdian hasi zen euskara Sareratzen. Euskaldunon Egunkaria izan zen, 1996an, edizio digitala estreinatu zuen euskarazko lehen hedabidea⁵⁹³, eta Elhuyarren, Kontseiluaren eta UEUren atariak ere berehala etorri ziren. 1997an Administrazioaren webgune instituzional elebidun handiak jarri ziren martxan (euskadi.net eta gipuzkoa.net, esaterako) eta 1998an sarean jaiotako lehen hedabideak (sustatu.com, eibar.org, aurki.com, sarean.com, euskalerrria.org) aurki zitezkeen. 1999an Jaurlaritzak euskal hedabideak Sareratzeko diru-laguntzak jarri zituen martxan eta tokiko nahiz tematiko gehienek hartu nahi izan zuten olatua. 1990eko hamarraldiaren bigarren erdiko esperimentazio aroaren eta 2000ko lehen erdiko hazkunde aroaren ondotik, medioari neurria hartzen hasiko zaio euskararen komunitatea: “Une horretatik aurrera, pixkanaka eta salbuespenekin bada ere, beste irmotasun batekin ekiten zaio hizkuntza berrien bilaketa eta medioen emantzipazioari” (Meso 2008:52).

Bertso-munduak ere erreparatuko dio formatu berriari. Beste behin, ziklo honetan ohikoa denez, Amuriza izango da aintzindari. Gaiaren zantzu oso urrun bat baino ez da, baina deigarria suertatzen da, 1981ean idatzia baita, ‘Hitzaren Kirol Nazionala’ lanean:

“Poesia elektronikoa posible da, poesia abstraktua posible izan den bezala. Eta ederra eta gustagarria izan daiteke. Baina oraindik elektronika saila euskaldunik gehienontzat ezezaguna da, mundua berak badarabil ere. Hiztegi eta pentsakera elektronikoa ahozko literaturan oraindik oso arrotz dira. Bertsolaritza elektronikorik, beraz, ez daiteke pixka batean itxaron.” (Amuriza, 1997: 212)

Garzia, Sarasua eta Egañak buruturiko teorizazioa Internetek Euskal Herrian izan zuen lehen sarreraren garaikidea da eta aipamen egiten dizkiote aipamen batzuk. Sarasuaren hitzok esaterako, fenomeno mesfidantza puntu bat erakusten dutenak, 1997koak dira:

“Tipikoa duk azken aldiaren pentsamendua eta norabidea falta diren lekuetan teknologia berrien aipamena puztea, hori balitz bezala gaitz guztien sendabidea. Teknologia berriak erabili eta baliatu behar ditugula? Noski, eta beti hadi egon. Baina kontua ez duk une honetan denok Web-orriak egiten hastea. Bertsolaritzan, adibidez, badiagu aurreragoko lanik (...)” (Garzia, 1998: 40)

Laster emango ziren, ordea, lehenengo pausoak. *Bertsolari* aldizkariak 1999an, Jaurlaritzaren lehen laguntzekin jarri zuen martxan bere edizio digitala, bertsolari.net, eta Bertsozale Elkarteak 2001ean estreinatu zuen bere ataria.

2001eko txapelketarako eman nahi izan zen pausoa eta Komunikazio Saila eta Dokumentazio Zentruaren artean gauzatu zuten bertsozale.com ataria:

“[Arantxa Mariskalenak dira hitzak] Dokumentazio Zentroaren proiektua diseinatzen hasi ginenean, 90. urtean, garbi genuen jasotzen genuena jendeari eskaintzeko bide garrantzitsu bat interneta izango zela (...) Medioa ezagunagoa egin ahala Elkartearen inguruko jendeak ere komentatu zuen webgune bat egin

⁵⁹³ Euskal Herriko egunkari baten lehen edizio digitala *El Diario Vascorena* izan zen, 1995ean, *El Correo Español* nahiz *Euskaldunon Egunkaria* urtebetera etorri ziren eta *Deia* izan zen hurrengoa 1999an (Meso, 2008: 51)

beharko zela Elkartearen lana gizarteratzeko, eta, azkenik, 2.000. urtean egin zen proiektua (...) Herrialde guztiek bat egin genuen bakoitzak bere proiektuak gune berean txertatzeko, eta fase desberdinak zituen garapen bat ere proiektatu genuen” (Agirre, 2007: 44-45)

Txapelketaren jarraipenaz gain bertsolaritzaren historia, doinutegia, elkartearen helburuak eta asteroko saioren informazioa zekartzan, besteak beste lehen bertsio hark. Zerbitzari propioarekin jarri zuten gainera martxan, horrek bertsolaritzaren inguruan sor zitezkeen eskaintza gehiagori azpiegitura teknikoa eskaintzeko aukera ematen zielako (Agirre, 2007: 45).

Berehala etorri ziren eskaintza horiek, batzuk Elkartek eskainitako azpiegituretik eta gehienak bestelako bideetatik. Honela, hamarraldiaren erdialderako Elkartearen atariaz gain, bost bertso biltegi, bertsolaritza ardatz nagusi zuten dozena bat webgune, 25 blog inguru (indibidual nahiz kolektiboak, bertsolari nahiz bertsozaleenak, bertsotan nahiz hitz lauz) zituen blogosfera, bertsozaleen foroen foro izan nahi duen Bertsoforoa, eta bertsoaldiak eskaintzen zituzten hainbat bideo (Bertsotube, Youtube eta Euskaltuben) topatu zitezkeen Sarean (Agirre, 2007: 53-58 eta 63-67; Agirre 2009b: 17-21).

Sarerako jauzia Elkartearen eta Elkartea sortu zuen belaunaldiaren eskutik eman zen, bada⁵⁹⁴, baina formatu berria belaunaldi gazteen baitan loratuko zen nagusiki. Blog gehienen atzean bertsolari gazteak⁵⁹⁵ edo bertso-eskolak⁵⁹⁶ zeuden. Eta beste hainbeste gertatzen zen webguneekin⁵⁹⁷ edo bestelako formatuekin:

“Nik uste dut gutxi gorabehera hor dauden pertsonak perfil bat betetzen dutela. Bat da bertsotan ibiltzea, bestea sare sozialetan saltseatzeko grina, kazetaritza ikasleak ere baziren batzuk (...) saltseroa naiz batean, saltseroa naiz bestean eta orduan nire afizioa lotzen dut azkenean tresnekin. Eta egiten dut gustatzen zaidana.” (E. Eizagirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/19)

8.3.13.2 BECerako jauzia: gailurraren baitako gailur berria

2005eko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren Nagusiaren finala Donostiatik Barakaldora aldatu zuen Bertsozale Elkartek. Bi arrazoi nagusi aipatu zituzten erabakia azaltzeko: batetik, Anoetako belodromoa, 8.000 ikuslerentzako edukierarekin, txiki gelditu zitzairen, eta BECaren 15.000 eserlekuak bete zitzaizketelakoan zeuden; bestetik, Donostiatik Barakaldora aldatuta bertsolaritza erdal komunitatearengana hurbiltzeko asmoa azpimarratu nahi zuten.

Hurbilketa honek bazuen balio sinboliko bat. Erdal komunitateak euskal kulturaz duen ezezagutza urratuz hizkuntz komunitateen arteko elkarbizitza hobetzeko bide bat seinalatzen zen. Baina asko izan zuen, akaso gehiago, bertsolaritzak masa kulturarekin hibridatzeko zuen gaitasunaren aldarrikapenetik ere: batetik, egoitza berak ikuskizun modernoaren parametroak seinalatzen zituen, tradizio erromantikoenak baino, bai erdal komunitatearen eta baita euskararen komunitatearen begietara ere; bestetik, bertsolaritzak masa kultura gisa

⁵⁹⁴ Koldo Tapiak eta Arantxa Mariskalek diseinatu eta gauzatu zuten jauzi hori (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27).

⁵⁹⁵ Onintza Enbeitaren ‘Erpeka’, Jon Martinen ‘Sorbatza’, Xabi Payaren ‘Anbotoko haizorrata’, Julen Zelaietaren ‘Hementxe gaude’, Estitxu Eizagirreraren ‘Gari alea’, Nahikari Ayoren ‘Nire begietatik...

⁵⁹⁶ Alegiako, Aiarako, Aramaio eta Legutioko, Azpeitiako, Gasteizko, Elgoibarko, Enkarterrietako, Goierriko, Lautadako, Legazpiko, Oñatiko eta Zumaiako bertso-eskolek blog bana zuten.

⁵⁹⁷ Xabier Silveirak X10 jarri zuen martxan, bere literatur piezekin; Unai Iturriaga eta Igor Elortzak Josu Zabalarrekin sorturiko Gu ta gutarrak musika taldeak berea zeukan; Jon Maiaren Karidadeko Benta taldeak beste bat; bertsolari gazteek plaza bila sorturiko Hamaika Bertute proiektuak berea; Zumarra-Urretxuko bertso-eskolak ere webgune dotorea zuen...

funtzionatzeko zuen gaitasuna erakutsi nahi bazuen, norbere hizkuntz komunitatearen mugak gainditzen zituena zatekeen erakustaldirik aproposena.

Masa kultura gisa funtzionatzeko gaitasunak, definizioz, arrakasta mediatikoa eskatzen zuen, eta komunikazio alorrean egindako lana da hain zuzen 2005eko txapelketaren kontakizunean gehien azpimarratzen den alderdietako bat:

“Iñaki Muruak lehen lerrotik ikusi zuen dena, urtebete zeramalako Bertsozale Elkarteko buru. Bere zuzendaritzaren lehen erabakietako bat izan zen urte hartako Txapelketa Nagusia antolatzeko talde berri bat sortzea eta marketina —ez publizitatea edo komunikazio kanpaina, marketina— egiteko behin-behineko egitura profesionala altxatzea. Eta helburua han goian jarri zuten. Eta helburuak lortu egin ziren, egindako ahaleginaren tamainakoa izan zelako 2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren arrakasta. Belodromo historikotik Barakaldoko BEC erraldoira eramán zuten finala, eta BEC bete egin zen. Erdal hedabideetan interesa piztea lortu zuten, eta El Correo egunkariak, esaterako, orriak eskaini zizkion txapelketari, eta ETB2n hainbat lagun bertsoak azaltzen eta itzultzen aritu ziren finalaren egunean.” (Barandiaran, 2011: 125)

Joseba Kamio izan zen txapelketa hartarako antolatu zen komunikazio taldearen zuzendaria. Bera zen Elkartearen historian kontratatu zen lehen komunikazio arduradun profesionala. Eta gerora komunikazio kanpaina haren gako interesgarri ugari eskaini zituen ‘Neure Hegitik’ blogean. Bertan, aipatu berri den komunitateen arteko zubigintzaren balio sinbolikoaz ari dela suma daiteke: “Objektu sozial bat despolitizatzen dugunean, galdu egiten dugu objektu horrek komunitatearen bizimodua hobetzeko dituen dohainen kudeaketa estrategikoa” (Kamio, 2011a). Eta zubigintza horretan paper bat eman zitzaiera erdal medioei kazetaritzaren politizazioa aipatzen duenean: “Erdalgunea helburu, aliatuak behar beharrezkoak ziren lanean hasi aurretik (...) Medioak eta kazetariak jarri genituen jo puntuan. Haiek gabe ez zegoen lortzerik gure helburu-sorta” (Kamio, 2011a).

Kamioaren testuak kazetariekin lorturiko konplizitatearen inguruko hainbat pasarte dakartza. Adibidez, erdal komunikabideekin lortutakoaz: “Komunikabideekin ‘lotura’ afektibo eta profesional sendoa lortu zen, inork gutxik aldeztu aurretik imajinatuko ez lukeen bezalakoa. Egin ziguten harrera eta egin zuten lana ikaragarri ona izan zen. Bereziki aipatu behar da *El Correo*, TVE eta *El País*en lana (...)”⁵⁹⁸ (Kamio, 2011b). Edota ohikoagoak ziren kazetarien inplikazioari buruz: “Justiziaz esan behar da bertsoaritzaren jarraipena egin ohi duten medioen lana ere ikaragarri ona izan zela (...) medio horiek ‘etxeokak’ izanik, poz-positik zeudelako haien begien aurrean ia astebururo ikusten zutenarekin. “Militante” zoriontsuak zirela esan daiteke... (Lan) giro aparta zegoen” (Kamio, 2011b).

Ispiluaren beste aldean, erdal medio batean lan eginez euskaraz ulertzeko larri moldatu arren txapelketari jarraipen garrantzitsua egin zion kazetariarena, garai hartan Radio Euskadiko ‘Más que palabras’ irratsaioa zuzentzen zuen Javier Vizcainok eskaintzen du lerro-buru esanguratsua (‘Lo que también es mio’) dakarren *Bertsolariko* artikuluan:

“(…) acudió en mi rescate el campeonato de Euskal Herria de 2005, planteado, según veo en perspectiva, a la medida exacta de las miles de personas que habíamos convertido nuestra ignorancia en miedo y este, a su vez, en algo parecido al rechazo. La labor de los organizadores tuvo bastante de apostolado. Fueron ellas y ellos los que cruzaron la muga de la supuesta ciudad prohibida y

⁵⁹⁸ Ser, Cope eta Radio Nacional irrati kateek ere egin zuten 2005eko txapelketa horren jarraipena (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 63).

nos condujeron de la mano hasta sus rincones más escondidos para que comprobáramos no solo que no teníamos nada que temer, sino que podíamos llegar a disfrutar como no imaginábamos. ¡Vaya que podíamos! Yo lo hice con el ansia y la entrega, no sé si de los conversos o de los que después de haber vagado durante años encuentran el camino de vuelta a casa. En la medida de mis posibilidades, quise ayudar a difundir la buena nueva. Cada sábado y cada domingo, en el programa de radio que conducía entonces, hicimos el seguimiento al milímetro de las fases previas” (Vizcaino, 2013: 19)⁵⁹⁹

Esan bezala, BEC betetzea lortu zen, eta erdal hedabideen konplizitatea lortu zenez, baita BEC bete izanaren mezua, bertsolaritzaren framing berria, erdal komunitateari helaraztea ere: “(...) lurralde berean bizkar emanda bizi diren bi herrien arteko oinarritzko isuri komun bat gertatu zen, *flash* bat. Ikuspegi horrek gidatu zuen gure lana une oro, uste baikenuen bertsolaritzak baduela horretarako doairik.” (Kamio, 2011b). Hain zuzen ere 2006an publizitate alorreko Argia Saria eman zioten Elkartearen kanpainari, besteak beste, erdal komunitatearengana iristen asmatu izanagatik⁶⁰⁰.

Izandako arrakastaren neurri zehatza 2006ko martxoan argitaratu zen Lehendakartzaren 30. Soziometroak ematen du. Bertan jasotzen denez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako biztanleen %58k eta euskaldunen %93k izan zuen BEC-eko finalaren berri (Jaurlaritza, 2006: 76). Datu horiek aipatuz bertsolaritzaren *framing*arekin lotzen du Kamiok kanpainaren azken xedea: “(...) kopuru onak lortu ziren eta bertsolaritzaren esanahi berriak gizarteratu ziren. Hemen dago benetako komunikazio-lana, esanahietan, pentsamendu-aldaketa, gizarte aldaketa delako” (Kamio, 2011b). Azterketa soziologikoak (Eusko Jaurlaritza, 2006: 73) bertsolaritza tradizioarekin (biztanleriaren %22ak) baino kultura popularrarekin (%48ak) lotzen zuela ere azpimarratzen du: “Bertsolaritza kultura popularrarekin lotzea eta ez tradizioarekin sekulakoa da. Horrek ziurtatzen du bertsolaritzaren etorkizun positiboa” (Kamio, 2011b).

Bertsozale Elkartearen enkarguz Xabier Aierdi buru zuen EHUKo soziologo taldeak txapelketa horren bueltan burutako ikerketen emaitzak aurrekoekin bat zetozen: Batetik, galdekatuen %60,5ak asmatu zuen azken txapelkunaren izena (Aierdi et al., 2007: 95); bestetik gehiago ziren bertsolaritza kultura popular gisa ikusten zutenak (%51,3), tradizio gisa ikusten zutenak (% 25,6) baino (Aierdi et al., 2007: 60).

Eta bai Jaurlaritzaren inkestak nahiz EHUKoak 1993an Siadecok buruturikoaren antzeko emaitzak eskaintzen zituzten gizartearen bertsozaletasun mailari buruz. Jaurlaritzakoaren arabera (Eusko Jaurlaritza, 2006: 70), euskal hiztunen %90 bertsozale deklaratzeko bategan edo bestean, eta EHUKoaren arabera (Aierdi et al., 2007: 15) %68,4. Siadecorenan bien tartean gelditzen zen, gogora dezagun, %78 batekin (Siadeco, 1995: 14).

⁵⁹⁹ Ederra da testua. Euskararekin ordura arte izandako harremana aipatzen du, esaterako: “Mi euskera de andar por casa me llegaba para no naufragar viendo el Gaur Egun, leyendo algún texto no muy enrevesado de Egunkaria o Argia, o escuchando los boletines de Euskadi Irratia. Dos pasos más allá se me antojaba que estaba el lado oscuro y salvaje (...)” (Vizcaino, 2013: 19). Baina hala ere inoiz hunkitu izandu zela bertsolariak entzunez: “La primera carne de gallina fue en el 93 (...) los ojos brillantes de Andoni Egaña en la conmovedora dedicatoria a Lazkao Txiki (...) ¿Por qué me emocioné yo también si no era capaz de entender ni una tercera parte de las palabras que al atravesar el aire provocaban risas, murmullos, silencios sepulcrales u ovaciones? Dos décadas después sigo sin tener respuesta y, desde luego, sin buscarla” (Vizcaino, 2013: 18). 2005ekoari egin zion jarraipenak han gertatu zenaren baitako sentitu arazi ziola esanaz bukatzeko.

⁶⁰⁰ Iñigo Fernandez Ostolazak horrela baloratzen zuen Elkarteari emandako Argia Sari hura ‘Euskara eta publizitatea’ blogean ‘Euskara nola saldu’ izenburua zeraman testuan: “Esango nuke, iaz lortu dutena laburbiltzeko, Euskal Herriko Bertso Finala birposizionatzen asmatu dutela (...) Eta pentsatu nahi nuke komunikazioaren ikuspegitik eredugarri bihur daitekeela Bertsozale Elkartearen iazko lana inguruotako beste marka (elkarte, talde, enpresa...) askorentzat.” (Fernandez, 2006a)

Datu hauen argitara, eta finalak lorturiko oihartzun mediatikoari buruz esandakoak ere kontuan hartuta (ik. 24. grafikoa) Elkartea martxan jarri zuen belaunaldiak txapelketa nagusiaren finalaren egoitza Barakaldoko BECera aldatu eta komunikazioan are ahalegin handiagoa eginez aparraldia kasik 1990eko hamarraldiaren hasieran bizi izandako mailara igo zuen astinaldia eman zion bertsolaritzari. Zikloaren gailurrari azken ginga bat jarri zion.

Aldi berean, sarerako jauziak ziklo berri baterako formatua estreinatu bazuten, BECera jauziak beste koska bat igo zuen bertsolaritzak, eta bereziki txapelketa nagusiaren finalak, masa kulturaren hibridazio gisa lorturiko maila:

“Egundoko ebentu gisa bizi dugu Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren finala (...) Bertsolaritzaren zirkulu xaloak makro izaera hartzen du eta masa bilakatzen da. Plato handi bat da BEC. Neurriari eusteko bestelako gailuak behar dira piztu, horma-pantaila zabala bilakatuko da giza-hatsaren osagarri eta kameraren angeluak zuzenduko du agertokiaren iheskortasuna. Noizbehinkako jende-olatuak otzanduko du eremu uzkurra (...) Ikus-entzunezko kable eta uhin magnetikoetan gauzatzen dira transmisioak, koreografia sofistikatu batean. Kamerak dira ispilu eta leiho, aurretik eta atzetik begiratzen dugu hodi optikoan zehar, zerk ez du zentzu bikoitzik horrelako osotasunean? Gertakizuna ere haragizkoa bezainbat da siliziozkoa, analogikoa bezala telematikoa (...) Guztiok bilakatu garenean igorle eta hartzaile amaitu dira zirkoak, geu gara orain espektakulo (...) Bertsolaritzak tradizioa eta garaikidetasuna ditu beregan. Esperientzia antropologiko eta estetiko gisa eraten da. Eta bere egiten ditu kontradikzio gaur egungoak” (Aranbarri, 2014: 236-237)

8.4. HAUSTURA: TESTUINGURU ETA BELAUNALDI ALDAKETA (2006-...)

8.4.1 Testuinguruaren trantsizio berri bat

Joxerra Garziarenak dira bertsolaritzaren historiari errepasso bat ematen dioten azken lanak. Bai bere tesian (Garzia, 2000b) nahiz Patri Urkizuk koordinaturiko ‘Historia de la literatura vasca’ lanean (2000a) eta geroago, *Oral Traditionen* argitaraturiko artikuluan (2007), 1999tik aurrera boomaren aldia bukatu eta bertsolaritza multipolarrarena abiatzen dela aipatzen du. Testuinguru aldaketa aipatzen du zio nagusi gisa, ETaren jardun armatuaren bukaerak ekar dezakeen aro politiko, sozial eta kultural berria.

Dagoeneko ikusi da Euskal Herrian gatazka politikoak eta bi familia abertzaleen arteko lehiak bertako bizitzaren alderdi guztiak zeharkatu dituela 1960ko hamarraldian ETaren jarduerarekin hasita ezker abertzale berri bat sortu zenetik. ETaren jardueraren amaierak ez du ez gatazka politikoaren eta ezta abertzaletasunaren bitasunaren amaiera ekarriko ere, baina gatazkaren alderdi gordinenetako bat desagertzeak, borrokak, etenak eta lehiak leuntzea ekarri du. Garziaren planteamendua eztabaida ezina da zentzu horretan.

Egañak gogoeta interesgarria egin zuen 2011ko *Bertsolamintza* jardunaldietan auzi ideologikoak azken hamarkadetan bertso-munduan izandako eraginaz. Gatazkaren urterik gordinenetan lubakietan bizi izanaren sentsazioa aitortzen du bertan:

“Garai joanen nolabaiteko nire interpretazioa eginez, esango nuke badela 86-95 urteetan gutxi –gehiago garai bat lubakietako edo deituko nukeena

Bertsotan baino gehiago ordea, filiazioan oinarritzen da. Hau hangoa da eta beste hura hangoa. Hau partidu hontakoa da bestea bestekoa eta beste hura beste hartakoa.

Bertsolariek badakite hori, bertsozaleek ere bai eta horrela burutzen da bertsozaintza episodio itsusiren bat tarteko, normaltasun dexentez.” (Egaña, 2011: 35-36)

Eta Lizarra-Garazirako bidea hartu zenetik aldi berri bat hasi zenaren sentsaziok jarraitu ziola gaineratzen du:

“95etik aurrera edo, egoera politikoak ordurarte baino gehiago aldatzen dira. Oldartzen-etik Lizarra-Garazira gatoz, su-etena medio, handik su-etena haustera. Handik beste su-etena batera eta Barajasera, eta handik egungo egoerara. Hamabost urtetan zehar eman diren aldaketak askotarikoak dira. Gizartea kokatu egin da aldaketa horien aurrean; Bertsozaintza ere bai; eta baita Bertsolari eta Gai-jartzaileak ere. Lubakietako garaia pasea batzuentzat, lubakietatik kanpo ere bizitza badagoela konturatzen da zenbait eta han ibiltzeko hautua egiten du.” (Egaña, 2011: 36)

Ulertzekoa da Garziaren aldaketa gogoa, testuinguruari dagokionean bederen, baina, aipatutako lanek ETaren su-etena aldiekin bat egin bazuten ere, tesiak eta liburuaren kapituluak Lizarra-Garazikoarekin (1998-2000) eta *Oral Traditione*ko artikuluak 2006koarekin (2006-2007), aldaketa ez da finkatuko hurrengo hamarraldiraino: su-etena definitiboa 2010ean emango da eta ETak behin betiko jarduera armatua uztea 2011n. Tamainako erabakiak gizartean eragin ditzakeen aldaketena, ez da gainera urte batetik bestera gauzatzen den prozesu bat. Esan bezala, 2011koak dira Egañaren hitzak: “Koiuntura politikoa hain da aldakorra ordea, eta hain mingarria beti, hautuak ez direla errazak. Bertsolariarentzat ere ia hobe da ez mugitu, konbikzioz edo lubakietatik irteteen tiro bat jasotzeko beldurrez” (Egaña, 2011, 36).

Ikerketa honetan zikloa honen haustura aldiaren hasiera data bat jartzerakoan gehiago erreparatu zaio bertso-munduaren baitako belaunaldi aldaketari testuinguruaren aldaketari baino. Aurrerago azalduko denez, 2005eko txapelketa nagusiak puntu eta aparte bat ekarri zuen bertsolaritza eragiletzaren historian, bizpahiru urtean Elkartearen lidergoa belaunaldi berri batek hartuko baitu. Bestalde, taulatu gainean ere 2005ekoa izango da Andoni Egañak, eta berekin bere belaunaldiak, irabaziko duen azken Euskal Herriko Txapelketa.

Edozein kasutan, testuinguru aldaketa ere funtsezkoa izango da zikloaren haustura aldia ireki dadin. Izan ere, belaunaldi aldaketa soilak ez du zertan hausturarik suposatzen. Kasu honetan biak ematen dira, ordea. Belaunaldi berri batek hartzen du bertso-munduaren lidergoa testuinguru aldaketa garrantzitsuak ematen diren aldi berean.

Hurbileneko testuinguruan emandako aldaketak testuinguru zabalagoetan emandakoen eraginari bidea erraztuko dio, gainera. Izan ere, Euskal Herriko gatazka politikoak naziotasuna ardatz izatean, Lehen Modernitatearekin lotzen den gatazka bat, mundu mailan Beranduko Modernitatearekin lotzen diren hainbat prozesuk bertan sarrera ahulagoa dute luzaroan. Eta ETaren amaierarekin gatazkaren gordintasuna leuntzean, bestelako prozesu horiek indartzen hasi dira.

Apodakak azaltzen duen bezala (2003: 24-25) logika kultural berri bat ekarri du Beranduko Modernitateak. Honela, Aurremodernitatean kultur egunerokotasunetik jariatzen eta naturaren interpretazio eta menperatzeari lotzen zaio (mundu oso bat irudikatuz osotasun koherente bat eratzen zuten sinesmenak, errituak, lanak, tresnak eta abar), kultura popular tradizionala garatzen delarik. Lehen Modernitatean gizartea eta estatua egituratzeko tresna izango da, egituraketa horren baitako klase ezberdinen (nortasun nazionala eta klase nortasuna) ikur, eta herri kultura gisa gauzatuko da kultura jasoaren sorrerarekin eta kultura popularra jasoarekin hibridatuaz. Azkenik, Beranduko Modernitateak merkatuaren eta kontsumoaren logikari

lotzen zaion masa kultura ekarri du, kultura tradizionalak eta herri kulturak industria kulturalak ekoitziriko eskaintza globalizatuarekin lehiatu beharko dutelarik:

“Kulturaren merkatugaiak, erosgaiak edo produktuak (berauekako bat “erosleria” bera da) sortzea da helburua (...) Honen aurrean bere burua zaindu edota “hezi” (zentzu zabalean: bere buruaren jabe izan) nahi duen jendearen erantzuna ezaguna da: nortasun-borrokak edo politikak (gizarte-mugimendu berriak, ingurumenaren aldekoak, sexu-askapenerako mugimendua eta abar...). Hala ere, ezaugarri komuna aurkitu ahal dugu aro honetan: kultura norberaren edo taldeen adierazpideak dira, ez dira “izanak” edo esentziak, ezta “osotasun” bateko multzo banaezinak. Beraz, nork bere gustura aukeratu (eta erosi), nahasi eta erabili ostean bota dezake. Kultura, alde batetik kontsumoa da eta, bestetik, adierazpide partikularra, bizitzeko estiloa (biak batera: nork bere burua adierazteko kontsumoa edo bizimodua)” (Apodaka, 2003: 25)

Ikusi den bezala, euskal kulturgintza jada 1960ko hamarraldian abiatua zen Beranduko Modernitatearen erantzunean, eta bertsolaritzak lehiakorra izateko masa kulturarekin hibridatu izan du 1980an abiatzen den ziklo honetan. Izan ere aro bakoitzari dagokion logika kulturalak ez du aurrekoa erabat ordezkatzen, hibridatzea da egokitzeko eta garatzeko bidea:

“Hiru “logika kultural” horiek gaur egun ere nahasian garatzen dira. Ez dira etorri bata bestearen segidan, baizik eta bata bestearen gainean, ondoan, barruan... gertatzen dira. Elkarren barruan daude. Guk aurki eta erabil ditzakegu: batzuetan era tradizionalan biziko gara (“modu konsuetudinarioa”) bestetan oso modernoak izango gara, noizbait postmodernoak... Geuk zehaztu beharrean, gehienetan inguruak eta uneak zehaztuko dute zelan jokatu dugun.” (Apodaka, 2003: 25)

Apodakak azaltzen duen bezala euskal kulturgintzak logika berria ere txertatu beharko du bere analisisan eta egiteko moduetan: “Ez da lortuko hegemonia. Norberaren eta elkargoaren nortasuna eraikitzekeo baliabide bat (beste askoren artean) eskainiko zaio jendeari. Heziz gero, jendeak gustura hartuko du eskaintza, eta, neurri batean, nortasunaren muin afektiboa izan daiteke, baina aukera bat izango da, halabeharrez” (2003: 44). Eta bertso-munduak ere halaxe egin du. Igor Elortza eta Xabier Sukia bertsolariek Jexux Murua eragilearekin batera idatzi zuten bertsolaritzaren hedabideratzeari buruzko gradu-ondoko lanean esaterako, Apodakaren planteamendua aipatzen dute, honen ondorioak bertsolaritzaren proiektuarekin uztartzeko:

“Bertsolaritza tradizioan oinarritutako herri-kultura modernoa dela esan dezakegu. Lehenengo irakurketa batean dirudien baieztapen erraza baino harago joan nahi du definizio horrek: hiru ezaugarriok elkarren aberasgarri jotzen ditugu eta ez dugu uste, inondik ere, elkarren kontra doazenik. Adituek deskribatu dizkiguten hiru logika kulturalak daude gaurko bertsolaritzaren baitan (tradizionala / antropologikoa / mundu-ikuskerarena, modernoa / jaso / politikoa eta postmoderno / merkatukoa / nortasun-kontsumokoa), eta hiruen arteko dialektika da bertsolaritza bizi-eske baino bizirik dagoen seinale; ez tentsiorik gabe, noski.” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 22-23)

Gatazka politikoak, Egañak zioen bezala, lubaki jakin eta bakan batzuetan banatu izan du euskal jendartea. Honek Beranduko Modernitateak dakarren talde nortasunen aniztasunaren eta nortasun indibidualen proiektzioaren eztanda moteldu egin du. Aro berriak euskal jendartean izandako beste eragin batzuk lehenagotik ere nabaritu ahal izan badira ere esfera publikoan islatzen den nortasunen aniztasuna errazago bistaratuko da, beraz, lubakien logika nasaitzean. Aniztasuna da, hain zuzen, Garziak bertsolaritzaren aldi berri honi egotzen dion bereizgarri nagusia eta bertsolaritza multipolar gisa izendatzen du berau (Garzia, 2000b: 471; Garzia, 2007: 111; Garzia, 2012: 51).

Aldi berri honen baitako beste faktore garrantzitsu bat Internetek komunikaziorako tresna gisa hartuko duen indarra da: “Euskal kulturgintza hau, bere ezaugarri horiekin guztiekin, une

honetan gizarte-aldaketek eta teknologia-aldaketek dakartzaten desafio eta aukera berrien aurrean dago. Norbanakoaren konfigurazioan aldaketak gertatzen ari dira, parte hartzeko eta kontsumitzeko orduan ere bai, eta arlo teknologikoak plaza berria ekarri dio kulturari” (Sarasua, 2013: 257). Eta aurrerago ikusiko dugunez multipolartasuna da, hain justu, Internet bidezko komunikazioaren ezaugarri nagusietako bat.

8.4.2 Belaunaldi berriak oholtza gainean: multipolartasuna eta bertsolari emakumea

8.4.2.1 Bertso-eskoletako lehen belaunaldiaren lidergoa

Bertso-eskoletako lehen belaunaldia izango da hamarraldi honetan bertsogintzaren lidergoaren pisurik handiena bere bizkar hartuko duena. 90eko hamarraldian, Egañaren belaunaldiarekin batera hazi eta ezagun egin den bertsolari gazte taldeak beteko ditu hamarraldiko hiru Euskal Herriko Txapelketa Nagusietako finalista plaza gehienak: Maialen Lujanbiok, Unai Iturriagak, Igor Elortzak, Jon Maiak eta Jesus Mari Irazuk. Hauei, esan bezala, Sustrai Colina eta Aitor Mendiluze batu zitzaizkien batuko zaie 1997ko finalean, Amets Arzallus 2005ekoan eta Aitor Sarriegi 2009koan, guztiak ere zerbait gazteagoak izanik geroago plazaratu ziren arren Egañarenaren ondorengo belaunaldi berekotzat har daitezkeenak.

Bertsolariren 60. zenbakiko azalak 2005eko finalera garamatza. Bertan, Imanol Lazkano eta Andoni Egaña elkar besarkaturik ageri dira, malko artean. Lazkano Elkartearen lehendakari izan da Elkartearen sorreratik eta kargua utzi berri du. Egañari bere laugarren txapela jantzi berri dio argazkian, zarauztarraren azken txapela izango dena.

Ziklo baten amaiera sinbolizatzen duen argazkia izan daiteke. Baina zikloak ez dira, noski, argazkiak bezala, une batean ixten, aldi bat hartzen duen prozesu baten emaitza izan ohi dira aldaketa hauek.

Honela, Txapelketa Nagusiko finalaren oholtzan hamarkada hasieran emango du erreleboa Egañaren belaunaldiak, bera izango baita bere belaunaldiko kide bakarra 2001eko finalean. Txapelak, ordea, zarauztarraren buruan jarraituko du hamarkada osoan zehar 2009ko abendua arte. Txapelak bertsogintzaren baitako lidergoa seinalatzen duenez, eta Egañarena *boomaren* aurpegi ezagunena denez, hamarraldia bukatu arte ezingo da errelebo hau erabat gauzatu eman. Hamarraldi honetan bertsogintzaren lidergoa rockaren belaunaldiak Egañarekin partekatu zuela esan daiteke, bada: “Andonik hurrengo belaunaldiarekin ere puri-purian iraun du, bere indar guztiarekin. Ilea erori zaionerako, soila izatea modan jarri da raperoen artean”⁶⁰¹ (Maia, 2017: 256)

Bertsolariren 76. zenbakiaren azalak 2009ko finalera garamatza. Txapeldun berriari, Lujanbiori, besarkaturik ageri da Egaña, eta 2005eko argazkian ez bezala irribarrea eta lasaitua nabari zaizkio aurpegian. Hor eman zen bukatutzat ordezkatzeko prozesua. Hitz horiexekin eman zion ongietorria txapeldun berriari 2009koan ikusle soil izan zen Kamiok:

“Txapeldun berriak bere lehenengo deklarazio instituzionala egin du: euskaratik eta euskaraz. Ordezkatzeko osoa gertatu da gaur, ta garai berria dator. Zorionak emakume guztiei. Teknologia berriei esker gure gizatasuna adierazteko inoiz baino aukera gehiago daukagun honetan, Maialenek irabaztea

⁶⁰¹ Egañak Amurizari bere bertsogintzaren nolabaiteko aitatasun bat aitortu izan dion bezala, beste hainbeste gertatu izan da bertsolari gazteagoak eta Egañarekin.

ikaragarritzko zoriona da. Txapelkun garaikidea da. Zorionak Maialen.”
(Kamio, 2009)

8.4.2.2 Belaunaldi berriagoak toki bila

Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Jon Maia, Igor Elortza, Estitxu Arozena, Jexux Mari Irazu eta rockaren belaunaldiko bertsolari guztiek bertsotan hasi eta gutxira lortu zuten toki bat elitean. Artean nerabe direla agertuko ziren herrialdeetako txapelketako finaleran edo Bertsolari aldizkariaren azalean.

Euren kalitateari eta lanari esker irabazitako tokia izan zen, baina lehenengoak izatearen abantaila ere bazuten. Bertso-eskoletako lehenengoak ziren, bertsolaritzaaren transmisioa ziurtatzeko honen *framinga* eguneratzeko behar larria zuen mugimendu hasi berriaren baitan. Araban 1980ko hamarraldian gertaturikoak erakusten du esan nahi dena, han egoera muturrekoagoa zela zehaztu behar bada ere: “Bitxikeria gisa, zer den ausardia. 1984an, Abel Enbeitaren ekimenez, Arabako I. Bertsolari Txapelketa antolatu zuten. Berez, bertso eskoletako partaideak ziren izena eman zutenak, ia denak aurretik jendaurrean inoiz kantatu gabeak” (Barandiaran, 2011: 83).

Ikusi da *boomaren* lehen gailurrean 1990eko lehen urteetan jada hazkundearen banaketaren kezka piztu zela, telebistaren fokuari doikuntza inguruko kezka lotuta. Egañak 1993-1994tik aurrera bertso-eskoletatik bertsolariak perretxikoak bezala ateratzen zirela aipatzen zuen, eta horiei tokia egitea arazo bat bihurtzen hasia zela. Sortzen ziren guztiak elitea begira sortu izana zen arazoa: “(...) denok geunden piramidearen erpinera begirada josita: puntako bertsolariak, hedabideak, antolatzaileak, bertso-eskoletako arduradunak, gai ziren gaztetxoak eta hain gai ez zirenak” (Egaña, 2004: 150). Ibiliak erakutsi zuen irtenbidea bertso-eskolen xede-puntua aldatzea zela: “Apurka, bertso eskoletan bertan hasi zen bertsolaritzaaren ikuspegi ekologikoagoa lantzen (...). Bertso-eskolak orain badu eskolatik, baina badu aldi berean taldetik ere, eta askotan lagunartetik ere bai” (Egaña, 2004: 152). Eta harrobigintza zabalago bat jorratu da aurrerantzean: “Jada jendea konsziente da bertso eskola dela toki bat bertsoaz gozatzeko eta bertso eskolan sortzen direla puntako bertsolariak, noizean behin eginez gozatzen duten bertsolariak, bertsozaleak oro har, epaileak, gai jartzaileak, kritikariak (...)” (Esnal, Egaña eta Sarasua, 2002: 814)

Puntako maila duten bertsolari berriak ere sortuz joango dira, ordea, eta puntako horiei geroz eta zailagoa suertatuko zaie puntara iristea:

“2006ko urte hura, hain zuzen ere, garrantzitsua izan zen gazteen kexu horiek plazaratzeko (...) kontua da hainbat bertsolari gaztek hainbat aldiz eta hainbat forotan hitz egin zutela haien kantatzeko gogo eta kantatzeko ezintasunaz. Esaterako, Jon Martinek horrela azaldu zuen elkarrizketa batean: ‘Gure belaunaldia arazoa sentitu duen lehenengoetakoa da, baina atzetik bertsolari asko datoz, gure belaunaldian baino gehiago, eta askoz gehiago etorriko dira (...) Bertso saio ofizialak eliteko bertsolariak monopolizatu dituzte (ez eurek, antolatzaileek baizik) eta gazteek bide propioak eraiki beste erremediorik ez dute (...) Askori gaizki irudituko zaio gazteok plazak aldarrikatzea, baina kontrakoa gero eta arazo handiagoa izango dena ukatzea litzateke (...)’”
(Barandiaran, 2011: 135)

Arazoak hartutako dimentsioaren adierazle da berrogei bat bertsolari gazte eta gai-jartzailek 2006aren amaieran *Hamaika Bertute* proiektua abiarazi izana. Besteak beste gazteei beste ibilbide alternatiboak eskaintzeko sortu zen *Hamaika Bertute*:

“Bertso saioak antolatzekeo baliabide urriak dituzten antolatzaleei bertso saioak antolatzekeo aukera eskaini nahi zieten, dela gaztetxeak, elkarteak, lagun kuadrillak, elkarte gastronomikoak edo auzoetako festak. Baina, horra aldaketa, Hamaika Bertuteko kideek erabakiko zuten zein bertsolari bidali, ‘saio kopuruaren arteko desorekarik egon ez dadin’. Hau da, merkatuaren legeari ihes egin nahi zioten horrela, eta kantatzeko aukera sozializatu.” (id.: 137)

Kualitatiboki aldaketa garrantzitsua planteatzen zuen *Hamaika Bertutek*, Elkarateak bere sorreratik espreski erabakia baitzuen bertso-merkatuan eskurik ez sartzea (Lankuk bitartekaritza lanak egin edo zerbitzuak eskaini zitzakeen baina tokian-tokiko antolatzaleak erabakitzen zuen saiora deitu nahi zuen bertsolarien zerrenda). *Hamaika Bertutea* joan zen, ordea, eta merkatuaren legeak jarraituko zuen indarrean.

Urte hauetan egon da, noski, nagusiko finalisten mailako oihartzuna lortu duten bertsolari gazteagorik: Nafarroan Xabier Silveira azaldu zen lehenengo eta Julio Soto ondoren; Bizkaian Paiatarrak, Estiballes eta Enbeitatarren hirugarren belaunaldia; Martin anai-arrebak edota Uxue Alberdi Gipuzkoan... Batzuetan, bertso-munduan ertzekoagoak diren herrialdeetako txapelketetan nagusitu izanak lagundu die, beste batzuetan bertsogintzaz kanpo buruturiko aktibitateek eman die plus bat... Baina Egañak azaltzen duen gisan 2010eko hamarraldiaren bukaeran arazoak bere horretan darrai:

“Bai finaletan eta baita finalerdietan ere, gora doa bertsolarien batez besteko adina. Inoiz baino zaharragoak dira (...) Orain, belaunaldi bakoitzak tapoi handiagoa egiten dio hurrengoari, belaunaldi bakoitzean bertsolari on mordoxka bat dagoelako (...) Gure garaian oso zaila zen abiatzea. Ez zegoen bertso-eskolarik, eta asko gustatu behar zitzaizun bertsotan jarduteko. Hori bai, gora iristea errazagoa zen, tartean jende gutxi zegoelako. Gaur egun abiatzea errezagoa da, bertso-eskoletatik asko abiatzen dira. Baina, gehiago direnez, zailagoa da gora iristea.” (Rubio, 2019: 92-93)

8.4.2.3 Multipolartasuna edota dibertsifikazioaren *booma*

Multipolartasunaren aroa iragartzen duenean, rockaren belaunaldiari erreparatuz lehen espezializazio eta dibertsifikazio zantzuak nabarmentzen ditu Garziak:

“Eso ocurre en las cenas bertsolarísticas, o en las sesiones temáticas en las que algunos bertsolaris han encontrado un espacio para desarrollar aspectos del bertsolarismo que difícilmente podrían cultivar las sesiones normales. Se organizan así sesiones de bertsolarismo erótico, negro o absurdo, o tramas bertsolarísticas (...) Este tipo de sesiones se realiza generalmente en locales pequeños, pubs o bares (...) En los últimos años de la década de los noventa, el panorama del bertsolarismo se presenta más variado que nunca en la historia.” (Garzia, 2000a: 471)

2000ko hamarkadaren amaierarako aurrera egin da nabarmen bide horretatik. Atzetik datozen belaunaldiak ugaritzean, eta euren tokia eta euren eszena sortu beharrean aurkituko direnez, askoz ere nabarmenagoa izango da multipolartasun hori:

Askoz bertsolari gehiago dira, eta anitzagoak (...) Formatuak biderkatu egin dira: antzerkiarekin, multimedia espektakuluekin, jazzarekin, komikiarekin, atzerriko inprobisazio fenomenoekin, literaturarekin... fusionatu izan dute, eta bertso-poteoan, balkoitik balkoira, bionbo baten atzetik, jende artetik... kantatu izan dute. Bertsolarien mundua hain zabala izanik, denak ez dira bertsozale denentzat ezagunak, eta interes eta proiektu konkretuen inguruan sortu dira

taldeak. Sorkuntzari buruzko gogoeta gune eta maila ezberdin askotan ematen da. Beste hainbeste gertatu da bertsozaleekin. Gehiago dira, anitzagoak (...) Produktzioaren masifikazio prozesua hartzen ari den mailaren erakusle gisa, aipatu zenbait bertsolarik ‘espezializazioaren beharra’ adierazi duela (...) (Agirre, 2009a: 10)

2010eko hamarraldiaren bukaerarako, aldiz, bi hamarkada lehenago bertsolaritzan adituak kasik intuizio gisa nabarmentzen zuena ikerketa soziologikoen ondorioetan ere nabarmendu izan da. Prozesu honen baitan, eta bertsozaleei erreparatuz, azken ziklo honen hasieran sortutako joeraren jarraidura ikusten du Zubirik:

“BGMren sorreraren garaian gertatu zen, aro berrian estreinakoz, Garziak (2000) ezpaltzea deitu duena, bertsozalegoaren heterogeneizazioa, ordura artekoa baino handiagoa. Aurreko erresistencia arotik bereizteko, Garziak aro hau definitzeko honako formula erabiltzen du: herriari kantatzetik publikoari kantatzera. Baina heterogeneizazio prozesu hori sakondu egingo da ondorengo urteetan. Garziak aro multipolarra deitzen duen horretan, 2000. urtetik aurrerakoan, dibertsifikazio are handiagoa dela dirudi, eta, ziur aski, lehen baino askoz ertz gehiago dauzka.” (Zubiri, 2016: 21)

Eta eskaintzaren dibertsifikazioa erakusteko hainbat datu eskaintzen ditu (2018: 28-30 eta 2019: 20-21)⁶⁰². Honela, saioetara joan ohi den jende kopuruaren bilakaerari erreparatzen dio lehenik: 1995ean 223.924, 2000n 155.668 2000n, 2005ean 173.006 2005ean, 2010ean 262.850 eta 2015ean 263.884. Ikus daitekeenez 1990eko bigarren erdian behera egin ondoren 2010eko hamarraldiaren lehen erdian hogeitaz urte lehenagoko kopuruak berdindu eta gainditzea lortu da⁶⁰³. Eta saio kopuruaren bilakaerari dagozkionak errepasatzen ditu jarraian: 1990ean 419, 1995ean 1.125, 2000n 1.237, 2005ean 1327, 2010ean 1699 eta 2015ean 1764. Saioen hazkundera bertaraturiko jende kopuruarena baino dezente handiagoa denez, datuek iradokitzen dute eskaintzaren dibertsifikazioa izan dela hazkundera ekarri duena:

“Gaur egungo kopuru handiak, 1990eko hamarkadakoak baino handiagoak, bertso-saio txikiagoetan oinarritzen dira.

Beraz, gaur egun bertsolaritzak bigarren *boom* bat bizi duela esan genezake, baina bigarren *boom* horren izaera desberdina dela. Gure susmoa honakoa da: saio txikiagoek osatzen duten hazkunde horrek, agian, aniztasuneranzko joera islatzen du.” (Zubiri, 2019: 19)

Bertsolariek eurek ere ikusten dute fenomenoak:

“[Egañaren hitzak] 1980ko hamarkadaren bukaeran eta 1990ekoaren hasieran arlo diferenteetan gertatutakoek ekarri zuten *boom* bat (...) Baina arrakastaren eredu hori monolitikoagoa zen. Jaialdi handiak ziren, sei edo zortzi bertsolarirekin eta milaka pertsona entzuten. Eredu hori bakarrik zegoen. Bertso poteorik, esaterako, apenas. Horregatik esaten dut oraingo dibertsifikazioa ongi iruditzen zaidala” (Rubio, 2019: 69)

Eta hasiak dira arriskuaren inguruan gogoetatzen: “[Miren Amurizaren hitzak] (...) zenbat eta zirkuitu gehiago sortu, arrisku gehiago egon daiteke elkarrengandik urruntzeko. Bertsolari kopurutxo bat egongo da zirkuitu batean eta beste batzuk beste batean, elkarren berri izan gabe. Uste dut hori neurri batean gertatzen ari dela” (Rubio, 2019: 70). Eta ñabardurak egiten: “[Lujanbioren hitzak] Espezializazio moduko bat dago, oraindik ere puntuala dena

⁶⁰² Datuak Xenpelar Dokumentazio Zentruak pilaturiko informaziotik ateratakoak direla zehazten du bertan.

⁶⁰³ *Boom*aren unerik goreneko datuak ere, 1992an 258.000 (Siadeco, 1995: 24), gainditzen dira.

(...) masa nagusia bi ertzen erdian dago, eta batzuetan alde batera edo bestera jo arren, interkomunikatuta daude” (Rubio, 2019: 70).

Soziologoek ere bere hastapenetan ikusten dute prozesua: “Aniztasunaren *Big Bang* batez ariko bagina, lehenengo uneetan gaudela esango genuke. Joxerra Garziak aro multipolarra deitu zuena bizitzen ari da bertsolaritza” (Zubiri, 2018: 37). Eta ñabardura eta gogoeta berriak eransten dizkiote bertsolarien gogoetei:

“[Xabier Aierdiren hitzak] Fragmentazioak espezializazioa ekarriko du, eta publiko jakin bat mugituko du espezialitate bakoitzak, eta beste zirkuitu bat egongo da ezagunagoa izango dena, estandaragoa, espektakularizazioaren bidetik joko duena. Egongo dira batzuk arlo batetik bestera saltoka ibiliko direnak, nolabait esateko, bi autobusetan ibiliko direnak (...) Uste dut prozesu oso dilematikoak egon litezkeela eta erabaki zailak eskatuko dituztenak. Baina, era berean, kontsumo gizarte batean gaude, eta horrelako gizarte batean gero eta produktu gehiago daude erabili eta botatzekoa (...) Horrelako sistemek ere eragingo dute gure aukeretan eta gure produktuetan (...) gero eta ordezkatzeko prozesu azkarragoak daudela ikusten dut.” (Agirreazaldegia, 2018b: 87-88)

8.4.2.4 Bertsolari emakumeak

Aniztasunaren dimentsio garrantzitsuren bat eman bada bertsolari emakumeena izan da hori; bertsolariaren irudikapen klasiko eta esentzializatuarekin norbaitek apurtu badu, bertsolari emakumeek egin dute.

Izan ere, bertsolariaren genero maskulinoa izan da emandakotzat ulertu izan den elementu garrantzitsuenetariko bat. Honela, azpimarratzen du Hernandezek: “Beharbada esan beharko genuke emakume profazadoreen debekuak⁶⁰⁴ utzitako hutsunea beti egon dela hor, eta hutsune horrekin elkarriketan, harremanetan, elkar eragiten... sortu eta garatu dela bertsolaritza garaikidea” (2019: 54). Eta honela osatzen du bere azpimarra:

“Debeku horren eraginez ala ez, dakiguna da emakume bertsolariak eremu publikotik desagertu zirela XX. mendearen bukaera arte. Tartean erreferentzia gutxi batzuk agertzen zaizkigu, batez ere gizonezko bertsolariekin izandako tratu edo lehiengatik. Hau da, gehienetan emakume horiei buruz dakigu gizonezkoekiko zuten harreman edo loturarengatik. Edo *norbaitekiko* edo *norbaiten zerbait* dira ala ez dira” (Hernandez, 2019: 52).

Bertsolari emakumeei buruzko ikerketa Carmen Larrañagak abiarazi zuen 1990eko hamarraldiaren bigarren erdian eta artikulu bidegile haietako bati izenburu esanguratsua jarri zion: ‘Del bertsolarismo silenciado’⁶⁰⁵. Eta esanguratsua da gaiari buruzko azken artikulu honetan Hernandezek jarritakoa ere: ‘Hutsuneak du hitza’. Ikerketa honetan prentsa historikoan egindako bilketak ere nabarmen erakusten du hedabideek ere isilarazi egin zituztela bertsolari emakumeak, berauen da bertsolaritza presentzia mediatikoaren historiak duen hutsune nabarmena: ikerketa honetan bertsolaritza presentzia historikorako 1823tik 1979ra bildu diren 4159 testuetatik 24 dira bertsolari emakumeen aipamenen bat egiten dutenak. Alegia, bildutakoaren %0,6a⁶⁰⁶.

⁶⁰⁴ Bizkaiko Foruek 1452an emakume hauen kantua debekatu zuen debekuz ari da. Debekuaren testua jaso da ikerketa honetan, eta honen inguruko iruzkinen bat ere egin da. Ik. 3.1.3 Euskal kulturaren bestekotzea

⁶⁰⁵ LARRAÑAGA, C. (1997): Del bertsolarismo silenciado. *Jentilbaratz*, 6. zbkia., 57-73 or.

⁶⁰⁶ Eranskinetan puntu bat eskaini zaio prentsa historikoan bertsolari emakumeek duten presentzia eta presentzia horren urritasunean sakontzeari. Ik. II.I BERTSOLARI EMAKUMEAK PRENTSA HISTORIKOAN

Topatu diren testu apurretan, Hernandezek egindako azpimarraren zantzuak topatu daitezke, gainera. Honela, egin ahal izan den deskubrimendu interesgarriena, esaterako, gaurdaino ezezaguna zen Manuela Zubiaurre *Bertsolari* (1837-1916) bertsolariaren arrastoa, Iparragirreraren musa gisa eskaini zitzaion artikulu batetik abiatzen da. Hona titularra: ‘Amores y desengaños de Jose Mari Iparraguirre/Manuela Zubiaurre, le dijo: ‘Ez’...’ (*La Voz de España*, 1977/VI/7, ‘Amores y desengaños de Jose Mari Iparraguirre/Manuela Zubiaurre, le dijo: ‘Ez’...’, Iñaki Linazasoro)⁶⁰⁷. Eta erreferentzia gehiago topatu ahal izan dira bertsolarien emazteei buruz bertsolari emakumeei buruz baino⁶⁰⁸.

Azken zikloaren hasieran ekin zioten bertsolari emakumeei pixkanaka plazan euren tokia berreskuratzeari: Amaia Otsoa izango da Lore Jokoen garaietatik, laurogei urtetik gorako hutsunearen ondoren, txapelketa batean parte hartuko duen lehen emakumea, 1984ko Arabako txapelketan izena emanez, eta Kristina Mardarasek emango du hurrengo pausoa 1986ko txapelketa nagusian parte hartuz; Almengo bertso-eskolatik ateratako Arantzazu Loidik (Otsoa eta Mardaras ere bertso-eskoletatik pasatakoak ziren) ibilbide esanguratsua osatuko du 1980ko hamarraldiaren bukaeran eta 1990koaren hasieran; eta Zubirik rockaren belaunaldia deituko dionaren baitan ere, 1990eko hamarraldiaren bigarren erdian, Maialen Lujanbio, Estitxu Arozena, Iratxe Ibarra edo Amaia Agirre bezalako bertsolari garrantzitsuak agertuko dira. Zikloaren hausturarekin bat emango da, ordea, bertsolari emakumeen presentziaren leherketa: “Aurrera eta etorkizunari begirako agertoki horretan, emakume bertsolariak agertu dira (indar gehiagorekin XXI. mendetik aurrera) eta, batez, ere diskurtso feminista (bereziki 2008tik), bertsolaritzak mende batean zehar garatu duen logikan pitzadura edo arrakala eraginez” (Hernandez, 2019: 51)

Hernandezek 2008a seinalatzen du, hain zuzen ere urte hartan Elkartearen baitan genero taldea deritzona martxan jarri zelako. Geroztik talde horrek genero berdintasuna eta feminismoa bultzatzeko asmoz, ekimen asko burutzen ditu. Aipatzeko modukoak dira ‘Ez da kasualitatea’ saioak, Ahalduz bertso-eskola, Zilekoa... Azken urteotako eztabaida bizienetako bat izan da generoaren ingurukoa, ikerketak burutu dira, emakume bertsolarien historia berreskuratzeko deiak egin dira, bertsolari emakumeei pairatu behar izan duten matxismoaren eta erasoen testigantzak jasotzen dituen ‘Kontrako eztaeratik’ liburua argitaratu da... Sekulako aldaketa ematen ari da denbora gutxian: “Lehen, generoa okela besterik ez zen bertsolaritzan. Orain, generoarekiko ikuspegi berdinzale batek bertsolaritza zabaldu, sakondu eta aberastu egin dezake. Genero aldetik eman diren aurrerapausoek lortu dute, adibidez, bertsozale ez ziren hainbat bertsozalea” (Zubiri, 2018: 45). Eta aldaketa hori, esan bezala, ardatz garrantzitsu bihurtu da dibertsifikazio prozesuaren baitan: “(...) badaude feminismitik bertsolaritzara gerturatu diren zaleak eta ia bakarrik emakume bertsolariak ezagutzen dituzte. Askok aldatzen du horrek jokoa, plazak eta erreferentzialtasuna konpartituago eta banatuagoa geratzen delako [Miren Amurizaren hitzak]” (Rubio, 2019: 69)

Zubiriren iritziak, rockaren belaunaldiko bertsolarien artikulazioa bizi izan ondoren, gisako beste prozesu bat bizi du egun bertsolaritzak emakumeen artikulazioarekin. Azken neurketen arabera bertsolarien %25 eta publikoaren %53 emakumeak direla kontuan harturik, prozesu honek duen garrantzia azpimarratzen du ikerlariak:

⁶⁰⁷ Ik. II.I.I Manuela Zubiaurre *Bertsolari* (1837-1916)

⁶⁰⁸ Iparragirreraren alargunaren, Anjela Kerexetaren, heriotza albiste bihurtu zen, adibidez. Bertsolari emakumeen kasuan ez dago horrelako albisterik. Edota 1970eko hamarraldian ‘Bertsolarien Emazteen Eguna’ izeneko jaialdia ospatu izan zen. Ik. II.I.IV Mariasun Landaren ‘Emakume bertsolari batekin elkarrizketan’ *Anaitasuna* (1978)

“Rockaren belaunaldiarekin zalantza izan zuten ea bertsolaritza eusteko gai izango ziren. Eta laster erakutsi zuten eusteko ez ezik bertsolaritza zabaltzeko, sakontzeko eta indartzeko gaitasuna ere bazutela. Emakume bertsolariak eta publikoko emakumeak, ziur asko, askoz gehiago egiteko potentziala dute. Zenbaki kontu bat da, besteak beste. Biztanleriaren zer ehuneko ziren rockeroak? Zenbateko pisua zuen rockak kultura garaikidean? Eta emakumeak?” (Zubiri, 2018: 40)

Erabat funtsezkotzat jotzen du, bada, prozesu hau: “Gaur egun nabarmena da antzeko zerbaiten hasiera izan daitekeela. Emakume bertsolariak eta publikoaren gehiengoa osatzen duten emakumeak zer leku izango duten bertsolaritza, horrek nabarmen baldintzatuko du bertsolaritza etorkizuna” (Zubiri, 2018: 36).

Hainbat ahotsek azpimarratu izan du emakumeak burutzen ari diren aldaketaren garrantzia. Jon Maiak, esaterako, honela dio: “Azken hamarkadetakako ekarpen eraldatzaileen artean kokatuko nituzke bertsoan eta gaien planteamenduetan genero ikuspegian lortutako eraldaketak” (2017: 260). Eta Hernandezek, Zubiriren planteamendua ontzat eman ondoren, hitz-joko bat darabil, aldaketaren sakontasuna eta zailtasuna agerian uzteko:

“Rock belaunaldia iritsi zen, eta, artikulazio hori gertatu zen moduan, emakumeena ez zen gauzatu. Urteak pasatuta, emakumeen parte-hartzea nabarmen handitu bada ere, esan dezakegu –Zubiri eta Aierdirekin bat eginez-, artikulazio hori ez dela guztiz gauzatu (...) Agian pentsa dezakegu emakume bertsolarien kasuan artikulazioaz baino des-artikulazioaz hitz egin behar dugula. Orain arte egindako loturak des-artikulatu eta desegin, oinarri berri batekin abiatzeko.” (Hernandez, 2019: 52)

2009ko eta 2017ko Maialen Lujanbioren txapelek ikusgarritasun handia eman diote gaiari. Batez ere lehenengoan emakume batek lehen aldiz irabazi izanaren garrantzia azpimarratu zuten egunkari guztiek⁶⁰⁹: Argi dago Lujanbiok bide berri bat ireki duela bertsolaritza elitean eta indartsu datozela atzetik emakume gehiago. Hala ere, seinatu beharra dago gaurdaino bera dela txapelketa nagusi bateko finalera iritsi den emakume bakarra.

⁶⁰⁹ *Deia*, 2009/XII/14, ‘Maialen hace historia’; *Deia*, 2009/XII/14, ‘La hija del viento’, Concha Lago; *Deia*, 2009/XII/14, ‘Hernaniko dama txapelduna’, Ander Eguiluz; *Deia*, 2009/XII/14, ‘Bertsolaritza dama’, Xabi Paya; *Deia*, 2009/XII/15, ‘Agora’, Pili Kaltzada; *El Correo Español*, 2009/XII/14, ‘Maialen Lujanbio hace historia en el berto’; *El Correo Español*, 2009/XII/14, ‘Una txapela para Maialen’, Jon Ordoñez; *El Correo Español*, 2009/XII/15, ‘Maialen Lujanbio: "Nire lana artistikoki kontsideratua izatea nahi nuke, ez emakumea naizelako"’, Felix Ibargutxi; *Diario de Navarra*, 2009/XII/14, ‘Enrike Diez de Ultzurrun: "Bertsolaritza gizartearen ispilua da"’, Nerea Alejos; *Diario de Noticias de Navarra*, 2009/XII/14, ‘Bertsos. Maialen Lujanbio primera campeona de Euskal Herria’; *Diario de Noticias de Navarra*, 2009/XII/14, ‘La mejor (y mujer) bertsolari’; *El Diario Vasco*, 2009/XII/14, ‘En primer plano: Maialen Lujanbio’; *El Diario Vasco*, 2009/XII/14, ‘Bertoak badu erregina’, Bianditz Iraola; *El Diario Vasco*, 2009/XII/15, ‘"Balio sinbolikoa dauka txapel honek"’, dio Maialen Lujanbiok’; *El Diario Vasco*, 2009/XII/15, ‘"Bertsogintza ideologikoa egin nahi dut, bere zentzu zabalenean"’, Felix Ibargutxi; *El Diario Vasco*, 2009/XII/16, ‘Aupa Maialen’, Pello Esnal; *El Diario Vasco*, 2009/XII/16, ‘Maialen’, Jasone Osoro; 2009/XII/15, *Berria*, ‘Ai Maialen’, Itxaro Borda; *Berria*, 2009/XII/15, ‘Maialen Lujanbio: "Ez dut uste gauzak asko aldatuko direnik, ezta alda litezkeenik ere"’, Beñat Zamalloa; *Berria*, 2009/XII/15, ‘Matriuska’, Uxue Alberdi; *Berria*, 2009/XII/15, ‘Mariaren sua’, Ander Lipus; *Berria*, 2009/XII/16, ‘Zorionak Maialen’, Agurtza Zubero eta Maider Zilbeti; *Gara*, 2009/XII/14, ‘Suzko emakumenak’, Lander Garro; *Gara*, 2009/XII/15, ‘Maialen Lujanbio: "Txapela gailur bat bada, baina egindako bidean koska bat gehiago"’, Amagoia Mujika; *El Mundo*, 2009/XII/14, ‘La primera txapela para las mujeres’; *El País*, 2009/XII/15, ‘Maialen Lujanbio: "Simbólicamente, es importante que una mujer haya ganado la 'txapela"', Ainhoa Castells; *El País*, 2009/XII/15, ‘La txapela de Maialen’, Belen Altuna; *Le Journal du País Basque*, 2009/XII/15, ‘Première txapeldun’...

8.4.3 Erreleboa Elkartean ere

8.4.3.1 Profesionalizazioaren atetik belaunaldi berriak

Elkartean ere 2000ko hamarraldiaren bigarren erdian emango da belaunaldi aldaketa. Imanol Lazkanok Elkartearen sorreratik bete duen Lehendakari kargua utziko du 2005ean eta Iñaki Muruak hartuko du bere tokia. 2007an Koldo Tapia izango da Elkartearen sorreratik bete duen Idazkari kargua utziko duena eta Aritz Zerain sartuko da bere orde. 2008an Arantxa Mariskal izango da bere sorreratik Xenpelar Dokumentazio Zentroan zeukan ardura utziko duena. Pixkanaka, Elkartearen baitako alor ezberdinetan emango da errelebo bera. Gidari berriak ez dira izango, ordea, berriak Elkartean, lehenagotik ere, tartean ibilitakoak, eta 2005eko txapelketak suposatu zuen gailurrean parte hartutakoak, baizik.

Belaunaldi aldaketa, neurri handi batean, ohikoa denez, aurreko belaunaldiak adinagatik erretiroa hartu behar izango duelako emango da, baina Elkartearen profesionalizazioarekin ere izango du zerikusirik. Elkarreak lehen hamarkadetan dokumentazio zentrokoez harago ez ditu bi langile baino izango, baina 2000ko hamarraldian hazkunde nabarmenean sartuko da:

“2000. urtean, 80ko hamarkadaren bukaeratik proiektua martxan jarri eta bultzatu eta aitzinatu zuten eragile ia berdinak zeuden Elkartean beharren: Euskal Herriko eta herrialdeetako eragileak eta Xenpelar Dokumentazio Zentroko langileak. Baina handik bost urtera, 2005ean, Elkarreak soldatapeko hirurogei lagun baino gehiago zituen, hainbat egituratan banatuta eta askotariko ardurekin.” (Barandiaran, 2011: 128)

Larrinagak azaltzen duen bezala, gisa honetako profesionalizazio prozesuak oso ohikoak dira gizarte mugimenduen bilakaeran:

“(…) denbora igaro ahala, mugimenduak instituzionalizazio maila jakinetara iristen dira euren bilakabidean. Horrela, gaur egun mugimendu gisa ezagutzen diren entitate batzuek enpresa egiturak dauzkate euren eraketan, eta eredu burokratikoak baliatzen dituzte antolaketan eta kudeaketan. Horrek ez du esan nahi ezinbestean erakundea eta mugimendua gauza bera direnik. Mugimendu bat era askotako erakundez osaturik egon daiteke.” (Larrinaga, 2007b: 79)

Eta arduren espezializazioa ere ohikoa izan ohi da: “(…) mugimenduen barne profesionalizazioak eta burokratizazioak bere adituen eta teknikarien prestakuntza dakar, are berezituagoa zenbat eta formalagoa eta eraginkorragoa izan erakundea bere helburuetan” (Larrinaga, 2007b: 82)

Ordura arte, gogoetak partekatu eta erabakiak mugimendu osoaren eztabaiden ondotik hartzen baziren ere, nukleo txiki batek, Garziak aipatzen zuen ‘Zaharren Kontseilua’k markatu zuen norabidea. Egitura handiagoa izatean eta ardurak espezializatuagoak, lidergoa bera banatzeari ekingo zaio, ordea.

8.4.3.2 2005eko krisia eta 2006ko gogoeta

Urte hartan lehendakari izendatu zuten Iñaki Muruaren hitzetan 2005eko txapelketa nagusiaren antolakuntzak gailur berri bat ez ezik krisi indartsu bat ere ekarri zuen: “Nire begietarako egon zen belaunaldi aldaketa bat, koiunturala, eta txapelketaren eraginez (...) Jende berria etorri zen, lan modu eta jakintza berriekin. Lan egiteko moduetan, estiloan, hiztegian eta hizketan, Elkartean bazegoen hierarkiari buruzko jarreran, denean izan zuen

eragina (...)” (Barandiaran, 2011: 114). Eta krisiaren osagai garrantzitsu bat belaunaldi arteko talka izan zen:

“[Murua hitzak] Nire edadetik gorako ia denak, pendrivea, klikatu, sagua... ezin dute harrapatu hiztegi hori (...) Ordura arte propaganda kanpaina zen. Orduan, merchandisinga. Eta guk: “Niri egidak euskaraz!”. Pausoa aldatuta harrapatu gintuen denok. Lehen aldia izan zen norbait jarri genuena marketin arduradun, txapelketarako. Eta hark egin zuen berea, eskatu zitzaiona. Leku aldaketa, eta lur berri bila joatea, erdiz erdi asmatu zuen (...) Baina bere hizkuntza, hori komunikatzeko garaian, ez zen guk ulertzeko modukoa (...) Eta lehengo estiloekin eta funtzionamenduari talka egin zuen; ez genuen jakin aurreikusten eta neurri zuzentzaileak jartzen, edo eragileak ondo uztartzen eta ezkontzen” (Barandiaran, 2011: 115)⁶¹⁰

Txapelketak izandako arrakastak berak eta arrakasta horren azpian eman zen lurrikarak kolokan jarri zuen Elkartearen sorreratik proiektua gidatu zuen lidergo: “(...) hain gora joan zen dena, hain handia izan zen burrunba, hogeitaz urtez Elkartearen lema eramandako jendea tokiz kanpo sentitu baitzen” (Barandiaran, 2011: 115). Eta jada prestatzen hasiak ziren errelebo graduala ere arriskuan jarri zuen: “(...) ondorio larriena izan zen ordezkapen naturala genuena, entrenatzen hasita genuena, bertan behera geratu zela [Murua hitzak berriro]” (id.: 115).

Ohi denez, barealdia etorri zen ekaitzaren ondoren, eta Elkartearen buruzagitzako belaunaldi aldaketa bideratzeko 2006ko azaroko 11, 12 eta 18an hausnarketa prozesu zabala burutu zen:

“Elkartearen historian erabakigune nagusietan egondako eragile ezagunenek — Iñaki Murua, Jon Sarasua, Jexux Murua, Andoni Egaña eta Koldo Tapia— Elkarreak ordura arte egindako bidea laburbildu zuten lehen egunean. Hurrengo bietan, taldekako lana egin zen, aipatu hiru alorretan, eta ondorioak osoko bilkuran eztabaidatu ziren.” (Barandiaran, 2011: 125)

Elkartearen zuzendaritzaren arduradun nagusi gisa Koldo Tapiaren tokia hartu zuen Aritz Zerainek belaunaldi aldaketak ez zuela etenik ekarri deritzo: “Etenaz galdetu didazu. Nik uste dut ez dela egon, batzordeetan, behintzat, ez. Elkarteko jendea, orain ere, barru-barruko jendea da, eta hor dago beti, edozertarako. Laguntza handia izan dugu, eta horrek ez du utzi etena sortzen” (Barandiaran, 2011: 128). Baina bai ikusten du 2006ko gogoeta haietatik aldi berri bati ekin zitzaioela, eta aldi berriaren marka garrantzitsuenetako bat profesionalizazioan sakontzea izango zela:

“[Zerain hitzak] Txapelketa horrek, eta lan egiteko ikuspegi ezberdinek, zauri batzuk utzi zituzten. 2006an gogoeta asteburu oso bat egin genuen Zarautzen, eta hor, ziklo berri baten hasiera bezala, 12 urteko ikuspegia jarri genuen, eta etorkizunean landu beharreko bidea zein izan behar zuen zehaztu.

⁶¹⁰ Kamioren eta Tapiaren energia eta pertsonalitate indartsuen talka aipatzen da xehetasun gehiago eskatzen hasita. Garziaren ikasle izana zen Kamio eta berak proposatu zuen komunikazio arduradun posturako: “Joseba Kamiok ekarri zuen iraultza. Nire ikaslea izandakoa zen. Koldo Tapiari esan nion komunikazio arduradun plazarako ikasle on batzuk bidaliko nizkiola eta tartean bat oso ona. Bera hartzen bazuten sekulako lana egingo zuela baina tentsioak ere izango zituztela. Eta halaxe gertatu zen” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26). Belaunaldi horren baitan Tapiarekiko ez ezik Kamiorekiko ere sinpatia ikus daiteke, ordea: Oso oroitzapen ona utzi zidan Kamiok. Ni oso *estajanovista* naiz eta bera ere horrelakoa zen” (A. Egaña, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26).

Horrekin batera, beste helburu bat izan zen lantaldea sendotzea, eta hortik etorri da berrikuntza nagusia.” (Barandiaran, 2011: 128)⁶¹¹

Profesionalizazio horren baitan komunikazio arduradun berri bat hartu zen, Esti Esteibar, baina kasu honetan modu iraunkorren, egunerokotasunerako, txapelketa handietarako bigarren profesional bat ekarriko zelarik errefortzu gisa. Bestalde, komunikazioa egiturako sail iraunkor bezala eratzea erabaki zen, herrialdeekin zehar-lerroan aritzeko asmoz: “Barne mailan, Bertsozale Elkartek ikasi zuen komunikazioa prentsa-bulego bat baino gehiago zela, batetik; bestetik, komunikazioaren indarrak jabetu zen. Tabernari bizkorrek dakiten bezala, ez da gehiago irabazten zerbitzari gutxiago jarrita, gehiago jarrita baizik” (Kamio, 2011b).

8.4.3.3 Ikerketa alorreko korapiloa

Belaunaldi aldaketak Elkartek betierekoa duen eztabaidarako joerari beste dimentsio bat erantsiko dio: proiektuaren inguruko zenbait alderdi ezbaian jarriko ziren.

Bertso-munduaren praktika finkatuenetik, egunerokotasunaren dinamiketarik, gehien urruntzen zirenek eragingo zituzten zalantza gehiago. Honela, esaterako, Unai Iturriaga modu honetan mintzo zen 2003an *Argian* eskainiriko elkarrizketa batean: “Baina bertsolaritzak ez du ematen etengabe aritzeko tesi doktoralak idazten. Uste dut denboratxo baterako nahiko teoria betekada badaukagula. Eta ez dut uste bertsolaritzak hamabost teorikorentzat ematen duenik. Nik uste batzuk errepikapen hutsean jausita daudela, eta ez daude hamabost” (Barandiaran, 2011: 93). Luzaroan bidea markatu duen lidergoaren ikuspegia doitzeko gogo bat ere egon zitekeen: “Jexux Mari Irazuk uste du beharbada gehiegi pertsonalizatu zela Elkarteen jarduna. Garrantzi gehiegi eman zitzaizela —edo zaiela— batzuen intuizioei (...)” (Barandiaran, 2011: 93) Planteatzen zena ez zen proiektuaren ukoa, honen baitako lehenetsun eta Elkarteen baliabideen banaketaren inguruko eztabaida baizik. Honela, nazioarteko saretzea bideratzeko Argo proiektua, esaterako, bertan behera gelditu zen⁶¹².

Eztabaida horrek 2008raino egingo zuen bidea eta Mintzola proiektua izango da hurrengo bidegurutzera. 2003tik egoitza nagusiaren eta Xenpelar Dokumentazio Zentroaren kokaleku berri baten bila zebilen Elkartea eta 2004an Villabonan jartzeko aukera sortu zen: Subijana etxea eraberritzeko asmotan zebilen Udala eta bertan izan zitekeen. Egitasmo potoloa zen, eta Udala ez ezik, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza ere sartuko ziren tartean. Elkarteari esaten zioten eraikinak ezin zuela eurentzat bakarrik izan, zerbait zabalagoari egin behar zitzaizela tokia, eta Elkartean ahozkotatasunaren inguruko ikergune baten proiektua

⁶¹¹ Ordura arte zuzendari lanetan ibilitako Koldo Tapiak berresten ditu hitzok: “Koldo Tapiak esan zuen, Elkartea utzi berritan, hasieratik pentsatutako Elkartea bideratuta zegoela eta orain beste fase batean sartzen zela” (Barandiaran, 2011: 151).

⁶¹² Barandiaranen liburuan azaltzen da eztabaida hainbat ikuspegitatik landuta eta behar besteko ñabardurekin. Handik hartutako pasarte esanguratsu batzuk baino ezin dira jaso hemen. Esaterako, Koldo Tapiaren azalpenak: “2003ko urte hartan batzuk tira egiten ari ginen fuerte ikusten ari ginelako ikerketaren bideak lehenetsuna hartu behar zuela, hor behar genuela azpiegitura sendoa sortu, bertsolaritzak, bertsogintzak eta euskalgintzak orokorrean zituen beharretik erantzuteko. Oso zail ikusten genuen, buruan genuen institutu baten itxura antzeko zerbait izan beharko lukeela, eta Unibertsitateak barruan egon behar zuela. Zaila zen, baina batzuk esan genuen: goazen. Baina beste batzuk, 2003ko topaketetako aurrekontua ikusi zutenean, 12 milioi pezeta (72.000 euro inguru), harrিতa geratu ziren. Zer kristo da hau? ‘Intelektual batzuen gorabeherak’, esan zuten” (Barandiaran, 2011: 99). Edota eztabaida beste puntu batera daraman posizioa: “Elkartean garbi dute, ordea, agente ia denek babestu zutela nazioartean eragiteko proiektua, besteak beste Kulturarteko topaketen antolaketan, baina, beste aldetik, beste nazioarteko eragileengandik, erantzun hutsa jaso zela. Eta eztabaida ez zela izan “intelektualak-ez intelektuala”, beste bat baizik: Elkartea prest dago beste zeregin batzuetarako, edo etxeko lanak oraindik amaitu gabe dauzka? (...) “Proiektua ezin da goitik behera garatu, zabalera ahantzita. Oinarri zabal hori zaintzen ez bada, non oinarrituko dugu gero eta handiagoa den jardunbidea?” [Jexux Muruaren hitzak]” (2011: 99).

hasten da forma hartzen (Barandiaran, 2011: 129-130). Orduakoak dira aurreko puntuan aipatu diren ahozkotasanaren inguruan hezkuntza arautuan burututako probak⁶¹³.

Horrelako proiektu bat garatzea ez da bi egunetan egin daitekeen zerbait. Eta lau urte geroago mahai gaineratuko zuen Joxerra Garziak Mintzolarenekin diseinua: “Ahozko tradizioaren behatoki dinamikoa eta, era berean, gaur egungo gizarteak ahozko komunikazioan dituen premia berriei erantzun egokia emateko sortutako erakundea” (Barandiaran, 2011: 131). Helburu zabal eta anbiziotsuak zituen planteamenduak: “Bilketa lanean, ahozko inprobisazio kantatua ez diren generoetara zabaldu, euskarazko ahozkotasanaren ekosistemaren mapa osatu, nazioartean dauden antzeko zentroekin sare bat osatu eta, koordinazio lanaren ardura bere gain harturik, lan honetan diharduten beste erakundeekin elkarlanerako bideak eta prozedurak finkatzea” (Barandiaran, 2008: 131).

Proiektua idatzirik zegoen baina lehen txinparta piztu zenetik forma hartu bitartean, 2004tik 2008ra gauza asko gertatu ziren Elkartean. Aipatu dira jada 2005eko krisia, 2006ko gogoeta kolektiboa, hainbat postu garrantzitsutan emandako aldaketa eta hainbat funtzioaren profesionalizazioak ekarri zuen egituraren hazkundea, kolektibitatearen funtzionamendua aldatuko duena. Honela azaltzen du Zerainek: “Elkartea sendotzeko egindako lan horren ondorioz, gaur egun sail bakoitzak bere arduraduna dauka, eta horrek ekarri du lehen gutxi batzuen ardura zena, bertikalagoa zena, orain banatuagoa izatea, horizontalagoa” (id.: 135).

Funtzionamendu horizontalago horretan eta belaunaldi berriaren lidergorekin, eman behar zen kontsentsu zabalagoan ez zen garbi ikusi Elkartek ahozkotasanaren ikerketaren ardura horri heldu behar dionik. Ur-handiegiak ote diren komentatzen da, bertsolaritzari buruzko ikergune bat abiaraztearekin nahikoa ez ote den: “Proiektuan, gainera, ez du bakarrik Elkartek parte hartzen, administrazioarekiko lotura handia dauka, eta eredu berria da beregaintasuna ikurtzat daukan elkarte batentzat. Zuzendaria aukeratzeko prozesuan izandako gorabeherak eta gaizki ulertze ugari ez dute aldeko giroa sortu” (id.: 135)

2009ko urrian inauguratu ziren Subijana etxea eta Mintzola fundazioa, baina proiektua bera nahikoa airean gelditu zen:

“[Zerainen hitzak] Gauza gehiegi nahastu dira: proiektuaren transmisioa falta izan da, egoitzaren erabilera, krisiak ere eragina izan du, Administrazio-Gizarte eragile arteko funtzionamenduan talka egon da. Gurea kontsentsua da, baina administrazioak kontrola behar du. Txoke egin dute funtzionamendu bi horiek, eta hor gabiltza hori guztia bideratu nahian. Guk hasieran irudikatu genuen Mintzola ez da gaur egungoa, baina, hala ere, bideratu daitekeela uste dugu, eta lan asko egin daiteke.” (Barandiaran, 2011: 136)

Proiektuaren helburuak mugatuagoak izango ziren, eta lehen pausoak ematea nekeza suertatuko zen: “[Zerainen hitzak] Etenengatik galdetu didazu, eta, beharbada, etenik handiena hauxe izan da. Hor ari gara etenaren ondorioak nozitzen. Mintzolak zer izan behar duen batzuen buruan bazegoen, baina, beharbada, Elkartean ez zegoen ondo barneratuta proiektua” (Barandiaran, 2011: 134).

Ikerketa alorrak motelaldia biziko zuen. Honela aitortzen du Ainhoa Agirreazaldegik, Ikerketa Saileko kideak, Garzia, Egaña eta Sarasuaren ekarpena eta ondorengo motelaldia: “Hiru horiek lan itzela egin zuten, baina hurrengo urteetan ekarpen teoriko horiek ugaritu eta zabaldu egin behar izan genituen, eta ez dugu egin” (Barandiaran, 2011: 98).

⁶¹³ Ik. 8.12.2 Nazioarteko harremanak: Kultur Arteko Topaketak (2003) eta *Oral Tradition* aldizkarian monografikoa (2007)

Motelaldia gora behera Elkarateak lanean jarraitu zuen alor honetan ere, eta lan hori bere fruituak ematen hasi zen hamarkada berriarekin. Honela, Mintzolak nazioarteko harremanak saretzeari berrekin zion: ‘Munduko kantu inprobisatua’ (2013) eta ‘Europa bat-batean (2015 eta 2016 artean) jardunaldiak antolatu zituen, eta Kulturarte Mapak (2016) Sareratu. Ahozkotasanaren inguruko gogoeta eta sormena garatzen zuten ‘Ahoa Bete Hots’ jardunaldiak ere jarri zituen martxan 2010etik 2015era bitartean, eta 2011tik 2013ra bitartean buruturiko prozesu parte hartzailean Bertsolaritzaren Ikerkuntzarako Plan Estrategikoa ere finkatuta gelditu zen, hainbat ikerketa lerro eta hauen arteko lehentasunak planteatuz. Bestalde, EHU, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Mintzolaren elkarlanetik Mikel Laboa Katedra sortu zen 2013an euskal musika, dantza eta bertsolaritzaren inguruko doktorego tesiak egiteko bekak edo ikerketa lan monografikoak sustatzeko laguntzak bideratzen dituen.

Badirudi beka eta laguntza hauek bertsolaritzaren inguruko ikerketaren alorra suspertzen hasiak direla.

8.4.4 Bertsolaria sortzaile: hibridazioa eta esperimantazioa

8.4.4.1 Autore bertsolaritza

Belaunaldi berriak taulatu gainean lidergo hartzearekin bertsogintza berri baten sorreraz hitz egin izan da han-hemenka. Gaia jorratu duten testuetan ‘autore bertsolaritza’ da errepikatu izan den kontzeptu bat. Bere sortzaile izaeraz geroz eta kontzienteago, aurretik egindako lanketa eta norbere ahotsa bilatzeko ahalegina geroz eta nabarmenagoa da bertsolari bakoitzaren ekarpenean. Honela dio, esaterako, Maialen Lujanbiok:

“Nik uste dut bertsolariak gero eta gogoeta gehiago egiten duela bere lanari buruz, eta gero eta gehiago bilatzen duela bere modua, bere ahotsa. Eta gogoeta horrek eragiten du eboluzio artistikoa, jardun guztietan bezala. Hemendik hamar urtera, seguru asko, dibertsifikatu egingo da bertsolari modua, bakoitza bere ahots propioa eta bere estilo horren bila joango delako. Uste dut hori izango dela bidea, autoretasuna edo. Baina seguruena ez da orain egiten dugunetik oso urrun egongo. Bertsolaritza ezin da literaturan bezain muturrera iritsi. Edo, behintzat, nik orain ez dut aurreikusten epe laburrera.” (Barandiaran, 2011: 70)

Bide hori jorratzeko formula zehatzak ere proposatu izan dira:

“(…) irtenbide aproposa autore bertsolaritza da. Urtean sei edo hamasei ekitaldi bertsolari bat, bi edo taldeak jorratu nahi dituen gaiak jorratuz, iruditzen zaien ikuspegi, tonu eta muturretik hartuta. Horrek beste lanketa eta jarduera bat eskatzen du, aurrez asko saiatzeari, bideak ondo finkatzea eta, gainera, plazan sorpresarako tokia utzi eta erabiltzea, testuingurura egokituz.” (Murua, 2002: 195)

Eta burutu izan dira gisa honetako eskaintzak. Adibidez, Unai Muñoa eta Ander Lizarralde 2013an eskaini zuten ‘Ez gara Palestinaz ari’ lanean, antzerkia eta bertsoa uztartzen zituzten, eta introspekzio ariketa modura planteatzen zen proposamena. Uxue Alberdik Bertsolarin egindako erreportajearen ‘Barrura begiratzeko bertsoak’ jarri zion lerro-buru gisa: “Oskola erantztea, kontzientziaren bidea, emozioen lanketa, benetakotasuna, zintzotasuna. Posible al da bat-batean?” (Alberdi, 2013: 66). Agerikoa da Muñoa eta Lizarralderen eskaintza erabat pertsonala izan zela.

Barrurako begirada teknikaz edota bertsogintzari buruzko gogoetaz haratago edukietara ere zabaltzen ari da, beraz. Beti eskaini izan du beretik bertsolariak, baina gutxika beste alorretako sortzaileek egiten duten bezala berea eskaintzera, eskaini nahi duen hori finkatzera jo du azken urteetan. Maiak ere zentzu berean gogoetatzen du, nolabait:

“Bertsolari askok gaur egun jadanik ez du kantatzen entzuleria osoak onar dezakeen horren arabera. Gaur egun gertatzen da bertsolaria publikora makurtu beharrean, publikoari eskatzea bere bertsoaren mailara igotzea (...) Bertsolaritzaren erronka nagusia gainerako adierazpide artistiko guztien antzekoa izango da. Garaiko munduaren (munduen) gainean, jendearen arreta geureganatzeko moduko eta moduan egitea gure obrak (...)” (Maia, 2017: 261)

Dena den, Lujanbiok aipatzen zuen moduan, gutxika nabarmentzen ari den joera bat da hau. Soziologoak oraindik ere etorkizunerako joera gisa ikusten du hamarkada bukaeran:

“Kontzertu batera goazenean ez gara musika entzutera joaten, musikari jakin bat baizik. Oraindik jende asko bertsolariak entzutera joaten da, baina, beharbada, Jon Sarasuak esan zuen bezala, gero eta gehiago joango dira bertsolari jakin batzuk entzutera, bertsolariak oro har entzutera baino. Joera interesgarria da.” (Zubiri, 2019: 32)

8.4.4.2 Hibridazioa eta esperimantazioa

Azaldu den bezala zikloa bertso musikatuarekin herriz herri egindako ikuskizun batekin estreinatuko du Xabier Amurizak, eta 1990eko lehen erdian Negu Gorriak edota Hertzainak bezalako rock talde mitikoekin partekatuko dute eszenatokia bertsolari gazteek. Hamarkada horretan bertan gisako hainbat kolaborazio eman ziren (Agirre, 2013a: 54-60). Ordukoa da, 1994koa, Andoni Egañak hainbat musikarirekin grabatu zuen bertso musikatuaren ‘Tximeletak sabelean’ diskoa, eta urtebete geroago beste hainbeste egingo zuten Aitor eta Jon Sarasuak ‘Fauna txiki bat’ekin. Unai Iturriaga eta Igor Elortzak Josu Zabalararekin 7 eskale taldean aritu ziren 1994tik 1998ra, eta bi disko kaleratu zituzten: *Bertso berriak, pobreziari jarriak* (1995) eta *Barrenkaleko bluesak* (1997). Jon Maiak hamarraldi hartan osatu zuen curriculum benetan ikusgarria da: letragile bezala, eta tarteka baita ahotsa jarritz ere dozenaka taldearekin kolaboratu zuen⁶¹⁴. Musikaren munduan egindako sartu-irtenetatik haratago Iturriagak, Elortzak, Maiak eta Josu Goikoetxeak Gasteizko ikasle garaietan, 1990eko hamarraldiaren lehen erdian *bertsotrama* asmatu zuten⁶¹⁵, bertsoa eta antzerkia hibridatzen dituen formatua, gerora hainbat hamarkadatarako bidea egin duena.

2000ko hamarraldian, ordea, beste abiada bat hartuko du beste alorretan ere probatzeko joera honek, eta esperimantazioak nahiz hibridazioak beste maila bat hartuko dute: trikitia, euskal dantzak eta bertsolaritza uztartu zituen ‘Upeletan erronka’, 1999an abiarazi zena; Jon Maiaren ‘Karidadeko Benta’ 2001etik 2007ra hiru disko kaleratu zituen; Alain Urrutia magoak eta Jon Martin bertsolariak 2002an estreinatu zuten ‘Bertsomagia’; 2003an umeentzako antzerkia eta bertsolaritza uztartuz Xabier Sukia, Gorka Tolosa eta Ibai Esoainek

⁶¹⁴ Gozategiren ‘Emoixtaxux moxutxuek’ famatua berea da, Hertzainakeko Gariren hainbat diskoren letrak egin zituen, Bizkar Hezurra taldearentzat ere idatzi zituen kantak, Mikel Urdangarinentzat, Trepí eta Arawak taldearentzat, Sociedad Alkoholikarentzat eta Selektia Kolektiboarentzat, Igelaren Bandarekin ere kolaboratu zuen Maialen Lujanbiorekin batera eta Joseba Tapiaren Zaldibobo taldearekin beste hainbat bertsolarirekin. (Maia, 2017: 129-181)

⁶¹⁵ Kasu honetan ere badago aurrekaririk: “Xabier Mendiguren idazlearekin izandako hizketaldi batean Tolosan 80ko hamarkadan antzeko zerbait, bertsoa eta antzerkiaren uztarketa, egina zutela deskubritu omen zuten. Tolosakoa jantziekin, *atrezzo* konplexu batekin eta antzerki obra baten parafernalia guztiarekin egiten zutela kontatu zien. Bertsotrama, aldiz, soilagoa izan ohi da normalean” (Agirre, 2013a: 59).

sortu zuten ‘Inaxito’ emanaldia; Xabier Erkizia musikariak, Judith Montero saxofonistak eta Maialen Lujanbiok 2006tik 2010era taularatu zuten ‘Ornitorrinkus’ experimentalak; urte berean Onintza Enbeita, Iratxe Ibarra eta Oihane Pereak bertsoa eta kabareta uztartuz eta generoaren gaia jorratuz abiarazi zuten ‘Bertsokabareta’; 2006tik 2007ra Ander Lipus aktoreak bertsolarien gai-jartzaile eta aurkezle gisa ‘Bertsotranpak’ antolatu zituen eta 2008tik aurrera berak aktore eta sasi-bertsolari gisa parte hartuz hogeitik gora bertsolariren kolaborazioaz hainbat urte egingo zituen ‘Erregea eta Bufoia’; Iturriaga eta Elortzak Zabalarekin 2007tik 2008ra bigarren proiektua gauzatu zuten disko eta guzti, Gu ta gutarrak; 2008 eta 2009an hainbat musikariek eta beste hainbeste bertsolariek bertsoa eta jazzak uztartzen zituen ‘Bertsojazz’ proiektuan hartu zuten parte⁶¹⁶; 2007tik 2010era osagai nagusitzat rapa, bertsoa, grafitiak eta Djak zituen Bertsound System ere aritu zen plazarik plaza⁶¹⁷; 2009an, Bertsound emanaldietan oinarritzen zen ‘MC Txirrita, bertsoaren eta raparen maitasun istorioa’ izeneko dokumentala aurkeztu zuten Xabier Silveira eta Unai Muñoak; 2008tik 2011ra Fredi Paia, Etxahun Lekue eta Arkaitz Estiballes Hudaltzainak taldean aritu ziren, bertsoak musikarekin eta kanta ezagunen doinuan emanez; hamarraldi berriarekin ‘Bertsotramarraskiya’n bertsotramari zuzeneko marrazkigintza gehitu zioten Paiatarrek eta Patxi Gallego marrazkilariak, alegia, bigarren belaunaldiko hibridazio bat sortu zuten; Beasainen ‘Bertsomovieda’ jarri zuten martxan, bertsoa oinarri zuten ikus-entzunezko laburren lehiaketa; eta bertsoetan oinarrituriko koreografiak zekartzan dantza garaikideko ‘Errimak oinetan’ ikuskizuna eskaini zuen Haatik konpainiak... (Agirre, 2013a: 61-93). Badago mugimendu honek guztiak hartutako zabaleroaren zantzu bat ematen duen datu kuriozua ere: “(...) azken esperimentuetariko baten, ‘Bertsoclow’n’aren, sortzaileak, Mendaroko *clown* bat, Andoni Egaña du izena” (Agirre, 2013a: 49).

Aurretik estreinaturiko bide bat zen baina bistakoa da belaunaldi gazteen etorrerarekin eta 2000ko hamarraldiaren erditik aurrera eman zela hibridazioaren eta esperimentazioaren alor honen eklosioa⁶¹⁸. Eta eztanda hori azaltzerakoan arrazoi ezberdinak aipatzen dira. Maiak, esaterako, fenomenoaren bertsolariaren egokitzeko gaitasunarekin lotzen du:

Sugandillak ginela uste genuen baina kameleoiak gara. Ohartu gara bertsolaritza –salbuespenak salbuespen, hamarkada luzeetan bere eremutxoan eguzkitan geldirik egon den kultur adierazpidea- plataforma ezin hobea dela kultura garaikidearen beste eremu, artista eta arte disziplinekin bat egiteko (...) izaera inprobisatzaileak unean unekoari eta lekuan lekukoari egokitzeko aukera paregabea ematen digu. Baina baita gure jarrera kritikoak eta erneak ere.” (Maia, 2017: 253)

Eta konexioen ugaritzea bertsolarien bagaje kultural berriarekin eta harreman sare antzagoarekin lotzen du:

“Bertso eskoletako belaunaldien sarrerak, bere ezaugarriak direla eta, naturaltasunez egiten ditu loturak. Gaur egun egiten den musika entzuten dugu, zinemara joaten gara, ekitaldi sozial, politiko eta kulturaletan parte hartzen

⁶¹⁶ Deigarria suertatzen da 1987a bezalako data goiztiar batean Iñaki Sarriugartek erakutsitako igarle sena:

“Egia bihurtuko al da, Amurizak 1980.eko txapelketa irabazi ondoren esan zuen harako hura: "Orkestaz eman nahi nituzke bertso-jaialdiak". Eta trikitiak, eta jazz musikaz. Zergatik ez?” (Elkarlanean, 1987: 100).

⁶¹⁷ Urte batzuk baziren bertsolari batek edo bestek euskarazko rap abeslariarekin puntualki topo egiten zuela. Estiballes aritua zen Norte Apachekoekin, Silveira Maisha MCrekin, edota Maia eta Muñoa Selektah Kolektiboko kide batzuekin.

⁶¹⁸ Estitxu Arozena izan zen hau iragarri zuena: “Geroago esperimentazio garai bat etorriko da. Bertso eskolak produkzio handia ematen ari dira produkzio hori ezin da gaurko bertsoaren egituran kokatu eta bide berriak urrutuko direla Iruditzen zait, esperimentazio garai bat etorriko dela” (Odriozola, 1996: 33).

dugu beste hainbat sortzailerekin batera (...) Oso isolatuak beharko genuke egon beste disziplinekin konexiorik ez izateko” (Maia, 2017: 253)⁶¹⁹

Lujanbiok bertsolaritzak lortutako estatusari ere erreparatzen dio:

“Baserri munduari lotzen zitzaion irudi bat izatetik Amuriza eta gero Egaña eta Sarasuara badago aldaketa bat eta aldaketa horrek kultur munduan beste toki bat hartzen lagundu du. Inguruko jardunekin parekotasunezko harreman bat lortu da, harreman pertsonalak ugaritu egin dira, kezka partekatuak agertu dira eta ondorioz modu natural batean sortzen da proiektu batzuetarako bat egitea.” (M. Lujanbio, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/17)

Baita bertsolariari, bere sortzaile izaeraren kontzientzia zorroztearekin sortu zaizkion behar berriei ere:

“Bestetik, lehen esan dugun gure autoanalisi horretan bat-batekoak izan ditzakeen mugak kontzientzia argiago batekin bizi ditugu, eta bide horretatik adierazi ezin dituzunak beste bide batzuetatik espresatzeko beharra sortzen zaizu. Artista edo egilearen gogo batetik sortzen da zabaldu behar hori, alegia, ‘asmatuko al nuke bat-batean esan ezin ditudan gauzak idatziz adierazten?’.” (M. Lujanbio, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/17)

Eta bestelako motibazioak ere ikusten ditu belaunaldi berriagoengan, besteak beste baita norbere tokia eraiki beharra ere: “Behin bide hori irekita, orokortu egin da hurrengo belaunaldietan, eta hor, pixka bat gaiztoa izanda, denetariko motibazioak egon direla esango nuke, probatu nahia, plazer hutsa edota baita norbere publikoa osatu beharra ere. Dena iruditzen zait zilegi” (M. Lujanbio, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/17).

Bertsolaritzaren sorkuntza eremuaren zabalkunde garrantzitsu honek gogoetaren bat eragin izan du, honen mugez inguruan edo etorkizunean har dezakeen bideari buruz (Agirre, 2013a: 101-108). Edozein kasutan bistakoa dirudi bertsolaritzarentzat aberasgarria suertatu dela: publiko trasbaseak lortu dituztela dio Maiak (2017: 253), bere sortzaile izaera hobeto ulertzen lagundu diola Lujanbiok (M. Lujanbio, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/17), edota bertsolaritzak eskaini dion aukera hau bertsogintzan jarraitzeko pizgarri bat izan dela beretzat Elortzak (Agirre, 2013a: 104). Gisa honetako proiektuei esker eman diren ehundaka emanaldik bertsolaritzari presentzia mediatiko sendoago bat eman diotela gaineratu daiteke.

8.4.5 Zutabegilea bertsolari eta bertsolaria kazetari

Basarri eta Amuriza bertsolari zutabegile bezala salbuespen bat izan baziren, eta Zavalak *El Diario Vascon* 1980ko hamarraldiaren bigarren erdian bertsolari klasikoenekin osotutako sareak fenomenoaren lehen orokortze bat ekarri ondoren, bertsolaritzaren prestigioak eta bertsolarien kultur mailak gora egin ahala biderkatuz joango dira euskal egunkari edo irratietan bertsolariek sinaturiko zutabeak. Kazetari lanekin ere Basarri eta Amurizaren salbuespenen ondotik alor horretan ari den bertsolari sorta handi bat etorriko da, hazkundera zutabegintzan eman denaren mailara iritsiko ez bada ere. Kazetaritza ikasketak burutu eta ofizio horretan aritzen den Amets Arzallusen hitzek erakusten dute bertsolari zutabegileen

⁶¹⁹ Igor Elortzak ere antzeko gogoeta eskaintzen du: “Bizkaian bere garaian bertsotan gurekin ibilitako hainbat jende gauza ezberdinetan dabil orain: Ander Lipus, Mikel Urdangarin, Unai Elorriaga, Leire Bilbao... Lopategiren eskoletan zaletasun artistiko ezberdinak genituen jendea batu ginen. Txirritari buruz baino gehiago hitz egiten genuen hitz Bruce Springsteeni buruz. Gogoan daukat Josu Goiko eta Xabi Ajuriarekin sutondoan Drakula irakurtzen egindako gaupasa bat... Giroa horrelakoa zen, bertsokak biltzen gintuen baina beste interes batzuk ere hor zeuden” kontatzen du Igor Elortzak.” (Agirre, 2013a: 97-98)

fenomenoak azken urteetan hartutako dimentsioa: “Agian errazagoa da ibili ez direnen zerrenda bat egitea. Noizbait ibili edo zerbait egin duena, nik Peña ere irakurri dut, *derby* batean nik bat eta berak beste bat egin zuen... Egongo dira bakar batzuk salbatu direnak, baina esango nuke ia denok egin izan dugula noizbait” (A. Arzallus, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/21).

Andoni Egañak hainbat orrialde eskaintzen dizkio (2004: 106-109) zutabegintza eta bertsogintzaren arteko parekotasunak topatzeari. Badu horretarako zilegitasunik, zutabegile gisa ibilbide oparoa izateaz gain, Rikardo Arregi Sarien lehen edizioan, 1989an, Sekziorik Onena saria eman baitzioten *El Diario Vascoren Zabalik* gehigarriko ‘Zimurdurak’ zutabeagatik. Honela, bateko nahiz besteko testuaren laburtasuna aipatzen du, zutabeak ere nahikoa presakako lana izan ohi direla, bigarren ahozketasunak ahozkoa eta idatziaren arteko mugak lausotu dituela, hartzailak antzeko denbora eskaintzen diola zutabe bati eta bertsoaldi bati, antzeko eskemak jarraitzen dela bien sorkuntzan eta bateko entrenamenduak besterako ere balio izaten duela: “Zutabeak idazten, irrati-kolaborazioak egiten, komikiak marrazten... ohitzen den bertsolariak ‘disimulazio’ lan handia egiten du. Bere entrenamendua ez da simulazio soilean oinarrituko. Bertsoak gainerako lanetarako balioko dion bezala balio diote gainerako lanek bertsoetarako” (Egaña, 2004: 109). Parekotasun horiek direla medio bertsolari zailduari erraza suertatuko litzaioke zutabe txukunak sortzea, eta emaitza txukun horrek esplikatuko luke bertsolari zutabegileen *booma*.

Arzallus bat dator Egañaren planteamenduarekin eta gehiago ere badio:

“(...) polita da bakoitzaren zutabegintza eta bertsogintzaren artean antzekotasunak atzematea. Unairen bertsoak beti bere firma darama eta bere zutabeetan ere ikus daiteke. Maialenen bertsoerako pintzela ere nabari da bere zutabeetan. Edo Egañaren bertsogintzaren estrategiak hartu eta bere zutabegintzan ere erabiltzen dituela ikusten da.” (A. Arzallus, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/21)

Hainbeste bertsolari zutabegileren presentziak saturazioa ere eragin izan du zenbaitenagan:

“Jende asko dago ondo idazten duena. Baina zuk behar baduzu norbait euskaraz aktualitateari buruz ondo idatziko duena egin dezakezu banan-banan bilatu eta hor bilatuko dituzu perla ederrak edo egin dezakezu, non dago saila? Bada, hemen. Gero ederra litzateke beste hainbeste jende egotea eta ez hainbeste bertsolari. Hala ere bertsolari gehiegi ateratzeak, Berrian esaterako, gure alde hitz egiten du, ez gure kontra. Ze askotan entzuten dut ‘bertsolari hauek toki guztietan daude’, eta gure kontra bihurtzen da. Baina gehiago da besteen gabezia gure akatsa baino.” (M. Lujanbio, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/17)

Bertsolari kazetariak ere, esan bezala, geroz eta gehiago izango dira. Eta batzuk oso maila onean dabilzanaren erakusgarri lortutako sariak: Jexux Mari Irazuk 2001 urtean *Hernaniko Kronikako* kide bezala irabazi zuen Argia Saria; Amets Arzallusi 2003an Rikardo Arregi Sariketako Kazetari Berria saria eman zioten Euskadi Irratiko ‘Goizean Behin’ programako kolaborazioengatik; 2007an Rikardo Arregi sariketako Sari Berezia Josu Martinezen eman zioten Euskadi Irratiko ‘Uhinetan Kantari’ programagatik; Agin Rezolari Info7 irrastian eskaintzen zuen ‘Bostetako Diligentzia’ magazinagatik eman zioten Argia Saria 2010ean, bertatik 2009ko Txapelketa Nagusiari egindako jarraipena espreski aipatuz; 2017an Rikardo Arregi Sari Nagusia Sustrai Colina irabazi zuen *Argiako* elkarrizketengatik; eta Uxue Alberdik eta Aitzol Barandiaranek 2018ko ikus-entzunezko saria eskuratu zuten 2017ko Txapelketa Nagusiari ETBn eginiko jarraipenagatik.

Bertsolari kazetarien ugaltze honek bertsolaritzari buruzko kazetaritzan ere barruko begirada estreinatzeko aukera ematen du. Honela, ikerketarako buruturiko elkarrizketetan bai ikusten dira hainbat abantaila aurrean dagoen kazetaria bertsolari bat izateari. Lujanbio, esaterako, honela dio: “Bertsotan ibili denak errazago identifikatu ditzake zure kezka eta zure jarrera batzuen zergatia. Egoera horretan egon da eta badaki zer den” (M. Lujanbio, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/17). Eta Sukiak, bertsolari kazetari gisa, antzeko gogoeta egiten du:

“Hor ematen diren egoera asko, nahi gabe bada ere, ulertzeko erraztasun handiago bat (...) Nire bertsolari karrera beste askorena bezala ez da oso urrutira iritsi, baina balio izan dit mundu hori barrutik ezagutu eta ulertzeko. Gaia asko sentitzen dut eta baita bertsolariek eurek bizi duten momentua ere.” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14)

Txanponaren infrentzua gehiegizko gertutasuna litzateke: “(...) bere ajeak ere izan ditzake, gauza batzuk errazago galdetzen dira distantziatik, esaterako” (M. Lujanbio, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/17). Laguna estualdian jartzeak eragiten duen estuasuna: “Ez dakit bertsolaria naizelako den. Izaera kontua ere izan daiteke. Baina bai da egia errespetu handiarekin eta pudore puntu batekin gerturatzen naizela bertsolariengana segun eta zer konturekin” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14).

Bertsolariak ez diren kazetari espezializatuek ez diote abantaila handirik ikusten. Joxean Agirrek, esaterako: “Terrenoaren ezagutzak ematen duen abantailaz aparte ez dut uste beste plusik emango dionik” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27). Eta Agirre, Azkune eta Hirigarainen ondotik bere jarduera espezializatuagatik saritu zuten azken kazetariak, Beñat Zamalloak⁶²⁰, desabantailak ikusten dizkio gehiago: “Nire ustez ez da abantaila bat. Alderantzikoa bai. Ni ez naiz bertsolarien laguna izan, oso harreman interesgarria izan dut zenbaitekin baina lagun izateraino ez gara iritsi: ez diet ezer zor izan, beraz, askeagoa izan naiz alde horretatik” (B. Zamalloa, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27).

Andoni Egañak, ordea, bestelako abantaila bat aipatzen du: “Horretan oso korporatibistak gara. Bertsolari batek eskaturiko elkarrizketari beti emango diogu baiezkua. Oholtza gainean arrisku berak konpartitu ditugu, badakigu ze lan polita eta kabroia den bertsolariarena... Horrek lotura berezi bat sortzen du” (A. Egaña, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26).

8.4.6 ‘Hitzetik Hortzera’ II: Elkartearen kontrolak orekara

8.4.6.1 Lantaldeen eta formatuen bilakaera

Etenetik itzuli ondoren lantalde ezberdinak aritu izan dira ‘Hitzetik Hortzera’ egiten. Eta talde bakoitzak bere berrikuntzak ezarri izan ditu formatuan. Bost zuzendari ezberdin izan ditu programak bi hamarkadatik gorako tarte honetan, eta, beraz, bost aldi bereiz daitezke:

1. Maite Odriozola zuzendari (1997-1998)

Etenetik itzultzean, esan bezala, Maite Odriozola jarri zen zuzendari eta Iñigo Aiestaran aurkezle. Erredakzioan Felix Irazustabarrenak laguntzen zien, Karlos Aizpurua ere ibili zen tarte batean, eta Unai Loidi nahiz Luis Oiartzabal erreportari lanetan ibili ziren. 1997 eta 1998ko denboraldiak hartu zituen lehen aldi honek.

⁶²⁰ Rikardo Arregi Sari Nagusia eman zioten 2014ean, 2013ko Txapelketa Nagusiari hainbat formatutan (prentsa idatzia, telebista, irratia eta sare sozialak) egindako jarraipenagatik.

Loidi eta Oiartzabalek eginiko atal bat datorkio gogora Irazustabarrenari: “Egin zaidazu bisita’. Bertsolari zaharrei joaten zitzaizkien bisitan. Pablo Txikiarengana joan ziren, edo Juan Inazio Begiristaini Aralarreko bere artzain bordan egin zioten elkarrizketa” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19). Eta Aitor Mendiluzeren kolaborazioa:

“Beste nobedade bat Aitor Mendiluzek egiten zuen bertso-eskolaren atala izan zen. Elkarreak funtzio didaktiko bat eman nahi zion programari eta horri erantzun nahian sortu zen atala. Arbel baten aurrean azaltzen zen Mendiluze. “Ba al dakizu zer den potoa?” botatzen zuen galdera eta azalpenak eman.” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19)⁶²¹

Gainerakoan Joxerra Garziak etenaren aurretik garaturiko eredu jarraitzen zen batez ere: “Agian grafismo aldetik izango zen landuagoa. Astean bi edo hiru saio grabatzen genituen eta hori zen oinarria⁶²². Ordutegia ere berdina zen, igande bazkalondoan, boladaren batean ostiral iluntzera aldatu bazen ere” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19). Asteko bertso-saioetako bertsoaldi hautatuez gain elkarrizketek, bertso musikatuek, bertso jarriek, eta zuzeneko emanaldiek osatzen zuten eskaintza (Gaztelumendi, 2009: 56)

2. Josu Goikoetxea zuzendari (1999-2005)

Zuzendari ez ezik aurkezle lanetan ere ibili zen Goikoetxea, lehen denboraldian lan horretan Arantza Hirigoienek ere lagundu zion arren: “Josu egon zen bitartean asko segitu nuen. Iruditu zitzaidan puntu ona harrapatu ziola, asko gustatzen zitzaidan aurkezterakoan zeukan puntu lakonikoa eta ikusten nuen nik hasitako proiektu beraren luzapena zela” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26). Jon Elortza zen errealizadore, Amaia Tejeria ekoizpen laguntzaile eta erredakzioan Amaia Agirre, Martin Aramendi, Patxi Egurrola, Josu Goikoetxea eta Felix Irazustabarrena ibili ziren (Enbeita, 2000: 96). Joxerra Gartzia elkarrizketatzaile gisa itzuli zen:

“(…) kolaborazio hori bai hartu nuen gustura, gozatu egin nuen (...) elkarrizketa indartsuena Josu Goikoren etapa horretan Euzkitzeri eginikoa izan zen. Ordu laurden bat izaten zen eta gordin-gordin azaldu zuen arrazoi ideologikoengatik baztertua sentitu zelako utzi ziola plazaz plaza ibiltzeari. Juan Mari Lekuonari egindakoak ere oso gustura utzi ninduen, baina hau potenteagoa izan zen.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Elkarrizketa nahiz erreportaje luzeak izan ziren nobedade garrantzitsuetako bat:

“Erreportajeak eta elkarrizketak txandakatzen hasi ginen. Denboraldiko hamar bat erreportaje eta beste hainbeste elkarrizketa emititu genituen. Sakon eta luze samarrak izaten ziren gainera, hamar hamabost minutukoak... Egun jada arraro ikusten dira horrelako luzerak... Garai

⁶²¹ Hasierako urte haietan bertan oso zalantzan jartzen zuen Garziak programak bertsozaleak hezteko hartu beharreko ardura: “Programak bereganatu duen ikusentzulegoa bertso-kontuan alfabetizatzen hasi eta gehienak asper-asper eginda uxatzea ere marka litzateke” (1993: 94). Eta Irazustabarrenak berdina dio ia bi hamarkada eta erdi geroago: “Galdetu beharko da ea telebista den horretarako bitartekorik egokiena. Nik esango nuke ezetz, sortzaileek eurek edo adituek emandako pisten bidez, zeharka egin daitekeela, baina zuzenean teorizazioekin hasteak ez duela funtzionatzen” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19).

⁶²² Telebistak plaza gisa funtzionatzea salbuespen bihurtu da, ‘benetako’ plazak izan dira emanaldiaren muina: “Ikasi genuen, adibidez, hobe dela telebista plazara eraman eta plazakoa telebistaz eskaintzea, telebista plaza bihurtzea baino. Joan-etorri gehiago eskatzen du, aukeraketa-lana, editajea, aurkezpena... baina errealitatearen isla zintzoagoa da telebista-platoan gerta daitekeen edozer baino” (Egaña, 2004: 162). Garziak hasiera samarretik ikusi zuen argi: “Telebista bera bertso-plaza bihurtzeko egin diren saioetan, emaitzak oso kaskarrak izan dira. Telebistaren lan-erritimoa eta bat-batekotasuna guztiz kontrajarriak daudela dirudi, eta artifizialkeria hutsa gertatu dira gehienetan, urtero-urtero egin diren santaeskeko saioak lekuko” (Garzia, 1993: 91-92).

hartan dezente entzun genuen bertso gehiago eta berriketa gutxiago nahi zuela jendeak.” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19)

Beste bat platotik kanpora grabaturiko bertso musikatuak:

“Etap honetan platotik kanpo hainbat emanaldi antolatu genituen, Oiartzungo Pagoan adibidez. Hasieran bertsolariak jarri genituen abesten, baina gero kantariak ekartzen hasi ginen Kantuzale Elkartearen bidez. Thierry Biscari etorri zitzaigun, Gorka Knörren semea ere bai, Oretako Arrate... Jarri berriekin ere egiten zen. Amets Arzallusen batzuek arrakasta handia izan zuten.” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19)⁶²³

Igande eguerditako ordutegia mantendu zen baina errepikapena astearte iluntzera pasa zen. Zuzeneko emanaldiak ere egin zituzten 2001eko nahiz 2005eko Txapelketa Nagusietan eta azken honetan Aramendi eta Peñagarikano aritu ziren iruzkingile (Gaztelumendi, 2009: 76).

Umorezko atal bat gelditu zaio Irazustabarrenari gogoan: “Etap hartatik grazia gehienetakoa egiten didana ‘Zirika’ izeneko atal bat da. Umorezko pieza ganberro samar batzuk ziren. Bertsoaldi zahar bat hartu eta irudi zaharrekin josten genuen. Bertsolariak zein animalien antza zuten kontatzen zuen bertso batekin egin genuen behin...” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19).

3. Felix Irazustabarrena zuzendari (2006-2008)

Saroi Jauregi eta Martin Aramendi izango dira aurkezleak eta kritikiko lanak ere egingo dituzte: “(...) txapelketen inguruan bai lortzen zen norbait komentarioak egiteko baina jaialdi arruntetan askoz ere zailagoa zen. Beraz, asteroko saioen inguruan platoan bertan aurkezleek iritzia emateko ahalegin bat egin genuen” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19). Bestalde, lantaldea txikiagoa izango da: “Errealizazioan Izaskun eta Erguin ibiltzen ziren. Erredakzioan Amaia Agirrek jarraitu zuen eta Jon Ansa ere sartu zen bukaera aldera. Talde txikiagoa zen aurrekoa baino, aurrekontuak txikitzen joan baitziren. Beherako joera hori izan da tonika normalena 1999an programa hartu genuenetik” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19)

Aurreko aldiarekin alderaturik edukiak soildu egiten dira. Erreportajeak eta elkarrizketak laburragoak dira eta bakanagoak: “Telebistaren eskakizunak dira, gero eta patxada gutxiago dago” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19). Bestalde, bertso-saio gehiagotatik jaso beharrean astean bi saiotan sakontzea erabakitzen da: “Kontzienteak gara hor gertatzen dena ahalik eta hoberen jaso behar dugula, eta kamera gehiago eramaten ditugu publikoaren erreakzioak eta abar grabatzeko...” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19). Hala ere, hibridazio eta esperimintuen irakinaldirik handiena ere urte garai hartakoa da eta ahalegin berezia egiten dute guztiak jasotzeko. Artxiboa gehiago erabiltzen hasten dira, aktualitateari jarritako bertso gehiago eskatzen, ‘asteko bertsoa’ ere azpimarratzen zuten, bertsolariak platora eramaten zituzten euren bertsoaldiak komentatzera, eta agenda oso landu bat eskaintzen zuten (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19).

4. Jon Artano zuzendari (2009-2012)

⁶²³ Bertso-jarriei hedabideetan toki bat egitea izan da mugimenduaren kezka jarraituetako bat. Garziak telebistarako hainbat formula proposatu zituen (1993: 92). Irazustabarrenaren iritziz lortu du programak toki hori ematea: “Esango nuke jarriei toki gehiago eskaini izan diegula telebistan paperean eskaini izan zaiena baino. Funtzionatu duela esango nuke, gainera. Ezin da programaren corpus zentrala jarriak izan daitezkeela planteatu, pildora gisa sartu behar dira, baina horrela eginda ikusleek estimatzen dute” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19).

Lehen denboraldian Amaia Uribek egingo ditu aurkezle lanak baina hurrengo hiruetan Artano berak. Ibilbide luze bat du jada programak bere atzean, 20 urte dira lehen emanaldiak egin zirenetik, eta ahalegin berezi bat egiten da berri handi bat emateko. Elkarteko arduradunek ikus-entzunezko hainbat profesionalen iritziak eta proposamenak jaso nahi izan zituzten: “(...) bai errealizazioari buruz, bai gidoiei buruz, bai aurkezpenei buruz... Hor pista batzuk eman zizkiguten, baina, batik bat, eskatu ziguten esperimentatzeko. Aukera eman ziguten gauza berriak egiteko [Artanoren hitzak]” (Gaztelumendi, 2009: 84). Artano bera ‘Sorginen Laratza’ eta ‘Horrelakoa Da Bizitza’ gisako proiektuetatik zetozen, eta errealizadorearen figura indartzeko apustua ere egin zuten: “[Artanoren hitzak] Aldaketa garrantzitsua izan zen errealizadore bat buru-belarri gurekin egotea. Izaskun Bernedo nik ez nuen ezagutzen, baina harekin egonez gero berehala konturatzen zara nolako pertsona den: ez daki geldirik egoten” (id.: 81). Plano motzak, erritmo biziagoa, aurkezleen dinamismoa... gaztetua hartu du eskaintzak: “(...) eskaintzen diren edukiak laburragoak dira. Pildora moduan eskaintzen dira. Baita astean zehar bertso-saioetan grabaturikoak ere. Zati are zatituagoak dira, nahasiagoak, batetik pixka bat eta bestetik beste pixka bat, dinamikoagoa. Beste estilo bat da” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19)⁶²⁴.

Emanaldi bakoitza gonbidatu baten inguruan ardatzea da beste berrikuntzetako bat:

“(...) idazle bat bertsozalea zena, aktore bat, edo musikari bat edo horrelako zerbait. Lehen urtean harekin interaktuatu eta harekin ikusten zuen programa aurkezleak, platoan bertan egonda. Bigarren urtetik aurrera, ordea, gu joaten ginen haren etxera, eta gonbidatuarekin paseatuz, trago bat hartuz eta abar eramaten zen programaren haria.” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19)

Eta bertsolaritzaren astez asteko gaurkotasunaren jarraipena ere arindu egin zutela gaineratzen du Irazustabarrenak: “Ordurako Elkartek Interneten ere egiten du aktualitate horren jarraipena, bertsoa.com eta bertsoplaza.tv martxan daude, eta ikusten da ez dela hain beharrezkoa ‘Hitzetik Hortzera’k ere funtzio hori betetzea” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19).

Igande eguerditako ordutegia mantendu egingo da, baina pare bat urtetan laburpen bat eskainiko da hor, eta programa osoa aurretik ostegun iluntzetan ETB3an eskainiko da. Taldean, aipatu bezala, aldaketaren bat eman da, Eneko Dorronsoro ere arituko da tarte batean erredakzioan, edo Eneritz Urkola, baina aurreko aldiko aurrekontu berarekin egin beharko dituzte berrikuntza hauek guztiak (Gaztelumendi, 2009: 89). Harrera ona izango du, ordea, formatu berriak, eta atal batzuek, Uria eta Casabalen lehiaketak, esaterako, oihartzun polita lortuko dute (Gaztelumendi, 2009: 84). Bestelako esperimentu bat da Irazustabarrenaren aldi honetako kuttuna:

“Egia esan dezente esperimentu egin genituen etapa honetan. Urte batean kamera ezkutu moduko bat ere egin genuen. Mintzolan bertan egin genuen, erredakzio gelan, eta taldekoak ateratzen ginen (...) Gionizatu egiten genuen baina dezente bat-batekoa zen (...) txapelketaren bat ere tokatu zenez garai

⁶²⁴ Garai hartan Maialen Lujanbiok ardurak zituen hedabideen alorra jorratzen zuen Elkarteko Sustapen Sailean. Honela baloratzen du berrikuntzarako egin zen ahalegina: “Sustapenean ibili ginenean zerbait dinamikoagoa egin eta telebistaren parametroetan gehiago sartzea izan zen apustua. Bertsoaren tempoa ezin zen galdu, ordea, eta anfibio moduko bat izan zen azkenean” (M. Lujanbio, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/17). Bestalde, Garziaren hitzetan ikus daiteke programaren sorreratik landu zela irudiak eman zitzakeen aukera ezberdinen kezka: “Bertso-saioetan topa litezke ikuspegi ez-ohizkoak, gertuko planoak, irudi bitxiak. Lehendik ‘Bertan ikusia’ liburuan Maite Gonzalezek jorratutako bidetik, hainbat «bertso klip» landu ziren 1989ko txapelketa nagusian. Ez dirudi oihartzun handirik sortarazi zutenik, ez behintzat hartutako nekearen parekorik” (Garzia, 1993: 92).

hartan “egingo al dugu porra bat”, “ze esango du jendeak ‘Hitzetik Hortzera’koak porra bat egin dugula enteratzen badira”, “tira, inor ez da enteratuko”... Polita izan zen.” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19)

5. Eneritz Urkola zuzendari (2013-)

Artano joan zenetik aurkezlerik gabe egin dira hainbat denboraldi, *off*-ahotsarekin (Ainara Lasa) bete izan dute programaren gidaritza hori, azken denboraldian Eider Perez aurkezle jarri den arte. Bestalde, azken denboraldiraino baita, gonbidatuengana bisitan jotzen jarraitu dute, baina, aurkezlerik ez dagoenez, taldeko kideak pantailan agertu gabe. Dena den, grabatutako saioetako bertsoaldi hautatuek jarraitzen dute programaren muina izaten.

Lantaldean eman da aldaketa garrantzitsuena:

“Garrantzitsuena izan da ikus-entzunezkoekin lanean ari ginen Elkartearen inguruko jendea talde berean egituratu garena. Batetik bertsoa.com eta bestetik bertsoplaza.tv zeuden, sarean lanean ari zirenak, eta batu egin ziren bi proiektuak. Sarea eta telebista ere bakoitza bere aldetik genbiltzan eta hurrengo pausoa bi alorrek batzea izan da. Denok denean gabiltza orain. Hedapen taldea deritza Elkartearen ikus-entzunezkoen ekoizpenaz arduratzen garen taldeari.” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19)

Zazpi lagunek osatzen dute taldea:

“Jexux Mari Irazu eta Beñat Gaztelumendi, bertsoa.com-etik datozenak; Felix Irazustabarrena ‘Hitzetik Hortzera’n ibilbide luzea egindakoa; Eneritz Urkola bertsoplaza.tv-n hasi, ‘Hitzetik Hortzera’tik pasa eta orain Hedapen talde horretako eragile eta koordinatzailea dena; eta soslai teknikoago bat duten Luis Gurrutxaga, Haritz Arrizabalaga eta Gaizka Azkarate. Besteak bertso mundutik komunikazioan murgildu baziren hiru hauek komunikazioaren mundutik murgildu dira bertsolaritzan, kameralaria, errealizadore edo editore gisa egindako lanagatik kontratatu dira.” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27)⁶²⁵

Perfil teknikoa zuten ardurak orain arte ETBk edo ekoiztetxe batek hartzen zituen, baina azken ziklo honetan teknikoak ere Elkarteko langile gisa integratu dira taldean, eta denek askotariko ardurak hartzeko joera ari dira indartzen, talde integral bat izateko:

“Denok batzen gara orain erredakzio bileretan. Eta administratiboki denok Elkarteko langileak gara (...) Lehen erredakzioa bai jotzen zen Elkartekotzat, nahiz eta formalki Lankuko kontratua izan, baina teknikoak profesional autonomo gisa ulertzen ziren. Eta perfil sortaileagoa dugunok ere ahalduntze bat izan dugu teknikari dagokionean ere. Aurretik erredaktore ginen batez ere, orain kamerarekin ere ari gara, edizio lan batzuk egin...” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19)

Azken aldi honetan ere aldaketa prozesu garrantzitsuan murgildu direla ikus daiteke, bada, eta aldirik aldi etengabea dela lantaldearen eta formatuaren aldaketa. Irazustabarrena bera da, bertsoarekin batera, beti hor, aldakaitz, mantendu den elementu bakarra: 1990etik gaurdainoko lantalde eta formatu guztietan hartu izan du parte, 30 urte betetzear den ibilbidea osatuz. Aurretik Joxe Mari Iriondok, Nikolas Aldaik, Laxaro Azkunek, Joxean Agirrek edo Felix

⁶²⁵ Azken denboraldian Txakur Gorria kolektiboak ere parte hartu du programaren erredakzioan, Beñat Gaztelumendiren tokian. Sortzaile kolektibo bat da hau eta Nerea Ibarzabal nahiz Malen Amenabar bertsolariak hartzen dute parte.

Ibargutxik ere hamarkadak irauin zituen jarraipena egin zioten bertsolaritzari kazetari gisa, baina bestelako gaiak ere jorratu zituzten euren lanean. Irazutabarrena izango da bertsolaritza gai bakartzat hartuta ibilbide luzeena egin duen kazetaria: “Buena, izan daiteke. Egin dudana apurra horretan egin dut behintzat” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19).

8.4.6.2 Alarmak itzali ziren

1988ko abenduan hasi zen ‘Hitzetik Hortzera’, etenaren ondorioz 1995eko eta 1996ko denboraldiak galdu ziren, beraz, 2018ko denboraldia amaitu bitartean 27 denboraldi eskaini dira guztira. Denboraldirik gehienetan 32 emanaldi eskaini izan dira, bakarren batzuetan 30, beraz, 850etik gora emanaldi izan direla kalkula daiteke. Eta emanaldi horiek 45 eta 55 minutu arteko iraupena izan dutenez, 700dik gora ordu emititu direla esan daiteke⁶²⁶.

Bide luzea egin du programak eta denetik eskaintzeko nahiz eskaintzaren inguruko mila iritzi, gogoeta nahiz proposamen jasotzeko aukera izan du. Bestalde, esan bezala, era guztietako probak egin izan dira formatuarekin eta programaren atzean dagoen antolaketarekin.

Honen guztiaren baitan joera jarraitu batzuk identifikatzea ez da erraza, baina horietako bat, garrantzitsuena ziurrenik, etenetik bueltan programaren inguruko erabakimenean eta sorkuntzan Elkarteak irabazitako pisua izan da.

Lehen pausoa garrantzitsua 1999an eman zen. Honela ekiten zion Zihara Enbeitak kurtso amaierako balorazioa jasotzen zuen erreportajeari: “Aurtengo ikasturtean, lehenengo aldiz, Bertsozale Elkarteak bere gain hartu du ‘Hitzetik Hortzera’ telebistako bertso programaren zuzendaritza. Digital Moviak etxeak ekoizita eta lan-talde gazte zein berriari esker (...)” (Enbeita, 2000: 95). Eta ikasturtea nota onarekin gaitu zuten urte hartako ikus-entzunezkoen alorreko Argia Saria eman baitzioten programari.

Hurrengo pauso handia 2011ean emango da, Lasarteko Ekoiztetxearekin moztu eta alderdi teknikoa ere Elkarteak bere gain hartzen duenean. Lankuren bidez erosten dira kamerak eta baita teknikariak kontratatu ere: “Erabakitzen da pixkanaka prozesu osoa geuk egitea dela onena. Eta egia esan hoberako izan da. Lankuk erosten dituen kamerak, esaterako, oso txukunak dira. Objektibo handia dute eta horrek argitasunerako edo publikora gehiago gerturatzeko aukera emango digu...” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19).

ETBn azken montajea baina ez da egiten egun. Joxerra Garzia zuzendari zela taldean errealizadore laguntzaile gisa sartu zen Pello Elizasuk egiten du. Horrek ez du esan nahi ETBk programan eskurik ez duenik, garai bateko tentsioak gaitu egin direla eta Elkartearen lantaldearengan konfiantza duela baizik. Izatez, urtero berritzen da Elkarte eta telebistaren arteko hitzarmena: “ETBrekiko autonomia ere geroz eta handiagoa izan da. Denboraldi hasieran beti adosten dugu eurekin programa nolakoa izango den, baina askatasun handia ematen digute. Suposatzen dut txarregia egingo bagenu jarriko luketela baldintza gehiago, baina ez da horrela izaten.” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19)

ETBn garai batean bertso programa zela eta pizten ziren alarmak itzalita daude, bada, aspaldion. Baita Elkartearen baitan piztu ziren guztiak ere. Azken hamarkadetan ez da apenas publikatu gaiaren inguruko eztabaida, kezka edo gogoetarik

⁶²⁶ Bilketari dagokionean programak egindako ekarpena ere kontuan hartzeko modukoa da: “Urtean 60 bertso saio inguru grabatzen dira Hitzetik Hortzera editatzeko. Horretaz gain, Elkarrizketak, plazetako saioak, erreportajeak, bertso musikatuak, agenda, berriak... Dokumentazio honetatik, parte txikiena publikatzen da eta gainerakoa artxibora doa (XDZ)” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 67)

Sarasuak aipatzen duen bezala, irabazitako autonomia litzateke, hain justu baretasun horren oinarrietako bat: “Elkarteak programaren kontrola eskuratu du. Kontrola izanda ez du zentzurik kontrolaren inguruko eztabaidak” (J. Sarasua, elkarrizketa pertsonala, 2017/X/06). Bat dator Egaña ere:

“‘Hitzetik Hortzera’ orain Elkarteak egiten duelako. Esan ohi den bezala, ‘contra Franco viviamos mejor’. Kontrola ETBk zeukanean beti geneukan kexa eta kezka publikoa. Orain geuk egiten dugunez, bada, etxe barruan konpondu behar kontu hauek (...) Internetarako pausoa ere Elkartearen eskutik eman da bertsoa.eus-ekin, eta horrek ere kontrol sentsazio handiagoa eman digu” (A. Egaña, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Esperientziak medioaren eraginak dimentsionatzeko aukera eman duela aipatu du, bestalde, Irazustabarrenak: “Arrazoi garrantzitsu bat izan daiteke medioa gehiago ezagutzen dela. Probatu da eta ikusi da zenbaterainokoa izan zitekeen hori guztia. Normalizatu egin da eta gehiago kontrolatzen dugu medioa. Kontrol handiagoa ere badu Elkarteak produktuarekiko” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19). Antzeko gogoeta dakar Egañak: “(...) esango nuke bertsolaritzaren izaera mediatiko hori normalizatu ere egin dela nolabait. 93-94etan bertigoa eman zigun zerbait berria zelako, hamar urte lehenagoko errealitatearekin alderatuz erabat ezberdina zelako. Urteak joan dira, ordea, eta ohitu egin gara” (A. Egaña, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26). Eta baita Garziak ere:

“(...) esperientziak erakutsi du asmatu egin zela, orain arte behintzat bertsoa ez delako desnaturalizatu. Batua eta euskalkien arteko aferarekin gertaturiko gogorarazten dit: baturik gabe ez zegoen etorkizunik, eta aldi berean batuak euskalkien dinamismoaren galera ekar zezakeen; berez batuak ez du zertan euskalkia suntsitu, ordea (...) egungo baretasuna neurri batean konstatazio horrek ematen duela iruditzen zait.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Azkenik audientzien dispersioa aipatzen da garai bateko kezkek arindu izanaren azalpen gisa. Arzallusek azaltzen duen bezala, 1990eko hamarraldiarekin alderatuz askoz ere eskaintza zabalagoa aurki daiteke telebistan, Internetek ere eraman du bere publikoa, eta, ondorioz, programaren eragina ez da hain erabakigarria: “Telebista erreferentzia bakar zenean, irratia eta prentsa ere hor zeuden baina, indar handia zuen bertsogintzaren ontzia batetik bestera mugitzeko. Telebistan agertzeak izugarritzko ikusgarritasuna zekarren eta horrek hainbat zehar ondorio zituen. Egun, dibertsifikazioarekin hori dena lausotu egin da” (A. Arzallus, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/21). Eta Lujanbioren azalpenak ere ildo horri heltzen dio:

“Garai hartan kezka handia zegoen, baita ere *boom* garaia zelako. Igande arratsaldetan 15:00etan kalera ateratzen zinen eta leiho guztietatik ‘Hitzetik Hortzera’ entzuten zen. Jendeak bazkaritarako ordua aldatu egiten zuen saioa familian ikusteko (...) Orain ez da hori egoera (...) Gauzak asentatu egin dira. ‘Hitzetik Hortzera’k ez dauka dimentsio hori eta finkatuta dago.”

1990 hamarraldiaren hasieran astero 150.000 eta 200.000 ikusle arteko audientziak izatera iritsi zen programa (Gaztelumendi, 2009: 89). Hamarkada bat geroago 20.000 ikusle inguruan zebiltzan, eta 2000ko hamarraldiaren bukaeran 10.000 ikusleetan egonkortu ziren, saio berezietan (Bertso Egunari edo Kultur Arteko Topaketei buruzko emanaldietan eta txapelketa garaian) 30.000ko langa pasa arren (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 66). Beherakada nabarmena izan da, beraz: “Neurri batean telebistak utzi dio energia nuklearra izateari, ez duelako audientzia kuantitatiboki hain garrantzitsua. Ez bakarrik ‘Hitzetik Hortzera’,

telebistaren audientzia oro har jaitsi egin da, beste aukera askorekin lehiatu beharra tokatu zaio eta diluitu egin da zeukan pisu hori” (J. Sarasua, elkarrizketa pertsonala, 2017/X/06).

Joera orokor honi ñabardura garrantzitsu bat egin behar zaio txapelketetako finalek lortutako datuekin. Honela, esaterako, 2009koaz honako lerro-burua zekarren *Berriak*: ‘418.000 ikuslek egin zuten bat unerren batean bertsolarien finalarekin’ (*Berria*, 2009/XII/15, 35 or). Eta 2017koaz honakoa: ‘Bertsolari txapelketako finalak 332.000 ikus-entzule izan zituen’ (*Berria*, 2017/XII/19, 37 or, Urtzi Urkizu).

Eta bigarren ñabardura garrantzitsua Irazustabarrenak egiten du, energia nuklear izateari utzi badio ere, hedapenerako funtsezko bitarteko bat izaten jarraitzen duela azpimarratuz:

“Ez dut uste jaitsiera etengabea izan denik. Bilakaera ETBk izan duen bilakaera orokorraren antzekoa dela esango nuke: beherako joera baina oraindik ere indar bat mantenduaz. Alegia, argi dago telebistak ez duela garai bateko eraginik eta audientzia daturik, baina programa 20.000 lagunek bakarrik ikusten badute ere, 20.000ko plaza batek plaza inportantea izaten jarraitzen du. Txapelketa garaian gorakada garrantzitsua izaten dugu gainera.

Gaur egun BEC beteko denik ez du inork dudarik egiten, baina bete egin behar da. Eta BEC ez ezik bestelako plazak ere bete beharra dago. Horretarako oraindik ere garrantzitsua da telebista.” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19)⁶²⁷

Badirudi, bada, bertsolaritzak bere arrakastarekin eta masa kulturarekiko hibridazioarekin elkarbizitza eroso bat lortu duela. Badirudi Programaren kontrola hartzearekin garai bateko zalantzak uxatzea lortu dela eta audientzien dispertsioak garai bateko kezkek leundu egin dituela. Hala ere, Sarasuak 1990eko hamarraldiko gogoeta eta ETBekin izandako etena aldarrikatu nahi izaten ditu: “(...) ez du aktualitatea debate horrek, baina uste dut Elkartearen historiako pasarte emozionario eta sakonenetako bat izan zela (...) Nik uste dut gogoetaren matriza interesgarria dela baina ikusten dut baita orain ez dela hori kezka nagusi bat eta ulertzen dut” (J. Sarasua, elkarrizketa pertsonala, 2017/X/06). Eta gainditutzat eman baino disko gogorrean gordetzearen aldekoa da: “Garaiak aldatu egiten dira, baina tentu hori hor dago gordea mugimenduaren material filosofikoan” (Sarasua, 2013: 291)

Aritz Zerainen arabera egun ere hartzen dira kontuan garai hartan azpimarratu ziren hainbat kontu: “(...) garai hartan landu ziren hainbat irizpide oso presente dauzkagu. Ez dugu saturaziora iritsi nahi, esaterako. Eta zenbait praktika zaindu beharra etenik ez duen ardura bat da. Oraindik ere zenbait tokiko telebistatan ikus daiteke saio bera etengabe errepikatzen dutela” (A. Zerain, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/22). Bat dator Irazustabarrena: “Badago halako kultura bat kontuz ibiltzekoa. Adibidez, ETBekin beti hitzartzen da zenbat errepikapen eman daitezkeen, eurek gehiegi errepikatzeko joera baitute” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19). Fokua zabaltzen ere saiatzen direla gaineratzen du: “Saioak aukeratzean aniztasuna zaintzea da irizpide nagusia. Jaialdi asko egin badugu elitekoekin, bada, saiatuko gara bertsolari gazteen bertso-poteo bat ere sartzen (...) ikusten badugu aspaldi ez dugula Araba edo Iparraldea grabatu, bada, hurrengoa Araban edo Iparraldean egingo dugu” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19). Baina garai batean baino umore gehiagorekin: “Jaialdietako antolatzaileek egiten dute guk baino

⁶²⁷ Maialen Lujanbiok ere antzekoa ideiak dakartza: “Egia da telebista jaisten ari dela, baina aldi berean oraindik badago jende bat telebista erreferentzia nagusizat duena (...) Telebista gure belaunaldian bada zerbait. Ezin dugu gutxietsi ere. Internet ondo dago baina besteak ere badu pisua. Gainera telebista publikoan presentzia izateak ere badu bere esangura” (M. Lujanbio, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/17).

gehiago fokua elitean jartzearena. Eta jokaldirik onenaren kontu hori... zentzugabeagoa litzateke jokaldirik txarrenak ematen hastea” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19).

Esan bezala eskaintzaren inguruko gogoeta eta eztabaidak ez du etenik izan. Kasik bertako profesionalak pixka bat nahasteraino:

“Egin den lana beti egin izan da Elkartearen irizpideen arabera. Zuzendaritza horretatik denetik eskatu izan zaigu eta batzuetan pendulu efektua ere bizi izan dugu: batean heziketa eskatu izan digu eta hurrengoan entretenimendua, derrepente inon ematen ez ziren bertsoak bistaratu behar ziren eta derrepente kalitatean jarri behar zen fokua... Honek nahasmendua ere sortu izan digu tarteka, baina bere alde ona ere badauka, ez baitigu utzi inoiz lo hartzen. Etengabeko iraulketa batean bizi izan da programa, onerako eta txarrerako.” (F. Irazustabarrena, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/19)⁶²⁸

Egiteko modu zurrunbilotsu hau gorabehera, eskaintza egonkortu bat da, eta ETBko programa beterranoenetako bat izango da ‘Hitzetik Hortzera’.

Bestalde, etxe bereko beste hainbat programatan ere lortuko du presentzia bertsoaritzak: ‘Mihiluze’, ‘Noaoa’, ‘Postdata’, ‘Bi errepidean’, ‘Horrelakoa da bizitza’, ‘Bertatik Bertara’, ‘EiTB Kultura’ (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 68-69). Baita, nagusiki txapelketa nagusia jokatzeko denean gaztelarazko kanalean egindako programa berezietan eta albistegietan ere (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 69).

Tokiko telebista euskaldun edo elebidunetan ere egingo zaie jarraipena txapelketei: Goiena, Goierri, Ttipi-ttapa, Urdaibai, Xaloe eta Zarauzko telebista (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 70-71). Gerora baita nazional mailako Hamaika telebistan ere, 2010eko hamarraldiaren bigarren erdirako Elkartearekin hitzarmena sinatu eta Beñat Garziak (Joxerra Garziaren semea) aurkezturiko ‘Bat-batean’ saioa eskainiko duena (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27).

8.4.7 ‘Hitza Jolas’: erreleboa uhinetan ere

8.4.7.1 Aldairen eskuetatik Sukiarenetara

Irratiko programa erreferentzialaren historia kontatzeko errazagoa da. Azken batean pertsona bakarrak osatzen baitu lan taldea. Nikolas Aldaik egin zuen 2006an jubilatzen arte, eta garai hartan Euskadi Irratian bekadun gisa zebilen Xabier Sukiak hartu zion erreleboa. Lekukoa nolako mimoarekin pasa zion gogoratzen du bertsolari oriotarrak: “Nikolas 2007ko udaberrira arte egon zen hemen, elkarrekin sei bat hilabete edo egon ginen (...) Luxu bat izan zen, eta gauza pila bat irakatsi zizkidan. Hasteko, alde guztietatik nabari zitzaion zerbitzu publikoaren bisioa” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14)⁶²⁹. Eta eskertuta dago: “(...) hasieratik, Nikolas ondoan izan nuen, nik bakarrik hegan egiten ikasi arte. Horiek horrela, perfektua izan zen erreleboa. Guztiz naturala. Aitapontekoa izan nuen: truku guztiak

⁶²⁸ Maialen Lujanbiok ere aipatzen du programak bizi izan duen sorgin-kurpila: Aurrena motela delako, dinamismoa behar duela; gero dinamismoa bilatzen duzu eta pixka bat friboloa dela; orduan eduki pedagogikoak falta dituela, edo bertso gutxi dagoela, edo bertso gehiegi eta erreportaje gutxiegi... Etengabeko autokritika baten istorioa da. Izatez Elkartea ere horrela da (...) nire ustez, gauza oso txukunak egin dira, eta egiten dira. Esaten dudana ez diot modu etsitu batean.

⁶²⁹ Elkarrekin egin zuten tarte horretan zenbait atalen ardura mantendu zuen gainera Aldaik: “Bera hemen zen bitartean esan nion “Nikolas, bada, tarte bat egin ezazu”. Agur historikoei buruzko hamar hamabost minutuko tarte batean murgildu zen, ‘Gaur agurrak’: Sarasuak 1991ko Gipuzkoakoan kantaturiko hasierako agurra, Egañak 93an lehen txapela irabazi zuenean botatako bukaerakoa... Horrelako gauza tematikoak egiten genituen, eta efemerideak ere bai asko...” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14).

erakutsi zizkidan...” Geroztik, erredakzioan, ba omen da Xabierri “Nikolas Txiki” deitzen dionik. Baita “XabiNiko” ere” (Martinez, 2012: 81)⁶³⁰

Izena aldatu zion programari, Aldairekin ‘Eta Hitza Jolas Bihurtu Zen’ zena Sukiarekin ‘Hitza Jolas’ da: “Aldaketa bai, baina hausturarik ez, berrikuntza bai baina jarraipen gisa” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14).

Giza Zientzien Komunikazioa egin zuen Deuston, eta eskertuta dago ikasketei ere:

“Nire kasua berezia da ze ni unibertsitatean 26 urterekin hasi nintzen. FP nuen egina, elektrizitateko adarretik, eta oso gustura eta harro. Obran, ostalaritzan, fabriketan ibili nintzen (...) Ikastea halako oparia iruditu zitzaidan, emozionatu eta zentzu guztiak biderkatu egin zitzaizkidala (...) Erasmusa ere egin nuen ingelesa ikasteko. Tarteka kezkatu ere egiten nintzen, “ezinezkoa da nik neure buruari hainbeste denbora dedikatzea” (...) Unibertsitate aurretik eta ondoren pertsona erabat ezberdina nintzen eta gaur egun irratiko profesionala banaiz ikasketa horiei esker da.” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14)

Gehienez bakarrik egin ohi duen lana da, baina txapelketetan ekarri ohi ditu kolaboratzaileak, bertso kritika egiteko, nahiago baitu bera lan horietan ez sartzea. Imanol Lazkano, Alaitz Sarasola, Karlos Aizpurua eta Aitor Mendiluze datozkio gogora. Eta noizbehinka izan du kolaboratzaile finkoagoren bat ere: “Aitzol Barandiaran denboraldi oso batean izan nuen kolaboratzaile. Izenik ez bazuen ere atal finko bat zuen, ordu laurden batekoa. Tematikoa egiten zuen: Gaur presoak, bihar inauteriak eta abar” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14).

Programaren oinarritzko eskema hainbat aldiz aldatu du urte hauetan guztietan: “Oso aldakorra izan da denboran zehar. Erritmoa eta bizitasuna izan da beti nire obsesioetako bat, gidoietan zerbait berria egitea bilatzen dut askotan, eta ondorioz etengabe aldatzen ari naiz” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14). Baina, konbinaketa ezberdinak egin arren, antzeko elementuen bueltan josten da programa, gehienak Aldaik ere baliatzen zituenak. Honela, asteko bertso-saioetako bertsoaldi hautatuak dira programaren muina. ‘Hitzetik Hortzera’ko arduradunekin gertatzen zen bezala ahalegina egiten du lurraldetasuna, adina, generoa, bertsolari maila ezberdinak kontuan hartuta fokua zabaldu eta oreka bat mantentzen (Martinez, 2012: 77) eta bertsoaldiak gehiegi moztu gabe eskaintzen (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14). Hortik aurrera, elkarrizketak eman izan ditu, albisterik garrantzitsuenak eskaini, efemerideekin loturiko bertsoak, entzuleen parte hartzearekin osoturiko lehiaketak... Txapelketei arreta berezia jartzen die, eta bestelako monografikoren bat ere egin izan du. Eta jolasak ere egiten proposatzen ditu, Aldaik baino gutxiago egiten dituela badio ere. ‘Bederatzikoa’ izena duena da azken aldian biderik luzeena egin duena: “(...) astero bertsolari bati eskatzen diot puntua jartzeko eta bertsolarien artean kate moduko bat osatuz bederatziko bat osatzen dute”

Ez da animatu garai batean Herri-Irratian Iriondok eta gero Garziak Euskadi Irratian egin zuten bezala bertsolarien arteko lehiaketak antolatzen. Eta bertsotara apenas ekarri izan duen bertsolaririk estudiora:

⁶³⁰ Martinezen testuan irakur daitekeenez Sukiak programaren ardura hartu aurretik ere hacia zen nolabait Aldai errelebo hori prestatzen: “[Sukiaren hitzak] ‘Ni Euskadi Irratira bekadun gisa etorri nintzen, uda arrauna emititzen pasatu nuen, gero gauza bat eta beste... Beste lankideak bezala, Nikolas pasilloetan gurutzatzen nuen, eta ni bertsolaria nintzenez, konplizitate handia sortu zen gure artean’. Aldai Sukiarengana joaten omen zen, bere aurkikuntzak partekatzen: “Etorri eta entzun ezak Uztapideren bertso hau, ea zer iruditzen zaiant!” (2012: 81).

“Nikolasek gehiago egiten zuen nik baino (...) elkarrizketa batetarako deitu, bertsoa eskatuko zaiola jakinaren gainean aurretik jarrita, eta elkarrizketa bukatzeko gai bat jarri bertsoarako (...) Ez zait asko gustatzen, ziurrenik bertsolaria naizelako. Badakit estudio batean bertsoan hastea edo telefonoz bertsoan hastea zeinen nekeza den... Dena den funtzionatu izan du. ‘Mezularia’ⁿ, adibidez, Maite Artolarekin, astero joaten zen Maddalen Arzallus asteko erreposoa egitea eta polito egiten zuen (...) burutik pasa izan zait bertso eskolen mugimendua hain indartsu ikusita (...) Elitekoekin delikatuagoa iruditzen zait. Proiektu bat bada adostua eta hitz egindakoa eta Elkarteak babesten duena egin liteke.” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14)⁶³¹

Bestelako proba batzuekin bai animatu da, ordea. Esaterako, asko erabiltzen ditu bertsolarietara sortutako letra duten kantuek: “Hor jatorria aipatzen dut kantua jartzearekin batera: ‘Arkaitz Estiballesena da kantu honen letra’. Edo bertsoaldia baldin badaukat, egin daiteke bertsoaren eta kantuararen arteko mix bat ere” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14). Edo arreta berezia jarri izan dio bertsolarietara kantu ezagunen doinuak erabili izan dituztenean ere: “Xabier Silveirak Amy Winehouserekin edo Beberekin egin zuen, Lujanbiok Laboaren ‘Martxa baten lehen notak’ kantuekin, Elortzak Manu Chahorekin... mila adibide daude. Hor egiten dudana da bertsolariari aukeraketa horren azalpena eskatu eta gero bertsoaldiarekin batera jarri” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14).

Hala ere bere estilo pertsonala batez ere programaren joskeran nabaritzen delakoan dago:

“Gidoiak egiteko orduan, hitzekin jolastea asko gustatzen zait, gehiegi agian. Badukat halako jario moduko bat eta oso erraz ateratzen zaizkit gauzak. Ez da nire buruari loreak botatzeagatik, baina uste dut ‘Hitza Jolas’ekin gauza ezberdin bat egin dudala gidoietan (...) Saiatzen naiz esplizituegia izan gabe, zubiak, bertso-saioen artean zubitxo batzuk montatzen. Entzulearentzat opari bat egiten saiatzen naiz programa bakoitzarekin eta iruditzen zait horrela josita politagoa dela.” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14)⁶³²

Garai batean ‘Hitzetik Hortzera’k telebistako arduradunekin izandako gorabeheren gisakorik ez du inoiz bizi izan. Autonomia osoarekin egin izan du lan:

“Etxeak esaten du bi programa egingo diren edo bakarra, edo larunbatean ala igandean izango den. Nire iritzia entzuten dute, noski. Txapelketak daudenean ere eseri eta hitz egiten dugu. Nik neure planteamendua egiten diet: zenbat saiotan egon beharko genukeen eta abar. Eta adostu egiten da (...) edukie dagokienean, zuzendaritzan ardura duen inork ez dit inoiz ezer esan.

⁶³¹ Egaña bat dator Sukiarekin, irratiko estudioa bertso-plaza deserosoa dela azpimarratzerakoan: “Telebistarekin gertatzen dena areagotuz, ez dut uste irratia plaza bihurtzeak bertsolariari onik egiten dionik (...) bertsolariarentzat ez da gauza tristeagorik eta irudimen-moztaileagorik, pareta zuriari eta argi gorriari begira aritu beharra baino” (Egaña, 2004: 166). Garziarentzat, ordea, joratu beharreko ildo bat da: “Irratia, bere malgutasunarengatik, bertso-plaza egokia izan liteke. Egiten dena isladatzeaz gainera, eragin egin dezake, irratirako propio kantuan jarri bertsolaria” (Garzia, 1993: 88). Eta proposamen zehatzak ere egiten ditu: “Bertsolari pare bat estudioetan, entzulego koskor batekin, telefonoak irekiz, jendeak iritzia eman, gaiak jarri, edo nahi duena esan dezan (...) Bertso-programetan ezezik, bestetan ere baduke bertsolariak tokirik. Debateetan, adibidez, bertsolari bakoitzak alde bana ordezkatzeko duelarik, bat-bateko nahiz alde aurretik eztabaidagaiari buruz jarritako bertsoekin” (Garzia, 1993: 89).

⁶³² Edozein aitzakiak balio dezake gidoi hauetako lehen hari-mutur gisa. Esaterako, bertsolariarekin zerikusirik ez duen albiste batek: “Adibidez, gaur ‘Uraren eguna’ da mundu mailan. Eta bertsoak jarri Egañarenak urari buruz, eta jarraian Uztapiderenak ardoari buruz” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14)

Lankideren batekin eduki izan dut noizbait anekdotaren bat baina zuzendaritzarekin ez.” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14)

Hamarkada hasieran irratiko edukiak sareko plataforma ezberdinetan nola zabaldu planteatzen zuen erronka berritza: “Interneten irudiak duen garrantziarekin ere, kezkatuta agertu da (...) Aldaik ez kezkatzeko erantzun dio. ‘Irudia osagarri baino ez du bertsoak. Bertsoa entzuteko da batez ere. Horregatik iraungo du. Hitzetik Hortzera baino gehiago, Hitzetik Belarrira doa” (Martinez, 2012: 84). Oraindik ere ematen dizkio lan batzuk: “Programa ‘Nahieran’era igotzen dut, ‘Bederatzikoa’ eta saioko bertsoaldirik onena, eitb.eus-era. ‘Hitza Jolas’en facebookeko kontuan ere zabaltzen ditut edukiak eta baita nire facebook eta twitter pertsonaletan” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14). Baina denboraldi honetan estreinatu duen irratsaioaren zuzenekoak da erronka berria:

“Bertsoa den gauza freskoarekin enlatatu sentsazioa izaten nuen grabatua egiten nuenean. Orain zuzenekoan beste girotxo bat sortzen zait. Igor Martinez de Lezea teknikaria aurrean dudala egiten dut, gainera. Oso ona da, gustatzen zaio egiten duguna eta *feeling* bat sortzen da, talde lana (...) Bestalde, zuzenekoarekin esperimendu batzuk ere egin ditugu. Ekaineko azken programan bertsoak eskatu genizkien entzuleei watsapez bidaltzeko. Aspalditik nenbilen horrelako gauzak egiteko gogoz.” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14)

8.4.7.2 Artxiboaren altxorra

Lekukoa pasa zionean artxiboaren funtzionamendua esplikatzen hartu omen zituen Aldaik lanik handienak:

“Hemen Aldaik antolatu duena harrigarria da. Ikusten ez den eta diruz ordaindu ezin den lan bat da, garai batean monastegietan egiten zenaren parekoa. Egon da orduak eta orduak entzun, apartatu, jaso eta editatu. *Nozis* sisteman egin zuen. Kristoren programa da gauzak bilatzeko: fetxa, bertsolari zehatza, gaia... hainbat irizpideren arabera funtziona daiteke.” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14)

Aipatu den bezala hainbat hamarkadatan iturri ezberdinetatik (Mujika, Iriondo, Zavala, Zaldubi eta Aldai) etorritako grabazioek osatzen dute altxorra. Jada, 1990 hamarraldiaren hasieran Elkartearen baitan egindako gogoetetan azpimarratzen zen Euskadi Irratiaren altxor hori: “Bertan erabiltzen duten altxorra handia da, ia 30 urte hauetako hainbat bertso saio berrentzuteko aukera ere eskaintzen baitute” (Siadeco, 1995: 60). Eta orduetik Aldairen lana gehitu behar zaio: “Horri, Nikolasen antolaketak ematen dion plusa gehitu behar zaio. Gauza bat da grabazioa eta bestea bertsoaldi hautatuak etiketatuta izatea. Artxiboa bertsoaldi hauek osatzen dute (...) *masterrak* ere, grabazio gordinak, jasota daude. Hortik ere atera liteke gehiago...” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14).

Oriotarrak normalean ez du bertso-saiorik grabatzen, Elkartearekin buruturiko hitzarmenaren bidez Xenpelarrek bildutakoaz baliatu da programa egiteko bertan hasi zenetik, baina hala ere emititzen duena bai gehitzen dio artxiboari:

“Emitituriko bertsoaldiak, saioka, gaiaren arabera eta bertsolariaren arabera sailkatzen ditut, baita emititurikoa bertso bakarra denean ere, eta programa bakoitzari fitxa bat irekitzen diot gidoi eta guzti gordetzeko (...) Dezenteko lanak ematen dizkit baina iruditzen zait merezi duela, lanerako tresna on bat delako batetik, bilaketa azkarrak egiteko, eta bestetik etorkizun batean bertsoak berreskuratzeko.” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14)

Izatez, artxiboa da bere lan-tresnarik garrantzitsuenetako bat. Honela, Aldairen eskolari jarraituz, efemerideekin harilkaturiko ‘Oroitzapenen Kaxoia’ da denboran zehar gehien luzatu duen atal finkoa: “Artxiboan begiratzen dut gaurkoa bezalako egun batez abesturiko bertso baten grabaziorik zaharrena zein den. Azken boladan 50 urte betetzen dira grabazio horietatik, asko Mujikak 1960ko hamarraldian grabaturikoak baitira. “Lizartzan gaur 50 urte Uztapidek honakoa kantatu zuen” aurkeztu eta bertsoak jarraian” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14).

Programa monografikoak sortzerakoan ere funtsezkoa suertatzen zaio:

“Adibidez, pare bat udatan, uda giroko gai bat hartu, horri buruzko bertsoak atera artxibotik eta programa osatzen nuen: hondartza, San Ferminak, zezenak... Bestalde, bertsolari bati buruzko monografikoak ere bai. Bertsolariari omenaldiak egin izan zaizkienean, adibidez, omenaldiko audioak, artxiboko bertsoak eta bertsolariari buruzko iritziak jasoaz: Joxe Agirre, Imanol Lazkano... Heriotzean ere bai, Joxe Agirrerri buruzkoa, Manuel Lasarteri buruzkoa... Joxe Lizasorena oso hunkigarria izan zen, baita Azpillagari buruzkoa ere... Beste sail bat bertsolari klasikoaren inguruan egindako monografikoak izan dira: Txirrita, Uztapide... Eta pasadizioekin ere egin izan dut bat edo beste. Imanol Lazkano oso kontalari ona da eta hainbat grabatu nizkion. Lazkao-Txikiren txiste batzuk ere baneuzkan, eta txisteak eta pasadizoak tartekatuz aleren bat.” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14)

Edota elkarrizketak hornitzeko ere erabili izan du:

“Bolada luze batean egin nuen bertsolaria estudiora ekarri eta artxiboan topaturiko bertsoak entzunez osatzea elkarrizketa. Ordubeteko saioa formula horrekin. Xabier Amurizari egin nion bat, Sustrai Colinari beste bat, Igor Elortzari, Beñat Gaztelumendiri, Aitor Sarriegiri (...) Elkarrizketa luze haiek beti berdin hasten nituen: artxiboan topatu nuen elkarrizketatuaren bertsoak ozaharrenekin. Gogoan daukat Mendiluzerena laurogeita pikukoa zela grabazioa, ume ahotsarekin oraindik. “Hor izango nituen ez dakit zenbat urte” hasten zitzaizkizun. Entzuten zuten ahotsa eta eurenganaino iristen zinen lehen segundotik.” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14)

Estimatu du bertso-munduak ‘Hitza Jolas’ en Sukiak egiten duen ekarpena. Finean, artxiboarena bezainbesteko altxorra da langintza honi oriotarrak jartzen dion pasioa. Honela dio Estitxu Eizagirrek, esaterako: ‘Hitza jolas’ adibidez iruditzen zait atzean lan handia dagoela. Gustu handiaz eginda dago, mimo handiz. Bertsolari batek egiten du eta motibazio horretatik ari dela iruditzen zait” (E. Eizagirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/19). Edota, honakoa gaineratzen du Andoni Egañak: “‘Hitza Jolas’ faktura oneko programa bat iruditzen zait. Asko lagundu du Xabier Sukia hor egoteak. Badu irizpidea eta lan on bat egiten du” (A. Egaña, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26).

8.4.7.3 Eskaintza zabala irratian II

Aurreko hamarkadan bezala zabalduz joango da bertsolariari buruz irratian egiten den eskaintza. Honen adierazlerik garbiena hamarkadaren bigarren erdian Euskadi Irratian bertan ‘Hitza Jolas’ programatik kanpo gaiari eskaintzen zaizkion tarteak dira: “Beste ikuspegi batetik eta modu ez jarraian lekua du bertsolariak programa hauetan: ‘Faktoria’, ‘Aperitifa’, ‘Albistegiak’, ‘Arratsaldekoa’, ‘Mezularia’, ‘Tartaria’, ‘Esanak Esan’, ‘Haiek Garaiak’, ‘EKT’, ‘Amaraua’...” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 60). Kasu askotan txapelketa dela medio (Herrialderen batekoa edo Nagusia) egingo zaio tarte hori, baina badaude bestelako

kolaborazioak ere. Honela, esaterako, Maite Artolaren ‘Mezularia’ saioan asteroko kolaborazioa osatzen dute Maddalen Arzallus eta Aitzol Barandiaranen artean asteko kronika egiten duten bina bertso eskainiaz. Edota , ‘Tartaria’, ‘Esanak Esan’ edo ‘Haiek Garaiak’ bezalako programetan txapelketaz kanpo ere egin izan zaizkie elkarrizketak bertso-munduko kideei. ‘Tartaria’ⁿ Estitxu Fernandez da zuzendaria, bertsolaria izandakoa.⁶³³

Radio Euskadin ere lortu izan da presentzia, batez ere txapelketa nagusiari jarraipena eginez (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 62).

Hamarkada bat geroago ere mantentzen da dinamiko hori. Sukiak kontatzen du aholkulari gisa lagundu ohi dituela ekimen horiek:

“(…) tarte horietako aurkezleen ekimenez ere sortzen dira, baina normalean kontsulta egiten didate. Baita elkarrizketaren bat prestatzeko ere. Aurreko batean Patxi Etxeberria eta Ane Labakari elkarrizketa bat egin nahi zieten eta aurkezlea etorri zitzaidan pista eske. Patxik liburua duela esan nion, bertan bere bertsoak biografia eta gaztetako argazkiak ateratzen direla eta abar. Oso gustura egiten ditut horiek denak.” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14)

Eskualde mailako hainbat irratik ere bertsolaritzaren jarraipena egiten du. Anboto, Arreta, Arrate, Bilbo Hiria, Bizkaia, Gasteiz, Hala Bedi eta Xorroxin aipatzen ditu Elortza, Sukia eta Muruaren lanak (2008: 64-66), guztiak ere Elkartearekin egindako hitzarmena dela medio Xenpelar Dokumentazio Zentroak hornituriko grabazioekin funtzionatzen dutenak. Gasteiz Irratian Ohiane Perea bertsolariak zuzenduriko ‘Uhinak kantari’ programa eskainiko da astero, eta Hala Bedi Irratian Manex Agirre bertsolaria izango da bertsoaren ingurukoak jorratuko dituenak. Gainerakoetan ez dago programa edo kolaboratzaile finkorik.

Hamarkada bat geroagoko mapa Esti Esteibarrek eskaintzen digu, Elkartearen komunikazio arduradunak:

“Irratian Xiberoko Botzak ‘Punttuka’ irratsaioa egiten du Xan Alkatek. Iparraldeko lau euskal irratietan zabaltzen da eta gero Arroza sarearen bidez baita bestelako tokiko irrati batzuetan ere. Radio Vitorian ‘Errota’ egiten du Beñat Zamalloak Arabako Elkartearekin eta gurekin elkarlanean. Hala Bedin ‘Bertxoko’ egin izan da, bertsoa eta umorea uztartuz, eta Arabako Elkartearekin lankidetzan baita (...) Bilbo Hiria irratian ‘Potxo’ irratsaioa eskaini dute. Bizkaia irratian umeek egiten dute ‘Zortziko Txikia’ irratsaioa, oso aspalditik datorrena. Euskaldi Irratian ‘Hitza Jolas’ Xabier Sukiak (...) Xorroxin irratian Julen Zelaietak ‘Bertsoinka’ saioa eskaintzen du. Tolosaldeko Atarian Ari Naizela bertako bertso-eskolak ekoizturiko irratsaio bat eskaintzen dute, Imanol Artola da gidaria...” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27)

Euskadi Irratiaz gain, Xorroxinek, Hala Bedik, Radio Vitoriak eta Bilbo Hiria Irratiak hitzarmen bana dute Elkartearekin.

Ikus daitekeenez, osasun ona du bertsoak irratian. Besteak beste, aspalditik datorren tradizio luze baten oinordeko gisa lortu da presentzia hori (Siadeco, 1995: 73; Egaña, 1993: 19 eta 2004: 165). Eta askotan esan izan da bertsoarentzat hedabide naturalena bera dela: “Ahotsa. Irudimena. Telebistak ere ematen du ahotsa baina telebistak beste arreta mota bat eskatzen du. Irratiak bertsoa bere soiltasunean eskaintzen du eta ederra da hori (...) Bertsoa eskaini eta gozatzeko oso medio egokia da” (X. Sukia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/14). Zeheztu

⁶³³ Elortza, Sukia eta Murua 2008ko bataz besteko eguneko 89.000 entzuleko audientzia egozten diote Euskaldi Irratiari (2008: 61). Bestelako audientzia daturik ez da lortu.

beharrekoa da, ordea, medio honetan normalean nahikoa baldintza eskasetan egin izan dela lan: “Guk dakigula, gehienetan pertsona bakarreko taldeak dira bertso-kontuez arduratzen direnak, askotan beste hainbat alor ere zaindu behar dutelarik gainera. Eta modu horretan jardunik, nahi izatea ez da nahiko izatea, nahi den hori egin ahal izateko” (Garzia, 1993: 88). Eta lan-baldintzek eragina dutela azken eskaintzan: “Bertsoarekin gauza asko egin daiteke irratian, baina jende prestatua, soporte tekniko eta finantziarioa behar dira gauzak txukun egiteko, jende helduari bertsoaren berri emateko, bertsoaren bide entzuleekin jolas egiteko eta gazte nahiz haurrak bertsozaletzeko” (Azkune, 2000: 71).

8.4.8 Bertsolari II: 15.000 orrialdetik gorako bilduma

8.4.8.1 Egoskorkeriaren erreleboa

Aldizkariaren sorreraren inguruko kontakizunean sorrera aldrebes samarra izan zuela kontatu da, eta Garziaren aipu bat jaso da hori ilustratzeko. Aipua apur bat gehiago luzatzen utzita gehiago ere badio bertan: “Horrelaxe hasi zen, kontrako eztairitik, *Bertsolari* aldizkaria, eta uste dut gutako inork ez zuela uste izango pare bat urte iraungo zuenik (...)” (Garzia, 2016: 206). Barrukoen eta kanpokoen harridurarako, ordea, 30 urteak betetzeko bidean da aldizkaria.

Kasu honetan ere belaunaldi aldaketa 2000ko hamarraldiaren bigarren erdian emango da. Joxean Agirrek 2009ko udararaino eutsiko dio zuzendari gisa, eta Josu Martinezek hartuko dio lekukoa 2012 bukaeraraino. 2013an Rikardo Idiakenez eta lan honen egileak hartuko dute ardura hori eta aurrerantzean bi lagun artean eramango da: Rikardo Idiakenez-Antxoka Agirre (2013-2014), Beñat Zamalloa-Antxoka Agirre (2015-2016) eta Beñat Hach Embarek-Antxoka Agirre (2017-2019).

Aldizkariaren sorreraren osagaiak egoskorkeria, militantzia eta bertsolaritzaren *boomaren* olatuaren indarra izan zirela azaldu da. Bigarren aldi honetan olatuaren indarra ahulagoa dela nabaritzen da: ez da gehiago 1991ko Durangoko Azoka hartan bezala harpide egin nahi duen jende ilararik sortuko stand aurrean; alderantziz, 1990eko hamarraldiaren bigarren erdian 1.700 harpideetara iritsi ondoren, gutxikakoa baina etenik gabea izango da gainbehera gaurko 1.100 harpideetara iritsi arte. Dena den, ziuurrenik zehatzagoa izango da beherakada hau olatuaren ahultasunari baino papereko prentsaren krisi orokorrari egozte. Datu bakarra ematearren, 2008tik 2013ra %31,9 jaitsi da Hego Euskal Herriko papereko egunkarien salmenta (Ramirez de la Piscina, 2015: 32). Sareko doakoa zabaldu den garai hauetan zaila da salmentei eta harpidetzei eustea.

Bestalde, laguntza publikoek ere behera egin dute. 2000 hamarraldiaren erdialdean urteko 35.000 euro inguruko diru-laguntzetara iritsi ondoren, 25.000 inguruan egonkortu da kopurua.

Gauzak honela, krisian dagoen beste alor batean egindako lanaren emaitzei esker lortu da 75.000-80.000 inguruko urteko aurrekontuak orekatzea: azken hiruzpalau urteetan hirukoiztu egin dira publizitateko sarrerak; urtean 7.000-8.000 euro ateratsetik, 21.000-24.000 ateratzera.

Aurreko aldiko bigarren osagai garrantzitsua, militantzia, leundu egin da, ez dago musutruk egiten den lanik. Baina ez da erabat desagertu, soldatapekoa den guztia batuta ez baita jornada oso batera iristen: Beñat Hach Embarekek hiru zenbakiren koordinazioa, webgunearen koordinazioa eta komertzial lanak egiten ditu jornada erdiarekin eta Zezilia Herradorrek administrari nahiz komertzial lanak jornada laurdenarekin. Neuk osatzen dut

lantaldea zenbaki baten koordinazioa, kudeatzaile ardurak eta komertzial lanak kolaboratzaile gisa gauzatuz.

Gainerako guztiak (testuak, argazkiak, ilustrazioak, euskara zuzentzailea eta maketazioa) kolaboratzaileen eskuetatik iristen dira.

Urtean behin Erredakzio eta Administrazio Batzordeetako bilera egiten da orain ere. Jende ezberdin asko pasa izan da berauetatik, baina badaude errepikatu diren izen batzuk: Jon Martin, Esti Esteibar, Ainhoa Agirreazaldegia, Amagoia Mujika... Bakoitzak bere etxetik egiten du lan baina berrikuntza nagusi gisa, taldea egite aldera, hilean behin aurrez aurreko bilera egiten dugu koordinazioan, administrazioan, kudeaketan eta komertzial lanetan gabiltzanok. Biltegia bai baina bulegorik ez daukagunez, eta aldizkariaren tradizioari jarraiki, kafe bat hartuz edo elkarrekin bazkalduz taberna eta jatetxeetan egiten dira hileroko bilera hauek ere.

Enpresa egitura ahul hau da, Joxean Agirrereren iritziz, proiektuaren indargune garrantzitsu bat: “Indargune nagusia azpiegituran, pertsonalean eta gainontzeko funtzionamendu gastuetan eraman duen jarrera ajustatua izan daiteke: presupostuaren zati nagusia aldizkariaren kalitate materialean inbertitu da eta hori irakurleak ikusi egiten du” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27). Indargune zelebren samarra suertatzen da, egia esan, baina egia da guztia produktuan inbertituta produktu erakargarri bat lortzen dela eta honek publizitatearen sarrera errazten duela. Bestalde, lasaitasuna ematen du une jakin batean ixtea erabakiaz gero inorentzat ez dela drama bat izango jakiteak ere. Izatez, gerrikoa estutzea tokatu denean (2014 eta 2015 urteetan, inoizko diru-laguntza baxuenekin, zuloa egin zen eta kolokan egon zen jarraipena bera ere) kexa gutxirekin egin ahal izan da. Parte hartzen dugun guztiontzat bigarren, hirugarren edo laugarren ardura-ogibidea izatearen abantailak.

Proiektuaren ahultasun garrantzitsuena ere enpresa egitura ahul hori bera da, ordea. Batetik, dezente zaildu du belaunaldi berriaren erreleboa, eskaintzeko zegoena, denetik eginda lanegun erdia, ez delako erakargarria. Bestetik, sorkuntza lan guztiak kolaboratzaileen bidez egin beharrak dezente nekezagoa bihurtzen du koordinazio lana: aldiro norbait berria lotu beharrak eta lotutako horrentzat aldizkariak bere ohiko lanaz aparte datorren karga bat izateak atzerapenak ekarri ohi ditu (beti da errazagoa egunero lantokian eta soldata baten truke ari denari eskatzea). Azkenik, horrelako egitura batekin nekezagoa suertatzen da proiektua indartzeko burutu beharreko bestelako lanak gauzatzea ere (harpidetza kanpainak, webgunea berritzeko egin beharrekoak, markari ikusgarritasun handiago bat ematea eta abar).

Ahulgune nagusi hau beste hainbatetan adarkatzen du Joxean Agirrek:

“Ahulguneak mila: ez du asmatu harpidetzari behar bezala erantzuten eta ez du asmatu inguruan talde sendo samar bat antolatzen ere. Aldizkariak ez du, bestalde, komunitate bat osatu beharrik sentitu, nahikoa komunitate da berez bertozaleen mundua eta horrek bakartzeko arriskuan jarri du etengabe. Elkartarekiko lankidetzaren oso inprobisatua izan da eta beste hainbat kontu.”
(J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27)

Sorrerako hirugarren osagai garrantzitsuari, egoskorkeriari, heldu behar izan zaio, bada, aurrera egiteko. Egoskorkeria erreleboa emango duen taldea osatzeko, egoskorkeria publizitatea hirukoizteko, egoskorkeria kolaboratzaileak lotu nahiz koordinatzeko, eta egoskorkeria lehen urteetako nobedadearen distira aspaldi maiztu zitzaion aldizkariari zenbaki bakoitzean txinparta berriak ateratzen saiatzeko.

Horretan behintzat asmatu da jatorrizko izpirituari eusten: aurreko hamarkadetan zenbaki bakoitza ehun orrialde inguruan ibiltzen bazen (eman ziren orrialde gehiagoko salbuespen batzuk ere), azken urteetan berrehun orrialde inguruan ibiltzen da.

Edukien aldetik atal finkoen ugaltzea izan da bigarren etapa honetako berrikuntza nagusia: Patxi Uharteren tira komiko batekin irekitzen da beti zenbakia ('Zaldi Eroaren Errimak'), eta egile ezberdinek bete izan duten komikiarekin itxi ('Bertsokomik'); iritzia jorratzeko bertso-munduko bi kolaboratzaile finkok gai baten inguruan eztabaidatzen dute ('Ttakun eta Herren'), webguneko zortzi blogari-bertsolarien testu bana papereratzen da ('Zortziko Haundia') edota bertso-munduaz kanpoko norbaiten artikulua ere badakar zenbaki bakoitzak ('Kanpotik'); prentsan gaiaren inguruan irakurritako interesgarrienak ere biltzen dira hemeroteka batean ('Bertsolaritzaren Hemeroteka'); atzerriko gisako fenomeno berri ematen duena atal finko bihurtu da ('Urrundik'), baita bertsolaritzaren inguruko ikerketaren berri ematen duena ere ('Ikerketa'); bertsolaritzaren historia urrun nahiz hurbilarekin loturiko hainbat puntu fisikoki lotzen dituen txango bat ere proposatzen da ('Bertso Ibilbideak'), eta bertso-munduko beteranoenei tarte bat eskaintzen zaie ('Idazmakinez').

Horri guztiari zenbaki bakoitzean erreportaje, elkarrizketa edo kronika luze gisa lantzen diren bi edo hiru gai nagusi gehitzen zaizkio. Eta gai nagusia izan denaren inguruan bertso-jarriak ere eskatzen dira.

Beraz, aurreko hamarkadetan baino mardulagoa da ateratzen dena. Eta mardultasun hori testuak luzatetik baino testu ezberdin gehiago pilatetik datorrenez, baita koralagoa ere: sinadura gehiago eskaintzen du zenbaki bakoitzak eta monografiko gutxiago ateratzen da.

Estiloari dagokionean jarraitasuna eta berritasuna ikus daitezke. Jarraitasuna estetikan, Txema Garzia Urbinak jarraitzen baitu diseinua nahiz maketazioarekin, eta Conny Beireutherrek argazkilari erreferentzial gisa. Izatekotan, komiki eta ilustrazioen presentzia handiago bat ikus daiteke. Gainerakoan betiko estetika bizi bezain zaindua mantentzen du aldizkariak. Eta berritasuna gaien aukeraketa eta tratamenduan. Aldizkari serioagoa da azken urteetako: "Aldizkari tematikoa zen eta da, baina nire irudipena da gero eta espezializatuagoa dela, ikerketak eta gogoetak gero eta leku gehiago dutelako bere orrialdeetan" (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27). Aldizkari arduradun berrion gustuekin baino zerikusi gehiago du honek, ordea, bertsolari belaunaldi berrien jarrerarekin. Azaldu den gisan analisis gehiago sakontzeko ohitura dute gaurko bertsolariek, kontzienteago ere badira euren sortzaile estatusaz, eta aldizkariaren deia erantzuterakoan geroz eta buelta gehiago ematen dituzte: baiezkoa ondo neurtutakoa izaten da normalean, eta askotan proiektu pertsonal landu bati buruz, edota ikerketari nahiz jardunaldi batzuei buruz hitz egiteko emandakoa. Arraroagoak dira gai arinagoetan parte hartzeko baiezko militante edo jostariak:

"(...) gu gatoz ezer ez ginen garaitik, zabaldu beharra zegoen eta hedabideek eskatzen zuten edozerri baietz esaten ohitu ginen. Azken hamabost urtetan sakontzen ari dira, eta hedabideetatik eskatzen zaiona sakontzeko ez bada igual ezetz esaten dute (...) beraiek egin nahi duten hori garatzeko lantze prozesuan daude eta ondo kontatzeko kapaz ez diren bitartean nahiago dute ezer ez esan." (A. Egaña, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26).

Freskotasuna galdu du, bada, aldizkariak zentzu horretan. Hala ere galera ez da erabatekoa. Oraindik ere testu freskoak aurki daitezke, esaterako, txapelketa alternatiboei buruzko erreportaje edota Bertso Eguneko parrandaren kronikan. Gainera, askoz ere errazagoa da

edozein gairi buruz oso txukun, eta ondorioz freskotasunez, idazten duten bertsolariak topatzea.

8.4.8.2 Bilduma bezala hartutako balioa

Kritikak gora behera, aldizkariari beti aitortu zaio kalitatea. Honela dio, esaterako, Joxean Agirre bere etapa agortzeaz zela idatziriko testuak: “Bertsozaletasuna eta paperezko hedabideen kasuan ezin dezakegu aipatu barik utzi *Bertsolari* aldizkari espezializatua. Aurrekariak aurrekari (Elkartearen inplikaziorik barik sortu izanak edo tartean-tartean izan diren desadostasunak) eta iritziak iritzi, bertsolaritza lanketa jarraitu eta zaindua egiten duen aldizkaria da” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 102). Eta Elkartearekin egon izan daitezkeen desadostasunak ez dira inoiz kezagarriak izan, jarraian ikus daitezkeen bezala:

“Bertsozale Elkartearikiko hartu-emana: handia hasieratik. Elkartearen zenbait lan ale monografikotan atera ditu: Bat bateko bertsolaritza liburuak lau hizkuntzatan, Txapelketa Nagusia 2001 liburua, Bertsolamintza 2002 eta 2005eko gogoeta jardunei eskainitako monografikoak... aipagarrienak. XDZ-ko ondarea erabili eta berea (argazkiak) aportatzen du. Proposamenetara oso-oso irekia.” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 74)

Aipatu den gisan horitasuna eta arinkeriariarena izan da aldizkariak egin izan den karrikatura, eta luzaroan iraun du honek, kasik gaurdaino, karrikatura hori eragin duten lanek hamarkada pareta beteta daukaten arren:

“Oso ale politak egon izan dira bai estetikoki eta bai edukiz. Baina arintasunera jo duten lan batzuek markatu dute bere irudia, jolas irudi horrekin gelditu izan da. Ez dakit sakonera egin behar duen edo arinera, ez dakit buelta bat behar duen ere, baina esango nuke zabaldu den irudipen horrek, neurri handi batean egiazkoa ez dena, ez diola onik egin.” (M. Lujanbio, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/17)

Ohiko bi balorazio horien ondoan, ordea, kalitatearena batetik eta arinkeriarena bestetik, hirugarren alderdi bat ere, aldizkariak hartutako balio dokumentalarena, azpimarratu izan da pixkanaka azken urteetan. Zentzu horretan, honela dio Jon Sarasuak, esaterako: “*Bertsolari* aldizkariari, berriz, kolekzio gisa ematen diot nik balioa. Etxean balda luze bat hartzen du eta kolekzioak berak duen balioa handia da. Gauza asko atera dira, bertsolaritza dimentsio gutxi faltako dira zuen aldizkari horretan” (J. Sarasua, elkarrizketa pertsonala, 2017/X/06). Ainhoa Agirreazaldegiren hitzek ere badute horrelako jite bat: “(...) denboraren perspektibatik, *Bertsolari* aldizkaria horixe dela esango nuke: etengabeko apustua, proiektuetan sinesten zen militantzia garai itsuaren eskutik elikatu dena, bertsozaleoi egin digun ekarpena distantziatik begiratuta bakarrik neur daitekeena” (Agirreazaldegia, 2016: 15). Baita Xabier Amurizak eskainitakoek ere:

“*Bertsolari* aldizkaria beti gustatu izan zait. Gauza betegarriak ere baditu, baina ondo egindako aldizkari bat dela uste dut, gauza interesante asko dituela (...) ikusten dut bertsolaritza ibilbidearen, gogoeten eta abarren ispilu izan dela. *Bertsolari* gazte pilo bat ere agertzen da gainera bertan. Fenomenoaren irudi orokor eder bat ematen du.” (X. Amuriza, elkarrizketa pertsonala, 2017/VIII/02)

Badaude aldizkariaren balio dokumentala, bilduma gisa hartu duen balioa azpimarratzeko motiboak, urteen joanarekin altxor garrantzitsua pilatzen joan baita hau ere.

Honela, 2018 bukaera arte, bertsolaritzari buruzko 1637 testu argitaratu ditu aldizkariak. Ikerketa honetarako egindako bilketan ikusi ahal izan den bezala 1980 aurretik ia 160 urtetan bertsolaritzaz argitalpen guztien artean argitaraturikoen kopuru totala 4000 testu ingurukoa dela kontuan harturik bada zer bait. Eta aldizkariak gaiari buruz argitaratutakoak 15.346 orrialde betetzen dituela dioen datua ere bada esanguratsua⁶³⁴.

Bestalde, testu horietan 941 protagonista ezberdin identifikatu daitezke, hauetatik 679 bertso-mundukoak, 115 atzerriko gisako fenomenoetako inprobisatzaileak edo fenomeno hauen inguruko adituak eta 15 bertsolariekin elkarlanean aritu diren beste sorkuntza alorretako egileak (beste 132 ezin dira sailkatu aurreko kategorietan)⁶³⁵. Protagonista hauetako gehienek ahotsa eman zaie nolabait, eta askotan argazkia ere badakar aldizkariak.

Izatez, urte guzti hauetan 10.000 argazkitik gora pilatu ditu aldizkariak. Esan bezala Xenpelar Dokumentazio Zentroari pasatzen zaizkio argazki hauek guztiak. Dokumentazio Zentroan ez bezala paperean jasota eta kolokatuta gelditzen dira, ordea, eta aldizkariaren 110 zenbakitik gorako bildumak bertsolaritzaren azken hiru hamarkadetako argazki album erraldoi bat osatzen du⁶³⁶.

Argazkiak baino gehiago argitaratu ditu, ordea, *Bertsolarik*. Txapelketa Nagusiko finalistek finalari buruz egiten dituzten kronikak, esaterako, tradizio bihurtu dira, eta historiako gelditzen dira testu horiek. Honela, garai bakoitzeko protagonisten, proposamenen, gogoeten eta eztabaiden jarraipen bat egiteko aukera ematen du, bertsolaritzaren historia hurbila ikertzeko iturri oso baliotsua izan daitekeelarik.

Neurri handi batean bertso-munduak idatzitako historia bat da gainera. 392 sinadura ezberdin topatu daitezke urte hauetan *Bertsolarin* argitaratutakoak, eta horietatik 185 (%47,2a) bertsolariak dira. Beste 76 (%19,4) bertsolariak izan gabe Bertsolaritzaren Datu Basearen agertzen dira (gai-jartzaile, epaile, eragile eta abar), alegia, bertso mundukoak dira. Bien batura ikusita (%66,6) tokitan gelditu dira kanpoko begirada nagusi ziren garaiak⁶³⁷.

Esan bezala, paperekoaren etorkizuna ez da batere garbia:

“(…) paperekoaren desagertze data iragartzera ere iritsi izan dira zenbait aditu. Martínez Albertos irakasleak 1998an esan zuen 2020an gertatuko zela. Eta Jeff Jarvis Interneteko aditua bat dator data horrekin, bere iragarpena askoz ere beranduago burutu bazuen ere, 2007an. Philip Meyer (2004) kazetari eta Ipar Karolinako Unibertsitateko irakasleak, aldiz, 2043an jarri zuen mugarrira. Data eta apustuak gorabehera, inork ez du zalantzan jartzen gaixoaren larritasuna.”
(Agirre, Aiestaran eta Zabalondo: 2015: 105)

Eta etorkizun horren aurrean bilduma gisa hartutako balioa izan liteke papereko aldizkariaren indar-gune nagusienetako bat. Izan ere paperekoak objektu gordegarri gisa balioren bat duen neurrian bakarrik iraungo duela irudika daiteke. *Bertsolariren* zenbaki bakoitza, bere dimentsioetan aldizkari baino liburu bati gehiago gerturatzen zaionez, kalitatezko produktu

⁶³⁴ Datuok aldizkariaren hustuketatik atera dira. Ik. eranskinetan X. *Bertsolari* hustuketa (1991-2018) eta XI. *Bertsolari* datuak eta grafikoak (1991-2018)

⁶³⁵ Bertso-munduko 115 emakume dira protagonista, protagonista guztien %12,2. Oraindik ere oso urrun gelditzen da, parekidetasuna, baina hemerografia historikoan topaturiko % 0,6tik dezente egin da gora behintzat.

⁶³⁶ 1990ean plazaratu zen bertso-eskoletako bertsolarien belaunaldia haurtzarotik nerabezarora, nerabezarotik gazte izatera eta gazetetasunetik heldutasunera nola pasa den ikusi dute *Bertsolariren* orrialdeek. Baita gainerako belaunaldien bilakaera ere. Urdindutako ileak, soildutako buruak... Aurpegi berri gehiago...

⁶³⁷ Gelditzen den %33,4 horren puska bat, %6,6a atzerriko fenomenoetako inprobisatzaile eta adituak dira.

bat ere badenez (paper ona, argazki asko eta diseinu zaindua) eta hiruhilabetekaria izanik, gorde egiten dute harpide gehienek. Sarasuak dioen bezala, etxeko liburutegian apal bat eskaini ohi zaio aldizkari honi (Lujanbiok aipatzen duen bezala gerta daiteke lantzean behin kontsultarako erabiltzea ere) eta behin apal bat beteta, errazagoa suerta daiteke bigarren batean tokia egiten jarraitzea ere.

8.4.8.3 Bertsolari.eus

Paperekoaren etorkizuneko giltza bere bilduma izaeran egon baliteke, badirudi sarean moldatzen asmatzea ere ezinbestekoa suertatuko dela proiektuaren etorkizunerako.

Aldizkariaren aurreko aldiari buruz eskaintako puntuan esan bezala, gaiari buruz sareratu zen lehen webgunea izango da aldizkariarena, bertsolari.net 1999an jarri baitzen martxan.

Elkar argitaletxearen eskutik sortu berria zen Plazagunea enpresak garatu zituen diseinua eta egitura, oso oinarrizkoak bai bata eta bai bestea. Webguneak lau atal zituen: ‘Hemeroteka’, ‘Nor gara?’, ‘Historia’ eta ‘Harpidetzak’. ‘Hemeroteka’ atalean paperean argitaratutako zenbakiak sartzen joateko modua egin zen eta bilatzaile bat ere ezarri zitzaion. ‘Nor gara?’ eta ‘Historia’ ez ziren aurkezpen testu labur batzuk baino eta ‘Harpidetzak’ atalean harpidetzeko formulario bat eskaintzen zen. Esanguratsua da, bertsolari.net aurkeztu beharrean papereko aldizkaria aurkezten zela ‘Nor gara?’ atalean. Aldizkariak bazeukan webgunea baina lantaldeak ez zekien honekin zer egin, eta bazuen nahikoa lan paperekoarekin.

1999tik 2007ra bitartean bi berrikuntza egin ziren: aldizkariak argitaratutako liburuak zerrendatzen zituen ‘Liburuak’ atala eta euskalerrria.org-etik hartutako 30 bertsolariren biografia laburrak eskaintzen zituen ‘Biografiak’ atala gehitzea.

2008an diseinua berritu zen eta antolaketa berria eskaini: ‘Prentsa albisteak’, ‘Agenda’, ‘Doinuak’, ‘Denda’, ‘Irakozkunak’, ‘Harremanetarako’, ‘Estekak’ eta ‘Aldizkariak ikusi’. Hortik aurrera izpiritu berarekin jarraitu zen: tarteka berritzen ziren atalak ‘Prentsa albisteak’ eta ‘Agenda’ Plazaguneak berritzen zituen aplikazio batzuen bidez, eta ez aldizkariko taldeak; hipertesturik ez zegoen, eta multimedia edo elkarreraginik apenas⁶³⁸.

Benetako aldaketa 2015 eta 2016 bitartean emango da. Jaurlaritzaren berrikuntzarako emandako laguntza bati esker egungo diseinua eta egitura sortu ahalko dira. Paperekoaren edukiek hartuko dituzte atalik gehienak, baina hauen antolaketa aldatzea erabakitzen delako neurri batean. Honela, ‘Aldizkariak ikusi’ atalaz gain (zuzeneko nabigazioa eta bilatzaile bidezkoa ditu honek), generoka antolaturik ere eskainiko dira: ‘Erreportajeak’, ‘Elkarrizketak’, ‘Iritziak’, ‘Zaldi Eroaren Errimak’ eta ‘Bertso-jarriak’. Hauen ondoan webgunerako propio sorturiko edukiekin asteen birritan hornitzen direnak ere badaude, ordea: ‘Albisteak’, ‘Bertsolaritzaren Hemerografia’ eta ‘Blogak’⁶³⁹. Hauek, teknikoki 2015ean prest bazeuden ere, 2016an jarriko dira martxan, webgunearen koordinazioa Beñat Hach Embarekek hartzean. ‘Denda’, ‘Multimedia’ eta ‘Argazkitegia’ atalekin osatuko da eskaintza eta izena bertsolari.eus izango da aurrerantzean.

⁶³⁸ Garai hauetako audientzia datu fidagarriak ez dago. Bai, ordea, Plazaguneak eskainiriko batzuk. Hauen arabera bertsolari.net-en audientziek gora egin zuten 2008ko berrikuntzarekin: 2007ko abenduan 3.048 bisita; 2008ko otsailean, webgunea estreinatu berritan, 13.568 bisita; 2008ko uztailean, nobedadea pasata, 5.337 bisita (Agirre, 2009a: 40).

⁶³⁹ Azken bi hauen kasuan webguneko atala da gero papelean argitaratuko dena elikatzen duena: ‘Bertsolaritzaren Hemeroteka’k izen bera izango du paperean eta hiru hilean webgunean ateratako interesgarrienak eramango dira paperera; ‘Blogak’ ‘Zortziko Haundia’ izango da paperean eta hiru hilabetean blogari bakoitzak idatziriko posten artean bakarra aukeratuko da papererako.

Aldaketa hau egiterako sare sozialetan zebilen *Bertsolari*. 2012an hasita Jon Martinek mugitu zituen bai facebookeko eta bai twitterreko kontua. 2016tik aurrera hauen ardura ere Beñat Hach Embarekek hartuko du.

Audientziak urtean 25.000 bisitariren inguruan egonkurtu dira azken bi urteeetan⁶⁴⁰. Bestalde, Facebooken 3.000 jarraitzaile eta twitterren 1800 lortu ditu aldizkariak.

2015ean webgunea berritzeko diru-laguntza eman ondoren araudia aldatu zuen Jaurlaritzak, eta funtzionamendurako ematen zen laguntzetatik (huskeria bat) kanpo utzi zuen bertsolari.eus. e2016, 2017 nahiz 2018a inongo laguntzarik gabe egin behar izan dira, beraz, eta urte hauetan webgunerako publizitatea sartzan hasi den arren, urtero balantze negatiboa ematen dute honen urteko kontuek. Aurrera jarraitzea erabaki da, ordea, eta berrikuntza gehiago ari dira lantzen: 1.600 testutik gora pilatzen dituen hori modu egokiago batean ustiatuko lukeen bilatzaile berria; eta 10.000 argazkitik gorakoa modu egokiago batean eskainiko duen argazkitegi berria.

8.4.9 Lehen film luzea ('Bertsolari', 2011) eta lehen eleberri grafikoa ('Nork', 2015)

8.4.9.1 'Bertsolari' filma eta Elkartearen dokumentalak

Formatu berriak estreinatzen jarraituko du bertsolaritzak azken ziklo honen azkenaldi honetan ere. Esaterako, gaian zentratutako lehen film dokumental luzea estreinatu zen 2011n. 'Bertsolari' izango du izenburutzat, Asier Altuna zinemagileak idatzi eta zuzenduko du, bere *Txintxua* film ekoiztetxeak ekoitzi, eta 90 minututan zehar bertsolaritzaren mugimendu garaikidearen erreposoa eskainiko du: "(...) bertsolaritzaren historia, egitura eszenikoa eta mami antropologikoa jasoko duen dokumental bat (...)" (Aristi, 2010: 30).

Dokumental honetan ere 'Ama Lur' en bezala bertsolarien teknika jarraituko da nolabait: "(...) bertsoaren tankerara burutzen baita, atzetik aurrera, bukaeran agertuko diren elkarrizketa zatiak aurrea grabatuz eta haietatik sortu diren irudiak ondoren itsatsiz (...)" (Aristi, 2010: 32). Eta Oteizak bertsolaritzaren inguruan sorturiko iruditerian oinarrituko da neurri batean: "[Altunaren hitzak] Oteizak irudikatzen du bertsolaria uretan sartuko balitz bezala, eta hondartzan atzeraka joango balitz bezala. Uretan sartu eta gero bertsoak datoz olatuen moduan. Niri horrek asko balio dit" (Aristi, 2010: 39).

Honela, Altunak hondarretan itsasoak eramango dituen idazten jartzen du Andoni Egaña, edo Miren Amuriza errimez inguraturik urpean igerian, edo behin baino gehiagotan erabiliko du atzekoz aurrera proiektatzen den sekuentzia. Izatez, elkarrizketetan Andoni Egañak, Jon Sarasuak, John Miles Foleyk, Joseba Zulaikak, Miren Amurizak edo Maialen Arzallusek esaten dituztenez gain gisa honetako metaforak dira filmaren alderdirik azpimarragarriena. Miren Amuriza amildegi baten ertzean ikus daiteke batetik bestera irribarrez, bat-bateko sorkuntzak eragiten duen bertigoa eta irrika irudikatuz, edota Maialen Lujanbio hormak hitzez josita dituen eraikin abandonatu batean hitzen ehizan.

Filmaketari 2009ko Txapelketa Nagusiko finalean Egañari egun osoko jarraipena eginez ekin zion Altunak. Grabazio honekin lanaren tamarako behar zituen elementuak jasoko zituelakoan zegoen: "(...) txapela dago jokoan, eta dauzkat 8 tipo hori irabaztera doazenak. Horietako bat jarraitzen badut, badaukat *protá* bat, eta publikoa identifikatu egingo da

⁶⁴⁰ Hekimen Elkarteak Herri Ekimeneko Euskarazko hainbat hedabiderentzat ezarritako neurketa sistemaren araberakoak (oinarritzat google analytics dueña) dira datuok. Aurrekoak baino askoz ere fidagarriagoak.

horrekin, eta sufrutuko du galtzen duenean, edo poztuko da irabazten duenean' [Altunaren hitzak]" (Aristi, 2010: 32). Ez zitzaion, ordea, berak uste bezala atera jokaldia: "[Altunaren hitzak] 'Derrepente Egañak, elkarrizketan, finala baina hiru egun lehenago esaten dit nahiago duela beste batek irabaztea... Pentsatu nuen, joe, *prota* hau zer heroi klase da nahiago duela galtzea?" (Aristi, 2010: 33). Film dotorea gelditu zitzaion, ordea, txapelketaren lehiarena baino askoz ere ikuspegi zabalagoa ekarri zuena: "(...) Andoniren lekukotzak, hitzak eta Txapelketako lekukotzak muntatu nituenean Andonik lezio bat eman zidala konturatu nintzen (...) betsolaritza joko baina gehiago jolasa dela erakutsi zidan (...) oso gai zabala dela konturatu nintzen, interesgarria, aberatsa (...) [Altunaren hitzak]" (Aristi, 2010: 34).

Bertsolaritzak ikuskizun gisa izan dezakeen muina bilatu nahi izan zuen zine zuzendariak:

"[Altunaren hitzak] 'Zergatik dauka halako erakarpena gure artean, hainbesteko arrakasta, lau urtetik behin 14.000 pertsona biltzeko... zer eta zortzi tipo kantatzen ikusteko zortzi orduz, musika barik, argi efekturik gabe, besoak bizkarrean dituztela, bestuario berezirik gabe? Ez da oso normala. Ez dago beste ikuskizunik ikuskizunetik hain gutxi duenik.'" (Aristi, 2010: 34)

Eta topatu zuen nolabait: "[Altunaren hitzak] 'Isiltasuna. Hori da niri interesatzen zaidana. Isiltasunarekin jokatu, jendea zinean bi minutuz mutu edukitzea.'" (Aristi, 2014: 34)⁶⁴¹.

Bertso-mundu guztiaren babesa izan zuen Altunaren proiektuak, Amets Arzallus aritu zitzaion, esaterako, elkarrizketen prestakuntza egiten, eta Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean estreinatu zuen, publikoaren arrakasta politarekin.

Ez da aldi honetan bertsolaritzaren inguruan estreinatuko den ikus-entzunezko film dokumental bakarria izango. 2018an 'What is bertsolaritza?' eman zen ezagutzera, Etxepare Euskal Institutua, Mintzola Ahozko Lantegia eta Laboral Kutxaren lankidetzaz bertsolaritza zer den nazioartean azaltzeko gauzaturiko ekoizpena. Ingelesezk eskainiko da, azpitoluak euskaraz, gazteleraz, frantsesez nahiz ingelesez jartzeko aukerarekin, eta Foleyren aipu batekin hasi ondoren⁶⁴² 22 minututan zehar bertsolaritzaren inguruko oinarritzko azalpen bat ematen du txapelketak, bertso-eskolak, Elkarteak, bertsotarako teknika eta beste hainbat alderdi azpimarratuz, eta guzti hau atzerriko ikerlari nahiz inprobisatzaileen adierazpenekin osatuz⁶⁴³.

Bertsozale Elkarteak izango da proiekturako lantaldea jarriko duena. Sustapen Saileko arduraduna, Jon Agirresarobe, eta Hedapen taldeko arduraduna, Eneritz Urkola, izango dira zuzendariak, eta azken honek egingo ditu produktore lanak ere. Erredaktoreak Hedapen taldeko Felix Irazustabarrena nahiz Jexux Mari Irazu izango dira, eta hauei Gorka Azkarate bertsolaria gehituko zaie, bertso kritikari gisa *Berrian* nahiz *Bertsolarin* ibilbide polita egindakoa. Kameralariak Hedapen taldeko Luis Gurrutxaga, Peru Galbete eta Haritz Arrizabalaga izango dira, eta azken honek egingo ditu errealizazioa, edizioa nahiz bideo post

⁶⁴¹ Erritoaren indarrarekin du zerikusia bertsolaria bertsoa pentsatzen ari den bitartean publikoak mantentzen duen isiltasun hunkigarri horrek. Baina gehiago ere aipa daitezke. Esate baterako, bertsolarien estatistikotasuna: "En la articulación verbal oral, particularmente en público, la inmovilidad absoluta es en sí misma un gesto poderoso" (Ong, 2016: 123).

⁶⁴² Ikerketa honen sarreran jaso den aipu bera: "Imagine selling 13,025 tickets for oral poetry. Imagine further an entire 6-7 hours of live performances broadcast on regional television as they happen, with excerpts, summaries, and expert commentary on national television. Imagine a one-day event—the final act in a multistage, four-year, Olympian drama of qualification and elimination—galvanizing ethnic, national identity to a degree unparalleled virtually anywhere in the world. Imagine the confluence of all of these phenomena and you have the Bertsolari Txapelketa" (Foley, 2007: 3).

⁶⁴³ Helbide honetan dago ikusgai: <https://www.mintzola.eus/eu/kulturartea/what-is-bertsolaritza-ikus-entzunezkoa> [2019/VII/06]

produkzioa ere. Gidoia Xabi Paya bertsolariarena izango da, eta azpitoluetarako itzulpenak berak eta Ortzi Idoate bertsolariak egingo dituzte. Aktore lanetan beste bi bertsolari arituko dira, Maddalen Arzallus zein Nerea Ibarzabal, eta Grafismoa Hiru Damatxo kooperatibak egingo du, tartean Unai Gaztelumendi bertsolaria nahiz Kepa Matxain bertso kritikaria (*Argia*) dituen. Audio post produkzioa da bertso-mundutik at ateratzen den bakarra: Mediavox enpresari eskatu diote.

Urte berean ‘Mundu bat ahoz aho’ estreinatuko da⁶⁴⁴. Kasu honetan dokumental luze bat izango da, 62 minutukoa, eta Bertsozale Elkartek 2015 nahiz 2016an antolatutako nazioarteko topaketak izango ditu ardatz, munduan zeharreko hainbat inprobisatzaile eta adituri ahotsa emanez, eta inprobisatzaile emakumeengan arreta berezia jarriz. Honetan ere Elkartean inguruko jendeak osatuko du lantaldea: Beñat Gaztelumendi bertsolaria, Hedapen taldeko kidea, izango da zuzendaria; irudiak, berriro ere, Haritz Arrizabalagaren sinadura eramango du; inprobisatzaile zein adituak elkarriketatzen Felix Irazustabarrena eta Jexux Mari Irazu ibiliko dira; produkzioa Eneritz Urkola eta Jon Agirresarobek egingo dute; eta kameralariak aurreko berak izango dira. Lankuk funtzionatuko du ekoiztetxe gisa eta Mintzola Ahozko Lantegiaren izenean argitaratuko da dokumentala.

Aipagarria da baita ere, urte hauetan zenbait bertsolarik, bertsolaritzarena baina gai zabalagoak jorratuko dituzten dokumentalak zuzenduko dituztela, proiektu pertsonal gisa: Jon Maiak ‘Bidaia intimoak’ (2009), ‘Apaizac Obeto’ (2010), ‘Gazta zati bat’ (2012) eta ‘Gutik zura’ (2016) estreinatuko ditu zuzendari-gidoilari lanetan; Amets Arzallusek ‘Mugaminak’ (2017).

8.4.9.2 Bertsolaritza komigintzan

Bertsolaritza eta komikiaren arteko harremana prentsako umore grafikoarekin hasten da. Txapelketa Nagusiko finalen inguruan egin den azterketa kuantitatiboan prentsan argitaratutako bertsolaritzari buruzko umore grafikoko 35 tira grafiko topatu dira. 1980kotik hasita final guztietan topa daiteke aleren bat, zaharrena *Deian* bada ere gehienak *Egin/Gara* eta *Egunkaria/Berrian*, eta marrazkilari ezberdinek osaturiko tiren eskutik: Antton Olariagaren ‘Zakilixut’, Txema Garzia Urbinaren ‘Mattin’, Iñaki Martiarena *Mattinen* tira, Martin Altzuetaren ‘Martintxo’, Montxoren tira eta Patxi Huarte Zaldi Eroaren ‘De rerum natura’. Hauei Ivan Landak eta Josu Landak gehigarrietan egindako karikaturak gehitu behar zaizkie.

Olariagaren Zakilixut izango da, alde handiarekin gainera, gaia gehien jorratuko duena. 1980 eta 1989koak salbu, gainerako final guztien inguruan argitaratuko du bertsolaritzari buruzko tiraren bat. Topatutako 13 tiratan denetariko proposamenak egingo ditu: bertsolaritzaren terminologia espezializatuari bigarren buelta bat ematen dio zenbaitetan, bertsoak ere osatzen ditu, termino berriak asmatzen ditu... Esaterako, *Bertso Exhibition Centre* terminoa, gerora sekulako zabalkundea izango duena eta *Garak* bere gehigarriaren izenburutzat erabiliko duena, Olariagak asmatu zuen Ane Urdangarinen arabera (*El Diario Vasco*, 2005/12/19). Laginean jasotako Olariagaren tiritan gisa horretako gehiago, kazetarien artean dezente zabalduko direnak, topa daitezke: *Bertsodromoa*, *Poto-finish-a*, *Potografiak*...

Bertsolari aldizkariak 1996an komikiaren sorreraren 100. urteurrena ospatzeko egindako esperimentuan emango zen hurrengo pausoa. Azalean ‘Bertsokomik’ lerro-burua daraman 22. zenbaki monografikoan hainbat ariketa planteatu ziren. Honela, bertsolariak marrazkilari

⁶⁴⁴ Helbide honetan dago ikusgai: <https://www.mintzola.eus/eu/kulturarte/mundu-bat-ahoz-aho-dokumentala> [2019/VII/06]

profesionalen gidoigile gisa jarriko ziren: Olariaga eta Egañaren artean 'Indurainen lehen negarra' osatu zuten, Mattin eta Sebastian Lizasok 'Usteak ustel', Asier Iriondo bertsolaria eta Iñigo Sarasola marrazkilariak 'Rikardo, gogoan zaitugu', Asisko Urmeneta eta Xabier Silveirak 'Amor a primera vista', Maialen Lujanbio eta Maite Martinez de Arenazak 'Gari Morrison Nevadan', Joxean Agirre eta Txema Garzia Urbinak 'Bertso-Sex', eta Jon Zabaletak Jose Joakin Mitxelenaren bertsoetan oinarritutako 'Ezkontza galduetako bertsoak'. Guztietan testua bertsoetan emango da edo protagonistak bertsolariak izango dira. Bestalde, bertsoetako puntua emandako ariketaren eskema jarraituz Aitor Larrañagak marraztutako lehen bineta bati jarraipena eman zioten, oraingoan marrazkilari gisa lanean jarrita, Ainhoa Agirreazaldegia eta Iñaki Muruak. Eta, azkenik, Unai Iturriaga eta Andoni Egañak komiki bana eskaini zuten, 'Hitzetik Hutsera' (ETBk bertsolari gazteak zentsuratu zituenekoa kontatuz) eta 'Peñagarikanixen ezkontza' (Peñaren balizko ezkontza Asterix eta Obelixeko binetak kalkatuz) hurrenez hurren, bai gidoia eta bai marrazkia eurak eginez.

Urte batzuk geroago aldizkariak jarraipena emango zion komikia eta bertsoa uztartzeko bide horri. 2008tik aurrera atal finkoa izango zen Adur Larrearen 'Jon Unibertsolari', eta 2013an Patxi Huarteren 'Zaldi Eroaren Errimak' hartu zion lekukoa.

2015ean bere 25. urteurrena ospatzeko 100. zenbakiak eleberri grafiko bat izan behar zuela erabaki zuen *Bertsolarik*. Patxi Gallego eta Xabi Payak osatu zuten, lehenengoaren marrazkiekin eta bigarrenaren gidoiarekin, eta 'Nork' jarri zioten izenburutzat. 2013ko txapelketaren finalera oraindik ere txapeldun gisa aurkezten zen Andoni Egañaren heriotza zuen fikzioak abiapuntutzat. Taulatu gainean emandako deskarga elektriko batek zeraman beste mundura zarautzara, Ertzaintzak izendaturiko ikerlariak euskal kulturgintza guztia eta bereziki bertso-munduari sekulako errepassoa ematen zioten, hainbat aurpegi ezagun susmagarritzat hartuz eta mila istorio zoro nahiz inbidia ezkutu azaleraziz.

Arrakasta polita izan zuen proposamenak bai kritikaren aldetik eta baita salmenta aldetik ere, eta 2016an aldizkariaren historian lehen aldiz bigarren edizio bat argitaratu behar izan zen. Egileak gira txiki bat ere egin zuten hainbat herritatik eleberraren atzean zegoen lanaren sekretuak erakutsiz.

2017an bertsolaritzaren inguruko bigarren eleberri grafiko bat argitaratu zuen *Bertsolarik*: 'Arditutakoak'. Kasu honetan Adur Larrea zen marrazkilaria eta Mikel Begoña gidoilaria eta euskal diasporako bertso-western bat zen istorioa, Zavalak bildutako Estatu Batuetako euskal artzainen bertsoetan oinarritua. Honek ez zuen aurrekoaren arrakastarik izan, baina oso lan polita gauzatu zuten Larrea eta Begoñak.

Aldizkariak ildo horri eusteko asmoa du. 2019 bukaeran argitaratuko da Paya eta Gallegoren bigarren alea, 'Nori'. Trilogia bat osatzea da ideia: 'Nor'-'Nori'-'Nork'.

Bukatzeko aipatu komikigintza alorrean murgildu diren bertsolariak ere badirela. Unai Gaztelumendi eta Unai Iturriagak hainbat lan argitaratu dituzte azken urteotan eta azken honek Javier Etayo *Tasiren* tokia hartu berri du *Gara* egunkariaren eguneroko umore grafikoaren tira lantzeko.

8.4.10 Bertsozale.eus eta bertsoa.eus: Elkartearen webgune korporatiboak eta kanal tematikoa sarean geroz eta indartsuago

8.4.10.1 Aukera-aukerako bide berria

Hedabideratzearen alorrean zikloaren gailurrean sorturiko proiektu garrantzitsuen jarraipen bat eman da, bada, azken urte hauetan. ‘Hitzetik Hortzera’, ‘Hitza Jolas’ eta *Bertsolarik* bere bidea egiten eta altxorra pilatzen segi dute, belaunaldi berrien eskutik oraingoan. Eta formatu berri batzuen estreinaldia ere eman da: film dokumental luzea, norbere ekoizpeneko dokumentala, komikia eta eleberri grafikoa, ikusi berri den bezala.

Nobedade erabakigarria, aldi honi haustura zantzuak emango dizkiona, sarean garatu ahal izan den eskaintzak ekarriko du, ordea.

Sareko eskaintzak haustura zantzuak ekarriko baditu bere garapena kuantitatiboki zein kualitatiboki oso garrantzitsua suertatuko delako izango da. Eta garapen garrantzitsu hori, neurri handi batean bertsolaritzaren ezaugarriak formatu berriak eskaintzen dituen aukerei ondo egokitzen zaizkielako emango da.

- Bertsoa sorkuntza multimedia bat da (ahotsa, testua eta irudia ditu), eta internetek eskaintza multimedia ahalbidetzen du: bertso-saioaren bideoa edo audioa eskain daitezke eta osagarri gisa bertsoaren hitzak edo kritika testu bidez eskaini.

- Sarearen hipertestualitatea baliatuz alderantzizko eskaintza ere burutu daiteke, idatzizko kronikan bertsoaldiaren bideoa zein audioa osagarri gisa txertatuz.

- Bertsoa bat-batean sortzen den performancea da eta sareak *streaming* bidezko zuzeneko emanaldiak ere ahalbidetzen ditu.

- Bertsolaritzaren mugimenduak etengabe sortzen ditu ekitaldiak (bertso-saioak, emanaldi bereziak eta abar) nahiz albisteak eta hauek guztien informazio eguneratua (agenda zein albisteak) eskaintzeko aukera-aukerakoa suertatzen da Sarearen eguneratzeko gaitasuna.

- Esan bezala, azken hamarkadetako bilakaerak produkzio masibo bat ekarri du bertso-munduan eta hedabide klasikoek, prentsak, irratiak eta telebistak, ezin diete bertsolari guztiei, bertso-saio denei, eta burutzen diren hibridazio anitzei erreparatu. Internetek, bere edukiera mugagabearekin, ez du horrelako arazorik.

- Azkenik, sareak ahalbidetzen duen alde biko komunikazioa, elkarreragintasuna, funtsezko ezaugarri bat suertatu daiteke bertsolaritzarena bezalako mugimendu zabal, anitz eta horizontal batean komunikatu eta antolaketa egoki bat artikulatzeko.

Jada azaldu den gisan, 2001ean eman zuen Elkarteak sarerako jauzia, bertsozale.com atari korporatiboarekin, eta hamarkadaren lehen erdirako bertsolaritzaren inguruko blogosfera garrantzitsu bat eta webgune nahiz foro batzuk aurki zitezkeen.

Hamarraldiaren bigarren erdian, pauso bat haratago joz, formatu berria bere hedabideratze estrategiaren ardatz garrantzitsu gisa ikusten zuen mugimenduak eta arretaz erreparatzen zion sarean sortzen ari zenari. Bertsolaritzaren hedabideretzeari buruzko lanean topa zitezkeen gisa honetako gogoetak:

“Bitarteko oso eskuragarria da. Bertsolaritzaren presentzia gero eta nabarmenagoa da Interneten. Apurka baina azkar zabaltzen ari da sarean eta zaila da noraino heldu daitekeen asmatzea; lan honetan egiten den zerrenda atzundua gera daiteke oso denbora laburrean. Posibilitateak mugagabeak dira

eta forma asko har ditzake bertsoak sarean: web guneak, plaza digitalak, telebista digitalak, bertsolarien blogak, bertso saioak zuzenean... Konkistatu beharreko lurraldea da sarekoa.” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 78)

Eta baita Elkartearen komunikazioari buruzko lanetan ere:

“Bertsozale Elkartearen internet sarea asko hazi da azken garaian. Planifikatu gabe eman da hazkundera eta zentzu honetan Elkartearen behar komunikatiboak aseko dituen eta proiektuari kohesioa emango dion plan baten beharra dago. Gai honi buruzko eztabaida zabalik dago egun Bertsozale Elkartean.” (Esteibar eta Iturriotz, 2008: 53)

Bestalde, azaldu den gisan, pixkanaka ahultasun zantzuak nabaritu zaizkio telebistari, eta zantzu hauek ere hauspotuko dute Internetek jokatu beharreko paperaren inguruko gogoeta eta ekimena. Honela laburbiltzen du Zubirik:

“Bertsolaritzaren berri euskaldunek nondik jasotzen duten aztertzen badugu, berriz, hedabideen garrantzia erabatekoa dela argi dago: hirutik bik (%65) hedabideen bitartez izaten dute bertsolaritzaren berri, soilik hirutik batek (%33) lagunartetik (...) Aro mediatikoa errotik aldatu da, ordea. Gainbehera dator telebista, eta ez dauka ordezeko garbirik. Erdigune bat zegoen tokian, euskarri ugari dituen eremu mediatiko bat ari dela indartzen. BGMk bere estrategia informazionala berrasmatu egin beharko duela dirudi, eta bertsoa.eus webguneak urratu duen bidea eraginkorra dela ematen du.” (Zubiri, 2016: 28-29)

2000. hamarraldiaren erdi horretatik aurrera dezente garatu da bertsolaritzaz Elkartetik kanpo sarean egiten den eskaintza:

“*Bertsolari* aldizkariaren webgunea. *Bertsomovieda* ere interesgarria da. Albeko bertso-eskolakoak, Algortakoak daukan webgunea. Autonomia eta dinamismo handia duen bertso-eskola bat da hau... Azpeitiako Uztarriaren webgunean txertaturik Erriarraitz bertso-eskolak ere badu berea. Jaurlaritzaren Kulturklik atariak ere jarraipen handia egiten dio bertsolaritzari. Euskal Kultur Erakundearen webgunean atal bat eskaintzen zaio eta guk bidalitako edukiak nahiz eurek landurikoak igotzen dituzte. Bizkaia atariak jarraipen handia egiten digu eta tarteka elkarrizketa batzuk ekoizten dituzte. Nontzeberrik ere jarraipen handia egiten dio bertsolaritzari (...) Etxepare Institutuak ere badauka zerbait... Hauek guztiek sare sozialetan ere funtzionatzen dute (...)” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27)

Bertsolariek eurek ere twitter edo facebook bezalako sare sozialetan dezenteko mugimendua darabilte, aurreko hamarkadan blogetan egiten zuten bezala: “(...) badaude bertsolariak sare sozialetan modu pertsonalean oso aktiboak direnak. Garai batean gehiago ziren blogak, bertsolaritzan zentratuagoak, eta orain gehiago dira twitter nahiz facebook, bertsolariaren bestelako interesak ere agertzera bideratuak. Igor Elortza, Josu Goiko, Zihara Enbeita... oso aktiboak dira.” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27)

Baina Elkartea bera izango da eragile nagusia, bi adar nagusi dituen eskaintzarekin: batetik elementu zentral gisa bertsozale.eus darabilen webgune korporatiboen sarea eta bestetik bertsoa.eus kanal tematikoa.

8.4.10.2 Webgune korporatiboak: Elkartearen eskaintza orokor indartsua

2000ko hamarraldiaren bigarren erditik Elkartearen eskaintza planifikatu beharra ikusten zen:

“Internet erabili beharko du elkarteak hedabide zentral moduan. Batetik, albisteak jaso hala emateko, lehenbailehen; bestetik, telebista, papera eta irratia zentralizatzeko. Webgunea ez da izango Xenpelar zentroaren ordeko, baina bat-bateko artxibo multimedia ere izango da eta irudiak, ahotsa, bideoak eta idatziak aurkitzeko modua emango dio erabiltzaileari (...) Asko ari da ugaltzen bertsolaritzaren presentzia sarean (...), eta gure ustez Elkarteak du hori guztia nolabait antolatu eta atari batean biltzeko erreferentzialtasuna eta ardura. Izan ere, Internet loturak dira batez ere, eta bertsozale.com domeinua izan liteke egokiena bertsolaritzaren ataria prestatzeko.” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 100)

Elkartearen komunikazio arduradun gisa Esti Esteibarri tokatuko zitzaion planifikazio horren diseinua gidatzea eta lehen apunte batzuk argitaratu zituen garai hartan:

“Guk honela irudikatzen dugu etorkizunean Bertsozale Elkartearen sarea: osotasuneko ikuspegi batekin garatua eta planifikatua izango da. Elkartearen sarea osatzen duten atariak proiektuari batasuna emango dioten oinarritzko ezaugarriak izan beharko dituzte, ez da zentralizatua izango, parte hartzailea izango da eta irudi bateratu eta aldi berean anitza eskaintzeko aukera emango du. Barne zein kanpo komunikaziorako erreminta izango da eta bertsolaritzaren proiektuaren zerbitzura eraikiko da.” (Esteibar eta Iturriotz, 2008: 53)

Hamar urte geroago eskaintza horrek garapena garrantzitsua erakusten du, eta Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen webgune korporatiboa, orain bertsozale.eus dena, da egitura horren zutabe garrantzitsuena. 2005ean nahiz 2013an goitik behera berri zuten:

“Bertsozale.eus da Elkartearen eta bere proiektuen komunikazioa egiteko tresna garrantzitsuena. Euskal Herriko Elkartearen Komunikaziotik egiten dugu gehiena, baina herrialdeetako Elkartearen webguneak ere bertan txertaturik daude eta horiek eurek elikatzen dituzte (...) Denetarik eskaintzen da bertan. Baita asteroko berriekin bidaltzen dugun *newsletter* rera harpidetzeko aukera ere. Edota txapelketa bakoitzari dagozkion azpi atalak ere bertan garatu eta eskaintzen dira.” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27).

Lankuren webgunea sortu zen hurrena, 2009an, eta 2016an berri zuten. Lanku.eus Lankuk bere zerbitzuen berri emateko daukan ataria da eta bertako kideek elikatzen dute.

Mintzola.eus ere 2009an jarri zuten martxan eta 2016an berri zuten. Bertsozale.eusen ondotik hau da webgune korporatibo garrantzitsuena, Mintzola Fundazioak ikerketa eta kulturartekotasunaz sustatzen dituen proiektuen erakusleihoa:

“Mintzola.eus geuk eramaten dugu, Euskal Herriko Komunikaziotik. Fundazioaren komunikazio korporatiboa egiten da, eta bertsolaritzaren ikerketa jorratzen duen ‘Bertsolaritzaren Ikertegia’ atala (Ikerkuntza plana, abian dauden ikerketak, ikerketa kontratu eta sariak eta abar), ahozkotasanarekin zerikusia duten beste alorrekin burutzen den elkarlana azaltzen duen ‘Ahozko Elkargunea’ atala (Ahoa Bete Hots jardunaldiak, XDZ jardunaldiak, Antzerkigintzarekin burutzen ari den egitasmoa...) eta ‘Kulturartea’ atala (jardunaldiak, mapa, liburutegia, dokumentalak) eskaini.” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27).

Bertosarrerak.eus, sarrerak sarean erosteko erreminta, izan zen 2009an sortu zuten hirugarren webgunea. Administrazio eta Komunikazio Sailek kudeatzen dute eta 2017an berri zuten.

2011n bdb.bertsozale.eus jarri zuten martxan, Xenpelar Dokumentazio Zentroak jaso eta atonduriko edukiak eskaintzen dituen: “(...) Xenpelarrek kudeatzen du. Lehen bertsozale.eus-en barruan zegoen eta elkarlanean egiten genuen baina orain diseinu irizpideak baino ez ditugu

ematen. Agenda, bertsolaritzari ekarpenen bat egindakoen biografiak, doinutegia eta liburutegia eskaintzen ditu” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27). Eta, azkenik, 2012an bertso-eskolak dinamizatzeko helburuarekin bertsoeskolak.eus sortu zuten. Transmisio Sailak eta Dokumentazio Zentroak elikatzen dute eta bertso-eskolen mapa bat nahiz bertso-eskola hauetan erabiltzeko erremintak eskaintzen dira bertan: “Hurrengo pausoa seguru asko hurrengo urtean transmisiorako komunikaziorako sarean daukagun eskaintza berrikustea izango da. Ikusten ari gara transmisiorako baliabide gehiago jarri behar ditugula sarean. Hezkuntza jada digitalean egiten da lanik gehiena eta bertso eskoletan material faltan daude” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27).

Eta guzti honi herrialdeetako elkarteek eskaintzak gehitu behar zaizkie, bertsozale.eus-en baitako atal gisa egituratu direnak (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak atal bana dute eta Iparraldeak bestea) eta, esan bezala, Elkarte hauek euren kabuz elikatzen dituztenak. Baita sare sozialetako kontuak elikatze hartzten den lana ere:

“Facebook, Twitter, Instagram eta Youtube astintzen ditugu. Herrialdeetako Elkarte bakoitzak ditu bere perfilak, baita Euskal Herrikoak ere. Euskal Herriko Komunikaziotik azken hauek eramaten ditugu eta baita herrialdeetakoak harmonizatzeko irizpide komun batzuk ezarri (...) Lankuk ere baditu bereak eta Mintzolak ere bai (...) Proiektu konkretuen inguruan ez ditugu sortzen. 2009ko txapelketan bai zabaldu genituen, baina gero konturatu ginen txapelketa bukatutakoan hor gelditzen zirela eta ez zuela itxura onik ematen.” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27).

Agerikoa da, bada, Elkarteak oso serio hartu duela sareratzeko erronka, eta energia asko bideratu dituela horretara: “(...) etengabeko gogoeta eta berrikuspenera eskatzen du webguneetan daukagun eskaintzak.” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27).

Deigarria suertatzen da bestalde, Txapelketa Nagusiak Elkartearen bizitzan daukan eragina alor honetan ere islatuta ikustea. Izan ere, webguneen sorrerarako eta berrikuntzetarako datak bat datoz askotan txapelketaren datekin (2001, 2005, 2009, 2013 eta 2017): “txapelketek beharrian berriak eragiten dituzte, diru ekarpen bat ere izaten Euskal Herrikoa, bestela ez da diru-laguntza handirik izaten gauza hauetarako, eta inbertsio aukera orduan izaten dugu. txapelketak nahikoa lan ematen du eta estra bat izaten dira baina horrela tokatzen da” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27).

1.taula. Webguneetako erabiltzaileen bilakera						
	2013/14	2014/15	2015/16	2016/17	2017/18	2018/19
Bertsozale.eus	94.057	70.820	78.400	66.636	144.082	76.546
Mintzola.eus				9.848	5.299	9.703
Bdb.bertsozale.eus	46.900	56.459	63.379	63.981	102.961	
Bertsoikasgela.eus						10.303
Bertsoa.eus	85.930	67.187	71.566	58.251	132.869	118.109
Bertsolari.eus				27133	38103	28510

Iturria: Bertsozale Elkarte eta Hekimen Analytics.

Taulan ikus daitekeenez, hartutako lana bezala webguneen trafikoaren hazkundea etengabea izan da. 2013/2014an baina %67 altuagoak dira 2017/18an bietan ageri zaizkigun

bertsolzale.eus, bdb.bertsozale.eus eta bertsoa.eus-en balioak⁶⁴⁵. Eta gainerakoetan ere joera gorakorra suma daiteke, azken urtealdian, txapelketa ondokoa izanik, beherakada bat ikusten bada ere. Hain zuzen ere, hori da beste joera esanguratsu bat: Txapelketa Nagusia jokatzeko den urteetan (2013/2014 eta 2017/2018) trafikoa ia webgune guztietan egiten du gora.

Trafiko osoari buruzko datuen bat ematearren, horretara gehien gerturatu gaitzkeen urtealdian, 2017/2018 denboraldian⁶⁴⁶, Elkarteen webguneek 385.811 erabiltzaile izan zituztela aipa daiteke. Honi bertsoikasgela.eus-en datuak gehituaz (2018/19koak behar dute, aurreko urtekorik ez dagoelako) ia 400.000 erabiltzaileetara iristen da kopurua, eta bertsolari.eus-enekin 430.000ra. Erabiltzaileez ari garela kontuan harturik (bisita edo saioena dezente kopuru altuagoa izaten da) sareko komunitate indartsu baten zantzuak ematen ditu datuak⁶⁴⁷.

2.taula. Jarraitzaileak sare sozialetan 2019 urtarrila				
	Facebook	Twitter	Youtube	Instagram
Bertsozale	7.044	5.155	172	1.342
Mintzola	433	858	260	
HH (ETB)	4.683	149		
Arabako BE	2.109	844	40	
Gipuzkoako BE	2.997	1.406		652
Bizkaiko BE	1.143	1.371		561
Nafarroako BE	4.342	1.092		
Iparraldeko BE	2.305	423		
Lanku	1.027	907	76	
Bertsoa.eus	3.080	4.695	2.563	
Bertsolari.eus	2968	1795		
Hitza Jolas	1074			

Iturria: Bertsozale Elkartea eta sarean bildutakoak.

Sare sozialetan ere dimentsio garrantzitsuak hartzen ditu bertso-munduak. Aipaturiko webguneek euren edukiak sare sozialen bidez ere zabaltzen dituzte, eta bigarren taulan ikus daitekeen bezala, facebook eta twitterren jarraitzaile kopuruaren totalak altuak dira, 33.205 eta 18695 hurrenez hurren. Alderaketa bat egiteko Berriak facebooken 29.578 eta twitterren 65.669 jarraitzaile dituela gaineratu daiteke⁶⁴⁸.

Esan bezala, datu batzuk eta besteak ikusita, eta hainbat ñabardura egin daitekeen arren, ez dago zalantzan jartzetik bertsolariak sarean presentzia garrantzitsu bat eta jarraitzaile komunitate adierazgarri bat lortu dituela. Hasierako jautzia eta murgilketa gainditu dira jada eta beste fase batean aurkitzen da orain.

⁶⁴⁵ Hiru hauen artean bdb.bertsozale.eus da gehien hazi dena: bdb.bertsozale.eus %119, bertsoa.eus %54 eta bertsozale.eus %53. Azken honen kasuan bilakaeraren historikoa luzatzen lagundu dezakeen datu zaharragoa ere topatu da: 2006an 66.000 erabiltzaile izan zituen webguneak (Agirre, 2009a: 14).

⁶⁴⁶ Lehenengo urtearen uztailetik hurrengoaren ekainera bitarteko kopuruak batzen dira denboraldi bakoitzean.

⁶⁴⁷ Kasu guztietan hileko erabiltzaileak dira oinarritzko datua. Beraz, erabiltzaile asko errepikatu egingo liriteke hilabete ezberdinetan eta denak batzen dira urtealdiko datuan. Bestalde, bertsolariaren kasuan webgune ezberdinen batura egiten ari garenez litekeena da erabiltzaile bera webgune ezberdinetan ibili izana eta honek ere datuari gora eragitea, oinarritzat hartu den urtealdian Txapelketa Nagusia jokatu zen gainera.

⁶⁴⁸ Hemen ere bertso-munduko sare ezberdinen jarraitzaileen batura eskaini denez litekeena da pertsona berak kontu bat baino gehiago jarraitzea eta, beraz, horrek datua puztu izana.

8.4.10.3 Bertsoa.eus: ibilbidea

Aparteko azpi-puntu honetarako gorde dira bertsoa.eus kanal tematikoaren inguruko azalpenak, aparteko protagonismoa hartu baitu azken urteotan bertsolariaren hedabideratzean. Eta kanal tematikoaz hitz egitekotan Jexux Mari Irazurengana jo behar da, berak jarri baitzuen martxan: “Hor Irazuren meritua aitortu beharra dago. Bere garaian saioretara kamerak eramaten hasi zenean, berde flipatu bati bezala begiratzen genion eta denborak arrazoa eman dio” (A. Arzallus, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/21).

Ikasketaz Filosofia egindakoa bazen ere, kazetari gisa saltseatzen hasia zen Irazu 1990eko hamarraldian: “Lehen probaren bat *Euskaldunon Egunkarian* egin nuen. Akordatzen naiz 1993ko Euskal Herriko txapelketaren inguruan finalista guztiak elkarrizketatu nituela eta soslai moduko bat ere egin nuela bakoitzarekin⁶⁴⁹. Gero zutaberen bat ere idatzi nuen egunkari berean” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28). 2000 urtetik aurrera *Hernaniko Kronikako* kazetari gisa aritu zen lanean eta hamarraldiaren erdialdera hasi zen ideia berriarekin bueltaka:

“Garai hartan plazetan bertsotan nenbilen eta Elkarteko zuzendaritza ardurak batzuk ere banituen, eta nire pertzepzioa zen bertsolariak hedabideetan presentzia irabazi arren, bertsoa berak, eduki bezala geroz eta protagonismo gutxiago zuela. Batez ere produkzio garaikideak (...) Pentsatuta bertsoak ikusentzunezko euskarria eskatzen duela eta Internetek horretarako espazio mugagabe bat eskaintzen duela eta hartzaileak bere hautua libreki egiteko aukera ematen duela, bitarteko interesgarria iruditu zitzaidan gabezia horri aurre egiteko.” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28)

Kronikan bazuten webgunea, beste batzuk begiratzen ere aritu zen erabat autodidakta izan zen ikasketa prozesuari ekinez eta 2006an egin zituen lehen proba batzuk:

“Batzuk, gaurtik ikusita, surrealista samarrak ere baziren. Adibidez, bertso-eskola digital baten ideia ibili nuen bueltaka. Aparteko webgune bat zen, itxia, pasahitzarekin sartu beharrekoa, eta kontsultak egiteko aukera, ariketa batzuk egiteko bitartekoak eta abar eskaini ote zitezkeen aritu nintzen. Skype bidezko hartu emana ere baliatu zitekeela iruditzen zitzaidan... Azkenean lehen fase batean gelditu zen, garatu gabe.” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28)

2007ko urtarrilean ireki zuen bertsoa.com eta Bertso Plaza Digitala jarri zion izena proiektu osoari. Logoa Maialen Lujanbiok egin zion, bertso-munduko hainbat lagun babsa ere izan zuen eta zaletuek saioen bideoak igotzeko kanal bat ere ireki zuen *Bertsotube* izenekoa: “(...) erreferentziala izatera iris zitezkeen biltoki irudikatzen nuen. Baina hainbat arazo tekniko eman zituen eta ez zuen mugimendu handirik sortu. 2008an itxi nuen” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28). Gainerakoan grabatu, editatu, idatzi, administrazioa eraman...dena

⁶⁴⁹ Finalista guztiei eginiko elkarrizketa bana argitaratu zen *Egunkariaren* ‘Bertsolari Txapelketa’ gehigarrian, 1993ko abenduaren 19an. Elkarrizketa bakoitzak soslai bat zekarren eta Koldo Aldabe eta biek sinatu zituzten testu guztiak: Andoni Egaña: "Aurreko lana hobetu dezakedala uste dut"; Sebastian Lizaso: "Ondo ibiltzen banaiz arriskatu egingo dut"; Jokin Sorozabal: "Posible da irabaztea"; Unai Iturriaga: "Ez nago prestatuta gaurko maratoirako"; Xabier Euzkitze: "Barruan amorrazio dexentea daukat kanpora atera nahirik"; Aritz Lopategi: "Sorpresarik handiena nirea izan da"; Jon Enbeita: "Suertea duenak irabaziko du".

berak egiten zuen: “(...) lehen planteamendu hartan bertso plaza batean topa zitekeen elementu guztiekin osatu nahi izan nuen egitura: bertsolariak, gaiak, emanaldi bereziak... Hori ere ez zen eramangarria” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28).

Huts egindako probak eta estropozuak gora-behera ideia nagusiak funtzionatu egin zuen:

“Bertso-saio mordera grabatu eta bertatik eskaintzen nituen. Edo *streaming* bidez ere eskaintzen nituen saio batzuk. Astero saiorik erreferentzialenak sarean aurki zitezkeen. Albisteak ere jartzen nituen. Eta eskaintza horrek bai funtzionatu zuen (...) beldur pixka bat baneukan, beste egile eta bertsolarien kontuetan sartzea ere bazen (...) baimena eskatu nien denei (...) Denek oso ondo hartu zuten. Nik uste dut alor berri bat ikusi zela bertsolaritza landu eta zabaltzeko.” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28).

Gutxira, 2008ko abuztuan, antzeko proiektua, bertsoplaza.tv, jarri zuen martxan Elkartek⁶⁵⁰:

“(...) nirea jada martxan zebilen eta interesgarria iruditu zitzairen. Bidea proiektu pertsonal gisa hasi nuenez une hartan ez nuen garbi ikusten Elkartearen eskutan jarri behar zen edo nirea izan behar zen (...) Elkartek bere proiektua abiarazi zuen. Ion Ansa jarri zuten proiektuan lanean ordurako sustapenerako eragile zebilen Jon Agirresarobe *Torrotxo* eta Jexux Muruaren laguntzarekin (...) nire proiektuan Beñat Gaztelumendi sartu zen, hasiera batean administrazio lanetan eta kudeaketan laguntzeko baina gerora hainbat lan eginez, eta Librean Kooperatiba Elkarte Txikia eratu genuen” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28)

Irazuk dio ez zela bi proiektuen arteko lehiarik egon, hasieratik trukatu zutela materiala eta informazioa eta 2009an bat egitea erabaki zutela: “Bi proiektuen eskaintza oso antzekoa zen eta ikusi genuen hobe zela eskaintza on bat, bi sakabanatuta baino. 2010ean hitzarmena egin eta ordutik talde bateratu gisa funtzionatu dugu” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28). 2010 hartan bertan goitik behera eraberritu zuten eskaintza guztia eta 2013an Interneteko ataleko Argia Saria irabazi zuen Dantzan.com-ekin batera. Sari banaketa ekitaldian eskaintako hitzaldian hainbat datu eman zuen Larraulgoak: sorreratik 25.000 sareratuak zituen kanalak, bertsolaritzaren inguruko 4.000 albiste eman zituen, 250.000 erabiltzaile izan zituen eta miloi bat bisita. Aurre begirako erronka batzuk ere bota zuen:

“Batetik, nahiko genuke hemen gertuko mahaiotan zaudetenok (erakundeetako ordezkariak) oraindik ere gehixeago sinestea kulturgintzako komunikazio proiektuek egiten duten ekarpenean (...) Bertsolaritzak sarean bidea egin du (...) bertsolaritza sarean jauzia emateko abagunean egon liteke. Agian, bertso plazetatik bertsolaritzaren plazarantz, bertsolaritzaren lurralde osorantz... Bertsolaritzak eskura izan lezake tresna propio bat, orain arteko eduki eskaintza aberasteaz gain, edozein telebista edo irratiren pareko irismen gaitasuna lukeena.” (Bertsoa.eus, 2013/I/23, ‘Argia Saria Bertsoa.com plazari’)⁶⁵¹

⁶⁵⁰ Honakoak jaso nituen doktorego programarako egindako lanean: “KUDEAKETA: Elkartearen grabazio sareak eta Hitzetik Hortzerako taldeak grabaturiko lanak emititzen dira. ETB-k bertsolaritzaren inguruan grabaturikoak ere (Txapelketak, albisteak etab) ikus daitezke (ETB erakunde laguntzaile gisa ageri da) (...) MENUA: ‘Bertsoplaza’, ‘Bertsoak’, ‘Erreportaiak’, ‘Elkarrizketak’, ‘Historikoen biltegia’, ‘Kulturarte’, ‘Berriak’, ‘Bertsoa eskatu’ eta ‘Zuzenean’ (...) BALORAZIOA: Elkarregerinerako aukera berriak eskaintzen ditu guneak (...) Berehalakotasuna eta eguneratzea. Zuzeneko saioak ematen dira. Bideo berriak sartzen dira astero (...) Multimedia. Irudia da nagusi. Testu labur batzuk atalak eta bideoak aurkezteko” (Agirre, 2009a: 16)

⁶⁵¹ Helbide honetatik berreskuratua: <https://bertsoa.eus/albisteak/3087-argia-saria-bertsoacom-plazari> [2019/VII/08]

8.4.10.4 Bertsoa.eus: funtzionamendua eta edukiak

Azken birmoldaketa 2017an burutu dute. ‘Hitzetik Hortzera’ri buruzko azpi-puntuak azaldu den gisan Sustapen Saitetik aparte funtzionatzen duen Hedapen Sail bat sortu da, eta bertan telebistako programa egiten zuten Elkartearen langileak eta kanal tematikoan ari zirenak integratu dira Eneritz Urkola buru duen zazpi laguneko lantaldea osatuz: “Plazetako produkzioa eta bertsolaritza nahiz bertsogintzaren inguruan dagoen edozein albiste, izan Elkartearen zerbait edo ez, eskaintzen dute” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27).

Kudeaketa eta administrazioa Eneritz Urkolak daramatza eta komertzial lanak Sustapen saietik egiten dira: “Garai batean neroni saiatu nintzen publizitatea lortzen, baina dirua ematen zuenik ez zitzaidan atera. Trukeko batzuk sartzen ditugu eta babesle orokorrak” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28). Finantzaketa Elkartearen hedapenerako aurrekontutik ateratzen da.

Urteko plangintza batekin funtzionatzen dute, hilerokoa egiteko hilean behineko bilera bat ere egiten dute, eta egunerokotasuna Komunikaziokoekin batera astean behin egiten duten bileran antolatzen dute:

“Sinkronizatuta lan egin behar dugu, guk manejatzen ditugun webguneetan eta euren eskaintzaren artean distortsiorik ez egoteko eta sinergiak aprobetxatzeko. Euren edukien berri ematen dugu guk bertsozale.eus-en edo boletinean, edo gure sare sozialean edo newsletterrean. Eurak edukiak Elkartearen behar komunikatiboen arabera moldatzen dituzte, bestalde.” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27).

Agenda bateratu batekin funtzionatzen dute, beraz, eta agenda horretan herrialdeetako elkarteetako komunikazio arduradunek ere hartzen dute parte.

Bestalde, Elkartearen komunikazioa eta bertsolaritzaren hedapenaren arteko bereizketa ere hartzen da kontuan, eta Hedapen Sailaren lanaren izaera eta autonomia errespetatu:

“Elkarteak barneratuta dauka bere komunikazioa eta bi eskaintza hauek [‘Hitzetik Hortzera’ eta bertsoa.eus] plano diferentetan daudela eta guk hedabide izaera dugula. Beraz, autonomoak gara eta erabakiak geuk hartzen ditugu. Dena den koordinazioa ezinbestekoa da, gauza bakoitzak non joango beharko lukeen jakiteko eta antzeko edukiak ematen direnean ikuspegi desberdinak lantzeko.” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28)

Eta ‘Hitzetik Hortzera’ eta bertsoa.eus-en arteko rol banaketa ere zaintzen dute: “Telebistara bertsozale arruntak gehien goza ditzakeenak eramaten dira eta bertso-munduko jendeak, zaletu amorratuak sarean beste alternatiba bat izango du. Banaketa honekin medio batak besteari karga kentzen dio eta bakoitzak bere profil propioa indartzen du” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28).

2017an lantaldearen egituraketa eta funtzionamenduari ez ezik, kanalaren diseinua zein egiturari ere eman zioten berritua: “Komunikazio sailaren lana izan da estetika lantzea eta eduki informatiboa perfilatzea. Horretarako lan talde bat sortu dugu, deialdi bat eginez. Beñat Gaztelumendi, Eneritz Urkolak, Oihana Aranburu Xenpelarrekoa, Amaia Goikoetxea, beste bi lagun eta neuk osatu dugu” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27).

Bertso-saioen grabaketen eskaintzak jarraitzen du kanalaren muina izaten: “Ikusten genuen hamar urtetako ibilbidean bildutako materiala genuela, Xenpelar Dokumentazio Zentroak are

gehiago zuela bilduta, eta guzti hori ez zela behar bezain ongi aprobetxatzen. Beraz, artxiboa Xenpelarrekoekin aberastu eta berrantolatu egin dugu eta bilatzailea hobetzea izan da lehentasuna” ” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28). Honela bertsolariaren bidez edo erabilitako doinuaren bidez ere bilatu daitezke bertsoaldiak, edo txapelketen nahiz saioaren arabera, eta bideo desberdinen arteko loturak ere egin dituzte etiketatze sistema baten bidez: “Bertsoaren beraren eskaintza zabal bat beste inork baino hobeto egiteko bitarteko guztiak izanda indarrak hor jartzea erabaki da. Alegia, bertsolariaren beste hainbat alderdi hedabide askotan lantzen dira, eta horretara jarriko bagina nolabait bikoizketa bat emango litzateke” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28).

Hemen ere urteen joanarekin altxorra pilatu dute: Urtean 200 bertso-saio inguru sareratzen dituzte (150 eurek grabatuak eta 50 jendeak bidalitakotik filtratutakoak) eta guztira 2000 inguru dauzkate etiketatuta. Eta hemen ere saiatzen dira plazen eta bertsolarien aniztasuna islatzen, ohiko zailtasunekin topo eginez:

“Errealitatean urtean 2000 saio badira, 300 izango dira jaialdiak, eta guk eskaintzen dugunak alderantzizko proportzioa izango du gutxi gorabehera. Errealitatearen desitxuraketa bat dago hor, baina ezinbestean ematen da. Batetik, beste formatuak gehienetan eremu pribatutik oso gertu mugitzen dira eta interes publikotik gehiago daukanetik hartu behar duzu. Bestalde, esan bezala, bestelako formatu horien laburpena, edizioa eta abar askoz ere konplikatukoak dira (...) saiatzen gara bestelakoak ere eskaintzen, telebistan azaltzen ez direnei sarean toki bat egiten” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28).

Agenda, albisteak, elkarrizketak eta erreportajeak ere eskaintzen dituzte: “Taldekako proiektu bat denean, harrapatu ezin izan den ekimenen bat azaltzeko edota produktu berriren bat edo ikerketaren baten emaitzak aurkezteko erreportajea egin ohi da. Elkarrizketa txikiak egin, bestelako irudiak bildu...” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28).

Zuzenekoak ditu Irazuk oso gustuko. Baina baita elkarrizketak ere: “Astero gai nagusi bat lantzen saiatzen gara, elkarrizketak eta erreportajeak txandakatuz” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28). Luze grabatzen dute hauetarako, 40 minututik ordubetera bitartean, eta gero zatikatuta eskaintzen dituzte: “Zintzotasunetik eta naturaltasunetik aritzen dira elkarrizketatuak, dezente biluzten dira eta polita izaten da hori bizitzea eta gero edizio lanarekin borobiltzea: sintesi moduko sarrera bat egin, aukeraketa egin, musika sartu...” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28). Arrasto gehien utzi dioten lanak sail honetakoak ei dira: “Koldo Tapiari egindako elkarrizketa oso gogoan gelditu zait. Aitortza asko egin zizkidan eta horiek dira gehien eragin didatenak. Berriki Sotori egindakoak ere sekulako zirrara eragin zidan. Harritu egin ninduen izandako esperientzia gogorrari buruz, anaiaren heriotza, nolako soseguarekin hitz egin zuen” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28).

Deigarria suertatzen da iritzi generoen eskasia:

“Gogoeta egin dugu zutabeak eskainiz landu beharrean elkarrizketetan galdetuz lantzea. Zer esan handirik ez duena zerbait esateagatik esatera behartzen du zutabeak askotan. Bestalde zutabeetan badago joera gai pertsonalak jorratzeko edo idazten dituen eguneroko kontuetan kokatzeko. Hori ez zaigu interesatzen. Elkarrizketak, aldiz, iritzi interesa non dagoen antzeman eta hari galdetzeko aukera ematen du. Eta ez dugu gai pertsonalei edo bertsolarietaz kanpo dagoen gaurkotasanari buruz galdetzen” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28).

Tarteka ale batzuk topa daitezkeen arren: “Hala ere ez gaude itxita. Web a berritu genuenean horrela egitea erabaki zen baina beharra ikusten badugu irekiko dugu bide hori ere. Orain datorren txapelketari begira, adibidez, bai sartuko ditugu iritzi testuak” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28).

Azkenik, erabiltzaileen feedbackik ere ez dute bistaratzen: “Filosofia izan da, iraun behar badu, izan dadila bertso gintzari eta bertso laritzari baliagarri izateko neurrian, bestela kendu. Gogoeta maila bat eragiteko ez zuen ematen, lanak ere ematen zituen eta erabaki hori hartu da azkenean” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28).

Bere helburuak garbi dituen proiektua da bertsoa.eus: “Oso presente daukagu aniztasuna zaindu behar dugula, medio orokorrek eskaintzen ez dutena eskaini behar dugula, eta bertsozale gazteenentzat erakargarri izaten asmatu behar dugula” (J.M. Irazu, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/28). Eta bertso laritzaren inguruko hedabide ezberdinen artean honek bildu ditu bertso-munduen balorazio positiboak. Maialen Lujanbiorena, esaterako: “Egun gazte jendearen erreferentzia nagusia bertsoa.eus da (...) Oso ondo dago” (M. Lujanbio, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/17). Edota Estitxu Eizagirre: “Bertsoa.eus-ek ere asmatu zuen (...) Bertsoan jendeak zer nahi du? Bertsoa bera. Orduan igo behar dena ez da horri buruzko komentario bat, igo behar dena da bertsoa. Nola? Grabatu eta ahal den azkarren. Apustu serio bat egin zuen Irazuk (...) Beti hor aurkitzen zenuen, oholtza inguruan grabatzen eta bertso lariek askotan aipatzen zuten: ‘Ongi etorri hemen zaudetenak eta bertsoa.com-ekoak’. Oso azkar zabaldu zen, eta gaur egun erreferentziala da.” (E. Eizagirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/19)

8.5 OIHARTZUNA: EREDU EGONKORTUA TELEBISTAN ETA LEHEN PAUSOAK INTERNETEN

8.5.1 Emandako pausoak eta bilakaera

Azken ziklo honi eman zaion errepasso historikoan argi ikusi da hedabideratzearen alorrean telebistan ‘Hitzetik Hortzera’rekin lorturiko eredu egonkortua eta Elkartearen werbune korporatiboekin eta kanal tematikoarekin Interneten emandako lehen pauso sendo batzuk izan direla nobedade nagusia.

Prensa idatzian *Egin/Garak* zein *Egunkaria/Berriak* egindako ekarpenen garrantzia aipatu da, bestalde, eta aldizkari tematiko/espezializatu baten agerpena. Eta irratian artxiboaren erabilera.


Mugarri hauetaz haratago bertso laritzaren oihartzun mediatikoak izandako bilakaera neurtzeko egin beharreko azterketa kuantitaboa prentsa idatzian fokatu da, aurreko zikloen inguruan egindakoari jarraipen bat emanez. Lagina osatzerakoan, ordea, ez da aurrekoetan bezala bertso laritzari buruz argitaratutako dena jaso. Bertso laritzak prentsan lortu duen presentzia mediatikoaren bolumenak manejatuz ezinezko bihurtzen zuen lagin hori. *Bertso larit* aldizkariaren hustuketa eta Txapelketa Nagusiaren finalari buruz egunkari garrantzitsuenean argitaratutakoaren errepassoa hobetsi dira. Lagin bata alderdi batzuk aztertzeko eta bestea eremu osagarri batzuk arakatzeko.

Aurreko zikloetan bertso laritzari buruzko testuek nola pixkanaka kazetaritza genero ezberdinak estreinatzen zituzten ikusi da. Honela, lehen bertso-kronikak 1880ko hamarraldian agertu dira, Lore Jokoen zikloan, eta bertso lariei eginiko lehen elkarrizketak

1930eko hamarraldian, Euzko Pizkundearen baitan. Bada, Txapelketa Nagusiko Finalei buruzko testuetan prozesu hau azken bururaino nola iritsi den ikus daiteke.

Bilakaeraren bi muturrei, 1980ko txapelketari eta 2017koari erreparatu besterik ez dago: 1980an Iritzi Artikulua, Iritzi Grafikoa, Zutabea, Erreportajea, Elkarrizketa, Kronika eta Albistea eskaini ziren, alegia, zazpi genero; 2017an, aldiz, aurrekoei, Editoriala, Apuntea, Zuzendariari Eskutitza, Hemeroteka eta Bestelakoak deituriko hamabigarren azpikategoria bat gehitzen zaizkie, alegia, beste lau gehiago.

Bilakaera hau, noski, pixkanaka emango da. 82an nobedadea Zuzendariari Eskutitza izango da, 86an Hemerotekako testu bat, Apunte bat azaltzen den lehen aldia 1993a izango da, Editorial bat azaltzen den lehen aldia 1997a...



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.


25. grafikoan ikus daitekeenez Elkarrizketa da, Albistearekin batera, gehien landuriko kazetaritza generoa. Bada bertsolariaren ahotsak eta barruko begiradak hartu duen garrantzia eta prestigioaren zantzu bat. Gogora dezagun 1960ko hamarraldira arte bertsolaritza prentsan argitaratu ziren milaka testuen artean esku bateko hatzekin zenbatu zitezkeela bertsolariari ahotsa ematen zieten elkarrizketak.

Era berean deigarria suertatzen da Iritzi Artikulua eta Zutabea Kronikaren mailan ikustea. Lehenengoek, finalaren harira propio idatzitakoak, saioa iruzkintzeko ahaleginaren neurria erakusten dute, bigarrenengoek finalak egunkarietako iritzi sailean hartutako presentziarena.

Kazetaritza generoei buruzko gainerako hamaika kontu IV. eranskinera pasa dira bestela ere azpi-puntu honek nahikoa eduki baduelakoan eta atalaren irakurgarritasuna errazte aldera.

Aurreko zikloetan hizkuntza hautuari ere erreparatu zaio bilakaera orokorraren berri ematen duen aldagai gisa: Lore Jokoetan hizkuntza erabiliena gaztelera zela (%64) eta frantsesak (%18), justu bada ere, euskara (%17) baino presentzia gehiago zuela ikusi da; Euzko Pizkunderan euskara (%47) gaztelaren (%45) parera iristen zela eta frantsesa (%8) atzera gelditzen zela; eta, azkenik, frankismoan, garaiak horretarako aiposenak ez baziren ere, euskarak (%61) gaztelarekiko (%38) aldearengatik, frantsesa (%1) ezerezean utziz.

26.grafikoa. Finalari buruzko testuen hizkuntza hautua (1980 - 2017)



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII. eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.


Azken ziklo honetan, 26. grafikoa ikus daitekeen bezala, joera horiek are gordinagoak izango dira, historiari egin zaion errebasoan azaldu den bezala 2005eko txapelketan erdal komunitatearengana iristeko ahalegin berezia egin arren. Euskarazko kazetaritzaren garapen handi bat erakusten du bilakaera honek, eta zeharka baita barruko begiradaren, euskalduna den bertso-munduaren ahotsaren ahalduz handiago bat. Kazetaritza generoen ingurukoekin bezala hizkuntza hautuaren inguruan sakontzen dutenak IV. eranskinera pasatzea erabaki da.

8.5.2 ARRAKASTAREN NEURRIA (I). KUANTITATIBOA: HAZKUNDEA

8.5.2.1 Datu orokorrak


Bertsolaritzaren presentzia mediatikoak izan duen hazkundearen zantzu bat eman dezakeen datua final batetik bestera argitaraturiko testu kopuruak izandako bilakaera da.

27.grafikoa. Finalari buruzko testu kopuruaren bilakaera (1980 - 2017)



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.


27. grafikoan ikus daitekeen bezala 2017ko finalean argitaratutako testuen kopurua 1980koan argitaratutakoa baina bost aldiz handiagoa da. Azken bi txapelketetan joera aldatu eta oihartzun mediatikoak pixka bat behera egin duela ere ikus daiteke. Hurrengo grafikoan ikus daitezkeenez, ordea, testu horiek betetako orrialde kopuruan beherakada hori ez da apenas nabaritzen.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII. eranskin ezberdinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.


Beherakada baino motelaldia eman da, bada, azken txapelketetan presentzia mediatikoak izandako hazkundera. Motelaldi honen atzean arrazoi ezberdinak planteatu daitezke. Batetik, 2005ean BECera jautsiarekin eta 2009a bertsolari emakume baten lehen txapelarekin presentzia mediatikoak bere sabaia topatu izana. Bestetik, egunkarietako euren, paperekoaren krisia dela eta, gehiagorako ez ematea (egunkari guztiek orrialde gutxiago dituzte 2017an).

Edozein kasutan, testu kopuruaren hazkundera ikusgarria batzen, orrialde kopuruaren hazkundera are ikusgarriagoa izango da. 1980ko finalari buruz baino ia hamar aldiz orrialde gehiago atera da prentsan 2017ko finalaz: 12 orrialdetik 117 orrialdeetara.




Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.

Orrialde kopuruaren hazkundera argazki kopuruaren hazkundera dakar neurri batean. Baina baita testuen luzeraren batez-bestekoaren hazkundera ere.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII. eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.

29. grafikoa ikus daitekeenez, geroz eta hitz gehiagoko testuak argitaratzen dira. 2017koak dira, hain justu, handienak. Gai sakontzeko geroz eta gogo nahiz gaitasun gehiago erakusten du bilakaerak.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.

Agerikoa da hedabideek gero eta garrantzia handiagoa eman gaiari testu gehiago eskainiko dizkiola, testu horiek luzeagoak izango direla eta argazki gehiago argitaratuko direla. Argazkirik gabeko testu laburra da nagusi lehen txapelketetan, argazki bat baino gehiago dituen testu luzea azkenengoetan.

Bertsolaritzaren prestigioaren eta interes mediatikoaren hazkunderaren beste zantzu bat gai azaltzeko dituen sinadura ezberdinen kopuruak ematen du. 30. Grafikoa ikus daitekeen bezala, 2017ko txapelketaren finalaz 1980az baino bost aldiz sinadura gehiagok idatzi zuen. Hala

ere, hemen bai da nabarmena azken txapelketetako beherako joera. 2005eko txapelketa izan zen sinadura gehienen interesa piztu zuena eta ordutik %42 batean jaitsi dela interes hori.

8.5.2.2. Presentzia mediatikoaren bilakaera eta erreparatu historikoa harilkatzen

Grafikoei begira erraz esaten da bost aldiz testu gehiago, hamar aldiz orrialde gehiago, zortzi aldiz argazki gehiago eta bost aldiz sinadura gehiago, baina horrelako hazkundera gauzatu izana erabat harrigarria da; estaldura informatibo gutxi egongo da horrelako garapena izan duena, eta are gutxiago euskarazko fenomeno kultural bati buruz ari garelarik.

Erreparatu zaien bost aldagaien bilakaera oso antzekoa da gainera. Kasu guztietan moteltze txiki bat ematen da 1980ko txapelketatik 1982kora eta lehen jauzi bat 1982ko txapelketatik 1986kora. Zikloari egin zaion erreparatu historikoan zabal eta luze azaldu denez, bertsolariek txapelketaren antolaketaren ardura euren gain hartu izana eta Egin egunkariak finalari buruzko lehen gehigarri berezi bat kaleratu izana egongo lirateke jauzi honen atzean.

Motelaldi berria dator jarraian 1989ko txapelketarekin, eta bigarren jauzia 1993an. Honen atzean egon daitezkeen faktoreak ere azaldu dira: 'Hitzetik Hortzerak' eta Egañaren belaunaldiaren lidergoak ekarritako bertsolaritzaren *booma*, alor mediatikoan Euskaldunon Egunkariaren, Bertsolari aldizkariaren eta 'Eta Hitza Jolas Bihurtu Zen' irratsaioaren sorrerak ere hauspotu zuena.

Balioak hazkunde txiki batekin mantenduko dira 1997an eta 2001ean. Elkarreak ETBekin izandako etena (1995-1996) eta eten honekin bilatzen zen hazkunde kontrolatua litzateke bilakaera hori esplikatzen duen gakoa. Eta 2005ean hirugarren jauzia emango da: BECerako aldaketa eta komunikazio kanpaina profesionala aipatu dira gailur berri horren eragile gisa.

Baliorik altuenak 2005ean lortu arren 2009an eutsi egingo zaio. Eta argazkiei dagokienean txapelketa honetan argitaratuko da gehien, alde handiarekin gainera. Ez da harrizkoa, momentu historikoa jasoko baitute kamerek: 1993tik Egañaren buruan egon ondoren Maialen Lujanbiok jantziko du txapela, ziklo bat itxiz, eta historiako lehen txapeldun emakumea izango da gainera. Argazki askotarako emango du honek.


2013an eta 2017an, esan bezala, pixka bat behera egingo dute presentzia mediatikoen inguruko aldagai gehienek. Edozein kasutan datu ikusgarriak dira, ondo egindako komunikazio lanaren eta gizarte mugimendu osasuntsu baten indar erakustaldiaren emaitza, eta beti ere 2001eko txapelketako datuen gaintik aurkitzen dira, hazkunderaren zatirik handiena egonkortu egin denaren adierazgarri. 2005eko eta 2009ko datuak gorago badaude litekeena da mugimenduaren sabaitik gora kokatzen direlako izatea, edo Sarasuak esango lukeen bezala, azken bi txapelketetatik bi txapelketa horietara dagoen aldea aparra izatea.

8.5.3 Arrakastaren neurria (II). Kalitatiboa: prestigiatzea

Aipaturiko aldagaiek Elkarrearen hedabiradetze estrategiaren arrakastaren alderdi kuantitatiboa uzten dute agerian; bertsolaritzak, Txapelketa Nagusiaren finalak, geroz eta presentzia mediatiko handiago duela. Hazkunde honek berak bertsolaritzaren prestigiatze bat iradokitzen du, zeharka bada ere. Beste aldagai batzuei erreparatuaz, ordea, modu zuzenago batean hauteman daiteke arrakastaren alderdi kalitatiboago hori.

8.5.3.1 Presentzia egunkarien azalean

Argitaraturiko testuen kokapenak gaiari ematen zaion garrantziaren zantzuak eskain ditzake. Esaterako, egunkariek eguneko gertakari garrantzitsuenak lehen orrian jarri ohi dituztenez, lehen orria horretan irabazitako presentziak prestigio handiago bat adieraziko luke.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.

1980an sei alditan atera zen gaia egunkarien azalean, 2017an, aldiz, 15 alditan. Alor honetan ere 2,5 aldiz handiagoa da bertsolaritzaren presentzia.

Azalean ere, ordea, albiste guztiek ez dute status bera izaten. Honela, albiste nagusia, bigarren albistea, bestelakoak eta barruko edukiren baten dei gisa jasotzen direnak bereiz daitezke. Hierarkia horren arabera testuaren garrantzia ponderatuaz (Nagusia lau puntu esleitu dizkiogu, Bigarren Albisteari hiru, Bestelakoei bi, Deiei bat eta Azken Orrian agerturikoei beste bat) eman izan den bilakaera oraindik garrantzitsuagoa izan da.

Izan ere 1980ko azaleko sei testuen artean ez dago Albiste Nagusirik eta Bigarren Albisterik. Bost Bestelako albisteak dira eta bat Azken Orrikoa. 2017an lau aldiz izan zen azaleko Albiste Nagusi eta bi aldiz Bestelako albiste. Gainerako zortziak Deiak dira eta bat Azken Orrikoa. Beraz, 2017an azalean argitaraturiko testuak askoz gehiago izateaz gain garrantzitsuagoak ere izango dira. Balio ponderatuari erreparatuz gero sei aldiz garrantzitsuagoa da azken txapelketa honek egunkarien azalean izan zuen presentzia 1980koa baino.


Azpimarratzeko modukoa da gainerako balioetan (argitaratutako testu kopurua, orrialde kopurua, sinadurak eta abar) balio altuenak 2005eko txapelketaren finalak eman bazituen ere, azaleko presentziari dagokionean, argitaraturiko argazki kopuruarekin gertatu bezala, 2009ko txapelketa dela guztien gainera gelditzen dena. Esan bezala, Egañaren zikloa bukatu izanak eta bertsolari emakume batek lehen aldiz irabazteak final horri dimentsio historiko gehigarri bat eman zion. Egañari besarkaturik txapela altxa zuen Lujanbioren argazkia azalerako zen.

Bestalde, aipagarria da baita, 2013an ere 2005aren gainera eutsi zitzaiola azalei dagokionean, gainerako balioetan beherago egon arren. Eta azken txapelketak behera egin zuela nabarmen (2009tik erdira) egunkarien azaletako presentziari dagokionean.

8.5.3.2 Bestelakoetatik Kultura atalera

Lehen urteetan, 80ko eta 82ko txapelketetan bertsolaritza ez zen Kultura atalean kokatzen. Honen atzean kulturaren ulerkera jakin baten itzala suma daiteke batetik, alegia, egunkarietan Kultura atala kultura jasoa deritzonarentzat (literatura, zinema eta abar) gorde izana. Bertsolaritzak, kultura popularrak, ez zen nonbait eurentzat horretarako kategoriarik, eta Gizartea atalera eramaten zen.

Bestetik, euskara ghettoan gordetzeko joera bat ere eman da Euskal Herriko prentsa elebidunean hainbat urtez: “(...) euskarazko idatziak euskal gaiei (gatazka politikoa, euskara edota euskal kultura) buruzkoak dira askotan. (...) Euskara ghettoan edota gai ia-ia anekdotikoen esparruan hesitzeko arriskua beste kontu batean ere suma daiteke euskal artikuluak sail jakin batzuetan sailkatzeko joera alegia” (Zuberogoitia, 2003: 520). Gerra aurrean euskarazko kazetaritzari tarte bat ireki zion eta trantsizio garaian helburu berarekin berragertu zen Euskal Orriaren⁶⁵² oinordeko honek euskara kategoria bihurtzen zuen: “Si algo incordia e incomoda a los actores de la cultura en euskera, eso es la consideración del universo del euskera como mera categoría o apéndice de otro(s) universo(s)” (Garzia, Idoyaga, eta Zallo, 1999: 417). Eta bertsolaritza Kultura ataletik atera.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta I. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.


Grafikoan ikus daitekeen bezala 1980 eta 1982an bertsolaritzari buruzkoak ez zituen Kultura atalean jaso inork. 80an Euskal Gaiak deituriko atala da daturik altuena ematen duena. *Deiak* ‘Euskal Deia’, *Eginek* ‘Egunon’ eta *El Diario Vasco* ‘Gure Artean-Nere Bordatxotik’ eskaintzen zioten egiteko modu honi. Testuen %40a bertan aurki daiteke (dezimalak kendu eta borobildu egin dira portzentajeak, grafikoaren ulergarritasuna hobetze aldera). ‘Besteak’ azpikategoriak %23a ematen du: Euzkadi-País Vasco-Temas. 82an, berriz, Besteak da lehenegoa (%32): Euzkadi-País Vasco-Gaurko gaia-Solasjaipausa-Guipuzcoa; Euskal Gaiak bigarren oso gertu (%29), eta Gizartea atalak ere portzentaje altua du (%16).

⁶⁵² Ik. 5.1.2 Euskarazko kazetaritzaren eta irakaskuntzaren sustapena eta 6.4.4.3 Euskal egunkarien urtea (1977)

1986an azaltzen da lehen aldiz bertsoalaritza Kultura atalean (%7) baina aurretik dauzka beste guztiak: Euskal Gaiak (%26), Besteak (%12) eta Gizartea (%10). 1993tik %30ean edo hortik gora ibiliko da, gainerako kokapenekiko alde handia aterata. 1997a izango da salbuespena bakarra gehigarri bereziek urte honetan izan zuten aparteko pisuagatik.

1989tik aurrera baita ‘Euskal Gaia’ desagertu egingo da. *Diario de Navarra* bakarrik sailkatuko du horrela 1993, 2009 eta 2013an ‘Nafar Hizkuntza’⁶⁵³ atalean jasoz⁶⁵⁴. Gizartea ataleko presentzia ere ia desagertu egingo da, nagusiki *El Diario Vascon* ateratako testu gutxi batzuetara mugatuko delarik. ‘Besteak’ azpisaila izango da 97tik aurrera bigarren kokapen ohikoena, baina beti ere normaltzat eman dezakegun portzentajeetan mantenduz (%10etik behera)⁶⁵⁵.

Gizartea edo Euskal Gaia-tik Kultura atalera egindako bidaia honen adierazgarri *El Diario Vascok* 2013an, *Bai Horixe* zutabea lekuz aldatuko du batetik bestera.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.

Kultura atalaren baitan ere, 33. grafikoan ikus daitekeen bezala, kuantitatiboki presentzia irabazteaz gain (geroz eta testu gehiago argitaratzen dira atal honetan), kualitatiboki ere garrantzia irabazten du (argitaratzen diren horien artean geroz eta gehiago dira Kultura ataleko lehen edo bigarren testua). Ponderazio hori egiteko, egunkariaren azalean argitaraturiko testuekin egin den bezala, balio handiagoa eman zaie lehen testu gisa argitaratu direnei (3) eta bigarren testu gisa jaso direnei (2), gainerakoei baino (1).

Honela, Kultura atalean gaiari buruzko testuak lehen aldiz argitaratu zirenean, 1986an, testu kopurua eta ponderaturiko datua ia elkarren berdinak ziren bitartean (bost testu-seiko balio ponderatua), 2017an %193 handiagoa da balio ponderatua testu kopurua baino (atala irekitzen zuten edo bigarren testu bezala jasotzen ziren testu mordo bat).


⁶⁵³ 1993an ‘Nafar-Izkuntza’ zen atalaren izena.

⁶⁵⁴ 2009an Kultura atalean ere emango du labor bat, ‘Maialen Lujanbio gana el Campeonato de Bertsolaris’, egun bateko atzerapenarekin bada ere.

⁶⁵⁵ Aipatu beharra dago gainera Besteak honen baitan 2013an eta 2009an *Egin/Garak* ‘Eguneko Gaia’ deitzen dion atalean argitaraturiko 21 testu sartu ditugula, edota *Berriak* 2005ean ‘Harian’ atalean jasotako bost edota LJPBk 2005, 2009 eta 2013ean ‘Sujet à la Une’ atalean eskainitakoak. Hiru hauek eguneko gairik garrantzitsuena joratzeko erabili diren atalak dira. Alegia, Kultura atalean argitaratuta baino garrantzi handiagoa eman zaio gaiari beraien bidez.

8.5.3.3 Presentzia Iritzia atalean

Gai batek interesa sortzen badu normalena gai horren inguruan informazioa ez ezik iritzia plazaratzea litzateke. Eta iritzi hori Iritzia atalean jasotzen bada bestelako sailetan argitaratuta baino pisu gehiago izango du, egunkariko iritzi saileko ohiko kolaboratzaile eta kazetariak egun horretan komentarioren bat merezi duten gaien artean dagoela ulertzen dutela adierazten baitu.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoa) eranskinetan.

Grafikoan ikus daitekeen gisan bertsolaritzari dagokionean 1989ra arte ez zen apenas testurik argitaratu egunkariaren Iritzia atalean. 1993an ematen da jauzia kasu honetan, hain zuzen ere *Egunkariaren* eskaintza sartzen denean eszenan.

Gainerako egunkariak elebidunak dira, baina euskararen oso presentzia baxua duen elebitasun bat jarraitzen dutenak. Honela, iritzi emaile gehienak erdaldunak dira, eta ondorioz, bertsolaritzari jarraipenik ezin diote egin. *Egunkariaren* kasuan iritzi emaile guztiak euskaldunak dira, eta honek Iritzia atala irekitzen dio bertsolaritzari.

Zenbaitetan *Egunkaria/Berriak* ataleko orrialde osoak eskaintzen dizkio gaiari, badirudi iritzi saileko kolaboratzaile ezberdinak ados jarri direla egun horretako gairik garrantzitsuena Bertsolari Txapelketa Nagusiko Finala dela erabakitzeko. Honela, 2005ean, finalaren bezperan bi apuntek, Martintxoren iritzi grafikoa, Jon Benitoren *Bira* zutabeak, Andu Lertxundiren *Hitz Beste* zutabeak, eta Urtzi Urrutikoetxea *Larrepititek* heltzen diote gaiari. Biharamunean, aldiz, apunte bat, Montxoren iritzi grafikoa, Amagoia Mujikaren *Jira* zutabea, Jon Benitoren *Bira*, Andu Lertxundiren *Hitz Beste* eta eskutitz batek ematen diote segida. Edo, 2009an, adibidez, finalaren biharamuneko alean, Irati Elorrietaren *Larrepetit* zutabea, finalari buruzko hiru eskutitz eta gai berari buruzko hemerrotekako testu batek osatzen dute 12. orrialdea.

Hala ere *Egunkaria/Berriaren* sarrera ez da Iritzia atalean bertsolaritzak irabazitako presentzia guzti hori esplikatzen duen faktore bakarra. 1993an bertan, esaterako, Iritzia atalean argitaratu ziren 16tik 7 testu *Egunkariakoak* dira, baina *Egin* ere lau argitaratzen dira, *El Diario Vascon* beste lau eta *Deian* bat. Hiru egunkari hauek ere geroz eta tarte handiagoa egingo diote gaiari euren Iritzi atalean.

Zentzu honetan deigarria suertatzen da *El Correo Español*k proportzioan Iritzia atalean gaiari eskaini dion tarte eskasa. Hamaika txapelketetan zehar testu bakarra, apunte bat, gaiak bere erredakzioan iritzi gehiegi eragiten ez duenaren seinale.

Hedabideek eman eta islatzen duten prestigioaz ari garelarik, ataleko testurik garrantzitsuena denari, editorialari, erreparatzeari ezin utzi. Lehenengo editoriala *Deiak* eskaintzen du, 1997an, 'Bertsoa-Herria-Euskara' (1997/XII/15) izenburuarekin. Bigarrena ere *Deiarena* da, 2001ean, lerro-buruan 'Bertso Eskoletatik jaiotako harrobia' (2001/12/17) daramala. 2005ean *Deia* berriro 'Bertsolarien arrakasta' (2005/XII/19) izenburupean. 2009an gaiari buruzko bi editorial: LJPBren 'Ces Français qui font des exploits en Espagne' (2009/XII/12) eta *Gararen* 'Mucho más que un grandioso espectáculo' (2009/XII/14). 2013an beste bi: *Gararen* 'Explosión de vitalidad, 'locura' que fascina' (2013/XII/16) eta *El Diario Vascon* 'La gran fiesta de los bertsos' (2013/XII/16). Azkenik, 2017an, lau, inoiz baino gehiago: *El Diario Vascon* 'Una fiesta euskaldun' (2017/XII/17), *Deian* nahiz *Diario de Noticias de Navarra* 'Bertsolaritza, un fenómeno cultural' (2017/XII/18) eta *Garan* 'Kultura eta herria bat, emozioz beteriko plazan' (2017/XII/18).

8.5.3.4 Gehigarri bereziak

Gai bati buruz propio eta gai horri buruz bakarrik gehigarri bat ateratzeak kazetaritza lan esfortzu handi bat eta egunkariaren aldetikako interes berezi bat eskatzen ditu. Egunkariak gai bati esleitzen dion garrantziaren adierazle garbia izango da bada.


Euskal Herriko Txapelketa Nagusiari buruzko gehigarri berezi bat ateratzen lehena, jada azaldu den gisan, *Egin* izango da, 86an. Txapelketa osoaren kronika, txapelketan zehar jasotako bertso onenen bilduma, epaileen lanari buruzko erreportajea, emakume bertsolariei buruzkoa, bestelako txapelketen errepaso egiten duena, Juan Mari Lekuonaren iritzi testua, bertsolarien gorputz espresioari buruzko erreportaje fotografikoa, bertso munduko hainbat laguni eginiko elkarrizketa sorta... 26 orriko gehigarrizarra eskaini zuen egunkariak finalaren egunean.

1989an ere egin *Egin* izan zen gehigarria eskaini zuen bakarra: Zortzi finalistei elkarrizketa bana (euren gertuko norbaiti eginiko elkarrizketekin banarekin osatua), finalerdien kronika, txapelketen historiari buruzko erreportajea, erabili diren doinuei buruzko adituaren iritzi testua, egunkariak antolaturiko kinielaren emaitzak... 12 orrialde finalaren egunean.

1993an *Eginek* ez ezik *Egunkariak* ere aterako du: zortzi finalistei elkarrizketak, txapelketaren kronika, iritzi testu pare bat, aurreko txapeldunei elkarrizketak, Elkarteko lehendakariari elkarrizketa, bertso hautatuak, hainbat lagunen pronostikoak eta txapelketen historiaren erreportajea. Finalaren egunerako aterako da 16 orrialderekin. *Eginena* ere egun bererako eta 22 orrialdekoa izango finalisten elkarrizketa eta soslaietan zentratua.

Gehigarri berezien kontu honek, ordea, argitaraturiko testu bolumenari dagokionean behintzat, 1997an joko du goia. *Eginek*, ohikoa duen moduan, finalerako aterako du, baina inoiz baino orrialde gehiagorekin, 30 (Igandetako gehigarri osoa, *Igandegin*, eskainiko dio finalari). *Egunkaria*ak, bere aldetik, bat beharrean bi aterako ditu. Bata 16 orrialdekoa finalaren egunerako eta bestea 8koa biharamunerako (*Egunkariaren* kasuan asteartea). Finalerako finalisten soslai sorta, hainbat pertsona ezagunen pronostiko sorta, adituen iritzi artikulua, txapeldun ohiei eta antolakuntzako buruari elkarrizketak, egunaren jarraipen mediatikoari buruzko erreportajea, belaunaldi berriari buruzko erreportajea... Eta biharamunerako hainbat kronika, txapeldunari elkarrizketa luzea eta finalistei laburragoak,

egunari buruzko apunteak, epaileen lanari buruzko iritzi testua eta elkarteak gonbidaturiko kanpoko adituari elkarrizketa.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.

2001ean behera egiten du kopuruak. Egunkariak eta *Garak* gehigarri bana aterako dute, zortzi eta 16 orrialderekin urrenez urren. Aurrekoan gehigarrian jasotako eduki asko Kultura atalera bideratuko dituzte. Honela, 1997an Gehigarri Berezetan jasotakoa argitaraturiko testu guztien %37a zen, bazen 2001ean %15a izango da, eta hurrengo txapelketetan %20 inguruan finkatuko da portzentajea, gehigarriak bete beharreko lekuaren eredu bat finkatzen delarik. ‘Prebia’ gisa funtzionatuko du gehigarriak, finalistak aurkezteko (elkarrizketa eta soslaien bidez), txapelketaren ordura arteko kronika egiteko, pronostikoak mahai gaineratzeko, eta txapelketaren alderdi ezberdinen inguruko (antolakuntza, gai-jartzaileak, epaile lanak, ahozko inprobisazioaren inguruko ikerketa) informazioa eta gogoeta eskaintzeko.


BECn jokatu zen lehenengoan *Berriaren* zortzi orrialdeetakoari (larunbatera aurreratua) eta *Gararen* 24koari *El Correo Españolen* lau orrialdeko gehigarria gehitu behar zaie (hau ere larunbatean argitaratuko da). Eta gehigarri honek berezko ezaugarriak izango ditu: gaztelerez eskaintzen da oso osorik, bertsolaritza, txapelketa eta finalari buruzko testu esplikatzaileekin, gaiari buruz ezer gutxi dakienari zuzendua eta ikuspegi historiko bat eskainiaz. Nabari da Elkarteak erdal komunitatearengana heltzeko ahaleginak eta ohikoan *El Correo Españolek* gai honi buruz aritzeko erabiltzen duen tonua nahiz moduak elkar hartu dutela⁶⁵⁶.

2009an *Berria* eta *Garak* 12 zein 30 orrialdetako gehigarri bana eskaintzen dute eta 2013an beste hainbeste, *Gararena* bi orrialde gehiago izango dituelarik. Azkenik, 2017an *Berriak* bi eskainiko ditu, aurretikoa, 28 orrialdekoa eta biharamunekoa, 12koa, eta *Garak* ohiko aurretikoa 30 orrialderekin.

⁶⁵⁶ Beste egunkari batzuk egindako ahalegin bereziak ere seinlatu daitezke. *Deiak*, esaterako, 1993an *Eguna* gehigarrian 10 orrialde eskaini zituen txapelketaz, edo *El Diario Vascok* 2001ean *Zabalik* gehigarrian 12 orrialde. Baina gehigarri hauetan txapelketaz gain bestelako gaiak ere landu zirenez ez dira gehigarri berezitzat hartu.

8.5.3.5 Presentzia Ikus-entzun atalean

Azkenik, testuen kokapenak eman ditzakeen zantzuekin bukatzeko, Ikus-entzun atalean lortutako presentziari ere erreparatu zaio. Fenomenoaren prestigiatzea bezainbeste hartu duen izaera mediatikoa uzten du agerian datu honek.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinetan.

36. grafikoan ikus daitekeenez urte guztietan aurki daiteke atal honetan gaiari buruzko testuren bat 1982ko salbuespen bakarrarekin. Ikus daiteke baita 1997tik aurrera presentzia hori askoz ere nabarmenagoa dela, eta gailurra 2005ean egin zuela. Suposa daiteke ikus-entzunezko medioen aldetik oihartzun handiena urte horretan izango zuela finalak, hurrengo urteetakoaren kasik bikoitza baita kopurua.

1980ko hamarraldiko aipamenek nobedade gisa azpimarratzen dute fenomeno kulturalaren jarraipen mediatikoa. 2005ekoan, aldiz, argi dago finala fenomeno mediatiko gisa, masa kulturako agerpen modura hautematen dela. Albisteak ez da telebistaz edo irratiz emango dela, prentsa akreditazioen kopuruan lortutako marka, kolore eta formatu guztietako hedabideen jarraipena, audientzia datu ikusgarriak eta gisakoak baizik.


8.5.4 Finalari buruzko argitaratzaile eta sinadura nagusiak

Aurreko zikloetan bertsolaritzari buruz egunkari nahiz aldizkarietan argitaraturiko testu denak bildu eta kontabilizatu ahal izan direnez, erreparatu handirik gabe hitz egin zitezkeen ziklo bakoitzean gehien argitaratu zuten hedabide eta sinaduren inguruan (egindako bilketak hutsuneak izan ditzakeela kontuan hartu arren). Azken ziklo honetan bildu eta kontabilizatu direnak Txapelketa Nagusiaren finalari buruzkoak izanik, egin daitezkeen baieztapenak askoz ere erlatiboagoak dira.

Izatez, nahikoa segurutzat eman daiteke finalari buruz gehien argitaratu duten hedabide nahiz kazetariak izango direla ziklo honetan bertsolaritzari buruz gehien aritu direnak ere. Baina gertatu daiteke finalari buruz idatzi gabeko jende batek bestela dezente idatzi izana, esaterako.

Bestalde, azken ziklo honetan, lagina nolabait mugatzearen, egunkariak bakarrik hartu dira kontuan. Honek kanpoan uzten du, esaterako, aurreko bi zikloetan argitalpen garrantzitsuena izan dena: *Argia-Zeruko Argia*. Baita bertan argitaratu dutenak ere. Edo *Bertsolari* aldizkaria.

Hutsune hori azpimarratuz, eta finalaz ari garela zehaztuz, 37. grafikoan ikus daitekeena litzateke gehien argitaratu dutenen zerrenda.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.

Azaldu den gisan, *Egunkaria* sortu zenetik hau eta *Egin/Gararen* arteko lehia eman izan da bertsolaritzaren inguruko estaldura informatiboaren lidergo lortzeko. Aipatu den gisan lehia horretan *Egunkaria/Berriak* testu kopuruan nagusitu izan da eta *Egin/Gara* testu gutxixeago baina luzeagoak eskainiz argitaratutako orrialde kopuruan. Guztira, ordea, *Egin/Gara* testu kopuruan ere gailentzen da, euskara hutsezko egunkaria baino hamarkada bat gehiago (lau txapelketa) daramalako langintza honetan. Azaldu den bezala *Eginek* bere ekarpena egin zuen 1980ko hamarkada horren bigarren erdian *Elkartea* sortu zuen bertso-munduko belaunaldi berriaren ikuskerari eta gaia jorrazteko kazetaritza estilo berri bati tokia eginez.

Koska bat beherago *El Diario Vasco* eta *Deia* aurkitzen dira. Bi egunkariok ere ekarpen garrantzitsua egingo dute bertsolaritzaren hedabideratzean. Donostiako egunkariaren kopuruak nabarmen samar izango dira altuagoak: aurreko zikloan, Frankismo Garaian, gaiaz gehien aritu zen argitalpena zen *Zeruko Argiaren* ondotik, eta erreferentzialtasun horri eutsi nahi izango dio, 1980ko hamarraldian, ikusi den gisan, eragile nahiz diskurtso klasikoen gotorleku bihurtuz (*Basarri* eta *Zavalaren* sarea) eta gerora ikuspegi berriagoi tokia eginez.

Hurrengo koskan *El Correo Español* aurkitzen da. 1980 eta 1990 hamarraldietan apenas jarriko dio arretarik gaiari, baina 2005eko txapelketatik aurrera gutxieneko estaldura bat osotzen hasiko da, nagusiki enpresa talde berekoa duen *El Diario Vascon* zaildutako kazetari nahiz iritzi emaileen ekarpenari esker.

Diario de Noticias de Navarra, *Le Journal du Pays Basque*, *El Mundo* eta *El Pais* datoz jarraian, txapelketaren batean gutxieneko estaldura edo txapelketa anitzetan aipamenean bat egin dutenak. Lehenengoak, 1994ean sortua, *Deiaren* enpresa talde berekoa izanik, honen estaldura eskaini izan du 2000 hamarralditik aurrera. *Le Journal du Pays Basque* (2001-2013) *Gararen* enpresa talde berean Ipar Euskal Herriko abertzaleentzat sortua *El Correo*

Españolek eskaintakoaren mailan zegoen estaldura osatu zuen 2005 zein 2009ko finalen inguruan (2001 eta 2013koaren inguruan apalagoa), bertako bertsolariei, Amets Arzallusi eta Sustrai Colinari, jarraipen berezia eginez.

El Mundok eta *El Paisek* Euskadiko delegazioa irekita daukaten bitartean emango dute finalaren berri. Lehenengoaren kasuan Josu Torreren sinadura ekarriko dute testurik gehienek eta badirudi kazetariaren ekimenez ematen dela estaldura. Honela, 1997koari buruz ateratako testu kopuruan *El Diario Vasco* nahiz *Deiaren* mailara iritsiko da. *El Paisen* bakanagoak izango dira testuak eta kazetari ezberdinek sinatuko dituzte.

Azkenik, *Sud Ouestek* eta *Diario de Navarrak* apenas egingo diote aipamenik gaiari. Iruñeako egunkariaren kasuan deigarria suertatzen da bere interes falta aurreko ziklotan gaiari arreta gehien jarri ziotenen artean aurkitzen bazen. Honela, azken ziklo honetan final guztiei orotara bost testu bakarrik eskaintzen dizkien bitartean, frankismo garaiko zikloan 263 eskaintzen zizkion bertsolaritzari (gehien argitaratu zutenen artean laugarrena da *Zeruko Argia*, *El Diario Vasco* eta *La Voz de Españaren* atzetik) eta gerra-aurreko zikloan ere 12 (gehien argitaratu zutenen artean hamargarrena da). Egunkari nafarrak ez du gustukoa nonbait bertsolaritzak azken zikloan hartutako bidea.

Bistakoa denez egunkariak gaiari heltzeko eredu ezberdinak jarraitzen dituzte. Eredu hauetan, bakoitzaren eskaintzaren alderdi ezberdinetan IV. eranskinean sakondu da, atal hau gehiago kargatzea nahiago izan delako.

3. taula. Finaleri buruzko sinadura garrantzitsuenak (1980-2017)

	Testu kop	Txapelketak	Egunkariak	BDB-BR
Joxean Agirre	97	10	<i>Egin-Gara</i>	BDB
Felix Ibargutxi	54	8	<i>Diario vasco/Correo</i>	
Amagoia Mujika	38	5	<i>Egin/Gara</i>	
Andres Osa Sakona	21	6	<i>Egin/Deia</i>	
Miren Garate	21	1	<i>Berria</i>	
Rufino Iraola	20	7	<i>El Diario Vasco</i>	BDB
Antton Olariaga	13	9	<i>Egin/Egunkaria-Berria</i>	
Iñaki Eizmendi <i>Basarri</i>	12	5	<i>El Diario Vasco</i>	Bertsolari
Iñigo Olabarri	11	1	<i>Berria</i>	BDB
Pello Esnal	10	6	<i>El Diario Vasco</i>	BDB
Josu Torre	10	4	<i>El Mundo/Deia</i>	
Ane Arruti	10	2	<i>Egin/Gara</i>	BDB
Beñat Zamalloa	10	2	<i>Berria</i>	BDB
Dabi Piedra	9	2	<i>Deia- DN Navarra</i>	
Zihara Enbeita	8	2	<i>Gara/Berria</i>	Bertsolari
Jexux Mari Irazu	8	1	<i>Egunkaria</i>	Bertsolari
Aitor Ugalde	8	1	<i>Egunkaria</i>	
Bianditz Iraola	7	4	<i>Diario Vasco/Correo</i>	BDB
Elisa Belauntzaran	7	3	<i>Diario Vasco/Correo</i>	
Jon Garmendia <i>Txuriya</i>	6	4	<i>Egin-Gara/LJPB</i>	Bertsolari

Iturria: Egileak moldatua. Oinarria Ik. VIII. EHTN Sinaduren zerrenda (1980-2017). 01 Kontsulta.

Finaleri buruzko testuetan 294 sinadura ezberdin bereizi ahal izan dira. Kopurua ikusgarria da Frankismo garaiko ziklo osoan zehar eta bertsolaritzari buruz argitaratutako testu guztiak kontuan hartuta 249 baitziren sinadurak, Euzko Pizkundekoan 102 eta Lore Jokoetakoan 156.


Sinadura jorienen inguruan lehen lauak hainbat txapelketari jarraipena egindako kazetariak direla azpimarratu behar da. Joxean Agirrek lehenengo *Eginekin* eta gero *Gararekin* 1982tik gaurdainoko final guztiei buruzko testuren bat sinatu du. Felix Ibargutxik *El Diario Vascon* egin du bere ibilbidea, 1989tik hasita gaurdaino zortzi txapelketaren berri emanez. Amagoia Mujika 2001ean estreinatu zen *Garan* eta Agirrerekin taldea osatu du, azken hiru txapelketetan egunkari horretako estalduraren ardura nagusia bere gain hartuz. Andres Osa *Sakona*, aldiz, lehen txapelketetan aritu zen gehiago lehenengo *Eginen* eta gero *Deian*.

Antton Olariaga da beste beterano bat hamaika txapelketatik bederatzitan argitaratu du gaiaren inguruan, lehenengo *Eginen* eta gero euskara hutsezko egunkaria sortzean *Egunkaria/Berrian*, baina guztiak Zakilixuten biñetetatik.

Rufino Iraola eta Pello Esnal izan dira beste bi klasiko, baina kasu honetan kazetari baino iritzi emaile lanetan. *El Diario Vascon* argitaratu dituzten euren testu gehienak, Iraolak zazpi txapelketari buruz eta Esnalek seiri buruz.

Iñaki Eizmendi *Basarrik* ere bost txapelketaren jarraipena egingo du egunkari honetan. Gerra aurrean hasi zen bertsolaritzaz idazten, frankismo garaian gehien idatzi zuena izan zen eta azken ziklo honetan ere hamar sinadura jorienen artean aurkitzen da. Zentzu honetan inork berdinduko ez duen marka jarri du bertsolariak: hiru ziklo historiko ezberdinetan bertsolaritzaren estaldura informatiboaren parte garrantzitsu izatea.

Finalaren inguruko testuez bakarrik ari gara. Honenbestez, esan bezala, sinaduren zerrenda honen erreferentzialtasuna lausoagoa da. Esaterako, badago txapelketa bakarrean egindako kazetari lanarekin, aldi bakarrean, testu kopuru garrantzitsuena argitaratu eta hogeiki garrantzitsuenen zerrendan sartu denik ere (Miren Garate, Iñigo Olabarri, Aitor Ugalde eta Jexux Mari Irazu)⁶⁵⁷. Beraz, izenekin ez gara gehiegi tematuko. Esanguratsua goak suertatzen dira beste zenbait aldagai.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria Ik. VIII. EHBTN Sinaduren zerrenda (1980-2017). 10 eta 11. Kotsultak

Lore Jokoetan 17 ziren Bertsolaritzaren Datu Basearen arabera bertso-mundukoak ziren sinadurak, alegia, kopuru osoaren %11. Hauen artean Pedro Mari Otaño izan zen bat-bateko

⁶⁵⁷ Guztiak Egunkaria edo Berrian lan egindakoak dira. Izan ere, egunkari honek ia txapelketa guztietan aldatu ohi du gaiaren jarraipena egiten duen kazetaria, eta txapelketa guztietan eskaintzen du testu mordoa.

bertsolari bakarra. Euzko Pizkundean, aldiz, 19ra igoko zen kopurua eta %18ra portzentajea eta Kepa Enbeita nahiz Basarri izango ziren bat-bateko bakarrak. Eta frankismo garaian argitaratu zuten 248 sinaduretatik 54 agertzen dira BDBn, kopuru osoaren %22, bat-bateko bertsolariak Basarri, Xabier Amuriza, Abel Enbeita, Deunoro Sardui, Mixel Aire eta Txomin Garmendia izango zirelarik (%2,4)


Azken ziklo honetan bertso-munduko sinaduren goranzko joera mantenduko da 82 sinadurekin portzentajea %28ra iritsiko delarik, eta prentsan argitaratzen duten bat-bateko bertsolarien kopurua da inoizko hazkunderik handiena izango duena: 40 bertsolari idatziko dute finalei buruz, sinadura guztien %14a izatera iritsiaz. Alegia, aurreko zikloetan bertso-munduaren *intelligentsia* ez zen bertsolaria, azken honetan bai.

Beste datu interesgarri bat bi txapelketa baino gehiagoren jarraipena egin duten sinadurena izango da: 27. Txapelketa batetik bestera, 1989tik aurrera behintzat, lau urte igarotzen dira. Beraz, hiru txapelketa egin dituenak gutxienez zortzi urteko tarte batean egin dio jarraipena gaiari. Bada hori ibilbide bat, eta espezializazio zantzu bat ematen digu. Edota gai beraren inguruan egunkari batean baino gehiagotan argitaratu izanak ere aditu estatusaren zantzu bat ematen du. 32 lagun dira egunkari batean baino gehiagotan sinatu dutenak.

Beraz, badago bertso-mundukoa den sinadura multzo garrantzitsu bat, honen baitan erdiak bertsolariak. Eta badago, bertso-mundukoa izan edo ez, hainbat txapelketetan edota egunkari ezberdinetan gaiari buruz idatzi duen multzo handi samar bat ere.

8.5.5 Gaiak eta protagonista nagusiak *Bertsolarin*

Ziklo honi dagokionean Txapelketa Nagusiko finalei buruzko testuei erreparatu zaie beste hainbat alderdi argitzeko. Aurreko zikloetan bezala bertsolaritzari buruz argitaratutako testuek jorraturiko gai nagusiak identifikatzeko, ordea, *Bertsolari* aldizkarira jo da, finalari buruzko testuen laginak gai jakina baitu: finala eta txapelketa.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria XII. *Bertsolari* datuak eta Grafikoak (1991-2018) eranskina.

Aurreko zikloetan gai nagusien artean ageri ziren zenbait errepikatzen dira honetan ere, esaterako, txapelketei eta Txapelketa Nagusiari eskainiriko testuak dira ugarienetakoak, eta bertsolarien pasadizo eta ateraldiek ere badute euren lekua. Bertsolaritzari buruzko gogoeta edo azalpena ere klasiko bat da: Lore Jokoen zikloan bosgarren tokian ageri zen, Euzko Pizkudean hirugarrenean eta Frankismo Garaian laugarrenean. Prentsa orokorra eta aldizkari tematiko/espezializatuaren arteko alderaketa parez parekoa ez bada ere, aipagarria suertatzen da *Bertsolarin* gairik jorratuena izatea, alde handiarekin. Ziklo honetan bertso-munduak gogoeta eta analisirako izan duen kuraiaren isla izango da ziurrenik.

Badaude beste gai batzuk, garrantzitsuenen artean⁶⁵⁸, berriak suertatzen direnak. Esaterako, bertsolaritzak beste sorkuntza alor batzuekin izandako hartu-emanen inguruan ehundik gora testu argitaratu dira *Bertsolarin* eta aurreko zikloetako prentsan ez zen alerik ere atera. Edota, atzerriko inprobisazio fenomenoaren inguruan hemerografia historikoan dozena erdi bat testu baino ez da topatu eta aldizkariak, ziklo honetan, 103 testu argitaratu ditu.

Etiketa nagusitzat 'bertsolari gazteak' izan zezaketen testuak argitaratu ziren aurreko zikloetan ere, batez ere frankismo garaiazen bigarren erdian eurentzat propio antolatutako txapelketen berri ematen zenean. Baina bestelako protagonismo bat hartuko dute azken ziklo honetan. *Bertsolariko* gai nagusien zerrendan seigarren tokian agertzen dira grafikoan ikus daitekeenez.

Berebat, hemerografia historikoan, ehun eta berrogeita hamar urteko ibilbidean, bertsolari emakumeen aipamenean bat egiten duten testuak 24 baino ez dira, bilduriko testuen %06. Azken ziklo honetan irabazten ari diren protagonismoaren isla, aldizkariaren 27 urtetan 115 testutan izango dira protagonista (%12,2) eta gai nagusitzat bertsolari emakumea duten 39 testu ere argitaratuko dira (%2,4).

Bertso-eskola eta bertsolaritzari buruzko ikerketa ere gai nagusien zerrendan sartuko dira, aurreko zikloetan gutxi jorratzen ziren alorrak, eta bertso-munduko beste zenbait elementu ere lortuko dute oihartzun berri bat: zaletuek eta gai-jartzaileek.

Hauek guztiak ziurrenik gai garrantzitsuak izan dira azken ziklo honetan prentsa orokorrean ere, proportzioak aldatu litezkeen arren. Zerrenda honetan ageri zaizkigun beste gai batzuk, ordea, aldizkari tematiko-espezializatuari dagozkio zikloari baino gehiago, eta neurri handi batean *Bertsolarik* bertsolarien alderdi pertsonalenean sakontzeko egindako apustuari: bakoitzaren afizioak, euren ogibideak, egin izan dituzten bidaiak, euren inguru familiarra... Zavalak lehenagotik ere egiten zituen genealogiak, eta ahotsa eman ohi zion bertsolarien inguruari. Bertsolari klasikoaren biografiak osatzerakoan euren alderdi pertsonalagoari ere egiten zitzaion tarte bat prentsako bestelako hainbat testuetan ere, eta bertsolariak egindako bidaiaren baten berri ere irakur daiteke hemerografia historikoko testuetan, baina aldizkarian beste dimentsio bat emango zaio guzti honi.

Gaiarekin gertatzen den bezala azken zikloan oihartzun mediatiko handiena izandako bertsolariak identifikatzerako orduan ere finalari buruzko laginak emaitza jakina eskaintzen du: finalistak izandako bertsolariak dira hor protagonista bakarrak. Hori dela eta, fokua pixka bat zabaltze aldera, protagonista nagusien zerrenda ere *Bertsolari* aldizkariaren hustuketatik ateratzea erabaki da.

Zikloek aurrera egin ahala geroz eta gehiago dira oihartzun mediatiko garrantzitsu bat lortzen duten bertsolariak. Hori dela eta ziklotik ziklora protagonista nagusien zerrenda zabaldu beharrean aurkitu gara. Lore Jokoen hamar izenekoa zen zerrenda, Euzko Pizkudean hamaikakoa eta Frankismo garaikoa hogeikoa.

⁶⁵⁸ Hogei etiketa hauez gain beste hainbeste ere erabili dira aldizkariaren gaitegia aztertzerakoan. Hauek lirateke garrantzitsuak diren gainerakoak: koplak eta santa eskea, Bertsozale Elkarteak, zaletu famatuak, bertso-doinuak, bertsolaritzako epaileak, bertsolaritzari buruzko kazetaritza eta antolatzailearen figura.

Azken ziklo honetan hogeita bostekoa da zerrenda, baina askoz gehiago ere izan zitezkeen.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarria XI. *Bertsolari* hustuketa (1991-2018) eta XII. *Bertsolari* datuak eta Grafikoak (1991-2018) eranskinak.

Testu gehienetan protagonista nagusi izan dena Andoni Egaña da, aldearekin gainera. Logikoa dirudi honek lagin bezala hartu den urtealdian lau aldiz Euskal Herriko txapelkun eta bertso-munduarentzako figura erreferentzial nagusia izan baita⁶⁵⁹.

Bigarren tokian Xabier Amuriza agertzea ere ez da harrizkekoa, ikusi den gisan ziklo honetan gertaturikoarekiko nolabaiteko aitatasun moduko bat zor baitzaio. Eta honen ondoren, kasik testu kopuru berarekin Jon Sarasua azaltzeari buruz ere beste hainbeste esan daiteke, zikloko gogoeta garrantzitsu guztien eta saltsa askoren perrexila izan baita.

Koskatxo bat beherago Anjel Mari Peñagarikano, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga agertzen dira. Lujanbiorena esperotzekoa zen, bi aldiz Euskal Herriko txapelkun eta lehen txapelkun emakumezkoa izanda. Iturriagarena ere errez ulertzen da Egañaren ondoren, eta Lujanbiorekin batera, Txapelketa Nagusiko final gehien jokatu⁶⁶⁰ duen bertsolaria izateari

⁶⁵⁹ Egaña izan da aldizkariarekin lotura estuena izan duen bertsolaria, Erredakzio Batzorde gehienetan egon dena, testu gehien sinatu dituen eta aldizkariaren filosofia ongien ulertu duena. Gertutasun horrek ere tirako zerbait gora bere datuari, baina bestela ere berak beharko luke lehen toki horretan, zikloaren protagonista nagusi gisa.

⁶⁶⁰ Honakoa litzateke Bertsolaritzaren Aro Modernoan Txapelketa Nagusiko bi final baino gehiago jokatu dituzten bertsolarien zerrenda: Andoni Egañak zazpi ditu eta Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbiok seina; Sebastian Lizaso, Aitor Mendiluze eta Sustrai Colinak bosna; Jon Enbeita, Jon Maia, Igor Elortza eta Amets Arzallusek launa; eta Xabier Amurizak, Jon Lopategik, Anjel Mari Peñagarikanok, Jexux Mari Irazuk eta Aitor Sarriegik hiruna.

bere karisma gehitzen bazaio. Rockaren belaunaldiko bertsolari rockeroena izan da eta nortasun handiena izan duenetako bat.

Anjel Mari Peñagarikano, berriz, hiru aldiz Euskal Herriko finalista eta behin Gipuzkoako Txapeldun izanik, Egañaren belaunaldiko bertsolari garrantzitsuenetako bat izan da, eta talde horren baitan zaleei grazia gehien egin dien bertsolaria izanik (Bertso-Hop famatua ere Egaña eta bien arteko bertsoaldia zen) normaltzat jo daiteke aldizkarian hainbeste atera izana.

Azken ziklo honetan bertsolaritzak izandako arrakastaren gakoetako bat belaunaldi ezberdinek elkarren eskutik aritzeko erakutsi duten gaitasuna izan da, eta zerrendan ikus daitekeenez oihartzun mediatikoari dagokionean ere jakin izan dute protagonismo mediatikoa belaunaldi ezberdinen artean banatzen. Honela, Egañaren belaunaldikoa Sebastian Lizaso ageri da, Euskal Herriko txapelduna izandakoa eta zarautzarrarekin plazarik plazako bikote artistiko indartsua osatutakoa, baita Xabier Perez *Euzkitze* ere, 1990eko hamarraldiaren lehen erdian puntaren puntan ibilitakoa eta oso pertsonaia mediatikoa, eta Mikel Mendizabal nahiz Iñaki Murua, biak puntako eta mugimenduan paper garrantzitsu bat betetakoak (Murua lehendakari izan da). Lujanbio eta Iturriagaren belaunaldikoak Jon Maia, Jexux Mari Irazu eta Igor Elortza atera dira gehien, Euskal Herriko hainbat final jokatuak eta belaunaldi horretan oso protagonistak izandakoak baita. Zerbait gazteagoak Amets Arzallus Euskal Herriko txapelduna eta hainbat finaletan aritutako Aitor Sarriegi ikus daitezke zerrendan. Eta zaharrenen belaunaldiaren ordezkari gisa Joxe Agirre eta Joxe Lizaso.

1989an Euskal Herriko txapeldun izanda, eta bertsolaritzaren historian figura klabe bat, espero zitekeen Jon Lopategi zerrendan agertzea. Estitxu Arozena eta Amaia Agirre beste bertsolari batzuk baino gehiago agertu izanak harrizko du agian norbait, baina Arozena 1990eko hamarraldiko bertsolari gazteen belaunaldiko aurpegi ezagunenetako bat izan zen, eta hainbat aldiz Nafarroako txapeldun. Amaia Agirre ere puntako bertsolaria izan da eta, ziurrenik urte luzez 'Hitzetik Hortzeran' kazetari gisa ere aritu delako, enpatia handiarekin erantzun dio beti aldizkariaren deia.

Aurreko zikloko bi protagonista nagusien, Iñaki Eizmendi *Basarriren* eta Manuel Olaizola *Uztapideren*, oihartzuna ziklo honetara ere indartsu iritsiko da. Eta bertsolariak izan gabe eragile garrantzitsuak izan diren bi pertsona ere sartuko dira hogeiko honetan. Antonio Zavala, neurri handi batean berari buruzko monografiko bat argitaratu zelako, eta Joxerra Garzia, eragile, aditu eta aurkezle gisa ziklo honetako aurpegi ezagunenetako bat izango delako.

Egia esan, zerrenda askoz gehiago luzatu beharko litzateke zikloan protagonismo garrantzitsu bat izan duten guztiak agertzeko. Zerrendako hogeigarrena baino testu bat gutxiagorekin agertzen diren izenak ikusi besterik ez dago: Fernando Aire *Xalbador*, Jon Azpillaga, Aitor Mendiluze, Sustrai Colina eta Millan Telleriak hemezortzina testu izan dituzten aldizkarian.

XII. eranskinean ikus daiteke zerrenda osoa.

8.6 PROIEKTUA: KULTUR MUGIMENDU AUTONOMO ETA EGUNERATUA

8.6.1 Elkarte mugimendu autoeratuaren ardatz

8.6.1.1 Autoeratu: kanpoko begiradatik barrukora

Azaldu den gisan Amurizak bertsogintzaren azterketarako barrurako begiradari bultzada garrantzitsu bat eman zion, bertsogintza horren tripak erakutsiaz. Ordura arte, Basarriren salbuespen bakarrarekin, bertsolaritzan adituak zirenak ez ziren bertsolariak. Amurizaren jarrera bertso-eskolen zabalkundearen tematu zen mugimendu zabalago baten isla zen, eta bertsogintzan murgilduriko jendeak bere esku hartu nahi izango du bertsolaritzaren proiektuaren lema.

1986koa izango da, bertsolaritzaren eragiletzak ehundik gora urte beteta dituelarik, bertsolariek eurek antolatuko duten lehen txapelketa.

Bulkada honetatik Bertsozale Elkarteak sortuko da, eta honen antolaketarako oinarritzko printzipioa autoeraketa izango da: “Autoeraketa honela definienezake: zuzeneko protagonisten erabaki-ahalmenean oinarritzen den eraketa” (Sarasua, 2013: 164). Eta autoeraketak barrutik kanporakoa lehenesten du:

“Barrutik kanpora deskribiltzen joan den jarduna izan da elkartearena. Muineko elementuak landu ditu erdigunean. Pentsamendu-humus bat ekoizten joan da, horren inguruan ametsa sortzen. Pertsonen arteko harremanak trinkotzetik hasi zen, organurik barrukoenetatik abiatuta (...) Hortik joan da deskribila hedatzen, bertsozale talde zabaleratara, euskaldunen geruza ezberdinetara, nazioarteko harremanetara (...) barrukoa pribilejiatu du ia beti, barrutik abiatutakoa, barrutik kanporakoa.” (Sarasua, 2013: 288).

Barrutik kanpora funtzionatu ahal izateko gogoeta partekatua eta eztabaida izan dira bitarteko nagusiak: “La organización del movimiento debe asegurar esta negociación, debe permitir que la acción colectiva sea el resultado de un proceso contractual y reflexivo” (Melucci, 1994: 143). Eta egiteko modu honekin diseinatu ahal izan da jarraitu beharreko bidea:

“(…) Etorbizun ikuspegia eraikitzeke gaitasuna (bisioa), epe desberdinetako helburuak kateatzeko gaitasuna (estrategia) eta ekiteke gaitasuna, hor nonbait ibili dira (...) Ideia organikoak sortu ditu, bileretan, zigarro ke artean, afalosteetan, eztabaida garratzetan, paper galduetan. Ideia horiek gorputz bat osatzen joan dira, kulturagintza bizitzeko modu bat, praktikan mamitua, ez oso formulatua.” (Sarasua, 2013: 288)

Gaiari heldu dioten lan gehienek azpimarratzen dute puntu honen garrantzia (Garzia, 1998: 41; Garzia, Sarasua eta Egaña, 2003: 73; Esteibar eta Iturriotz, 2008: 20; eta abar. Izan ere, besteak beste, autoeraketak autokontzientzia eta autokonfidantza ekarri ditu berarekin: “Auto aurrizkiak erabateko garrantzia izan du. Aurrizki horren inguruan definitu daiteke Bertsozale Elkarteak bera eta bere jardura” (Esteibar eta Iturriotz, 2008: 17)⁶⁶¹.

8.6.1.2 Mugimendua: zaletua integratuz proiektu soziokulturalera bideratua

Bere muina sorkuntza alor batean izan ohi duten gisako eraketatan sortzaileak elkartu ohi dira normalean. Bertsozale Elkarteak zaletuak ere integratu ditu: “[Atzerriko gisako fenomeno antolaketaz ari da] Beste zenbait arlotan ere, desberdin gabiltza. Harrotasun puntu batekin dakusagu Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak dela, inprobisatzaileak eta ez inprobisatzaileak biltzen dituen Elkarte bakarra” (Egaña, 2004: 101). Hainbat egilek azpimarratu du erabaki honen garrantzia (Garzia, 1998: 41; Barandiaran, 2011: 36; Sarasua, 2013: 286) horri esker hartu baitu mugimenduak gizarte mugimenduaren dimentsioa: “[Sarasuaren hitzak] Artisten, zaleen eta bertso-ekosistemako beste eragileen arteko lan hori ezohikoa da, eta hori gabe ez da ulertzen bide hau guztia” (Barandiaran, 2011: 40).

Bestalde, sorkuntza alorra eta proiektu soziokulturala bereizi izan dira, Elkarteak bigarren honetara bideratuz. Hori ere ez da hain ohikoa:

“Arte baten iraupena bermatzea da helburu nagusia. Baina horretarako bitartekoa sozialki egin beharreko lana da gehienbat, alderdi artistikoa sortzaileentzat bakarrik utzita (...) Ikuspegi (...) esango genuke ohikoena izan

⁶⁶¹ Elortza, Sukia eta Muruak ere aipatzen dute azken puntu hau (2008: 34) eta Elkartearen ‘Bertsozale Elkarteak 2007-2018. Etorbizun ikuspegia’ dokumentu estrategikoan jasoa dela zehazten dute.

dela batik bat ekoizpen artistikoan eragiten saiatzea, sortzaileei gida lerroak ezartzen saiatuz. Literaturan ezagunak dira horretarako ahaleginak. Aitzitik, Bertsolaritzaren Gizarte Mugimenduak hastapenetatik aldarrikatu izan du irizpide ez-interbenzionista hori, eta, aldi berean, determinatuta egon da baldintza sozio-kulturalak aldatzera.” (Zubiri, 2016: 17)

Elkartearen inguruko gogoetek ere hainbatetan azpimarratu izan dute bereizketa honen garrantzia (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 70; Barandiaran, 2011: 50). Eta fokatze honek ere indartu du bertso-munduaren gizarte mugimendu izaera.

Era berean bertako eragileek ulertu izan dute mugimendua Elkarte bera baino zabalagoa dela, eta Elkartetik kanpoko inguru guzti horrekiko elkarlana sustatu nahi izan du: “Bertsolari nahiz bertsozaleek osatzen dute (...) Bertsozale Elkarteak bestalde badaki, eta aitortzen du, bertsolaritzaz arduratzen diren eragile antolatu gehiago badirela (bertso-eskolak, eskola-irakasleak, hedabideak, erakundeak...) horietako guztietako sentsibilitateen lankidetzara guztiak izatea da Elkartearen izaeraren beste ezaugarri garrantzitsua” (Esteibar eta Iturriotz, 2008: 54)

8.6.1.3 Eragiletza: borondatezko-profesional bikoan oinarritua

Bolondres eta profesionalen ahaleginen uztarketa ere funtsezkoa izan da Elkartearen eraketan: “Autoeraketa honen oinarriak hauek izan litezke, guztiak ere elkartearen ibilbidean intuizio mailan garatuak (...) Borondatezko lanaren eta lan profesionalaren arteko konbinaketa” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 73). Gizarte mugimendu dimentsioa loratzeko beste faktore garrantzitsu bat izan da: “[Arantxa Mariskalen hitzak] Horrek lortu du elkarte exekutibo soila ez izatea, eta bazkideek parte hartzeko aukera izatea. Sare sozialak hori dira. Alde horretatik, elkarte aurrerakoia izan da” (Barandiaran, 2011: 66). Eta sorreratik azpimarratu izan da hauen arteko oreka zaindu beharra, baita Elkarteak soldatapeko hiru langile baino ez zituenean ere:

“(…) ezaguna da egituraketa guztiak berez dinamikoa den errealitatea fosil bihurtzeko arriskua daramala. Egituraketa eta espontaneitatea elkarrekin uztartzea ez da erraza gertatzen, tartean burokrazia, profesionalizazioa e.a. sortzen direnean (...) bestetik, gaur egun, gizartearen konplexutasuna ezagutuz, eta bizitza sozialak daraman abiadura eta dinamikarekin, oso zaila da kultur esparru bat bere horretan uztea, erabat espontaneo eta era berean arrakastatsua eta egokia izatea (...) Etorkizunari begira, bertsolaritzak duen apusturik gogorrenetakoa antolaketa/planifikazioa eta espontaneitatea uztartzea izango da.” (Siadeco, 1995: 39)

Azaldu den gisan, azken bi hamarkadatan, garapen maila bat duten gizarte mugimenduekin gertatu ohi den bezala, egitura profesionalak geroz eta pisu handiagoa hartu du, joan den hamarkadaren erdialdean 70 langile izatera iritsi zen, eta horrek are gehiago hauspotu du eztabaida. Honela, soldatapeko lanen ezinbestekotzat jotzen da batetik. Jexux Mari Irazuk, esaterako, mugitzen den lan bolumenak eskatzen duen dedikazioa aipatzen du: “Beti izan dut garbi bolumen honen ardura hartu behar baldin baduzu, dedikazio oso handia behar dela. Nik, ardurak izan nituenean, ez nuen ez denborarik ez tarterik ardura horrek behar zuen neurrian ejerzitzeko” (Barandiaran, 2011: 150). Dedikazio oso hori eskaini ezin duena, alegia, borondatezkoa, atzean gelditzeko arriskua dakar, ordea, honek: “[Aritz Zerainen hitzak] Proiektuak abiadura handia hartu du, eta borondatez ari den bati kosta egiten zaio bere lekua bilatzea. Eta jende berriak ikusten duenean egina dagoen proiektu bat eta Elkarte zerbait handi moduan, “zertara joango naiz?” pentsatzen du” (Barandiaran, 2011: 130). Gazteenen belaunaldia integratzeko zailtasunarekin batera: “(...) erronka bezala identifikatzen dute

belaunaldi gaztea elkartean integratzea, beren abiapuntua ezberdina delako, ez dutelako erakundetze prozesua ezagutu, jadanik eraikia dagoela sentitzen duten proiektu bat baizik” (Zubiri, 2016: 25). Eta honenbestez, egitura profesionalak eta Elkartek berak hartutako bolumena doitzea ere planteatu izan da: “[Zerainen hitzak] Abiadura handiegia eta proiektu gehiegi ote diren, dena egin nahia ere bai. Beharbada, apaltzeko unea da, helburuak berriz aztertu eta berriro markatzeko. Oinarrietara gehiago jo, ardatzak garbi edukitzeko. Txikitu, edo murriztu, eta erritmoa pausatu, beharbada gehiegizkoa delako” (Barandiaran, 2011: 82).

Barandiaranek Elkartearen historiari buruz egindako lanean Arantxa Mariskalekin (2011: 66), Aritz Zerainekin (2011: 82-84 eta 130), Jexux Mari Irazurekin (2011: 149-150) eta Unai Iturriagarekin (2011: 151) hitz egiten du gaiaren inguruan. Ainhoa Agirreazaldegik azken azterketa soziologikoaren harira Beñat Gaztelumendirekin (2018a: 66-67) eta Xabier Aierdirekin (2018b: 89). Zubirik ere azaltzen du problematika (2016: 25) eta baita Esteibar eta Iturriotzek ere (2008: 24). Argi dago kezka eta erronka garrantzitsu bat suertatu dela azken ziklo honen haustura aldirian, eta gaiari erreferentzia egiten zaion guztietan argi gelditzen da borondatezko eta soldatapekoen uztarketa nahiz orekari ez zaiola ukorik egingo

8.6.1.4 Autonomia: administrazioarekiko eta alderdi politikoeak

Mugimendu autoeratu gisa eta bi abertzaletasunaren lehiak suposatzen duen *Master Frameari* ihes eginez bere autonomiari tinko eustea erabaki du Elkartek:

“Bertsolaritzaren mugimendu egituratua bi grabitate-indar politikoren erdian aurkitu zen sortu eta berehala. Ezker abertzalearen eta honek ‘herri mugimendu’ deitzen zuena bere ildoan kokatzeko joeraren grabitatea, alde batetik. Abertzaletasun klasikoaren mesfidantza eta bere erakunde publikoen markajea, beste alde batetik.

Bertsozale Elkartean hasierako urteetatik nagusitu zen grabitate indar bietatik libre antzean bide propioa egiteko asmoa (...) Komunitate auto-zentratu moduan bide egitea.” (Sarasua, 2013: 293)

Jarrera honek, ikusi den gisan, hainbat tira-bira ekarri dizkio administrazioarekin. ETBrekin izandako etena izan zen sonatuena: telebistak bertsolaritzaren garapenean zuen eragin erabakigarriaren aurrean kontrol partekatua nahi zuen Elkartek eta ukatu egin zitzaionez telebistan ateratzeari utzi zion: “Elkartean gogoeta bat egin zen, beharbada bere historiako gogoetarik finenetakoa: arrakasta gorakor hori arriskutsua izan zitekeen” Sarasua, 2013: 295). Administrazioaren laguntzen etena ere ekarri zuen erabaki honek baina kikildu beharrean bere izaera autonomia berresten zuen gogoeta garatu zuen Elkartek, proiektua modu kontzienteago batean (Bertsolari Elkarte izatetik Bertsozale Elkarte izatera pasa zen besteak beste) formulatuz. Administrazioarekiko harremanetan ere indartuta atera zen:

“Bertsozale Elkartek, gizarte zibileko mugimendua den aldetik, agertu izan du eskubidea duela administrazioaren jokaerak baloratzeko eta kultur-politika baterako bere ikuspegia azaltzeko. Era berean, Bertsozale Elkartek aldarrikatu izan du bere eskubide eta betebeharrak demokratikoa gizarteari jakinarazteko administrazioekin dituen harremanen nondik norakoak (bai onerakoak eta bai txarrerakoak), nahiz eta horrek arazo bat baino gehiago ekarri (...)” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 74)

Bertsolarien jardunak ez du administrazioaren laguntzaren beharrik: “(...) oinarri duen sorkuntza-jardunak, bertsogintzak, autoerregulazio ekonomiko handia baitu bere izaera apalagatik, eta ez du administrazioaren laguntzekiko menpekotasunik” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 74). Baina Elkartek transmisioan, hedapenean, bilketan edo ikerketan

sustatzen dituen lan-ildoek, egitura profesionaleko 70etik gora soldatapekoen jardunak, aurrera aterako badira, neurri handi batean bazkietza sistema baten bidez finantzatzen diren arren, bai behar dute finantzaketa publikoaren bultzada. Autonomia elkarlanarekin uztartzen asmatu beharra tokatzen da, bada: “Administrazioari dagokionez, EHBEak interes publikokotzat jotzen dituen proiektuetan finantziazioa eta elkarlana eskatzen eta eskaintzen die Euskal Herriko administrazio desberdinei” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 74).

Elkartek bertsolarien eta bere partaideen jarrera hartze politikoak errespetatzen ditu, eta zentsuratu izan direnean askatasun hori defendatu izan du, baina Elkarte gisa ez du politikoki jarrera hartzen: “Posizio politiko-ideologikoa, berriz, ekimen politiko aktiboetan Elkarte gisara parte hartu gabe, berau osatzen dugun norbanakoen aukerak errespetatzea izan da. Euskal Herriko egoera ezagututa, Elkartearen trinkotasunaren berme izan da; ez da norbanakoen adierazpenik galarazi, ez hauspotu, errespetatu baizik” (Esteibar eta Iturriotz, 2008: 58). Bertsolariek norbanako gisa adierazitako posizio politikoek edota zaletuek adierazitakoek, politikari jeltzaleak molestatzera iritsi dira hainbatetan, eta Elkarteari ezker abertzalearekin lerratu izana egotzi izan diote: “Bertsolarien (bertsoz), antolatzaileen (ikonoz) eta zaleen (txistu e.a.) adierazpenek une larri bat baino gehiago sorrarazi dizkiote Elkarteari, berorien jomuga direnen aldetiko posizio-hartze eskariak direla-eta” Esteibar eta Iturriotz, 2008: 58).

Testuinguru ezpaldua, abertzaletasunaren baitako arrakala dela eta bertsogintza berriaren ezaugarri nagusietako bat gaiarekiko distantzia hartzea izango da (Garzia, 2000a: 465). Bestalde, fokua sorkuntzaren garapenean jarriko da gehiago bertsolariak ikur identitario edo ideologia eroale gisa izan dezakeen funtzioan baino: “[Sarasuaren hitzak] Bertsoan, oinarria jolasa eta plazerra duk. Izatekotan, gure belaunaldiak kendu egin zioek bertsolaritzari aurretik eman zitzaion transzendentzia abertzale, euskaltzale eta etnikoa. Gehiago begiratu zioagu bertsolaritzari kultur bide bezala, adierazpide inprobisatu bezala, bere baitan merezi duen zerbait bezala” (Garzia, 1998: 12). Guzti horri Elkartean bere autonomia aldarrikatzeko posizionamendu politikoak saihestu dituela gehitzen badiogu, ulergarria suertatzen da aurreko zikloekin alderatuz proiektuan bertsolariaren ikur eta eroale ideologiko funtzioak duen garrantzia lausotu izana.

Hori dela eta aurrerago azalduko da alderdi guzti hau eta ez proiektuaren baitan. Horrek ez du esan nahi, noski, bertsolaritzak azken ziklo honetan nortasun ikur eta eroale ideologiko gisa funtzionatuko ez duenik.

8.6.1.5 Balio gehiago: garrantzitsuena oreka sortzailea

Bertso-munduaren gogoetetan funtsezko kontzeptu bat izan da orekarena. Tradizionala eta garaikidearen, jarraidura eta berritasunaren edota barrukoa zein irekiaren arteko oreka bilatu nahi izan da bertsolaritzaren garapenean.

Jon Sarasua izan da kontzeptu hori gehien landu duena. Honela, bueltaka zerabilen jada 1990eko hamarkadan: “[Sarasuaren hitzak] Kanarrietan Iberoamerikako inprobisatzaile eta ikerlariei ponentzian egin nien galdera duk: “¿Cuál es el punto de equilibrio entre la adaptación y la identidad? Se nos ocurre una única respuesta: la actitud creadora” (Garzia, 1998: 26).

Sortzaile abizena jarri dio bada, kontzeptuari, eta 2000 hamarkada hasieran Garzia eta Egañarekin batera argitaratutako liburu kanonikoan funtsezko kontzeptu gisa finkatuko da:

“Posible ote da, ordea, indarrean dauden joera eta baldintzetan funtzionatzearen eta nor izatearen arteko balantzari eustea? Non dago

moldatzearen eta nortasunaren arteko oreka puntua? (...) agortzen ez den galdera da, sustrai luzedun kultura kokkorrek behintzat etengabe erantzun beharrekoa. Moldatzearen eta nortasunaren arteko oreka puntuaren galderak badu erantzun bat bederen: jarrera sortzailea. Oreka zail hori aurkitzeko bidelaguna, norbere tradizioa maitatzeak eta gaurko errealitatera zabaltzeak bien artean sortzen duen tentsio sortzailea da.” (2001: 63)

Idea hori bera elkartearen antolakuntzara eramango da, mugimenduak elkarteari eragile gisa eman nahi dion formaren funtsezko elementu gisa. Zentzu honetan esanguratsua suertatzen da Añotako eztabaidetan 1990eko hamarraldiaren erdialdean Elkarte birsortu zenean logotipo gisa ‘Orekaren Balantza’ adierazten duen Oteizaren irudia hartu izana (Esteibar eta Iturriotz, 2008: 62). Aipatu da jada borondatezko nahiz soldatapeko lanen arteko oreka, baita Elkartearen eraketan sortzaile zein zaletuen artean eman zen uztarketa ere. Esteibar eta Iturriotzek belaualdien arteko oreka, Ni eta Gu diskurtsoen arteko oreka, nazio mailako Elkarte eta herrialdeetako arteko oreka, eta sustapenean kantitatea nahiz kalitatearen artean bilatu dena aipatzen dituzte baita (2008: 24-27).

Oinarrizko balio honetatik Elkartearen funtzionamenduan garrantzitsuak izan diren beste hainbat eratoritzen dira: mugimenduko kideen arteko elkartasuna; norbanakoaren iritziekiko nahiz taldearen erabakiekiko errespetua; partaideen arteko, izan sortzaile edo zaletu, berdintasuna; mugimenduak bere kudeatzaileekiko erakutsi duen konfiantza; erabakiak kontsentsu bidez hartzea eta abar (Esteibar eta Iturriotz, 2001: 22-23).

Eta balio horietan oinarrituta asmatu da bidea egiten:

“(...) poliki-poliki bertsoaren inguruko ekosistema sortu eta zaindu du mugimenduak (...) Ekosistema horretan, artea ez da bertsoak egitea bakarrik izan (...) artea izan da bidea bera asmatzea, elementu konplexuen samalda bat abiarazi eta kudeatzea (...) Eta bereziki artea da hori egitea autoeraketaren bidez, adar anitz duen mugimendu antolatu baten gorabeheretan, metabolismo ez-autoritario batean funtzionatzen saiatuz.” (Sarasua, 2013: 286)

8.6.2 Bertso-eskolak transmisiorako eta sozializatorako gune

Eragiletza mugimendu autoeratu baten esku jartzeaz gain transmisiorako bitarteko gisa bertso-eskolak sortzea izango da azken ziklo honek ekarritako nobedade nagusia. Aurretik Euzko Pizkundean egin zen gisako zerbaiten aipamenean bat, eta frankismoaren azken aldera egin ziren lehen probak, baina ziklo hau izango da pauso hau, bere birsorkuntzarako ez ezik bertsolaritza kultur ekosistema modernora egokitzeko ezinbestekoa suertatuko dena, gauzatu duena.

Luze eta zabal azaldu dira bertso-eskolen loraldia nahiz loraldi honek harrotu zituen hautsak ziklo honen oinarriari eskaini zaion puntuan, eta pauso hau bertsolaritzaren irudikapen klasiko esentzializatuarekin hautsi eta mugimenduak behar zuen *framing* berria ahalbidetzeko funtsezkoa izan zela ere nahikoa argudiatu da zazpigarren atalean⁶⁶².

Laburbilduz errepikatu daiteke irudikapen klasikoak Lehen Euskal Pizkundetik jariatutako planteamendu erromantiko esentzialista eta kontserbadore batean oinarritua bertsogintza berezko dohain gisa ulertzen zuela. Berezkoa behar zuenez, eta ez ikasia, bertsolariak berez sortzen ziren kultur ekosistema aurremodernoa, nekazal mundu elebakarrean, bakarrik iraun zezakeen. Bigarren Euskal Pizkundeak planteamendu aurrerakoioagoak ekarriko ditu, gizarte

⁶⁶² 7.3.1 Bigarren Pizkundearen haritik I: Ikastolen uharatik bertso-eskolak

modu berrian bizirauteko transmisioa eskolaren bidez burutu behar dela argi ikasiko da eta ikastolen loraldiaren abaroan planteamendu horiek bertsolaritzara ekarriko dira. Eta bertsolaria jaio baino egin egiten dela ulertzeak, bertso-eskolen jardunak, kultur ekosistema moderno baterako *framingari* ateak irekiko dizkio, ikasi nahi duen edonor bertsolaria izan daitekeenez, edonolakoa izan bait daiteke bertsolaria: nekazal mundukoa bezala, hirikoa; gizonezkoa bezala emakumea; euskaldun elebakarra bezala euskaldunberria eta abar.

Bestalde, bertso-eskolak bertsolaritzaren transmisiorako ez ezik honen sozializatorako gune ere izango dira. Azaldu den gisan, 1990eko hamarraldiaren erdialderako bertso-eskoletatik sortzen diren guztiak bertsogintzaren elitera bideratzerik ez dagoela ikusiko da, eta eskolen xedea zabaldu egingo da, puntako bertsolaritza ez ezik mugimendua bera edota ekosistemaren baitako bestelako alorrak (zaletuak, antolatzaileak, gai-jartzaileak, epaileak eta abar) ere elikatu ditzaketela erakutsiaz:

“Batetik, antolatutako ikaskuntzaren froga garbia dira, garai bateko ikaskuntzaren eredu naturala bazterrera utzita. Bestetik, ikaskuntzaren transmisio eredutik harago doaz, partaidetzaren eredia gune bakarrean integratzen baitute, transmisioarekin uztartuta (...) Etorkizuneko bertsolariak sortu baino, gehienbat bertsolaritzaren masa kritikoa oretzen dute bertso-eskolek, eta funtzio hori betetzeko ekoizten dituzte adiskidetasun sareak.” (Zubiri, 2016: 25)

Beraz, esan bezala, proiektuaren funtsezko elementu bat izango dira:

“[Sarasuaren hitzak] Bai, bertso eskolak dira bertsolaritza mugimenduaren oinarriko nukleoa. Bertso eskolak ez dira eskolak akademia gisa, irakaskuntzaren transmisio zentzu soilean; gehiago dira tailerrak, taldeak, elkarte txikiak batzuetan, bertsolaritzaren tokian tokiko lana beteko dutenak: transmisioa, eta sustapena ere bai, eta bilketa agian, eta antolaketa... Elkarrekin nazio osoan egiten dituen funtzioak, azken finean.” (Barandiaran, 2011: 47)

8.6.3 *Framing* berria: tradizio ireki baten baitako sortzaile anitza

7. atalean azaldu den legez gizarte mugimendu kultur gileek euren helburuetara gerturatzeko dituen interpretazio markoak sortu ohi dituzte, gero ulerkera hori hedatzen saiatzeko:

“(…) egun inork ez du eztabaidan jartzen mugimenduak ideia berrien erroale direnik ezta parte-hartzaile eta gizartekideentzat esanahi berriak sortzen dituztenik ere. Eginkizun horretan beste eragile sozial eta politikoko batzuekin lehian aritzen dira gaur egun. Ekoizpen lan hori *framing* modura kontzeptualizatu dugu.” (Larrinaga, 2007b: 46)

Bertsolaritzaren mugimenduak ere horrela egin du azken ziklo honetan, zaharkitua gelditua zen bertsolaritzaren ulerkera jendarte garaikideari egokitzen zitzaion berri bategatik aldatuz. Gizarte mugimendu guztiarekin gertatzen den bezala pixkanaka eta praktikaren bidez gauzatu den aldaketa bat izan da, eta funtsezkoa suertatu da fenomenoaren garapenerako nahiz bere hedabideratzearen arrakastarako⁶⁶³.

Irudi-berritzeko prozesu hau izango da azken zikloak bertsolaritzaren proiektu soziokulturalari egingo dion hirugarren ekarpen berria.

⁶⁶³ Ik. 7.3.2 Bigarren Pizkundearen haritik II: Euskal kultur gintzaren ildotik bertsolaritzaren mugimendu kultur gilea, 7.2.2 Mugimenduotako komunikazioaren garrantziaz eta 7.2.3.2 Euskalgintza eta euskal kultur gintza gizarte mugimendu

Modernitate prozesua euskararena bezalako ertzeko komunitate txiki batek eskura ez zituen bitartekoen bidez (estatua eta honengandik jariatzen ziren eskola eta abar) gauzatu zenez euskal nortasunarentzako arrisku gisa identifikatu zuen, diskurtso mailan behintzat, Lehen Euskal Pizkundeak. Iragana hobesten zen etorkizunaren aurrean eta kontserbatzea garapenaren aurrean. Bertsolaritza, hain justu, bere antzinatasunagatik eta bere izaera aurremodernoagatik hartu zen nortasun ikur gisa. Praktika moderno batzuk abiarazi ziren arren (bertso-saioa ikuskizun modernoaren parametroetara eramatea, hedabideratzea eta abar) diskurtso mailan tradizioari eustea, esentziari iraunaraztea, ezartzen zen xede nagusi gisa.

Bigarren Euskal Pizkundeak, ordea, irauteko aldatu berri dagoela ikusiko du, esentzialismoak museora daramala euskal kultura, eta praktika modernoak ez ezik ulkerera moderno, ireki eta aurrerakoi bat behar dituela euskal kulturgintzak⁶⁶⁴.

Bertso-munduak Elkarteak sortu ondorengo gogoeta partekatuetan gorpuztu ahalko du diskurtso berri hori, iraganari bezainbat etorkizunari begiratzen dion ulkerera hori. Sarasuak garatuko du hainbat lanetan. 1996an honela esaten dio, esaterako, Egañari: “Memoriaren eta sorkuntzaren arteko zubi bat duk bertsogintza. Zubi horretara zatozak alde batetik tradizioa eta bestetik traizioa. Alde batetik ondare-mina eta bestetik berri-grina. Garenaren oroimena eta sortu nahi dugunaren ametsa (...)” (Egaña eta Sarasua, 1997: 233). Eta honela laburtzen du ideia Garziarentzat urtebete geroago: “Zertarako dituk sustraiak? Adarrak luzatzeko” (Garzia, 1998: 28). Aipatu den oreka sortzailearen ideian oinarriturik bada ere, etorkizuna lehenesten du iraganaren aurrean, bizi nahia iraun nahiaren aurrean: “Erresistentziari begira jarri, eta bizinahia topatu. Hitzaren ederra. Iraun-nahitik urrunago zoak bizinahia: izanahia, aldanahia, garanahia” (Garzia, 1998: 33). Eta masa kulturarekin izan ohi dituen ezaugarriekiko ezberdinak izanik babestu beharreko oinarritzko ezaugarriak zerrendatzen ditu, baina hauen galerarik ez dakarren garapenari irekita agertuz⁶⁶⁵.

Aurreko zikloetan bertsolaritzaren izaera aurremoderno azpimarratzen zen, bertsolarien berezko jakinduria, eskolarik gabekoa seinalatuz. Aipatu den gisan, zalantzan ere jarri izan zen kultura ikuspegitik prestatuxeagoak zeuden bertsolariak, Basarriren edota Amurizaren kasua, benetako bertsolariak ote ziren. Ziklo honetan, ordea, bertsogintza ikasi egin zitekeela ikusirik, barrurako begiradaren laguntzaz eta autoebaluazioan trebatuz, geroz eta garrantzia handiagoa emango zaio prestakuntzari: “Paradoxa badirudi ere, bat-batean aritzea oso ongi planifikaturiko ekintza da bertsolariaren kasuan (...) Azken batean, bertsolariarena, pilatze eta hornitze lana da lehenik eta behin” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 80).

Prestakuntzak iturri askotatik edatea dakar, sorkuntza garaikidearen beste alor batzuekin harremanetan jartzea (literatura, musika, komikia eta abar aipatzen dituzte bertsolariek). Bestalde, bertsolaritza prestigioa irabazten doan neurrian, bertsolariak beste alor horietako sortzaileengandik elkarlanerako proposamenak jasotzen hasiko dira. Bertsolaria bera ere, geroz eta kontzienteagoa izango da bere sortzaile izaeraz, eta kontzientzia berri horretatik beste alorrekin hibridazioak bilatzeko eta esperimentatzeko ekimena hartzea izango da hurrena.

Azaldu den gisan, Amuriza izango da aitzindaria, Egañaren belaunaldiko zenbait kidek ere egingo ditu bere probak, eta belaunaldi gazteagoak izango dira azken hamarkadetan jarrera hau orokortuko dutenak. Eta guzti honek, plaza berriak, publiko berriak eta presentzia mediako garrantzitsuago bat ez ezik, modernitate eta irekitasun irudi berri bat emango dio

⁶⁶⁴ Ik. 7.2.3 Bigarren Euskal Pizkundeak ekarritako metamorfosia

⁶⁶⁵ Ik. 7.3.3 Masa kulturaren murgiltzeko apustua: bertso-mundua komunikazioaren garrantzia

bertsolaritzari. Garai batean antzokira erdi arrastaka eramaten zuten bertsolaria antzokiaren kartelerako lanik abangoardistenen protagonista bihurtu da.

Bertso-mundua berrikuntza honek bere *framingari* egiten dion onuraren jakitun da berebat: “(...) bertsolaritza eta bertsogintza eraberritzeko ahaleginak medioetan lekua egitea ere garrantzitsua da. Horregatik, bertsoaren eta bertsolaritzaaren inguruan egiten diren ikerketen eta, halaber, beste sektore batzuetako artistekin elkarlanean egiten diren proiektuen berri emateak ere helburu izan behar du” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 58).

Framing berri honetan oinarriturik Elkartek hedapenean egindako lanari esker irabazitako presentzia mediatikoak eta prestigioak hainbat lagun erakarriko du bertso-mundura eta transmisioan egindako lanetik bertsolari berri mordoa sortuko da. Norberaren eskaintza sortzaile gisa lantzetik eskaintza pertsonalagoak sortuko dira, bertsolarien ugaritasunak berak eskaintza hauek biderkatu egingo ditu, eta guztientzako tokia egitea nekeza suertatuko denez, publikoaren segmentu ezberdinei zuzenduriko eskaintza espezializatuak ere sortuko dira. Ikusi den gisan hainbat lanek multipolartasuna eta fragmentazioa aipatu dituzte ziklo honen haustura aldiaren marka gisa (Garzia, 2000a, 2000b, 2007 eta 2012; Garzia, Egaña eta Sarasua, 2001; Barandiaran 2011; Zubiri 2016, 2018 eta 2019; Agirreazaldegia 2018a eta 2018b; Rubio 2019).

Bertsolaritzaaren irudikapen esenzializatuaren hausturak ireki zion atea aniztasun guzti honi, eta bere dimentsio garrantzitsuena bertsolari emakumeek irabazitako presentzia izango da (Zubiri, 2018: 40; Hernandez, 2019: 51-54). Hain zuzen ere presentzia honek eta azken urteetan bertso-munduak generoaren inguruan buruturiko hausnarketak ere egingo dio ekarpena *framing* berriari: “Azken urteetan, halaber, generoa ardatz dutela egin dituzten hainbat ekarpen ere *framingaren* baitan koka ditzakegu” (Zubiri, 2016: 29).

Ziklo honetan, bada, azken ziklo honetan *framing* berri baten lanketa jarraitu bat eman da. Urteetan intuitiboa izan da, *framing* kontzeptua bera ere ezezaguna baitzen, baina azken aldiaren geroz eta kontzienteagoa da alor honen inguruko gogoeta. Honela, esaterako, aipatu berri den aniztasunari erreferentzia eginez, etorkizun hurbil batean *framing* bateratu bati eusteko zailtasunak egon litezkeela planteatzen du Xabier Aierdik, Elkartek sustaturiko azken azterketa soziologikoan parte hartutako ikerlariak:

“*Framing* da jendeak begira dezala zuk jartzen duzun leihotik. Nik uste dut orain sartuko garela ugalkortasun batean, eta azpiframing desberdinak sortuko direla. Kontua da azpiframing ezberdin horiek *framing* orokor batean sartzea. Lehen aipatu ditugun segmentazioa eta fragmentazioa agertuko dira, eta kontua da Elkartetik *framing* berbera helaraziko den.” (Agirreazaldegia, 2018b: 94)

8.6.4 Bilketa, ikerketa eta nazioarteko harremanak: oinarritzko balioen eta balio gehigarrien deskubrimendua

Bilketaren beharraren ideia bertsolaritzaaren eragiletzaren historiaren hastapenetatik txertatu zen proiektuan. Bertsolaritzaaren inguruan topatu ditugun lehen aipamenetan ere, Iztuetak edo Chahok egindakoetan ere jasotzen zen, eta gero jarraitasun bat izan du: Manterolak bilduma egin zuen, Aitzolek ere bai... Proiektuan txertaturik egon arren, eta planteamendu instituzionalagoak ere egin izan ziren arren, Pedro Mari Otañorentzat bilketa horretarako Aldundian postu bat eskatu zuena, esaterako, norbanakoen ekimenez burutu zen, ordea. Zavalaren ekimena ere, bestelako dimentsio bat hartzera iritsi arren, argitaletxe bat propio sortu eta argitaletxerako idatzi zuten hainbat lagunen kolaborazioa lotzeraino, Zavalaren proiektua zen finean.

Bilketa modu kolektibo, koordinatu eta erakundetu batean azken ziklo honetan hasiko da, Elkartearen Xenpelar Dokumentazio Zentroarekin. Bertsoa idatziz ez ezik audioan eta bideoan ere jasoko da, horretarako kolaboratzaile sare zabal bat baliatuz, eta Joanito Dorronsorok bilduriko bertso-doinuak edota *Bertsolari* aldizkariak argitaratutako argazkiak ere batuko zaizkio bildumari. Bertsoa bera ez ezik bertsolaritzari buruzko prentsako testuak ere jasoko dira, eta baita gaiari buruz ikerketa alorrean argitaraturiko lanak ere. Eta guzti hori modu antolatu batean gorde eta eskainiko da, baita Interneten ere.

Ikerketa ere egina zuten lehenagotik hainbat norbanakok, eta Frankismo Garaiko zikloaren bigarren erditik Euskaltzaindiaren Ahozketasun Batzordearen baitan antolaturik zeuden. Baina alor honetan ere topaleku zabalago bat eraikitzeke ahalegina egingo du Elkartek. Ziklo honek estreinatuko du ikerketaren beharraren eta horren norabidearen inguruko lehen gogoeta partekatu eta publikatua. Elkartea bere sorreran hiru alor nagusirekin eratuko da, transmisioa, sustapena eta jakintza eta bilketa nahiz ikerketa azken honen muina izango dira (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 72; Sarasua, 2013: 285)⁶⁶⁶.

Nazioarteko harremanena aurretik aintzat hartzen ez zen alor bat da. Ikusi den gisan antzeko fenomenoan aipamen batzuk egin zituzten Manuel Lekuonak edo baita Basarrik berak ere, baina ez zen proiektu orokorraren baitan sartzen, ez zen lehentasun bat, alor horretan sakontzea. Aurreko zikloetan indar handia zuten bertsolaritzaren irudikapen esentzializatuak eta ikur izaerak, eta hauek muturrera eramanez munduan bakarra zenaren ideia ere erabili zuen hainbatek. Ziklo berri honetan irudikapen hori hautsi, ikur izaeraren azpimarra lausotu, eta, ikusi den bezala, nazioarteko harremanak saretzeari ekingo zaio. Ikerketaren sustapena eragin duen bulkada berdinak irekiko du bide hau ere: gehiago ezagutu nahiak, gisako beste fenomenoan ispiluak eta hauen azterketan trebaturiko adituek eskaini zezaketenaren jakin-minak.

Bertsolaritzaren balio artistikoa eta kulturala baloratzeko zailtasunak euskal kulturagintza modernoaren hastapenetan, XIX. mendean, euskal *intelligentsiaren* arreta bereganatu zuenetik eman izan dira. Ikusi den moduan, Gabilondok (2016: 192) aipatzen du garai hartan ere eman zela gerora hainbeste luzatu zen bertsolaritza eta poesiaren arteko harremanaren eztabaida. Kultura popularrarekiko jarrera maiseatzaileek nahiz apologistek ere, oinarrian Burkek azaltzen dituen Modernitate hasierako kultura popularraren bestekotzea eta XIX. mendeko erromantikoen lilura izango lituzketenak, ez dute lagunduko balio hori argitzen, ezta ahozketasunak kultura idatziarekiko luzaroan izan duen subalernitateak ere.

Balioa hori jakintzaren argitara baino ezin da ezagutu. Hortik Elkartearen sorreratik ardatz honi, eta honen baitan bilketari, ikerketari eta nazioartekotzeari, emandako garrantzia.

Garzia bere tesian bertsolaritza baloratzeko erretorikaren markoa proposatzen duenean bertsolaritzaren balio artistikoa azaleratzeko metodo bat ari da eskaintzen. Sarasuak masa kulturarekiko ezberdinak diren hainbat ezaugarri zerrendatzen dituenean ere bertsolaritzaren berezko balioen azpimarra dakar. Edo Amuriza nahiz Egañak bertsogintzaren sekretuak esplikatzen dituztenean beste hainbeste egiten dute. Ezagutza guzti hori ere *framing* berriaren funtsezko oinarri bat izango da Zubirik aipatzen duen bezala (2016: 29).

Izatez, gizarte mugimendu guztietan ematen da inguruari nahiz barrura begira mezu egokia zabaltzeko norbere ezagutzan sakondu behar hori: “(...) nortasun kolektiboaren eraikuntza

⁶⁶⁶ Bilketa, neurri handi batean ikerketarako lehen pauso gisa ulertzen da neurri handi batean. Honela dio Arantxa Mariskalek, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren sortzaile eta lehen zuzendari izandakoak: “Xenpelar, berez, ez da ezer, ustiatu, nahasi eta ikertu egin behar da” (Barandiaran, 2011: 64). Aurreko zikloetan lotura hori ez zen hain garbi egiten. Zavalak, esaterako, galtzear zen mundu baten testigantza jasotzeko egiten zuen nagusiki bere bilketa.

prozesuak hiru urrats egiten ditu mugimenduetan. Lehenengoa (...) mugimenduaren eraketan parte hartzen duten baliabide kognitiboei lotuta dago” (Larrinaga, 2007b: 31).

Bestalde, mugimenduak egindako bideak, pilatutako esperientziak eta bere baitan burututako gogoeta partekatuak bestelako balio gehigarri batzuk planteatzeko aukera ere ireki du. Honela, azken zikloan bertsoaritzak bere eraketan izan duen esperientzia euskal kulturagintzaren beste alor batzuetarako edo nazioartean aurki daitezkeen gisako beste fenomeno batzuentzako erreferentzia bat izan daitekeela aipatu izan da:

“[Sarasuaren hitzak] uste dut Elkartea erreferente bat izan daitekeela nazioartean alor horretan, eta etxean ere bai, kulturagintzako beste esparruetan estrategia batzuk inspiratzeko, alboan egoteko. Beti ere, distantzia batetik eta eredu izaten saiatu gabe; izan ere, gurean gertatu diren baldintza historikoak eta bertsoaritzak berak dituen ezaugarri bereziak ezin dira estrapolatu. Ez dut uste kopiagarri izan behar dugunik. Baina erreferentzia bagara izan (...)” (Barandiaran, 2011: 48)

Erreferentzialtasun hori, besteak beste, komunikazioarekin ere lotu izan dute, *framing*arekin harremanetan jartzen dutenaren seinale. 2000 urtean Elkartearen gogoetarako Sarasuak sinaturiko txostena aipatzen du Barandiaranek: “Komunikazioan, berriz, Nazioartekotasuna lantzearen garrantzia omen zen giltzarrietako bat, txostenean agertu zuenez” (2011: 95).

*Framing*aren inguruko guztietan gertatu ohi denez Sarasua ageri zaigu hemen ere, baina ez da kontu hauek dakartzan bakarra. Barandiaranen lan berean Koldo Tapiak eta Maialen Lujanbiok ere aipatzen dute euskal kulturagintzarako eredu bat eskaintzeko aukera, edota Arantxa Mariskalek eta Joxerra Garziak nazioarteko gisako fenomenoaren saretzean lidergo hartzekoa. Bestalde, bertso-mundutik kanpora ere aitortu izan da erreferentzialtasun hori. Zubirik, esaterako, Iratxe Retolazak literatura alorretik egindako aipamena jasotzen du (2018: 23). Eta Mintzolan euskal antzerkiaren dokumentaziorako egitasmo bat da habian, Euskal Herriko Antzerkizale Elkartea eta Xenpelar Dokumentazio Zentroaren arteko elkarlanean.

Jorratu izan den beste balio gehigarri bat bertsoaritzaren lanketak hezkuntza sistemari egin diezaiokeen ekarpenarena da. Bertsoaritzaren transmisiorako bitarteko gisa aspalditik, 1980ko hamarralditik, eman izan da bertsoa eskoletan, baina gerora planteatu izana pauso bat haratago doa, bertsoaritzaren lanketatik ahozkototasuna nahiz beste hainbat gaitasun garatu daitezkeela baizik: “[Egañaren hitzak] Guk uste dugu (...) bertsoaritzaren estrategia kopiatuz hobetu litekeela neska-mutikoen komunikazio gaitasuna denean (...)haiek antzekotasunez, analogiaz, ikasiko dute antzeko estrategiak erabiltzen, nahiz ez izan bertsoan, nahiz izan hitzaldi bat egiteko orduan, nahiz izan taldean beste bat konbentzitzeko orduan (...)” (Esnal, Egaña eta Sarasua, 2002: 814). ‘Bat-bateko bertsoaritzak. Gakoak eta azterbideak’ liburuan zerrendatzen dira bide honetatik landu litezkeen gaitasunak: Pertsonaren gaitasunen garapenaren baitan, inprobisaziorako jarrera eta gaitasunak (autokonfiantza nahiz jarrera sortzailea), komunikazio-ekintza antolatzeako gaitasunak, eta erlazio gaitasunak eta oroimenaren garapena; kultur ondarearen ezagutzan ahozko inprobisazioan murgiltzea eta honen bidez gaurkototasuna landu nahiz euskal historia ezagutzea; hizkuntza gaitasunenari dagokionean ahozko espresiorako trebezia eta baliabideak lantzea; eta musika gaitasuna jorratzea euskal doinuen ondareaz jabetuz (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 44-45)

Oinarritzako balioen ezagutza eta balio gehigarrienak, bada, esan bezala, *framing*arekin lotura zuzena egiten du, baina kontzeptuaren zentzurik zabalenean, ezagutzak askorako balio baitu:

“(...) bertsoaritzak aurrera egiteko. Estrategiak planteatzeko, lan lerroak zabaltzeko, beste diziplinekin lan egiteko (...) Bertsoaritzak gure formazio eta

kulturari egin dakizkion ekarpenak egiteko (...) Ikerketa behar da material didaktiko egokia prestatzeko, hizkuntza lantzeko, garatzeko, bertsogintzari ekarpenak egiten laguntzeko, hau da, bertsolaritza bizirik mantentzeko [Arantxa Mariskalen hitzak].” (Barandiaran, 2011: 64)

8.6.5 Komunikazioa eta hedabideratzea: profesionalizazioa, norbere ekoizpena eta harreman sarea

Bertsolaritzaren hedabideratzea ere honen eragiletzaren historiaren lehen uneetatik hartuko da kontuan. Ikusi den bezala bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren hazkundeak ez du etenik izango ziklorik ziklo. Azken zikloan, ordea, beste dimentsio bat hartuko du kontuak. Azken jauzi honen inguruko hainbat datu eman dira honezkero, baina zantzu esanguratsu gehiago ere eman daitezke. Honela, esaterako, ‘Bat-bateko bertsolaritza’ liburuan bertsoaldi hautatuen emisioa ikus-entzunezko hedabideetan azpi-genero bat izatera iritsi dela esaten da:

“Bertsolaritzak ikus-entzunezko hedabideetako azpi-genero gisa ere badu bere tokia, irrati eta telebistako programa berezien bidez. Nagusiki bertso-saioteko grabazioak hedatzen dituzten astean behingo programak dira, bilduma komentatuak eskaintzen dituztenak (...) Gaur egun, Euskal Telebistak astero antenaratzen duen Hitzetik Hortzera bertsolaritzari buruzko programa klasiko bilakatua da dagoeneko.” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 45)

Baina alderantzizkoa ere gaineratzen da baita, alegia, hedabideetatik zabaltzen den bertsolaritza honen adierazpen garrantzitsuenetako bat dela, alegia, kasik bertsolaritzaren azpi-genero bat: “Egungo bertsolaritza hainbat adierazmaila edo eremutan agertzen da (...) Bost adierazmaila bereiztuko ditugu: a) Ikusgarri edo saio publikoa b) Sariketa eta txapelketa c) Taldeko jardun ludiko ez-formala: bertso-eskola d) Irakaskuntza orokorreko eduki eta ariketa e) Hedabideetako azpi-generoa” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 38)

Ziklo honetan bertso-munduak lehen aldiz modu autoeratu batean funtzionatuko duenez, Elkartean komunikazioa lantzean lehen aldiz bertsolaritzaren komunikazioaren lanketa kontziente bat burutuko du, ardura horien profesionalaizaziora iritsiko delarik. Honela, barne komunikazio bat ere eratuko da lehen aldiz, eta hedabideratzeari dagokionean bertso-munduak jorraturiko eskaintza bat ere garatuko da telebistarako programa eta Internetarako kanal tematikoarekin. Bestalde, hedabideekin elkarlana bultzatuko da eta hauen eskaintzari norbere ekoizpenekoa gehituz sarea osatzea izango da ideia gakoetako bat.

8.6.5.1 Jardueren profesionalizazioa eta egituran hartutako pisua

Bertsogintza bera komunikazio ekintza bat da, eta bertsogintzaz igorrikoez haratago XIX. mendetik lortu duen presentzia mediatikoari erreparatzen bazaio argi dago bertso-munduak arakastaz komunikatu duela (txapelketak, albisteak, gogoetak eta abar) oso aspaldidanik.

Bertsolaritzaren komunikazioak ere jauzi kualitatibo bat emango du azken ziklo honetan, ordea. Alorraren kontzientzia eta honen baitako ekimenak beste ardura mota batekin jorratuko dira aurrerantzean. Honela, esaterako, aipatu den gisan, bertsolariek antolatutako lehen txapelketan, 1986koan, ekitaldiaren aurkezpenetako prentsaurreko bat antolatuko da lehen aldiz. Edota ETBrekin izandako etenean burutu ziren Añotako gogoetetatik etorri zen Elkartearen birsortzean, 1997an, irudi korporatiboa landu zen, komunikazio batzorde bat sortu zen eta bazkideentzako hileroko buletina, Bertsozale, abiarazi zen barne komunikaziorako bitarteko gisa. Komunikazio batzorde-buruari, Jon Sarasua izango da lehena, komunikazio arduradun deituko zaio aurrerantzean, baina ez da ordaindutako lana

izango. Eguneroko martxan burutu beharrekoak Elkarteko idazkariak egingo ditu (hau bai da soldatapekoa) eta behar bereziak sortzen direnean, txapelketetan, esaterako, jende gehiagoren dedikazioa eta kanpoko enpresen zerbitzuak baliatuko dira:

“Badakit txapelketetan, 1990eko hamarkada erdialdetik aurrera behintzat, beti izendatzen zela komunikazio arduradunen bat (...) entzun izan ditut Imanol Epeldek parte hartu izana, edo Imanol Minerrek (...) 2003ko Kultur Artekoan, esaterako, badakit Estitxu Eizagirre, Zihara Enbeita eta Joana Mendiburu ibili zirela lan hauetan eta Kultur Atelier enpresak ere parte hartu zuela.” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27).

Komunikazioaren ardura hartzea, bada, Elkartearen sorreratik emango da, komunikazio arduradunak, ordainpekoa ez zen lanean 1990eko hamarraldiaren bigarren erditik aurrera arituko dira, eta, jada kontatu den lez, 2005eko Txapelketa Nagusirako Joseba Kamio kontratatuko da komunikazio arduradun profesional gisa. Txapelketaren ondoren, 2006an Esti Esteibar kontratatuko da lanaldi osoko komunikazio arduradun iraunkor gisa eta urte hartan bertan hurrengo hamar urtetarako estrategia finkatzeko burutako gogoetetan Elkartearen egituraren komunikazio sail bat sortzea erabakiko da (Barandiaran, 2011: 128). ‘Bertsozale elkarte 2007-2018, etorkizun ikuspegia’ izeneko dokumentutik jaso dira hitzok:

“Ekimenak: Sail eta herrialdeekin zehar lerroan egituratuta egongo den komunikazio atal sendo eta iraunkorra garatu (...) Komunikazio politika osoa definitu eta garatu (...) Elkarteko kideen arteko barne komunikazioa garatu. Hartzaile talde ezberdinak identifikatu, eta horiengana iristeko mezu eta erreminta egokituak landu (...) Kanpo komunikazioari dagokionez: elkartearen proiektua gizarteratu, irudi bateratua eta askotarikoa (EHBE – herrialdeak) landu; diskurtso propioa eta koherentea garatu (...) garaian garaiko komunikazio bide eta guneetan bertsolaritzak osotasunezko lekua izan dezala bermatu.” (Esteibar eta Iturriotz, 2008: 35-36)⁶⁶⁷

Egun Esteibarrek, 2015ean komunikazio teknikari gisa kontratatu zuten Amaia Goikoetxeak, herrialde bakoitzeko arduradunek (normalean borondatezkoak), martxan leudekeen txapelketetako komunikazio arduradunek (normalean soldatapekoak), Lankuko ordezkariak, Xenpelarrekoak, Hedapen Sailekoak eta Elkartearen koordinatzaileak osatzen dute Komunikazio Saila daraman batzordea. Eta bertan landutakoak Elkartearen egiturako sail eta batzorde ezberdinetara eramaten dituzte guztien jarduera komunikatiboa adostu, koordinatu eta bideratzeko. Elkartearen komunikazio plana, urteko egitasmoa nahiz agenda, komunikazio estrategia ezberdinak eta alorreko beste hainbat tresna garatzen dituzte, hamar urte lehenagoko diseinuan aipaturikoak eta gerora sortu izan diren beharrei erantzuteko:

“(…) lana da estrategia osoa eta bisio osoa edukitzea eta horiekin bat datorren lana eragitea (...) Euskal Herri osorako irudi korporatiboa lantzen dugu. Horretarako bitarteko oso garrantzitsu bat Euskal Herriko Elkartearen bertsozale.eus webgunea da (...) Barne komunikazioa ere gure ardura da. Alor honetan erreminta garrantzitsu bat Elkartearen barne buletina da (...) sail bakoitzak eta herrialdeetako Elkarateek burutzen dituzten proiektuetan komunikazio alorreko koordinazioa burutzea da egiten dugun beste lan bat (...) koordinazio lan horretaz haratago, etengabe ari gara erreminta bateratuak

⁶⁶⁷ Gisako gizarte mugimenduetan barne nahiz kanpo komunikazioak duen garrantzia honela azpimarratzen du Meluccik: “(...) la eficacia de este modelo requiere (...) la existencia de instancias y organizaciones (...) del movimiento con capacidad para garantizar las comunicaciones internas, especialmente durante la fase de latencia, y externas, principalmente en la fase de movilización” (Melucci, 1994: 147)

garatzen, irizpide bateratuak definitzen, estrategiak komunean jartzen eta abar. Adibidez, aurtun bazkietza politika landu dugu (...)” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27)⁶⁶⁸

Beraz, bertsolaritzaren mugimendua informazio iturri gisa profesionalizatu egin dela esan daiteke. Ez da, ordea, hedabideratzearekin lotura izanik profesionalizatu den alor bakarra. Izan ere, jada azaldu den gisan, hedapenean lanean diharduen talde profesional bat ere osatu du pixkanaka Elkarteak: ‘Hitzetik Hortzera’ren ekoizpenean, programak bertsolaritzaren garapenean zuen eragina ikusirik, konfiantzazko eduki sortzaileak jarriko ditu pixkanaka Elkarteak, eta pertsonal teknikoaren ardura ere ETBtik kanpoko ekoiztetxe batera eta azkenik Elkartearen eskuetara pasako da; Interneteko kanal tematikoa ere, Elkarteaz kanpoko ekimen pertsonal batetik sortua, Elkarteak hartuko du bere gain, eta 2017tik bateko zein besteko langileak talde bateratu batean integratuko ditu.

Elkartea, bere sorreran, esan bezala, ardatz nagusi bana duten hiru sail nagusitan egituratuko da: transmisioa, sustapena eta jakintza. Egitura horri zeharkako bi sail gehitu zaizkio gerora: administrazioa eta komunikazioa⁶⁶⁹. Eta sustapena bitan banatu da: sustapena eta hedapena⁶⁷⁰. Bilakaera honek argi uzten du komunikazioak eta hedapenak urteen joanaz irabazi duten pisua: egitura bikoiztuz sortu diren hiru sail berrietatik bi okupatzen dituzte.

8.6.5.2 Norbere ekoizpena eta hedabideekin elkarlana

Hedabideekiko elkarlana komunikazioa eta hedapena modu kontziente batean jorratzeari ekin zionetik landu behar izan du bertsolaritzaren mugimenduak. ETBrekin ‘Hitzetik Hortzera’ telebista programaren inguruko hitzarmena urtero berritu behar izan da 1990eko hamarraldi hasieratik, irratiekin elkarlan hitzarmenak 2000 hamarraldi hasieratik gauzatu dira, eta gerora tokiko telebistekin edo Hamaika telebistarekin ere beste hainbeste egin da (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 59-71; Elortza eta Esteibar, 2008: 58). Ahalegin jarraitu bat egin da, bada, medioekin eman daitezkeen harremanak zaintzeko: “(...) , noizean behin bilerak egitea komeni da, elkarren berri izateko, elkarlanerako bideak bilatzeko, medioek egingo luketenaren eta horretarako dituzten edo ez dituzten bitarteko eta aukeren berri jakiteko, eta harreman sano eta estuagoa lortzeko” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 53)⁶⁷¹.

Harreman hauetan medioen beharrak ez ezik mugimenduaren hedapen estrategiarenak ere aintzat hartu behar direla ulertu du bertso-munduak:

⁶⁶⁸ Euskal Herriko Elkarteko eragilea eta teknikariaren lanaz ari da. Horri herrialde bakoitzeko komunikazio arduradunaren lana gehitu behar zaio, baita herrialdeetako txapelketen, Txapelketa Nagusiaren nahiz bestelako ekitaldi berezien (Bertso Eguna, esaterako) komunikazio ardurak hartu ohi dituztenena ere. Esteibarren elkarrizketak askoz ere xehetasun gehiago ematen ditu. Edota Iturriotzekin batera egindako lanean ere zabal jorratzen da, esaterako, Elkartearen barne komunikazioa izan beharko lukeena (2008: 43-51)

⁶⁶⁹ Generoaren lanketarako talde bat ere eratu da, baina gaur gaurkoz ez du sail baten entitatea.

⁶⁷⁰ Duela hamarkada bat jada planteatu zuten Elortza, Sukia eta Muruak bereizketa hau: “Masa-kultura eta kultur industriaren testuinguruari buruz ari garelarik, sustapena eta hedapena egitasmo berberaren bi hankak izanik ere, euren lan-eremuak bereizteak bere zentzua duela deritzogu” (2008: 28). Baita bereizketa horretatik sortu den Hedapen Sailaren baitako edukien ekoizpenerako lantaldearen gisakoa ere: “(...) hedabideen sakoneko ezagutza dutenen eta bertsolaritzaren arteko elkarlanean oinarritutako lan-talde ekonomikoki bideragarria behar litzateke, edozein eta edonolako hedabidetan bertsolaritza-edukiak lantzeko Elkartearen tresna izango litzatekeena (...) Lan-talde hori hainbat hedabide, programa, sail edo tartetan bertsolaritza-edukiak lantzeko gune izango litzateke, akordio, kontaktu eta kolaboratzaileen bitartez” (2008: 97).

⁶⁷¹ Esperientzia garrantzitsu bat pilatu du Elkarteak hedabideekin izandako elkarlan hitzarmenetan. Ondorioz, harreman hauetan gorabeherak hainbat gorabehera ezagutu ahal izan ditu. ETBrekin izandako etena da sonatuena baina egon dira gehiago ere: “Elkartearen eskariz egindako lana burutzeko (Loidi, A. (2000): Bertsozale Elkarte eta Hedabideak) hedabideetara bidali zen inkestan nabarmena da Elkartearekiko harremanik eza eta, sarritan, harreman hotz eta distantea dutela aipatzen da” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 53).

“Kasu askotan hedabideetan bertsolaritzari buruz ematen diren inpaktu informatiboak ez planifikatuak eta ez aurreikusiak izaten dira. Alegia, hedabideak berak bere interes eta beharrak asetzeko egindako ahaleaginean oinarritzen dela publikoak jasotzen duen azken emaitza. Helburua da (...) hedabideen esku utzi gabe, izan dadila informazioa hedatzeko modu planifikatu, ordenatu, antolatu eta aurreikusia (...) Hori guztia egituratzeko beharrezkoa da hedabideetan zer egiten den, bertsozale elkarteak nola funtzionatzen duen eta hedabideetan bertsolaritzaren berri emateaz arduratzen diren eragileak zein diren ezagutzea.” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 58)

‘Hitzetik Hortzera’ren arrakastak ekarri zuen astinduak eta ETBko arduradunekin izandako tira-birek askotarako eman zuten. Jada 1990 hamarraldiaren lehen erdi horretan medioetan ateratzen zena aztertu eta baloratzeko beharra sortu zen (Siadeco, 1995: 66-67). Baita balorazio hori bertsolaritzaren hedapen egokiena izan zitekeenarekin erkatzekoa ere. Honela, esaterako, dezente errepikatuko da (Garzia, 1993: 96; Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 98) edukiak formatu bakoitzak eta bere audientziak izan ditzaketen ezaugarrien arabera banatzearen ideia: “(...) ez dago hedabide bakoitzaren izaera ahaztu edo alboratu uzterik (...) Banaketa bakoitzaren izaeraren arabera egitea komeni da orain, batek hobeto dezakeena beste bati eskatu gabe” (Garzia, 1993: 96)⁶⁷². Edota telebista, irratia nahiz idatzian egiten diren eskaintzen osagarritasuna eta sinergiak aprobetxatu beharra. Zentzu honetan deigarria suertatzen da Garziak oso modu goiztiarrean planteatzen duen eskaintza multimedia baten egituraketa (1993: 96), hamarkada luze bat geroago Elortza, Sukia eta Muruak Elkartearentzat lan egingo duen hedapenerako talde multimedia batean garatua ikustea (2008: 107-119). ‘Bertso Sarea Multimedia’ deitzen diote hauek proposamenari eta Interneteko kanalaren nahiz telebistako programaren ekoizpenaz gain hedabideak zerbitzatzeko prentsa agentzia eta Elkartearentzako argitaletxe funtzioak esleitzen dizkiote (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 111). Garzia, aldiz, telebistako programan eskaintitako bertso-saioa irratian iruzkindu eta prentsan analisi sakonagoa eskaintzeaz ari da, alegia, Elkarteko lantaldearen eskaintza integralaz beharrean formatu ezberdinetako lantaldeen koordinazioaz.

Proposamen batetik bestera aurreko puntuan azaldu den prozesua eman da: Elkartearen eskaintzaren profesionalizazioa. Bilakaera honen atzean mugimenduarentzat bere hedabideratze estrategian funtsezkoak diren alor batzuen kontrola egikaritu nahia legoke batetik: “(...) funtsezkoak diren eremu batzuetan, telebista eta Internet, ez da besteen eskuetan utzi nahi izan hedapenaren muina. Hedabideek edo bestelako agenteek eskaini dezaketena errespetatuz, baita sustatuz ere ahal den neurrian, geure eskaintza izatea garrantzitsutzat jo da” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27). Sektorearen egoerak berak ere behartu du igorle funtzio hori indartzea, bestetik:

“Elkartearen Hedapena ez da ‘Hitzetik Hortzera’ edo bertsoa.eus sortzera mugatzen. Hedabideak geroz lantalde txikiagoekin egiten dute lan, geroz eta gaitasun txikiagoa dute gurea bezalako fenomeno baten jarraipena behar den bezala egiteko. Ondorioz, zeuk bidali behar duzu ikus-entzunezkoa telebistara, audioa irratira edo testua prentsara.” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27)

Bigarren faktore hau ere, halabeharrezkoa izanagatik, aukera moduan ikusi izan du bertso-munduak nahikoa aspalditik:

⁶⁷² Adibide bat jartzearen, telebistak audientzia zabalgoa duenez, bertsozale amorratuz gain moderatuagoak izan ditzakeela ulertzen da, eta hauei eduki arinagoak eskaini behar zaizkiela. Aldizkari espezializatuaren irakurleak, aldiz, sutsuagoak beharko luketeenez, eta prentsa idatzia sakontzeko telebista baina formatu egokiagoa delakoan, hemen eduki sakonagoak eskaini beharko lirakeke.

“Hasteko, esan dezagun geroago eta bulegokoagoa dela gaur egungo kazetaritza. Dena izaten baita nondik begiratzen zaion, aukera moduan ere begiratu diezaioke egoera horri bertso-mugimenduak, harreman-sare eta akordio egokiak landuz gero, bere irizpideak jarraituz lan egingo duen lantaldea egituratzeko aukerak egon bai baitaude, hedabideak programaz eta atalez zein edukiz eta berriz hornitzeko (...) “(...) produktu-ekoizpenari beste garrantzi eman behar litzaioke berri/eduki-emailetzari. Lan eraginkorragoa egiteko modua ikusten dugu bide horretatik; bide zabalagoa, lotura itogarririk bakoa eta elkarlan aberatsagokoa eragile guztientzat” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 95)⁶⁷³

Azken hiru hamarkadetan bertsolaritzaren hedabideratzerako formula guztiak planteatu, esploratu eta jorratu ditu bertso-munduak. Bere kanalak ireki ditu, eta hedabideekin elkarlana sustatu du, bai hauei ekoizteriko edukiak eskainiz eta baita beste maila askotako lankidetzak eskainiz ere. Elkarrekin bere sorreratik egin zuen hedabideratzeko apustu sendoari tinko eutsi zaio, bertsolaritza geroratzeko funtsezkoa delakoan, eta geroz eta indar gehiago jarri ditu zeregin horretan. Bestalde, eta aldi berean, hedabideratze hori modu egokian gauzatzea ere zaindu du, bere garaian telebistarekin zeukan hitzarmena eteteraino. Ardura horrek ere eragin izan du formula guztiak planteatu, esploratu eta jorratzeko kuraia:

“Bertsolaritzaren hedapen eutsia eta orekatua lortzea du ipar lan-ildo honek. Kontua ez da besterik gabe eta ‘zenbat eta gehiago, hobe’ lelopean bertsoa hedatzea, baizik eta modu eutsigarri batean zaletasuna sendotzea. Hainbat fronte kontuan izatea eskatzen du: hedabideetan bertsolaritzak izan dezakeen presentzia zaintzea, lurraldean lurraldeko bertsolaritza sustatzea, saio bereziak antolatzea, txapelketak egitea, argitalpenak ateratzea eta, oro har, hedapenarekin zer ikusia duten ekimenak martxan jartzea.” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 72)

Zikloaren oihartzun mediatikoari eskaini zaion puntuan ikusi ahal izan denez, bere fruituak eman ditu ahalegin honek guztiak, bai presentzia mediatikoaren hazkunde kuantitatiboari dagokionean eta baita presentzia honen hainbat zantzuk islatzen duen bertsolaritzaren prestigioareari dagokionean ere.

8.6.6 Txapelketa: ekintza ikustarazle nagusia

8.6.6.1 Lehia deserosoa

Txapelketa izango da proiektuaren beste oinarri garrantzitsu bat. Bertsogintzaren bilakaeran sekulako eragina izaten duela azpimarratu ohi da, kanonak finkatzeko sekulako indarra duela. Gutxiago aipatu ohi den arren bertsolaritzaren beste alor guztietan ere beste hainbeste gertatu ohi da, ordea. Ikusi den gisan Elkarrekin bera 1986ko antolaketaren inguruan Euskaltzaindiak eta bertsolariek izandako desadostasunetik sortu zen, ETBrekin izandako etena 1997ko txapelketaren emanaldia bideratu beharretik eman zen amaitutzat, 2005eko txapelketaren antolakuntzan emandako krisiak ekarri zuen belaunaldi aldaketa Elkarrekinen gidaritzan... edota Elkarrekin Interneten daukan eskaintzaren berrikuntzak txapelketa zikloekin uztartu ohi dira normalean. Mugimenduaren biorritmoak erabat baldintzatzerainoko garrantzia du, bada, txapelketak proiektuaren baitan.

⁶⁷³ Ez da, noski, Bertsozale Elkarrekin bide horri ekin dion eragile bakarra: “Garai batean ETBk gehiago ekoizten zuen, edo bestela ekoiztetxeak kontratatzen ziren. Guzti horrek beheraka handi bat izan du, eta bestelako hedabideak ere askoz okerrago daude. Beraz, duela urte batzuk erakundeetan ez zegoen komunikaziorako eta ikus-entzunezkoetarako ekiporik, baina gaur egun edozein erakunde ertainek dauka horrelako egitura bat.” (E. Esteibar, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/27)

Bertsolaritzaren eragiletzak ziklo batetik bestera eta belaunaldiz belaunaldi eutsi dion ardatz beteranoena ere izango da, bilketa eta hedabideratzearekin batera, baina tradizioa eta garrantzia gora behera bera da eztabaida eta zalantza gehien sortu izan duena ere.

Txapelketa polemikaz inguratua ageri da txapelketa denetik. Epaimahaiaren ingurukoak, esaterako, baita aurretik ere: “Xurien eta gorrien arteko pataskek gerla ondoko Euskal Jaiak ilundu zituzten. Donibane Lohizungo Guilbeau mediku euskaltzale baina errepublikanoak D’Abbadieren inguruko epaileei kritika zorrotzak egin zizkien” (Davant, 2012: 76). Bestalde, zalantzak eragin izan ditu beti ez ote duen bertsogintza bere onetik ateratzen. Zavalak, esaterako, hainbat txapelketatan epaimahaiko izanik, honek bertsolaritzaren bizi-mundua ikuskizun eta antzerki bihurtzen zuela zioen: “Aquel día la mutación fue a la inversa: un campeonato, que tenía su parte de espectáculo y teatro, se convirtió por un momento en realidad y vida” (Zavala, 2006b: 222). Eta hainbatek aipatutako korapiloa azpimarratzen zuen:

“Ez zen, ordea, epaile lan horretan eroso sentitu inoiz, behin baino gehiagotan aitortu zuenez. Nahiago zuen entzule soila izan, edo liburu-saltzaile nahiz jaialdi--grabatzaile, bere artxiboa osatzeko bertsopaperez eta bat-bateko bertsoz. Bere lagun maite Bordarik behin esan omen ziona askotan errepikatzen zuen: «Ark esan zidan bein bertsoa ez zala neurtzen pixura, metroz edo erlojua eskuan artuta. Neurtzekotan ere, beste era batera neurtu bear zala bertsoa, eta neurtzeko zailtasuna ortik zetorkiola. Arrazoi aundia zuela pentsatu izan det beti.” (Iriondo, 2010: 15).

Joseba Zulaika izan zen 1985ean argitaratutako ‘Bertsolarien jokoak eta jolasa’ lanean kritika modurik sakonenean azaldu zuena. Laburbilduz, txapelketak, jokoak izanik, arau batzuk eta horien arabera irabazle bat behar zituen bitartean, bertsogintza jolasa zela, eta ondorioz arau nahiz garaile garbirik gabea, defenditu zuen. Bertsogintzaren izaerari buruzko tesi hau aintzinako desfioetan hainbatetan eman ziren berdinketekin, tartean Xenpelar eta Juxtoren artekoa, bertsoan nork okerrago egin aritu zirena, janzten zuen. Ahozkotasuna nagusi izanik hitzaren literaltasunari kasik arauaren balioa eman izan zion jendartean, atzo goizerarte, bertsolariaren funtzioa literaltasun hori haustea, aruari iskin eginez arteari ate bat irekitzea zela ere iradokitzen zuen:

“Umorea, esperantza, bihotza, sentimenduen negarra: hori da bertsolariak sortu nahi duena. Esan genezake gure kultura tradizionalan bertsolaria izan dela hitzaren literaltasuna eta jokoaren galdu-edo-irabazi superatzen erakutsi diguna. Euskaldunak hitzari dion seriotasunean, jokoari dion afizioan, benetakotasunari dion debozioan, bertso kantatzean agertzen da umorearen eta ironiaren leku bezala, hitzaren jolasean eta fikziozko ofizioak norberaganatuaz, edozein egia edo giza egoera bizitzeko modua. Hitzak esplikatuz ezin duena, jokoak irabazi ezin duena, borrokak bentzutu ezin duena, bertsolariak kantu bihurtzen du,” (Zulaika, 2003a: 41-42)

Honenbestez, jatorrizko funtzio horren ukoa suposatzen zuelakoan, arriskutsutzat jotzen zuen bertsolaria txapelketako jokoaren moldeetara behartzea: “Bertsolariaren ona eta aurrerapena nahi duenak ezin du zeregin kultural ezin ordezkatzeko hori arriskuan jarri haren kantua norgehiagoka izaerara erreduzituz, haren jolasa joko konpetitibo bihurtuz, haren harreman imajinarioak neurtu daitezkeen harreman literaltzat hartuz” (Zulaika, 2003a: 42). Eta lana 1986ko txapelketaren boikoterako dei batekin bukatzen zuen:

“Idazlan honetako argudioak eta iritziak egokiak balira, lotsarik gabe beren errebeldia kontsuma dezaten eskatuko genieke bertsolariei: “Ez dugu onartzen

gure bertsoak etsaminatzeko eta kalifikatzeko konpetentziarik duen epaimahairik; ez dugu onartzen bertso-gintza norgehiagoka joko bihurtu nahi duen publikorik”. Eta kito. Egiazko bertsozaleak ez du bertsoak entzuteko irrika galduko. Eta denok txapel-dun geratuko gara” (Zulaika, 2003a: 56)

Bertsolariek ez zuten boikotik egin. Izatez, esan bezala, 1986koa izan zen bertso-lari-iek eurek antolatu zuten lehen txapelketa. Horrek ez du esan nahi bere hitzei jaramonik egin ez zitzaizkien, txapelketaren inguruko kritikak hainbat gogoeta eta ñabardura eragin zituen, asko eta asko bertso-larien eskutik mahai gaineratutakoak. Eragiletzan buru zebiltzanak ere kritiko agertu ziren zenbaitetan Jon Sarasuak, esaterako, 1991ko Gipuzkoako txapelketan lehiaren aurkako protesta ekintza burutu zuen⁶⁷⁴ eta urte batzuk geroago Joxerra Garzia eta biak txapelketaren egokiera zalantzan jartzen zuten ‘Jon Sarasua: bertso-ispiluan barrena’ elkarrizketa liburuan:

“[Sarasuaren hitzak] Atxaga, Sarrionandia, Aristi edo Irigoien, lauretan onena zein den erabakitzeko lehiaketa batek ez likek zentzurik, ez? Lau idazle horietatik bakoitzak zaukak bere ekarria, eta kito. Bazakiat oraindik urrun gaudela, baina nik apur bat hortik ulertzen diat gurea. Hala ere, une honetan minorian nagok, beraz beste aldean arrazoi pisuzkoak zeudek, eta ez nauk hasiko denen kontra eztabaidan.” (Garzia, 1998: 55)

Bistakoa da txapelketa lehia deserosoa dela bertso-larientzat, baina,aldi berean, Sarasuak esaten duen bezala, txapelketari eusteko arrazoiak ere egon badaudela. Lehia erlatibizatzea izan da ataka horri eman zaion erantzuna:

“Joseba Zulaikaren joko/jolasa dikotomia nabarmenak izugarri eragin gaitu egungo bertso-lariak. Eta nik uste dut, bereizketa argia eta zehatza izan arren, serio-gi hartu dugula. Azken batean ekintza batí joko ala jolas zentzua norberak ematen dio, kanpotik begira dagokeenaren iritziaz gaindi. Esan nahi dut, jokoan aritu gaitezkeela jolasean, jolasean jokoan bezalaxe. Eta hori, bertso-lariok «sentitu» izan dugun zerbaít da.

Alegia, jendeak jokotzat hartzen duen hortan ere jolasean aritzen badakigula.” (Egaña, 1995: 4)

Hainbat argudio eskaini dira zentzu honetan: bertso-laritzaren izaera kolaboratiboa (saio on bat ateratzeko bertso-laguna ere ondo aritu beharra) azpimarratu da (Egaña eta Sarasua, 144-145; Garzia, 1998: 72); txapelketa bertso-gintzaren atal bat baino ez dela seinatu (Egaña, 2004: 173-174); txapelketako forokeria, probintziakeria eta porra nahiz kinielekiko distantziak markatu (Egaña, 2004: 34) hedabideei begira beti azpimarratu dute finalist-arten giro ona edo irabazteari baino norbere ekarpena egiteari ematen zaion garrantzia⁶⁷⁵.

⁶⁷⁴ Honela kontatzen du berak: “(...) Garai hartan jokatzera bortxatua sentitu nintzen (ez pertson-ek bortxatua, baizik egoerak eta nire irtenbiderik ezak) eta azken bertsoa protesta hutsa izan zen, garrasia, lekukotasuna. Ez nekien txapeletik gertu ibiliko nintzenik, nire ardura bakarra aurretik oso gaizki ez egitea zen, protesta hura purrustadatzat har ez zedin. Ez nintzen izan, beraz, txapelari uko egin zion heroia. Hori kasualitate hutsa izan zen (...) Paradojikoki, gertatu zen bezala gertatu izanak (txapelari uko egin niola jendeak pentsatzeak) nire prestijioa asko handitu zuen. Frenu beharrean azeleradore bihurtu zitzaidan. Eta nire bidea egiten lagundu dit prestigio hark” (Egaña eta Sarasua, 1997: 165)

⁶⁷⁵ 2009an, jada bere bosgarren txapela izan zitekeenaren aurrean, behin baino gehiagotan esan zuen Egañak nahiago zuela beste norbaitek irabaztea: Berria, 2009/XII/10 "Bosgarrena, oso berandu datorren ume bat bezala izango litzateke”. Eta 2013an, Egaña jada txapelketetatik erretiraturik, Gorka Azkaratek sinaturiko testuaren izenburua ere esanguratsua da: Berria, 2013/XII/13, ‘Inork irabazi nahi ez duen txapela’.

Bertsolaririk lehiakorrena⁶⁷⁶, Egaña, izan da, hain justu lau aldiz jarraian txapeldun izateak eman dion erreferentzialtasunagatik, filosofia hau hurrengo belaunaldietan txertatu duena:

“(…) edozein behatzaile konturatuko litzateke 1986tik hona oholtzara igotzen diren bertsolarien jarrera aldatu egin dela, orduan ez bezalako talde-giroa sumatzen dela. Hori ez da urte batetik besterako aldaketa izan, urte eta txapelketa asko izan dira tartean, eta aldaketa progresiboa izan da; Andoni protagonista nabarmena izan da horretan [Jexux Muruaren hitzak].” (Barandiaran, 2011: 141)

Bertsolarien artean kideasunezko giro bat nagusitu da, bada, txapelketaren lehiaren inguruan: “[Lujanbioren hitzak] Hor bai aldatu dela. Ez, beharbada, bertsogintza bera artistikoki, baina bai giro hori, lehiaren ideia, plazaren funtzioaren ideia, elkarlanaren ideia hori” (Barandiaran, 2011: 78)

Txapelketak, ordea, ez dio ertzak izateari utziko, eta kritika berriak etorriko dira belaunaldi eta hamarkada berrietan: ezartzen duen kanonaren indarrak bestelako bertsokera batzuen garapena eta arrakasta mugatzen dituela; elitean bakarrik fokaturik lortzen den oihartzun mediatikoak bertso-zirkuituaren antolaketa baldintzatzen duela eta eliteak monopolizatzen duela hau; formatua bera eta epaileen lana oso behartuak direla... (Ansa, 2011; Araolaza, 2011; Paia, 2011).

8.6.6.2 Baina gogotsu eutsi zaiona

Txapelketa lehia deserosoa da, baina baita hori baino askoz gehiago ere. Batetik, bertso-mundua goitik behera aktibatzen duen pizgarria da: “Denek onartzen dute, baita bertsozale kritikoek ere, txapelketek dinamika berri bat eman diotela bertsolaritzari. Errauspean dagoen sua piztu eta indarberritzen duen hauspoaren haizearekin konparatuak izan dira txapelketak bertsozaletasunarekiko” (Siadeco, 1995: 55). Eta zaletu gehien erakartzen duen eskaintza: “(...) erraz ikus daiteke jende gehien biltzen duen bertso saio mota dela, ikuslegoaren aldetik arrakastatsuen suertatzen den saio-mota.” (Siadeco, 1995: 56).

Foku guztiak jartzen zaizkionez puntako bertsogintza garatzeko, elitera sartu nahi duten bertsolari berriak promozionatzeko eta burutu nahi diren berrikuntzak planteatzeko erakusleho egokiena izaten dela ere aipatu izan da luzaroan: “(...) txapelketetan ematen dira berrikuntzak frogatzeko aukera gehienak, eta baita bertso onak eta kalitatezkoak entzuteko aukera gehienak ere. Izan ere, jokoan dagoena hainbeste izanik, bertsolariek ahal duten guztia ematen dute, hustu egiten dira txapelketaren presiopean” (Siadeco, 1995: 55-56). Zenbaitek, zalantzan jarri izan du egun zenbateraino berrikuntzak beste plaza batzuetarako uzten ez ote diren, edota azken txapelketetan bertsolari berriek zenbaterainoko aukera izan duten bertan sartzeko, baina, oro har ontzat ematen da bertsogintzaren osasunaren argazki bat eskaintzen duela dioen planteamendua: “(...) ekarpenak plazaratzeko tranpal paregabea izan denik eta denik ezin da ukatu. Bertsolarien arteko alternantzia ere eman digu txapelketak, eta herrialde diferenteetan dagoen bertsolaritza kontrastatzeko aukera [Jexux Muruaren hitzak]” (Barandiaran, 2011: 139). Edota azpimarra horien garrantzia erlatibizatu egiten da, bestelako onurak gogorarazi, eta txapelketari dena eskatzea ez dela beharrezkoa seinalatuz:

⁶⁷⁶ Honela dio, esaterako: “... Nahi duzuen. Niri, kilikagarri zait oraindik ere txapelketa. Oraindik ekarpenen bat egiteko gai ikusten dut nire burua. Egia aitortzera, txapelketak prestatzea gustatzen zait niri, jokatzea baino gehiago. Prestatu eta ez jokatzea litzateke irtenbide duina nire buruarekiko. Baina ez jokatzerara, badakit ez nintzatekeela behar bezala prestatuko. Gainera, entzulea harrituaraztearen grina hori bizirik sumatzen dut oraindik erraetan” (Egaña, 2004: 175).

“Txapelketak bertso gintzaren jauzi eragile diren eztabaidagarria izan daiteke, baina sustapenaren ikuspegitik funtsezkotzat jo beharrekoak dira. Entzule berri eta periferiko asko erakartzen du txapelketak (ingurune soziolinguistikoki erdaldunetako euskaldunak, euskaldun gazteak eta euskaldun berri edo euskara ikasleak horien artean). Txapelketei eurei erakarpen hori baino gehiago eskatzea gehiegi izan liteke (...)” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 48)

Ukaezina da, bestalde, sarrera ekonomiko garrantzitsu bat izaten dela Elkartearantz, eta baita autoestima txute bat ere: “[Aritz Zerainen hitzak] Elkartea gisa ere, 2009koa gorakada handia izan zen. Guretzat ere proba handia izan zen, talde berria ginelako, eta konfiantza handia hartu genuen ikusi zelako erantzuteko gai izan ginela” (Barandiaran, 2011: 134)

“(...) kontziente izan behar dugu (...) helburua ez dela indibiduala, gainetik dagoela helburu kolektiboa, kultural eta linguistikoa, herri honi lotua (...) helburua dela, esaterako, gaur egun euskarazko kultur jardunean euskara hutsez egiten den festarik handiena Barakaldon izatea, erdal medioek bertso larritzat hitz egitea, horren ondorioz Barakaldon hiru bertso eskola sortzea, kanporaketak herrialde guztietan egitea, horrek sortzen duen mugimenduarekin...[Lujanbioren hitzak]” (Barandiaran, 2011: 76)

Txapelketaren kontrako argudioak bezainbeste aurki daitezke, bada aldekoak. Hortik aurrera balantzea egitea tokatzen da. Honela egiten du lau aldiz txapeldun ateratako zarautzarrak: “Txapelketak bai ala ez? Ezezkorik ez nuke emango. Beraz, baiezkoa emango dut. Zergatik? Oraindik ere ahalegin gune eta transmisio gune garrantzitsu direlako. Eta hasieratik propio bazterrerara utzitako faktoreek (Euskal Kultura, Elkartea, promozioa) garrantzia handia dutelako guretzat” (Egaña, 1995: 8). Honela, Aritz Zerainek, oraintsura arte, hamarkada luze bat Elkarteko koordinatzaile izandakoak: “Arrazoi asko daude txapelketa egiteko, ez egiteko dauden bezala. Baina bertso gintzari ematen dion astinaldiagatik, lehen aipatutako euskal komunitatearen gune horregatik, eta abar, gaur egun merezi du” (Barandiaran, 2011: 134). Elkartean sorreratik Koldo Tapiaren ondoan liberatu gisa funtsezkoa ekarpena egin zuen Jexux Muruak, bere aldetik, ukoa ez du alternatiba gisa ikusten: “(...) kritikatzan dutenei edo dugunoi, ez zaigu beste ezer bururatzen, oihartzun handi horrek bertso eskolak eta irakaskuntzan egiten den lan guztia elikatzen duelako (...) Nik 25 urte eman ditut Elkartean, eta lo gutxien kendu didan gauza txapelketa izan da” (Barandiaran, 2011: 139). Eta azken txapeldunak ere garbi dauka: “Txapelketak albo kalteak ditu, eta onurak. Denok gara horren jabe (...) lehia hutsari igual ez genioke zentzurik bilatuko. Baina lehia horrek testuinguru bat dauka, herri honen egoera bat. Nik hor ulertzen dut txapelketa” (Barandiaran, 2011, 76).

Bertso-munduko figura erreferentziales txapelketaren jarraipenaren aldeko hautua egin dute. Eta bertso-munduak gogotsu eutsi dio erronkari, jarraipena eman ez ezik potentziatu egin baitu.

Lehia deserosoa da bertso larritzat, baina argi samar ulertzen da lehia bera osagai garrantzitsu bat izan daitekeela txapelketak belaunaldiz belaunaldi izan duen arrakastan (Siadeco, 1995: 96). Honela, lehiak berez ez duela zertan txarra izan ere seinatu izan da. Esaterako, Egaña: “Txapelketa lehia bultzatzea balitz ere, lehia txarra al da? Ez dut uste. Lehia erak anitzak dira. Norberak ematen dio lehiari zentzua” (Egaña, 1995: 9). Edo Amurizak ere: “Lehia gabe ezin gara jolastu ere egin. Eta txapelketak jendea, entzuleak eta bertsolariak motibatzeke gauza asko ditu onak” (Barandiaran, 2011: 28).

Txapelketaren inguruko eztabaida klasiko bat da, eta horrela jarraituko du hurrengo urteetan ere. Hedabideratzearen ikuspegitik, ordea, eztabaidaezina da funtsezko elementu bat suertatzen dela:

“Txapelketak hedapenerako tresna bezala erabili dira, modu gero eta informazionalago batean: Bertso larritzaren Gizarte Mugimenduaren baliabideak mobilizatzen dira txapelketa

antolatzeke eta horren bitartez mobilizazio publiko masiboak eragiteko, baina estrategia horren eraginkortasuna areagotzeko politika mediatikoa lantzen da, zer hedabidetara eta nola iritsi nahi den eztabaidatzeko eta erabakitzeke” (Zubiri, 2016: 26)

Meluccik (1994: 146-147) gizarte mugimenduen baitan funtsezkotzat jotzen duen aldi hedakorra txapelketa aldia izan ohi da bertsolaritzaren gizarte mugimenduarentzat. Oihartzun mediatiko handiena orduan lortzen duenez, bere mezuak eta *framinga* gizarteratzeko eta prestigioa irabazteke baliatzen du.

Aurreko zikloetan txapelketak izan ziren bertsolaritza ikuskizun modernoaren parametroetara eramanez gizarte modu berrira egokitzeko bidea ireki ziotenak. Eta azken ziklo honetan, txapelketa da, bertsolaritza indarrean den masa kulturaren testuinguruan birkokatzeko baliatu den bitarteko nagusia:

“Bertso Egunak eta txapelketek azken urteetan egin duten ibilbidea ere positiboki baloratu beharrekotzat dugu (...) Elkartearen eta bertsozalegoaren bilgune dinamiko (herri-kultura), bertsozalegoaren kezka eta proposamen berritzaileen agertoki (arte moderno) eta hedabideen arreta-une (masa-kultura) izatea lortu duelako, belaunaldien artean hausturarik suposatu gabe (tradizio bizia).” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 47)

8.7 BERTSOLARITZAREN METAMORFOSIA ETA TOKIA

8.7.1 Erronka: ekosistema zaharraren galera

Aipatu da jada euskararen komunitateak sarrera berantiarra izan duela Modernitatean, eta honek, atzerapen hori konpentsatzeko azken unean presaka batean egokitzea tokatu zaiola, Sarasuak dioen bezala: “Mundu aurre-moderno, moderno eta posmoderno aro bakarrenean nahasi zaizkien belaunaldiak izatea tokatu zaigu Euskal Herrian” (2013, 290). Zavalaren aipua ere esanguratsua suertatzen da zentzu honetan:

“Yo suelo decir que el ambiente en que se criaron los abuelos de hoy, sobre todo los de ámbito rural, se parecía más a la Edad Media que a la era informática en que crecen sus nietos. Entre ambas generaciones hay más distancia que la que mediaba antes entre varios siglos” (2006b: 218)

Zavalak aipatzen duen aitona-amonen giro hori kultur ekosistema aurremodernarena litzateke, baserri-giroan, kasik beste kultur eskaintzarik gabe bertsolariak profeta batzuk bailiren miresten zituen jendarte elebarrak eta eskolarik gabeari:

“En nuestros caseríos, los nombres de Xenpelar, Txirrita o Pedro Maria Otaño sonaban igual que en otros ámbitos los de autores de fama mundial. Lo que el magisterio de éstos es para el hombre culto, venía a ser para nuestro pueblo el de los bertsolaris, a quienes tomaba, no sólo como a maestros, sino casi también como a profetas” (Zavala, 2006b: 2018: 219)

Euskal gizarteak bizi izandako industrializazio, tertziarizazio eta informazionalizazio prozesuen ondoren baserri-giroa kasik ezerezean gelditu da, ordea; Zubirik (2016: 8) eskaintzen ditu datuak: euskaldunen %62 hiriburu-eskualdeetan bizi da, %72,3 5.000 biztanletik gorako herrietan, eta lehen sektorea, egun, ez da euskal ekonomiaren %3ra iristen. Euskal gizartearen alfabetatze mailak tokitan utzi du ahozkoasun primarioa, euskaldun elebarrak desagertuak dira, kultur eskaintza askoz ere zabalagoa da garai batekoa baino... Bertso munduarentzat, bada, bertsolaritzarentzat baldintza garaikideetara egokitzen den ekosistema berria jorratzea izan da erronka nagusia: “Garai bateko espazioak, lanbideak eta bizimoduak desagertu egin ziren. Baldintza haietara moldatuta zegoen bertsolaritza, eta joko

eremua higitzarekin, berez, inertziak hutsaren hurrengo izatera bultzatzen zuen bertsolaritza, akaso baita desagertzera” (Zubiri, 2016: 22).

Zavalak ere azaltzen du nola bertsolaria kultur elementu zentralizat zeukan mundu hori erterkotuz joango den, eta bere tokia kultur ekosistema modernoak hartuko duen:

“Así fue durante generaciones. ¿Cuándo empieza a decaer esta influencia? En la historia de los pueblos hay una etapa en que todo es cultura popular; luego, convive con ella la adquirida en las aulas. Pero ésta va ganando terreno y fuerza y al final se alza como única.” (Zavala, 2006b: 219)

Galtzear den mundu horren azken arrastoak jasota uztea izan da tolosarraren proiektua:

“Vida era cuando aquel chico, que me lo contaba siendo ya abuelo, declaraba su amor a una chica en unas estrofas escritas en un papel que dejó, sujeto por una piedra, en la senda por la que ella había de pasar (...) Vida era cuando a Xenpelar le avisan una noche de que en su camino de vuelta a casa le esperan quienes desean propinarle una paliza; y él no varía su ruta, pero cuando se acerca a donde le aguardan, canta tres estrofas que explican los hechos y convierte a los enemigos en amigos.” (Zavala, 2006b: 221-222)⁶⁷⁷

Bertso-paperen heriotza data, 1960ko hamarraldia har daiteke ziurrenik, mundu horren heriotza data gisa, euskararen jendartean irratia indarra hartzen duen hamarraldia bera hain justu. Bertsoak, euskal kulturgintza modernoa XIX. mende amaieran abiarazi zenetik kultur ekosistema modernoan txertatzen hasia, ez du desagertzera egin, ordea. Hurrengo hamarraldietan bi mundu arteko horretan, atzean gelditutakoa eta berria, aurkituko da. Andoni Egañak, galtzear dena jasota uztetik konformatzetik urruti, honela gogoratzen ditu 1980 hamarraldiko bere hastapenak:

“(…) ez etxean, ez kalean, ez tabernan, esate baterako, gaur egun ez da ahozkotasuna, edo bertsolaritza zehazki, lehengo moduan transmititzeko erarik ere. Zergatik? Faktoreak asko dira, denok dakigu. Taberna batean ezin da bertsotan egin gaur, musika dago, eta topera dago, eta orain dela berrogeita hamar urte Zarauzko Azken Portu tabernan zer festa hobea bertsolari bat zeukan festa baino. Gure umeez, gure gaztetxoek, guk geuk ere apenas hori ezagutu izan dugun. Ni Gasteizen bizi nintzelarik, Gasteizko euskaldun berri bertsozaleen koadrilari “melé” koadrila deitzen zioten. Xerapio, Rikardo eta beste bi edo hiru, elkartu eta tabernan hola egoten ginelako, errugbilariak melean bezala bertsotan egiteko, klaro, musika gainetik zegoen.” (Esnal, Egaña eta Sarasua, 2002: 813-814)

8.7.2 Erantzuna: habitat berrira egokitzeko apustua

8.7.2.1 Apustuaren arrakasta

Ziklo bakoitzean bertsolaritzaren inguruan sustatu izan den proiektuaren berri eman aurreko ataletan. Bertsolaritza habitat berrira egokitzeko proiektu jarraitu bat eman da, ikusi den gisan, ziklo ezberdinetan zehar belaunaldi ezberdinek gauzatu dutena, eta bere emaitzak ematen joan izan dena. Juan Mari Lekuonak aipatzen du, azken zikloa hasi berritan, alorrean eman den garapenik handiena fenomeno soziokultural gisa bizi izandakoa dela: “(…) agian

⁶⁷⁷ Zulaika ere ahozkotasan primario horren ingurumarietan dabil bere aitarentzat artearen eta emozio estetikoaren mundurako kasik sarbide bakarra bertsolaritza zela maisuki azaltzen duenean: “Bere seme-alabak eskolatzen zihozten neurrian gure jakinduriaren eta bere ezjakintasunaren arteko aldea handitzen ari zen, baina oraindik kantua gelditzen zitzaion. Berak ere bazuen bere irudizko mundua, eta barrea eta emozioa ardatz zituen eremu hartako atea bertsoek irekitzen zioten” (Zulaika, 2003b: 96).

gizaldi hontan bertsolaritzak egin dituen aldakuntzarik haundienak gizarte alderdikoak izan daitezke eta ez hainbeste bertsogintzaren eta poesigintzaren alderdikoak” (Lekuona, 1982: 334).

Zavalak, beste hainbatek bezala, ez zuen oso argi ikusten ahalegin hauek bertsolaritza geroratzeari lortuko ote zuten:

“De la poesía popular vasca puede decirse que vino al mundo con mala estrella. Cuando todo el pueblo la admiraba y casi sobrevaloraba, las clases ilustradas la tenían en poco y la desechaban. Ahora éstas la aprecian y estudian; pero ¿es el mismo el apoyo de las masas? (...) “Que nadie malinterprete mis palabras estimándolas como condenatorias de nada. La labor de los bertsolaris modernos y demás promotores de las manifestaciones artísticas populares me han parecido siempre dignas de elogio. Que continúen adelante mientras tengan seguidores” (Zavala, 2006b: 224)

Fenomeno soziokulturalaren oinarritzako aldagaiek, ordea, hazkunde nabarmena erakutsi dute ordutik: bertso-saioen kopuruak 1995ean 419 izatetik, 2015ean 1.764 izatera pasa dira; bertsolariak 1990ean 290 izatetik, 2015ean 859 izatera; eta urtean bertso-saioretara joaten diren zaleen kopurua 1995ean 223.924 izatetik, 2015ean 263.884 izatera (Zubiri, 2018: 28-30 eta 2019: 20-21). Eta transmisio alorreko datuak ere ikusgarriak dira: 2013an 20.532 ikaslek jorratzen zuten bertsolaritza 382 ikastetxetan, eta hezkuntza arautuaz kanpo 95 herritan banatutako bertso-eskoletan 1.429 lagunek parte hartzen zuten (Sarasua, 2013: 306). Inoiz baino osasuntsuago ageri da bertsolaritza: “(...) soilik bertsozale sutsuen kopuruari erreparatuko bagenio, 800.000 hiztunera iristen ez den hizkuntza erkidego batean 100.000 bertsozale baino gehiago izango genituzke, eta BECeko finalaren audientzietan begiratuta, garbi dago sutsu izan gabe ere (beharbada moderatu, beharbada periferiko) kopurua handixeagoa dela.” (Zubiri, 2016: 5).

Hazkunde hau, ez da, noski, ausaz eman, bertso-munduaren apustuaren arrakastaren isla baino ez da:

“Euskararen komunitatearen baitan gaur egun bertsolaritzak duen sustraitze-maila ez da kasualitatez sortua. Batetik, badu oinarri historikoa, bertsolaritzakeuskal herrietan duen tokia ez da oraingoa. Baina, bestetik, azken 25 urteotan bertsolari belaunaldi batek bertsogintza odolberritzeko egin duten ahaleginaren emaitza ere bada, eta, batez ere, azken 15 urteotan bertsolaritza kolektibo bezala gidatu duten bertsolari, bertsozale eta antolatzaile belaunaldi batek garatu duten estrategia soziokulturalaren emaitza.” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 37)

Izatez, ibilbidearen arrakasta adierazten duten datuen abiapuntua 1995ekoa den arren, ordurako bidearen zati bat egin zen bertso-mundua eta oso modu kontzientean bizi zituen bai apustua eta baita honen arrakasta ere:

“[Sarasuaren hitzak] Horretxan bila ibili gaituk, nolabait. Bertsotan hasi ginenetik bertsozaletasuna gehitzea izan duk gure (behintzat nire) ahaleginen sakoneko iparra (...) Saioak egiten genituan, hurrengo urterako, etorkizunerako, entzuleak irabaztea gogoan izanda, eginahala horretara jarrita (...) Tentsio horri saioz saio, urtez urte eutsi zioagu. Eta ikusi diagu tantaka-tantaka (a ze aldean hamabost urtetik hona!) arrakastaren likidoa eta aparra igotzen (...) Kontua duk gure aroa horixe izan dela: kontzienteki bilatutako arrakasta baten historia” (Egaña eta Sarasua, 1997: 194-195)

8.7.2.2 Metamorfosia: praktika tradizional, moderno eta posmodernoen osagarritasuna

Azken zikloan masa kulturaren testuinguruaren eragin nabarmena bizitza tokatu zaio bertso-munduari. Testuinguru honetan, aipatu den bezala, hedabideek funtsezko garrantzi bat hartuko dute kultur bitartekari gisa, eta asmatu da horretara egokitzen:

Kultur fenomenoaren transmisio eta adierazpen kanalak aldatzen ari dira. Ezaugarri nabarmenena masa-hedabideen bat-bateko sarrera da. Hauen bitartez publiko berriarengana iristeaz gain, ohiko publikoan ere eragina dute, fenomenoaren transmisiorako eta sozializatorako pertsonarteko kanaletan sartzen baitira (...) Euskaldunetatik %60 hedabideetatik jasotzen du bertsoaritzaren berri, %30ak lagunartetik, familiaratik edo herritik.” (Aierdi, Aldaz et al., 2007a: 99)

Ikerketa honetan ikusi ahal izan den bezala, bertsoaritzaren presentzia mediatikoak hazkunde jarraitu bat izan du eta azken ziklo honetan biderkatu egin da. Zubirik ere azaltzen du, bertsoaritzaren inguruko azterketa soziologikoetan jasota dauden datuetan oinarrituz, azken zikloko hedabideratze estrategia arrakastatsua izan dela eta arrakasta hori funtsezkoa izan dela bertsoaritzaren hazkundera:

“Datu askok iradokitzen dute Bertsoaritzaren Gizarte Mugimenduaren estrategia informazionala arrakastatsua izan dela (...) Azken finean, zenbaki horiek iradokitzen dutena da bertsozaleen artean ziur aski gehiengo ez dela bertsozaleen sozializazio primarioan, zeina umetan eta familiaren baitan gertatzen baiten, baizik eta familiaren eremutik kanpo edo/eta haurtzarora gainditu ondoren (...) garai bateko natural-itxurako ikaskuntza desagertu den testuinguru sozial batean, halaberrez funtzionatu behar du bestelako dinamika batek, baldin eta ezagutza horren geroratzea gauzatuko bada.” (Zubiri, 2016: 27-28)

Bertso-munduak masa kulturaren eremuan bidea urratu nahi izan du, baina bide horretan norbere erroak ez galtzeari tentu handia jarritz:

“(…) ukazina da bertso-mugimenduak berak ere garatu dituen hainbat ekimenek gaur egungo masa-kulturarekin duen zerikusia: bertsoa telebistara eroatea, txapelketetan ahalik eta hedabide gehienentzat atentzioa erakarri nahia, zezen-plazak eta erakustazokak betetzeko apustuak eta abar. Ekintzarik masiboenak ere zein testuinguru hauskorrean egiten diren kontuan harturik, etorkizunean ere uko egin ezin dion esparrua du hori bertso-mugimenduak, ezagutzaz eta irizpidez; esan gabe doa, bestelako bideak, jasoago edo ertzekoagoak (...) integratzeko sentsibilitatea eta gaitasuna izan behar dituela proiektu orokorrak (...) Masa-kulturarekin eta kultur industriaren norabide nagusiekin guztiz bat ez datozen ezaugarriak bide ditu bertsoaritzak (...) zaindu beharreko ezaugarritzat ditugu orijinalaren balioa, jendaurrekotasuna zein zaleen eskuhartzea, eta, publikoaren integrazioa.” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 25-26)

Sarasuak azaltzen du modu grafikoago batean:

“Masa kultura (eta orain ziberkultura) bada egoeraren egituretako bat, hor bustitzeko hautua egin du bertsoak. Ez du hautatu masa kulturaren itsaso horretan murgiltzea. Ez sartu gabe ur bazterrean geratzea ere. Surf egitea

hautatu du. Bustiz, baina ez bustiz, eroriz baina ez murgilduz, bertan baina gainean ibiliz” (Sarasua, 2013: 298)

Apustu horri esker, eta zabaldu ahal izan den bertsolaritzaren ulerkera berria nahiz bertsolariek euren sorkuntzan erakutsi duten berrikuntza maila dela medio, azterketa soziologikoen emaitzetan ikus daitekeenez bertsolaritzaren pertzepzio berri bat zabaldu da bai zaleen artean eta baita euskal jendartearen baitan ere: garai batean nagusiki tradizioarekin eta iraganarekin lotzen bazen, egun bere erroak tradizioan dituen ekimen modernotzat hartzen da (Aierdi, Aldaz et al., 2007a: 59-60); zaleen %94,5 eta euskal hiztunen %74,7 aurka edo oso aurka azaltzen da bertsolaritza esparru kultural zaharkitu bat dela planteatzen bazaio (Aierdi, Aldaz et al. 2007a: 62). Masa kulturarekin lotura handiena duten adierazpenek ere onarpen zabala dute: zaleen %89,6 eta euskal hiztunen %88,9 konforme edo oso konforme ageri da txapelketak antolatzearekin; zaleen %91,1 eta euskal hiztunen %87,2 konforme edo oso konforme azaltzen da bertsolaritza telebistan agertzearekin (Aierdi, Aldaz et al. 2007a: 62).

Bertso-munduak nahiago izan du masa kultura etsai bezala ikusi baino lehiatzeko eremu gisa ulertzea, eta esperientziak erakutsi dio txapelketetako edo hedabideetako bertsolaritzak sagardotegikoaren ordezkari baino osagarri eta pizgarri gisa funtziona dezakeela: “Adituek deskribatu dizkiguten hiru logika kulturalak daude gaurko bertsolaritzaren baitan (tradizionala/ antropologikoa/ mundu-ikuskerarena, modernoa/ jaso/ politikoa eta postmodernoa/ merkatukoa/ nortasun-kontsumokoa), eta hiruen arteko dialektika da bertsolaritza bizi-eske baino bizirik dagoen seinale; ez tentsiorik gabe, noski” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 22-23).

8.7.2.3 Bilakaeraren albo kalteak

Bilakaerak tentsioak eragin ditu. Aurreko zikloetan nagusi izan zen bertsolaritzaren ikuspegi esentzializatuagoak bizirik eutsi dio bertso-munduaren baitako sektore klasikoenaren baitan. Sektore honetatik eskola zaharreko bertsolarien bertsokera aldarrikatu izan da, garai batekoa freskoagoa zela, txispa gehiago zuela, xumeagoa zela, alferrikako artifiziorik gabea eta abar aipatuz. Bertsolari jantziagoaren aurrean sagardotegikoa hobestearen kontua zaharra da oso, lehen bertsolari jantzia, Basarri, agertu zenetik ziklikoki agertu izan dena, eta nostalgia puntu batek gaurdaino eusten dio: zaletuen artean %40,4 aurka edo oso aurka ageri da ‘lehengo bertsolariek grazia gehiago zeukaten’ baieztapenaren aurrean, baina %25,9ak zalantzak dauzka, eta %29 konforme edo oso konforme ageri da; eremu zabalagoan, euskal hiztunen artean, %22,2 aurka edo oso aurka ageri dira, %27 zalantzan eta %40 alde edo oso alde (Aierdi, Aldaz et al., 2007a: 69).

Eragiletzan aritu direnek tentu handia erakutsi dute jarraitasuna eta berrikuntzaren arteko oreka mantentzearekin, baina hala eta guztiz ere zenbait aditu kezkatu agertu izan da bilakaerak esentzien galera ekar dezakeelakoan. Pello Esnalek, esaterako, nahikoa modu ezkorrean baloratzen du bertsolaritzaren praktiken modernizazioa, Lore Jokoetatik hasita bertsolaritzak Modernitateak irekitako zauria bizi duela dio (Esnal, Egaña eta Sarasua, 2002: 811), eta Zavalaren lanean oinarriturik⁶⁷⁸ bertsolaritza bere onera, fokuetatik kanpo garatzen

⁶⁷⁸ Zavalak, besteak beste, bertsolaritza bizi-mundurako behar bat izatetik ikuskizun izatera pasa dela dio. Honela, kultura popularraren baitako prozesu orokor baten baitan kokatzen du bertsolaritzari gertatutakoa: “También las viejas costumbres, que antes eran vida y alma del pueblo, pasan a ser espectáculo, que viene a ser otro tipo de ornato y adorno” (Zavala, 2006b: 220). Eta berak lehengoa maiteago zuela, benetakoagoa iruditzen zitzaiola azpimarratzen du: “Las estrofas de hoy es fácil que sean, bastantes de ellas al menos, mejores que las de antes. Pero se cantan en un recinto cerrado, ante un público sentado, que quiere ver quién lo hace con más

diren adierazpideetara, ekarri beharra aldarrikatu izan du: “Mundu modernoak ekarri zuen bertsoak, bizi-munduaz ahaztuta, irizpide estetikoaz juzgatzea. Gero nolako lanak gauzak beren onera ekartzen” (Esnal, 2015: 188). Eta eskola zaharreko bertsolari batzuk aipatu izan dute ez ote den bertsozale klasikoa baztertu. Txomin Garmendiak, esaterako, honela dio: “Bertsolaritzak oraingo martxan beheraka egingo du. Garai bateko egitazko bertsozalea baztertu egin da, eta oraingo jende berriak, ba al du bertsozaletasunik? Itxura asko egiten da, batez ere txapelketetan, baina ez al da itxura gehiegi? Hau da nire kezka” (Odrizola, 1996: 36).

Zikloaren hastapenetatik planteatuko da arazoa, berrikuntzarekin sektore klasikoena uxatzeko arriskua:

“Moeta askotako publiko baten aurrean bertsolaritzak zer bide hartu behar du? Zein dira, bestalde, bideak? Nahiko kuriooa da fenomenoak. Bertsolaritzak bide berriak zabaldu dituen bitartean, beti betitik berea izan duen publikoa galtzen hasi da, adineko jende asko, eta nekazaritzan, industrian, tabernan eta musean kulturizatutako asko eta askok, egun bertsolaritzan nagusitu den moldea ez du batere atsegin.

Bestalde berriz bide berriak jende berria inguratu du, orain artean bertsolaritza ezagutu ez duena edo agian orain artean zaila egiten zitzaiena.” (*Oh! Euzkadi*, 1980ko uztaila, 3 zbkia, ‘Bertso txiki bat bota behar duk mesedez’)

Zenbaitetan kritika horiek badute zerikusirik ziklo talkarekin, eta administrazioarekiko harremana gatazkatsua izan denean euskal abertzaletasunaren baitako arrakalarekin ere nahasi izan du zenbaitetik, baina normalean nahikoa modu normalizatuan onartu izan da eman den bilakaera. Belaunaldi zaharreneko bertsolariak ere protagonismo handia izan dute azken ziklo honetan, zubi lanetan ere ibili da hainbat, eta oro har bertsogintza berriak eta bertsolaritzaren irudikapen berrituak zaletu berri gehiago erakarri ditu zaharrak uxatu baino.

Eragileen, esan bezala, tentsio handia jarri zaio orekari, baina ez da zalantzarik egin garatu behararen inguruan. Honela dio, esaterako, Joxerra Garziak:

“Duela zenbait urte entzun ziren jatorriaz blaituriko diskurtsoak ez dira oraindik ere isildu, eta badute beren arazoak puska ere. Nolanahi ere, badirudi bertso-munduaren barruko jendeak argi eta garbi apustu egin duela bertsolaritza modernizatzearen alde. Eta modernizatze hori hedabideetatik egin beharko da, inola ere egitekotan. Lagunarteko bertsogintza fresko eta ziri-dunari bere lekua zer ukaturik ez dago, dioguna aurrera ateratzeko. Baina Txirrita (eta sagardotegietako Txirrita bakarrik) eredu bakartzat duten nostalgikoen bideak, atzera ezezik, ezerezera eramango luke, luze gabe, bertsolaritza.” (Garzia, 1993: 83-84)

Eta laburrago azaltzen du Sarasuak: “Abiadura azkarregia izan da batzuentzat motelegia besteentzat. Bertso jendeak erabaki duena da” (Sarasua, 2013: 303).

Honenbestez, Tradizioa vs. Modernitatea dikotomia gaindituztat ematen du gaurko bertso-munduak:

“Tradizioaren auzia, bestalde, aspaldi erantzun du bertso-mugimenduak: bizi, ez iraun; bertsolaritzaren barne-bilakaera horretan, gainera, kultur adierazpide

habilidad; o en una sobremesa, para quienes acaban de refocilarse con un buen festín. Es así un arte o espectáculo.” (Zavala, 2006b: 221-222).

garaikideekiko konplexu zaharkiturik bako elkarlana berebiziko garrantzia duen ezaugarritzat dugu (...) XX. mendeko hainbat ikuspegi berritzeko garaian bizi garela dirudi: herri-kultura eta kultura jasoa, kulturgintza eta politika, identitatea eta kontsumoa,... Horiek horrela, berezitasunari eusten ez ezik, malgu jokatzeko garaiak direla dirudi; bertsolaritza (eta euskal kultura, oro har) geroratzeko, bere ezaugarriak zaintzen baina kaltegarri gertatu daitezkeen zurruntasunak saihesten asmatu beharko dugula aldi berean.” (Elortza, Sukia eta Murua, 2008: 12)

Jon Maia da irudikapen esentzializatuak erlatibizatze behararen inguruko funtsezko gogoeta modu grafiko batean eskaintzen duena:

“Jakoba Errekondok, basoari buruz ari dela, gure paisaiaren gainean egiten duen irakurketak uste dut balio duela bertsolaritzarako ere (...) Berak dio Euskal Herrian ikusten dugun paisaia guzti-guztia gizakiaren eraginaren ondorio dela. Alegia, hemen ez dagoela berezko basorik, birjinarik, Amazonasen edo Indonesian egon daitezkeenak bezalakorik. Ikusten dugun gure paisaia guztia guk eraldatua da (...) Basoan bezalaxe bertsolaritzan ere mendeetan zehar dena inausi dugu, aitzurtu dugu, erre dugu, ibaiak bidez aldatu... Eta orain daukagun paisaia ez da izan genezakeen txarrena.” (Maia, 2017: 255)

8.7.3 Ahozotasunaren eta erretorikaren subalternitateak ekarritako despiste modernista

Deigarria suertatzen da fenomenoaren berezko balioa ulertzeko funtsezkoak diren bi ekarpen teoriko, Manuel Lekuonarena eta Joxerra Garziarena, despiste orokortuaren eta hainbaten mesprezuaren adierazle liratekeen *boutade* banari erantzuten ikustea, 70 urteko tartearekin.

Manuel Lekuonari 1918ko irailean Eusko Ikaskuntzak Oñatin antolaturiko lehen kongresuan entzundakoak piztu zion harra. Alemanian baserritarrek Goethe erreztatzen zutela eta Euskal Herrian bertsolarien arrunckeriekin konformatzen zirela esan omen zuen Donostiako kazetari batek. Honela kontatzen du Lekuonak berak *Oh! Euzkadiri* eskainiriko elkarrizketan: “(...) Schillerren eta Goethen zerak, zerbezeritan nola zititzen ziren eta ez hemengoak, hemengoak bertsolariak, ximplekeriak zirela. Ximplekeriak? min eman zidan egiazki. Orduan pixtu nintzen ni berriz eta seminarioko katedran orduan ta gehio arakutzen egondu nintzen. Horrela bizkortu nintzen gauza hoietarako” *Oh! Euzkadi*, 1982ko otsaila, 14. zbkia. ‘Manuel Lekuona’). Bai bizkortu ere, 1930ean Eusko Ikaskuntzak Bergaran antolaturiko kongresuan eman zuen ‘Arte popular vasco’ hitzaldian Ahozko Euskal Literatura aztertzeke ikuspegi berria eskaini baitzuen, bertsogintza baloratzeko honen testuinguru sozial eta kulturala aintzat hartuz, bertsolaritzari prestigioa emateko funtsezkoa izan zena.

Garziaren kasuan Matias Mujikak 1997an interneten zabalduriko ‘Libelo sobre la cultura en euskera’ testuaren herra da erantzuna dakarrena. Mujikak euskal kulturgintzaren maila eskasaren eta iruzurraren adibidetzat Basarrik 1935eko finalean botatako bertsoa jartzen du: “(...) cuando veo a gente urbana (...) poner los ojos en blanco ante estas ramplonerías en ripio y aún mucho peores, entoces si me siento capacitado para opinar: esta gente miente”⁶⁷⁹. Garziak 2000 urtean argitaraturiko tesian erretorika epidiptikoa aldarrikatzen du bertsolaritza baloratzeko marko gisa. Eta ‘Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak’ lanean horrela erantzuten zaio Mujikari:

⁶⁷⁹ Helbide honetatik berreskuratua: https://updocs.net/queue/libelo-sobre-la-cultura-en-euskera-matias-mugica-a5b34c17327f8a?&queue_id=-1&v=1533941294&u=ODUuODQuMjEwLjcx [2016/VI/23]

“Poetika idatziaren ikuspegitik ari da Mujika, eta teoria horren arabera ezinezkoa da horrelako testu batek inorengan ezein emozio eragitea (...) horrelako bertsoekin emozionatzen direla diotenak planta egiten ari dira, ezinezkoa baita horrelako memelokeriekin emozionatzea. Gu, ordea, sarri emozionatu izan gara maila horretako testua duten bertsoekin, eta ezin dugu inola ere egin Mujikak egiten duen aukera bera. Batetik, emozioa daukagu, guk eta gure ingurukoek sarri bizi izandakoa. Bestetik, berriz, emozio hori ezinezkoa dela dioskun teoria. Libelogileak, kinka berean, emozioa jartzen du zalantzan. Guk, berriz, teoria.” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 139)⁶⁸⁰

Kultura idatziaren betaurrekoak jantzita ahozkoatasunaren balioa ezin ikusi izana ez da harrizkoa, Ongek azaltzen duen bezala ahozkoatasunaren subalternitatearen ondorio bat da:

“La concentración de los especialistas en los textos tuvo consecuencias ideológicas. Con la atención enfocada en los textos, con frecuencia prosiguieron a suponer, a menudo sin reflexión alguna, que la articulación verbal oral era en esencia idéntica a la expresión verbal escrita con la que normalmente trabajaban, y que las formas artísticas orales en el fondo sólo eran textos, salvo en el hecho de que no estaban asentadas por escrito. Se extendió la impresión de que, aparte del discurso (gobernado por reglas retóricas escritas), las formas artísticas orales eran fundamentalmente desmañadas e indignas de examen serio.” (2016: 46)

Ahozkoatasunaren subalternitate hori, Modernitatearen sorreratik bertatik emango da, lehen inprentak martxan jartzen direnetik. Burkek deskribaturiko eliteen bestekotze prozesuaren emaitza da ahozkoatasunaren subalternitatea, eta kultura popularrarekin edo periferiako kulturekin gertatu bezala ahozkoatasunarekiko mesprezua zabalduko da eliteen artean. Honela, Calvetek (2005) azaltzen duenez, idatziz argitaratzen ez diren hizkuntzak eskasagoak direla ulertuko da, ez dutela ‘hizkuntza’ estatusa merezi, eta, aldi berean, kolonizaturiko herrietako tradizio idatzia (arabiarrena, esaterako) gutxietsi egingo da, euren kultura nagusiki ahozkoa eta, beraz, balio urrikoa dela adierazi nahian. edota, zuzenean, herri indigenek kultura idatzia garatzea kasik ezinezkotzat joko da .

Idatzia hedatuz joango da alfabetatzea zabalduz doan heinean. Burkeren (1991) arabera XVI. mende hasieran 40.000 lan argitaratuko dira urtean Europa osoan eta XVIII hasierako kopuru hori Frantziak bakarrik sortuko du. Eta garapen honek ahozkoaren ertzeratzea finkatuko du gutxika. Jendaurrean hitz egitearen arteak, erretorikak, bizi izandako bilakaerak islatzen du argien ertzeratze hori. Izan ere, Errenazimenduak eta Ilustrazioak klasikoekiko zuten atxikimenduak disziplinen berpizkunde bat ekarriko badute, idatziaren hegemonia berriaren erakusle, ahozko diskurtsoaren arteak ahozkoaz kezkatzeari utziko dio:

“Para el siglo XVI los libros de texto de retórica comúnmente pasaban por alto, de las tradicionales cinco partes de la retórica (invención, disposición, estilo, memoria y recitación), la cuarta, la memoria, que no era aplicable a la escritura (...) nadie lanzó nunca deliberadamente un programa para dar esta nueva orientación a la retórica: el "arte" simplemente siguió el rumbo de la conciencia, alejándose de una economía oral hacia una escrita.” (Ong, 2016: 188)

⁶⁸⁰ Rufino Iraolak tesiaren harira 2000. urtean eginiko elkarrizketan gehiago dio Garziak: “Libelogileak jakin behar luke ahozko literaturan ez dagoela testu hutsik, testu inguratuak direla denak. Jaitsiera jokoan zuen futbol partida bat bideoan grabatu, jokoan zegoena aipatu gabe, handik hogeï urtera bideoa ikusi, eta egun hartan partida hori zuzenean ikusi zutenen emozioa itxura hutsa dela esatearen pareko astakeria da Matias Mujikarena.” (Iraola, 2000: 140).

Eta pixkanaka, idatziaren hegemoniaz, bera izango da ertzeratuz joango dena:

“La tendencia culminó antes de que se notara que algo estaba sucediendo, y en ese momento la retórica ya no fue la materia que en otros tiempos había abarcado todo; la educación ya no podía describirse como esencialmente retórica, como se había hecho en épocas anteriores. Las tres grandes materias: la lectura, la escritura y la aritmética, que representaban una educación — teórica, comercial y doméstica— en esencia ajena a la retórica, fueron sustituyendo paulatinamente a la enseñanza tradicional, heroica y agonística, de bases orales (...)” (Ong, 2016: 188)

Erretorika hezkuntza sistemaren oinarri izatetik erabat desagertzea pasa zen, eta erromantikoek bertsolaritza deskubritu zutenean ez zuten zegokion markoa zein zen asmatzen jakin: “The discussion as to whether they were simply bertsolaris or could also be considered poets fascinated cultural promoters, observers, and critics in the 19th century” (Gabilondo, 2016: 193). Eta ordutik, alegia, bertsolaritzaren historia modernoaren hastapenetatik, aldiro errepikatu izan dira eztabaida hauek. Gaurdaino: “The debates as to whether these bertsolaris should be considered romantic poets linger in our days” (Gabilondo, 2000: 193).

Bere garaian, erretorika nagusi zenean, Ongek azaltzen duenaren arabera, alderantzizko fenomenoaren ematen zen, poesia aurkitzen zen umezurtz, marko propiorik gabe, marko gisa Garziak gaur bertsolaritzarentzat aldarrikatzen duen erretorika epidiptikoa ezarri ohi zitzaizkion:

“Desde la antigüedad griega, el predominio de la retórica en los fundamentos académicos produjo, en todo el mundo escolarizado, la impresión, real aunque a menudo vaga, de que la oratoria era el paradigma de toda expresión verbal y mantuvo muy en alto el nivel agonístico del discurso (...) La poesía misma con frecuencia se comparaba con la oratoria "epidíctica" y se consideraba que estaba relacionada fundamentalmente con la alabanza o la censura (...)” (2016: 181)

Ahokotasunaren subalternitateak esplikatzen du, bada, bertsolaritzaren balio artistikoa ulertzeko oso luzaroan sortu izan diren zailtasunak. Hegemonikoak subalternoen errepresentazioan daukan eraginak esplikatuko luke baita hainbat aditu edo eragilek bertsolaritzak marko propioa behar zuela seinatu arren⁶⁸¹ hainbeste denboran marko horri inork izen abizenik jarri ez izana.

Joxerra Garziak berreskuratu du erretorika epidiptikoa bertsolaritza eta ahokotasuna baloratzeko marko gisa. Ez du, noski, ezerezetik erreskatatu. Berak azaltzen duen moduan

⁶⁸¹ Iztueta bera izango da, bertsolaritzari buruzko lehen lan etnografiko hartan bertan, gisako lehen ohartarazpen bat egin zuena: “Pretender en los cantos vulgares las convinaciones sublimes del arte, sería un error grosero; pero cuando en medio de su sencillez y abandono tienen el acierto de la expresión, de la analogía con el objeto y según el asunto, de la sensibilidad peculiar á él, si puedo expresarme así, ya entonces puede inferirse la disposición de los pueblos para el arte encantador de la armonía y (...) de aplicar la melodía a la manifestación de sus afectos y de sus sensaciones” (1826: 7). Basarrik Arestirekin prentsan argitaraturiko artikulua gurutzatuaz izan zuen eztabaidan ere bertsolaria ez dela poeta defendatzen zuen: “Bertsolariak ere poetak dirala dio Gabriel Aresti’k (...) poetarik onenak bertsolariak dirala ezteke esan inoizko moduz. Arrantzalerik onenak mineroak dirala esatea añakoa da ori” (1963/XI/24. *Zeruko Argia*. ‘Gabriel Aresti jaunari’). Zavalak ere marko propioa aldarrikatu zuen: “El pueblo -aunque a veces lo logre accidentalmente- nunca trató de hacer poesía, y es una injusticia juzgarle por lo que nunca fue su intención (...) Y si no busca poesía, llegamos a una conclusión de sorpresa a pesar de la claridad de sus premisas. Y es que, en el bertsolarismo, verso no tiene porque ser equivalente a poesía, (...) Y sea este el primer criterio intruso del que conviene nos desprendamos.” (1996a, 33). Eta Amuriza ere iritzi berekoa da: “Ez dago bertsolaritza, adibidez, poesiatik juzkatzerik, alderantziz ere oker legokeen bezala” (1997: 203).

Juan Mari Lekuonak eskaini zion arrastoa 1982an argitaratutako ‘Ahozko Literatura’ lanean erretorikaren irizpideak aipatzen zituenean, edota, 1995ean *Bertsolari* aldizkarian Udarregi baloratu ahal izateko erretorikara jo behar zela planteatu zuenean:

“(…) Udarregi ulertzeko erretorikara jo beharra dagoela dio. Niretzat klabea izan zen artikulu hori. Galduta nengil, ikuspegi poetikotik ez bainuen deus aipagarriarik aurkitzen 1967ko txapelketan. Aditu batzuegana ere jo nuen, laguntza eta argi eske, baina inork ez zidan taxuzko arrastorik eman. Eta orduan irakurri nuen berriro Juan Marirena. 1995ekoa da, lehendik ere irakurria nuen, baina bigarren irakurraldiak egin zidan argia. Gero, Juan Marik salbuespen moduan proposatzen duena ikerbide nagusitzat hartu besterik ez dut nik egin [Garziaren hitzak]” (Iraola, 2000: 134)⁶⁸²

Berea ez den markotik neurtu eta baloratu izana da bertsolaritzari geratzen zaion ertzekotasunaren azken marketako bat. Pausu garrantzitsua litzateke, bada, egokiagoa izan daitekeen marko honetan sakontzen asmatzearena. Bigarren ahozketasuneko garaian murgildu garenez pixkanaka marko honen ulermena, edo ahozketasunaren ulermen sakonago bat bederen, geroz eta errazago zabal daitekeela pentsa liteke gainera.

8.7.4 Bertsolaritzaren zentraltasunari kritikak

Despiste modernista gora-behera, ekosistema aurremodernoan lehenengo eta modernoan ondoren zentralitate bat izan du bertsolaritzak euskal kultur sistemaren baitan. Amets Arzallusek laburbiltzen du batetik bestera egindako bidea:

“Nire amonak alzheimerra nahikoa garatua zuelarik, Txirritaren bertsoak gogoratu eta disfrutatu egiten zuen harekin. Pentsa nolako miresmena zion Txirritari... Alegia, orduan ere zentrala zen bertsolaria nekazal munduan. Zentrala ez zena nekazal mundua bera zen, zokoraturiko, prestigiorik gabeko mundu bat baitzen (...) 80ko hamarkadatik, edo azken belaunaldietan lortu dena euskal kultura eta berekin bertsolaritza hirigunean txertatzea izan da. Eta honela zokoratua ez den mundu batean ere bada zentrala.” (A. Arzallus, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/21).

Gandarak (2015) ere seinalatzen du euskal kultur sistema garaikidean bertsolaritzak lortu duen zentraltasun hori. Antzinakoak eta gaurkoak zerikusi gutxi izango dute ordea:

“Bertsolaritzaren biziberritzak, ordea, ez du suposatzen kultur mailan lehengo egoerara itzultzea. Garai historikoa erabat aldatu da. Globalizazioa kultur eremura ere iritsi da, eta kultur diziplinen dibertsifikazioa sakondu egin da. Beste edozein kultur diziplinari gertatzen zaion bezala, nekez izan dezake bertsolaritzak garai batean bezain besteko garrantzia bertsozaleen kultur joeretan. Narrazioaren monopolioa zela-eta zinea sorreratik literaturarekin norgehiagokan aritu bazen, eta orain zineak eta literaturak lehiakide askoz gehiago badauzkate, ezin zitekeen espero bertsozaleak soilik bertsolaritzarako bizitzea beren kultur joeretan. Gero eta kultur panorama dibertsifikatuagoan jokatzen du bertsolaritzak” (Zubiri, 2016: 23-24)

Zentralitate berri honi, esaterako, euskal kulturgintzatik bertatik sortu izan zaizkio kritikoak. Amurizak bertsogintza berriarekin edota Bertsozale Elkartearen sorrerarekin bertso-munduak prestigio berri bat irabazi zuenean, 1980ko hamarraldian zehar, hainbat euskal idazlek bertsolaritzari eskaini zitzaion arreta euskal kultur sistemaren gabezia eta azpigarapen

⁶⁸² Ik. LEKUONA, J.M. (1995): Udarregi erretorikaren ildotik. *Bertsolari*, 20. zbkia., 44-51 orr.

seinaletzat hartu zuten. Barandiaranek Elkartearen historiaz egindako lanean tarte eder bat eskaintzen zaio idazle hauen kritikei eta bertso-mundutik ematen zaien erantzunari (2011: 45-49), eta bere garaian bertsolaritzarekiko interesa erakutsitako idazleen kritikak jasotzen dira bertan: Bernardo Atxaga, Koldo Izagirre, Patziku Perurena eta abar.

Esanguratsua suertatzen da, euren kritiketan idazle hauek bertso-munduko sektore klasikoenekin lerratzen zirela ikustea:

“Benetako bertsolaritza lehengoa zen, orain garai urbanoan ez zeukan leku eta zentzurik, eta are gutxiago arrakasta apur bat izateko arrazoirik. Txirrita miresten zutela adierazten zuten, eta oraingoak ez zien estimaziorik merezi (...) Bitxia zen. Gu baino aldarte aurrerazaleago eta modernoagoa zuten idazle haiek, abanguardismoaren lainezak bizitakoak ere baziren, baina gurekiko diskurtso tradizionalista erabiltzen zuten. Eta kulturgintzak izan beharko zukeenaren kanon europarrarekin zetozkigun, oharkabean.” (Sarasua, 2013: 300-301)

Atxagak, esaterako, bertsolaritza euskal nortasunaren esentzializazioarekin lotzen zuen ezinbestean:

“Badaukagu harrotasun bat, seguraski bere hizkuntza aurreindoeuropearra gorde duen herri bakarra garelako, eta, beharbada, arrazoi askogatik, joera handia dago berezitasun hori, partikularitasun hori, azpimarratzeko. Zuek ikustazue zer nolako papera eman nahi zaion bertsolaritzari. Zergatik eman nahi zaio paper handia bertsolaritzari? Zergatik atera nahi da bertsolaritza bere ohizko lekuetatik eta eraman nahi da Unibertsitatera edo hirira, eta zergatik ematen zaio halako prentsa handia bertsolaritzari? Ba, dudarik gabe, nire ustez, partikularitasun hori, berezitasun hori azpimarratu nahi delako.” (Barandiaran, 2011: 47)⁶⁸³

1990eko hamarkadaren lehen erdian, boomaren erdian, bertsolaritzaren hipertrofia bat ematen ari ote zen bertso-mundua bera ere kezkatu zen, Siadecok hainbat eztabaida taldeetatik ateratako ondorioetan ikus daitekeenez (Siadeco, 1995: 35-36 eta 66). Baina, une hartako itomenak eragindako gogoeta bat izan zen eta arrakastari uko egitea zentzugabea dela argudiatu izan da gerora:

“(…) elkartearen baitako euskaltzaletasunak zera galdetzen zuen eta du: nola egingo diogu bada uko arrakasta pixka bati, hiztun komunitate honentzat dena ere gutxi izango da eta? Gure teilatuari harrika hasi behar ote dugu bada euskarazko sorkuntza batekin behin belodromoa edo BEC bete dugulako, futbolak hamabostero San Mames betetzen duenean? (...) Hiztun komunitateak elikagai onak behar ditu. Masa kulturak bere aldetik, azkar zirkulatuko duten merkantzia kulturak behar ditu. Zertan jokatzen ditugu euskararen komunitatearen bideak? Zer zaigu lorringarri eta zer bizigarri epe motzera eta epe luzera? Arrakasta eta benetakotasuna. Kalitatea eta kantitatea. Sorkuntza eta eraikuntza.” (Sarasua, 2013: 291)

Alferrikako eztabaidetan ez sartzea izan da urte guzti hauetan mantendu duten postura:

“Guk betiko bertsolarien eta hippien arteko jarrera batekin bizi genuen kontua, eta ezaxola puntu alai batekin aditzen genien idazleoi. Gure egunerokotasunean mundu tradizionalarengandik gertu geunden, gunerik errotuen eta zaharrenean

⁶⁸³ Barandiaranek zehazten duenaren arabera Plazara aldizkarian 1990eko hamarraldiaren hasieran argitaratua da testua.

tarteko ginen, astero mahaian edo tabernan, eta bestetik egungo munduari begira ezeri aterik ez ixteko aldarlean.” (Sarasua, 2013: 302)

Azken hamarkadetan asko ugaritu da bertsolarien eta bestelako kultur eremuetako sortzaileen arteko elkarlana eta elkar ezagutza. Hala ere, idazleen artean oraindik ere jarrera ezkor bat nagusitzen dela suma daiteke. Umorez aipatzen du, Angel Errok Berriako ‘Jira’ zutabearen: “Oraindik ez naiz ausartu, baina inoiz izan dut tentazioa komunitatearen onuraren alde neure burua sakrifikatu eta horrelako solasaldi batean disidentearena egiteko, esaterako, idazleen afari batean bertsozalea naizela esanez. Kontatuko dut hemen, bizirik ateratzera, zer moduz doakidan esperimientua.” (Berria, 2016/X/30, ‘Esperimientua’, Angel Erro)⁶⁸⁴.

Badago, noski, euskal letren mundutik bestelako planteamendurik egiten duenik ere. Gabilondok, esaterako, bigarren ahozketasunaren argitara euskal literaturaren historia birplanteatu eta ahozkoari kultura idatzian oinarritu den ikuspegi hegemonikotik ukatu zaion tokia aitortu beharra aldarrikatzen du:

“(…) orainaldiko egoera global eta postmoderno honek, lehena ere orainaldi honekiko pentsatzera bultzatzen gaitu, egia historiko berriak topatzera; aurreko historia bera idatzizketasunaren arabera pentsatu, ikertu eta idatzi dugula ikustarazten baitigu (...) Goiko birdefinizioaren ondorio historiko lehena, XXI. mende arteko ahozko eta idatzizko literaturen erlazioa birpentsatzea da, Erdi Aroko emakume bertso-inprobisatzaileekin hasita (...)” (Gabilondo, 2009: 10).

Edozein kasutan zentzuzkoa begitantzen da bataren arrakastak bestearena lagundu dezakeela eta Idatzia vs. Ahozkoa dikotomian gotortu beharrean elkarren arteko sinergiak bilatuko beharko lirakeela planteatzea.

8.7.5 Herriaren kronista zena komunikazio zirkuitu alternatibo

Kazetaritza eta bertsolaritza arteko hartu emanez luze aritu ondoren, euren arteko nolabaiteko ahaidetasuna ezin aipatzeke utzi. Díaz Noci berak, esaterako, euskarazko kazetaritza historia egiterakoan aurrekari gisa aipatzen du bertsolaritza:

“Si el periodismo vasco en castellano es tardío, la comunicación de actualidad en lengua vasca se refugia en formas preperiodísticas. Cabe mencionar como estrictamente de época contemporánea, el bertsolarismo, un fenómeno de repentización versística popular que en nuestros días ha experimentado un notable resurgimiento.” (2012: 49-50)

Almanakak protokazetaritza baziren, bertsolaritza aurrekazetaritza gisa har daiteke bere ustez. Bertsoak, prentsa bezala, propaganda nahiz informazioa zabaltzeko ere erabili izan direla azpimarratzen du eta gaineratzen du bertso paperen arrakastak erakutsi zuela euskarazko kazetaritzak bidea egin zezakeela:

“Azpimarragarria da, gainera, nola ahozko bertsoetatik idatzietara, inprimatuetara pasatzen den. Guztiok dakigunez, bertso paperak merkatu, feria eta herri guztietan saltzen ziren. Badago, orduan, faktore oso inportante bat: irakurlego baten agerpena —euskararen egoerak uzten zuen neurrian, noski—, publiko gero eta alfabetatuagoa, galdakizun edo esijentzia berriak zituen irakurlego bat, audientzia modernu bat alegia (...) Euskarazko prentsa agertzeko ordua zen.” (1995: 30)

⁶⁸⁴ Helbide honetatik berreskuratua: <http://www.berria.eus/paperekoa/1740/025/001/2016-10-30/esperimientua.htm> [2016/X/30]

Antonio Zabalak, bertso-paperek izan duten ikerlari garrantzitsuenak, kazetaritza eta genero honen arteko paralelismoa ezartzeko aukera irekitzen du, bestalde. Euskal Herriko kazetaritzaren lehen gailurra Lehen Karlistadetan eman zen polarizazioak ekarri zuen propaganda beharrari erantzunez, eta behar hori muturreraino iritsi zenean, apaiz karlistek nekazariengan zuten eraginari aurre egin nahian, liberalek euskarazko lehen testuak sartuko dituzte errendizioa eskatuaz. Zabalak bertso-paperean lehen gailurra ere Lehen Karlistadetan eman zela dio, propaganda beharrek ekarri zutela loratzea, eta liberalek ireki zutela bidea, errendizioa eskatzeko: “Creo que fueron los liberales quienes echaron a andar por este otro camino de las hojas volantes, tratando de convencer a las partidas carlistas a que depusieran las armas. Lo que consiguieron es enseñarle el método al adversario” (1996b, 108-109). Gehiago ere badio, ordea: “Estas hojas volantes fueron (...) en aquellas guerras, un sucedáneo del periódico. Las podríamos calificar de preperiodismo y encontrar en ellas, en estado embrionario, muchos de los géneros más típicos de la prensa: crónicas, artículos de opinión, polémicas, reportajes ...” (1996b, 109)

Kazetaritzaren historian aditua den norbaitek bertsolaritza historia horretan barneratzea bada esanguratsua eta bertso-paperean inguruko adituak berresten badu gehiago. Díaz Noci eta Zavalak seinalatzen duten lotura, ordea, aurretik ere hainbatetan izan da aipatua. Lehen erromantikoen artean, esaterako, Chahok bertsoarekin menditarrek kantuz osaturiko kazeta bat daukatela dio, “les improvisations basques ont un caractère historique exclusif de toute poésie spéculative ; elles intéressent principalement par là les Montagnards qui ont ainsi una Gazette toute en chansons” (1844/VIII/11, *Trilby*, ‘Chants Basques’). Edo gerra aurreko pizkundean Jose Ariztimuño *Aitzolek* kazetari deitzen die bertsolariei: “Ha sido el improvisador-poeta, el analista, el cronista, el pregonero, el periodista y noticiero de los mil sucesos variadísimos” (1935/I/12, *Euzkadi*, ‘Una nueva institución. Los cantores del pueblo’). Esteban Urkiaga *Lauaxetak*, berebat, kronistatzat hartzen ditu: “Son los cronistas no únicamente de las grandes hazañas, sino de los pequeños sucesos de nuestras aldeas, que a la postre deben de constituir nuestra historia interna y verdadera” (1935/I/20. *Euzkadi*. ‘Ante la fiesta de hoy. ‘Maestro de bertsolaris).

Azken urteotan kazetaritza eta bertsolaritzaren arteko ahaidetasun honi buruzko planteamenduek bilakaera bat izan dute. Noci eta Zavalak ahotan duten garaian, edo Aitzol eta Lauaxetarenean, euskaldun gehienak elebakarrak eta alfabetatu gabeak ziren, ez zuten informaziora hedabide modernoek bidez iristeko modurik, eta, logikaz, bertsolaritzak toki garrantzitsu bat betetzen zuen hauentzat informazio nahiz propaganda eroale gisa. Egun, ez da euskaldun elebakar alfabetatu gaberik existitzen, hedabide modernoek garapen ikaragarria izan dute, eta eskaintza kasik mugagabe baten baitako aukera bat baino ez da bertsolaritza. Hori dela eta bertsolaritza modernoaren baitan egin diren gogoetetan hedatzaile gisa baino iragazle gisa ikusten dute euren burua:

“Gaur egun jasotzen dugun informazio zaparradaren erdian, komunikazio-zirkuito txiki alternatibo moduan azal zitekeek bertso zirkuitua. Gizartean dabilen informazioa hartzen diagu bertsolariok, bai tokian tokiko informazio gertu-gertuko hori, Euskal Herri mailako nahiz nazioarteko informazio sozial, politiko, edo tribiala, eta horrekin egiten diagu liseriketa pertsonal moduko bat, jolas bat, eta hortik ateratzen zaiguna botatzen diagu jende-aurrera (...)[Sarasuaren hitzak.]” (Garzia, 1998: 44)

Ez zaio uko egiten kazetaritzarekin eman daitekeen balizko ahaidetasunari⁶⁸⁵, baina kronistarenak baino gertuagoko ikusten dira zutabegilearen edo umoregile grafikoaren lanak: “Informazio sozial eta pertsonalari hausnarraldi kantatua ematen dion eremu horretan bertsolariak komunikatzaile eta poetaren arteko papera betetzen du, liderraren eta bufoiaren artekoa, egunkariko zutabegilearen eta marrazkilari satirikoaren artekoa (...)” (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 61).

Komunikazio zirkuitu alternatibo gisa definitu izan da, bada, bertsolaritza bertso mundutik. Ikur gisa betetzen duen funtzioa edo bertsolariei iritzi emaile gisa aitortu izan zaien estatusa ikusita, ordea, zerbait gehiago ere badela iradoki daiteke. Ahozkotasanak eta bertsolaritzak sekulako pisua izan dute historikoki euskararen komunitatearen baitan, eta historia horren emaitza gara geu ere. Geure memoria kolektiboan arrasto sakonagoa utzi du Fernando Amezketarrak garai hartan egon zitekeen ezein euskal idazlek baino, eta Txirritaren bertsoak ezagunak dira Nikolas Ormaetxea Orixek Aitzolen enkarguz poema nazional izateko idatzi zuen ‘Euskaldunak’ baino.

⁶⁸⁵ Ikerketa alorrean ere lotura hau abiapuntutzat hartzen duten hainbat lan egin dira. Hala nola, 36ko altxamenduak eragindako sufrimendua aztertzeko Zapiain anaien bertsoetara jo duen Pio Perez Aldasororena (2011), modernitatearen bilakaeraren isla bertsolari zaharren testuetan bilatu duen Luzia Alborrorena (2017), edota hedabideen eta bertsolarien agenden alderaketa egin duen Iñaki Iturriotzena (2008).

9. ONDORIOAK

BAT. Bertsolaritzak presentzia mediatiko jarraitu bat izan du XIX. mendearen bigarren erditik aurrera, eta Lehen Euskal Pizkundearen hasieratik, 1880ko hamarralditik aurrera, presentzia hori garrantzitsua izango da. Lore Jokoen zikloan (1845-1917) bertsolaritzari erreferentziaren bat egiten dioten prentsako 1092 testu bildu dira.

1.1 Topatu den testurik zaharrena 1823koa da, Boucher de Crèvecoeurrek *Journal des Voyages*ean argitaraturiko ‘Souvenirs du pays Basque et des Pyrénées’. Presentzia jarraitua, ordea, 1840ko hamarraldiaren erditik aurrera hasiko da, Agosti Chahok prentsan ateratako bertsolaritzaren lehen apologia batekin hasi eta bertsolari bat protagonista nagusi duen Aitorren kondaira eta bere iruzkinekin osatutako bertso-jarriekin hainbat testu argitaratzean.

1.2 1851tik aurrera Antoine Abbadiek Lore Jokoak antolatuko ditu Ipar Euskal Herrian, eta bertako prentsan urtero emango da bertsoen moldera egiten den lehiaketa idatziaren edota bat-bateko lehiaketaren berri. Bestalde, 1853ean ‘Gernikako Arbola’ sortu zuenetik sona handia hartuko du Jose Mari Iparragirrek, eta bertsolari gisa aurkezten dute berari buruzko urte haietako Hegoaldeko prentsako testu geroz eta ugariagoek.

Hazkunde askoz ere nabarmenagoa 1870eko bigarren erditik hasita emango da, ordea. Bertsolaritzaren historiako lehen gertakari mediatikoak, gerran zauritutako Indalezio Bizkarrondo *Bilintxen* agoniak ekarriko du lehen bulkada 1876an. Bigarrena Iparragirreraren itzulera izango da, urte berean hasita. Duela bi hamarkadetatik Ameriketara pista galdua zitzaion Iparragirre prentsak lokalizatzen du, eta bere itzulera ere, pausoz-pauso kontatuko den urtebetetik gorako odisea, egunkariaren orrietatik bideratuko da, irakurleen artean diru-bilketak eginez, euskal erakundeei laguntza deiak luzatuaz eta abar.

Azkenik, 1879tik aurrera, Foruen abolizioaren aurkako erreakzio kulturalista gisa Lore Jokoak Hegoaldean antolatzeari ekingo zaio eta erreakzio beraren baitan sortuko diren aldizkari kultural multzo batek eskainitako arreta berriari esker testuak biderkatu egingo dira.

BI. Bertsolaritzaren eragileek garrantzia handia eman diote honen hedabideratzeari. Honela, eragiletzaren ziklo historiko bakoitzean bertsolaritzaren presentzia mediatikoak hazkunde nabarmena izango du eta hazkunde honen atzean bertsolaritzaren eragileen eskua ikus daiteke. Bestalde, hedabideen alorrean ematen diren berrikuntzei adi daudela ikus daiteke, ez diotela beldurrik izan bide berriak ahal izan bezain pronto urratzeari.

2.1 Eragiletzaren ziklo historiko batetik bestera jauzi kuantitatibo garrantzitsua eman du bertsolaritzaren presentzia mediatikoak: Lore Jokoen zikloan (1845-1917) gaian prentsez argitaratutako urteko batez-bestekoa 15,2 izango da; Euzko Pizkundearen zikloan (1918-1944) 20,7 testukoa; eta Frankismo Garaiko zikloan (1945-1979) 74,4 testukoa.

Azken zikloan bertsolaritzaren presentzia mediatikoak hartutako bolumena dela eta Txapelketa Nagusietako finalei eskainiriko testuetara mugatu da lagina. Lagin honek, ordea, are hazkunde ikusgarriagoa erakusten du: zikloko lehen txapelketan, 1980koan, finalari buruz 30 testu argitaratuko dira prentsan eta azkenengoan, 2017koan, 148, ia bost aldiz gehiago; gaiarekin betetako orrialdeak 27 dira 1980koan eta 221 2017koan, 8,2 aldiz gehiago.

2.2 Hazkunde horren zati garrantzitsu bat eragileek argitaratutako testuei dagokie: Lehen zikloan Jose Manterola, Frantzisko Lopez Alen eta Antonio Arzak ageri dira garai hartan prentsan gaiaz gehien argitaratu zutenen artean. Hegoaldeko Lore Joko garrantzitsuenen, Donostiakoan, gidaritzan ibili ziren hiruak. Eta gainerako sinadura garrantzitsu gehienak ere epaile edo sortzaile gisa Lore Jokoetan parte hartutakoak dira.

Eusko Pizkundeko zikloan Joseba Zubimendi, Jose Ariztimuño Aitzol eta Iñaki Eizmendi *Basarri* dira, alde handiarekin, gaiaz gehien argitaratu zutenak, hiruak ere 1930eko hamarraldiko Bertso-Guduetan funtsezko eragile eta protagonista izandakoak. Eta Frankismo garaian *Basarri* bera, Antonio Zavala, Mariano Izeta eta Teodoro Hernandorena, hurrenkera horretan, lau sinadura jorienak, bakoitzak hiru digitutik gorako testu kopurua argitaratuz (*Basarrik* bakarrik 457 testu sinatu zituen, ziklo hartan gaiaz argitaratu zen bost testutik bat). Berriro ere bertsolaritzaren inguruan funtsezko lana egindakoak dira guztiak.

2.3 Ziklo bakoitzean hedabideen alorrean indarrean dagoen formatuan eredu garatu bat gauzatzea eta berria den formatuan lehen pauso batzuk modu goiztiarrean ematea lortu bertso-munduak.

Lore Jokoen zikloan prentsan emango dira lehen pausoak, eta goiztiarrak izango dira bere testuingururako. Euskarazko kazetaritzarekin egindako alderaketak berresten du azken puntu hau: bertsolaritzari erreferentzia egiten dion lehen testua, esan bezala, 1823koa bada, prentsan euskaraz argitaratutako lehen testua 1834koa da; euskara hutsezko lehen aldizkaria 1848an agertzen denean (*Chahoren Uskal-Herriko Gasetan*) bertsoa ere argitaratuko da bertan; eta 1897an euskara hutsez bide bat egin zuen lehen aldizkaria (*Azkueren Euskalzale*) agertzerako, ehundaka batzuk dira bertsolaritzaz prentsan argitaratutako testuak.

Prentsan emandako lehen pauso horien artean kualitatiboki garrantzitsuak diren batzuk ere tokatuko dira tartean. Honela, bertso-kronika kazetaritza genero gisa 1880ko hamarraldi hasieran finkatuta geldituko da, edo beste hainbeste gertatuko da hurrengo hamarraldietan arrakasta handia izango duen bertsolarien pasadizo eta ateraldien azpigeneroarekin. Bai bata eta bai bestea Manterolaren Euskal-Erria aldizkarian garatuko dira, ziklo honetan, alde handiarekin, gaiaz gehien argitaratuko duen medioan.

Euzko Pizkundean eredu garatu bat lortuko da prentsan eta inguruko erderetan estreinatu berria den irratian lehen pausoak emango dira:

- Bertsolari-Guduen estaldurak hartutako dimentsioak erakusten du ereduaren garapen maila. Lore Jokoetan ekitaldiko gehienez hiruzpalau testu argitaratzen ziren bitartean, 1935eko Bertsolari-Guduak 47 testu izango ditu eta 1936koak 55. Euskarazko kazetaritzak ziklo honetan izango duen eskaintza garatuena Argia aldizkaria, izango da estaldura honen zatirik handiena jarriko duena. Historian bertsolari bati eginiko lehen elkarrizketa ere bertan argitaratuko da: 1935eko txapela irabazi berritan Basarri egindakoa.
- Jarraitasun bat izan zuen euskarazko lehen irratsaioan Donostiako Union Radiok 1932tik 1934ra astero eskaini zuten programan, tarte garrantzitsu bat izango du bertsolaritzak. Zubimendi eragilea da irratsaio honen zuzendaria eta gehienetan eraman ohi zuen bertsolaria Basarri.

Frankismo garaian eredu garatu bat lortuko da irratian eta lehen pausoak emango dira ikus-entzunezkoetan.

- Irratiko eredu Loiolako Herri Irratian gauzatuko da, ziklo honetan eragile garrantzitsua izan zen Joxe Mari Iriondoren eskutik.
- Ikus-entzunezkoetan emandako lehen pausoetan ere eragileen eskua ageri da: Tele-Parisek eta Alemaniako telebista publikoa izango dira bertso-saio bat telebistaz emango duten lehenak, eta saio hori 1958an Teodoro Hernandorenak Parisen antolatutakoa izango da, 1933an 'Euzkadi' filmaren zuzendari gisa bertsolari batzuen irudiak lehen aldiz grabatu zituen Hernandorena bera; edota TVEk eskainiko duen lehen emanaldian, 1967ko Txapelketa Nagusiko finalaren inguruan Pio Caro Barojak zuzenduriko 'Fiesta. Bertsolaris, poetas populares vascos' dokumentalean, Antonio Zavalarena izango da gidaria.

Azken zikloan telebistako eredu garatu bat lortuko da eta lehen pauso sendo batzuk emango dira Interneten:

- Ereditua 30 urteko ibilbidea osatu duen ETBren 'Hitzetik Hartzera' programan lortuko da. Bertsolaritzaren eragiletzan paper garrantzitsua jokatuako Joxerra Garziak sortu zuen programa, hasieratik Bertsozale Elkartearen izan da tartean eta egun Elkarteak berak ekoizten du.
- Interneten emandako pausu garrantzitsua ere Elkartearen webgune korporatibo anitzek eta bertsoa.eus kanal tematikoak (hau Jexux Mari Irazu bertsolariak abiarazi zuen) osatzen duten eskaintza da.

2.4 Azkenik, gauzatzera iritsi ez ziren arren, **Jean Duvoisinek 1860an planteatu zuen Lore Jokoen inguruko aldizkariak eta ehun eta hamar urte beranduago Joxe Mari Iriondok bertsolaritzari buruz proposatu zuenak ere, eragileek hedabideratzearekin izandako arduraren jarraitutasuna erakusten dute.**

HIRU- Bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren azterketak, testuen edukietan murgilduta, honen eragiletzaren historia egiteko bidea eskaintzen du. Eragileek bertsolaritzari buruz argitaratutakoetatik euren lan-ildo nagusien arrastoa jarrai daiteke, eta ziklo batetik bestera ildo hauetan ematen den jarraitutasuna eta berrikuntza azaldu.

Bertsolaritzaren hedabideratzeaz gain, bilketa-jakintza, lehiaketa, transmisioa eta autoeraketa dira lan-ildo nagusi horiek.

3.1 Bilketarena da bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren lehen pausuetan eragileek modu argiengan planteatzen duten eginbearra. Bere xedeari dagokionean, lehen hiru zikloetan gehiago lotu izan zaio gorde beharraren ideari eta azkenengoan bildutakoaren erabileran jarri nahi izan da azpimarra, jakintzarekin lotuaz.

Erromantizismoak XIX. mendean Europa osoan zehar egingo du kultura popularraren bilketarako deia eta bertsolaritzaren lehen eragileek dei horri jarraitzen zioten. Chahok eta Manterolak, esaterako, bilduma-lan garrantzitsu bana osatu zuten, eta prentsako testuetan bilketa horrekin galkorra zen sorkuntza bat gorde eta goratzea bilatzen zutela azpimarratu.

Euzko Pizkundean ere, ziklo honetako eragile garrantzitsuenak, Aitzolek, bilduma handi bat osatu zuen, horretarako prentsaren bidez egindako bilketa deiak baliatuz. Esteban Urkiaga *Lauaxetak* ere egin zituen prentsako dei hauek, eta historian lehen aldiz 1935eko eta 1936ko txapelketetan bat-bateko saio osoaren zuzeneko transkripzioa burutu zen.

Frankismo Garaian, 1960ko hamarralditik aurrera, audioan grabatutako bertsoa izango da nobedadea bilketaren alor honetan, eta saioz-saio grabagailuarekin dabilen biltzaile dezente agertuko da, artxibo garrantzitsuak osatuz. Ekarpenik garrantzitsuena, ordea, Antonio Zavalarena izango da, 1950eko hamarralditik hasita Auspoa sailaren ehunka liburu beteko baititu bertsoekin, bertsolarien biografiekin eta hauen herri hizkerarekin. Erromantizismoaren lehen deiaren izpiritua mantentzen du erabat Zavalaren lanak: galtzear den mundu baten azken arrastoak jasotzeko grina, mundu horren mirak eragindakoa.

Bertsozale Elkartearentzat ere lehentasun bat izango da lan-ildo hau, eta pauso garrantzitsua emango du 1992an lan horretara bideratutako Xenpelar Dokumentazio Zentroa irekiz. Jarraitutasun bat emango da, bada, baina baita berrikuntza ere: aurreko zikloetan bilketa gorde beharrekin lotzen zen bitartean, ziklo berrian bildutako horri eman beharreko erabileran jartzen da azpimarra: kazetariarentzat, ikerlariarentzat eta kontsultaren bat egin nahi duen ororentzat eskuragarri jartzea da xedea.

Azken ziklo honetan lotu zaio modu argiengan bilketa ikerketari. Honela, organikoki Elkartearen Jakintza sailaren barruan txertatu da Xenpelarreko lana, eta 2008an ezagutzen sakontzera zuzenduriko azpiegitura, Mintzola Ahozko Lantegia, martxan jarri zenean Dokumentazio Zentroarekin irekitako bidean emandako pauso gisa ulertu zen. Izatez, Zentroa eta Lantegia dira Elkartearen proiektuaren harribitxi preziatuenak, baliabide eta energia inbertsio handiena eskatu dutenak.

3.2 Bertsolari lehiaketak ere, lehen ziklotik landu izan dira. Bertsolaritzaren erreforma eta egokitzapenerako bitarteko gisa baliatu dituzte eragileek, sorkuntza jendarte modernoarentzat goi mailako kultur ikuskizun batek behar lituzkeen arropekin jantzi eta ikusgarritasuna, prestigioa eta oihartzun soziala lortzeko. Xede hori izanik hau da hedabideratzearekin estuen lotu izan den bestelako lan-ildo.

Burkek (1991) azaltzen duen bezala, kultura jasoak kultura popularretik bereizi zenean hainbat transformazio eman ziren. Honela, esaterako, espazio irekitik espazio itxira aldatu zen sorkuntza, edota hartzaileen portaera aldatu egin zen, parte hartze espontaneoago batetik ikuslearen posizio zurrunago batetara. XIX. mende hasierako bertsolarien desafioetatik mendearen bigarren erdiko Lore Jokoetara aldaketa hauek eta beste hainbat emango dira: egoitza herriko plazatik antzokietara eta antolakuntza bertsolarien eskuetatik kulturgintza munduko eragileen eskuetara pasatzea; ikuskizuna gidatuko duen gai-jartzailearen bitartekotza, ariketen nahiz lehia epaitzeko irizpideen sofistikazioa eta abar.

Garaiko prentsan argitaratzen diren zenbait iruzkinetan topa daitezke bertsolaritza jasoagotzat jotzen ziren sorkuntzekin parekatzeko ahaleginaren lehen zantzuak. Hurrengo zikloan Aitzolen intentzio erreformatzailea are argiagoa da, prentsako artikuluren batean bertsolarien janzkera aldatu beharra modu literal batean planteatzera iristeraino. Eta Frankismo garaian Basarrik behin eta berriro errepikatuko du bere artikuluetan bertsolaritza sagardotegitik atera eta jende jantziaren begietara gustagarria litzatekeen formatu batean eskaintzea dela proiektuaren funtsa.

Modernitatean, Thompsonek (1998) azaltzen duen bezala, hedabideak funtsezko kultur bitartekari bihurtuko dira, eta lehiaketa hauen xede nagusia jendarte modernoan eragitea izanik, lan-ildo hau izango da hedabideratzeari estuen lotzen zaiona. Zentzu honetan esanguratsua suertatzen da Bertsozale Elkarteak bere sorreratik kasik gaurdaino bi lan-ildoak organikoki sail beraren baitan sartu izana (Sustapena-Hedapena Saila). Eta esanguratsua da baita txapelketaren protagonismo mediatikoaren hazkundera erakusten duen datua: Iparraldeko lehen Lore jokoen inguruan gehienez prentsako bizpahiru testu topa daitezkeen bitartean, azken txapelketako finalari buruz, esan bezala, 148 testu argitaratu dira. Prentsak bertsolaritza inguruan jorrotzen dituen gaien inguruan ez dago horrelako hazkundera izan duen beste bat.

Hedabideetan eztabaida gehien piztu duen lan-ildoak ere lehiaketarena da. Epaimahaiaren lanaren inguruko polemikak Lore Jokoein hasten dira eta gaurdaino jarraitzen dute, tartean 1967ko finaleko txistuena bezalako benetako gertakari mediatikoak, garaiko prentsa hankaz gora jarriko dutenak, utziz. Eta eztabaida mamitsuagoak ere eman izan dira: txapelketak bertsolaritza bere izatetik ateratzen duela aditzera emanaz Zulaikak (2003a) planteatutako jokoa (txapelketa) eta jolasaren (bertsolaritza) dikotomiaren ildotik garatutakoa, esaterako.

Argi dago, sorkuntza lehiaketa formulara makurrarazteak deserosotasun ugari eragiten dituela, baina bertso-munduak gogotsu eutsi dio bide horri. Izan ere, bertsolaritza garapenerako funtsezko formula bat izan da txapelketa, eta gaur ere hori da zaletu gehien erakartzen duen saio mota, bertso-mundua aktibatzekeo pizgarri indartsuena eta honen mezuak, prestigioa nahiz indarra gizarteratzeko bitarteko garrantzitsuena.

3.3 Lehen arrastoak Euzko Pizkundeko prentsan topatu badira ere, eta lan-ildo honen inguruko eztabaida nagusia Frankismo Garaiko azken urteetan abiarazi bazen ere, azken zikloa izan da transmisioa proiektuari funtsezko lan-ildo gisa gehitu diona. Kultur ekosistema modernoan eskola da transmisiorako instituzio nagusia, eta bertso-munduak, ikastolek euskararentzat irekitako bideari jarraituz, bertso-eskola asmatu behar izan du bere geroratzea bermatzeko.

Bertsoaren eskolaratzeko ideiarekin hazia eta hazi hori landatzeko lurra euskararen eskolaratzetik etorriko dira, eta, honenbestez, bertso-gintza irakastearen ideiarekin lehen arrastoak Euzko Pizkundera topatu dira, hain justu ikastolak lehen pausuak ematen hasten

direnean. Aitzolek eta Lauaxetak bertso-eskolaren ideari gerturaten zaion aipamenen bat egiten dute *Euzkadi* egunkarian, eta Pierre Laffitek bertso-gintzaren hainbat barne mekanismoak esplikatzeko dituen lan bat atontzen du, *Gure Herria* aldizkariak 'Koblakarien legea' izenburuarekin gehigarri gisa argitaratzen duena.

Gutxira lehertuko den gerrak eta gerraondokoak errotik moztuko ditu euskal kulturgintzaren kimu guztiak, tartean baita ikastolak eta ernatzera iritsi gabea den bertso-lariaren irakaskuntzaren ideia hau ere. Iritsiko da ernatzera da, ordea, 1960 eta 1970 hamarraldietan ikastolen mugimendu indartsu bat loratu ondoren, hain justu. Historiako lehen bertso-eskolatzat jotzen dena, Almengoa, 1974ean sortuko da, eta Almen ikastolaren eskolaz kanpoko jardura gisa egingo du. Ikastolako irakasleak izango dira bertso-eskolarako ikasleak batuko dituztenak, eta ikastolaren inguruko jendea haurrei irakasten hasten dena. Ideiak ongi funtzionatzen zuela ikusi bezain laster zabaldu beharra ikusten dute eragile hauek eta horretarako ikastolen federaziora joko dute. Honela, 1980ko hamarraldiari ekitearekin, azken zikloaren irekieran, bertso-laritzak klaseak txertatuko da hezkuntza arautuan eta perretxikoak bezala sortuko dira bertso-eskolak.

Prozesu honek guztiak arrasto sakona utziko du prentsan eta Jaio vs Egin dikotomiaren inguruan planteatuko da eztabaida nagusia. Bertso-lariaren baitako ikuspegi klasikoak, aurreko zikloetan funtzionatu izan duen bertso-lariaren irudikapen esentzializatuaren haritik, benetako bertso-laria euskalduntasunaren eremu garbienean, baserri munduko jendearen eta sagardotegiaren bueltan, modu naturalean sortutakoa dela dio. Ez dagoela esentzia hori eskolan jasotzerik. Ikuspegi berriak, aldiz, kultur ekosistema hori desagertzearen dela, bertso-laritzak ekosistema kaletarrean txertatzeko bertso-eskolak beharrezkoak direla eta bertso-gintza, beste edozein sorkuntza bezala, irakatsi eta ikasi egin daitekeela defendatuko du. Lehenengotako bertso-eskola batek Santutxukoak, bertso-lariaren geroratzea ziurtatzeko *hiri-bertso-laria* sortu beharraz dihardu, esaterako, garaiko prentsan.

Azken zikloko gidaritza hartuko duten eragileek Bertsozale Elkartearen antolatutik, ez dute zalantzarik egingo eta bigarren postura honen alde lerratuko dira. Funtsezko lan-ildo gisa jorratuko dute bertso-lariaren transmisioa.

3.4 Azken zikloak proiektuari ekarriko dion bigarren berrikuntza bertso-munduen autoeraketaren lan-ildoak izango da. Bertso-lariaren elkarte bat sortu beharri Euzko Pizkundeko eta Frankismo Garaiko prentsan lehen aipamen batzuk egiten zaizkion arren, sorrera hori ez da 1986a arte emango, eta orduan ekingo zaio ildo honen lanketari, elkarteak bertso-mundu osoa integratuko duen eta kulturgintzara bideratutako den gizarte mugimendu baten eragiletzarako baliatuz. Berrikuntza hau ere funtsezkoa suertatuko da, Lore Jokoen sorreratik lehen aldiz bertso-lariak hartuko baitute proiektuaren kontrola, ahalduntze horretatik bertso-lariaren modernizazio prozesuaren azken faseari barruko begirada berri bat aplikatuz.

Aitzolek eta Lauaxetak prentsan bertso-lari gazteen trebakuntzaz egiten dituzten aipamenetan xede hori izango lukeen bertso-lari elkarte bat sortu beharra ere aipatzen da. Eta 1960ko hamarraldi bukaeran eta 1970koaren hasieran garaiko bertso-lari eta eragileek urtean behin Markiñan egiten zituzten batzarretan ere hainbatetan jorratu zen elkartearen gaia, xedean artean bertso-lari gisa publikoan aritzeko baimen administratiboaren tramitazioa, ezbeharren bat eduki dezakeen bertso-lariarentzat laguntza poltsa osatzea eta gisakoak planteatuz.

Planteamendu hauek, ordea, normalean ez zituzten bertso-lariak egiten, bestelako eragileek baizik. Bertso-lari multzo zabal baten eskutik eta euren autonomia beharretik abiatuko den

ekimena izango da, izatez, gauzatzera iritsiko dena: Frankismotik Txapelketa Nagusiaren antolakuntzaren ardura izan duen Euskaltzaindiako talde eragilearen eta bertsolarien artean eztabaida piztuko da 1986ko Txapelketaren antolakuntzaren inguruan (berrero ere txapelketa bertsolaritzaaren historiako mugarri gisa); ardura hori lehen aldiz bertsolarien esku gelditzean, eragiletza horren autonomia ahalbidetuko duen egitura bat, elkarte, sortzea izango da hurrengo pausoa.

Autoeraketarena izango da hautatutako ildo berria, alegia, egin beharreko bidea administrazioaren, merkatuaren edo Euskaltzaindia gisako beste ezein erakunderen esku utzi beharrean Elkarte antolaturiko bertso-mundu horren baitatik erabakitzearena.

Esanguratsua suertatzen da proiektu soziokulturalaren gidaritzarako barruko begirada hori Amurizak bertso-gintzaren barne-mekanismoak argitzen zituen barrurako begirada zabaldu ondoren nagusitu izana.

LAU- Bertsolariak subalternitatea atzean utziaz proiektuaren gidaritzarako bere ahotsa entzunarazteko irabaziko duen gaitasuna pixkanaka egosi den prozesu baten emaitza da. Presentzia mediatikoaren bilakaerak kanpotik barrurako ahalduzko prozesu horren zenbait zantzu orokor eskaintzen ditu, eta azken zikloan hedabideratze alorrean emango den eztabaida sakonena ere ardatz horren inguruan eman da: bertsolaritza telebistaz eskaintzeko apustua egin dute eragileek baina eskaintza horrekiko euren erabakimen gaitasuna ezinbesteko baldintzat jarri.

4.1 Kanpoko begiradak pisu handia izan zuen bertsolaritzaaren inguruan zabaldu ziren lehen irudikapenetan. Bertsolaritzaaren erabakimen gaitasunetik kanpo eman zen hau.

Lore Jokoetan gaiarekin lotura bat duten prentsako testuen artean heren batetik gora (360 testu) Euskal Herrikan kanpo argitaratutakoak dira.

Datu hauek Euskal Herriak Europako mugimendu erromantikoan piztu zuen interesa islatzen dute. Garaiko hizkuntzalaritzak eta antropologiak Europako hizkuntzarik zaharrena euskara eta jatorrizko arraza euskaldunena izan ote zitekeen planteatu zuten, eta norbere sustraierara itzuli beharra aldarrikatzen zuen erromantizismoaren arreta piztu zuen honek. Etxahun, Bilintx eta Iparragirrerena bezalako biografiek ere, ertzekoak, gorabeheratsuak eta tragediak ukituak, oso ongi funtzionatzen zuten garaiko iruditerian, eta batez ere azken honen figurak, ikur politikoaren dimentsioa ere hartu zuenez, sekulako oihartzuna izan zuen.

Kanpoko interesa pizteak ez du zertan txarra izan, baina kanpoko begirada oso indartsua denean errazago ematen dira estereotipazioa eta esentzializazioa, eta hori gertatu zitzaion bertsolaritza ere. Esaterako, bitxikeria exotiko gisa azaldu zen lehen aldiz prentsan, topatu den testu zaharrena, Boucher de Crèvecoeurren ‘Souvenirs’ (1823), bidaia aldizkari paristar batean (*Journal des Voyages*) argitaratutakoa baita. Gisako gehiagok jarraitu zioten atzetik. Edota, ikerlari atzerritarren lanen oihartzuna *Wiener Zeitung* austriarra (egun irekita daudenen artean munduko egunkari zaharrena) bezain medio urrunetara iris zitekeen (‘Neben die basken und ihre volkslied’ zeraman izenburutzat 1860an argitaratutako artikuluak), bertsolaritza primitibismoaren paradigma gisa ikusten zuten orrialdeetara. Berebat, Iparragirreraren ingurukoak Madrilgo edo Parisko egunkarietan ez ezik galegoz edo katalanez ere idatzi ziren, baita ingelesez ere *The Times* ezagunean, eta euskal bardo gerlariaren inguruko topiko erromantiko guztiek sekulako anplifikazioa izan zuten.

Hurrengo bi zikloetan behera egingo du kanpoko begiradaren presentzia honek: Euzko Pizkundean %15 izango dira Euskal Herritik kanpoko testuak (85) eta Frankismo Garaian %2,5 (63). Begirada horrek utzitako arrastoak, ordea, indartsu iraungo du.

4.2 Prentsak gaiaz aritzeko egiten duen hizkuntza-hautuaren bilakaerak eskaintzen du beste zantzu orokor bat: euskararen komunitatearen pixkanakako ahalduntzea.

Euskararen komunitatearen subalternitateak euskarazko kazetaritzaren sorrera berantiarra ekarri zuen. Honenbestez, bertsolaritzari buruzko prentsako testurik zaharrenak frantsesez argitaratu ziren, gazteleraz idatziak etorri ziren hurrena, eta euskaraz ari zirenak dezente beranduago ugaritu ziren.

Gramscik (2000) azaltzen du subalternari kosta egiten zaiola bere ahotsa entzunaraztea, eta kasu honetan norbere hizkuntza entzunaraztea bera suertatu da nekeza. Subalterni errebeldea izan da, ordea, euskalduna, eta ez dio egoera horri etsi: Lore Jokoetan gaiari buruzko testuen %13 argitaratu ziren euskaraz; Euzko Pizkundean %47koa izan zen portzentajea; Frankismo garaian, testuingurua horretarako egokiena ez zen arren, %61eraino igo zen euskarazko testuen kopurua; eta ziklo garaikidean, azkenik, %78koa izan da portzentaje hori. Bertsolaritza euskarazko kultur sorkuntza bat izanik, normalena azken hau begitantzen da. Kanpotik barrurako mugimendua berriro ere.

4.3 Bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren baitan bertsolariaren ahotsa protagonismoa irabaziz joan da, bai bertsolariek sinatutako testuen bidez eta baita bertsolariei egindako elkarrizketen ugaritzearekin ere. Ohiko zutabegile gisa bukatzea lortu du azken zikloan.

Lehen zikloan ez dago prentsan gaiaz testurik argitaratuko duen bat-bateko bertsolaririk. Ahozkotasanaren subalternitatearen adierazgarri protagonista gisa ere Pedro Jose Elizegi *Pello Errota* da oihartzun mediatiko esanguratsu bat, bertso-jarriekin nabarmendu ziren Iparragirrek, Bilintxek edo Otañok izango dutenarekin alderatuz txikia, lortuko duen bakarra.

Euzko Pizkundean, Kepa Enbeita eta Iñaki Eizmendi *Basarri* izango dira prentsan hitz lauz eta bertsolaritzaz testuren bat argitaratuko duten bertsolari bakarrak. Garaiko sinaduren %2a da hau, oso gutxi, baina bat-batekoak protagonismoa irabaziko du jarriaren aurrean: Txirrita, Basarri, Matxin Irabola eta Kepa Enbeitak badute oihartzun mediatiko esanguratsu bat.

Frankismo garaian, Xabier Amuriza, Abel Enbeita, Deunoro Sardui, Mixel Aire eta Txomin Garmendia batuko zaizkio Basarri, gaiari buruzko testugintzan. Garaiko sinaduren, %2,4a izango da hau. Lehen aldiz bat-bateko bertsolari garaikideek Iparragirre baino oihartzun handiagoa izango dute: Fernando Aire Xalbador, Manuel Olaizola Uztapide, Iñaki Eizmendi Basarri eta Mattin Treku izango dira, hurrenkera honetan, garaiko protagonista mediatiko nagusiak (testu gehien eskaintzen zaizkienak).

Bertsolariei eginiko elkarrizketak ere ziklo honetan, batez ere 1960ko hamarralditik aurrera hasiko dira ugaritzen, eta 1967an argitaratuko da bi bertsolariren arteko lehen elkarrizketa: *Anaitasuna*, 1967ko urria, 'Yon Lopategui, bertsolari aundia', Xabier Amuriza.

Bertsolariaren subalternitatea legoke kazetaritza genero honen garapen berantiarren atzean: jite guztietako jendea, ehundaka lagun, arituko da prentsan bertsolaritzari buruz iritzia emanez norbaiti bertsolariei heuri hitza ematea otu aurretik.

Azken zikloan gaintuko da erabat egoera hau. Finalari buruzko testuen laginean elkarrizketa izango da, albistearekin batera, kazetaritza genero erabiliena: bertsolariei

egindako 267 elkarrizketa argitaratuko dira. Bestalde, 40 bertsolarik sinatzen dituzte finalari buruzko testuak eta portzentajea aurreko ziklokoa baino sei aldiz handiagoa izango da: %13,6.

Izatez, aurretik Basarrik eta Amurizak irekitako bidetik, ohiko zutabegile ere bihurtuko da bertsolaria. Hedabideetan bere ahotsa entzunarazteaz gain hedabide hauetako askok iritzi-emaile gisa aritzeko ahots kualifikatutzat hartzea lortu du.

4.4 Azken zikloan hedabidetzearen alorrean bertso-mundua gehien arduratu duena telebistako eskaintza izan da. Eskaintza horren garrantziaren jakitun apustu sendoa egin du batetik, baina, tentuz jokatu nahi izan du bestetik, bere iritzia kontutan hartzen ez zenez, telebistako programa eteteraino. Bide horretatik pixkanaka ahalduntze bat lortu du, telebistaratzearan ere, eskaintzaren ardura osoa hartuz. Alor osora zabaldu du gero logika bera: Elkartearan komunikazioa eta hedapena profesionalizatu egin dira, edukien norbere ekoizpenean eta hedabideekin elkarlanean eraginkorragoak, alegia, ahaldunduak, izateko.

Bertsozale Elkartek bere sorreratik hedapena lan-ildo estrategikoen artean kokatu zuen. Bi urtetara, 1988an sorrera horretan parte hartua zen Joxerra Garziak 'Hitzetik Hortzera' programari ekin zion telebistan. Gutxira, telebistan lortutako audientzia arrakastatsuen eragin biderkatzailea tarteko, bertsolaritzaren booma deitu izan zaion aparraldi ikusgarria eman zen: zaletuen eta bertso-saioen kopuruak, bertsolarien presentzia mediatikoak eta bertsolaritzaren prestigio sozialak gora egin zuten nabarmen.

Bertsolaritzak fenomeno soziokultural gisa hartu zuen abiadak bertigo puntu bat ere eragin zuen bertso-munduan, eta hazkunderari ez ezik hazkunde horren nolakotasunari ere erreparatu nahi izan zitzaion, Elkartearan baitan gogoeta kolektibo interesgarri bat abiaraziz. Telebistaren eskaintza izan zen iritzi gehien eragin zuen alorretako bat, eta gehiegizko eskaintzarekin zaletuak saturatzeko arriskua, gehiegizko esposizioarekin bertsolariak eta bertsoa erretzekoa, fokua bertsoaldirik onenetan jarriz sorkuntzaren irudi desitxuratu bat eskaintzekoa, elitean jarriz gainerako bertsolariak merkaturik gabe uztekoa edota telebistak bete beharko lukeen funtzio hezitzailea izan ziren eztabaidaren ardatzak. Gogoeta horren bueltan landutako proposamenetan oinarrituz telebistaren arduradunekin eskaintzaren diseinu adostu bat bilatu zuen Elkartek, eta euren iritzia ez zela kontutan hartzen ikustean eskaintza etetea erabaki zen. Hazkunde etengabearen aurrean hazkunde orekatua lehenetsi zen, bertso-munduaren aparraldiaren aurrean bertso-mundu horren ahalduntzea.

Iritsi zen adostasuna, bueltatu zen programa eta ordutik bi hamarkada gehiagoko ibilbidea egin du 'Hitzetik Hortzerak'. Ibilbide horretan elkarlan on bideratu ahal izan dute ETB ardura gehienak Elkartearan esku uzten joan da. Eta esperientzia horretan oinarriturik gainerako hedabideekiko elkarlanean nahiz norbere ekoizpenean sakondu ahal izan du Elkartek.

Bi alor hauek, Elkartearan komunikazioa eta norbere ekoizpeneko eskaintza, profesionalizatu egin dira. Elkartearan webgune korporatiboaren eskaintzaren eta hedabideekiko harremanen ardura duen komunikazio taldeak, eta telebistarako programa nahiz Interneteko kanal tematikoaz ardura duen hedapen taldeak pisu garrantzitsu bat dute egun Elkartearan egituran.

1990eko hamarraldiko kezak eta eztabaidak dezente sosegatu dira eskaintzaren gaineko kontrol handiagoari esker. Arriskuei neurria hartzen erakutsi die esperientziak, eta telebistaren eragina ere ez da garai batekoa, audientziak Internetekin partekatu behar baititu. Bertso-mundua hedabideratze arrakastatsuek ezartzen duen abiadura altuan bizitzen ohitu da, baina orekarekin izan beharreko tentua ez du ahazteko asmorik.

BOST- Bertsolaritzaren inguruko proiektuaren bilakaeran aipatu diren lan-ildo nagusiez gain funtsezkoa suertatzen da bertsolaritzari buruzko irudikapen eta ulerkeren multzoa. Eta irudikapen-ulerkera horiek ere bertsolaritzaren presentzia mediatikoak utzitako arrastoan barna behatu daitezke.

Arrasto horretatik ondorioztatu daiteke lehen hiru zikloetan Lehen Euskal Pizkundetik jariatzen zen ikuskera izan zela nagusi eta azken zikloan Bigarren Pizkundeak ekarritako ikuskera berria garatu dela.

Berebat, pizkunde hauek testuinguru zabalgoan gertatutakoari erantzuten diotela gaineratu daiteke. Lehen Pizkundeak Europako mugimendu erromantikoak XIX. mendean Lehen Modernitateari emandako erantzuna izango du inspirazio iturri. Bigarren Pizkundeak estaturik gabeko nazioen nazionalismoaren Europa mailako olatu berri batek Gizarte Mugimendu Berrien baitan txertaturik Beranduko Modernitateari emandako erantzuna.

5.1 Burkek (1991) azaltzen duenez, Lehen Modernitatean bi indar nagusik eragingo dute kultura popularraren ikuskeren inguruan: eliteen bestekotze prozesutik jariatzen den mesprezu modernistak eta bestekotzearen ondorengo deskubrimenduak dakarren lilura erromantikoak. Bertsolaritzaren bilakaeran funtsezkoak izango dira bi indar hauek, eta bere presentzia mediatikoaren historian hainbat testutan jasota gelditu dira bai bata eta bai bestea.

Aro Modernoa inprentaren eta Nazio-Estatuen sorrerarekin abiatuko da. Inprentak kultura idatzi bat garatzeko aukera emango die eliteei eta hauek ordura arte amankomuna zen kulturari bizkarra emanaz, idatzia/ahozkoa jaso/popularra dikotomiak ezarriko dituzte. Bereizketaren oinarrian euren posizio hegemonikoa markatu nahia legoke, eta, honenbestez, kultura popularra atzeratuz eta ezjakinen gauzatuz hartuko dute, bere erreforma edo debekurako ekimenak sustatuz.

Euskal kulturaren historian bestekotze prozesu honen hainbat aztarna bertsolaritzari loturik ageri zaizkigu, hain justu. Honela, topatu izan diren eresia zaharrenek, XV. Mendean euskal nobleziak bertsotan egiten zuela erakusten dute, alegia, herri xehearen kultura partekatzen zuela. Berebat, ezagutzen diren bertsolaritzaren debeku zaharrenek, 1452ko Bizkaiko Foru Zaharretan jasoak, eliteen bestekotze prozesuaren lehen isla lirateke. Edota, XIX. mendearen lehen erdian euskal elizak bertsolaritzaren aurka idatzitakoek prozesu horren mendeetako iraupena erakusten dute.

XVIII. mende amaieran klase eskolatu horiek berak, kontinente osoan zehar zabaldu den mugimendu erromantikoaren baitan euren sustraien bila herri xehearen kulturari berriro erreparatu eta hau bildu, aztertu eta balioesteari ekiten diote. Akituak dauzkan kultura jasoaren artifizialtasun eta konplexutasunaren aurrean popularraren naturaltasuna eta soiltasuna aldarrikatzen dira. Modernitateak kutsatu gabeko landa eremuko herritarraren figura idealizatu egiten da, 'basati onaren' mitoarekin alderatuz, eta berezkoa eta primitiboa lehenesten dira eskolan ikasi daitekeen horren eta garatuaren aurrean. Garai berean Napoleonen inperialismo frantsesa agertu da gainera, bere diskurtso homogeneousatzailea janzteko kultura Neoklasiko-Ilustratua baliatzen duena, eta honen aurkako erreakzio gisa erromantizismoak dimentsio politiko bat ere hartuko du, norbere sustrai kulturaletan oinarritutako nazionalismoa aldarrikatuz.

Bertsolaritzak erromantikoen artean piztuko duen interesaren arrasto goiztiar bat prentsan topatu den lehen testuak berak eskaintzen du. Esan bezala bidaia-kronika bat da

Crèvecoeurren testua, eta bidaia da, kultura primitibo eta exotikoak ezagutzeko bitarteko gisa, erromantikoen fetitxe nagusienetako bat. Kasik urte berean, 1824ean, Juan Inazio Iztuetak bertsolariek ‘Artikaste aundiakiko gizon jakinti askori’ eragiten dieten miresmena aipatzen du espresuki ‘Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia’ lanean. Chahoren apologiatik hasita geroz eta ugariagoak izango dira prentsan topa daitezkeen lilura erromantikoaren arrastoak. Mesprezu modernista erakusten dutenak ere agertuko dira tarteka.

5.2 Lehen Euskal Pizkundeak Erromantizismoaren erronkak eta kontraesanak barneratzen ditu. Batetik, honek dakarren kultura popularraren ulerkera modernoa bere egin eta kultura nazional gisa garatuko du bertsolaritza, estatus horri horrela dagokiolakoan kultura jasoaren edota ikuskizun modernoaren parametroetara ekartzeko ahalegina egingo duelarik. Aldi berean, ordea, aurremodernitatearekin duen lotura azpimarratzen duen irudikapen erromantiko esentzializatua ere fede handiz zabalduko du.

Bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren lehen hamarkadetan kanpoko begiradak pisu handia hartuko du. Gabilondoren hitzetan (2016) Europako etnariak zaharrena, eta ondorioz jatorrizkoa, izan zitekeela planteatzen zenez, begirada horretatik euskaldungoa barne natibo gisa, Modernitateak bazterrean utzitako mundu aurremoderno primitiboaren esentzien gordeleku modura irudikatuko da, eta mundu horren erakusgarritzat hartuko du bertsolaria. Bere lehen pausuak ematen hasiko den euskal kulturgintzak bere egingo du diskurtso hori.

Chaho izango da bertsolaritza ikur nazionala izateko bidean jarriko duena. 1844ean egiten duen apologian bat-bateko bertsolaritza euskal nazioaren bereizgarritzat jotzen du bere antzinatasuna azpimarratuz eta bertsolaria herri xehearen kronista dela gaineratuz. Urtebete beranduago argitaratuko Aitorren kondairan, bertan kontaktzen den kronika nazional alegiazkoa taulatu baten gainetik bat-bateko kantuan ari den bardo baten ahotan jarriko du.

Arturo Campionek gaztelera itzuli eta 1878an *Revista Euskara* aldizkarian argitaratzen duenean, Foruak galdu berrian eta Lore Jokoak Hegoaldera pasa bezperatan, zabalduko da mugaren alde honetan Aitorren kondaira. Urte berean itzuliko da Ameriketatik euskal askatasunen abeslari gisa ikur bihurtu den Iparragirre, kondairako bardoarekin antzekotasun handiak dituen (izatez, oso litekeena da, Chahoren inspirazio iturria urretxuarra izatea). Foruzaletasunaren eta protonazionalismoaren iruditerian funtsekoak suertatuko dira bata zein bestea, eta 1880an Juan Antonio Mogelen ‘Peru Abarka’ batuko zaie, prentsaren bidez argitaratua bertsolaritzari landa eremuko euskaldun ‘basati onaren’ adierazpen gisa garrantzia handia emango diona. Aurrerantzean geroz eta sarriago irakurriko da bertsolaria herriaren ahotsa dela, bertsoa euskaldungoaren gaitasun sortzailearen erakusgarri dela, edo bertsolaritzak eskolatu gabeen jakinduria naturala erakusten duela, eta sorkuntzari nazional terminoa erantsiko zaio aldioro.

Deskubrimendu erromantikoan oinarritutako bertsolaritzaren inguruko proiektua Lore-Jokoetan abiaraziko da, eta Euzko Pizkundekoa ez da honen garapena baino. Alde batetik, diskurtso mailan, irudikapen esentzializatu hori zabalduko da, eta bestetik, praktikan, bertsolaritza, sorkuntza nazional gisa, ikuskizun modernoaren mailara eraman nahiko da: lehiaketaren egoitza plazatik frontoi irekira aldatuko da Iparraldeko Lore Jokoetan, frontoi irekitik antzokira Hegoaldekoetan eta are antzoki handiagora Bertsolari-Guduetan.

Frankismo Garaian Erregimenak toleratuko duen euskal kultur adierazpen bakanetakoa izango da bertsolaritza, eta bere ahozkotatunagatik, berez desagertuko den landa eremuko

azken 'basati onen' libertimendu aurremoderno gisa, toleratuko du. Garaiko eragileek gerrak eta gerraondokoak etendakoa berrabiaraztea dute xede, eta txapelketak berriro martxan jartzeaz haratago, irudikapen esentzializatuari eutsiko zaio, honek izan dezakeen dimentsio politikoa leunduz: antzoki handitik frontoi itxi handiagora aldatuko dute lehiaketaren egoitza.

5.3 Oinarri nagusietako bat kultura mediatua izango duen globalizazioak Beranduko Modernitate bat ekarriko du, eta prozesu honek erantzun berriak eragingo ditu, tartean ulerkera hegemonikoari kontrajartzen zaizkion komunitate subalternoen autonomia beharraren inguruan eratutako gizarte mugimenduak.

Euskal Kulturgintzan Bigarren Pizkunde bat emango da Gizarte Mugimendu Berrien ildoan txertatuko dena eta euskal nortasunaren irudikapen esentzializatuarekin hautsiaz Lehen Pizkundeak modernitatearen inguruan dituen korapiloak askatzera datorrena. Bertso-munduak azken zikloan izandako bilakaeran funtsezkoa suertatuko da ekarpen hau: euskal kulturgintzak gizarte mugimendu gisa garatutako eraketak bertsolaritzaren autoeraketarako eredu bat eskainiko du, ikastolen mugimenduak bertso-eskolarako bidea seinatu du eta esentzializazioaren hausturak bertsolaritzaren irudikapen berri bat ahalbidetu.

1950eko hamarraldiaren bukaeratik aurrera, diktadurapean bizi den egoeraren larriaren aurrean eta erbestetik jeltzaleek egiten zuten lanaren fruituak nahikoa ez direlakoan, belaunaldi berri batek abertzaletasunaren inguruko bestelako planteamendua garatzen du. Arrazari, berezkoari, lotzen zitzaion naziotasun esentzializatuaren orde, borondatez eraiki zitekeen naziotasuna, ikasten duen edonork eskura dezakeen hizkuntzaren ingurukoa, aldarrikatuko du adar honek. Gizarte industrialaren ukazioak ezertara ez daramalakoan euskaltasunaren inguruko diskurtsoa, iruditeria eta proiektua errealtate horretara egokitze apustu garbiago bat ere egingo da, eta Euskal Herrian immigrazioak harturiko dimentsioa tarteko, honen integrazioarako bide gisa klase borroka hartuko da funtsezko oinarri gisa.

Bigarren Euskal Pizkunde bat ekarriko du bulkada honek, kulturaren ulerkera dinamiko batetik iraganari aldakaitz eusten tematu beharrean indarrak etorkizunari begirako garapenean jarriko dituen. Azken hamarkadetakoko kulturaren ulerkera kontserbadorea folklorekeriaren bide itsuan galdu delakoan, jendarte modernoarentzat funtzionaltasun bat izango duten erabilerak eman nahiko zaizkio tradizioetik datorrenari, tradizioa atzerritik datozen joera berriekin nahastu eta abangoardia izan daitekeela erakutsi.

Smithen arabera (1997) euskal nazionalismo berri hau 1960ko hamarraldian Europako estaturik gabeko nazioetan ematen den olatu orokorraren baitan kokatzen da. Jarraitutasun bat du XIX. mende amaieran nazio berek izan zuten lehen olatuarekin, baina Europako kolonietan XX. mendearan lehen erdian eman zen bigarren olatutik diskurtso antikolonialista aurrerakoia barneratu duenez, belaunaldi arteko borroka kulturala ere badakar: lehen olatua kontserbadorea da funtsean, tradizioaren zaindaria gisa altxa zen, eta olatu berriak tradizio hori mundu ikuskera irekiago batera egokituko duen transformazioa bilatzen du.

1960ko hamarraldian baita Gizarte Mugimendu Berriak deiturikoak jarriko dira martxan. Mugimendu hauek subalternoaren autonomia irabaztera bideraturiko aldarrikapenak egingo dituzte: feminismoa, ekologismoa, antimilitarismoa, LGTBI kolektiboen eskubideak... Meluccik (2001) hauen baitan txertatzen du nazionalismoaren hirugarren olatuak ekarri zituen kultur pizkundeetako eragileen lana. Eta Larrinagak (2007) ildo horri jarraitzen dio Bigarren Euskal Pizkundeko eragiletza gizarte mugimendu kulturagile gisa definitzerakoan.

Bertso-munduak 1980ko hamarraldian hartutako autoeraketarako bidea Bigarren Pizkundean euskal kulturgintzak irekitako bera da. Elkartearen sorreran funtsezkoak izandako zenbait eragile, Koldo Tapia, esaterako, Pizkundeko olatuan zaildutakoak ziren, eta Elkartearen sorrerarako bertso-munduaren alderdi aktiboena iturri horretatik edandakoa. Zentzu honetan Zubiri (2016) izan da bertso-munduaren jarduera Gizarte Mugimendu Berrien teoriarekin erkatu eta hainbat lotura egin dituena: bere hitzetan eragiletzak azken zikloan hartu duen forma gizarte mugimendu batena da antolaketa, planteamenduari, komunikazio estrategiari eta beste hainbat alderdiri dagokionean.

Bertso-eskolen sorrera ere, aipatu den gisan, Pizkunde honetako ikastolen mugimenduaren abaroen emango da. Eta bertso-eskolak bertsolaritzaren irudikapen esentzializatuaren haustura suposatuko du. Irudikapen klasikoaren arabera bertsolariak ekosistema aurremodernoa, berez, modu natural batean sortua behar du, eta profil jakin batekoa izan ohi da, txapela buruan darabilena: baserri ingurukoa, gizonezkoa eta eskola gutxikoa (datu bakarria ematearren: hemerografia historikotik bertsolaritzaren inguruan bildu ahal izan diren 4.159 testuetatik %0,6ak bakarrik egiten dio erreferentziaren bat bertsolari emakumeari). Bertso-eskolatik sortutako bertsolariak, ordea, bertsoan ikasi nahi duen edonorengana irekiko du profila: baserritarra edo kaletarra izan daiteke, gizonezkoa edo emakumea, eskola gutxikoa edo askokoa, euskaldun petoa edo euskaldunberria eta abar.

Amurizak zabalduko duen bertso-gintzaren barrurako begiradatik geroz eta gehiago sakonduko da bertsolaritzaren prestakuntzan, Elkartek alorraren antolakuntzarako lehenetsi duen barruko begiradak ere geroz eta sofistikuagoa suertatu den autoanalisia ekarri du, eta bertso-eskolek irekitako irudikapen-ulerkera berria (*framing* deitzen dio Zubirik gizarte mugimenduen inguruko teorien jergan) beste edozein alorretako sortzaileak izan dezakeenaren maila berean jarri da: beste alorretako sortzaileekin kezka eta proiektuak partekatzen ditu bertsolariak, hibridazioa eta esperimentazioa normalizatu egin ditu, eta euskal kulturgintzaren inguruko ekarpenak jarri izan ditu mahai gainean.

5.4 Bertso-mundua Beranduko Modernitateak planteatu dion erronka nagusiari erantzuten asmatu du: lehiakortasun bat lortu du masa kulturaren eremuan eta honek prestigio berri bat eman dio. Bere adierazpen tradizionalenei eta berezko ezaugarriei zor dien arretarekiko oreka bat mantenduaz egin du gainera.

Masa kultura ez da hedabideek kontsumo masibora bideratutako kultura popularra baino. Thompsonek (1998) azaltzen duen bezala, kultura popularraren ‘deserrotze’ eta ‘bersustraitze’ prozesuak ematen dira hedabideratze honekin. Deserrotzeak ahozko kultura popularrean funtsezkoa suertatzen den aurrez-aurreko elkarreraginaren hausturari egiten dio erreferentzia: bestelako bizipen bat eskaintzen dute hedabideek, denboran eta espazioan bere testuingurutik askatua. Berebat, askatasun berri horrek hartzaile gehiagorengana iritsi eta tradizioa biziberritzeko aukera ere irekitzen du, eta aukera horri deritzo bersustraitzea.

Beranduko Modernitateak bertsolaritzari, kultura popular orori bezala, ezarri dion erronka nagusietako bat bersustraitze horrekin asmatu beharrena litzateke, masa kulturaren eremuan lehiakor izatearena. Azken zikloan ahalegin handia egin du bertso-munduak bide horretan, bereziki telebistaren bidez eta ekintza ikustarazle nagusi gisa Txapelketa Nagusia erabiliz (*action exemplaire* deitzen dio Zubirik gizarte mugimenduen inguruko teorien jergan).

Europar, telebistaren lehen hamarkadetako garapena kate publiko estatalen eskutik emango denez, estatuak kultura nazionaltzat hartzen duena izango da tokian-tokiko masa kultura, eta honi merkatu handiagoei zuzendutako eskaintza globala gehituko zaio, enpresa pribatu

multinazionalen eskutik garatua. Euskarazko kulturari telebista autonomikoaren plazan sortuko zaio eremu horretan globala eta estatalaren ondoan bide bat egiten hasteko aukera, eta, Amezagak (1994) nahiz Gabilondok (1999 eta 2016) seinalatzen duten bezala, bertsolaritza izan da aukera hori baliatzeko gaitasuna erakutsi duen alor bakantetako bat.

Telebistako audientzia datuek, txapelketako saioetan izandako zaletu kopuruek eta beste hainbat aldagaik erakusten dute bertsolaritzak ziklo honetan irabazitako oihartzun sozialaren dimentsioa. Burutu den azterketa kuantitatiboan, esaterako, egunkarien azalaren bilakaerak, egunkariak gertakari garrantzitsuenentzat gordetzen duen espazioak, eskaintzen du zantzu esanguratsu bat: 1980an sei azaletan agertuko da gaia; 2009an, aldiz, 30 azaletan. Eta beste behin, egoitza aldaketak ere esanguratsuak suertatzen dira: frontoitik belodromora aldatzen da lehenengo, frontoi handiena baino handiagoa, eta hemendik Barakaldo Exhibition Centerrena, masa kulturako ekitaldiak egiteko inguruan topa daitekeen azpiegitura handi eta modernoenera.

Azkenik, aipatu beharra dago bersustraitzean egin den ahalegina bezainbestekoa izan dela erroak ez galtzeari jarri zaion kontua. 1990eko hamarraldian masa kulturaren urratutako bideak bertsolaritzaren adierazpen tradizionalenak edo funtsezko ezaugarri batzuk arriskuan jar ote zitzakeen ere piztu zen alarma, eta hemen ere oreka zaindu nahi izan da, bateragarritasuna eta osagarritasuna bilatuz.

SEI- Foley (2007) harrিতuta utzi zuen bertsolaritzaren garapen singularrak euskal kulturaren bilakaera singularrean du bere azalpenaren abiapuntua. Euskararen komunitateari, bere ertzekotasuna dela eta, inguruko erdareei baino askoz nekezagoa suertatu izan zaio tradizio idatzi bat garatzea, eta lehen euskal kulturagileek, idatziak ez zuela funtzionatzen ikusirik, arreta berezia jarri zioten ahozkoari.

Foley berak aipatzen duen bezala, bertsolaritzak ikur identitario gisa bete duen funtzioa ere garrantzitsua izan da bere sustapenean, eta zenbaitetan instrumentalizazio bat ere ikus daiteke, bertsoak ideologia politikoen eroale gisa duen eraginkortasuna baliatu nahian jarri baitzaio fokoa bertsolariari.

Edozein kasutan bilakaeraren singularitatea azaltzeko elementurik garrantzitsuena ez da abiapuntuan aurki daitekeen gabezia edota bertsolaritzak ikur gisa piztu ahal izan duen interesa, eragileek belaunaldiz belaunaldi egindako lan harrigarria baizik.

6.1 Lore Jokoen zikloan eta Euzko Pizkundean kulturagileek idatziaren gabeziatik ahozkoaren eragiletzara egindako bidea argi samar ikus daiteke garaiko prentsako testuetan. Bestalde, Bigarren Pizkundean ere ahozkoak garrantzia zentral bat izan zuela azaltzen du Gandarak (2015), eta aldi honetan idatziak lehen aldiz arrakasta garrantzitsu izan bazuen ahozkoari hurbildu zitzaizolako izan zela Gabilondok (2009).

1930etik 1936ra prentsan argitaratu zituen Aitzolek euskal kultura biziberritzeko garatu zuen proiektuaren nondik norako guztiak. Lehen apustua poesia idatziaren aldekoa izango da, eredutzat Europako estaturik gabeko beste zenbait nazioetan buruturiko lana hartuz. 1930etik aurrera urtero antolatuko du Euskal Olerti Eguna eta Mistralen Mireio moduko poema nazional bat egitera animatuko ditu olerkariak. Hauen lanek oso irakurle gutxi lortu zituzten, ordea, normala euskaraz alfabetatu gabea zen jendarte batean, eta herri xehearekin konektatzeko poesia modernista utzi eta bertsoaren molde tradizionaletatik aritu beharra aldarrikatzen hasiko da 1933an. Lizardi eta Lauaxetaren gai honen inguruan izandako eztabaida ere irakur daiteke prentsan, eta baita nola 1934tik aurrera bere estrategia aldatu eta

1935 nahiz 1936ko Bertsolari-Guduak ekarriko dituzten bertsolaritzaren sustapenari ekiten dion.

Lore Jokoetako zikloan prozesua hainbesteko xehetasunarekin jarraitu ahal izateko moduko arrastorik ez dago, baina Campion edo Manterolaren testuetan bai aipatzen dira euskararen komunitatearen ertzekotasunak eragindako tradizio idatziaren gabezia, eta errealitate beraren infrentzu gisa ahozkoak mantendu duen ezohiko indarra, euskal kulturaren garpenerako honen sustapenari heldu beharra ondorioztatuz.

Euskal kulturgintza modernoa abiarazten denean, bada, halabeharrez, kulturaren sustapena herriaren baitan egin behar delako eta herriak ulertzen duena ahozkoa delako, helduko zaio bertsolaritzaren modernizazioari. Eta idatziarekin egiten diren lehen ahaleginetan ere, Lore Jokoetako poesia lehiaketan edota Aitzolek olerkarietara proposatzen dien bidean, ahozkoa, bertsoaren moldeetara, gerturatu beharra ikusiko da, funtzionatuko badute.

Bigarren Pizkundean lortuko da euskarazko alfabetatze prozesu orokorra martxan jartzea, prozesu honetarako funtsezkoa suertatzen den hizkuntzaren eredu estandarra ere orduan estreinatuko da, eta hauek izango dira tradizio idatzi baten benetako garapena eta zabalkundea ekarriko duten oinarriak. Kontutan hartzeko moduko irakurlego bat izango duen literatura idatzia ere orduan hasiko da bide bat egiten, Gabriel Arestirekin, eta ahozkotasunera nahiz bertsolaritzara asko gerturatu den idazle bat izango da Aresti. Berebat, Pizkundean lehen mailako protagonismoa izango duen euskal kantagintza berriak ere arreta berezia jarriko dio ahozko ondare kultural tradizionalari.

6.2 Ikur identitario gisa ere funtzionatu izan du bertsolaritzak, eta horrek ere garrantzia soziala, presentzia mediatikoa eta kulturgileen arreta berezia eman dizkio. Bestalde, agerikoa da Euzko Pizkundean eragileek jarri zioten arreta ideologia politikoen bozgorailu gisa duen eraginkortasunari ere zor zitzaioela. Lore Jokoetan ere ematen da fenomeno hau, baina zerbait samurragoa dela dirudi, edota trantsizioko bertsolaritza sozialaren kasuan eragileengandik bezainbeste bertsolariengandik sortu dela ematen du.

Eusko Pizkundeko kultur eragileek, Aitzolek, Lauxetak eta Zubimendik, esaterako, disimulu handirik gabe aipatzen dute prentsan bertsolariek herritarrengan duten itzala eta itzal hori mezu abertzalea zabaltzeko baliatu beharra. Gerra Karlistetan ere propagandarako bide garrantzitsua izan zen bertsoa bai karlistentzat eta baita liberalentzat ere, eta Aitzolek espreski aipatzen du kapitulu hau. Txapelketetan jartzen zaizkien gaietan ikus daiteke instrumentalizazio hau, baina baita bertsolariek jeltzaleen hauteskunde kanpainetan izan zuten presentzia ikusgarrian ere.

Aipatu beharra dago, ordea, instrumentalizazio gordin samar hori ez dela bertsolaritzaren eremuan bakarrik emango. Kulturgintza osoa kontzientzia nazionala eragiteko bitarteko gisa ikusten da garai honetan, eta, esaterako, olerkigintza ere horretara bideratu nahi da nabarmen.

Lore Jokoetan bertsolaritzari ematen zaion ikur nazional izaera prentsako hainbat testutan ikus daiteke, eragileek bertsoa ideologia jakin baten zerbitzura jarri nahi dutela ez dute literalki esaten, ordea. Lehiaketan jarritako gai batzuetan ikus daitezke instrumentalizazioaren zantzu batzuk, Abbadie bere Lore Jokoetan Iparraldeko xurien iruditeriarekin lotutako zenbait gairekin tematzen denean, adibidez.

Bertsolaritza sozialak militantziaz bizi du bere egitekoa. Deigarria suertatzen da zentzu honetan Lopategik Amurizak egiten dion elkarrizketan eredu gisa Kepa Enbeita jartzea,

aurreko zikloan jeltzaleek izan zuten bertsolari militanteena (Basarrik ere horrela jarri zuen bere lehen elkarrizketan). Militantzia honetatik garaiko kulturgintzako hainbat sektoreren eta zalego berri baten konplizitaeta sortuko da, bertsolaritzaren bilakaeran funtsezkoa izango dena, baina bertso-munduaren eragiletzaren lidergoa zeramatenek (Euskaltzaindia, Basarri, Zavala eta abar) deserosotasuna ageri dute bulkada hori instrumentalizatzeko asmoa baino.

Azken zikloan, bere irudikapen esentzializatua haustearekin, ikur bezala eman izan zaion garrantzia zerbait lausotu egingo da: sorkuntzaren beraren balioari arreta gehiago jarri zaio ikur bezala izan dezakeen funtzioari baino. Honela, adibidez, Frankismoan munduan bakarra zela aldarrikatzen zen bitartean, ikur bereizgarri gisa, eta azken zikloan gisako fenomenoak izan ditzaketen inprobisatzaileekin nazioarteko harremanak abiaraziko dira, bereizgarritasunaren kontuak atzean utzita. Bestalde, abertzaletasunaren barne arrakala dela eta, eragiletzan Elkarateak posizionamendu politikoak saihestuko ditu bere autonomia gordetzearren, eta Garziak (2000b) distantziamendua aipatzen du garaiko bertsogintzaren ezaugarri nagusien artean.

Edozein kasutan bertsolariak ikur gisa indarra izaten jarraituko du, nagusiki, euskararen munduaren bizi-indarra eta erakargarritasunari lotua, eta bertsolariek, hainbatek bertsolari militantearen tradizioari jarraipena emanaz, bertso politikoak egiten jarraituko dute, noski.

6.3 Belaunaldi ezberdinek, kulturaren ulerkerak eta ideologia ezberdinetatik eta batere lagundu ez duten testuinguru anitzetara egokituz, hegemonikoak ziren korrante guztien aurka buruturiko lana da bertsolaritzaren bilakaera singularrari eman ahal zaion azalpenaren funtsa.

Diskurtso hegemonikoak iraganeko kontutzat hartu izan ditu bai ahozko kultura eta bai euskal kultura. Eragileek, euskal kulturaren ertzekotasuna dela medio, baliabide urriekin burutu behar izan dute euren sustapen lana, eta gehienetan kontrako testuinguruak tokatu zaizkie, tarteka baita euskararen jazarpenean tematu diren diktadurak ere.

Aurrera egiten asmatu dute, ordea: Esku artean daukatena baloratzen jakin dute, diskurtso hegemonikoa esaten zuenaren kontra; inguruan inork probatu gabeko formulak asmatu dituzte esku artean zuten hori garatzeko; testuinguruak edota norbere akatsek eragindako korapiloak askatzeko gai izan dira; eta desagertzeraino ertzeratu den euskal kultur ekosistema aurremodernoan garrantzitsua zen elementu bat euskal kultur ekosistema modernoarentzako elementu garrantzitsu gisa salbatzea lortu dute.

Izen abizenak dituzten eragile mordo baten ekarpenari esker lortu da hau guztia. Bakoitzaren lan eskuzabal eta jarraitua, zenbait testuinguru zabalagoetatik ideia berritzaile garrantzitsuak ekartzeko edota ideia berriak planteatzeko erakutsi duen ezagutza eta gaitasun sortzailea, hainbatek testuinguru latzeneri aurre egiteko topatu behar izan duen ausardia, euren artean sareak osatzeko erakutsi duten abilezia... guztiak izan dira funtsezkoak bertsolaritzak bizi izan duen bilakaeran. Eta izen-abizenez haratago, belaunaldiz-belaunaldi eta ideologia nahiz mundu-ikuskerak ezberdinek eragindako etenak gaindituz, proiektu konplikatu bati jarraitasuna eman dion bizi-nahi harrigarri bat ere ikusi ahal izan da.

Bertsolaritzaren bilakaera singularraren historia, esan bezala, gabezia batetik abiatzen da, baina askoz gehiago du aberastasunetik gabeziatik baino. Izatez, subalternoaren bizi-indarraren testigantza eder bat ematen du.

Testigantza hori, besteak beste, hemerografia historikoko orrialde horituetan gelditu da jasota. Baita irratiko nahiz telebistako artxiboetan edota Interneten ere.

10. BIBLIOGRAFIA

- ABRIL, J. (2000): Bertsolariak marrazki bizietan. *Bertsolari*, 38. zbkia., 104-112 or.
- AGIRRE, A.; AIESTARAN, A. eta ZABALONDO, B. (2015): Euskal Herriko eta Europako kazetari eta prentsa irakurleak lanbidearen geroari begira. Adostasun eta desadostasunen bilduma. *Zer*, 20. liburukia, 39. zbkia., 101-125 or.
- AGIRRE, A. (2016): Harpideen argazkia eta iritzia 2.0. *Bertsolari*, 101. zbkia., 124-151 or.
- (2013a): Hibridazioak eta esperimentuak, bertsolaritza kultur laborategi bezala. *Bertsolari*, 89. zbkia., 46-170 or.
- (2013b): Kantaturikoen oihartzunari forma ematen. *Bertsolari*, 92. zbkia., 154-181 or.
- (2009a): Bertsolaritza Interneten. UPV/EHUko ‘Nuevas tendencias en medios y soportes de la información periodística’ doktorego programako ikerketa gaitasun froga (Argitaratu gabea).
- (2007): Bertsotan gabiltza sarean. *Bertsolari*, 65. zbkia., 36-93 or.
- (1997): Antonio Zavala: ‘Umorean nagusi Txirrita jarriko nuke’. *Bertsolari*, 26. zbkia., 59-62 or.
- (1996): Harpidedunen iritziz. *Bertsolari*, 23. zbkia., 50-57 or.
- AGIRRE, J. (2016): *Bertsolariren hastapenak, mirari txiki bat. Bertsolari*, 101. zbkia., 14-31 or.
- (2009b): Elkarre baten familia-argazkia. *Bertsolari*, 73 zbkia., 148-200 or.
- (1997): Jorge Oteiza, azken profeta. *Bertsolari*, 25 zbkia, 2-11 or.
- AGIRRE, T. (1966): Garoa. Iturria: Garoa, Txomin Agirre. EFA, 1966. Klasikoen Gordailua. Helbide honetatik berreskuratua: <https://klasikoak.armiarma.eus/pdf/AgirreDGaroa.pdf> [2018/V/22]
- AGIRREAZALDEGI, A. (2018a): Beñat Gaztelumendi Arandia: “Bertsolaritzarentzat arrotzak ziren guneetako ikuspegiak txertatu dira plazan”. *Bertsolari*, 112 zbkia., 50-76 or.
- (2018b): Xabier Aierdi Urraza: ‘Bertsolaritza tradizio modernoa da’. *Bertsolari*, 112. zbkia., 78-115 or.
- (2016): Zer jan, hura izan: bertsozaleak elikatzen dituen aldizkaria. *Bertsolari*, 101. zbkia., 114-115 or.
- AGIRREAZKUENAGA, I. (2017): Euskarazko irrati kazetarien hitza eta hotsa garai zailetan: 1956-1976. Arte (Nafarroa): Pamiela.
- (2012): The role of the media in empowering minority identities: Basque-language radio during the Franco dictatorship (1960s -1976) and their influence as identity catalysts. *Media, Culture and Society*. 34. liburukia, Issue 4. DOI: 10.1177/0163443711435887.
- AGIRREAZKUENAGA, J. (1989): Prentsa euskaraz: 1936ko Gudualdian eta Lehen Euskal Gobernuaren garaian. *Jakin*, 50. zbkia, 97-119 or.

- AGIRREBALZATEGI, P. (1999): Euskararen aldeko gizarte-mugimenduaren 25 urteok, EKBren ekarpena. *BAT, Soziolinguistika aldizkaria*, 31. zbkia., 17-30 or.
- (1995): Euskararen aldeko mugimendu soziala (1995). *BAT, Soziolinguistika aldizkaria*, 16. zbkia., 17-30 or.
- AGOTE, I. (1995): Euskararen aldeko mugimendu soziala. *BAT, Soziolinguistika aldizkaria*, 16. zbkia., 83-88 or.
- AIERDI, X.; ALDAZ, J. ET AL (2007a): Bertsolaritza tradizio modernoa. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- (2007b): Bertsozaletasunaren azterketa soziologikoa. EHBE, Donostia
- AIZPURU, M. (2009): ‘Zapalkuntza-politika gerran eta gerraren ondoren. Errepresioa, heriotza eta bortxakeria bi aldeetan’. Non: ERRAZKIN, M. ETA AGIRRE, J. (Arg.) *1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria*, I. Historia, 49-67 or. Bilbo: UEU.
- (2001): La pluralidad de vías en la reformulación de la identidad vasca en el siglo XX. *Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 15. zbkia., 11-44 or.
- (2000): Vascófilos y bertsolaris, coformadores del nacionalismo vasco en el último tercio del siglo XIX. *Geronimo de Uztariz*, 16. zbkia., 59-72 or.
- AJANGIZ, R. ETA BARCENA, I. (2001): Euskal Herriko Gizarte Mugimenduak. Giza Eskubideei Buruzko Deustuko Koadernoak, 14. zbkia.. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- ALBERDI, U. (2013): Barrura begiratzeko bertsoak. *Bertsolari*, 90. zbkia, 34-83 or.
- ALBIZTUR, J. (2012): Xenpelar Bertso Eskolaren 25. Urteurrena (1987-2012). Oarso, 47. zbkia., 98-103 or.
- ALDAMIZ-ETXEBERRIA, E. (1982): Gaztelaniazko prentsa Euskal Herrian. *Jakin*, 22. zbkia., 44-55 or.
- ALDEKOA, I. (2008): Ilustrazioa eta euskal literatura. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo: International journal of basque linguistics and philology*, XLVIII liburukia, 2. zbkia., 211-235 or.
- (1989): XIX-XX. mendeetako euskal poesigintza: Tradizioa eta eraberriketa. *Jakin*, 52. zbkia., 5-23 or.
- ALTZIBAR, X. (2005): Lauaxeta eta *Euzkadi* egunkariaren euskal atala. *Euskera*, 50. Liburukia, 2. zbkia, 559-626 or.
- (1996): Aitzolen kazetaritza. *Euskara*, 41. Zbkia, 467-497 or.
- (1990): Peru Abarca-ren kopiak eta lehen edizioa. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo: International journal of basque linguistics and philology*, XIV liburukia, 3. zbkia., 871-888 or.
- AMEZAGA, E. (1993): Segunda entresaca de un diccionario de seudonimos. *RIEV*, XXXVIII. liburukia, 2. zbkia, 209-218 or.
- (1991): Entresaca de un diccionario de seudonimos. *RIEV*, XXXVI. liburukia, 2. zbkia, 413-426 or.
- AMEZAGA, J. (2009): Talde nortasunak eta komunikabideak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 72. zbkia., 41-50 or.
- (1994): Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak. Bilbo: UPV/EHU.
- AMURIZA, X. (2006): Bizkaiko Bertsogintza IV. XX. mendea. Bilbo: Bizkaiko Bertsozale Elkarte.
- (1997): Hiztegi errimatua/Hitzaren kirol nazionala. Bilbo: Bizkaiko Bertsozale Elkarte.
- (1993): Alfontso Irigoien, gerrosteko txapelketen eragilea. Non: EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI ELKARTEA (Arg.): *Aita Santi Onaindia eta Alfontso Irigoien bertsogintzaren lekuko*, 73-84 or. Bilbo: BBK.
- (1987): *Bertsolarien gerraondotik gaurdainokoa*. Nazioarteko Eusko Ikaskuntza, 25-43 or.

- (1985) Bertsolaritza. Non INTXAUSTI, J. (Arg.) *Euskal Herria, I: I. Historia eta gizartea*, 469-472 or. Oñati-Arrasate: Jakin-Lankide Aurrezki Kutxa.
- (1981): Iparragirre bertsolari. *Jakin*, 19-20. zbkia., 149-158 or.
- (1980): Bertsolarien barne prozesua. *Jakin*, 14-15. zbkia., 134-137 or.
- ANABITARTE, M. ETA LEMA, J. A. (1986): ‘La Voz de España’ (1936-1945). *Jakin*, 40. zbkia., 75-98 or.
- ANDERSON, B. (1993): Comunidades imaginadas. Mexiko Hiria: Fondo de Cultura Económica.
- ANSA, J. (2011): Bertsoera (k) eta sistema (k). *Bertsolari*, 82. zbkia., 146-155 or.
- APALATEGI, U. (2013): Pierre Loti psicoanalista de Bernardo Atxaga: la reescritura liberadora de Ramuntcho. Non: THION D. (Arg.) *El costumbrismo, nuevas luces*, 601-621 or. Pau: Presses de l’Université de Pau et des Pays de l’Adour.
- APODAKA, E (2005): Kulturgintza: gizarte-ideologietatik kontsumora. *Euskonews & Media*, 298. zbkia.. Helbide honetatik berreskuratua:
<http://euskonews.com/0298zbk/gaia29802eu.html> [2016/IX/16]
- (2003): Euskal kulturgintzaren izaeraz eta zereginaz. *Uztaro*, 44 zbkia., 19-52 or.
- ARANA, J.A. (1999): Gernikako arbola. Non: MENDIBIL, G. (Arg.) *José María Iparragirre : erro-urratsak = raiz y viento*, II. liburukia, 105-116 or. Igorre: Keinu
- (1983a): Iparragirre, cantor de Euskal Herria. Non: *Iparragirre*, Euskaltzaindia, Jagon 2, 99-107 or. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (1983b): ‘Iparragirre y el folklore vasco’, *Eusko Ikaskuntza, Cuadernos de Sección, Folklore*, 1. zbkia., 121-128 or.
- ARANBARRI, I. (2014): Oholtzak ez du bihotzik. *Bertsolari*, 94. zbkia., 234-238 or.
- ARANBERRI, L. A. (1982): Prentsa idatziaren arazoak. *Jakin*, 22. zbkia., 70-82 or.
- ARANBURU, P.J.; BIDEKAIN, M.; IDIAKEZ, A.; REZOLA, I. (1993): Juan Inazio Iztueta Etxeberria (1767-1845). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- ARANBURU, O. eta MARISKAL, A. (1999): Xenpelar Dokumentazio Zentroa. *Euskonews & Media*, 56. zbkia. Helbide honetatik berreskuratua:
<http://www.euskonews.eus/zbk/56/xenpelar-dokumentazio-zentrua/ar-0056001008E/>
[2019/V/14]
- ARANBURU, X. (1977): Euskara erdal egunkarietan. *Euskera*, XXII. liburukia, 65-68 or.
- ARAOLAZA, O. (2011): Txapelketen kontra. *Bertsolari*, 82. zbkia., 130-137 or.
- ARMAÑANZAS, E. ETA DÍAZ NOCI, J. (1996): Géneros de opinión. Bilbo: EHU.
- ARISTORENA, P.J. (1992): Nafarroako bertsolaritza. Iruñea: Nafarroako gobernua.
- AROSTEGUI, J. (2001): La investigación histórica: Teoría y método. Bartzelona: Crítica.
- ARIÑO, A. (1997): Sociología de la cultura. La constitución simbólica de la sociedad. Bartzelona: Ariel.
- ARISTI, P. (2010): ‘Bertsolari’ film berria. *Bertsolari*, 77 zbkia., 25-44 or.
- (1998): Almen, lehen bertso eskola. *Bertsolari*, 30. zbkia., 1-96 or.
- ARIZTIMUÑO, J. (1988a): Jose Ariztimuño ‘Aitzol’ Obras Completas, V. liburukia. Donostia: Erein.
- (1988b): Jose Ariztimuño ‘Aitzol’ Obras Completas, VI. liburukia. Donostia: Erein.
- (1936): Bertsolaria, nor degu?. Non: ZUBIMENDI, J.. *Bertsolari-guduak, 1935-1936*, VII-XIX or. Donostia: Euskaltzaleak.
- ARRIETA, A. (2001): Euskara Irudiberritzen. *Euskonews & Media*, 176. zbkia., 19-26 or. Helbide honetatik berreskuratua: <http://www.euskonews.com/0176zbk/gaia17601eu.html> [2016/IX/17]
- ARRUE, A. (2008): Idaztiak eta Hitzaldiak. Euskaltzainak bilduma, 8. zbkia. Bilbo: Euskaltzaindia.

- ARRUTI, A. (2015): Xenpelar Dokumentazio Zentroa, ondarearekin etengabeko inurri lanean. *Bertsolari*, 98. zbkia., 38-75 or.
- ARZA, M.L. (2012): 'El fuerismo victoriano: el caso de Vicente Arana'. *Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 35. zbkia, 85-108 or.
- ARZAMENDI, A. (1992): Diario de San Sebastián, análisis de la publicación y bibliografía selectiva de artículos. *RIEV*, XXXVII. liburukia, 2. zbkia., 509-527 or.
- ARZELUS, X. (2003): Ander Arzelus Luzear (1898-1949). Bidegileak, 31. karpeta. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- ASKOREN ARTEAN (1981): Euskal Batzar Orokorra / Congreso Mundial Vasco, 1956 Paris. 25 aniversario. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- ATXAGA, M. (2008): Lapiko guztietako burruntzalia. Non: UBEDA, J.A.; AROZENA, A. ETA LASA, X.. *Jose Mari Iriondo, euskal kulturaren komunikatzaile*, 36 or. Andoain: Andoaingo Udala.
- (1977): Komunikabideen beharra. *Eusker*a, XXII. liburukia, 53-58 or.
- AULESTIA, G. (1994): Marcel Jousse y Manuel Lekuona: Dos pioneros de la Literatura Oral. *RIEV*, XXXIX. liburukia, 1. zbkia, 27-40 or.
- (1990): Bertsolarismo. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- AZKUNE, L. (2000): Bertsolaritza uhinetan, 30 urtez bertsolariak irratian. *Bertsolari*, 38. zbkia., 66-93 or.
- AZURMENDI, J. (2017): Hizkuntza, Nazioa, Estatua. Donostia: Elkar
- (1980): Bertsolaritzaren estudiorako. *Jakin*, 14-15. Zbkia., 139-164 or.
- BACIGALUPE, C. (1995): Cafés parlantes de Bilbo I. Bilbo: Cafés Baque Editorial.
- BARAIAZARRA (1993): Euskal letren langile aspergaitza. Non: EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI ELKARTEA (Arg.): Aita Santi Onaindia eta Alfontso Irigoien bertsogintzaren lekuko, 13-20 or. Bilbo: BBK.
- BARANDIARAN, A. (2011): *Beste laurogei urtian*. EHBE: Donostia.
- BASTERRETxea, J.I. (1998): Ulertarazle kolektiboa: interpretazio-eredu mass-mediaticoa. *Uztaro*, 24. zbkia, 49-58 or.
- BASURTO, A. (2007): Euskararen aldeko diskurtsoa XXI. mende hasieran. HIZNET Graduondoko lana. Argitaratu gabea.
http://hiznet.asmoz.org/images/stories/ikerketa_lanak/asier_basurto.pdf [2016/IX/16]
- BIDART, P. (1998): Ethnographie et esthétique des traditions populaires basques dans les concours de poésie basque. Non: *Antoine d'Abbadie 1897-1997 : Congrès International : Ezohiko Kongresua, Hendaia-Sare, 1997, Euskaltzaindia-Eusko Ikaskuntza*, 263-288 or. Bilbo: Euskaltzaindia-Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- BILBAO, J. (2003): Exposición sobre la actual posición de las autoridades españolas respecto de la lengua vasca. Non: *VIIème Congres d'Etudes Basques = Eusko Ikaskuntzaren VII. Kongresua = VII Congreso de Estudios Vascos (7º.1948.Biarritz)*, 847-852 or.
- (1981): Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Euskal bibliografiaren hiztegia. I-X liburukiak. Auñamendi: Donostia.
- BLADÉ, F. (1866): 'Dissertation sur les chants heroiques des basques'. *Revue de Gascogne*, VIII. liburukia, 97-111 or. <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k5745676j?rk=257512;0> helbidetik berreskuratua. [2017/X/17]
- BORROW, J. (1921): La Biblia en España : o viajes, aventuras y prisiones de un inglés en su intento de difundir las Escrituras por la Península. Manuel Azañaren itzulpena eta edizioa (jatorrizkoa 1842). Madril: Jiménez-Fraud.
- BRIGGS, A.; BURKE, P. (2002): De Guttenberg a Internet. Una historia social de los medios de comunicación. Madril: Taurus historia-Santillana.

- BURGUIÈRE, A. (1991): Diccionario Akal de ciencias históricas. Madril: Akal.
- BURKE, P. (2010): Hibridismo cultural. Madril: Akal.
- (2006a): Lenguas y comunidades en la Europa moderna. Madril: Akal.
- (2006b): ¿Que es la historia cultural?. Bartzelona: Paidós Ibérica.
- (1991): La cultura popular en la Europa moderna. Madril: Alianza.
- (1985): Montaigne. Madril: Alianza.
- CABRERA, M. (2012): Estudios de la subalternidad, teoría poscolonial e historia cultural. Non: HERING, M. S. ETA PÉREZ A. C. (Arg.) *Historia Cultural desde Colombia: Categorías y Debates*, 335-345 or. Bogota: Universidad Nacional, Pontificia Universidad Javeriana. Helbide honetatik berreskuratua: <https://app.box.com/s/y5b9p8aqfarnr0114vbj> [2018/VII/27]
- CALVET, L. J. (2005): Lingüística y colonialismo. Buenos Aires: Fondo de cultura económica.
- (2001): Historia de la escritura. Barcelona: Paidós.
- CAMPION, A. (1878): La poesía popular vascongada y sus relaciones con la capacidad poética de la raza euskara. *Revista Euskara*, 1. liburukia, 54-63 or. Helbide honetatik berreskuratua: <http://hedatuz.euskomedia.org/8868/> [2017/X/22]
- CARCEDO, M. (1996): Juan José Makazaga Mendiburu/ Alma mater de la ‘Imprenta Macazaga’. *Oarso*, 31. zbkia., 178-179 or.
- CASENAVE, J. (2002): Etxahun-Barkoxe (1786 -1862) Du poète populaire au mythe littéraire. *Lapurdum*, 7. Zbkia., 185-199 or.
- CASTELLS, M. (2003): La era de la información II. El Poder de la identidad. Madril: Alianza.
- CEPEDA, G. (2006): La calidad en los métodos de investigación cualitativa: principios de aplicación práctica para estudios de casos. Cuadernos de Economía y Dirección de la Empresa (29), 57-82 or. Helbide honetatik berreskuratua: <http://www.redalyc.org/pdf/807/80702903.pdf> [2017/VI/03]
- CHAHO, A. (2010): Aïtor.-Légende cantabre/Aïtor.-Leyenda cantabra/Aïtor.-Kantabriar kondaira. Erevan: Asoghik.
- (2006): Agosti Chahoren kantutegia. Zarautz: Susa.
- (1865): Voyage en Navarre pendant l’insurrection des Basques (1830-1835). Bigarren edizioa. Bainoa: P. Léspe (Arg.). Helbide honetatik eskuratua: http://numelyo.bm-lyon.fr/f_view/BML:BML_00GOO0100137001100318224 [2017/IX/12]
- (1855): Biarritz, entre les Pyrénées et l’Océan : itinéraire pittoresque... II. liburukia. Baiona, Andreossy. Helbide honetatik berreskuratua: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k6516853f> [2017/IX/11]
- CHAUNU, P. (1987): Historia cuantitativa, historia serial. Mexiko Hiria.: Fondo de Cultura Económica.
- CRESWELL, J.; PLANO, V. (2007): Designing and conducting Mixed Methods Research. Thousand Oaks: Sage Publications, Inc.
- DARANATZ, J.B. (1928a): Correspondance du Capitaine Duvoisin. RIEV, XIX. liburukia, 1. zbkia., 58-70 or.
- (1928b): Correspondance du Capitaine Duvoisin. RIEV, XIX. liburukia, 2. zbkia., 334-368 or.
- (1928c): Correspondance du Capitaine Duvoisin. RIEV, XIX. liburukia, 4. zbkia., 449-492 or.
- DAVANT, J.L. (2012): Antoine D’ Abbadie-Abadiatz. Euskaltzainak Bilduma, 19. zbkia. Bilbo: Euskaltzaindia.

- DÁVILA, P.; EIZAGIRRE, A. ET FERNANDEZ, I. (1994): Los procesos de alfabetización y escolarización en Euskal Herria, 1860-1990. *Cuadernos de Sección. Educación. Eusko-Ikaskuntza*, VII. liburukia, 63-99 or.
- DÍAZ NOCI, J. ETA URQUIJO, M. (1998): La prensa vasca continental en la época de d'Abbadie. Non: Antoine d'Abbadie, 1897-1997: congrès international (Hendaia, 1997), 305-325 or. Donostia: Eusko Ikaskuntza; Bilbo: Euskaltzaindia.
- DÍAZ NOCI, J. (2012): Historia del periodismo vasco (1600-2010). *Mediateka* 13. zbkia., 1-261 or.
- (2001): 50eko hamarkadako euskal aldizkariak eta beren eragina. *Egan*, 2. garaia, 54. zbkia., 97-124 or.
- (2000): Informazio generoak. Bilbo: EHU.
- (1998): Liburuak, aldizkariak eta irakurleak XX. mendeko Euskal Herrian. Euskal testuak eta irakurketa ohiturak (1919-1936). *Vasconia*, 27 zbkia, 61-85 or.
- (1995a): Sociedad y medios comunicación en lengua vasca en el período de entreguerras (1919-1937). *Anales de historia contemporánea*, 11. zbkia., 263-278 or. Helbide honetatik berreskuratua: <http://revistas.um.es/analeshc/article/view/89601> [2017/VII/03]
- (1995b). Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939). Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- (1993): Hiria eta euskal kultura masa-komunikazioaren garaiaeren sorreran. *Cuadernos de Sección. Historia-Geografía*, 21. zbkia., 389-398 or.
- (1992): Euskara Irratian: Gerra aurreko lehenengo urratsak. *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, XXXVII. liburukia, 2. zbkia., 365-374 or.
- DEL RÍO M.J. (2010): Historia y teoría. Notas para un estudio de la obra de Peter Burke. In BURKE P. *Hibridismo cultural*, 5-57 or. Madril: Akal.
- DEL MORAL, J. (1999): Historia y ciencias humanas sobre metodología y didáctica. Madril: Huelga & Fierro.
- DORRONSORO, J. (1988): Bertsotan II. Donostia: Gipuzkoako Ikastolen Elkarte.
- (1981): Bertsotan (1789-1936). Donostia: Gipuzkoako Ikastolen Elkarte.
- DORRONSORO, J. ETA LEKUONA, J.M (1987): Bertsolaritza modernoaren bideak. *Jakin*, 44. zbkia., 7-34 or.
- EGAÑA, A. ETA SARASUA, J.: (1997): *Zozoak beleari*. Irun: Alberdania.
- EGAÑA, A. (2016): Ezetz baiez denean. *Bertsolari*, 101. zbkia, 32-33 or.
- (2011): Inertzia ideologikoak. Zenbateraino behartzen gaituzte? Nola apurtzen dira?. *Bertsolari*, 82 zbkia, 24-41 or.
- (2004): Hogeita bina. Donostia: Ariadna.
- (1995): Txapelketaz. *Bertsolari*, 18. zbkia., 2-9 or.
- (1993): Egungo bertsolaritzaren ezaugarriak. *Jakin* 75. zbkia., 17-31 or.
- EHBE (1993): Bertso berriak gerra-ostean jarriak. Donostia: Kutxa Fundazioa. Helbide honetatik berreskuratua: <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/liburutegia/view/3402-bertso-berriak-gerra-ostean-jarriak-bertsolari-eguna-94> [2019/I/21]
- EIZAGIRRE, E. (2014): Bidea urratu duten bertsoak. Lasarte-Oria: Argia eta Emakunde.
- EIZMENDI, I. (1984): Bertsolaritzari buruz. *Auspoa Liburutegia*, 178 zbkia.. Tolosa: Auspoa.
- ELKARLANEAN (1987): Bertsolaritzaz galdeketa. *Jakin*, 44 zbkia., 67-100 or.
- ELORTZA, I.; SUKIA, X. ET MURUA, J. (2008): Bertsolaritzaren hedapena eta sustapena XXI. mendean. Bertsolaritza hedabideetan: tratamendua eta kate-sarea. Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoa 2007-2008. Graduondo amaierako proiektua (Argitaratu gabea).
- ENBEITA, Z. (2000): Hitzetik Hortzera ikasturte amaieran. *Bertsolari*, 38. Zbkia., 94-103 or.

- ESNAL, P.; EGAÑA, A. ET SARASUA, S. (2002): Bertsolaritzaren ikerkuntzak geroari begira. Argitalpen Nagusia: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak. XV Congreso de Estudios Vascos, 807-815 or.
- ESNAL, P (2015): Antonio Zavala, zauria hauspo. Auspoa liburutegia 332. zbkia. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- (2008): Juan Mari Lekuona, bertsozale eta bertsolaritzaren eragile. In LETE, X., AULESTIA, G. ET AL (2008): Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927-2005), 81-94 or. Oiartzungo Udala-Euskaltzaindia.
- ESTEIBAR, E. ETA ITURRIOTZ, I. (2008): Bertsozale Elkartearen baloreen eta jardunaren transmisiorako komunikazio irizpideak. Kulturgintzaren Trasmisioa graduondokoa 2007-2008. Graduondoko amaierako proiektua (Argitaratu gabea).
- ESTORNES, I. (1997): Aurkezpen gisara. Non: URKIZU, P. (Arg). *Recueil de textes ethnographiques géodésiques Linguistiques littéraires*, 57-63 or. Donostia: Eusko Ikaskuntza; Bilbo: Euskaltzaindia.
- (1989): Génesis del Estatuto General del de Esta Vasco de Eusko-Ikaskuntza. Cuadernos de Sección, 4. zbkia.. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- ETXEBERRIA, F.; ARREGI, F. ET AUZMENDI, N. (2012): Ikastola, lan kolektiboa, andereñoen memorian. Non: *XVII Congreso de Estudios Vascos: Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza = Innovación para el progreso social sostenible*, 739-751 or. Donostia : Eusko Ikaskuntza.
- ETXEGOIEN, F (2004): *Neurona eta zeurona*. Iruñea; Pamiela.
- ETXEZARRETA, J. M. (1993): Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak. Auspoa, Sendoa.
- EUBA, A. (2016): *Basker*. 1960ko hamarkadako euskal kulturari buruzko suediar dokumentalak. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- EUSKALTZAINDIA (1977): El libro blanco de euskara. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKO JAURLARITZA (2006): 30. Euskal Soziometroa. Helbide honetatik berreskuratua: http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sociometro_vasco_30/es_soc30/adjuntos/06sv30.pdf [2019/VI/27]
- EZEIZA, M. (2002): Fernando Artola Bordari (1919-1983). Bidegileak, 26. karpeta. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- FAURIEL, C.C. (1836): Histoire de la Gaule méridionale sous la domination des conquerants germains. Paris: Paulin. Helbide honetan berreskuratua: <https://archive.org/details/historedelagau08faurgoog> [2017/X/17]
- FERNANDEZ, I. (1994): Oroimenaren hitza, ikastolen historia (1960-1975). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- FERNANDEZ, I. (2006a): Euskara nola saldu. *Erabili.com*. Helbide honetatik berreskuratua: http://www.erabili.com/zer_berri/muninetik/1138379396. [2016/IX/17]
- FERNÁNDEZ SEBASTIÁN, J. (1989): El Bascongado, primer periódico de Bilbao: 1813-1814. Bilbo: Bilboko Udala.
- FOLEY, J.M. (2007): Basque Oral Poetry Championship. *Oral tradition*, 22/2. zbkia., 3-11 or.
- FONTES, I. (2014): ‘1937: el crimen fue en Guernica/Análisis de una mentira’. Madril: Akal.
- GABILONDO, J. (2016): Before Babel: A history of Basque Literatures. AEB: Barbaroak.
- (2009): Euskal poesiaren historia postmoderno baterantz: ahozkotasunaz eta performantzeaz. *Egan: Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko Boletinarene Euskarazko Gehigarria*, 3-4. zbkia., 5-52 or.

- (2003): Euskal literatura modernoaren sorrera postkolonial eta gayaz Anton Abbadiaren ekarpena birpentsatuz. In Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko Jardunaldiak XXI. mendearen atarian (I-II), II liburukia, 81-88 or.
- (1999): Before Babel. Global Media, Ethnic Hybridity, and Enjoyment in Basque Culture. *RIEV*, XLIV. liburukia, 1. zbkia., 7-49 or.
- GAMSON, W.A. ETA WOLFSFELD, G. (1993): Movements and Media as Interacting Systems. *Annals of the American Academy of Political and Social Science*, 528. zbkia, 114-125 or. Helbide honetatik berreskuratua: <https://es.scribd.com/document/128150823/Gamson-Wolfsfeld-1993-Movements-and-Media-as-Interacting-Systems> [2017/VII/27]
- GANDARA, A. (2015): Euskal ondare kulturalaren moldatzea (1960-1990), egungo Kultur Sistemaren oinarri. Baliabide eta forma sinbolikoak. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- GARCIA ABAD, R.; PAREJA, A ET ZARRAGA, K. (2007): ¿Sabes leer?, ¿Sabes escribir?: El proceso de alfabetización en el País Vasco (1860-1930). *Revista de Demografía Histórica: Dossier “Una perspectiva demográfica y territorial de los niveles educativos en la península Ibérica (siglos XIX-XX)”*, 25. liburukia, 1. zbkia., 23-58 or.
- GARITAONAINDIA, K. (1990): Euskal prentsa 1936ko uztailaren 18aren aurretik. *Jakin*, 58. zbkia., 35-85 or.
- GARMENDIA, E. (2012): Euskara irratian, hedabide berri bat euskararentzat. Non: ORDOZGOITI, K., GARMENDIA, E. ET MUJICA, I.. *1932-2012. Euskara hegaz: Euskal irratia 80 urte*, 46-47 or. Koldo Mitxelena Kulturuneko liburu bilduma 10. zbkia.. Gipuzkoako Foru Aldundia: Donostia.
- (2009): Euskal kazetari modernoaren pausajea: ukapenetik izatera. Non: ARRIETA, M.; BASTERRETXEA, J. I. ET AL., *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- GARMENDIA, J. (1998): El folklorista Juan Ignacio de Iztueta en el mundo de la cultura vasco-francesa. Non: *Antoine d'Abbadie 1897-1997 : Congrès International : Ezohiko Kongresua, Hendaia-Sare, 1997, Euskaltzaindia-Eusko Ikaskuntza*, 423-429 or. Bilbo: Euskaltzaindia-Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- GARTZIA, P. (2011): Berrirakurketa historiko bat: Peru Abarka (1802). *Kondaira*, 11. zbkia., 47-51 or.
- GARZIA, J.R.; IDOYAGA, J.V. eta ZALLO, R. (1999): El espacio comunicativo y cultural en el País Vasco Non: ZALLO, R. (Arg.). *Propuestas para un nuevo escenario: Democracia cohesión social y cultura en Euskal Herria*. 389-517 or. Bilbo: Fundación Robles Arangiz.
- GARZIA, J. R., SARASUA, J. eta EGAÑA, A. (2001): Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak/El arte del bertsolarismo. Realidad y claves de la improvisación oral vasca/The art of bertsolaritza. Improvised basque verse singing/ L’art du bertsolarisme. Réalité et clés de l’improvisation orale basque. Andoain-Donostia: Bertsolari Liburuak-EHBE.
- GARZIA, J. R. (2016): Ez da alferrik mende laurden bat igaro. *Bertsolari*, 101. zbkia., 204-207 or.
- (2012): Bertsolaritza : euskarazko bat-bateko bertsogintzaren gaur egungo egoera, tradizioa eta etorkizuna = El bertsolarismo : realidad, tradición y futuro de la improvisación oral vasca = Bertsolaritza : the reality, tradition and future of basque oral improvisation. Etxepare Institutua.
- (2007): History of Improvised Bertsolaritza: A Proposal. *Oral Tradition*, 22/2. zbkia., 77-115 or.

- (2004): Amesten dudan ikerguna. Non: *Ahozko inprobisazioa munduan topaketak/Encuentro sobre la inprobisación oral en el mundo/Improvisationborale dans le monde/Oral improvisation in the world*, 307-315 or. EHBE: Donostia
- (2002): Bertsolaritzari buruzko ikerkuntzak orain arte: (ikuspegi berri baten arrasto zaharrak). Argitalpen Nagusia: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak. XV Congreso de Estudios Vascos. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 789-805 or. Helbide honetatik berreskuratua: <http://www.euskomedia.org/analitica/6161> [2016/IV/13]
- (2001): Antonio Zavalari elkarrizketa. *Jakin*, 126. zbkia., 73-94 or.
- (2000a): El bertsolarismo, del siglo XIX al XXI. Non: URKIZU, P. (zuzendaria), *Historia de la literatura vasca*, 402-480 or. Madril: UNED.
- (2000b): Gaur egungo bertsolarien baliapide poetiko erretorikoak. Marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa. Bilbo: EHU.
- (1998): Jon Sarasua: bertso-ispiluan barrena. Irun: Alberdania.
- (1997): Hitzaurrea. Zozo-beleen izen-izanak. Non: EGAÑA, A. eta SARASUA, J.. *Zozoak beleari*. Irun: Alberdania.
- (1995): Gaurko bertsolaritzaren baliabide poetikoak. *Bertsolari*, 19. zbkia., 46-52 or.
- (1993): Bertsolaritza hedabideetan. *Jakin*, 75. zbkia., 83-96 or.
- GAZTELUMENDI, B. (2009): 'Hitzetik Hortzera'k 20 urte. *Bertsolari*, 75. zbkia., 56-91 or.
- GIUGNI, M. G. (1998): Was it worth the effort? The Outcomes and Consequences of Social Movements. *Annual Review of Sociology*, 24. zbkia., 371-393 or. Helbide honetatik berreskuratua: https://www.researchgate.net/publication/288954968_The_Consequences_of_Social_Movements [2017/VII/25]
- GOMIS, L. (2008): Teoría de los géneros periodísticos. Bartzelona: UOC.
- GRAMSCI, A. (2000): Cuadernos de la cárcel, VI. liburukia. Mexiko Hiria: Ediciones Era.
- (1999). Cuadernos de la cárcel, V. liburukia. Mexiko Hiria: Ediciones Era.
- (1986): Cuadernos de la cárcel, IV. liburukia. Mexiko Hiria: Ediciones Era.
- GRANJA, J.J (1986): Julien Vinson, el euskera y una polémica del siglo XIX. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, XX. liburukia, 1. zbkia., 217-236 or.
- GONZALEZ GOROSARRI, M. (2009a): Gerrak mututu zuen prentsa. Non: ERRAZKIN, M ETA AGIRRE, J. (Arg.). *1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria*, V. Memoria historikoaren azterketarako metodologia aiposenak, 326-348 or. Bilbo: UEU.
- (2009b): Euskal Herriko prentsa: XVIII. Mendetik 1945era. Euskara Mintzagai bilduma, 3 zbkia. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Helbide honetatik berreskuratua: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/eu_mintzagai_euskal_prentsa/eu_eu_pren/adjuntos/EHprentsa.pdf [2018/XI/17]
- GUILLAMET I LLOVERAS, J. (2000): La formació de la periodicitat durant els segles XVII i XVIII, a través de la premsa de Barcelona. *Treballs de comunicació*, 13-14 zbkia., 113-136 or.
- GUTIERREZ, J. M. (2008): Juanjo Franco: Corazón y cabeza. Recuerdos de un amigo. *Euskonews & Media*, 448. zbkia. Helbide honetatik berreskuratua: <http://www.euskonews.eus/zbk/448/juanjo-franco-corazon-y-cabeza-recuerdos-de-un-amigo/ar-0448001004C/> [2019/VI/15]
- (2005): Introducción. Non: KUTXA FUNDAZIOA (Arg.) *Gipuzkoa ikusmiran-puntos de vista*. 13-76 or. Donostia: Kutxa Fundazioa.
- (1997): Sombras en la caverna. El tempo vasco en el cine. *Ikusgaiak* 2. zbkia., 1-235.

- HAMMER, D. ETA WILDAVSKY, A. (1990): "La entrevista semi-estructurada de final abierto". *Historia y Fuente Oral*, 4. zbkia., 23-61 or. Helbide honetatik berreskuratua: <https://www.jstor.org/stable/i27753285> [2017/V/29]
- HARANBURU, A ETA IRIONDO J.M (1980): Bertsolaritza gaur eta bihar. *Jakin*, 14/15. zbkia., 38-49 or.
- HARISTOY, P. (1895): Le capitane Duvoisin et ses travaux. *Euskal-Erria*, 1895eko 1. zbkia., 213-217 or.
- HARITSCHHELHAR, J. (1986): L'antibertsolarisme dans "Basa Koplariari" (1838) de Jean Baptiste Camoussarry (1815-1842). *RIEV*, XXI. liburukia, 1. zbkia., 97-112 or.
- (1969): Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862) : contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIX siècle. Baiona: Société des Amis du Musée Basque.
- (1962): Etchahun et Chamisso. *Gure Herria*, 2-3. zbkia., 99-113 or.
- HERNANDEZ, A. (1998): Antoine d'Abbadie eta garaikideen sare intelektuala. Non: *Antoine d'Abbadie 1897-1997 : Congrès International : Ezohiko Kongresua, Hendaia-Sare, 1997, Euskaltzaindia-Eusko Ikaskuntza*, 231-262 or. Bilbo: Euskaltzaindia-Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- HERNANDEZ, J.M. (2019): Hutsuneak du hitza. *Jakin*, 231. zbkia, 39-57 or.
- HERNANDORENA KULTUR ELKARTEA (2010): Pello Mari Otañoren arnasa (1857-1910). Zizurkilgo Udala.
- HUTCHINSON, J. (2004): Myth against myth: the nation as ethnic overlay. Non: GUIBERNAU, M. ETA HUTCHINSON, J. (Arg.). *History and Natinoal Destiny: Ethnosymbolism and its Critics*, 109-123 or. Oxford: Blacwell Publishing.
- HOBBSAWN, E. ETA RANGER, T. (2002): La invención de la tradición. Bartzelona: Crítica.
- IGLESIAS, H. (2010): Itzultzailearen hitzaurrea. In *Aitor.-Légende cantabre/Aitor.-Leyenda cantabra/Aitor-Kantabriar kondaira*, 127-138 or. Erevan: Asoghik.
- INTXAUSTI, J. (2014a): Euskara eta hizkuntzak, gizartean. I. Aitorpenak. Ekinbideak. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (2014b): Euskara eta hizkuntzak, gizartean. II. Jarrerak. Politikak. Pedagogiak. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (1987): Manuel Lekuona. Bidegileak, 1. karpeta. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- IRAOLA, R. (2000): Joxerra Garzia: "Euskalgintzari nire ekarpen txoa egin nahiak bultzatu ninduen horrelako lan bat egitera". *Bertsolari*, 37. zbkia, 120-144 or.
- IRAZU, A. (2017a): Andoingo herritik dator notizia. *Bertsolari*, 107 zbkia., 10-39 or.
- (2017b): Rocka puntua! Arre (Nafarroa): Pamiela.
- IRIGARAI, J.A. (2004): Fermin Irigarai *Larreko* (1969-1949). Bidegileak, 36. karpeta. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- IRIONDO, J.M. (2014a): Basarri Gerraurrean kazetari 1931-1935. Tolosa: Auspoa.
- (2014b): Basarri Gerrartean kazetari. 1936-1943. Tolosa: Auspoa.
- (2013a): Basarri kazetari. *Bertsolari*, 91. zbkia., 172-184 or.
- (2013b): Basarriren mendeurrena. *Euskerak*, 58-1 zbkia., 55-66 or.
- (2010): Antonio Zavala Echeverria. Bidegileak, 61. karpeta. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (2005): Basarri bat-batean I. Auspoa Liburutegia 296, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- (2004): Teodoro Hernandorena (1898-1994). Bidegileak, 36. karpeta. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- (2002): Iñaki Eizmendi Basarri (1913-1999). Bidegileak, 26. karpeta. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (2000): Loiolako Herri Irratia-Bertsolari gazteen sariketa (Argitaratu gabea).
- (1970): Bertsolarien IX biltzarra. Markinako bertsolarien bilkuran emandako hitzaldia (Argitaratu gabea).
- ITURRIA, K. (1992b): Kantari nator. Non: EIZMENDI, I. *Nere Bordatxotik*. Auspoaren Sail Nagusia, 2. zbkia, 22-22 or. Tolosa: Auspoa.
- ITURRIOTZ, I. (2008): Bertsolaritza: Jardun herrikoia masa-komunikazioan barna. “Euskal Herria XXI. Euskaldunak marko politiko, kultural eta linguistiko berriei begira” doktorego programaren baitan aurkezturiko lana (Argitaratu gabea).
- IZAGIRRE, K. (2002): Joseba Zubimendi Martiarena idazle eta euskalgin handiaren berri. Non: ZUBIMENDI, J. *Bertso-miñez*, 9-23 or. Irun: Alberdania.
- IZTUETA, J.I. (1990): Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia. Mari Jose Ezeizabarrenaren edizioa, Euskal Editorren Elkarte (jatorrizkoa 1824). Klasikoen Gordailua. Helbide honetan berreskuratua:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/I/IztuetaDantza.htm> [2017/IX/12]
- (1969): Gipuzkoako probintziaren kondaira edo historia. Auñamendiren Eusko Entziklopedian jasotako facsimila (jatorrizkoa 1847). Klasikoen Gordailua. Helbide honetatik berreskuratua: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/I/IztuetaGipuzkoa.htm> [2017/IX/13]
- (1826): Euscaldun anciña ancina ta are lendabico etorquien dantza eta iritci gaitzic gabecoen soñu gogoangariac beren itz neurtu edo bersoaquin. Donostia: Ignacio Ramon Barojaren moldiztegia. Helbide honetatik berreskura: <http://bdh-rd.bne.es/viewer.vm?id=0000114258&page=1> [2017/IX/13]
- JORAJURIA, P. (2007): *Herria* kazeta eta bertsolaritza. *Bertsolari*, 66. zbkia., 156-161 or.
- JUARISTI, P. (2003): Gizarte ikerketarako teknikak: teoria eta adibideak. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- KAMIO, J. (2011a): 2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusia I. Neure (H)egitik blogetik (2011/II/17). Helbide honetatik berreskuratua [2017/IV/02]:
<https://neurehegitik.wordpress.com/2011/02/17/2005eko-bertsolari-txapelketa-nagusia-i/>
- (2011b): 2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusia II. Neure (H)egitik blogetik (2011/II/21). Helbide honetatik berreskuratua [2017/IV/02]:
<https://neurehegitik.wordpress.com/2011/02/21/2005eko-bertsolari-txapelketa-nagusia-ii/>
- (2009): Maialen Lujanbioren garaia. Neure (H)egitik blogetik (2009/XII/14). Helbide honetatik berreskuratua [2017/IV/02]:
<https://neurehegitik.wordpress.com/2009/12/14/maialen-lujanbioren-garaia/>
- KALTZAKORTA, X. (2002): Gregorio Arrueren Peru Abarkaren itzulpena; Mogelen Peru Abarca noiz idatzi zen?. *Euskera : Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, XLVII, liburukia, 2 zbkia., 425-438 or.
- (1999): Alfonso Irigoien (1929-1996). Bidegileak, 15. karpeta. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- KAZABON, A. eta MENDIZABAL, M. (1993): Ahozkotasuna eta hizkuntza. *Jakin*, 75. zbkia., 117-132 or.
- KINTANA, X. (2005): Euskarazko prentsaren hasiera eta garapena Bilbon (1815-1937). *Bidebarrieta*, 16. zbkia., 141-169 or.
- (1999): Federiko Krutwig (1921-1998). Bidegileak, 15. karpeta. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- KITCHENHAM A. D. (2010): Mixed Methods in Case Study Research. Non: MILLS, A. J.; DUREPOS, G. et. WIEBE, E. (Arg.). *Encyclopedia of Case Study Research*, 562-564 or.

- Thousand Oaks: Sage publications. DOI: <http://dx.doi.org/10.4135/9781412957397.n208>.
Helbide honetatik berreskuratua:
<http://sk.sagepub.com/reference/download/casestudy/n208.pdf> [2017/VI/03]
- KRUTWIG, F. ETA KINTANA, X. (1997): Alfonso Irigoien Etxebarria. *Euskara*, XLII. liburukia (2. aldia), 401-405 or.
- KVALE, S (1996): Interviews: An Introduction to Qualitative Research Interviewing. London: Sage Publications.
- LA BOINA TALDEA (1984): P. Diez Ulzurrun... azken Irunshemea?. *Korrok*, 2 zbkia, 12-17 or.
- LABORDE, D. (1998): Une archéologie du bertularisme. Non: *Antoine d'Abbadie 1897-1997 : Congrès International : Ezohiko Kongresua, Hendaia-Sare, 1997, Euskaltzaindia-Eusko Ikaskuntza*, 601-620 or. Bilbo: Euskaltzaindia-Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- LAFITTE, P. (1935): Koblakarien legea. Baiona: Gure Herria.
- LANDABEREA, J. (2012): Bertsolarien lehenengo grabazio komertziala. *Oarso*, 47. zenbakia, 80-82 or.
- LARAÑA, E. (1999): La Construcción de los Movimientos Sociales. Madril: Alianza.
- LARRAÑAGA, J. (2014): Jolas sakona. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- LARREATEGI, T. (2012): Lopategi eta Azpillaga: Aintzindariak. *Bertsolari*, 87. zbkia., 16-43 or.
- LARRINAGA, A. (2007a): Kulturgileak eta kulturaren esparrua I. Tradizio intelektualak beranduko modernitatean. Utriusque Vasconiae: Donostia.
- (2007b): Kulturgileak eta kulturaren esparrua II. Euskal kulturgileak euskalgintza mugimenduaren eraikuntzan. Utriusque Vasconiae: Donostia.
- (2006): Kulturgintza esparruko eragileen tradizio intelektualak: kulturgileak gizarte mugimenduetan. Bilbo: UPV-EHU.
- LASA, X. (2008): Begi kolpea. Teodoro Hernandorenaren biografia. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Zizurkil.
- LASARTE, G.; ALVAREZ URÍA, A.; UGALDE, A.I.; LEKUE, P. ET MARTINEZ, J. (2016): Emakume bertsolariak: ahanzturatik diskurtso propiora. Gasteiz: Emakunde. Helbide honetatik berreskuratua:
http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_bekak/eu_def/djuntos/beca.2015.2.emakume_bertsolariak.pdf [2019/III/22]
- LEKUONA, J.M. (1998): Pedro Mari Otaño: Lore-Jokoetako poeta bat Hegoaldean. Non: *Antoine d'Abbadie 1897-1997 : Congrès International : Ezohiko Kongresua, Hendaia-Sare, 1997, Euskaltzaindia-Eusko Ikaskuntza*, 523-534 or. Bilbo: Euskaltzaindia-Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- (1995): Manuel Lekuona Etxabeguren. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- (1992): Basarriren bertsolari proiektua. Luis Villasanteri omenaldia. in A.A.V.V., Iker-VI. Luis Villasanteri omenaldia, 283-296 or. Euskaltzaindia: Bilbo
- (1987): Iparragirre eta bertsolaritza. Non: *Iparragirre*, 109-133 or. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (1986): Basarri eta Uztapide. *Egan*, 1986-2 zbkia., 113-120 or.
- (1985): Ahozko literatura. Non: INTXAUSTI, J. (Arg.). *Euskal Herria*, I. liburukia, 457-465 or. Arrasate: Lankide Aurrezki Kutxa.
- (1982): Ahozko euskal literatura. Donostia: Erein.
- (1980): Jendaurreko bertsolaritza. *Jakin* 14/15. zbkia., 115-133 or.
- LEKUONA, M: (1985): Basarriren figura euskal kulturaren. *Egan* 1985-1/2 zbkia., 7-16 or.
- (1978) Idaz-lan guztiak - 1. Aozko Literatura. Kardaberaz Bilduma XXII. liburukia. Tolosa: Hedapenerako Liburudenda Teknikoa.

- (1950): Atadi-Antzera. Non: EIZMENDI, I.: Basarri'ren bertso sorta. Zarautz: Itxaropena, 4-5 or.
- (1934): La Poesía Popular Vasca. Conferencia pronunciada en el V. Congreso de Estudios Vascos, celebrado en Vergara del 31 de Agosto al 8 de Septiembre de 1930. Eusko Ikaskuntza. Helbide honetatik: <http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/948> [2016/XI/22]
- (1918). La Métrica Vasca. Discurso leído en la solemne apertura del curso académico de 1918 a 1919 en el Seminario Conciliar de Vitoria. Gasteiz: Montepío diocesano. Helbide honetatik berreskuratua: <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/24664> [2016/XI/22]
- LIZUNDIA, J.L. (1998): Proyecto de Academia Bascongada. 1886ko Euskal Jaien emaitza eta beste. Non: Antoine d'Abbadie, 1897-1997: congrès international (Hendaia, 1997), 305-325 or. Donostia: Eusko Ikaskuntza; Bilbo: Euskaltzaindia.
- LOIDI, A. (1991): Uzta bertsoa denean. *Bertsolari*, 4 zbkia., 24-31 or.
- LÓPEZ ANTÓN J.J. (1997): 'Domingo de Aguirre, la égloga del paisaje vasco'. *Oihenart*, 15. zbkia., 123-140 or.
- MADARIAGA, J. (2008): Apologistas y detractores de la lengua vasca. Donostia: FEDHAV.
- MAIA, J. (2017): Berriak jaio ginen. Andoain: Lanku Bertso Zerbitzuak.
- MAJUELO, E. (2011): La idea de historia en Arturo Campión. Bilbo: Eusko Ikaskuntza.
- MANTEROLA, J. (1880): Cancionero Vasco. III. liburukia. Donostia: Antonio Baroja. Helbide honetatik berreskuratua: <http://www.liburuklik.euskadi.eus/jspui/handle/10771/24857> [2017/X/12]
- (1877). Cancionero Vasco. I. liburukia. Donostia: Juan Oses. Helbide honetatik berreskuratua: <http://www.liburuklik.euskadi.eus/jspui/handle/10771/24857> [2017/X/12]
- MARTIN, J. (2009): Duela mende Erdiko txapelketa hura... *Bertsolari*, 76. zbkia., 22-47 or.
- MARTIN-BARBERO, J. (1987): Comunicación pueblo y cultura en el tiempo de las transnacionales. Non: FELAFACS (Arg.): *Comunicación y culturas populares en Latinoamérica*. México: Gustavo Gili, 38-50 or.
- MARTÍNEZ CARRAZO, P. (2006): El método de estudio de caso: estrategia metodológica de la investigación científica. *Pensamiento & gestión*, 20. zbkia., 165-193 or. Helbide honetatik berreskuratua: <http://www.redalyc.org/pdf/646/64602005.pdf> [2017/VI/03]
- MARTINEZ, J. (2016): Sor Lekutik Avignonera "bultzi leiotik", Euskarazko zinemaren hastapenen bidaia. *Zer*, XXI. liburukia, 41. zbkia., 171-189 or.
- (2015): Gure (zinemaren) Sor Lekua. Euskarazko lehen filmaren aurkikuntza, historia eta analisisa. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- (2012): Irratia: Bertso mezularia. *Bertsolari*, 88. zbkia., 52-85 or.
- (2011): Bertsoa eta zinemaren historia petrala. *Bertsolari*, 83. zbkia., 20-57 or.
- MARTINEZ DE LUNA, I. (2010): Framing: Komunikazio-teorietatik euskararen beharizanetara. *Bat*, 76. zbkia., 53-67 or.
- MAZURE, P.A. (1839): Historie de Béarn et du Pays Basque. Pau: Vignancour. Helbide honetatik: https://www.europeana.eu/portal/es/record/9200143/BibliographicResource_2000069378653.html [2017/X/17]
- MELUCCI, A. (2001): Vivencia y convivencia, teoría social para una era de la información. Madril: Trotta.
- (1994): "¿Qué hay de Nuevo en los Nuevos Movimientos Sociales?". Non: LARAÑA E. ETA GUSFIELD J. (Arg.). *Los nuevos movimientos sociales: de la ideología a la identidad*, 119-149 or. Madril: CIS.

- MERLO-MORAT, P. (2000): El folletín moderno el regreso de un género decimonónico. *RILCE*, XVI. Liburukia, 3. Zbkia., 607-624 or.
- MESO, K. (2008): Euskarazko hedabideak interneten. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 68. zbkia., 51-61 or.
- MICHEL, F. (1857): Le pays basque: sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique. Paris-Londres-Edinburgo: Didot-Wiliams & Norgate. Helbide honetatik berreskuratua: <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/12302> [2017/X/16]
- (1847): Introduction. In *Proverbes Basques recueillis par Arnauld Oihenart suivis des poésies basques du même auteur*, 1-66 or. Bordele: Prosper Faye. Helbide honetatik berreskuratua: <http://www.liburuklik.euskadi.eus/jspui/handle/10771/24676> [2017/X/11]
- MOGEL, J.A. (1881): El doctor Peru Abarca catedrático de la lengua vascongada o diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan. Durango: Julian de Elizalde. Klasikoen Gordailuen baitako argitaldia: <https://klasikoak.armiarma.eus/pdf/MogelJAAbarka.pdf> [2018/XII/02]
- MONTAIGNE de, M. (1986): Diario de viaje a Italia, por Suiza y Alemania. Bartzelona: Península.
- MONTERO, R. (1997): La mirada del testigo. Non: SILVESTER, C. (Ed.) Las grandes entrevistas de la historia (1859-1992), 2-4 or. Madril: El País Aguilar.
- MOREL-BOROTRA, N. (2000): Le chant et l'identification culturelle des Basques (1800-1950). *Lapurdum*, 5. Zbkia., 351-381 or.
- MOUILLOT, F. (2009): Resisting Poems: Expressions of Dissent and Hegemony in Modern Basque Bertsolaritza. *Critical Studies in Improvisation / Études Critiques en Improvisation, University of Guelph (Canada)*, V. liburukia, 1. Zbkia., 1-12 or. DOI: 10.21083 / csieci.v5i1.939 Helbide honetatik berreskuratua: <https://www.criticalimprov.com/index.php/csieci/article/view/939/1610> [2018/I/18]
- MUJIKA, A. (2015): Bertsolariak nora eta noraino eramango. *Bertsolari*, 97. zbkia., 20-57 or.
- MUJIKA, I. (2012a): Ander Arzelus Toledo 'Luzear'. Non: ORDOZGOITI, K., GARMENDIA, E. ET MUJIKA, I. 1932-2012. *Euskara hegaz: Euskal irratiak 80 urte*, 44-45 or. Koldo Mitxelena Kulturuneko liburu bilduma 10. zbkia.. Gipuzkoako Foru Aldundia: Donostia.
- (2012b): Joseba Zubimendi Martiarena. Non: ORDOZGOITI, K., GARMENDIA, E. ET MUJIKA, I. 1932-2012. *Euskara hegaz: Euskal irratiak 80 urte*, 44-45 or. Koldo Mitxelena Kulturuneko liburu bilduma 10. zbkia.. Gipuzkoako Foru Aldundia: Donostia.
- (2003): Ander Arzelus Toleso 'Luzear' (1898-1949)/Sei eguberriren abestia. Non: Charles Dickens 'Eguarri Abestia', 'Luzear'ek euskeratua, 7-35 or. Itzultzaile Aintzindariak bilduma. Donostia: EIZIE.
- MURUA, I. (2018): Supporting German occupiers: the pro-Vichy stance of the Basque newspaper 'Eskualduna'. *Communication & Society*, 31 liburukia, XX
- MURUA, I. (2002): Autore-bertsolaritzarantz. *Bertsolari*, 49. zbkia., 93-95 or.
- ODRIOZOLA, J.M. (1992): Euskararen aldeko herri-mugimenduak: praktika eta teoriaren arteko uztardura. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 6. zbkia., 25-41 or.
- ODRIOZOLA, M. (1996): Bertsolaritzari txekoa. *Bertsolari*, 23. Zbkia., 26-39 or.
- OH! EUZKADI (1982): Manuel Lekuona. *Oh! Euzkadi*, 14. zbkia., 12-24 or. Helbide honetatik berreskuratua: <https://andima.armiarma.eus/euzk/euzk1506.htm> [2018/I/22]
- (1980): 'Berto txiki bat bota behar duk mesedez'. *Oh! Euzkadi*, 3 zbkia. <https://andima.armiarma.eus/euzk/euzk0409.htm> [2018/I/22]
- OIARZABAL, P. J. ETA TABERNILLA, G. (2017): 'Basque code talkers' en la Segunda Guerra Mundial. *Sabigain*, 3. zbkia., 1-155

- OLAIZOLA, M. (1975): Lengo egunak gogoan II. Tolosa: Auspoa Saila.
- OLASO, J.F.; AGIRRE, J. (1999): Iparragirre, Izena eta Izana, Retrato sin retoques. Non: MENDIBIL, G. (Arg.) *José María Iparragirre : erro-urratsak = raiz y viento*, I. **liburukia, xx or.** Igorre: Keinu.
- ONG, W. (2016): Oralidad y escritura: tecnologías de la palabra. Mexiko Hiria: Fondo de Cultura Económica.
- ORBE, M. (2012): Zamorako apaiz kartzela. Eliza eta Estatuaren presondegia (1968-1976). *Jakin*, 191. zbkia., 15-29 or.
- ORDOZGOITI, K. (2012): Euskara hegaz. Euskal irratia 80 urte. Non: ORDOZGOITI, K., GARMENDIA, E. ET MUJICA, I. *1932-2012. Euskara hegaz: Euskal irratia 80 urte*, 5-41 or. Koldo Mitxelena Kulturuneko liburu bilduma 10. zbkia.. Gipuzkoako Foru Aldundia: Donostia.
- ORMAETXEA, N. (1991): Euskal literaturaren atze edo edesti laburra. Paulo Iztuetaren edizioa, ‘Orixe. Idazlan guztiak III: Artikulu eta saiakerak’, Etor. Klasikoen Gordailua. Helbide honetatik berreskuratua: <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/O/OrixeEdesti.htm> [2018/XI/27]
- ORTIZ, J. (2010): «Esto no es Guernica...». Fotografías en prensa de la destrucción de Guernica durante la guerra civil española. Estudios sobre el Mensaje Periodístico, 16. zbkia., 349-368 or. Helbide honetatik berreskuratua: <https://guernica.museoreinasofia.es/documento/esto-no-es-guernica-fotografias-en-prensa-de-la-destruccion-de-guernica-durante-la-guerra-civil-espanola> [2018/VI/11]
- OTAEGI, L. (1998): Ariztimuño, Jose ‘Aitzol’. Bidegileak, 10. karpeta. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (1996): Aitzol eta Euskaltzaleak. *Euskera*, XLI. liburukia, 3. zbkia., 499-507 or.
- (1993): Lizardiren poetika pizkundearen ingurumariaren argitan. Bilbo: UD/DU. http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/lourdes_otaegi_imaz_TESI_S.pdf helbidetik berreskuratua [2017/XII/10]
- (1983): Aitzolen proiektu kulturalaz. *Jakin*, 29. Zbkia, 18-27 or.
- OTERMIN, J.M. (2014): Fernando Amezketarra (1764-2014). Auspoa liburutegia. Donostia: Auspoa-Gipuzkoako Foru Aldundia.
- (2008): Amezketa, largo y tortuoso camino. Amezketa-Donostia: Amezketako Udala-Kutxa.
- (2005): Amezketa: bide luze bezain malkarrak. Amezketa: Amezketako Udala.
- PAGOLA, M. (1977): *Deia*, Euskal Herriko lehen egunkaria. *Jakin*, 3 zbkia, 84-85 or.
- PAIA, F. (2011): Zelan eragiten dio txapelketak sormenari? Epaileak kalitate ziurtagiri?. *Bertsolari*, 82 zbkia., 92-129 or.
- PAYA, X. (2013): Ahozko Euskal Literaturaren Antologia/Antología de Literatura Oral Vasca/Anthology of Basque Oral Literature. Donostia: Etxepare Institutua.
- (2012): ‘Komunitate inprobisatuak’: Euskal identitate nazionala bertsoaritzan. Euskal Ikasketen graduondokorako lana MU (Argitaratu gabea).
- PERAL GARCÍA del, S. (2005): Michel de Montaigne y su ensayo “De los caníbales”. *Aldadis*, 7. zbkia., 64-65 or.
- PÉREZ ALDASORO, P. (2011): Zapiraindaren bertsoak: Guda Zibilaren inguruko testigantza tragikoak. *Kobie*, 15. zbkia., 23-36 or.
- PÉREZ ALVAREZ, A. ETA GÓMEZ, B. (2010): Los textos biográficos en las revistas gráficas españolas de la II República. Actas – II Congreso Internacional Latina de Comunicación Social – Universidad La Laguna, diciembre de 2010.
- PERURENA, P. (1991a): ‘Basarri’-rekin buruz buru. *Mazantini*, 1. zbkia. Helbide honetatik berreskuratua: <https://andima.armiarma.eus/maza/maza0105.htm> [2018/III/20]

- (1991b): ‘Baserri’-rekin sahieska bertsoaritzari buruz. *Mazantini*, 1. zbkia. Helbide honetatik berreskuratua: <https://andima.armiarma.eus/maza/maza0106.htm> [2018/III/20]
- (1987): Bapateko bertsoaritzak jada ez dit balio niri. *Korrok*, 9 zbkia, 26-30 or. Helbide honetatik berreskuratua: <https://andima.armiarma.eus/korr/korr0915.htm> [2018/III/20]
- RAMIREZ DE LA PISCINA, T. (2015): Ikergaia zedarrizuz, helburuak finkatuz. Non: RAMIREZ DE LA PISCINA, T.; AIESTARAN, A. ET AL. Kalitatezko kazetaritza: Ba al dago etorkizunik?. Bilbo: UPV-EHU Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- RÍO, D. (2002): Robert Laxalt: La voz de los vascos en la literatura norteamericana. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- ROLDAN, C. (2001): Breve apunte histórico sobre el cine de animación vasco. *Euskonews & Media* 135. zbkia. Helbide honetatik berreskuratua: <http://www.euskonews.eus/0135zbk/gaia13502es.html> [2019/VI/14]
- (1999): El cine del País Vasco: de Amalur (1968) a Airbag (1997). *Ikusgaiak*, 3. zbkia., 1-407 or. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- RODRIGO, M. (2002): La comunicacion intercultural. Helbide honetatik berreskuratua [2016/IV/20]: <http://didac.unizar.es/jbernal/comintercultural.pdf>
- RODRIGUEZ, F. (1988): Bertsoaritzak, formarik gabeko heziketa. Bilbo: UPV-EHU.
- RUBIO, C. (2000): La imagen de los vascos en los viajeros europeos del siglo XIX. *Oihenart*, 18. zbkia., 95-125 or.
- RUBIO, M. (2019): Bertsoari neurria hartzen; Miren Amuriza, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio. *Jakin*, 231. zbkia., 59-95 or.
- SAID, E. W. (2008): Orientalismo. Bartzelona: Random House Mondadori.
- SANCHEZ ERAKUSKIN, J. (1994): El nudo corredizo: Euskal Herria bajo el primer franquismo. Iruñea: Txalaparta.
- SAN MARTIN, J. (1984): Jose Manterola, egile eta eragile. *Euskera : Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, XXIX. liburukia, 2. zbkia., 443-448 or.
- (1981): Iztueta erromantikoa (II)". Donostia: CAPG. Helbide honetatik berreskuratua: <http://zubitegia.armiarma.com/?p=mar-204> [2018/I/04]
- (1967): Iztueta, el precursor del folklore Vasco. In *Eusko Entziklopedia, II liburukia*, 428 or. Donostia: Auñamendi.
- SANTUTXUKO BERTSO ESKOLA (1981): Santutxuko bertsolari-eskola. *Jakin* 17-18. zbkia., 165-179 or.
- SARASOLA, I. (1982): Historia social de la literatura vasca. Madril: Akal.
- (1971): Euskal literaturaren historia. Donostia: Lur.
- SARASUA, J. (2016): Baina milaka? Brasilgo repentismoari bisita. Andoain: Bertsolari.
- (2013): Hitzunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak. Iruñea: Pamiela.
- (2007): Social Features Of Bertsoaritzak. *Oral Tradition*, Volume 22, number 2, 2007, 33-46 or.
- (2003): Bertsoaritzaren gizarte eta kultur ezaugarriak. In *Ahozko inprobisazioa munduan topaketak*, 210-223 or. EHBE: Donostia.
- (1995): Bertsoaritzaren eredu komunikatiboa: ezaugarri batzuen bueltan. *Bertsolari*, 19. zbkia., 43-45 or.
- (1993): Herri-mailako jardunaz. *Jakin*, 75. zbkia., 33-51 or.
- (1992): Alfontso Irigoien, Euskaltzain liberala. *Bertsolari*, 5. zbkia., 10-16 or.
- SARRIONAINDIA, J. (2015): Lapur banden etika ala politika. Arte (Nafarroa): Pamiela.
- (2012): ¿Somos como moros en la niebla?. Iruña: Pamiela.
- SIADeco (1995): Bertsozaletasunari buruzko azterketa. *Jakin*, 87. zbkia., 1-64 or.
- SILVESTER, C. (1997): Las grandes entrevistas de la historia (1859-1992). Madril: El País Aguilar.

- SMITH, A. (1997): La identidad nacional. Madril: Trama Editorial.
- STRANG, D. ETA SOULE, S. A. (1998): Diffusion in organizations and social movements: From Hybrid Corn to Poison Pills. *Annual Review of Sociology*, 24. zbkia., 265-290 or. Helbide honetatik berreskuratua: <https://www.annualreviews.org/doi/10.1146/annurev.soc.24.1.265> [2017/VII/25]
- SUDUPE, P. (2012): Antonio Arrue: Euskaltzaindiaren eta Francoren erregimenaren laguntzaile. In *Euskera* LVII. liburukia, 3. zbkia., 823-838 or.
- (2011): 50eko hamarkadako euskal literatura II, Kazetaritza eta saiakera. *Utriusque Vasconiae*, Donostia.
- TABERNA, M. (2010): Txirrita epaileen jomugan (Legasa 1913 – Iruñea 1916). *Bertsolari*, 110. zbkia., 8-96 or.
- TASHAKKORI, A. ETA TEDDLIE, C. (2008). Quality of inferences in Mixed Methods Research: Calling for an integrative framework. Non: BERGMAN, M. (Arg.), *Advances in Mixed Methods Research: Theories and Applications*, 101-119 or. Thousand Oaks (AEB): Sage Publications.
- THOMPSON, J.B. (1998): Los media y la modernidad. Una teoría de los medios de comunicación. Paidós: Barcelona.
- (1993): Ideología y cultura moderna. Teoría Crítica social en la era de los medios de comunicación de masas. Universidad Autónoma Metropolitana: México D.F..
- (1991): La comunicación masiva y la cultura moderna. *Versión. Estudios de comunicación y política*, 1. zbkia., 43-64 or.
- TOKIKOM GOGOETA TALDEA (2013): Euskal hedabideen etxea, tokikoen ikuspegitik. Arrasate: Mondragon Unibertsitatea. Helbide honetatik berreskuratua: https://tokikom.eus/wp-content/uploads/2013/11/EUSKAL_HEDABIDEEN_ETXEA.pdf [2019/VI/19]
- TOLEDO, A.M. (1998): Antoine d'Abbadie Hegoaldean (1879-1895). Non: *Antoine d'Abbadie 1897-1997 : Congrès International : Ezohiko Kongresua, Hendaia-Sare, 1997, Euskaltzaindia-Eusko Ikaskuntza*, 535-546 or. Bilbo: Euskaltzaindia-Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- TOPAGUNEA (2011): XXI. mendeko euskaldunon elkarteak. Oinarriparrak. Helbide honetatik berreskuratua: <http://topagunea.eus/dokumentua/oinarriparrak-adosteko-txostena/> [2018/II/03]
- TOPOLSKY, J. (1992): Metodología de la historia. Madril: Catedra.
- TORREALDAI, J.M. (2000): Artaziak. Euskal liburuak eta Francoren zentsura 1936-1983. Susa, Zarautz.
- (1997): 'Euskal kultura gaur'. Donostia: Jakin.
- (1987): Bertsolariei inkesta. *Jakin*, 44. zbkia., 101-214 or.
- (1982): Euskararen zapalkuntza (1936-1939). *Jakin*, 24. zbkia., 5-73 or.
- (1977a): Euskal idazleak gaur: historia social de la lengua y la literatura vascas. Donostia: Jakin.
- (1977b): Euskal kazetaritza gaur eta bihar. *Euskera*, XXII. liburukia, 58-65 or.
- TOUYAROU, J. (2008): Pierre Lhande eta euskal literaturaren historia. *IKER*, 21. zbkia., 139-160 or.
- UBEDA, J.A.; AROZENA, A. ETA LASA, X. (2008): Jose Mari Iriondo, euskal kulturaren komunikatzaile. Andoain: Andoaingo Udala.
- UGALDE, M. (1988): Biografía de Aitzol. Non: Jose Ariztimuño 'Aitzol'. *Obras Completas* I. liburukia, 88-94 or. Donostia: Erein.
- UNSAIN, J. M. (1985). El cine y los vascos. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- URIA, I. (1995): Euskal prentsa sortzen. *Jakin*, 89. zbkia., 49-64 or.

- URKAREGI, J. (1987): Zenbait topiko aitzol zenari buruz. *Jakin*, 45. zbkia., 137-145 or.
- URKIZA, J. (1999): Aldizkari eta egunkarietako bertso eta olerkien bilduma bibliografikoa. Helbide honetatik berreskuratua: <http://urkiza.armiarma.eus/cgi-bin/urkiza/EBMODBIL.pl> [2016/IX/29]
- (1992): Euskal idazleen izenordeak. Karmel, 1992-1. zbkia., 27-41 or.
- URKIZU, P. (2011): Agosti Chahoren obraz eta bere eraginaz. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, LVI. liburukia, 3. zbkia., 737-788 or.
- (2006): Aitzin solasa, In *Agosti Chahoren kantutegia*, 13-34 or. Zarautz: Susa.
- (2000a): Siglo XIX. Non: URKIZU, P. (Arg.) *Historia de la literatura vasca*, 297-388 or. Madril: UNED.
- (2000b): Wentworth Webster (1828-1907). Bidegileak, 18. karpeta. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (1997a): Recueil de textes ethnographiques géodésiques Linguistiques littéraires. Donostia: Eusko Ikaskuntza; Bilbo: Euskaltzaindia.
- (1997b): Anton Abbadiaren Koplarien guduak (1851-1897). Donostia: Eusko Ikaskuntza; Bilbo: Euskaltzaindia.
- URKIZU, P. ; AZURMENDI, X. (1991): Klaudio Otaegi olerkaria (1836-1890). Donostia: Etor.
- VALVERDE, L. (1998): Antoine d'Abbadie eta mende amaierako mugimendu euskaltzalea. Non: *Antoine d'Abbadie 1897-1997 : Congrès International : Ezohiko Kongresua, Hendaia-Sare, 1997, Euskaltzaindia-Eusko Ikaskuntza*, 289-303 or. Bilbo: Euskaltzaindia-Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- VINSON, J. (1984): 'Journaux et Revues'. In *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*, II. liburukia, III. zatia, 721-791 or. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Julio Urkijo euskal filologia mintegia.
- VIZCAINO, J. (2013): Lo que también es mio. *Bertsolari*, 89. zbkia, 18-19 or.
- XARRITON, P. (1987): Iparragirri buruz bizpalau xehetasun Iparraldetik. In *Iparragirre*, 301-307 or. Jagon-2. Bilbo: Euskaltzaindia.
- YACUZZI, E. (2005): El estudio de caso como metodología de investigación: teoría, mecanismos causales, validación. Documentos de Trabajo, 296 zbkia.. Buenos Aires: Universidad del CEMA. Helbide honetatik berreskuratua: <https://www.ucema.edu.ar/publicaciones/download/documentos/296.pdf> [2017/VI/06]
- ZABALO, J. (2004): Xaho, el genio de Zuberoa. Tafalla: Txalaparta.
- ZABALTZA, X. (2011): Agosti Xaho, aintzindari bakartia. Bidegileak, 62. karpeta. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- ZALBIDE, M. (1988): "Mende-hasierako Euskalgintza: Urratsak eta Hutsuneak". II. Euskal Mundu-Biltzarra. Euskara Biltzarra, II. alea, 389-412 or. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.
- ZALBIDEA, B. (1998): Mugimenduko egunkariak Euskadin: *Arriba España, Hierro, La Voz de España* eta *Unidad*. *Jakin*, 105. zbkia., 11-34 or.
- ZAVALA, A. (2008): Aurkezpena. In ARRUE, A., Idaztiak eta Hitzaldiak. Euskaltzainak bilduma, 8. zbkia., 11-25 or. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (2006a) Erri-literaturaren alde Doctor honoris causa izendapenean-En el nombramiento de Doctor honoris causa, Deusto, 1999-XI-17. Non: *Auspoaren auspoa IV*, 25-46 orr, Auspoa Liburutegia 300. zbkia. Donostia: Auspoa-Gipuzkoako Foru Aldundia.
- (2006b): Itzaldia 2003ko maiatzean, Renon-n (USA) erri-literaturari buruzko jardunaldietan. Non: *Auspoaren auspoa IV*, 209-224 orr, Auspoa Liburutegia 300 zbkia, Auspoa-Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- (1997a): Aitzolen kanta bilduma. *Oihenart*, 15. zbkia., 169-175 or.
- (1997b): Bizitza Izbide/Inozentzio Olea. Auspa Liburutegia, 245, zbkia.

- (1996a): Bertso berri billa Euskalerrian zear (Arantzazun 1956ko irailaren 15ean Euskaltzaindiaren Batzarrean aurkezturiko hitzaldia). Non: *Auspoaren auspoa I*, 23-40 or. Auspoa Liburutegia 238. zbkia.. Oiartzun: Sendoa.
 - (1996b): Itzaurrea (1960-XII-18-ko bertsolari-txapelketako bertso-liburuarentzat idatzia). Non: *Auspoaren auspoa I*, 101-108 or. Auspoa Liburutegia 238. zbkia.. Oiartzun: Sendoa.
 - (1996c): Bosquejo de historia del bertsolarismo (Conferencias pronunciadas en mayo de 1963 en los locales del E.U.T.G., en San Sebastián.). Non: *Auspoaren auspoa I*, 109-253 or. Auspoa Liburutegia 238 zbkia. Oiartzun: Sendoa.
 - (1996d): El bersolarismo (Trabajo escrito para el libro Guipúzcoa, editado por la Caja de Ahorros de Guipúzcoa, en 1968.). Non: *Auspoaren auspoa I*, 254-280 or. Auspoa Liburutegia 238 zbkia. Oiartzun: Sendoa.
 - (1996e): El cancionero vasco de las guerras carlistas (Trabajo leído en Reus, en el Coloquio sobre cançó tradicional, en setiembre de 1990.). Non: *Auspoaren auspoa II*, 95-108 or. Auspoa Liburutegia 238 zbkia. Oiartzun: Sendoa.
 - (1996f): Pensamiento intuitivo y discursivo en la poesía popular vasca (Conferencia pronunciada en Oyarzun, el 30 de diciembre de 1994, en el homenaje a don Manuel Lecuona, con motivo del centenario de su nacimiento.). Non: *Auspoaren auspoa II*, 243-268 or.
 - (1993a): Pedro Mari Otaño eta bere ingurua I. *Auspoaren Sail Nagusia*, 6. zbkia.. Oiartzun Sendoa.
 - (1993b): Pedro Mari Otaño eta bere ingurua II. *Auspoaren Sail Nagusia*, 7. zbkia.. Oiartzun: Sendoa.
 - (1993c): Bilintx, bertsoak eta bizitza. *Auspoaren Sail Nagusia*, 9. zbkia. Oiartzun: Sendoa.
 - (1992a): Txirrita/Jose Manuel Lujanbio Retegi. *Auspoaren Sail Nagusia*, 1. zbkia. Tolosa: Auspoa.
 - (1992b): Inazio Eizmendi ‘Basarri’. Non: EIZMENDI, I., Nere Bordatxotik. *Auspoaren Sail Nagusia*, 2. zbkia, 11-18 or. Tolosa: Auspoa.
 - (1980a): Bertso paperak. *Jakin*, 14-15. zbkia., 115-133 or.
 - (1980b): Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak. *Auspoa Liburutegia*, 142. zbkia.. Tolosa: Auspoa.
 - (1966): Fernando Amezketarra bertsolaria. *Auspoa Liburutegia*, 54. zbkia.. Tolosa: Auspoa.
- ZELAIETA, A. (2010): Gabriel Arestiren Etxea Hierro egunkarian. *Bidebarrieta*, 21 zbkia, 241-250 or.
- ZUBEROGOITIA, A. (2003). Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean. Euskara hutsezko komunikazio-esparru autozentratua trinkotzeko proposamena. Bilbo: UPV/EHU.
- ZUBIAGA, M. (2001): Intelektual bertsolariaren garaia. *Jakin*, 122. zbkia., 68-81 or.
- ZUBIMENDI, J. (2002): Bertso-miñez. Irun: Alberdania.
- (1936): Bertsolari-guduak, 1935-1936. Donostia: Euskaltzaleak.
- ZUAZO, K. (1991): Euskararen egoera Bonaparte-ren garaian. *Jakin*, 66. zbkia., 11-44 or.
- ZUBIRI, H. (2019): Kulturgintzari begiratzeko betaurreko berriak. *Bertsolaritzatik ikasten. Jakin*, 231. zbkia., 11-37 or.
- (2018): Hirugarren industria iraultzako bertsolaritza. *Bertsolari*, 112. zbkia., 18-47 or.
 - (2016): Kultur ekosistema sortzeko estrategia, bertsolaritza garaikidean transmisioa ulertzeko gako. Europa bat-batean. Kantu inprobisatuaren nazioarteko topaketa, Jardunaldi akademikoak. 2016 uztaila (Argitaratugabea).
- ZULAIKA, J. (2003a): Bertsolariaren jokia eta jolasa. In *Bertsolaritzaz bi saio*. Andoain: Bertsolari Liburuak.

- (2003b): Bertsolariak eta idazleak: aita-semearen arteko kondaira zaharra. In *Bertsolaritzaz bi saio*, Bertsolari Liburuak, Andoain.
- (2000): Del Cromañon al Carnaval. Donostia: Erein.